



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA  
2004





ARARTEKOAK  
EUSKO LEGEBILTZARRARI  
EGINDAKO TXOSTENA  
2004. URTEA

© ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

L.G.: VI-101/05.



EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO  
TXOSTENA  
2004



**AURKIBIDEA**





<b>AURKEZPENA</b> .....	21
<b>I. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK</b> .....	23
1. 2004. URTEAN EGIN EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AU- RREKO TXOSTENEI JARRAITZEKO OFIZIOZKO JARDUERAK.....	25
<b>1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan egin ziren     gomendioak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak</b> ...	25
1.1.1. <i>Euskal Herriko kartzelen egoerari buruzko txosten bereziari         jarraiki hasitako jardueren jarraipena</i> .....	26
1.1.2. <i>Arabian diharduten sasoikako langileen arazoan jarraipena</i>	39
1.1.3. <i>Hirugarren adinekoentzako egoitzei buruzko azterlanaren         jarraipena</i> .....	45
1.1.4. <i>Adinekoentzat egoitzez kanpo dagoen laguntzari buruzko         txosten bereziaren jarraipena</i> .....	47
1.1.5. <i>Babesik gabe dauden haur eta nerabeen artapenaren gaineko         jarraipena</i> .....	49
1.1.6. <i>Adingabe lege hausleen gaian egindakoaren jarraipena</i> .....	56
1.1.7. <i>San Frantzisko aldean poliziak atzerritarrekin izandako         zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako gomendioen         jarraipena</i> .....	74
1.1.8. <i>Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoeraren jarraipena</i> .....	86
1.1.9. <i>EAEn buru-gaixoei ematen zaien gizarte-arretaren gaineko         jarraipena</i> .....	90
1.1.10. <i>EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzunari         buruzko txosten bereziaren jarraipena</i> .....	96
1.1.11. <i>Ertzaintzaren ziegetako eta udal gordetegietako egoeraren         jarraipena</i> .....	112
1.1.12. <i>Zadorrako urtegietako uraren kalitateari buruzko txosten         bereziaren jarraipena</i> .....	121
1.1.13. <i>EAEn pertsona ezgaituak laneratzeari buruzko txosten be-         reziaren jarraipena</i> .....	124
1.1.14. <i>Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten         eraikinen irisgarritasunari buruzko txosten bereziaren ja-         rraipena</i> .....	136
1.1.15. <i>Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako         erantzuna EAEn izeneko txostenaren jarraipena</i> .....	142

1.2.	<b>Adinekoei laguntzeko EAEko sistemari buruzko txosten berezia</b> .....	159
1.3.	<b>EAEEn familiarik gabe dauden adingabe atzerritarren egoeraz laster argitaratuko den txosten berezia</b> .....	162
1.4.	<b>Hurrengo txosten berezia, EAEko gazteek etxebizitza eskuratzeari buruzkoa</b> .....	166
1.5.	<b>Hurrengo txosten monografikoa, etxerik gabe eta bazterketa egoera larrian dauden pertsonen oinarrizko beharrezan ematen zaien erantzunaren gainekoa</b> .....	169
2.	<b>GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK</b> .....	171
2.1.	<b>Taldeekin, elkarrekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak</b> .....	171
2.2.	<b>Ararteko erakundeak iragarri dituen ikerketa bekak</b> .....	181
2.3.	<b>Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materiala egiteko bekak</b> .....	182
2.4.	<b>“Lana XXI. mendean: etorkizunera begira” izeneko jardunaldiak UPV/EHuko udako ikastaroetan</b> .....	184
2.5.	<b>Giza eskubideei buruz herritarrekin batera egindako II. Foroa</b> .....	186
3.	<b>GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK</b> .....	188
3.1.	<b>Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XIX. Jardunaldiak</b> ....	188
3.2.	<b>Iberoamerikako Herri Defendatzaileen Federazioaren (FIO) IX. Biltzarra eta batzar orokorra</b> .....	193
II.	<b>ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO BERARIAZKO ARRETA</b> .....	201
A)	<b>ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR</b> .....	205
1.	<b>NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA</b> .....	205
1.1.	<b>Sarrera</b> .....	205
1.2.	<b>Aukeratutako kexak</b> .....	207
	A) Merkataritza	
	⇒ <i>Produktu piroteknikoak kalean saltzeko debekua</i> .....	207
	B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
	⇒ <i>Bizkaiko Foru Aldundiak kosmetika edo lurringintza artisautza lan modura baztertu izana</i> .....	208

C) Industria	
⇒ <i>Galdarak berritzeko planaren onuradunak</i> .....	209
2. GIZARTE ONGIZATEA.....	211
<b>2.1. Sarrera</b> .....	211
<b>2.2. Aukeratutako kexak</b> .....	217
A) Ezgaitasuna duten pertsonentzako laguntza	
⇒ <i>Ez-ohiko egoerak, gizarte zerbitzu batzuk eskuratu ahal izateko aurretik erroldatuta egon behar den epea dela-eta</i> .....	217
B) Adinekoentzako laguntza	
⇒ <i>Egoitza-zentro batzuetako egoiliarrek diru-laguntza jasotzeko aukera dute baina etxebizitza komunitarioetan bizi direnek ez dute aukera hori</i> .....	218
C) Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak	
⇒ <i>Oinarrizko Errentan eragina duten espedienteetan administrazio prozedurari jarraitu beharra</i> .....	219
⇒ <i>Prezio publikoa kalkulatzeko oinarritzat hartzen den “famili unitate” kontzeptua zehaztu beharra</i> .....	221
⇒ <i>Autonomia Estatutuko termino baten interpretazioa, euskal herritartasun politikoa dela-eta, gizarte zerbitzuak jaso ahal izateko aurretiaz epe jakin batean erroldatuta egon beharretik salbuesteko</i> .....	222
3. KULTURA ETA ELEBITASUNA.....	224
<b>3.1. Sarrera</b> .....	224
<b>3.2. Aukeratutako kexak</b> .....	226
A) Elebitasuna	
⇒ <i>Deialdian ezarritako baldintza bat ez betetzeak beka proiektu baten defentsa mugatu du</i> .....	226
⇒ <i>Koofizialtasuna enpresa pribatu batekiko harremanetan, harreman horiek administrazioari eskatu ahal zaizkion baldintza berberen pean egiten direnean</i> .....	227
B) Kirola	
⇒ <i>Jarduera bat kirol modalitate bezala kalifikatzea, Kirolari buruzko Legearen ondorioetarako</i> .....	227
C) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Informazioarako eskubidea komunikabide publikoetan</i> .....	228
4. HEZKUNTZA .....	230
<b>4.1. Sarrera</b> .....	230
<b>4.2. Aukeratutako kexak</b> .....	233
A) Batxilergoa	
⇒ <i>Hiru hizkuntzatako batxilergoa. Unibertsitatera sartzeko probak</i> .....	233
B) Ikastetxeak	
⇒ <i>Irakasleen klastroaren egonkortasun falta</i> .....	235

C)	Eskubideak eta betebeharrak	
⇒	<i>Eskola garraioari buruzko eskabideak ebazterakoan inguruabarren askotarikotasuna kontuan hartzea.....</i>	236
⇒	<i>A ereduaren hezkuntza-eskaintza ezabatzea eta eskola garraioaren beharra.....</i>	237
⇒	<i>Bekak eta laguntzak lortu nahi dituzten ikasleen inguruabar pertsonalak .....</i>	238
⇒	<i>Eskola garraioa. Segurtasun baldintzak.....</i>	239
⇒	<i>Hezkuntzako beharrian bereziak. Hezkuntza-ereduz aldatzeko eskabidea .....</i>	240
⇒	<i>Alergia larrien ondoriozko osasun-beharrizanak .....</i>	242
D)	Bestelakoak	
⇒	<i>Bi urtekoentzako ikasgelen A ereduko hezkuntza-eskaintza</i>	243
5.	FUNTZIO PUBLIKOA .....	245
<b>5.1.</b>	<b>Sarrera</b> .....	245
<b>5.2.</b>	<b>Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak</b> .....	251
A)	Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa	
⇒	<i>Irakaskuntzako funtzio publikora sartzeko aukerak. Aurretiazko eskarmentua Erresuma Batuan, elkarrizketa-laguntzaile modura .....</i>	251
⇒	<i>Irakasleen ordezkapenak. Hezkuntza Administrazioari ordezkapena bukatu dela jakinarazi beharra .....</i>	253
⇒	<i>Gasteizko Udaleko haur eskolak. Lanpostuen zerrenden osaketa.....</i>	255
B)	Funtzio publiko orokorra	
⇒	<i>Ordezkapenak. Beste administrazio batek deitutako hautespen probetan parte hartzea kontratazio eskaintza bat ez onartzeko arrazoi justifikatutzat jo .....</i>	260
⇒	<i>Peoi postuetarako aldi baterako lanpostuak betetzea. Diskriminazioa sexu arrazoiengatik .....</i>	262
⇒	<i>Lanaldi murrizketa. Familia eta lan ardurak uztartzea.....</i>	263
⇒	<i>LANGAI. Hizkuntz Normalizazioko teknikari lanpostua katalogatzea.....</i>	265
⇒	<i>Sartzeko hautaprobetan parte hartzea eta ezgaituentzat gordetako plazak .....</i>	266
C)	Poliziaren alorreko funtzio publikoa	
⇒	<i>Udaltzainen plazak hornitzeko hautaprobak.....</i>	269
D)	Osasun alorreko funtzio publikoa	
⇒	<i>LEP-Osakidetza. Lantokien adjudikazioa.....</i>	275
⇒	<i>LEP-Osakidetza. Psikiatriako mediku espezialisten hautaprobak. Ezgaituentzat plazak gordetzea.....</i>	277
6.	OGASUNA .....	281
<b>6.1.</b>	<b>Sarrera</b> .....	281
<b>6.2.</b>	<b>Aukeratutako kexak</b> .....	284

A)	Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ⇒ <i>Zerga-likidazioaren jakinarazpena. Interesatuak jaso duela agerrarazi beharra</i> .....	284
⇒	<i>Interesatuak administrazio-espeditentea eskuratu ahal izatea</i> .....	285
B)	Foru zergak - PFEZ ⇒ <i>Lan aktiboaren eta ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioen salbuespenaren arteko bateraezintasuna</i> .....	285
⇒	<i>Etekin irregularren integrazioarako irizpideak</i> .....	287
C)	Bestelakoak ⇒ <i>Minusbaliotasuna egiaztatzea</i> .....	288
D)	Foru aldundien prezio publikoak ⇒ <i>Egoitzetako erabiltzaileak eta prezio publikoak: geroraturako zorraren legezko korrituen likidazioa</i> .....	289
E)	Udal tasak ⇒ <i>Obra lizentziak ukatzea: ez da bidezkoa hirigintzako zerbitzuengatiko tasa likidatzea</i> .....	291
7.	HERRIZAINGOA .....	293
<b>7.1.</b>	<b>Sarrera</b> .....	293
<b>7.2.</b>	<b>Aukeratutako kexak</b> .....	301
A)	Eskubideak eta askatasunak ⇒ <i>Egitatezko bidea Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak zerbitzu enpresa bateko langile bati ertzain-etxeetara bere lana egitera sartzen utzi ez ziolako</i> .....	301
⇒	<i>Ertzaintzak agiririk gabeko atzerritar batek ertzain-etxe batean ezarri nahi zuen lapurretakatiko salaketa formalizatzeari uko egitea</i> .....	303
B)	Trafikoa ⇒ <i>Irmoak ez diren zehapenak gauzatzea</i> .....	304
⇒	<i>Utzitako ibilgailu bat bide publikotik kentzea eta deuseztatzea, jarduera material horiei estaldura juridikoa emateko beharrezkoak diren aurretiazko administraziozko egintzak gauzatu gabe</i> .....	305
8.	JUSTIZIA .....	308
<b>8.1.</b>	<b>Sarrera</b> .....	308
<b>8.2.</b>	<b>Aukeratutako kexak</b> .....	319
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak ⇒ <i>Norbera tartean izan den espedientearen sartutako dokumentazioa eskuratzea ukatzea</i> .....	319	
⇒	<i>Motibaziorik ez diziplina espediente baten ebazpenean; berandutzeak Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren aurreko errekurtsoren tramitazioan: balizko falta deontologikoa indargabetzea</i> .....	323

9. INGURUMENA.....	326
<b>9.1. Sarrera</b> .....	326
<b>9.2. Aukeratutako kexak</b> .....	329
A) Jarduera sailkatuak industri lurretan	
⇒ <i>Fundizioko industria jarduera batek eragindako kutsadura atmosferikoaren gainean.....</i>	329
B) Jarduera sailkatuak etxebizitzetarako lurretan	
⇒ <i>Eragozpena gazte taldeek biltzeko erabiltzen dituzten hainbat lokaletatik datozen zaratengatik .....</i>	331
⇒ <i>Diskoteka baten ondoriozko eragozpenak .....</i>	333
⇒ <i>Taberna baten jardueraren ondoriozko irregulartasunak, baita auzokideak bizi diren plazan jarritako hanka bakarreko mahai batzuen ondoriozkoak ere.....</i>	334
C) Beste ingurumen afekzio batzuk	
⇒ <i>Gauz herri lanak egitean arautegiz ezarrita dauden hots parametroak gainditzea .....</i>	335
⇒ <i>Zumaiako portuan zegoen dragatze itsasontzi batek zarata eragozpenak eragin zituen .....</i>	335
10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK .....	337
<b>10.1. Sarrera</b> .....	337
<b>10.2. Aukeratutako kexak</b> .....	341
A) Irisgarritasuna	
⇒ <i>EuskoTreneko Donostia-Irun lineako irisgarritasun arazoak</i>	341
B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa	
⇒ <i>Norbera bizi den etxebizitzan erroldatzeko eskubidea, hiri-gintzako inguruabarrak alde batera utzita .....</i>	343
⇒ <i>Udal erroldan baja ofizioz emateko espedienteen prozedura-bermeak errespetatzea .....</i>	344
C) Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna	
⇒ <i>Administrazioek kalte-ordaina ematea ondare erantzukizunaren kasuetan, aseguru-etxeak horren kontra egon arren.....</i>	346
D) Tokian tokiko zerbitzu publikoak	
⇒ <i>Udal sareetarako hartuneak egiteko baimenak .....</i>	347
⇒ <i>Gune publikoak erabili eta mantentzea; auzokideei asteburuetan eragindako trabak arintzeko neurriak.....</i>	348
E) Garraioak	
⇒ <i>Garraio publiko bat diru xehearekin ordaintzea.....</i>	349
11. OSASUNA .....	351
<b>11.1. Sarrera</b> .....	351
<b>11.2. Aukeratutako kexak</b> .....	353
A) Osasun laguntza	
⇒ <i>Itxaronaldiak antzutasun tratamenduetan .....</i>	353

B) Erabiltzaileen eskubideak	
⇒ <i>Tratamendu termala izateko beharra, txosten medikuaz justifikatuta dagoenean, IMSERSOren termalismo sozialaren programan sartzeko</i> .....	354
⇒ <i>Pazientearen eta medikuaren arteko konfiantza galtzen deneko egoeren jarraipena</i> .....	355
⇒ <i>Badago aukerarik sartzen ez den tratamendu bat sistema publikoak eskaintzen duen sistema zabalago batean sartzeko?</i>	356
C) Bestelakoak	
⇒ <i>Farmazia eremuak aldatzeko zirkunstantziak: balorazioa</i> ....	357
⇒ <i>Osasun Sailak bermatu behar du Osakidetzak erabiltzaileen osasun eskubidea izatez gauza dadin</i> .....	357
12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA.....	359
<b>12.1. Sarrera</b> .....	359
<b>12.2. Aukeratutako kexak</b> .....	360
A) Bestelakoak	
⇒ <i>Finken administratzailearen titulua eskuratzea</i> .....	361
B) Lana	
⇒ <i>Greba batek beste enpresa baten lanean duen eragina, enplegu-erregulazioari dagokionez</i> .....	361
13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA.....	362
<b>13.1. Sarrera</b> .....	362
<b>13.2. Aukeratutako kexak</b> .....	368
A) Hirigintza diziplina eta aurriak	
⇒ <i>Hirigintza-baimena ukatzea. Berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa</i> .....	368
B) Hirigintzako kudeaketa	
⇒ <i>Berriro bizilekua eskuratzeko eskubidea, hirigintzako desjaketze kasuetan</i> .....	369
⇒ <i>Udalak eraikitako horma baten ondorioz ezin garaje partikular batean sartu</i> .....	370
⇒ <i>Urbanizazio proiektu baten eraginez kalteak merkataritzako lokal batean</i> .....	371
C) Hirigintzako antolamendua	
⇒ <i>Auzotar batzuk hiri antolamendurako plan bateko aldaketa puntual baten aurka</i> .....	372
⇒ <i>Etxebizitzak bizigarritasuna galdu urbanizazio lanen ondorioz</i> .....	373
D) Etxebizitza	
⇒ <i>Etxebizitza beharra</i> .....	374
14. ZENBAIT GESTIO.....	376
<b>14.1. Sarrera</b> .....	376
<b>14.2. Aukeratutako kexak</b> .....	376



⇒ *Komunikabide idatzietako harremanen atalean dauden zenbait argazki direla-eta*..... 376

B) BERARIAZKO ARRETA TALDEEN ARAZOEI .....	378
1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ARAZOEI.....	378
2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEN ARAZOEI .....	394
3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEN ARAZOEI .....	397
4. BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREN ARAZOEI .....	406
5. BERARIAZKO ARRETA EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN ARAZOEI.....	409

### **III. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN** 419

1. OHAR ETA DATU OROKORRAK.....	421
2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR .....	426
3. ESTADISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA .....	430
A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako keak .....	430
B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako keak .....	432
C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako keak.....	433
D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako keak .....	437
E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako keak.....	438
4. LURRALDE ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)	439
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA) .....	442
6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA) .....	451
7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK).....	453
8. OFIZIOZKO JARDUERAK.....	455
9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK).....	457

### **IV. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA** 461

1. SARRERA ETA OHARRAK .....	463
2. ARARTEKOA 2004. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA .....	466

A) Eusko Jaurlaritza .....	466
B) Foru aldundiak .....	467
C) Udalak .....	468
D) Beste erakunde publiko batzuk .....	472
3. ARARTEKOAK 2004. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA .....	473
A) Eusko Jaurlaritza .....	473
B) Foru aldundiak .....	477
C) Udalak.....	479
D) Beste erakunde publiko batzuk.....	486
4. ARARTEKOAK 2004. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA .....	487
A) Eusko Jaurlaritza .....	487
B) Foru aldundiak .....	487
C) Udalak.....	487
 <b>V. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN</b> .....	489
1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK .....	494
A) Eusko Jaurlaritza .....	494
B) Foru administrazioa .....	494
C) Tokiko administrazioa .....	495
2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK .....	497
A) Eusko Jaurlaritza .....	497
B) Foru administrazioa .....	498
C) Tokiko administrazioa .....	498
D) Eragindako beste erakunde batzuk.....	501
3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK .....	502
A) Eusko Jaurlaritza .....	502
B) Tokiko administrazioa .....	502
4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO .....	503
A) Eusko Jaurlaritza .....	503
B) Tokiko administrazioa .....	503
 <b>VI. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK</b> .....	505
1. Haur eskolak finantzatzea eta kuotak gehiago homogeneizatu beharra.....	507
2. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kide- goek jokaera-kodeak erabili behar dituzte inmigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako .....	520

3. Ezgaitasunen bat duten pertsonen babesa, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokionez, udal zergen inguruan egin berri den erreformaren ondoren.....	530
4. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzea dela-eta udalek hartutako neurriak. Lehenengo hurbilketa.....	538
5. Etorkinek osasuna dela-eta egindako eskariei ematen zaien erantzuna.....	541
6. Hirigintza diziplinako arazo larri bati aurre egiteko premia: balkoietako itxiturak .....	548
7. Gutxieneko diru-sarrerak frogatu behar dira alokairuko araubidean babestutako etxebizitza eskuratu ahal izateko .....	554

## **VII. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK..... 559**

1. BERDINTASUN PRINTZIBIOA.....	561
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK .....	563
<b>2.1. Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea .....</b>	<b>563</b>
<b>2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak .....</b>	<b>565</b>
<b>2.3. Intimitaterako eskubidea .....</b>	<b>566</b>
<b>2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa.....</b>	<b>567</b>
<b>2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen printzipioa .....</b>	<b>569</b>
<b>2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak .....</b>	<b>570</b>
<b>2.7. Hezkuntzarako eskubidea .....</b>	<b>571</b>
3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK .....	573
<b>3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezketasun printzipioak .....</b>	<b>573</b>
<b>3.2. Jabetza pribaturako eskubidea.....</b>	<b>574</b>
4. GIZARTE ESKUBIDEAK.....	575
<b>4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa .....</b>	<b>575</b>
<b>4.2. Osasunerako eskubidea .....</b>	<b>576</b>
<b>4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea .....</b>	<b>577</b>
<b>4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea .....</b>	<b>578</b>
<b>4.5. Urritu fisikoen, sentimenezkoen eta psikikoen eskubideak (ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak) .....</b>	<b>580</b>
<b>4.6. Adinekoen eskubideak .....</b>	<b>581</b>
5. LABURBILKETA.....	583

**ERANSKINAK**

- I. ERANSKINA:	Jarduneko Arartekoak terrorismoaren biktimen egoera eta beharrianak aztertzeaz arduratzen den Batzordeak eskatuta egindako agerraldia .....	587
- II. ERANSKINA:	Torturari buruz Ararteko erakundeak egindako adierazpena .	592
- III. ERANSKINA:	GRAFIKOAK .....	599
- 1. Diagrama:	Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregularitasuna administrazioaren jokaeran 2004an burututako kexetan .....	601
- 2. Diagrama:	Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra .....	601
- 3. Diagrama:	Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-2004).....	602
- 4. Diagrama:	2004an jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren .....	602
- 5. Diagrama:	Zuzenean bideratutako kexen banaketa jarduera alorren arabera .....	603
- 6. Diagrama:	Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera....	603
- 7. Diagrama:	Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera.....	604
- 8. Diagrama:	Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera .....	604
- 9. Diagrama:	Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .....	605
- 10. Diagrama:	Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .....	605
- 11. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2004).....	606
- 12. Diagrama:	Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2004) .....	606
- 13. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa erreklamatzailen ezaugarrien arabera.....	607
- 14. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera .....	607
- 15. Diagrama:	Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera.....	607
- 16-17. Diagramak:	2004an arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak).....	608
- 18. Diagrama:	Banaketa adin taldeen arabera .....	608
- 19. Diagrama:	Kexa bilakatutako bisitak .....	609

---

- 20. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2004). Banaketa alorrez alor .....	610
- 21. Diagrama:	Ofiziozko jarduerak (2004). Eragindako administrazioen arabera banaketa ...	610
- 22-27. Diagramak:	Erreklamatzailerak Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak) .....	611
- 28-29. Diagramak:	Arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da” dioten erreklamatzailerak Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa .....	614
<b>GAIEN AURKIBIDEA</b> .....		<b>615</b>

## AURKEZPENA

Zer da Arartekoa? Zer egiten du? Eusko Legebiltzarrak 2004ko ekainaren 18an Ararteko izendatu ninduenetik hona, sarritan egin dizkidate horrelako galderak. Nire ustez, erakunde honetaz dagoen ezagutza urriak azalpen logikoa du: kontuan izan behar dugu honelako erakundeak berri-berriak direla demokrazien egitura instituzionaletan. Jende guztiak daki azaltzen, gutxi gorabehera, gobernu baten edo parlamentu baten egin-kizunak zeintzuk diren. Baina, herriaren defentsariaren eginkizunak? Herri defentsariaren figura Suedian sortu zen 1809an, “Ombudsman” izenarekin, baina joan den mendeko erdi aldera arte ez zen Europako gainerako herrialdeetara zabaldu. Euskadin, zehazki, 1989an jarri zen martxan erakunde hau, lehenengo Arartekoa aukeratu zenean: Juan San Martin. Ez nuke zuzen jokatu ez banu aipatuko nire aurrekoek (Juan San Martin, Xabier Markiegi eta Mertxe Agúndezek) egin duten lan eskerga eta bikaina. Azken horrek lau urte baino gehiago eman behar izan zituen jarduneko Ararteko lanetan, baina egin zituen ahalegin handiei esker, erakundearen ibilbidea eta bere zerbitzuaren kalitatea ez ziren batere murriztu. Eusko Jaurlaritzari aurkezten diodan lehen urteko txosten honetan, beraz, lehenik eta behin, neure eskerrona adierazi nahi diet aurreko Arartekoei, egin duten lan bikainarengatik, eta erakunde egoera ezin hobean utzi didatelako.

Erakunde berri samarra izan arren, nire ustez gero eta garrantzi handiagoa dauka gero eta konplexuagoa den gizarte honetan. Gizarte honetako gizon-emakumeek, izan ere, herritar izatearen eta eskubideak edukitzearen kontzientzia argiagoa eta zorrotzagoa daukate egunetik egunera. Horregatik da hain garrantzitsu zerbitzu publiko, independente eta inpartzial bat ematea, Legebiltzarreko gehiengo kualifikatu batek aukeratuta. Zerbitzu honek herritarrek administrazio publikoekin dituzten harremanetan dituzten kexak jaso behar ditu eta, aztertu ondoren, legearen arabera arrazoituta eta neurtutako iritzia eman administrazioei, administrazio onaren irizpideak beteaz eta, zer esanik ez, giza eskubideak beti kontuan izanik. Eta horretan dihardu, hain zuzen, Arartekoak, 42 pertsonako lantaldearekin. Horretan eta gauza gehiagotan, aurrerago ikusiko dugunez.

Txosten honetan, Arartekoak 2004. urtean tramitatu dituen kexak bildu ditugu, Arartekoan dauden arlo funtzionalen arabera gaitan sailkatuta. Kexa bat aurkezten denean, Arartekoak onartzen badu, dagokion administrazioari bidaltzen dio. Horrela, administrazio horrek kasu jakin horretan nola jokatu zuen arrazoitu behar du, dagokion dokumentazioa aurkeztuz. Bukatzeko, Arartekoak bere iritzia emango du. Erakunde honetan bete behar dugun prozedura arina eta azkarra izan dadin (horiek izan behar baitute gure ezaugarrietako bat), ezinbestekoa da administrazioak ematen zaion epean erantzutea. Sarritan, ordea, ez da hala gertatzen, zoritxarrez. Horren ondorioz, Arartekoak errekerimendu asko egin behar izan die administrazio publikoei (eta ohartarazpen ugari ere, Fiskaltzaren aurrean, administrazio publikoen laguntza eza salatuz). Beharrezkoa

da, hortaz, euskal administrazio publikoek dagokien arduraz joka dezatela, Arartekoari lagunduz. Horrela, herritarrei ematen diegun zerbitzua, dudarik gabe, hobetu egingo da, eta horrenbestez, euskal herritarren eskubideak babesten dituzten bermeak sendotu egingo ditugu.

Arartekoaren erakundea arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen arabera, erakunde hau *“Legebiltzarraren goi-komisarioa da, Konstituzioaren I. Tituluan dauden eskubideak defendatzeko eta eskubideok legearen arabera bermatzeko”*. Beraz, kexak tramitatzea ez da haren eginkizun bakarra, garrantzitsuena izan arren. Kexak tramitatzeaz gain egiten dugun jardunean, zenbait kolektibo eta egoera jakini buruz prestatzen ditugun txostenak nabarmendu nahi nituzke. Izan ere, gure ustez egoera eta kolektibo horiei arreta berezia eskaini behar zaie, Euskadin eskubideak gauzatu ahal izatea herritar guztiak bermaturik izan dezaten, erabateko berdintasunean. Orain arte, Arartekoak 17 txosten argitaratu ditu eta, une honetan, beste bost ari gara prestatzen, aurtun eta datorren urtean argitaratzeko asmoz. Gainera, txostenak egin ondoren haien jarraipena ere egiten dugu, haietan sartzen ditugun gomendioen nondik norakoak jakiteko.

Giza eskubideen errespeturako kultura sortzeko eta indartzeko jarduerak ere azpimarratu nahi genituzke. Horrelako jardueretarako, noski, ezinbestekoa da gizartearekin eta gizartea egituratzen duten elkarte eta erakundeekin harreman estua izatea. Beharrezkoa da, halaber, herritarren eta botere publikoen kontzientzia astintzea, etengabean pertsonen eskubideak errespetatzeko baloreak eraikitzeko eta berreraikitzeko, giza eskubideak suntsitzen edo mugatzen dituzten eragileak deuseztatuz. Zentzu honetan, ahalegin handia egin behar dugu euskal gizarteak ETArek aurkako aldarri etengabe eta batua egin dezan, desager dadila exijitzen. Era berean, zuzenbideko sistema demokratikoa osatzen duten erakunde eta organoek pertsonen eskubideak zorrotz errespetatu ditzaten saiatu behar dugu, euren jardunean giza eskubideei dieten errespetuaz zalantza izpirik ere egon ez dadin.

Berme oro alferrik da, ordea, herritarrek euren eskubideak gauzatu ezin badituzte. Uste dugu ideia horrek izan behar duela administrazio publikoaren jardunaren eta sortzen diren arauen irizpide nagusi, eskubide sistemari eta eskubideak gauzatzeari dagokionez. Arartekoan bide honetan aurrera egiten saiatzen gara, geure aukerak baliatuz, eta inpartzialtasun eta independentzia osoz, legeak ematen dizkigun lanabesak erabiliz. Gogoan dugu beti euskal gizartea osatzen duten herritar guzti-guztiei begira egin behar dugula lan, eta zeharkakotasunetik abiatu behar dugula, geure gizartearen txoko guztietaraino iristen diren bideak sortuz, eta bide horietan zehar giza eskubideen errespeturako balore unibertsalak eramanez.

2005eko martxoa  
ARARTEKOA  
Iñigo Lamarca Iturbe

I. ATALA

**ARARTEKO ERAKUNDEAREN  
JARDUERA NAGUSIAK**





## **1. 2004. URTEAN EGIN EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEI JARRAITZEKO OFIZIOZKO JARDUERAK**

### **1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIAN EGIN ZIREN GOMENDIOAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK**

Aurreneko atal honetan, erakunde honek azken urteetan prestatu dituen txosten berezien jarraipena egiteko jarduerak laburbilduko ditugu. Arartekoa erakundearen txosten guztiek, bukatzeko, zenbait gomendio ematen dizkiete kasuan kasuko administrazio eskudunei eta beraz, jarraipenaren helburua ez da besterik gomendioak zenbateraino betetzen ari diren jakitea baino. Horretarako, bide desberdinak erabiltzen dira, gaia zein den, txostena egin denetik zenbat urte igaro diren, gomendioa abian jartzeko zerbitzuak zeintzuk eta zenbat diren, beste urte batzuetatik daturik ezagutzen dugun...

Hain zuzen ere, hauek dira biderik erabilienak:

- Bisitaldiak egitea aztertutako zentroetara edo zerbitzuetara (esate baterako, komisariak, harrera-zentroak edo barruan egoteko zentroak).
- Arlo bakoitzean diharduten elkarteekin edo profesional-taldeekin harremanetan jartzea.
- Kasuan kasu eskudun den administrazioari datuak, informazioa eta balorazioak eskatzea.

Aipatutakoez gain, beste bide batzuk ere erabiltzen ditugu, erkatzeko: kexen bidez jasotako informazioa; aztertzen ari garen aldian argitaratu diren planak, programak, deialdiak edo memoriak; bilerak sailtako ardua duten politikoekin...

Administrazioei datuak eskatzen dizkiegunean informazio gaurkotua, ahalik eta gaurkotuena, eskura eduki gura dugulako da. Horregatik, sarritan, eskakizuna urtearen azken bi hiletan egiten dugu eta urtea bukatu bitarteko epea eman -azken ekitaldiko datuak txostenean sartu ahal izateko-, baina erantzunak hurrengo urtearen aurreneko bi hiletan jaso eta aztertzen ditugu. Horrela, bada, hurrengo ataletan agertuko diren datu asko eta asko 2004. urteari dagozkio baina 2005eko urtarrilean edo otsailean jaso ditugu, txosten hau amaitu baino lehentxeago. Kontuan hartzekoa da hori.

### 1.1.1. **EUSKAL HERRIKO KARTZELEN EGOERARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIARI JARRAIKI HASITAKO JARDUEREN JARRAI-PENA**

Ararteko erakundeak Euskal Herriko kartzelen egoerari buruz egindako txosten berezia Eusko Legebiltzarrari 1996an eman zitzaion. Txosten hartan, gure Erkidegoko hiru espetxeetan ikusitako arazoak azaldu ziren, eta presoen egoera hobetzeko gomendioak egin ziren.

Harrezkero, hurrengo urteetako txosten arruntetan jarraipen-atala sartu da, zeinetan kezkek, jarduerak eta balorazioak islatuz joan baitira, kasu bakoitzean egon diren informazioen arabera. Informazio horiek presondegietako zuzendariengandik, haietan esku hartzeko programak dituzten elkarreetatik, zenbait jarraipen-batzordetatik, Osasun eta Justizia Saitetik, Defensor del Pueblo erakundetik eta abarretik jaso dira. Gehienbat osasunerako eta osasun-arretarako eskubidearekin loturiko gaien jarraipena egin da: xiringak trukatzeko programa zabaltzearena, pertsona presoentzako arreta psikiatrikoarena, presondegiaren hautazko bide terapeutikoena, Txagorritxuko eta Basurtoko zainketa bereziko ospitale-unitateen baldintzena eta abarrena. Hau da, Espetxeetako administrazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean finkatutako lankidetzaren markoaren barruko gaien jarraipena egin da. Hain zuzen ere, azken ezaugarri hori dela eta, Arartekoak zuzenean jardun ahal du. Beste gai garrantzitsu batzuetan ezin du zuzenean jardun.

Urtero gertatu izan den bezala, kontuan hartu behar da espetxeen alorreko eskumena ez zaizkiola gure Erkidegoari intsuldatu eta, hortaz, hiru presondegiak Barne Ministerioaren mende jarraitzen dutela. Horrela, aipatu ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzarako marko-hitzarmena edo osasun arloko beste hitzarmen zehatz bat dela eta, Arartekoak zelanbait esku hartu eta hartzen du, lankidetzapeko gaietan bakarrik baina. Egoera horrek benetako jarraipen-aukerak oso baldintzatzen ditu eta, neurri handi batean, bai aztertutako gaiak bai erabilitako metodologia edo informazio-bideak azaltzen ditu. Egiaz, informazioa elkarri trukatzeko aldizkako bilerak izan ditugun espetxeetako zenbait pertsonarekin eta presoei laguntzeko elkarrekin izandako harreman onei eta erakundearteko lankidetzarako foroetako batzuetan agertzeari esker egin da jarraipena urteotan. Foro horiek xiringak trukatzeko programei jarraitzeko batzordeak izan dira. Baina beti zeharka hartu da esku, gaien aldetik mugatuta, eta informazioa biltzeko edo egiaztatzeko funtsezko tresnarik gabe. Horrelako tresnak, esate baterako, honakook dira: presondegiak zuzenean bisitatzea eta haietan lan egiten duten edo preso dauden pertsonak elkarriketatzea. Behin baino gehiagotan aitortu dugu ezen, marko horrekin bat etorriki, erakunde honentzat zaila dela aztergaiak zehazkiago aztertzea. Alabaina, mugak gorabehera, azken urte honetan ere irekirik egon dira aipatutako jarduerak edo harreman-bideetako batzuk.

Horrela bada, jarraipen-atal hau idaztean, honako iturriok hartu dira kontuan:

- Urtean zehar jasotako kezak.
- Pertsona presoei laguntzeko 18 elkartetako kideekin martxoan eta apirilean izandako bileretan jasotako kezkek eta datuak.
- Txagorritxu ospitaleko zaintza bereziko unitatera egindako ikustaldia.
- Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiko zuzendari nagusiarekin izandako bilera.

- Hainbat taldek aurkeztutako proposamen, kexa edo arazoak kontuan hartuta egindako esku-harmenak.

Jarraian aipatuko ditugu, labur, aztertutako gaien eta iturri batetik edo bestetik jasotako informazioen alderdi batzuk, nabarmentzeko modukoak baitira.

### • **Espetxeen alorreko eskumenak eta erakundearteko lankidetzarako hitzarmenak**

Euskal Autonomia Erkidegoak espetxe arloko eskumena bereganatu behar du. Intsuldaketa hori ez da oraindik gertatu, Autonomia Estatutuan ezarritakoa gorabehera. Hark eskumen hau bereganatu behar duela behin eta berriz adierazi du erakunde honek bere txosten guztietan. Era berean, erakunde honen ustez, horrelako intsuldaketarik izan ezean, lankidetzeta-hitzarmenak direla bide, arlo jakin batzuetan batera esku hartu beharko litzateke eta, egiaz, presoan eta esku hartzen duten taldeen eta profesionalen bizi- eta lan-baldintzak hobetu beharko lirateke.

Indarrean dauden hitzarmenek oinarritzko gaiak hartzen dituzte bere baitan, eta haiek eragina dute pertsona presoan osasunerako, hezkuntzarako, lanerako edo gizarteratzeko eskubidean. Ildo horretan, bere mugak gorabehera, hobetzeko programa eta jarduera asko ahalbidetzen dituen jarduera-markoa da. Baina, haiek behar bezala garatzeko, beharrezkoa da, zalantzarik gabe, aldean arteko konfiantza eta lankidetzeta.

Beste zenbaitetan adierazi izan dugunez, jasotako datuak kontuan harturik, ez dirudi haien potentzialtasunak nahikoa garatu direnik. Badirudi, azken urteetan behintzat, haien garapena geldiarazi egin dutela eta haietan eragina izan dutela kontu politiko batzuek, lankidetzan eragin txarra izan dutenak. Izan ere, urteetan ez du jardun Hitzarmen-markoan aurreikusi zen jarraipen-batzordeak.

Hori zela eta, erakunde honi komenigarria iruditu zitzaion eragindako aldeekin harremanetan jartzea, haien balorazioa eta proposamenak jasotzeko. Informazio-eskaera honela zehaztu zen: 2002an ofiziozko espedienteak bidali zitzaizkien gai horretan eskumenak zituzten edo esku hartu zuten Eusko Jaurlaritzako hiru saili (Justizia, Osasuna eta Gizarte Gaiak), eta idazki bat, berriz, Barne Ministerioaren Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari. Idazkion bidez, besteak beste, honakoa eskatu zitzaion: indarrean dauden hitzarmenek (esparru-hitzarmena eta osasuneko hitzarmen berezia) izan duten garapen mailaz alderdi bakoitzak egiten duen balorazioa, batetik, eta erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazio mailaz egiten duten balorazioa, bestetik.

Aipatutako hiru sailen erantzunen berri eman genuen 2002ko txostenean (2002ko txosteneko 1.1.1 atala). Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak emandako erantzuna iazko txostenean aztertu zen (2003ko txosteneko 1.1.1 atala). Horrela, argi eta garbi azaldu ziren erakunde bakoitzaren jarrera, adostasunak eta ezadostasunak.

Azken urte honetan, 2004an, Arartekoak gai honi heldu dio berriro ere, osasunari dagozkion eskumenetan gutxienez.

Espetxeetako eskumenak osorik eskuratu zein ez eskuratu, gaur egungo legeriaren arabera, aukera dago administrazio autonomikoek presoan osasun-arreta bere gain hartzeko, espetxe barruan nahiz kanpoan.

Aukera hori aintzat harturik, HIESaren aurkako Arabako Batzordeak esku hartzeko eskatu zigen. Presoek dauzkaten zenbait osasun arazo azaldu zizkiguten; arazo horiek biziki larritzen dituzte presoan alde lan egiten duten elkarteak, eta erakunde hau ere

bai. Hain zuzen ere, Arartekoak behin eta berriro eman du arazo horien berri Eusko Legebiltzarrari urtero aurkezten dizkion txostenetan.

Arazo hau gorabehera, Eusko Jaurlaritzak presoen osasunaren alde eginiko ahalegina aitortu eta baloratu beharra dago. Halere, lanean jarraitu behar da. Gure autonomi erkidegoan espetxeetan dauden pertsonen osasun-arreta geure gain hartzea urrats garrantzitsua litzateke espetxeak zerbitzu publikoen sare orokorrean (eta horrenbestez, gizartean) sartzeko. Gainera, hala jokatzuz gero, euskal administrazioak askatasuna kentzeko zigorraren helburua bete baino ez luke egingo, botere publiko guztiek egin behar luketenez: presoek birgizarteratzen laguntzea. Izan ere, bistan da presoen osasuna babesteko egiten diren hobekuntzek giltzapean egotearen ondorio negatiboak murriztea dakartela eta, beraz, berriro askatasunean bizitzea errazten dutela.

Bestalde, gure lurraldean dauden hiru espetxeetako presoak berez EAEn bizi direnez, gaur egun ematen zaizkien osasun zerbitzuak euskal osasun sisteman txertatzeak abantaila handiak ekarriko lituzkeela ematen du (errealitatea ezagutzea, prebentzioa, baliabideak arrazionalizatzea etab). Edonola ere, askatasuna kendu zaien pertsonen gainerako pertsonen duten osasun-arretaren antzeko kalitatea bermatuko litzateke horrela jokatzuz, espetxean egoteagatik tratu ezberdina jaso behar izan gabe.

Finean, espetxeetako osasunaren eskumenak euskal administrazioaren esku jarzea bultzatu beharrean ikusten zuten bere burua erakunde honek. Horregatik, lehen hurbilketa batean, gai honetan zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako hiru sailengana jo genuen (Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza; Osasuna; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak), proposamenari buruz zuten iritzia jakiteko.

Bada, lehenik eta behin Osasun Sailaren erantzuna jaso genuen. Adierazi ziguten gure idazkia Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzari bidali ziotela, planteatutako gaiak garapen autonomikoko politikaren ikuspegitik aztertu behar zirelakoan. Bestalde, osasunaren eremuan, adierazi zuten espetxeetako osasuna kudeatzeko prest zeudela, autonomi erkidegoari funtzioak behar bezala eskualdatu eta gero. Era berean, sail horrek 2003ko ekainean errege dekretuko proiektu baten tramitazioan eginiko alegazioak jakinarazi zizkigun. Proiektu haren bidez, Osasuneko Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko 16/2003 Legearen seigarren xedapen gehigarrian dagoen aurreikuspena garatzeko asmoa zegoen. Horren arabera, espetxeen mendeko osasun zerbitzuak autonomi erkidegoei transferitu behar zitzaizkien, erkidego bakoitzeko osasun zerbitzuan erabat txertatzeko. Daukagun informazioaren arabera, bada, dekretu hori aurrera atera ez zen arren, administrazio autonomikoekin sinatutako osasuneko lankidetzaren hitzarmenak berraktibatzearen prozesua hasi omen da berriro ere, Estatuko Gobernuak aldatu denetik.

Justizia eta Gizarte Gaietako Saileko arduradunek ez ziguten euren iritzia azaldu, baina bai Lehendakariordetza Sailak. Bere erantzunean, adierazi zigun Eusko Jaurlaritzak espetxe gaietako transferentzia lehenbailehen gauzatzeko borondate sendoa duela. Horretarako Espainian egon diren gobernuak (orain dagoenari ere bai) egin dizkien erreklamazioak azaldu zituen. Aitzitik, ez zuten esan prest zegoen ala ez eskumen horiek modu partzialean, espetxeetako osasunetik hasita, bere gain hartzea komenigarri zen ala ez aztertzeko.

Ikus daitekeenez, bere egunean hezkuntza gaietako eskumena bereganatzeari buruz edo espetxeetan lan egiten duten irakasleei buruz izandako jarreraren antzekoa

da hau. Azken hori legean aurreikusten da eta autonomi erkidego guztietan egin da dagoeneko, gurean izan ezik.

### • **Jasotako kexak**

Aurten jasotako kexetan, aurreko urteetan planteatu ziren kontuen antzekoak azaldu dira, Justizia Arloari dagokion sarreran azaltzen denez. Esaterako, terrorismo delituengatik preso dauden pertsonen egoerari dagokienez: espetxe batzuetako bizi-baldintzak, familiarengandik urruntzea, kondenaren hiru laurdenak bete ondoren espetxean jarraitzea... Sarritan, honelako kexak kolektiboek, elkarteek, plataformek edo udal ordezkariak egin ohi dituzte.

Kolektibo honen egoeraz, 2004. urtean zenbait batzar egin dugu Etxerat elkar-tearekin, batzutan haien ordezkariak eskatuta eta bestetan geuk eskatuta. Hauek izan dira azaldu dizkiguten arazo nagusiak:

- Kasu batzuetan martxoaren 11ko atentatuaren ondorioz hartutako neurriak: graduak gogortzea, isolamendua, urruntzea, bisitaldietan oztupoak...
- Urruntze politika eta bere ondorioak: sufrimendu erantsia, senideen trafiko istripuak, familia eta gizarte harremanak izateko eragozpenak, kostu ekonomikoa...
- Euskaraz ikasteko eta UPV/EHU ikasteko, materialak jasotzeko, azterketak egiteko eta abarrerako zailtasunak edo ezintasuna.
- Elkarte gisa bere planteamenduak gizarteari edo arduradun politikoei jakinarazteko zailtasuna.

Presoek UPV/EHU ikasteko dauzkaten arazoetaz eta arazo horiek konpontzeko egin diren kudeaketez iazko txostenean jardun genuen. Dauzkagun datuekin, erraz da jakiten zein neurritan konpondu diren eta zein neurritan jarraitzen duten bere horretan. Arazoetako batzuk, behinik behin, konpondu gabe daude oraindik.

Martxoaren 11ko atentatuaren ondorioz hartu ziren neurriak buruz, gure erkidegoko espetxeei buruzko informazioa genuen. Informazio horretan azaltzen zen lehen graduako sailkapenak eta lekualdaketak egin zirela, baina ez legean ezarritako banakako printzipioaren arabera; aitzitik, neurriok aplikatzeko irizpidea ETAko kide izatea izan zen (atentatuaren ustezko egilea).

Arartekoak, EAEko Giza Eskubideen Batzordearen aurrean agertu zenean, 2004ko maiatzaren 6an, gertakari hauetaz hitz egin zuen. Gero, Espetxeetako zuzendari nagusi izendatu berriarekin batzarra egin zuen. Gai honi buruzko kezkak eta espetxeetako egoeraren bestelako kontuen gainekoak azaldu zizkion, batez ere Euskal Autonomi Erkidegoan dauden espetxeak direla-eta, espetxe horietako baldintza eta azpiegiturak oso eskasak direlako, sarritan esan dugunez.

Etxeratekin gerora egin genuen batzarrean, elkarte horrek txosten mardul bat eman zigun. Bertan, beste espetxe batzuetan gertatutako antzeko kasuen gaineko informazio osoago, zehatzago eta eguneratuagoa zegoen. Senideek kexa bat helarazi ziguten, bestalde, espetxe bateko funtzionarioek erasoan aurrean ez ikusiarena egin zutelako eta erasoak eragin ere egin zituztelako. Eguneratutako txostenean, gainera, martxoaren 11ren ondorioz hartutako neurri batzuk maiatzean aldatu gabe zeudela ikusi zen.

Informazio hauek Espetxeetako zuzendari nagusiari eta Herri Defentsariari helarazi zitzaizkien. Eginiko kudeaketen eta haien emaitzen berri ematen dugu txosten honetan bertan, Justizia Arloaren sarreran (II.8.1 kap.).

2004. urtean, halaber, presoek eurek igorritako idazkiak edo kexak jaso ditugu, bai gure autonomi erkidegoko hiru zentroetatik bai urrunago dauden espetxeetatik igorriak.

Presoek bidaltzen dizkiguten idazkietan espetxeko bizimoduan eragina duten gaiak azaldu ohi dira batik bat: gradu sailkapenak, baimenen ukazioak, gaixotasun mentalak edo droga mendetasunak tratatzerakoan okerrak, kondena betetzeko tokia eta espetxe aldaketak, gailuak edukitzeko, gutunak jasotzeko edo komunikazioak izateko arautegiak, pentsioak ukatzea, etab.

Kasu bakoitzean biderik egokiena eta eraginkorrena zein zen aztertu da: Herri Defentsariaren aurrean kexa egitea (espetxe administrazioaren ustezko jardun irregularra zegoen kasu urrietan), euskal administrazioengana jotzea (haiek zerikusia duten programa edo gaietan), ala presoari guk zuzenean orientazioa ematea.

Arartekoak azken urte honetan euskal administrazioei buruz eginiko jarduketan artean honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Osakidetzarekin egin diren kudeaketak, gaixotasun kronikoak oso egoera arreratuan dituzten presoek bizileku egokirik aurkitu ezina dela-eta. Gabezia hau sarritan planteatu dugu erakunde honetan; izan ere, bitarteko gehiago edukiz gero hil arte itxaron beharrik gabe espetxetik atera litezkeen pertsona askok espetxean egon behar dute gabezia horren ondorioz.
- Herrizaingo Sailaren aurrean egin diren jarduketak, Langraizko espetxean dauden presoak osasun arazoengatik kanpora kontsultetara ateratzean Ertzaintzaren zerbitzua hobetzeko.
- Presoek laguntzeko programak dauzkaten elkarte batzuek diru laguntzei buruz eskatutako informazioa, deialdiak atzeratzearen ondorioz euren jarduerekin jarraitzeko arazo larriak izaten dituztelako.
- Gaiarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen aurrean eta hiru foru aldundien aurrean 2005. urtean ofizioz egingo den jarduketa prestatzea, preso batzuek minusbalioagatik jasotzen duten laguntzako pentsioei gaur egun aplikatzen zaien irizpidea berrikus dezaten; izan ere, irizpide horren arabera, mantenuari legokiokoen zatia kentzen zaie pentsiotik.

Bestelako erakundeen aurrean eginiko jarduketaz, abenduan Langraizko espetxean gertatutako bi heriotzak argitzeko martxan jarri ditugunak aipa ditzakegu.

#### • **Xiringak trukatzeko programak**

Gure erkidegoko espetxeetan xiringak trukatzeko programei buruz, urterik urte programa hauen bilakaera jaso dugu: hasierako proposamena, 1995. urtean egin genuena; Basauriko espetxean proba modura ezarri zenean, 1997ko uztailean; Martuteneko espetxean ere aplikatzea, 2000ko otsailaren; Langraitzen aplikatzea, 2001eko urrian. Lehen urteetan, sortu ziren jarraipen batzorde guztietan zuzenean parte hartu zuen erakunde honek, programaren garapena zehatzago ezagutu ahal izateko. Azken urteotan, jarraipen batzordearen azken batzarra egin zenetik, 2002ko ekainetik alegia,

programaren jarraipena ez da hain zuzenekoa izan: hainbat elkarterekin izandako bazarren bidez egin dugu (batzutan programak kudeatzen dituzten elkarteekin eurekin), Espetxeetako Osasuneko Zuzendariorde Nagusiak emandako datuen bidez; edo Herri Defentsariak programa zabaltzeari buruz ematen zizkigun datuen bidez.

Horren guztiaren berri aurreko txostenetan eman dugu, datuak aurkeztuz, prozesua baloratuz, eta programaren normaltasuna eta zabalpena nabarmenduz (dauzkagun azken datuak ikusteko: 2003ko txosteneko 1.1.1 atala).

- **Presoei ematen zaien osasun arreta eta zaintza bereziko ospitale unitateen egoera**

Hemen, zehazki, autonomi erkidegoaren baliabideen bitartez ematen ari diren osasun prestazioetaz ari gara, Osakidetza eta Espetxe Gaietako Estatu Idazkaritzak bere egunean sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena aplikatuz. Prestazio hauek espetxeetan (langile espezializatuen bisiten bidez) edo anbulatorioetan edo ospitaleetan ematen dira.

Gure urteroko txostenetan, atal honetan, eskainitako osasun laguntzari buruzko datu eta balorazioak sartu izan ditugu. Hain zuzen ere, urte eta lurralde bakoitzean emandako prestazioa Osasun Sailak eginiko txostenetan jasotzen dira, aldi behin, lankidetzaren hitzarmenari jarraipena egiteko modu bat baita (ikus, esaterako, 2001eko eta 2002ko gure txostenetan jasotako datu eta balorazioak).

Zentroetako espezialistek (psikiatrian, odontologian, etab) zentroetan ematen duten laguntza medikua nahikoa izateari edo ez izateari buruzko balorazioak, ikus daitekeenez, oso ezberdinak izan dira, batzutan kontrajarriak ere: batetik, elkarteek azaldu ohi dute eginiko kontsultak ez direla nahikoak. Osasun Sailak, berriz, emandako prestazioei buruzko balorazio positiboa eman ohi dugu. Espetxeetako langileek (edo espetxeetara joaten diren medikuek) euren balorazioak gehiago aldatzen dituzte zentroaren, espezialitatearen eta bestelako inguruabarren arabera. Aurten ere, gero adieraziko jasoko dugunez, elkarte ezberdinek premiak eta mugak nabarmendu dituzte, batez ere presoen arreta psikiatrikoan.

Bestalde, erakunde honek azken urteotan arreta berezia eman dio poliziaren zaintzako ospitale unitateen egoerari (hau da, presoei ospitalean arreta emateko unitateen egoerari), eta horren berri eman dute aurreko urteetako txostenetan.

Horrela, esaterako, 2001eko txostenean, presoak ingesatu ohi diren hiru ospitaleetan (Txagorritxu, Basurtu eta Donostia) eginiko bisitaldietan ikusitakoa zehatz-mehatz azaldu genuen (2001eko txosteneko 1.1.1 atala). 2002. urteko txostenean, berriz, ospitalean ingesatu beharra izan zuten kasuen datuak eman genituen, Arabako "Salud y Prisión" Plataformak Zaintza Bereziko Unitateetan osasun arreta emateko baldintzei buruz planteatutako kontuak jaso genituen, eginiko aldaketak eta unitate bakoitzean oraindik hobetu behar diren gaiak aztertu genituen, etab.

Hobetu beharreko gauza horien artean, garrantzitsuenak Ertzaintzak eginiko zaintza zegoen eta, bereziki, zenbait kontutan irizpide komunik ez zegoela: bisitaldiak, medikuarekiko harremaneko isilpekotasuna, etab. Arazo hauek 1999. urtean jakinarazi zitzaizkion Herrizaingo Sailari, Txagorritxuko ZABUa martxan jarri zenean. Orduan aldaketa batzuk egin ziren arazorik larrienak konpontzeko, baina beste asko konpondu gabe geratu dira; horregatik, haiei buruzko informazioa eskatu dugu eta iradokizunak egin ditugu behin baino gehiagotan.



Aurten ere esku hartu behar izan dugu, zehazki, Txagorritxun dauden presoen bisitaldien gaian. Iaz, gure txostenean, Herrizaingo Sailaren aurrean ofizioz eginiko jarduketei buruz, zenbait proposamen jaso genituen ospitaleetan dauden presoek izan ditzaketen bisitaldiak erregulatzeke. Hauxe da proposatu genuena, zehazki:

- Gaixotasunaren inguruabarrak bereziki kontuan izan behar dira (premia psikologiko eta afektiboak, isolamendu handiagoa, etab). Beraz, espetxeetako arautegia gutxieneko muga izan behar da; hortik aurrera, eta kasu bakoitzaren nondik norakoen arabera, bisitaldien erregimena zabal daiteke.
- Kasu honetan ezin da aplikatu Espetxeetako Araudiaren 216.1 artikuluan xedatutakoa, espetxeke erizaindegirako bisitaldietan bakarrik aplikatzen delako, hau da, espetxekeak ez direnak normalean sartu ezin daitezkeen barne-dependenzietan aplikatzen delako. (Onargarria da segurtasun arrazoiengatik bisitaldi bakoitza pertsona batera edo bitara mugatzea, baina ez pertsona bat edo bi izatea erabateko muga; bestela, presoak espetxean baino egoera okerragoan legoke).
- Erabilitako irizpideetako batzuk (besteak beste, murrizpen kuantitatiboek –hau da, bisitaldi bat egunean, 45 minutukoa– eta kualitatiboek –lagunen bisitaldiak murriztea, “hurbilekoak” terminoaren interpretazioa, eta abar–) ez daukate lege-oinarririk eta, gainera, gaixoak bizi dituen inguruabar bereziak inondik ere kontuan ez hartzea dakarte.
- Segurtasun arrazoi bereziek arau orokorra nola edo hala murriztea ekartzen duten kasuetan (esaterako, bisitaldia ukatzea, presoak ikusteko beharra, etab), gorabehera hori idatziz adierazi beharko da dagokion erregistroan, gertatzen diren motibazioak aipatuz.
- Zaintza lanak erregulatzean, boluntarioen fenomenoak kontuan izan behar da, presoak gizarteratzean egiten duten lana espetxeetako legeak aitortzen eta bultzatzen baitu (75.2 art.). Hau da, bisitaldien gaineko arautegiak kontuan izan behar luke elkarte batzuk egunero espetxeetara etorri ohi direla hainbat jarduera egiteko, eta batzuek ospitaleetan dauden pertsonak bisitatzen eta laguntzen dituztela.

Oro har, 56. jarraibideko irizpideetatik ezberdinak (edo aurkakoak) diren irizpideak proposatu genituen; guk proposatutakoa bete ahal izateko, Herrizaingo Sailak 56. jarraibidea aldatu behar luke. Edonola ere, adierazi behar da sail horrek oraindik ez diola erantzun gai horietan laguntzeko 2003-10-09an eginiko eskaerari, hainbat errekerimendu egin zaion arren.

Erakunde honen proposamenean, azaldutako irizpideei dagokienez, ez zituzten bereizketarik egin poliziaren zaintza dauzkaten ospitale unitateen artean (Txagorritxu, Basurtu, ...), nahiz eta aurreko txostenetan ezberdintasun horiek azaldu diren. Halere, ematen du arazorik gehienak Txagorritxuko Ospitaleko unitatean gertatu direla azken urte honetan eta, bereziki, boluntarioen bisitaldiei dagokienez. Gai zehatz honi buruz kezak helarazi dizkigute elkarte batzuek. Haietakoren batekin batzar bereziak egin ditugu eta, ondorioz, erakunde honetako langileek berriro bisitatu zuen aipatutako unitatea (2004ko ekainaren 15ean), lurraldeko polizia-arduradunekin (eta zaintza dagokion Gasteizko polizia-etxeko arduradunekin) iritziak trukatu.

Martxotik aurrera irizpidea aldatu zelako sortu zen arazoa, boluntarioen bisitaldiak murriztu baitziren, astean hiru astetara gutxituz. Zenbait kudeaketa eta batzar egin ondoren, Langraizko espsetxeko zuzendariak bisitaldien araubidea berriro aldatu zuen, GKEentzako egunak gehituz (astean bost) eta bestelako kontuak arautuz: unitatean aldi berean egon zitezkeen bisitari kopurua edo bisitaldien gehieneko iraupena, esaterako. Baina ordutegiei buruz, boluntarioek ez dute berreskuratu bisitaldiak goizez egiteko baimena, beraz, pertsona batzuek ezin duten programan parte hartu. Era berean, kolektibo horrek uste du ordutegiaren kontua boluntarioen eta senideen arteko gatazka bat bezala planteatu duela Ertzaintzak. Aitzitik, boluntarioek diote ez dela inoiz arazorik izan, batik bat bisitatzen dituzten presorik gehienek ez daukatelako familiarekin harremanik. Edonola ere, kasuren batean boluntarioen eta senideen bisitaldien artean aukeratu behar bada, boluntarioek argi dute senideek edo hurbilekoek erabateko lehentasuna izan beharko luketela.

Finean, boluntarioek uste dute ematen duten laguntza mesedegari dela bai gaixoen zat (sarritan depresioa, antsietatea eta abar izaten dituztenak) bai senideentzat, sarritan senideentzat bitartekari lanak eginez, asko urrun bizi direlako eta ezin izaten dutelako ospitalera joan. Boluntarioek uste dute erizainek balorazio positiboa egiten dutela haien lanaz, batzutan presoen premia edo nahien jakinaraziz. Aitzitik, uste dute Ertzaintzak eta espsetxe administrazioak ez dutela haien lan humanitarioa aintzat hartzen, eta batzutan oztopoak ere jartzen dizkietela.

Erakunde honek boluntarioen eskaerarekin bat egiten du. Berriro esan behar dugu espsetxeetako legean eta askatasuna kentzen zaien pertsonen buruzko nazioarteko testuetan GKEen laguntza baloratzen eta sustatzen dela presoak gizarteratzeko. Horregatik, erakundeek, GKEen lan hori errespetatu ez ezik mesedetu ere egin behar dute.

### • **Elkarteek planteatu dituzten arazo eta kezka nagusiak**

Presoen laguntzen dieten elkarteekin edo zentroetara programa osagarri edo alternatiboak eramaten dituzten elkarteekin batzarrak egin ziren martxoaren 29an (Gasteizen), martxoaren 30ean (Bilbon) eta apirilaren 1ean (Donostian). Guztira 18 elkarteetako pertsonen parte hartu zuten, gehienak Langraitz, Basauri edo Martutenen lan egiten dutenak: HIESaren aurkako Arabako Batzordea, IRSE-Araba, ADAP, Gizabidea-Pastoral Penitenciarria, Bizkaiko Espetxe-Laguntzarako Txanda, Etorkintza, Salhaketa (Bizkaia), Zubia, Izangai, Bilbo-Etxezabal, Adsis-Bestalde, Goiztiri, Bidesari, IRSE-Bizkaia, IRSE-Gipuzkoa, Hegaldi, AGIPAD eta Arrats.

Aurreko urteetan legez, elkarteek mota askotako arazoak azaldu zituzten: zentroen egoera fisiko edo higienikoak, arretea medikua, euren lana egiteko batzuetan izaten dituzten oztopoak, kolektibo jakin batzuen egoera berezia (emakumeak, atzerritarrak, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak...), zenbait erabaki hartzeko erabiltzen diren irizpideak...

Hona hemen, laburbildurik, hiru batzarretako bakoitzean aztertutako kezka edo arazo nagusiak:

#### 1. **Araba:**

- Langraizko egoera eta utzikeria, presoengan nahiz profesionalengan eragina duena.

- Espetxeetan osasun eskumenak berehala bereganatzeko aukera.
- Zentroetan programak egiten dituzten erakundeek urtero laguntzak jasotzeko arazoak eta berme eza (laguntzetan atzerapenak, hitzarmenik ez egotea...).
- Xiringak trukatzeko programa guztiak (Martutenen ere) kanpoko langileekin kudeatzeko proposamena, funtzionamendu hobea lortzeko.
- Txagorritxuko zaintza unitatea: presoek bisitaldiak egiteko eta telefonoz hitz egiteko irizpide murriztaileak.
- Azken erreforma penalen ondorio negatiboak: preso kopuruaren gehikuntza, hirugarren gradua lortzerakoan erantzukizun zibilaren eragina, hirugarren graduko segurtasun epea... Kaudimen gabezia kasuetan konponketa moraleko programak egiteko aukera.
- Langraitzera doazen autobus linea gutxi dago eta irrati-taxiek ez dute bertara joan gura.
- ETAko preso batzuei graduan ezarritako atzerapena, martxoaren 11ko atentatua eta gero.
- V. moduluko higiene txarra.
- Atzerritarren egoera berezia (kanporatuak izateko beldurra, informazio eza...).
- 117. artikulua: ez da betetzen, ez dago ikastera irteteko aukerarik (garraio arazoak...).
- Langraizko erizaindegia eta bertan dauden pertsonak egoera txarrean daude, abandonaturik.
- Errekisatutako telebista batzuk ospitaleko unitatera bidaltzeko aukera.

Batzarraren ostean jakin genuen Langraizko erizaindegia egokitzeko obrak egingo zirela. Halere, ematen du obrak bukatu aurretik eten direla. Beraz, dependentzia horietako bizi-baldintzak eskasak dira oraindik ere, osasun arazoak dauzkaten pertsonentzat erabat desegokiak.

## 2. Bizkaia:

- Elkarteek gutxi egin dezaketelako sentazioa. Sarritan, elkarteen jarrerak eta zentroarenak kontrajarriak direlako ustea.
- Erreforma penalei buruzko informazio eza (esaterako, erantzukizun zibilari eta kaudimen gabeziari buruz: zalantzak eta irizpide ezberdinak).
- Bizkaia eta Langraitz arteko garraio eza: autobusa jartzeko proposamena.
- Zentroek irizpide ezberdinak dituzte (esaterako, Langraitz eta Basauri), elkarteei dagozkien gaietan: sartzeko baimenak, talde gisa parte hartzeko aukera, mintzakidetza...
- Presoek eskaintzen zaizkien programa eta aukeren ezberdintasunak, zenbait ezaugarrien arabera: droga mendetasuna, atzerritar izatea, osasun mentala...
- Kontrol telematiko programan parte hartzeko irizpideak.
- Ordenagailuak erabiltzeko irizpide oso mugatzaileak.
- Hirugarren gradua eskuratzeko, kondenaren erdia beterik izan beharra.
- Langraitzen tailer eta zereginetako jarduera gutxi (aurreko urteetan baino aukera gutxiago).

- Langraitzen elkarteei jarduteko ordutegietan ezarritako murrizpenak. Tratamendurako eskubidearen eta lanerako eskubidearen arteko talka (jarduera biak ordutegi bertsuetan direlako).
- Osasun eta higiene baldintzak kable-tailerretan, eta bertan lan egiten duten presoen osasunean ondorioak.
- Bisitaldi intimoak baimentzeko erabiltzen diren irizpideak.
- Laguntzako pentsioen zati bat atxikitzea.
- Basaurin erroldatzeko arazoak eta protokolo eza.
- Atzerritarren kezka lege aldaketetan eta kanporatuak izateko arriskuaren aurrean.
- Zentroz aldatzeko irizpideak eta administrazio bidean jarritako errekurtsioei erantzun eza.
- Espetxeratzeko baldintzei buruzko kezka orokorrak (erregimen itxian), tortura edo tratu krudel gisa uler daitezkeenak (elkarte batek NBEko errelatoreari emandako agiria).

### 3. Gipuzkoa:

- Euskal presoa Martutenetik beste espetxe batzuetara mugitzea.
- Berokuntza eskasa, emakumeen moduluan eta erizaindegian izan ezik.
- Elkarteentzako dirulaguntzekin arazoak: atzerapenak, iraunkortasuneko berme eza, administrazioek elkarri bidaltzen diote arazo hau, dirulaguntzak jaso arte kredituak eskatu beharra programei aurre egiteko...
- Elkarte batzuek gero eta eragozpen gehiago aurkitzen dituzte Martutenen sartu ahal izateko.
- Ertzaintzaren irizpideak ospitalerako irteeretan, zaintza lanetan, uniforme edo uniforme gabe joateko.
- Atzerritar kopuruaren gorakada eta espetxetik ateratzeko sorospen gabezia.
- Umeen ardura duten guraso toxikomanoen kanpo baliabide berria sortzeko proiektua.
- Harrerako baliabide gutxiegi dago.

Goian laburbildu ditugun taldeko hiru batzarrak ez ezik, 2004. urtean elkarte batzuekin batzar bereziak egin ziren, esaterako, HIESaren aurkako Arabako Batzordearekin, Aldarriketa elkartearekin edo Gaixo Mentalen Senideen Elkarteen Federazioekin. Lehenengo kasuan, batzarraren gaia Txagorritxu Ospitaleko zaintza unitatean ingresatutako pertsonak bisitatu ahal izateko irizpideak izan ziren. Bigarrenean, elkarteak Langraizko espetxeko gaixo mentalentzako pisu tutoratutako proiektua. Hirugarrenean, berriz, aipatutako federazioak, besteak beste, bere kezka azaldu zuen gaixotasun mentalak dauzkaten presoen egoeragatik, eta oinarritzko kontu batzuk bermatu beharra nabarmendu zuen, esaterako, tratamenduen iraunkortasuna.

Arazo hauei eta beste batzuei buruzko informazioa eta kezkek elkarri azaldu ez ezik, batzarretan ekimen eta programa interesgarriak eta zenbait agiri batzuk ere trukatu zituzten.

Presoei laguntzen dieten elkarteekin harremana izateko ildo berean, erakunde honek idatzizko dokumentazioa bidali zien batzarretara etorri ez ziren elkarteei.

Planteatutako gaien zerrendan ikus daitekeenez, batzuk errepikatu egiten dira, eta Arartekoak aurreko urteetan ere aztertu ditu eta jarduketa bereziak egin ditu (esaterako: Langraitzerako garraioen gaia edo erizaindegiaren egoera, edo Arabatik Bizkairako joan-etorrien arazoa; ikus urteko txostenak). Beste batzuen ondorioz, jarduketa berriak egin dira, Txagorritxuko polizia-zaintzako unitatera eginiko bisitaldi berria esaterako, eta bisitaldietako irizpideak aldatzeko jarduketak (gorago azaldu da gai hau).

Atal honetan, ohar garrantzitsu bat kontuan izan behar da. Planteatutako gaien zerrendan parte hartu duten elkarten jarrera eta orduan (2004ko martxoan eta apirilean) zeuzkaten arazoetako batzuk laburbildu dira. Jarrera horiek ez datoz beti bat espetxeetako zuzendari edo langileenekin. Edonola ere, zentro bakoitzak dagozkion gaiei buruz egiten duen balorazio zehatza eduki arte (horrek kontrastea eta ikuspegi osatuagoa bideratuko luke), uste dugu gai hauen berri izanez gero presoekin zuzeneko harremana duten pertsonen eta elkarten kezka hobeto ulertuko genituzkeela.

Bestalde, urtean zehar bi txosten jaso ditugu, askatasuna kendu zaien pertsonen laguntzeko elkarte batek eginak. Dokumentu hauek ezin izan dira kexa legez tramitatu, ez baitzituzten espetxeetako administrazioaren jarduketa zehatzak salatzen baizik eta espetxe eta zigor politikaren aukera jakin batzuk kritikatzeko eta ezadostasuna azaltzen. Lehen txostenean adierazten zenez, justiziako administrazioak eta espetxeetako administrazioak etorkinak baztertzeko dituzte eta gehiegi zigortzen dituzte (zigor gogorragoak; euren ingurutik urrun dauden eta kanpoan laguntza elkarerik ez dauden espetxeetara bidaltzea; behar diren bermeak gabe kanporatzeko administrazio espedienteak; irteteko baimenak, erregimen irekia edo baldintzapeko askatasuna lortzeko ezintasuna, etab). Bigarren dokumentuan (2004ko azarokoa), espetxeetako administrazioaren politika (eta Gobernuarena, erantzule gorena den aldetik) kritikatzeko zen, gaixotasun larri eta sendagaitzen kasuan kaleratzea dela-eta. Izan ere, erreklamazioa egin zuen elkarteak bazterketa nabarmena atzematen zuen bi kasuetan: horrelakoetan, euren funtzioetan delituak egin zituzten funtzionarioak (torturak, ustelkeria, etab) mesedetzen ziren, bestelako delituetako kondenak zeuzkaten pertsonen kaltetan.

Bestetik, elkarteetako batzuek euren programak gutxieneko baldintzetan burutzeko izan dituzten arazoei buruz hainbat jarduketa egin ditugu, ofizioz, Eusko Jaurlaritzako bi sailen aurrean. Elkarteetako askok esku hartzeko programak egiten dituzte espetxeetan, edo erregimen irekian programa alternatiboak, erakundeen laguntzari esker. Laguntzen deialdiak berandu egiten badira edo ordainketak atzeratzen badira, elkarteek arazo larriak izaten dituzte: laguntza jasotzeko bermerik gabe programa bat aurrera ateratzea ala ebazpena jakin arte atzeratzea erabaki behar dute; diru-sarreraren alternatiboak bilatzea edo zorrak izatea; langileentzako ordainketak atzeratzea... Gainera, programen iraunkortasuna kolokan jartzen da, eskaerak urtero egin behar izaten direlako. Honelako egoerak azken bi urteotan bereziki errepikatu dira, deialdiak ebazterakoan atzerapen bitxi bat gertatu zelako. Horrek, iazko txostenean azaldu genuenez, Eusko Jaurlaritzako sail batzuetan administrazio funtzionamendu eskasa erakusten du.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren aurrean eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren aurrean ofizioz hasitako espediente biek egoera hau baloratzeko eta hobetzeko asmoa dute (ikus eginiko urratsen laburpena, txosten honetan bertan, 2.1 atalean).

- **Ertzaintzaren zaintza pean dauden presoek kondukzioak**

Gure erkidegoan dauden presoek kondukzioak Ertzaintzaren eskumena dira aspal-didanik. Espetxe bakoitzean, baina, irizpide ezberdinak aplikatzen dira edo, behintzat, leku aldaketetarako dauden baliabideak zentro bakoitzaren premiei egokitzen zaizkie gutxi gorabehera.

Jasotako informaziorako ez omen dago arazo larregi Martutenen ez Basaurin. Bai ordea Langraitzen.

Langraizko presoek kondukzioei dagokienez, erakunde honek ofizios jarduketa bat egin zuen, aurreko txostenetan azaldu duena. Oraindik ere konpondu gabeko arazoa da.

Langraizko presoak Bizkaiko epaitegietan agertzeko egiten diren kondukzioak izan ziren arazoaren jatorria, Arartekoaren esku hartzea ekarri zuena. Izan ere, epaitegietara eramateko kasu honetan erabiltzen diren irizpideekin, presoek zenbait egun egin behar izaten dituzte Basauriko espetxean, eta horrek arazoak sortzen ditu: lana galtzea, senideek ez dakite zein espetxetara jo, tratamendu medikuekin jarraitzeko zailtasunak...

Baina arazo horiek sortzen dituen irizpidea kasu jakin batzutan baino ez da aplikatzen. Hau da, epaitegira eraman beharreko pertsona emakumezkoa edo lehen graduko preso bada, epaitegira zuzenean eramaten da eta egun berean bueltatzen da. Berdin jokatzen da Basauriko edo Martuteneko presoak lurralde historikotik kanpo dagoen epaitegi batera eramateko kasu guztietan.

Arartekoaren erakundeak proposatu zuen Langraizko presoak Bizkaiko epaitegietara dei egiten zitzaizkion ere kondukzioa zuzenean egitea eta egun berean Langraitzera itzultzea, Basaurin sartu gabe. Sailak erantzun zuen proposamena bidera ezina zela: kondukzioak egiten dituen unitateak bitarteko material eta pertsonal gehiago erabiltzea ekarriko luke horrek eta hori ezin zen onartu plantilla zegoen egoera eta zerbitzuaren premiak kontuan izanik.

Arazoa, antza denez, ez da konpondu, baina gainera, kanpora kontsulta medikuetara joan behar duten preso gaixoen kondukzioetan ere gertatzen ari da: kasu hauetan atzerapenak gertatu ohi dira, batzutan aste bi edo gehiagokoak. Horrek, noski, osasunerako eskubidea kaltetzen du. Horregatik, Arartekoak Herrizaingo Sailarengana jo du berriro ere eta erantzunaren zian dago.

- **Gure erkidegoko presoekin eta droga mendekoekin jarduteko programei buruzko datuak**

Aurreko txostenetan, epigrafe honetan bertan, jardueren edo parte hartzaileen kopuruak eman ditugu, zentro eta programa bakoitzerako: metadona, xiringa trukaketa, desintoxikazioa, ohitura kentzea, baliabide komunitarioetara bideratzea... Datu horietako gehienak urteroko memorietatik atera ditugu.

Txosten hau idatzi orduko ez dugu jaso espetxeetako drogazaleekin jarduteko programen 2003ko memoria, Espetxeko Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiak bidali ohi diguna. Beraz, esku hartzeko programa bakoitzari buruz dauzkagun daturik berrienak 2002. urtekoak dira, gure iazko txosten arruntean jaso genituenak.

Zentro bakoitzeko presoek buruzko datu eguneratuei buruz, ematen du joerak goranzkoa izaten jarraitzen duela, koadro honek erakusten duenez:

	Basauri	Martutene	Langraitz	Guztira
2002ko abendua	262	248 (13 emakume)	597 (57 emakume)	1107
2004ko otsaila	234	297 (10 emakume)	649 (69 emakume)	1180
2005eko otsaila*	304	267 (12 emakume)	750 (69 emakume)	1321

\* Prentsatik hartutako datuak, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia iturri gisa aipatuz.

Datu hauek guztiak ikusita, berriro ere gogora ekarri behar dugu espetxeetan preso asko pilatzeak giltzaperatuta egotearen kalte guztiak areagotzen dituela (ziegak konpartitu beharra, tentsioa gehituz, lantalde teknikoei eta tratamendu lantaldeei lanak gainezka egiten die, etab). Gainera, horrela presoan bizi-baldintzak okertzen dira eta espetxe zigorrak izan behar lukeen helburua, gizarteratzea mesedetzea alegia, erdiesteko oinarritzko eskubidea kentzen zaie. Iazko txostenean azaldu genuenez, 2003ko erreforma penalak dira preso kopuruak gora egiteko arrazoi nagusia, beraz, erreforma horiek berri aztertu beharko lirateke.

### 1.1.2. ARABAN DIHARDUTEN SASOIKAKO LANGILEEN ARAZOEN JARRAIPENA

1995az geroztik Arartekoak Arabara datozen sasoikako langileen egoera aztertu izan du, batez ere mahatsaren eta patataren bilketan dihardutenen lan baldintzen segimendua eginez: kontratazio sistemak, aterpeak, adingabeen eskolatzea...

2002ko urriaren 11n *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan* izeneko txostena argitaratu eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion, eta urte hartako azaroaren 27an Giza Eskubide eta Herritarren Eskaberetarako Batzordean eztabaidatu zen.

Urte bereko ohiko txostenean jasotako laburpen batean (ikus 2002ko Txostena, 1.1.2 atala) kezkarrienak iruditzen zitzaizkigun datuekin batera, hartarako gomendioak biltzen genituen; azaltzen genituen, halaber, Legebiltzarrean gomendio horien haritik aurkeztu ziren ekimenak, aurrera begira ikuspegi berriak zekartzatenak: sasoikako langileei buruzko legez besteko proposamena, Eusko Legebiltzarrak 2002ko abenduaren 12an onartua; sasoikako langileei buruzko mozioa, Arabako Batzar Nagusiek 2003ko urtarrilaren 20an onartua.

Harrezkero, segimenduan bereizi egin dira, alde batetik, azken kanpainen egindako jarduketa zehatzak, eta bestetik, epe ertainerako plan edo jarduketak. Hala, iazko txostenean bereiz jaso ziren 2003ko kanpainari buruzko datuak (gomendio-multzoetariko bakoitzean: kontratazio baldintzen hobekuntza; bizilekuen hobekuntza; eskolatzearen hobekuntza...) eta egindako urratsak, bereziki Osoko Planari, Instituzioen arteko Mahaiari eta arauak garatzeko zenbait proposameneri zegokienez (ikus 2003ko Txostena, 41-45 orrialdeak).

Erakunde honen segimendu lanak, 2004an, honako jarduketa hauek izan ditu ardatz:

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuarekin egindako bilera; bertan aztertu ziren "Sasoikako Langileen Artapenerako Osoko Plana"ri buruzko proposamenak, plan hori onetsi aurretik.
- Sasoikakoei buruzko Mahaiaren azken bileran parte hartzea. Arabako Foru Aldundia da Mahaiaren sustatzailea.
- EAEko Instituzioen arteko Sasoikakoen Mahaiaren parte hartzea. Mahai hori 97/2003 Dekretuaren bidez sortu zen.
- Ofiziozko espediente batzuk, 2004ko abenduan Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari, Hezkuntza Sailari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zuzendu zitzaizkienak.

Jarduketa guztietan, gure txosteneko 17 gomendioak eta gorago aipatutako bi proposamen instituzionalak izan dira beti erreferenteak; batez ere, erakunde edo sailen aurrean ofizioz egin diren jarduketari edo informazio-eskaerei dagokienez. Hala, bada,

- Nekazaritza sailburuari informazio eguneratua eskatu zitzaion gai hauen inguruan:



- 1) Osoko Planaren garapena.
  - 2) Instituzioen arteko Mahaiaren jarduna.
  - 3) Sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzeko dekretua.
  - 4) Sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntza-lerroak.
  - 5) Azken mahats bilketan eta patata bilketan txosteneko gomendioak betetzeko hartutako neurri zehatzak.
- Hezkuntza sailburuari ere informazioa eskatu zitzaion azken mahats bilketan eta patata bilketan txosteneko 13. eta 14. gomendioak betetzeko hartutako neurriez eta egindako jarduketaz (13. gomendia: "Ahaleginak egitea adingabeen eskolatzeko maila igotzeko"; 14. gomendia: "Ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzea").
  - Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, berriz, honako hauen berri eskatu zitzaion:
    - 1) Sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzeko dekretua.
    - 2) Txosteneko gomendioak betetzeko Sailak azken kanpainan hartu dituen neurri zehatzak (batik bat 9. gomendiotik 12.era bitartekoak, bizilekuen baldintzei buruzkoak, eta 16. eta 17. gomendioak, gizartearen sentsibilizazioari eta sasoikako enpresen gizarteratzeari buruzkoak).
  - Arabako ahaladun nagusiari ondoko gaiei buruz galdetu zitzaion:
    - 1) Sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntzei buruzko Dekretua edo laguntzak emateko deialdia (Arabako Batzar Nagusiek 2003ko urtarrilaren 20an onetsitako mozioaren 2. atala).
    - 2) Mahats bilketan eta patata bilketan txosteneko gomendioak betetzeko hartutako neurriak eta egindako jarduketak (mozioaren 3. atala).

Gure datu-eskaera horien erantzunak jaso eta horietariko hiru aztertu ditugu txosten honetarako eta segimenduari begira. Hemen informaziorik azpimarragarriena laburbilduta jaso dugu eta komenigarria iruditu zaigu bi multzotan sailkatzea:

1. Epe ertainerako plan edo jarduketei dagokiena.
2. 2003ko kanpainari buruzkoa.

## 1. Epe ertainerako plan eta jarduketak

### 1.1. Osoko Planaren garapena

Sasoikako Langileen Artapenerako 2004-2007 urteetarako Osoko Plana 2004ko urriaren 5ean onetsi zen, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren bilkuran. Oinarritzat hartu zen apirilaren 29ko 97/2003 Dekretuak sortutako Instituzioen arteko Mahaiak aurretik prestatu eta onetsi zuen agiria.

Hauek dira plan horren abiaburu eta ildo nagusiak:

- Erakundeen arteko koordinazioa.
- Langileak euren herrian kontratatzea.
- Sasoikakoei banakako laguntza ematea.
- Bizileku pribatu zein publikoen sareak behar adinako kalitatea izatea.
- Sasoikakoekin datozen adingabe eta nagusiei arreta ematea.
- Sentsibilizazio kanpainak: langileei, nekazariei eta gizarte osoari zuzenduak.

Planak zenbait arlotan banatuta dago, eta arloak jarduketetan. Jarduketa horiek berariazko ekintzak biltzen dituzte, denboran mugatuak. Planari erantsitako agirien zehazten dira 2004an garatzekoak diren ekintzak, erakunde arduradunak, parte hartuko duten gainerako erakundeak, beharizan ekonomikoak eta finantzaketa.

Nekazaritza sailburua da Instituzioen arteko Mahaiko burua. Beraren esanetan, egitekoak ziren ekintza guztiak ezarritako epean eta moduan burutu dira, eta egin den gastua ere aurreikusitakoa bera da: 394.153,00 euro.

Sailburuak bere erantzunean dioenez, kudeaketari eta jarduerari buruzko 2004ko Txostena 2005eko lehen seihilekoan aurkeztuko zaio Eusko Legebiltzarrari.

## 1.2. Instituzioen arteko Mahaiaren jarduna

Mahaian ordezkariak dituzte Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek, udalek (Eudelen bitartez), beste administrazio batzuek, eta lanbide, nekazaritza eta gizarte erakunde batzuek. Mahaiak 2004. urtean bost lan-talderen artean banatu ditu bere egitekoak:

- 1) Bizilekuei buruzko lan-taldea: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ardura-pean jardun du; UAGAk, Eudelek, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eta Mendikoi erakundeak parte hartu dute. Bi eginkizun nagusi izan ditu: sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten baldintzei buruzko dekretua argitaratzea, eta, 2005eko aurrekontuei begira, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak batera eman beharreko aginduaren zirriborroa prestatzea, titulartasun publikoko eta pribatuko bizilekuen kofinantzetari buruzkoa.
- 2) Prestakuntzari buruzko lan-taldea: Nekazaritza eta Arrantza Sailak izan du lan-talde honen ardura, nekazarien prestakuntzarako Mendikoi erakundearen bitartez; UAGAk eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak parte hartu dute. Lan-talde honen eginkizuna sasoikako langileentzat berariaz 2004ko prestakuntza programa ezarri eta garatzea izan da.
- 3) Sasoikakoen lan baldintzei buruzko lan-taldea: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak hartu du taldearen ardura, Arabako Lan Ordezkaritzaren bitartez; UAGAk, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak parte hartu dute; sindikatu interesatuak ere tartean izan dira, eta Lan Ikuskatzaitzak noizbehinka parte hartu du. Talde honek bi helburu nagusi ditu: lanaren eta kontratazioaren arloetako arauak betearaztea, eta lan hitzarmena ezartzeko bidean aurrera egitea.

- 4) Langileak euren herrian kontratatzeko programaren kudeaketarako aplikazio informatikoa garatzen diharduen lan-taldea: Nekazaritza eta Arrantza Sailak izan du taldearen ardura, IKT enpresaren bitartez; UAGAk parte hartu du. Lan-talde honek administrazio-tramiteak bizkortu eta erraztuko dituen tresna informatikoa prest eduki nahi du 2004-2005erako.
- 5) Gizarte sentsibilizatzeko kanpainetarako lan-taldea: Arabako Foru Aldundiak hartu du ardura, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez. EUDELEk, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta elizbarrutiko Caritas erakundeak parte hartu dute. Hona hemen talde honek jorratu dituen arlo nagusiak: informazio kanpainak (berariazko bulegoak barne), sasoikako en hizkuntzetan egindako dokumentazioa, adingabeei laguntzeko programa bereziak ezartzea Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, eta adinekoei laguntzeko programak ezartzea.

### 1.3. Sasoikako en bizilekuek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzeko dekretua

Arartekoak emandako gomendioei jarraituz, Osoko Planean dekretu bat onestea aurreikusten da, sasoikako langileen bizilekuek bete behar dituzten baldintzak arautuko dituen. Lan-talde arduradunak bidaia egin zuen Lleidara, Katalunian gai honi nola heldu dioten jakiteko. Zenbait bilera egin ostean zirriborroa proposatu zion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, urrian hain zuzen.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Arartekoaren informazio-eskaerari erantzutean, zirriborro hori bidali digu, baina ez digu ezertxo ere esan haren onespenez edo tramiteen egoeraz.

Jaso dugun arau-zirriborro horrek eranskin luze batean zehatz-mehatz azaltzen ditu sasoikako langileentzako bizilekuek bete behar dituzten baldintza materialak eta funtzionalak; bizilekuen sailkapena ematen du (ugazabaren etxebizitzaren eranskinak, aterpetxeak, kanpamentuak...); prozedura ezartzen du bizilekuak baimendu, erregistratu eta kreditatzeko, sasoikako langileen familiei aterpea emateko gizarte zentro gisa; erregistroan inskribatzeko epea ezartzen du, eta beste epe bat, ezaldia hain zuzen, baldintzak betetzeko, eta beste hainbat alderdi arautzen ditu. Nolanahi ere, zirriborroa baino ez da eta oraingoz ez du indarrrik arau gisa.

## 2. Azken mahats bilketan eta patata bilketan txosteneko gomendioak betetzeko hartu diren neurri zehatzak

- Arabako azken kanpainan hartu diren neurriei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak eskaini dizkigun datuetatik honako hauek hautatu ditugu esanguratsuenak direlakoan:
  - Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak, zati batean baino ez bada ere, finantzatzen dituen bizileku pribatuei gutxienez ere 50 plaza erantsi zaizkie.
  - Sasoikako langileentzako prestakuntza programa, eta aurreikusitako ikastaroen garapena: inausketa, udaberriko kimaketa, kimu berrien kimaketa eta lan arriskuen prebentzioa.

- Lan Ikuskapeneko kanpaina. Ikuskapenak % 20 gehitu dira 2003ko aldean. Hitzarmen kolektiboaren negoziazioa -2005eko udaberrian da egitekoa- prestatzeko harremanak hasi dira.
  - Aplikazio informatikoa prestatzen ari da, langileak euren herrian kontratatuzko prozesuak azkartu eta erraztuko dituen (kontratuak, Gizarte Segurantzako altak, nominak, kitoak, datu-basea eta abar).
  - Euren herrian kontraturiko langileen kopurua nabarmen hazi da: 1.423 kontratu egin zaizkie 400 langileri, guztira, eta 7.185 lansaio kontratatu dira. Udaberriko kimaketarako eta kimu berrien kimaketarako kontraturiko lansaioak 2003an baino % 50,6 gehiago izan dira; mahats-bilketarako lansaioak % 49,2 gehiago; inausketarako lansaioak % 150,66 gehiago, eta patata bilketarako lansaioak % 81,9 gehiago.
  - Solasaldiak egin dira, hainbat erakundek batera parte hartuta (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Herrizaingo Saila, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, UAGA, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza), Agurainen, Kanpezun, Oionen, Laguardian eta Labastidan, 2004-2007 aldirako Osoko Planaren edukiak eta 2004ko kanpainarako berariazko arau eta jardunbideak azaltzeko. Solasaldietara joan diren nekazariak 500dik gora dira.
  - Sasoikako langileen eskubide eta betebeharreri buruzko informazio liburuxka argitaratu da gaztelaniaz, arabieraz eta portugesez, eta aurreko urteetako informazio liburuxkak berrargitaratu dira.
  - Salaketak jartzeko prozedura ezarri da. Horretan parte hartu dute Lan Ikuskatzaileak, Eusko Jaurlaritzako Lan Ordezkaritzak, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak eta Ertzaintzak.
- Sasoikako langileen umeak eskolatzeari dagokionez, Hezkuntza Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzak eman dizkigun datuetatik honako hauek nabarmendu ditzaiegu:
    - Eskola-aldia: irailaren 15etik (Kanpezun hasi zen) azaroaren 3ra arte (Laguardian amaitu zen).
    - Sasoikako langileen umeak hartu dituzten ikastetxeak: Laguardia, Eltziego, Labastida, Lantziego, Oion eta Kanpezuko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak.
    - Ikastetxe bakoitzean zenbat hartu dituzten: gutxienez 8 (Lantziegon eta Kanpezun) eta gehienez 26 (Eltziegon).
    - Ikastetxeetara joan diren irakasle laguntzaileak: zortzi.
    - Aurreko urteetan bezala, sasoikako umeek garraio eta jantoki zerbitzuak erabili dituzte.

Hezkuntza Sailaren Lurralde Ordezkaritzaren txostenean datu horiek eta beste batzuk ematen dira ikastetxez ikastetxe, eta denboraldiaren balorazio orokorra egiten da, aurreko urteetako kanpainekin alderatuta:

- Irakasleak aurreko urteetan bezainbeste izan dira gutxi gorabehera; zenbait tokitan, Oionen eta Kanpezun adibidez, kopuruak behera egin du.
- Ikastetxeetara laguntzera joan diren irakasleak aurreko ikasturtean bezala mantendu dira.

- Ikastetxe batzuetan saioak egin dira sasoikakoen umeak gainerako ikasleekin elkartzeko, irakasgairen batean (Eltziegon) edo leku eta ordu jakinetan (Oionen). Irakasleek esperientzia ona izan dela diote.
- Txosten hau ixteko orduan (2005eko otsailean) oraindik ez dugu Arabako Foru Aldundiaren erantzunik. Eskatu diogun informazioa ematen digunean, ziur asko datu gehiago eskainiko ditu azken kanpainan hartutako neurri zehatzei buruz eta hainbat programatarako laguntzei buruz. Dena dela, jaso dugun informazioa nahikoa da aurrera egin dela sumatzeko, batez ere epe ertaineko jarduketan plangintzaren alorrean.

Konpondu gabe dauden arazoei begira, berriro azpimarratu behar dugu, bereziki, bizilekuak lehenbailehen arautzeko premia dagoela. Hain zuzen ere aurten gure erakundeak zenbait kexa jaso ditu arazo horren gainean.

### 1.1.3. HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO EGOITZEI BURUZKO AZTERLANAREN JARRAIPENA

2004ko abenduaren 23an EAeko adinekoentzako arretari buruzko txostena amaitu zen.

Txostenak, atal nagusietako batean, gure lurraldeko egoitza mota guztiak aztertzen ditu –egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta babesutako apartamentuak–; bertan aztertzen dira egoitzen bilakaera eta gaur egun dituzten material, eginkizun eta langileen ezaugarriak.

Txosten hau egiteko, galdera-sortak bidali dira 327 egoitza, etxebizitza komunitario eta babesutako apartamentutara, bete ditzaten eta, ondoren, emaitzak aztertzeko.

Ondoko taula honetan igorritako galdera-sorten erantzunak islatzen dira, zentro-mota bakoitzeko.

#### Postaz bidalitako galdera-sorten erantzunak egoitza motaren arabera

	Bidalitako galdera-sortak	Betetako galdera-sortak	Erantzunen %
Egoitzak	174	92	52,9
Etxebizitza komunitarioak	121	21	17,4
Babespeko apartam.	32	25	78,1
Guztira	327	138	42,2

Ondoren, galdera-sortak zentro-motaren arabera multzokatu ziren, hiru aldagaiek zehaztutako kategoriatan: lurralde-eremua, titularitate juridikoa eta tamaina –hirugarren aldagai hori ez da kontuan hartzen etxebizitza komunitarioen kasuan–, eta emaitzak, berriz, aztertutako unibertsoari dagozkionekin alderatuta. Horrela, ordeztua ez zegoen talderen bat eta erantzun-indize oso baxuak erakutsi dituen talderen bat zegoela ikusi zen. Atzemandako gabezien azterketatik abiatuta, ordezkapen txikiena zuten zentroen lagin bat bisitatu zen. Horrela, behaketa zuzeneko datuak eskuratzeaz gain, beste 61 galdera-sorta bete ziren galdera-sorta partzialki besterik bete ez zuten 16 zentrotan, eta postaz bidalitako inkestari erantzun ez zioten 45 zentrotan.

Ondorengo taula honetan guztira eskuratutako emaitzak jasotzen dira, erabili diren hiru antolaketa-aldagaien arabera.

**Igorritako galdera-sortetan emandako erantzunak, baliabide mota, lurraldea, titulartasuna eta zentroaren tamaina kontuan hartuta**

		Egoitzak			Etxebizitza komunitarioak			Babespeko apartament.		
		Itaundutako zentroak	Betetako galdera-sortak	Erantzunen %	Itaundutako zentroak	Betetako galdera-sortak	Erantzunen %	Itaundutako zentroak	Betetako galdera-sortak	Erantzunen %
Lurralde Historikoa	Araba	26	17	65,4	31	13	41,9	7	7	100,0
	Bizkaia	93	48	51,6	84	37	44,0			
	Gipuzkoa	55	31	56,4	6	4	66,7	25	18	72,0
Titulartasuna	Publikoa	58	41	70,7	6	3	50,0	30	23	76,7
	Pribatua	116	55	47,4	115	51	44,3	2	2	100,0
Tamaina	Txikia	107	46	43,0				28	21	75,0
	Erdipar.	54	38	70,4				3	3	100,0
	Handia	13	12	92,3				1	1	100,0
Guztira		174	96	55,2	121	54	54	32	25	78,1

Azkenik, bildutako informazioa haztatu egin zen eta hiru aldagai horiekin batera definitutako taldeetako bakoitzari estrapolazio-indize bat esleitu zitzaion, aztertutako unibertsoarekiko zenbatespenak egiteko; era horretan, erreferentziako hiru ikuspegi-tako edozeinetatik begiratuta (lurraldea, titulartasuna eta tamaina), emaitzak fidagarriak direla bermatzen da.

Adierazi behar da, amaitzeko, EAEko egoitzazko arretak duen egoeraren deskripzio globala egiteko erabilitako metodologia kontuan hartuta (gogoratu metodologia horren diseinua, logikoki, zentro ugari egoteak baldintzatu zuela), erantzun gehienak zentroek eurek betetako galdera-sortetatik datozela, nahiz eta horietatik 60tan behaketako bisita ere egin den.

Egoitzen egoera xehetasun handiagoz ezagutu ahal izateko, EAEko adinekoen arretari buruzko txostenera jo behar da. Txosten hori epe laburrera argitaratuko da.

#### 1.1.4. ADINEKOENTZAT EGOITZEZ KANPO DAGOEN LAGUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

2004. urtean, adinekoentzat egoitzez kanpo dagoen laguntzari buruzko txosten bereziaren jarraipen-jarduketak EAEko adinekoen arretari buruzko txostena egitera zuzendu dira. Txosten horrek etxeko laguntza zerbitzuen nahiz eguneko zentroen azterketa xehekatua jasotzen du.

Txosten horretan ondoko datu hauek islatzen dira:

- *Zerbitzu-sarea eta estaldura.* EAEn, eguneko zentroen kopurua 2003an 80koa da, eta guztien artean 2.068 plazako edukiera dute; beste era batera esanda, 5,5 plaza, 65 urtetik gorako mila pertsona bakoitzeko. Arabak duen estaldurak bikoiztu egiten du Bizkaikoa, eta Gipuzkoakoa baino ehuneko 42 handiagoa da.
- *Titulartasuna.* Plazen ehuneko 60,8 publikoak dira, ehuneko 13,2 publikoak dira baina titulartasun pribatuko zentroetan eskaintzen dira, eta ehuneko 26 pribatuak dira. Araban garrantzi handia du eskaintza publikoak (ehuneko 96,6), Bizkaian eskaintza pribatuak (ehuneko 45,2) eta Gipuzkoan erakunde publikoekin itundutako plazek zentro pribatuetan (ehuneko 33,3).
- *Okupazio tasa.* Ikerketaren unean, okupazio tasa ehuneko 78koa da eta bete gabe dauden plazak honela banatzen dira: zentro publikoetan plazen ehuneko 13,7 daude eskuragarri, eta pribatuetan ehuneko 30,3 itundutako plazak dituztenean, eta ehuneko 37,8 gainerakoetan.
- *Erabiltzaileen ezgaitasun maila.* Erabiltzaileen ehuneko 43,0k ezgaitasun larria dute eta ehuneko 40,7k ezgaitasun ertaina; gainerako ehuneko 16,3 autonomotzat har daitezke. Eraginkortasun bertikalari dagokionez, lurraldeen arteko ezberdintasunak garrantzitsuak dira, batez ere, Araban landa-zentroen sare bat dagoelako; sare horren helburua da gizarte-bazterketa ekiditea eta pertsona autonomoei laguntza ematea.

Zentro horiek aztertzeko, galdera-sortak igorri dira eguneko zentro desberdinetara. Igorri diren galdera-sortetatik 49 bete dira, % 61,2 hain zuzen ere.

Ondorengo taula honek zentroetan eskuratutako emaitzak jasotzen dira, baliabide-motaren, lurraldearen, titularitatearen eta zentroaren tamainaren arabera.



**Igorritako galdera-sortetan emandako erantzunak, baliabide mota, lurraldea, titulartasuna eta zentroaren tamaina kontuan hartuta**

		Eguneko zentroak		
		Itaundutako zentroak	Betetako galdera-sortak	Erantzunen %
Lurralde historikoa	Araba	18	9	50,0
	Bizkaia	33	22	66,7
	Gipuzkoa	29	18	62,1
Titulartasuna	Publikoa	52	29	55,8
	Pribatua	28	20	71,4
Tamaina	Txikia	36	21	58,3
	Erdipar.	36	21	58,3
	Handia	8	7	87,5
Guztira		80	49	61,2

### 1.1.5. **BABESIK GABE DAUDEN HAUR ETA NERABEEN ARTAPENAREN GAINEKO JARRAIPENA**

Ararteko erakundeak babesik gabe dauden haur eta nerabeen artapenaren gaineko txosten berezia 1997ko irailean atera zuen jendaurrera. Lana egiteko 150 espediente aztertu ziren (50 lurralde historiko bakoitzeko), eta gure Erkidegoan 1995ean zeuden 63 zentroak ikustera joan ginen. Eta txostena aztertutako kontuetako askoren gaineko 42 gomendio proposatuz burutu zen:

- marko juridikoaren eta adingabeen babesari buruzko eskumenen banaketaren gainean;
- zerbitzuen sarean lan egiten duten profesional desberdinen gainean;
- norbanakoen beharrei erantzuteko programa desberdinen gainean;
- antzeman, erabaki, parte hartu, berrikusteko eta abarreko prozeduren gainean;
- egoitzetako zerbitzuen antolamendu eta funtzionamenduaren gainean;
- zerbitzu horien kontrolaren eta ebaluazioaren gainean...

Bai txostenean bai ondorengo jardueretan, nabarmen hobe litezkeen alderdiak edo lehenesten diren beharrak azpimarratzean, erakunde hau ondoko hauetan bereziki tematu da:

- araudi erkide bat behar dela, arretarik gabeko adingabeen funtsezko kontuak araupetzeko, gure Erkidegoan;
- ahalik eta erantzunik desberdin gehien behar dela (familietako harrera, larrialdietako zentroak, eguneko zentroak...);
- erakundeen erantzunetan alde handiak ikusi direla lurralde historikoen artean;
- babesik gabeko egoerak antzemateko mekanismoak hobetu behar direla;
- oinarriko gizarte zerbitzuen, hezitzaile adituen eta erkidegoko beste zerbitzu batzuen arteko harremana eta koordinaketa;
- irteera, jatorrizko esparruko gizarteratze edo gizarte autonomiako programak;
- haurren eta nerabeen eta beren familien partaidetzarako mekanismoak;
- zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldioroko kontrola.

Txostena aurkeztu zenetik, urtero-urtero, erakunde honek egoeraren jarraipena egin du, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail eta erakunde desberdinen aurrean, aldioroko bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera etxe edo zentroetara... Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostenetan, urtero-urtero, jarduera horien laburpena jaso da.

Orain hiru urte, txostena egin zenetik igarotako denbora zela-eta, eta haurren beharretan eta haurrak babesteko politikan izandako aldaketak kontuan izanik, ahalgin berezia egin zen informazioa eguneratzeko eta izandako bilakaeraren eta lortutako aurrerapenen balorazioa egiteko. Horretarako, bisitez gain (bereziki bakarrik dauden atzerritar adingabeentzako eta jokabide arazo larriak dituztenentzako zentroetara), administrazio eskudun bakoitzarengana jo genuen, informazio xehatua eskatzeko, ondoko gaien inguruan:

1. Urte askotako indarreko planak eta abian dauden programak, familia, bitartekari zerbitzu, familia banantze eta babes sistematik irtearen ganean.
2. Ekipo teknikoetan, artapen zuzeneko profesionalengan eta ekipoen arteko koordinaketan izandako aldaketa esanguratsuak.
3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketa esanguratsuak (batzorde teknikoak, erabaki guneak..).
4. Arrisku eta babesik gabeko egoerak antzemateko sartutako hobekuntzak.
5. Hartutako adingabeen partaidetza eta kexetarako mekanismoak eta bizikidetasun arauak ezartzea.
6. 2000. eta 2001. urteetan artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak.
7. Familia banantzeetako babes neurrien gaineko datuak (egoitzetan hartzeak, familietan hartzeak, adopzioak...) 2000. eta 2001. urteetan.
8. Estatuko eta nazioarteko adopzioen gaineko berariazko datuak.
9. Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak, zentro bakoitzaren tamaina, titularitate edo betekizunaren arabera.
10. Zerbitzuen eta programen funtzionamenduaren ebaluazio, ikuskaritza eta kontrolean sartutako hobekuntzak.
11. Berariazko informazio eta datuak bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboaren ganean.

Zenbait ataletan, eskatutako informazioa hasierako txosteneko datuekin alderatzeko moduko kopuruzko datuetan edo adierazleetan zehazten zen, horrela bilakaera ikus baitzitekeen.

Jasotako informazio guztia, laburbilduta, 2001. urteko txostenean islatu zen, lurraldez lurralde. Gainera, azkeneko atal batean, gogoetakoa, ondorio, joera eta alderdi aipagarri nagusiak jaso ziren (ikus 2001eko txostena, 1.1.5. atala)

Jarraipenerako formula hori bereziki interesgarria iruditzen zaigu, aldi behin erabiltzeko, epe luzeetarako, datu orokorrak ematen dituelako eta abiapuntuari begira izandako joerak igartzen lagatzen duelako. Baina muga garrantzitsuak ere baditu. Bat, errealitatearen alderdi zehatzagoekin alderatzeko zailtasuna. Beste bat, datuak bildu eta aztertzeo dakarren lana. Onena litzateke administrazio eskudun bakoitzak teknika hori erabiltzea burututako jardueren gaineko memoria prestatu eta argitaratzeko, denbora jakin batean, kasu honetan babesaren gaiaz.

Txostenean jaso eta xehetasunez aztertutako datu orokorrak alboratuta, azkeneko urte hauetan, erakunde honen artapena eta jarraipena, berriro ere, bakarrik dauden adingabe atzerritarrengana bideratu dira.

Horrela, esaterako, iazko txostenean, atal honexetan, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zegokienez, bost epigrafe jaso eta garatu ziren (ikus 2003ko txostena, 51. orrialdea eta hurrengoak).

- a) Testuingurua eta arazoak: hemen igarritako bost arazo nagusiak nabarmentzen ziren.
- b) Ofiziotako jarduketak: adingabe hauek zirela-eta Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrean bideratutakoak.
- c) Arautze marko orokorraren aldaketak: Arartekoak Estatuko Fiskal Nagusiaren

- 3/2002 Aginduaren edukiaren (adingabeei itzularaztearen bidez kotasanari buruzkoa) aurrean zer jarrera zuen laburbiltzen zuen.
- d) Harrera zentroetarako bisitaldiak, urtean zehar Loiu, Urduña, Urnieta eta Gasteiza egindakoak, eta zentro horietan hartutako adingabeen datuak eguneratzea.
- e) Arartekoak hurrengo, adingabe horien egoerari buruzko ezohiko txostena egingo zuelako iragarpena.

Bestalde, iazko txostenak arreta berezia eskaini zion haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Lege Aurreproiektuari ere (ikus 1.1.5. atala eta txostenaren III. eranskina).

2004. urteari buruzko txosten honetan, arestian aipatutako bi gai horiek berrartu dira (bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; haurren legea) eta Arartekoak bereziki larriak izan diren bi kasuri buruz egin dituen jarduketak ere laburbildu dira: Gipuzkoan, institutuko ikaskideengandik ustez jazarpena pairatu zuen nerabeak bere buruaz beste egin izana, eta Bizkaian, babes zerbitzuetatik ihes egindako bi neskatoren hilketak.

## 1. Familiarik gabe dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko ezohiko txostena

Hara zer zioen, hitzez hitz, atal honexetan, iazko urteko txostenak: *“Azken urteotan ahultasun handiko adingabeei egindako jarraipenari esker, informazioa bildu da haien egoeraren alderdi desberdinen inguruan: burututako ekimenak, babes sistemek gazte horien beharrei heltzerakoan dauzkaten zailtasunak, gaiak gizartean eta instituzioetan sortzen duen ardura... Hori guztia kontuan izanda, laster Arartekoak ezohiko txosten bat osatuko du egoera eta arazoak zorrotz aztertzeke eta beharrezko deritzegun hobekuntzak planteatzeko.”*

Han iragarritakoa betetzeko, 2004an azterlana egin da eta txostena argitaratu aurreko azkeneko fasean dago, berrikuspen fasean alegia, lerro hauek idazten ari garen unean.

Urteko txosten honen 1.3. atalean txosten monografiko hori egiteko aurten egin diren urratsen laburpena sartu dugu. Nolanahi ere, aurreikusten da txosten osoa jendaurrera uda baino lehen atera ahalko dela.

## 2. Haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko legea

1997an, ezohiko txosten bat plazaratu zen haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruz. Harrezkero, erakunde honek urtero adierazi du gure Erkidegoak lege baten beharra duela oinarrizko alderdi batzuk arautu ahal izateko, esate baterako, harrera zentroak baimendu, homologatu eta aztertzeke araubidea, elkarbizitzarako araudiak edo zehapan erregimena.

2003. urtean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak lege zirriborro berria helarazi zigun, egoki irizten genien ekarpenak egiteko gonbiteaz.

Aurreko txostenetan erakunde honek zirriborro horri buruz egindako jarduketan berri eman genuen (ikus, esaterako, iazko txosteneko II. kapitulua, B.3). Halaber, txosten horren III. eranskinean haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko legearen aurreproiektua adingabeentzako arartekoaren figura sortzearen aldetik aztertzen zuen

dokumentua jaso genuen; dokumentu hartan Arartekoak adingabekoen arartekoaren figura sortzeko proposamenari zegokionez zer jarrera zuen finkatu zen, aurreproiektuaren testuan ageri zen moduan.

Eusko Jaurlaritzak iaz onetsi zuen lege-proiektua, eta hau idazten ari garenean Legebiltzarreko tramitazioaren fasean dago.

### **3. Arartekoaren esku-hartzea nerabe batek Hondarribian, ustez ikaskide batzuen jazarpenaren ondorioz, bere buruaz beste egin izanari buruz**

Iazko irailean, ikasturtea hasi eta gutxira, nerabe batek bere buruaz beste egin zuen Hondarribian.

J.C. gaztearen heriotzak, hainbat ingurumarekin lotuta, gizartea izugarri astindu zuen, gertaeraren berezko larritasunari, berehala, ekintza hura institutuko kideen jazarpenaren ondorio izan zitekeelako susmoa edo salaketa gehitu zitzaiolako.

Bidean den ikerketa judizialak edozer erabakita ere, egia da Hondarribiako heriotza hori jada, iritzi publikoan, eskolako jazarpenari lotu zaiola, hedabideetan hala agertu baita, eta hala agertzen segitzen baitu.

Arartekoak aipatutako gertakari horietatik abiatuta, bi plano bereiztu nahi izan ditu argi eta garbi: 1) Hondarribiko gertakaria bera; 2) “bullying” deritzon arazo orokorra, tratu txar, jazarpen edo biktimizazio egoerak berdin artean, alegia.

Lehenengoari dagokionez, Hezkuntza Sailak berehala abiarazitako ikerketak eta Fiskaltzaren berehalako esku-hartzea eta, ondorioz, prozedura judiziala ireki zela kontuan hartuta, Arartekoak esku hartzeko aukerak oso gutxi ziren. Alabaina, hilabete hauetan zenbait ekimen burutu ditugu, helburu hauekin:

- Gure erakundearen gertutasuna eta prestutasuna erakustea gaztearen familiari (idatziz, zein Arartekoa sostengu ekitaldietara agertuz).
- Ikastegiko irakasleen eta zuzendaritza taldearen balorazioak eta kezkek bertatik bertara ezagutzea (beraiekin bilera eginez institutuan bertan).
- Hezkuntzako agintariak gertakariaren ikerketaz ez ezik gertakarietan ustez zerikusirik izan zuten beste adingabeen eskolatzea bermatzeko hartutako erabakien gainean ere informazio baliagarriak ezagutu eta trukatzeko (elkarrizketa Hezkuntza Sailburuarekin).

Eskola jazarpena osotasunean hartuta, berriz, Arartekoaren azkeneko hiletako esku-hartzea bi ekimenetan zehazten da:

- Herritarren Partaidetzarako II. Foroaren antolaketa, Arartekoaren erakundeak sustatuta, gai honexen gainean hain zuzen: “Ikasleen arteko tratu txarrak ikastetxeetan” (ikus Foroaren laburpena atal honen 2.5. azpiatalean).
- Laster arazoa sakon aztertuko duen eta arazoari aurrea hartzeko eta ikastegietako bizikidetzak hobetzeko gomendio baliagarriak egingo dituen txosten monografikoa egiteko erabakia.

Arazo larria da, gure iritziak, pertsonen duintasunari eta adingabeen oinarriko eskubideei eragiten diena, sarritan ezkatzen den errealitatea, beti ondo bideratzen ez dena, eta sakon aztertzea merezi duena, Arartekoaren eta hezkuntza komunitatearen lehentasunen barruan.

#### **4. Arartekoaren esku-hartzea babes zentro batetik ihes egindako bi neraberen hilketarengatik, Santurtzin**

Joan den azaroaren 23an, A.M.D.S eta S.F., neska gazte bi, adingabeak, gaua pasatzen ari ziren txabolari, Santurtzin beste gazte batek sua eman ziolako hil ziren.

Handik ordu gutxira, hildakoen oso gertuko pertsona batek Arartekoarengana jo zuen laguntza eske. Hurrengo egunetan, Arartekoak berak hainbat bider hitz egin zuen pertsona harekin eta hildakoen beste ahaide batekin, baita aurrez aurre egon ere, eta harreman horien ostean, erakunde honetako pertsona bat ihes egin zuten harrera etxera joan zen, zenbait informazio erkatzera.

Heriotza haiek eragin zituzten gertakariak argitu eta erantzukizunak zehazteko kontuak kontu, erakunde honek ofiziozko espedientea irekitzea erabaki zuen, gai jakin batzuetara mugatuta eta, bereziki, adingabeak hil aurreko hiletan nola zaindu eta babestu zituzten jakin nahirik, administrazio edo zerbitzu eskudunek zer-nolako babes neurriak hartu zituzten xehetasun handiagoz ezagutzeko. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekin-tza Saileko foru diputatuarengana jo genuen, beraz, neskatoak zaindu edo babestearen arduradun gisa, eta Bilboko Alkatearengana ere bai, zentrotik ihes egin zutelako salaketa jaso zuen Udaltzaingoaren arduradun gisa.

Aldundiari zegokionez, honakoei buruzko informazioa eskatzen zen, zehazki:

- Zer babes neurri hartu ziren babespean jasotako hiru adingabeei buruz (bi hildakoak eta baten ahizpa), zentrotik ihes egin baino lehen.
- Zer neurri hartu ziren behin ihesaz ohartuta.
- Etorbizunean halakorik gerta dadin saihesteko, edo gure erakundearengana jo zuten senideei helarazteko edozein datu, balorazio edo proposamen baliagarri. Alde horretatik, bi adingabeen heriotzak jota zeuden ahaideei zer sostengu eskaini edo ematen ari zitzairen ere jakin nahi genuen.

Udalari dagokionez, adingabeen ihesaren salaketa Udaltzaingoaren Zazpi Kaleak-Uribarri polizi etxean jarri zenez, salaketa jaso zutenetik bi neskatoak hil ziren arte egindako edozein urrats, komunikazio edo jarduketaz eskuera zeuden datu guztiak eskatu zitzaizkion.

Udaletik Herritarren Segurtasun eta Babes Zibileko Zerbitzuaren ordezkariak sinatuta bidali ziguten erantzuna 2005eko urtarrilaren 18an heldu zaigu, eta txosten handia eta hainbat dokumentu gehigarri erantsi dizkiote. Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna otsailaren 1ean jaso genuen, eta Umeen Zerbitzuak prestatu eta Umeen, Emakumeen eta Pertsona Ezinduen alorreko zuzendari nagusiak oniritzitako txosten xehatua dakar.

Beraz, jarduketa horien ondorioz, lau informazio iturri zuzen eta elkarren osagarri izan ditugu:

- Hildako adingabeen ahaideak.
- Joan edo ihes egin arte bizi izan ziren harrera zentroko zuzendaritza.
- Ihesaldia salatu zeneko Udaltzaingo bulegoa.
- Adingabeen zaintza edo babesa bere gain hartu zuen erakunde publikoa (Bizkaiko Foru Aldundia).

Horri esker, Arartekoari interesatzen zitzaizkion kontu guztien gaineko datuak alderatu eta egiaztatu ahal izan ditugu; batez ere, inplikaturako erakunde eta zerbitzu

publiko desberdinek, une bakoitzean (ihesa baino lehen, ihesaren ostean eta hil eta gero) zuzen funtzionatu zuten argitu nahi genuen.

Helburu horren haritik, hauxe egiaztatu da, bereziki:

- Esku-hartzearen denborak: esaterako, ea desagerpen salaketa 24 igaro eta gero aurkeztu zen, edo ea polizia desberdinen arteko komunikazioak arduratsuki egin ziren ala ez.
- Zer zerbitzuek hartu duten esku, eta zer-nolako komunikazioa edo koordinaketa izan duten euren artean: Bilbo, Barakaldo eta Santurtziko udaltzaingoak, Erztzaintza, harrera zerbitzua, Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzua, oinarritzko gizarte zerbitzuak...
- Jarritako babes neurriak bete daitezzen bermatzeko hartu diren erabakiak kasuan-kasuan eta egoera bakoitzean egokienak ziren (premiazko harrera, babesik gabeko egoeraren berrikuspena, harrera zentrorra itzultzea eta han gerarazteko ahaleginak...).

Kontuan izan, hemen arazoa orokorrean aztertzen ari garen arren, hildako bi adingabeei erreparatzen badiegu, erakundeen aldetik jasotako babesari dagokionez oso egoera desberdin bi aurkituko ditugula: kasu batean, Bizkaiko Foru Aldundiak urte askotan zaintzapean izandako adingabea zen, eta berari buruz egoitzan zein familiaren batean hartzeari buruz erabaki asko hartu eta gero, zentrotik ihesi joan, itzuli, edo itzularazi zutena, han geratu nahi ez zuelarik, edo berriro ihesi joanez....; bestean, ordea, babes eske joandako adingabea zen eta berehala zentro batean sartzea erabaki zen; ordu batzuk baino ez zituen zentroan eman, berehala ihes egin zuelako, eta harreraren erabakia handik lau egunera berrikusi zitzaion.

Hara zer uste duen erakunde honek, bildutako datu guztietan oinarrituz:

1. Inplikaturako erakunde edo zerbitzuek, bai poliziek bai gizarte arlokoek, dituzten eskumenen eta erabil ditzaketen lege-bitartekoen arabera dagozkien betebeharrak bete dituztela.
2. Neurri gehiago ere har zitezkeela agian, edo esku-hartze batzuk jarraituagoak edo lasterragoak izan zitezkeela, bai, baina, ziurrenik, adingabeen egoerak eta harrera zentrorra ez itzultzeko hartua zuten erabakiak bere horretan iraungo zuketela.

Informazioaren azterketa, kasu honetako gertaera eta jarduketa zehatzak argitu ez ezik, arazo orokorragoen adibide edo adierazlea da, gero eta nerabe eta familia gehiagotara zabaltzen ari diren arazoak jartzen baititu agerian. Bizkaiko Foru Aldundiak bere erantzunean dioenez, *“erronka handia dira arazo hauek, haurrak babesteko sistemarentzat ez ezik, haurrekin eta nerabeekin zuzenean lan egiten duten erakunde guztientzat ere, hau da, hezkuntza eta osasun sistemarentzat, oinarritzko gizarte zerbitzuentzat, gazteentzako justiziarantz eta halakoentzat.”* Hara zer dioen, jarraian: *“Guztiz beharrezko irizten zaio halako egoerak goiz igartzeari, eta administrazio guztietatik baliabide koordinatuak ezartzeari; ezin dugu ahaztu baliabide horietako bat legegintzarako ahalmena dela, hau da, sor litezkeen dispositibo batzuk ahalbidetu edo babestuko dituzten lege bitartekoak eduki ahal izatea.”*

Alde horretatik, aipaturako sailak dioenez, Madrilen, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak eta

Autonomia Erkidegoetako Adingabeen Babeserako Herri Erakundeek 2002an adingabeen babes juridikoaz egin zuten bilerako hainbat ondorio gogora ekarri eta bere egin nahi ditu. Hona hemen zeintzuk:

- “Esku-hartze hertsagarriak –ez zehatzaileak– izateko aukerak dagokien arauan araupetu behar dira, hezkuntza egitasmoaren barruan, babes zentroetan sartuta dauden adingabeen jokabide auzitsuei, adingabearen beraren, gainerako adingabeen, hezitzaileen edo zentroko instalazioen osotasun fisiko eta moralerako arriskutsuak diren jokabideei aurre egiteko.  
Kode Zibilaren 172 eta 158. artikuluetan zein Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Legearen 11 eta 21. artikuluetan eta Kode Zibilaren 271. artikuluan aurreikusi denaren osagarri modura egin behar da arauketa.”
- “Droga-mendetasunarekin, ezgaitasunarekin, gaixotasunarekin eta gizarte arloko gorabeherekin zerikusia duten arazoak dituzten adingabeen kasuak, printzipioz, ez lirateke adingabeak babesteko zerbitzu espezializatuen jardueraren xede izan behar. Osasun eta hezkuntza arloetatik edo gizarte zerbitzuetatik beraietatik ere baliabideak garatu beharko lirateke, orain adingabeak babesteko zerbitzu espezializatuen esku-hartzea eskatzen ari diren arazo horiei aurre egin ahal izateko.”
- “Adingabe horiei behar duten arreta ez ematea adingabeen jokabideari egotz dakiokeenean (absentismoa, ihesak, toxikomania, delituak eta abar) eta gurasoek gutxieneko arreta eskakizunak betetzen dituztenean, ezin dugu babes gabezia egoera formalaz hitz egin.”  
“Kode Zibilaren 172.2. artikulua dioenez, gurasoek eskatuz gero erakunde publikoak zaintza har lezake, soil-soilik, adingabearen babesik ezaren arrazoiak gurasoei dagozkienean, eta ez seme-alabei.”  
“Nolanahi ere, gurasoei eskatu behar zaie guraso-zaintzaren zereginak eskatzen duen ardura beren gain har dezaten, gero eta gehiago baitira adingabeen portaera arazoan aurrean beren zereginari jaramonik egiten ez dieten gurasoen kasuak.”
- “Agerian geratu da adingabe nerabeen arazoez arduratzeko zentro berriak definitu behar direla, gizarteak ere eskatzen baitu portaera-arazoei eta horrelakoei babes sistematik aurre egin dakien.”

Ikusten denez, gizartean izugarri sartuta dauden arazoak dira; zenbait kasutan lege aldaketak egin beharko lirateke eta, beti ere, administrazio guztien arteko eztabaida, adostasuna eta koordinazioa bideratu; gainera, gurea bezalako erakunde bermatzaileok arazo horiei arreta eman behar diegu.



### 1.1.6. ADINGABE LEGE HAUSLEEN GAIAN EGINDAKOAREN JARRAIPENA

Arartekoak adin txikiko lege-hausleei buruz egindako ezohizko txostena 1998an argitaratu eta Legebiltzarreko buruari eman zitzaion. Bai txostenak oro har, baita txosteneko gomendioek ere, hainbat erakunderi eragiten diote, batik bat biri: aginte judizialari –fiskaltzak eta adingabeen auzitegiak–, hain zuzen ere prozedurei, neurriak hartzeari, jarraipenari eta neurrien ebaluazioari dagokienez; eta Eusko Jaurlaritzari –batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari–, neurriak betetzeari dagokienez eta, hortaz, bere esku jarritako neuri eta baliabide guztiei dagokienez. Legearen aginduz, gure jardueran arreta Eusko Jaurlaritzak bete beharreko proposamen eta gaietan jarri dugu.

Hori horrela, 1999. urtean, Arartekoaren jarraipena egiteko, ikustaldia egin zen gure erkidegoan adingabe arau-hausleentzat dauden hiru internamendu-zentroetara. Informazioa eskatu zitzaion, ofizioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari. Ikustaldien emaitza eta Saitetik jasotako erantzuna zehatz azaldu zen urte horretako ohiko txostenean (1999ko txostena, I. kap., 1.1.6). Txosten horretan, gomendioak betetzeari buruz antzemandako hainbat alderdi azpimarratu ziren, alderdi positibo zein negatiboak; neurri batzuen eta besteen garapena alderatzeko datuak aurkeztu ziren, eta arreta berezia eskaini zitzaien askatasuna gehiago murriztea dakarten zerbitzuen eraginkortasunerako lau gai garrantzitsu hauei:

- Internamendu-zentroen sarearen konfigurazioa.
- Bere langileen lan-egoera.
- Zerbitzuen harremana beste laguntza-sareekin.
- Adingabeen irtenbide eta emantzipazio aukerak.

2000. urtean egindako jarraipenean ere arreta berezia eskaini zitzaien gai horiei. Arartekoaren langileek ikustaldiak egin zituzten Andoio, Ortuella eta Aramaioko zentroetara, eta, gero, Ararteko erakundeak, ofiziozko bi espedienteren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera jo zuen. Espedienteetako batek adingabe arau-hausleek internamendu-zentroetan egiten duten denboraldian dituzten eskolatzeko baldintzak zituen aipagai nagusi; bestean, informazio zehatzak eskatzen ziren goian aipatutako lau alderdiei buruz, azkeneko bi urteetan gauzatutako neurrien garapenari buruz eta zerbitzuen araubideari buruz. Horretaz gain, balorazio txiki bat egin zen adingabeen erantzukizun penalara arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa 2001eko urtarrilean indarrean sartzeari buruz eta, halaber, lege horretan aurreikusitako neurri guztiak abian jartzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak bideratzeari buruz (2000ko txostena, I. kap., 1.1.6 atala).

2001. urteko jarraipenari dagokionez, berriz ere ikustaldiak egin ziren hiru zentroetan, eta ofiziozko espediente bidez informazio zabala eskatu zitzaion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari. Informazio horrek hamar puntu hauek jasotzen zituen:

1. Internamendu-zentroen sarean egindako aldaketak, aurreikuspenak eta beharrei aurre egiteko duten gaitasunari buruzko balorazioa.
2. Beren langileen lan-egoeran eta lan-baldintzetan egindako hobekuntzak.
3. Beste zerbitzuekiko akordioak, koordinazio-sistemak eta lankidetzak (batez ere internamenduko adingabeen hezkuntza eta osasun arretarako).

4. 2001eko azaroaren 7ko Agindua aplikatzeko egindako edo aurreikusitako urratsak. Agindu horren bitartez, zentroetan hartutako adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko neurriak arautzen dira.
5. Abian jarritako berriazko programak edo zerbitzuak, adingabe horien internamendu-aldia bukatzean horien irteera errazteko.
6. Zerbitzu horien araubidearen egoera. Hainbatetan eskatu izan dio hori instituzio honek.
7. Azken urteotan gauzatutako neurrien garapena.
8. Adingabearen Erantzukizun Penalari buruzko Legea urte horretako urtarrian indarrean jartzearen ondorioz izandako aldaketak, demandei, errekursoei eta erantzuteko gaitasunari dagokienez.
9. Gure erkidegokoak izanik ere azken urteotan beste erkidegoetako zentroetan sartu dituzten adingabeei buruzko datuak, eta egoera horren arrazoiak.
10. Adingabeen arau-hausteen biktima izan diren edo eragina jasan duten pertsonen eskaintako arreta.

Horrenbestez, eskatutako informazioak lehenago ere jarraipenerako gai izan ziren arazoak hartu zituen, baina horretaz gain gai berriak ere sartu zituen, eta kontuan hartu zituen zerbitzuan eragin zuzena izan zuten denbora hurbileko gertaerak edo faktoreak. Esate baterako: adingabeen erantzukizun penalari buruzko 5/2000 Lege Organikoa 2001eko urtarrian indarrean sartzea; lege horrek, besteak beste, parekatu egin zuen adin-nagusitasun penala eta zibila, eta, horregatik, neurrietara atxikitako adingabeen kopurua areagotu zuen eta aldatu egin zituen internamenduan zeuden adingabeen profila eta ezaugarriak. Bestalde, beste adibide bat: Zumarragan internamendu-zentrorako eraikitako instalazioak ETak leherraraztea; horrek baldintzatu egin zuen internamendusarearen gaitasuna...

Harrezkero eta azken hamar urteotan, Arartekoaren jarduketak erreferentzi marko modura erabili izan ditu gorago aipaturiko hamar puntuok; horietariko batzuk, gainera, azpimarratu nahi izan ditu, ikusitako bilakaeraren edo jasotako kexen arabera. Jarraipen txostenak taxutzeko orduan (azken txostenetako 1.1.6. atalak), funtsean kontuan hartu ditugu ondorengo elementu edo informazio iturri hauek:

- Behaketa eta elkarrizketen bidez tokian bertan jasotako informazioa, internamendu-zentroetan edo autonomia-etxebizitzetako batean jasotakoa alegia.
- Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Justizia Sailburuordetzaren arduradun diren pertsonekin izandako bilerak, pertsona horien mende baitaude neurriak aplikatzeko zerbitzuak.
- Beste profesionalekin izandako bilerak, hala nola, Justiziako talde psikosozialekin.
- Kexen edo informazio-eskaeren ondorioz Justizia Sailetik jasotako informazioak.
- Justizia Administrazioako Euskal Behatokiaren memoriak.

Azken bi urteotako txostenetan, funtsezko datuak laburbildu, zentroetara egindako ikustaldien emaitzaren berri eman edo profesionalek mahairatutako gaiak islatzeaz gain, azkeneko atalean zenbait alderdi azpimarratu genituen, gure iritziz bereziki kezkarriak edo hobetu beharrekoak zirelako. Besteak beste:

- 1) Neurrien kopurua nabarmen areagotzeak aurre egiteko ahalmenean eragindako arazoak (ondorioak katea osoan: epaitegietan, talde psikosozialetan; Gazte Justizia Zerbitzuaren kudeaketa-ahalmenean; zentroetan hartzeko ahalmenean; ingurune irekiko neurrien kudeaketan eta jarraipenean...).
- 2) Babes-sistematik etorrira internamenduan sartutako adingabe arau-hausleen proportzioa handia da (batez ere bakarrik dauden atzerriko adingabeena); horregatik, zehatz-mehatz aztertu behar da bi sistemen arteko lotura.
- 3) Neurriak familia-ingurunetik hurbilago betetzeko aukera ematen duten formulak garatzearen beharra, indarkeria-ekintzetan inplikaturako adingabeen kasuan. Kasu horietan Auzitegi Nazionalak esku hartzen du.
- 4) Zerbitzuen araubiderik eza, horren beharra dagoeneko hainbat urtez jakinarazi baldin bada ere. Araubide hori berme-elementua da alderdi guztientzat.

Azken urte honetan berriro ere bisitatu ditugu internamendu zentro horietariko batzuk eta horien barruan dauden adingabe batzuekin elkarrizketatu gara (atzerriko adingabe ez lagunduen egoerari buruzko azterlan eta txosten monografikoaz jarduteko); halaber, Zumarragako Ibaiondoko hezkuntza zentroari dagokionez, hainbat jarduketa izan dira adingabeko bati eman ahal izan dizkioten tratu txarren inguruan.

Beste alde batetik, 2004ko azaroaren 23an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari ofizioz bidalitako espediente baten bitartez, oinarritzat jotzen ditugun bederlatzi gairi buruzko informazioa eskatu genuen. Horren ostean, azaroaren 29an, Zumarragan salatu eta ikertutako gertakizunen haritik, elkarrizketa bat izan genuen Eusko Jaurlaritzako sail horretako arduradunekin.

Horrela bada, aurten aurrera eramandako jarduketekin bat etorritik, txosten honetan laburbilduko ditugu sailak gure eskabidean azaltzen ziren bederlatzi gai horien bakoitzaren gainean emandako datuak eta egindako balorazioak eta azken atalean emango ditugu salatutako gertakizunei buruzko beharrezko argibideak.

## 1. Azkeneko urteetan gauzatutako neurrien garapena

Arartekoak adingabe arau-hausleei buruz egindako txostenak sustatu nahi zuen oinarritzko jarduera-ildoetako bat aurreikusitako neurriei buruz legeak eskaintzen dituen aukera guztiak garatzea zen, eta bereziki, askatasuna gutxien murrizten dutenak, hezkuntza gehien sustatzen dutenak eta internamendua eskatzen ez dutenak. Baliabide eta bitarteko gehiago edo gutxiago edukitzea izaten da neurriak benetan aplikatzeko faktore garrantzitsuenetako bat, eta erakunde honek horretan jarri du arreta berezia, izan ere neurriak betetzea Euskal Administrazioaren eskumena da.

Aurreko txostenetan gai horri buruzko datuak eman ditugu, balorazioak egin eta elementu positibo eta negatiboak azpimarratu ditugu. Batez ere 2000. urtean, izan ere urte horretan Gazte Justizia Zerbitzuak egindako memoria zehatz bat eduki eta aztertu ahal izan zen (*“Adingabeen epaitegiek EAEn ezarritako neurriak 1999. urtean nola bete diren: azterketa”*).

Memoria horrek aukera eman zuen, alde batetik, neurrien garapen orokorra eta numerikoa jakiteko, eta, horretaz gain, informazioa xehetasun handiagoaz aztertzeko, erakunde honen iritziz interes handikoak diren irizpideen arabera. Esate baterako: neurriak gauzatzeko atzerapen-denborak, ekintza edo arau-haustea egin eta neurria

hartu zen artean igarotako denbora; edo neurriak aplikatzerakoan izaten diren ezberdintasunak, adingabeak mutilak edo neskak diren; edo neurri gogor edo murriztaileenen (internamendua) eta kolektibo batzuen ezaugarri edo ahultasunaren arteko harremana: gutxiengo etnikoak, eskolatu gabeko adingabeak, babespean dauden adingabeak, arau-haustea berriz egin dutenak...

Azken urteotan hain azterketa zehatzik edukitzerik izan ez dugun arren, baditugu garapen-datu orokorrak, eta horrek aukera ematen du neurri bakoitzaren aplikazio-maila handia edo txikia izan den jakiteko, bai eta joera nagusien berri jakiteko ere. Datu orokor horiek jasotzen dira honako taula honetan:

### 1997-2004 BITARTEAN EZARRITAKO NEURRIEN GARAPENA

	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Bitartekotza/Konponketa	94	158	247	234	309	372	279	- <sup>(1)</sup>
Ohartarazpena	120	97	72	72	33	-	85	- <sup>(1)</sup>
Zaintzapeko askatasuna	53	60	56	65	135	176	191	259
Gizartearen aldeko zerbitzuak ematea	53	39	77	83	123	185	321	431
Tratamendu anbulatorioa	4	3	9	7	26	31	18	25
Gizarte eta kultura arloko zereginak	-	-	-	-	20	27	47	66
Harrera	-	-	-	-	2	3	3	5
Eguneko zentrora bertaratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Asteburuko internamendua	5	8	15	16	42	62	71	88
Internamendu-zentroan sartzea <sup>(2)</sup>	22	31	51	64	63	98	110	142
<b>GUZTIRA</b>	<b>351</b>	<b>396</b>	<b>527</b>	<b>541</b>	<b>753</b>	<b>954</b>	<b>1.125</b>	<b>-</b>
<b>Guztira bitartekotzarik eta ohartarazpenik gabe</b>	<b>137</b>	<b>141</b>	<b>208</b>	<b>235</b>	<b>411</b>	<b>582</b>	<b>761</b>	<b>1.018</b>
<b>Neurrien gehikuntza aurreko urtearen aldean</b>	<b>-</b>	<b>4</b>	<b>67</b>	<b>27</b>	<b>176</b>	<b>171</b>	<b>179</b>	<b>257</b>

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Berak egina)

<sup>(1)</sup> Bitartekotza eta ohartarazpenei buruzko azken urteko daturik ez daukagu oraindik.

<sup>(2)</sup> Zentroetako internamenduen kontabilizatzeko irizpideak aldatu egin ziren 1999. urtetik aurrera: 22 eta 31 adingabe dira (97 eta 98 urteak); baina 51 neurri, 37 adingaberi dagozkienak (99 urtea); 64 neurri, 33 adingaberi eragiten dietenak (2000. urtea); 63 neurri, 98 neurri, 110 neurri edo 142 neurri (ez adingabeentzat) azkeneko lau urteetan.

Datu hauek argi eta garbi erakusten dituzte hainbat jokoera. Beharbada garrantzitsuena neurrien emaitza guztietan izandako gehikuntza handia dateke, bai eta horietariko bakoitzean izandako goera nabarmena ere.

Igoerak, gehienbat, 2001etik aurrera izan dira eta 5/2000 Legea aplikatzearen ondorio dira. Bitartekaritza eta ohartarazpenei buruzko datuak aintzakotzat hartu ezean, urtean-urtean izandako gehikuntzak ageri-agerikoak izan dira: 2001ean, % 75; 2002an, % 42; 2003an, % 31; eta 2004an, % 34. Den-dena datu bakar batean bilduz, ondorengo

esan daiteke: azken bost urteotan neurriak laukoiztu dira (4,33z biderkatu dira). Datu horrek zer hausnartua eta zer pentsatua eman behar izango lioke gizarte oso-osoari.

Igoera garrantzi handikoa izan da inguru irekiko neurrietan. Horrela, zaintzapeko askatasunak, erkidegoaren aldeko prestazioak, tratamendu ambulatorioak eta gizarte nahiz hezkuntzako zereginak gehituz gero, bost urteko epean (2000-2004) 155 neurritik 781era igaro gara, hau da, bostez biderkatu dira.

2000. urtea erreferentziatzat hartu (5/2000 Legea indarrean sartu aurretiko azken urtean) eta datuak azken urteko datuekin alderatuz gero, ondorengo aldaketa eta joerak ikus ditzakegu:

- Zaintzapeko askatasunak lauz biderkatu dira (65 izatetik 259 izatera igaro dira).
- Erkidegoaren alde egin beharreko zerbitzuen prestazioa bostetik gorako kopuru batez biderkatu dira (83 izatetik 431 izatera igaro dira).
- Ambulatorioko tratamenduak 7tik 25era pasatu dira.
- Orain arte existitzen ez ziren hezkuntza nahiz gizarte zereginak 66 izan dira azken urtean.
- Apurka-apurka hezkuntza taldeko harrerei ekin zaie (5 kasu).
- Eguneko zentroetara ere bertaratzea (2 kasu).
- Asteburuko internamenduak 16tik 88ra igaro dira (5,5 bider gehiago).
- Zentroko internamenduak, bai kautelazkoak bai neurri baten aplikazioaren ondoriozkoak, 64tik 142ra igaro dira (guztira igoera % 122koa izan da).

Nabarmendu beharreko beste datu bat da adiskidetzeko eta kaltea konpontzeko egitarauak hartu duten garrantzia: 2003. urteko 279 bitartekaritza prozesuak (eskura dagoen azken datua) urte horretan konpondutako kasu guztien laurden bat izan ziren.

Datuak lortzeko egindako eskaerari erantzunez, Justizia Sailak Gazte Justiziaren Zerbitzuaren 2003ko lan memoria bidali zigun (*Adingabekoen epaitegiek EAERI 2003an ezarritako neurrien betearazpenari buruzko azterketa*).

Memoria honi esker, neurri bakoitza aplikatzeko askoz datu zehatzagoen berri izan genuen (gutxienez neurrien aplikaziorik ohikoenak), kopuruaren bilakaeratik harantzago doazen datuen berri, hain zuzen ere. Esate baterako, jakin ahal izan genuen zein den gertakizunetatik neurria hartzera arteko denbora tartea edo zein den hartutako neurriaren jakinarazpenetik berori bete arteko epea, zeintzuk diren neurrien iraupenak, zein epaitegik erabiltzen dituzten gehiago edo gutxiago, euren ezaugarrien arabera zeintzuk aplikatzen zaizkien gehiago edo gutxiago hainbat adingaberi, ea babes sistemen barruan sartuta dauden eta abar.

Kontua ez da hemen memoriaren edukia laburbiltzea. Hala ere, memoria honek datu iturri modura eta azterketak egiteko trena gisa duen interesgarritasuna aipatu beharra dago; era berean, gure txostenaren gomendioekin zerikusirik handiena duten alderdirik kezkarrienak atera ditugu, adibidez:

- Oso kezkarria izaten jarraitzen du Gazte Justizia Sistemak delituzko gertakizunei erantzuteko geldotasunak, bereziki gertakizunak izan eta beharrezko neurria hartzen denera arteko denbora tartea. Txostenak datu ugari jasotzen ditu, taula modura, fase bakoitzean izaten diren epeak baloratu ahal izateko (bereziki gertakizunak direnetik neurria hartzen denera arte eta hori jakinarazten denetik burutzen hasten denera

arte), bai jarduketarik gehienetan bai kasurik larrietan ere (azkartasun handiagokoak edo geldotasun handiagokoak).

Gogorarazi beharra dago gertakizun zigorgarri batzuei eman beharreko erantzuna ahalik eta arinen bideratzea guztiz garrantzitsua dela, batik bat adingabeen kasuan eta helburu hezitzaileak dituen lege bat betetzeko betebeharraren kasuan. Berehalakotasunak adin txikiko pertsonak bi osagai horiek uztartzea ekar dezake: jarduketari emandako gizarte erantzuna, horretaz kargutzea errazagoa izan dadin. Hori guztiori atzeratzen bada, ondorioak oso negatiboak dira: nork bere erantzukizuna hartzea zailtzen du, beste prozesu batzuk oztopatzen ditu, esku hartzeko adina atzeratu eta zailago bihurtzen du eta, azkenik, zigorgabetasun sentrazioa zabaltzen die adingabeari ez ezik lagunei, biktimei, jagoleei eta, azken batean, gizarte osoari.

Daturik gehienak kezkarri eta arduragarriak dira eta are gehiago beste datu batzuekin uztartuz gero: gertakizunak izan eta neurri judiziala hartu arteko batez besteko denbora tartearak, azken horren eta benetako aplikazioaren artekoak, gertakizunak izatean pertsona horrek zuen batez besteko adina, neurria betetzean zuen batez besteko edadea... Hona hemen datu esanguratsuren bat:

- Bederatzi kasuetarik bakarrean sei hilabetetik beheragoko denbora tartea behar izaten da gertakizunak izaten direnetik neurria gauzatzeko aukera hasten denera arte (neurria betearazteko ardura duen erakundeari une horretan jakinarazten zaio). Kasuen erdian, urtebete baino gehiago itxaron behar da eta muturreko kasuetan denbora tarte hori bi edo hiru urtekoa izan daiteke.

Hori guztia horrelaxe gertatzen da neurririk gehien kasuan:

- Erkidegoaren aldeko prestazioak: 6 hilabetetik behera: kasuen % 12; urtebete baino gehiago: ia-ia kasuen erdia.
  - Gizarte eta hezkuntza arloko zereginak: 6 hilabetetik behera: kasuen % 8,5; urtebete baino gehiago: hamar kasuetariko lau.
  - Zaintzapeko askatasuna: gertakizunak izan eta neurria jakinarazi bitarteko batez besteko epea: 15,7 hilabete.
  - Asteburuko internamenduak: igarotzen den batez besteko epea: 12,2 hilabete.
  - Anbulatorioko tratamendua (berehalako erantzuna beharko luketen arazo psikologikoei edo drogen gehiegizko kontsumoko problemei lotutako neurria): igarotzen den batez besteko epea: 11,6 hilabete.
  - Internamenduak (kautelazkoak ez direnak): 6 hilabetetik beheragoko epean: kasuen % 9,5; urtebete baino gehiago: ia-ia kasuen erdia (% 49); urtebete eta erdi baino gehiago: kasuen % 27.
- Aurreko datuak inplikaturiko norbanakoen batez besteko adinei lortuz gero, ikusten da hiru kasuetarik bitan adingabearen batez besteko adina 16 urtekoa edo handik gorakoa dela, gertakariak izan ziren unean; horrela, 17 urtetik gorakoa da epaia ematen denean eta, horren ondorioz, adin nagusitasunetik oso hurbil dago neurria betearazten hasten denean.

- Aldi berean, oso kezkarria da neurri judizial baten helburu edo xede izan diren adingabeak babes sistema batetik datozen kasuen kopuru handia. Kopuru hori are deigarriagoa da askatasuna gehien murrizten duen neurria, hau da, internamendua, aztertuz gero: 2003. urtean aplikaturiko internamendu ekintzen % 58,3 foru aldundietako babes zerbitzuek jagon edo zaintzen ziharduten adingabeei zegozkien. Persona horietariko zati handi bat, laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrak. (Gai hau zehaztasun handiagoarekin aztertuko da Arartekoaren erakundeak adingabe hauen egoerari buruz egindako duen hurrengo txosten monografikoan).

Datu hauek eta beste asko aintzat harturik (lurralde bakoitzeko adingabekoen epaitegiak hartutako neurrien arteko aldeak, kautelazko internamenduen gehikuntza eta iraupena, beste neurri batzuen iraupena, berrerortze mailak eta abar), Justizia Sailak, aipatutako memoria horretan, hainbat ondorio ateratzen ditu, kopuru aldetik igoeretatik harantzago. Adibidez ondokoak azpimarratzen ditu:

- “Berrerortze” larria (honek men egiten dio urtebetean 5 neurri baino gehiago izan dituzten adingabeen % 4,2ri) neurri guzti-guztien % 20 da. Aitzitik, inplikaturiko adingabeen % 72,6k ez zuten neurri bat baino gehiago izan.
- Neurrien batez besteko iraupena haziz joan da arian-arian, eta bikoiztu eta hirukoiztu da, 4/92 Legea aplikatzen zen garaiekin alderatuz gero.
- Lurralde historikoen araberrako neurrien banaketa ez da homogenea. Epaitegi eta fiskaltzen arteko ageriko desorekak daude: neurri kopuruan eta motan, horien iraupenean, epaiak emateko erabilitako denbora tartean, neurketa programen erabilera eta abar.
- Legez ezarritako etendura, aldarazpen, ordezen eta indargabetze baliabideen erabilera handitu da nabarmen. Era berean, neurriak ez betetzeagatik espediente berriak zabaldu dira eta inguru irekiko neurriak zenbait kasutan erdi irekitako internamenduaren ordeztatuak izan dira.
- Erreformako erakunde publikoak –Gazte Justiziaren Zerbitzua– ahalegin handiagoak egin behar izan ditu kuantitatiboki eta kualitatiboki gainerako sistema inplikatuarekin koordinazio maila hobekuntza lortzeko: babes, hezkuntza, inmigrazioa, osasun, etxebizitza eta abar.
- Neurriak betearazteko laguntza ematen duten erakundearen kopurua arian-arian hazi da.
- Problematika berriak edo larriagoak agertu dira:
  - Laguntzarik gabeko atzerriko adingabeak.
  - Familia barruan eraso delituak egin dituzten adingabeak.
  - 18 urtetik gorakoak, familiarik gabe eta emantzipatzeko aukerarik gabe.
  - “Babes” eta “erreformako” adingabeak.
  - Osasun edo toxikomania arazoak dituzten adingabeak.

Edozein kasutan ere, gure erkidegoan azken urteetan ezarritako neurriei buruz esku-  
ra izan ditugun datu guztiak zehatz-mehatz aztertu eta gero, ondorioztatu ahal izan  
dugu adingabeen zigor erantzukizunari buruzko Legearen aplikazioak akats larriak  
dakartzala, ez bakarrik erakunde publiko eskudunari egotz dakizkiokeen antolakuntza  
arazoei edo baliabideen urritasunari –horretan ageriko hobekuntzak izan dira–, baizik  
eta sistema judizialaren mugei eta jardunei.

Datuek argi eta garbi frogatzen dute ez dela egia sistemak ez duela esku hartzen adingabeen delituzko jokabideen kasuan –iritzi hori oso zabaldua dago gizartean–, baina egia da berandu esku hartzen duela eta geldotasun handiarekin jarduten duela; horrek legearen xede edo helburu hezitzailearen kontra jotzen du bete-betean eta ondorio negatibo larriak dakarzkie adingabeei, euren biktimei eta gizarte osoari.

## 2. Internamenduko baliabide eta zentroen sarean egindako aldaketak

Gure erkidegoan berariaz adingabe arau-hausleen internamendurako erabilitako ikastetxeen sarea hiru ikastetxez osatuta egon da hainbat urtetan: ikastetxe bana Andoiun (hasieran neskontzat pentsatutakoa), Aramaion eta Ortuellan (mutilentzat).

Egoera horixe zen, Arartekoaren ezohiko txostena egiteko unean; txosten horretan zentro horien mugetariko batzuk aipatzen ziren, kokapen, titularitate, egitura edo harrera-gaitasunaren gisako faktoreen ondorioz sortutako mugak, hain zuzen ere. Halaber, baliabideak handitzeko premia ere planteatu genuen eta Zumarragako zentro berria sarean sartzea (hasiera batean 2001erako aurreikusia) zentroen egituraketa berrikusteko eta etorkizuna planifikatzeko aukera ezin hobea zela pentsatu genuen. ETAk Zumarragako instalazioen kontra egindako atentatuak, zentroa eraikita eta ekipatuta zegoenean, planifikazioa guztiz zapuztu zuen plazen eskuragarritasunari zegokionez, ondorio larriak ekarri zituen eta hiru zentroen antolakuntzari aldaketak eragin zizkion, gero eta handiagoak ziren eskaerei erantzun ahal izateko.

Egoera nahiko aldatu da azken urteetan. Horrela, hiru zentro zaharretan –Aramaioko Mendixola zentroa (12 plaza), Ortuellako Miguel Ángel Remírez zentroa (8 plaza) eta Vitoria-Gasteizko Andoiu zentroa (zazpi plaza)– baliabide eta bitarteko berriak sartu dira; horrela, gaur egun plaza gehiago dituzte eta horrek sarea berrantolatzen aukera eman du:

- Zumarragako Ibaiondo ikastetxeak bere ibilbideari ekin zion 2003ko uztailean, hasiera batean 7 plazekin eta 2004an 14 plazekin; plaza horiek 21eko kopurura ere hel litezke.
- Arrazua-Ubarrundiako Landa ikastetxeak 6 plaza zituen eta 2004ko urrira arte zabalik izan zen; data horretatik aurrera itxi zen berritzeko eta handitzeko lanak burutu ahal izateko.

Horiei Bilbo, Vitoria-Gasteiz eta Donostiako hiru egoitzak gehitu behar zaizkie; hirurek lau plaza dituzte.

Horrela, azken urtean erabilgarri izan diren plazen kopurua 55ekoa izan da urrira arte eta 52koa hil horretatik aurrera, nahiz eta kopuru hori 59ra ere handi zitekeen.

Justizia Sailak bidalitako informazioarekin bat etorritik, baliabideen sarea indartu eta sendotzeaz batera, itxaron zerrendak saihestu ahal izan dira eta internamendu neurri guztiak EA Eren barruan bideratu dira beste erkidego batera desbideratu gabe eta zerbitzuak ez dira gainzkatu. Abenduaren 31n, itxaron zerrendan kasu bakarra baino ez zegoen.

Beste alde batetik, sailak hobekuntza lan batzuei ekin die eta hurbileko etorkizunari begirako hainbat aurreikuspen aurreratu ditu:



- Landako zentroa berritzea bi heziketa talde independente izateko; talde bakoitza 7 adingabe hartzeko modukoa izan behar da.
- Ortuellako CEMAREko instalazioak egokitzea (berogailua instalatzea, ateak nahiz leihoak aldatzea, altzariak berritzea, erabilera askotarako gela berria...).
- Tailerretarako eta biltegirako eremua handitzea eta galdarak aldatzea Andoio zentroan.
- Zumarragako heziketa taldeak handituz joateko posibilitatea premien arabera, harik eta gehieneko edukiera, hau da, 36 plazak bete arte.

Hobekuntza obra hauek zuzendu ahal izango dituzte urteroko aurreko txostenetan zentro hauei buruz hitz egitean zehazturiko akatsak.

Proiektu eta aurreikuspen hauen arioan, 2005ean guztira 60 plaza izango dira baliabide guztien artean: 48 plaza zentroetan eta beste 12 plazak egoitzetan.

Horri dagokionez, gure informazio-eskaeran hainbat datu eskatu genuen, era berean, plantillen egoerari buruz (profesionalen kopurua, hitzarmenak, iraupena, prestakuntza, lan-baldintzak...), edo zerbitzu horien jardunerako araubideari buruz, batez ere zigor-araubideari eta isolamendu-neurriei buruz. Aurreko urteetan ere egin genuen.

Justizia Sailaren erantzuna ikusita, gai horiei dagokienez honako datu eta argibide hauek azpimarra ditzakegu:

- Zentro eta egoitzetako plantilla (2004. urtea): 128 pertsona (horietatik 90, hezitzaileak).
- Inguru irekiko neurrietarako plantilla (2004): 23 (horren barruan Bizkaian 2004ko urrian abian jarritako eguneko zentrorako 5 hezitzaile sartuz).
- Erakundeekiko kontratuen iraupena luzatzea (gutxienez 5 urtekoak).
- Hobekuntza nabarmena langileen diru-sarreretan (% 20 eta % 30 artekoa azken bi urteetan).
- 5/2000 Legeak garatzen duen araudia indarrean sartu arte itxaronez, sailak baieztatzen du zentroen jardunbidearen jarraipen lana egiten duela; horrela, aztertzen du nola aplikatzen dituzten arautegiak eta zeintzuk diren hartzen dituzten diziplinazko neurririk larrienak. Horrela, behin horiek berrikusi eta gero, adingabekoen epaitegi eta fiskaltzara igortzen dituzte.
- Profesionalen prestakuntzari dagokionez, urtean aurrera eramandako ekimen eta jarduera sorta bat zerrendatzen da (2003an hasi eta 2004an amaitutako 120 orduko ikastaroa KREIrekin batera bideratua, nerabeen drogamenpekotasunei buruzko ikastaroa...).

### 3. Babes-sistemekiko erlazioa

Aurreko jarraipen lanaren ondorioz sortutako kezak eta lortutako datuak aintzat hartuz, sailari ondorengo informazio hau eskatu genion:

- Babesetik datozen adingabeen kopurua (portaera arazo larriak dituzten nerabeak eta, batik bat, laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrak; azken horien inguruan ezohiko txosten bat ari gara prestatzen).
- Koordinazio tresnak, batera jarduteko irizpideak, informazioa eta jarraipen lana elkartrukatzeko sistemak, jarduketaren jarraipena...

Emandako erantzunean, Justizia Sailak ikusitako bilakaera egiaztatu zuen, bai eta foru aldundien menpeko babes sistemetatik datozen adingabeek gazte justiziaren sisteman duten kopuru handia ere, batez ere jokabide edo neurririk larrienen kasuan (kautelazko neurriak eta internamenduak). Ildo honi jarraituz, ondoko datu hauek eman zituen, 2003. urteari dagozkionak:

- Gizartearen aldeko zerbitzuak emateko neurrietan: % 23,4 babes-espeditatedun pertsoneri dagokie.
- Zaintzapeko askatasun neurrietan: % 28,8.
- Gizarte eta kultura arloko zereginetan: % 17.
- Tratamendu ambulatorioan: % 58.
- Zuhurtziazko internamendu neurrietan: % 58
- Internamenduetan: % 52,4.

Halaber, adierazten du urte horretako kasuen azterketaren arabera, bi sistemetan maizenik parte hartzen duten kolektiboak identifika daitezkeela:

- Familiarik gabe dauden atzerriko adingabeak.
- Famili esparruan eraso arazoak dituzten adingabeak.
- Emantzipatzeko edo euren familietara itzultzeko benetako aukerarik ez duten 18 urtetik gorakoak.
- Babes-zentroetan bizi diren adingabeak, ingurune irekian neurriren bat bete behar dutenak.

Bi sistemen arteko koordinazioa helburu, arduradun politikoen artean izandako topaketa monografikoa gogorarazi beharra dago (Eusko Jaurlaritzako arduradunak eta foru aldundietakoak); izan ere, azken urtean lan talde finko bat osatu da koordinazio tresnak eta lehentasunak ezartzeko. Talde honek bi topaketa izan ditu urtean eta “koordinazio protokolo bat ari da taxutzen, hartu-emanei egonkortasuna emateko asmoz”.

#### **4. Indarkeria-ekintzetan nahastutako adingabeentzako arreta**

Atal honetan Entzutegi Nazionalak hartutako neurriak betearazteko izandako jarduketan gainean galdetu zen eta lankidetzaz hitzarmenen bat garatzeko aukeraren gainean ere; bide hori legeak ezartzen du eta horren komenigarritasuna behin baino gehiagotan azpimarratu nahi izan du Arartekoaren erakundeak.

Gai honi buruz Justizia Sailak emandako informazioak aurreko erantzunetara jotzen du (iazko txostenean atal bera aipatzen da) eta, era berean, Gobernu Kontseiluak 2004ko azaroaren 2an onetsitako Gazte Justiziako Plangintzan sartutako helburu zehatzetariko bat jasotzen du: *“Justizia Ministerioarekin bidezko diren kudeaketak egitea, 7/2000 Legearen aplikazioz terrorismo-delituengatik epaituak diren eta Euskadin bizi diren adingabeei loturik Auzitegi Nazionalaren Adingabeen Epaitegi Zentralak emandako barneratze-neurriak Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan bete daitezen ahalbidetzeko”*.

## 5. Zerbitzuen araubidea

Puntu honetan Justizia Sailari itaundu genion hurrenganako arretari buruzko Legea (parlamentu tramitean dagoena) eta 5/2000 Legearen Araudia (onetsita dagoena eta 2005eko martxoan indarrean sartzea aurreikusten dena) onetsi, aplikatu edo garatzeari buruz; izan ere, bi horiek oinarrizko eta funtsezko arautegiak dira eta erakunde honek behin eta berriz adierazi du horien beharrian eta premia dagoela.

Araudiari dagokionez, zehazten da aurreko udan berori aztertu eta baloratzeko epe bat ezarri zela zerbitzu bakoitzean, horren aplikazioaren ondorioak eta behar bezala egokitzeko egin beharreko neurriak aztertzeko. Behin fase hori amaitu eta gero, bi lan saio egin ziren zentroko arduradunen, inguru irekiko taldeetako buruen eta Justizia Zerbitzuko langile batzuen artean, egindako hausnarketak elkarri trukatzeko. Horrela bada, ondoko hauxe adierazi zen: *“Balizko aldaketen garrantzia eta sakontasuna, eta batez ere zerbitzu guztien funtzionamendua bateratzeko premia kontuan izanik, proposamen guztiak zehazteko eta jarduera-irizpideak bateratzeko xedez datozen egunetan azterlan horren laburpen-txosten bat idatziko da. Era berean, gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan Zirkular bat lantzea aurreikusita dago, zentro eta zerbitzu guztien funtzionamendurako beharrezkoak diren jarduera-irizpideak eta protokoloak zehazteko.”*

Hemen berriro ere azpimarratu nahi dugu erakunde honek gai hauei ematen dien garrantzia, adingabeko pertsonen eta horretan esku hartzen duten profesionalen eskubideak bermatzeko elementu modura.

Behin eta berriz azpimarratu ditugu gai honen inguruan ikusitako hutsuneak, bai eta eskubideak, betebeharrak, zigor prozedurak, zentroetako gutxieneko baldintzak eta abar arautzeko beharria eta premia ere.

Araudiaren eduki zehatza baloratu ez arren (aurreko abuztuan argitaraturikoa; 1774/2004 Errege Dekretua), erakunde honen ustetan eta betiere egin zaizkion kritikak albo batera utzita, dekretuan behin baino gehiagotan nabarmendu ditugun berme elementuetariko batzuk agertzen dira. Honen haritik esan beharra dago, gure iritziz, 2005. urteak balio behar duela horren garapen eta aplikaziorako; gainera, horren gaineko jarraipen lan zehatza egiteko asmoa daukagu.

## 6. Hezkuntza eta osasun arreta zentroetan bertan, eta lankidetzaren hezkuntza eta osasun sistemekin

Aurreko txostenetan kontsultatu daitekeen modura, behin eta berriz agertzen diren bi gai dira, eta zenbait momentutan erakunde honen ofiziozko jarduerak eragin ditu.

Heziketa arloko laguntzari dagokionez, Justizia Sailaren balorazioa positiboa da; horrela, beraren ustez, ez dago nabarmentzeko moduko arazorik eta gai honen buruzko 6973/2001 Agindua ekartzen du gogora.

Alderdi zehatzago bati helduz eta hezkuntza sare arrunteko zentroetan adingabe hauei ematen zaien laguntzari dagokionez, ondoko hauxe adierazi du: *“Zailtasun handienak baliabideak baliatzeko garaian sortzen dira, honako arrazoiengatik: irakastereduaren bateraezintasuna, matrikulazio-epeak, pertsona horien hezkuntza-premia berezietara egokitzea -inoren kargura ez dauden atzerritarrak, analfabeto*

*funtzionalak, irakaskuntza formala gaitzestea, eta abar.–* Eta Ibaiondo ikastetxeari dagokionez, gogora ekarri nahi du aurreikusita dagoela Hezkuntza Saileko langileek eurek gelen eta tailerren kargu hartzea; halaber, aurreikusita dago langileok aurtengo lehenengo hiru hilekoan hasiko direla lanean.

Zentroetako osasun laguntzari eta osasun zerbitzuekiko lankidetzari dagokienez, Justizia Sailak 2003ko irailean Osasun Sailarekin sinaturiko lankidetzaren hitzarmena aipatzen du; aldi berean, sailaren ustez, ez da aparteko arazorik izan larrialdietako laguntzetan, ez eta ospitaleko laguntzetan ere. Azkenik, ondorengo hauxe adierazten du: *“Atentzio psikiatrikoa, diagnosiaren eta terapia farmakologikoaren alorrean, zuzena da; hala ere, terapia ez-farmakologikoak egiteko askotan beharrezkoa da zerbitzu pribatuetara joatea beharrezko atentzioa bermatzeko”*.

## **7. Eskaerari behar bezala aurre egiteko sisteman egindako hobekuntzak**

Justizia Sailari egin genion informazio-eskaeran, azken puntuan, informazioa eskatu genion eskariari behar bezala aurre egin ahal izateko sisteman egindako hobekuntzez, esku hartzeko edozein mailatan:

- Zerbitzu judizialean.
- Gazte Justizia Zerbitzuaren kudeaketa-ahalmenean.
- Neurriak aplikatzeko beharrezkoak diren baliabideetan (zentroak, etxebizitzak, hitzarmenak...).
- Jarraipenean, koordinazioan, ebaluazioan...
- Emantzipazio eta irtenbide aukeretan.

Baliabideetan eta zentroen sarean egindako hobekuntzen berri aurreko ataletan eman da dagoeneko. Besteak beste, aipagarriak dira honako hobekuntza edo aldaketa hauek:

- Epaitegiei dagokienez:
  - Bilboko Adingabekoen 2. Epaitegia sendotzea.
  - Lekualdaketei buruzko lehiaketaren ostean, bulego ofizialeko plantillak indartzea.
  - Lekualdaketen lehiaketa dela eta, plantillan, epaile plaza batzuetan, izandako aldaketak.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuari dagokionez, zentroetako arduraduna izateko plazak jarraitzen du bete barik. Zerbitzua modu honetara osatzen da: arduradun bat, lurralde mailako hiru teknikari, letratu bat, zentroetako arduraduna (bete gabe dagoena), gazte justiziako bi teknikari eta administrari laguntzaile bat eta beste bat euskarri modura.
- Ibaiondo ikastetxean administrazioko langileen lehenengo plazak bete dira (administraria eta administrari laguntzailea). Gelako eta tailerreko langileak Hezkuntza Sailaren menpekoak izango dira eta osasun laguntza Osakidetzaren menpekoa.
- Erakunde lankideekiko kontratu guztiak 2003an gauzatu ziren eta, gutxien-gutxienik, indarrean izango dira 2007. urtera arte.

- 2004ko urrian abian jarri da Bizkairako eguneko zentro bat.

\* \* \*

Horraino, gutxi gorabehera, Justizia Sailaren erantzunean jasotako informazioa. Informazio horretan datu gaurkotuak aurki daitezke erakunde honek orain arte egindako jarraipenetan jorraturiko gairik gehienei buruz; zehatzago esateko, ofizioz egindako azken espedientean azaldutako zazpi gai eta galderei buruzko datuak agertzen dira; horrek aukera ezin hobea ematen du egindako aldaketak ikusteko, azken urtean izandako bilakaera eta aurrerapenak baloratzeko eta, aldi berean, jarraipen berrietarako plangintzak eta ekimenak ezagutzeko.

Hurrengo ataletan, elementu osagarri gisa, azken urte honetan jarraitu diren beste gai batzuk ere aipatuko ditugu.

## 8. Neurriak betearazteko 2004-2007 plangintza

Iazko txostenean jadanik aipatu genuen Justizia Sailak bere gain hartzen zuen erronka eta desafioa “*Neurriak betearazteko 2004-2007 plana*” martxan jartzean. Plangintza Gobernu Kontseiluak onetsi zuen aurreko azaroaren 2an eta legebiltzarrerara igorri zuen; bertan, 2005eko otsailaren 9ko bilkuran onetsi zen.

Erakunde honi ez dagokio plangintzaren edukiaren gaineko inolako baloraziorik egitea. Guztiarekin ere, hori taxutzea ontzat jotzen du, administrazioak jendaurrean aurkezten baitu zein den gure erkidegoan betearazi beharreko neurrien eredia eta zeintzuk diren datozen lau urteetarako lan eta aurrekontu ildoak. Ikuspuntu horretatik, jarraipen lana egiteko beste elementu bat izango da.

Justizia Sailak, gure informazio eskaerari emandako erantzunean, planaren testua ere igorri zuen; beraren ustez, plangintzaren tramitazioa urteko jarduketarik garrantzitsuena izan da arlo honi dagokionez.

## 9. Laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrak

Kasu honi gagozkiolarik, gure informazio eta jarduketa eskaeretan, laguntzarik ez duten adingabe atzerritarren problematikaren gaia arreta handiz jorratu dugu; gainera, pertsona hauen gainean azterlan zehatza egiten jardun dugu urte osoan barrena.

Horrela, internamendu zentroetara egindako bisitetariko batzuek biztanleen arlo hau izan dute helburu. Datuak eta lan memoriak irakurtzean ere adingabe hauen inguruko erreferentzia guztiak sakon aztertu dira. Eta txostena egin aurretiko bileretariko batean problematika honi heldu zitzaion, honetan inplikatuena dauden bi zerbitzuetako arduradunekin batera, hau da, babes eta gazte justiziako ordezkariekin batera.

Horren guztiorren berri emango da laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrei buruz egingo den hurrengo ezohiko txostenean.

## 10. Internamendu zentroak bisitatzea

2004ko urtarrilean Arartekoaren erakundeko langileok Landa eta Zumarragan dauden zentro berriak bisitatu genituen. Horren ostean, udan, Zumarragako eta Aramaioko

zentroetara bertaratu ginen, internamenduan zeuden adingabe atzerritarretariko baten batekin elkarriketa pertsonalak izateko asmoz. Azkenik, Arartekoaren langileok Zumarragako Ibaiondo ikastetxea bisitatu genuen azaroan, hainbat problemari eta adingabe batenganako tratu txarrei buruz jasotako informazioa argitzearren:

- Lehendabiziko bi bisiten inguruko informazioa iaz eman genuen (2003ko txostena, 65. orrialdea eta hurrengoak).
- Laguntzarik gabeko adingabe atzerritarrekin izandako elkarriketen emaitzak Arartekoaren erakundeak gutxi barru egoera horri buruz argitara emango duen ezohiko txostenean agertuko dira.
- Azkenik, Zumarragara egindako azkeneko bisitaren laburpenari txosten honetako hurrengo atalean heltzen zaio.

### **11. Arartekoaren jarduketa, Ibaiondo ikastetxean antzemandako arazo batzuk eta adingabe baten kontrako balizko tratu txarrak direla eta**

Arartekoaren erakundeko langileok Zumarragako Ibaiondo ikastetxera egindako lehenengo bisitaldia 2004ko urtarrilaren 15ekoa izan zen. Iazko txostenean horren berri eman genuen (2003ko txostena, 1.1.6. atala). Deskripzio datu edo elementuak albo batera lagata, beren beregi jaso ziren beste hiru arazo; horiek ondokoak ziren:

- Mugikortasun urria zuten pertsonentzat instalazioek zuten irisgarritasun txarra.
- Adingabeak Ertzaintzaren ibilgailuetan lekualdatuak izateko baldintzak.
- Talde hezitzailearen eta segurtasun langileen arteko koordinazioa, hainbat instantzien esku zegoena.

Behin une horretan zentroan zegoen taldearen plantilla deskribatu eta gero, azken gai horren inguruan ondoko hauxe adierazi genuen hitzez hitz:

*“Zentroan zaintzako beharginak daude eta segurtasun neurri handiak. Eskuraturiko informazioa, beharrezkoa da alderdi bakoitzaren eskumenak, funtzioak edo jarduketa irizpideak hobeto zehaztea; izan be, sail desberdinen menpe daude segurtasun langileak eta hezkuntza taldeak”.*

Aurtengo azaroan erakunde honek jakin zuen gorago aipaturiko arazoaren inguruan hainbat gertakari izan zirela; horrela, zehatzago esateko, segurtasun langileek esku hartu behar izan zuten adingabe bati zegokionez.

Gertakariak argitzeko asmotan, erakunde honetako langileok zentrorra bertaratu ginen azaroaren 25ean, ostegun batean. Egun osoan bilerak edo elkarriketak izan ziren zuzendaritzarekin, hezitzaileekin, adingabeekin eta zentroko segurtasun langileekin; halaber, eskura zegoen dokumentazioa berrikusi zen; hainbat instalazio bisitatu ziren; bideo zaintzako zerbitzuen funtzionamendua egiaztatu zen eta abar.

Bisita honen ondorioz, presazko bilera bat eskatu zitzaizen Justizia Saileko arduradunei. Bilera hurrengo astelehenean egin zen, azaroaren 29an, eta bertan Justizia Sailburuordeak eta Giza Eskubideen Zuzendariak hartu zuten parte sailaren izenean; Arartekoaren erakundearen izenean, Arartekoak berak, bigarrenak eta bi aholkularik hartu zuten parte. Bestalde, Arartekoaren erakundeko langileak elkarriketatuta ziren gertakarietan inplikaturiko adingabearekin eta honen familiarekin.

Kontua ez da gertakarien gaineko zehaztasunik ematea (horiek ikerketa judizial baten menpe daudelako), baizik eta arazorik garrantzitsuenak eta nagusiak nahiz orain arte egindako jarduketan emaitzak laburbiltzea.

Zumarragako zentroaren funtzionamenduan ikusitako arazoei dagokienez, saileko arduradunekin izandako bileran eztabaidatu ziren; gaiak, nagusiki, hiru hauek izan ziren:

1. A. J. C. gaztea, hezitzaile bat eta bost edo sei segurtasun zaintzaile inplikaturik egon ziren gertakari batzuk argitzeko premia (ika-mika honetan indarraren erabilera, beharbada, gehiegizkoa edo desegokia izan zen eta ondorioz adingabe Zumarragako ospitalera lekualdatu behar izan zuten, esplorazio bat egiteko), bai eta egoera horietan esku hartzeko mekanismoen funtzionamendu egokia egiaztatzea ere.
2. Zentroko segurtasun langile eta talde hezitzailearen arteko harreman arazoak (gatazkak, txarto ulertuak, mesfidantza, irizpide desberdinak, informatzeko eta koordinatzeko bitartekoen falta eta abar); arazo horren erakusgarri larria zera izan zen: gure bisita izan baino hiru lehenago segurtasun langileek giltzak eman izan eta esku ez hartzeko erabakia hartu izana (erabaki horretan, antza denez, zentrotik kanpoko instantziak inplikaturik zeuden).
3. Ika-mikak edo bestelako gaiak agiri bitartez islatzeko modu eta prozeduretan ikusitako akatsak, esate baterako ezarritako zigorrak, gertakizunak argitzeko beharrezko dokumentazioaren artxiboa edota goi instantzietan egindako jakinarazpenak (protokolo falta, idatzizko eta ahozko informazioen arteko oso zehaztapen maila desberdinak, gertakariak berehalakoan jakinarazi ez izana edo zeregin horretan berandutzea....

Azaroaren 29ko bileran hiru gai horien inguruko argibideak eta informazioa elkartrukatu ziren, hainbat adibide aztertu eta hainbat zalantza planteatu ziren. Era berean, informazio historikoa ere jaso zen, bai eta zentroaren gaur egungo testuinguruari eta etorkizuneko perspektibei buruzkoa ere.

Justizia Saileko arduradunek hartutako konpromisoei dagokienez, ondoko laburpen hau egin daiteke:

1. Urriaren 29ko gertakariak ikertzea, argitu gabeko galderak argitzeko asmoz: bost edo sei zaintzailek parte hartu izana, txanda horretan bi besterik egon behar ez baziren; golpeen ondorioz bi borra edo defentsa apurtu izana; ikertzen ari diren gertakariak ikusi ahal izango ziren irudien grabazioa; arduradunei jakinaraztea (Gazte Justiziaren Zerbitzua eta Segurtasun Zerbitzua), horien edukiak eta bidaliak izateko modu eta uneak aztertuz; jasotako txostenak epaitegian salaketak jartzeko erabili izana...
2. Talde hezitzailearen eta segurtasun taldearen arteko hartu-emanak berraztertzea, hainbat egoeratan esku hartzeko protokoloak ezarri edo argituz.
3. Jokabideak, jarraibideak, tresnak, irizpideak, programak... zehaztea, adingabeekin egiten diren esku-hartzeetan bermeak arautzeko, errazteko edota eskaintzeko.

Azken bi gaiei dagokienez, Justizia Saileko arduradunen ustetan, zentroko langileen artean aurreikusitako hurrengo aldaketak (hautaketa prozesua abian zegoen) eta Adingabeen Zigorrari buruzko Legeak garatzen duen araudiaren aplikazioak (gorago aipatu

dugun bezala, 2005eko martxoan indarrean sartuko dela aurreikusten da) bi aukera ezin hobeak dira, ageriko hobekuntzak sartzeko. Edozein kasutan ere, etorkizuneko proiektuak alde batera utzita, Justizia Sailak erakunde honi epe laburrean eman beharreko pausuen eta horiei esker eskuraturiko emaitzen berri emateko konpromisoa hartu zuen.

2005eko urtarrilaren 20ko konpromisoarekin bat, Justizia Sailburuordetzak Arartekoari txosten zehatza bidali zion; bertan ondoko hiru atal hauek garatu ziren:

### 1. Aurrekariak:

Atal honetan zentroa martxan jartzeko prozedurari eragin dioten hainbat erabaki edo baldintza aipatzen dira (ETAren atentatua; kudeaketa publikoaren aldeko aukera; kudeaketa 2003an erakunde jakin bati behin-behinean adjudikatu izana; behin-behineko egoera hasiera batean aurreikusitakoa baino gehiago luzatu izana; zentroaren segurtasuna zuzenean hartu izana...), bai eta horrek ekarritako ondorioak ere, zentroaren langileen egonkortasun edo txandaketari dagokionez edo segurtasun langileen eta langile hezitzaileen arteko erreparoei dagokienez.

### 2. Gertakariak:

Urriaren 29an izandako gertakariak argitzeko atala. Zati honetan gertakarien berri zehatza eta kronologikoa ematen da, horretan parte hartu zuten langileei buruzko aipamenak eta guzti.

Gertakarien kontakizuna bat dator, neurri handi batean, Arartekoaren erakundeak zekienarekin. Hala ere, datu garrantzitsu batzuk ez daude oso argi eta kontrajarriak dira eskura dauden beste informazio batzuekin alderatuz gero. Horiek guztiak oso interesgarriak dira, erantzukizunak argitzeko eta gertakari hau edo antzekoak ikertu ahal izateko. Horrela bada, adibidez, ondoko puntuak jorratu beharko lirateke:

- Indarra erabiltzeko modua eta segurtasun langileen esku-hartzea amaitu zen modua.
- Egindako lesio guztien deskripzio eta balorazioa eta horiek parte medikoan islatzeko modua.
- Gertakizunaren grabazioak eta grabaturiko irudiak gorde diren ala ez.
- Gertakariak zentroko langile desberdinek egindako parte edo txostenetan islatzeko modua.

Gure ustetan, egindako ikerketak –gertakariak argitzeko prozedura alde batera utzita– akatsak izan ditu eta prozedurak hobetzeko balio behar du, bai eta antzeko egoerak saihesteko ere. Esan nahi baita, honek guztiak prebentzio balio bat dauka eta hori erakunde honi interesatzen zaio bereziki. Hori dela-eta ezin da amaitutzat eman.

Erantzukizunak argitzeari dagokionez, une honetan salaketa bat jarrita dago bide judizialean eta horrek ezarri beharko ditu beharrezko ardurak.

Justizia Sailak, bere aldetik, gertakariak baloratzean, kontuan hartu ditu zentroaren baldintza materialei buruzko hainbat zirkunstantzia, adingabearen aurrekariak edo hezitzaileen babesak; era berean, adierazi du gorabehera honen inguruan hartutako erabaki guztiak sailari dagozkiola. Edozein kasutan ere, ez du gertaturikoari buruzko neurri berezirik hartu.



Ondorio falta hori, hala ere, ez dator bat Sailak berak hartutako neurriekin; neurriok hurrengo atalean jasotzen dira eta ondorengo izenburuaren bitartez justifikatzen dira: *“Saila jabetzen da gertatukoaren garrantziaz eta, horregatik, txosten honetan agertzen den gertakariaren antzekorik berriro gerta ez dadin ziurtatzeko, hasia da beharrezkoak diren neurriak hartzen”*.

### 3. Ondorioak

Batzuetan hartutako neurriak eta beste batzuetan hartu beharrekoak (sailak txostenaren hirugarren atalean jasotzen dituenak), funtsean, ondorengo hauek dira:

- Zentroaren erantzukizuna Giza Eskubideen Zuzendaritzan bateratzea, horren barruan segurtasuna sartuz.
- Elkarbizitzako taldeetako ate guztiak aldatzea eta sendotzea.
- Salbuespen egoera mota hauei zuzendutako jarduketako protokoloak egitea, betiere ondokoak kontuan harturik: *“organo judizialei, administratiboei eta dagokien erakundeei gertakarien berri ematea, erantzun fisikoei buruzko esku hartze motak zorrotz zehaztea, gertakarien ikerketa zehatza eta, hala dagokionean, diziplina-neurriak hartzea eta eskatu beharreko erantzukizunak eskatzea dagokiona.”*

Azkenik, sailak ondoko hauxe adierazten du: *“Ibaiondo Ikastetxeak azken bi hilabete hauetan izan duen salbuespen-egoera jada amaitu dela, eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren menpe dauden funtzionarioek osatutako zuzendaritza-talde berria etortzen denean eta Ikastetxeko kudeaketa zuzena osatuko duen lan-kontratuko langileak sartzan direnean normaltasuna lortuko dela eta Ikastetxea ondo funtzionatzen hasiko dela”*.

Informazio, iritzi eta neurri horiek kontuan hartuta, Arartekoak oraindik ere guttiz argitu ez diren alderdien inguruan –dagoeneko aipatu da zeintzuk diren– hartuko du esku eta proposaturiko neurriak benetan aplikatzen diren ala ez aztertuko du.

## 12. Azken hausnarketak

Aurreko txostenetan, atal berean, balorazioa egiteko atal bat sartu izan dugu; bertan hobetu beharreko egoera batzuk aipatzen genituen edo hainbat proposamen azpimarratzen genituen (esate baterako 2002ko txostenean edo 2003ko txostenean, 1.1.6. atalean). Horrela bada, iaz ondokoak nabarmendu nahi izan genituen:

- Babes sistemen eta gazteria arloko sistemaren arteko harremanei sakontasunez heltzeko premia.
- Entzutegi Nazionalak ekintza terroristengatik zigorturiko adingabeek neurria euren familiengandik hurbilago betetzeko aukera.
- Zerbitzuen arauzko erregulazioa, betiere beharrezko berme elementu modura.

Aurten egindako jarraipen lanaren inguruan, gure ustetan, oso kezkarriak diren bi gai azpimarratu behar dira, idazki honetan baloratuak izan direnak, goragoko ataletan:

- Neurriak hartzeko eta aplikatzeko ikusitako akatsak, bereziki sistema judizialak kasuen inguruan ebazteko daukan geldotasuna (kapitulu honen 1. atalean zabal jorratu dugun gaia).
- Zerbitzuen arazko erregulazioa eta adingabeen eskubideak bermatzeko prozeduren aplikazioa (5. eta 11. ataletan garaturiko gaia).

Gure iritziz, bi gai hauek arreta handiz segitu behar dira eta, ondorioz, hurrengoetan ere horiei buruzko jarraipen lana egin behar izango da.

### 1.1.7. SAN FRANTZISKO ALDEAN POLIZIAK ATZERRITARREKIN IZANDAKO ZENBAIT JOKAERA DIRELA-ETA ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonetikiko poliziak egindako jarduerekin lotuta Arartekoak izan duen esku-hartzea 1997 urtean hasi zen. Harrezkero eta 1998 urte osoan burututako egintzak urte hartako Arartekoaren urteko txostenean jaso ziren labur-labur (1998ko Txostena, I. atala, 1.6. azpiatala). Gainera, hurrengo urteko ekainean, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Herritarren Eskakizunetarako Batzordearen aurrean urteko txostena aurkezteko izan zenean, gai honi buruzko dossier osoa eman eta aurkeztu zizkien Legebiltzarreko taldeei.

Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak, 1999ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, auzoko egoera liskartsuari buruzko legez besteko proposamen bat eztabaidatu eta onartu zuen, eta, besteren artean, ondoko hau erabaki zuen: “Legebiltzarrak eskatzen du Arartekoak Bilboko San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonetikiko poliziaren jardueren gaineko txostenean azaldutako gomendioak aplikatzea eta inplikaturako Administrazioek gomendio horiek betetzeko konpromisoa hartzea. Hori egiaztatzeko, Arartekoari eskatzen zaio sei hilabete barru jakinarazi ditzala egindako gomendioak zenbateraino betetzen diren eta horren gainean egiten duen balorazioa.”

Legebiltzarraren erabaki hori betetzeko, Arartekoak 2000ko otsailean Eusko Legebiltzarreko buruari txosten mardula eman zion: “*San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonetikiko poliziaren jarduerekin lotuta Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalari egindako gomendioak betetzearen jarraipena*”. Txosten honetan jasotako datu guztiak bildu eta baloratzen ziren. Txosten honen laburpena, balorazioan oinarrituta, edo, zehatzago esateko, Arartekoaren gomendio eta proposamenak zenbateraino betetzen ziren, 1999ko txosten arruntean sartu zen (ikus I. atala, 1.1.8. azpiatala).

Aipatutako jarraipen txosten hori osatzeko datu bilketan ahalegin garrantzitsua egin behar izan zen eta bost informazio iturri, osagarriak batzuetan, oso balio desberdinekoak bestetan, erabili ziren: Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arduradunen datu eta balorazioak; elkarteen datuak eta balorazioak; erakundean jasotako kexak; epaitegietako ebazpenak; prentsan agertutako albisteak. Informazioa eskuratzeko eta sistematizatzeko ahalegin handia egin eta Legebiltzarrak berak eskatutako txostena izan arren, Legebiltzarrean ez da horren inguruko inolako ekimenik edo eztabaidarik egon txostena entregatu ondoren.

Horregatik, eta Ararteko erakundearen ezaugarriak ikusita, gaiak zaila dela kontuan hartuta, azken lau urte hauetan ez da jarraipen sistematiko eta berezirik egin. Jarraipen mugatua eta zeharkakoa egin da bakar-bakarrik: jasotako kexak, prentsan agertutako albisteak, alde horretako elkarrekin egindako bilera eta elkarriketak, Hontza gaueko zentroa zabaltzearekin, HIESaren Kontrako Batzordearen eguneko arreta zentroarekin edo Munduko Medikuek erakundeak kudeatzen duen ikuskatutako kontsumo-aretoarekin zerikusia duten esku-hartzeak eta polizia etxe batzuetara egindako bisitak.

Halaber, azken urtean goian adierazitako bideak (kexen azterketa, Bilboko Udaltzaingoaren polizia-etxerako bisita, Hontza zentrorako bisita, ikuskatutako kontsumo-aretorako bisita, Harresiak Apurtuz koordinakunde eta guneko elkarrekin bilera, etab.) erabili dira. Hala ere, ofiziozko bi espedienteren bidez, Bilboko Udalari zein Eusko

Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari polizi jokaerei buruzko informazio eguneratua eskatu egin zaie. Jarraian, jokaera horietako batzuk laburbilduko ditugu:

## 1. Polizi jokaerei buruzko kexak

Gure txostenaren gomendio asko polizien esku-hartzeak gauzatzeko moduari buruzkoak ziren.

Alde horretatik, azken urtean poliziak gunean egin dituen esku-hartzeei lotutako beste bi kexa jaso ditugu, ofizioz jardun dugu prentsan agertutako albiste batzuetatik aurrera, eta aurreko urtean jasotako beste kexa bat ikertzen jarraitu dugu. Lau kasuetan Ertzaintzaren esku-hartzeak izan dira, eta egoera ezberdinak aipatzen dituzte.

- Auzoko pertsonak Ertzaintzaren bi jarduera ikusi zituzten. Beraien ustez, jarduera horiek desegokiak, gogorrak eta gehiegizkoak izan ziren, eta horregatik, bi kexa aurkeztu zituzten. Kexa horietan ondokoak jartzen ziren zalantzan:
  - Magrebeko itxura zuten hiru etorkinekin izandako jokaera;
  - Patruila batek Afrikako pertsonak erabili ohi duten lokal batean sartzeko erabili zuen modua;
  - Agente esku-hartzaileak lekukoak ez egoten saiatzea.
- Prentsan agertutako albiste batzuen berri izanda, Arartekoak ofizioz gauzatu zuen jarduerak adingabe baten atxiloketarekin zuen zerikusia, senideek atxiloketa basatitzat jo zutela.
- Aurreko urtetik bideratutako kexari dagokionez, jarraian zehaztutako gertaeraren ikerketan oinarritzen zen: bi ertzainek atzeritar bat atarian arakatu eta biluzi zuten (ikusi txosten honetan bertan Herrizaingo arloaren hitzaurrea).

Egiazta daitekeenez, kexen edukiak *San Frantzisko aldean (Bilbo) poliziak atzeritarrekin izandako zenbait jokaera* izeneko txostenean egin genituen gomendioetako batzuk zuzenean aipatzen ditu, hala nola, “oinezkoen ondasunen gaineko kontrolei” buruzko gomendia (aipatutako kontrolak legeak baimendutako kasuetara mugatu eta azalekoak izan behar zirela ez ezik, atari edo beste leku itxi batzuen barnean gauzatu behar ez zirela ere azpimarratzen genuen), “Polizi jardueren kontrol-bideak indartzea” proposatzen zuen 7. gomendia, edo indarraren erabilpenari eta esku-hartzea garatzeko arrazoiak eta modu zehatza idatzi beharrari buruzko 8. c) gomendia.

Nolanahi ere, azken urtean bideratutako espedienteetatik nabarmenena Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak salatutako gertaerei buruzko informazio eta ikerketa eskaerei erantzuteko agertu duen laguntza urria izan da.

## 2. Zenbait albisteren informazio-tratamendua

Gure txostenaren 10. gomendioak proposatzen zuen “kontu berezia izatea argitara ematen diren datu polizialei buruz eta datu horiek auzoaren irudi sozialean edo etorkinen kolektiboan duten eraginaren aurrean”, gizarte elkarbizitzarentzat ezertarako lagungarri gertatzen ez diren estereotipoak eta aurreiritziak indartzea saihesteko.

Guneari lotutako albisteen informazio-tratamenduari dagokionez, guneko ikuskera positiboak gehitu dira, adibidez erakundeek bultzatu dituzten hobekuntza proiektu zehatz

batzuk zabalduz edo gizarte agenteek sustatutako ekimen solidarioen edo hurbiltze kultureko ekimenen berri emanaz.

Hala ere, oraindik ere aurreko txostenetan nabarmendutako arazo batzuk agertzen dira batez ere zenbait informaziotan –sarritan gunean gauzatutako atxiloketei buruzkoak direnak–, horien iturria polizia bera dela.

Kontu horri dagokionean, hainbat kexa eta ofiziozko jardueraren ondoren –azken urtean Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Bilboko Udalaren aurrean egingakoak, besteak beste–, Ararteko erakundeak San Frantzisko gunera mugatzen ez bada ere, horretara guztiz aplikatu daitezkeen gomendio orokorra egiten du txosten honetan (ikus VI. kapitulua, 2. gomendio orokorra).

### 3. Auzo elkarte eta koordinakundeekiko harremana

Azken urteotan, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinakundearekiko harremana ez da polizi kontuetan oinarritu, hirigintza motako kontuetan edo auzoko zerbitzuen azpigiturari eragiten dioten gaietan baizik.

Halaber, azken urtean bilerak izan ditugu Harresiak Apurtuz GKEen koordinakundearekin. Etorkinei laguntzen dieten hogeita hamar elkartek osatzen dute koordinakunde hori, eta orain dela gutxi –2005eko otsailean– gunean kokaturiko ikastetxe bateko ordezkariak barne hartu ditu. Bilera horietan kezka handiena sortu duten gaiak ondo-koak dira:

- Klean ikusitako polizi jokaera jakin batzuk.
- Guneko eskola-plangintza: laster Miribillan eraikitako zentroa irekiko da, San Frantzisko herri-ikastetxea itxiko da, eta Zabala herri-ikastetxean gaur egun eskolatutako ikasleak hizkuntza-ereduen arabera lekualdatuko dira. Zentro horietako bat ghetto bihurtzeko arriskua.
- Bizilekua berriro hartzeko noizean behin erabilitako irizpideak.

### 4. Guneko arreta-baliabideak drogazaleentzat

Gunean agerpen handia duten eta arrisku-egoeran dauden biztanleentzako arreta-baliabide jakin batzuei dagokienez, erakunde honek horietako hirutan esku hartzen du, batzuetan ofizioz, beste batzuetan auzokoen kexengatik eta beste batzuetan elkarrekin eskatuta: Hontza gaueko arreta zentroa, HIESaren Kontrako Batzordeak kudeatutako eguneko arreta zentroa eta Munduko Medikuek erakundeak kudeatzen duen ikuskatutako kontsumo-aretoa; azken bi zentro horiek Bailen klean daude. Hasieran, esku-hartzeak hirigintza kontuetan (zerbitzu bakoitza baimentzeko izapideak), polizi kontuetan (inhibizioak zein bidegabetzat jotako jarduerak) edo aurkako jarreraren arteko adostasuna bilatzean oinarritu ziren. Azken kontu horri dagokionean, sarritan auzo-elkarrekin artean dauden jarrera eta sentikortasun ezberdinak agertu dira, baita interes eta eskubide ezberdinak bateratzeko zailtasunak ere.

Azken esku-hartzeak Arartekoak Hontza zentrori eta funtzionamenduan jada urtebete eman duen ikuskatutako kontsumo-aretorik egindako bisitak izan dira. Ondoren, bisita horiei buruzko informazioa eskainiko da.

a) *Hontza zentroa (legez kontrako drogak hartu eta gizarte bazterketako egoera larrian dauden pertsonentzako urgentziazko eta gaueko harrera zentroa)*

Bilboko Caritasek Zamakolan kudeatzen duen gaueko babes zentroa, hasieran Zamakola aldean egokitutako lokal batean zegoena, arazo eta gorabehera ugarien zurrumbiloaren erdian egon zen. Obrak bukatutakoan, zentroa lanean hasi zen 2001eko uztailaren 4an. Auzokoen protestak kontuan harturik, ireki eta egun batzuetara zentroa ixtea erabaki zen, elkarren kontrako iritziak adostu nahian. Geroago, auziari lotuta zeuden bi alderdik (apezpikutza eta alkatetza) elkar harturik, eta artean auzoko talde bat aurka zegoela, zentroa berriro ireki zen abenduan, eta 2002. urtean lanean jardun zuen, poliziak babesturik. Sarritan, hedabideek arazoan berri eman izan zuten.

Alde desberdinen eskariz, lehenengo urte hartan, Arartekoak esku hartu zuen. Izan ere, Zamakola 9ko auzo-elkartearen erreklamazioaz gain, Caritasen esku hartzeko eskaria iritsi zitzaion, eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinadorak ere bere kezka azaldu zion erakundeari. Lehenengo erreklamaziogileek zentroa itxi zezatela eskatzen zuten, auzoari arazoak eta kalteak ekarriko zizkiolakoan; beste biek, ordea, Arartekoaren esku-hartzea edo bitartekaritza lana eskatzen zuten zentroak bere lana era egokian egin ahal izateko.

2002an erakundeak ofizioz esku hartu zuen, hedabideetan plazaratutako zenbait berri zirela eta. Halaber, ordurako Arartekoak bisita bat egin zuen zentrorra, bertatik ezagutu nahi baitzituen hango arazoak, erabilpen datuak eta etorkizunera begirako zantzuak.

Zerbitzua San Anton elizaren ondoko eraikin batean kokatu ondoren eta funtzionamendua jada normala zelarik, azken bi urteetan erakundearen lana ere aldatu zen: kudeaketa taldearekiko harremanetan jarraituz, bisitak egiten ziren zentrorra, ematen ziren zerbitzuei zein erabiltzaileei buruzko datuak biltzeko. Eta datu eta balorazioen arabera, antzeko zerbitzuak sortu beharra azpimarratu dugu.

Erakundeak kexa baten ondorioz burututako lehen jarduna 2001eko uztailakoa da, baina bere lana aspaldikoa zen ordurako, zerbitzuaren beharra azpimarratuz, batez ere 1999an La Najako kaian bizi edo gaua egiten zuten pertsona ugariak –guztiak etxe gabeak edo drogak eragindako arazoak zeuzkatenak– handik bota zituztenetik. Hiriko alde horretan ziharduten elkarrekin, gizarte zerbitzuekin eta Udaleko arduradunekin izandako bileren bitartez, Arartekoak bazekien lehendik nolako beharrak zeuden, baita eguneko zein gaueko laguntza proiektuak ezagutu ere. Hasieratik bertatik, zerbitzuen beharra azaltzeaz gain, erakunde honek argi azaldu du zerbitzu gehiago sortzearen aldeko jarrera. Gainera, bazegoen Eusko Legebiltzarrak 2000ko martxoaren 28an onartutako legez besteko proposamen bat, hari beretik zihoana.

Bai 2001eko jasotako kexek eta bai zentroaren irekierari lotutako arazoek ere, bi gai desberdin zituzten, gutxienez, atzean, bata hirigintza kontuekin zerikusia zuena eta bestea gizarte alorrekoa. Lehenengoari dagokionez, irekiera lizentzia emateko prozedura aztertzeaz gain, erakunde honek bere ustez bete beharreko pausuak defendatu zituen, alegia, auzokoei jakinarazpena helarazi, haien alegazioak jaso eta aintzat hartu, eta lizentzia ematekotan arauen arabera egin beharra. Gizarte alorrari lotuago ageri diren auziei dagokionez, interesatuak elkarrenganatzeko ahaleginak proposatu eta bultzatu ziren, bai proiektua diseinatzeko orduan eta bai zerbitzua berriro abiaraztean ere.

Asmo horiek gauzatzeko, zenbait ekimen burutu ziren: informazio idazkiak, auzokideei, Caritati eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko

Taldeen Koordinadorari zuzenduak; zentrorra egindako bisitak; jarrerak hurbiltzeko zenbait bileretan parte hartzea; poliziaren zereginaren inguruan egindako jardunak; irekiera lizentzia emateko eskumena duen erakundeari -Bilboko Udala- zuzendutako gomendioa... Bestalde, kontuan hartu zen nola proiektatu eta ireki zen zentroa, eta nolako erantzuna jaso zen auzoko batzuegandik, bai kasu honetan eta bai bestelako zerbitzuen aurrean. Aurrekari horiek ikusita, Arartekoak gomendio orokor bat mahai-gaineratu zuen: *“Erakundeen buruzagitza, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean”* (ikus 2001eko Txostena, VI. kap.).

Polizi gorabeherak alde batera utzita, 2002ko ofiziozko egintzen helburua zentroak aurrera jarraitzeko behar ziren baldintzak bermatzea izan zen, eta horretarako mota desberdineko datuak aztertu ziren hainbat astetan, besteak beste: gau batean zentroko langile eta erabiltzaileekin egon zen egoera hantxe bertan ezagutzeko; informazio zuzena ere jaso zen auzian interesa zuten pertsonengandik (erabiltzaileak eurak, zentroko langileak, boluntarioak, zaintzaileak, bertan ari ziren Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arduradunak eta agenteak); ofiziozko espediente gehiago abiarazi ziren Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Bilboko Udalaren aurrean...

Era berean, zerbitzua Zamakolatik San Antonera aldatu baino aste batzuk lehenago erakunde honek berriro jo zuen Bilboko Udalera informazio eske. Lekuz aldatzeko aurreikuspenen eta koordinaziorako eta segimendurako mekanismoen berri jakin nahi genuen, eta drogamenpekoak laguntzeko edo artatzeko beste zerbitzurik sortzeko aukerarik ba ote zegoen, izan ere, Hontzaren ahalbideak mugatuak izanda, beharrezkoa izango baitzen baliabide osagarriak prestatzea.

Bestalde, lehen aipatu den erakunde honen gomendio orokorraren haritik Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasunetarako Zuzendaritzak prestatutako txostenari dagokionez (*“Drogamenpekoei laguntzeko baliabideak: Ekimen komunitarioetarako estrategiak taxutu, txertatu eta haien segimendua egiteko metodologia”*), Arartekoak modu zuzenean jakin zuen –baita Zuzendaritzari helarazi ere– nolako iritziak eta ekarpenak zituzten txostenaren inguruan gizarte eragileek, zentroaren eta bestelako baliabideen taxuketan eta funtzionamenduan zerikusia zutenek, hain zuzen ere.

2003an, Arartekoak berak eta erakundeko langile batzuek zentroa bisitatu zuten zerbitzu orduetan, horren baldintza eta funtzionamenduaren berri izateko. Geroago, zentroak egindako dokumentua (*“Egitasmoak eta Tailerrak”*) aztertu zen; 172 orrialdeko txosten horretan era guztietako informazioa biltzen da: zentroaren eta artatzeko kolektiboaren ezaugarriak, egitasmo guztien xehetasunak, baloraziorako irizpideak, barne araudia, aurrekontuak, langileen profila, urteko lehen seihilekoari buruzko datuak... horretaz gain, 2003ko urtarriletik azarora bitarteko memoria eta 2003ko urte osoko datuak ere aztertu ziren.

Horren guztiaren laburpen zehatza –emandako urratsak, lortutako emaitzak, Hontzan eskainitako programak edo zerbitzuak, emandako laguntzei buruzko hileko datuak, erabiltzaileen profila...– eskaini zen iazko txostenean (ikus 2003ko txostena, II. atala, 2.2. azpiatala).

Hortaz, hemen *Hontzaren 2004ko Memoriatik* hartu eta eguneratutako datu batzuk laburbildu, eta 2004ko abenduan zentrorra egindako azken bisitan ikusi edo agertutako kontuetako batzuk berriro hausnartu baino ez dugu egingo.

Laburbilduz, esan daiteke 2002ko abenduan San Anton elizaren ondoko lokaletara lekualdatu zenetik Hontza zentroak arazorik gabe funtzionatu duela, normaltasunez

eta gero eta handiagoa den zerbitzua eskainita; 2003ko maiatzetik eremu guztietan funtzionatzen du, nahiz eta instalazioen ezaugarriek eurek, aurrekontu eta langileei buruzko aukerek edo ordutegi eta programen gainean hartutako konpromisoek zerbitzua mugatzen duten.

Gaur egun, zentroa urteko egun guztietan dago irekita gaueko hamar eta erdietatik goizeko zazpietara arte, eta batez ere, hiru programa eskaintzen ditu:

- Atsedeen programa, besteak beste, hurrengo zerbitzuak dituen: xiringak bildu eta trukatzeko gunea, egongela, bainugela eta garbitegiko gunea, erizaindegia, elkarrizketetarako bulegoa, eta 17 hamaka dituen atsedeen gunea.
- Areto ireki, hurbiltze, eta gizarte- eta osasun-laguntzako programa, goizaldeko 1:00tik 4:00etara irekita dagoena, eta hurrengo zerbitzuak biltzen dituen: xiringak bildu eta trukatzeko gunea, egongela, bainugela, erizaindegia eta elkarrizketetarako bulegoa.
- Xiringak trukatu edo hurbiltzeko programa.

Esku hartzeko arloei dagokienez, hiru arlotan taldeka daitezkeen jarduera ezberdinak burutzen dira: hezkuntza arloa (adibidez, autozainketako azturak landuz); osasun arloa (erizaintza edo osasun tailerretako esku-hartzeak gauzatuz); eta komunitate arloa (beste baliabide eta erakunde batzuekin batera lana sustatzen saiatuz).

Zerbitzu horiek eskaini ahal izateko berariaz diseinatu diren zentroko instalazioak egoera ezin hobean daude, bisitan egiaztatu zen bezala.

2004. urteari dagozkion zenbakizko datu adierazgarrienak hurrengo koadroan laburbil daitezke:



**HONTZA ZENTROA 2004: hilez hileko harrerak**

HILAK	Gaua zentroan ematen dute	Zentrotik pasatu dira	Pertsona desberdinak	Berriak	Bildutako xiringa kopurua	Emandako xiringa kopurua	Erizaindegia	
							Ekintza kopurua	Pertsonak
URTARRILA	387	886	196	34	6.406	7.210	885	330
OTSAILA	428	831	157	26	6.828	7.715	823	309
MARTXOA	423	1.221	212	37	8.026	8.929	588	158
APIRILA	403	1.326	188	38	6.068	7.012	409	120
MAIATZA	496	1.251	198	31	6.656	7.671	566	184
EKAINA	415	1.224	231	57	5.307	6.431	590	154
UZTAILA	461	1.531	251	52	9.121	9.722	487	164
ABUZTUA	466	973	281	74	7.989	9.150	165	101
IRAILA	428	1.153	236	44	5.241	5.887	432	156
URRIA	463	1.189	209	37	5.123	5.898	609	143
AZAROA	451	1.229	213	34	5.303	6.031	561	147
ABENDUA	406	1.145	217	33	5.689	6.590	375	119
<b>GUZTIRA 2004</b>	<b>5.227</b>	<b>13.959</b>	<b>869 <sup>(1)</sup></b>	<b>497</b>	<b>77.757</b>	<b>88.246</b>	<b>6.490</b>	<b>2.055</b>
GUZTIRA 2003	4.771	8.994	609	504	83.592	85.076	8.407	3.744

<sup>(1)</sup> Ezberdinak urtean zehar; ez dira hilez hil gehitzen; 705 gizon eta 164 emakume.

Datu horiek eta Zentroaren 2004ko Memorian bildutako beste askok zerbitzua-  
ren finkapena ez ezik, oro har beste baliabide aruntago batzuekin erlaziorik ez duen  
biztanleriako sektore batek instalazioak eta zerbitzuak erabat erabiltzea ere baloratzea  
ahalbidetzen dute.

2004ko datuen arabera, laguntza jaso duen erabiltzaile edo pertsonaren profila  
honakoa izan da:

- gehien bat gizona (% 81)
- Espainiako nazionalitatea duena (% 87)
- errolatu gabea (% 71)
- nahiko gaztea (gehienak 25 eta 39 urteen bitartean daude)
- kokaina eta heroinaren kontsumitzaile aktiboa (% 70ek bide parenteraez hartzen dute)
- etxerik gabekoa (% 76; % 10 gehiago pasadizokoak dira).

Zentroaren Memoriak arlo, zerbitzu eta programatutako jarduera bakoitzaren  
balantze zehatza eta Jarraipen Batzordeak egindako lanaren balantzea eskaintzen ditu,  
erabiltzaileen gogobetetasun-mailaren ebaluazioari buruzko emaitzak eta iradokizunak

biltzen ditu (zentroa goizago irekitzea, beranduago irten ahal izatea, hamaken orde z oheak egotea...), eta langileen eta boluntarioen datuak eskaintzen ditu. Halaber, urteko balantze ekonomikoa biltzen du, eta etorkizun-aukera ezberdinak agertzen ditu.

Datu guztiek erakusten dute zentroaren funtzionamendua guztiz egokia dela. Horregatik beharbada jaso zuen Hontza zentroak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sustatutako Dolores Ibarruri Gizarte Zerbitzuetako lehenengo saria, 2004ko abenduan.

Era berean, erabilgarri dauden baliabideen bidez pertsona gehiagori lagundu ahal izateko edo zerbitzu hobekak eskaintzeko dituzten zailtasunak agerian geratzen dira. Erakunde honek behin eta berriz azaldu du mota horretako zerbitzu gehiago sortu beharra.

Horrela, pertsona horientzat harrera zentro gehiago antolatzeko aukerei buruz, Arartekoari emandako azken erantzunean Udalak ondoko hau adierazi zuen: *“Baloratzekeo orduan, Bilboko Udalak normaltasun egoeran aztertu nahi luke San Antoneko zentroaren jarduera; hortik aurrera, eta hedabideetan azaldu den bezala, uste dugu horrelako zentro gehiago antolatu beharko liratekeela. Alabaina, oraindik ez da erabaki non egongo liratekeen, ezta zenbat erabiltzaile hartuko lituzkeen edo nola kudeatuko lituzatekeen ere”*.

Erakunde honen ustez, Hontzak azken bi urteotan izan duen funtzionamenduak eta gizarte bazterketa jasaten duten drogamenpekoen beharrei buruzko zenbait ikerketek datu ugari jartzen dituzte aztergai era honetako zentro gehiago sortzea erabakitzekeo orduan.

Uste dugu mota horretako baliabideak sortu beharra argi eta garbi agertuko dela berrito ere Ararteko erakundeak etxerik gabe eta bazterketa arrisku larrian dauden pertsonentzako arretari buruz egiten ari den txostenean.

Nolanahi ere, baliabide berriak sortu aurreko elementu gisa, nahitaezkoa da ondorio ekonomikoa argitzea eta administrazio ezberdinei dagokien laguntza bermatzea. Hontza zentroaren kasuan, 2004ko aurrekontu-balantzea aintzat hartuta, deigarria da baliabideak kudeatzen duen erakundeak berak (Cáritas Diocesana) kostuaren erdia bere gain hartzea (% 49) eta administrazioen diru-ekarpenak hain ezberdinak izatea: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak % 30 ematen du, Osakidetzak % 2 (HIESaren aurkako plana); Bilboko Udalak % 19 eta Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, ez du diru-ekarpenik egiten.

Esate baterako, guk uste dugu Bilboko Caritasek bere gain hartzen dituen gastuetako batzuek (trukean ematen den materialaren kostua, erabiltzaileentzako osasun laguntzan erabilitako material farmazeutikoaren kostua, erizaindegiko langileen kostua, etab.) erantzukizun publikoko osasun funtzio eta zerbitzuekin zerikusi argia dutela, eta horrenbestez, administrazio eskudunak bere gain hartu beharko lituzkeela.

#### *b) Ikuskatutako kontsumo-aretoa*

Munduko Medikuek erakundeak zerbitzu hori kudeatzen du. Aipatutako zerbitzua Bailen kalean dago kokatuta, eta 2003ko azaroan hasi zen arreta eskaintzen. Horren aurretik, eta aipatutako kaleko auzo talde batek kexak aurkeztuz geroztik, Ararteko erakundeak Bilboko Udalaren aurrean esku hartu zuen, zerbitzuaren ordutegi edo baimenari buruzko prozedura zuzen burutzea zaintzeko zein auzokoei proiektuaren garapenaren berri eman eta horren partaide bihurtzeko.

2003ko abenduan, Arartekoak eta erakunde honetako langile batzuek zentroa bisitatu zuten lehenengo aldiz. Ondoren, 2004. urtean, zentroa berriro bisitatu zen, urtebete betetzen baitzuen ireki zenetik; halaber, urtea amaitu baino lehen, Ararteko berria zentrorra joan eta Munduko Medikuek erakundeko ordezkari batzuekin bildu zen, zentroaren funtzionamenduaren berri izan eta hori aztertzeko.

Hemen gure ustez adierazgarrienak diren datu eta informazioak laburbilduko ditugu; horietako batzuk bilera horretatik hartuta daude eta beste batzuk, ordea, aretoaren lehenengo urteari (2003/11/25 – 2004/11/24) dagokion “Jarduera txostena” izeneko txostenetik.

Ikuskatutako kontsumo-aretoaren helburu nagusia drogak zain barnetik kontsumitzeari lotutako arriskuak gutxitzea da, bai erabiltzaileentzat, bai komunitate osoarentzat.

Lehenengo urtean 594 pertsona ezberdinek erabili dute aretoa. Horietako gehienak (% 70) aretora hurbildu dira ahoz aho emandako informazioari esker, eta zerbitzua oso positibotzat jo dute.

Honakoa da profil bereizgarriena: gizona (% 83), Espainiako nazionalitatea duena (% 91), Bizkaian erroldatutakoa, gaua etxebizitza batean igarotzen duena (% 65; % 35ek gaua pentsioetan, aterpeetan, Hontza zentroan, kalean eta abarretan igarotzen dute), adin ertainekoa (batez besteko adina: 36 urte eta erdi) eta drogak zain barnetik kontsumitzen 15 bat urte eman dituen.

Bisiten bilakaera etengabe gehituz joan da, 2004ko azaroan (hau da, zerbitzua abiarazi zen urtean bertan) 61 pertsonako eguneko batezbestekora heldu arte. Guztira, urte osoan 14.759 pertsonak bisitatu eta erabili dute aretoa, neurri handienez erabili den egunetan 90 erabiltzaile inguru egon direla.

Kontsumo gehienak zain barnetik egiten dira (kokaina, heroina edo bien nahasketa), esnafatuta kontsumitzeko orduan pixkanakako igoera lortu den arren (arrisku gutxiago dakartzanez, hobetzat jotzen da).

Xiringak trukatu eta kontsumo eta sexu segururako materiala banatzeari dagokionez, hurrengoak aipa daitezke lehenengo urteko datu adierazgarrien gisa:

- aretoan bertan emandako xiringak (injekzio kitak): 30.216
- bildutako xiringak: 23.881; itzultze-tasa: % 76,1
- programa irekian emandako xiringak/kitak (asteburuak eta jai-egunak): 13.028
- programa honetan bildutako xiringak: 11.928; itzultze-tasa: % 91,7
- emandako preserbatiboak: 4.920

Halaber, azpimarragarria da gizarte eta osasuneko esku-hartzeen igoera nabarmena:

- erizaintza arlokoak: 1.676
- hezkuntza arlokoak: 3.313
- entzunaldi aktiboko arlokoak: 1.365
- beste baliabide batzuetarako deribazio arlokoak: 66
- beste zerbitzu batzuei buruzko informazio arlokoak: 151
- bestelakoak: 129

Zerbitzuaren memoriak datu horiek guztiak xehatzen ditu, eta horrek bilakaera hilez hil baloratzea, eta egindako esku-hartzeetako askok (adibidez, zainen lesioak, zauriak, abszesuak, sukar-prozesuak eta abar sendatzea) ekarri duten arriskuen jaitsiera hautematea ahalbidetzen du. Halaber, kontsumoek eragindako kontrako ondorioak biltzen ditu, 37 gutzira.

Aretoaren barnean zein inguruetan gertatutako jazoerei dagokienez, nabarmendu behar da oso gutxi (zortzi, gutzira) eta nahiko arinak (esate baterako, lau kasutan aretoan babesa hartzen saiatu da, zentroaren inguruetan lapurreta gauzatu ondoren) izan direla.

Lehenengo urtearen balorazioak beste jarduera batzuk ere barne hartzen ditu, hala nola kaleko lana (419 harreman: 334 gizonekin eta 85 emakumerekin) edo erabiltzaileei zuzendutako tailerrak (injekzio-teknikei edo adierazpen plastikoari buruzkoak).

Esperientziaren balorazio orokorra ezin da positiboagoa izan, bai eskainitako zerbitzuaren datuetan eta ondorioz arriskuen jaitsieran arreta jartzen badugu, bai normaltasuna eta oro har jazoerarik ez egotea bezalako elementuak kontuan hartzen baditugu.

Alde horretatik, komenigarria da erakunde arduradunak proiektuaren hasieran zein garapenean zehar auzokoei eta komunikabideei zerbitzuaren berri emateko eta horren partaide bihurtzeko burutu dituen arreta berezia eta ahalegin handia azpimarratzea. Halaber, azpimarragarria da zentroa beste erakunde eta administrazio batzuetarako erreferentzia-puntu bihurtu izana; erakunde horiek esperientzia horren aldeko interesa agertu dute, eta horregatik zentroa bisitatu dute, beste leku batzuetan antzeko ezaugarriak dituen zerbitzua ezartzeko asmoz.

Etorkizunean hobetu beharreko aldeei dagokienez, bi aipa daitezke, gutxienez:

- Agente ezberdinen (erabiltzaileak, profesionalak, auzokoak,...) balorazioa sistematikoki bil dezakeen azterlana edo ikerketa egitea.
- Proiektua finantzatzeko ereduak hobetzea.

Lehenengoari dagokionean, ikerketa proiektu bat dago, azken bisita egiteko unean diru-laguntza urria eta berankorra eskuratu zuena.

Eta bigarrenari dagokionean, Hontza zentroaren kasuan adierazi den bezala, deigarria da administrazioen artean proiektuarekiko konpromiso eta laguntza ezberdinak egotea. Kasu honetan, lehenengo urteko finantzazio-iturrietan arreta jartzen badugu, diru-laguntzak ondokoei dagozkie:

- FEDER Europako fondoak: % 34 (Akitaniako Munduko Medikuek erakundearekiko mugaz haraindiko lankidetzat proiektua).
- Eusko Jaurlaritza: % 34 (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak % 32 eta HIESaren aurkako Planak gainerako % 2a jartzen dituzte).
- Bizkaiko Foru Aldundia: % 19.
- Bilboko Udala: % 5.
- BBK: % 8.

Bistan denez, aurrekontua izateak langileen kontratazioari eta zerbitzuaren beraren ordutegiari eragiten die zuzenean. Gaur egun, aretoa urteko 365 egunetan dago irekita, nahiz eta eguneko ordu jakin batzuetan baino ez ireki.

## 5. Polizi jardueren jarraipena

Kexak –lehenengo puntuan aipatu ditugunak– alde batera utzita, erakunde honek ofiziozko espedienteak bidali zituen Bilboko Udalera zein Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera guneko polizi jardueri jarraitzeko, eta bisita egin zuen Garellanoko polizia-etxeko atxiloketa lekuetara.

Ofiziozko espedientei dagokienez, txosten hau idazteko orduan ez dira oraindik jaso eskatutako informazioak. Garellanoko polizia-etxera egindako bisitari buruz kapitulu honetako beste atal batean hitz egin dugu (ikus txosten honetan bertan 1.1.11. atala).

Beraz, Ertzaintza eta Bilboko Udaltzaingoaren guneko jardueri lotutako zenbait arlori buruz informazioa eskatu dela kontuan hartuta, hemen sei arlo horiek islatu besterik ez dugu egingo.

1. Auzo horretan normalean esku hartzen duen **polizi taldearen** ezaugarriak: unitateak eta agenteen kopurua; berariazko helburuak eta toki jakin batera joateko eta jarduteko irizpideak, halakorik bada; polizi kidegoen arteko koordinazio-bideak; aurreko urteen aldean taldean egin diren aldaketak...
2. Udalak eta sail horrek nola baloratzen dituzten honako hauek: auzo horretako segurtasuna; azken bi urteotan egoerak izan duen bilakaera; auzo horretan konprometitutako gizarte eragileekiko lankidetzak; poliziaren esku-hartzeen eraginkortasuna.  
Azken alderdi hori dela-eta, aipaturiko txostenaren hirugarren gomendioaren arabera, jakin nahi dugu zein adierazle ezarri diren poliziaren jardueraren baliozkotasuna eta eraginkortasuna neurtzeko.
3. Auzo horretan bi polizia kidego horietako agenteek 2003an eta 2004an egindako atxiloketei buruzko datuak:
  - Zenbat atxiloketa eta horietatik zenbat atzerritarrenak.
  - Atxiloketen batez besteko iraupenaren azterketa (atzerritarrak eta atzerritar ez direnak bereiziz).
  - Zenbat gorpuzt miaketa egin diren atxilotua biluzaraziz eta miaketa horiek nola jaso diren agirietan.
  - Gure zortzigarren gomendioaren e) puntuko proposamenak betez egin diren jarraipen-lanetan lortutako datuak: auzibidean zenbat atxiloketa jo zituzten hasieratik hutsegite edo faltatzat, eta ez delitutzat; atxiloketa guztietatik zenbatetan ipini zen zigorra; zenbat atxiloketa gertatu ziren agenteei aurre egiteagatik, ez obeditzeagatik, erasotzeagatik edo antzeko lege-urratzeengatik, eta ea agente jakin batzuk horrelako askotan nahasturik dauden.
4. Poliziak kalean duen jokaera.  
Jaso diren kexetako eta bere garaian egin ziren gomendioetako askotan ez dira aipatzen polizia-etxeko atxiloketa-baldintzak, baizik eta kalean burututako jarduerak, gero atxiloketa burutu ala ez. Horrexegatik eskaini behar zaie arreta berezia prebentzio eta kontrol baliabideei. Horrela, informazio hau eskatu dugu:
  - Zenbat identifikazio egin diren auzo horretan azken bi urteotan, eta zergatik.

- Zenbat kasutan erabili zen indarra eta nola jasotzen diren idatziz indarra erabiltzearen arrazoiak, modu zehatzak eta ondorioak.
- Zein prebentzio-neurri hartu diren pertsonen eskubideak hausten dituzten polizi egintzak eragozteko. Gure zortzigarren gomendioan aipatu genituen halako egintzak: jokaera diskriminatzaileak, tratu desagokia, borraz zintzurretik heldzea, atarietan norberaren gauzak arakatzea, e.a.)
- Ea horrelako egintzen berri jakin duzuen, zer neurri hartu diren horiek ikertu eta argitzeko eta zenbat kasutan.
- Ea horrelako egintzengatik espedienterik zabaldu den, zenbat kasutan eta zein ondorio edo zigor izan dituzten.

#### 5. Komunikabideen tratamendua.

Aurretik adierazi denez, txostenaren gomendioetako batek kontu hori aipatzen zuen berariaz.

Informazioa eskatu dugu, beren iturriek zenbait aurreiritzi indartu besterik egiten ez duten konnotaziodun datuak ematea saihesteko polizi arduradunek ezarri dituzten edo ezarriko dituzten irizpide edo neurrien gainean, gunean esku hartzeko berariazko irizpideak zein oro har aplikatu beharreko irizpideak diren kontuan hartu gabe (gai horren gainean berariazko ofiziozko espedienteak bideratu dira Bilboko Udalaren nahiz Herrizaingo Sailaren aurrean).

#### 6. Laguntzarik gabeko adingabe atzerritarren berariazko problematika, adingabeen sektoreari buruzko txosten monografikoan poliziaren ekarpenak sartzeko asmoz.

Oraindik datuak jaso ez baditugu ere, Garellanoko polizia-etxera egindako bisitak eta poliziako arduradunetako batzuekin izandako harremanak eskatutako datuetako batzuk eskuratzeko dauden zailtasunak agertu zituzten.

### 1.1.8. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERAREN JARRAIPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen ezohiko txostena 1999ko abenduaren 22an atera zen jendaurrera eta eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko buruari. Gerora, 2000ko otsailean, Gizarte Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zen. Bestalde, 1999ko urteko txostenean egindako azterlanaren laburpena jaso zen, eskubideen ikuspegi bermatzailetik, gure erakundearen iritziz kezkarrienak ziren zazpi alderditan zentratuz.

2000. urtean lan bilerak izan genituen txosteneko edukien gainean oinarrizko unitateetako profesionalekin eta udaletako eta foru aldundietako zerbitzu hauen ardura-dunekin, lurralde historiko bakoitzean. Alorreko profesionalen partaidetza handiari (300 bat pertsona lau bileretan), eta Gizarte Ongizateko foru diputatuena laguntza aktiboari esker, txostenaren edukiak eta gomendioak zerbitzuaren artapenez arduratzen diren pertsonengana zabaltzea eta, ondorioz, praktikan zerbitzua hobetzeko aukerak gehitu ahal izan ziren. Beraien arazo eta eskari batzuk zuzenean ezagutu ahal izan genituen, hala nola, gaingiduta zeudelako sentipena, gizarte lana egiteko zailtasuna landa eremu edo toki sakabanatuetan; lurralde eta udalerrien arabera ordainsari eta estatus profesionalen alde garrantzitsuak; behin behinekotasun egoeren proportzio handia; mugak gizarteratze itunak burutzeko; arazoak beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko, zalan-tzak laguntza edo programa jakin batzuetarako kudeaketa formularik komenigarrienen inguruan (udalarena edo zentralizatua)...

Oinarrizko gizarte zerbitzuek iritsitako garapen mailaren gogoea estrategikoa egin beharra zegoelako iritzia oso zabaldua zegoela antzeman zen, txostenean ere jasotako beharra, baita gizarte ongizateko politiken funtsezko elementu gisa etorkizunean zer izan behar duten gaiari buruz ere.

Orduan Gizarte Ongizateko hiru foru diputatuekin izandako bilerei esker arazo batzuk denon artean aztertze, hobetzeko aurreikuspenak eta aurrekontuzko zein eskumenezko muga nagusi batzuk ere ezagutzeko aukera eduki genuen.

Azkeneko horiek direla-eta, 2001eko otsailean erakundeen arteko ituna sinatu zen, gizarte programa eta zerbitzu desberdinei zegozkien erantzukizun eta eskumenak argitzea bilatzen zuena, hain zuzen –besteak beste, oinarrizko gizarte zerbitzuenak– erkidego mailako, lurralde mailako zein udal mailako erakundeen aldetik.

Bai itun orokorrak bai Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan sinatu ziren lurralde akordioek ere, EUDEL, hiru lurralde historikoetako foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak biltzen zituen Erakundeen Arteko Mahaiak gizarte zerbitzuen 5/1996 Legea garatzeko 2000ko azaroaren 9ko proposamena zehaztea zekarten. Proposamenak hainbat oinarrizko hatsarre ezartzen ditu: zerbitzu edo programa bakoitza administrazio bakarraren ardura izango da; foru aldundiek eta udalek elkarri eskumenak eskuordetzeko aukera daukate, zerbitzuen prestazio eragingarriagora lortzeko; beren kabuz moldatzen diren pertsonen artapena udalei dagokie, eta besteren mende daudenena foru aldundiari...

Oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, Gipuzkoako Lurralderako 2001eko otsailaren 9ko Akordio-Markoak aitortzen du dagoen egitura ez dela nahikoa; bertan dio *“herritarren informazioa, balorazioa eta orientazioa, beren eskubideei eta dauden gizarte baliabideei dagokienez, udal eskumeneoak izango direla”*, eta *“gizarte*

*zerbitzuen sistema osorako sarrerako ate gisa*” definitzen ditu, eta “Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen mapa” egiteko konpromisoa jasotzen du, “*zerbitzuen prestazioari exijitzeko maila ezarriko duena, beren beregi lurralde, eskualde, azpi-eskualde eta udal mailako oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez*”.

Bizkaiko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruz, lurralde horretarako 2000ko abenduaren 29ko akordioak hauxe dio: “*Zerbitzu hauen mantentzea, langileen kostea sartuta beti, udalen eskumena izango da*”. Eta beste hau gehitzen du: “*Foru Aldundiak prestakuntza, aplikazio, gurutzaketa informatikoetan laguntzearen eta aplikazio esparrua Bizkaia deneko gizarte programak ezartzeko koordinaketaren kalterik gabe izango da*”.

Aurreko gure txostenean agerrarazi genuen bezala, lortutako akordioek adierazitako arazoak konpontzeko eta Arartekoaren hainbat txosten monografikotan egindako gomendioak aplikatzeko borondate garbia erakusten zuten, oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko berariazko atalean barik beste batzuetan ere. Gure erakundearen ustez, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzeko eginkizunak argitzeko bidean urrats garrantzitsua ere baziren, eta ondorengo jarraipenentarako erreferentziazko bitartekoa ziren.

Akordio horiek oinarriztat hartuta, Arartekoak ofizioz, Gizarte Ongizateko foru diputatuetako bakoitzarengana eta EUDELeko buruarengana jo zuen, informazio eske. Eskatutako informazioa funtsean, ondokoei buruzkoa zen:

1. Lurralde edo eskumen esparru bakoitzean gure 1999ko txostenean egindako 21 gomendioetako edozeinetan egindako aurrerapenak.
2. Lau erakundeetako bakoitzak akordio horiek aplikatzeko orduan aurkitutako oztopoen edo akordio horietatik sortutako hobekuntzen gainean egiten duen balorazioa.
3. Zenbait konpromiso zehatzetan, hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Akordio Markoan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Mapa taxutzen egindako aurrerapausoak.

Jasotako erantzunak aztertu, laburtu eta 2002. urteko txostenean sartu ahal izan ziren (ikus txosten horretako 1.1.8. atala).

Ikusten denez, erantzunen zehaztasun-maila aldatu egiten zen administrazio batetik bestera. Edonola, horiei esker, hobeto ezagut zitezkeen oinarrizko gizarte zerbitzuak hobetzerakoan eta gomendioak betetzerakoan izandako aurrerapenak eta eragozpenak; halaber, erantzunek lurraldeen artean alde nabarmenak daudela ere erakusten zuten...

Erabilitako jarraipen-bideak bere mugak agerian utzi zituen. Gure 2002ko txostenean zera ondorioztatu genuen: “oinarrizko gizarte zerbitzuen sakabanaketak eta beren udal eraketak oso egoera desberdinak izatea dakar, eta profesionalen jarduerari eta herritarrei izatez ematen zaien zerbitzuari lotuago dauden gaien gaineko jarraipena egitea oztopatzen dute”.

Muga horiek kontuan hartuta, aurtengo segimendurako interesgarritzat jo dugu bi bide erabiltzea, guztiz desberdinak eta, neurri batean behintzat, elkarren osagarriak. Alde batetik, administrazio arduradunek eurek edo partaidetzarako zenbait organok onetsi edo erabilitako txosten, ekimen edo agirietako batzuk berrikusi ditugu. Bestetik, oinarrizko unitateren bat bisitatu dugu, bertatik bertara ezagutu nahirik unitateok izaten dituzten arazoak edo gizarte langileek euren esperientzian oinarrituta egiten dituzten proposamenak.



Hona hemen, labur azaldurik, esanguratsuak iruditzen zaizkigun informazio batzuk.

a) *Administrazioetan prestatu edo landu diren agiri edo proposamenak direla eta*

2004. urtean interes handiko agiriak argitaratu, onetsi edo eztabaidatu dira, gure txosteneko proposamenekin zerikusia dutenak. Adibidez, honako hauek:

- Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharren Gutuna onetsi da eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako gizarte zerbitzuen Mapa egin du.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak “EAEko gizarte laguntzei buruzko balorazioak” izenburuko agiria aurkeztu du.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak Plan Estrategikoa egin du.
- Hainbat txosten eta agiri prestatu dira Gizarte Ongizateko Kontseiluan eztabaidatzeko.

Agiri horiek banaka aztertzeak askotariko gogoetak eragingo lizkiguke, kapitulu honen helburutik harantzagoak. Beharrezkoa iruditzen zaigu, ostera, gure jarraipen lanerako garrantzia duten hiru ohar edo jarduketa-lerro nabarmentzea:

- Bermeei begira, eta gure 8. gomendioan proposatutakoaren ildotik, guztiz interesgarria da zerbitzuen erabiltzaile guztien eskubideak eta betebeharrak argi eta garbi adieraztea, onetsitako araudian egin den bezala.
- Arestian aipatutako agirietariko batzuetan, gainera, zerbitzuak epe ertainean planifikatzeko asmo sendoa ageri da (gure 7. gomendioan proposatu bezala), konpromiso publikoaren erakusgarri; horrek, gainera, jarraipena hobeto egiteko bidea emango du.
- Gizarte Ongizateko Kontseiluan eztabaidatu daitezten prestatu diren agirietariko batzuk berez dira gizarte zerbitzuen egoerari buruzko azterlan eguneratuak, arazo eta proposamen zehatzak biltzen dituztenak. Bai arazoei bai proposamenei antz handia ikusi diegu gure txostenean azpimarratutako gaiekin; hortaz, uste dugu ekinean jarraitu beharko dela, gomendioetako batzuen ildoan, behinik behin.

b) *Bilboko Irala auzoko oinarrizko gizarte zentrorra egindako bisita*

Ezohiko txosten honen jarraipen lanetan oinarrizko zerbitzuren bat bisitatu nahi izan dugu eta bertan ari diren langileei euren iritzia eskatu lana egiteko baldintzei buruz. Hala bada, Bilboko Irala auzoko oinarrizko gizarte zentroa hautatu dugu.

Ikusi dugu lokala txikiegia dela zentroaren jardunerako, eta mugikortasun arazoak dituzten pertsona guztientzat oztopo arkitektoniko handiak dituela. Kanpoko ateen ez dute irekitzeko sistema mekanikorik, behar luketen bezala, eta gainera badute maila txiki bat. Behin barruan, jendeari jaramon egiten zaion bulegoetako ateen eta pasabideak estu-estuak dira, mugitzeko arazoak dituztenek nekez igarotzeko modukoak. Uste dugu oinarrizko gizarte zerbitzuetan pertsona guztiek izan behar dutela sarbidea, bakoitzaren mugikortasun egoera gorabehera.

Lekuaren urritasuna alde guztietan nabari da: bulegoak txikiak dira eta, bereziki, gutxiegi dira. Gaur egun hiru bulego baino ez daude, bat plantillako gizarte langile bakoitzeko. Ondorioz, orain gertatzen ari den moduan aldi baterako langile laguntzaileak hartzen direnean, ez dago behar adina bulego erabiltzaileei jaramon egiten zaienean haien duintasuna eta intimitatea bermatzeko. Gainera, lekurik ez dagoenez, plantilla ezin da handitu.

Bistan da –eta denok dakigu– azken urteotan gizarte zerbitzuen laguntzaren eskaria asko hazi dela eta beharrian berriak sortu direla, eskatzaileek sarritan ezaugarri berriak dituztelako. Aldatzen ari den egoera horren aurrean gizarte zerbitzuak ere egokitu egiten dira eta estaldura zabalagoa eskaintzen ahalegintzen dira.

Hala ere, zentro horietako laguntza-eskari handiari ez zaio neurri bereko plantilla-hazkunderekin erantzun, dela aurrekontu arrazoiengatik, dela langileak kontratatze askotariko arazo administratiboengatik. Horren ondorioz zentroetako langileak lanez gainezka daude eta gizarte langileen ratioak oso urrun daude erakunde honen txostenean gomendatutako mailatik: gizarte langile bat 5.000 biztanleko.

Horiek horrela, gogorazi behar dugu oinarrizko gizarte zerbitzuak gure Autonomia Erkidegoko gizarte laguntzaren sisteman sartzeko lehenengo maila direla. Horregatik dira hain garrantzitsuak, eta azkarrak izan behar dute bai euren jarduketetan, bai erabiltzaileei baliabide espezializatuagoak erabili ahal izateko bidea ematean.

Uste dugu oinarrizko gizarte zerbitzu gehienek dutela arazo hori. Guk bisitatu dugun zentroan ere ratioa behar baino askoz handiagoa da. Gizarte langileek denbora luzea ematen dute gizarte baliabideak kudeatzeko lanetan, beti on-onak ez diren baldintzetan, eta denbora falta dela-eta benetako lan sozial eta komunitarioa egiteko zailtasunak dituztela adierazi digute.

Zentrorra lehenengoz jotzen dutenei hitzordua ematerakoan ezartzen zaien epe luzea ere egoera horren adierazgarri da. Uste dugu itxaroteko epe laburra ezarri behar zaiela, hitzordua gizarte jarduketaren lehen urratsa delako.

Antolamenduaren aldetik, badira udalerriko zentroen arteko koordinaziorako mekanismoak, baina horiek hobetzeko asmoa dago.

Laster sortzekoa da Bilboko Udaleko Gizarte Ongizatearen Kontseilua eta uste dugu berak heldu ahal izango diegula zentro honetan eta antzeko beste zentro batzuetan dituzten arazo ugariei.

Gure erakundeak Bilboko Udalari jakinarazi dizkio bisitan ikusitakoak. Hain zuzen ere, bidali zaion idazkian Udalari adierazi zaio komeni dela Iralako oinarrizko gizarte zentroaren lokala hobetzea, hau da, azalera handitzea eta oztopoak kentzea pertsona guztiak bertan eroso ibil daitezen. Era berean, zentroa behar adina langilez hornitze-ko arazoak konpontzen saiatzeko eskatu zaio. Hori guztia, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzearen eta gizarte zerbitzuen sistemaren beharra dutenek sarbide hobea izan dezaten sistema hori erabiltzeko.

### 1.1.9. EAEn BURU-GAIXOEI EMATEN ZAIEN GIZARTE-ARRETAREN GAINKO JARRAIPENA

2000ko ekainaren 19an Arartekoak buruko gaitzaren ospitaletik kanpoko trataerari buruz egindako ezohiko txostena aurkeztu eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari entregatu zion, eta urte bereko urriaren 26an Giza Eskubide eta Herritarren Eskabideetarako Batzordean eztabaidatu zen. Azaroaren 16an Osasun sailburuak, berak hala eskaturik, agerraldi bat izan zuen Legebiltzarreko Osasun Batzordean.

Txostenean 18 gomendio luzatzen zaizkie hainbat administraziori eta Osasun Salari. Izan ere, buru-gaixo kronikoen beharrak eta alorreko erantzukizunak zehazterakoan zailtasunak izan genituen, hein batean, asko direlako arlo horretan ardura duten administrazioak eta zerbitzuak. Gauza bera gertatzen zaigu izandako aurrerapenak baloratzean.

2001ean, gomendioen betetze-maila neurtzeko bi bide erabili genituen, biak elkarren osagarriak: batetik, informazioa elkartrukatu zen FEDEAFESen bildutako buru-gaixoen senideen elkarteekin, eta bestetik, datuak eskatu zitzaizkion Osasun sailbururi. Sailari eskatutako informazioa nahiko zabala zen, datu orokorrez gain informazio zehatzagoa eskatu baikenuen, bilera batean buru-gaixoen senideekin elkarteek azaldu zizkiguten kezka nagusien haritik. Zehazki, Osasun arloko arduradunen iritzia jaso nahi genuen elkarteek planteatutako lau arazo nagusiren gainean:

- Psikosi errefraktarioko unitatean zeuden murriztapenak.
- Lurraldean artean irizpide desberdinak erabiltzen ziren gogoz kontrako ospitaleratzeetan.
- Arazoak kasuen jarraipenean eta profesionalen koordinazioan.
- Gehiegizko lan-zama buru-osasuneko zentroetan; horren ondorioak.

Erantzun moduan, Osasun Sailetik Osakidetzako Laguntza Psikiatriko eta Buru-Osasuneko arduradunak egindako dokumentu bat bidali zigun, eta harekin batera, balorazio bat, Arabako Ospitale Psikiatrikoaren Psikosi Errefraktarioko Unitatearen lehen urteko funtzionamendua aztertzen zuena. Dokumentuaren lehen atalean txostenaren 18 gomendioetako bosti lotutako alderdiak atertzen ziren, eta bigarreanean gorago azaldu ditugun lau gaiak. Hona hemen erantzundako bost gomendioak:

- Bitarteko baliabideak indartzea (txosteneko 5. gomendioa).
- Adingabeentzako berariazko zerbitzuak handitzea (6.a).
- Birgaitze zerbitzuen erabilera bermatzea (10.a).
- Zerbitzuen kalitatea kontrolatzea eta ebaluatzea (12.a).
- Tutoretza fundazioen sorkuntza bultzatzea (15.a).

Esan bezala, erantzunak bost gomendio horiek izan zituen ardatz. Hutsuneak onartzen zituen gomendio bakoitzaren inguruan, informazioa eskaintzen zuen zenbait zerbitzu berriri buruz edo hartutako erabakiei buruz, edo egingo ziren hobekuntza lanak azaltzen ituen, gutxi-asko zehaztuak. Laburbilduta, erantzuna urteko txostenean jaso zen (ikus 2001eko Txostena, 1.1.9 atala).

2002ko jarraipenak adierazi diren bi gai aukeratu zituen lan-ildo nagusitzat:

- Tutoretza fundazioen egoera.
- Gogoz kontrako ospitaleratzeak dakarren judizializazio anbulatorioa.

Urteko txosteneko laburpenean egoeraren berri zehatza eman zen, batez ere lurraldeetako tutoretza fundazioen egoerari erreparatuta (ikus 2002ko Txostenaren 1.1.9. atala).

Aurretik hasitako jardueretariko batzuk aurrera eraman ziren 2003. urtean, eta jarduketa berri batzuk hasi ziren. Hona hemen:

- FEDEAFESen bildutako elkarteekin harremanetan jarraitu zen; haien kezkak jaso ziren eta ofizioz zenbait jarduketa hasi ziren.
- Judizializazio anbulatorioaren gaia aztertzeko erakundearteko foroetan parte hartzen jarraitu zen.
- Gai horiei heldu zitzairen eta proposamenak egin ziren Arartekoaren Koordinatzaileentzako Jardunaldietan.
- Berriz ekin zitzaion haurrentzako laguntza psikiatrikoaren gaiari: bisita egin zen Olako (Sondika) eguneko hezkuntza- eta terapia-zentrori.

Aipatu diren lau jarduketa-ildo horiei buruzko laburpenak jaso ziren iazko txostenean (ikus 2003ko Txostena, 1.1.9. atala).

Azken urte honetan, zenbait kexa tramitatzeari gainera, beste bilera bat egin dugu, egoera berrikusi eta eguneratzeko asmotan, Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Elkartearen Euskadiko Federazioarekin, eta Hezkuntza Sailari informazioa eskatu diogu terapia- eta hezkuntza-unitateak abian jartzeari buruz. Hona hemen bi jarduketa horien azalpen laburrak:

### **1. Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Elkartearen Euskadiko Federazioak (FEDEAFES) azaldutako arazo nagusiak**

Aurreko urteko bileran (ikus 2003ko Txostena, 1.1.9. atala), federazioaren eta senide-elkartearen ordezkariak funtsean 8 arazo hauek aurkeztu zituzten:

- Buru-gaixo batzuek etxebizitza babestuak behar dituzte, terapia aurrera eraman ahal izateko euren famili inguruetik kanpo bizi beharra dutelako.
- Egoitza txikiak ere behar dira, burujabe izateko batere gaitasunik ez dutenei etengabeko laguntza emango dietenak.
- Audiooko Buru Osasuneko Zentroak akats larriak ditu. (Arazo hori zela eta, Arartekoak ofizioz espedienteak hastea erabaki zuen, Osasun Sailari zuzendua. Hasierako proiektuaren arazo teknikoaren ondorioz eraikuntza atzeratu egin da eta gerora Osakidetza ez digu inolako daturik jakinarazi beste hautabide batzuei buruz.)
- Gaixotasun kroniko larria dutenentzako zainketa jarraipena koordinatu behar da, gaixo bakoitzak erreferentziako pertsona izango duela ziurtatuz, etenik gabeko tratamendua bermatzeko.
- "Lagundutako lana" lehenetsi behar da beste modalitate batzuen aldean, *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* izenburuko txosten berezian jaso genituen proposamen eta gomendioei jarraituz.

- Elkarateak arazoak izaten ditu bere programak eta jarduerak kudeatzeko, diru-laguntzak berandu ematen direlako eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekintza Sailak laguntzak murriztu dituelako.
- Datuen isilpekotasunaren eta familientzako informazioaren inguruko arazoak.
- Zuzeneko zaintzaileen beharrianak.

Zortzi arazo horien haritik beste batzuk azaldu ziren, txostenean dauden gomendio edo edukiekin zuzeneko lotura dutenak. Hona:

- Arabako eta Bizkaiko gizarte eta osasun arloetako Mahaien jardueren geldialdiek gizarte eta osasun eremua argitzea eragozten dute.
- Araban, gaixo akutuentzako eguneko zentroa gainezka dago.
- Ertzaintzari jarraibideak edo jarduteko protokoloak eman behar zaizkio.
- Nahitaezko tratamendu anbulatorioen arazoa.

Arazo, beharrian edo gai horietariko asko berriro jarri ziren mahai gainean azken bileran; bertan berriz azpimarratu ziren arazo horietariko batzuk, eta bereziki kezka-garritzat jotzen ziren beste batzuk azaldu ziren.

Arazo nagusien artetik honakoak aipa ditzakegu:

- Buru-gaixotasuna dutenei laguntza, lana edo egoitza bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu eta baliabideak urriak dira eta lurraldeen artean alde handiak daude arlo horretan (eguneko zentroak, lan zentroak, enplegu zentro bereziak, lagundutako lana, etxebizitza babestua, egoitzak, erdibideko etxeak, familiei atsedean emateko etxeak, laguntza psikologikoa...).
- Buru-gaixotasuna dutenei espetxean tratamendua eman eta haien jarraipena egiteko giza baliabideen mugak, sendagaien kontrola eta jarraipena, laguntza psikologikoa...
- Batzuetan komunikabideek ematen dieten tratamendua.
- Familien eta elkarteen egitekoa: familientzako informazioaren eta prestakuntzaren garrantzia (autolaguntzarako taldeak, aholkularitza juridikoa, familien eskola); erakundeek Federazioa kontuan har dezaten kolektiboari eragiten dioten legetan edozein aldaketa egiterakoan; familiei (zaintzaile nagusiei) laguntzea krisialdian...
- Egoera argitu beharra dago Osakidetzaren Plan Estrategikoari dagokionez; izan ere, bertan buru-gaixoentzako laguntza gizarte eta osasun arloetako laguntza gisa aurkezten da.
- Nahitaezko tratamendu anbulatorioaren erregularizazioan aurrera egitearen garrantzia.
- Buru-osasunerako baliabideen eta elkarrekin eurek kudeatzen dituzten baliabideen arteko koordinazioa.
- Berriak edo bereziki zailak diren egoeren agerpena edo hedapena: gaixorik dauden etorkinak, patologia bikoitza, mugako nortasun-nahastea, tutoretzen premia gero eta larriagoa eta tutoretza fundazioen mugak...
- Zenbait lokal eta zerbitzuren egoera txarra (Laudioko Buru Osasuneko Zentroa eta ASAFESek Gasteizen duen lokala).
- Murrizketak, ebazpenen atzerapenak eta diru-laguntzen malgutasun falta...

Gizartearen sentsibilizazioaz eta buru-gaixotasuna dutenek oraindik ere jasaten duten arbuioaren kontrako borrokaz aritzean, Federazioak laster kanpaina egiteko asmoa jakinarazi zigun eta Arartekoak kanpaina horretan laguntzeko aukera aztertu genuen.

Goian aipatutako gaietariko lehenengoari dagokionez, gizarte eta osasun arloetako laguntza behar duten kolektibo batzuek ikusten dute laguntzen ari zaizkien elkarteek finantzaketa arazoak dituztela, iraupena ere kolokan jartzearinokoak (elkarte horien lan-eremua hauxe dela esan genezake: gizartetik baztertzeko arriskua duten pertsonen laguntza ematea buru-osasuneko zentroetan). Elkarteek eurek emandako datuak azterturik, pentsa liteke osasun arloaren gidaritzapean garatu behar dela haien jarduera, gizarte zerbitzu eskudunekin koordinaturik, gizarte eta osasun arloetako akordio baten esparruan; kasu honetan, akordio horren xedea egoitza edo bizilekuetarako dauden baliabideak sustatzea litzateke. Ikuspegi horretatik, Arartekoaren erakundeak arazo hau aurkeztu dio Gizarte eta Osasun Laguntzarako Euskal Kontseiluari.

## 2. Haur eta nerabeen buru-osasuna

Haur eta nerabeen buru-osasuna zehatz aztertu zen buru-osasunerako artapen komunitarioari buruz osatu genuen ezohiko txostenean (4.6, 4.7 edo 3.4 atalak). Besteak beste, honako beharrak azpimarratu ziren:

- Haurrentzako psikiatria zerbitzuen deszentralizazioa.
- Profesional espezializatuen kopurua handitzea: haur-psikiatrak eta psikologoak.
- Lurralde bakoitzaren eta bertako eskualdeen bitarteko egiturak eratu beharra.
- Gizarte, hezkuntza eta osasun arloetako batzordeak bultzatzea.
- Elikadura arazoetarako programak berraztertzea...

Han egindako gomendioetako batzuek zerikusia zuten biztanle-tarte honekin. Adibidez, 6. gomendioan ondoko hau proposatzen zen:

*“Adingabeei zuzendutako zerbitzuak handiagotzea.  
Txosten honetako datuetan nabarmen ageri da adingabeentzako artapen maila murriztegia dela. Horren erakusgarri:*

- *Haur eta nerabeentzako psikiatria baliabideak oso gutxi dira, eta bitarteko egituretan egon ere ez dago horrelakorik;*
- *artapen goiztiarreko programak, eguneko zentroak, zereginetako programak, etab. behar dira autismo kasuetarako;*
- *gero eta maizago azaleratzen diren arazo “berriek” (elikadura arlokoak: anorexia eta bulimia) ez dute behar bezalako erantzunik jasotzen...*

*Premiazkoa da, beraz, adin tarte honetakoek behar diren artapena eta baliabideak edukitzea.”*

Osasun sailburuak berak aztertu zituen galdekizun eta proposamen horiek, baina harrezkero behin eta berriz iritsi dira erakunde honetara, elkarteek zein babes-sistemetako arduradunek planteaturik, eta babes eta erreforma-zentroetara aldizka egiten ditugun bisitaldietan ere horrelakoak azaleratu dira.

Bestalde, aipatutako txosten hori plazaratu eta hilabete gutxira beste baliabide bat hasi zen jardunean Bizkaiko Lurralde Historikoan (Sondikan): La Ola eguneko hezkuntza eta terapia zentroa.

Arartekoak eta gure erakundeko langile batzuek 2004ko otsailean bisita egin zuten zentrora, bertatik bertara ikusteko nola funtzionatzen zuen. Iazko txostenean horren berri eman genuen eta zenbait datu esanguratsu jaso genituen (ikus 2003ko Txostena, 1.1.9. atala).

Besteak beste, jakin nahi genuen ea zentroko plazak (10) nahikoa ote ziren beharizanak asetzeko. Horretarako, askotariko inguruabarrak hartu behar ziren kontuan:

- Bizkaiko lurraldean ez dago hau bezalako beste zentrorik.
- Hasierako proiektuan aukera ematen zen gela gehiago jartzeko esperientziaren arabera, gehienez lau izan arte.
- Normalean itxaron egin behar da zentroan sartzeko (bisita egin zenean 6 adingabe zeuden itxaron-zerrendan, zentroan sartzeko baldintza guztiak betetzen zituztenak).
- Baliabide hau ez da behar bezain ezaguna; baliteke azaldu ere egin ez diren beharizanak eta eskariak izatea.
- Adin-tarte jakin batekoek (nerabeek) ez dute zentroan sarbiderik...

Zentroko profesionalen iritziak entzun ondoren eta bildutako datu eta balorazioen arabera, erakunde honek ondorioztatu zuen honelako baliabide gehiago behar zirela, eta hainbat aukera bururatu zitzaizkigun (plazak gehitzea, baliabide berriak sortzea...). Gainera, ondorioztatu genuen zentroak arau-esparru argiagoa behar zuela, eskubideak hobeto bermatuko zituen, eskubideei zuzenean eragiten dieten alderdietan behinik behin: sartzeko irizpideak, itxaron-zerrendaren kudeaketa, barne erregimeneko araudia, txostenak isilpean edukitzeko bermeak...

Beste alde batetik, erakunde honek bazekien “*Nerabeentzako eguneko terapia-eta hezkuntza-zentroa abian jartzeko proiektua*”ren berri. Gipuzkoako proiektua da hori, Haur eta Nerabeentzako Gizarte eta Osasun Arloko Azpibatzaileak egina, Osakidetza, Hezkuntza Sailaren eta Gizarte Ekintza lankidetzaz. Baditu antzekotasunak, baita aldeak ere, Olako zentroarekin, baina, beti ere, inork zalantzan jartzen ez dituen beharizanei erantzuna ematen saiatzen da.

Proiektu horri buruz bageneukan Hezkuntza Sailak 2003ko martxoan emandako lehen erantzuna: “*Beste hitzarmen bat sinatzekotan dauka, OSAKIDETZAren, Araban antzeko zerbitzu bat antolatzeko; OSAKIDETZA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREkin batera ere proiektu bat prestatzen eta zehazten ari da, arazo disozialak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko*”.

Ia urtebete geroago, 2004ko urtarrilean, gai horren gaineko informazio gehiago emateko egin genion eskaerari erantzunez Hezkuntza Sailak honakoa adierazi zuen: “*Osakidetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Hitzarmenak, buru-gaixotasuna duten ikasleen arazoei erantzutekoak, lehengo egoera berean daude gutxi gorabehera, eta ardura handia dira Sail honentzat.*”

Azken urte honetan, hezkuntza-behar bereziei buruzko txostenaren jarraipenaren ildoan, Arartekoak informazio eguneratua eskatu dio berrero ere Hezkuntza Sailari. Zehazki, galdera hauek egin dizkio:

- Ea Olako baliabidean aldaketa nabarmenik egin den edo egiteko asmorik dagoen.
- Zein fasetan dauden Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetan baliabide berriak sortzeko proiektuak, eta zeintzuk izan daitezkeen proiektuok abian jartzeko atzerapenaren arrazoiak.

Hezkuntza Sailak 2005eko otsailaren 2an emandako erantzunean jakinarazi du Olako jarraipen batzordeak unitatearen plaza kopurua gehitzea proposatu duela; aukera hori “aztertzen” ari dela, “esperientzian parte hartzen duten hiru erakundeen konpromisoa behar delako, eta ez bakarrik Hezkuntza Sailarena”; eta kontuan hartu behar dela “honetako unitate batek neurri kritiko jakinak” dituela eta ez dela komeni “unitatea neurri horien gainetik handitzea”.

Antzeko unitate gehiago sortzeko aukerari buruz, irizpide hau gogorarazi digu: “sare arruntetik kanpo ez dira gehiegi sustatu behar berariazko ekipamenduak, hala hezkuntzaren arlokoak nola haur eta nerabeen buru-osasunaren arlokoak”. Adierazi du, gainera, ospitaleetan nerabeentzako unitateak sortu nahi direla eta dekretu baten zirriborroa prestatzen ari dela, unitate guztiei egonkortasun administratiboa eta jarduteko esparru egokia emateko asmoarekin.



### 1.1.10. **EAEko HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEI EMANDAKO ERANTZUNARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA**

Erakunde honek egindako *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* izeneko txostena argitaratu eta Legebiltzarreko presidenteari eman zitzaion 2001eko ekainaren 22an, eta urte horretako abenduaren 12an Legebiltzarrean eztabaidatu zuten.

Urte hartako ohiko txostenean laburpen bat egin zen, 10 gai kezkarrienak eta egindako 21 gomendioak berriro adieraziz. Eta Hezkuntza-administrazioari bidali genizkion 21 aholkuen artetik, aurrenekoak azpimarratu genituen, duten garrantziagatik eta gure hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrean eta sistemaren lehentasunetan eragina dutelako: bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna ematea eta, hortaz, kontuan hartzea lehentasun hori Haur Hezkuntzako zero eta hiru urte bitarteko tartea arautzen denean; baliabideak esleitzerako orduan diskriminazio positiboa egitea bazterturiko ikaslerik gehien duten ikastetxeen alde; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea...

Geroago, 2002ko ekainean, Hezkuntza sailburuarekin eta sail horretako arduradun nagusiekin bildu ginen; bileran, beste batzuen artean, txostenarekin lotutako gaiak aztertu genituen eta txostenean jasotako aholkuen jarraipena egiteko premia adierazi.

Bilera horretan ahoz aurreratutakoaren arabera, erakunde honek Hezkuntza sailburuari ofizios eskatu zion informazio orokorra. Informazio hori berriro ere eskatu zitzaion 2003ko urtarrilaren 22an eta, azkenean, behin urte horretako txostena amaitu eta gero, jaso zen.

2003ko martxoan jasotako informazioa –ondoko izenburua zuen agiri batean: *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Arartekoaren 2001eko ekaineko 'EAEn hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna' txostenari dagokionez garatzen dituen ekintzen egoera*– eta eskatutako gainerako informazioa eta sailaren erantzun berria, modu zabalean laburbildu ziren iazko txostenean (2003ko txostena, 1.1.10. atala).

Ia-ia urtebete igaro eta ikasturte berriarekin batera (2004-2005), Hezkuntza Sailera berriro ere jo genuen datu batzuk gaurkotu eta txosten honetan sartu ahal izateko.

Jarraipena egiteko lehenengo jarduketan txostenaren 21 gomendioen gaineko informazio zehatza eskatuagatik ere, oraingoan horietariko batzuk baino ez genituen aukeratu. Horrela, aurreko erantzunen arabera esanguratsuentzat eta garrantzitsuentzat jo genitzakeen proposamen eta datuetara mugatu ginen; gainera, horietariko batzuk bilakaera adierazle modura erabili genitzakeen.

Gai hauen inguruan batutako informazioa hemen laburbilduko dugu, betiere txostenaren gomendioen hurrenkerari segituz eta erreferentziatzat hartuz, atalik atal (9. atala).

\* \* \*

## 1. HEZKUNTZA-SISTEMAREN ANTOLAKETA OROKORRARI ETA BERE LEHENTASUNEI DAGOZKIEN GOMENDIOAK

### **1. gomendioa: gizarte eta ekonomi maila apaleko ikasleen heziketa goiztiarra lehenetsi beharra.**

Hezkuntza Sailaren lehendabiziko erantzuna haur eskolak 2002tik 2004ra bitartean arautzen zituen 297/2002 Dekretuaren ingurukoa izan zen; hala, dekretu

horren 2. eta 4. artikulua berariaz aipatu ziren, bai eta lehenengo xedapen gehigarria ere, horietan gizarte eta ekonomi maila apaleko ikasleei laguntza emateko lehentasuna jasotzen baitzen.

Hala eta guztiz ere, jarraipena egiteko, ezagutu behar duguna ez da Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean jasotako irizpidea soil-soilik, baizik eta benetako aplikazioa. Eta zehatzago, aipatutako artikulua kontuan harturik:

- Nola islatzen den lehentasun hori 0 urtetik 3 urtera bitarteko mapan: “Lehentasuna izango dute gizarte eta ekonomi maila apalenero aldeek eta, orokorrean, hezkuntzako behar bereziak edo hizkuntzazkoak dituzten ikasleek, Euskal Eskola Publikoaren Legeak 9. artikuluan -2. atalean- ezarritakoaren arabera”. (Dekretuaren lehen xedapen gehigarria). Esan nahi baita, zein izan den irizpide horren aplikazio zehatza; zein izan den sortu berri diren eta jardunean ari diren plaza edo zentroetan izandako isla; nola zabaldu den gizarte eta ekonomi maila apaleko eremuetara...
- Ea benetan erabili den 4. artikuluan jasotako irizpide orekatzailea, unitate bakoitzeko gehieneko ratioa murrizteko.

Horregatik, sail horri informazio osagarria galdatzean, irizpide horren benetako eta oraingo aplikazioari buruzko datuak eskatu genizkion.

Hezkuntza Sailaren erantzunak, 2004ko urtarrilekoak, Haurreskolak partzuergora bidaltzen gintuen, horixe baita etapa hori neurri handi batean kudeatzeko arduraduna, eta partzuergo horrek haurrak onartzeko erabiltzen dituen irizpideetara (“Haurrak onartzeko argibideak”): minusbaliotasuna; harrera egoera; gizarteak esku hartzeko premiak, e.a.

“Baliabideen mapa”ri dagokionez, hauxe baino ez zuen adierazten: “Partzuergoak kudeatutako Eskolaurreko ikastetxeak ezartzeko irizpide batzuk erabiltzen dira, ondorengoak besteak beste: Partzuergoan sartzeko udalerraren borondatea, espazioak izatea, gizarte-egoera ahuleko egoera edo zonaldea, eskaintza publiko eta pribatuaren urritasuna eta gizarte-egoera ahuleko biztanleen indizea. Ikuspuntu horretatik ez dago ‘mapa bat’ zentzu hertsian esanda; aitzitik, adin horretan ematen den hezkuntza- eta laguntza-erantzunean sartzeko dagoen borondateak zehazten du eskaintzaren garapena”.

Ildo horretatik, Hezkuntza Sailaren aurreko erantzunean Haurreskolak izeneko partzuergoa beren beregi aipatzen zenez gero, sortutako plazen banaketari buruzko datuak (zentro eta plazen zerrenda) eskatu dira. Halaber, sailari eskatu diogu lehentasun irizpide horri erantzuten dioten zentro eta plazak zehazteko. Azkenik, beste datu batzuk ere eskatu dira jakiteko zeintzuk diren gizarte nahiz ekonomi maila apaleko ikasle asko dituzten baina laguntzarik edo eskolatzeo aukerarik ez duten udalerrri edo eremuak.

Hezkuntza Sailaren erantzunean, 2005eko otsailekoan, gai honi buruzko hainbat eranskin sartu dira:

- Partzuergo horretan parte hartzen ez duten udalerrien zerrenda eta bertan eskolaturiko ikasleen kopurua.
- Partzuergoa osatzen duten udalerrien zerrenda, lehentasun maila desberdinen arabera sailkatutik.

- Udalerriak udalerririk hainbat datu kuantitatibo jaso (biztanleak, azken urteotako jaiotzak, langabezi tasa...), hainbat puntuazio eman (0tik 2 urtera eta 2tik 3ra bitartean eskolaturiko mailaren arabera, barne produktu gordinaren arabera, langabezi tasaren arabera...) eta bakoitzari lehentasun mota bat ematen dioten datuen taula bat, 1etik 16ra bitarteko eskalarekin.

Hezkuntza Sailaren erantzunean eranskinak, inolako azalpen edo iruzkinik gabe, ematen diren arren, agiritan udalerririk sailkapen bat eskaintzen da irizpide eta lehentasun batzuen arabera; hori guztiori, zalantzarik gabe, erabili daiteke lehentasunen araberrako planifikazio bat egin ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, ez du ematen lehentasun horien eta baliabide maparen arteko korrelaziorik dagoenik. Izan ere, ezarritako irizpideen arabera, lehentasun osoa duten udalerririk aurkitzen ditugu baina 0 urtetik 2 urtera bitartean eskolatzeko batere aukerarik gabe; aldi berean, beste batzuek gutxienezko lehentasuna dute, baina euren eskaintza maila handia da adin tarte horretan. Partzuergoa osatzen duten udalerririk zerrendaren eranskinean lehentasun guztietako udalerririk agertzen dira, betiere lehentasun osokoak albo batera utzita; kategoriatan horretako udalerririk ez dute haurrak partzuergoaren barruan eskolatzeko inolako aukerarik.

Ohar horiek egin ostean eta Hezkuntza Sailak bestelako oharrik egin ez duenez gero, gure ustetan, oso baliagarriak dira iazko txostenean jaso genituen balorazioak eta iritziak: "Eskura dauden datuak ikusirik, ez dirudi, bada, egoera ahulenean dauden ikasleak lehentasunez eskolatzeko lortzen ari denik, erakunde honek gomendatu zuen bezala. Aldiz, eskola plazak horretarako ekimen pribatua edo udalarena dagoen tokietan sortzen dira, eta ekimen hori bat etor liteke ala ez gizarte-egoera ahulenean aldeekin. Erakunde honek zera uste du: interesdun guztientzat eskola-eskaintza ez dagoen bitartean, legeak ezarritako konpentsazio edo diskriminazio positiboaren irizpideak nagusitu behar duela, eta hori lortzeko, ezinbestekoa dela erakundeek esku hartzea eta plangintza burutzea."

Edozein modutan ere, jasotako datuen bitartez eta azalpen gehiago barik, ez da erraza aipaturiko gaiak buruzko ondorioak ateratzea, ez eta beharrezko joerak ezartzea ere.

### **3. Gomendioa: hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko neurriak hartzea, "eskolako ghettoak" saihestu nahian.**

Hezkuntza Sailaren 2003ko martxoko erantzunean ondoko hiru kolektibo hauek bereizten ziren:

- a) Minusbaliotasun bati lotutako hezkuntza-premia berezia duten ikasleak.
- b) Ikasle etorkinak.
- c) Ikasle ijitoak.

Eta bakoitzaren gainean iazko txostenean azaldutako hainbat datu eman zituen, Bilakaera ezagutu eta alderatu ahal izateko, ofizioz bideraturiko espedientearen 2004-2005eko ikasturte berriari buruzko datuak eskatu ziren:

- a) Minusbaliotasun bati lotutako hezkuntza-premia berezia duten ikasleak: lurraldeen arabera eskolatutakoen inguruko datuak, sareak eta etapak.
- b) Ikasle etorkinak: lurraldeen araberako banaketa, sareak eta ereduak.  
(Hezkuntza premia bereziei edo zailtasun bereziko egoerei buruzko atal honetan, txostenaren xedearekin bat etorritik, datu orokorren desglose bat izan nahi genuela aipatu genuen; desglose horren bitartez, atzerriko ikasleak bereizteko hainbat datu aipatuko ziren, besteak beste Europako Batasuneko biztanleak ziren ala ez, ea gure sisteman irakaskuntzarako erabiltzen diren hizkuntzaren bat dakiten ala ez...)
- c) Ikasle ijitoak: datuak gaurkotzea, lurralde eta sareen arabera.

Hemen laburtuko dugu talde bakoitzari buruz jasotako informazioa.

- a) *Minusbaliotasun bati lotutako hezkuntza-premia berezia duten ikasleak*

Sailaren lehen erantzunean, ikasle horiek eskolatzeari buruzko datu orokorra eman zen: % 60 sare publikoan eta % 40 itundutako sarean. Eta sail horren ekintza positiboari (itunaren bidez) eta gizartea sentiberago izateari esker, banaketan oreka handiagoa lortu zela uste zen.

Datu osagarriak eskatu genituenean, 2003-2004ko ikasturteari buruzko datuak eskatu genituen. Honako hauek ziren Hezkuntza Sailak ikasturte horretarako emandako datuak:

	SARE PUBLIKOA	ITUNPEKO SAREA	GUZTIRA
Haur eta Lehen Hezkuntza	3.341	1.985	5.326
DBH	1.706	1.596	3.302
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	216	163	379
	<b>5.263</b>	<b>3.744</b>	<b>9.007</b>

Datu horien arabera, % 58ri sare publikoan eta % 42ri itunpeko sarean ematen zitzaizen arreta.

Informazio eske egindako eskaerari Hezkuntza Sailak eman zion azken erantzunean ondoko datu taula hau agertzen da, 2004-2005. ikasturte berriari dagokiola usten duguna:

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		SAREAK GUZTIRA		GUZ- TIRA
	Publ.	Itunp.	Publ.	Itunp.	Publ.	Itunp.	Publ.	Itunp.	
Haur eta Lehen Hezkuntza	630	275	1.571	754	1.105	751	3.306	1.780	5.086
DBH	253	249	746	541	491	615	1.490	1.405	2.895
Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondokoa	73	24	113	88	13	6	199	118	317
Hezkuntza Berezia	-	-	96	241	-	-	96	241	337
<b>GUZTIRA</b>	<b>956</b>	<b>548</b>	<b>2.526</b>	<b>1.624</b>	<b>1.609</b>	<b>1.372</b>	<b>5.091</b>	<b>3.544</b>	<b>8.635</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.504</b>		<b>4.150</b>		<b>2.981</b>		<b>8.635</b>		

Datuek erakusten dute sareen araberako banaketari eusten zaiola (% 59- % 41); hala ere, alde nabarmenak daude lurraldeen artean (ikasle mota hauen proportzioa sare publikoan % 64koa da Araban eta % 54koa Gipuzkoan). Azken urteari dagokionez, datuek ez dute oreka handiago baterako joerarik erakusten; beharbada, alderantzizko joera suma liteke.

#### b) *Ikasle etorkinak*

- Bere lehen erantzunean, Hezkuntza Sailak zenbait gogoeta helarazi zizkigun ikasle etorkinak gero eta gehiago izateaz, horrek hezkuntza-sistemari zerkarkion erronkaz, eta antolatzeke zenbait neurri ezartzeaz, beharrei hobeto aurre egiteko: lurralde bakoitzean zenbait arduradun eta koordinatzaile nagusi bat izendatzea; eskolatzeko lurralde batzordeak; etorkizunean “Ikasle Etorkinak Artatzeko Plana” egitea.

Informazio osagarria alderdi hauei buruz eskatu genuen:

- Eskolatzeko Lurralde Batzordeak zein irizpide, arau edo neurri erabiltzen edo hartzen ari ziren gure gomendioaren helburua lortzeko (ikasleen banaketa orekatua bermatzea eta eskola-ghettoak saihestea).
- Ikasle horien banaketari buruzko datu gaurkotuak (lurraldeen, sareen, eta abarren arabera).
- Zein alditan zegoen “Ikasle etorkinak Artatzeko Plana”.

Matrikulatzeko irizpideak direla-eta, sail horren erantzunean –2004ko urtarrilekoan–, honako hauek aipatzen ziren: “Ikasle etorkinak EAEn ohiko epez kanpo eskolatzeko prozesua arautzera bideratutako argibideetan, Hezkuntza Sailburuordeak 2003ko irailaren 29an emandakoetan” ezarritako irizpideak:

1. Hizkuntz normalkuntzarako prozesuan integratzea, gehien eskatzen diren B eta D eredu bidez.
2. Ikastetxea familiaren helbidetik hurbil egotea.

3. Fondo publikoen bidez sostengatutako ikastetxe (publikoak eta itunpekoak) guztien arteko oreka.
4. Ikastetxeetan dauden baliabideak aprobetxatzea.
5. Familia hizkuntza bera duten ikasleak ikastetxean egotea.

Ohiko epean matrikulatzeari buruz, ikasleak onartzeko dekretuetan ezarritakoari lotzen zitzaion.

Ikasle etorkinak lurralde, sare edota ereduaren arabera banatzeko moduari dagokionez, datu gaurkotuak eman ziren 2004ko urtarrilaren 1eko datarekin; horietariko batzuk iazko txostenean sartu genituen taula modura (1.1.10. atal berean aipatuak).

Azken erantzunean, 2005eko otsailean, Hezkuntza Sailak zehaztu zuen aurreko ikasturtearen amaiera aldean hiru lan aurkeztu zituela:

- Ikasle etorkinei laguntzeko programa.
- EAEko hezkuntza sistemari buruzko gida eleanitza.
- Zentroan Laguntzeko Plana egiteko orientabideak, ikastetxeei zuzenduta.

Programaren inguruan, sailak zehaztu zuen Eusko Jaurlaritzak 2003ko abenduan onetsitako Inmigrazioari buruzko Plangintzaren barruan sartzen dela eta horren helburua dela atzerriko jatorria duten ikasleek EAEko bi hizkuntzak ahoz zein idatziz ondo jakitea, gainerako ikasleek duten curriculum berbera erabiltzea eta hezkuntza zein gizarte eremuan autonomia pertsonala lortzea arian-arian. Halaber, sailak adierazi zuen programaren bitartez EAEko ikastetxe batera sartzen diren ikasle atzerritarrek dituzten hezkuntza premiak oso kontuan hartzen direla, batez ere hiru arlori begira: hizkuntz premiak, curriculumaren ingurukoa eta tutoretzakoak. Aldi berean, eskolatzea orientatzeko eta ikastetxearen proposamenerako irizpideak jasotzen ditu, bai eta ikaslea modu egokian eskolatzeko jarduketa ildoak nahiz beharrezko baliabide zehatzak ere.

2004ko azaroaren 19an gaurkoturiko eskolatzeko datuei dagokienez, datuok ondoko taula hauetan laburbiltzen dira:

#### Ikasle etorkinen banaketa, lurralde eta eskola-sareen arabera

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
Publikoak	1.637	81,9	3.897	71,85	1.466	54,2	7.000	69,1
Itunpekoan	362	18,1	1.525	28,1	1.238	45,8	3.125	30,9
<b>Guztira</b>	<b>1.999</b>	<b>100</b>	<b>5.422</b>	<b>100</b>	<b>2.704</b>	<b>100</b>	<b>10.125</b>	<b>100</b>
<b>%</b>	<b>19,75</b>		<b>53,55</b>		<b>26,70</b>		<b>100</b>	

**Ikasle etorkinen banaketa, lurralde eta hizkuntz ereduaren arabera**

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
A eredua	1.586	79,3	3.176	58,6	511	18,9	5.273	52,1
B eredua	329	16,5	1.250	23,0	1.201	44,4	2.780	27,4
D eredua	84	4,2	996	18,4	992	36,7	2.072	20,5
<b>Guztira</b>	<b>1.999</b>	<b>100</b>	<b>5.422</b>	<b>100</b>	<b>2.704</b>	<b>100</b>	<b>10.125</b>	<b>100</b>
<b>%</b>	<b>19,75</b>		<b>53,55</b>		<b>26,70</b>		<b>100</b>	

Gaurkoturiko datuei buruzko bi taula hauek eta aurreko urteko datuekin (2003ko txostena, 84 orrialdea) egindako erkaketak joera batzuk ikusteko aukera ematen dituzte:

- Atzerriko jatorria duten ikasleen kopuruaren igoera arina itunpeko ikas-tetxeetan (% 29 izatetik % 30,9 izatera igaro dira), Arabaren kasuan izan ezik; izan ere, lurralde horretan ikasle hauen kopuruak gora egin du zentro publikoetan (guztien % 81,9ra arte).
- Eskolatzeko orduan, B eta D ereduetan igoerak izan dira eta jaitsierak A ereduaren, azken hori eredu nagusia izan arren.
- Eskolatutako ikasle hauen kopuru osoan izandako igoera; kopuruak, aurreko urteetan bezala, gora egiten jarraitzen du: 10.125 ikasle, iazko 8.017 ikasleen aldean.

Ikasleen jatorriari dagokionez, sailak ondorengo datu hauek eman ditu: He-goamerikako jatorria, % 69; Afrikako jatorria, % 15; Europako Batasuneko eta Europako gainerako herrialdeetako jatorria % 10; eta Asia nahiz Ozeaniako jatorria % 6.

Sartu berri diren ikasle etorkinei zuzendutako hizkuntz indargarri buruzko programetako datu berriei dagokienez, ondoko hauek atera ditugu: zentro publikoetako irakasleei zerbitzua emateko zuzendutako deialdia (115 plaza: 72 Lehen Hezkuntzan eta 43 Bigarren Hezkuntzan; iaz 75 izan ziren), itunpeko zentroei zuzendutako diru laguntzak: 65 zentrotentzako diru-laguntzak.

c) *Ikasle ijitoak*

Sailaren lehen erantzunean, hainbat ekimen aipatu ziren. Adibidez: absentismoaren aurkako Protokoloa, Bizkaian ezarritakoa, gizarte zerbitzuekin koordinatuz; Iniciativa Gitana eta Kalé dor Kayikó bezalako elkarteekin lankidetzaz hitzarmenak adostea; Lan-batzorde bat sortzea, "Ikasle ijitoen eskolatzeko-plan" berri bat eratzeko.

Informazio osagarri emateko egindako eskarian, bakar-bakarrik eskatu genuen ekimen hauei buruzko zehaztapen batzuk eta ikasle hauen banaketa datuak (lurraldeen arabera, sareen arabera...).

Horren guztiorren berri (datuak eta informazioak) iazko txostenean eman genuen eta hona hemen Hezkuntza Sailak 2005eko otsaileko azken erantzunean emandako datu gaurkotu batzuk jaso ditugu.

Azken gai horren gainean, eskura dituzten azken datuak eman dizkigute, 2003-2004. ikasturtekoak:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	%
Ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako ikasleak	314	1.200	273	1.787	70
Ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako ikasleak	73	300	113	486	19
Itunpeko ikastetxeetako ikasleak	40	130	117	287	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>427</b>	<b>1.630</b>	<b>503</b>	<b>2.560</b>	<b>100</b>

Ikasturte horretan ikasle ijitoak zituzten ikastetxeei dagokienez, datuok eman dizkigute:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak	27	71	19	117
Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak	16	25	9	50
Itunpeko ikastetxeak	12	13	7	32
<b>GUZTIRA</b>	<b>55</b>	<b>108</b>	<b>35</b>	<b>199</b>

Datu hauetatuz gain –2001-2002ko ikasturtekoekin konpara daitezkeenak–, Hezkuntza Sailak beste taula bat ere eman du; taulan ikus daiteke ikasle mota hauen banaketa desorekatua, zentroen eta lurraldearen arabera:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Ikasle kopuru handia duten Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak	2	11	3
Ikasle kopuru handia duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak	0	2	1
Ikasle kopuru handia duten itunpeko ikastetxeak	1	2	0
Ikasle kopuru esanguratsua duten Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak	9	17	6
Ikasle kopuru esanguratsua duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak	2	7	1
Ikasle kopuru esanguratsua duten itunpeko ikastetxeak	2	3	2
Ikasle gutxi duten Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak	18	38	10
Ikasle gutxi duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak	13	16	7
Ikasle gutxi duten itunpeko ikastetxeak	9	9	5

Kp. handia: 30 ikasle baino gehiago    Kopuru esanguratsua: 10, 12-30 ikasle    Gutxi: 10, 12 ikasle baino gutxiago



Datu hauek argi eta garbi erakusten dute ikasle ijitoen eskolatzek ondoko ezaugarriak dituela:

- Gehienetan zentro publikoetan bideratzen da (guztien % 89).
- Bigarren Hezkuntzan asko murrizten da (Lehen Hezkuntzarekin erkatuta, 3 edo 4 aldiz txikiagoa da).
- Zentro bakan batzuetan biltzen da: 15 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 3 Araban.

Ikasle mota hauek zentro bakan batzuetan biltzearen inguruan, Hezkuntza Sailak emandako azalpenak bi dira nagusiki: biztanle ijitoen kokapena eta gehiengoak A ereduaren alde egindako hautua. Era berean, Hezkuntza Sailak adierazi du ez duela inolako neurririk hartu kontzentrazioak edo ghettoak saihesteko; izan ere, beraren iritziz, *“beste diskriminazio bat izango litzateke, ikasle mota hauek are gehiago estigmatizatuz”* eta *“ikasleen kokapena garrantzitsua izanda ere, gehien kezkatzen duena eskola arrakastaren kopuru txikiak dira (beste alde batetik, horrek ez dauka zuzeneko zerikusirik ikasle ijitoak ikastetxe hauetan biltzearekin)”*.

Hezkuntza Sailak zehazten du ondoko neurri hauek hartu dituela ikasle ijitoen eskolatzek hobetzeko:

- Profesional laguntzaile talde bat osatu izana denbora partzalean, Bizkaian ikasle ijitoak eskolatzeko.
- Erkidegoan ijitoen eskolatzek hobetzeko proposamenak egin, arazoak aztertu eta koordinazio lana bideratzen duen batzorde baten funtzionamendua.
- Irakasleak herri ijitoaren eta heziketaren gainean prestatzeko hainbat jarduera.
- Programaren taxuketan eta garapenean parte hartzea, hezkuntzarako eskubidea bermatzeko: Bizkaian ez-eskolatzek nahiz eskola absentismoa desagerraraztea.
- Ijitoen historia eta kulturari buruzko CD interaktibo bat euskaratu izana, ikastetxeei zuzenduta.
- Ikasle ijitoak eskolatzekaren inguruan Hezkuntza Sailaren web gunean atal bat prestatzeko lanak, ikasleek gai honi buruzko informazioa eta bitartekoak izan ditzaten errazteko.
- Erakunde ijitoekin hitzarmenak ezartzea, gizarte nahiz hezkuntza jarduketak bideratzeko egitarauak garatu ahal izateko, Bizkaiko eremu batzuetako ikastetxeen zeregina indartuz (Opre Roma de Kale dor Kayikó, Iniciativa Gitana-ren Hezkuntza Programa); hori guztiori sailak berak ikuskatuta.
- Herri ijitoaren sustapen eta partaidetzarako plangintzan parte hartu izana eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ardura diren neurri guztiak abian jartzeko konpromisoa.

d) *Gizarte eta ekonomi maila apaleko ikasleen aldeko neurriak*

Orain arte jasotako gaiak gorabehera, gure gomendioa gizarte eta ekonomi maila apaleko ikasleak aipatzen zituen; ikasle mota horiek ez dira

bakar-bakarrik gorago aipatutako hiru kolektiboen barruan daudenak. Horrela, Arartekoaren txostenean, "ikastetxe kritikoak" deritzen ikastetxe mordoska baten egoera aztertu genuen, baita haietako eskola-kalifikazioak ere, haietan pilatzen baitira ezaugarri horiek dituzten ikasle asko eta asko. Hain zuzen, egoera horiek saihestu nahi genituen 3. gomendioaren bidez, eta, horretarako, zenbait neurri iradoki genituen (ratioak ezartzea; matrikulatzeko araudia berriz aztertzea; bidezkoak ez diren deribazioak edo estalitako kanporatzeak aztertzea).

Hezkuntza Sailak gai horiei buruz ez zuen ezer adierazi lehendabiziko erantzunean, ez eta informazio osagarria eskatuz emandako erantzunean ere; hala ere, azken horretan beren beregi galdetu zitzaion ea proposaturiko neurrietariko batzuk abian jartzeko asmorik zuen ala ez eta ea ikasle mota hauen banaketan aldaketa esanguratsurik erakusten zuen daturik zeukan ala ez, betiere gure txostenean azpimarratutako egoera eta arriskuei zegokienez (kontuan hartu beharra dago txostenean azaldutako daturik gehienak 1999-2000ko ikasturteari dagozkiola).

Aurten berriro ere eskatu dugu informazioa. Sailak erantzun du ez dagoela aurreko hiru kolektiboen gainean emandako informazioa osatzeko bestelako eranskinik, baina gizarte nahiz ekonomi maila apaleko inguruko egoeren kasuan diskriminazio positiborako irizpideak erabiltzen direla; horrela, ildo horri jarraituz, Heziketa Orekatzailearen Partzuergoaren bitartez garatzen diren lanak edota programak aipatzen ditu.

## **2. eta 4. gomendioak. Gizartean baztertuak dauden ikasleei eman beharreko erantzunak garatzea**

Gizartean bazterturik dauden ikasleen alde diskriminazio positibozko jarduerak burutzeari dagokionez, sailak batik bat honela zehaztu ditu bere erantzun guztietan:

- a) Hezkuntza-indargarria
- b) Hezkuntzan esku hartzeko berariazko proiektuak
- c) Esku hartzeko proiektu globalak

Iazko txostenean hiru arloen gaineko hainbat datu jaso genituen (irakasle kopurura, proiektuak, heziketa erkidegoak...), bai eta horiek azken ikasturteetan izandako bilakaeraren gainekoak ere (2000-2001etik 2003-2004ra arte). Gauzak horrela, hona hemen 2004-2005eko ikasturte berriari dagozkion datuak gaurkotu dira.

– Hezkuntza indargarria:

	<b>Ikastetxeak</b>	<b>23 ordu</b>	<b>12 ordu</b>	<b>Orduak guztira</b>
ARABA	15	1	14	191
BIZKAIA	61	14	47	886
GIPUZKOA	33	3	30	429
EAE	109	18	91	1.506

Erkatuz gero, 2003-2004ko aurreko ikasturtean orduen kopuru osoa 1.424koa izan zen eta zentroena 104koa.

– Hezkuntzan berariaz esku hartzeko egitarauak, ikastetxeek –eskola atzerapen handiagatik edo eskola-ingurura ez moldatzeagatik– eskatutakoari erantzunez. 2004-05. ikasturtean:

	<b>Ikastetxeak</b>	<b>Irakasleak</b>
ARABA	8	12
BIZKAIA	54	53
GIPUZKOA	32	25,5
EAE	94	90,5

2003-2004ko datuak ondokoak ziren: 89 zentro eta 89,5 irakasle.

– Esku hartzeko proiektu orokorrak.  
Esperientzia berritzaile modura “Heziketa Erkidegoak” aipatzen dira, ikasturte honetan 10 ikastetxetan abian jarritakoak. Halaber, “Hezkuntza premia bereziei eman beharreko erantzuna euskal eskola integratzailean” izeneko jardunaldia egin zenetik “Index for inclusion” deritzona egokitu, hedatu eta txertatzeko emandako urratsak aipatzen dira, betiere zentro integratzaileen proiektuak garatzeko asmoz.

## 2. IKASTETXEEN EBALUAZIOA ETA BARNE HARTZEKO PRAKTIKA ONEN SUSTAPENA

Gure 6, 7 eta 8. gomendioak hartzen dituen atal honi dagokionez, Hezkuntza Sailaren aurreko erantzunak berariaz aipatzen zituen Hezkuntza Ebaluazio eta Ikerketako Euskal Institutuari agindutako hiru lanak:

– “HPBei erantzuteko azpisistemaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazioen testuinguruan, gure Erkidegoaren lagin adierazgarriarekin.

- Ikasle gorren eskolatzeko elebidunean eskolako taldekatze ereduak ezartzearen luzetarako ebaluazio ikerketa.
- Gizarte eta kultura maila ahulean hezkuntzan esku hartzeko ereduak ikerketa.”

Ildo honi jarraituz, Hezkuntza Sailari informazio gaurkotua eskatu zaio, horietariko bakoitza zein fasetan dagoen jakin ahal izateko: lehenengoaren kasuan, aurreratuta eta datuak ustiatzeko fasean; azken bi kasuetan, hasierako lanetan, besterik ez.

### 3. LANBIDE-IRUDI ZEHATZ BATZUK INDARTZEA, KOORDINATZEA ETA BERRANTOLATZEA

Atal honek 5 gomendio zituen gure txostenean (9.etik 13.era). Sailak lehenengo erantzun orokorra eman zuen bere idazkian, eta bereizi egin ditu zerbitzuen arteko koordinazioa (12. gomendia) eta Bigarren Hezkuntzako ordutegiaren antolaketa berraztertzea.

- Erantzunaren alderdi orokorragoen kasuan, Hezkuntza Sailak ezarritako lehen-tasuneko jarduketara ildoak aipatzen zituen, bai eta laguntza zerbitzuetan nahiz lanbide figuretan zuten aplikazioa ere.
- Zerbitzuen koordinazioari gagozkiola, hainbat erakunde publiko nahiz pribaturekin hezkuntza premia bereziei eman beharreko erantzuna hobetzeko lortutako hitzarmenak aipatzen zituen eta bereziki men egiten zion psikosiak jota zeuden ikasleentzako hezkuntza unitate terapeutikoari (unitate hori Sondikako Ola izeneko zentroan dago); aldi berean, beste bi lurraldeen kasuan, antzeko proiektuak zeudela adierazten zuen.
- Bigarren Hezkuntzako ordutegien antolakuntza berrikusteko proposamenari zegokionez, esku hartzeko legezko mugak aipatzen ziren, bai eta irakasleriaren jarraipen zereginak errazteko antolakuntza ekimenak bultzatzeko premia ere.

Halaber, gure gomendioetako hiru gai zehatz hauei buruzko informazio osagarria eskatu zitzaion sail horri, ez baitzuen horien gainean ezer esaten:

- Irakasleen aniztasuna erraztea, gutxiengoaren kulturetako pertsonak edo pertsona ezgaituak sartzeko aukera (10. gomendia, 1. atala).
- DBHko irakasleen prestakuntza, aniztasunari erantzuteko eta hezkuntza-premia berezietan arduratzeko (10. gomendia, 2. atala).
- 11. gomendia betetzeko aukerak: “Irudi profesional ‘berriak’ eskolako dinamikan gehiago integratzea”.

Azken urte honetako jarraipen lanean gorago aipatutako bi gairi buruzko datuak baino ez ditugu eskatu:

- 1) Irakasleen aniztasuna bultzatzea eta **kultura minorizatuetakoko pertsonak edo ezgaitasunen bat duten pertsonak sartzeko aukera** (10. gomendia, 1. atala).

Azken gai honi buruz, *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* izenburuko ezohiko txostenaren haritik, sailak emandako datu batzuk genituen, betiere ofizioz

bidalitako espediente bati emandako erantzuna zela eta. Horrenbestez, kultura minorizatuetakokideak diren pertsonak sisteman sartzeari buruzko datuak baino ez dira eskatu.

Ezgaitasunen bat duten pertsonak sailaren menpeko langileen artera sartzeari buruzko datuak txosten honetan bertan ematen dira eta nahiko esanguratsuak direlakoan gaude (1.1.13. atala).

Sisteman kultura minorizatuetakokideak diren pertsonak sartzeari dagokionez, Hezkuntza Sailaren erantzunak ez du daturik ematen, baizik eta hainbat erakunderekin sinaturiko hitzarmenen gaineko aipamen orokorrak, betiere gizarte bitartekariak eta aholkulari ijitoek esku hartzeko helburuarekin; era berean, estatuaren eremuan, beste akordio batzuk daudela aipatzen da eta hainbat irakasle erabiltzen direla gizarte bitartekari edo interpretari modura, arabieraren moduko hizkuntzen kasuan.

2) Egindako bigarren eskaera **beste erakundeekiko koordinazioari buruzkoak zen, hezkuntza unitate terapeutikoak abian jarri ahal izateko.**

Gai honi gagozkiola, Arartekoak arreta berezia jarri du hainbatetan. Gauzak horrela, Arartekoaren erakundeko langileek Sondikako Olako zentroa bisitatu zuten eta 2003. urteko txostenaren atal zehatza sartu zen ondoko izenburuarekin: *“Buru-osasuna haur eta nerabeetan. La Ola hezkuntza eta terapia zentrora egindako bisitaldia”* (txostenaren 1.1.9. atala).

Horregatik, beste jarduketak batzuk gorabehera, txosten honen jarraipen lana bideratzeko ondokoa eskatzen zen:

- Olako baliabideari zegokionez, ea aldaketa garrantzitsuren bat eginda zegoen edo egiteko asmorik zegoen ala ez.
- Ea zein fasetan zeuden Araba eta Gipuzkoan baliabide berriak sortzeko proiektuak eta ea zein zen horiek abian jartzeko izandako atzerapena.

Hona hemen Hezkuntza Sailak gai honen inguruan emandako erantzun osoa:

*“Hezkuntza-Unitate Terapeutikoei dagokienez, eta Olako UTOri begira, adierazi behar da badagoela lurralde mailako jarraipena egiten duen batzorde bat. Batzorde horrek esperientziak izandako bilakaera ebaluatzen du eta sartzeko hobekuntzak proposatzen ditu, ahal den neurrian praktikan jartzen saiatzen direnak.*

*Unitatearen gaitasuna handitzea da neurri horietako bat. Aukera hori aztertzen ari da, esperientzian parte hartzen duten hiru erakundeen konpromisoa eskatzen du eta, ez Hezkuntza Sailarena bakarrik. Ezaugarri horietako unitate batek tamainari begira muga bat duela hartu behar da kontuan eta ez da komeni gehiago zabaltzea.*

*Bestalde, ez da hornikuntza espezifikoko gehiago sustatu behar ohiko saretik kanpo, ez hezkuntza-sarean, ezta haur eta gazteen buru-osasunaz arduratzen den sarean ere.*

*Ildo horretatik ari da lanean, ospitale desberdinetan sortu berriak diren nerabeen ospitale-unitate desberdinetan hezkuntza-oinarria emanez, ospitaleen eremuan jardungo duten irakasleak emanez.*

*Unitate horiek administrazioaren aldetik egonkorrak izateko eta hezkuntza-sisteman behar bezala jardun ahal izateko, lantzen ari da ospitale eta etxeko arreta emateko zentroak sortuko dituen dekretu baten proiektuaren zirriborroa, ospitale-unitateen arazo guztiei, etxeko arreta jasotzen duten ikasle gaixoei eman beharreko eskola-arretari eta hezkuntza-unitate terapeutikoei heltzeko asmoz..”*

#### 4. PROZEDURAK ETA BALIABIDEAK HOBETZEA

Hainbat gai jaso eta txosten monografikoan 14.etik 19.era bitartean azaltzen ziren gomendio hauei dagokienez, iaz egindako jarraipen lanari esker informazio ugari bildu ahal izan zen; argibide horiek, bada, aurreko urteko txostenean laburbildu ziren (2003ko txostena, 92-95. orrialdeak).

Orduan lortutako informazioarekin bat etorritik, aurtengo jarraipenean hiru atal jorratu ditugu, bai eta Arartekoaren erakundearen jarduketei estu-estu lotutako gai batzuk ere:

1. Hezkuntza premia bereziak erregistratzeari dagokionez (15. gomendia), Hezkuntza Sailaren erantzunak aipatzen zuen datu base bateratua egiteko aukera: *“isilekotasun berme guztietan 2002-2003ko ikasturtearen amaierarako erabilgarri egotea aurreikusten dena”*. Oraingoan, bada, galdetu dugu ea datu base hori erabilgarri dagoen eta zeintzuk diren isilekotasuna bermatzeko ezarritako irizpide edo tresnak.
2. Jarduteko eta isilekotasuna bermatzeko protokoloen kasuan (16. gomendia), ea indarrean segitzen duten Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendariaren 2001eko azaroaren 26ko jarraibideak.
3. Eta ikastetxeetan oztopo arkitektonikoak kentzeari dagokionez (18 eta 19. gomendioak) eta erakunde honek gomendatzen duenari jarraituz, ea zentroetako gaur egungo baldintzei buruzko egoera jasotzen duen mapa egin den ala ez eta ea gaur egungo egoeratik (*EAEn erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna* izeneko txostenean, ikastetxeen lagin bat kontuan hartuta, berriki aztertu dugun egoera) irisgarritasun osoko egoera batera pasatzeko beharrezko urratsak eta baliabideak aurreikusten dituen jarduketa plangintzarik dagoen ala ez (betiere sailaren aurreko erantzunean jasotako irizpidearen arabera: *“Helburua ikastetxe guztietan irisgarritasunaren % 100era heltzea da arrazoizko epe baten barruan”*).

Hauexek dira, laburbilduz, Hezkuntza Sailak hiru gaietarik bakoitzari emandako erantzunak:

- **Datu base bateratuari dagokionez**, Hezkuntza Sailak ondorengo hauxe zehaztu du:
  - EJIIE elkarte informatikoarekin batera ari da lan egiten, isilekotasuna bermatzeko eta isilpeko informazioa tratatzeko legezko beharkizun guztiak betetzen dituen aplikazio bat garatzeko asmoz.

- Lana garapen teknikoaren fasean dago; izan ere, EJIeko informatikariek 2004.eko urte osoa lanean eman dute prozesuan esku hartzen duten eragile guztiek aplikazioa erabili dezaten, informazioa erantzukizunen arabera lortzeko hainbat maila ezarriz.
- Beharrezko probak egin, prozedurari buruzko gidaliburuak taxutu eta eragileei prestakuntza egokia eman eta gero, espero da 2004-2005eko ikasturterako abian jarri ahal izatea; edozein kasuetan ere, horren konplexutasunak prozesua motel dezake.
- Jakinarazpen horretan aipatutako **isilekotasun berme eta protokolei dagokienez**, adierazi digute indarrean jarraitzen dutela, baina berregituratuko direla gorago aipatutako datu basearen prozesu guztien ondorioz.
- Eta **ikastetxeetako irisgarritasunari gagozkiola**, Hezkuntza Sailaren erantzunean ondoko alderdi hauek agertzen dira:
  - Ikusitako premiek Eraikuntza Zerbitzuaren aurrekontu ezarpenak gainditzen dituztela; ondorioz, jarduketak lehenetsi behar dira.
  - Lehenetasun irizpideak ezartzeko, 2004an ibiltzeko ezgaitasuna duten ikasleak eskolatuta dauden ikastetxeak eta minusbaliatu horiek izan dezaketen hezkuntza ibilbidea identifikatu dira, betiere geroagoko ikastetxea kontuan hartu eta horren irisgarritasuna aztertuz; hori guztiori horrelaxe egin da, betiere irisgarritasun osoa bermatuta ez dagoen zentroetan beharrezko neurri zuzentzaileak aplikatzeari ekin baino lehenago.
  - Eta azken urteotan oztopoak kendu eta Irisgarritasunari buruzko Legea betetzeko obrak egitearen ondorioz, gutxi gorabehera, obra kapituluari egokitutako aurrekontu osoaren % 35 gastatu dela jakinarazi nahi izan du.

*EAEn erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna txostenak erakusten duen errealitatea aintzakotzat harturik, txostenean agertzen diren gomendioak go-goan izanik eta Hezkuntza Sailak erantzun zehatzagorik eman ez duenez gero, gure ustetan, oztopo arkitektonikoak kentzea lehenetasunezko gai zehatza izan behar da hurrengo jarduketetan.*

## 5. GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOA ETA GIZARTE ERAGILEEN PARTE-HARTZEA

Iazko erantzunetan, Hezkuntza Sailak hainbat ekimen zehaztu zituen, horietariko asko ezgaitasunen bat zuten pertsonen urte europarra zela eta.

Beste alde batetik, 21. gomendioari dagokionez, jarraipen batzordeak abian jartzeko proposamena egiten zen; izan ere, bide hori erabiliz, hezkuntza premia bereziak zituzten ikasleen gurasoen elkarteetako federazioek euren iritziak eman ahal izango zituzten; eskaera hau elkarteek beraiek egin dituzte eta erakunde honek ildo horri jarraitu dio behin baino gehiagotan. Aurten, bada, informazioa eskatzean azken gai hau jorratu da.

Horrela, Hezkuntza Sailaren azken erantzunean jardunean ari diren hiru **jarraipen batzordeak** aipatzen dira:

- Ezgaitasun intelektuala duten ikasleak eskolatzeko jarraipen batzordea; horien barruan hainbat erakunde sartzan dira, hala nola FEVAS elkarte (erakunde honek ezgaitasun intelektuala ez ezik autistak ere kontuan hartzen ditu), Down Sindromearen Fundazioa eta Guraso Elkarteetako Federazioa. Testuinguru honetan, Arabaren kasuan, ARAZOAK elkartearekin bidertzen den lana ere aipatzen da.
- Ikasle gorrei laguntza ematearekin zerikusia duen jarraipen batzordea.
- ONCErekin batera bideratzen den jarraipen batzordea.

Gainera, aipatzen da ikasturte honetan ezgaitasun fisikoa duten ikasleak eskolatzeko jarraipen batzordea martxan jarri nahi dela.

**Gizarte sentsibilizazioari dagokionez,** Hezkuntza Sailak bere azken erantzunean hainbat ekintza edo ekimen jasotzen ditu, esate baterako:

- 2003an “Hezkuntza premia bereziei eman beharreko erantzuna euskal eskola integratzailean” izeneko jardunaldian erabilitako materialak aprobetxatu eta zabaltzea.
- Eskolaz kanpoko ekintzetarako eta kirol egokiturako prestakuntza eta sentsibilizazio lana.
- Zabalkundeko hainbat gai, ezaugarri zehatzak dituzten ikasleen integrazioa errazteko –hala nola, gaixotasun zeliakoa, minbizia, hiperaktibitatea eta oldarkortasuna–, betiere beste erakunde batzuekin elkarlanean.

\* \* \*

Honaino, beraz, Hezkuntza Sailari gure gomendioen betetze mailaren inguruan eskatu eta sailak emandako informazioari buruzko laburpena. Gure ustetan, informazio zabala eta zehatza da eta horrek gaur egungo egoeraren berri izateko eta baloratzeko bidea ematen du, bai eta aurreko ikasturteetako egoerarekin alderatzeko bidea ere; gauzak horrela, bilakaera eta joerak ikus daitezke. Edozein kasutan ere, ez da erraza balorazio orokor bat egitea. Gai batzuetan gure txostenak egindako proposamen ildotik doazen aurrerapenak ikusten dira. Beste batzuetan, ostera, egoera ia-ia ez da aldatu. Seguru antzean, eraginkortasun handiagoa lortzeko, gure jarduketak azken horien inguruan bideratu behar izango ditugu.



### 1.1.11. ERTZAINZAREN ZIEGETAKO ETA UDAL GORDETEGIETAKO EGOERAREN JARRAIPENA

1990ean Arartekoak txosten monografiko bat egin zuen (*Kalabozoak. Ertzaintzaren eta udalen atxiloteta egoitzak*) Eusko Legebiltzarrari eta iritzi publikoari mota horretako lekuen egoeraren berri emateko, atxilotuek orduak, eta are egunak, eman behar baitituzte bertan, agintari judizialen esku geratu arte.

Harrezkero, erakunde honetako kidek atxilotze-lekuak bisitatu dituzte, txostenari jarraipena emateko eta, bertatik, haren gomendioak betetzen ziren egiaztatzeko. Horregatik, hain zuzen, agerraldien helburu nagusia –ez bakarra, ordea– ziegak aztertzea izan zen.

Ertzaintzaren atxilotze-lekuetan ziegen ezaugarri fisikoak bainoago, atxiloketen nondik norakoak aztertu ziren, aurreko txostenetan azaldu genuenez ziegetan egokitze lanak egin baitziren; izan ere, gure lehenago txosten bati eta Tortura Prebenitzeko Europako Batzordearen gomendioei jarraiki Herrizaingo Sailak burutua zuen ziegak eraldatzeko eta hobetzeko programa.

Udalen atxilotegiak asko direnez, urte bakoitzean horietariko batzuk ikustera joaten gara, aukeratzeko irizpide ezberdinei jarraituz (jasotako kexak, azkenaldiko zaharberrikuntzak, berrikusi gabe igarotako denbora luzea, instalazioen erabilpen maila eta abar). Azken urte honetan bisitak egin ditugu Ertzaintzak Arkauten (Gasteiz) eta Erandion dituen ziegetara eta Garellanoko (Bilbo) udal atxilotegira. Alabaina, bisita horiek ez dira gure informazio iturri bakarrak: aurreko urteetan hasitako jarduketak jarraipenak eta zenbait kexa-espediteren tramitazioak aukera eman digute hainbat polizi kidegoren jardunari buruzko datuak biltzeko.

Bisitetan ateratako ondorioak labur azalduko ditugu jarraian, eta, atal honi amaiera emateko, torturaren prebentzioari buruzko agiria aipatuko dugu, Arartekoak 2004ko abenduan argitaratutakoa.

#### 1. Ertzaintzak Arkauten (Gasteiz) dituen ziegetara egindako bisita

Arartekoak berak, erakundeko langile batzuekin batera, 2004ko azaroaren 16an bisita egin zuen Arkautera, terrorismo delituengatik atxilotutako pertsonak egon ohi diren instalazioetara.

Aldian behin Arartekoak jarraipenerako jarduketak egiten ditu bere gomendioak noraino betetzen diren jakiteko, eta horietarikoa izan zen hizpide dugun bisita; zehazki, zerikusia izan zuen zerbitzu berari aurretik egindako beste bisita batzuekin, torturari aurrea hartzeko espediterekin eta bideo grabazioen erabilerarekin, eta “Inkomunikazio araubidean atxilotutako pertsonentzako laguntza koordinatzeko protokoloa”ren aplikazioarekin ere bai. Protokolo hori hainbat sail eta zerbitzuren artean 2003an egin zen akordioa garatzeko prestatu zen.

Hain zuzen ere, aurreko jarduketak arabera giltzarritzat jotzen ziren lau alderdiak izan ziren bisitaren xede nagusiak. Horretarako:

1. Instalazio guztiak ikuskatu ziren.
2. Bideo kamerak non zeuden, nola funtzionatzen zuten eta irudiak grabatu zitezkeen begiratu zen.

3. 2003an eta 2004an atxilotutako pertsonen arteko lagina bati zegozkion erregistro informatikoak aztertu ziren.
4. Erregistro horien azterketan, Protokoloaren alderdi guztien artetik, atxilotutako pertsoneri medikuak noiz, non eta nola egin behar dizkien azterketak arautzen duten alderdiak arreta bereziaz jorratu genituen.

Jada 2002ko Urteko Txostenean adierazi zen bezala (ikus 1.1.11. atala) Arkauten hainbat atxilotegi daude eta hainbat unitatek erabili ohi dituzte, hala Trafikokoek nola Krimen Ikerketaren arlokoek. Hemen laburbilduta azaltzen dena Informazio eta Azterketa Unitateak (IAU) erabiltzen dituen instalazioei dagokie bakar-bakarrik. Unitate horretako kide batzuk aurrean egon ziren eta informazioa eman ziguten bisita egin genuenean.

- 1) Instalazioen ezaugarriak eta egoera direla-eta, 2002ko txostenean azaldu genuen egoerak bere hartan iraun du, funtsean:
  - Zazpi ziegak egoera onean mantentzen dira eta ziegen inguruan, ertzain etxeetan ohi denez, badaude bestelako gela batzuk, esate baterako argazkiak egin eta hatz-markak hartzeko gela, biktimek eta lekukoek delitugileak ezagutzeko lokala, edo bulego gisa atondutako gela txiki batzuk;
  - Ziegetan ez dago argi naturalik, ez eta argiaren intentsitatea aldatzeko sistemarik ere (hau da, argiaren aginte-tresna zentralak lanparak piztuta edo itzalita edukitzeko aukera baino ez du ematen), erakunde honek besterik gomendatu izan duen arren.
  - Legeak ezarritakoaren kontra, ez dago adingabeak atxilotuta edukitzeko leku berezirik.
- 2) Zainketarako kamerei dagokienez, ziegetako korridorean lau kamera finko daude, eta autoz ekartzen dituzten atxilotuen sarrera aldea beste bi kamera mugikorrek estaltzen dute.

Adierazi zigutenez, kamera horiek barruko segurtasunerako baino ez dira erabiltzen, unitatetik kanpoko ertzainek irudiak begiz kontrolatzen dituzte etengabe atxiloaldia amaitu arte, baina, nahiz eta sistema informatikoak irudiak grabatzeko aukera eman, ahalbide hori ez da aktibatu. Datu horietariko batzuk egiaztatu ahal izan genituen bertatik bertara, irudiak kontrolatzeko gela ikustera joan ginenean; sarbidea mugatuta duen aldea da eta bertan bi monitore eta beste tresna tekniko batzuk daude.

Gai hau dela eta, kontuan izan behar da 1999ko urrian Arartekoak ertzain etxe guztietan kontrol sistema ezartzea gomendatu zuela, alegia, ziegetako korridoreetan kamerak ezartzea, grabazioen bitartez ziegen aldea kontrolatuta edukitzeko. Gomendio horretan gutxieneko baldintza batzuk ezarri ziren sistemak eraginkortasunez bete zezan bere prebentzio-helburua tratu txar edo torturari zegokienez (polizi agenteen esku ez dagoen grabazio sistema, grabazioak berrikusteko prozedura, irregulartasunen ikerketa eta abar).

Bisitan bildutako informazioaren arabera erakunde honek uste du gomendioa oraindik ez dela aplikatu, inkomunikatutako edo terrorismo delituen akusazio-

pean dauden atxilotuen kasuan behintzat, nahiz eta Herrizaingo Saileko arduradunek gomendio hori onartzeko adierazpen formala egin zuten.

- 3) Datuak gordetzeko sistemari dagokionez, bisita egin genuenean aukera izan genuen erregistro informatiko batzuk aztertzeko eta instrukzioaren arduraz zuten agenteen ahotik jakin ahal izan genuen datuak nola bildu eta gordetzen ziren eta zeintzuk izan zitezkeen akatsen iturriak. Halaber, programan egin ziren –edo egin zitezkeen– hobekuntza batzuen berri izan genuen.

Azterketaren oinarritzat hartu ziren IAUk 2003ko ekainaren 1etik gure bisitaren egunera arte egindako atxiloketak (19 guztira; gehienek “kale borroka” deitutakoarekin zerikusia zuten). Horietatik zazpi hautatu ziren ausaz eta banan-banan hartuta begiratu zen nola aplikatu ziren Protokoloaren alderdi batzuk, bereziki medikuaren azterketari zegozkionak.

Lagin gisa aztertutako zazpi atxiloketei buruz hartu eta berrikusitako datuen arabera, jada behin-behineko ondorio edo ildo batzuk zirriboratu ahal ziren. Adibidez, honako hauek:

- aztertutako zazpi kasuetan inkomunikazioa aplikatu zen eta haietariko seitan atxiloaldiak 72 ordu baino gehiago iraun zuen;
- aztertutako zazpi kasuetariko bakar batean, erregistro informatikoan jasota zegoen atxilotua polizi etxean sartu aurretik EAEko Auzitegi Medikuntzako Erakundearen egoitzara eraman zutela eta bertan auzitegiko medikuak azterketa egin ziola (Protokoloaren II.2. eta II.3. atalak); nolana ere, gainerako atxilotuei azterketa hori egin zitzaiezen ala ez jakiteko poliziaren atestatuak miatu behar ziren eta halakorik ez zegoen bisitaren lekuan;
- kasu guztietan Batzorde Judizialak bisitak egin zituen atxilotegira, atxilotutako pertsonak polizi etxean egon ziren egun guztietan;
- atxilotutako pertsonetariko bi Osakidetza ospitaleetara eraman zituzten behin baino gehiagotan, azterketa egin ziezaieten; biak ere emakumezkoak ziren;
- kasu guztietan auzitegiko medikuak atxilotuari azterketa egin zion atxiloaldiaren amaiera aldera; normalean, atxilotua Arkautetik Entzutegi Nazionalerantz irten baino pare bat ordu lehenago, eta beti ere polizi etxean bertan (Protokoloaren IV.1. eta IV.2. atalak);
- medikuen txostenen edukiaren berri jakiteko beste iturri batzuetara jo behar da (epaitegi eta ospitaleetara); baita ustezko tratu txarreatatik aurkeztutako salaketen nondik norakoaren berri jakiteko ere (atxilotutako pertsonetariko batzuek salaketa jarri zuten eta).

- 4) Bisitan ikusitakoaren osagarri, 2003ko Protokoloa zenbateraino betetzen zen hobeto jakin eta baloratu ahal izateko, ofiziozko espedientea egin eta Herrizaingo sailburuari zenbait datu eskatu zitzaizkion aztertutako aldian egin ziren 19 atxiloketen gainean. Zehazki, ondoko datu hauek::

1. Atxilotuaren izen-deituren inzialak.
2. Atxilotu zuten eguna, ordua eta lekua.

3. Lehenengo azterketa medikoaren eguna, ordua eta lekua, eta zein mediku-taldek egin zuen azterketa hori.
4. Arkauten sartu zen eguna eta ordua.
5. Atxiloaldian zehar eta Arkauteko instalazioetan auzitegiko medikuek egin zizkioten azterketa guztien datuak (eguna, ordua eta mediku-taldearen osaera), epailearen esku jarri edo aske utzi aurretik egin zioten azken azterketaren datuak izan ezik.
6. Epailearen esku jarri edo aske utzi aurretik egin zioten azken azterketa medikoaren datuak: eguna, ordua, lekua eta mediku-taldearen osaera.
7. Arkautetik irten zen eguna eta ordua.
8. Entzutegi Nazionalean sartu zuten eguna eta ordua (hala izan bazen).
9. Ea aldiari-aldiari gertuaren analisiak egin zizkioten, Protokoloan agindu bezala.
10. Ea atxiloaldian zehar inoiz ospitalera eraman zuten, eta hala izan bazen, eguna(k), ordua(k), lekua(k) eta arrazoiak.
11. Ea atxilotuak tratu txarregatik salaketarik jarri zuen.
12. Eskatutako informazioak ondo ulertzen lagunduko zuten gainerako ohar edo datu jakingarriak.

Datu zehatzak eskatzeaz gainera galdera hau ere egin zen: ea Protokoloa ezarri zenetik igarotako aldiari (urte eta erdi) inoiz haren aplikazioari buruzko baloraziorik egin zen, eta, hala bazen, zeintzuk ziren balorazioaren emaitzak edo hobekuntzarako egindako proposamenak.

Geroago, sailburuak egin zituen adierazpen batzuen haritik, informazio osagarria eskatu zitzaion atxilotutako pertsona bakoitzari inkomunikazioa aplikatzearen edo ez aplikatzearen inguruan.

Bisita egin zen garaian egin zelako, datu osagarriak eskatu ziren, eta txosten hau ixteko orduan ezin izan da eskatutako informazioa jaso ez txostenean sartu.

## **2. Erandioko polizi zentrori eta ertzain etxera egindako bisita**

Polizi etxeak ikuskatzeko bisita arruntetariko bat Erandioko ertzain etxera egin zuten Arartekoak eta bere taldeko langileek, joan den urtarrilaren 26an. Lehenengo aldiz bisitatu genuen polizi zentro hori. Nahiko berria da eta sortu zenetik hainbat zerbitzu bertara aldatu dira apurka-apurka. Beste batzuetan bezala, bisita horretan ere gure helburu nagusia atxilotutako pertsonen egoera bertatik bertara ezagutzea zen.

Erandioko polizi zentroan, bisita egin genuen garaian Herrizaingo Sailaren menpeko baliabide eta zerbitzu asko zeuden: segurtasun zerbitzu lagungarriak, Bizkaiko Lurralde Burutza, Trafiko Unitatea, Erandioko Ertzain Etxea... Arestian esandako helburua gogoan, ziegak eta atxilotuei arreta emateko gainerako instalazioak ikuskatu genituen, bai denek erabiltzen dituztenak bai unitate jakin batek erabiltzen dituenak. Izan ere, atxilotuentzako instalazioen ezaugarriak oso antzekoak dira Erandion eta erakunde honen txostenetan azaldu izan diren beste ertzain etxe batzuetan, Oiartzunen edo Arkauten esate baterako (ikus 2002ko eta 2003ko txostenak, atal hau berau). Denetan ziegak hainbat aldetan banatuta daude eta polizi unitate bakoitzak alde ba-

tzuk erabiltzen ditu. Bisitaren emaitzak hemen azaltzerakoan komeni da banaketa hori kontuan hartzea.

Horrela bada, egoera argi ager dadin, hiru alde bereziko ditugu:

- a) Denek erabiltzen duten aldea.
- b) Krimen Ikerketarako Poliziak erabiltzen dituen ziegak.
- c) Erandioko ertzain etxeko atxilotuentzako ziegak.

- a) Denek erabiltzen duten aldea:

Instalazioetara egindako bisitan, ohi dugunez, atxilotuak ertzain etxera heltzen denetik aske utzi edo epailearen esku jartzen duten arte egiten duen ibilbide bera egin genuen.

Beraz, atxilotuak dakartzaten polizi autoen sarrera-gunea da denek erabiltzen duten lehenengo aldea.

Ibilgailuen sarrerari dagokionez, bideo-zaintzarako sistemak bi kamera mugikor ditu eta kamera finko bat, zerbitzuan.

Jarraian dauden geletan atxilotuen gauzak gordetzen dira, argazkiak edo bideoak egin eta hatz-markak hartzen zaizkie, datuak sistema informatikoan sartzen dira eta horrelako beste lan batzuk egiten dira.

Inguruan badago biltegi bat esterak, mantalak, eskuoihalak, mantak eta abar gordetzeko. Gauza horietariko asko erabili eta botatzekoak dira.

Horrezaz gainera badago erabilera komuneko beste alde bat; bertan bulegoak eta abokatuentzako gelak daude.

- b) Krimen Ikerketarako Poliziak erabiltzen dituen ziegak:

Banako 9 ziega dira, denak antzekoak. Ate bikoitza dute eta luze-zabaleran 4 x 2 metro gutxi gorabehera. Obrazko etzalekua dute.

Gela guztiek potentziometroa dute, kontrolgunetik argiaren intentsitatea aldatu ahal izateko.

Alde honetan, gainera, agente zaintzailearen gela dago, eta komun bat tresna guztiekin.

Korridorean lau kamera finko daude baina ez daude zerbitzuan. Horien bitartez korridoreko mugimendu guztiak ikus daitezke; gela barruak eta komunak berriz, ezin dira ikusi.

Alde honen erabilerari dagokionez, bisitan gurekin egon ziren polizia ardura-dunek ahoz emandako informazioaren arabera, ireki zenetik bisitaren egunera arte hiru lagun baino ez zituzten hona ekarri, droga-trafikoarekin zerikusia zuten delituengatik atxilotuta.

- c) Erandioko ertzain etxeko atxilotuentzako ziegak:

Goian esan dugunez, gaur egun polizi zentro honetan dago Erandioko ertzain etxea, eta lehenago Erandioko herrigunean egiten ziren zerbitzuetatik gehienak hona aldatu dira. Gure erakundeko langileek 2001ean bisitatu zuten azken aldiz Erandioko ertzain etxe zaharra (ikus 2001eko Txostena, 1.1.11. atala).

Dagoeneko herrigunean jendeari laguntzeko eta salaketak hartzeko zerbitzua baino ez da egiten, ordu jakinetan. Baina atxilotu guztiak oraingo honetan bisitatu ditugun instalazio berrietara eramaten dituzte.

Ertzain etxeko atxilotuentzat 13 ziega daude:

- Horiatariko hamaikak metalezko atea dute, itxi daitekeen leihatilarekin. Gutxi gorabehera 3,5 x 2,5 metroko neurriak dituzte eta ziegen ohiko diseinua dute (ertz biribilduak, pintura, atsedenerako gune goratua...).
- Beste bat neurrien eta antolaketa-aren aldetik aurrekoen antzekoa da, baina barrotedun atea du barrualdea hobeto ikusteko eta jangela gisa erabil daiteke.
- Beste bat handiagoa da (7 x 2,5 metro, gutxi gorabehera). Barroteak eta metakriltoa ditu eta, kasuen arabera, klaustrofobia duten pertsonak edo adingabeek erabil dezakete.

Aurrekoan bezala, alde honetan ere badago gela bat agente zaintzailearentzat, baita komunak ere; ziegetako argiaren intentsitatea aldatu egin daiteke potentziometroen bitartez.

Korridorean lau kamera finko eta kamera mugikor bat daude, baina ez daude zerbitzuan.

Hona hemen ziega horien erabilerari buruzko datuak:

- bisitaren egunean inor ez zegoen atxiloturik;
- 2005. urtearen lehenengo 25 egunetan (alegia, bisitaren egunera arte) 11 lagun egon ziren atxiloturik;
- 2004. urtean 230 pertsonak erabili zituzten, guztira;
- inoiz ez da gertatu instalazioetan lekurik ez egotea atxilotutako pertsonentzat.

Deskribatu ditugun instalazio guztiak, ibilgailuen sarrera-gunea izan ezik, lurraren mailaren azpitik daude; beraz, ez dute kanpoko argirik. Berokuntza sistema zentralizatua dute. Bisita egin genuenean instalazio guztiak garbi eta txukun zeuden.

Instalazioak ikuskatu ondoren polizi arduradun edo agenteei zenbait informazio eskatu zitzaizkien ahoz, Arartekoa berariaz aztertzen eta kontrolatzen ari zen bi arazo zirela eta: a) adingabeen atxiloketak, eta, zehazki, bakarrik dauden adingabe atzerritarren atxiloketak; b) tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen babesa. Lehenengo kasuan, informazioa nahi genuen erakunde honek ezohiko txostena egin behar zuelako bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoeraren gainean. Bigarren kasuan, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei erakundeek ematen dieten laguntzari buruzko txostenaren jarraipena egiteko behar genuen informazioa.

Bi gai horiei buruz ahozko informazioa jasotzeaz gainera, adingabeen kasuan 2004. urteko erregistro informatikoetan zeuden datuetariko batzuen berrikuspen

txikia egin zen. Bai ahozko informazioak bai erregistro batzuetan egiaztatu ziren gauzak sakonago ikertu behar lirateke; dena dela, ohar interesgarri batzuk egin daitezke horien inguruan:

- Legeak ezarri eta erakunde honek behin eta berriz gogorarazi duen arauaren kontra, instalazioetan ez dago adingabeei berariaz arretea emateko leku egokirik helduentzako lekuetatik aparte.
- Adingabeak atxilotzen dituztenean, normalean ez dituzte ziegetara eramaten; alde komunetan ematen zaie arretea.
- Zenbait kasutan, adingabeentzako Fiskaltza jakinean dagoela, adingabeak ziegetan giltzapetu daitezke; horrelakoetan, dirudienez, goian deskribatutako ziegetatik handiena erabiliko litzateke, korridorera barrotedun atea duen hori.
- Erregistro informatikoetan atxilotua “adingabea” dela jasotzen da. Hala ere, programa informatikoak ez du datuak kategoriatan horretan ustiatzeko aukerarik ematen. Adibidez, 2004an atxilotutako 230 lagunetatik zenbat ziren adingabeak jakin nahi badugu, datu bilaketa eskuz egin beharko dugu. Berdin gertatzen da atxilotua atzerritarra denean. Aztergai dugun kasuan, Arartekoak erregistro informatikoak ikusteko interesa zuen familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrei buruzko ikerketa egiten ari zelako eta, gainera, haientzako harrera zentrorik handiena (Zabalotxe) hain zuzen ere ertzain etxe honen eraginpeko eremuan dagoelako.
- Bestalde, adingabe baten erregistro informatikoak ez zuen zehatz erakusten hura non egon zen atxilotuta, existitzen ez zen zenbakia ageri zelako gelaren zenbakia jartzeko eremuan. Beharbada xehetasun hori jasorik gera liteke eta, beraz, berrikusi egin liteke atestatuan.
- Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen babesari dagokionez, interes handiko bi ekimenen berri eman zitzaigun:
  - inguruko udaltzaingoekin (batez ere Erandiokoarekin eta Leioakoarekin) koordinatzeko protokoloa ezartzea;
  - mehatxupean dauden emakumeen babes mailak hobetzea, EAE osorako plan orokorra edo neurri sorta ezarriz.

Azkenik, azpimarratu behar da, deigarria delako, ziegen eremuan instalatutako bideo-kameren sistema oraindik ez dela abian jarri ez irudiak grabatzeko, ez kontrolgunetik zuzeneko jarraipena egiteko (Arartekoak gomendioa eman zuen sistema hori erabiltzeko, atxilotuei tratu txarrik ematen ez zaiela bermatzeko elementua den aldetik).

### 3. Bilboko Udalaren atxilotegira egindako bisita

Atxilotegia Udaltzaingoak Garellanon duen egoitzako beheko solairuan dago eta argiztapen naturala du. Aparteko sarbidea ere badu, eta hori ona da, atxilotua poliziaren ibilgailutik zuzenean atxilotegira sartzen delako. Alabaina, eraikineko sarreran maila bat igo behar da eta beste eskailera-maila batzuk igo behar dira kanpoko atetik atxilotegiko sarrerarainoko bidean. Ez dago inolako baliabiderik ezintasun fisikoa duten pertsonen oztupo arkitektoniko horiek gainditu ahal ditzaten.

Ziegak, oro har, egokiak dira, eta bisita egin zen egunean garbi eta ondo zainduta zeuden.

Azpitarratu behar da, hala ere, banako zortzi geletatik lauk gomendatutako neurriak baino txikiagoak dituztela (gutxi gorabehera 4 metro karratu dituzte, eta 7 metro karratu inguruko azalera gomendatzen da). Gure solaskideen esanetan, gelek behar adinako neurriak izan ditzaten obra handiak egin behar dira eta ez dute uste zentzuzkoa denik orain horrelako obrak egitea, atxilotegia beste egoitza batera aldatuko delako bi urte barru edo.

Geletako argiztapena kanpotik kontrolatzen da, baina ezin da intentsitatea erregulatu, gure iritziz egin behar litzatekeen bezala.

Polizi arduradunek esan ziguten atxilotutako adingabeak gela txiki batean egoten direla; antza denez, gela hori elkarrizketa pribatua egiteko ere erabiltzen da.

Komunak egokiak dira eta bisita egin genuen egunean garbi eta ondo zainduta zeuden.

Ziegetako korridorean kamara finko batzuk daude. Bertan gertatzen dena ikusteko balio dute, ez irudiak grabatzeko.

Instalazioak laster lekualdatuko direnez, ohartarazi behar dugu egoitza berria eraikitzen denean hemen ikusi ditugun akatsak zuzendu egin behar direla eta kontuan hartu behar direla erakunde honek gaiari buruz egindako gomendioak, bai eta Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak Espainiako Gobernuari 1994. urtean egin zizkionak ere.

Elikadurari dagokionez, gure solaskideek esan ziguten ogitartekoa eman ohi zaiela atxilotuei, eta beti ere kultura bakoitzaren berezitasunak errespetatzen dituztela.

Gure iritziz, ogitartekoa eman daiteke atxiloaldia laburra denean. Atxiloaldia luzatzen bada, uste dugu egunean jaki beroez osatutako otordu bat eman behar zaiola atxilotutakoari.

Atxiloketaren inguruko praktikak gainbegiratze aldera, ausaz aukeratutako bi atxiloketaren erregistroak aztertu genituen, bai eta atxiloketa horien polizi atestatuak ere, eta atxiloketarako jarduketa-protokoloen zenbait alderdi arakatu genituen.

Ezin da ondorio orokorrik atera horren lagin txikia aztertuta. Dena dela, egin genuen kontrolaren bidez jakin ahal izan genuen atxiloketa horietariko batean, atxilotuari bere eskubideak irakurri zitzaizkiola agerrarazteko aktan hain zuzen, ez zirela jaso atxilotuari egozten zitzaizkion egintza zehatzak. Atestatuaren arabera atxilotuari ahoz egin zitzaion azalpenean, aldiz, bai, eman zitzaion informazioa alderdi horren gainean. Hala eta guztiz ere, Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 520. artikuluan arlo honetan ezartzen diren bermeak indartu egingo liriateke baldin eta aktan bertan idatziz jasoko balira atxiloketaren unean erruztatuari ahoz azaltzen zaizkion datuak.

Beste atxiloketan, berriz, eskubide-irakurketaren akta ez zegoen halakotzat ageri atestatuan. Atxilotuak atzerritarrak ziren eta interpretariaren laguntza behar izan omen zuten; hori zela eta, aktaren ordeztuak diligenzia bana egin zitzairen eta agiri horietan agerrarazi zen interesatuei euren eskubideak eta egozten zitzaizkien karguak azaldu zitzaizkiela interpretariaren bitartez. Gure iritziz, horrelako kasuetan ere idatziz jaso behar da atxilotuari bere eskubideak irakurri zaizkiola, ulertu egin dituela eta modu batera edo bestera erabili nahi dituela.



#### 4. Arartekoaren agiria torturaren prebentzioari buruz

Arartekoak torturari buruzko erakunde-deklarazioa argitaratu zuen 2004ko abenduaren 21ean.

Erakunde honen egitekoa herritarren eskubideak babestea da. Horregatik erakunde hau beti saiatu da, bere ahalmenen neurrian, torturaren aurkako borrokan laguntzen, tortura giza eskubideen urratze larria baita. Lan-ildo horri eutsiz, eta 2004. urtean zehar torturak eta bestelako tratu laidogarriak behin eta berriz salatzen zirela-eta kezkatu, erakundearen titular berriak bere jarrera aditzera ematea erabaki zuen.

Agiriaren hasieran tortura zertan den aztertzen da. Terrorismoaren agerpen guztien gaitzespen zorrotza eta berari aurka egiteko zilegi ez diren bideen erabilpenaren arbuioa gauza bateragarriak direla baieztatu ondoren, hauxe azpimarratzen da: tortura betiko ezabatze bidean aurrera egin nahi badugu, ezinbestez onartu behar dugu oraindik ere torturatu egiten dela agian. Ikuspegi horretatik, Arartekoak berezko duen eremuan egiten ditu bere proposamenak –hau da, praktika izugarri horren prebentzioaren eremuan–, baina horrez gain ohartarazi egiten du torturaren salaketa guztiak ikertu behar direla eta zigorra ezarri, giza duintasunaren eta sistema demokratikoaren oinarrien kontrako krimen hori egin dela egiaztatuz gero, eta ez dela ahaztu behar biktimei kalte-ordain egokia ematea.

Deklarazioari amaiera emateko –txosten honen II. eranskinean dago– Arartekoak nabarmendu egiten du botere publiko guztiek zalantzarik gabe eta gogotik parte hartu behar dutela torturaren aurkako borrokan. Agiria jendaurrean aurkeztu ondoren Arartekoak bilerak egin ditu Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburuarekin eta Gobernuak EAEn duen ordezkariarekin, torturaren aurkako borrokan parte har dezatela eskatzeko.

### 1.1.12. ZADORRAKO URTEGIETAKO URAREN KALITATEARI BURUZKO APARTEKO TXOSTENAREN JARRAIPENA

*Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegiatan izeneko ezohizko txostenean Arartekoak azaldu zituen ondorioen egoerari buruzko informazioa bildu genuen iaz. Horregatik, gai honetan eskumenak dituzten administrazioei informazioa eskatu genien.*

Igorritako dokumentazioa aztertuz, gure txostenean jasotako gomendioak zein mailatan bete diren ikusi dugu, urtegietao uraren kalitatea behar bezala babesteko neurriei eta tresnei buruzkoak.

- \* Lehen gomendioan, Zadorrao Urtegietao Arroa Babesteko Lurraldeko Plan Sektoriala idatzi beharra zegoela adierazi genuen, Zadorra sistemako urtegietao uraren kalitatearen arazoari aurre egiteko, arro osoa lurralde-erreferentzia gisa harturik.

Jakin dugunez, dagokien administrazioek ez dute oraingoz gai hau aztertu. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak (zehazki, Lurralde Antolaketako Zuzendaritzak) esan du tresna hori ez dela beharrezkoa, beste antolamendu tresna batzuk daudelako: Arabako Erdialdeko Lurralde Plan Partziala, edo Euskal Autonomi Erkidegoko Ibai eta Erreken Bazterrak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, esaterako. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritzak, bestalde, adierazi du urtegien aldea antolatzeko tresna berezi bat egiteko aukera dagoela.

Edonola ere, sail horrek adierazi duenez, lurralde antolamenduko zenbait planek Zadorraren sistemak erreferentzia gisa aintzat hartu dituzte euren eginkizunari ekitean.

Arro hau dagoen alde funtzionaleko –alegia, Araba Erdialdeko Alde Funtzionalako– Lurralde Plan Partzialak (abenduaen 28ko 277/2004 Dekretuz onetsia) Zadorrao urtegiak biltzen ditu espazio babestu eta naturalen barruan.

Planean, horrela, Zadorra sistemako urtegiak RA-6 ingurumen arauketan (espazio natural babestuak eta interes naturaleko aldeak) jasotzen ditu, lurraldearen kontserbazioa bermatzen duen erabilera iraunkor bati zuzendua. Espazio horiek Europako Batasunarentzat Interesgarri diren Lekuen zerrendan jaso dira, “Natura 2000” Sarean sartzeko, Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/CEE Zuzentarauak (habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoak) ezartzen duenaren arabera.

Halaber, Planak urtegiaren atzealdeak antolatzeko eta haien babesa eta kontserbazioa bermatzeko pautak biltzen ditu RA-5 ingurumen arauketan (hezeguneei buruzkoan). Zentzu honetan, Ullibarri-Ganboa urtegietao hegoaldeko atzealdeak nazioarteko garrantzia duten hezeguneeen zerrendan jasotzen dira, Ramsar-en 1971ko otsailaren 2ko hitzarmenari jarraiki, Ministroen Kontseiluaren 2002ko irailaren 27ko erabakiaren ondorioz (2002ko azaroaren 20ko EAO, 278. zk). Bestalde, planak adierazten du Aguraingo hiri garapen berrien barruan bereziki kontuan izango direla Zadorrao Urtegien Sistemaren inguruko isuriak, inguru horren kutsadura ekiditeko asmoz. Era berean, Zadorrao urtegiaren esparrua

erreferentziako esparru jotzen da, paisaiarako edo nekazaritzarako egiturazko ekintzak egiteko orduan.

Ibai eta Erreken Bazterren Lurraldeko Plan Sektoriala (Mediterraneoko isurialdean) abenduaren 28ko 455/1999 Dekretuz onetsi zen. Lurralde antolamenduko tresna honek 200 metroko zabalerako babes-perimetroa definitzen zuen, lakuen eta urmaelen gorengo mailatik edo urtegiaren maila arruntetik neurtuta. Babes-alde honi buruzko plan berezia idatzi behar zen, planaren zehaztapenak modu xehean garatzeko. Ordea, denbora luzea igaro den arren eta plan berezi hori erabilerak mugatzeko oso garrantzitsua den arren, oraindik ez da idatzi. Bestalde, Euskal Autonomi Erkidegoko Hezeguneen Lurraldeko Plan Sektorialak, uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuz behin betiko onetsia, Zadorrako urtegiak (Ullibarri-Ganboa, Urrunaga eta Albina) udaleko hezeguneen inbentarioaren barruan sartu ditu. Haien babes maila udal plangintzaren bidez finkatu behar da (III. Taldea). Araba Erdialdeko LPPan urtegien atzealdean babes maila handiena aipatu arren, Hezeguneen LPSak ez ditu beren beregi babes maila altuago batean sartzten (I. edo II. taldean). Zentzu horretan, hezegune horrek bestelako babes maila izan behar luke inbentarioan, Ramsar-en nazioarteko hezegunearen kalifikazioari egokituagoa.

- \* Arartekoaren beste gomendio batean azaldu zen Zadorra sistemako urtegien uraren kalitateari ikuspegi orokor batetik heldu behar zaiola, sektore askoren ikuspegitik eta koordinaturik. Planteamendu honi erantzunez, *Zadorra sistemako urtegiak babesteko mahai*a eratu zen. Mahai hau sortzeko, 1999ko maiatzean hitzarmena sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, urtegien arroko udalek, Amvisak, Bilbao-Bizkaiko Partzuergoak eta Iberdrolak. Zadorra sistemako urtegiak babesteko mahai hau gaian eskumenak dituzten administrazio eta erakundeen topagune gisa eratu da, dagoen informazioa trukatzeko eta jarduketak koordinatzeko.
- \* Ikuspegi materialetik, adierazi genuen gure ustez garrantzitsua litzatekeela pasabide biologiko naturalak sortzea, pertsonak sartzeko zailak, urtegien inguruan erriberako landaretza birlandatuz. Zentzu horretan, Arabako Foru Aldundiak erantzun digu jabari hidrauliko publikoko zona babesteko itxitura bat jarri dutela, hezegunearen perimetro ia osoan zehar. Horretarako, nekazaritza edo bizileku erabilerek ukitutako aldeak erabili dira, eta lurra eta landaretza garbitu eta lehengoratu dira. Esku hartze horietan, hondakinak kontrolik gabe isurtzen diren lekuak kendu dira eta inguruan askak eraikitzeke programa abiatu da, ganaduari ur hornidura alternatiboa eskaintzeko. Gainera, urtegiaren inguruan kanpaketa librea kontrolatzeko eta legez kanpoko eraikuntza eta asentamenduak eraisteko programa bat egin da. Aldundiak, halaber, jakinarazi digu landaretza-gerrikoa eta iragazki berdea sortzeko proiektua burutu duela urtegiaren gunerik ahulenetan.
- \* Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak, abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren bidez, Vitoria-Gasteizko Unitate Hidrogeologikoaren ekialdeko sektorea “zona kaltebera” izendatzea sustatu zuen, nekazaritza

datozen nitratoen kutsaduraren bidez kaltetu daitekeelakoan. Zona hori Ullibarriko urtegiaren inguruarekin mugakide da, baina aipatutako urtegiaren zona ez da beren beregi sartu izendapen horretan. Edonola ere, akuiferoek urtegitik datozen urekin erlazioa dutenez gero, haien nitratoen mailaren kontrolak zuzeneko eragina du sistemako uren kalitatearen kontrolean. Era berean, Euskal Autonomi Erkidegoko nekazaritzako praktika onen kodea onetsi zen. Praktika onen kodea ez da nahitaezkoa nekazariantzat, nahiz eta bertan jasotako neurriak administrazioaren arabera “zona kaltebera” diren zonetako jarduketa programetan sartu.

- \* Azkenik, Ebroko Konfederazio Hidrologikoak Ullibarri eta Urrunaga urtegiak zona sentsibleen zerrendan sartu ditu, uren kalitatearen jarraipena egiteko. Ondorio gisa, esan dezakegu administrazio eta erakunde eskudunek urtegitako uren kalitatearen kontrolean hobekuntza txiki bat izan dutela euren egoera trofikoari dagokionez. Zentzu honetan, aipagarriak dira Ullibarri eta Urrunaga urtegitako uren kalitatearen jarraipenari buruzko 2003ko abenduko azterlanak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak aurkeztuak, zona sentsible diren aldetik. Azterlan bien ondorioa da aintzira hauen potentzial ekologikoa ona dela, atzemandako mantenu gaien maila txikiak eta algen dentsitate eskasa direla bide.

### 1.1.13. EAEn PERTSONA EZGAIUAK LANERATZEARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

2003ko ekainean, Arartekoaren erakundeak ezohiko txosten bat aurkeztu zuen, EAEn ezgaitasunen bat duten pertsonen lanerako aukerak aztertzen zituena.

Lan publikoari dagokionez, txosten horretan hainbat iradokizun agertzen ziren, beti ere Arartekoaren erakunde honen urteroko txostenetan aldez aurretik agertzen ziren aurreko gomendio orokor batzuen haritik hasitako jarduketa ildoari jarraituz ("Gordetako kuota: pertsona ezgaituak EAEko enplegu publikora heltzeko sustapen neurria" – 2002ko txostena, VI. kapitulua).

Zorionez, Arartekoaren erakundeak egindako gomendioak islatu dira ezgaitasunen bat duten pertsonak EAEko lan merkatu arruntean sartzeko plangintzan\*, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ekimenez aurkeztutakoa.

Egia esan, plangintza honetan ondoko ekintza hauek aurreratu eta zehazten dira:

- \* *Ezgaitasunen bat duten pertsonen zuzendutako erreserba kuota % 4 handitu beharko da 25 pertsonako edo handik gorako enpresa publikoetan eta administrazioan, kolektibo honentzat, gutxien-gutxienik, lan eskaintza publikoetan eskainitako plazen % 10 gordez, betiere kuota kopurua lortzen ez den bitartean; era berean, eskainitako plazetako lan funtzionalen artean ahalik eta banaketarik orekatuena lortzeko ahaleginak egingo dira.*
- \* *Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako erreserben kopuruari buruzko irizpide bera aplikatuko da administrazioek, enpresa publikoek eta edozein kontratazioaren bitartez (lan poltsak, aldi baterako langileak, bitartekoak, lan legepekoak...) parte hartzen duten enpresek eskainitako plazen kasuan.*
- \* *Administrazioak ulertzeko edota adierazteko ezgaitasuna duten pertsonen eskainitako plazetara sartzeko baldintzak aldarazi behar izango ditu, betiere ezagupen akademikoari buruzko probak lanpostuaren zereginak betetzeko gaitasun proben ordez aldatzea ahalbideratuko duten baliabideak ezarri.*
- \* *Administrazio eskudunari eskatu behar izango zaio toki administrazioak eskainitako plazen baldintzak aldarazteko, betiere aurreko ekintzan ezarritako beharkizunen arabera.*
- \* *Administrazio publikoaren barruan ezgaitasunen bat duten pertsonen lanbide sustapenari eta garapenari laguntzen dioten irizpideak zehaztu eta prestakuntza nahiz laneratze neurriak ezarri behar izango dira.*

---

\* Plangintza hau eztabaidatu eta honen inguruan behin betiko ebatzi zen 2005eko otsailaren 7an izandako Lan eta Gizarte Ekintzako Parlamentu Batzordean.

Halaber, plan honetan ezarrita dago egitasmoaren garapenaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko zeregina eman zaion batzorde bat sortuko dela, zehaztutako helburuak betetzen diren ala ez begiratzeko.

Zalantzarik gabe, etorkizunean organo honen zereginak ahalbideratuko du EAeko administrazio publikoen konpromiso maila baloratzeko informazio egokia izatea, betiere plangintza horretan ezarritako ekintzak betetzeari dagokionez.

Alabaina, zuzeneko informazio iturri hori izan arte, erakunde honek aparteko txostenen jarraipena egiteko ohiko zereginari heldu dio.

Hori dela eta, EAEn ezgaitasunen bat duten pertsonen lan publikoaren errealtatea eraginkortasunez aztertu ahal izateko, bereziki erreserba kuota betetzeko mailari dagokionez, Arartekoaren erakunde honek EAeko administrazio publikoen lankidetzak eskatu du eta ondoren laburbiltzen diren datuak batzea lortu du:

## ADMINISTRATIOEK EMANDAKO DATUAK

### 1) TOKI ADMINISTRATIOAK

#### A- Vitoria-Gasteizko Udala

(2004ko ekainean emandako informazioa)

#### **Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Udal honetan 2.077 langiletarik % 33ko mailatik gorako ezgaitasunen bat duten pertsonak 28 baino ez dira. Azken 28 horietarik 26 karrerako funtzionarioak dira eta beste 2 bitarteko funtzionarioak.

Kopurua, beraz, % 1,3koa da.

#### Banaketa:

A taldea: 1

B taldea: 1

C taldea: 1

D taldea: 20

E taldea: 5

#### **Azken LEPari buruzko datuak** (2000ko LEP)

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txanda bitartez eskainitako plazak: 35 plaza.

Kuota: % 7,41.

Plaza beteak: 13 plaza (deitutako guztien % 37).

#### **Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Aldi Baterako Kontratazioko Zerrendak Kudeatzeko indarreko Araudiak ondorengo hauxe ezartzen du: *“ezgaitasunen bat duen langile bat ordeztu behar denean, kontratazio zerrendatik % 33ko edo handik gorako ezgaitasuna duen lehenengo hautagaia aukeratu behar izango da”*.

## **B- Donostiako Udala**

(2004ko apirilean emandako informazioa)

### **Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Udaleko langileen zerrendan ez dago erreserba kuotaren bitartez lanean sartu den inor.

### **Azken LEPei buruzko datuak (1994 eta 1995)**

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskaintako plazak: % 3ko legezko kuota.

Plaza beteak: batere ez.

### **Hurrengo LEP (2004ko LPE)**

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskaintzeko asmoa dagoen plaza kopurua: % 5.

### **Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Orain arte lan poltsak egitean, ez da erreserba kuotarik ezarri; zirkunstantzia hori hurrengo prozesuetan zuzentzeko asmoa dago.

## **C- Bilboko Udala**

(2004ko apirilean emandako informazioa)

### **Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Laneko Osasun eta Segurtasun Azpiarloak egindako txostenean adierazten da oso zaila dela ezgaitasunen bat duten langile guztiak identifikatzea. Edozein kasutan ere, ofizialki aintzatetsita edo aintzatetsita ez dauden karrerako funtzionarioen gaineko datuak ematen dira (13), bai eta ezgaitasun iraunkorra izan lezaketen funtzionarioei buruzko datuak ere (19).

Gainera, lehendabiziko 13ren gainean zehazten du 3 besterik ez direla sartu ezgaitasunen bat duten pertsonen zuzendutako erreserba txandaren bitartez.

Langileak, guztira, 2047 dira. Hori dela eta, ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonen kopurua (ofizialki aintzatetsita ez daudenak barne) % 0,63koa da.

### **Azken LEPei buruzko datuak**

Korporazioaren lan eskaintza guztietan % 3ko kopurua bete dela jakinarazi da, betiere gaitasun fisiko berezia eskatzen duten plaza deialdiak albo batera utzita (suhiltzaileak, udaltzainak, ambulanzietako langileak...).

Edozein kasutan ere, erreserba, gehienbat, menpekoei, administrari laguntzaileei eta administrazio orokorreko teknikariei dagozkien deialdietan gauzatu da.

*1998ko LEP*

Menpekoen plazen deialdia

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 2.

Plaza beteak: 1 (% 50).

Administrari laguntzaileen plazen deialdia

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 3.

Plaza beteak: 3 (% 100).

*2000ko LEP*

Administrazio orokorreko teknikarien plazen deialdia

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 1

Plaza beteak: batere ez (% 0).

**Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Gaur egun akordio negoziatu bat dago, eta, horren arioan, plazarik gabe gainditu zuten hautagaiek osaturiko lan poltsaren administrari laguntzaileen aldi baterako hamar kontratazioetarik bat modu honetara egiten da: puntuazio hurrenkeraren arabera hautaketa prozesu osoa gainditu ez zuen eta ezgaituen txandan zegoen hautagai baten aldi baterako kontratazioa bideratzen da. Akordio horri esker, pertsona bat kontratatua izan da.

**2) FORU ADMINISTRAZIOAK****A- Arabako Foru Aldundia**

(2003ko abenduan emandako informazioa)

**Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Banaketa:

A taldea: Administrazio berezia - 1

C taldea: Administrazio berezia - 2

D taldea: Administrazio berezia - 8

D taldea: Administrazio orokorra - 1 + 1 (borondatezko eszedentzia)

E taldea: Administrazio orokorra - 2

GUZTIRA: 16

Aintzatetsitako minusbaliotasun mailarik txikiena % 19koa da eta handiena % 55ekoa. Hiru kasu oraindik ere sailkatu behar dira.



Langileak, guztira, 931 dira. Hori dela eta, lanean diharduten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen kopurua % 1,71koa da.

### **Azken LEPar buruzko datuak (2001eko LEP)**

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 4 plaza.

Kuota: % 3,57.

#### Plazen zehaztapena:

A taldea: Administrazio berezia. Zerbitzu bereziak – 1

C taldea: Administrazio berezia. Teknikari laguntzailea – 1

D taldea: Administrazio orokorra. Laguntzailea – 1

E taldea: Administrazio orokorra. Menpekoa – 1

Plaza beteak: 3.

### **Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Honen inguruan ez da datu zehatzik eman.

## **B- Gipuzkoako Foru Aldundia**

(2004ko urtarrilean emandako informazioa)

### **Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

#### Banaketa:

A taldea: - 1

B taldea: - 2

C taldea: - 4

D taldea: - 3 (funtzionarioak)

D taldea: - 5 (lan legepekoak)

E taldea: - 2

GUZTIRA: 17

Gipuzkoako Foru Aldundiaren langileak, guztira, 1.726 dira. Hori dela eta, lanean diharduten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen kopurua % 0,98koa da.

Edozein modutan ere, azpimarratzekoa da emandako informazioa ez dela oso zehatza, benetako egoeraren berri izateko beharrezko jarraipen baliabideak falta direlako; izan ere, jakin badakite hainbat langilek ez dutela adierazi zein den egiatan aintzatetsita duten ezgaitasun maila.

### **Azken LEPar buruzko datuak (2001eko LEP)**

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 9 plaza.

Kuota: % 3,42.  
Plaza beteak: (batere ez).

Plazen zehaztapena:

A taldea: administrazio orokorra. Teknikaria – 1  
A taldea: arkitektoa – 1  
A taldea: ogasuneko goi teknikaria – 2  
B taldea: ogasuneko teknikari ertaina – 3  
B taldea: PFEZko teknikari ertaina – 1  
C taldea: delineatzailea – 1

**Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Zerrendak kudeatzeko irizpideen negoziazioa: aldi baterako kontratazioetan erreserba kopuruei buruzko irizpideak sartzeko asmoa.

**C- Bizkaiko Foru Aldundia**

(2003ko abenduan emandako informazioa)

**Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten duten 2.819 beharginetariko 66k ezgaitasunen bat dute. Kopurua, guztira, % 2,34koa da.

**Azken LEPari buruzko datuak (2002ko LEP)**

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 9 plaza.  
Kuota: % 4,45.  
Plaza beteak: 4.

Plazen zehaztapena:

B taldea: administrazio eta finantza kudeaketako teknikariak - 2  
B taldea: gizarte laguntzailea - 1  
C taldea: administrariak - 6

**Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Lan poltsak kudeatzeko irizpideak: kontratuen % 10 minusbaliatuen edota 45 urtetik gorako enata osatzen duten pertsonen eskaintzen zail txandak.

Horren ondorioz, 2002an eta 2003an 25 kontratu sinatu dira. Neurri honen berezitasuna hauxe da: pertsona hauek kontratatuak izateko aukera bikoitza dutela, zerrenda zehatzaren bitartez edo zerrenda orokorraren bidez.

### 3) EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRA

#### **A- Administrazio orokorra**

(2004ko otsailean emandako informazioa)

##### **Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Eskaturiko datuak ezin direla eman adierazi da, datu hori ez baita langileen erregistroan hartzen.

##### **Azken LEPari buruzko datuak (OPE 2000)**

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 23 plaza.

Kuota: % 3,06.

Plaza beteak: (ez da daturik eman. Edozein kasutan ere, bertan behera utzitako LEPa da).

##### **Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Ez da neurri zehatzik ezarri EAEko administrazio orokorrean aldi baterako zerbitzuak emateko langileen aukeraketari dagozkion irizpideen kasuan.

#### **B- Hezkuntza administrazioa**

(2004ko urtarrilean emandako informazioa)

##### **Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Eskaturiko datuak ezin direla eman adierazi da, datu hori ez baita langileen erregistroan hartzen.

##### **Azken LEPei buruzko datuak**

Hezkuntzako langileak (2002ko LEP): maisu-maistrak, lanbide heziketako irakasle teknikoak, bigarren hezkuntzako irakasleak eta hizkuntz eskola ofizialetako irakasleak.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 41 plaza.

Kuota: % 3,04.

Plaza beteak: (ez da daturik eman).

Heziketa bereziko lan legezpeko langileak (2002ko LEP), heziketa bereziko laguntzaileak, fisioterapeutak eta lanbide terapeutak

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 6 plaza.

Kuota: % 5,21.

Plaza beteak: (ez da daturik eman).

Garbiketa eta sukaldaritza arloko lan legepeko langileak (2001eko LEP)

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 5 plaza.

Kuota: % 2,99.

Plaza beteak: (ez da daturik eman).

### **Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Hezkuntzako langileak ordeztzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko jarraibideetan ez da neurri zehatzik ezartzen.

Bestelako kategorietan ez da daturik eman.

## **C- Osasun administrazioa**

(2003ko abenduan emandako informazioa)

### **Ezgaitasunen bat duten eta lanean diharduten pertsonak**

Emandako datuak langileek PFEZaren ondoreetarako egindako aitorenekin bat datoz, betiere Osakidetzaren erregistroen arabera.

Ehuneko 33tik 65era bitarteko ezgaitasun maila duten langileak: 102.

Ehuneko 33tik 65era bitarteko ezgaitasun maila duten langileak, laguntza eta guzti: 1.

Ehuneko 65etik gorako ezgaitasun maila duten langileak: 32.

Langileak guztira 22.404 inguru dira; horrenbestez, ezgaitasunen bat dutenak % 0,60 dira.

### **Azken LEPei buruzko datuak**

#### *1997ko LEP*

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 20 plaza.

Kuota: % 2,78.

Plaza beteak: 18 (% 90).

#### *2002ko LEP*

Ezgaitasunen bat duten pertsonen erreserba txandaren bitartez eskainitako plazak: 55 plaza.

Kuota: % 3,20.

Plaza beteak: aurreikuspenen arabera, 52 (% 94,54).

### **Aldi baterako edo bitarteko premiak**

Kontratazio zerrendak arautzeko sisteman ez da neurri zehatzik ezartzen.

## EMANDAKO DATUEI BURUZKO BALORAZIOA

### - EAEko administrazio publikoetan lanean diharduten eta ezgaitasunen bat duten pertsonen gaineko benetako daturik eza

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako lan publikoetara sartzeko aukera berdintasuna bultzatzeko ezarritako neurrien artean, azpimarratzekoa da lan publikoaren eskaintzetan % 33ko edo handik gorako ezgaitasun maila duten pertsonen zuzendutako erreserba kupo bat ezartzen dela.

Legeari egin berri zaizkion aldarazpenak gorabehera (ezgaituen lan publikoari buruzko abenduko 5/2003 Legea), neurri honek tradizio handia dauka administrazio publikoaren eremuan. Aurrekari modura ondorengoak aipa daitezke: uztailearen 28ko 23/1988 Legearen bitartez indarrean ezarritako Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurriari buruzko 30/1984 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarria eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailearen 6ko 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria.

Hori dela eta, nahiko harrigarria da kontsultaturiko administrazioetariko asko gauza ez izatea enplegaturiko minusbaliatuen kopuruaren gaineko datu fidagarriak ez emateko, batik bat lan publikoetara gordetako plazen kupoaren bitartez heldu diren pertsonak direnean.

Erakunde honen iritzi, informazio hau langileen datu base edo erregistroetan egon beharko litzateke, betiere izaera pertsonaleko datuak babesteko beharrezko neurri eta bermei kalterik egin gabe. Gure ustetan, erreserba kupoaz edo txandaz baliatu diren pertsona ezgaituak nahitaez erregistratu beharreko langile kolektiboa da.

Baina, gainera, administrazio publikoek bestelako informazio iturri batzuk dituzte euren zerbitzupuan lan egiten duten pertsona ezgaituen kopurua zein den jakin ahal izateko. Iturri horietariko bat da enplegu publikoetan sartzeko hautaketa probetan parte hartzen duten minusbaliatuen kopurua zein den jakitea, eskabide horietan ezgaitasuna egiaztatze beharrezko minusbaliotasun maila (% 33) justifikatu behar denean.

Beste alde batetik, ezin dira alde batera utzi denboraren poderioz sortutako ezgaitasun kasuak; izan ere, enplegu publikoetara sartzeko neurri positiboekin zuzeneko zerikusirik ez duten arren, behin gertatu eta zerbitzuei eragin eta gero, aintzakotzat hartu behar dira, langile hauei zuzendutako prestakuntzako beharrezko neurriak eta irisgarritasuna ezartzeko ekintzak aurrera eramanez.

Aipatu berri ditugun informazio iturriak egokiro tratatzea eta ustiatzea bitarteko bakarra da administrazioek euren zerbitzupuan dituzten pertsona ezgaituen kopurua zehazteko, plazak gordetzeko kuotak edo kupoak izan duen benetako eraginkortasuna aztertze eta, azken batean, legez ezarritako (% 2) edo gaur egun proposaturiko okupazio kopurueta (% 4) hurreratzeko maila baloratu ahal izateko.

Esandakoaren haritik, EAEko herri administrazioetan enplegaturiko pertsona minusbaliatuen kopuruari buruzko datu fidagarriak ez dagoenez gero, ezin dugula arazoituriko ondorioz atera, ezarritako kopuruaren betetze mailari dagokionez; edozein kasutan ere, dirudenez, oso urruti gaude legez ezarritako gutxieneko kopuruak lortzetik.

Beste alde batetik, gure ustetan, komenigarria da argitzea eta zehaztea, administrazio guztiek izan beharreko estrategia bateratu modura, zein izango den ezarritako okupazio kopuruaren betetze maila baloratzeko erabiliko den datua. Esan nahi baita, ea horretarako erreserba txanda edo kupoaren bitartez sarturiko pertsona ezgaituen datua

bakarrik erabiliko den edo ea datu hori zabalduko den denboraren poderioz sortutako pertsona ezgaituen kopuruarekin edo, erreserba txandaren bitartez sartu ez arren, % 33tik gorako minusbaliotasunagatik hautaketa probak egiteko egokitzapenak eskatu dituzten hautagai ezgaituen kopuruarekin.

### **- Erreserba kupoa: gutxieneko planteamendua**

Arartekoaren erakundeak ezgaitasunen bat duten pertsonak enplegu publikoetara sartzeko gaiaren inguruan izandako jarduketaren arrazoia hauxe da: helburu horretarako ezarritako neurriek izan duten eraginkortasun urria.

Gure iritziz, eraginkortasun txiki horren zergatia, neurri handi batean, EAEko administrazio publikoek arlo honetan izandako planteamendu eskasa izan da, bereziki plazak gorde edo erreserbatzeko neurriari dagokionez. Horren kariaz, behin eta berriz adierazi dugu ezgaitasunen bat duten pertsonen gordetako plaza kuota edo kupoa handitu beharra dagoela.

Zoritzarrez, administrazioek emandako datuek uste hori egiaztatu baino ez dute egiten. Egia esan, kontsultaturiko euskal administrazio ia guztiek –salbuespenak salbuespen, adibidez Vitoria-Gasteizko Udala– adierazi dute orain arte lege ezarritako gutxieneko kopurua baino ez dutela bete (deitutako plaza guztien % 3), betiere Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egindako Pertsona Ezgaituak Integratzeko Plangintzak etorkizuneko ekintza modura azaltzen duen % 10eko kopurutik oso urruti.

Horregatik, ageri-agerian dago aspaldi egindako gomendioari eutsi behar zaiola, baina oraingoan Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren ekimenez aurkeztutako plangintza berriak jasotzen duen proposamen berria horren barruan sartuz.

### **- Erreserba kupoa: eraginkortasun urria**

Aurreko jarduketetan zehaztu dugu, alde batetik, erreserba kuota edo kupo horrek izan duen eraginkortasun eskasak pertsona ezgaituentzako erreserbak berak benetako edukirik ez edukitzearen susmoa sortu duela. Izan ere, beharrezko egokitzapenik ez egotearen ondorioz (ez bakarrik proben konfigurazioan, baizik eta baliabide eta denboraren egokitzapenean, prozesua gainditzeko atalase desberdinetan eta abarretan ere) gordetako txandako hautagaiek gainerako hautagaien zatiaz ezarritako maila gainditu behar dute.

Administrazioek berriro ere emandako datuek egiaztatzen dituzte, neurri handi batean, Arartekoaren erakunde honek zituen susmoak. Egia esan, erreserba txanda horren bitartez deitutako plazak betetzeko emandako informazioei buruzko kopuruek (Vitoria-Gasteizko Udala: % 37; Donostiako Udala: % 0; Gipuzkoako Foru Aldundia: % 0) argi eta garbi erakusten dute erreserba kupo batek eta kuota horren barruan inplizituki dauden neurri positiboek benetan dakartena birdefinitzeko premia.

Hausnarketa honen ildotik, gure esperientziak erakusten digu nahasmen handia dagoela honen inguruan. Hautaketa proba batzuen deialdiek beren beregi jasotzen dute partaidetza txandaren izaera baztertzaila, partaidetza bikoitzaren aukera ukatuz. Edozein kasutan ere, aldi berean, ez dute bestelako egokitzapen neurriak sartzen uzten; horren ondorioz, ezgaituen txanda plazen erreserba hutsa besterik ez dela esan daiteke, horixe

baita daukan eraginkortasun bakarra. Horrela bada, ez da harritzekoa beste deialdi batzuek mugarik ez ezartzea parte hartzeko aukerei dagokienez; hala, ezgaitasunen bat duten eta plazen erreserbaren abantailaz ezin balia daitezkeen hautagaiei uzten diete hautagai libreakin batera lehiatzen.

Erakunde honen ustetan, behar-beharrezkoa da azken urteotan eskuraturiko esperientziari esker argitzea noraino hel daitezkeen egokitzapen neurriak (beharbada, deitutako plazen ezaugarrien arabera), betiere partaidetza baldintzak, aldi berean, modu arrazoituari erregulatu ahal izateko.

### **- Erreserba kupoa: plazen banaketa**

Arartekoaren erakundeak ikusi du erreserba kupoa ez dela modu orokorrean aplikatzen; horren ondorioz, ohartarazi du, zenbait kasutan, ez dela hainbat kidego eta kategoriatako plazen erreserba babestu.

Administrazioek emandako datuak berriro ere oso argigarriak dira, nahiko urriak izanagatik ere. Egia esan, baieztatu daitezke EAEko administrazio publikoek orokorrean gordetako plazak, gehienbat, titulazio txikiagoko talde edo kategoriei dagozkien plazak direla.

Puntu honetara iritsita, datu zehatzagorik ez dugunez gero, ezin dugu zehaztu ea talde eta kategorien arabera gordetako plazen kopuruari dagozkion desberdintasun horiek islatzen dituzten ala ez kidego bakoitzean langile kopuru osoaren aldean diren desberdintasunak edo ea nahita, gurata eta apropos bultzatu nahi den ezgaitasunen bat duten enplegatuak plaza mota batzuetan biltzea.

Erakunde honen iritziz, garrantzitsuena hau da: erreserba kupoa ez dela automatikoki erabili behar, nahi ez diren emaitza edo helburu batzuk lortzeko; aitzitik, administrazioek horren aplikazioa molda dezakete kuota horren eraginkortasuna sustatzeko eta hala horren etekinak nahiz onurak enplegatuen talde eta kategoria guztietara zabaltzeko.

### **- Aldi baterako edo bitarteko premiak**

2002ko gomendio orokorrean esan genuen bezala, erreserba kupoak izan dezakeen eraginkortasun urria izan daitezke aldi baterako enpleguaren kasuan modu orokorrean aplikatzen ez delako. Horregatik, berriro ere defendatu eta aldeztu behar da erreserba kupo edo kuota honen aplikazio orokorra. Edozein kasutan ere, administrazio publikoen eremuan aldi baterako lanak duen garrantzia ikusirik, gure ustez, gai hori bereiz jorratu beharra dago. Hori dela eta, gai honi buruzko datu zehatzak eskatu ditugula aipatu beharra dago.

Horrenbestez, administrazioek emandako datuetan, erakunde honen aburuz, azpimarratu beharra dago Bizkaiko Foru Aldundiak kontratazio poltsak kudeatzeko hartutako erabakia; izan ere, horren arabera, ezgaitasunen bat duten pertsonen zuzendutako kontratuak % 10 izango dira, hori guztiak txandaka egin arren. Horri jarraituz, aipa dezakegu Bilboko Udalarekin lortutako akordioa, nahiz eta administrari laguntzaileen kontrataziora mugatu. Bi akordioak plangintzan jasotako proposamenen ildokoak direla esan daitezke.

Alderdi negatibo gisa, nabarmentzekoa da erreferentzia izango beharko liratekeen administrazioen aldetiko ekimen falta (gutxien-gutxienez ekimen horiek ez dira zehaz-

ten); izan ere, haien neurria eta dimentsioa dela eta, oso administrazio garrantzitsuak dira, esate baterako EAEko administrazio orokorra, batez ere hain esanguratsuak diren hezkuntza eta osasun arloetan.

## **IRADOKIZUN EDOTA PROPOSAMEN BERRIAK**

Erakunde honen ustez, EAEko administrazio publikoek etorkizuneko jarduketa estrategiak ezarri eta diseinatu behar dituzte, EAEko lan merkatu arruntan pertsona ezgaituak sartzeko planak ezartzen dituen gutxieneko berrietatik abiatuta; izan ere, plangintza hori Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren ekimenez aurkeztu da eta horren arabera guztira enplegatutako pertsona minusbaliatuen kopurua % 4koa izan beharko litzateke.

Horretarako, plan horrek adierazitako proposamenei jarraituz, EAEko administrazioek ondorengo egin behar dute:

- \* Plazen erreserba kupoa handitu behar izango dute, % 10eko kopurura hel dadin.
- \* Horren aplikazioa edozein kontrataziotara zabaldu beharko litzateke, batez ere aldi baterako lanera, ordezen poltsak edo zerrendak kudeatzeko jarraibideetan beren beregi ezarriz.
- \* Talde eta kategorien arabera banaketa ordenatua eta orekatua lortzea, sustapen neurri hau ezgaitasunen bat duten pertsona kopururik handienera helarazteko asmoz.
- \* Pertsona minusbaliatuak enplegu publikoetara sartzeko bultzatzen duten neurri positiboak bizkortzea, egin litezkeen moldaketei benetako edukia emanaz, plazen erreserba hutsetik haratago.

Funtsean 2002. urteko txostenean aipatu eta azaldutako iradokizun berberak diren arren (“Gordetako kuota: pertsona ezgaituak EAEko enplegu publikora heltzeko sustapen neurria” – 2002ko txostena, VI. kapitulua), oraingoan egoki iritzi diogu horien edukia zehazteari, betiere EAEko lan merkatu arruntan pertsona ezgaituak sartzeko planak ezarritako proposamenei arabera.

Azkenik, aipatu nahi dugu administraziook ezgaitasunen bat duten enplegatuei buruzko datuen jarraipen eta tratamendu sistema bat ezartzeko komenigarritasuna gure gain hartu behar dugula, ekintza edo jarduketa modura proposaturiko ekimenei egiazko betetze maila zein den jakin ahal izateko.



### 1.1.14. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERABILERA PUBLIKOA DUTEN ERAIKINEN IRISGARITASUNARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

Europako Minusbaliatuen urtean, *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna* izeneko txostena egin zen eta 2003ko irailaren 24an Eusko Legebiltzarrera helarazi zen.

Txostenak irisgarritasunaren aldeko ekimen publikoak aztertzea zuen helburu, irisgarritasuna bultzatzeko 1997ko abenduaren 4ko Legea indarrean sartuz geroztik eta bereziki legea garatzen duen 2000ko apirilaren 11ko 68 Dekretuaren III. eranskinna, eraikinetarako irisgarritasunari buruzko arau teknikoak zehazten dituen indarrean sartuz geroztik.

Azterketa horrekin administrazio publikoek –Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalak– gai honen inguruan hartutako konpromisoa neurtu nahi genuen eta indarrean dagoen araudiko aginduak betetzen zituzten ikusi.

Azterlanerako metodologiaren muina 95 puntuko galdesorta bat zen, eta Erki degoko udal guztietara bidali zen. Zehatz esateko, 250 udaletara bidali zen eta 151k erantzun zuten, EAeko biztanleen %77 biltzen dituztenek, hain zuzen.

Erantzun ez zuten udal gehienak 5.000 biztanletik beherakoak ziren, batez ere 1.000 biztanle baino gutxiagokoak.

Dena dela, Arartekoaren erakundearen ustez parte ez hartzea arbuigarria zen, batez ere 10.000 biztanle baino gehiagoko udalen kasuan.

Horregatik, txostenean aipatu egin zen haserre hori eta udal horiek negatiboki azpimarratu ziren lankidetzan aritu ez zirelako. Era berean, txostenaren osagarri gisa udalerririk bakoitzean ofiziozko jarduketak hasiko zirela adierazi zitzaizkien; horren bidez, erabilera publikoko eraikin, instalazio eta zerbitzuen irisgarritasuna nolakoa zen egiaztatuko zen.

2003 amaieran eman zitzaizkien hasiera zegoen espedienteei eta honako udalerrietara berriro bidali genuen galdesorta: Getxo, Portugalete, Arrigorriaga, Azkoitia, Galdakao, Lasarte-Oria, Laudio, Mungia, Ondarroa, Pasaia, Errenteria eta Zarautz.

2004ko ekitaldi honetan erakunde horiek behar bezala beteta bidali dizkigute galdesortak eta horri esker balio handiko informazioa dugu erabilera publikoko eraikinen gaur egungo irisgarritasunari buruz, baita udalerririk bakoitzean aurreikuspenei buruz ere.

Jasotako informazio azpimarragarriena aipatu aurretik, esan beharra dago erakunde honek bidalitako galdesortetan irisgarritasunerako lau urterako programarik ez zutela eta epe motzean izaterik ez zutela aurreikusten adierazi zutela udal batzuek eta horien jarraipena egitea erabaki zela.

Gure Erkidegoan indarrean dauden arauak abenduaren 4ko 20/1997 Legeak –Irisgarritasuna bultzatzekoak– eta hura garatzeko eman diren bi dekretuek zehazten dute.

Ikuspuntu kontzeptualetik esan behar da araua aurrerakoa dela, oinarrian berdintasunaren printzipioarekin batera gizaki guztien aniztasunaren eta eskubideen defentsa baita. Helburuak kontuan hartuta, irisgarritasunaren alorrean araudiak eskaintzen duen berme eta babes maila nahiko altua da. Ikuspegi horretatik, eta irisgarritasuna

bultzatu nahian, legeak zenbait tresna zehazten ditu Euskadiko administrazio publiko guztiak baliatu beharrekoak: kuoten erreserbak, lau urterako programak eta sustapenerako politikak.

Irisgarritasunaren lau urterako programa da, hain zuzen, hirietan, eremu publikoetan, eraikinetan, garraioetan eta herritarrek erabiltzeko eta herritarren zerbitzura dauden informazio eta komunikazio sistemetan irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko legeak diseinatu zuen oinarritzko tresna. Programa horren bidez, administrazio guztiak eta bestelako erakunde publikoek honakoa egin behar dute: egoera diagnostikatu eta egokitu beharreko eremuen, eraikinen, garraioen eta komunikazioen inbentarioa egin; lehenetsunaren arabera sailkatu eraginkortasun handienekoak eta jenderik gehien ibiltzen denak kontuan hartuta; programa ekonomiko finantzarioa eta egokitzapenak burutzeko egutegia onartu.

Baina txosten bereziko ondorioetan ikusi genuenez, administrazio eta erakunde publiko guztiak lau urterako lehenbiziko programa egiteko legeak jarritako epea igarota egon arren (1999ko abenduaren 24a), inkestari erantzun zioten udaletatik 7k baino ez zuten bete legeak esandakoa: Amurrio, Azpeitia, Eskoriatza, Getaria, Gueñes, Orrio eta Urretxu.

Datu honez gain beste bi datu kezagarri ere aipatu beharra dago: inkestari erantzundako udalen %63k ez zuen irisgarritasun planik egiteko asmorik, legeak hala agintzen zuen arren. Horrez gain, 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako batek ere ez zuen artean programa behin betiko onartu, ezta hiru hiriburuek ere.

Arabako eta Gipuzkoako aldundiek zenbait ekimen burutu zituzten euren lokalak aztertu eta egokitzeko, nahiz eta hiru aldundietako batek ere ez zuen lau urterako programarik.

Administrazio autonomikoak ere ez zuen irisgarritasuna sustatzeko lau urterako planik sail guztietara zabaltzeko modukorik.

Benetako irisgarritasun planik ez eduki arren, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak –Jaurlaritzaren eraikin guztiak kudeatzeko ardura duenak– eraikin guztien segimendu orokorra egin zuen eta 20/1997 Legeak zehaztutako baldintzetara egokitu zituen gehienak.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak lau urterako daukan irisgarritasun plan bakarra Herrizaingo Sailak taxututakoa da.

Horregatik guztiagatik, erakunde honen iritziak egokia zen legeak agindutako hori betetzeko beharra azpimarratzea; horrela, bada, Eusko Jaurlaritzako sailera, hiru aldundietara eta lau urterako programarik ez zutela adierazi ziguten 10.000 biztanle baino gehiagoko udaletara zuzendu ginen.

**Eusko Jaurlaritzako** sailen jarduketari dagokionez, zerbitzu publikoak eskaintzeko eraikin propioak dituzten sailek igorritako informazioa aipatuko dugu nagusiki.

**Garraio eta Herri Lan Sailak** jakinarazi zigunez, indarrean zegoen legedia egokitzeari buruzko azterketa bat egiten ari zen, Euskal Autonomia Erkidegoko bidaiari garraioen irisgarritasuna ikusteko.

Horrez gain, tren eta autobus geltokien, igogailu publikoen eta funikularren egoera eta gure Erkidegoan egokituta dagoen taxi eta aparkaleku kopurua aztertzeke, ROBOTIKER enpresa behar zuen informazioa jasotzen ari zen garraioan irisgarritasuna sustatzeko lau urterako lehenbiziko plana diseinatu eta ezartzeko.

Horri dagokionez, plan hori egin dela esan behar da eta hemendik gutxira hartuko dira gauzatzeko behar diren neurriak.

**Osakidetzak** adierazi zигun Zuzendaritza Nagusiak 2004. urterako azterketaren prestaketa lehiaketara ateratzea erabaki zuela. Esaten zигun eskainiko ziren irisgarritasun planetan eraikinek gaur egun duten egoeraren diagnostikoa egingo zela, baita eraikinek, kanpoko eremuek eta komunikazioek zituzten egokitze premien inbentarioa ere, eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko burutu beharreko jarduketek zerrenda ere bai, lau urterako programetan banatuta, lehentasunen eta aukera ekonomikoen arabera.

Txosten hau itxi denean ez dugu irisgarritasun plan horiek egin diren ziurtasunik.

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak** honako txostena igorri zигun eta irisgarritasuna sustatzeko egiten zituen jarduketek berri eman ere bai:

*“1) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren, hezkuntza administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzen duen Aginduaren bidez. Agindu horren 1. artikulua c) atalaren arabera finantzaketa gai diren obrak IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO abenduaren 4ko 20/1997 Legea betetzera bideratutakoak izango dira.*

*Agindu honetako diru-laguntzetarako 5.061.390 euro erabiliko dira.*

*2) Publikoak diren edo/eta udal titulartasunpeko ikastetxeetan, ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEKO ETA IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA betetzeko, beharrezkoak diren berritze lanak eginez, lehentasuna, elbarritasunen bat duen ikasleak dauden, edo egotea aurreikusita dagoen, ikastetxeei emanez.*

*3) Proiektuetan IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA betetzea exijituz eta eraikuntza berriko obrak egiterakoan legea ezarriz.*

*Azken urteetan, ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEKO ETA IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LEGEA betetzeko beharrezko obrak egiteak, eraikuntzen kapituloari esleitutako aurrekontuaren % 35a suposatzen du gutxi gorabehera...”*

Beste alde batetik, **Ogasun eta Herri Administrazio Sailak** sustatu zituen jarduketek berri eman zигun. Diru-laguntzen deialdien bidez, irisgarritasuna sustatzeko programak egin ziren.

Toki erakundeentzako 2.000.008 euroko diru-laguntzak aurreikusi ziren azkeneko deialdian. Gaineratu zигun EAEko 166 udalek lortu zituztela programa horiek egiteko diru-laguntzak eta ondorengo ekitaldietan berdін jarraitzea aurreikusten zutela, aurrekontu orokorretako kopuru handi bat horretarako erabilita.

**Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak**, aldiz, adierazi zigun erakunde publiko gisa eraikinik edo ikustera joan zitekeen beste baliabiderik ez zuen arren, irisgarritasuna sustatzearekin lotutako beste neurri batzuk bazituela. Batetik, hotelen ordenazioari buruzko araudiak irisgarritasun araua bete zezan saiatzen ziren, eta, bestetik, hiritar guztiek EAeko turismo eskaintza guztietara sarbidea izatea sustatzen zuten neurriak ezartzen zituzten.

Laguntza ildo hori 1996az geroztik dago indarrean eta honakoak izan daitezke onuradunak: udalak, mankomunitateak, irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatu edo publikoak, eta turismo enpresa txikiak nahiz ertainak.

**Foru Aldundiak** emandako informazioari dagokionez, irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezarritako lau urterako programa egiteko agindua betetzeari buruz honakoa adieraz dezakegu:

**Gipuzkoako Aldundiak** adierazi zigun irisgarritasuna sustatzeko zenbait lan egin zen arren –foru departamenduek gai horrekin lotuta egin zituzten jarduketak zehatz ageri ziren txosten zabala igorri zigun–, ez zuela lau urterako programa zehatzik formalki onartuta. Adierazi ziguten gobernu talde berriaren nahia zela ahalik eta eperik laburrenean programa hori landu, onartu eta abian jartzea, eta Lurralde Antolaketa eta Sustapen Sailari agindu zitzaiola horretarako behar ziren lanak koordinatzeko.

Dena dela, aipatzea merezi du Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako lurralde historikoko Ezgaitasun Plan Estrategikoa onartu duela 2004an. Plan horretan muga indibidualak konpentsatzera zuzendutako neurriak eta gizarteko inguruak hobetzekoak jaso dira. Mugak konpentsatzeko babes teknikoak, pertsonalak eta sozialak erabiliko dira, eta gizarteko inguruak hobetzeko, berriz, oztopoak kenduko dira eta ezgaitasunen bat duten pertsonen eskura jarriko dira gizarteratzea errazteko baliabideak eta programak. Gainera, irailaren 14ko 79/2004 Foru Dekretuaren bidez, Foru Aldundiko Departamentu arteko Ezgaitasun Batzordea sortu da, beharreko jardueren aholkularitza eman, koordinazioa egin, kontrola eraman eta jarduera horiek sustatzeko foroa izan dadin. Foro horretan egongo dira ezgaitasuna duten pertsonen mesedetan lanean aritzen diren foru administrazioko organoak ere.

Era berean, **Bizkaiko Foru Aldundiak** adierazi zigun irisgarritasunaren alorrean dituen eskumenen arabera irisgarritasuna bultzatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta hura garatzen duen araudia, batez ere eraikinetarako irisgarritasunari buruzko arau teknikoak zehazten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskina, indarrean jarri zirenetik, 2004ko urtarrilaren 20ko gobernu batzordean onartu zuela irisgarritasuna sustatzeko Sailen arteko Batzordea sortzeko akordio proposamena.

Batzorde horren ardura da bere lurralde eta eskumen eremuetan irisgarritasuna sustatzea eta bultzatzea.

Kontuan izan behar da, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak bere eraikinak egokitzeko ardura duela. Adierazi ziguten kasu batzuetan egokitzeko ahalegin tekniko eta ekonomiko handia egin beharra zegoela, Aldundiaren ondare arkitektonikoa zaharra zenez, eta mugitzeko zailtasunak zituzten pertsonak eraikin horietara sartzeko ezinezkoa zela; hori zela eta, pixkanaka ekin zioten lanari.

Azkenik adierazi ziguten udal harremanetarako eta hirigintzako foru diputatua Bizkaiko udal guztiei zuzendu zela irisgarritasuna sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea gogorarazteko.

**Arabako Foru Aldundiak** adierazi zigun 20/1997 Legea eta hura garatzen zuten dekretuak indarrean jarri zirenetik etengabeko kezka izan zela zituzten eraikinetan ahalik eta ongien egokitzea. Esan ziguten eraikin administratiboetako ia inon ere ez zegoela oztupo arkitektonikorik, lege hori kaleratu aurretik ere.

Igorri ziguten txostenean gaineratzen zenez, eraikin berri guztietan egin ziren obrak, lanera edo ikustera joaten zen edonor inolako trabarik gabe sartu ahal izateko: egoitza geriatrikoetan (Laudio, Vitoria-Gasteiz), museoetan (Arte Ederrak, Artium, Natur Zientziak, etab.), eraikin berezietan (Lazarraga jauregia Zaldudon, Fernando Buesa Arena pabiloia...), edo gehien erabiltzen ziren administrazio eraikinetan (Probintzia plazako bulego teknikoak, Foru Ogasunaren eraikina).

Jakinarazten zenez, Probintziako jauregiko sarrerak ere birmoldatu egin zituzten oztoporik egon ez zedin eta nola Arabako Batzar Orokorrek hala batzar aretoak sarbide eta aulki bereziak izan zituzten muga fisikoak dituztenentzat.

Baina, dena dela, honakoa adierazten zen: *“oraindik ere egiteko asko dago gure eraikin eta eremu publiko guztietan berdintasuna lortu arte; horretan laguntzeko, eremu publikoetako irisgarritasunerako berariazko diru-laguntza programa bat jarri dugu abian, eta 2004ko ekitaldi honetan 450.759, 08 eurokoa izango da.”*

Azkenik, zioten 2004an foru higiezin guztien inbentario zehatza egitea aurreikusten zutela, 278 higiezin guztira, 20/1997 Legea zehatz betetzeko asmoz.

Kontsultatutako udalek aurrera eramandako ekimenei dagokienez, egokia iruditu zaigu honako sailkapena egitea eman diguten informazioaren arabera:

- 1 Lau urterako programa duten udalak: Arrasate, Azkoitia, Donostia-San Sebastián, Elgoibar, Laudio, Mungia, Oñati, Pasaia, Santurtzi eta Valle de Trápaga-Trapagaran.
- 2 Lau urterako programa onartzeko duten udalak: Arrigorriaga, Beasain, Bergara, Erandio, Portugalete, Errenteria eta Sestao.
- 3 Lau urterako programa egiteko agindu duten udalak: Amorebieta-Etxano, Bilbao, Hernani, Ondarroa eta Vitoria-Gasteiz.
- 4 Lau urterako programa egiteko laguntza eskatu duten udalak: Barakaldo, Basauri, Ermua eta Gernika.
- 5 Lau urterako programa duela gutxi adostu duten udalak: Andoain, Eibar, Galdakao, Lasarte-Oria, Irun, Sopela, Zarautz eta Zumarraga.

Nola Donostiako Udalak hala Bilbokoak eta Vitoria-Gasteizkoak Irisgarritasunerako Plan Zuzentzailea egitea erabaki dute. Dokumentu hori jarduketarako lehentasun eta irizpide batzuk ezartzen saiatuko da eremu publikoetan, eraikinetan, garraioan eta komunikazio sentsorialean, pertsona guztien irisgarritasuna errazteko. Dena dela, Plan Zuzentzaile horiek Plan Berezien egitura izango duten plan operatiboen bidez zehaztu beharko dira jarduketara eremu batzuetan.

Erakunde honek orain arte dakien bakarra da, Donostiako Irisgarritasunerako Plan Zuzentzailea besterik ez dela onartu.

Ondorio gisa, hasteko, gustura gaudela esan behar, 2003ko irailean EAEn erabilerera publikoa duten eraikinen irisgarritasunari buruzko txosten berezia argitaratu zenetik kontsultatutako ia administrazio publiko guztiek hartu baitute neurriren bat irisgarritasunari buruzko lau urterako programa egiteko. Programa hori funtsezko tresna da administrazio eta erakunde publiko guztientzat, egoeraren diagnostikoa egiteko; izan ere, zerrendatutako egokitze arazoak konpontzeko behar diren jarduketa planak ezarri ahal izango baitira horren bidez.

Zentzu horretan Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila udalen eskariak erantzun ezinda ibili da, udal asko eta asko izan baitira lau urterako programak egiteko diru-laguntza deialdiei buruzko eskaerak egin dituztenak.

Bigarrenik, datu deigarri bat aipatu nahi dugu: udal askok ez du irisgarritasun planik onartu oraindik, ez baitu hori burutzeko behar adinako aurrekonturik.

Hori horrela, administrazio publikoek irisgarritasuna izan behar dute euren jarduketa politikako lehentasunetako bat, eta jarritako helburuak betetzeko behar diren sustapen neurriak ezarri beharko dituzte.

Egokia litzateke administrazioen artean funtzio banaketa garbiagoa egotea, horren bidez intereseko neurriak diruz lagunduta egongo bailirateke beti, beste batzuek laguntza asko pilatu arren. Bereziki beharrezkoa da gai hori garbi izatea udalei obrak egiteko eta irisgarritasuna sustatzeko udal programak idazteko laguntzei dagokienez.

Azkenik, adierazi nahi dugu txosten berezian argi gelditu zela udal eraikinetako, foru aldundien berezko zerbitzuetako eta administrazio orokorreko eraikinetako irisgarritasuna egokia izatetik oso urrun zegoela.

Horregatik, eskudun administrazioek erabilerera publikoko eraikinak egokitzeko egingo dituzten jarduketan jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du erakunde honek hurrengo ekitaldietan, eta hezkuntza eta osasun zentroetan hasiko da.

Txostenean egindako diagnostikoan ikusi zenez, hezkuntza –nola bigarren hezkuntza hala lanbide heziketa eta unibertsitatea– eta osasun arloko egoera zen kezkarriena.

Horren zergatietako bat da bigarren hezkuntzako sarea eta, hein txikiagoan Osakidetza, eraikin zaharretan egituratuta egotea, zenbaitetan beste erabileraren baterako eraikitakoetan. Hala ere, egia da higiezin horiek egokitzeko behar adinako ahaleginik ez dela egin, jasotakoa ez da konpentsatu, beraz.

### 1.1.15. **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI ERAKUNDEEK EMANDAKO ERANTZUNA EAEn IZENEKO TXOSTENAREN JARRAIPENA**

2003. urtearen amaieran, genero-indarkeria pairatu duten emakumeei autonomia erkidego honetako erakundeek emandako erantzunari buruzko ezohiko txostena argitaratu zen. Ararteko erakundearen txosten hori 2004ko urtarrilaren 29an Eusko Legebiltzarreko buruari eman eta jendaurrean azaldu zen; era berean, urte horretako otsailaren 24an, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aztertzeko aurkeztu zen.

Izenburuak berak dioen bezala, txostenak ez du indarkeria sexistaren fenomenoaz aztertzen; aldiz, horrek dakarren giza eskubideen urratze larriaren kontrako borrokan botere publikoek duten erantzukizuna euren gain hartzeko beharra oinarri hartuta, erakundeek tratu txarrak pairatu dituzten eta nolabaiteko aholku edo babes eskatu duten emakumeei ematen dieten arreta aztertzen du.

Laburbilduz, erakundeek emakume horien beharrizanei emandako erantzuna zenbatetsi nahi izan da eta, ondorioz, administrazio-egituren egokitzapena eta genero-indarkeriako egoerez arduratzeko berariazko baliabideak hobetzeko proposamenak definitu.

Txostena egiteko egon diren muga eta zailtasunak gorabehera –besteak beste, laguntza jaso duten emakumeen ikuspegia biltzeko–, horri esker hainbat alderdi urri edo hobetzeko behar antzeman ahal izan dira. Hona hemen, honako hamar puntu hauetan laburbilduta:

- 1) Ez dago beharrei eta arazoaren larritasunari doitutako erantzun planifikaturik, arreta osorik.
- 2) Ez dago nahikoa datu errealitatea doi-doi ezagutzeko.
- 3) Laguntza eskaintzeko orduan, alde garrantzitsuak daude toki batzuen eta besteetan artean.
- 4) Badira aparteko ahultasun-egoeran dauden emakumeen taldeak, baina ez daukate zerbitzu batzuk erabiltzeko aukerarik.
- 5) Etxeratze baliabide asko ez dira egokiak eta ez dituzte segurtasun baldintzak betetzen.
- 6) Programak erabiltzeko mugak.
- 7) Itxaroteko zerrendak daude.
- 8) Koordinazio-bideak ahulak dira edo udalerrian ez dago ekintza koordinatuak gauzatzeko protokolorik.
- 9) Badira oraindik bete gabeko beharrak, kaltetutako emakumeen balioztapen eta proposamenen arabera.
- 10) Ez dira nahikoa tratu txarrak jasan dituzten emakumeen segurtasuna bermatzeko babes-neurriak.

Azterlan horren arabera, txostenean 29 gomendio egin dira, multzo ezberdinetan antolatuta:

Lehenengo multzoak gomendio orokorrak biltzen ditu. Ez da bereziki programa bat edo beste aipatzen. Gomendio horien helburua hau da: genero-indarkeria (batik bat elkarrekin bizitzean sortutakoa) jasan duten emakumeei ematen zaien laguntza orokorra

hobetzea. Bigarren multzoan gomendio bereziak egiten dira eta eskaintzen den zerbitzu bakoitzarekin zerikusia dut (etxeratzeak, laguntza psikologiko eta juridikoa, etab.).

Erakunde honi dagokion bezala, giza eskubideen kultura hedatzearen, lehenengo urte honetan geure lana txostenaren edukia jakinaraztea izan da. Eragindako administrazio guztiei bidali diegu, gizarteko gaitz honen kontrako borrokan partaidetza argi eta garbia izan behar dutela nabarmenduz. Era berean, jardunaldi, biltzar, mintegi eta antzekoetan ere, txostena hedatu dugu.

Baina, txosten hori egin zenean ez zen amaitutako zerbaite egin zenik pentsatu, aldiz, genero-indarkeriaren kasuetan erakundeak zuen tratamendua aztertzeko lanaren lehenengo urratsa zela pentsatu zen eta, horrenbestez, gai horri buruzko informazioa berriro bildu behar dela pentsatu dugu. Txostenean bildutako datuek une zehatz bateko egoera islatzen zutenez (2002. urtea eta 2003ko urtarrila), azken bi urteetako informazioa eskatu genien eragindako administrazioei eta, 2004ko datuak ere eduki ahal izateko asmoz, eskabidea iragan urtarrilean egin zen. Ondorioz, erakundeek nabarmen eta bizkor erantzun duten arren, guztiz ezinezkoa izan da bildutako informazioen azterlan eta balorazio sakonak egitea txosten honetan. Hori dela eta, txostenaren edukiaren laburpena baino ez dugu islatuko hemen, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean aztertzen jarraituko ez dugunik eta bertatik eratorritako jarduerak garatuko ez ditugunik.

Atal honetako bigarren zatian, indarkeria pairatu duten emakumeei erakundeek emandako arretarekin zerikusia duten Arartekoaren beste informazio-iturri eta esku-hartze batzuk aipatuko ditugu.

### **A. Erakundeek genero-indarkeriari emandako erantzunaren bilakaera azken bi urteetan**

Arestian aipatu dugunez, 2005eko urtarrilean Arartekoak hiru foru aldundiengana eta hiru hiriburuetako udalengana jo du indarkeria sexistaren biktimeztako berariazko zerbitzuek azken bi urteetan izan duten funtzionamenduari buruzko zenbait galdera egiteko. Era berean, Emakunderen lankidetzak eskatu dugu, bera baita eremu honetan erakundeen esku-hartzea koordinatu eta sustatzeaz arduratzen den erakundea.

Hala eta guztiz ere, eskuratutako datuak azaldu aurretik, txosten monografikoa aurkeztearen ondorioz erakunde honetara iritsi ziren zenbait informazio aipatu behar ditugu. Datuak biltzearen eta txostena argitaratzearen arteko dekalajea, bi kexa eragin ziren, ustez zenbait gauza aipatu zirelako; baina kasu bietan, datuak biltzen amaitu ondoren abiarazi ziren jarduera edo baliabideak aipatzen ziren horiek. Alde batetik, Zarauzko Udalak bidalitako jakinarazpenaz ari gara: bertan zioen –2003ko apiriletik– 4 logela bikoitzeko abegi-pisu bat zeukatela, eta egun horretatik aurrera hala behar izan zuten emakumeek erabili zutela.

Antzerakoa izan zen Irungo Udalaren kasua: tokiko eremuan udal batek ere tratatu txarren aurreko erakundearen arteko jarduera-protokoloa garatu ez zuela zioen esaldiaren kontra egin zuen. Aurrea hartzeko eremuan egin ziren beste jarduera batzuen berri emateaz gain, aipatutako udalak jakinarazi zigun 2003an, toki administrazio horren, epaitegiaren eta polizia-zerbitzuen artean, etxeko indarkeria egoeretarako protokoloa ezarri zela.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak ados ez zegoela adierazi zuen; izan ere, gure ezohiko txostenaren hainbat ataletan, aipatutako administrazioaren mendeko ostatu-zerbitzuetan sartu ahal izateko baldintza gisa, tratatu txarrak pairatu zituzten emakumeei



salaketa jartzeko eskatzen zitzaiea aipatu zen. Gizarte Ekintza Sailak esan zuen datu hori ez zela zuzena eta, horrenbestez, erakunde honek informazio horren jatorria berraztertu zuen, akatsa egongo balitz ere. Hala eta guztiz ere, informazio hori hiru iturri ezberdinek eman zutela ziurtatu zen eta, horrek, egiaztatu egiten zuen, datuak biltzeko unean, azal dutako irizpide hori indarrean zegoela; hala ere, oso positibotzat hartu genuen aldaketa, –Sailak berak esan zuen bezala– Europako zuzentarauak aplikatzen baitziren, Emakundek ere defendatzen zituenak.

Foru Aldundiak, halaber, Bizkaiko *Premiazko etxeratzea* aipatu zenean (4.5.1.3. atala), hitzartutako bi leku daudela esaten zen eta, benetan, bi familia-unitaterentzako lekuak direla argitu zuen, bi emakume eta haren adingabeko ondorengoak hartzeko.

Aipatutako administrazioek emandako informazioa laburtzen hasteko, ondoren, datu nagusiak azalduko dira, erakunde honek egindako eskabidean ezarritako eskemari jarraituz:

## 1. Zerbitzu berezien sarearen bilakaera

Txosten monografikoan azaldu ziren tratu txarrak pairatu dituzten emakumeentzako –eta, hala denean, erasotzaileentzako– berriazko zerbitzu guztiek oraindik funtzionatzen duten jakin nahi genuen; era berean, 2003-2004 biurtekoan abiarazi edo aldatu zirenen berri ere izan nahi genuen. Era berean, erakundeen arteko koordinazio-protokolorik sinatu den ere galdetu genuen. Emakume etorkinen berriazko beharrezanean arreta berezia eskainiz, atzerriko hizkuntzetako interpretarien balizko beharrezana betetzeko zerbitzuak egotea adierazle gisa har zitekeela uste genuen.

### 1.1. Zerbitzuen aldaketak lurralde historikoetan

Jasotako informazioa oinarri hartuta, indarkeria pairatu duten emakumeei laguntza emateko zerbitzuetan egondako aldaketak deskribatuko ditugu, lurralde historikoen arabera:

#### **Araba**

Etxeratze-baliabideei dagokienez, Foru Aldundiak 2003. urtearen hasieran zituenak mantendu ditu. Aldiz, Vitoria-Gasteizko Udalak handitu egin du indarkeria sexitaren biktimek behar dutenean aldi baterako etxeratzeko pisuen kopurua. Urte asko dira udal honek gizarte larrialdietarako pisuak dituela premiaz etxeratzeko beharrezanean erantzuteko. Txostena egin zenean etxebizitza horietako hiru tratu txarrak pairatu zituzten emakumeentzat bakarrik ziren; baina eskaria gero eta handiagoa denez, orain sei pisu dira horretarako erabiltzen direnak, nahiz eta balio anitzeko beste pisu batzuk horretarako ere erabil daitezkeen.

Ez da aldaketa handirik ikusi tratu txarrak edota sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeentzako laguntza psikologiko eta orientabide juridiko zerbitzuetan, ez eta erasotzaileentzako laguntza psikologikoaren zerbitzuan ere; horiek guztiek zeharkako kudeaketa dute eta aipatutako administrazio bien artean sinatutako lankidetzak hitzarmenaren bitartez daude finantzatuta. Aipatu beharra dago, hala ere, 2004an aldatu egin dela emakumeentzako bi zerbitzuen kokapena. Gaur egun hiriguneko lokal batean daude, aurrekoa baino handiagoa eta, ondorioz, zerbitzu biak sartu ahal izan dira bertan, bai eta laguntza psikologikoa ematen

duten profesional kopurua handitu ere. Hala eta guztiz ere, lokalak badu eragozpen handi bat: arkitektura-oztopoak ditu eta, horrenbestez, mugikortasun murriztuko pertsonak ezin dira bertara joan. Emandako erantzunean, Foru Aldundiak dio minusbaliotasunak dituzten emakumeei beste lokal batean ematen zaiela arreta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean (GOFE). Nolanahi ere, Arartekoak, 2005. urtearen hasieran arazoak bere horretan ziruela jakin zuenean, esku-hartzea hasi zuen administrazioaren bitartez, arkitektura-arazo horiek gehiago berandutu gabe kentzea guztiz beharrezkoa dela uste duelako; izan ere, horiek atzerapen handia dakarte txostenean proposatu zenaren kontrari: egoera ahul berezietan dauden emakumeei arreta handiagoa eskaintzea (11. gomendioa).

Beste alde batetik, Foru Aldundiak jakinarazi du GOFE eta Arabako Abokatuen Elkargoak sinatutako hitzarmenaren bitartez (2003an sinatu eta 2004rako luzatu zen) *tratu txarrak eta erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza eskaintzeko eta genero-indarkerian adituak izango diren pertsonak prestatzeko txanda berezia* abiarazi dela. Hitzarmen horren berriazko helburua gaur egun EAEn dagoen “*Tratu txarrak jasaten dituzten biktimenezko ofiziozko txandaren jarduerak indartu, lagundu eta osatzea*” da. Arabako abokaturak ofiziozko txanda honek emandako arretari ematen dion plusa zein den argiegi ez dagoenez, horri buruzko informazio osagarria eskatu behar dela pentsatu dugu.

Arabako hiriburuko Udalak, 2003-04-16an *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko udal plana (2003-2005)* onetsi zuen. Agiri marko eta sailen arteko gisa sortu zen, gai honetan baliabide eta zerbitzuak egokitzea eta, hala izatekotan, sortzea sustatzeko. Era berean, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan zabalik dagoen telefono bidezko zerbitzua ere abiarazi da, entzuteko, larrialdi egoeretan laguntza emateko eta dauden zerbitzuei buruzko arreta eta aholkularitza emateko. 2003. urtean, halaber, *Genero Indarkeriaren Biktimenezko GPS bidezko Telelaguntza Programa* sortu zen: 10 terminal dira –sakelako telefonoen itxura eta funtzionalitateaz– arrisku egoeran dauden beste hainbeste emakumeri babesa emateko.

Beste alde batetik, tratu txarrak pairatu dituzten emakumeei emandako gizarte arreta lehen Berdintasun Zerbitzuak ematen zuen eta, orain Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek.

## **Bizkaia**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak emandako informazioak oinarri hartuta, ez da aldaketarik ikusi laguntza psikologiko eta orientabide juridiko zerbitzuetan. Berrikuntza gisa, azken horrek Udalak hilketa kasu batean (2004) herri-salaketa bere gain hartu zuela aipatu da.

Ez da gauza bera gertatzen etxeratze-baliabideekin. Premiazko harrera-zerbitzuari dagokionez, 2004ko irailan, Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hitzarmena sinatu zuen irabazi-asmorik gabeko erakunde batekin (indarrean egongo da 2006-12-31ra arte), guztira 12 leku edukitzeko aukera ematen duena. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako egokitutako zentroa da, etengabe, egunean 24 orduko laguntza emateko langile espezializatuak dituena.

Egonaldi ertaineko zentroein dagokienez, Foru Aldundiak jakinarazi du 2004ko ekainean aldatu egin zela zeuden bi pisuen helburua, beste talde batentzat izango direla. Horiek ordeztuko, erakunde pribatu batekin hitzartutako zentro bat dago, 19 plazakoa,

laguntza jasotzen duten familia-unitateen ezaugarrien arabera banatuta (gutxi gorabehera 8 plaza daude emakumeentzat eta 11 adingabekoentzat). Foru Aldundiak, era berean, 17 famili unitaterentzako plazak ditu hitzartuta lankidetzan aritzen den zentro batean (bi emakumeko oinordeko bat egongo dela kalkulatu da, batez beste), eta 2003. urtearen hasieran 15 zituen. Aipatutako bi zentroek etengabe dauden laguntza-langileak dituzte eta, biak ere biak, indarkeria sexista jaso duten emakumeentzat eta euren seme-alabentzat dira batez ere, nahiz eta horretarako bakarrik ez izan. Foru Sailak nabarmendu egin du harrera eskuratzeko ez dela salaketa jarri behar ez inon erroldatu behar.

Bere aldetik, Bilboko Udalak Arartekoaren txostenean aipatzen ziren 6 pisuak mantendu ditu, eta laster mugikortasun murriztua duten pertsonak hartzeko egokitutako beste pisu bat irekiko dela ere iragarri du.

Emakundek emandako informazioa oinarri hartuta ez da ondorioztatu Bizkaiko beste inongo udalerrik harrera-pisurik abiarazteko asmorik duenik eta, horrenbestez, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri batzuek oraindik baliabide hori eskaintzen ez dutela ondorioztatu da bertatik.

Indarkeria pairatu duten emakumeei laguntza emateko beste zerbitzu batzuk sortzeari dagokionez, Foru Aldundiak Familien Topaketarako Zerbitzua aipatu du, gatazka edo arrisku egoeretan adingabeen eta tutoretza ez duen gurasoaren artean harremanak izateko aukera emateko. Zerbitzu hau txostenean aipatzen ez zen arren –ez delako berariaz tratatu txarrak pairatu dituzten emakumeentzako zerbitzua–, egia esan, babesteko agindua duten baina euren erasotzaileek seme-alaba komunak bisitatzeko baimena duten emakumeak dira zerbitzu hau erabiltzen dutenetako batzuk.

Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, era berean, *Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia* sortu dela ere aipatu du. Erakunde honek ez die zuzeneko laguntza ematen indarkeria sexista pairatu duten biktimei, baina gure ustez interesgarria da aipatzea bere baitan *Genero Indarkeriaren Adierazleei* buruzko lan-taldea eratu dela; helburu horrek balorazio positiboa merezi du eta horretan aurrera egitea espero dugu.

Bilboko Udalak, etxeko indarkeria pairatu duten emakumeentzako laguntzaren arloan espezializatuta dauden gizarte langileek emandako banakako gizarte laguntzaren zerbitzua aipatu du, bai eta *Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen autonomia garatzeko programa* ere. Azken hori 2004an abiarazi zen eta, bertan, auto-laguntza taldeak antolatu eta babestutako etxebizitzak eskuratu eta lanerako gaitzeko plan bereziak egiten dira.

## **Gipuzkoa**

2004-05-18ko Foru Dekretuaren bitartez, Laguntza Psikologikoko Programaren beste araubide bat ezarri da, funtsezko aldaketarik ikusi ez den arren. Txostenean antzemandako arazo nagusia zerbitzua zuzenean erabili ezin zela zen –eskabidea egin behar zaie gizarte zerbitzuei, eta Foru Sailak onetsi egin behar du–, eta alderdi hori ez da aldatu. Laguntzaren kalitate eta eraginkortasuna bermatzearen, hitzarmena sinatu da Giza Eskubideetarako Foru Sailaren eta Psikologoaren Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzara arautzeko.

Aholkularitza juridikoari dagokionez, Foru Aldundiak adierazi digu abokatuen elkargoek EAE osoan emakumeen kontrako indarkeria kasuetan berehalako laguntza emateko txanda berezia abiarazi dutenetik amaitutzat eman dela administrazio horrek eta Gipuzkoako elkargoak sinatutako hitzarmena. Hala eta guztiz ere, txanda berri horrek kasu guztietan ez duenez biktimen eskubideei buruzko lehenengo informazio kontsulta betetzen, 2004ko azarora arte zerbitzu hori eman izan da.

Donostiako Udalak jakinarazi du aldaketa bat egon dela organigraman, Emakumeen Saila kendu baita. Horren eskumenak Gizarte Ongizateko Sailaren eta Gazteria, Hezkuntza eta Giza Eskubideen Sailaren artean banatu dira; lehenengoak laguntza ematen die genero-indarkeriaren biktimei eta, bigarrenak, aukera-berdintasunerako politikak garatuko ditu.

Larrialdietarako etxeratzeei dagokienez, 2003an zeudenei eutsi zaie. Hala eta guztiz ere, Gizarte Ongizate Sailak uste du horiek ez dietela erantzuten larrialdi eta krisi egoeretako laguntza eta babes beharrezanez, ondorioz, 2004. urtean zehar Berehalako Laguntza Zentroa izenekoa abiarazteko lan egin da: elkarrekin lotutako bi etxebizitza ditu eta egunean 24 orduko zerbitzua bermatzen duten profesionalak daude bertan. 2005eko otsailean abiarazi da.

Udalak eskaintzen zuen laguntza juridikoaren zerbitzua Foru Aldundiak finantzatzen zuenez, 2004. urtearen amaieran utzi zaido hori emateari. Egun horretatik aurrera emakume elkartengana bideratzen dira eskatzaileak, lehenengo kontsulta juridikoa dohainik eskaintzen baitute. Hala ere, udal sailak azpimarratu du zerbitzu hori uzteak hutsune handia utzi duela; izan ere, tratu txarren biktimak orientabide juridiko zabala behar du zigor bidetik edo bide zibiletik egingo duen erabaki aurretik.

Lurralde historikoko gainerako udalerrietako etxeratze-baliabideei dagokienez, Foru Aldundiak esan du 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri guztiek dutela larrialdietarako pisuren bat. Beste alde batetik, Emakundek emandako informazioa kontuan hartuta ondorioztatu da –jada aipatu den Zarauzkoaz gain– azken biurtekoan 7 pisu abiarazi direla biztanle-kopuru horretara heltzen ez diren herrietan.

## 1.2. **Koordinazio-protokoloak**

*Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn izeneko txostenaren 9. gomendioan zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko eta udaleko edo eskualdeko jarduera-protokoloak garatzeko beharra ezartzen zen.*

*Ildo horretatik, Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko erakunde arteko akordioaren (2001) Jarraipen Batzordeak –bertan hiru foru aldundiek hartzen dute parte– honako tresna hauek onetsi ditu:*

- *Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedura (2004-05-14)*
- *Gizarte zerbitzuen eremuan etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasunerako koordinazio-protokoloa (2004-09-27), babesteko agindua arautzen zuen legea indarrean sartzearen ondorioz Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak egindakoa osatzen duena.*
- *Etxeko tratu txarren biktimentzako harrera eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa, 2004-2005 (2004-09-27).*

Administrazio ezberdinek, era berean, protokolo horiek egiteari buruzko informazioa eman digute eta, kasu batzuetan, horiek lurralde historikoari egokitzeko tresnak onetsi dituztela ere jakinarazi digute. Hala egin du, esate baterako, Arabako Foru Aldundiak, babesteko agindua aplikatzeko koordinazioari dagokionez.

Erakunde horrek ere jakinarazi du gizarte zerbitzuak emateko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalekin hitzarmenak sinatzea eraendu behar duten irizpideen artean, Aukera Berdintasunaren alorrean babes teknikoa eta aholkularitza emateko konpromisoa sartu

dela, bai eta oinarrizko gizarte zerbitzu horietako langileak gai horretako prestakuntza eta birziklatze planetan sartzea ere.

Era berean, oinarrizko gizarte zerbitzuen ordutegitik kanpo Arabako landa-guneetan larrialdietako egoerez arduratzeko, Arabako Foru Aldundiak, luzatu egin du lurralde osoan Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua garatzeko hiriburuko Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena –2003 eta 2004an–. Gainera GOFek lurralde-mahaia sortzea aurreikusi du autonomia mailan dauden koordinazio akordioak eremu horri egokitzeko.

Vitoria-Gasteizen jada aipatu dugun Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko udal plana dago, departamentuen artean garatzen dela; horrek esan nahi du koordinazioa egon behar dela udal zerbitzu ezberdinen artean –Udaltzaingoa barne– baina ez dago zertan koordinaziorik egon beste erakunde batzuekin. 2003. urtean, era berean, *Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen esku-hartze, deribazio eta jarraipen-protokoloa* eratu zen Udalaren gizarte zerbitzuetarako.

Bizkaian, Genero Indarkeriaren Behatokiaren helburu nagusietako bat, gizarte fenomeno horren errealitatea zein den jakiteaz gain, herri-erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuak hobetzeko proposamenak egitea ere bada. Beste alde batetik, Bilboko Udaleko Emakumeen eta Garapenerako Lankidetzaren Arloak nabarmendu egiten du koordinazioa guztiz premiazko eta beharrezkoa dela. Izan ere, arlo hori eta Gizarte Ekintza Arloa Babesteko Agindua Jarraitzeko Lurralde Batzordean sartzeak koordinazio hori sustatuko du. Aipatutako Batzordean ordezkariak dituzte justizia administrazioak, fiskaltzak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Abokatuen Elkargoak, Ertzaintzak eta Bilboko Udaltzaingoa. Lerro hauek idazterakoan, aipatutako udal arloak laster bertan sartuko direla aurreikusten da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, arestian aipatutako protokoloak egitean izandako partaidetza jakinarazteaz gain, lurralde historikoaren eremuan babesteko agindua aplikatzeko koordinazio jarduerak ere egin dituela azaldu du. Bere aldetik, Donostiako Udalaren Gizarte Ongizateko sailak azpimarratu egun du genero-indarkeriari erantzuteko parte hartzen duten erakunde ezberdinen artean koherentzia eta koordinazioa handitu behar dela. Era berean, baieztatu egin du 2004. Urtearen amaieran beste udal sail batzuekin batera ari dela lankidetzan, gai honi dagokionez. Halaber, larrialdi jardueretarako eta arrisku handiena duten kasuak jarraitzeko jardura-protokoloak prestatzen dabil Udaltzaingoarekin, bai eta harrera-pisuetan eta Berehalako Laguntza Zentroan babes sistemak ezartzeko ere.

### 1.3. *Itzulpen zerbitzuak emakumezko etorkinentzat*

Berariazko baliabideei buruzko informazioak aztertu aurretik eta genero-indarkeria pairatu duten etorkinen beharrian bereziak kontuan hartzeko balizko adierazle gisa, datuak eskatzeko egin genuen eskabidean honako galdera hau ere erantsi genuen: administrazioek inoiz izan al dute atzerriko emakumeentzako itzultzaile edo interpretarien beharrik? Eta, hala izatekotan, inoiz konpondu al dute? Eta nola?

Europako hainbat herrialdetan ikusi denaren kontra, badirudi EAEn hizkuntza ez jakitea ez dela oztopo garrantzitsu gisa hartzen indarkeriaren biktimei laguntza emateko zerbitzuak erabiltzeko orduan. Horren arrazoietakoa bat izan liteke EAEko inmigratio indizea oraindik beste herrialde horietakoa baino txikiagoa dela baina, era berean, kontuan hartu behar da emakume etorkinak ahultasun-egoera berezian daudela: horietako batzuek,

arrazoiak arrazoi, ezin izan dituzten gizarte harremanak ezarri eta, ondorioz, ez dakite genero-indarkeriari erantzuteko baliabideak daudenik ere.

Administrazioek eman dizkiguten informazioetan etorkin guztiei eskainitako zerbitzu orokorrak aipatu dituzte (esaterako, Norabide/Inmigrazio hartzeko Vitoria-Gasteizko udal zentroa; Kulturen arteko Bizikidetasunerako Donostiako Bitartekaritza Programa...) edo tratu txarrak pairatu dituzten eta baliabideren bat eskuratzeko interpretaria behar izan zuten emakumeen kasuei emandako irtenbideak azaldu dituzte: elkarte eta GKEetara, enpresetara eta antzekoetara jotzea. Bilboko Emakumearen Arloak dio langile gaituak dituela laguntza frantsesez eta ingelesez emateko, baina mugekin. Era berean, adierazi dute gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak dituzten emakumeak interpretari lanak egiten dituen beste pertsona batekin joan ohi direla –hau da, interesdunak eurak dira arazoa konpontzen dutenak–, baina aitortu egin dute gero eta etorkin gehiago dagoenez, hizkuntza ezin dela oztopoa izan horrelako zerbitzuak jaso ahal izateko.

## 2. Laguntza psikologikoko eta aholkularitza juridikoko zerbitzuak

Berariazko bi zerbitzu horien funtzionamenduari dagokionez, Arartekoak 2003 eta 2004ko datuak eskatu zituen, laguntza jaso duten pertsonen eta egindako saioen kopurua eta itxaron-zerrendak egotea ala ez azpimarratuta.

Zaila da datuak sistematizatzea, modu homogeneoan eskaintzen ez direlako, eta gainera, zerbitzu guztiek ezaugarri berdinak ez dituztelako. Esate baterako, Bizkaikoan honela deitzen da: *Familiekin esku hartzeko laguntza psikologikorako programa, tratu txarrak nahiz sexu-erasoak eta banatzearen ondoriozko arazo psikologikoak daudenean*; beraz, arreta emakumeei zein gizonei eskaintzen zaie, Foru Aldundi bereko *Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuan* bezala.

Hurrengo tauletan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei buruzko datuak baino ez dira biltzen, eta hala denean, tratamendu psikologikoa jaso duten erasotzaileei buruzkoak. Zenbait administraziok datu gehiago eman dituzte (adibidez, kasu berriak eta zaharrak, laguntza jaso duten adingabeak, etab.), baina erka daitezkeen zenbakiak baino ez dira islatu.

### 2.1. Indarkeria sexista pairatu duten emakumeei eta erasotzaileei emandako laguntza psikologikoa

Foru aldundiek aipatutako zerbitzua ematea onartu dute, eta hurrengo datuak eman dituzte:

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2003	2004	2003	2004	2003	2004
Emakumeak (tratu txarrak edo sexu-erasoak)	186	217	326	410	266	310
Gizon erasotzaileak	49	43	54	49	5	8

Jada esan dugun bezala, erakunde honek egindako laguntza zerbitzuen kopuruaz ere galdetu zuen. Asmoa erabiltzaile bakoitzak batez beste zenbat saio behar zituen jakitea zen, eskainitako tratamenduaren “intentsitatea” gutxi gorabehera kalkulatzeko. Hala ere, Arabako Foru Aldundiak baino ez dizkigu mota horretako datuak eman: 2003an 7,24 saio eta 2004an 6,57 saio eman ziren batez beste, erabiltzaile bakoitzeko. Erasotzaileen tratamenduari dagokionez, 2003an batezbestekoa 7,9 saiokoa zen; 2004an, berriz, 6,65ekoa da.

Itxaron-zerrendei dagokienez, Araban lehenengo hitzordua izateko itxaronaldia sei astekoa izan zen 2003an, 2004ko ekainaren 30ean 24 astekoa zela. Zerbitzua handitzearen ondorioz, irailean epe hori bi hilera murriztu zen, baina eskaera etengabe hasten zenez, urte amaieran itxaronaldia hiru hilekoa zen berriro. Profesional berri bat lanaldi osoan lanean hasiko dela aurreikusi da.

2003ko urtarrilean Bizkaiko zerbitzuan ere bazegoen hiru hileko epe hori. Zerbitzua emateko ordu kopurua gehituz, 2003ko irailean itxaron-zerrenda desagertu zen, baina eskaerak gora egiten jarraitzen zenez, 2003ko abenduaren 31n, berandutzea hil bat eta erdikoa zen, gutxi gorabehera. Eskaera gehitzen joan zen 2004ko urrira arte, berriro ere hiru hil eta erdikoa izan zela itxaronaldia. 2004ko azaroaren 1etik kontratuaren esleipen berriak ordu kopurua nabarmen gehitzea ekarri zuen, eta horri esker, itxaron-zerrenda desagertu da, eta esku hartzeko eskaerari berehala erantzun dakiok, datu hauek emateko unean gertatzen den bezala.

Gipuzkoako Foru Aldundiak baieztatu du itxaron-zerrendarik ez dagoela eta erantzuna berehalakoa dela lehenengo kontsultetarako (diagnostikoa). Tratamendua behar izanez gero, Gizarteratzeko Foru Zerbitzuak onartu beharko du, baina tratamendua hasteko baimena azkarra izan ohi dela ziurtatu digute, nahiz eta batzuetan idatzizko jakinarazpena berandu daitekeen.

## 2.2. **Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei emandako aholkularitza juridikoa**

Hauexek dira foru aldundiek emandako datuak:

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2003	2004	2003	2004	2003	2004
Laguntza jaso duten emakumeak	263	198	534	646	131*	83**

\* 4 kasutan sexu-erasoen aurkako akusazio partikularra gauzatu zen, doako laguntza juridikoak jarduera hori estaltzen ez zuen eta.

\*\* 2004ko azarora arte, hil horretan zerbitzua kendu baitzen.

Aurreko datuei Bilboko Udalaren laguntza jaso duten emakumeen kopurua gehitu behar zaie. Horretarako, hitzarmenak sinatu ditu abokatu-laguntza espezializatua ematen dioten lau modulu psikosozialekin. Zerbitzu hori auzi-jartzailearen inguruabarrak baloratzen dituzten gizarte-langileen proposamen bati erantzuten dio. Bide horretatik, 2003an 22 emakumeari eman zaie laguntza; 2004an, aldiz, 28ri.

Hiru foru aldundiek baieztatu dute aholkularitza juridikoa berehala ematen dela, horretarako itxaron-zerrendarik ez dagoela.

### 3. Etxeratze-zerbitzuak

Indarkeria sexista dela eta, beren etxeetatik alde egin behar izan duten emakumeentzako harrera-zerbitzuen ezaugarri ezberdinek heterogeneotasun nabaria sortzen dute bildutako datuetan. Jarraian adierazten den moduan laburbiltzen saiatu gara, larrialdiko harrera-baliabideak eta egonaldi ertaineko etxeratze-baliabideak bereizi ditugula:

		Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
		AFA	Vitoria-Gasteizko Udala		BFA		Bilboko Udala	GFA	Donostiako Udala	
		Lar./Egn.ert.	Larrialdikoa	Egn.ert.	Larrialdikoa	Egn.ert.	Egn.ert.	Larrialdikoa	Larrialdikoa	Egn.ert.
2003	Emakumeak	4	19 <sup>1</sup>	8	86	19	24 <sup>3</sup>	20	14 <sup>5</sup>	8
	Seme-alabak	5	--	11	94	22	39	--	--	--
2004	Emakumeak	3	14 <sup>2</sup>	14	98	42	29	30 <sup>4</sup>	14 <sup>5</sup>	15
	Seme-alabak	0	--	23	80	43	25	23	--	8

-- Datua ez da agertzen

<sup>1</sup> Horietatik, 11 emakume Berehalako Harrera Zentroan egon dira, 7 Aterpean (GHUZ) eta 1 ostatu batean.

<sup>2</sup> Horietatik, 9 emakume Berehalako Harrera Zentroan egon dira, 3 Aterpean (GHUZ), 1 ostatu batean, eta beste 1 zahar-etxe batean.

<sup>3</sup> Beste emakume baten kasua gehitu behar da, "harreraren antzeko egoeran" dago eta.

<sup>4</sup> 20.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren emakumeak dira, ostatueta harrera jaso dutenak. Harrera luzeagoa udal etxebizitzetan gauzatzen da.

<sup>5</sup> Ostatueta harrera jaso dutenak.

Ikus daitekeenez, aurreko taulan arrisku-egoeran dauden emakumeentzat berariaz erabiltzen diren lekuak ez direnei buruzko datu batzuk gehitu dira. Kasu batzuetan, berariazko baliabideak ez egoteagatik gertatzen da; esate baterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du etxebizitzarik, larrialdiko harrerak ostatueta egin behar direla. Gauza bera gertatzen zen Donostian, 2005eko otsailera arte. Beste kasu batzuetan, berriz, beharbada eskaerak dauden plazak baino gehiago izan dira, edo hainbat arrazoiengatik (segurtasuna, osasun-egoera, etab.) eskatzaileak beste mota bateko baliabidera eraman dira. Nolanahi ere, administrazio guztiek ez digute alde horri buruzko daturik eman.

Etxeratze-zentroetako batez besteko egonaldiari dagokionean, larrialdiko harrera-normalean egun gutxi irauten du- eta aldi baterako egonaldia bereizi behar dira. Oro har, batez besteko egonaldia bi eta lau hilen bitartekoa da; hala ere, deigarria da Vitoria-Gasteizko kasua: izan ere, oro har hain etxebizitza gutxi daude, non askotan bi urtetik gorako egonaldiak egon diren.

Harrera jaso duen emakumearen kargu dauden seme-alabei dagokienez, zenbait administrazioak batez besteko adina eman digute (esate baterako, Bizkaiko Foru



Aldundiaren zentroetan 2004ko batezbestekoa 7 urtekoa izan da). Beste kasu batzuetan, ondorengo bakoitzaren adina zehazten da, edo adin-tarteetan taldekatzen dira. Datu horietatik, nabarmena da adinez nagusi askok amarekin bizi izaten jarraitzen dutela (adibidez, Vitoria-Gasteizen 23 seme-alabatatik 6 egoera horretan daude). Hasieran, ez du zertan arazorik egon amarekin bizi diren mutilak etxebizitzetan onartzeko. Hala ere, zentroetan egoera bestelakoa da, tratu txarrak pairatu dituzten beste emakume batzuekin edo emakume horien alabekin bizi behar baitira. Alde horretatik, 2005aren hasieran Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko errekurtsio batean sortu zen gatazka baten berri izan dugu prentsaren bidez, baina ez dakigu zeintzuk diren kasuaren zirkunstantzia zehatzak.

Emakume etorkinek harrera-etxebizitzetan sartzeko oztopo bereziak zituzten jakin nahi genuen. Erakundeek eman ditzaketen datuak adierazgarriak besterik ez badira ere, guk datu horiek eskatu egin ditugu. Jarraian, egonaldi ertaineko etxeratze-kasuei buruzko zifrak agertu ditugu:

	2003	2004
Arabako Foru Aldundia	1	1
Bizkaiko Foru Aldundia	7	14
Gipuzkoako Foru Aldundia	Ez du etxeratze mota hori	
Vitoria-Gasteizko Udala	Datua ez da agertzen	6
Bilboko Udala	12	12
Donostiako Udala	Datua ez da agertzen	7

Aipatutako 2003ko txosten monografikoan, administrazio ezberdinek adierazten zuten zerbitzu horiek eskuratzeko, emakume etorkinen administrazio-egoerak garrantzirik ez zuela. Hori dela eta, oraingoan ez dugu kontu hori aztertu. Dena den, erakunde batzuek herrian erroldatuta egotearen eskakizun orokorra eskatzen dute –nahiz kasu batzuetan salbuespenak dauden–. Aurreko aldi batzuetan nabarmendu dugun bezala, ez da ahaztu behar atzerriko emakume batzuek arazoak dituztela izapide horretan.

Era berean, ez genuen aipatzen etxebizitzetan sartzeko aurretik salaketa aurkeztu behar zenik. Jada aipatu dugun bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak behin eta berriz adierazi zuen irizpide hori jada ez zela erabiltzen. Hala eta guztiz ere, emandako erantzunean Bilboko Udalak adierazi du etxebizitzetan sartzeko nahitaezko eskakizuna dela *“emakumeek erasotzailearen aurkako salaketa aurkeztu izana edo salaketa aurkezteko konpromisoa beren gain hartzea”*, nahiz eta Emakumearen Arloak berehalako harrera programa diseinatzeko ari den berriazko zirkunstantzia batzuk izanda, erabaki hori oraindik hartu ez duten emakumeentzat. Amaitzeko, ondokoa esaten du: *“lege-ebazpenak direla eta, egonaldia 30 egunekoa izan beharko da, gehienez”*.

Arartekoak askotan adierazi du eskakizun hori desegokia ez ezik, kaltegarria ere bazela, tratu txarrak dituen harreman pertsonal bat haustea bezalako prozesu korapilatsu eta gorabeheratsuan. Emakundek eta emakumeen eskubideak defendatzeko nazioarteko beste erakunde batzuek antzeko zerbait adierazi dute. Laguntza emakumeak bere autonomia berreskuratu eta –normalean– erasotzailearengandik banantzeko eman behar

da. Salaketa horretarako tresna bat da, baina ez da bakarra, ezta eraginkorrena ere kasu guztietan.

Halaber, erakunde honek galdetzen zuen zein kasutan ezin izan zen tratu txarrak pairatu dituen eta lotutako arazoren bat (minusbaliotasuna, toxikomania, etab.) duen emakume bat ostatatu, baliabide egokiak ez izateagatik. Donostiako Udalak baino ez du aitortu kasu bat Caritasen etxebizitza batera bideratu behar izan zuela arrazoi horrengatik. Beste administrazio batzuek gabezia orokorra onartu dute, kasurik aipatu gabe; beste batzuek, aldiz, ez diote erantzun galdera horri.

Erakunde honen txostena gauzatzeko elkarrizketa egin zuten emakumeek nabarmentzen zituzten gabezieta bat hauxe zen: etxeratze-baliabideetan egindako egonaldietan lagunik eta sostengu pertsonalik eza sumatu zuten. Arazo horri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak aditzera eman du bere harrera-zentro guztiek –bai larrialdikoa, bai egonaldi ertaineko biak– etengabe emakumeei lagun egiten dieten langileak dituztela, langile horiek diziplina anitzetakoak direla (harrera-programaren ikuskatzaile eta hezitzaileaz gain, zentroetako batean psikopedagogoa ere badago). Era berean, Donostiako Berehalako Arreta Zentro berriak (2005eko otsailean irekia) arreta 24 orduetan ematea bermatzen duten bost profesional ditu. Unera arte, hiri horretan etxebizitzek ez zeukaten lagun egiteko zerbitzurik. Egia esan, nahiko nabarmena da zailagoa dela etengabeko laguntza pertsonala etxebizitza txiki eta sakabanatueta bermatzea. Bilbon, gizarte-hezitzaile batek (lanaldi osoan kontratatuta dago, eta laster gizarte-langile bat lanean hastea aurreikusi da) laguntza ematen die etxebizitzetako pertsonaei, eta *hezi eta gizarteratzeko programa egonkorra* garatzen du. Programa horren asmoa bizitza pertsonala berregitea helburu duen esku-hartze plana zehaztea da, laguntza jaso duten emakumeentzat.

Antzekoa da Arabako Foru Aldundiak egindako *Harrera-etxebizitzetako Emakumeentzako Laguntza eta Orientabide Pertsonaleko Programa*. Programa horrek esku hartzeko fase ezberdinak ditu, betiere malguak direnak: lehenengo astean zuzeneko arreta jaso beharra biziagoa denez, egunean bi aldiz 3 orduko konpainia egiten da; hurrengo astean egunean bi ordu ematen dira eginkizun horretan, zerbitzua pixkanaka-pixkanaka murriztuz doala: astean 3 egun, astean egun bakarrean... betiere, ondoz ondoko hamabostaldietan. Beharrezkoa izatekotan, programa harrera-etxebizitzatik irten ondoren luzatzen da, ezarritako helburuak lortu arte.

#### **4. Hainbat ohar, genero indarkeriari erakundeek emandako erantzuna dela-eta**

Erakunde honek zerikusia duten administrazioei laguntza eskatu zienean, eskari horrekin batera aditzera eman zen tratu txarrak pairatu dituzten emakumeentzako laguntzari buruz idazki honetan planteatu direnez bestelako gai batzuei heltzeko aukera zegoela.

Arabako Foru Aldundiak emandako erantzunean, Arartekoak 2003ko txostenean bildutako gomendioen azalpen-eskema berbera hartzen du. Horrela, genero indarkeriari aurrea hartzeko eta hura ezabatzeko erarik egokiena berdintasunerantz aurrera egitea dela gogorarazten du. Ildo horretan azaltzen da 2003an berdintasunerako I. Foru Plana burutu zela, eta hurrengo urtean berdintasunaren aldeko bultzadaren eskumenak

sektoreko Sail batetik (Gizarte Gaiak) zeharkako beste sail batera (Lehendakaritza) aldatu zirela. Zeharkako sail horrek gizarte zerbitzuetan espezializatutako kanpoko talde bati agindu dio Berdintasunerako II. Foru Plana taxutzea. Honako txosten honetan, emakumeen arazoei buruzko arreta berezia hizpide duen atalean (II.B.1.2. kap.) adierazten da I. Plana desagertzeak ondorio txar bat izan zuela, berau aplikatzeko egitura organikoa ezabatzea, alegia; are txarragoa Lehendakaritza Sailean hori ordezteko antzeko gaitasun teknikoa duen beste egitura bat baliatu ez delako. Ildo horretan gogora ekarri behar da duela gutxi onartutako *Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Legeak* administrazio guztiak behartzen dituela berdintasun politikak aplikatzeaz arduratzen den organo bat edukitzera. Organo horrek gai horretan esperientzia egiaztatagarria eta berariazko prestakuntza duten langileak izan behar ditu.

Bestalde, foru erakunde horrek berak genero indarkeriaren egoerarako prebentzio, koordinazio eta arreta integraleko zentroa sortzeko proposamen teknikoa egin du. Tratu txarrak pairatu dituzten emakumeei arreta egiten dieten pertsonentzako prestakuntza lanen artean nabarmentzekoak dira Arabako lurraldeko oinarrizko gizarte zerbitzuentzat arlo honetarako bereziki egindako prestakuntzako jarduerak, bai eta profesionalen beste hainbat talderentzat generoen berdintasunaren arloan taxututako beste prestakuntza-jarduera batzuk. Genero indarkeriari buruzko datuak hobeto bildu, sistematizatu eta hedatzeko helburuz, emakumezko biktimei eta gizonezko erasotzaileei Laguntza Psikologikoa emateko Zerbitzuen informazioa erabiltzeko programa informatikoa diseinatu da.

Sentsibilizatorako jardueren artean aipatu behar dugu *Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka borrokatzeko Gida* berrikusi, argitaratu eta banatu dela. Gida hau 2001ean egin zuten Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak euskara/gaztelania, errumaniera/ingelesa, arabiera/frantsesa hizkuntza bikoteetan, eta emakume etorkin batzuen beharrianak artatzen dituela ematen du, Emakundek hainbat hizkuntzatan argitaratutako beste gida batzuek bezala.

Arabako udal horrek dokumentu hori bera aipatzen du sentsibilizazio jardueren artean. Prestakuntzako jardueren artean azaltzen ditu etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta esku-hartzeari buruz Udaleko hainbat sailerako langile teknikoei eskaini zaizkienak. Mota horretako beste jarduera batzuk hiriko profesionalen kolektiboari eta elkarte-sareari zuzendu zaizkio. Arlo honetan jarduten duten elkarteekin lankidetzahitzarmenak ere ezarri dira.

Udal horrek abian jarritako *Emakumeek pairatzen duten indarkeriaren aurka borrokatzeko Udal Plana* (2003-2005) aipatu dugu jada. Helburu nagusiak eta esku hartzeko bost eremuak azalduta, plan horren barruan hainbat ekimen taxutu dira, besteak beste genero indarkeriaren emakumezko biktimei seme-alabei Udalaren haur-eskoletara zuzenean sartzeko aukera ematea, edo emakume horiei lehentasuna ematea laneratze-egitarauetan, lana lortzeko trebatzeko ikastaroetan eta enpresaburuek kontrataziorako jasotzen dituzten laguntza ekonomikoetan.

Bilboko Udalak, bere aldetik, genero indarkeriaren aurkako erantzun guztiak berdintasunaren aldeko eta generoagatik egindako diskriminazioaren aurkako borrokaren barruan kokatzen ditu. Ikuspegi horretan aipatzen ditu Emakumeen Arloa egiten ari den egitarauaren funtsezko lau ardatzak, honela laburbilduta: a) Bilbon Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Udal Plana (2003-2006) abian jartzeko aurrera egin; b) prebentzioaren arloa sendotu, udal jarduera publikoaren eremu guztietan ikusarazte,

sentsibilizatzeko, prestakuntza eta koordinaziorako ekintzak eginez; c) biktimei ematen zaien laguntzaren eragingarritasuna hobetu eta gainontzeko administrazio eskudunekiko lankidetzara sendotu; eta d) oneratzeko eta errehabilitazio egitarauak sustatu, emakumeei autonomia berreskuratzeko prozesuan laguntzea helburu izanda, hala behar duten kasuetan.

Prebentzioaren eremuan, Emakumeen Arloak informazio-hitzaldiak egiten ditu emakume talde txikiak. Hitzaldi horietan senar-emazteen banaketari, familia-eskubideari, indarkeria sexistari, eskura dauden baliabideei eta beste hainbati buruzko informazio orokorra eskaintzen da. Antolatzaileek ekimen hori arrakastatsua izan dela uste dute, asteroko bileretara joan diren emakume bitatik batek (223 emakume joan dira 2004an) gerora banakako elkarrizketa bat egitea eskatu duelako. Haietatik bati ere ez zaio harrera egin behar izan.

Gogoeta horiek amaitzeko, udal zerbitzu horren arduradunak adierazi du Bizkaian ez dagoela *Arreta Integraleko Zentrorik*: hori larrialdiko arretarako zentroa izango litzateke, eta bertan diziplina anitzeko talde tekniko batek emakumea aztertu eta kasu bakoitza ebaluatu ahal izango luke, eta era beran arriskuak prebenitu eta baliabiderik egokiena zein den erabaki. Mota horretako zentroak udalen eskumen eta ahalmenetatik kanpo geratuko lirateke, lurraldeko eremuagatik eta horniduren beharrezanengatik. Hortaz, Foru Aldundiak edota Eusko Jaurlaritzak parte hartu beharko lukete.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen aurkako indarkeriari ematen dion erantzunaren barruan, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Saila larrialdietarako zerbitzu orokorraren abiaraztea kudeatzen ari da, indarkeria sexistaren biktimei informazioa, balorazioa, laguntasuna eta orientazio teknikoa emateko, eta familia biltzeko guneen zerbitzua berria emateko, senar-emazteen banaketak direla-eta zaindutako bisitak egiten direnean. Prestakuntza eta enplegu egitarauan emakumeei enplegu zerbitzuak antolatutako ikastaroetan sartzeko aukera eman zaie; horretarako, familiako kargak dituztenei laguntzeko *Umezainen Zerbitzua* eskaintzen da. Departamentu horrek berak hainbat jarduera egiten du sentsibilizaziorako, prestakuntzarako –adibidez, Udaleko gizarte zerbitzuetako langileentzat– eta prebentzioan edo tratu txarren biktimen arretan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzak emateko.

Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak, bere aldetik, genero indarkeria pairatu duten emakumeen arreta bere gain hartzean, ardua berri horren hasierako ebaluazioa egin du, eta ondorio bi atera ditu: lehenengoa, Udaleko beste sail batzuekin batera lan egin behar dela zeharkako esku-hartzea sendotzeko. Helburu horrekin aldi-aldi bilerak egin ditu Hezkuntza Sailarekin, baliabideen hornidurari (hautzaindegietako gizarte plazak) edo sentsibilizazio-kanpainei buruz; ekiteko protokoloak ezarri dira Udaltzaingoarekin, eta Sustapen Sozietatearekin Prestakuntza eta Enpleguko prozesuetan esku hartzeko sistema egin da.

Bigarren ondorioan planteatzen da genero indarkeriari erantzuteko sare koherentea ezarri behar dela. Arazoa larria da, eta erakundeek zailtasunak dituzte indarkeria hori pairatzen dutenak babesteko eta bizimodu normalizatura itzultzen laguntzeko. Hori abiapuntu gisa hartuta baliabide ugari sortu dira, baina askotan ekimen bateratu gabeetatik sortu dira, eta horrenbestez baliabide inkoherenteak dira, bikoiztuak, eta are gehiago, kontraesankorrak. Esku hartzen duten herri-eragile guztien arteko ekintza koordinatu eta adostua ezinbestekoa da. Atal honen hasieran azaldu den bezala, ideia hori bat dator erakunde honen txostenean adierazitako gabeziarik nabarmenenarekin.

## 5. Emakumeen aurkako indarkeriari buruz poliziak bildutako datuak sistematizatzea

Atzemandako arazoen artean, Arartekoaren txosten monografikoak aipatzen du datu gutxiegi dagoela emakumeen aurkako indarkeriari herri administrazioek ematen dioten erantzuna zein den zehazki jakiteko. Ondorioz, erakunde honek gomendio hau egin zuen: “5.a: *Genero-indarkeriari buruzko irizpideak bateratu eta datuak bildu, sistematizatu eta hedatzeko prozesuak hobetzea*”.

Orain arte ikusi dugun bezala, administrazio batzuek ildo horretan doazen proiektu edo ekintzen berri eman dute, baina euren jarduera-eremura mugatuta daude, eta ez da ikusi erakundeen arteko koordinazioan aurrera egin denik.

Geure aldetik, Emakundera jo genuen, herri botereek emakumeen aurkako indarkeriari ematen dioten erantzuna zuzendu eta koordinatzeaz arduratzen den organismoa den aldetik. Hala ere, arlo honetan esku hartzen duten zerbitzuak ugari-ugariak eta askotarikoak direnez, poliziaren arreta hartu genuen gure esku-hartzearen ardatz.

Ertzaintzan jarritako salaketen datuak Emakunde aldian-aldian jasotzen dituzenez, tokiko poliziek bildutako datuak ere jaso ahal izateko mekanismo egokiak sortu ahal ziren galdetu genuen, horrela EAEn salatutako genero indarkeriaren kasu guztien erregistro bakarra kudeatu ahal izango litzatekeelako. Horretarako, komenigarria izango litzateke –lehenengo fasean ezinbestekoa ez bada ere– polizia guztiek datuak erregistratu eta sailkatzeko erabiltzen dituzten irizpideak bateratzea.

Emakunde erantzun zigun bat datorrela Arartekoaren ikuspuntuarekin. Horri buruz adierazi zuen erakundeen arteko akordioaren talde teknikoa Emakunderen ekimenez lanean ari dela etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko datuen bilketarako sistema bateratua sortzeko, gizarte zerbitzu guztietan aplikatzeko. Erkidego osoan informazio sistematizatu eta konparagarria eduki nahi da, hori balio handikoa izango baita egoera nolakoa den jakiteko eta esku-hartze egitarauak diseinatu ahal izateko.

Poliziaren estatistikei dagokienez, Emakunde urtean behin biltzen ditu hiru hiriburuetako Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen egoitzetan jarritako salaketei buruzko datuak. Ez luke eragozpenik izango Udaltzaingoa duten gainontzeko udalei datu horiek eskatzeko, baina bere ustez Herrizaingo Sailari dagokio salaketak erregistratzeko eta sailkatzeko irizpideak bateratzea nahiz informazio hori biltzea, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean xedatutakoaren arabera. Emakunde adierazi duenez horixe planteatu diote Sail horri, eta azken horrek, erakundeen arteko akordioaren barruan bere gain hartu du “*Euskal Herriko Toki Poliziek etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz ezagutzen duten informazio estatistikoa koordinatzeko, homogeneizatzeko eta sistematizatzeko araudi bat*” lantzeko konpromisoa (Akordioaren Jarraipen Batzordeak 2004-05-14an onartutako *Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen Arteko Akordioa ezartzeko neurriak (2004)* agiriko 2.1 Ekintza).

Erakunde horrek zainduko du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak konpromiso hori betetzen duen, eta aipatutako araudia berandutu gabe landu eta abian jar dadila saiaturiko da.

## **B. BESTE INFORMAZIO BATZUK, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-REN GAINEN TXOSTENEN GOMENDIOEI EMANDAKO ERANTZUNA DELA-ETA**

*Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn txostenean nabarmendu zenez, emakume horiek euren autonomia berreskuratzeko eta bizimodu independentea egiteko ezinbesteko baldintza bat etxebizitza eskuratzeko da.*

Gai hori hizpide duen 10. gomendioaren oinarrietan azaldu genuen horretarako bideratuta zeudela egitarau eta neurri arau-emaile batzuk, adibidez babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioari buruzko 2002-06-12ko Agindua. Hala ere, salbuespenak salbuespen, xedapen horiek oraindik ez dira aplikatu. Emakunderen bitartez, baina, jakin dugu Etxebizitza Sailburuordetzak 2005-02-03an komunikazio bat egin duela *Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza babestuaren arloko jarduketaren planari buruzko jarduketarako prozedura* gai duena. Txosten hau bukatu baino lehen ezin dugu komunikazio horren edukia aztertu, baina gure ustez indarkeria sexista pairatu duten emakumei etxebizitza eskuratzeko laguntzeko konpromisoa betetzen saiatzen da sail hori.

Erakunde honen txosteneko beste gomendio bat da egoera bereziki ahulean dauden emakume taldeei arreta handiagoa eskaini behar zaiela (11. Gomendioa). Aurreko orrialdeetan labur-labur aipatu ditugu bereziki emakume ezinduen eta etorkinen arazoak. Orain, labur azalduko dugu talde horietako beste bati buruz, neska adingabeei buruz Arartekoak egindako esku-hartze bat. Neska adingabe bi txabola batean itxi eta bizirik erre zituen haietako baten mutil-laguna izandakoak, eta heriotza lagarri horien ostean gazte bi horien inguruko pertsona batzuek esku hartzeko eskatu ziguten. Guk hori egin ahal izan genuen nerabe biak Bizkaiko Foru Aldundiaren zaintzapean egon zirelako. Txosten honetan babesik gabe dauden haur eta nerabeen artapenez ari den atalean (I.1.1.5) azaltzen denez, egin ahal izan genituen kudeaketen ondorioz ez zen frogatuta geratu adingabeen babesaz arduratzen diren erakundeek irregulartasunez jokatu zutenik. Gure Autonomia Erkidegoan emakumeen bizitza, osotasun eta askatasunaren aurkako gertaera horiek eta beste batzuk ikusteak prebentzioaren eta, batez ere, hezkuntzaren arloan ahalegin handiagoa egitera bultzatu behar gaitu, pertsona guztiak haurtzarotik denon arteko berdintasunaren eta errespetuaren balioetan gizarteratzeko.

Amaitzeko, *EAEko etxeko tratu txarren edota sexu-erasoen biktimentzako laguntza juridikoko zerbitzuaren* jarduna gainbegiratzeko egindako kudeaketa batzuk aipatuko ditugu. Zerbitzu hori 2003ko apirilean sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta Legelarien Euskal Kontseiluak izenpetutako hitzarmenaren bidez. Hitzarmen hori aplikatuz, hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoek beren gain hartu zuten “*espezializazioa eta berehalako, orotarako eta kalitatezko arreta*” irizpide dituen zerbitzua. Zerbitzu hori 24 orduko zaintza-aldien bidez gauzatzen da.

Zerbitzu hori abian jartzeko arazoak egon ziren, batik bat Gipuzkoan. Bertan, zerbitzu berriak abantailak dituela onartu arren oraindik ere ikusten da ez duela behar bezala ordeztzen lehen lurralde historiko horretako abokatuen elkargoak ematen zuen zerbitzua. Gipuzkoan gertatutakoa ikusita, Arabako Foru Aldundiak dagokion abokatuen elkargoarekin izenpetutako hitzarmenari eustea erabaki zuen. Hitzarmen horrek laguntza juridikoko prestazioen aldean zer ekartzen duen ez dakigunez, Arabako erakundeengana jotzea erabaki dugu horixe jakiteko.

2004an zerbitzu horretan arazoak eta disfuntzioak egon direla jakin dugu, baina horiengatik ez da kexa bat ere egin; beraz, kasu zehatzetan ezin izan dugu esku hartu. Batzuetan polizia funtzionarioek esan dute abokatuek ez dituztela beren zereginak behar bezala betetzen (adibidez, poliziaren bulegoetara joan beharrean salaketa jarri nahi duen emakumeari telefonoz aholkua ematen diete...). Baina protestarik gehien interesdunek beraiek egiten dituzte: zigor bidea hastearen ondorioei buruz aholku okerrak edo informazio gutxi jasotzeaz kexatzen dira, eta horretaz gain, emakume batek indarkeria kasu bati erantzun nahi dionean ez diotelako argi eta garbi azaltzen zein prestazio ematen dizkion dohainik txanda espezializatuak eta zein abokatu partikular batek, dela norberak libreki aukeratuta (eta horrenbestez, ordainduta), dela ofizioz izendatuta, doaneko laguntza juridikorako eskubidea badauka. Hain zuzen ere, horregatik kexatzen dira batez ere.

Arazo gehienak Bizkaian agertu direnez, bertako abokatuen elkargora jo dugu azal dutako azken arazo hori planteatzeko, argi utzi behar da-eta ez dagokiela bakarrik babesa eskatzen duten emakumeei, baizik eta epaiketa azkar bati aurre egin behar dioten pertsona guztiei ere bai. Erantzun gisa, Bizkaiko abokatuen elkargoa dokumentu bat prestatzen hasi da “ofiziozko txandaren” eta “doako justizia izatearen eskubidearen” arteko aldeak idatziz azaltzeko. Espero dugu dokumentu hori gutxi barru erabili ahal izango dela, eta atzemandako arazoak konpontzeko balio izango duela.

Arartekoak Gipuzkoa eta Arabako elkargoetara ere joko du gai hori bera nahiz genero indarkeria pairatzen duten emakumeentzako laguntzari buruz sor daitekeen beste edozein gai planteatzeko.

## 1.2. ADINEKOEI LAGUNTZEKO EAEko SISTEMARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

Erakunde honek ezohiko txostena egin du adinekoei laguntzeko EAEn dagoen sistemari buruz. 2004ko abenduaren 23an amaitu da eta 2005eko lehenengo hiletan emango zaio Eusko Legebiltzarreko buruari.

Lerro hauetan beraren eduki nagusiak azalduko dira.

Txosten honek Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona nagusiei eman zaien zuzeneko arreta-sistemari buruzko zerbitzu nagusiak aztertzen ditu -etxeko laguntza zerbitzua, egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroak-, sektorearen egungo egoera ezagutzeko helburuarekin; izan ere, azken urteotan atzemandako hazkunde garrantzitsuen ondorioz, egoitzako arretaren formula berriak agertu dira, eguneko zentroak modu nabarian garatu dira eta erakunde pribatuen esku-hartzea gehitu egin da.

Xede hori aintzat hartuta, alde batetik, aplikatzeko moduko esparru juridikoa, zerbitzuak eskuratzeko sistema eta finantzaketa-eredua deskribatu ditu; eta, beste aldetik, sektore horren garapena alderatu du 1991 eta 2001. urteen bitartean Gizarte zerbitzuen Estatistikak, Erakundeek eta Zentroek emandako informazioarekin; ondorenez, antzeman daiteke zer nolako ezberdintasuna dagoen gaur egungo egoeraren eta Arartekoak Legebiltzarrari gai honen txostena eratu zion unearen artean –Euskal Autonomia Erkidegoan dauden adinekoen etxeei buruzko aparteko txostena eta Euskal Autonomia Erkidegoan adinekoei ematen ez zaien egoitza-laguntzari buruzko aparteko txostena–. Txostena, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden egoitza-zentroek eta eguneko zentroek dituzten ezaugarri material eta horien funtzionamenduaren ezaugarri garrantzitsuenen azterketarekin osatzen da.

Guzti horren helburua da, sistemaren alderdi positiboak azpimarratzeari kalterik egin gabe, beraren gabeziak edo disfuntzioak antzeman eta etorkizunean jarduteko jarraibideak proposatzea.

Txostena lau zatitan egituratzen da:

- Lehenengo zatiak pertsona nagusiei emandako arreta-zerbitzuaren esparru juridiko-administratiboa erakusten du, eta, zerbitzu eta zentroi dagozkien eskumen-arazoak, baimenen inguruko indarreko arautegia, erregistroa, ikuskapena eta homologazioa, erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrak, zerbitzu desberdinen arauketa, horiek eskuratzea, finantzaketa-eredua, eta, azkenik, gune soziosanitarioan lortutako aurrerakuntzak jorratzen ditu.
- Bigarrenak 1991-2001. urteen bitartean pertsona nagusien biztanleriak eta gizarte-baliabideek esperimendatutako garapenari buruzko informazioa eskaintzen du, horiek ikuspuntu ezberdinetatik aztertuta, hala nola, programen eta zerbitzuen dimentsioa, erakunde sustatzaileen izaera, langileria, gastuak, ekarpen publikoak, kuotak eta estaldurak.
- Hirugarrenak egoitza-zerbitzuen eta eguneko zentroen egoera deskribatzen du, zentroek ekarritako datuak oinarri hartuta, bai eta hautatutako 52 egoitza-zentroetan eta 12 eguneko zentroetan betekizun materialak, funtzionalak eta langileria-eraren betekizun esanguratsuenak aztertuta ere.
- Azkenik, ondorioen eta gomendioen kapituluan gaur egungo egoeraren balantzea aurkezten da eta jardunaren inguruko zenbait arau proposatu dira, Ararteko



Erakundearen ustez, pertsona nagusiei emandako arreta-sisteman eskuratutako hobekuntzak indartzen laguntzeko modukoak izanik; horrez gain, uste da egoitzat jotako aldaketak nahiz berrikuntzak barneratzen ere lagunduko dutela.

Izan ere, arestian esan bezala, txostenean ikerketa sakona egin da eta horren barruan, besteak beste, indarra duen arautegiaren azterketa juridiko eta administratiboa dugu:

- Oinarrizko esparru juridikoa. Urriaren 18ko 5/1996 Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa.
- Eginkizunak mugatzen dituen araua: uztailearen 30eko 155/2001 Dekretua, gizarte zerbitzuen arloko eginkizunak mugatzen dituen.
- Zerbitzu eta zentroak erregistratu, baimendu, ikuskatu eta homologatzeko arauak.
- Zerbitzu eta zentroek baimena lortzeko bete behar dituzten baldintzak (hau da, behar dituzten baliabide materialak, baliabide funtzionalak eta langileak) zehazten dituzten arauak: egoitza-zentroei buruzko arautegia eta eguneko zentroei buruzkoa.

Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta langileen eskubideak eta betebeharrak ere aztertu egin dira, bai eta adinekoei arreta emateko zerbitzuak erabiltzeko aukera ere. Zehazki, honako alderdi hauek:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuak erabiltzeko aukera.
- Egoitza-zerbitzuak erabiltzeko aukera.
- Eguneko zentroak erabiltzeko aukera.
- Epeen kudeaketa. Itxaron-zerrendak.

Arazo eztabaidatuenetariko bat, hots, zerbitzuen finantzaketa, zehatz-mehatz jorratu da:

- Administrazioen finantza-erantzukizuna 155/2001 Dekretua onetsi ondoren
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketa
- Egoitza-zerbitzuen finantzaketa
- Eguneko zentroen finantzaketa.

Gizarte eta osasun eremua sortzeko bidean egin diren urratsak ere txostenean jaso dira.

Aurrean esan dugunez, txostenean azken hamarkadako bilakaeraren ikuspegia eskaini nahi izan da; horregatik, menpekotasun arazoak dituzten adinekoentzat EAEn dauden gizarte zerbitzuak 1991tik 2001era bitartean nola garatu diren aztertu da, biztanleriaren bilakaera eta zerbitzuen bilakaera kontuan hartuta.

Zehaztasun osoz jaso dira, gainera, egoitza-zentroen eta eguneko zentroen ezau-garriak.

Azkenik, ezohiko txosten guztietan bezala, gomendioen atala da garrantzitsua.

Txosten berezi honek berrikuntza metodologiko aipagarria dakar. Gomendio bakoitzaren ondoan balorazioa egin da, gomendio hori zergatik egin den azaltzen duena.

Atal horretan 52 gomendio bildu dira, txostenaren kapituluaren hurrenkerari jarraituz egituratuta.

Legebiltzarreko buruari aurkeztu eta gero txostena liburu moduan argitaratuko da eta gure web orrian sartuko da [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net).

### 1.3. EAEn FAMILIARIK GABE DAUDEN ADINGABE ATZERRITARREN EGOERAZ LASTER ARGITARATUKO DEN TXOSTEN BEREZIA

- Gure babes zerbitzuetan, nolabait, duela gutxi hasi dira familiarik dauden adingabe atzerritarrak agertzen. 1996an ez zegoen halako ia inor, lehenengo urteetan oso gutxi ziren (1996-2000) eta 2001ean izugarri gehitu ziren. Ordutik aurrera nabarmen eta jarraitua izan da bakarrik dauden adingabe atzerritarren presentzia.

Babes erakundeek –gure kasuan, foru aldundiek– erantzun beharreko egoera berria aurkitu zuten aurrez aurre. Lurralde bakoitzean hartutako adingabeen kopuruen arteko aldeak oso handiak dira oraindik ere. Alabaina, denborak edo erritmoak oso desberdinak izan diren arren, oso joera antzekoak izan dira hiruretan: harrera beharrak haziz joan dira, eta adingabe hauentzat soilik eta berriaz prestatutako zentroak atondu behar izan dira.

Arartekoaren erakundeak, gutxienez 1998. urtetik, adingabe hauen arazoan jarraipen sistematikoa egin du, bereziki hiru lurraldeetako harrera zentroetara aldioro bisitak eginez, foru aldundietara eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera bideratutako ofiziozko espedienteen bidez, eta administrazio horietako arduradunekin bilduz. Esku-hartze hertsagarriak –ez zehatzaileak– izateko aukerak dagokien arauan araupetu beharko lirateke, hezkuntza egitasmoaren barruan, babes zentroetan sartuta dauden adingabeen jokabide auzisuei, adingabearen beraren, gainerako adingabeen, hezitzaileen edo zentroko instalazioen osotasun fisiko eta moralerako arriskutsuak diren jokabideei aurre egiteko. Eta jarraipen horren berri aldioro eman zaio Eusko Jaurlaritzari helarazitako ohiko txostenetan (ikus 1.1.5. atalak, 1998tik 2003ra bitarteko txostenetan).

Txosten horietan guztietan jada jaso ziren, baita nahiko xeheki azaldu ere, adingabe hauei zegokienez igarritako arazo nagusiak:

- Zenbait aldundik adingabeen dokumentazioa tramitatzeko jarraitutako irizpidea (9 hilabete igaro arte tramiterik ez hastea) eta horrek dakartzan ondorio larriak.
- Hezkuntza Administrazioaren aldetik behar beste lagundu ez dela, adingabe hauek eskolatzeko arazoak egoki ebatzi ahal izateko.
- Babes sistemaren eta erreforma sistemaren arteko lotura.
- Adingabe hauek burujabetzen laguntzeko dauden baliabideen mugak (egoitza baliabideak batez ere).
- Hezurren bidez adina zehazteko proben atzerapena.
- Osasun arretarekin, gizarte ingurunearekin, polizia jarduerarekin, instalazioen mantentzearekin, hezitzaileen taldeen ezegonkortasunarekin eta abarrekin zerkusia duten beste arazo batzuk.

Iazko txostenean iragarri genuen moduan, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera 2004an zein den, zer arazo dituzten eta gure erakundeek, lurralde

bakoitzean, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zer-nolako arreta eskaintzen dieten xeheki ikertu da.

Aurreko urteetan egindako jarraipenari esker, bakarrik dauden adingabe atzerritar horien errealitatea nahikoa ondo ezagutzen genuen. Beraz, txostena egiteari begira, datuak eguneratu (izugarri aldakorra den eta etengabe bilakatzen ari den errealitatea baita), eta arazoak eta proposamenak (batzuk lehenagotik ere mahairatu baitziren) ordenatu eta sistematizatu behar ziren. Eragile desberdinen “ahotsak” ere jaso nahi ziren, erakundeetako arduradunen eta zentroetako zuzendarien ahotsez gain. Ikertzeko erabilitako metodologiak eta hurrengo ezohiko txostenaren egiturak ere aukera horiei erantzun nahi diete.

Urteko txosten hau idazten ari garenean, bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko ikerketa lana ia bukatuta dago, eta ezohiko txostenaren idazketa oso aurreratuta, azken orduko datu bat edo beste erantsi eta sustatzea besterik falta ez dela. Laster argitaratu ahalko da, beraz. Hemen ez ditugu orain haren edukia eta gomendioak aurreratuko, orain arte egindako urratsak laburbildu eta txostenaren egitura zein den aurreratu baizik.

- 2004an, pilatutako esperientzia abiapuntutzat hartuta, informazioa osatu eta eguneratu egin da iturri osagarrien eta txostena egiteko espresuki eskatutako datuen bidez. Funtsean:
  - 1) Arabako eta Bizkaiko foru aldundietako Gizarte Ekintza sailei eta, Gipuzkoako kasuan, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Sailari eta Gizarte Politikarako Sailari datuak eta informazioak eskatu zaizkie. Guztiei 12 galdera egiten zitzaizkien eskema berberaren bidez.
  - 2) Harrera zentroetako zuzendariari datuak eskatu zaizkie, irizpide eta bitarteko orokor batzuei segituz (bereziki taulak edo koadroak), datuak bateratuta alderatu eta jorratu ahal izateko.
  - 3) Bisitak lurralde bakoitzean familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrentzat berariaz diren harrera zentro eta baliabide guztietara.

Bisita bakoitzean (gehienak urtearen erdialdera egin ziren), honako zeregin hauek bete ziren, ingurumarien arabera egokituta:

- Elkarrizketa zuzendariarekin, aurretiaz prestatutako galdera-sorta luzeari segituz.
- Zentro edo etxeko instalazioak ikusi.
- Elkarrizketak talde edo txandetako hezitzaileekin, eta hainbat zeregin ez arduratzen diren beste langile batzuekin.
- Elkarrizketak han hartutako adingabeekin (kasu batzuetan denekin, beste batzuetan haietakoren bat edo beste aurrean zeudela).
- Zentroaren barruko antolamenduari buruzko dokumentuak eta jarduketa protokoloak aztertu edota jaso.
- Adingabeen espediente kopuru jakin bat ikuskatu, datuak ustiatzeko.

Bisitak egin baino lehen, informazioa sistematikoki biltzeko lagungarri izan zitezkeen zenbait bitarteko prestatu ziren, beren beregi; bitarteko horien baliagarritasuna zentro batean kontrastatu zen eta, kontraste horren arabera, orokorrean aplikatu aurretik berrikusi eta zuzendu egin ziren.

Bitartekorik gehienak datu taulak (langileen, adingabeen, zentroaren oinarritzko datuen gainean...), behaketa edo kontrol orriak, elkarriketak egiteko gidak eta espedienteetatik informazioa ateratzeko eta halakoetarako fitxak dira.

Txostenean zentro bakoitzean jasotako informazioaren zati bat soilik erabiltzen da, deskribatu eta aztertzeko. Beste zati bat, berriz, txostenaren kapitulu desberdinak osatu edo adibide modura aipatzeko erabiltzen da.

Bisitak amaitu eta zentro edo etxe bakoitzari buruzko atalak idatzi ondoren, bakoitzeko zuzendaritza edo lan taldeari bidali zitzaizkion, beharrezko irizten zieten ñabardurak edo zuzenketak egin ahal izan zitzaizten. Kontuan izan behar da txostenaren helburua ez dela zentro edo baliabide bakoitza ebaluatzea –horretaz foru aldundi bakoitza arduratu behar baita, baliabidea kudeatzen duen erakunde edo elkarte dena delarik–, guztietan dauden arazoak igarri eta adieraztea eta, gehiago ala gutxiago, denetan aplikatzeko moduko hobetzeko proposamenak egitea baizik.

- 4) Hobetzeko proposamenen gaineko eztabaidak hizpide nagusi dituzten bilerak; bileretara hogeit bat pertsonari deitu zitzaizkien, zerbitzu desberdinetan familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrek artatzen zuzenean inplikaturik daudelako edo horretaz badakitelako berariaz hautatuta; esperientzia, ikuspegi edo erantzukizun maila desberdinetako jendea, azken batean. Pentsatutako hiru bilerak joan den abenduan egin ziren.
- Txostenaren oinarritzko egiturari dagokionez, erraz eta argi begitantzen zaigun eskema aukeratu da:
    - Zer eskatzen duen legeak adingabe horiei buruz, eta zeini dagokion hori betetzea (1. kapitulua. Esparru juridikoa).
    - Zenbat eta nortzuk diren adingabe horiek, zer ezaugarri, behar eta itxaropen daukaten (2. kapitulua. Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako familiarik gabeko adingabe atzerritarren ezaugarriak).
    - Zer-nola erantzuten ari zaien adingabe horiei lurralde edota zentro bakoitzean (3. kapitulua. Erakundeen erantzuna).
    - Zer arazo nagusi igarri diren erakundeen erantzunean (erantzun hori eta legeak dioena eta adingabeek behar dutena konparatuz) (4. kapitulua. Balorazio orokorra. Igarritako arazo nagusiak).
    - Zer gomendio egin dizkien Arartekoak administrazioei, eskubideak bermatzeko bere eskumenaren ikuspegitik, eta igarritako arazo horiek gaintitzeari begira (5. kapitulua. Gomendioak).

Txostenaren mamia den oinarrizko eskema honen osagarri, honako hauek erantsi dira:

- Sarrerako zatia (txostenaren aurkezpena eta metodologiari buruzko azalpenak).
  - Zati osagarria (txostena egiteko erabili diren informazio “iturrien” zerrenda eta zenbait eranskin).
- Bestalde, txostenak izango dituen muga batzuk ere aipatzea komeni zaigu, hemen:
    - Haurrak eta nerabeak babesteko eskumenak EAEko administrazioei dagozkie, hezkuntza, osasun eta erreformakoak bezala; atzerritarrei buruzko gaiak, ordea, ez, Estatuko Administrazioaren eskumen baitira, eta, jakina, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei ere eragiten diete. Txostenak (arazoak igarri eta gomendioak egiten dituenean, batez ere) EAEko erakundeek esku hartzeko eskumenik handiena duten gaiak jorratzen ditu, Arartekoak ere, horregatik, kontrolatzeko ahalbide handiagoa baitu.
    - Txostenak eragile desberdinen “ahotsak” jaso nahi izan ditu: erakundeetako arduradunenak, zentroetako zuzendarienak, hezitzaileenak eta han aritzen diren beste langile batzuenak, hartutako adingabeenak beraienak... Baina, arrazoi desberdinak tarteko, ez du, esplizituki, prozesuan esku hartzen duten eta beren ikuspegia eman lezaketen beste batzuenak jaso: atzerritarren gaien atalena, adingabeen fiskaltzena, eta polizia eta osasun zerbitzuenak, esaterako.
    - Interesgarria litzateke, halaber, harrerarik gabeko egoerak hobeto ezagutzea, edo familia egoerak, edo abiapuntukoak, jatorrizko herrialdeetan zein ziren hobeto ezagutzea. Gai horiek oso azaletik baino ez dira ukitu txostenean, harrera egoerak, hemen, aztertzea izan baitu helburu nagusia.
  - Ikerketari adituz –eta ikerketa hau Arartekoaren erakunde barruko langileek egina dago– txostenak hogeita hamar bat gomendio zuzenduko dizkie administrazio eskudunei.

Txostena 2005eko bigarren hiruhilekoan jendaurrera ateratzeko eta Legebiltzarreko buruari emateko moduan egotea espero da.

## 1.4. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA, EAEko GAZTEEK ETXEBIZITZA ESKURATZEARI BURUZKOA

Arartekoaren erakundeak ezohiko txostena hasi du, gazteek etxebizitza eskuratzean izaten dituzten gorabeherei buruzkoa.

Azterketa soziologiko guztietan argi erakusten da gazteek dituzten arazo nagusi biak, gaur egun, etxebizitza eta lanpostua lortzea direla.

Horrek Arartekoa txosten bat idaztera bultzatu du, gazteek euren lehen etxebizitza eskuratzeko izaten dituzten arazoak ikertzeko.

Etxebizitza duin eta egoki bat edukitzeko eskubidea Konstituzioan jaso zenean, ezarri zen botere publikoek eskubide hori benetan gauzatu ahal izateko bitartekoak jarri behar dituztela. Etxebizitzen prezioa da kezka nagusietako bat, batez ere oraindik euren lehen etxebizitza eskuratu ezin izan duten pertsonen kasuan (gazteak gehienetan).

Azterlan honen helburua Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde publikoei (batez ere udalei, Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari) gogoetarako elementuak eta jarduteko proposamenak eskaintzea da, premiarik gehien dauzkaten pertsonen kolektiboari (eta gurasoen etxetik alde egin nahi duten gazteei, bereziki) etxebizitza eskuratzeko errazteko.

Helburu horrekin bada, azterlanak ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- Euskal Autonomi Erkidegoan gaur egungo egoera ekarri duten aurrekari sozio-politikoak aztertzea. Halaber, arazoak honezkero hartu duen tamaina, etxebizitza eskuratzeko zailtasun gehien duten pertsonen ezaugarriak eta arazoaren balizko bilakaerak azaldu beharko lirarteke.
- Administrazio publikoek abiatutako jarduketan balorazio konparatiboa egitea, autonomi erkidego honetan indarrean dauden arazuko betekizunak kontuan izanik.
- Euskal Autonomi Erkidegoaren antzeko ezaugarriak dituzten bestelako gizarte-testuinguruetan helburu berarekin hartu diren neurri eta xedapenak aztertzea eta aukeratzea.
- Zenbait jarduketa proposatzea, indarrean dauden xedapenak betetzeko nahiz arautegi berriak sortzeko aukera aztertzeko, beste leku batzuetan egin diren ekimenak aintzat hartuta.

Helburuak azalduta, hona hemen aplikatu behar den metodologia eta aztertu behar diren informazio iturriak:

### ***a) Arazoaren aurrekariak eta neurriak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten biztanleen ezaugarriak eta bilakaerari buruzko aurreikuspenak.***

Euskal Autonomi Erkidegoko etxebizitzaren merkatuari buruz daukagun informazioa, bai eskaintzaren bai eskariaren ikuspegitik, nahikoa da arazoak hartu duen tamainaren irudi argi bat eskaintzeko eta ukitutako pertsonen ezaugarriak erakusteko. Fase honetan, daukagun informazioaren azterketa xehean datza egin beharreko lana, batez ere Eusko Jaurlaritzako hiru sailetan: Etxebizitza

eta Gizarte Gaiak; Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza; eta Kultura. Etorkizunerako aurreikuspenak egiteko, biztanleri eta etxebizitza erroldak, eta Eustatek biztanleriaz egin dituen aurreikuspenak hartuko dira erreferentzia gisa.

### **b) Euskal administrazio publikoek aplikatutako neurriak**

Administrazio publikoek etxebizitzaren gaian eginiko jardunaren balorazioa egiteko, inkestak eta taldeko eta banako elkarrizketak erabiliko dira.

- Inkesta udal guztiei zuzenduko zaie. Galdetegia diseinatzerakoan, indarrean dauden xedapen orokorrak eta tokiko erakundeen autonomi maila garrantzitsua izango dira kontuan.
- Elkarrizketak ondoko hauetako teknikariei eta ordezkari politikoei egingo zaizkie:
  - Berrogeita hamar mila biztanletik gorako zazpi udalak;
  - Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetza eta bere menpeko Zuzendaritzak;
  - Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza;
  - Herri Kontuen Euskal Epaitegia;
  - foru aldundiak, baldin eta, salbuespen gisa, gai honetan ekimenik egin badute.
 Elkarrizketa hauetan, aipatutako erakundeetan dagoen informazio garrantzitsu guztia jasoko da.
- Era berean, informazioa osatzeko, EAEn etxebizitzarekin zerikusi berezia duten gizarte eragile batzuei elkarrizketak egin ahal zaizkie.

### **c) Etxebizitzaren inguruko neurriak eta xedapenak beste gizarte testuinguru batzuetan**

Ikerketaren fase honetan, gazteek gurasoen etxetik alde egin ahal izateko eta etxebizitza eskuratu ahal izateko arazoak hoberen konpontzen diren gizarte-testuinguruetan aplikatutako lege xedapenak, jarduketa planak eta neurriak jaso, aukeratu eta baloratuko dira. Horretarako, bi norabideko ikerketa egin beharko da:

- Etxebizitzaren arazoaren eragina txikiagoa den testuinguruak aurkitzea, Eurostatek eta zenbait behatokik (Espainiako “Vivienda Joven”, “European Housing Forum” eta bestelakoek) emandako informazioan oinarrituta.
- Erreferentziatzeko esparru horiek aukeratu ondoren, haietan indarrean dauden neurri eta xedapenak analizatzea. Horretarako, gai honetan espezializatutako legeriaren eta literaturaren datu baseak kontsultatuko dira, jakiteko aplikatutako neurriak eraginkorrak diren eta Euskal Autonomi Erkidegoan ezartzen saia gaitzkeen.

Ikerketa hau egiteko, SIIS ikerketa eta dokumentazio zentroaren laguntza jasoko dugu.

Arartekoaren ezohiko txosten guztietan legez, gomendioen atal bat sartuko dugu.



Ikerlanari ekin zaio dagoeneko, EAEko udalerrri guztiei galdetegi bat bidaliz, gazteek etxebizitza eskuratzeko dauzkaten arazoei buruzkoa.

Galdetegi horren bidez, udalerrien etxebizitza politikaren berri jaso nahi dugu eta, zehazki, etxebizitzaren arloan gazteentzako programa edo plan berezirik ba ote dagoen. Baiezkoan, nolako ekimenak egiteko asmoa dagoen jakin beharko genuke.

Txostena 2005. urtean egingo da eta Legebiltzarraren aurrean datorren urtean aurkeztuko da.

## 1.5. HURRENGO TXOSTEN MONOGRAFIKOA, ETXERIK GABE ETA BAZTERKETA EGOERA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN OINARRIZKO BEHARRIZANEI EMATEN ZAIEN ERANTZUNAREN GAINEKOA

Arartekoak laster ezohiko txostena egingo du etxerik gabe eta bazterketa egoera larrian aurkitzen diren pertsonen oinarrizko beharrizanei gure Erkidegoan ematen ari zaien erantzunari buruz. Izan ere, lehentasunez eta sakonki aztertu behar da bereziki kalteberak diren pertsonen edo giza taldeen egoera, eta egoera horren hobekuntza sustatu behar da, gure txosten monografiko gehienetan egin dugun bezala.

Etxerik gabe edo bazterturik dauden pertsonen arazoak erakunde honi batzuetan kexa zehatzen bitartez azaldu izan zaizkio, eta beste batzuetan, zuzenean nahiz zehar bidez, txosten monografiko jakin batzuk (espetxeak, buru-osasuna, ezgaitasuna...) egiterakoan, edo hainbat elkartek ekarri diguten informazioaren bitartez (bilerak, urteko memoriak eta abar). Horrela, esate baterako, arazoak agerian jarri dira honako bide hauetatik:

- Jasotako kexen bitartez. Kexa horien gaiak askotarikoak dira: bizilekua izateko baliabide jakin batzuk erabili ahal izateko baldintzak, laguntza ekonomikoak emateko baliabiderik eza edo moteltasuna, erakundeek gizarte ekimenei ematen dieten sostengua, zenbait baliabide sortu nahi izan direnean gizarteak agertu duen arbuioa...
- Presoei edo espetxean izandakoei, drogazaletasun arazo larriak dituztenei edo buru-osasuneko arazoak dituztenei laguntzen dieten elkarrekin izandako bileren bitartez.
- Zerbitzu jakin batzuetara egindako bisiten bitartez: Hontza, zaintzapeko konsumorako gela, erkidego terapeutikoak, eguneko zentroak, etxebizitza babes-  
tuak...

Orain arteko esku-hartzeak gai zehatzen gainekoak izan dira soilik. Esku hartzeko erabilitako bideak kexak, ofiziozko jarduketak eta, kasuren batean, bitartekotza izan dira. Baina inoiz ez zaio horrelako pertsona guztien arazoak eta arazo horietarako erantzunak sakonki aztertzeari ekin. Horixe egin nahi da 2004an hasitako azterketa monografikoaren bitartez.

Egin-eginean ere, azken urteotan etxerik gabeko pertsonen ezaugarriak aldatuz joan dira eta ez dira “pasadizoko” pertsonen kontzeptu klasikora doitzen jadanik. Hementxe ditugu –askotan egonkortuta edo aldi luzeetan– eta behar gorrian bizi dira, bizilekurik gabe, familiaren laguntzarik gabe edo euren jatorrizko ingurunetik urrun. Egoera horiek sarritan egoten dira buruko gaitz kronikoekin, narriadura fisikoekin, droga kontsumoko arazo larriekin eta abarrekin loturik. Horrezaz gain, kontuan hartu behar da gero eta gehiago direla beren oinarrizko beharrizanak asetzetik ez duten etorkinak, esate baterako, bizilekurik ez jatekorik ez dutenak. Ez da batere erraza horiek zenbat diren jakitea, baina asko (milaka pertsona) dira eta, agian, gero eta gehiago izango dira.

Egoera horiei erantzuna emateko programak eta zerbitzuak sortu dira gizarte ekimenaren edo erakundearen konpromisoaren ondorioz, baliabideen “mapa” korapilatsu edo dibertsifikatu bat itxuratu arte.

Etixerik gabe edo gizartetik guztiz baztertuta dauden pertsonen arazoetara oso interes, ikusmolde eta metodo ezberdinak ditugula hurbildu ahal gara. Gure kasuan, ez dira pertsona horiek zenbatu edo haien ezaugarriak aztertu behar, ezta egoera horretara eraman dituzten kaltetan sakondu edo haien beharrezan eta arazoak aztertu ere. Hori guztia egitea ona izango litzateke, baina ez lanaren funtsezko xedea. Azterketan “erantzunak” hartu nahi dira ardatz nagusi, bai erakundeenak bai hainbat gizarte-eragilek sustatuak.

Ikuspegi horretatik, helburuak honako hauek ditugu:

- Pertsona horientzat berariaz ezarri diren edo gehienbat beraiek erabiltzen dituzten baliabide eta zerbitzuen egungo “sarea” ezagutu, deskribatu eta aztertzea (ostatu zerbitzuak, elikadura, harrera, deribazioa eta laguntzen kudeaketa, osasun zerbitzuak, heziketa zerbitzuak, kalekoak...)
- Dauden baliabideak beharrezan asetzeko egokiak ote diren begiratzea, inplikaturiko sektoreek (etxerik gabeko pertsonen eurek, profesionalak, elkarteak, erakundeak) esaten dutena kontuan harturik, baita aldagai askoren arabera (adina, sexua, jatorria, ezgaitasuna, buruko gaixotasunak eta abar) gertatzen diren egoera ezberdinak ere.
- Hobetu behar diren funtsezko alderdi batzuk nabarmentzea, administrazioei dagozkien eginkizunak bereziki: gizartearen parte-hartzearen sustapena, plangintza, finantzaketa, ebaluazioa, koordinazioa...
- Hutsuneak detektatzea: falta diren baliabideak, arretarik ematen ez zaizen sektoreak, beharrezan betegabeak...
- Erantzuna eta baliabideak hobetzeko balioko duten zenbait jardun-lerro edo proposamen egitea...

2004an azterketaren oinarriak finkatu ziren, hainbat proiektu eskatu eta aztertu ziren, Biker Kabineteari ikerlana adjudikatu zitzaion eta zerbitzuarekin zerikusia duten administrazio eta erakundeekiko harremanak finkatu ziren.

Txosten hau idazteko unean hasita dago informazioaren bilketa sistematikoa, eta azken txostena 2005. urtearen bukaerarako egitea espero da.

## **2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPECTATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK**

### **2.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO HARREMANAK**

Urtearen erdialdean Ararteko berria izendatzearen ondorioz, elkarte eta talde askok berarekin bildu nahi izan dute zuzenean harremanetan jartzeko, informazioak trukatzeko eta elkar hobeto ezagutzeko. Beste kasu batzuetan Arartekoak berak komenigarri iritzi dio elkarte jakin batzuekin biltzeari, kontuan hartuta zein diren bere lehentasunak, elkarte horiek zein pertsona multzo ordezkatzan duten edo zein eskubide defendatzen duten. Horrela ulertu behar da, adibidez, Arartekoak lehenengoz terrorismoaren biktimen kolektiboarekin bildu nahi zuela adierazi izana, bere agintaldia hasi eta berehala.

Aurreko urteetako esperientziak erakutsi duenez, elkarte eta talde asko gure gizartean baztertuta dauden edo bereziki zaurtu ahal diren sektoreen eta Arartekoaren eta antzeko erakundeen arteko funtsezko bitartekariak izan daitezke. Beraiek direla bitarteko, haiek hobeto ezagutu ahal dituzte beren eskubideak eta gatazkak konpontzeko bideak. Haiek beren aldarrikapenak adierazten lagundu ahal diete. Izan ere, haiek administrazioei hiritarrei zerbitzua arretaz egiteko eskatu ahal diete. Horrela, erakundeenganako konfiantza eta gizarte kohesio handiagoa ahalbide daiteke.

Aurreko txostenetan berretsi den bezala, Arartekoarentzat eta beste erakunde bermatzaile batzuentzat, elkarteok benetako gizarte antena gisa jardun dezakete: bestela oharkabean pasa daitezkeen arazoak eta egoerak detektatu eta ezagutarazi ahal izateko sentsoreak. Egin-eginean ere, sarritan defentsa edo babes beharrik duten pertsonak dira erakundeengana urriki josten dutenak: haiek daudela ez dakitelako edo dagozkien eskubideak ez dakizkitelako, oinarritzko gizarte trebetasunen faltagatik, aurretiko esperientzia txarren ondorioz atzera egiteagatik, erakundeenganako edo arazoak konpontzeko duten gogo edo gaitasunarekiko mesfidantzagatik... Pertsona horietarik askok ez dute kezarik agertzen, zeren eta hori egin dezaketela ez baitakite edo hori nola egin ez dakitelako.

Horregatik, 2004an ere, Ararteko erakundeak gizarte-eragileekiko arauzko harremanak lantzen jarraitu du, baztertuta dauden pertsonen laguntzen edo gizarte arazo askotarikoak konpontzen jarduten duten talde, elkarte eta erakundeekikoak bereziki. Talde horiek honakook dira: giza eskubideen aldeko taldeak, atzerritar pertsonen laguntzekoak, askatasunik gabekoei laguntzekoak eta baztertuta daudenei laguntzekoak, buruko gaixotasuna duten pertsonen senideak...

Egiaz, gure erkidegoan talde, elkarte eta erakunde asko daude eta hori gizarte bizitasunaren seinalea da, baina, aldi berean, haiekin lankidetzarako harreman egonkorrak-edo izan gura dituenarentzako erronka ere bada. Gure kasuan, mugak kontuan harturik, gure lankidetzarako gogoia gauzatzen saiatzen jarraitu dugu. Horretarako, erabili ohi diren bide osagarriak baliatu ditugu:

- Beren arazoak eta proposamenak guri azaltzeko gogoia azaldu duten talde eta elkartei baietz erantzutea

- Aurretik harremanak genituen talde askorekin harremanetan urtero jarraitzea, hori posible izan denetan.
- Harreman berriak finkatzen hastea, sektore bereziki ahulekin lan egiten duten talde jakin batzuekin edo une horretan aztertzen gabiltzan sektoreen arazoekin zerikusia dutenekin.
- Antzeko interesak edo jarduera-eremuak dituzten elkarteen arteko koordinaziorako plataformak egotea aprobetxatzea.

Horrela, 2004an zehar, Ararteko erakundeak lankidetzaharreman biziak-edo izan ditu beren gizarte ekintza eremu batzuetan garatzen duten elkarteekin. Eremu horiek honakook dira:

- eskubideen urratzeak salatzea nazioarteko eremuan;
- ingurumena defendatzea;
- familiaren laguntzarik ez duten pertsonak babestea;
- memoria eta biktimen oroitzapena;
- arrazakeria eta diskriminazioa eragotzi eta salatzea;
- hirugarren adinekoek gizarte-bizitzan parte hartzea;
- haurren eskubideak;
- frankismoak errepresaliatutako pertsonen eskubideak babestea;
- proiektu edo jarduerak eragindako auzokide elkarteen eskubideak;
- babesik gabeko nerabeak hartzea;
- justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta;
- gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsonen defentsa eta beraiantzako arretarako programak garatzea;
- minusbalotasun edo ezintasun era ezberdinetarako gizarte erantzuna;
- atzerritar jatorriko pertsona etorkinak gizareratzea;
- ijito taldearen beharizan zehatzekiko planteamendua eta erantzuna;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonen eta beraien familiei laguntza eta arreta ematea;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea;
- pertsona atxilotuak kartzeletatik atera edo hurbiltzea lortzea;
- hiesa duten pertsonak laguntzea;
- terrorismoaren biktimetzako arreta edo haien eskubideen defentsa;
- sasoikako langileentzako eta beraien familientzako arreta;
- hezkuntza-beharizan bereziei erantzutea;
- babesturik ez dauden eta legea urratzen duten adinez txikiak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea;
- giza eskubideak defendatzea eta beraien beste herri batzuetako bortxaketak salatzea;
- hezkuntzarako eskubidea defendatzea;
- hizkuntza eskubideak defendatzea eta euskara erabiltzea;
- droga-mendetasunari buruzko arazoak dituzten pertsonen arreta ematea;
- hirugarren munduko herriak garatzen laguntzea eta haiekiko elkartasuna;
- etnia gutxiengoak eta bazterreko taldeak gizareratzea;
- zona bereziki deprimietako gizarte kohesioa eta haiek suspertzea;
- bakezaletasuna eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea;

- emakumeen eskubideak babestea;
- tratu txarrak prebenitzea eta tortura-egoerak salatzea;
- baztertutako eta famili laguntzarik gabeko pertsonenganako gizarte-osasuneko arreta;
- hainbat talde profesionalen defentsa;
- animaliak etikoki tratatzea;
- gune publikoetara sartzeko erraztasuna;
- osasun-eremuko intimitaterako eskubidea defendatzea.

Kasu askotan (elkarteen eskabideetarako erantzuna, talde batekiko harremanak hastea edo koordinaguneak egotea) harremanak zuzenekoak izan dira eta topaketa edo bileraren bat ekarri dute. Bestetan, esate baterako, aurreko urteetan hasitako harremanek irautean edo kexa zehatza kudeatzean, haien iraupenak ez du beti bilera berririk ekarri; batzuetan nahiko izan dira ahozko edo idatzizko informazio-trukeak, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materialak edo agiriak bidaltzea...

Modu batera edo beste batera, bide batzuk edo beste batzuk erabilirik, aipatutako mugak gorabehera, azken urtean zehar taldeekin, elkarteekin eta erakundeekin lankidetzarako formula, material eta informazioen trukeak edo bilerak izan dira. Talde horiek honakook izan dira:

- ADSIS-Bestalde
- AGIPASE (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte)
- Lurralde guztietako Alkoholiko Anonimoak
- Aldarriketa
- Amarena
- Nazioarteko Amnistia
- APDEMA (Adimen-eritasuna duten pertsonen aldeko Arabako elkarte)
- Arazoak (Haur autisten gurasoen Arabako elkarte)
- Afrovasca elkarte
- Bidegurutzia elkarte
- Alzheimerra duten gaixoen Arabako elkarte
- Guardia zibilen elkarte
- Hegaldi emakumeen elkarte
- Droga Gehiegi Hartzea ikertzeko eta prebenitzeko Gipuzkoako Elkarte (AGI-PAD)
- Juana Mugarrieta elkarte
- Buruko osasuneko euskal elkarte
- Kontsumitzaileen elkarteak
- Giza eskubideen aldeko beste herri batzuetako elkarteak
- San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra auzoetako elkarteak eta laguntza taldeak
- Torturaren aurkako elkarte eta taldeak
- Hirigintza-planek, ingurumen-arazoen eta zerbitzu-sareko hutsek kaltetutako herritarren elkarteak eta erkidegoak (Ulia, Getxo, Oiarso, Lateorro (Llodio), Sorabilla (Andoain), Altza-21 herri ekimena...)
- Hainbat ikastetxe publikotako ikasleen gurasoen elkarteak eta federakundeak
- ATEA (Animaliak etikoki tratatzeko elkarte)

- ATECE (Garun eta burezurreko traumatismoaren eta burmuineko gaixotasunen Arabako elkarteak)
- AZRAF
- Berriztu
- Besarka (Arabako harrera- eta adopzio-elkarteak)
- Bidasaldeko Emakumeak
- Bidesari – Kartzelako Pastoraltza
- Bilbo-Etxezabal
- Bizitegi
- Lurralde guztietako Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuari laguntzeko Batzordea)
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Haur eskoletako hezitzaileen kolektiboa (Vitoria-Gasteiz)
- Hizkuntza-eskakizunik ez duten eta egonkortasun-erabakien eraginpean dauden irakasleak
- Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (COVITE)
- Lurraldeetako abokatuen elkargoak
- Altzibar (Oiartzun) auzoko bizilagunen batzordea
- Hiru lurraldeetako HIESaren aurkako herritar batzordeak
- Hainbat ikastetxetako eskola kontseiluak
- HIESaren aurkako elkartearen koordinakundea
- Bizkaiko Urritu Fisikoen Koordinakundea
- Gipuzkoako Urritu Fisikoen Koordinakundea
- Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinakundea
- Harresiak Apurtuz, immigranteei laguntzeko GKEen Koordinakundea (CEAR, Bilbo-Etxezabal, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, Munduko Medikiak, Satalur, Senegaldarren Elkarteak, Etorquinekin Bat, etab.ek osatua)
- Gipuzkoako Gurutze Gorria
- Hainbat sindikatu, kolektibo eta lanbide-elkarteak
- Ekimen
- Ekologistak martxan
- Ijitoekin harremana duten irakasleak
- Erantsi
- Errotatxo
- Etxerat
- Atxilotuta edo preso dauden pertsonen senideak, hainbat lekutakoak
- FEDEAFES (Buruko Gaixoen Senideen Elkartearen Euskadiko FEderakundea) eta federakunde horren barruko elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Etorrintza Fundazioa
- Fernando Buesa Fundazioa
- Hurkoa Fundazioa
- Izan Fundazioa – Gizakia Helburu
- Mejora Fundazioa
- Miguel Ángel Blanco Fundazioa

- Bakearen Museoa Fundazioa (Gernika)
- Arabako buruko gaixoen Babes Fundazioa
- Gorabide babes fundazioa
- Gatazka konpontzeko batzordea
- Gaztaroan Ekin
- GENE (Gipuzkoako gaixo neuromuskularren Elkarte)
- Gernika Gogoratuz
- Bakearen aldeko Koordinakunde
- Geureak (frankismoko errepresaliatuen elkarte)
- Goiztiri
- Gorabide
- Terrorismoaren indarkeriak osasunean duen eragina aztertzeko eraturako taldea
- Eraikitzaileen taldea
- Hainbat arazo dituzten ikastetxeetako guraso taldeak
- Beren herrietako arazoak ezagutzera emateko edo lankidetzaren egitarauen barruan gure herria bisitatzen duten beste herri batzuetako pertsona taldeak
- Gurasoak
- Hartu-emanak (Etengabeko ikaskuntzarako eta gizarte partaidetzarako adineko pertsonen elkarte)
- Hezilan
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Hobetu leike
- Hontza (drogaren mendeko pertsonen laguntzeko zentroa)
- Lurraldeetako Birgizarteratze Institutuak (IRSE)
- Izangai
- Kalé dor Kayikó
- Kidetza
- Lur gizen
- Munduko Medikuak
- Haur Hezkuntzaren aldeko Mahaia (hainbat elkarte eta sindikatuk osatua)
- Mugarik gabe
- ONCE (Lurraldeko kontseilua)
- Kartzelako Pastoralta
- 0-3 Plataforma (Euskal Eskola Publikoa)
- Pertsona atxilotuei laguntzeko taldeen plataforma
- Geugaz plataforma
- Martutene plataforma
- Txingudiko erraustegiaren aurkako medikuen plataforma
- Kartzela eta osasuna plataforma
- Hainbat lekutako oinarritzko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Gizakia Helburu
- Komunitate indigenen ordezkariak
- Salestarrak
- Lurraldeetako Salhaketa
- Sarean (ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen elkarte)



- Ijitoen Idazkaritza Nagusia
- Hezkuntza Zerbitzuak (berritzeguneak, hezkuntza bereziko zerbitzuak, ISEI-IVEI, udal zerbitzuak...)
- Sindikatuak eta sindikatu-atalak (CCOO, ELA, LAB, UAGA)
- Lurraldeetako SOS-Arrazakeria
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- T-4
- Hirugarren Ordenako Kaputxinoak
- Torturaren kontrako taldea (Santurtzi)
- Abokatuen elkargoen kartzeletako laguntzarako txandak (TAP)
- UNICEF-Euskadi
- Uribe-Kosta
- Zain dezagun Urdaibai
- Zubia

Askotan, Ararteko erakundeak berak egindako lan monografiko batzuetan finkatu da edo hasi zen elkarteekiko lankidetzan. Lankidetzan mota horrek, informazioa lortzekoa eta guk zehazki aztertutako gaiari jarraitzekoa askotan izan denak, eremu askotan iraun du urtean zehar. Eremu horiekin honakook ditugu: adin txikiko pertsona lege-urratzaileekin esku hartzea (Berritza eta Gaztaroan Ekin hezkuntza elkarteak); buruko gaixotasunen arreta komunitarioa (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEAFES...); inoren kargura ez dauden adingabeko atzeritarrekin esku hartzea (Harresiak Apurtuz Koordinakundea, Gurutze Gorria-Gipuzkoa, Hirugarren Ordenako Kaputxinoak, Salestarrak, AZRAF...); kartzelan dauden pertsonentzako laguntza (ADSIS-Bestalde, Etorkintza, Izangai, Gizakia Helburu, Bilbo-Etxezabal, Kartzelako Pastoralta, Hegaldi...). Bestetan, elkarteekiko harremanak elkarteok antolatutako ekitaldietan edo foro zehatzetan batera parte hartzeari esker izan dira, edo kexa jakin batzuk tramitatzearen edo arazoren bat konpontzeko jardueraren kariaz, edo agiriak eta materialak elkarri trukatu.

Egia esan, lankidetzan edo informazio-truke guztietatik ez dator instituzio honen jarduerarik, berehalakorik bereziki. Alabaina, askotan, izandako bileretatik abiatuta, aldean arteko lankidetzaren ondorioz eta aldean jarduerarako askatasuna erabat errespetaturik, ildo honetako jarduerak sustatu dira:

- Elkarteek eurek aurkezturiko kexak (taldekakoak eta banakakoak) tramitatzea.
- Elkarteek agerian jarritako arazoak konpontzeko Arartekoaren ofiziotik jarduerak, Administrazioaren hainbat sailen aurrekoak.
- Herri erakundearen eta elkarten arteko harremanak hobetzeko proposamen edo bitartekotza-lanak.
- Giza eskubideetako sentsibilizazio edo prestakuntzarako programetan parte hartzea.
- Hainbat taldek sustaturiko elkertasunezko ekitaldi edo kanpainetarako erakunde laguntza.
- Arauak aldarazteko proposamenak aurkeztea.
- Lanerako informazio eta agiri baliagarriak trukatzeko.
- Eremu jakin bat gogoz ikertzea (lan monografikoak).
- Zerbitzu jakin bat edo berehala etortzekoa den arazo bat saihesteko presazko kudeaketak, agintaritzen aurrekoak.

Adibide gisa, laburki aipatu ahal ditugu Ararteko erakundeak lankidetzako marko honetan 2004an zehar burututako zenbait jarduera esanguratsu. Horrela:

- Harresiak Apurtuz GKEen koordinakundearekiko harremanak biztanle immigranteen arazo batzuen jarraipen hobea egiteko aukera eman du, bai eta arazo horiei buruzko ekimen eta proposamenak konpartitzeko: erroldatzea, etxebizitza alokatzea, San Frantziskon poliziak duen jokaera, atzerritar jatorriko adingabeak eskolaratzea, inoren kargura ez dauden adingabeen egoera... (ikus txosten honetan bertan aurreko txostenen jarraipenari buruzko atalak, gomendio orokor berriak, bekak eta etorkizunean egin beharreko txostenak).
- Inoren kargura ez dauden adingabeko atzerritarren harrera zentroekin eta zentro horiek kudeatzen dituzten elkarteekin aldiari-aldiari harremanak izaten dira, eta horri esker euren egoeraren jarraipena egin ahal izan dugu, baita aurten hurrengo txosten monografikoa egiteko ikerketa egin ere (ikus txosten honetako 1.1.5 eta 1.3. azpiatalak).
- Urtean egindako bisitetako askori esker (Hontza gaueko zentroan, arrisku gutxiagorekin kontsumitzeko zentroan –Bilboko Bailen kalean–, erreforma zentroetan, harrera zentroetan...) zentroak edo baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin harreman zuzena izaten da, egoeraren berri egunez egun izaten da, gure gomendiok betetzen dira, jarduera berriak bultzatzen dira... (ikus 1.1.5, 1.1.6 eta 1.1.7. azpiatalak).
- Elkarte batzuek azaldutako kexen ondorioz (adibidez, frankismoaren garaian askatasunik gabe utzi zituzten pertsonen “Geureak” elkarteak, Eusko Jaurlaritzak eskainitako laguntzen gainean), administrazio erantzuleekin bitartekaritzako gestioak edo jarduerak burutu behar izan ditugu.
- Erakunde honentzat terrorismoaren biktimen elkarteekiko nahiz biktimekiko eurekiko edo haien senideekiko harremana lehentasunezkoa izan da. Elkartasuna erakusten eta babesa ematen saiatu da erakundeak, eta deitutako ekitaldietan parte hartu du, haiengandik hurbil dagoela erakusteko.
- Presoei laguntzeko elkarte askorekin harremanak izan ditugu aldizka. Horrek alde ordeztu du presondegietara zuzenean sartu ezina. Horrela, datuak elkarri trukatu ahal izan dizkiogu, eta ofiziozko jarduera edo borondate oneko kudeaketa batzuk abiarazi ahal izan ditugu (ikus txosten honetako 1.1.1. azpiatala).
- Tratu txarrak edo torturak salatu dituzten pertsona atxilotuen senideekin bilera eta elkarrizketak egin ditugu. Hori dela bide, horrelako ekintzak prebenitzeko eta ezabatze gomendioak eman ditugu, erakunde bermatzaileekin edo ikerketa-erakundeekin informazioak eta proposamenak trukatu ditugu, judizio-bidetatik at, atxilotu lekuak bisitatu ditugu edo polizi atestatuak araketak berrikusi ditugu. Ildo horretan, azpimarratzekoa da torturaren prebentzioari buruz Arartekoak egindako agiriaren jendaurreko aurkezpena, 2004ko abenduan.
- Haurren Hezkuntzarako Plataformekiko harremanak adorea eman digu erakunde honek behin eta berriz egindako gomendio hauei eusteko: 0 eta 3 urte bitarteko etapan plana egin eta lehentasunak ezarri beharra dagoela, plan horren benetako ezarpenari buruzko datuak eskatu behar direla... (ikus txosten honetako 1.1.10. azpiatala).
- Hainbat zerbitzu ikustera joan gara, edo elkarrizketak eta bilerak izan ditugu zerbitzu horietan lanean dabiltzan profesionalekin. Horiei esker aztertu ahal izan

ditugu elkartean eta administrazioen arteko zenbait hitzarmenen ezaugarriak, horiek lan-baldintzetan edo emandako zerbitzuaren jarratasunean duten eragina, diru-laguntzak jasotzean izandako atzerapenen ondorioak edo laguntzok jasotzeko bermerik ez izatea...

- Urritu fisikoen federazioek eta ezgaituekin lotutako beste elkarte batzuek azaldu dituzten arazoak lagungarriak izan dira ofiziozko hainbat jarduera bultzatzeko, esate baterako langile gehien dituzten administrazioak helburu dituztenak, biztanleria-sektore horren egoeraren eta hari buruzko planen berri izateko (ikus txosten honetako 1.1.12. azpiatala).
- Hirigintzako plan eta jarduerari eta berauen ingurugiroko eraginei eta ondorioei buruz jasotako kexa asko plataformetan antolaturiko pertsonen taldeek, auzotarren elkarteek, jabeen erkidegoek, talde ekologistek eta abarrek eragin dituzte. Haietariko batzuen berri emana dugu txosten honen hirigintza- eta ingurugiro-arloei buruzko azpiataletan (II. atala).
- Hainbat talde bakezalarekin, gatazketan bitartekari gisa ari diren elkarteekin eta ikastetxeekin harremanak izan ditugu. Haiek bultzatuta, instituzio honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bakerako hezkuntzari buruzko proposamen globala aurkeztu zion eta, proposamena garatzeko ekarpen eta bultzada bezala, giza eskubideetan hezteko eskolan erabiltzeko ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetzak-bekatarako deialdia egin zuen. Beka horiek beren emaitzak ematen joan dira (ikus txosten honetako 2.3. azpiatala). Horrela, argitaratutako materialak ikastetxe guztietara eta giza eskubideetako hezkuntzari buruzko interesa agertu eta horretarako konpromisoa hartu duten elkarteetara eta taldeengana bidali dira. Ildo horretan, aurten ere ikasleek egindako testu eta irudiak biltzen dituen argitalpena bidali da ikastetxeetara. Hain zuzen, erakundeak deitutako giza eskubideei buruzko eskola-lanen lehiaketan aurkeztu diren testu eta irudiak dira horiek.
- Burua gaixorik dutenen senideen elkarteekin eta babes-fundazio batzuekin izandako harremanak faktore determinatzaileak eta laguntzak izan dira haiei gure Erkidegoan ematen zaien erkidegoko arretari buruzko lan monografikoan pertsonon arazoak gogotik aztertzeke eta artean jarraitu ez zitzaizen arazoetako batzuei jarraitzeko (ikus atal honetako 1.1.9 azpiatala).
- Laguntza-elkarte batzuek salaketak aurkeztu dituzte gai hauen gainean: atzerritar jatorriko pertsonak atxilotzea edo kanporatzeko agindua, jasotako polizi tratua, atzerritarrak herri enplegurako deialdi edo enplegu horren eskaintza batzuetatik baztertzeke baldintzak edo hedabideetan zenbait berri tratatzeko modua. Salaketa horiek mota ezberdineko jarduerak ahalbidetu dituzte: eskudun agintaritzaren aurreko bitartekotzak eta kudeaketak, kexak tramitatzea, ofiziozko jarduerak, berriazko gomendioak...
- Hainbat herritako presoak kartzelatik ateratzeko plataformekiko bilerak direla bide, hainbat saili (herriaren defendatzaileari eta Tortura prebenitzeko Europako Batzordeari) haien egoera azaldu diegu. Izan ere, Arartekoak taldeoi jakinarazi gura die nolako jarrera duen hainbat gairi buruz, hala nola, presoak hurbiltzeari, kartzelen eta kartzeletako egoerari eta haiek hainbat zioengatik kartzelatik ateratzeari buruz.

Batzuetan, elkarteekin izandako harremanak haien funtzionamendu-arazoak jasotzeko ere balio izan du: oztopoak aurkitzen dituzte beren lana burutzeko, beraien arteko koordinaziorako mekanismoak eta lankidetzaren egonkorrerako bideak finkatzeko, beren programekin jarraitzeko, erakundeekiko topaguneak izateko, erakunde-planetan, egitarauetan edo arauetan parte hartu edo ekarpenak helarazteko... Aurreko txostenetan gai horiei buruz ari izan gara, proposamenak egin edo zenbait ekimen nabarmendu ditugularik: diru-laguntzak urtero gainditzea; elkarte-erakundeen baterako foroak ezartzea, hala nola, etorkinak gizarteratzeko Foroa, Sasoikakotasunari buruzko erakundearteko Mahaia eta ijito-herriaren partaidetzarako Kontseilua, Boluntarioei buruzko Legea; alde bakoitzaren lankidetzaren hitzarmenetako erantzukizunak argitzea...

Instituzio honen iritziz, antolatutako gizarte zibilaren eta herri zerbitzuen eta administrazioen arteko lankidetzaren sustatu eta horretarako laguntza eman behar da, dauden baliabideak hobeto erabiltzeko. Gizarte-eragileek aktiboki hartu behar dute parte. Hala ere, erakundeek hiritarrei zerbitzuak egiteko erantzukizunak hartu behar dituzte eta askotan egokitzen zaien lidergoa berenganatu. Ildo horretatik, 2001eko txostenean (ikus VI. atala) jasota zegoen elkarteek askotan kudeatzen zituzten talde zaurkorrentzako zerbitzuak sortzeko erakunde-lidergoari buruzko gomendio orokorra.

Azken urteotan, hainbat zerbitzutan egindako ikustaldietan, edo bileretan edo jasotako kexetan, aurrerapenak eta konpondu gabeko arazoak ere daudela egiaztatu dugu. Azken horien artean, azpimarratzekoa da diru-laguntzen deialdi batzuk ebatztea atzerapenak egon direla, egoera larri eta zailetan jarri baitituzte elkarteak nahiz abian zeuden egitarauak. Horrek oso eragin kaltegarria du, ez elkarteengan bakarrik baizik eta, batez ere, elkarte horiek laguntzen dituzten herritar eta taldeengan.

Gizarte arloan lanean dabiltzan elkarteak izaten dira askotan. Elkarte horiek bereziki bazterturik bizi diren pertsonen arreta eskaintzeko egitarauak burutzen dituzte, sarritan bestela egongo ez liratekeen edo nahikoak ez diren baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, erakundeek erantzukizun nabarmena duten arreta-eremuetan jarduten dute, eta administrazioen beren gabeziak betetzen dituzte.

Egiaz, elkarte batzuk beren kideen dedikazio, ahalegin eta ekarpenari esker mantentzen dira, edo boluntario gisa lan egiten duten beste pertsona batzuei esker, baina elkarte askok, normala denez, herri-erakundeetara jotzen dute, proiektuak garatzen lagunduko dieten diru-laguntzak eskatzeko. Eta sarritan erakundeen laguntza horiek urtero egiten diren berariazko deialdien arabera banatzen dira.

Hona hemen sarrien azaltzen dizkiguten arazoak:

- Atzeratu egiten dira laguntzen deialdiak eta, batik bat, horien ebatzpenak (urtea oso aurreratua dagoela).
- Laguntzak berandu jasotzen dira eta esleitutako kopuruak xahutzeko eta gastuak zuzen justifikatzeko denbora gutxi izaten dute.
- Ez dakite ziur laguntzak jasotzen jarraituko duten edo laguntzok zenbatekoak izango diren.
- Jasotako laguntzekin ezin diete aurre egin abian dauden egitarauak edo aurreikusita daudenei.

Jarduera horren ondorioei dagokienez, asko aipatzen dituzte: egitarau eta ekintza batzuek zenbait hilabete irauten dute (normalean, urteko lehen hilabeteak) eta elkarteek

ez dakite laguntzarik jasoko duten edo zenbat jasoko duten; laguntza jaso arte kredituak eskatu behar izaten dituzte; presaka xahutu behar izaten dute urte bukaeran jasotako kopurua edo, areago, benetakoak ez diren fakturak edo egiaztagiriak lortu behar izaten dituzte; egitarau jakin batzuk kentzen dira, bermerik ez dutelako...

Aipatutako arazo guztiek ez diete neurri berean eragiten elkarreei. Eragin hori zenbait zertzeladaren araberakoa da: esaterako, profesionalizazio maila, lan egiten duten berriarazko alorra, garatzen dituzten egitarauen funtsa edo garrantzia. Bestalde, arazo guztiak ere ez dira garrantzi berekoak edo ez dituzte sorburu berak. Baina horietako asko prozedurari lepora dakizkioke, edo, zehazkiago, laguntzak egiten diren garaiari eta moduari.

Ildo horretan, Arartekoak ofizioko espediente bi abiarazi zituen, elkarre askorengan eragin handia duten deialdi batzuei buruzko datu objektiboak biltzeko. Horretarako, gai horietan esanguratsuak diren Eusko Jaurlaritzako sai biri elkarteentzako laguntzen 2003ko eta 2004ko deialdi guztiei buruzko informazioa eskatu genien. Informazio horretan deialdi bakoitzari buruz datu hauek azaltzeko eskatu genuen:

- Deialdiaren erreferentzia (izenburua) eta aurrekontuaren zenbatekoa.
- Zein egunetan argitaratu zen deialdia EHAAn.
- Zein egunetan ebatzi zen deialdia (EHAA).
- Zein egunetan gauzatu ziren ordainketa-aginduak (laguntzak benetan jaso ziren datari ahalik eta gehien hurbilduz).
- Elkarreek noiz xahutu behar izan zituzten esleitutako kopuruak eta zein zuten gastuaren egiaztagiriak aurkezteko azken eguna.

Eskatutako datuez aparte, azaldutako arazoei buruz nahiz horiek konpontzeko proposamenei buruz erakunde honek edozein ekarpen edo balorazio jasotzeko gogoia agertu zuen.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren proposamen xehatua jaso da. Proposamen horretan guztira 20 deialditako datuak biltzen dira, baina Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak oraindik ez du erantzunik eman. Horregatik, komenigarri iritzi diogu datu guztiak eskura izan arte azterketa eta balorazioa atzeratzeari. Datu horiek guztiak hurrengo txostenean agertuko dira.

## 2.2. ARARTEKO ERAKUNDEAK IRAGARRI DITUEN IKERKETA BEKAK

2004an ere aurrera jarraitu dute ikerketa aplikatuko hiru bekari lotutako lanek. Hauek dira hiru bekak:

- IRSEri adjudikaturiko beka. Beraren bitartez aztertu nahi dira EAEn finkaturik dauden magrebtar gutxiengoek beren kultur bizitza eta erlijioa izateko eta beren hizkuntza erabiltzeko eskubideak baliatzeko egun dituzten aukerak.
- Susana Redondori adjudikaturikoa, zainketa aringarriak jasotzen dituzten pertsonen eta haien senideen ematen zaien arretaren gaineko ikerlana egiteko.
- Jesús Manuel Septiáni adjudikaturikoa, ikasle etorkinak EAeko hezkuntza sistema, Arabako lurraldean zehazki, sartzeari buruzko lana egiteko.

Hiru kasuetan lana egiten jarraitu da, zailtasunak zailtasun. Aurreikuspenen arabera, hiru ikerlanak 2005. urtea bukatu baino lehen egon daitezke amaiturik.

Beatriz Sicilia Oña bekadunak 2004an bukatu du bere ikerketa lana, EBko konstituzio-itunaren proiektuan oinarritako eskubideek duten lekuari buruzkoa, eta laster argitaratuko da ikerlan hori, inprimatze lanak hasita baitaude.

Beste alde batetik, Alalia Olarte Hurtado, 2003-2004ko ikerketa bekaren adjudikazioduna, bere proiektua bukatzen ari da. Azkenean gai hau ikertu du: zigor gisa erkidegoarentzako lanak egitea.

Txosten hau ixterakoan jada berretsita dago 2004-2005 ekitaldi honetarako egindako deialdiaren ebazpena. Oraingo honetan beka Gerardo Zamora Mongeri adjudikatu zaio. Emakumezko etorkinen egoera eta etxeko lanak izango dira bekadun horren aztergaiak.

### 2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZARI BURUZ ESKOLAN ERABILTZeko MATERIALA EGITEKO BEKAK

Lau urtetan, jarraian, Ararteko erakundeak deitutako bi beketako batek izaera espezifikoa eta helburu zehatza izan ditu: giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materialak prestatu eta zabaltzea. Deialdi hauek erakunde honen kezka eta konpromiso iraunkor bati erantzun diote: belaunaldi berriak demokrazia bereizten duten balioetan gizareratzeak giza eskubideen aldeko hezkuntzan, bake eta tolerantziarentzako hezkuntzan du bere oinarrietako bat; eta balio horiek haurtzaroan eta gaztaroan ikasi eta finkatzen lagundu ahal eta behar duten tresnetako bat eskola sistema da, bakarra ez den arren.

Gure gizarteko bake etorkizunerako funtsezkoa den auzi honi buruz, erakunde honek hainbat ekimen eta proposamen aurkeztu ditu, hala nola, “Bakerako hezkuntza” izenburupean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuari egoki zenean aurkeztu zitzaiona, baita koordinazio-jardunaldietan gainerako defendatzaileen aurrean egin ziren proposamenak ere.

Beka deialditan jasotako erantzunak –guztira ia 100 proiektu aurkeztu dira deialdi horietara– agerian utzi du pertsona ugari giza eskubideen hezkuntzarekin interesa eta konpromisoa duela. Deialdiek euren fruitua eman dute, batez ere azken urteotan. Horrela:

- Lehenengo bekari dagokionez, behin eskola dinamikan integratzeko jarduera eta proposamenen prestaketa-lana amaituta, eta berrikusi eta espermentatu ondoren, karpeta lodi bat argitaratu zen, euskaraz eta gaztelaniaz: *Materiales para la educación en derechos humanos. Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak*. Karpeta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietara banatu zen (DBH eta Batxilergoa) bai eta hezkuntza laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta zerbitzuetara ere.
- Lan horren ostean, beste karpeta bat argitaratu zen giza eskubideen aldeko hezkuntzako material didaktikoekin: *Nuestros derechos / Gure eskubideak*, honako honetan Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Karpeta honetako materiala haurtzaroak berezkoak dituen eskubideetan oinarritzen da, 1989 urteko Haurraren Eskubideei Buruzko Batzarrean finkatutakoak, alegia. Hezkuntza alorreko profesional-talde batek prestatu ditu, egitura bereko 30 unitatetan antolatu dira lan sistematikoa errazteko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara eta hezkuntza zerbitzuetara bidali genituen.
- Hirugarren bekaren fruitu, giza eskubideen aldeko hezkuntzarako materialen kutxa argitaratu zen, *Los derechos humanos en juego / Giza eskubideak jokoan* argitaratu eta zabaldu zen. Material hori DBHrako prestatu zen bereziki. Kutxa honek karta-jokoak eskaintzen ditu, 27 giza eskubideekin lotutako edukiak lantzeko behar diren elementuak, jokoak eta hausnarketa bateratuz eta hainbat talde-dinamika erabiliz. Material hori ere gure Erkidegoko ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzuetan banatu zen.
- Egindako azken deialdiak multimedia euskarriko materialak lortzea zuen helburu zehatza. Horrelako materialak prestatzen lehendik esperientzia zuen Mugarik Gabe-ko lan-talde bati adjudikatu zitzaion beka. Lana, emakumearen eskubideak

ardatz dituena, CD eran kaleratu da *Sortuz / Generando* izenburua duela, eta Bigarren Hezkuntzako ikastegi guztiei eta emakume elkarteei eta beste zerbitzu batzuei banatu zaie 2004. urtearen bukaeran.

Lau beka horiek eta egindako lau lanak edukiaren, ikuspegiaren edo formaren aldetik ezberdinak badira ere, xede soil eta bakarra izan dute: eskola komunitateari hezkuntza zereginak garatzeko material erabilgarriak eskaintzea. Aldi berean, erakunde honek jarraitu nahi du kontu honen inguruan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokion erantzukizuna azpimarratzen, eta, ahal duen neurrian, giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin konpromisoa duten –eskolaren eremuan edo bertatik kanpo– pertsonen eta kolektiboen arteko harremanak eta kolaborazioa bultzatuko ditu. Ildo honetan, urtean zehar ikastetxeetatik eta beste leku batzuetatik –harrera-zentroetatik, aisialdiko taldeetatik, gazte-taldeetatik eta gazteekin edo adingabeekin diharduten elkarteetatik– izan ditugun material eskariei erantzuten saiatu gara.

Zenbait kasutan, beste erkidego batzuetako herri defendatzaileek argitaratutako materialei buruzko interesa agertu dute, eta beren erkidegoetan berrargitaratu eta hango ikastetxeei banatzeko aukera ere aipatu dute. Horrela, Andaluziako Herriaren Defendatzailearen eskabideari zegokienez, erakunde bion arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zen haurren eskubide zehatzei buruzko material didaktikoen karpeta berriro argitaratzeko. Horretara, Andaluziako Erkidegoko ikastetxeei helarazi ahal izango zaie. Modu berean, Nafarroako Herriaren Defendatzailearekin lankidetzak hitzarmena sinatu zen material horiek argitaratu eta Foru Komunitateko ikastetxeei banatzeko. Kasu horretan, unitateka argitaratzen eta banatzen hasi dira.

Ararteko erakundea oso pozik dago argitaratutako materialek izan duten harrera ikusita. Hala ere, uste du erakundeak eskola-komunitateari egiten dion ekarpenak ez duela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren erantzukizuna ordeztu behar, lehen ere esan dugunez. Horregatik, behin helburuak beteta, ez du material didaktikoak prestatzeko beka-deialdirik egin. Material horiek irakaskuntzan duten benetako erabilgarritasuna jakiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ikastetxetan datuak bildu eta baloratu nahi ditugu. Aukera horri dagokionez, azken urtean harremanak izan dira gaiari buruz interesa duten EHUko irakasle eta bekadunekin. Era berean, gai hori hurrengo azterketa monografikoren batean sartzeko aukera aztertu da.

Beste alde batetik, aipatutako helburu berari dagokionez, azken urte honetan, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren kariatz, ikastetxeei kartelak eta egutegiak bidali zaizkie, baita *Gure eskubideak / Nuestros derechos* argitalpena ere. Bertan bilduta dago ikastetxe eta maila ezberdinetako ikasle batzuek egindako lanen sorta. Ikasle horiek giza eskubideei buruzko eskola-lanen lehenengo lehiaketan parte hartu zuten, Arartekoaren erakundeak deialdia eginda.



## 2.4. “LANA XXI. MENDEAN: ETORKIZUNERA BEGIRA” IZENEKO JARDUNALDIAK UPV/EHUko UDAKO IKASTAROE-TAN

Arartekoaren erakundeak, 1997. urtetik hasita, giza eskubideak aztertu eta eztabaidatzeko jardunaldiak antolatzen ditu UPV/EHUko Udako Ikastaroetan. Aurreko urteetan bezala aurten ere unean uneko ikuspegitik ekin nahi izan zaio giza eskubideen alor zabalari.

Zortzigarren aldi honetan gure erakundeko idazkari nagusi Faustino López de Foronda eta UPV/EHUko Gurutz Jauregi katedraduna izan dira jardunaldiaren zuzendariak, eta gaia, berriz, “Lana XXI. mendean: etorkizunera begira”.

Industriondoko gizartearen esparruan aztertu nahi zen enpleguaren egoera: lanaren ideari berari nola eragin dioten iraultza teknologikoak, globalizazioak eta inmigrazioak.

Jardunaldiaren aurkezpenean Arartekoak, Iñigo Lamarcak, lana ez dela soilik eskubidea adierazi zuen; horrez gain xedea ere bada, eta ondasun urria, bakoitzaren nortasunaren eta estatusaren ezaugarria, diskriminazio-eragilea, gizarteratzeko edo gizartetik bazter geratzeko bidea, gizartearekiko betebeharra, aberastasun iturria eta ekoizpenerako bitartekoa.

Justizia soziala lor dadin, enpleguaren sorkuntza ez ezik, gizarte babesa, langileen oinarrizko eskubideak eta elkarrizketa soziala ere ezinbesteko elementuak direla gogorarazi zuen.

Bere hitzaldian hauxe ere adierazi zuen: Arartekoaren erakundeak prestatu eta argitaratu dituen txosten berezi askok (espetxeei buruzko txostena, buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonen gainekoa, sasoikako langileen gainekoa, ezgaitasunen bat duten pertsonen arazoak eta lan-baldintzak aztergai dituen, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei ematen zaien laguntzari buruzkoa) agerian jarri dute lana lortzeko benetakoa aukerak eta lana egiteko baldintzak izugarri garrantzitsuak direla, erabakigarriak; sakon-sakonean eragiten diete pertsonen duintasunari, bizitzari berari eta gizarteratzeko ahalbideari.

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Luis Enrique Alonso irakasleak ponentzia hau aurkeztu zuen: “Lanaren eraldaketa arrisku-atalasean: gizarte eragileen lana”.

Egungo demokraziak arautu eta gobernatzeko mekanismoen multzoan lanak erakunde-leku nagusia bete behar duela baieztatu zuen bere hitzaldian.

Lanaren inguruko gizarte eskubideak berreraiki eta birsortu beharra dagoela azpimarratu zuen; lanaren alderdi kolektiboa eta zibilizatazaila sustatu behar dela atzera egiteko arriskua saihesteko, izan ere, arrisku horren pean aurkitzen baikara etengabe.

Gogora ekarri zuen lana heterogeneo, azpi proletario eta kolokakoa bihurtzeko prozesuak hortxe daudela ekonomia berriaren azkenaldiko hazkunde ikusgarriaren atzean, eta horregatik, ekonomia birtual berri honek iraungo badu, are beharrezkoagoa izango duela mundu osoan bere lanetik, lana beti izan den bezala ulertuta, bizimodua atera behar duen biztanleriaren euskarria.

Bartzelonako Unibertsitateko Cristina Carrasco Bengoa irakasleak “Lanak, zainketak eta iraunkortasuna: XXI. mendeko erronka” izeneko mintzaldia egin zuen.

Carrasco irakasleak gauza interesgarriak esan zituen. Lanaren azterketari ekiteko esparru berria proposatu zuen, gizakiaren biziraupenerako eta bizitza-kalitaterako behar-

beharrezkoak diren zainketa eginkizunak ere barruan hartzen dituen. Horrek esan nahi du alde batera utzi behar dela merkataritzan islatzen diren jarduerak soilik jarduera ekonomikotzat onartzen dituen eredu. Gaineratu zuen emakumeen jokabide berriak, “etxekoandarearen” betiko roletik aldentzen direnak, erabakigarriak izan direla zainketa lanak ageriko jarduera bihurtzeko. Soldatarik gabeko lanak, gehienbat emakumeek egiten duten horrek, kuantitatiboki duen garrantzia berretsi zuen. Zainketen haritik, adierazi zuen biztanleria zahartzen ari dela eta aurrerantzean zuzeneko zainketen beharrezko gehitu egingo dela ziur asko. Esan zuen, azkenik, jendeak bizirik irauteko funtsezko jardueretariko bat zainketa lana izanda, ezin dela XXI. mendeko “lanaz” eztabaidatu jarduera hori kontuan hartu gabe, bestela klaseen eta generoen arteko gizarte-desberdintasunek orain arte bezala iraungo dutelako.

Jarraian mahai ingurua egin zen, jardunaldiaren xedearekin zerikusia zuten gai zehatzagoak aztertzeko.

Bertan UPV/EHUko Imanol Zubero irakasleak “Lana eta herritarrak” gaiaz jardun zuen.

Soldataren gizartea deritzona krisialdian sartu dela adierazi zuen bere hitzaldian, egonkortasunetik kolokatasunera igaro garela eta langabezia inoizkorik handiena dela.

Horrela, beraren hitzetan, lanik gabeko langileak herritartasunik gabeko herritar bihurtzen dira.

Amaitzeko esan zuen aldatu egin behar dela lanari eta gizarteari buruzko pentsamoldea. Herritarrei dagozkien eskubideak ezin direla jarri merkatuaren funtzionamendu librearen menpean.

Bestalde, Deustuko Unibertsitateko Pablo Angulo Bárcena irakasleak gai hau izan zuen hizpide: “Langabezia, hots, ordaindutako lan duinaren gabezia: alderdi psikosozialak eta ekintzarako proposamenak”.

Beraren iritziz, langabeek –produktio jardueratik at geratzen direnez gero– enpleguaren munduan parte hartzeak ekar ditzakeen esperientzia guztien falta jasaten dute: denboraren egituraren galera jasaten dute; gizarteko esperientziaren murrizketa; helbururik ez izatearen etsipena; estatus edo nortasunaren galera, eta jarduera arautuaren galera.

Eta lanik gabeko denbora edozertan ere emanda, beti ere denbora horrek pertsonarentzat zentzu eta esanahi osoa izan behar duela baieztatu zuen.

Azkenik, Andoni Basterra, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako sailburuordearen aholkularia, “Lana eta gizarteratzea” gaiaz mintzatu zen.

Goian aipatu diren ponentziak eta hitzaldiak “Giza eskubideei buruzko Jardunaldiak” bilduman argitaratuko dira eta gure web orrian ere eskura egongo dira: [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net).

## 2.5. GIZA ESKUBIDEEI BURUZ HERRITARREKIN BATERA EGINDAKO II. FOROA

Iazko txostenean jakinarazi genuen Arartekoaren erakundeak giza eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko helburuz herritarrekin batera egindako lehenengo Eztabaida Foroaren berri. Orduko hartan, Ezgaitasunaren Europako Urtea zela eta, foroko gai nagusia “Emakumea eta ezgaitasuna: bi aldiz baztertuak” izan zen.

Orduan hasitako ildoarekin jarraituz, hezkuntza erkidegoa gogoan, bereziki, Arartekoak II. Foroaren deialdia egitea erabaki zuen. Foro horretako gai nagusia honakoa izan zen: “Ikasleen arteko tratu txarrak ikastetxeetan”.

Hasieran, Foroa 2004ko abenduan egiteko asmoa zegoen, baina, antolakuntza arazoak zirela eta, urtarrilera arte atzeratu behar izan zen eta 25erako, 26rako eta 27rako programatu zen.

Arartekoak, ezeri baino lehenago, egoera bereziki zaurgarri edo ahulei arreta eskaini nahi zielako aukeratu zen gai hori –bullying izena ematen zaion ikasleen arteko jazarpena– (I. Foroan, ezintasunen bat duten emakumeek pairatzen duten diskriminazio bikoitza jorratu zen, irizpide berari jarraiki), eta baita ikasturte honen hasieran, Hondarribian nerabe batek bere buruaz beste egin zuenean, gizartean gai horren inguruan sortu zen asaldura eta kezkarengatik ere (Arartekoak kasu horretan izandako esku-hartzeaz, ikus txosten honen 1.1.5 atala).

Foroak bi helburu zituen:

- 1) Ikerketan oinarrituta, gogoeta eragitea, bai lehendik dauden eta arazoaren benetako egoera ezkututzen ere laguntzen duten mito eta gaizki-ulertuei buruz, bai errealitate horri aurre egiteko eta eskolako harremanak nahiz bizikidetasuna hobetzeko bide eraginkorrenei buruz.
- 2) Parte-hartzaileen ekarpenak biltzea; hezkuntza-erkidegoaren beraren kezka, zalantza, galdera eta proposamenak zuzen-zuzenean entzun ahal izatea.

Arestian aipaturiko bi helburuak lortzeko asmoz:

- Deialdi irekia egin zen, Arartekoaren prentsaurrekoaren bidez hedabideetan iragarria, eta, aldi berean, gonbitak bidali zitzaizkien ikastetxe, guraso-elkarte, irakaskuntza-sindikatu, hezkuntzako laguntza-zerbitzu eta arduradun guztiei. Arartekoak Hezkuntzako Sailburu andreari ere aurkeztu zion foroa, eta hark ekimen honekiko interesa agertu zuen.
- Eskema sinplea hautatu zen:
  - 1) Arartekoaren aurkezpena;
  - 2) Gai horretan aditua den pertsona baten hitzaldia;
  - 3) Parte-hartzaileen galdera eta ekarpenak.
- Hiru jardunaldi antolatatu ziren, bat lurralde bakoitzean, parte-hartzea errazteko.
- Ikasleen arteko bizikidetasun, gatazka eta biktimizazioari buruzko hainbat ikerketa eta argitalpen atera dituzenez, Cristina del Barrio irakasle eta psikologian doktoareari zera eskatu genion, bere azalpenean:

- Lagun ziezagula eskolako tratu txarren gainean oso zabaldua dauden mito eta ikusmolde okerrak desegiten.
- Eman ziezagula, egindako ikerketen arabera, errealitate askotan erdi-ezkutu horretaz orain dakitenaren ikuspegi zabala.
- Azal edo aipa zitzaala eskolako harremanak eta bizikidetasuna hobetzeko bide batzuk, ikerketa horietatik ateratako ondorioetatik abiatuta.

Beste alde batetik, Arartekoak bere hitzaldietan agerian jarri zituen erakundearen konpromisoa eta kezka, adingabe asko ukitzen dituen arazoaz. Arazo horrek oinaze handia sorrarazten du, ondorio larriak ditu eta oinarrizko eskubideen urratzea ekartzen du, hala nola duintasunerako eskubidea, desberdina izateko eskubidea, eta derrigorrez parte hartu behar den erakunde batean, eskolan alegia, abusu, larderia eta bazterkeriarik jasan gabe eta ikaskideen beldurrik izan gabe parte hartzeko eskubidea. Pertsona bakoitzak, adingabe bakoitzak, ezaugarriak, baldintzak edo aukera pertsonalak edozelakoak dituela ere, ikastetxean errespetu osoa jaso behar du, eta hezteko eta bere gaitasunak giro moral egokian garatu ahal izateko behar duen laguntza izan behar du.

Foroaren hiru jardunaldiak egitekoak ziren astean hotza eta elurra izan ziren nagusi, eta leku batetik bestera joateko arazo handiak izan ziren. Horrela, bigarren jardunaldia, Gasteizen burutu beharrekoa, bertan behera utzi behar izan zen, hara iristerik ez zegoelako. Hala ere, eragozpenak gorabehera, jardunaldiak burutu ziren herrietan jende dezente hartu zuen parte: 66 lagunek Bilbon, eta 75ek Donostian. Gasteizen bertan behera utzitako jardunaldia, berriz, laster iragarriko den egun batean egin nahi dugu, formatu berarekin.

Parte hartu zuten pertsonak hainbat gai azaldu zituzten:

- Irakasleek tratu txarren aurrean esku hartzea.
- Familien eginkizuna.
- Administrazioaren erantzukizuna.
- Tratu txarrek biktimarentzat eta, baita, erasotzaileentzat eta jazarpenaren lekukoentzat dakartzaten ondorioak.
- Leku edo aldi jakin batzuetan, esate baterako, eskolako jantokietan-eta, esku hartzeko moduak.

Bai gai horiek bai Cristina del Barrio irakaslearen hitzaldietako funtsezko edukia Arartekoaren web orrian argitaratu ziren eta, hortaz, interesatu guztien eskura daude.

Beste alde batetik, Foroan azaldutako ekarpenak, gaiak eta proposamenak kontuan hartu dira Arartekoak ikastetxeetako elkarbizitzari buruz egin nahi duen hurrengo azterketa bideratzerakoan. Azterketa hori bukatuta, aparteko txostena egin eta zenbait gomendio emango dira.

Nolanahi ere den, aipatu berri dugun txostena bukatu arte behintzat, Arartekoaren orrian bertan parte hartzeko eta gaiari buruzko proposamenak egiteko aukera egongo da ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net): Adin-txikikoen webgunea).

### 3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEE-KIKO JARDUERAK

#### 3.1. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XIX. JARDUNALDIAK

Herriaren defendatzaileen eta komisario autonomikoen harremanak koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioetan oinarritzen dira. Horregatik, erakunde horiek, urtean zehar, euren jarduera arruntei buruzko harreman estuak izaten dituzte. Eguneroko harreman horiez gainera, koordinaziorako jardunaldiak denei interesatzen zaizkien gaiak eztabaidatzeko eta iritziak trukatzeko foroak dira.

2004. urtean Koordinaziorako XIX. Jardunaldiak egin dira, Santiagon, ekainaren 28, 29 eta 30ean, Galiziako Valedor do Pobok antolaturik.

Jardunaldietako gai nagusia adinekoentzako arreta izan zen.

Aldez aurretik tailerrak egin ziren jardunaldietan jorratuko ziren gai batzuk aztertzeko. Tailerretako bat, herriaren defendatzaileen kudeaketaren kalitateari buruzkoa, Iruñean egin zen, Nafarroako Arartekoaren egoitzan. Hauek dira tailer horretatik ateratako ondorioak:

*“Gure erakundeetan “kalitate” faktorea sartzea garrantzi estrategikoa duen erabakia da.*

*Gure erakundeen ezaugarri nagusia edo “mandatua” da herritarren beharrezan bete daitezkeen lortzea ahalmena duena konbentziturik, inongo loturarik izan gabe.*

*Lan horretan guztiz lagungarriak dira herritarrei jaramon egiteko kalitate-irizpideen aplikazioa eta Erakundearen finkatze publikoa.*

*Gure jardunaren kalitateak eragina du herritarrei ematen diegun arretan eta, bereziki, haien eskubideen indarrean, zaintzan eta aplikazioan.*

*Dauden metodo guztien artetik kalitate arloko helburuak lortzeko metodo jakin bat hautatzea oinarri nagusia da herriaren defendatzaileen erakundeok lan-metodotzat onartzen ditugun kalitate-kudeaketako prozesuetan.*

*Herriaren defendatzaileok ziur gaude kalitatea kudeatzeko sistemak onura ekarriko diela gure erakundeei, herritarren eskubideak hobeto babestu eta sustatzeko tresna egokia den aldetik.”*

Bigarren tailerra Bartzelonan egin zen, Sindic de Greuges-en egoitzan. Hiru urte arteko umeentzako zerbitzuak aztertu ziren bertan, eta azkenean proposamen hauek egin ziren:

*“1. Gizartean eztabaida eragin behar da 3 urte arteko umeen beharrezan buruz eta beharrezan horiek bete behar dituzten zerbitzuei buruz. Adingabeen goi-interesen babesa lehenetsi behar da, lana eta familiako bizitza uztartu ahal izatea xede bakarra duten planteamenduen ordeztu.*

*Nolanahi ere, adingabeen interesak bateragarriak izan daitezke, eta izan behar dira, gurasoek familiako bizitza eta lana uztartu ahal izateko duten eskubidearekin.*

*Gizarteko eztabaidaren esparru horretan, komeni da adingabeei arreta emateko era berriak ikertu eta asmatzea, jardunaldi osoko eskolatzearen ordeko hautabideak barne direla; ildo horretatik, lanaren antolamenduan aldaketak egin litezke gurasoek behar bezala zaindu ahal ditzaten euren umeak.*

2. *Botere publikoek bermatu egin behar dute 3 urte arteko haurren beharrianak aseko direla, dela eskolatzearen bitartez, dela ordeko zerbitzuen bitartez; eta erantzun egokia eman behar diete herritarren eskariei.*
3. *Familiak eta gizarte osoa sentsibilizatzeko kanpainak egin behar dira, 3 urte arteko haurrek zer-nolako beharrianak dituzten erakusteko; arreta berezia eman behar zaio hezkuntza goiztiarraren garrantziari, eta beharrian horiek haurrentzako zerbitzu formalen eta ez-formalen bitartez betetzearen komenigarritasuna erakutsi behar zaie familiei.*
4. *Haurrentzako zerbitzuen antolaketan, Administrazioak aukeran izango du bere sarea sortzea edo zerbitzu pribatuak erabiltzea, edo bata zein besteak batera baliatzea. Beti ere, Administrazioak bermatu egin behar du haurrentzako zerbitzu guztiek, publikoak izan nahiz pribatuak izan, eredu formalekoak nahiz ez-formalekoak, gutxienezko kalitate-baldintzak beteko dituztela; eta zorrotz beteko ditu horien gaineko tutoretza eta zaintza eginkizunak.*
5. *Eskola ereduaren ordeko zerbitzuak –hezkuntza zerbitzuak direnez gero- lege-gorputz bakar batean arautuko dira, arloko arau guztiak bat eginik. Helburu pedagogikoak eta laguntzaren arloko helburuak, adin-tarte horretako haurren irakasleen kualifikazioa, hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza, ratioak, irekitzeko baldintzak eta adingabeen eskubideak eta duintasun pertsonala bermatzeko prozedurak arautuko dira lege-gorputz horretan.*

*Adin-tarte horretako haurrentzako zerbitzuetako langile gehien-gehienak gaur egun emakumezkoak dira; ahaleginak egingo dira desoreka hori zuzentzeko.*

6. *Gurasoek haurrentzako zerbitzuen bizitzan parte har dezaten sustatuko da, horretarako behar diren mekanismoak antolatuz.*
7. *Hiru urte arteko haurrentzako zerbitzuen katalogoa egin behar litzateke; bertan jasoko lirateke lehendik dagoen eredu ez-formaleko baliabide guztiak, horien zabalkundea eta erabilera errazteko, berdin da osasun arloko baliabideak diren nahiz hezkuntza arlokoak, laguntza arlokoak edo josteta arlokoak. Hezkuntza zerbitzu formaletatik bereiziko dira, baina horiekin koordinaturik egon beharko dira.*

*Zerbitzuen eskaintza malgua eta askotarikoa izan behar da, mota guztietako familiek erabili ahal ditzaten; esate baterako, guraso bakarreko familiek. Komeni da hurrei arreta emateko era berriak ikertu eta asmatzea, jardunaldi osoko eskolatzearen ordeko hautabideak barne direla.*

8. *Arreta berezia emango zaie baserriko haurren beharriaz, eta berariaz herriz herriko zerbitzuak sortuko dira, behar izanez gero; halaber, estaldura emango zaie egoitza finkorik ez duten edo sasoikako nekazaritzakanpainetan parte hartzen duten familietako hurrei.*
9. *Haurrentzako zerbitzuak doakoak izatea lortu behar da bihar-etzi. Bien bitartean, baliabide ekonomiko urriak dituzten familiei bermatu egingo zaie zerbitzu horiek erabili ahal izatea.*
10. *Arreta berezia emango zaie euren ezaugarri pertsonalen ondorioz beharizan bereziak dituzten umeei (ezgaituei) eta behartsuei.*”

Tailerreko eztabaidetan honako proposamena azaldu zen: “Aztertu egingo da ea komenigarria den 3 urte arteko haurrentzako zerbitzuen Estatuko plana ezartzea, botere publikoen oinarritzako ardura eta konpromiso zehatzak bilduko dituen, finantza-bideak ezarri eta Administrazioen artean banatze aldera; eta adin-tarte horretako haurrentzako zerbitzuen mapa prestatuko da, hau ere Estatu mailakoa”.

Ez zen adostasunik lortu puntu horretan, batzuek uste zutelako autonomia erkidegoek arautu eta antolatu behar dituztela hiru urte arteko haurrentzako zerbitzuak eta, halaber, autonomia erkidegoen ardura dela dauden baliabideen mapa egitea. Dena dela, egokia izan liteke horrelako planen bat egitea Estatuaren finantza-betebeharrak ezartzeko, aurrekontuan zehaztu beharrekoak.

Jardunaldietako gai nagusiari dagokionez, honako ponentzia hauek aurkeztu ziren gai horren inguruan:

- “Adinekoak gaurko gizartean” – Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges.
- “Inoren laguntza behar duten adinekoentzako laguntzaren orokortzea” – Kataluniako Síndic de Greuges.
- “Galiziako biztanleriaren zahartzea. Adinekoentzako egoitzetako plazak Galizian” – Galiziako Valedor do Pobo.
- “Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak adinekoen egoitzetan. Eskubideen babesa eta barne araudia” – Nafarroako Arartekoa.
- “Adinekoentzako etxez etxeko laguntza Kanarietan” – Kanarietako Diputado del Común.
- “Adinekoak eta etxebizitza” – Andaluziako Herriaren Defendatzailea.
- “Langile zaharrek lan esparruan jasaten duten bereizkeria” – Espainiako Herriaren Defendatzailea.

- “Adinekoen kontrako tratu txarrak” – Aragoiko Justicia.
- “Laguntzarik gabe dauden adinekoak: errealitate bat” – Gaztela-Mantxako Herriaren Defendatzailea.

Hona hemen zeintzuk diren ponentzia marko horren inguruan onetsi ziren ondorioak:

1. Gobernuei arren eskatzen diegu adinekoei zuzenduta egiten dituzten jarduke-ta-programetan, Nazio Batuen gomendioei jarraituz, independentziaren, partaidetzaren, zaintzaren, burujabetasunaren eta duintasunaren printzipioak sar ditzatela.
2. Gure herrialdean, oro har, eta bertako autonomia erkidegoetan adinekoei arreta emateko modurik egokiena, gure iritziz, zerbitzuak guztien eskura jar-tzen dituen eta zerga orokorren kargura finantzatzen den eredia da. Sistema horrek eskaintzen du kalitaterik onena, eta bera da solidarioena.
3. Ahalmena dutenei eskatzen diegu lege bidez eta behar adinako zehaztasunez arautu dezatela inoren laguntza behar duten adinekoei babes ekonomikoa eta gizarte nahiz osasun laguntza emateko sistema osoa, eta berariaz ezar ditzatela adinekoentzako egoitza-zentroen erabiltzaileen oinarrizko eskubideak (pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, duintasuna, autonomia, bizitza-kalitatea, norberaren eskubideen ezagutza eta babesa, eta kudeaketan parte hartzeko aukera).
4. Gure iritziz, adinekoei etxean bertan arreta ematea lagungarria da etxetik alde egin behar izan ez dezaten, nagusien deserrotzea eta instituzionalizazioa era-gozten ditu eta senideen arteko harremanak errazten ditu. Horregatik, etxex etxeko laguntza zerbitzuak sustatu egin behar dira eta behar adinako hornidura eman behar zaie. Beti ere, lanbide-kualifikazio egokia eskatu behar zaie etxex etxeko laguntzaileei, eta laguntzaren praxian harremanen gizatasunari eutsi behar zaio.
5. Uste dugu botere publikoek ezin diotela uko egin dagokien eginkizunari: adine-koei laguntza emateko gizarte-babeseko sistema publikoen azken arduradunak eta bermatzaileak dira, eta, ildo horretan, behar diren neurriak hartu behar dituzte nagusiei etxebizitza duina eta euren beharrianetarako egokia izateko eskubidea eraginkortasunez bermatzeko.
6. Adinekoei ematen zaizkien tratu txarren arazo larria nabarmendu behar dugu. Arazo horri heltzeko esparru juridiko egokiak ezartzeaz gainera, aurreneurriak hartu behar dira profesionalak eta zaintzaileak sentsibilizatzeo, eta abian jartzen diren programetan ebaluazio-sistemak ezarri behar dira.
7. Gogorarazi behar dugu hainbat pertsona nagusi laguntzarik gabe aurkitzen direla, laguntza jasotzeari uko egin diotelako, edo legezko neurri egokirik ez dagoelako, edo Administrazioaren koordinazioa eta ahalegina ez direlako behar bezain azkarrak eta eraginkorrak. Edonola ere, alde horretatik gizarte-babeserako sistema publikoa arrakalatuta dago eta, beste neurri batzuen artean, gizarte zerbitzuei larrialdietarako plazak sortu beharra planteatu behar zaie, berehalako laguntza eman ahal izan dezaten premia handiko egoeretan.



8. Galiziar dagokionez, bistan da autonomia erkidego horrek biztanleriaren zahartze-tasarik handienetarikoa duela, batez ere landa-ingurunean. Valedor do Pobo-ren erakundeak, sortu zen unetik bertatik ia-ia, Galiziako botere publikoei behin eta berriz eskatu die arazo honetarako arreta berezia, txosten arruntetan eta berezietan.
9. Adineko herritarren kopuruaren eta egoitzetako plazen kopuruaren arteko erlazioari dagokionez, autonomia erkidego guztien artean Galizia hirugarren dago atzetik (Murtzia eta Balearrak bakarrik daude bera baino atzerago); izan ere, 1,93 plaza baino ez ditu 65 urtetik gorako ehun biztanleko, eta *Plan Gerontologiko Nazionalean* gomendatutako 3,5 plazako mailatik oso urrun dago; beste autonomia erkidego batzuek, berriz, dagoeneko maila hori lortu eta are gainditu egin dute (Errioxa, Gaztela eta Leon, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Aragoi, Gaztela-Mantxa). Planaren helburua betetzeko, Galiziak gaur egun 20.509 plaza behar ditu egoitzetan (horietatik 8.204, gutxienez, plaza publikoak), baina 11.687 ditu (horietatik publikoak 4.000 baino gutxiago dira, plaza itunduak ere kontuan hartuta).
10. Galiziako botere publikoei ezinbestez eskatu behar zaie inbertsio-ahalegin handia egin dezatela epe laburrean egoitzetako plazak gehitzeko, plaza publikoak eta lagundutakoak, batik bat. Ez dute beste biderik Galiziako ratioak *Plan Gerontologiko Nazionaleko* ratioetara hurbildu eta gaurko joera zuzentzeko, orain dauden itxaron-zerrendak nabarmen murriztu daitezten.

### 3.2. IBEROAMERIKAKO HERRI DEFENDATZAILEEN FEDERAZIOAREN (FIO) IX. BILTZARRA ETA BATZAR OROKORRA

2004ko azaroaren 8tik 11ra bitartean Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak (FIO) IX. Biltzarra egin zuen, Quito hirian. Eztabaida-leku izateaz gain, jardunaldi horien helburua Ombudsmanaren figura bultzatzea da, Iberoamerikako herrietara zabaldu dadin.

Biltzar horretan giza eskubideen eta Iberoamerikako komunitatearen inguruko hainbat gai eztabaidatu ziren. Hau izan zen biltzarrerako hautaturiko gai nagusia: “Giza eskubideak sustatu eta babesteko nazioarteko sistemak”.

Lehenengo saioan sustapen eta babes sistema orokorra izan zen aztergai. Honako hitzaldi hauek egin ziren:

- \* “Sistema orokorra: giza eskubideak sustatu eta babesteko ohiko mekanismoak eta ezohikoak”
- \* “Giza eskubideetarako erakunde nazionalen eginkizuna nazioarteko babesaren esparruan: oraina eta geroa”

Hurrengo jardunaldian Europako sistema aztertu zen; egun horretarako programaturiko hitzaldien gaiak honakoak izan ziren:

- \* “Herri defendatzaileen eta giza eskubideak babesteko Europako sistemaren baitan sortutako kontrol erakundearen artean loturak egiteko bideak”
- \* “Herriarrek giza eskubideetarako Europako auzitegira zuzenean jotzeko aukera”

Saio horretan bertan “Emakumeen eskubideak Iberoamerikan” izenburuko txostena aurkeztu zen.

Amaitzeko, jardunaldietako azken saioan Amerikako herrialdeen arteko sistemaz aritu ziren. Hona hitzaldien gaiak:

- \* “Giza eskubideak: erronkak eta aukerak giza eskubideetarako Amerikako auzitegian”
- \* “Giza eskubideak: Amerikar Estatuaren Erakundeko (OEA) organo politikoen erronkak eta desafioak”

Bederatzigarren jardunaldi horietan “Quitoko Deklarazioa” onetsi zen eta hona ekarri dugu:

*“Ekuadorko Quito hirian, herriaren defendatzaile, prokuradore, justizi emaile, mandatari eta giza eskubideetarako batzorde publikoetako buruek Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren (FIO) Urteroko IX. Biltzarra egin dugu, 2004ko azaroaren 8tik 11ra bitartean, eta bertan ondoko deklarazioa onetsi dugu.*

### KONTUAN IZANIK:

*Ombudsmanek egiten duten lan garrantzitsua behar-beharrezkoa dela demokrazia eta Zuzenbidezko Estatuak sendotzeko, giza eskubideen errespetua eta indarra bermatzen baitituzte;*

*Federazio honen eginkizunetariko bat dela Ombudsmanaren figuraren sorrera sustatzea oraindik ezarri ez duten herrialdeetan, eskualde osoan giza eskubideen indarra bermatze aldera;*

*Giza Eskubideak Babesteko Nikaraguako Prokuradoretza Konstituzioaren bitartez sortua dela, eta giza eskubideak sustatu eta horien indarra bermatzea duela helburu;*

*San Luis (Argentina) Herriaren Defendatzailearen figura Probintziako Konstituzioan jasorik dagoela, eta probintzia horretako legegileek aldatu egin dutela Herriaren Defendatzaileari buruzko Lege Organikoa, haren agintaldia urtebetera murriztuz eta behin bakarrik berrautatua izateko bidea emanez;*

*Giza eskubideak, beren osotasunean, gizakien duintasunetik beretik sortzen direla, sektore politiko, ekonomiko, sozial eta ideologikoen interesetatik haratago. Beraz, esparru ezin hobea osatzen dute gizarte demokratiko, berdinak, zuzen eta solidarioa eraikitzeko; herritarren parte-hartzea beharrezkoa da horretarako, eta Estatuak eskura jarri behar ditu bitarteko juridikoak eta legezko mekanismoak hori guztia gauzatu eta justiziaren babes eraginkorraren pean jartzeko;*

*Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturek gutxieneko mugak finkatzen dituztela, Estatuak ekonomi eta gizarte gaitan bete behar dituenak, gizarte justuen funtzionamendua bermatzeko eta bere izatea bera legitimatzeko;*

*Gizarteko eta erakundeetako jardueretan badira emakumeen aurkako desberdintasun eta bereizkeria batzuek; horiek emakumeei giza eskubideen erabilera mugatzen diete, eta ez dira lagungarriak formazko berdintasunaren eta benetako berdintasunaren arteko aldea laburtzeko;*

*Amerikako Herrialdeen arteko Gutun Demokratikoaren arabera, Demokrazia giza eskubidea dela; hortaz, eskualdeko ombudsmanek, euren eginkizunari loturik, parte-hartze aktiboa izan behar dute bakoitzak bere herrialdeko herritarren giza eskubideen zainketan;*

*Terrorismo ekintza, metodo, praktika eta agerpen guztiak giza eskubideen, oinarrizko askatasunen eta demokraziaren aurkakoak direla, eta arriskuan jartzen dituztela lege bidez eraturako estatu eta gobernuen lurralde- osotasuna eta segurtasuna;*

*Federazio honetako kideak garen aldetik, eta gure eginkizunei eutsiz, giza eskubideen, demokraziaren eta bakearen alde lan egiten duten organo eta erakundeekin harremanak sortu eta iraunaraztea dugula helburu;*

*Ombudsmanek berebiziko eginkizuna bete dezaketela giza eskubideak sustatzen eta babesten, Giza Eskubideak Sustatu eta Babesteko Nazioarteko Sistemekin batera lan eginez;*

*Iberoamerika osoan azken urteotan migrazioa lehen mailako arazo bihurtu dela estatuentzat, nazioarteko erakundeentzat eta gizarte zibilarentzat, ezinbestez oreka bilatu behar baita biztanle migratzaileen giza eskubideak egokiro babesteko eta aldi berean eskualdeko migrazio fluxuak behar bezala antolatzeko;*

*Ombudsmanaren eginkizun nagusietariko bat herri indigenen eta afrikar jatorrikoen giza eskubideak babestu eta sustatzea dela, eskualdeko estatuek haien ohiturak eta usadioak errespetatzen;*

*Eskualdeko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko, estatuek euren baliabideak inbertitu behar dituztela, nagusiki, hezkuntza, osasun, etxebizitza eta ingurumen arloetako gizarte programetan; horrela pobrezia indizeak jaitsiko dira, gizarte-bazterkeria ezabatuko da eta giza eskubideak erabat errespetatuko dira;*

*Aire zabaleko meategien ustiapen arduragabeak arriskuan jartzen dituela jatorrizko komunitateen garapena eta ingurunea;*

#### HAUXE ADIERAZTEN DUGU:

*1.- BERRIZ ERE konpromisoa hartzen dugu Konstituzioak eta legeek ezarri diguten lana egiteko, alegia, giza eskubideak sustatu, zaindu eta babesteko; bide horretatik Demokrazia eta Zuzenbidezko Estatua sendotzen lagundu nahi dugu.*

*2.- BERRETSI egiten dugu emakumeek berdintasunerako eta bereizkeriarik ez jasateko eskubidea dutela. Emakumeen giza eskubideen sustapena eta babesa indartzeko ekintzei lagunduko diegu, erakundeetako zeharkakotasunaren printzipioarekin bat etorritik eta, halaber, arloan espezializaturiko erakundeen bitartez.*

*3.- Gure konpromisoa AGERTZEN dugu FIOren Giza Eskubideei buruzko II. Txostena (emakumeen eskubideen gainekoa) zabaltzeko giza eskubideen errespetua sustatzen duten nazioarteko erakundeetan, gobernuartekoetan eta gobernu kanpokoetan.*

4.- Emakumeen eskubideei buruzko nazioarteko itunetan hartutako konpromisoak betetzeko neurriak har ditzatela ESKATZEN diegu estatuei; gure aldetik prest gaude konpromiso horien jarraipen lana egiteko.

5.- BERRIZ ADIERAZTEN dugu gertu gaudela zainketa lanak egiteko, estatuek behar bezala bideratu eta garatu ditzaten emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioan (CEDAW) eta emakumearen aurkako indarkeria eragotzi, zigortu eta ezabatzeko Amerikako Konbentzioan hartutako nazioarteko konpromisoak; eta CEDAW Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboa berresteko eskatzen diegu oraindik hala egin ez duten estatuei.

6.- Estatuei, gobernuei eta gizarte zibilari ESKATZEN diegu demokraziak berezko dituen hauteskunde sistemetako prozedura, metodo eta emaitzak errespetatu eta sustatu ditzatela, eskubide politikoen erabilera eta herritarrek euren herrialdearen etorkizuna erabakitzeke duten borondatea islatzen baitituzte.

7.- Eskualdeko gobernuei ESKATZEN diegu politika integralak eratu ditzatela ustelkeria, zigorgabetasuna eta drogen legez kontrako trafikoa eta kontsumoa eragozteko. Horrela gizartearen nariaduraren ondorioak saihestuko dira eta gaizkile talde antolatua Estatuaren egituretatik erauziko dira.

8.- BERRIZ ALDARRIKATZEN dugu informazio publikoa eskura izateko eskubidea, informazio hori beharrezkoa baita gardentasuna sustatzeko, ustelkeriari aurka egiteko, eta herritarrek gobernuari erantzukizuna eskatu ahal izateko herriaren ordezkari gisa hartzen dituzten erabakiengatik; eta, halaber, biztanleek informazioa jaso ahal izateko erabakiak hartu aurretik, hartara parte-hartze zabalagoa izan dezaten bizitza publikoan.

9.- GAITZETSI egiten dugu indarkeria erabil dadin gatazkak konpontzeko, eta bakezko irtenbideak sustatzen ditugu, nazioarteko zuzenbidearen printzipioekin bat.

10.- BERRETSI egiten dugu bakea, herrien ongizatea eta burujabetasuna eta giza eskubideen begirunea sustatzeko konpromisoa, eta estatuei zein nazioarteko erkidegoari ESKATZEN diegu neurriak har ditzatela gure gizarteak bakean, segurtasuna arriskuan izan gabe eta eskubideak murrizteko ahalgintza jasan gabe bizi ahal izan daitezen.

11.- Estatuei ESKATZEN diegu neurriak har ditzatela lankidetzazko, terrorismoa saihestu eta eragozteko helburu, beti ere nazioarteko zuzenbideari, giza eskubideen gaineko nazioarteko arauari eta nazioarteko zuzenbide humanitarioari hertsiki loturik.

12.- *BERRIRO ERE* prest agertzen gara Giza Eskubideak Sustatu eta Babesteko Nazioarteko Sistemekin lankidetzan jarraitzeko, Federazioko kide diren erakundeei indarra eman nahi diegulako giza eskubideen sustapen, babes eta zaintza lanetarako.

13.- Iberoamerikako herrialdeetako giza eskubideen egoerari buruz gure erakundeek egindako lanak eta bildutako esperientziak, ezagutzak eta ikerlanak *ESKAINTZEN* dizkiegu Nazio Batuen Idazkaritza Nagusiari, Goi-mandatariaren Bulegoari, Giza Eskubideen Batzordeari eta haren organo subsidiarioei, itunetarako organoei eta Nazio Batuen Sistema osatzen duten gainerako erakundeei.

14.- *NBEko* Giza Eskubideen Batzordeari eta haren organo subsidiarioei *ESKATZEN* diegu eztabaida aurrera eraman dezatela, organo horien barruan Giza Eskubideetarako Erakunde Nazionalak izan behar duten estatusa erabakitzeko eta, halaber, gure erakundeen parte-hartzea bideratzearren etorkizun hurbilean erabil litezkeen bide eta prozedurarik eraginkorrenak zehazteko.

15.- Amerikar Estatuena Erakundeari begirunez *ESKATZEN* diogu Federazioarekin lankidetzan harremanak ezar ditzala eta herri defendatzaileen, prokuradoreen eta giza eskubideetarako batzordeen partaidetzarako guneak eta mekanismoak sor ditzala amerikar herrialdeen arteko sisteman giza eskubideak sustatu eta babesteko ardura duten organoetan.

16.- Iberoamerikako giza eskubideen egoerari buruz ditugun txostenak, gomendioak, diagnostikoak eta ikerlanak *ESKAINTZEN* dizkiegu *OEAKo* Batzar Orokorrari, Idazkaritza Nagusiari, Giza Eskubideetarako Amerikako Batzordeari eta Auzitegiari, Amerikako Emakumeen Batzordeari, Amerikako Haurren Erakundeari, Gai Juridiko eta Politikoetarako Batzordeari eta *OEAKo* gainerako organoei. Horrela erakutsi nahi dugu prest gaudela legez dagozkigun lege-eremu komunetan laguntzeko.

17.- *ESKERRAK EMATEN* diegu Giza Eskubideetarako Amerikako Auzitegiari eta, bereziki, Auzitegiko burua den Sergio García Ramírez magistratuari, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko erakundeak indartzera bideratutako jardueri emandako sostenguagatik.

18.- *GORAIPATU* egiten dugu Europako Kontseilua, giza eskubideak babesteko sistema nazionalen baitan Ombudsmanaren erakundearen garrantzia aintzat har dadin egindako lanagatik; bereziki azpimarragarria da Giza Eskubideetarako mandatari Alvaro Gil-Robles jaunak Europako ombudsmanen elkarlana eta Europako Kontseiluarekiko lankidetzan sustatzeko egindako ahalegina.

19.- **BAIEZTATU** egiten dugu, arrazoi ekonomikoengatiko migrazio handia eskualdeko pobrezia onorio latzenetarikoa izanik, beharrezkoa dela migratzaileen giza eskubideak arretaz zaindu eta babestea, oinarritzko giza eskubideak urratzen dituzten migrazio-politiken zuzeneko arduradunak salatuz. Besteak beste, jendea lekuz aldatzeko eskubidea, lanerako eskubidea eta nahi den bizilekua aukeratzeko eskubidea dira politika horien bitartez urratzen ari direnak.

20.- **ALDARRIKATU** egiten dugu behar-beharrezkoa dela migratzaileen eskubideak bermatzeko xedea duten ikerketak, politikak, programak eta ekintzak bideratzen jarraitzea; izan ere, migratzaileen babesgabezia giza eskubideen arloko erronka nagusietarikoa dugu mende hasiera honetan. Horregatik, bada, konpromisoa hartzen dugu FIOren Giza Eskubideei buruzko I. Eskualde-txostena, migratzaileen eskubideen gainekoa, zabal-tzen jarraitzeko.

21.- **BERRETSI** egiten dugu beharrezkoa dela eskualdeko herri defendatzaile eta prokuradoreen arteko koordinazioa eta harremanak sendotzea, migratzaileei babes eraginkorra eman ahal izateko.

22.- **ESKER ONA** agertzen diogu Amerikar Estatuaren Erakundeari, migratzaileen giza eskubideak (langile migratzaileenak eta haien familienak barne) sustatu eta babesteko Amerikako Programa prestatzen diharduen lan-taldean parte hartzeko gonbitea egin digulako, eta lan-talde horrekin elkarlanean segitzeko prest gaudela adierazten dugu.

23.- **BERRIRO ERE ADIERAZTEN** dugu bizi-maila egokirako eskubidearen oinarria sistema ekonomiko zuzena eta bidezkoa lortzeko borroka dela; sistema horretan kontuan hartu behar dira norbanakoen eta gizartearen harmonia eta naturarekiko lotura.

24.- **AITORTU** egiten dugu izugarritzko aldea dagoela gure gizarteko aberatsen eta txiroen artean, bai eta garatutako herrialdeen eta garatzen ari direnen artean ere; egoera horrek kolokan jartzen ditu gure estatuetako aberastasuna, segurtasuna eta egonkortasuna. Ildo horretatik, estatuei eta nazioarteko erkidegoari **ESKATZEN** diegu pobrezia eta bazterkeria eraginkortasunez aurre egiteko neurriak har ditzatela.

25.- Eskualdeko estatuei **ESKATZEN** diegu behar diren ahalegin guztiak egin ditzatela zero zabaleko meatzeen ustiapen arduragabea kontrolatzeko, biztanle guztiek ingurune osasungarria izan dezaten.

26.- Estatuei **ESKATZEN** diegu herri indigenei buruz **NBEk** eta **OEAk** egitekoak dituzten deklarazioen inguruko negoziazioak bizkortu ditzaten. Eta konpromisoa hartzen dugu Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmena, herri indigenen eta tribuen eskubideei buruzkoa, oraindik

berretsi ez duten estatuei hala egin dezatela eskatuko diegula, eta barne-eremuan hitzarmen horrek indar osoa izan dezan behar diren neurriak sustatuko ditugula.

27.- **BERRIZ ADIERAZTEN** dugu, gure kideak iberoamerikarrak direnez gero, lankidetzaharreman estuak ezarri nahi ditugula Iberoamerikako Estatu eta Gobernu Buruen Goi-Erakundearekin eta haren Lankidetzarako Idazkaritzarekin. Uste dugu harreman horiek funtsezkoak direla eskualdeko demokrazia eta giza eskubideak sendotzeko lanean.

28.- Merkataritza librerako itunak negoziatzen ari diren eskualdeko gobernuak ESKATZEN diegu egiaztatzen egin dezatela itun horietan giza eskubideak zaintzeko bermeak jasoko direla.

29.- Txileko Errepublikako, Uruguako Ekialdeko Errepublikako, Brasilgo Errepublika Federaleko eta Dominikar Errepublikako agintariei ESKATZEN diegu bat egin dezatela Iberoamerikako ombudsmanen korrontarekin, eskualdeko pertsona guztien xede legitimoa eta demokraziaren eta Zuzenbidezko Estatuaren funtsezko osagaia den aldetik.

30.- **ADIERAZTEN** dugu garrantzitsua dela Brasilgo Ombudsmanen Elkar-tearekin (ABO) lankidetzan aritzea ombudsmanaren erakundea sustatzen, Parisko Printzipioei jarraikiz, Brasilgo Errepublika Federalean.

31.- Ekuadorko gizarteari gure sostengua ESKAINTZEN diegu bertako gatazka politiko eta sozialetarako konponbide baketsuak, demokratikoak eta Zuzenbidezko Estuari lotuak bilatzeko, herri maite horrek berezko dituen balioei dagokien eran.

32.- Nikaraguako Errepublikako Legebiltzarrari begirunez ESKATZEN diegu lehenbailehen izenda dezala Giza Eskubideak Babesteko Prokuradorea, aurrekoaren agintaldia 2004ko uztailan bukatu baitzen. Izendapen horrek berebiziko garrantzia du giza eskubideek indar osoa izan dezaten.

33.- San Luisko Probintziako legegile ohoretsuei GOMENDATZEN diegu Herriaren Defendatzaileari buruzko Lege Organikoan aldaketa egitea, aurreko legeak eman zion lau urteko agintaldia berreskuratu dezan.

34.- **GAITZETSI** egiten ditugu giza eskubideen defendatzaileen eta ordezkatzaren dituzten erakundeen kontrako jazarpen eta erasoak, nazio eta eskualde mailan egiten dituzten lanak oztopatu eta eragozten dizkietenak. Horrelako ekintzak demokraziaren eta giza eskubideen kontrakoak dira.

35.- **GAITZETSI** egiten dugu Guatemalako Giza Eskubideetarako Prokuradoretzak eta El Salvadorko Giza Eskubideen Babeserako Prokuradoretzak egin duten lana hondatzen bideratutako edozein egintza.



36.- *Elkartasuna AGERTZEN diegu Kolonbiako herriari eta bertako erakundeei, bakea lortu, indarkeria baretu eta barruko gatazka armatuei amaiera emateko euren asmo legitimo eta bihotzkoagatik. Hori dela eta, GOMENDATU egiten dugu gatazkak konpontzeko bakezko mekanismoak, elkarrizketa, printzipio demokratikoak eta giza duintasunaren begirunea lehenetsi daitezzen, Zuzenbidezko Estatuari hertsiki loturik. Horixe da bake iraunkorra, garapena eta giza eskubideen gozamena eta egikaritzea lortzeko bide bakarra.*

37.- *Hondurasko Estatuari ESKATZEN diogu giza eskubideetarako batzorde, bulego eta unitateak sortzeko hartu dituen neurriek ez ditzatela ezertan eragotzi Hondurasko Errepublikako Giza Eskubideetarako Mandatari Nazionalari Konstituzioan eta legeetan ezarri zaizkion eginkizunak.*

38.- *Iberoamerikako estatuei eta nazioarteko erkidegoari ESKATZEN diegu guztien ahaleginak baturik Haitiko Errepublikako herri maitearen egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala hobetzen lagundu dezaten, beti ere haren subiranotasun nazionala, Konstituzioa eta erakundeak errespetatuz.*

39.- *ESKERRAK EMATEN dizkiegu Alcalako Unibertsitateari, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziari eta Herri Defendatzaileen Laguntzarako Eskualde Programari, laguntza handia eman dutelako Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa eta haren barruko erakundeak sendotzeko.*

40.- *ESKER ONA agertzen diegu Andeetako Sustapen Korporazioari (CAF) eta Latinoamerikako eta Karibeko Ombudsman eta Giza Eskubideetarako Erakunde Nazionalentzako Funts Bereziari, ekarpen garrantzitsua egin dutelako Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren IX. Biltzar eta Batzarra egin ahal izateko.*

41.- *ESKERRAK ematen dizkiogu Ekuadorko Errepublikako Herriaren Defendatzaile Claudio Mueckay jaunari, FIOren IX. Biltzar eta Batzarra antolatzeagatik. Bereziki, erakunde horretako funtzionarioei eskertu egin behar dizkiegu bilera hau egiten ari zen bitartean agertutako adorea, ardura, adeitasuna eta arreta.”*

## II. ATALA

# **ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO BERARIAZKO ARRETA**



Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkioten kekek ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarritzko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.531 kekek eta 2004 urtean hasi ditugun ofiziozko 33 jarduerak askotariko arazoan erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal herritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena saihesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe –ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa baten bidez–. Hala ere, ofiziozko espedienteak “OF” erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, “erreklamazioa” atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedientea aztertzea eta ebatzea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.

Bestalde, nabarmendu behar da gaikako banaketa baten arabera egiten dela alorren ohiko egituraketa. Banaketa horrek osatu behar du Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoan berariazko tratamendu batek.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, txosten honetan haien arazoan berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharriaz beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi dituzte.

Hala, bada, bost alor sortu dira eta aholkularien artean arduradun bana aukeratu da alor bakoitzeko, talde horiei begira erakundearen jarduerak planifikatu, sustatu eta ordena ditzaten.

Txosten honetan, II. atal honen bigarren zati gisa, bost multzotan bildu dira talde jakin batzuen alde burutu diren jarduerak. Horrela, berariazko arreta eman zaie talde hauen arazoei:

- emakumeak
- adinekoak
- adin txikikoak
- atzerritarrak
- ezgaitasunen bat duten pertsonak

## A) ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR

### 1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

#### 1.1. SARRERA

2004an Arartekoaren erakundeak 23 kexa espediente aztertu ditu nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoari buruzko arloan.

Sailkapen irizpidearen arabera, jasotako kexak ordena daitezke ukituriko administrazioa kontuan harturik edo erreklamazioaren azpian dagoen arazoa gogoan izanik.

Horrenbestez, espedienteak zein herri administrazioari eragiten dion aintzat hartuta, kexak modu honetara banatu dira:

– Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	11
– Toki administrazioa .....	7
– Foru administrazioa .....	5

Jarduera-esparrua eta kexek aipatzen dituzten arazoak aintzat hartzen baditugu, ondoko azpiarlo hauen arabera bana daitezke:

– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	13
– Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza .....	4
– Merkataritza .....	4
– Kontsumoa .....	1
– Bestelakoak .....	1

Lehenengo sektoreari lotuta dagoen eta behin eta berriz azaltzen den gaia hau da: abeltzaintza ustiatagietako titularrek helarazten dizkiguten kexak, betiere ustiategi horietatik baso ustiapenek legez izan behar duten gutxieneko distantzia eta aldean inguruan. Abeltzainek gehienbat administrazio publikoen inibizioa salatzen dute; izan ere, gure antolamendu juridikoaren arloan, herri administrazioak dira foru arauak be-tearazteko bermea eskaini behar dutenak.

Halaber, jarduera zinegetikoak inguruari dakartzkion ondorioak aipatu behar dira, batik bat etxebizitzetatik hurren dauden eremuetan egiten denean. Ukitutako pertso-nen aburuz, horrek aprobetxamendu zinegetiko arrunteko lurretan dauden erabileren antolamendu eta planifikazio berria ekarri beharko luke, alde batetik, ehizan jarduteko eremuak zehatz-mehatz mugatzeko eta, beste alde batetik, segurtasun arazoak edo erabileraren bateraezintasuna direla-eta salbuespen eremuak ezartzeko. Ukitutakoek beharrezkotzat jotzen dituzte murrizketa horiek, pertsonen eta ondasunen babesa bermatu ahal izateko.

Industriaren eremuari edo bigarren sektoreari dagokionez, Arartekoari bidali zaiz-kion kexak ez dira Euskal Autonomia Erkidegoko industri antolamendu edo jarduerari

buruzkoak izan; kexa horiek, bada, bigarren mailako gai apalagoen gainekoak izan dira, horiek dira-eta EAEko herritarren interesei zuzenean eregiten dietenak. Esate baterako, Bizkaiko herritar batek planteaturiko kexa aipa dezakegu Galdarak Berritzeko Plana abian jartzearekin zerikusia duena. Kexa hori aukeratutako kexen atalean aipatzen da (1229/2003).

Azpiarlo honetan jabeen erkidegoetako kideek helarazten dizkiguten kexak ere sartzen dira; pertsona horiek ez daude ados auzokideen batzarrak kontagailuen eta gas instalazioen armairuak kokatzeko aukeratu duen tokiarekin. Kexa horiek erreklamazio-gileen desadostasuna azaltzen dute, betiere kokaera horren segurtasunaren inguruko zalantzak gogoan.

Kasu hauetan izaera juridiko desberdinak dituzten bi gatazka azaltzen dira: bata izaera pribatukoa da eta aurrez aurre jartzen ditu erreklamazio-gileak eta auzokideen batzarra –erakunde honek ezin azter dezake alderdi hori–; eta bestea izaera publikokoa da, hau da, Arartekoak baloratu behar duena, eta Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak esku hartu behar du arazo horretan, bera baita instalazioaren egokitasuna egiaztatu eta instalazio horren ondorioz segurtasunaren eta erosotasunaren aldetik erabiltzaileek jasan ditzaketen ondorioak aztertu behar dituen organo eskuduna. Esan nahi baita, organo horrek egiaztatu behar du ea auzokideen erkidegoak proposaturiko kokaerak betetzen dituen ala ez instalazio mota hauei buruzko arautegiak ezartzen dituen segurtasun baldintza teknikoak.

Aurreko urteetan bezala, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari berriro adierazi nahi diogu kontsumo arloan erreklamazioak aurkeztu dituzten herritarrei zuzendutako jakinarazpenen edukia zaindu behar duela; izan ere, horietariko batzuk laburregiak izateaz gainera, hizkera tekniko eta juridiko nabarmena dute eta, ondorioz, erreklamazio-gileak bere espedienteari amaiera eman zaiola besterik ezin dezake ulertu.

Argitasuna bermatzen ez denez gero, ulergarria da herritarrek erakunde honi euren desadostasuna eta nahasmena adieraztea; izan ere, jakinarazpen mota horiek ez dute garbi azaltzen ea erreklamazten den gaiak zergatik ez dakarren inolako arau-hauste administratiborik kontsumoaren arloan. Abiapuntutzat hartu beharra dago herritarrek ez dutela jakin behar zeintzuk diren kontsumoaren arloan arau-haustea dakarten jokabideak; hori dela eta, komenigarria da jakinarazpenetan adieraztea eta zehaztea zeintzuk izan diren Sailak aurrera eraman dituen jarduerak eta zein den azkenean lortutako emaitza.

Azkenik, aipatu nahi ditugu administrazio publikoek eta horiei lotutako erakundeek informazioetan nahi gabe egiten dituzten akatsek partikularrei eragiten dizkieten gora-beherak eta arazoak. Zehatzago esateko, Bilboko biztanle batek aurkeztu zigun kexari buruz ari gara; izan ere, pertsona horren telefonoa web gune batean agertzen zen industri lurzorua sustatzeko lanari lotutako enpresa publiko baten fax modura. Arazoari eman beharreko irtenbidea korapilatu eta atzeratu egin zen, antza denez, sareko informazio hori irabazteko asmorik gabeko erakunde batek atzeman eta zabaldu zuelako, administrazioak akatsa zuzendu baino lehenago.

## 1.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Merkataritza

⇒ *Produktu piroteknikoak kalean saltzeko debekua (102/2004)*

- Erreklamazioa

Arabako herri txiki bateko bizilagun batek Arartekoarengana jo zuen herriko jaie-tan kaleetan instalaturiko saltokietan petardoak saltzen zirelako eta bera horrekin bat ez zetorrelako.

- Azterketa

Kaleko salmentaren inguruan indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, udalei dagokie higiene, osasun eta segurtasun arauak nahiz merkataritza jarduera antolatze-ko arauak beteko direla bermatzea, bai eta arau-hauste arin eta larriengatik zehapenak ezartzea ere, betiere beste herri administrazio batzuei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe (Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 19. artikulua).

Aldi berean, Lehergaiei buruzko Araudiak (otsailaren 16ko 230/1998 Errege Dekretuaren bitartez onetsitakoa; Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1998-3-12koa) eta, zehat-zago, 19. jarraibide tekniko osagarriak, “*I, II eta III. motako artifizio piroteknikoen salmenta eta saltokiei buruzko arauen gainekoak*”, beren beregi debekatzen du artifizio pirotekniko hauek kalean saltzea. Oro har, I, II eta III. motako artifizio piroteknikoak dira edozein herritarrek erabil ditzakeen bakarrak.

Zehatzago esateko, 19. jarraibide tekniko osagarriaren 2. idatz-zatiak ondorengo haxe ezartzen du saltokiak aipatzen dituenean:

*“I, II eta III. motako txikizkako salmenta saltoki iraunkorretan, eremu publikoan instalaturiko etxoletan edo jabetza pribatuko lurretan egin ahal izango da. Kaleko salmenta beren beregi debekatzen da...”*

- Emaizta

Asparrengo Udaleko agintariak debekua kontuan hartu eta udalerrian instalaturiko saltokietan beharrezko ikuskapenak egin zitzaizten, Arartekoaren erakundeak jakinarazpen bat igorri zion toki erakunde horri, gai honi buruzko legeriaren berri emateko eta horrek Udalarri dakartzkion ondorioak gogorarazteko.

Erantzunean Asparrengo Udalak adierazi zuen petardoak kalean saltzea debekatu egin zuela eta, edozein kasutan ere, etorkizunean ere saltzen ez uzteko beharrezko neurriak hartuko zituela. Dena dela, azaldu nahi izan zuen debekua beteko zela bermatzea oso zaila izango zela, udalerrian udaltzaingorik ez zegoelako.

Gauzak horrela, Alkatetzari gogorarazi genion, Poliziaren Antolamenduari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearekin bat etorritik (155. EHAA, 1992-8-11koa), toki erakunde horrek Herrizaingo Sailari eskatu ahal ziola Ertzaintzak polizi zereginak bete zitzaizkela eta horretarako udalerrira joan zedila.



Era berean, produktu piroteknikoen erabilerak dakartzan arriskuen eta zarataren ondorioz, adierazi genuen udalerriko hainbat pertsonak iradoki zutela baimenduta ez zeuden pertsonak produktu piroteknikoak herriko kaleetan botatzeko debekua ezarri behar zela, beste toki erakunde batzuek erabakita zeukaten bezala, esate baterako Vitoria-Gasteizko Udalak.

Arartekoak auzi honetan esku hartzeko zituen aukerak agortuta, kudeaketak albo batera utzi genituen, kexaren egileari gure jarduerak ekarritako emaitzen berri eman ondoren.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Bizkaiko Foru Aldundiak kosmetika edo lurringintza artisautza lan modura baztertu izana (1219/2003)*

### • Erreklamazioa

Kosmetikoak eta lurrinak artisau modura egiten dituen pertsona batek Arartekoari azaldu zion zeintzuk diren Bizkaiko Foru Aldundiak artisautza lanetan jarduten duten pertsonen erregistroan sartzeko erabiltzen dituen irizpideak. Kexaren muina hauxe zen: lurringintzan eta kosmetikan artisau modura jarduten duten pertsonak erregistro horretan inskribatzeko ezintasuna. Erregistroan inskribatuta ez egotearen ondorioetariko bat da Bizkaiko eskulangintza arloa sustatzeari begira egindako jarduera eta egitaratuetan parte hartu ezinik ibiltzea.

### • Azterketa

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak txosten bat bidali zigun; agiri horretan adierazten zen erreklamaziogilearen eskabideari ez zitzaiola berariazko erantzunik eman, baina gaiaren muina aztertua izan zela; horrela, ondorioztatzen zen 37/1988 Foru Dekretuaren eranskinean jasotako jardueren katalogoan ez zela lurringile/kosmetologoaren jarduera sartzen. Sail horrek egokitzen jotzen zuen enpresa txikiek osagai artistikoekin egindako artisautza jarduerak sustatzea, baldin eta ekoiztako produktuek denboran barrena irauten bazuten, betiere kontsumogaiak edota elikagaiak baztertuz.

Hala eta guztiz ere, erreklamaziogileak aurkeztu eta erakunde honek jaso zuen planteamendua bestelakoa zen.

Artisautzaren sustapen ekonomikoari buruzko politiken edukia ezartzeko orduan Foru Aldundiak daukan eskumenari kalterik egin gabe, lurringintza edo kosmetikako gaiak 37/1988 Foru Dekretuan ezarritako beharkizunak betetzen dituzte. Horrela, dekretu honen 2. artikulua artisautza lantzat hartzen ditu ondasun artistikoak edo kontsumogaiak sartzen diren ekoizpen, eraldaketa edo konponketa jarduera guztiak, betiere elikagaiak edo prozedura pertsonal baten bitartezko zerbitzuen prestazioa alde batera utzita. Jarduera horren emaitza ondasun bereizgarria izan behar da, industri ekoizpen mekanizatu edo serieko ekoizpenaren bidez egin ez dena. Artikulu horren hitzez hitzeko interpretazioa eginez gero, lurringintza edo kosmetikako kontsumogaiak eskulangintzako produktutzat har daitezke, dekretuak ezarritako beharkizun guztiak betetzen dituztelako, nahiz eta eranskinean agertu ez. Esan nahi baita, elikagaiak ez diren kontsumogaiak dira

eta azken emaitza produktu indibiduala da, seriekoa ez dena, eskulangintzako prozesu bati jarraituz egina izan delako.

Beste alde batetik, beste lurralde historiko batzuetan, esate baterako Gipuzkoan, kosmetologoak artisautzat hartzen dira eta izaera horrekin parte har dezakete Bizkaian antolatu eta beste lurralde batzuetako artisauei zabalik dauden azoketan. Artisautzaren kontzeptu honen interpretazio hori ikusirik, Bizkaian eta beste lurralde batzuetan bizi diren kosmetologoek arteko desberdintasun egoera dagoela ondorioztatzen da.

Gure idatziari erantzuteko asmoz, Foru Aldundiak gai hau arautzeko eskumena zuela adierazi zuen, baina ez zuen aipatu indarrean dagoen testua; izan ere, dekretuak artisauen inguruan ematen duen definizioaren arabera ezin dira kosmetologoak baztertu. Halaber, Foru Aldundiaren ustez, lurralde historikoen arteko arautegi desberdinak egotea foru erakundeen eskumenen egikaritzaren ondorioa baino ez da eta, hortaz, ez dago Bizkaian bizi den kosmetologo baten eta kolektibo hau artisautzat hartzen deneko beste lurralde batean bizi den beste baten arteko tratu desberdinik.

- Emaiza

Edozein kasutan ere, Aldundiak, bere eskumenak egikaritzuz, arautegia berrikusteko asmoa zuela adierazi zuen, azaldutako kasuen erregulazioa ekar zezaketen aldaketa berrietarako bidea zabalduz.

Aldundiak berak gai honen inguruan egin beharreko hausnarketen zain, gai honetan izandako jarduera eten egin genuen.

## C) Industria

⇒ *Galdarak berritzeko planaren onuradunak (1229/2003)*

- Erreklamazioa

Herritar batek bere desadostasuna azaldu zuen, beraren ustez, galdarak berritzeko planak Repsol Butano enpresako bezeroei baino ez baitzien onurarik ekartzen.

- Azterketa

Plan hori gauzatzeko bi hitzarmen izenpetu ziren, bata Repsol-ekin eta bestea Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten gainerako enpresa hornitzaile edo banatzaileekin; gainera, azken horiek dira Euskal Autonomia Erkidegoan gasik gehien ematen duten enpresak. Konpainia horiek ondorengo hauek izan ziren: Gasnalsa, Bilbogas, Donostigas, Naturgas eta Cepsa.

Laguntza modu korapilatsuan eratu zen, zeren horretan ez baitzuen ezertarako ere parte hartzen Industria Sailak, ezpada Energiaren Euskal Erakundeak, gasa banatzen zuten enpresek eta gasa nahiz berogailuak instalatzen zituzten enpresek.

Hiru erakunde horiek (Energiaren Euskal Erakundea, gasa banatzen duten enpresak eta gas nahiz berogailuak instalatzen dituzten enpresak) itzuli beharrik gabeko diru-laguntza ordaintzen zuten, gastuak hiruren artean hainbanatuta.

Bi hitzarmen sinatzeko arrazoiak hauxe izan zen: Repsol-ek lehenago eta modu partikularrean Estatu osoko bezeroei eskaini zien galdarak berritzeko laguntza bat. EAEn

Repsol-ekin izenpetu zen hitzarmenean enpresak berak emandako laguntza egokitu zen autonomia erkidego honetan emandako diru-laguntzaren ezaugarrien arabera; hala ere, azken emaitza apur bat murrizagoa izan zen, Repsol-ek laguntza bakar-bakarrik ematen zuelako galdara marka jakin batzuen instalazioaren arabera, hau da, galdara horiek Repsol-ek aintzatetsitako enpresa instalatzaileek jartzen zituztenean baino ez.

- Emaidza

Ukitutako pertsonari argitu genion Repsol-eko erabiltzaileek nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten gainerako enpresa hornitzaile edo banatzaileetako bezeroek ere laguntza horietatik etekina ateratzeko aukera zutela.

## 2. GIZARTE ONGIZATEA

### 2.1. SARRERA

2004. urtean 72 kexa jaso dira alor honetan, alorretan banatutako kexa guztietatik % 6,44.

Kexa horiek ukitutako administrazioen arabera banatuz gero, hona hemen lortutako emaitza:

– Foru administrazioa .....	41
– Toki administrazioa .....	22
– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	17

Arlo honetan ia ez da Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexarik jaso; izan ere, gizarte zerbitzuen inguruko eskumenak foru aldundi eta udalei dagozkie gehienbat.

Eusko Jaurlaritzak garrantziko bi prestaziotan eskumena badu ere -kualitatibo zein kuantitatiboki-, hain zuzen ere Oinarrizko Errentan eta **Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan**, eskumen hori arauak emanez eta beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ahalbidetuz erabiltzen du. Hala ere, horren inguruko kudeaketa foru aldundien esku dago, lehenengo kasuan, eta udalen menpe, bigarrenean.

Horrelaxe dago xedatuta gizarte zerbitzuen eginkizunak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuan. Eskumenen banaketa hori eragindako administrazioei buruz emandako datuetan islatzen da.

Arlo honetan aurkeztu zaizkigun arazoaren edukiari begiratuta, honako azpiarloetan banatuko ditugu:

– Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak .....	22
– Adinekoentzako laguntza .....	14
– Pertsona ezgaituentzako laguntza .....	8
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	8
– Familientzako laguntza .....	7
– Haur eta nerabeentzako laguntza .....	7
– Arreta berezia behar duten taldeentzako laguntza .....	4
– Eskubideak eta askatasunak .....	1
– Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna .....	1

Eduki ekonomikoa duten prestazioen inguruko arazoak dira gehienak. Kontuan hartu beharrekoa da asko direla laguntza motaren bat jaso nahi dutenak edo jada onuradun direnak.

Arlo honetako kexetariko asko gizartean eragin handia duen arazo baten ingurukoak dira, 2004. urteko prestazioen barruan **Gizarte Larrialdietarako Laguntzen** (GLL) ordainketaren hasiera atzeratu izanaren ingurukoak, hain zuzen.

Berandutze horren zergatikoa Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak 2004ko martxoaren 10ean emandako Aginduaren (18an argitaratutakoa) onespena izan zen, horren bidez GLLak esleitzeko parametro berriak ezarri baitziren. Alde batetik, laguntza jaso dezaketen gastuetarako gehieneko zenbatekoak zehaztu ziren; horren ondorioz, udal guztiek GLLak eskuratzeko eskaeren mugak zehazteko irizpideak berrizatu behar izan zituzten. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak udalen artean kontsignatutako kredituak banatzeko irizpideak ezarri ziren, adierazle berrien bidez. Horren guztiaren eraginez onuradunek berandu eskuratu zuten dirua, apirilaren bukaeran edo maiatzaren hasieran, udalerrri batzuetan.

GLLen kobrantza gehiago atzeratu da aurten aurreko urteetan baino, aipatutako arrazoiak medio. Hala ere, beste urte batzuetan ere hiru edo lau hilabete igaro izan dira kobrantza hasi aurretik. Ondo legoke Eusko Jaurlaritzatik udaletara egin beharreko kreditu eskualdaketak ahalik era arinen egitea, laguntza horien onuradunek dirua lehenbailehen eskura izan dezaten.

GLLekin jarraituz, eta zehatzago, etxebizitza alokatzeko laguntzekin, arazo ugari sortu dira pertsona askok bizitokia eskuratzeko zailtasunak dituztelako. Etxebizitzaren jabeak logelak ahozko akordioaren bidez alokatzen dituen kasuez ari gara. Baita logelaren azpialokairuen kasuez ere; kasu horietan ere akordioak ahozkoak izaten dira eta errentatzailearen edota jabearen baimenik gabe egiten dira, nahiz eta Hiri Errentamenduen Legeak hala agindu. Egoera horiek honelako kasuak sorrarazten dituzte:

Batzuetan, jabe edo/eta errentari horiek ez diete logelak okupatzen dituztenei etxebizitza horretan errolatzen uzten. Azken horiek ez dutenez idatzizko kontraturik, ez eta alokairuaren ordainketaren agiririk ere, ukitutako pertsonentzat ia ezinezkoa da etxebizitza horretan bizi direla agiri bidez frogatzea, erroldari eta alokairu gastuei dagokienez. Egoera horrek alokairuengatik laguntzak jasotzea galarazten die, nahiz eta horretarako eskubidea izan, gainontzeko baldintza guztiak betetzen baitituzte.

Logelak okupatzeko ahozko akordio horiek etxebizitzaren jabeak egiten ditue-nean, lortutako irabaziak kontrol fiskaletik kanpo geratzen dira, eta errentariak egiten baditu, gizarte zerbitzuen kontrolari ere ihes egiten die, jasotzen dituen diru-sarrerei dagokienez.

Arestian aipatutako GLLei buruzko Aginduak horrelako egoerak saihestu nahi ditu, laguntzaren zenbateko desberdinak ezarriz kasu bakoitzaren arabera. Hala ere, egoera jakin batzuetan, benetan kaltetuak suertatzen diren pertsonak baliabide gutxien dituztenak eta egoerarik zailenetan aurkitzen direnak dira. Horrexegatik onartzen dituzte baldintza horiek.

Zeharka bada ere, GLLak egokitzeko egintza horiek eragina izan dute **gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonen** buru-osasuneko zentroetan laguntza eman ez izan egiten duten erakundeen finantzaketan. Osasun arloan, aipatu dugun bezala, gizarte eta osasun laguntza behar duten gizatalde batzuei laguntza eskaintzen dieten elkarteek finantzaketa arazoak dituzte eta laguntzaren iraupena kolokan dago.

Gizarte eta osasun arloko arazoa izanik, egokia da, gure ustez, arlo honetan ere gai honi buruzko aipamenen bat egitea. Baina hauxe gaineratu behar dugu: bizitokia eta laguntza behar dituzten pertsona horietariko zenbaiti GLL gisa jasotzen duten zenbatekoa murriztu egin zaienez, beraien kargu egiten diren erakundeak ere kaltetuak suertatu dira zehar bidez.

Bestalde, **errolatzeko** eskatzea ohikoa izaten da **zerbitzu publikoak** eskuratu ahal izateko; baina aurretiazko gutxieneko epea ezartzen denean salbuespeneko egoerak

kontuan hartu barik, oztopo izan daiteke zerbitzuak eskuratzeko orduan. Atal honetan ezgaitasuna duen pertsona baten kasua jaso dugu; eguneko laguntza zentro batera joan nahi du baina ez du betetzen hiru urtez eroldan egon izanaren betekizuna.

Beste batzuetan, aurretiaz erroldatuta egotearen betekizunak zerbitzu jakin batzuk lortu ahal izateko muga gisa jarduten du. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak **telelaguntza zerbitzuaren** inguruan onetsitako araudi berria aipatu behar dugu. Aldundi horretako Gizarte Ekintza Sailak telelaguntza zerbitzua arautu du oraintsu, azaroaren 16ko 202/2004 Foru Dekretuaren bidez; azken hori 2005eko urtarrilaren 1ean jarri da indarrean.

Zerbitzu horren eginkizunak, aurrekoaren aldean, nabarmen handitu badira ere –hitzorduak, jarduerak edo sendagaiak hartu beharra gogorarazteko agendaren kudeaketa, adibidez–, bertara jo ahal izateko baldintzen bi alderdi aldatu dira: prezioa eta, batez ere, errolda.

Erroldari dagokionez, aurreko araudiak (apirilaren 9ko 76/2002 Foru Dekretua) hauxe eskatzen zuen soilik: Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldaturik egotea eskaera egiteko unean. Foru dekretu berriak, hala ere, aurretik hiru urtez erroldatuta egon izana eskatzen du. Eskakizun horrek pertsona kopuru jakin bati sarrera mugatzen die, nahiz eta, egoera bertsuan, beste bi lurraldeetan zerbitzu hori eskuratzeko aukera izango luketen. Horrela, bada, Gipuzkoan ez da aurretiazko epe hori eskatzen (ekainaren 6ko 57/2000 Foru Dekretua) eta Araban aurretiazko epe hori urtebetekoa da soilik (araudi erregulaztzaileak ALHAOn argitaratu ziren 1998ko ekainaren 6an eta azaroaren 20an).

Zerbitzuaren prezioari dagokionez, Bizkaian doakoa izan da eta hala izaten jarraituko du jadanik zerbitzuaren onuradun direnentzat. Hala ere, araudi berria indarrean jarri ondoren sartzen diren pertsonen prezioa ordaindu beharko dute.

Modu horretara, hiru lurralde historikoetan prezio publiko bat egongo da eta horren gain ezarriko dira bai salbuespenak bai hobariak, famili unitatearen per capita diru-sarreraren arabera.

Bizkaian prezio hau ezarri da 2005. urterako: hilean 30,42 euro batez beste (euro bat eguneko). Kopuru horrek hobariak izango ditu baldin eta per capita diru-sarrerak 900 euro baino gutxiago badira hileko. Salbuespena egingo da baldin eta famili unitatearen diru-sarrerak Oinarrizko Errenta baino gutxiago badira.

Arabian zerbitzu hau ematearen ardura Gasteizko Udalarena da udalerrri horretan eta Arabako Aldundiarena, berriz, Arabako gainerako udalerrietan. Aipatutako epealdirako, honako prezio publiko hauek zehaztu dira: Gasteizen 5,96 euro (hobariak daude hileko diru-sarrerak 975,58 euro baino gutxiagoko direnean, eta salbuespena dago 314,15 euro baino gutxiago direnean), eta Arabako gainerako udalerrietan 6,04 euro (hobariak daude hileko diru-sarrerak 853,31 euro baino gutxiago direnean, eta salbuespena dago 266,65 euro baino gutxiago direnean). Aldeak txikiak izan arren, etorkizunean parekatuago egotea litzateke hoberena.

Gipuzkoan hileko prezio hori 6,16 eurokoa da. Hala ere, lurralde horretan prezioa kobratzen da ekipoa instalatzeagatik. 2005ean 69,47 euro kobratuko dira, hau da, batez beste 5,79 euro hilean. Kopuru hori aipatutako kuotari gehituko zaio lehen urtean. Zenbateko bi horiek badituzte hobariak baldin eta per capita diru-sarrerak 1.263,45 euro baino gutxiago badira hilean. Salbuespena, berriz, 505,38 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenentzat izango da.

Prestazio hori –telelaguntza deitzen zaio Bizkaian, telealarma Gipuzkoan eta LST (Larrialdietarako Sistema Teknikoa) Araban– oinarrizko zerbitzuaren izaera aintzatesten zaio: bai betetzen duen eginkizunarengatik bai pertsona askori euren etxeetan egotea ahalbidetzen dielako, nahiz eta inoren laguntza behar izan. Kasu batzuetan, beste inongo balibidieren laguntzarik gabe lortzen da hori guztia. Segurtasuna eta konfiantza ematen die bai erabiltzaileei bai haien familiei. Horregatik da garrantzitsua benetan beharrezana duten pertsonak zerbitzu hori erraz eskuratu ahal izatea.

Beste gai bati dagokionez, egoitza baten beharrean egon eta plaza publiko bat okupatzeko **itxaron zerrendetan** dauden Arabako **adinekoek** badute, jadanik, egoitza gisa kalifikatutako zentro pribatueta joan ahal izateko finantzaketa lortu eta laguntza ekonomikoa jasotzeko aukera (uztailaren 1eko 46/2003 Foru Dekretua). 2005etik aurrera, laguntza horiek **etxebizitza komunitarioetara** hedatu dira, baldin eta eskakizun jakin batzuk betetzen badituzte, irisgarritasunari dagozkionak, batez ere (abenduaren 30eko 77/2004 Foru Dekretua). Atal honetako 1073/2003 espedientean azaltzen dugu hori guztia.

Pertsona nagusi asko dira etxebizitza komunitarioa hautatzen dutenak egoitzaren orde; izan ere, duen tamaina txikiak (14 plaza baino gutxiago) hirigunean kokatzea errazago bihurtzeaz gain, familia-ingurunetik gertuagoko harreman pertsonalak izatea ahalbidetzen du.

Kexak eragin dituen beste egoera bat honakoa da: **lurralde historiko batekoek beste lurralde bateko zerbitzuak eskuratzeko** dituzten zailtasunak, gure autonomia erkidegoan.

Horri dagokionez, enplegu-zentro berezietan buruzko kasu bat azaldu zitzaigun. Zentro horiek, orokorrean, irabazteko asmorik ez duten erakundeek sorturiko enpresak dira; beraien helburua ezgaitasunen bat duten pertsonak lan munduan sartzea izaten da, hau da, lansaria duen lanposturen bat aurkitzea. Izan ere, plantillako langileen % 70, gutxienez, ezgaitasunen bat duten pertsonak izan behar dira.

EAEko foru aldundiek enpresa horien finantzaketan parte hartzen dute, besteak beste, lurralde jakin bateko pertsona ezinduek betetzen dituzten errendimendu txikiko lanpostu bakoitzeko diru-laguntza emanez.

Gipuzkoako enplegu-zentro berezi batera joan eta errendimendu txikiko lanpostu bat bete nahi zuen Bizkaiko pertsona ezgaitu baten kasua aurkeztu zitzaigun. Pertsona hori bizi den udalerrria eta zentroa dagoen udalerrria mugakideak dira eta bata bestetik oso gertukoak.

Zentroak pertsona hori onartzen bazuen, ez zuen foru aldundien aldetik inongo diru-laguntzarik jasoko plaza horrengatik: ez Gipuzkoako Foru Aldundiarengandik, pertsona hori ez baitzen gipuzkoarra, ez Bizkaiko Foru Aldundiarengandik ere, araudi aplikagarriak zentroa lurralde horretan kokatua egotea eskatzen baitzuen.

Gauza bera gertatzen zen lanean trebatzeko zentroa izanda ere, bertan etekinik ematen ez duten lanak burutzen baitira.

Adibide horrek arlo honetan sor daitezkeen egoera ugarien artean bat besterik ez du azaltzen. Badaude beste batzuk: adinekoentzako gizarte zerbitzuak, pertsona ezgaituentzakoak (baldin eta horiek beste lurralde batean bizi diren seme-alaba edo senideen etxebizitzara aldatzen badira, adibidez), edota herritar guztientzakoak. Egoera hori sarriago gerta daiteke autonomia erkidego honetako lurraldeen arteko mugaldeen artean.

Komeni litzateke hiru foru aldundien arteko akordioen bidez lankidetzarako mekanismoak ezartzea, lurralde batek bere egoiliar ez diren pertsonen egindako zerbitzuengatikoko gastuak konpentsatu ahal izateko, baldin eta hori egitea justifikatzen duten inguruabarrak badaude, beti ere.

Beste gai baten haritik, ohartu gara prestazio batzuei buruzko araudietan –prezio publikoa zehazten duten horietan, batez ere– **interpretazio bat baino gehiago izan ditzaketen termino edo kontzeptuak** erabiltzen direla eta, ondorioz, emaitza desberdinak lortzen direla. Kasu horietan garrantzitsua da terminoak ondo mugatzea, zein inguruetan aplikatu behar diren kontuan hartuta, beti ere. *Famili unitate* edota *bizikidetasun-unitate* bezalako terminoen ari gara, besteak beste. Horiek behar bezala definitzeak eta zein kidek osatzen dituzten adierazteak arazoak saihesten ditu. Mota honetako kasu baten azalpena ematen dugu 750/2004 espedientean.

**Familiari** dagokionez, Gobernuak onetsi zituen laguntza-neurrien inguruko kexak jaso ditugu: alde batetik laguntza ekonomikoei dagozkienak, eta bestetik lana eta familiako bizitza uztartzeko laguntzei buruzkoak.

Lehenengoak **seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoak** ematea arautzen duen uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuan daude aurreikusita. Eskaera egiteko epea hiru hilabetekoa da jaiotza unetik edota adopzioa eratzten den unetik zenbatzen hasita. Hala ere, ikusten dugunez, dekretu hori indarrean jarri eta bi urte geroago laguntza hauen berri beranduegi duten familiak badaude; eta, hori dela-eta, haien eskaera ez da onartzen, epez kanpo aurkeztu delako.

Legezko epeak egotearen arrazoia segurtasun juridikoaren ondorioa dela uste dugu; zentzu horretan, bidezkotzat jotzen dugu eskaera egiteko dekretuak jartzen duen hiru hilabeteko epea. Hala ere, egoera horren berri izatean, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari proposatu diogu aipatutako dekretu horren edukia behar bezala jakinarazteko hedapen kanpaina bat abian jar dezala; horretarako, liburuxka irakurterazak erabili ditzake; horiek jartzeko lekuak, berriz, haurrak jaiotzean familiek derrigorrez egon behar izaten duten lekuak izango lirateke, bai eta erregistro zibil, amatasun zentro, haurrak txertatzeko zentro, eta abarrekoak ere.

176/2002 Dekretuak berak kexak eragiten jarraitzen du adopzioen inguruan; izan ere, seme-alaben adinaren gehieneko muga ezartzen da –5 urte– hirugarren seme edo alabarengatikoko diru-laguntza jaso ahal izateko, jaiotza zein adopzio bidez izan. Muga honek desadostasuna sorrarazten du, jadanik bi seme-alabaren guraso izanik 5 urte edota gehiago dituen hirugarren baten adopzioa formalizatu dutenengan; izan ere, kasu horietan hirugarren haur horrengatik jasotzen duten diru-laguntza bigarrenarengatik jasotakoaren berdina da. Horrek guztiak ez du, inola ere, familiaren egoera islatzen.

Arazo horien jatorria, gure ustez, seme-alabatasun naturalaren eta adopzioaren artean legez –lege zibiletan nahiz Konstituzioan– egiten den berdinketa dekretuaren eremura bere horretan aldatzean datza. Gure iritziz, ondorio horietarako, adopzioa eta jaiotza berdinstea baliozkoa da, hasiera batean behintzat, berdintasun printzipioaren errespetua bermatzeko orduan. Hala ere, Administrazioak azterketa osagarria egin behar lukeela uste dugu; horrela, seguruena, agerian jarriko litzateke adopzioa egiten duten familiei laguntza eta babes gehiago eskaini behar zaizkiela, dekretuan ezarritakoez gain.

176/2002 Dekretuarekin jarraituz, nazioarteko adopzioaren eta berau eskatzeko dagoen 3 hilabeteko epearen inguruko kexak jaso ditugu. Dekretu horren 6.2.e)



artikuluak dioenaren arabera, kasu batzuetan beharrezkoa da eskaerari Erregistro Zentralean egindako adopzioaren inskripzioaren ziurtagiria gehitzea. Arazoa sortzen da, ordea, ziurtagiri hori eskatu eta handik pare bat hilabetera jasotzen delako. Interesatuek itxaron egiten dute agiria lortu are, baina lortzen dutenean, normalean, hiru hilabete baino gehiago izaten dira adopzioa gauzatu zenetik eta eskaera, beraz, epez kanpokoa izaten da.

**Laneko bizitza eta familiakoa uztartzeko neurriei** dagokienez ere (uztai-laren 16ko 177/2002 Dekretuan araututakoak berauek) kexak jaso ditugu. Dekretu horrek diru-laguntzak eskaintzen ditu eszedentzia edota lanaldiaren murrizketa dela-eta diru-sarrerak murrizten direnean seme-alabak zaintzeagatik.

Dekretu honen babesik ez zuten pertsonak jarri dituzte kexak; inoren kontura lan egin ez eta norberaren kontura lan egiteagatik zeuden Dekretuaren babespetik kanpo. Informazioa eskatu diogu Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari, Administrazioak egindako murrizketa horren arrazoiez eta horren inguruan araudia eraldatzeko egon daitezkeen aurreikuspenez. Txosten hau idazteko unean ez dugu, oraindik, erantzunik jaso.

177/2002 Dekretuarekin loturik, eskatutako laguntza ukatu zaion bikote baten kexa jaso dugu; beren lanaldia arauak aurreikusten duen moduz beste murriztea erabaki dutelako ukatu zaie laguntza. Kasu honetan, bai amak bai aitak murriztu dute lanaldia: aitak % 20 eta amak % 15; hau da, lanaldiaren murrizketak, guztira (% 35), betetzen du dekretuan ezarritako gutxienezkoa. Hala ere, murrizketa hori, dekretuak agintzen duen bezala banaka egin beharrean, batera egin da. Horregatik, arestian aipatutako Eusko Jaurlaritzako Sailera jo eta arazo honen inguruko informazio zehatza eskatu dugu, bai eta gai honen inguruan berak duen iritzia ere. Kasu honetan ere erantzunaren zain gaude.

**Babesik gabe dauden adingabeen babesaren** inguruan erakundeek egindako jarduerari dagokionez, kexa pare bat jaso ditugu adopzio eta harreraren inguruan. Kopuruaren aldetik, aurten behintzat, nazioarteko adopzioetarako eskaeretan hiru foru aldundiek ezartzen duten adin-mugak eragindako kexak dira aipagarrienak. Erakunde honen iritiz, arazo benetan konplexua da; bertan lehentasuna eman behar zaio adingabearen interesari. Hala ere, sarritan ez denez erraza interes hori babesteko modurik onena zehaztea, irizpide malguak erabili behar dira; horrela, bada, eskaria egin duen bikotearen ezaugarri orokorrak eta kide bakoitzaren ezaugarri zehatzak hartu behar dira kontuan. Adin biologikoak ez du zertan irizpide erabakigarria izan, zentzu horretan.

Bukatu aurretik, Administrazioek, hiritarrei eragiten dieten erabakietan, **ezarrita dagoen administrazio prozedurari** jarraitzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, batez ere aintzatesitako eskubideei dagokienez.

Badakigu asko eta asko direla prestazio ekonomikoak aldatzeko, eteteko eta kentzeko espedienteak, bai eta behar ez ziren moduan jasotako kopuruaren itzulketari dagozkionak ere. Baina ahalegina egin behar da onartutako ebazpena arauari lotua eta baliozkoa izan dadin beharrezkoak diren izapideak errespetatzeko. Honen inguruko kasu bat azaltzen dugu 989/2003 espedientean.

Azkenik, eta administrazio prozedurarekin loturik orobat, **espedientearen hasieratik ebazpena eman arte** igarotzen den **epeak** izan ditzakeen ondorioak aipatu beharrean gaude; batez ere, ondorio ekonomikoak sortzen direnean.

Gaur egun, ezgaitasun maila aintzateseko izapideen iraupenari buruzko espediente bat dago zabalik, aintzatespen hori laguntza ekonomikoa jasotzeko beharrezkoa den

kasuetarako. Zehazki, eskaera aurkezten denetik Foru Aldundiak ebazten duen arteko denbora ez duelako kontuan hartzen Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak, seme-alaba edo kargupeko adingabe bakoitzeko diru-esleipena aintzatesteko unean.

Araudiaz (1971/1999 Errege Dekretua eta 356/1991 Errege Dekretuak) INSS egiten ari den aplikazioari dagokionez, gure balorazioaren berri eman diogu Estatuko Arartekoari eta berak jarduerak hasi ditu Estatuko administrazio eskudunaren aurrean.

## 2.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Ezgaitasuna duten pertsonentzako laguntza

⇒ *Ez-ohiko egoerak, gizarte zerbitzu batzuk eskuratu ahal izateko aurretik erroldatuta egon behar den epea dela-eta (819/2004)*

- Erreklamazioa

Emakume bizkaitar batek, ezgaitasun maila handia duen ezindu baten arrebak, bere nebarentzat eguneko zentro batean plaza lortu nahi zuela azaldu zion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari. Ezinezkoa zela erantzun zitzaion, interesatuak ez zuelako betetzen Bizkaian aurretiaz erroldatuta egotearen baldintza.

Interesatua, izan ere, bere aitarekin bizi izan zen bere jatorrizko autonomia erkidegoan. Aita hiltzean bakarrik geratu zen eta ezin zen bere kabuz moldatu, adimenezgaitasun handia zuelako. Orduan joan zen bere arreba eta tutorea denarekin bizitzera; senarrarekin eta seme-alabekin Bizkaiko udalerrri batean bizi zen berau.

Arrebak zein familiako gainontzeko kideek etxetik kanpora egiten zuten lan eta oso zaila suertatzen zitzaion beren lanbidea eta nebari eman beharreko etengabeko arreta bateratzea. Horrexegatik pentsatu zuten eguneko zentro batera eramatea.

- Azterketa

Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko zentro horietarako sarrera arautzen duten dekretuek diotenez, beste baldintza batzuen artean, eskatzaileek Bizkaiko auzotasun administratiboa dutela frogatu behar dute; auzotasun hori hiru urtekoa izan beharko da gutxienez. Urteok, gainera, elkarren segidakoak izan beharko dira, eta eskaera aurkezten den urtearen aurrekoak, hain justu. Interesatuak ez zuen baldintza hori betetzen eta horregatik eman zitzaion ukoa.

Hala ere, gure ustez, kasu honetan ez ohiko inguruabar bat gertatu zen, hau da, interesatua Bizkaira etortzearen arrazoiak: deskribatutako egoeraren aurrean haren arrebak derrigorrez bete behar zituen bere-berekoak zituen legezko tutoretzaren betebeharrak, Kode Zibilean jasotakoak, hain zuzen ere.

Bestalde, eskatutako plazak arnasa zein laguntza eskaintzen zion familiari, eta horixe da hain zuzen ere zentro hauen eginkizunetako bat. Horrela, familia laneko betebeharrei erantzuteko gai izateaz gain, ezinduen arreta bermatuko luke. Horrek guztiak Bizkaiko familia honen bizi-kalitatea hobetuko zuen dudarik gabe.

Horiek horrela, idazkia igorri genion arestian aipatutako foru sailari; bertan adierazi genion komeni zela aurretiazko erroldatzearen eskakizuna bertan behera uztea behar

bezala baloratu eta egiaztaturiko egoera berezien aurrean. Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak erantzun zigun beharrezkoa zela egoera berezi horiek mugatu eta zehaztea.

Sail horretara zuzenduriko beste idazki batean adierazi genuenez, aldundi horrexen beste araudi batean aurreikusten zen jadanik egoera berezi horiek salbuesteko aukera: gizarte integrazioko zentroetan sartzeari buruzko arauetan hain zuzen ere (abenduaren 16ko 262/2003 Foru Dekretuaren 2.d artikulua). Hala ere, gehitu genuen, gure ustez, pertsona ezgaituen kasuan ez ohiko egoera horiek adingabekoekin edota legez ezgaitutako pertsonekin zerikusia izan beharko luketela, baldin eta Bizkaira etortzearen arrazoia –errolatzearen betekizuna haustearen arrazoia bera– hau izanez gero: beraiek zaintzeko legezko ardura duten pertsonak Bizkaian bizi izatea eta eskatzen den gutxieneko epean bertan errolatuta egon izana.

Behin eta berriz azpimarratzen zen komeni zela neurriak jartzea, egoera jakin batzuetan aurretiazko errolatzearen baldintza salbuetsi ahal izateko, pertsona ezgaituen zainketaarako. Horretarako, beharrezkoa da aukera hori dagokion arauan jasota egotea.

- Emaizta

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak lan-talde bat osatzea erabaki zuen, horrelako egoerak aztertzeko eta arazo horiek konponduko dituen erantzuna proposatzeko.

## B) Adinekoentzako laguntza

⇒ *Egoitza-zentro batzuetako egoiliarrek diru-laguntza jasotzeko aukera dute baina etxebizitza komunitarioetan bizi direnek ez dute aukera hori (1073/2003 eta 118/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona nagusi batek egoitzako plaza eskatu zion Arabako Foru Aldundiari. Behin kasua ikertu eta gero, foru erakunde horrek aldundiaren menpeko egoitza batean sartzeko eskubidea aintzatetsi zion pertsona horri. Beraz, itxaron zerrendan sartu zuen.

Plaza publikoa eman arte itxaron beharra zuenez, interesatuaren senideek zentro pribatu batera eramatea erabaki zuten. Hortaz, zentro publiko baterako itxaron zerrendan daudenei zentro pribatu zein hitzartuan sartzeko foru aldundi horrek eskaintzen dien diru-laguntza eskatzea erabaki zuten (uztailaren 1eko 46/2003 Foru Dekretua).

Senideek beraien bizilekutik gertu zegoen zentro batera eraman zuten pertsona hori, bisitak errazago egiteko. Interesatuak goian aipatu den diru-laguntza eskatu zionean Arabako Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari, ukatu egin zitzaion, etxebizitza komunitarioan zegoelako eta ez egoitzan.

- Azterketa

Adinekoak sare publikotik kanpoko egoitzetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak emateko sistemari buruzko araudia onesten duen uztailaren 1eko 46/2003 Foru Dekretuak bi baldintza ezartzen ditu diru-laguntza horiek jaso ahal izateko: a) egoitza publiko batean sartu ahal izateko itxaron zerrendan egotea, eta b) gizarte eta

osasan egoeraren balorazioan puntuazio jakin bat lortzea. Interesatuak baldintza biak betetzen zituen.

Hala ere, arau horrek baldintzak ezartzen dizkie programa horretako pertsonak hartzen dituen egoitzei ere. Hauxe da baldintza horietariko bat: *“martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2.c) artikuluan xedatzen denaren arabera adinekoeen egoitza gisa kalifikatuta egotea”* (3.d artikulua).

Horrela, bada, adinekoeen egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren azken dekretu honek bereizi egiten ditu egoitzak eta etxebizitza komunitarioak, 14 plaza baino gehiago edo gutxiago dituzten. Gainera, egoiliarrek behar duten arretamaila ere kontuan hartzen da.

Bestalde, erakunde hau beste espediente bat izapidetzen ari zen gai honen inguruan, hots, egoitzei ematen zaizkien laguntzak etxebizitza komunitarioei ez ematearen inguruan. 46/2003 Foru Dekretua zela eta, bidaliak genituen jadanik ohar batzuk Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailera. Bertan esaten genuenez, 41/1998 Dekretuan egoitza zentroz egindako sailkapenak berez ez zuen eragozten inoren laguntza behar duten adinekoei egoitza ez diren zentroetan laguntza ematea, etxebizitza komunitarioetan, adibidez.

Dekretu horrek etxebizitza komunitarioen baldintza material zein funtzionalak finkatzen ditu. Hauxe dio III. eranskinean: *“eremu fisiko irisgarriak izango dira kanpoaldean zein barrualdean, baita ezgaitasun nabarmena duten pertsonentzat ere”*. Era berean, zentroko langileei buruz aritzean ratio bat zehazten du *“lagundutako plazetarako”*. (1 eta 8 atalak).

Hori dela-eta, gure ustez, etxebizitza komunitarioen baztertzea ez zen inola ere berez justifikatzen. Kontuan hartu beharko litzateke ea etxebizitza komunitario jakin bat pertsona jakin batek behar zituen arreta eta laguntzak eskaintzeko moduan zegoen ala ez, haren mendekotasun mailaren arabera. Arestian aipatutako foru sail horretako arduradunekin ere solasaldi bat izan genuen, diru-laguntzak etxebizitza komunitarioetara hedatzeko aukeraren inguruan balorazioak egiteko asmoz.

- Emaizta

Arabako Foru Aldundiak diru-laguntza hori etxebizitza komunitarioetara hedatzea erabaki zuen, horretarako irisgarritasun baldintza batzuk ezarrita. Helburu horrekin onetsi zuen abenduaren 30eko 77/2004 Foru Dekretua, aipatutako alderdiei dagokienez 46/2003 Dekretua aldatzen duena.

Hala bada, etorkizunean azaldu daitezkeen mota honetako egoerei irtenbidea eman ahalko zaie.

### C) Eduki ekonomikoa duten gizarte prestazioak

⇒ Oinarrizko Errentan eragina duten espedienteetan administrazio prozedurari jarraitu beharra (989/2003)

- Erreklamazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak pertsona bati eten egin zion Oinarrizko Errenta jasotzeko zuen eskubidea. Ezezko ebazpenaren jakinarazpena izan zen horri buruz jaso zuen

lehena. Gora jotzeko errekurtoa jarri zuen, horretarako arrazoirik ez zegoela esanez, eta ezetsi egin zitzaion, arrazoitu gabeko beste ebazpen baten bidez.

- Azterketa

Oinarrizko Errenta arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuak, V. eta VI. kapituluetan, administrazio espedienteetan jarraitu behar den prozedura ezartzen du, prestazioak aldatu, eten, ezabatu edo itzuli behar diren kasuetarako. Prozedura hori bat dator Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatzen duenarekin.

Prozedura horren bitartez, hiritarren eta administrazio publikoen arteko harremanetan dauden eskubideak berma daitezzen eta babesgabeziarik sor ez dadin lortu nahi da. Honako hauek prozeduraren oinarrizko osagaiak dira:

- a) interesa duen pertsonari espedientea ireki dela jakinaraztea, horretarako arrazoiak zehaztuz, ustez hautsi diren manuak aipatuz, eta behar diren manuak aplikatuta sor daitezkeen ondorioak zeintzuk diren esanez;
- b) epea jartzea entzunaldiaren izapidea betetzeko eta interesatuak bere defentsarako egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izateko;
- c) ebazpena ematea, behar bezala arrazoitua eta juridikoki oinarritua, ustez hautsi diren manuak eta erabakia hartzeko kontuan hartu direnak zeintzuk diren adierazten duena. Azken horrek berebiziko garrantzia du, eskubide subjektiboak edota lege-bidezko interesak mugatzen dituzten egintzez ari garenean –Oinarrizko Errentaren etetea, kasurako–, edota ofizios berrikusteko prozedurak ebazten direnean –aztergai dugun kasuan bezala– [30/1992 Legearen 54.1. artikuluko a) eta b) letrak].

Aipatu dugun kasuan, ez zen ageri, inondik inora, eginbehar horiek bete zirenik, eta emandako ebazpenetan ez ziren zioak azaltzen. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Sailera jo genuen informazio eske.

Hark emandako erantzunean, ez zen galdetutako informazioaren berririk ematen, baina etendurari buruzko espedientea Zarauzko Udalak proposaturik hasi zela esaten zen; horrekin batera, udal horrek luzatutako txosten bat igorri zitzaigun. Txosten horretan ere ez ziren behar bezala azaltzen egindako proposamenaren arrazoiak. Beraz, informazio gehiago eskatu genion Zarauzko Udalari; hala ere, jaso genuen erantzuna ez zen laguntza etetearen aldeko proposamena bermatzeko adinakoa.

- Emaizta

Aurreko guztia ikusirik, uste dugu bai Oinarrizko Errenta eteteko espedienteari hasiera emateko udal proposamenak bai prestazioaren etendura onartu zuen foru ebazpenak akats garrantzitsuak zituztela. Ondorioz, bi idazki igorri genituen:

- Bata Zarauzko Udalari. Bertan, aurrerantzean gai honi buruz igortzen ziren txostenak behar bezala arrazoitzeko eskatu genuen.
- Bestea arestian aipatutako Gipuzkoako foru sailari, Oinarrizko Errenta eteteko ebazpena berrikusteko eskatuz. Eskaera horrek egintzaren baliozkotasunean

zuzeneko eragina zuten osagai batzuk zituen oinarri: batzuk gaiaren funtsaren ingurukoak ziren –neurri hori hartzeko alegatutako arrazoia ez zegoen onartuta– eta beste batzuk, berriz, espedientearen izapidetzeari zegozkion.

Oinarrizko Errenta eteteko ebazpena berrikusi eta indarrrik gabe utzi zen, eta interesatuari zor zitzaizkion zenbatekoak ordaindu zitzaizkion.

⇒ *Prezio publikoa kalkulatzeko oinarriztat hartzen den “famili unitate” kontzeptua zehaztu beharra (750/2004)*

- Erreklamazioa

Etkez etxeko laguntza-zerbitzuaren onuradun izandako pertsona baten senide batek bere desadostasuna azaldu zuen Gasteizko Udalak kobratu zion prezioa zela-eta.

Zerbitzu hori etxe berean bizi ziren bi ahizpari eman zitzaien; biak nagusiak ziren eta laguntza behar zuten. Beraz, biak izan ziren zerbitzuaren onuradunak, baina bakoitzak bere independentzia ekonomikoa eta bere baliabide propioak zituen.

- Azterketa

Gure informazio eskaerari erantzunez, Udalak adierazi zigun etxebizitza bakar bat zenez ordainagiri bakar bat luzatzen zela. Zenbatekoari dagokionez, Udalak ahizpa bientzat onuragarriena aukeratu omen zuen; izan ere, prezioa banaka zehaztu izan baltz, emaitza, guztira, askoz ere handiagoa izango zatekeen. Alde horretatik ez zegoen esku hartu beharrik.

Hala ere, arazoaren jatorria “famili unitate” terminoaren zehaztasunik eza zela ikusi genuen. Arestian aipatutako zerbitzua emateagatik prezio publikoa ezartzen duten ordenantza fiskaletan erabiltzen da termino hori; etkez etxeko laguntza zerbitzuaren orduko prezioa famili unitatearen per capita errentaren arabera kalkulatu behar den arren, ez da esaten zein kidek osatzen duten famili unitatea, errenta hori kalkulatzeari dagokionez.

Gure ustez, prezio publiko baten zenbatekoa zehazteko oinarriztat erabiltzen den osagai horren zehaztasun faltak arazo ugari sor ditzake; izan ere, ordaindu beharreko zenbatekoak aldaketak izan ditzake, famili unitatea osatzen duten kideen arabera. Gainera, argi dago “famili unitate” terminoak interpretazio ugari izan ditzakeela, batez ere familia-egituran horrenbeste aldaketa gertatzen eta familia-eredu desberdinak sortzen ari diren garai honetan.

- Emaitza

Idazkia igorri zitzaion Udalari, eta aurrerantzean ordenantza fiskaletan famili unitate kontzeptua behar bezala definitzea zela egokiena esan zitzaion; batez ere, termino hori prezio publikoa kalkulatzeko erreferentzia gisa erabiltzen den kasuetan.

⇒ *Autonomia Estatutuko termino baten interpretazioa, euskal herritartasun politikoa dela-eta, gizarte zerbitzuak jaso ahal izateko aurretiaz epe jakin batean erroldatuta egon beharretik salbuesteko (879/2004)*

- Erreklamazioa

Bizkaiko Foru Aldundiak Oinarrizko Errenta ukatu zion pertsona bati, esanez ez zuela betetzen autonomia erkidego honetan gutxienez urtebetez erroldatuta egotearen baldintza, prestazio hori arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 3.2 artikulua eskatzen duena.

Izan ere, eskaera egin zuenak, baldintza hori bete ez arren, salbuespen egoeran zegoela uste zuen, jatorrizko herrira itzulitako euskalduna zelako, eta hori bat zetorrelako EAETik kanpora dauden euskal gizataldeei eta euskal etxeei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 11.1. artikuluaekin, bai eta Autonomia Estatutuko 7.2. artikuluaekin ere.

Interesatua atzerrian jaioa da, Hego Amerikako herrialde batera emigratu zuen bizkaitar baten alaba. Ez zen espainiar enbaxadako erregistro zibilean inskribatu adin nagusia izan eta emantzipatu zen arte. Beraz, ordura arte ez zuen espainiar nazionalitatea formalki lortu eta, ondorioz, ezta espainiar pasaporteia ere.

Jaiotzaren hitzez hitzeko ziurtagirian (kontsuletzeko erregistro zibilean eman zioten 2003ko apirilaren 16an) interesatuak espainiar nazionalitatea *berreskuratu* egin duela esaten da. Hori dela eta, Foru Aldundiak ulertu zuen interesatuak aurretiaz galdu egin zuela nazionalitate hori eta beraz ez zuela *mantendu*, euskal herritartasun politikoa eduki ahal izateko Autonomia Estatutuak eskatzen duen moduan. Beraz, ez zuen jatorrizko herrira itzulitako euskaldun gisa hartu eta ez zion aplikatu erroldatuta egon behar den epeari dagokion salbuespena. Horrexegatik eman zioten ezetza Oinarrizko Errenta jaso ahal izateko egindako eskaerari.

- Azterketa

Nazionalitatearen aintzatespen hori 2003. urtean lortu zuen, kontsuletzeko erregistro zibilean borondate-aitorpena egin ostean, Kode Zibilak ezarritakoaren arabera.

Geroago Bizkaira aldatu zen eta bertan ezarri zuen bizilekua. Oinarrizko Errenta eskatzeaz gain, jatorrizko herrira itzulitako euskalduna zela esanik, 8/1994 Legearen 11.1. artikuluan zein 198/1999 Dekretuaren 3.2. artikuluan jasotzen den salbuespena eskatu zuen, gizarte zerbitzuak jaso ahal izateko aurretiaz erroldatuta egon behar den epeari dagokiona. 8/1994 Legearen artikulua horrek gizarte zerbitzuetarako baldintza horretatik salbuesten ditu autonomia erkidego honetara itzuli diren euskal gizataldeetako kideak, baldin eta: “a) *Estatuko lurraldetik kanpora bizi izan badira, etengabe, eta itzuleraren aurreko urteetan, etorkinak ez direnei aurretiazko egoitza gisa eskatzen zaien beste urte gutxienez, eta b) itzuleraren ostean Euskal Autonomia Erkidegoan jarri badute beraien bizilekua*”. Interesatuak baldintza horiek betetzen zituen.

Ondorio horietarako, euskal gizataldeetako kide izateko baldintzak Lege beraren 3. artikulua zehazten ditu: “*atzerrian bizi diren euskaldunak, bai eta horien ondorengoak ere, Euskadiko Autonomia Estatutuak 7.2. artikulua aipatzen dituenak*”. Estatutuaren artikulua horrek, bestalde, honakoa adierazten du: “*Atzerrian bizi direnek, bai eta horien ondorengoek ere, Euskal Herriko egoiliarren eskubide politiko*

*berdinak izango dituzte hala eskatzen badute, baldin eta beraien azkeneko administrazio auzotasuna Euskadin izanik, espainiar nazionalitatea **mantentzen** badute”.*

Gure erakundearen ustez, foru erakundeak eginiko interpretazioa guztiz mugatzailea da; izan ere, gure Estatutuan azaltzen den *mantendu* hitzak, formalki, espainiar nazionalitatea eduki behar dela adierazten du; eta, interpretazio hertsia goa eginez, behin modu ofizialean nazionalitate hori lortuta ez dela galdu behar ulertu liteke.

Interesatuak bere bizitzan zehar nazionalitate hori modu formalean eskuratzeko eskubidea izan zuen, bere aitak halaxe zuelako jatorriz (Kode Zibilaren 17.1.a artikulua). Hala ere ez zuen eskubide hori egikaritu 2003ko apirila arte, espainiar nazionalitatea modu formalean lortu zuen arte, hain zuzen. Gainera, ez zuen aukera-eskubidea egikaritzeko adin-mugarik (Kode Zibilaren 20.3. artikulua); izan ere, egun horretan indarrean zegoen jadanik urriaren 8ko 36/2002 Legearen bidez eginiko Kode Zibileko 20. artikulua aldaketa

Hala, bada, espainiar nazionalitatea aukeratzeari buruzko Kode Zibileko 20. artikulua ezartzen duenez, *“jatorriz espainiarra eta Espainian jaioa den ama edo aita dutenak (...) ez daude inolako adin-mugaren menpe”* beren aukera-eskubidea egikaritu ahal izateko.

Beraz, gure iritziz, ez zen galduta zegoen zerbait berreskuratu, zentzu hertsian, baizik eta lehen aldiz lortu modu formalean. Interesatuak bazeukan zer hori, *mantendu* egin du eta, euskaldun baten alaba izanik, Autonomia Estatutuak 7.2. artikuluan aipatzen duen euskal herritartasun politikoa eskuratu du.

- Emaizta

Aipatutakoarekin bat etorritik, gure ustez, interesatuari arestian azaldutako salbuespena ezarri behar zitzaion. Horrelaxe adierazi genion Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari.

Hala ere Sail horrek bere interpretazioari eutsi zion eta adierazi zigun interesatuak ez zuela *mantendu* espainiar nazionalitatea, erregistro zibileko agiriak berreskuratu egin zuela zioen eta.

Interesatuak atzerrian ezarri zuenez bere bizilekua, espediente horretan zuen interesa bertan behera geratu zen. Horrexegatik itxi zen, hain zuzen ere.



### 3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

#### 3.1. SARRERA

2004an guztira arlo honetako 14 kexa jaso dira, honela banatuak:

– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	8
– Toki Administrazioa .....	6

Gaiaren araberako sailkapena hauxe da:

– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	5
– Elebitasuna .....	4
– Kirola .....	2
– Kultura .....	1
– Eskubideak eta askatasunak .....	1
– Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna	1

2004an euskararen erabilpenari buruzko kexa gutxiago jaso ditugu. Bistanenez, hori ezin dugu aurreko urteko aldean egoera funtsean aldatu delako zantzia den datuzat hartu.

Elebitasunaren atalean, beren hizkuntz eskubidea mugaturik dutela, edo, azaltzen dituzten arloetan, euskara ikasteko laguntza behar baino txikiagoa dela uste duten pertsonen kexak azpimarratu behar ditugu.

Euskararen egoeraren ondorioz, jendeak kexak aurkezten jarraitzen du Administrazioarekiko harremanetan eurek aukeratutako hizkuntza erabiltzerik izan ez dutelako. Baina batzuek administrazioei egotzi ahal zaizkien egoerak azaldu dituzte. Izan ere, ukituriko administrazioek ez dute kontuan hartu gero kexa ekarri duen jarduera zehatzean herritarrekiko harremanak daudela, eta herritarrek hizkuntza ofizialetariko edozein erabiltzeko aukera izan behar dutela.

Horrelako kasua gerta daiteke azterlan bat egiteko administrazio kontratuaren adjudikazioa duen enpresak herritarrei inkestak egiten dizkienean. Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak neurri batzuk aurreikusten ditu, administrazio kontratua bete ahal izateko adjudikaziodunak herritarrekin zuzeneko harremanak izan behar dituen kasuetarako, baldin eta Administrazioari ezarritako baldintza berberak bete behar baditu harreman horietan (1464/2004).

Administrazioak adjudikazioan arlo hori kontuan hartu ez izana ez da enpresa adjudikaziodunaren erantzukizuna, baina inkesta egin zaion pertsonaren kexa oinarrituta egongo da.

Parte-hartzaileek epaimahai edo auzitegien aurrean beren lanak edo egitasmoak aldeztu dituzten kasuetan ere horrelako egoerak gerta daitezke, bi eremu gurutzatzearen ondorio izan daitezkeenak: a) epaimahaiko kideak aukeratzeko irizpideei dagokiena eta b) administrazioen eta herritarren arteko jardun guztietan dagoen zeharkako eskubideari dagokiona, hau da, nahi den hizkuntza erabiltzeko eskubideari dagokiona. Lehenengo

eremuko irizpideek zeharkako hizkuntz eskubidea erabiltzea eragotz dezan saihesteko neurriak aurreikusi eta ezarri behar dira.

Pertsona helduek euskara ikasteko laguntzarik ez izateak kexak eragin ditu, eta herri botereetako langileei bestelako tratua ematen zaiela salatu da kexa horietan. Egoera hori ez da beti horrelakoa izaten. Izan ere, jakina denez, zenbait administrazioek euskara ikastea sustatuz esku hartzen dute. Horrelako kexei lege-bidezketasunik kendu gabe, haiek aurkeztu dituztenei adierazi diegu administrazio publikoek beren langileak doan prestatu behar dituztela eta beroriek euskaraz jakitera beharturik egotea gerta daitekeela. Herritarrek oro har euskara ikastearen arloan, aldiz, botere publikoen jarduera beste eremu batean dago, sustapenarenean alegia; eta, sustatze politiketan, administrazioak eskudunak dira laguntza emango dieten jarduerak eta beroriek finantzatu dituzten maila zein diren aukeratzeko.

Arlo honi dagokion kultur atalean, kirolarekin zerikusia izan duten zenbait kexa azaldu dira eta gaiak askotarikoak izan dira: xake-jokoa kirol bezala itxuratzeko arau-proiektuaren tramitazioa, eski federazioaren kudeaketa, edo kirol elkarteek lehiaketa ofizialak egiteko dituzten zailtasunak, kontuan izanik baliabide material eta juridiko urriez hainbat eta hainbat alderdi kudeatu behar dituztela.

Zailtasun horien erakusgarria da Punta Galea Txirringululari Elkarteak Arartekoaren erakundeari azaldutako egoera. Izan ere, txapelketa batean izandako gorabeheren erantzukizunaren inguruko arazoengatik, erantzukizun horren ondorio ekonomikoari aurre egin behar izan zien elkarte horrek. Hori aipatu behar dugu, baina ez dugu ahaztu behar klubean kirol-federazioek duten protagonismoa, kexa horrek azaltzen duen arazoa dela eta.

Parte-hartzaileen, herritarren (hala ikusleak nola ikusleak ez direnak) eta, batzuetan, erakundeko kideen euren segurtasuna kontuan hartzen badugu, esate baterako, lankide boluntarioena kontuan hartzen badugu, esan dezakegu probak antolatzeke eta garatzeko segurtasun maila berbera behar dela beti –probaren maila edozein dela ere–. Egin-eginean, proba horiek toki eta bide publikoetan egiten dira, eta ikusleak lehiaketaren eremu barrura sartzeak ondorioak izan ditzake. Probak modu seguruan egin ahal izateko euren borondatez laguntzen duten pertsonak jendea ohartarazi eta aholkatu behar dute, eta esku hartzen saiatu behar dute txapelketen garapena batzuetan arriskuan jartzen duten pertsonen jokaeretan.

Lehiaketak egiten diren tokietan uste izatekoa da prebentzio neurri zorrotzak hartzen direla; hala ere, ikusleek lehiaketaren esparruan sartzen erakusten dizkiguten irudiek frogatzen duten bezala, ia ezinezkoa da erabateko segurtasuna, proben antolatzaileek ezin aurreikus ditzaketan ezbeharrei dagokienez. Beste alde batetik, ez dirudi neurri horiek bide eta gune publikoetan egiten den edozein probatan har daitezkeenik. Punta Galea elkarteak, bere jarduera horrelako testuinguruan gauzatzen dela jakinik, kezkatu agertu da, agintari publikoek ez dutelako behar adina laguntzen eurek antolatzen dituzten jarduerak behar bezala egin ahal izateko. Lankidetza aipatu ditugun kontuetatik haratago hedatzea eskatzen du elkarteak, esparru horretan herritarren borondatezko lankidetza sustatzen baitu, alegia, kirol jarduerak behar-beharrezkoak dituen ekitaldi horietan jende gehiagok lagundu dezan ordainetan ezertxo ere jaso gabe.

Informaziozko eskubidearen eremuan, pertsona bat beraren ustez ETBk albiste-gietan eskubide hori erabiltzen duen moduz kexatu zen. Hori zela eta, gure inguruko lege antolamenduek sarturiko kontrol mekanismoak kexan (552/2003) proposatutako planteamenduari eta ETBren jokabidearen kontrolerako antzeko planteamendu orokorreari erantzuna emateko nahiko ziren aztertu genuen.

## 3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Elebitasuna

⇒ *Deialdian ezarritako baldintza bat ez betetzeak beka proiektu baten defentsa mugatu du (1164/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona bat ikertzaileak prestatzeko beka-programa batean sartzeko aurkeztu zen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako deialdian. Epaimahaiaren aurrean bere proiektua defendatzera joan zenean –uztailaren 8an–, honako zailtasunak izan zituen: epaimahaiko kideek ez zekiten euskaraz eta beraren proiektua ez zegoen gaztelaniara itzulita.

- Azterketa

Euskararen ofizialtasunarekin bat etorririk, ikertzaileak prestatzeko beka-programetarako deialdiari buruzko 2003ko martxoaren 11ko Aginduaren bigarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoenez, hautagaiak beren proiektua gaztelaniaz aurkezten ez badute, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Zientzi Politikako Zuzendaritzak itzultzaile kualifikatuei hura itzultzeko eskatu ahal izango die eta itzulpena dagokien batzordeei emango zaie.

Arau hori oinarri hartuta, epaimahaiak proiektua itzuli gabe zegoela eta epaimahaiko kideek euskaraz ez zekitela jakinarazi zuela ikusirik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari informazioa eskatu genion. Izan ere, pertsona horri mugatu egin zitzaion berak aurkeztu zuen proiektua aldezteko ahalmena.

Hezkuntza Administrazioak erantzun zuenaren arabera, bai memoria bai espediente itzuli egin ziren eta epaimahaiko kideei ekainaren 25ean bidali zitzaizkien, eta, hortaz, bazuten itzulpena hautagaiak proiektua aldeztu behar zuen egunean.

Administrazio horrek erantzunean onartu egin zuen proiektua euskaraz aldezteko eskubidea, euskararen ofizialtasunarekin bat zetorrena, ukitua izan zela. Alabaina, proiektuaren azalpenari, beraren ustez, ez zitzaion baliorik gutxitu gaztelaniaz egitean, epaimahaiko kideek itzulpena bazutelako.

- Emaita

Azterketan aipatu dugun informazioa, bistan denez, kexa aurkeztu zuen pertsonak adierazitakoaren kontrakoa da: epaimahaiak proiektua itzuli gabe zegoela esan zion.

Beharbada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak uste izan zuen itzulpena ekainaren 25ean bidali zenez gero epaimahaiko kideek uztailaren 8an jada eskuetan izango zutela. Bazitekeen hala izatea, baina, kexa aurkeztu zuenak adierazitakoa ikusirik, inguruabar hori egiaztatu beharra zegoen.

Euskara erabiltzeko eskubideari dagokionez, Administrazioak eskubide hori ukitua izan zela onartu zuen, baina proiektua gaztelaniaz azaltzean beraren defentsari baliorik gutxitu ez zitzaioela uste zuen, epaimahaiko kideek itzulpena bazutelako. Bistan zen, aurreko lerrokadan esan bezala, azken interpretazio hori egiaztatu beharra zegoela, hau da, ez zela berdin proiektua aldezteko orduan epaimahaiak jada hura ezagutzea edo ez ezagutzea. Horixe jakinarazi genion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

⇒ *Koofizialtasuna enpresa pribatu batekiko harremanetan, harreman horiek administrazioari eskatu ahal zaizkion baldintza berberen pean egiten direnean (1464/2004)*

- Erreklamazioa

Inkesta egin behar zioten pertsona batek inkestataileari euskaraz egiteko eskatu zion. Inkestataileak euskaraz egin ahalko zutela baina galdera-sortak gaztelania hutsean zeudela azaldu zion. Emandako datuek erakusten dutenez, inkesta hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak enpresa pribatu bati adjudikaturiko azterlan baten barruan egiten ari zen.

- Azterketa

Beste eremu batzuetan bezala (esate baterako, ondare erantzukizunarena), euskararen erabilera normalizatzeko prozesuari buruzko arauak ere kontuan hartzen dute pertsonak nahi duten hizkuntza erabiltzeko eskubidea dutela enpresa pribatuekiko harremanetan, baldin eta enpresa pribatu horien posizioa beraien zerbitzuak kontratatu dituen administrazioaren posizioaren parekoa bada.

Horrelako kasua gerta daiteke azterlan bat egiteko administrazio kontratuaren adjudikazioa duen enpresa batek herritarrei inkestak egiten dizkienean. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, neurri batzuk aurreikusten ditu administrazio kontratua bete ahal izateko herritarrekin zuzeneko harremanak eduki behar diren kasuetarako, beti ere, harreman horietan Administrazioari eskatzen zaizkion baldintza berberak bete behar badira

Kontratazio prozeduran Administrazioak ez badu kontuan hartu hizkuntz eskubidea ukitzen duen inguruabar hori (esan genezake zeharkako inguruabarra dela kontratuaren xedearekiko), orduan ezin zaio erantzukizunik egotzi enpresa adjudikaziodunari. Hala ere, aurreikuspen falta horrek ez dio oinarririk kentzen bere hizkuntz aukera murriztuta ikusi duen pertsonaren aldarrikapenari.

- Emaizta

Kexa aurkeztu zuen pertsonak lehendik hasita zituen beste jarduera batzuen bitartez arazoa konpondu egin zen; hala ere, ukitutako administrazioari haren kexa bidali genion.

## B) **Kirola**

⇒ *Jarduera bat kirol modalitate bezala kalifikatzea, Kirolari buruzko Legearen ondorioetarako (469/2004)*

- Erreklamazioa

Hainbat pertsona eta erakunde Arartekoari zuzendu zitzaizkion beren kezka adierazteko: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak kirol federazioen erregimena arautzeko egindako proiektuak ekar zitzakeen ondorioez kezkatutako zeuden. Izan ere, proiektu horretan ez zegoen xake-jokoa kirol modalitate bezala onarturik.

Beren adierazpenetan azpimarratu zutenez, bai Nazioarteko Batzorde Olinpikoak bai Estatu askok eta beste autonomi erkidego batzuek irizpide ezberdina azaldu izan zuten, xake-jokoa kirol modalitate bezala onartzearen aldekoa. Xakean aritzeak dakarren ahalmen fisikoari buruzko ikerketa zientifikoak aipatu zituzten eta joko hori gure erkidegoan sakon errotuta dagoela adierazi zuten.

- Azterketa

Gai honi zegokionez, dekretu-proiektuak Euskal Herriko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 18. artikulua garatu zuen. Artikulu horren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio jarduera bat kirol modalitate bezala kalifikatzea ahalbidetzen duten irizpideak eta baldintzak adieraztea.

Horrela, testuan kalifikazio horri zegokion ezaugarri batzuk azaldu ziren: lehiakortasuna, arauen menpean aritzea, Autonomia Erkidegoko ezarpen maila, arauzko entrenamendua eta esfortzu fisikoa... Gainera, berariaz baztertu ziren estrategia-jokoetan edo esku edo buru hutsezko trebetasunean oinarrituriko jarduerak, eta bereziki eserita jokatzeko zirenak. Baldintza horiek xake-jokoa kiroltzat hartzea eragotziko zuten, bai eta haren kirol federazioa eratzea ere.

Erakunde honi dagokion legezketasunaren azterketaren ikuspuntutik, kontuan hartu behar da Kultura Sailak legezko agindua garatzeko balia dezakeen balorazio-tarte zabala, egokituz jotzen dituen irizpideak erabili ahal baititu. Kultura Sailak horretarako aukera du, baldin eta eratziki zaizkion eskumen eta xedeen mugean barruan jarduten badu eta arrazoi zentzuzkoak eta egokiak baditu.

Beste alde batetik, eztabaida ez zen erabaki irmoari buruzkoa, arau-proiektuari buruzkoa baizik. Eta proiektuaren azken testua aldatu egin zitekeen, tramitazioan egingako alegazioen eta oharren arabera.

Nolanahi ere, kexa aurkeztuta, jasotako idazki eta mezuetan herritarren interes berezia islatzen zela kontuan harturik, azterketan gehiago sakontzea beharrezkotzat jo genuen eta Eusko Jaurlaritzari arauaren oinarri eta etorkizuneko jarduerari buruzko informazio zabalago eskatu genion.

- Emaita

Kirol zuzendariak Administrazioaren eta erakunde interesatuen ordezkariak elkarrekin hainbatetan bildu zirela jakinarazi zigun, eta alegazio asko aurkeztu zirela.

Horren guztiaren ondorioz, proiektuaren aldaketa esanguratsuak adostu eta erabaki ziren, Kirolaren Euskal Kontseiluak geroago berretsiko zituenak. Hona hemen haietariko bat: xake-jokoa kirol modalitate eta diziplinen katalogoan sartzea. Katalogo hori behin betiko testuari erantsita dago.

### C) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Informaziorako eskubidea komunikabide publikoetan (552/2003)*

- Erreklamazioa

Kexa hau aurkeztu zuenak ETB Euskal Telebista Publikoak informaziorako eskubidea erabiltzen zuen moduarekin ados ez zegoela azaldu zuen. Zehazki, uste zuen

albistegietan, bereziki, euskal abertzaletasunik ezari eta pentsaera horrekin loturiko pertsonen egoerari eta beharrezanean buruzko aurreiritziak zabaltzen zituela hark.

Bere planteamendua egiaztatzeko, ETBko albistegiei eta programei buruzko xehetasun-azterketa egitea proposatu zuen, haien edukia egiaztatu eta berau ikusita jardun ahal izateko, Euskal Herriko aniztasun politikoaren tratamendu egokia bermatze aldera.

- Azterketa

Hala ere, erakunde publiko horretako Administrazio Kontseiluak, gure informazio eskaerari erantzunez, kexa honek oinarririk ez zuela adierazi zuen. Bidalitako txostenak hauxe dio: EITBk bere sorrerako legean ezarritako legezko manu guztiak betetzen ditu eta baditu kontrol nahikoak kexa hau eragin zuena bezalako egoerak eragozteko; izan ere, alderdi politiko guztiak behar adinako jarraipen eta kontrol mekanismoak erabiltzen dituzte Administrazio Kontseiluan eta Eusko Legebiltzarrean.

Egia da gure inguruko lege antolamenduek sartutako kontrol mekanismo horiek esku hartzen dutela. Alabaina, gerta daiteke mekanismo horiek nahikoa ez izatea euskal erakunde publiko horren jokabidea kontrolatzeko planteamendu orokorreari eta, hortaz, pertsona honek bere kexan proposatutakoari erantzuna emateko.

Hizpide dugun gaia –bai ikuspuntu kualitatibotik bai kuantitatibotik– oso eztabaidatua da egun. Izan ere, aukera dago komunikabideak norabide jakin batean erabiltzeko edo, beste era batera esanda, mass media publikoek egungo gizarteko aniztasuna ez errespetatzeko. Horregatik, botere publikoek gogoeta egin beharko lukete komunikabide publikoek ematen duten informazioaren edukiaren kontrolaz.

- Eraitza

Goian azaldutako testuinguruan arazoa aztertutik, Arartekoaren erakundeak iradoki zuen erakunde eskudunek azter zezatela gaia (adibidez, EITBko Administrazio Kontseiluak), edo Legebiltzarreko batzorde egokiaren esku jar zedila, kontrolerako.

## 4. HEZKUNTZA

### 4.1. SARRERA

2004. urte honetan guztira hezkuntzaren arloko 89 kexa jaso ditugu, arloetan banatutako kexa guztietatik % 7,96.

Kexok ukituriko administrazioak honakook izan dira:

– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	70
– UPV/EHU .....	11
– Tokiko administrazioa .....	10

Beren edukiaren edo, beste era batera esanda, hezkuntza azpiarlo ezberdinen arabera, jasotako kexak honako gai hauekin loturik egon dira:

– Eskubideak eta betebeharrak .....	50
– Unibertsitate irakaskuntza .....	11
– Ikastetxeak .....	7
– Haur hezkuntza .....	7
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	4
– Irakaskuntza artistikoa .....	3
– Beste alor batzuk .....	2
– Batxilergoa .....	1
– Pertsona helduen hezkuntza .....	1
– Lanbide heziketa .....	1
– Administrazioaren kontratazio, ondare eta erantzukizunari buruzko araubidea .....	1
– Titulu akademikoak .....	1

2004an Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XIX. Jardunaldiak izan dira. Jardunaldion barruan egindako tailerretako bat zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako zerbitzuei eskaini zaie. Baterako lan horren ondorioz zenbait ondorio onetsi ziren, nahi izanez gero txosten honen I. kapituluan xehetasun handiagoz kontsultatu ahal direnak.

Mota honetako jardunaldiek beti informazio-trukea ekartzen dute. Berorren bitartez egiaztatu dugunez, uneotan haurrentzako horrelako zerbitzuen EAEko eskaintza beste autonomia erkidego batzuetakoa baino hobea da. Hala ere, gero eta hobea izan behar duela kontuan hartu behar dugu. Haurrentzako zerbitzuok etenik gabe hobetzeko lanean aurrera egin behar dugu. Esan behar dugu zerbitzuok, lanbidea eta familiako bizitza uztartzea ahalbidetzeaz gain, adin hauetako haurren nortasuna osorik gara dadin bermatzea izan behar dutela helburu.

Illo horretatik, 2004an zati batean aldatu da haurrentzako eskolei buruz onetsitako arautegia (*azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua, 0-3 urteko haurrentzako Haur Eskolentzako gutxieneko beharkizunak ezarri eta 2002-2003 eta 2003-2004 ikasurteetan Euskal Autonomia Erkidegoko hiru urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolak arautu dituen Dekretuko artikulua batzuk indarrean utzi dituena*). Hala ere,

tamalez ez da oraindik eskola horien maparik egin, oraintsu onetsi den azken arauketa horrek indarrean berariaz mantentzen dituen plangintza-irizpideen betetze edo egokitze maila baloratzeko modukorik.

Iaz gure kezka agertu genuen, halaber, haur eskola horiekin erabiltzen ari ziren finantzaketa irizpideak zirela eta. Azken hilabeteetan gero eta gehiagotan salatu dituzte ikastetxe publikoen eta pribatuen artean dauden ezberdintasunak, familiek ordaindu behar dituzten kuotei dagozkienak. Hori dela eta, Hezkuntza Administrazioak berak berriz zuzendu behar izan du titulartasun pribatuko ikastetxeentzako laguntzen sistema, eta familiek benetan ordaindutako kostua abiapuntu hartuta laguntzak berriro zenbatetsi behar izan ditu. Baina titulartasun publikoko eskolek ere kostu ezberdintasunok agertu dituzte. Hori kontuan hartuta, arazoari buruzko gomendio orokorra azaltzea erabaki dugu, txosten honen VI. kapituluan sartuta dagoena.

Haur eskola publikoen artean dauden aldean zioa haien titulartasun ezberdina da. Beharbada bidegabeta izango da azken batean bilatu ez diren eta nahi izan ez diren akatsez hitz egitea. Baina, jakina, ohartarazi nahi dugu haur eskolen zerbitzuok eskaintzen dituzten administrazioen arteko beharrezko koordinazioa, behintzat, falta izatea oso era berezian nabaritu dela 2004an, Gasteizko udal eskolekin bizi izandako gatazkan eta beste antzeko gatazka batzuetan. Izan ere, Gasteizko biztanleek Udalarenak bakarrik diren eskolak eta Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak partekaturiko Haurreskolak izeneko partzuergoaren menpeko ikastegiak dituzte.

Horregatik guztiagatik, herriaren defendatzaile guztiek egindako deialdiarekin bat eginik, hona ekarri nahi dugu bizi dugun funtsezko uneaz Koordinaziorako Jardunaldietan esandakoa, gure adingabekoentzako benetako aukera sustatzen duten haurrentzako zerbitzuak berriro zehazteko.

Aurrean adierazi dugu ez dagoela hiru urte bitarteko lehenengo tarte honetan eskaintzen diren eskola-zerbitzuen plangintzarik. Horri buruz azaldu zaizkigun gorabeheren adibide gisa, kexen laburpen modura honako hau sartzea egokietsi dugu: Bizkaiko alde batzuetan bi urtekoentzako A ereduko gelak kentzeari buruz jasotako salaketetarikoa bat. Hezkuntza Administrazioak haur eskolen arauketa aztertzerakoan behin eta berriro hartutako konpromisoetariko bat aurretik dagoen eskaintza sendotzekoa izan da. Gure iritziz, aintzat hartu behar da salatutakoa bezalako kasuetan konpromiso hori ez betetzea ez dela axolarik gabeko kontua. Izan ere, arriskutan jarri ahal du hizkuntz ereduaren hautaketa askea.

Era berean, erakunde honek D ereduan bi urtekoentzako gelen hezkuntza- eskaintzaren falta salatu duten kexak jaso ditu, baita Bizkaiko Lurraldetik ere. Kexa horien errealitatea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Legebiltzarrean 2004ko azaroaren 23an adierazirikoaren kontrakoa da. Izan ere, hark bertan adierazitakoaren arabera, bi urteko haurrentzako eskola zerbitzuen eskaintza familien eskaria baino are handiagoa zen.

Nolanahi ere den, plangintzako gorabeherari buruzko kexak ez dira hiru urteko lehenengo tarte honetara mugatu. Beste hezkuntza maila batzuk ere ukitu dituzte, Mungiako BHIIn A eredia kentzearen inguruan jarri den kexaren laburpenak erakusten duen moduan (ikus 239/2004 zenbakiko kexaren laburpena).

2004an berriro jaso ditugu eskola garraioko zerbitzu osagarriari buruzko kexa asko. Egin-eginean, aipatu berri dugun kexa hori (239/2004), Mungiako udalerrian A eredia kentzea saihestezintzat jo ondoren, berriz bideratu zen eta garraio eskari bezala



tramitatu zen. Izan ere, hura hezkuntza eredu horren eskaintza aurreikusita zegoen hurbileko udalerrira aldatu beharra zegoen.

Beste alde batetik, Gasteizko familia askok erantzun egin dute Hezkuntza Administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiak transferitutako ikastoletan dabilzan ikasleei garraio arloan emandako tratamendu berezia gainditzen saiatzeko hartutako erabakiaren aurrean. Erakunde honek horri buruz beti izan dituen zalantzak direla eta, familia horiek aldarrikatzen duten moduan berdintasun printzipioa urratu denik ez dugu onartu nahi izan. Izan ere, erakunde honen iritziz, ez dago haur hezkuntzako (2. zikloa) lehen mailako eta DBHko (1. zikloa) gainerako ikastetxeetan erabiltzen diren irizpide orokorra beste konparaziorik ezartzerik.

Aurreko urteetan bezala, laguntzaile faltari buruzko kezak jarri dira; gainera, eskola garraioa egiten den segurtasun baldintzei buruz aurkezturiko kexa kontuan hartu behar dugu (ikus 701/2004 zenbakiko kexaren laburpena).

Beste alde batetik, berria izan da eskola garraioko kontu bat zela-eta bisiten araubidea ukitutzat jotzen zuen aita bananduak aurkezturiko kexa (ikus 101/2004 zenbakiko kexaren laburpena).

Aurrekoaren ildotik, gurasoen ahalgoa izan eta beren seme-alabak zaintzen dituzten arren beren seme-alaben hezkuntzari buruzko erabakietan parte hartzen uzten ez dietela adierazi duten aita bananduen kezak tramitatzen ari garela esan behar da. Gure iritziz, horrelako kasuak oso korapilatsuak direnez gero, Hezkuntza Administrazioak jarduera protokoloa ezarri behar du, horrelako arazoak kudeatzeko erantzukizuna ikastetxeen zuzendaritzen esku utzi beharrean –egiten duela adierazi diguten bezala–. Jarduera protokolo horren bitartez, adingabeen onerako izanez gero, bideratu behar dira, era berean, gurasoen beren seme-alaben hezkuntzari buruz egokitu ahal zaizkien lege-bidezko nahiak eta erabakiak.

Hezkuntza-behar bereziei buruzko atalean laburpen modura kexa bat sartzea erabaki dugu, elikadura alergiaren kasu larri bat zela eta gurasoek eskatuta tramitaturikoa (1184/2004). Aitortu behar dugu Hezkuntza Administrazioak ahaleginak egiten dituela eskola inguruneko osasun-beharrei behar adinako arreta emateko.

Gutziz positiboa izan da berariazko lanbide heziketako ikasketak egin nahi zituzten hiru gaztek eskolatzeko izandako arazoan zioz ofizios garatutako jarduera bateko esperientzia ere. Gure esku-hartzearen bitartez, azkenean egiaztatu ahal izan zen gazte horien arazoei konponbidea eman zitzaiela. Aldi berean, Sailaren asmoaren berri jakin genuen: ikastetxetik kanpoko lan zentro batean, heziketa fasean, ezgaiturik zeuden gazteei arreta egokia nola eman aztertzeke asmoa zuen.

Hala ere, ezgaitasuna duten ikasleak ahalik eta modu normalizatuenean gizarteratzen ahalegintzeko gertutasun txikiagoa ikusi dugu. Horrelako kasua izan da garun-paralisiak jotako gazte batena. Gazte horrek lorezaintzako heziketa zikloa Mendikoi sozietate publikoko ikastegi batean egin nahi du.

Hezkuntza-behar berezien atal honi dagokionez, nabarmentzekoa da beka eman ala ez ematea ebazterakoan bere ikusmen-urritasuna kontuan har zedin eskatu zuen unibertsitateko ikasle baten kexa ere (ikus 595/2004 zenbakiko kexaren laburpena).

Unibertsitateko irakaskuntzaren eremu edo atalari dagokionez, 2004an kezak jaso ditugu, ikasketa jakin batzuk akademikoki neurri handiagoan aintzatetsi eta homologatu daitezkeen lortzea helburu izan dutenak. Zehazki, kexa horiek Elgoibarko *Gestio-Eskolan* emandako enpresa txiki eta ertainen zuzendaritzako ikasketei eta Laudioko lanbide

heziketako udal zentroak ematen dituen *Conservatoire national des arts et métiers*-eko ikasketei loturik egon dira.

Jaso dugu kexa berezi-berezia ere, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko sail batek aplikaturiko ebaluazio sistemari buruzkoa.

Hezkuntza arloaren sarrerako atal hau bukatzeko, bi gai bereziki aipatu nahi ditugu, erakunde honentzat kezka larrien iturri baitira.

Horrela, tratu txarren eta arreta egokiaren faltaren salaketa aipatu behar dugu, Gasteizko haurtzaindegi bateko zerbitzuak beren seme-alabentzat erabiltzen zituzten zenbait pertsonak egina. Salaketa jaso ostean egindako kudeaketen eraginez, Probintzi Entzutegiko Fiskaltzari galdetuta egiaztatu genuen aurretik eginbideak egin zirela. Hori zela eta, auzitegietan etorkizunean ebatziko zena kontuan hartu behar izan genuen eta ez genuen eskurik hartu. Hala ere, Hezkuntza Ikuskatzailtzako arduradunei lankidetzak eskatu genien eta haurrentzako zentro hauetako hezkuntza-jardueraren jarraipen eta kontrol lanari ekiteko adorea eman genien, behar-beharrezkoa da eta.

2004an, baina, guztiok hunkitu gaituen gertaera baten lekuko izan gara. Jokin C.ren heriotzaz ari gara, bigarren hezkuntzako ikastetxe batean zebilen gaztearen heriotzaz.

Gertaera horren eraginez, erakunde honek orain arte erdi ezkutaturik egon den eskola-errealitate kezkarri horri buruzko eztabaida lasaia egitea asmo duten beste ekimen askorekin bat egin nahi izan du. Horregatik, Arartekoak herritarren partaidetzarako II. Foroa gai horri buruzkoa izatea erabaki du, bi helburu lortzeko asmoz:

- Arazoaren errealitatea ezkututzen laguntzen duten mitoei eta arazoaren kontra borrokatzeko erarik eraginkorrenei buruzko hausnarketa eragitea, ikerketan oinarritua.
- Parte-hartzaileen ekarpenak jasotzea, nola jardun behar dugun argituko digutenak.

Halaber, eskolako indarkeriaren errealitate honi buruzko aparteko txostena egitea erabaki dugu. Sindic de Greuges Kataluniako gure homologoarekin batera egingo dugu.

## 4.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Batxilergoa

⇒ *Hiru hizkuntzako batxilergoa. Unibertsitatera sartzeko probak (106/2004)*

#### • Erreklamazioa

Ikastetxe bateko zenbait ordezkarik kexa aurkeztu zuten. Bertan zalantzan jarri zuten batxilergoko ikasketak hiru hizkuntzako batxilergoaren modalitatean egiten zituzten ikasleek jasotako tratamendua. Izan ere, unibertsitatera sartzeko egungo hautaprobari aurre egin behar diote, hots, selektibitateari.

- Azterketa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrean gure esku-hartzea hasi ondoren, Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariak EAEko ikastetxeen errealitate berriari ohartarazi gintuen. Izan ere, gero eta ikastetxe gehiagok beren curriculumeko gai batzuk ingelesez ematen dituzte, eta tratamendu hori hurrengo ikasturteetan zabaldu nahi da beste hizkuntza batzuetara ere, hala nola, frantsesera, alemanera eta abarretara.

Errealitate berri hori kontuan hartuta, haren ustez, Hezkuntza Administrazioak horrek unibertsitate sartzeko probak baloratzeaz arduratzen diren epaimahaien osaketan izan dezakeen eragina aztertu behar du. Izan ere, proba horiek homologatuak direnez, epaimahaiak ikasleek aukeratutako atzerriko hizkuntzan egindako probak zuzentzeko gai diren irakasleak osatuta egon behar dute.

Hala ere, kezagileen asmo zehatzari (azterketa-proposamenak ingelesez egiteko eskaerari) zegokionez, Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariak honakoa bakarrik adierazi zuen modu formalean: *“ezin zirela azterketa-proposamenak ingelesez egin, urriaren 22ko 1640/1999 Errege Dekretuko 6.3 artikuluan debekatuta baitago hori egitea”*. Horri buruz ez zuen beste baloraziorik egin.

Erakunde honen iritzitan, baina, errege dekretu horretan egindako arauketa ez da horren kategorikoa. Egian esan, 6.3 artikuluan adierazitakoa honakoa da: *“ikasleek ariketak egiteko aukeratu eta erabili ahalko dute, azterketa egiten duten ikastetxea zein autonomia erkidegotan dagoen, erkidego hartako hizkuntza ofizialetariko edozein. Alabaina, gaztelaniari, autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialkideari berari eta atzerriko hizkuntzari buruzko ariketak dagozkien hizkuntzetan egin beharko dira”*.

Horrela, gure aburuz, azterketa-proposamenak beste hizkuntza batzuetan egin ahal dira, atzerriko hizkuntzako derrigorrezko proposamenarekin ere gertatzen den bezala, baldin eta EAEko hizkuntza ofizialei buruzko gutxieneko beharkizunak behar bezala betetzea bermatzen bada.

Horregatik, erakunde honek Hezkuntza Administrazioari hala nahi duten ikasleei probak curriculumaren zati bat ematen den atzerriko hizkuntzan egiten utzi dien moduan honako aukera hau emateko eskatu dio: Batzordeak onetsitako azterketa-proposamenak kasu kasuko atzerriko hizkuntzara itzultzekoa.

- Eraitza

Proposamen horri erantzuna eman zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak:

*“...zure proposamenari erantzuna emanaz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren eta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren arteko akordioa dagoela jakinarazten dizut, ikastetxe batzuetan Batxilergoko 2.ean ingelesez ematen diren irakasgaie-tako proben ereduak hizkuntza horretan, legezkoak diren gaztelaniaz eta euskaraz gain, aurkez daitezzen 2004/2005 ikasturteko unibertsitateerako sarbide-probetan.”*

## B) Ikastetxeak

⇒ *Irakasleen klaustroaren egonkortasun falta (1171/2003)*

- Erreklamazioa

Landa-aldean eta hirigune handietatik urrun dagoen ikastetxe publiko bateko hezkuntza erkidegoak Arartekoari irakasle askoren egonkortasun faltaren aurrean esku hartzeko eskatu zion. Izan ere, ikastetxean ez dute urtebete baino gehiago irauten. Horrek eskola jarduera normaltasunez garatzeko zailtasun handia ekartzen du eta oso eragin txarrekoa da kalitatezko irakaskuntza lortzeari begira.

- Azterketa

Kexa jaso ostean, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lankidetzara eskatu zuen. Sailak berretsi egin zuen kexan azaldutako egoeraren errealitatea. Hala ere, berak adierazitakoaren arabera, oso zaila zen egoera langileen funtsezko eskubideak urratu gabe bideratzea. Egonkortasuna hobetzeko neurri batzuk aipatu zituen, hala nola, lekuz aldatzeko lehiaketetan plaza hutsak sartzeari eta ikasturte hasierako adjudikazio-prozesuetan langile egonkorrek derrigorrez finkatzeari.

Hezkuntza Administrazioaren gertutasuna ontzat hartu arren, kontuan hartu behar da, egiaztatutakoaren arabera, neurri horiek ez zutela lortu espero zen emaitza: horrela, alde batetik, ez zen ebazte fasean zegoen lekualdaketa lehiaketan eskainitako plazarik adjudikatu; eta, beste alde batetik, langileria egonkorra derrigorrez finkatzeko faseari dagokionez, horrek ikastetxe horretan nolako eragina izango duen jakin gabe, egia da figura hori orokorra dela, ikastetxe guztiei aplikatu ahal zaiena, eta horren eragina murrizta izango dela, hartzaileek borondatezko lekualdaketa eskatzeko aukera izango dutelako.

- Emaidza

Langileriaren arloaren mugak eta izaera eta Hezkuntza Administrazioak baliabideak antolatzeko dituen ahalgoak zein diren jakinda, azpimarratu behar dugu hark ikastetxe honetako irakasle plantillaren egonkortasunik gabeko egoera kezagarria arintzen lagundu ahal duten ekimen guztiak aztertu behar dituela.

Ildo horretatik, lanpostuak betetzea sustatzen duten pizgarriak aztertzea eta kontuan hartzea iradoki nahi dugu. Gure ustez, sail horrek, arazoari konponbideak bilatzeko gogo bere txostenetan azaldu baitu, zehaztu behar ditu haien bidezotasuna eta beroriek ezartzeak ekarri ahal dituen ondoreak.

Horrela, besteak beste, honako neurriok aipatu nahi ditugu: ikastetxe honetako plazak zeregin zailak dituzten lanpostutzat hartzea, langile guztiek parte hartu ahalko duten eta plazak gutxieneko denborarako betetzea ahalbidetuko duen prozesu baterako deialdia egitea, finkatzeko fasea egonkor ez diren bitarteko langileengana zabaltzea, ikastetxe honi berariaz laguntzeko zerbitzuen dedikazioa eta jarduera indartzea, plangintza-ratioak hobetzea, irizpideak eta datuak etengabe aztertzea, eta ikastetxe honetako langileei bertan beren funtzioa betetzea eragozten dieten egoeren jarraipena eta benetako kontrola egitea.

Nolanahi ere den, funtsezkotzat jotzen dugu ikastetxeko sektoreen ordezkariekin, sindikatuekin eta eskualdean ahalmena duten beste administrazio edo erakunde

batzuekin harremanetan etengabe egoteko bideak sortu eta mantentzea, zertarako-eta gaia elkarrekin aztertzeko eta baterako jarduerak antolatzeko. Bide horiek irakaskuntza hutsa baino zabalagoa den eremua hartu behar dute barnean.

### C) Eskubideak eta betebeharrak

⇒ *Eskola garraioari buruzko eskabideak ebazterakoan inguruabarren askotarikotasuna kontuan hartzea (101/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen, ikastetxe publiko bateko ikasleak ziren bi alaba adingabekoren aita zen aldetik. Berak ez zuen zaintza-ahalmenik bi ikasle horien gainean. Alabei Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez zien onartu eskola garraioko zerbitzuaren erabiltzaileak izateko eskaera, eta berak azaldu zuen ez zegoela ados erabaki horrekin.

- Azterketa

Egindako eskabidearen kopia ekarri zuen, eta lurralde zerbitzuengandik jasotako erantzuna ere bai: ezezkoa, inolako azalpenik gabe.

Eskabidea zergatik aurkeztu zuen azaldu zuen; ildo horretatik esan zuenez, alde horretako garraio publikoko baldintzek eragin txarra zuten, senar-emazteak banantzeari buruz epaileak emandako ebazpenaren arabera berak alabekin egoteko zuen denboran. Arazo hori neurri batean arinduko zen ikastetxearen garraioa erabiliz gero, aurreko ikasturteetan egin zuten bezala.

Aurrekarien laburpen hori ikusita, kexa tramitatzea erabaki genuen eta espedientearen berehalak hasi. Orduan, zegokion Sailari horri buruzko informazioa eskatu genion.

Guk adierazi genuenez, eskabideari ezetza ematean administrazioaren erantzuna honakoa izan zen soilik: "...Ordezkaritza honek ezin du zure eskaera onartu". Administrazioak ez zuen ezintasun horren zioa azaldu, nahiz eta ukituak abiapuntuko datu hauek adierazi: aurreko urteetan eskola garraioko zerbitzua erabili izana eta plazen aldetik eragozpenik ez izatea.

Aurreko alderdi horiei loturik, kontuan hartu genuen esku artean genuena bezalako kasuak euren berezitasunen arabera aztertu behar zirela. Horrela, ikuspegi formalaz gainera (adingabeak zaintzeko ardura eman zaion ezkontidearen etxetik garraiorako eskubidea izatea edo ez izatea), alderdi materialak ere (bisitei eta komunikazioari buruzko araubide jakin bat dagokion beste ezkontidearen helbidea) kontuan hartzea beharrezkoa izan daiteke, horrela bidezko ebazpena emateko.

Hezkuntza Administrazioak, gure lankidetzaren eskaerari erantzunez, txostena bidali zuen. Haren edukia ikusita, labur azalduz, hauxe ondoriozta zitekeen: Saila ez zela egongo interesatuaren asmoen kontra behin betiko, eta hurrengo ikasturteetan zenbait irizpide sartuko zirela, guk adierazirik ildotik eskola garraioko zerbitzua erabiltzea erabakitzeko irizpideak, hain zuzen ere.

- Emaizta

Azaldutakoa oinarri hartuta, auzian esku hartzeari utzi genion.

⇒ *A ereduaren hezkuntza-eskaintza ezabatzea eta eskola garraioaren beharra (239/2004)*

- Erreklamazioa

Bermeon bizi den familia batek esku hartzeko eskatu zigun, Mungiako BHIIn A ereduko hezkuntza-eskaintza kendu zelako.

- Azterketa

Horrelako kexetan ohi bezala, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari txostena egiteko eskatu zion, honakoa zehazteko: zergatik ezabatu zuen Hezkuntza Administrazioak A ereduaren hezkuntza-eskaintza Mungiako BHIItik, eta zer egiteko asmoa zuen inguru horretan A ereduaz azal zitekeen hezkuntza-eskariari erantzun egokia emateko.

Hona hemen zer esan zuen Hezkuntza Sailak bere lehenengo erantzunean, Hezkuntza Administrazioak planifikatzeko duen ahalmena bermatzen duten eta horri estaldura ematen dioten arauen berri zehatza eman ostean:

*“Mungiako BHIIn, ikasleen eskaria, DBHIIn eta A ereduan ikasteko, ez da eredu horretako talde bat mantentzeko adinakoa.*

*Inguru horretan A ereduko hezkuntzaren balizko eskariari jaramon egiteko aurreikuspenak direla eta, hauxe esan behar da:*

*A ereduan eskolatzeko eskariari buruzko egungo datuak ikusi eta ikaslerik gehienak B eta D ereduetan arian-arian sartzen ari direla kontuan hartuta, ez dago epe laburrean eredu horretako plazarik eskaintzeko asmorik.*

*Hala ere, eskaria nahikoa bada Administrazioak ezarritako gutxieneko ratioa duten taldeak mantendu ahal izateko, eta iraunkortasunaren aurreikuspena behar bezala egiaztatzen bada, berriro eskaini ahalgo dira A ereduak adieraziriko herrietan”.*

Horrela, ez zuen familia horrek aurkezturiko alegazio nagusiari buruzko iritziz arrazoiarik eman. Alegazio nagusi horren arabera, distantzia handiegia dago familiaren Bermeoko egoitzaren eta A ereduaren hezkuntza-eskaintza duen hurbileneko ikastetxearen artean. Horixe da, hain zuzen ere, familiari interesatzen zaion ikastetxea.

Erakunde honek aintzat hartzen du Hezkuntza Administrazioak badituela plangintzarako ahalmenak, irakaskuntza bai euskaraz bai gaztelaniaz jasotzeko ikasleek duten eskubidearen erabilera bermatze aldera. Hain zuzen ere eskubide hori bermatu nahi duela adierazten du berak. Izan ere, hizkuntz ereduetan taldeak egin edo irauteko, guraso edo tutore kopuru nahikoak eskatu edo onartu behar du, etapa eta maila bakoitzarentzat ezarritako ratioen arabera talde bat osatu ahal izan dadin nahikoa den kopuruak alegia.

Ildo horretatik, gure iritziz, kalitateko irakaskuntza bermatzeko konpromisoak, hain zuzen ere, batzuetan, zenbait ikasle bizi diren herrian ez, beste udalerrri batean

eskolatu beharra ekar dezake, eskola jantokiko eta garraioko zerbitzu osagarrien presazio erantsiekin.

Dena den, kontuan hartu behar da norbera bizi den udalerrian ez, beste batean eskolatu beharra dagoenean ere marjina batzuk bete behar direla, proposatutako plangintzaren oinarria baieztatu eta onartzeko modukoak, hala nola, eskola garraioari eta adingabeen garraioari buruzko arautegian (apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretua) ezarririkoak. Arautegi horrek ohartarazi duenez, ibilbideak eta ordutegiak modu egokian antolatu behar dira, adingabeak ibilgailuan ematen duten gehieneko denbora, ohiko egoeretan, norabide bakoitzeko ordubetetik gorakoa ez izateko moduan. Halaber, dekretu horretan ezarririkoaren arabera, gehieneko iraupen horretara salbuespen gisa eta behar bezala justifikatutako kasuetan bakarrik iritsiko da.

Bestela, justifikazio hori izan ezean (proposatutako plangintzaren arbitrariotasun arrasto guztiak ezabatuko bailituzke), Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeko 5.e) artikuluan onartuta dagoen hezkuntza ereduaren hautaketarako aukera ukatuko litzateke, azken batean. Horregatik guztiagatik, bigarren aldiz esku hartu genuen ildo beretik.

Bigarren eskaera horri erantzuteko, Ikastetxeen zuzendariak familia horren kasua salbuespenezkoa zela nabarmendu zuen. Horrela, ikasleak Leioako BHIIn eskolatuko zirela eta bidean egingo zuten denbora, baldintza normaletan, ordubetetik gorakoa izango ez zela adierazi ostean, era berean onartu zuen familia horren egoitzaren berezitasunak komunikazioak eta garraioa zailtzen zituela, zalantzarik gabe.

Gauzak horrela, azken errealitate hori kontuan harturik, erakunde honek egoki iritzi zion kexa honen tramitazioa familia horren eskola garraioko beharrezanez begira zuzendu eta berriro bideratzeari. Gainera, bagenekien kexaren eragilea Hezkuntza Administrazioarekin harremanetan jarria zela bere seme-alaben kasuan eskola garraioko zerbitzua taxi bidez egin zedin eskatzeko.

- Emaidza

Azkenik, Hezkuntza Sailburuaren Kabineteko zuzendariak erakunde honi berretsi zion taxi bidezko eskola garraioko zerbitzua onartuta zegoela. Hori zela eta, gure jarduerari bukaera eman genion, kexaren gaia gaindituztat jo genuelako.

⇒ *Bekak eta laguntzak lortu nahi dituzten ikasleen inguruabar pertsonalak (595/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen, Euskal Herriko unibertsitateko ikasle zen aldetik, beka ukatzearekin ados ez zegoelako.

- Azterketa

Pertsona horrek beka orokorra lortu nahi zuen eta, 2003ko ekainaren 25eko Aginduaren (uztailaren 10eko EHAA) arabera jarraituriko prozeduran parte hartu ostean, bere eskabidea ezetsita ikusi zuen.

Beka ukatzeko arrazoiak honakoak izan ziren: ez zegoen eskatutako gutxieneko irakasgai edo kreditu kopuruan matrikulaturik eta ez zuen gutxieneko puntuazio

akademikoa lortu. Pertsona hori ez zegoen zio horiekin ados, beraren inguruabar pertsonalak behar bezala kontuan hartu ez zirela uste baitzuen. Hori zela eta, gora jotzeko errekurtsua jartzea erabaki zuen.

Ez zituen zalantzan jarri Hezkuntza Administrazioaren erantzunen oinarri juridikoak, eta prozesua arautzen zuen aginduari lotzen zitzaizkiola onartu zuen. Alabaina, beraren ustez, arauketa hori ez zen, nonbait, nahikoa berarena bezalako kasuak kontuan hartzerakoan.

Horri buruz alegatu zuenez, eskabidea beraren interesen kontra ebatzi izanaren arrazoa bere ikusmen-urritasunaren maila zen. Izan ere, minusbaliotasun horren ondorioz, konbentzionalak ez ziren metodoen bitartez ikasi beharko zuen, hau da, beraren ezgaitasuna zen laguntzaren hartzaile izateko bete behar zituen beharkizunak bete ezinaren zergatikoa.

Kexa tramitatzeko onartu eta espedientea hasi genuen. Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarengana jo genuen, berau administrazio arduraduna den aldetik.

Lankidetzeta eskatu genuen, zertarako-eta gure funtzioak behar bezala betetzeko iritzi elementu gehiago izateko. Eskaeran, errekurtsogilearen alegazioen berri emateaz gain, kasu zehatzari buruzko hainbat iritzi eman genituen.

Azvimarratu genuenez, jatorri ezberdinetako egoerak irizpide zehatzen arabera kontuan hartu behar ziren. Beste era batera esanda, kasu honetan aurkezturikoa bezalako arazoak beka eskabideari oniriztea bidezko zen ala ez ebazterakoan behar bezala aztertu ahal izatea zen helburua.

Sailak eskaerari kasu egin zion eta txosten bidez erantzun zigun interesatuari ebazpena jakinarazi zitzaioela, eta ebazpenean baietsi egin zela jarritako errekurtsua.

Hori oinarri hartuta, ulertu genuen, azkenean, kexan azaldutako arazoa ukituaren interesekin bat etorriarik konpondu zela. Izan ere, haren aldeko ebazpena eman zen.

- Emaizta

Azalduriko guztiaren arabera, kasu honetan esku hartzeari uztea bidezkotzat jo genuen.

⇒ *Eskola garraioa. Segurtasun baldintzak (701/2004)*

- Erreklamazioa

Lehen Hezkuntzako ikastetxe bateko Segurtasun eta Higiene Batzordeak eta Eskola Kontseiluak eskola garraioa egiten den segurtasun baldintzei buruzko kexa bidali zuten. Zehazki, Haur Hezkuntzako neskato batek izandako istripua aipatu zuten. Izan ere, autobusaren balaztadaren ondorioz, ikasle hori bere eserlekutik atera eta hainbat lesio jasan zituen. Horrelako ezbeharrak saihesteko proposatu zutenaren arabera, segurtasun uhalak instalatu behar ziren eta derrigorrez erabili behar zituzten zerbitzu hori erabiltzen zuten ikasleek.

- Azterketa

Instituzio honen ustez ere, eskola garraioa ahalik eta baldintza onenetan eta arrisku txikienarekin egin behar da. Horrela, Eusko Legebiltzarrarentzako 2003ko Txostenean



nabarmendu zen, halaber, laguntzailearen figurari loturiko kexa bat. Gure iritziz, figura hori garraiatzen diren ikasleen segurtasunerako funtsezko elementua da.

Alabaina, kexan ageri den nahiaren barneko planteamendua ulerturik ere, azterketak aplikatu ahal den arautegia izan behar du abiapuntu.

Ildo horretatik, eskolako eta adingabeen garraioko segurtasun baldintzei buruzko apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuak ezarrikoaren arabera, segurtasun uhalak eserleku batzuetan bakarrik instalatu behar dira. Bestalde, bost eta hamaika urte bitarteko haurrek uhala erabiltzeko baldintza jakin batzuk bete behar dira.

Gainera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari informazioa eskatu genion. Berak erantzun zigunez, ez dago talde garraioetan adingabeen segurtasunerako sistemarik homologatu. Hori dela eta, ezin da kexan eskatutakoa bezalako eskaerarik gauzatu zerbitzua kontratatzeko prozesuetan.

- Emaizta

Hezkuntza Administrazioak nabarmendu duenez, arau nahikorik ez den arren, gai hau hartu duen interes berezia kontuan harturik, garraioaren segurtasuna hobetzen ahalegindu da. Horretarako neurriak hartu ditu, hala nola, autobus berean doazen adingabekoen kopurua murrizteko jarraibideak ematea.

Nolanahi ere den, irregulartasunik zehaztu ez den arren, berriz esan nahi dugu gaiaren jarraipen berezia egin behar dela, indarrean dagoen arautegiak zehazturiko markoaren barruan, eskola garraio hobe eta seguruagoa lortzeko beharrezkoak diren neurri guztiak ezar daitezten.

⇒ *Hezkuntzako beharizan bereziak. Hezkuntza-ereduz aldatzeko eskabidea (807/2004)*

- Erreklamazioa

Erakunde honengana etorri ziren entzumen-urritasuna zela eta hezkuntza berezia behar zuten bi neskatoren gurasoak. Ikasle horiek aurreko ikasturtera arte D ereduan eskolatuak ziren.

Gurasoek, beren alaben hezkuntzaren jarraipena egin zuten profesionalak hala adierazita, neskatok hezkuntza-ereduz alda zitezen eta A eta B hezkuntza ereduak ematen zituen beste ikastetxe batean jarrai zezaten nahi zuten.

Alabaina, itxuraz, asmo hori ez zuen onartu Hezkuntza Administrazioak. Izan ere, ez omen zituen eman nahi neskatok behar zituzten laguntzak.

- Azterketa

Hezkuntzako lurralde-ordezkariek gurasook beren alabak D eredua ez beste hezkuntza-eredu batzuetan eskolatzeko egindako eskaera horri buruz hartutako ebazpeneko argudioak honakoak izan ziren.

*“2004ko ekainean (matrikulatzeko epe ofizialetik kanpo) adierazi zuten gurasoek alabak ikastegiz aldatu nahi zituztela, hizkuntz ereduz alda zitezen (“D” ereditik “B” eredura pasa zitezen). Horixe adierazi zieten Hezkuntza Ikuskatzailetzari eta Berritzeguneari.*

*XXX LHlko Zuzendaritza Taldearekin, Berritzegunearekin eta Hezkuntza Ikuskatzaitzarekin izandako lan bileretan, ikasle biontzako hezkuntza erantzuna baino konponbide hobetzat hartu da, alde honetako ikastetxeen baliabideak eta irakasle-plantillak kontuan harturik (XXX LHI ez da inplikaturik dagoen ikastetxe bakarra) XXX LHIn bertan bi neskato hauentzako curriculum diseinua egitea.”*

Alabaina, erakunde honen ustez, lurralde-ordezkariek bere ebazpenean ez zituen kontuan hartu ondoko inguruabar hauek, gure iritziz lasaiago aztertu behar zituenak:

“Lehenengoa.- Ikastetxez aldatzeko eskaera matrikulatzeko ohiko epetik kanpo azaltzea ez da gurasoen garaiz kanpoko borondate hutsaren ondorioa eta ez dago hizkuntz eredu aldatu nahiari bakarrik loturik. Ditugun datuen arabera, eskaera hau egun horietan azaldu zen, hain zuzen ere, tutorearen eta aholkulariaren orientazio akademikoak jakinda, Coorvisor ikastetxearekin izandako bileraren ostean. Familiak orduantxe hautatu zuen bere alaben heziketaren jarraipen eta arretarako aukera ezberdinak aztertzean azaldutako aukeretako bat, ikastetxe-aldaketa berekin zekarren hizkuntz ereduaren aldaketa, hain zuzen ere.

Bigarrena.- Ebazpen horretan baieztatu denez, XXX LHlko zuzendaritzak, Hezkuntza Ikuskatzaileak eta Berritzeguneak berak XXX LHIn bertan haur biontzako curriculum diseinua egiteari iritzi diote konponbiderik onena, baina ez dira erabaki hori bermatu ahal duten argudioak zehaztu.

Hala ere, familiak aintzat hartu beharreko beste iritzi batzuk aurkeztu ditu, hala nola, Coorvisor ikastetxearena. Beronen iritziz, eredu eta ikastetxez aldatzeko erabakia haur horien curriculum-eskurapena hobetuko duen aukera izan daiteke, zalantzarik gabe. Izan ere, kontuan hartu behar da neskatoek euskaraz hizkuntz gaitasuna lortzeko zailtasunak dituztela eta astiro lor ditzaketela gaztelaniazko hizkuntz trebetasunak ere. Gurasoek beste iritzi batzuk ekarri dituzte, hala nola, XXX LHlko aholkulariak eta tutoreak emandakoak: hauek beren azken txostenean gogora ekarri dute hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak eskolatzea arautu behar duen printzipioetako bat –ohiko curriculum ahalik eta gutxien egokitu behar izatea–. Hori dela eta, adierazi dute haur hauen kasuan D eredu euskaraz ematen diren irakasgai guztiak egokitu behar direla eta B edo A eredu, aldiz, behar den egokitzapen-mota neurri txikiagoan zabalduko dela oinarriko arlo instrumentaletara.

Hirugarrena.- Lurralde-ordezkariekin ebazpen horretan beste azalpen bat ere eman da, haur horien hezkuntza-premia bereziei arreta emateko beharrezko diren baliabideen gaiari loturikoa.”

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Administrazioari berriz eskatu genion lankidetzara, aipatutako inguruabarretan sakontzeko.

- Emaita

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, esku-hartze horri erantzunez, jakinarazi zigun azkenean neskato horiek eskolatzeko proposamen bat egin zela eta familia ados zegoela proposamen horrekin.

Horregatik, erakunde honek ere esku hartzeari uztea erabaki zuen.

⇒ *Alergia larrien ondoriozko osasun-beharrizanak (1184/2004)*

• Erreklamazioa

EAEko ikastetxe batean eskolatutako adingabe baten gurasoek erakunde honi esku har zezan eskatu zioten, elikadurako alergia kasu larri bat zela eta.

Gurasoen iritziz, adingabe horrek, esnari, arrautzei eta kiwiei alergia baitzien, shock anafilaktiko larri-larria izateko arriskua zuen, ikastetxean elikagaien erabilpenari buruz beharrezko neurriak hartzen ez baziren.

• Azterketa

Erakunde honek bazekien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eskola ingurunean osasun beharrizanetarako arreta egokia ematea bermatzeko biziki arduratzen zela. Beharrizan horien artean sailkatu behar dira haur horrek duen alergiaren (elikagai jakin batzuekiko alergia larria) ondoriozkoak. Horregatik, kexa behar bezala tratatzeko helburuz, Sailari zuzendu gintzaizkion, Hezkuntza Administrazioak guraso horiek azalduko bezalako eskariei erantzuna emateko ekimenik ba ote zuen jakiteko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Kabineteko zuzendariak, esku hartze horri erantzunez, erakunde honi hauxe adierazi zion:

*“Arazo honetan inplikaturikoekin (gurasoekin, zuzendariarekin eta tutorea-ekin) elkarrizketa luzeak izan ostean, honako ondorio hauek atera dira:*

*a) Tutoreak hizpide dugun kasuan jarduteko protokoloa idatziz egingo du. Protokolo hori jadanik eginda dago; hona hemen haren edukia:*

- Zikloko bileran (Haur Hezkuntzan diharduten langile guztiek joan behar dute bilera horietara) XXXren kasuaren berri emango da eta behar denean hartuko diren neurriak jakinaraziko dira.*
- Haurrari, shock anafilaktikoa edukiz gero, tutoreak ikasgelako bere armairuan duen injekzioa jarriko zaio. Pediatrak idatziz baimena emango du, XXXren inguruan diharduten langileek injekzioa eman ahal diezaioten. Jarraian familiari eta anbulantziari dei egingo zaie haurra hurbileneko osasun zentrora eraman dezaten.*
- XXXk egunero etxetik fruta ekarriko du, bere sardexkarekin, “tupper” batean.*
- Urtebetetzeak eskolan ospatzen direnean, XXXk bere gailera eta txokolatina bereziak izango ditu eta ura besterik ez du edango. Tutorearen ondoan eseriko da, arretaz begira dezan.*
- Ibilaldiak egiten direnean, haur horrek bere janari berezia eramango du motxilan.*
- Tutorea eskolara joan ezin bada, ordezkari ikasle honekin kontuan hartu behar dituen neurriak jakinaraziko zaizkio.*

b) Zuzendariak beste haurren gurasoei XXX ikaslearentzat arriskua duten produktuak ikastetxera ez ekartzea gomendatzeko bideak ezarriko ditu.

(...)

*Aurreko guztia ikusita, Hezkuntza Ikuskatzaileak jakinarazi du debekua ez dela egokia, eta neurri horren ordez, aurrean aipatutako prebentziozko neurriak erabiltzea proposatu du.”*

- Emaizta

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Kabineteko zuzendariak emandako informazioa zela eta, Hezkuntza Administrazioak kexan azaldutako arazoa konpontzeko neurri egokiak hartu zituelakoan geratu ginen.

#### D) Bestelakoak

⇒ *Bi urtekoentzako ikasgelen A ereduko hezkuntza-eskaintza (117/2004)*

- Erreklamazioa

Erakunde honi esku hartzeko eskatu zitaion, administrazioak Bizkaiko Lurralde Historikoko alde batzuetan bi urtekoentzako gelen A ereduko hezkuntza-eskaintza kentzea erabaki zuelako.

- Azterketa

Hiru urte bitarteko umeentzako haur eskolei buruz onetsiriko arautegiak (abendua-ren 17ko 297/2002 Dekretua), bi hizkuntzako irakaskuntzaren ereduak eta hizkuntz tratamenduari buruzkoak zehazki, berariaz kontuan hartzen ditu guraso edo tutoreen borondatea eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean ezarritako hezkuntza ereduak zabaltearen kontua. Era berean, dekretu horretako lehenengo xedapen gehigarrian jasota dago orduan zegoen eskaintza sendotzeko konpromiso irmoa. Hori guztia dela eta, erakunde honen iritziz, aurretik eskainiriko hezkuntza ereduetan eskolatzeko eskariei erantzuna eman behar zaie, hasieran aukeraturiko ikastetxe edo eskoletan eskolatzearen hautazko neurriak hartu behar izanik ere. Beste modu batera esanda, hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza-arreta arian-arian ezartzekotan, hezkuntza eredu ezberdinen egungo eskaintza sendotu behar da etapa horretako eskola mapako alde ezberdinen arabera.

Horri buruz hauxe zehaztu behar da: A ereduko lehengo hezkuntza-eskaintza murrizteko administrazioaren erabakiak 3 urtetik gorako haurrak ukituz gero, Sailak neke jarriko du zalantzan aukeratutako hezkuntza-ereduko eskola-postu bat bermatu beharra. Hezkuntza eskaintza sendotzeak, Administrazioak ulertzen duen moduan, inoiz ez du bermatuko, argudioa muturrera eramanda, ikasle bat aukeratu ez duen hezkuntza eredu batean eskolatzea, nahiz eta horrek ikaslea beraren egoitza ez dagoen udalerrietan eskolatzea zenbait kasutan berekin ekarri ahal izan.

3 urte bitartekoentzako hasierako ziklo horri dagokionez, gure iritziz, Administrazioak hartutako konpromisoak eta onetsitako arautegia direla eta, aurretik eskainiriko hezkuntza ereduetan eskolatzeko eskariei erantzuna eman behar zaie, hasieran aukeraturiko ikastetxe edo eskoletan eskolatzearen hautazko neurriak hartu behar izanda ere. Hala ere, Hezkuntza Sailak emandako informazioa ikusita, uste dugu Administrazioa neurri batean bakarrik betetzen ari dela Haur Eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian azaltzen den konpromisoa (*“Dekretu honetan ezarritako trantsizioaldian, Hezkuntza Administrazioak, plangintza arloan dagozkion eskumenak erabiliz, plazen eskaintza koordinatuko du; eta, horretarako, Haur Eskolen Mapa egingo du, honako irizpide hauekin bat etorritik: (...) 3. Hiru urtetik beherakoentzako egungo eskaintza sendotu egingo da”*). Izan ere, lehenagoko hezkuntza-eskaintzei, hala nola, A ereduaren eskaintza horri, bukaera emateko erabaki batzuekin batera ez da hautazko neurririk agertzen.

- Emaidza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ez dago ados erakunde honen iritzia-rekin.

Horregatik, azkenean, aipatutako konpromiso hori osorik bete ez dela jakinarazi behar dugu Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txosten honetan.

## 5. FUNTZIO PUBLIKOA

### 5.1. SARRERA

2004an guztira funtzio publikoarekin zerikusirik daukaten 98 kexa jaso dira, guztira, alorretan banatutako kexetatik % 8,77.

Hara zein administraziori buruz izan diren:

– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	56
– Tokiko administrazioa.....	23
– Foru administrazioa.....	8

Edukiari adituz, tramitatutako kexak honako azpiarlo hauetan sailkatu ditugu:

– Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa.....	32
– Osasun alorreko funtzio publikoa.....	32
– Funtzio publiko orokorra.....	27
– Poliziaren alorreko funtzio publiko .....	4
– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura.....	3

### Funtzio publiko orokorra

Ekitaldi bat baino gehiago daramagu ezgaituentzako enplegu publikoaren gaiari bereziki adituz. Jarduera ildo horretatik, aurren ofiziozko hainbat prozedura bideratu ditugu EAEko administrazio nagusiekin, pertsona horientzako enplegu publikoaren errealitatea izatez zein den kontrastatu nahirik, hain zuzen. Horrela, gure ohiko jarraipen-zeregina ere bete ahal izan dugu, oraingoan 2003ko ekainean *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAE*n goiburupean aurkeztu genuen ezohiko txostenean oinarrituz. Txosten honetan bertan, I. kapituluari, jarraipen zeregin honen emaitzak xehetasunez azaldu dira.

Ezgaituen enplegu publikoaren atal honexeri dagokionez, iaz, 2003an, osasun arloan tramitatu zen, eta gure azkeneko txostenean (ikus 2003ko txostena, II. kap., 5.2.) jada azaldu genuen kexa batek ezarri zuen aurrekaria abiapuntu hartuta, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarenean ofiziozko jarduera bat ere garatu dugu. Jarduera horren ondorioz pertsona ezgaituak EAEko lan merkatu arruntan sartzeko planaren administrazio-agintari arduradunenei –plana gure erakundearen ekimenez aurkeztu da–, ulermen edo adierazpenez ezgaituak diren pertsonentzako eskaintako plazei eusteko baldintzak aldarazteko benetako konpromisoa hartarazi diegu, jakinduria akademikoko proben ordez lanpostuko zereginak betetzeko gaitasun probak egin diezazkieten mekanismoak ezarriz.

Bestalde, hautapen proba batzuen deialdia zela-eta aurkeztu zaigun kexa batek pertsona ezgaituen aldeko berariazko sarrerarako txanda finkatzeak eskaintzen dituen

sustapen aukera guztiak agortzea komeni dela aldarrikarazi digu (ikus 607/2004 kexaren laburpena).

Hizkuntz normalizazioaren atalean, kexa modura egin zaion kontsulta bat ezinbestean aipatu behar dugu. Kexagilearen kontsulta zen ea modurik legokeen euskal administrazio publikoek, funtzio publikoan sartzeko beren deialdietan, behin behineko izangaiek balizko lantokiak frogatutako hizkuntza baldintzen arabera aukeratu ahal izatea sar lezaten.

Egun ez dago arazorik euskararen koofizialtasunaren ondoriozko hizkuntz eskakizunak merezimenduaren eta gaitasunaren konstituzio-printzipioetan txertatzen direla. Alabaina, aldi berean, jakin behar dugu zer-nolako ahalmena daukaten administrazio deialdigileek hautespenezko prozesua herri zerbitzuen antolamendu eta prestaziorako eragingarrien irizten dioten moduan moldatzen saiatzeko. Erakunde honen iritziz, balizko lantokiak izangaiek frogatutako hizkuntz eskakizunen arabera hautatzea administrazio deialdigileek libreki xedatzeko duten eremu horreketan kokatzen da, funtzio publikora sartzeko halaberharrezko berdintasunari ukitu gabe.

Horregatik guztiarengatik, gure iritziz, ez dago eragozpenik administrazio deialdigileek lantokien hautapena moldatzera sar daitezen, hautespenezko prozesu horien kudeaketa eraginkorragoa izango dela ziurtatzeko egoki irizten badiote, helburua hizkuntz eskakizundunak diren eta betetzeke dauden lanpostuak izatez bete daitezten bada betiere.

Atal berebetean, hizkuntz normalizaziorako teknikari ertainen beharrian iragankorretan aritzeko interesa zuen pertsona batek eskatuta tramitatu dugun kexak harritu gaitu, LANGAI zerbitzuak balizko enplegu-eskatzaileren hizkuntz gaitasunari buruzko datuak kontuan hartzeko tratamendu informatiko egokirik ez zuela jakin ahal izan baitugu (ikus 531/2004 kexaren laburpena).

Baimen eta lizentzietan buruzko atalean, berriz, gure iritziz, egokitasunez tramitatzea komeniko litzatekeela iradokitzen duten kexak errepikatu dira; askotan, kexa horien atzean benetan aurkitzen duguna enplegatu publikoen familiako eta laneko erantzukizunak uztartzeko beharra da.

Horretaz ari garela, ezin dugu 2004 honetan Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen zerbitzuko enplegatu batek eskatuta tramitatu den kexa aipatu gabe utzi; emakume honi lana eta familia bizitza uztartzeko zituen igurikapenak zapuztu zaizkio; gure erakundeak esku hartu eta behin eta berriro eskatu arren, ez baitu aldundiak jaramonik egin, ez eta ezertan lagundu nahi izan ere (ikus 428/2004 kexaren laburpena).

Bestalde, kontsultak egin zaizkigu, besteak beste, seme/alaba zaintzen eszedentzian emandako denbora merezimendu lehiaketaren ondoretarako eskarmentu profesionaltzat zenbatzerik dagoen ala ez jakin nahi zuen funtzionarioarena. Seme/alaba zaintzeko eszedentziaren gaian indarrean dagoen lege araubideak, eszedentziak dirauen bitartean, izateko zerbitzuak bete direlako fikzioa sortzen du, baina espresuki aurreikusitako ondoretarako soilik eta eskusiboki (hiru urtekoen ordainak, langile mailaren finkapena, eta eskubide pasiboak), antzinatearen ondoretarako, azken batean. Legezko fikzioa denez, ez dago interpretazio hedagarriarik egiterik, hala nola, eszedentzia egoera edo denbora, lehiaketari begira, eskarmentu profesional modura har dadin nahi izatea.

Sartzeari dagokionez, jada ohikoak diren gorabeherak errepikatu dira: kasu batzuetan eskarian merezimendu jakin bat alegatu da, baina ez da behar bezala frogatu, deialdiaren oinarrietan eskatzen zen moduan. Gure iritziz, administrazio prozeduraren arauketak, zehazki Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio

Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikulua, Administrazioari interesatuei igarritako akatsak ongitzeko eskatu behar diela agintzen dio, baita hautespen prozesuak direnean ere.

Gorlizeko Udalak peoi lanpostuen beharrak ase edo lanpostuak hornitzeko gizon-zko hautagaiak kontratatzea lehenetsiz hartutako erabakiaren inguruan ofizios garatu dugun jarduera ere azpimarratzea komeni da, gure ustez (ikus 4/2004OF kexaren laburpena).

Nolanahi ere, ez da sexuarengatik ustezko bereizkeriarik izan den aztertu behar izan dugun jarduera bakarra. Udal enplegatutako bat emazteari haurra jaito aurretik egindako proba baten ondorioz sortutako medikuntza gastuak ez ordaintzearekin ados ez zegoelako kexuka zuzendu zitzaigun. Donostiako Udalak gizarte segurantzak ezal-tzen ez dituen medikuntza gastuak konpentsatzera bideratutako laguntzak emateko onetsi zuen araudiak, laguntza horien balizko onuradunak tokiko administrazio horren zerbitzurako enplegatutako pertsonak direla mugatzen du, karrerako funtzionario, bitarteko langile zein lan kontratupeko langileak izan. Hara bada, eskuarteko kasuan bezala, Donostiako Udalaren zerbitzura enplegatutako langileentzat gordetako pres-tazio edo gizarte hobekuntza osagarriak izanik, sexua bereizketa irizpide edo faktore izan daiteke, berdintasun printzipioari kalterik egin barik, kontua sexuak bere eragina daukan medikuen proposamen edo jarraibideen ondorio diren osasun gastuak kon-pentsatzea baita.

Beste gai batzuetara igarota, Getxoko Alkateak udal talde desberdinen zerbitzurako administrari laguntzaileen konfiantzako lanpostuei uko egiteko hartutako erabakiaren ondorioz aurkeztu zaigun kexa tramitatzen ari gara. Kexan, gobernu taldea osatzen duten taldeentzat ari diren administrari laguntzaileei eutsi zaien bitartean, oposizioko taldeen zerbitzurako administrari laguntzaileen lanpostuei soilik uko egiteko Alkateak bere kasa hartu duen erabakia salatzen da, erabaki horren helburua, kexagileen iritziz, oposizioko alderdiek egiten duten lana oztopatzea baita, argi eta garbi.

Azkenik, lantokian jazarpen moraleko egoera, mobbing izenez ezagunagoa zaiguna salatzen duten kexak gero eta gehiago direla adierazi behar dugu, ezinbestean.

Aurten jaso ditugun salaketek oso administrazio desberdinei ukitu diete, esate-rako, Ormaiztegi eta Getxoko udalei, Arabako Foru Aldundiari eta Osalan-i berari. Gehienak zereginez hustea gertatu dela planteatuz modu objektiboan azaltzen saiatzen dira. Horrek erakunde honi esku hartzeko bidea zabaltzen dio, kargudun izateak, bes-teak beste, lanpostuari datzekion zereginak izatez bete daitezten dakarren eskubidearen behin-behineko urraketa arteztu nahirik. Ez da erraza, ordea, halako egoeretan esku hartzea zeren, denboran luzatzen direnez, sarritan elkarrenganako konfiantza galaraztea baitakar, eta horrek ukitutako administrazioarekin elkarlanean egokiro aritzea zailago bihurtzen baitu.

INEMen zerbitzurako eta gure Autonomia Erkidegoaren esparruan aritzeko enple-gatutako pertsona batzuek eskatuta tramitatu den kexa ere aipatu beharrean gaude; langile horiek kezkatuta daude EAEko Administrazioak, batez ere gizarte segurantzaren gaian dauden desadostasunengatik, akordio orokorrik iristeko zain geratu barik bere enplegu zerbitzu propioa sortu duelako. Interesatu hauek beldur dira ez ote dion horrek, gerora, Estatuko langile baliabideak eskualdatzeari ukituko –INEM ere hartuko duen akordio orokorra iristen denean–, Erkidego honetako administrazioak badaukalako, jada, zerbitzu horretara atxikitako bere langileria.



## Osasun alorreko funtzio publikoa

2002ko Lan Eskaintza Publikoaren uztarran iragarritako hautespen prozesu desberdinak izan dira, aurten ere, kexa iturri nagusia, baina oraingoan jaso ditugun salaketek prozesu horien azkeneko faseekin zerikusia izan dute, lantokien adjudikazioaren fasearekin, zehazki.

Guztien artean, larritasunarengatik, ikuztegiko/zerbitzuetako langilearen kategoriaren inguruan tramitatu dugun kexa nabarmenduko dugu. Eskaintza publiko horretan parte hartu zuen emakume batek, proposatutako hautagai izanik, zegozkion eskubide guztiak galtzeko arriskua zeukan, lantokia behar zen garaian eta moduan eskatu ez izana azaltzen zuen publizitate arazo bat zela-eta. Alabaina, Osakidetza ohartarazi zigun, berak erakundeei izangaien behin betiko zerrenda EHAA noiz argitaratuko zen jakinarazi ez zien arren, deialdiaren publizitate eskakizunak ez zirela, nolana ere, hainbestearinokoak eta, horregatik, ezin zutela deialdiaren oinarrietan jasotako beste aurreikuspen batzuekin ezikusiarera egin; besteak beste, deialdian lantokia zegokien garaian eta moduan eskatzen ez zuten izangaiek eskubideak galduko zituztela espresuki ohartarazten zen.

Azpimarratuko dugu, halaber, lantokiak adjudikatzeko finkatutako sistemari buruz jasotako kexa. Erakunde honen esku-hartzeari esker, oraingo sistema aldaraztea komeni dela onartu eta horri buruz konpromisoa hartarazi diegu; hartara, barruko sustapenaren ostean hutsik geratzen diren lanpostuak txanda librean hautatutako izangaiei eskainiko zaizkie, puntuazio ordenaren arabera (ikus 65/2004 kexaren laburpena).

Berria eta garrantzitsua denez, psikiatriako espezialitateko medikuak hautatzeko probetan pertsona ezgaituei gorde behar zaizkien plazak nola kudeatu diren salatzen jaso dugun kexa ere aipatu behar dugu (ikus 703/2004 kexaren laburpena).

2002ko Lan Eskaintza Publikoko hautespen prozesuei buruzko kexak hizpide dituen atal honekin amaitzeko, erakunde honek uste du administrari laguntzaileen kategoriako azterketa praktikoaren gainean tramitatu diren salaketa asko eta asko egokiago jorratuko ziratekeela, aurkariei beraiek egindako ariketa ikusteko gutxieneko proba bat egiteko aukera eskainiko ziekeen inprimaketa sistema bat, edo bestelako sistemaren bat jarri izan balitz.

Osasunaren arlo honetan, oraingoz tramitazioan asko aurreratu ez dugun arren, handia da medikuntzako fakultatiboek kolektiboak jasaten omen duen adre eta motibaziorik ezaren inguruan jaso ditugun kexen kopurua. Erakunde honek, hasteko, Osakidetza hobetzeko estrategia modura diseinatu eta onetsi duen 2003-2007 Kalitate Planean ageri diren helburuak aztertu dituela aurreratuko dugu. Helburu horien artean bere zerbitzura ari diren langileen inplikazio handiagoa lortu nahi dela aipatzen da, espresuki, planak berak dioenez, langileen motibazioa eta gogobetetasuna bideratu nahi den erabateko kalitatezko erudian giltzarria baita.

Gainerakoan, tramitatu ditugun kexak puntualagoak izan dira. Esaterako, ELA, LAB, CCOO eta UGT atal sindikalek, Donostiako Ospitaleko aparkalekua erabiltzeari buruz jarri zuten kexa aipatuko dugu. Sindikatu horietako ordezkarien hitzetan, aparkaleku horiek erabiltzeko irizpideek berdintasun printzipioa urratzen zuten, urte betetik beherako kontratudun behin behineko langileak okerki baztertzeko zituelako. Gure erakundearen iritziz, ordea, Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiak sobera justifikatu zuten kontratu edo izendapenen iraupenari buruzko sarrera irizpidea finkatu beharra,

batez ere aparkatzeko dauden tokiak oso gutxi direla kontuan izanda. Alabaina, ahal zela, negoziatutako beste irtenbide batzuk bilatzera animatu genituen.

## **Irakaskuntzako funtzio publikoa**

Irakaskuntzako funtzio publikoaren esparrua ere ez da 2002ko Lan Eskaintza Publikoaren uztarrarian iragarritako hautespen prozesuei buruzko kexetatik kanpo geratu. Tramitatu ditugun guztien artean, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan elkarrizketa-laguntzaile gisa erakutsitako eskarmentuaren gainekoa nabarmentzea egoki iruditu zaigu (ikus 1029/2004 kexaren laburpena).

Orobat, iazko ekitaldian ere ohartarazi genuenez, irakasleen ordezkapenak kexa iturri etengabea dira. 2003ko txostenean ikastegi publikoetan, sare publikora sartutako ikastoletan eta erakarritako beste zentro batzuetan betetako zerbitzuak eta baimendutako zentro pribatuetan betetako zerbitzuak desberdin baloratzen zirelako tramitatu genuen kexa bereziki aipatu genuen (erref. 153/2002). Zoritxarrez, hezkuntza Administrazioak ez dio gure erakundeak egin zion gomendioari jaramonik egin; orain arteko ohitura baztertu eta irakasle multzo desberdinetan behin betiko sartu ahal izateko aurreikusita dagoen antzera jokatzeko hasi zitezkeen gomendatu genien.

Egoki begitandu zaigu, halaber, kexa laburpenen artean, irakasleen ordezkapenak egin nahi dituztenei, aurreko ordezkapena bukatzean, lurralde ordezkaritza desberdinetako zerbitzuei berriro lanerako prest daudela jakinaraztera behartzen zaiela-eta tramitatutako espedientea sartzeko (ikus 1047/2003 laburpena).

Musikene izenez ezagutzen den goi mailako musika eskolarekin zerikusia daukaten kexak jaso ditugu, lehenengoz. Jakin badakigu EAEko Hezkuntza Administrazioak zentro hori zuzenbide pribatuko formula baten pean pertsonifikatzea erabaki duela, baita hango langileak lan eskubidearen araubidearen bidez kudeatzea ere. Hala eta guztiz ere, printzipioz zerbitzuak hobeto eta eraginkortasun handiagoz ematera begira dauden zuzenbide pribatuko balizko formula horien erabilpena bitarteko huts modura ikusi behar da eta horrek ezin du, inola ere, administrazio erakundeek bete behar duen zuzenbide publikoaren legezketasunaren mendetik askatzerik ekarri.

Hartara, kontua da langileak hautatzen dituenean, gero araubidea eta kudeaketa arrunta lan zuzenbidearen lege antolamenduaren arabera egin dadin alboratuta, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio jakinen mende jarri behar duela, baita publizitatearen printzipioaren mende ere, printzipio horiek, konstituzioak espresuki agindu duenez, enplegu publikorako sarrera prozesuak gidatu behar baitituzte. Bestalde, zuzenbide publikoaren legezketasunaren mende jartzearen aipamen horrek, Konstituzioaren 35.1 artikuluan jada eratuta dauden enplegu harremanez aitortzen den lanerako eskubidearen berehalako proiektzioa ere onartzea dakar; eskubide horrek, azken batean, bidezko ziorik gabe inor lanetik baztertzetik ez dagoela dio. Azkeneko ikuspegi horri adituz, hain zuzen, gure erakundeak, kontratuak berriro ez zizkieten irakasleek eskatuta, kexak tramitatu ditu.

Era berean, aurten ezinbestekoa zaigu Gasteizko Udaleko haur eskolen inguruan bizi izandako auzia aipatzea. Gure erakundearen esku-hartzearen xehetasunak hitzaurre honen ostean datorren kexen laburpenen bilduman azaldu dira (ikus 1035/2004 kexaren laburpena).

Iazko uztailen onetsi zen 2004-2006rako irakasleen egonkortasunerako akordio berria zela-eta nahikoa kexa jaso dugu; hezkuntza Administrazioak, akordio horren bidez, 176 irakaslerekin zuen egonkortasun konpromisoari amaiera eman dio. Hezkuntza Administrazioak egonkortasun akordio berriaren beharra azaldu eta justifikatzeko, ikasleen hizkuntz eskubideak babestu eta bermatzeko betebeharraren halabeharrezko ondorioa dela argudiatu du.

Jakina, bat egin behar dugu Hezkuntza Administrazioak EAEko ikasleen hizkuntz eskubideak babesten ahalegintzeko duen ardurarekin, ezinbestean. Nolanahi ere, legezkoa da, gure ustez, esparru publikoan, batez ere irakasleen ekarpenari, ardurari eta ahalegin pertsonalari esker, hizkuntz normalizazioari lagundu dionarengatik, oso bereziki nabarmendu den arlo bat badago, hori hezkuntzakoa dela onartzea. Aldi berean, Administrazioak arazo honi nola heldu dion kezkarria iruditzen zaigula ageriarazi nahi dugu, konponbiderik gabeko auzia bailitzan hartu baitu, hau da, ikasleen hizkuntz eskubideak gauzatzeko, ezinbestean, oraindik hizkuntz gaitasunean behar beste trebatzerik lortu ez duten irakasleentzat hain ondorio oker eta erabakigarriak ekarri behar dituela iritzita.

EAEko hezkuntza sistema jakitun da funtzio publikoko beste arlo batzuetan gauza bera gertatu dela eta, horrek, salatzen aukera izan dugun bezala, bitarteko enplegu portzentaje izugarri altuak ekarri dituela, zoritxarrez. Horregatik, ukitutako administrazioak, bidezkoa den modura, halako langileek egindako lana aitortzera xedatutako eta, azken batean, funtzio publikora behin betiko sartzeko neurri korrelatiboak hartu behar izan ditu. Baina, gainera, hezkuntzaren arloan, hizkuntz eskakizunen gaian onetsitako antolamenduak irakasleria euskalduntzeko prozesua ekarri du eta, ez dezagun ahantz, euskalduntze prozesu hori bitarteko irakasle direnei esker garatu ahal izan da; bitarteko irakasleek beraiek, arazo honetan ukitzen zaienek, hizkuntz gaitasuneko baldintzak bete ez arren, karrerako funtzionario ziren langileak euskalduntzea premiazkoa zenez, euskalduntze horren ondorioz sortutako irakaskuntza edo hezkuntza beharrak ase dituzte.

Administrazioek zenbaitetan beharrezko neurriak hartu izan dituzte, zuzena den elkarrekikotasunaz, talde jakin batzuek egindako lana aitortzeko. Era berean, oraingo honetan ere, irakasleen egonkortasun-hitzarmena edo konpromisoa berrikustea erabakitzean, gutxienez beste ahalegin bat egin beharko litzateke, erakunde honen ustez, ikasleen hizkuntza-eskubideak eta bitarteko irakasleek beren lanean jarraitzeko duten bidezko interesa bateratzeko eta bateragarri egiteko, hizkuntza arloan trebatzeko edo gaitzeko aukera guztiak agortuz eta, hala badagokio, hezkuntza-sisteman beste hizkuntza-eskakizun maila bat izan dezaketen behar berri batzuk bideratzeko aukera aintzat hartuz.

Ohartzen gara ez dela lan erraza eta, nolanahi ere, hezkuntza-eskaeratik eratortzen diren hizkuntza-eskubideak kaltetu gabe egin behar dela. Hala ere, hezkuntza bezalako sistema zabal batean hezkuntza-administrazioak eta irakasleen ordeko sindikatuek borondate irmoa eta bateratua erakusten badute, ziur gaude bide egokiak aurkituko direla behar bezalako gaitasuna egiaztatzerik lortu ez duten bitarteko irakasleek lanean jarrai dezaten. Orobat, ziur gaude bide egokiak aurkituko direla urriaren 1eko 228/2002 Dekretua eta uztailaren 27ko 158/2004 Dekretua ezarri ondoren egonkortasuna galdu duten irakasleek egonkortasun hori berreskura dezaten, eta orain arte trebatzeko eta birziklatzeko onartu eta ezarri diren neurriak gainontzeko bitarteko irakasleei ere ezar dakizkien, izan ere, bestela, egonkortasun-egoera erdiesteko dituzten bidezko itxaropenak zapuztuta ikus ditzakete.

## Poliziaren alorreko funtzio publikoa

Ekitaldi honetan Gasteizko Udalak udaltzainen plazak hornitzeko iragarri zituen proben deialdia bereziki polemikoa izan da, batez ere epaimahaiak hautagaiak egindako nortasun proben emaitzei adituz soilik egoki ala desegokizat baloratuko zituela erabaki zuelako, ondorengo elkarrizketa pertsonalik egiteko aukerarik eman barik.

Gure erakundearen esku-hartzearen xehetasunak 161/2004 kexaren laburpenean azalduta daude.

## 5.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

⇒ *Irakaskuntzako funtzio publikora sartzeko aukerak. Aurretiazko eskarmentua Erresuma Batuan, elkarrizketa-laguntzaile modura (1029/2003)*

- Erreklamazioa

Emakume batek gure erakundeari esku hartzeko eskatu zion, Erresuma Batuan elkarrizketa-laguntzaile modura bete zituen zerbitzuak irakaskuntzako funtzio publikora sartzeko etorkizuneko hautapen probetan balora ziezazkioten lortzeko.

- Azterketa

Kexa tramitatzen genuen bitartean aztertu genuen dokumentazioari esker, Hezkuntza Administrazioak hauxe zioela jakin ahal izan genuen:

*“...Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak erreklamaturako zerbitzu horiek betetzeko hautatu izanak ez du esan nahi zerbitzu horiek Administrazio eta Erakunde Publiko batentzat bete direnik. Sarritan, Administrazioak, biren arteko itun edo hitzarmenak tarteko, atzerrian arituko diren irakasleak hautatzeko konpromisoa hartzen du, baina ez, ordea, enplegatzailearen ardurarik hartzen, hautapenean bitartekari aritzekoa soilik baizik.*

*(...)*

*Gainera, Elkarrizketa-Laguntzailea ez da Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleriarako aurreikusita dagoen espezialitateetan sartzen...”*

Horrela, Hezkuntza Administrazioak Erresuma Batuan elkarrizketa-laguntzaile modura betetako zerbitzuak kontuan hartzeari uko egiten zion zerbitzu horiek ez zirelako, bere ustez, ezein administrazio edo erakunde publikorentzat bete eta, gainera, ez zegozkionlako interesatuak sartu nahi zuen irakasleriaren inolako espezialitateri.

Jakina da irakasleria desberdinetan sartzeara araupetzen duten merezimenduen baremoak (aurrerantzean: ekainaren 4ko 850/1993 ED) zentro publiko zein pribatuetan eutsi nahi zaien maila zein espezialitateen eta beste desberdin batzuetan aurretiaz izandako irakaskuntza eskarmentuaren balorazioa kontuan hartzen dutela.

Hara, bada, aurkeztu zaigun eskaria jorrazteko ikuspegiaren erreferentzia uztarria hori izanik, erakunde hau ez dator bat EAEko Hezkuntza Administrazioak interesatuak Erresuma Batuan betetako zerbitzuak kontuan hartzeari buruz duen jarrerarekin, administrazioaren ustez zerbitzu horiek ez direlako administrazio batentzat zein beste erakunde publiko batentzat bete.

Horren gainean, zorionez, Europako Erkidegoen Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziaren interpretazio irizpideek Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan betetako zerbitzuak ere kontuan har daitezkeen defendatzeko atea zabaltzen dute; bestela, konkurrentzia librea ukatzea litzateke eta, ondorioz, nazionalitate zioengatik zeharkako bereizkeria gauzatuko litzateke. Horregatik, etorkizunean honen inguruan edozein gorabehera gertatzekotan, gure erakundeak berehalako gomendioa egingo luke, lehenagoko kexa espedienteetan izatez egin duen bezala.

Alabaina, EAEko Hezkuntza Administrazioarentzat elkarrizketa-laguntzaile modura betetako zerbitzuak ez zaizkio interesatuak sartu nahi zuen irakasleriaren inolako espezialitateri egokitzen.

Bigarren alderdiari dagokionez, hainbat kexa tramitatu direlako, ziur dakigu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, behin baino gehiagotan, hauxe ulertu izan duela: *“elkarrizketa-laguntzaile aritzea ez zaio indarreko hezkuntza sistemako inolako plaza edo espezialitateri egokitzen eta, horregatik, nekez hartuko ahalgo ditugu zeregin horiek araututako irakaskuntzan betetako zerbitzu modura.”* interesatuaren esperientzia, ordea, bestelakoa da, antza.

Aldi berean, zenbait erabaki judizialen berri ere izan dugu (Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren otsailaren 14ko 29/2003 epaia), zeinetan ez duten, ordea, halakorik baiesteko zalantzarik izan:

*“...atzerriko hizkuntza baten irakaskuntzaren atal bat ikasleak elkarrizketan aritzera eta irakurmena eta ulermena lantzerantz jotzen duena da, beraz, ezin da, inola ere, zeregin hori irakaskuntza denik ukatu ...”*

Nolanahi ere, garbi dago irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko elkarrizketa-laguntzaile modura duten aurretiazko eskarmentua baliatu nahi duten oposiziotzaileek bat ere segurtasunik gabeko egoerarekin topo egingo dutela.

- Emaita

Jarduera aukera desberdinez pentsatu ondoren, komenigarriena interesatuak berak Estatuko Arartekoari esku-hartzea eskatzea litzatekeela iruditu zitzaigun, Ararteko hori izan zedin Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren aurrean jardueraren bat bidera zezana, Ministerio hori baita, azken batean, kultura, zientzia eta teknika alorretako lankidetzarako bi alderdiko itunak, besteak beste, elkarrizketa-laguntzaileen trukeko egitarauak aplikatuz, herrialde desberdinekin sinatutako hezkuntza lankidetzako egitarauaren azkeneko arduraduna.

Gure ikuspegitik, egun dagoen segurtasunik eza gaindi liteke, egitarau horiek araupetzen dituzten oinarrien barruan, bidezkoa iriztekotan, elkarrizketa-laguntzaileen zerbitzuak irakaskuntza direla espresuki adieraziko balitz, hartara, funtzio publikoan sartzera zein ordezkapenak antolatzerantz begira, balizko merezimenduak, eta bereziki aurretiazko irakaskuntza eskarmentua, baloratzeko orduan, egun izaten diren interpretazio desberdinak gerta ez daitezkeen.

⇒ *Irakasleen ordezkapenak. Hezkuntza Administrazioari ordezkapena bukatu dela jakinarazi beharra (1047/2003)*

- Erreklamazioa

Irakasleen ordezkapenak egin nahi zituen hautagai batek, ordezkapenetako zerrendetan huts bat egin zela-eta, erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen. Izan ere, ordezkapen-lan zehatz bat bukatu ondoren, lanean ari zen hautagai gisa jarraitzen zuen zerrendetan, eta gertakari horrek ordezkapen-lan berriak eskuratzeko aukerak kendu zizkion.

- Azterketa

Lehenbiziko esku-hartzean, Hezkuntza Administrazioak zera adierazi zion erakunde honi: irakasleen ordezkapenak egin nahi dituzten hautagaiek, ordezkapen-lan bat bukatzen dutenean, lurralde ordezkarietako dagozkien zerbitzuei lanerako prest daudela jakinarazteko nolabaiteko betebeharra edo obligazioa dutela.

Horrela, premisa horretatik abiatuta, sail horrek adierazi zuen ez zeukala idatziz jasota kexagileak lanerako prest zegoela jakinarazi zuenik –horregatik jarraitzen zuen zerrenden kudeaketarako egitarauan lanean ariko balitz bezala–; hartara, ez zela bidezkoa haren egoerari buruzko nahasketa gertatu ezean hark egin zitzaizkeen zerbitzuak aitortzea.

Hala ere, hautagaien zerrendak kudeatzeari buruzko argibideen edukia aztertu ondoren, erakunde honek egiaztatu zuen zerrenda horietan inon ez zela adierazten halako betebeharrak edo obligaziorik. Horregatik, interesatuak ordezkapenetarako prest dauden hautagaizat hartzea ala ez hartzea ez zirudien interesatuen esku utz zitekeenik. Are gehiago, ezin dugu ahaztu Hezkuntza Administrazioaren jokoera desegokia (kudeaketa-akatsak egon zitezkeela ez onartzeko ahaleginak egin zituen, interesatuei leporatuz lanerako prest zeudela jakinarazteko betebeharra, nahiz halako obligaziorik ez izan), batez ere kontuan izanik sail horrek eskura zituela benetako zenbait datu, ordezkapenen bukaera data kontrastatu eta egiaztatzea ahalbidetzen zutenak: lantsariei edo erregistro orokorrari buruzko datuak, alegia.

Hasierako esku-hartze hori gorabehera, Hezkuntza Administrazioak bere lehengo iritzia eutsi dionez, gogoeta hauetan tematu behar izan dugu:

“Kexaren biderapena eragin duen kudeaketa-akatsa gertatu zenean indarrean zeuden argibideak 1995eko irailaren 13ko Ebazpenaren bidez onartutakoak ziren. Beraz, argibide horiek erabili behar dira erreferentzia gisa interesatuaren eskabidea bidezkoa ote den baloratzeko. Jakina denez, interesatuak hauxe eskatzen du: akats baten ondorioz Hezkuntza Administrazioak bera lanean ari zen hautagaizat jo izan ez balu egokituko zitzaizkion zerbitzuak aitortzea.

Aurrekarietan aipatu dugunez, Hezkuntza Administrazioak berak onartu du 1995eko irailaren 13ko Ebazpenak ordezkapen-eskaintzak kudeatzeko funtzionamendu-irizpideak ezarri zituela, baina xehetasunik garatu gabe, esaterako, interesatuek ordezkapenak bukatu direla jakinarazi behar duten ala ez.

Hain zuzen ere, isiltasun horri garrantzia eman nahi dio, hezkuntza administrazioak berak irizpide berriak zehaztu eta gehitu behar izan dituela defendatzeko –irizpide

berriok ez dira argibideetan berriaz adierazten, adibidez, interesatuek lanaren bukaera jakinarazi beharra-. Horren ondorioz, zalantzarik gabe baieztatzen du interesatuek lanaren amaiera adierazi beharra daukatela, telefonoz, faxez edo idazki baten bidez.

Interesatuek lanaren bukaera jakinarazi beharraren irizpide horri buruz, ez dakigu jakinarazteko jokaera hori Hezkuntza Administrazioak dioen bezain sarri burutu den. Alabaina, nolana ere, guri ardura zaigunari dagokionez, jokaera hori jokaera soil moduan bakarrik baliazar daiteke, hau da, garrantzi handiagorik ez duen jokaera moduan, izan ere, aurreko argibideetan horren gaineko aurreikuspenik ez egoteak legitimotasun guztia kentzen dio administrazioaren asmoari –obligazio gisa, interesatuek lanaren bukaera jakinarazi behar izatea-.

Modu horretan, erakunde honen aburuz, Hezkuntza Administrazioak onartu beharra dauka aurreko argibideak aldatu ez dituen bitartean, ez duela izan eskumen nahikorik ordezkapenetako hautagaiei lan-amaierak jakinarazteko betebeharra ezartzeko; bestalde, gure ikuspuntutik, ezin da ulertu eskumen hori zerrendak kudeatzeko sistema arautzen duten argibideetan inplizituki agertzen denik, batez ere –lehen esan bezala- administrazioak kudeaketa integratua egiteko benetako aukerak dituelako. Hain justu, aukera horiei esker zehaztu ditu, inolako eragozpenik gabe, interesatuak egin ez dituen zerbitzuak.”

- Emaiza

Erakunde honek gomendio bat egin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, alegia, beharrezko neurriak har zitzan interesatuari aitor ziezazkioten ordezkapenetako zerrendak kudeatzean egindako huts batengatik hark burutu ez zituen zerbitzuak, lanean ari zen hautagaitzat jo baitzuten, oker jo ere. (17/2004 Gomendioa, uztailaren 20koa)

Hezkuntza Administrazioa, ordea, “*arau idatziaren ageriko hutsuneaz edo hutsaz*” baliatzen saiatu zen, iturrien sistemari zegokionez, izangaiek lana bukatu zutela eta berriro lanerako prest zeudela jakinarazteko jokaeraren ohitura frogatua aplikatu zedin defendatzeko.

Planteamendu horren aurrean, erakunde honen iritziz, gogoeta bakarra baino egiterik ez zegoen. Kontua ez zen, gure aburuz, ohiturak administrazioaren antolamenduan juridikoan izan zezakeen betekizunaren inguruan eztabaidatzea –kontua, bestalde, dotrinako sektore batzuek eztabaidagai zuten-, baizik eta arauak beti uzten dituzten hutsuneak, bakanki hartzen direnean, konplexu bateratu eta sistematiko den lege antolamenduan txertatu behar direla, eta batez ere nagusi diren printzipioetan oinarrituz txertatu behar direla. Alde horretatik, kontuan hartu behar da zuzenbide oro, baina zuzenbide administratiboa batez ere eta bereziki, Konstituzioak argi eta garbi ezartzen duenez, zuzenbidearen printzipio orokorren sistemaren gainean finkatzen dela, iturri idatzietan jaso ez eze zentzu osoa eman eta interpretazio guztia bideratzen duten sistemaren gainean, alegia. Konstituzioko printzipioekin zuzenean zein zeharka kontraesan dagoen emaitza ondorioztatzen duen edozein interpretazio eraikitzea debekatuta dago, beraz.

Hara bada, ikuspegi horretatik abiatzekotan, garbi dago Hezkuntza Administrazio horrek gure gomendioari emandako erantzuna onestea konstituzioan oihartzunduna eta funtsezko printzipioa den legezketasunaren printzipioa praktikan ukatzea beste

izango litzateke; printzipio horren irismen positiboa zehaztu edo gauzatzeko, lehenago esan dugun bezala, Administrazioaren jarduera legitimoa izango da baldin eta aurretiaz legearen babesa badu soilik.

Gauzak horrela, berrekin genion Hezkuntza Administrazioak aurreko jarraibideak aldarazi ez zituen arte ordezkapenatarako izangaiei lan bukaerak jakinarazteko betebeharririk ezartzeko behar zuen gaitasunik eman zion inolako araurik onartu behar zuela esanez.

Behin eta berriro esan diogun arren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez digu egindako gomendio hori onartu.

⇒ *Gasteizko Udaleko haur eskolak. Lanpostuen zerrenden osaketa (1035/2004)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Udalaren mendeko haur eskoletan lanean ari ziren hezitzaile batzuek gure erakundeari esku hartzeko eskatu zioten, eskola horien eskaintzen duten hezkuntza zerbitzua berrantolatzearen inguruan hartutako erabakiak zirela-eta.

- Azterketa

Eskariari erantzunez, azterlan xehatu bat burutu zuen. Jarraian azterlanaren ondorio batzuk jasoko ditugu:

- “2. Alkatetzaren Dekretuari, 2004ko uztailaren 27koari dagokionez, hau da, haurren eskolen zerbitzua berriz antolatzen duenari, legezko tasunaren ikuspegitik ezin da udaleko haurren eskolen arloan ezarri den eraketa berri horren aurkako ezer adierazi, antolakuntza berri horrek –dekretu horren zati xedatzailearen aurrean ematen den zioen azalpenean esan den bezala– egin duen gauza bakarria EAeko hezkuntzako administrazioak abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren bidez onetsi duen hezkuntza formaleko eredu abiaburutzat hartzea baino ez delako. Dekretu horrek berriaz ezarri du hiru urtetik beherako umeei egiten zaien hezkuntzako arretak bi helburu berezi bete behar dituela, alde batetik hezkuntzako jaramon horren kalitatea zaintzea eta, bestetik, familiako bizitza eta laneko bizitza uztartzea erraztuko duen jaramona izatea.
3. Alderantziz, zaintza berezia behar du Funtzio Publikoko zinegotziak proposatuta Gobernu Batzordeak 2004ko uztailaren 30ean hartu zuen erabakiak, hau da, haurren eskolen zerbitzu horretako lanpostuen zerrenda aldarazi zuenak (aurreantzean LZ).

Puntu honetan Udalak erantzunak emanez igorri digun idazkian behin eta berriz gogorarazten ditu antolakuntzari dagokionez dituen eskumenak. Gure asmoa ez da, inola ere, eskumen horiek dudatan jartzea. Kontrakoa esango genuke, erakunde honek etenik gabe errepikatzen duelako lanpostuen zerrendak langileen antolamenduari eta administrazioeko egiturak zentzuz antolatzeari ekiteko bitarteko teknikoak direla, hau da, etorkizuneko beharrezan arabera. Zerrenda horietan langileen gastuen aurreikuspenetako eragingarritasun handiagoa,



zerbitzuen beharrezanekin bat datorrena, eta horiek burutzeko behar diren beharkizunak azalduko dira. Horrela, horien arabera, herri administrazioen plantillak zehazten eta enpleguaren eskaintza publikoak egiten dira. Horregatik guztiagatik administrazioaren betebeharra da, antolakuntzarako dituen bere eskumenak betearaziz, azterlan egokia egin ondoren lanpostuen zerrendak eratzea eta onestea.

Beste alde batetik, egia da, bai, Administrazio horrek adierazten duen bezala, langileen ordezkartza eta partaidetza aztertzen duen arautegiak (herri administrazioen zerbitzura dauden langileen ordezkartzari eta beraien lan-baldintzen eta partaidetzaren ezarpenari buruzko ekainaren 12ko 9/1987 Legea) derrigorrezko negoziazio horretatik salbuesten dituela herri administrazioen erabakiak baldin eta euren auto-antolakuntza ahalmenak ukitzen badituzte. Hori egia izan arren ezin da ukatu aldi berean egia dela salbuespen hori horien laneko baldintzak ukitzen ez dituztenean baino ez dela gertatzen (horrelakoetan kontsultatu beharra ezartzen duela) edo berariaz negoziazioaren xedetzat ematen diren gaiei buruzkoak ez direnean, eta horien artean azaltzen da lanpostuen sailkapena [32.d) artikulua].

Legezko salbuespen horren ondorioz –berariaz informazioa eskatzeko gure idazkian aipatu genuena eta Auzitegi Gorenaren 2004ko otsailaren 6ko Epaiak oso ondo esaten den bezala (RJ 2004\972)–, administrazio guztiek berez euren buruak antolatzeko duten ahalmen eta eskubidea betearazten dutenean funtzio publikoan ezarrita dagoen talde negoziazioaren araupetzearen legezko markoa bete behar dute. Araupetze horretan oso argi azaltzen eta eskatzen da “lanpostuen sailkapena” negoziazioarekin burutuko dela.

Geroagoko txostenen bidez, adibidez Alkatetzak eskatuta Aholkularitza Juridikoko titularrak 2004ko urriaren 5ean egin zuena, ohartu gara administrazio horrek benetan defendatu nahi duena ondokoa dela: onetsi den LZren aldarazpena funtsean lanpostu batzuk amortizatzea eta beste batzuk sortzea da, bestelako eragin edo garrantzirik gabe, eta, horrela, argi dago, nork bere burua antolatzeko ahalmeneko eragiketa baten aurrean gaudela mantendu, burutzeko kontsultaren tramitearekin nahiko duena (9/1987 Legearen 34.2. artikulua). Ildo beretik doa eta hori baieztatzen da Funtzio Publikoko Zuzendaritzak helarazi digun erantzun-txostenean.

Dena dela, erakunde honen ustez, planteatu den aldarazpena gauza askoz ere funtsezkoagoa da benetan horren helburua haurren hezkuntzako hezitzaile espezialistaren teknikariaren lanpostu berria eratzea delako. Helburua hori bada kontua lanpostuen sailkapen eta balorazioaren arlokoa da (lanpostu berri hori zein taldeakoa den eta horren ordainketa osagarria zehazten baititu), nahiz eta beste era batera aurkezteko ahalegina egin, egon dauden lanpostuetako baldintza eta ezaugarriekin nolabaiteko berdinketa planteatuz.

Izan ere, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak egin duen txostenean behin eta berriz esaten da sortu diren plaza berri horiek, C taldearen barrukoak direlako eta lanpostu-mailako osagarria eta osagarri bereziak kontuan hartuta, haurren eskolen zerbitzuetan egon dauden postuekin bat datozela.

Baina gure iritziz hori ez da horrela. Onetsi den aldarazpenaren aurrean ematen den zioen azalpenean bertan berariaz aintzatesten da haurren eskolen hezkuntzalaguntza zerbitzuaren antolakuntza berri horren ondorioz plaza horiek egokitu beharra dagoela (nahiz eta horren ordez erabili beharreko hitz egokia lanpostua izan). Hori gorabehera, adierazgarriagoa da Alkatetzaren uztailearen 27ko Dekretuaren zioen azalpena, testu horretan argi esaten eta zehazten direlako zeintzuk diren beharrezko aldarazpenak, hala plaza eta lanpostuen kopuruan nola eska daitekeen titulazioaren beharkizunetan, euskarazko eskakizunetan eta ordainketa osagarrietan. Beste alde batetik, azken aste hauetan izan ditugun elkarriketen ondorioz baieztatu egin da hasierako uste edo iritziz hori, eztabaidaren gaia haurren eskoletako lanpostuei dagokien sailkapena delako.

Beraz, diskrezio-ahal bat betearazteko eragiketa baten aurrean gaude baina, funtsean, lanpostuen zerrendaren sailkapena ukitzen duena. Horregatik guztiagatik, informazioa eskatzeko gure idazkian argudiatzen genuenaren ildotik, erakunde honen ustez, udal horrek hasieran onetsi duen LZren aldarazpena negoziatu beharrekoa zen, hau da, horrela 9/1987 Legearen 32.d) artikulua ezarri duen manua bete.

Halaber, eta argudio hau ere behin eta berriz azaldu dugu, langileen ordezkariekin negoziatzearen tramite hori ez betetzea ez da besterik gabe albora uzteko moduko azaleko kontua, Auzitegi Gorenak berak ere esan duen bezala, oinarrizko eskubide bat betearazteari lotuta dagoen tramitea delako eta hori ez egotea deuseztasunari ekiteko ziotzat jotzen da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1.e) artikuluan ezarri denaren ondoretarako.

(...)

...aurrekontu-plantillari buruz onetsi den aldarazpenaren balizko eragina ere aztertu behar dugu, zeren eta gai honek oihartzuna izan baitezake, eta eragin argia izan, Gobernu Batzordearen beharrezko eskumena ez izateari dagokionez.

Lehenbiziko hausnarketa gisa, uste dugu beharrezkoa dela haur eskolen LZ aldarazteak –zalantza barik– aurrekontu-plantillan eragina duela esatea, zeren azken honek, udal horrek igorri duen dokumentazioak erakusten duenez (ezin du bestela izan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen aurreikuspenak kontuan hartuta), lanpostu guztiak talde ezberdinen arabera zehazten edo zerrendatzen baititu, zuzkiduren kopurua eta horietako bakoitzari dagozkion ordainsari osagarriak xehekatuz.

Azpitarratzeko modukoa da, baita, erakunde honen aburuz bereziki adierazgarria dela Kontuhartzailetza Nagusiaren txostenaren hasierako atala, ezik beren beregi ohararazten da *“hori SOIL-SOILIK dagokiola Langileriaren Gastuak deritzon I. kapituluko Gastuen Aurrekontuaren balizko xedemateari.”*

Jarduneko kontuhartzaileak eman dituen azalpenei jarraiki, antza, onetsi den aldarazpena gorabehera, eutsi egiten zaio aurrekontuen egiturari, aurrekontuetako partidei dagokienez, haur eskoletako hezitzaileei doazkien langileria-gastuen

kapituluaren barruan; horrenbestez, ez dago zertan aurrekontu-aldarazpenik egin, kredituak eta berauei dagozkien partidak loturik daudelako eta inola ere ez delako guztirako kredituaren gehikuntzarik eragiten.

Beste alde batetik, Funtzio Publikoaren txostenean egiten den hausnarketak –aurrekontua betearazteko Udal Arauak, langileria-gastuei dagozkien kredituen lotura mailez ari denean, kapitulu mailako lotura izango dela esaten baitu–, badirudienez, berretsi egiten du adostu diren aldarazpenen betearazpen egokia, langileria-gastuen aurrekontu-betearazpenari doakion arlo honetan.

Baina horrez guztiaz gain, ez dirudi aztergai ditugun alderdi hauetan, hau da, LZren aldarazpena gertatuz gero jarraitu beharreko bidearen arloan, ez Kontuhartzaitza Nagusiaren txostenak ez Funtzio Publikoaren azken txosten honen Udalaren jardura berez abalatzten dutenik, zeren, esana dugunez, horrek aurretiaz onetsirik dagoen aurrekontu-plantillaren edukia ukitzen baitu, inolako zalantzarik gabe.

Baldin eta aztertzen badugu Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan jasotzen den arau-petzea, denek aplikazio-arau gisa aipatzen dutena, ikusi ahal izango dugu foru arau honetan ondoan azaltzen diren aurreikuspen hauek biltzen direla:

*9. artikulua. Aurrekontu-burutzapenari buruzko araua*

*Toki erakundearen Aurrekontu Orokorretan betearazpen-arau bat sartuko da, erakundearen antolaketa eta inguruabarrekiko aurrekontu-egokitzapena jasoko duten xedapen orokorrak bilduko dituena; halaber, kudeaketa egokirako behar diren xedapenak ere jasoko ditu, eta gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokitzat eta komenigarritzat jotzen diren aurreneurriak ezarriko ditu, halako moldez non ezin izango baitu administrazio ekonomikoaren arloko legerian xedaturik dagoena aldarazi.*

(...)

*21. artikulua. Langileriaren alorreko kredituak*

*Langileriaren arloko gastuak ordaintzeko kredituak, aurrekontuetako gastuen orrian jasotzen direnak, honelakoak izango dira:*

- a) Toki erakundearen administrazioaren kasuan (...) mugakorrak izango dira, bai kredituaren zenbatekoari dagokionez, bai **plantillari dago-kionez.***

Funtsean, Foru Arau honen aurreikuspenen arabera, onetsi den LZren aldarazpenak ez du eraginik aurrekontuaren arloan, arestian aipatu diren txostenetan aztertu den esparru ekonomikoan (kontuhartzaitza eta funtzio publikoa) alegia. Aitzitik, aurrekontu-plantillan duten eragina baloratzera behartzen gaituzte, baldin eta arlo horretan ere duten izaera mugakorra kontuan hartzen badugu.

Udalak behin eta berriro ohartarazten du –bereziki Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak paratu duen txostenean– ezen aurrekontua betearazteko Udal Arauaren, Ogasun Arloko zinegotziaren Ebazpenaren bidez 2003ko urtarrilaren 21ean onetsi denaren, arabera, langileria-gastuen izaera loteslea eremu ekonomikora mugatzen dela soil-soilik, eta beraz, plantillaren izaera mugakorra (arestion aipatu dugun foru arauan jasotzen dena) saihestu nahi dela ematen du, administrazio ekonomikoaren alorreko legerian ezarrita dagoena ukituko ez balu bezala.

Hala ere, erakunde honen aburuz, planteamendu horrek ezin du aurrera egin, ezik ezin daiteke bazter batera utzi toki gobernua eguneratzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legean xedaturik dagoen eskumen araubidea, araubide honen arabera Osoko Bilkurari esleitzen baitzaio langileria-plantillaren onespena.

Beste hitz batzuekin esanda, aurrekontua betearazteko udal arauan plantillaren izaera mugakorrari buruzko aurreikuspen zehatzik ez izateak ez du esan nahi toki araubideari buruzko oinarritzko arautegian xedaturik dagoen eskumen araubidea bazter utzi behar denik.”

#### • Emaizta

Erakunde honek Gasteizko Udalari gomendio bat egin behar ziola erabaki zuen, 23/2004 gomendioa, urriaren 19koa; hona hemen testua:

- “1. Gasteizko Udalaren haur eskoletako zerbitzuaren antolamendu berria zerotik hiru urtera arteko haurren eskolak araupetu dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuan aurreikusirik dauden beharkizunei eta gutxieneko baldintzei edo inoizkotan xedapen hau ordeztuko duen arautegiko ezarpenei doitu beharko zaie.
2. Berrantolamendu horren ondorioz egin beharrekotzat jotzen den LZren onespene egokiak formalitate guztiak jagon beharko ditu, hau da, lanpostuen sailkapenari dagozkion alderdi guztiak langileen ordezkariekin negoziatu beharko dira, herri administrazioen zerbitzura dauden langileen ordezkariak eta beraien lan-baldintzen eta partaidetzaren ezarpenari buruzko 9/1987 Legearen 32 d) artikuluan xedaturik dagoenaren eredura, lanpostuen sailkapenari dagokionez.  
Era berean, Korporazioaren Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontu-plantillarekiko korrespondentzia edo elkarrekikotasuna izan beharko du, toki gobernua eguneratzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen araupetze berriaren arabera.
3. Anartean, lanpostuen zerrenda (LZ) aldarazteko erabakia, 2004ko uztailaren 30eko Gobernu Batzordeak onetsi duena, arestion aipatu ditugun alderdi formalak bazter batera uzteagatik deuseza denez, hau da, lanpostuen sailkapenari dagozkion alderdiak langileen ordezkariekin ez negoziatzeagatik eta, manuzkoa denez, aurrekontu-plantilla aldarazteko Korporazioaren Osoko Bilkuran parte hartu ez izateagatik erabaki hori deuseza denez:
  - 3.1. Ondoriorik gabe utzi behar dira data horretan agindu ziren lanpostu utzarazteak eta berraxikitzeak.

- 3.2. Horrek guztiak haur hezkuntzako teknikariak kontratatzeko zerrenda berrian izan dezakeen eragina baloratu beharko da.
- 3.3. Horrek guztiak 2004-2005. ikasturte honetarako langile sartu berrien izendapenetan izan dezakeen eragina ere baloratu beharko da.”

Hori egin eta gero, jakin genuen hainbat erakunde sindikalek Udalak hartutako erabakiak justizia epaitegietan inpugnatzea erabaki zutela. Horrek gure erakundea sortu eta araupetu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikuluan dioena gogoan hartzea behartu gintuen, eta gure esku-hartzea eteteko agindua eman genuen.

## B) Funtzio publiko orokorra

⇒ *Ordezkapenak. Beste administrazio batek deitutako hautespen probetan parte hartzea kontratazio eskaintza bat ez onartzeko arrazoi justifikatutzat jo (1246/2002)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Udalaren aldi baterako kontratazio zerrendetan interesatua zegoen emakume batek erakunde honetara jo zuen, udal horrek ez baitzuen arrazoi justifikatutzat jo nahi beste administrazio publiko batean sartzeko iragarri ziren hautespen-proba batzuetara joan eta parte hartzea, lan-eskaintza zehatz bat ez onartzeagatik zerrendetan aldi baterako baja eragozteko.

- Azterketa

Guztiok ezagutzen dugu bitarteko funtzionarioen trataeran izan den bilakaera, karrerako funtzionarioekin ahalik eta gehien parekatzeko asmoz, nahiz eta Estatuko Funtzionario Zibilen atalkako Legeak, 105. artikuluan (315/1964 Dekretua, otsailaren 7koa) jada ezarria zuen karrerako funtzionarioen araubide orokorra –kidetasunagatik– bitarteko funtzionarioei ezar dakiekeela, kasu bakar batean izan ezik: araubide hori bitarteko funtzionarioen izaerarekin (aldi baterakoa edo behin behinekoa) bat ez datorenean.

Horren gainean, azpimarragarriak dira Konstituzio Auzitegiak oraindik orain egin-dako adierazpenak. Hasteko, abiapuntu moduan, zera dio: zerbitzua berehala eskaintzeko interes publikoak justifika dezakeela, balizko kasu batean, administrazioaren langile egonkorrei eta bitartekoei tratu ezberdina ematea; baina gero, argiro adierazten du tratu desberdin horrek indarra galtzen duela, baldin eta, berori justifikatzeko arrazoi bakartzat, bitarteko funtzionarioek berezko duten funtzionario-harremana aldi batekoa edo behin-behinekoa dela aipatzen bada, beste arrazoi objektibo eta zentzuzkorik erantsi gabe, eta horrek berdintasun printzipioa urratzen edo hausten duela (RTC 2000, 203).

Bestalde, interesatuak adierazi zuen nekez erantzun ziezaiokeela Gasteizko Udalak eskaini zion aldi baterako beharrari, beste administrazio batek iragarritako hautespen-probetan parte hartu nahi baitzuen. Lehen egintza horrek eragin zituen, egiaz, espediente honetan eztabaidatzen ari garen geroko jarduerak.

Horrela, egintza hori kexa hau arrazoitu eta azaltzen duena dela onartzen badugu, eta, aldi berean, aurreko atalean aipatu dugun bilakaera kontuan hartzen badugu,

ezinbestean eta berehala ondorioztatzen dugu Gasteizko Udalak gauza bakar bat aztertu behar zuela interesatuak azaldutako beharrari erantzuterakoan: tokiko administrazioaren-tzat lanean dabilzan eta une jakin batean beste administrazio publiko batean sartzeko hautespen-probetara joan behar duten gainontzeko karrerako funtzionarioekin izaten den jokabidea kasu honetara ere heda zitekeen ala ez.

Hain zuzen, kexa bideratzean sarritan aipatu dugunez, halako beharrak benetan kudeatzeari dagokionez, gauza jakina da uneotan –norberaren aferengatiko baimenek eman dezaketen babes orokorraz haratago– lan-baldintzak arautzeko zenbait hitzarmenetan honako hau adierazten ari dela, batzuetan berariaz gainera: administrazio eta erakunde publikoetako kidego eta eskaletan sartzeko deialdietan aurreikusitako hautespen-probak egin daitezkeela, eta proba horiek egitea baimenak emateko arrazoi nahikoa dela.

Alabaina, interesatu honi egin zioten kontratazio eskaintza zehatzean (plaza bat aldi baterako betetzea, 3 egunez hain justu) justifikatuta egon daiteke, eta halaxe onartu dugu, beste administrazio eta erakunde publikoetan sartzeko hautespen-probak egiteko baimena izateko aukera ukatzea, oso denbora laburrerako eskaintza delako, hain zuzen ere.

Kasu honetan, langile egonkorra goei (iraupen luzeagoko kontratuak dituzten karre-rako edo bitarteko funtzionarioei) emandako tratu desberdinak badu azalpen objektibo eta arrazoizkoa, izan ere, udal horrek ezin du baztertu aldi baterako dituen beharren kudeaketa eraginkorra, baldin eta, aldi berean, gutxieneko kalitatea duen zerbitzu bat bermatu nahi badu.

Haatik, hori onarturik, baina kontuan izanik balizko kontratazio-eskaintza bateratzeak –aldi baterako kontratazioko zerrendak kudeatzeari buruzko araudian eza-rritakoa betetzeagatik– azkenean zer-nolako ondorioak izan ditzakeen, erakunde honen ustez beste modu batean tratatu behar da, nahitaez, interesatuak azaldu duen premia, ez administrazio horrek proposaturiko moduan.

Horrela, aldi baterako kontratazioko zerrendak kudeatzeko araudiak, aldi baterako baja aipatzean (aldi horretan ez da kontratazio edo izendapen berririk eskaintzen) hauxe ezartzen du: egoera hori interesatuak berak hala eskatu izanaren ondorio izan daitekeela –denbora mugarik gabe eta berriro alta hartu arte–, edota lan-eskaintza bat lehenengo aldiz ez onartu izanaren ondorio. Azken kasu horretan, baja egoera hiru hilabetez luzatzen da. Hala ere, justifika daitezkeen arrazoi gisa onartzen dira, besteak beste, aurreikusteko modukoak ez diren norberaren zertzeladak, behar bezala egiaztatutakoak.

Kexa bideratzean, interesatuaren kasua zergatik ez duen ukapen justifikatutzat jo zuzitzen ahalegindu da Gasteizko Udala, hain zuzen, interesatua borondatezko baja egoeran sar zitekeela argudiatuz.

Egiazki, kontratazio zerrenden erregulazioak balizko kontratazioei uko egiteko auke-  
ra ematen die interesatuei, horrela etorkizunean ondorio kaltegarriak eragotziz, baldin eta interesatuak etorkizuneko gertakariei aurrea hartzeko gai badira, eta izan ditzaketen kontratazio eskaintzak ziur aski bere gain hartzerik izango ez dutela uste badute.

Dena den, gure hasierako azalpenaren hariari berriro heltzen badiogu, onartu beharra dago zerrenden oraingo erregulazioak eskaintzen duen bide hori (borondatezko ukapena, alegia) ezin dela ezkutuan eta zeharka erabili udal horren ukapena justifikatzen ahalegintzeko (izan ere, aldi baterako kontratazioko zerrendak interesatzen zaizkien eta beste administrazio batek iragarritako hautespen-probetara joan behar duten hautagaiei, udal horrek ez baitie eman nahi gainontzeko langile egonkorrei ematen dien tratu bera).

Gainera, bitarteko funtzionarioei ematen zaien tratua ikusirik, Estatuko Funtzionario Zibilen atalkako Legeak 105. artikuluan egindako aurreikuspenak betetzeko nabaritu den eboluzioaren arabera, funtzionario horiek uste zuten, bidezkoa zenez, beraiek ere antzeko tratua jasoko zutela.

Orduan, laburbilduz, erakunde honen iritziz, aldi baterako kontratazioko zerrendetan interesatuta dagoen norbaitek beste administrazio batek iragarritako hautespen probetara joan behar duenean, udal horrek gainontzeko funtzionarioei ematen dien tratua bera eman behar dio.

Tratua bera ematerik ez badago eta, betiere, berdintasun printzipioa urratzea saihestuko duen justifikazio objektibo eta arrazoizkoa tartean bada, zertzelada hori (probetara joatea) balizko kontratazio eskaintza bati uko egiteko arrazoi justifikatuzat jo beharko da.

Interesatuari ez zaio inolaz ere zigorrik ipiniko zertzelada horri aurrea hartu ez diolako eta borondatezko baja eskatu ez duelako, izan ere, administrazioak arrazoi horren bidez justifikatu nahi izan du interesatua hiru hilabetez baja egoeran egongo dela adierazi izana.

- Emaizta

Ildo horretatik zihoan gomendioa egin zitzaion Gasteizko Udalari (4/2004 Gomendioa, otsailaren 5ekoa).

Funtzio Publikoko Sailaren Zuzendariak gomendio honi erantzuteko egin zuen txostenean ez zen erakunde honek aipatutako arrazoibide juridikoak baloratzen sartu, eta Aldi Baterako Kontratazioen Zerrendak kudeatzeko Batzordeak erabakitakoa berrestera mugatu zen, ordezkapenak egiteko izangaiak baimenak emateko erregimenaren mende ez daudela baietsiz (oker dago horretan, gure iritziz).

Alabaina, tokiko administrazio hori behin eta berriz gure eskariei jaramon egitera ukatu zenez, esku hartzeko gure ahalbideak agortuzat jo behar izan genituen.

⇒ *Peoi postuetarako aldi baterako lanpostuak betetzea. Diskriminazioa sexu arrazoiengatik (4/2004OF)*

- Erreklamazioa

Erakunde honek zenbait hedabidetan argitaratu ziren albisteen bidez Gorlizeko Udalak peoi postuen beharrak hornitu edo asetzeko gizonetako hautagaiak kontratatzea lehenesteko hartu zuen erabakiaren berri izan zuen.

Albisteeek ziotenez, Udalak, antza, zereginak izangaien arabera nolabait banatzera jotzeko asmoa zuen eta, hartara, emakumeak errazago sar zitezkeen garbiketa edota lorezaintza lanpostuetara eta peoi lanpostuetarako, ordea, ahalegin fisiko handiagoa behar denez, gizonetakoak lehenetsiko lirakeke.

Nolanahi ere, erabakiak, itxuraz, Udaleko obra lantaldean aldi batez betetzeko sor litezkeen beharrianak asetzeko lan burtsetan sartuta zeuden izangaiak ukitzen ziren.

- Azterketa

Erakunde honen ustez, esandako aurrekari horiek baiestekotan, garbi zegoen jokabide hura –aurrez pentsatutako jarrera sexisten ondorio– ez zetorrela bat, inondik

inora, konstituzioak espresuki agintzen duen bezala, enplegu publiko guztietara sartu ahal izatearen oinarrian behar diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin.

Aitzitik, diferentzia horiek, izangaien sexuaren arabera jarrita zeudenez, sexuaren ondoriozko bereizkeria zegoelako salaketari funts osoa ematen zioten.

Horregatik, ofiziozko espedientea abiarazi eta herri horretako Alkatearengana jo genuen, Udalak aldi baterako behar horiek asetzeko baliatzen dituen irizpideak azalduz txostena helaraz ziezagun eta, batez ere, hedabideetan sexuaren ondorioz bereizkeriarik izan litekeela-eta agertu zen salaketa kontuan har zezaten eskatuz.

- Emaidza

Gure esku-hartzeari erantzunez, Gorlizeko Alkateak egindako akatsa aitortu eta onartu zuen. Baietsi zigun, gainera, zerrendak kudeatzeko sisteman, gerorako ordezkapenei zegokienez, behar ziren aldarazpenak egiteko asmoa zuela, ofiziozko jarduera hau eragin zuena bezalakorik berriro gerta zedin ekiditeko.

⇒ *Lanaldi murrizketa. Familia eta lan ardurak uztartzea (428/2004)*

- Erreklamazioa

Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen (GOFE) zerbitzuko emakume langile batek erakunde honi esku hartzeko eskatu zion, alaba zaindu eta familia eta laneko ardurak uztartu nahi zituenez, proposatu zuen lanaldi murrizketa onar ziezaioten lortzeko. Txandak tartekatu nahi zituen, goizeko eta gaueko txandetan arituz, baina arratsaldeko txandarik egin gabe, horixe zen bere proposamena.

- Azterketa

Lehenengo informazio eskaria egin ondoren, GOFeko zuzendari gerenteak esan zuen ez zeukala gaueko txandak tartekatuz banatzeko eragozpenik:

*“Zehazki, gaueko txandak tartekatuta banatzen badira (ez ohi da arazorik izaten horretarako), plazaren jabe den karrerako funtzionarioak lanaldia gau erdian buka ez dezan eta, aldi berean, murrizketaren denboran hura ordeztan duen bitarteko funtzionarioak lanaldia pertsona baten bizitzarako ezorduak diren orduetan hasi behar ez izan ez dezan izaten da. Garbi dago halakoetan txandakatzeak bi funtzionarioen bizitza kalitatea hobetzen duela, gaukotasuna edozein langilerentzat jada dena baino deserosoagoa izan ez dadin saihestuz, eta plazaren jabeak lanaldia murrizteko duen eskubidea kaltetu barik”.*

Eguneko txandak tartekatu ahal izateari dagokionez, ordea, aurka zegoela esan zuen, batez ere bi argudioz baliatuz: urgazpen kontuen gainekoak batzuk, eta aldi baterako langile berriak kontratatatu edo izendatzeari buruz besteak.

Izan ere, hara zer esan zuen zuzendari gerenteak, lehenengoan gainean:

*“...nahasmena sortzen du, nolabait, zerbitzua antolatzeako orduan; kalte egiten dio egoitzetan erreferente diren funtzionarioen presentziak moldatzean ahalik eta erregularren izateari. Ez dugu ahaztu behar ezgaituentzako egoitzak erabiltzaileentzat benetako etxe izan daitezen pentsatuta daudela,*



*eta horrek ahalik eta barruko ordenarik egonkorrena mantentzea eskatzen duela, pertsona horiek, erreferentzia gisa dituzten sostenguko langileei esker, autonomia eta segurtasuna izan dezaten.”*

Bestalde, aldi baterako langile berriak kontratatu edo izendatzeari dagokionez, hara zer esan zuen zuzendari gerenteak:

*“...ez dugu ahaztu behar eguneko txandetarako tartekatzearen formula onartzeak aldi baterako enplegua are prekarioago bihurtuko lukeela: lanaldia modu irregularragoan banatzea bitarteko funtzionarioen kalterako litzateke, eta karrerako funtzionarioek, ordea, egutegi egonkorrak eta astean zehar banatutakoak izaten segituko lukete. Ez dirudi zentzuzkoa denik bitarteko langileak karrerako langileei, kartara ari diren langileak baliran, banan-banan komeni zaien guztia asetzeko erabiltzea, nahi horiek onargarriak izan arren, are gehiago komenigarritasun zehatz horiek legedian espresuki babestuta ez daudenean.”*

Horrek guztiak inplikaturako alderdi guztien eskubideen eta interesen artean oreka bilatzea komeni zela pentsarazi zion nagusiari. Horixe da, hain zuzen, bere iritziz, Pertsona Ezgaituen Arlo Teknikoan esandako irizpide horiek aplikatzean egiten ari direna.

Gure erakundearen iritziz, ordea, erabilitako argudio horiek ez dira GOFEk dioen bezain behin betikoak edo erabakigarriak.

Hartara, urgazpenezkoak izan litezkeen arrazoiei dagokienez, eta onartuz, nola ez, barruko ordena ahalik eta egonkorren mantendu behar dela, egoiliarrek gero eta autonomia eta segurtasun handiagoak izan ditzaten, erakunde honek ez du ulertzen, ordea, azkeneko zein ondoriotan oinarrituz esan daitekeen sostenguko presentziak egun-txanda berberen barruko ordu tarteen arabera antolatzen direnean erregularragoak direla, txanda jarraituak tartekatzea proposatzen denean baino.

Izan ere, gure ikuspegitik, lanak txanda sistemaren arabera antolatzen direnean izan ohi diren lan kartelera edo egutegiak zelakoak diren ikusita, GOFEk defendatzen duen antolaketa moduak izan lezakeen abantaila bakarra ezarrita dauden eguneroko txandak partekatzerara behartuta dauden profesionalak sarriago egon daitezten berrmatzea litzateke, baina horrek beste eragozpen bat eransten du, txanda berean egoiliarrek erreferentziazko sostengu-langile gehiago izango dutela, alegia. Ingurumari horrek, gure iritziz, ez du barruko ordena egonkorragoa izan dadin lortzen laguntzen, eta ez dugu ahaztu behar horixe dela, hain zuzen, erakundeak defendatzen duen azkeneko helburua.

Bestalde, kexagileak planteatzen zuen proposamenarekin, egoiliarrek sostenguko langilea, egoiliarrentzakoa, intentsibokiago baina ez hain maiz izango lukete, baina errealitate hori hala izaten da sostenguko langile guztien biraka edo tartekako presentzia dakarren txanda sisteman ere.

Bestalde, lehen ere esan dugunez, GOFeko zuzendari gerenteak bidali zigun erantzunean, aldi baterako enpleguaren prekarizazio handiagoa hizpide eta argudio modura baliatzen zen.

Horretaz, gaueko txandak tartekatuta banatzea justifikatzeko argudioak benetan zentzuzkoak dira, gure iritziz, eztabaidatzen zailak diren motibo objektiboak ematen direlako.

Alabaina, ez gatoz bat eguneko txandak tartekatze formula onartzeak bitarteko langileei ekar liezaiekeen penalizazioarekin, ondo azaldu gabeko baiespina izan ez eze, oso kategorikoki ere formulatu baita. Alde horretatik, interesatuak eguneko txandak tartekatzea bere familia beharizanetara ondoen moldatzen den sistema dela defendatzen duen moduan, ez da zaila imajinatzea sistema berak mesede egin liezaiokeen beste bitarteko edo ordezeko enplegatuturik egon litekeenik. Ez dugu uste proposatutakoa bezalako txanda sistema bat ezartzea aldi baterako enpleguaren prekarizazioaren ikuspegitik hartu behar denik eta, bai, ordea, ordezeko langileentzat ere antolatzeke modu malguagoak bideratzeko moduaren ikuspegitik. Ez dugu bistatik galdu behar, gainera, aldi baterako langile berrien kontratazioa edo izendapena azaldu eta justifikatzen duen aurrekaria, hain zuzen, une jakin batean lizentzia eta baimen jakin batzuek gozatzea erabakitzen duten langileak ordeztu behar izaten direla dela. Horregatik, aldi baterako langileen kontratazio baldintzak lizentzia eta baimen horiez zein terminotan gozatzen den arabera finkatzen dira, baina horrek ez du kalte edo penalizaziozko tratutzat har dadin ekarri behar.

- Emaizta

Gogoeta horiek ikusita, erakunde honek GOFEk proposatutako murrizketa ezestera bultzatu zuten argudioak birpentsatu behar zituela ondorioztatu zuen.

Halako eskari bat zuzendu zion Arabako Gizarte Ongizateko foru diputatuari, 2004ko abuztuaren 10ean. Txosten hau amaitzen ari garela, eta eskariaren ostean ere hirutan zuzendu gataizkion arren, irailaren 22an, urriaren 28an eta abenduaren 2an, hurrenez hurren, oraindik ez dugu GOFEn inolako erantzunik jaso.

GOFE laguntzeko prest ez dagoenez, interesatuari erakunde honen esku-hartzea eskatzera bultzatu zuten uztartze premiak egokiro ase ahal izatea eragozten ari zaio.

⇒ *LANGAI. Hizkuntz Normalizazioko teknikari lanpostua katalogatzea (531/2004)*

- Erreklamazioa

EAEko udal batek LANGAIrengana jo behar izan zuen behar zituen hizkuntz normalizazioko teknikari ertainez hornitzeko.

Halako zerbitzuak emateko interesa zuen emakume batek gure erakundearengana jo zuen, enplegu zerbitzu horrek ez zuelako enplegu eskatzaileen hizkuntz gaitasunei buruzko datuak kontuan hartzeko tratamendu informatiko egokirik salatzeke.

Ondorioz, zerbitzu hura Euskal Filologian lizentziatutako izangaiak proposatzera mugatu zen, halako postuetarako haiek bezain gaituak ziren beste izangai batzuk alboratuta.

- Azterketa

Zegokion jarduera abiarazi ondoren, hara zer jakinarazi zion Egailan-eko zuzendari gerenteak gure erakundeari:

*“Hizkuntz eskakizuna, pertsona batek Euskal Administrazio Publikoetan lanpostu bat betetzeko duen hizkuntz gaitasunaren definizioa da, Euskal*

*Funtzio Publikoari buruzko Legearen V. Tituluan adierazita dagoen bezalaxe, eta gaitasun maila honekin zerikusia duen gutzia HAEEk bakarrik kudeatzen du. Administrazio Publikoko lanpostuetara iristeko sistemaren berezitasuna kontuan izanik, bertako lanpostuetarako eskaintzak ez zaizkigu LANGAI - Euskal Enplegu Zerbitzura etortzen hemendik kudeatzeko; beraz, ez genuen lan-eskaintzei buruzko datuen artean informazio hori bereziki sartzeko aukerarik ikusi.*

*Edonola ere, gogoan hartu dugu azaldu diguzun kexa, eta lau ziurtagiri profesional sortu ondoren, hizkuntz eskakizunei buruzko informazioa lan-eskaintzen datuei eranstea aukera emateko konpromisoa hartu dugu. Ziurtagiri horietako bakoitza orain diren lau hizkuntz eskakizunetariko banari egokituko zaio eta datorren uztailaren 31tik aurrera izango dira guztiak erabilgarri.”*

Hauxe ere adierazi zuen:

*“Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan, Lanbideen Sailkapen Nazionala erabiltzen dugu gure zerbitzuko lan-eskatzailleak hautagai izan daitezkeeneko lanpostu-mota desberdinak katalogatzeko. Sailkapen hori lanbideak gainerako autonomia-erkidegoekin homogeneizatzeko erabiltzen da, haien enplegu-zerbitzuekin lankidetzan aritu ahal izateko, hala badagokio.*

*Hizkuntza-normalizazioko teknikariaren lanbidea autonomia-erkidego batzuetako berezitasuna denez, sailkapen horretan ez da jasotzen aipatutako lanbidea.*

*Nolanahi ere, Estatuko eta gainontzeko autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoen iritziz aipatutako lanbidea taula horretan sartu beharra dagoenez, Euskal Enplegu Zerbitzuak adierazitako lanbidea zehazteko konpromisoa hartu du, profila eta lanbide-fitxa direla. EGAILAN dagoeneko harremanetan jarri da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin, beharrezko informazioa biltzearen.”*

- Emaizta

LANGAI enplegu zerbitzua mendean daukan Egailan-eko arduradunaren erreakzio onak, enplegu eskatzaileen hizkuntz gaitasuna kontuan hartzeari buruzko alderdi zehatzari zegokionez, kexaren arazoa gaindituta zegoela ondorioztatu zigen.

⇒ Sartzeko hautaprotetan parte hartzea eta ezgaituentzat gordetako plazak (607/2004)

- Erreklamazioa

Erakunde honetan kexa idatzi bat jaso genuen, EAEko udalak administrari laguntzaile plazak hornitzeko argitara emandako deialdi bati zegokionez.

Zehazki, kexa epaimahaiaren proposamenari eta lanpostuen adjudikazioari buruzko deialdiaren oinarriari buruzkoa zen.

Hara nolakoak behar zuten, oinarriaren arabera, kalifikazio epaimahaiak prestatu behar zituen zerrendak:

*“1. zerrenda. Txanda murriztuko izangaiak. Puntuaziorik handieneko oposizio-gileak lehentasuna izango du eskainitako bost postuen artean aukeratzeko.*

*2. zerrenda. Ezinduen txandako izangaiak. Lanpostura sar daitezten errazteko, puntuaziorik handieneko izangaiak lehentasuna izango du zerrenda orokorrekoen aldean.*

*3. zerrenda. Zerrenda orokorra. Puntuaziorik handiena atera ez duten txanda libreko izangaiak eta txanda murriztuko eta ezinduen txandako izangaiak.”*

Deitutako plazen xehetasunak azaltzen zituen lehenengo oinarriak, ordea, ez zuen zalantzarako tarterik uzten izangaiak txanda bakarrean soilik parte har zezaketela baiestean, barruko sustapenean, txanda librean ala ezinduentzako txandan parte hartu behar zela eskarian zehaztu behar baitzen.

Azkeneko horrek azaltzen zuen egindako kexak, deialdiaren oinarrien ageriko kontraesana azaleratzeaz gain (ez zeukan zentzurik hiru txandetako (barruko sustapena, ezgaituak eta txanda libre) izangaiak bilduko zituen zerrenda orokorrik egiterik, abiapuntuan txanda bakarretik parte hartzeko muga jartzen bazen), aldi berean barruko sustapeneko eta ezgaituentzat gordetako txandetatik parte hartu nahi zuten izangaiak lantokiak puntuazioaren arabera adjudikatzeko aukera ematen zuen hirugarren zerrenda orokorrean ere sartu ahal izatea ere salatzen zuen.

- Azterketa

Ezaguna da administrazio publikoetan langileak hautatzeko legezko sistemaren oinarrian proba librean funtsezko irizpidea dagoela, eta sistema hori dela, gainera, bere zabaltasun subjektiboarengatik, konstituziozko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak ondoen hedatzen dituena. Hala dio, ondo esan ere, Auzitegi Gorenaren 1992ko urtarrilaren 20ko Epaiak (RJ 1992\2467).

Horrek ez du, ordea, printzipio horiek hedapen subjektiboz mugatuagoak diren bideetatik (barruko sustapeneko txanda zein ezgaituentzako aurreikusitako erreserba) joan edo artikulatzen diren enplegu publikoetarako sarreren kasuan urratzen direnik esan nahi.

Baina sarrera mugatuko sistema edo txanda horiek konstituzioarekin bat datoze-lako hasierako gogoeta honetaz harantzago, agerrarazi behar da, erakunde honen iritziz, sistema horiek benetan birtualak izango badira, izangai jakin batzuentzat dakarten plazen erreserba hutsaz gain, lege antolamenduak izangai horiek dauden hautespen prozesuen diseinuari eta eraketari buruz eskaintzen dituen aukera guztiak agortu beharko direla.

Alde horretatik, barruko sustapenaren sistema denean, ez da ahaztu behar legegileak funtzio publikora txanda edo bide horretatik jo nahi dutenentzako ageriko abantailak ematea ebatzi duela, bai hautespen prozesuan zehar, non izangaiak betetzen ari den berezko zereginei, zein jatorrizko multzo edo eskalan sartzeko probetan jakituna

dela erakutsi duen gaiei buruzko azterketak egitetik salbuestea ere gerta daitekeen, bai behin hautespen prozesua amaitu ondoren, lantokiak aukeratzeko orduan lehentasuna emanaz.

Ezgaituentzat gordetako tokiei dagokienez, Ezgaitasunari buruzko Errege Patro-natuak berak, ezgaituek enplegu publikora sartzeaz egindako txostenean, hauxe esan du, ezbairik gabe:

*“Izenak berak argitzen duenez, erresebako kupoko plazak printzipioz estaldura dagokien sarrera sistematik (librea edo barruko sustapena) atera eta, beren borondatez kupo horretan parte hartzeko eskatu eta % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna izanik, hautapen probak gainditzen dituzten izangaiei eskaintzeko “gordetzen” dira.*

- Horrek esan nahi du erresebako kupotik parte hartu duten izangaiek elkarren artean soilik lehiatzen direla –gainerakoekin ez–, lanpostu horiek lortzearren.
- Epaimahaiak edo Batzorde Iraunkorrek hautaprobetako ariketa bakoit-zerako gutxienerako puntuazio absolutua finkatuko du, eta horren azpitik geratzekotan ez da inolako ariketarik gainditzetik izango, edozein siste-matatik parte hartuta ere.
- Epaimahaiak edo Batzorde Iraunkorrek gutxienerako puntuazio absolutua jarri izanak ez du esan nahi dena delako ariketa gainditzeko mugako puntuazioak sarrera sistema guztietan berdina izan behar duenik, zeren eta bakoitzak bere plazak eta bere partaide-muga baitaizka.
- Gordetako plazen kupotik parte hartzeak, nolana ere, horretan parte hartzen duten lehiakideek probetako ariketa bakoitza Epaimahai edo Batzorde Iraunkorrek ariketa bakoitzean kupo horretarako finkatu duen gutxienerako puntuazioa lortuz gainditu behar dutela esan nahi du. Ondorioz, gordetako plazen kupoak ez die hortik jotzen dutenei, plaza horiek, “berez”, betetzeko eskubiderik ematen, zer-nolako jakintza, gaitasun edo trebezia maila duten begiratu barik. Baina, ezgaituentzako gordetako ku-potik parte hartzen dutenentzat muga-puntuazio bat finkatzean, halaber, izangai horiek hautespen prozesuko ariketa bakoitza gainerako sistemetan (librea, edo barruko sustapeneko) gainditzeko jarritako puntuazioez bes-telakoekin gainditu ahalko dute, beraien artean lehiarik ez badago, eta beren muga puntuazioa gutxienerako puntuazio absolutua baino txikiagoa ez bada, jakina.”

Gauzak horrela, eta lege antolamenduak sarrera murriztuko sistema hauek dituzten helburuak izatez bete daitezen sendotu eta ziurtatzeko ahaleginean (ezgaituentzako aukera berdinak izatea sustatzea eta funtzionarioak lanaren bidez sustatzea) eskaintzen dituen egiazko ahalbideak kontuan izanda, ez gaitu harritu behar, gure ustez, sarrera deialdietan eskuartean dugun kexa eragin duen deialdiaren lehenengo oinarrian ezartzen dena beza-lako aurreikuspenak sartzera erabaki izana. Oinarri hori sendoki baiesten du “izangaiek txanda bakarrean soilik parte hartu ahalko dutela, barruko sustapenean, txanda librean ala ezinduentzako txandan, eta hala agerrarazi beharko dutela eskarian”.

Gure ikuspegitik, zentzuzko dirudi sarrera murriztuko sistema horiek eskaintzen dituzten ahalbideak agortzeko asmoarekin batera, kontrapartida modura, txanda edo sarrera sistema bakarretik parte hartzeko muga ezartzea, baina egia da, halaber, hautespen prozesu askotan egiten dena eta gertatzen denak, kexa eragin duen prozesuan bezala (non izangai guztiek, edozein txandatakoak izanik ere, proba eta balorazio irizpide berberen mende jarri behar baitute), sarrera murriztuko sistema horien abiapuntuan eskaintzen dituzten ahalmenei birtualtasun gutzia erabat galarazten diete.

- Emaizta

Erakunde honek arestiko gogoeta horiek guztiak helarazi zizkion zegokion udalari eta, nolana ere, igarritako kontraesana berriro bideratu behar zela planteatu zioten.

Erantzunean, Udalak jakinarazi zigon deialdiaren oinarri administrazioarekiko auzi bideko errekurtsioa jarri zietela, eta ohartarazi zigon gure erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua dioenez; artikulua horretan, hain zuzen, interesatuak justizia auzitegietan salaketa edo errekurtsio bat jartzen duenean Arartekoa bere jarduna etetera behartuta dagoela dio.

Dena dela, hauxe ere jakinarazi zigon: *“deialdiaren lehenengo eta bederatzigarren oinarrietan kontraesanean izan litekeena ongitzen saiatzeko zuen proposamenarekin bat etorriz, Administrazio honek lehenengo oinarria aldatuko du, eskarian izangaiek zein txandatan parte hartuko duten aipua txanda murriztukoentzat eta langile ezinduentzat gordetako plazak adjudikatuzko kontuan hartuko dela argitzeko. Gainerako plazak puntuaketaren ordenari adituz adjudikatuko dira, zein txandatatik datozen berdin izango delarik.”*

### C) Poliziaren alorreko funtzio publikoa

⇒ *Udaltzainen plazak hornitzeko hautaprobak (161/2004)*

- Erreklamazioa

Gasteizko Udalak udaltzainen lanpostuak hornitzeko iragarritako hautaprobetan parte hartu zuten batzuek (deialdia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2003ko apirilaren 30ean, 49 zenbakian), gure erakundearengana jo zuten esku har genezan eta kalifikazio epaimahaiak oposizioaren faseko laugarren ariketari buruz (nortasun probak) hartutako erabakiak berrius zitezen eskatuz.

Zehazki interesatu hauek zalantza jartzen zuten kalifikazio epaimahaiak 4.4. be- rariazko oinarria aplikatu zuten modua; oinarri horretan, nortasun probei zegokienez, nahitaezkoak eta kanporatzaileak izango zirela, eta nortasunaren ezaugarri orokorrak, harremanetarako trebetasunak, egoeretan moldatzeko erraztasuna, talde lanerako gaitasuna, hitz jarria, eta abar ebaluatuko zituztela zioen; ohartarazten zen, espresuki, aurrez aurreko elkarrizketa bat edota talde dinamikako ariketaren bat sartuko zirela.

Oposizio gile horien iritziz, epaimahaiak izangaien behin betiko balorazioa, gai ala ez gai kalifikatuz, egindako nortasun probei soilik adituz egiteko, ondorengo aurrez aurreko elkarrizketarik izateko aukerarik eskaini gabe, hartu zuten erabakiak oinarri horretan zioena argi eta garbi urratzea zekarren.

Era berean, izangaien ustez, gainera, proba ondo eratu gabe zegoen, eta epaimahaiak zuzenketarako izan zituen irizpideak ere ez ziren egokiak izan, probaren amaierako helburua balizko izangaien gaitasuna eta merezimendua baloratzea izan behar zela kontuan izanik, baina horretarako udaltzain zereginak zuzenki eta egokiro betetzeko behar diren profilei soilik aditu behar zitzaie.

Bestalde, interesatu hauek proba horien edukiari buruz izandako filtrazioak ere azpimarratu zituzten, hedabideetan oihartzun berezia izan zutelako.

- Azterketa

Oposiziogile talde honek aurkeztutako kexa aztertu ondoren ondorioen txostena egin genuen; hona hemen txostenaren edukia:

“...jorratuko dut nire ikuspegitik kexaren muina dena: kalifikazio epaimahaiak deialdiaren oinarriak bete ez omen dituelako salaketa, alegia. Nire ustez, azalpenak ematen hasteko, onena jurisprudenziazko dotrina ezagun eta sendo bat aipatzea litzateke; dotrina hori, gainera, arauetan, xedapen desberdinetan jasota dago, besteak beste, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatuko Administrazio Langilerian Sartzeko, eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionarioen Lanpostuen Hornidurarako eta Sustapen Profesionalerako Arautegi Orokorreko 15.4 artikuluan.

Hautespenezko prozesuaren deialdiaren oinarriak prozesu horien tramitazioa eta ebazpena mende hartu behar dituzten benetako legea direna dioen dotrinaz ari naiz; beraz, behin oinarri horiek sendoak eta baietsiak direnean, Administrazioa eta probak baloratzeke arduraren epaimahaiak berdinduz lotzen dituzte, baita prozesu horietan parte hartzen duten izangaiak ere, jakina.

Egia da, ordea, epaimahaiak eta hautapeneko gainerako organoek deialdiaren oinarrietan esandakoarekin duten loturak ez diela, beren zereginak betetzen ari direnean, zuzenki tekniko gaitasunik kentzen, ez eta horien aplikazioak eskatzen dien interpretazio gaitasunik ere, baina garbi utzita gaitasun horiek ere ezin dutela oinarri horien balizko aldarazpenik inola ere babestu.

Bidezkora da, beraz, Gasteizko Udalak hutsik zeuden udaltzain tokiak betetzeko onetsitako oinarrien edukia aztertzeko denbora har dezagun, bereziki oposizioaren fasearen leugarren ariketa modura jasotako nortasun proben dagokienez, baita kalifikazio epaimahaiak proba horietan buruz izan litzakeen gaitasunei dagokienez ere, zuek diozuen moduan, zalantzan jarritako gorabehera horiek deialdiaren oinarriak urratu dituzten ala ez zehaztu nahi badugu.

Alde horretatik, udaltzain kategoriara sartzeko deialdiaren leugarren berariazko oinarriaren edukiari aditu behar diogu; hara zer dioen:

*‘Leugarren ariketa: Nortasun probak. Nahitaezkoak eta kanporatzaileak. Nortasunaren ezaugarri orokorrak, harremanetarako trebetasunak, egoeretan moldatzeko erraztasuna, talde lanerako gaitasuna, hitz jarria, eta abar ebaluatzeke dira. Aurrez aurreko elkarrizketa bat edota talde dinamikako ariketaren bat sartuko da. Gehienez 20 punturen gainean baloratuko da; gutxienez 10 atera behar dira ariketa gainditzeko.’*

Era berean, Udaltzaingo Zerbitzuan hutsik dauden tokiak betetzeko hautespenezko prozesuaren oinarri orokorretan seigarrena ere kontuan hartu behar dugu; oinarri

horrek espresuki ohartarazten du “Epaimahaiak arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak ebartziko ditu, baita aurreikusitako ez diren kasuetan zer egin behar den ere”; horrela, epaimahaiari deialdiaren oinarriak izatez bete daitezkeen ziurtatzeko aukera ematen dion autonomia funtzionala aitortzen zaio, hautespen prozesuaren azkeneko arduradun modura.

Nire iritziz, oraintxe aipatu ditudan aurrekari horiek aztertzeak agerian uzten du udaltzain kategoriarantz sartzeko deialdiaren laugarren oinarrian jasotako arauketa oso generikoa dela; garapena beharko luke, eta garapen hori egitea, oinarriek beraiek diotenez, epaimahaiari dagokio. Izan ere, oinarri horrek ez du zehazten zein diren izangaiak egin behar zaizkien nortasun proba zehatzak –aurrez aurreko elkarrizketa edota talde dinamikako ariketa horien artean sar litezkeela baino ez dio–, eta ez du, halaber, bakoitzari zein zuzenketa edo balorazio irizpide zehatz aplikatuko zaion ere argitzen; proba, multzoan, kanporatzailea dela baino ez du ohartarazten.

Aurrera egin baino lehen ñabardura berria sartu behar dela uste dut. Nire iduriko, eta uste dut zuzen nabilela, zuek ez duzue kalifikazio epaimahaiak udaltzaintzako berariazko deialdi honetan aurreikusitako nortasun probak nola eratu diren eta zer eduki eman zaion (bost nortasun galdesorta euskarri informatikoan, on line egiteko, eta aurrez aurreko elkarrizketa) zalantzan jartzeko asmorik. Horregatik, zuen baime-narekin, baietsiko dut zuek ere deialdiaren oinarriak alde horretatik nahikoa arautu ez direla onartzen duzuela, baita epaimahaiaren erabakiak hautespen prozesua ondo gara dadin dituen irizpen libreko ahalmenen emaitza direla ere.

Nire iritziz, zuen desadostasunak, benetan, epaimahaiak erabakitako zuzenketa irizpideetan zentratzen dira, eta zehazki zein puntu edo alderdirekin ados ez zaudeten adierazten ez duzuen arren, nik uste dut zuen diferentziak batez ere nortasun galdes-orta desberdinetarako aurretiaz ezarritako mugen artean puntuazio zuzena eskatzera bideratzen direla, horrela soilik izango baitu zentzurik aurrez aurreko elkarrizketaren nahitaezko izaerari buruzko zuen eskariak, deialdiaren oinarriak bete ez daitezkeen arris-kuan sartu nahi ez bada.

Tira, bada, gure eztabaidaren xedea hala zehaztu ondoren, beharrezkoa da, nire ustez, berriro agerraraztea nire ikuspegitik eta balorazio irizpideen gaineko azkeneko kontu horri dagokionez, deialdiaren oinarriek proba multzoan kanporatzailea dela baino ez diotela, 20 puntuko puntuazio orokor gorenetik gutxienez 10 puntu atera behar direla eskatuz. Deialdiaren oinarriek ez dute inondik ere aurreikusitako proba bakoitza haztatzen behartzen duen sistemarik aipatzen, ez eta izangaien ebaluazio psikolo-gikoari buruzko inolako aurreikuspenik jasotzen ere (gutxieneko profilak, ebaluazioak puntuazioen sistemara igarotzeko irizpideak, eta abar).

Oinarrien zehaztasunik ez hori da, hain zuzen, epaimahaia oinarri honen arauketa murrizta honako balorazio irizpide hauekin osatzera behartu duena:

*‘Laugarren ariketak 20 punturen gainean puntuatzen du, eta gainditzeko gutxienez 10 behar dira. Epaimahaiak onartutako Funtzio Publikoko Sailaren Proposamenak dio nortasun probak 12 punturen gainean baloratzen direla, eta elkarrizketa 8ren gainean. Nortasun probetan dimentsio bakoitzerako aurretiaz ezarritako mugen arteko puntuazio zuzena atera behar da. Dimentsio bat edo gehiagotan kalifikaziorik ez lortzeak nortasun probetan 0,00 puntuko kalifikazioa izatea dakar. Elkarrizketa 8 punturen gainean kalifikatzen da eta kalifikaziorik lortzeko gutxienez 4 atera behar dira. Elkarrizketan 4tik behera ateratzek laugarren ariketan 0,00ko kalifikazioa izatea dakar.’*



Nire iritiz, zuen iritiz ez bezala, zuzenketa irizpide horiek ez dute oinarririk urratzen, deialdiak, lehenago esan dugun moduan, ez baitu oposizio fasearen laugarren ariketaren multzoa osatzen duten nortasun probetako bakoitzerako balorazio zehatzik halabeharrez baldintzatzen, ez eta izangaien ebaluazio psikologikoko sistemarik aurreratzen ere, izangaien sailkapen erlatiboa egiten lagatzen duen puntuazioen araberrako ebaluazio sistema jasotzera mugatzen baita; bai eskatzen du, ordea, ez kanporatzeko gutxienerako puntuazioa ateratzea.

Bestalde, epaimahaiak irizpide horiek probak egin baino lehen adostu eta argitaratu zituela ere esan behar dela uste dut, eta horrek, nire ikuspegitik, prozesuaren objektibotasun eta inpartzialtasun bermeak indartzen ditu, irizpide horiek deialdiaren oinarrien beharrezko garapen edo gehigarria dira, eta prozesuaren lege izanik, joko arau erantsiak dira eta, besteek bezala, izangaiek jakiten dituztenean, epaimahaiaren jardun aukeran mugatu edo murrizten dituzte.

Nolanahi ere, zuek ados ez zaudeten erabaki hori, zuek proposatzen duzuen bezala, deialdiaren oinarrien urraketa modura baloratzerik ez izateak eta, ondorioz, epaimahaiaren irizpen subjektiborako ahalmenaren emaitza gisa hartu behar izateak ez du esan nahi erabaki hori ezingo denik beste ikuspegi batetik fiskalizatu, zuhurtziazko ahalmenak ondo gauzatu izana bermatzeko aukera ematen duten beste kontrol mekanismo batzuek baliatuz, arbitrariotasunaren debekuaren konstituziozko printzipioaren aplikazioaren ondoriozko motibazio eskakizun formalarekin gertatzen den bezala.

Planteamendu honekin segituz, baliatutako hautespen probek funtzio publikoaren gure antolamenduaren arabera eska daitezkeen objektibotasun, arrazoizkotasun eta funtzionaltasun bermeei erantzuten dieten egiaztatzea bideratutako kontrola egin daiteke; kontrol horrek, azken batean, funts objektibo nahikorik ez duten epaimahaien erabakiak zalantzan jartzera eta, horregatik, arbitrariotzat jotzera eraman dezake.

Horrela, eta eskuartean dugun kasura itzuliz, beste ikuspegi honek, zuzentzeko erabilitako irizpidea, hau da, galdesorta desberdinetan kontuan hartu diren dimentsio edo faktore bakoitzerako aurretiaz finkatu diren mugen artean puntuazio zuzena eskatzekoa, nahikoa eta objektiboki justifikagarria den ala ez baloratzea eraman behar gaitu, lehenago aurreratu dugunez, erabakian inolako arbitrariotasunik susmorik ez izateko.

Horren gainean, Funtzio Publikoko Saileko teknikariek gure erakundeari esan diote udaltzainak hautatzeko deialdi hau diseinatzean nortasun probei buruzko laugarren ariketa horri erabakigarri iritzi diotela. Planteamendu horrek udaltzain postuaren ezaugarriari adituz profil bereziki zorrotza ezarrarazi die; horrek azaltzen du nortasun faktore desberdinak baloratzean ebaluazio psikologikoko gutxienerako eskakizun batzuk ezartzea erabaki izana –lanposturako egokitasuneko gutxienerako eta gehieneko mugak jarri dira–, eta eskakizun horiek deialdiko oinarriek eskatutako puntuazio sistemara itzultzean aurrez ezarritako muga horietatik, azpitik zein gainetik kanpo geratu diren kasuetan zero puntu zenbatu izana; halakorik gertatuz gero ez dago nortasun proba multzoan gainditzeko lagun lezakeen kalifikazio erlatiborik lortzeko aukerarik ere.

Puntu honetara helduta, esan behar da erakunde honek ezin duela Funtzio Publikoko Sailak ezarritako mugak lanpostuaren ezaugarrietarako egokia den nortasun profila ziurtatzeko erabili dituen irizpide teknikoak aipatzen diren ala ez baloratzea sartu, eta ez duela sartu behar gainera. Onartzen dugu, beraz, nortasun proba horien emaitzak zalantzan jar daitezkeela, baita beste jarrera edo iritzi tekniko batzuetatik eztabaidatu ere. Baina gertatzen da, eta horixe da guk nabarmendu behar

duguna, udaltzain postuetara sartzeko finkatutako ebaluazio eskakizun horiek ezin direla justifikaziorik gabekotzat edo arbitrariotzat jo edo kalifikatu. Alde horretatik, ez daukagu Funtzio Publikoko Sailak diseinatutako profil profesionala okerra eta arbitrarioa denik ezbairik gabe eztabaidatzeko aukerarik ematen duen inolako irizpide teknikoren berririk.

Azkeneko hori bereziki azpimarratu nahi dut, hau da, behin motibazio egoki baten eskakizun formal gaitutako ondoren, zuzenketa irizpide horiek ezin direla epaimahaiak hautespen prozesua ondo joan dadin ziurtatzeko beharrezko irizten dien erabaki guztiak hartzeko duen zuzenketa teknikoaz baliatzearen emaitza modura baino baloratu. Horretatik, beste ikuspegi honetatik ere ez dago epaimahaiaren jardunean gehiegikeriarik izan denik ondorioztatzerik, deialdiaren seigarren oinarri orokorrak berak aitortzen dion moduan, berak uste duenaren tartean motiboz baliatzera mugatu baita; lehenago ere esan dugunez, oinarri horretan epaimahaiari oinarriak interpretatu eta osatzeko ahalmena ematen zaio.

Azkenik, nortasun galdesortean usteko filtrazioari buruzko salaketa aztertzerantz, hauxe esan diezazueket, Gasteizko Udaleko ordezkariak emandako informazioaren arabera:

*‘Funtzio Publikoko Sailak eskatuta, 2004ko otsailaren 3an, Epaimahaia bildu zen, Udaleko hainbat helbide elektronikotara izenik gabe heldu zen salaketa baten berri emateko; salaketan laugarren ariketako nortasun probetarako erabilitako galdesortean testuak ageri ziren. Edukia aztertu zen eta agerian geratu zen, ezustean, testuak urtarrilaren 23az geroztik lapurtu zirela (urtarrilaren 23a izangai batzuek nortasun probak egin zituzten, eta probak egiteko azkeneko eguna izan zen). Hala zela jakin zen egun horretan nor den badakigun izangai batek Udaleko langileei proba bateko item batean zuzendu zuten aplikazio informatikoan, eta ez zen ageri udal egoitzetara posta elektronikoz heldutako mezuan. Argi dago, beraz, testu horiek ez direla, salatari izengabeak dioenez, oposizioegileen eskuetan egon, ez azterketak baino lehen ez eta azterketak egin ziren egunetan ere.’*

Alabaina, esan behar dugu gure erakundera, gerora ere, prozesuan parte hartu zuten identifikatu bako oposizioegilek galdesortean probak egin baino lehen eduki zituztela dioten hainbat albiste heldu dira.

Baina, nolana ere, Udaleko teknikarientzat balizko filtraziorik izan balitz ere garrantzi handirik ez zukeela izango berresten dute; beren iritziz

*‘itemen edukia jakin balute ere, ingurumari horrek ez dakar inolako ondorenik, zeren nortasun probak ez baitute erantzun zuzen ala okerrik, erantzuten duenaren jokabide, pentsamolde eta iritziak baino ez baitituzte islatzen. Hala ere, probak aurretiaz jakitea izangaiarentzat onuragarri izateko, aurretiaz lanpostuaren ezaugarriak jakin, hautespen prozesurako diseinatutako profila izan, probetako monografiak ezagutu eta psikologo aditu baten laguntza eduki beharko luke. Kasu honetan, eta nortasun probetako profilarik dagokionez (...), bai postuaren profila bai proben monografiak Funtzio Publikoko Saileko teknikariek soilik ezagutzen dituzte eta haien zaintzapean egoten dira’.*

Beraz, teknikari horiek diotenez, izangaiek galdesorta horien edukia jakin eta orientazio profesionalik izan arren, lanpostuaren profila ez ezagutzeak (eta hori Funtzio Publikoko Sailaren zaintzapean eduki da beti) ez luke udaltzain lanpostuetara beharrezko ezaugarritara baldarki hurbiltzen baino utziko eta horrek ez luke, inondik ere, prozesuaren objektibotasunik eta inpartzialtasunik kolokan jarriko.

Sumatuko zenuten, ziurrenik, nortasun proben ustezko filtrazio honi buruzko azkeneko gorabehera baloratzean, gogoeta tekniko bati aurre egin behar izan genion. Berriro ere, epaimahaiaren zuhurtzia teknikoak eskainitako justifikazioa babesten du eta, beraz, erakunde honek ezin du, iritzi tekniko baten ikuspegitik, bidezkoa den ala ez baloratzea sartu. Horrek epaimahaiaren irizpen librearen adierazpen egokitzat onartzera behartzen gaitu, are gehiago probarako diseinatutako eta ezarritako profilaren ezinbesteko isilekotasunaren inguruko inolako gorabeheraren berririk izan ez bada.”

- Emaidza

Erakunde honen iritzi, oposizio gile multzo honek salatutako gorabehera bat ere ez zen hautespen prozesuan zehar, eta bereziki nortasun probei zegokienean hartutako erabakien balizko berrikuspenik justifikatzeko bezain garrantzitsua.

Alabaina, gure erakundeak EA Eren esparruan, eta are gehiago lan prekariotasun garai hauetan burutzen diren hautespen prozesuak ahalik eta objektiboan, inpartzialen eta gardenen izan daitezten lortzen saiatzeko duen konpromiso etengabe hartuta daukanez, gorabehera horiek etorkizuneko hautespen prozesuei begira hobetzeko iradokizun eta proposamen modura har zitezten gomendarazi zigun. Alde horretatik, kexa eragin zuen deialdiko eskarmentuak honako alderdi hauek baloratu eta kontuan harrarazi behar zituen:

Lehenik eta behin, deialdiaren oinarrien arau izaera sendotzea komeni zen, nortasun probak nola eratu behar diren xehetasunak erantsiz, baita proba horietan aplikatuko diren balorazio zein zuzenketa irizpideen xehetasunak ere, Udal Administrazioak lanpostuak egoki betetzeko zein profil eskatu behar zen zalantzarik ez zuela ikusita. Horrek, ez bairik gabe, balizko izangaiek hautespen prozesuaren inpartzialtasun eta objektibotasun arauetara buruz izango zuten konfiantza areagotuko luke.

Bigarren, hautespen prozesuan zehar, lanpostuko zereginak egokiro betetzeko behar den gutxieneko profil profesionala ziurtatzera begira dauden eta hain erabakigarri eta behin betikotzat jotzen diren halako probak aurreratzea komeni den ala ez gogoeta ere egin behar da. Horrek balizko izangaiek sartzeko izan litzaketen igurikimenak doiki ikustera eraman dezake, bestela, hautespen prozesua oso aurreratuta dagoen arte sartzeko itxaropenari atxikitzen baitzaizkio.

Hirugarren, amaierako gogoeta bat ere egin behar da proben isilekotasuna ziurtatzeko balizko kontrolak muturreraino eraman behar dira. Ez gaude hautespen prozesuak arindu eta erraztuko dituzten teknika eta baliabide berriak sartzearen aurka, jakina, deialdi honetan on line probekin egin den moduan. Haatik, horrekin batera, aldi berean, prozesuaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna kolokan jar litzaketen balizko filtrazioak saihestera bideratutako betiko kontrolak indartu behar dira.

Gasteizko Udalak ondo hartu zituen gure erakundearen iradokizunak.

**D) Osasun alorreko funtzio publikoa**

⇒ *LEP-Osakidetza. Lantokien adjudikazioa (65/2004)*

- Erreklamazioa

Osakidetzak instalazioetako ofizial-gidari kategorian estatutupeko langile izan ahal izateko iragarri zituen hautaprobetan parte hartu zuen pertsona batek gure erakundeari jakinarazi zion eskainitako lantokiak adjudikatzeko eta lantokiez jabetzeko baliatuko zen moduak kezkatzen zuela.

Hara zer zioen deialdiaren oinarrietan:

*“1.- Deialdiko lantokiak.*

*Deialdi honetan Osakidetzako osasun zerbitzuen erakundeetan lekututa dauden Teknikari Laguntzaile Profesionalek talde profesionaleko Ofizial-Gidari kategoriako 33 lantoki sartzen dira(...). Era berean, barruko sustapenaren txandaren bitartez beste kategoria profesional batean estatutupeko langile finko gisa lantoki batez jabetzen direnek hutsik utziko dituzten tokiak ere txanda libretik hartu ahalko dira.*

*(...)*

*5.8.- Adjudikazioa eta jabekuntza.*

*5.8.1.- Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren Ebazpen bidez adjudikatuko dira lantokiak eta izendapenak, eta ebazpena EHAA-n argitaratuko da. Adjudikazio ebazpen hori honako ildo hauei doituz emango da:*

*1.- Lantokiak, izangaien artean, beren eskarien arabera eta parte hartu duten txandaren barruan lortutako puntuazioaren ordenan adjudikatuko dira.*

*(...)*

*5.8.3.- 1. oinarrian esandakoaren arabera, eta behin I. Eranskinean zerrendatutako lantoki hutsen adjudikazioa burutu denean, Zuzendari Nagusiak, Ebazpen bidez, barruko sustapenaren txandaren bitartez beste kategoria profesional batean estatutupeko langile finko gisa lantoki batez jabetzen direnek hutsik utziko dituzten tokiak argitaratuko ditu, eta txanda libreak eskainiko dira.*

*Atal honetan finkatutako lantoki hautapen eta adjudikazio prozesu honi deialdi honetako oinarrietako 5.8 atalean jasotako aurreikuspenak aplikatuko zaizkio, eta txanda libretik parte hartzen duten izangaien artean, beren eskariaren arabera eta ateratako puntuazioaren ordenari segituz adjudikatuko dira.”*

Kexa egin duen interesatuak, ordea, beste kategoria batzuetara gora egin zuten izangaiantzat aurretiazko uko sistema bat arbitra litekeela zioen, instalazioetako ofizial-gidari kategorian zuten lantokia hutsik uztea garbi izatekotan, horrela baldintza hobea izango lantokiak aukeratzeko ahalbideak agortu ahalko zituzketelakoan. Azken batean, interesatu honen ustez, kontua zen ordura arte kategorian lantokiaren jabe izan zenak barruko sustapenaren ondorioz hutsik utzitako tokien eskaintza ez atzeratzea, gorabidean lortutako kategorietako beren lantoki berriez jabetu baino lehen aurreko lantokiaren ukoa “berez” onar zezatela, interesatuak prest zeuden kasu guztietan,

geroago eta gainerako kasu guztietan, 5.8.3. oinarrian jasotako formaltasun guztiak bete zitezten kalterik gabe.

- Azterketa

Gure erakundearen esku-hartzeari erantzunez, Giza Baliabideen zuzendariak bidali zigun idatzian hau zioen:

*“Aurrekoa dela-eta, deialdiaren 5.8 oinarriak xehetasun handiz finkatzen du nola adjudikatu behar diren lantokiak, prozeduraren fase horretan jarraitu behar diren ildoak zehaztuz.*

*5.8.3 oinarriak kategoría horretan tokien jabe zirenek barruko sustapeneko txandaren bidez beste kategoría profesional batean estatutupeko langile gisa lantokia eskuratu dutenek hutsik utzitako lantokien adjudikazioa araupetzen du; toki horiek txanda libretik eskainiko direla dio, amaieran. Adjudikazioa Zuzendari Nagusiaren ebazpen bidez egingo da, behin I. Eranskinean zerrendatutako hutsik dauden lantokien adjudikazioa burutu ondoren, eta lantokiak EHAAan argitaratu eta gero.*

*Oinarri hau, deialdi desberdinen testua osatzen duten gainerako guztiak bezala, aurretiaz arloko erakunde sindikalekin akordioa iritsita idatzi da, eta hitzez hitz dioena da prozesuaren legea, jurisprudentziak behin eta berriro gogorarazi duenez; hara zelan jasotzen den ideia hori deialdi honetan, 2.1. oinarrian:*

*‘Deialdiak eta oinarriek Administrazio deialdigilea, oposizio-lehiaketa epaitzeko ardura duen epaimahaia eta deialdian parte hartzen dutenak lotzen ditu.’*

*Oinarriek halako prozedura baten garapenaren funtsean halabeharrez dagoen segurtasun juridikoko printzipioaren berme izan behar dutela abiapuntutzat hartuta, eta fase honetan eskaini behar diren toki hutsak EHAAan argitaratzeak horri eusten diola gogoan izanda, fase hau jaso den bezala araututa laga behar da, ezinbestean.*

*Azaldutako guztiarengatik, ez zaio bidezko irizten Arartekoak bidalitako idatzian proposatu den aldarazpena egiteari; hala ere, Arartekoarengandik datozkigun iradokizun guztiak eskertzen ditugu, berriro ere.”*

Egiaz, arduradun horrek baiesten zuenez, prozesuaren une haietan ezin zen ahaztu onetsitako oinarrietara halabeharrez eta nahitaez lotuta zeudela, oinarri sendo eta baietsiak baitziren. Horregatik ez zegoen, gure erakundeak egindako ahaleginaz harantzago, beste ezer eskatzerik, ez eta Osakidetza 2002ko Enplegu Eskaintza Publikoan lantokiak adjudikatzeko egingo zuenari inolako erreparorik jartzerik ere.

Baina kexa eragin zuen sistemak dakarren mugaz jabetuta, eta Giza Baliabideen zuzendaria Arartekoaren iradokizunak hartzeko prest zegoela ikusita, gure erakundeak

beste proposamen bat helarazi zion Osakidetzari, etorkizunera begira oraingo sistema alda zezan iradokiz eta, hartara, hurrengo enplegu eskaintza publikoetan, barruko sustapeneko hutsuneak adjudikatzeko lehenengo fase bat moldatu eta ondoriozko hutsune berriak txanda librean hautatutako izangaien multzoari, beren izaeraren arabera eta puntuazio ordenan, erantsi eta eskaini ahal izateko.

- Emaizta

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia prest agertu da iradokizun hau hurrengo enplegu eskaintza publikoetarako baloratzeko. Hara zer baietsi duen:

*“...lanpostuak betetzeko prozedurak tramitatzen dugun eskarmentuak, erakutsi digu barruko sustapenetik, txanda librean eskainitakoen aurretik, parte hartzen duten izangaientzat gordetako lantokiak adjudikatzeak txanda libretik datozenen aldean duten lehentasun eskubidea hobeto bermatuko lukeela. Gainera, esan behar da osasun zerbitzuetako estatutupeko langileen Esparru-Estatutua onesten duen abenduaren 16ko 55/2003 Legeak ez duela hala jokatzeko inolako eragozpenik jartzen.”*

⇒ LEP-Osakidetzak. Psikiatriako mediku espezialisten hautaprobak. Ezgaituentzat plazak gordetzea (703/2004)

- Erreklamazioa

Osakidetzak 2002ko LEPen iragarritako mediku espezialisten hautaprobetan parte hartu zuen batek psikiatriako espezialitatean ezgaituentzat gordetako tokiak kudeatu ziren moduaren kontra zegoela adierazi zigon.

Interesatzen zaizkigun ondoretarako, medikuntzako espezialitate desberdinetarako bakarra zen deialdiaren oinarrietan honako aurreikuspen hauek sartu ziren:

*“3.3. Ezgaitasunak dituzten pertsonak.*

*5 lantoki gordeko dira (1 Anestesiologian eta Bizkortzean, 1 Oftalmologian, 1 Psikiatrian, 1 Erradiodiagnostikoan, eta 1 Traumatologian eta Kirurgia Ortopedikoan), % 33ko edo gehiagoko ezgaitasun iraunkorrek dituzten izangaiek betetzeko, betiere hautaprobak gainditzekotan.*

*5.-Oposizio-lehiaketa nola garatuko den*

*5.2.- Oposizio fasea*

*Mediku Espezialisten kategoriari (Psikiatria) dagozkion probetako bigarren ariketan, izangaiek ariketa praktikoko bi modalitate edukiko dituzte aukeran: Psikiatria Orokorra eta Haur Psikiatria; lehenengo ariketa gainditu dutenek esandako modalitate guztiak ala bat egin ahalko dute. Bigarren ariketa hau kanporatzailea izango da eta, nolahi ere, prozesuan gainditutako modalitatearen barruan segituko da.”*

Ohartuko zinetenez, espezialitate bakarra izan arren (psikiatria), Osakidetzak modalitate bikoitzarekin atondu zuen (psikiatria orokorra eta haur psikiatria), bakoitzerako

plaza desberdinak iragarritz, baina ezgaituentzat gordeta zegoena zeini zegokion zehaztu barik.

Ez zehazteak hautespren prozesua hasteko eragozpen handirik sortu ez zuen arren, arazo larria ekarri zuen behin hautapoben emaitzak ezagutu zirenean. izan ere, kexagileak psikiatria orokorreko modalitatean puntuazio handiagoa izan zuela frogatu zuen, hirugarren izangai batek, ezgaitua bera ere, haur psikiatriaren modalitatean lortutako emaitzei adituz puntuazio hobea zeukan bitartean. Bi hautagaiek bi modalitateetan parte hartu zuten, baina emaitza desberdinekin. Nori adjudikatu behar zitzaion, orduan, ezgaituentzat gordetako tokia?

Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak ulertu zuenez, ezgaituentzat gordetako tokia esleitzeko bi aukera bakarrak honako hauek ziren:

*“bata, psikiatria orokorrean puntuaziorik handiena lortu duen izangaiari, arlo horretarako plaza gehiago deitu baitira, 15, alegia, haur psikiatriarako 4 baino deitu ez diren bitartean, eta ezgaituentzat gordetako lanpostuen banaketan zenbat plaza ziren kontuan hartu baita,*

*edo bestela, puntuaziorik handiena atera duen izangaiari, zein modalitatetan izan den begiratu barik.”*

Hauxe pentsatu zen, ordea: *“deialdiaren oinarrietan erreferentzia espresik egon ez arren, sarritan aipatzen da amaierako puntuazioaren ordena (izangaien behin behineko zerrenda amaierako puntuazioaren arabera ordenatuko da, lantokiak adjudikatzeko jarraibideak, eta abar). Beraz, horien interpretazioa hedatuz, eta kontuan izanik deialdi bakarra dela, Psikiatria plaza amaierako puntuaziorik handiena ateratzen duenari adjudikatu beharko litzaioke, psikiatria orokorrean ala haur psikiatrian atera den begiratu barik.”*

- Azterketa

Erakunde honek ez zuen inola ere Osakidetzak praktikan psikiatria espezialitatean modalitate bikoitza (orokorra eta haurrena) erabaki edo bideratu izana baloratzera sartu nahi izan, medikuntzako prestakuntza espezializaturik izan ez arren, izangai kexagileak salatutako gertakari zehatzarekin zerikusirik ez zuelako. Gure jarduera deialdiaren oinarriak, deialdia eratu zen moduari adituz, interpretatu eta bateratzeko aukerak aztertzer mugatu zen, praktikan izangai ezgaituentzat gordetako plaza gure iritziz nola gauzatu behar zen zehazten saiatzeko, hain zuzen.

Erakunde honek ez zuen zalantzarik izan hasierako proposamena, epaimahaiak beretua eta Zuzendaritza Nagusiak gerora berretsia, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin ondoen zihoan hautapena ziurtatzen zelako baietsi zenik –erakunde haren maila desberdinetatik behin eta berrero esan zigutenez– ezgaituentzat gordetako plaza amaierako puntuaziorik handiena lortzen zuen izangaiari esleitu zitzaioela, zein modalitatetan parte hartu zuen berdin zelarik.

Hala eta guztiz ere, gure erakundearen iritziz, ikusi behar da behin bi modalitate jartzea erabaki eta bakoitza espezialitate desberdin modura hartzen bada, gero ez dagoela izangaien artean konkurrentzia orokor eta bereiztu gabea izan balitz modura jokatzetik, emaitzak alderatu eta guztiak batera ordenatuz, modalitate bikoitza izan denik ahaztuta,

horrek praktikan, besteak beste, modalitate bakoitzarentzat puntuazio bereiztua agertze-ko aukera ematea baitakar. Izan ere, izangaien artean konkurrentzia irekia planteatzea, gutxienez berdintasun baldintzetan eta merezimendu eta gaitasun hutseko parametroetan gauza dadin nahi bada, izangaiek, konparatzen diren terminoak parekatzea dakarren hautespen prozesu berari aurre egin behar diotenean soilik lortzen da.

Baina, are gehiago, Giza Baliabideen Zuzendaritzak proposatutako aukera justifikatzeko deialdiaren oinarrietako hainbat aurreikuspenetan, prozesuaren tramite desberdinez hitz egitean (behin behineko zerrenda, lantokien adjudikazioa, eta abar), ordenazio irizpide modura, izangai bakoitzak amaieran lortutako puntuazioa ezartzen zela zioena, eta interpretazio hori kasu horretara ere heda zitekeela.

Ez dira horiek, ordea, ezgaituentzako plazak gordetzean jarraitzen zaien irizpideak. Izan ere, deialdi honetan ere, ezgaituentzako lanpostuak espezialitate bakoitzerako iragarritako plazen kopurua kontuan hartuta gorde ziren.

Komeni zaigu argitzea deialdiek gordetako plazak zein multzo, kategoría edo espezialiteri dagokien zehaztearen jokabide hori ezgaituentzat gorde beharreko plazak ahalik eta gehien izan daitezen saiatzera begira dagoela, beti gurako genukeen beste lortu ez arren.

Nolanahi ere, deialdira itzulita, pentsatu, bestela, hau da, gordetako plazak izangai ezgaituek izatez ateratako emaitzen aplikazio automatikoaren arabera gauzatu balira, deialdiak berak ez zukeen 3.3. oinarrian erreserbako plazak zein espezialitateetakoak ziren zehaztu beharrik, eta puntuaziorik onena zuten lehenengo bost izangai ezgaituek nahi zuten espezialitatea hauta zezaten utziko zukeen.

Hala egin balitz, nekez saihestuko zatekeen izangaiek espezialitate desberdinetan ateratako emaitzak alderatzea bidegabeba delako gaitzespenik, are gehiago ebaluatzearen zeregina epaimahai desberdinei agindu zitzaizenean.

Egia da eskuartean daukagun kasuan psikiatria orokorra eta haur psikiatria epaimahai beraren ardurapean daudela. Egia da, halaber, epaimahaiak izangaiei proba desberdinak egitea aukeran jartzen dieten hautespen prozesu asko eta asko izaten direla (suposamendu praktikoa desberdinak...), eta halakoek ez dutela emaitzak alderatzeko eragozpenik sortu ohi. Baina kasu horietan izangai bakoitzak hainbat proposamenen artean bakarria egiten du eta, hartara, amaierako puntuazio bakarria iritsi edo ateratzen du, eta horixe alderatzen da gainerako izangaienarekin.

Kexa honetan ordea, izangaiek iragarritako bi modalitateetara aurkeztea daukate eta, bakoitzean puntuazio desberdina ateratzea ere gerta daiteke, eskuartean dugun kasuan izatez gertatu den bezala; beraz, berriro esango dugu, praktikan, bi modalitate horiek espezialitate desberdin modura jarrita daude, izangaiek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio aipatuen arabera aurkez daitezten ziurtatu nahi bada behintzat.

Horregatik guztiarengatik, erakunde honek ulertu zuen deialdiaren oinarrien interpretaziorik zentzuzkoen eta bateratuena, izangai ezgaituentzat gordetako plaza hutsa nola gauzatu behar zen argitzera begira, izangaiek ateratako emaitzak alboratuta eta psikiatriako bi modalitateak bi espezialitate bereiztu modura hartu behar zirela onartuta, psikiatria orokorrari gainerako espezialitateetan aplikatutako kuota edo portzentaje berbera aplikatu behar zitzaiola zen, besterik ez.

- Emaitza

Osakidetzak gure esku-hartzeari eman zion erantzunean, deialdiaren diseinuan bi kategoría desberdin sartzeko asmorik ez zegoela baietsi eta gero, kategorikoki baina



argudio gehiago eskaini barik, gure erakundearen proposamena berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen guztiz aurkakoa zela esatera mugatu zen. Hartara, bere alegatua, nagusiki, funtsean bi izangaiak bi modalitate zituen kategorian bakarrean lantoki bat ateratzeko aukera berdinetan lehiatu zirela izan zen eta bakoitzak hautespen prozesuaren fase desberdinetan agerian utzi zituen merezimenduak baloratu ondoren, batek puntuazio hobea lortu zuela.

Erantzun honekin gure erakundeak bitartekaritza aukera guztiak agortu zituela erabaki zuen. Alabaina, hautaprobea hauetako eskarmentuak etorkizunean halako gorabeherarik izan dadin saihesten lagunduko duelakoan gaude.

## 6. OGASUN ARLOA

### 6.1. SARRERA

2004. urtean zehar 93 kexa jaso dira, guztira, arloetan banatu diren kexetatik % 8,32.

Kexa horiek ukitutako administrazioen arabera banatuz gero, hona hemen lortutako emaitza:

– Tokiko administrazioa.....	42
– Foru administrazioa.....	31
– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	4

Jorratu diren gaien arabera, honakoak bereiz ditzakegu:

– Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura.....	30
– Udal zergak.....	22
– Foru zergak - PFGZ.....	18
– Udal tasak.....	10
– Beste alderdi batzuk .....	5
– Udal prezio publikoak.....	5
– Foru aldundien prezio publikoak.....	2
– Foru zergak - BEZ.....	1

Izapidetzen ditugun kexa askoren zergatikoa, norbanakoek aurkeztutako eskaera eta erreklamazioei Administrazioak erantzunik ez ematea da. Urtero-urtero modu beretsuan errepikatzen den datu honen bidez baieztatu dezakegu euskal administrazioek ez dituztela betetzen, sarri askotan, administrazio-prozedurak ebazteko jarrita dauden legezko epeak. Ildo honetan berriro ere azpimarratu nahi dugu administrazio guztiek, hau da, autonomia erkidegokoak, foru administrazioak zein tokikoak, administrazioaren isiltasun negatiboa behar den moduan erabiltzeko betebeharra dutela. Isiltasun hori, izan ere, hiritarrek administrazioaren jardura ezaren aurrean duten defentsa-mekanismoetarikoa da. Sarri askotan administrazioak figura horren erabilera saihestu nahi izaten du, legean aurreikusitako epeen ez betetzeari garrantzia kentzeko, edota ebazpenik berariaz ez emateko, interesatuak auzitegietara jo ez eta beren asmoa bertan behera utziko dutelakoan-edo; eta horixe da, hain zuzen, gertatzerik nahi ez duguna.

Foru zergen alorrean jaso ditugun kexa gehienak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren –PFEZ– ingurukoak izan dira; bereziki, zergaren aitortpenean zergaldian zehar jasotako diru-sarrera guztiak ez jartzearen ondoriozko zehapenei buruzkoak. Egoera honetan dagoen pertsona ugari etorri da gugana. Beraien ustez, ez da bidezkoa, nahi gabe izan duten ahazte batek, Administrazioak ezarri dien likidazio berritik ondorioztatzen den kuota diferentzialaren ordainketa eta dagozkion berandutza korrituez gain, larritzat jotzen den arau-hauste bat sorraraztea. Azken hori da, hain zuzen ere, kexa guztien oinarria.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 79.a) artikulua xedatzen duenaren arabera, arau-hauste larria da, besteak beste, *“Aipatutako arauzko epeen barnean zerga-zor osoa edo zati bat ez ordaintzea, salbu eta Foru Arau honen 61. artikuluan araberaren erregularizatu edo Foru Arau beronen 127. artikuluan aurreikusten dena aplikatu behar bada”*. Hasiera batean, zehatzen dena sarrera ez egitea dela uste bada ere, ZFAOren 79.a) eta 61. zein 127. artikuluen baterako interpretaziotik ondorioztatzen denez, arau-haustea ez dator sarrera ez egitetik, emaitza positiboa duten autolikidazioak ez aurkeztetik edota zehatzak ez diren datuak zein datu faltsuak aurkeztetik baizik.

Hain zehaztugabea eta orokorra den arautegi hori abiapuntutzat izanik, zerga-administrazio batzuek, zergadunak aitortu ez duen sarrera batean oinarritzen diren egiaztapen likidazioak gauzatu ostean, arau-hausteagatiko zehapen prozedura hasten dute sistematikoki. Kasu hauen atzean erruduntasun maila ugari eman badaitezke ere, azken hauek, egia esan, ez dira inola ere baloratzen; izan ere, eta ZFAOren 77.1. artikuluaekin bat etorritik, gure zerga-sisteman eskatzeko modukoa den gutxieneko maila *“utzikeria soila”* da; kategoria hori Zigor Kodeak gaur egun jasotzen duen zehaztugabekeria arinarekin parekatu daiteke, eta bertan sartzen dira Administrazioaren irizpidearen arabera gaizki egindako autolikidazio kasu gehienak.

Zehapen araubidearen aplikazio ia automatiko honek, arau-hauste motaren zehaztasun faltarengatik neurri batean, desproporzio nabarmena sorrarazten du maiz, subjektu pasiboak egindako arau-haustearen eta ezartzen zaion zehapenaren artean. Administrazioak berak egindako oker baten ondorioz zehapen-espeditentea hasi deneko kasuak ere azaldu zaizkigu; beste batzuetan, berriz, izandako okerra oso ulergarria da, gure ustean behintzat, PFEZen arlo batzuek duten konplexutasuna dela eta. Erruduntasunaren baldintza zalantzan jartzen den kasu hauetan, Administrazioak barkamenaren figura dagozkion mugetatik haratago erabili behar izaten du.

Barkamenak, jakina denez, zerga-zor osoaren edo zati baten barkamena dakar, eta borondatearen autonomian oinarrituz, eremu pribatuari dagokion iraungitzeko modu bat da. Tributuen ikuspegitik, hala ere, zerga-kredituaren baliaezintasun printzipioa indarrean dagoenez, zorrak ezin dira barkatu, Batzar Nagusiek emandako foru arau baten babesean ez bada behintzat (ZFAOren 69. artikulua). Era berean, ZFAOren 89.2. artikulua hauxe dio:

*“Zerga zehapen irmoak grazia bidezko eran soilik barkatu ahal izango dira, eta hori Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak bere kabuz emango du, beronek ahalmen hori zuzenean edo delegazio bidez erabiliko duelarik. Eskabidea Ogasuneko zuzendari nagusiak egingo du, interesatuak aurretik eskatuta, zehapena betearazteak industria edo ekonomiaren sektore bateko ekoizpen gaitasunaren eta enplegu mailaren iraupenean eragin larri eta funtsezkoa izan edo interes orokorretan kalte larria sortzen bada”*.

Gure ustez, Administrazioaren jokabide hau kritikagarria da guztiz, bai zehapen-espeditentea ireki aurretik zergadunaren erruduntasuna baloratzen ez delako, bai aipatutako prozedura atzera botatzeko erabilitako bitartekoa, barkamena alegia, dela-eta. Lehenengo kasuak erantzukizun objektibora hurbiltzen gaitu, eta erantzukizun mota hori debekatuta dago gure antolamenduan. Bigarrenari dagokionez, inongo arrazoirik

aurkeztu gabe emango litzaioke bukaera espedienteari; hau da, ez zegoen espediente horri zertan hasiera eman.

Tokiko zergei so eginez, pertsona ezgaituen kasuan Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari –TMIZ- dagokion salbuespenaren araubide berrian Gipuzkoako udal batzuetan sortu den arazoa azpimarratu behar dugu. Irun, Errenteria, Arrasate eta Donostiako biztanleek, batzuek bakarka eta beste batzuek ELKARTU elkartearen bidez, beren herrietako udalek zerga honen salbuespena ukatu zietela ikustean, gure erakundearen esku-hartzea eskatu zuten, salbuespen hori jasotzeko beharrezkoak diren legezko baldintzak betetzen zituztela uste baitzuten.

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak sortuta, TMIZ arautzen duten foru arauak, pertsona ezgaituei zerga hau aplikatzeko salbuespenen kasuak gehitu zituzten lurralde historikoetan. Salbuespena pertsona ezgaituek gidatutako ibilgailuetan soilik aplikatuzetik, pertsona horien garraiorako erabiltzen diren ibilgailuetara ere zabaldu zen; horrela, aipatutako salbuespena Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziak jasotzen dituen kasuetara hedatu zen.

Arautegi berriarekin bat etorritz, honakoak dira ezgaitasuna dela-eta TMIZn salbuespenak aplikatu ahal izateko baldintzak:

- Eskaera egiten duen pertsona salbuetsi behar den ibilgailuaren titularra izatea.
- Eskaera egiten duenak, horretarako eskumena duen organoak hala ziurtatuta, % 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna izatea.
- Ibilgailua titularraren erabilerarako izatea soil-soilik.

Desberdintasun txiki batzuk egon badaude ere, laburbilduz, arestian aipatutako udalek beren jarreraren oinarritzat antzeko argudioak erabiltzen dituzte: ibilgailuaren erabilera eskusiboaren ustezko urratzea eta eskatzaileek mugiezintasunik ez izatea, hain zuzen. Erakunde honek argudio horiei arrazoi ugari erabiliz egin die aurka, ukitutako udalekin izan ditugun informazio trukeen bidez. Zehatzagoak izateko, Irungo eta Errenteriako udalekin irekitako espedienteak izapidetu ondoren erakunde honek gomendio bana egin die.

Irungo Udalak ez du gure gomendioa onartu, nahiz eta bertan agertzen den edukia oraintsu Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ontzat emandakoa izan. Horren guztiaren ondorioz, udal berberak, ekonomia-administrazioko erreklamazio bat aurkeztu eta egoera berdinean zegoen beste hiritar baten aldeko salbuespena onartu du.

Errenteriako Udalarari dagokionez, honek ere ez ditu gure gomendioak kontuan hartu.

Giza talde zaurgarri bati zuzenean eragiten dion arazo honek gure erakundearentzat duen garrantzia nahikoa arrazoi izan da honako txostenean gai honen inguruko gomendio orokor bat sartzeko (ikus gomendio orokorren atala). Izan ere, arestian aipatutako udalen jarrerak ez du etorkizunean iritziz aldatuko diren itxura handirik.

## 6.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Zerga-likidazioaren jakinarazpena. Interesatuak jaso duela agerrarazi beharra (389/2003)*

- Erreklamazioa

Herritar batek ezbaian jarri zuen Bilboko Udalak suteak prebenitu eta itzaltzearen inguruko tasa batzuen likidazioa kobratzeko egindako jarduera bidezkoa ote zen; izan ere, herritar horrek ez zuen espedientearen izapidetzearen berririk izan suhiltzaileek esku hartu zutenetik 10 urte igaro arte, enbargoaren probidentzia jaso zuen arte, hain zuzen ere.

- Azterketa

Espedientearen tramitazioko bi kobrantza-faseak, hau da, borondatezkoa eta exekuzio-aldikoa, ikertu ostean, ikusi genuen geroko administrazio-jarduerak, orokorrean, ediktu bidez jakinarazi zirela, tasaren likidazioari dagokiona izan ezik.

Honek ez zigun galarazi likidazioaren jakinarazpenaren balioa zalantzan jartzea; izan ere, ziurtagiriaren hartu-agiriak ez zuen igorpena jaso zuen pertsonaren identifikazioaren berririk ematen (nortasun agiriko zenbakia eta abar). Hartu-agirian, irakurtezinak ziren hiru sinadura agertzen ziren soilik, eta baita eskuz idatziriko azalpen bat ere, itxuraz “*zerrenda ausentzia*” zioena.

Komunikazioa igorri zen unean indarrean zegoen Administrazio Prozedurari buruzko Legeak 79.1. artikuluan agintzen duenez, “*interesatuei beren eskubide eta interesetan eragina duen ebazpen ororen berri emango zaie*”. Era berean, 80.1. artikulua azpimarratzen duenez, beharrezkoa da jasotzaileak jakinarazpena hartu duela behar bezala jasotzea, prozeduraren berme gisa balio baitu.

Etorkizunean egingo den exekuzio-prozeduran likidazioaren jakinarazpenak duen garrantzia ikusirik, erakunde honek eskatu zuen tasa honen likidazioaren jakinarazpenaren inguruko gorabeherak argitu zitezela. Hala ere, ez zen horren inguruko inongo aipamenik egin.

Zamaren froga banatzeko erabiltzen diren arau orokorren arabera, alderdi bakoitzak, bere alde aldarrikatutako ondorio juridikoak sorrarazten dituen arauaren egitatezko baldintzak frogatu behar ditu. Beraz, Bilboko Udala zen frogaren zama bere gain hartu behar zuena, bai interesatuaren likidazio tasaren jakinarazpenaren legezkotasun formalari zein errealitateari begira. Hala egin ezean, froga hori ez egitearen ondorio kaltegarriak jasan behar zituen.

Ondorioz, jakinarazpenaren jasotzailea nor zen egiaztatzeko daturik (emate-agiririk) ez zegoenez, ezin zitekeen ematea behar zen moduan eta zegokion egunean burutu zela onartu; horrek guztiak, beraz, ordutik aurrerako exekuzio prozedura osoa baliogabeta-sunezko akatsez betetzen zuen.

Bestalde, kontuan hartu behar zen suhiltzaileek esku hartu zutenetik tasa ordaindu arte igarotako denbora. Egintza bien artean 10 urte igaro zirenez, Administrazioak ordainketa eskatzeko eskubidea preskribituta zegoen unean egin zela kobrantza ulertu behar da.

Balorazio honen berri Bilboko Udalari eman zitzaion eta, ondorioz, luzatutako ordainagiria deuseztatzeko agindu.

- Emaizta

Azkenean Bilboko Udalak luzatutako ordainagiria deuseztatzea erabaki zuela jakinarazi zigun; beraz, kaltetutako pertsonari bidegabe kobratutako zenbatekoak itzuliko zizkion laster.

⇒ *Interesatuak administrazio-espeditentea eskuratu ahal izatea (1305/2003)*

- Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ukatu egin ziolako ahoz eskatutako agiri baten kopia, nahiz eta herritar hori espeditente horretako alderdietako bat izan.

- Azterketa

Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 30/1995 Legeak, 35. artikuluan, interesatuak izanez gero prozeduren izapidetze egoera uneoro zein den jakiteko eta horren inguruko kopiak lortzeko eskubidea aintzatesten die herritarrei. Manu hori administrazio publiko guztiek bete behar dute, beraz, baita aipatutako Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ere. Hala ere, manu horretan ez da eskubide hori erabiltzeko jarraitu beharreko formazko prozedura zein den aipatzen. Beraz, gure ustez, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak erabilitako formula, hau da, agirien kopiak idatziz eska daitezela agintzea, prozedura egokia da; interesatuek nahi duten informazioa lortzeko duten eskubidea ez urratzeaz gain, administrazioa antolatzeke formula egokia dela deritzogu. Izan ere, eta auto-kontrol gisa, Administrazioaren egintzak jasota geratzeko modu bat da, eta beharrezkoa izanez gero, interesatuak izapide hori burutu duela frogatzeko ere balio du.

- Emaizta

Interesatuari jakinarazi genion gure ustez ez zela antolamendu juridikoa inolaz ere urratu berak aurkeztutako kasuan, eta Auzitegi Ekonomikoari bere eskaera idatziz egin ziezaion gomendatu genion.

## B) **Foru zergak. PFEZ**

⇒ *Lan aktiboaren eta ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioaren salbuespenaren arteko bateraezintasuna (1329/2003)*

- Erreklamazioa

Ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioa jasotzen zuen herritar batek jakinarazi zigun ez zegoela ados inoren kontura egindako lanagatik jasotakoa baino kuota handiagoa ordaindu behar izanarekin PFEZri zegokionez; izan ere, pentsio horren salbuespena, zerga horretan, lanaren etekinekin bat egiten ez duenean soilik aplikatu daiteke.

- Azterketa

Gure autonomia erkidegoko lurralde historikoetan PFEZ arautzen duten foru arauak salbuetsizat jotzen dituzte bai Gizarte Segurantzak bai horren ordezkio erakundeek ezintasun iraunkorra, partziala, osoa, erabatekoa zein ezintasun handia dela eta zergadunari aintzatesten dizkioten prestazioak. Zehazki, ezintasun iraunkor partzialari edo osoari dagokionez, salbuespena ezin zaie aplikatu lanaren edota jarduera ekonomikoaren bidez etekinak jasotzen dituzten zergadunei.

Salbuespen honek lan aktiborik ez egitearekin duen zuzeneko loturak, izan ere, erreklamaziogileak egindako moduko egoerak sor ditzake, ohikoak ez diren egoerak. Kasu honetan, zergadunak ordaindutako PFEZen kuota lanaren bidez jasotako ordain-saria baino handiagoa izanik, lan horren bidez osatu baitzuen zegokion pentsioa.

Ildo horretan, pertsona ezgaituak lan munduan sartzeari ekonomikoki zigortzen duen arautegi baten aurrean gaude. Hala ere, gai honen azterketa sakonagoa eginez gero, zerga tratamendu honek hasieran sorrarazten duen gaitzespen logikoa apur bat arindu behar dugu.

Erreferentziatzeko datu gisa haxe aipatu behar dugu lehenik eta behin: gai honen arauketa ez dela modu berean egiten gure autonomia erkidegoan eta Estatuko gainontzeko tokietan. Horrela, bada, Estatuan pentsio honek inongo tributu-salbuespenik ez badu ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan indarrean dagoen PFEZen arauketak salbuetsizat jotzen du, baldin eta ez badago lanaren edota jarduera ekonomikoren baten bidez lorturiko bestelako etekinik. Beraz, EAEko araudiak jasotzen duen salbuespena, pentsiodunak lan aktiborik egiten ez duen kasuekin lotu da, eta lotura honen azalpena, giza talde honek lan mundura sartzeko dituen zailtasunak konpentsatzeko legegileak izan duen nolabaiteko borondatean aurkitu behar dugu.

Ikuspegi teorikotik, kontuan hartu behar dugu edozein tributu-salbuespen zerga ordainketari buruzko arau orokorren salbuespena dela izatez, eta, beraz, beharrezkoa dela berau burutzeko nolabaiteko justifikazioa egotea, bidezko tributu-sistema baten neutraltasunaren urratzea baitakar. Ideia hau kasu zehatz honi aplikatuz, arestian azaldu dugun ezintasun iraunkor osoari dagokion pentsioagatik PFEZ ordaindu beharretik salbuestea justifikatzen duen arrazoi bakarra lan mundura sartzeko ustezko ezintasuna da; beraz, hori guztia desagertu egiten da, pentsioduna, ezintasun guztiei aurre eginez, lan munduan sartzeari lortzen duenean.

Gogoeta hauekin guztiarekin adierazi nahi dugu aztertzen ari garen salbuespen honen oinarria, gure ustez, ahulegia dela eta ezin daitekeela espero egungo aplikazio-eremua hedatzeko lege-aldaketa bideragarriak. Alderantziz, zentzu honetan egin litekeen edozein proposamen, foru ogasunei zuzenduta legokeen neurrian, kaltegarria izan litekeela uste dugu; izan ere, seguru aski eztabaida sakona sortuko litzateke eta, esan bezala, egungo ezintasun osoagatik pentsioaren salbuespen egoeraren aurkako argudio anitz sorraraziko litzateke legegintza mailan. Honek guztiak ondorio arriskutsua ekar lezake: Estatuko legeriaren paraleloa litzatekeen araudi bat garatzea, hau da, egungo salbuespena kentzea.

- Emaita

Salbuespen honen egungo arauketak Euskal Herrian onartzeko zailak diren egoerak sortzen dituela onartu arren, izan ere, ezintasun osoagatik pentsioa jaso

eta lan munduan sartzen diren pertsona ezgaituak ekonomikoki zigortzen baititu, eta aztertu dugun kasuan bezala, “lan egitearren dirua galtzera” iritsi badaiteke ere, gure ustez kaltegarria litzateke gai honen inguruan esku-hartzeren bat abian jartzea EAEko ogasunen aurrean.

⇒ *Etekin irregularren integrazioako irizpideak (368/2004)*

- Erreklamazioa

Gipuzkoako herritar batek erretiro aurreratua hartu zuen; arrazoi horregatik enpresak erretiro sari bat eman zion. Beraren ustez, PFEZn zenbateko horren % 60 integratu behar zen eta ez, Gipuzkoako Foru Ogasunak esan bezala, % 70. Interesatuak bere kexan zioenez, Araba eta Bizkaiko foru ogasunek beraren irizpideari jarraitzen diote gai honen inguruan. Hiru lurraldeetan aplikatu beharreko araudi fiskala berbera dela kontuan harturik, interesatuak Arartekoarengana jo zuen, honen bitartekaritzaren bidez integrazio-irizpideen batasuna lortzeko hiru foru ogasunetan.

- Azterketa

Gure autonomia erkidegoko lurralde historiko guztietan PFEZri buruzko foru arauak modu beretsuan arautzen dute gai hau, eta bi motatako etekin irregularrak bereizten dituzte:

- A) Bi urtetik gorako sortzapena izanik aldian-aldian lortzen direnak. Hasieran behintzat, etekin hauen % 70 sartzen da zergan, salbu eta sortzapen aldia 5 urte baino gehiagokoa den kasuetan; horrelakoetan % 60 sartzen da.
- B) Zergari buruzko Araudian “*denboran zehar modu nabarmen irregularrean*” lortu direnak; hauen % 70 sartzen da zergan, baldin eta zergaldi bakar bati badagozkio. Kasu hauek zerrenda itxia osatzen dute, eta erreklamaziogileak aipatzen duena beraien artean dago: “*Elkar hartuta lan-harremanari amaiera emategatik enpresak langileei ordaindutako kopuruak*”, hain zuzen ere.

Sailkapen horren arabera, erreklamaziogileak jaso dituen erretiro sariaren eta primaren % 70 sartzean, integrazio egokia egin dela uste dugu Gipuzkoako Foru Ogasunak egindako behin-behineko likidazioan; izan ere, eta ikusi dugunez, PFEZri buruzko araudiak berariaz ezarritako kalifikazioaren arabera, modu nabarmen irregular batean lortutako etekinak dira, eta zergaldi bakar bati egotzi zaizkio.

Modu beretsuan ebatzi du EAEko Zerga-Kideketarako Sailak 1999ko urriaren 2an egindako kontsultari emandako erantzunean.

- Emaizta

Gure ikerketaren berri eman diogu interesatuari. Bere jarrera Zerga-Kideketarako Sailaren irizpidearekin bat datorrela adierazi diogu, organo horrek foru ogasunen artean harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetzat sustatzeko egiten duen jardueran agertu duen iritzia ikusirik.



## C) Bestelakoak

⇒ *Minusbaliotasuna egiaztatzea (484/2004)*

### • Erreklamazioa

Pertsona ezgaitu batek kexa aurkeztu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga eta Finantza Sailak duen web orriaren bidez kontsulta egin ondoren Gipuzkoako Foru Ogasunak eman zion informazioaren edukiaren inguruan.

Interesatuaren kontsulta, zehazki, bere minusbaliotasunaren egiaztapenaren ingurukoa zen, garraibide jakin batzuen gaineko zerga berezian (matrikulazio zergaren izen teknikoa) salbuespena lortu nahi baitzuen.

Adierazi zuenez, minusbaliotasuna edota ezintasuna frogatzen zuen ziurtagiria nahitaez aurkeztu behar zuela esan zioten, Foru Aldundiko organo eskudunak (Gizarte Ekintza) aintzatsitako minusbaliotasun edo ezintasunarena, hain zuzen; ziurtagiri hori ezin omen zitekeen ordeztu Gizarte Segurantzak emandakoarekin, ezgaitasun iraunkor osoa aintzatesten baitzizaion.

### • Azterketa

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga arautegia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeak xedatutakoari egokitzen dion martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuaren 71.2. artikuluko 2. paragrafoak honakoa dio:

*“Zehazki, d) letrak aipatzen duen salbuespenaren kasuan, beharrezkoa izango da aldez aurretik Foru Aldundiaren organo eskudunak, Autonomia Erkidegoko organo baliokideak, Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edota eskumena duen erakunde kudeatzaileek emandako minusbaliotasunaren edota ezintasunaren ziurtagiria aurkeztea”.*

Arauren testuak hitzez hitz dioenez, frogabidea ez da bakarra, aitzitik, badaude lau modu desberdin ibilgailuaren behin betiko matrikulazioa bere izenean egin nahi duen pertsonaren minusbaliotasuna edota ezintasuna egiaztatzeko:

- Foru Aldundiko organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez.
- Autonomia Erkidegoko organo eskudunak luzatutakoaren bidez.
- Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalaren ziurtagiriaren bidez.
- Eskumena duten erakunde kudeatzaileek luzatzen dituztenen bidez.

Ildo honetan, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorrak dioenez, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala erakunde kudeatzailea da, eta berari dagokio, fase guztietan, ezgaitasuna ebaluatu, kalifikatu eta berrikusteko prozedura gauzatzeko ardura, bai eta ordaindutakoaren arabera Gizarte Segurantzak ematen dituen prestazioetarako eskubideak aintzatesteko ahalmena ere; besteak beste, ezgaitasun iraunkorragatiko prestazioak, ezgaitasun maila edozein izanda ere; bai eta berau sorrarazi dituzten gertakizunak zeintzuk diren zehaztea ere.

Minusbaliotasuna frogatzeari dagokionez, erreklamaziogileak adierazi zuenez, zerga-agentziak, salbuespen hau aplikatzerakoan, nahikotzat hartzen du subjektu

pasiboak % 33ko elbarritasuna izatea; kasu hau emateko, beharrezkoa izango da Gizarte Segurantzako pentsioen hartzaileek ezintasun iraunkorragatiko pentsioa onartua izatea; ezintasun hau osoa, erabatekoa edota handia izan ahalko da eta, beraz, ez zaie IMSERSOren edota erakunde kudeatzailearen elbarritasunaren ziurtagiria eskatuko.

Salbuespen honi dagokionez, kontuan hartu behar da, baita ere, zenbait garraiobidereen gaineko zerga berezia itundutako zerga dela, eta, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 33. artikulua araber, Estatuak unean unerako ezarritako arau substantibo eta formalak kontuan hartu beharko dira. Beraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ez zela zertan minusbaliotasunaren ziurtagiriaren gainean zerga honen trataera ezberdina egin behar ulertu genuen.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiari adierazi genion minusbaliotasunaren egiaztapena abenduaren 2ko 51/2003 Legeak ezarritako bideei jarraituz egin behar zela (ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irsgarritasun orokorrari buruzko legea, 2003-12-3ko EAOn argitaratua). Arau honek 12. artikuluan dioenez, *“persona ezgaituzat joko dira % 33ko edo hortik gorako minusbaliotasuna dutenak. Hala ere, % 33ko edo hortik gorako minusbaliotasuna dutela ulertuko da, ezintasun iraunkor osoa, erabatekoa edo handia dutela ziurtatuta izanik, Gizarte Segurantzako pentsiodunak direnek, bai eta maila pasiboetako pentsiodunek ere, baldin eta erretiro-pentsioa aintzatetsia badute zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo ezgaitasunagatik”*.

- Emaizta

Zerga eta Finantza Saileko Zeharkako Zergen Kudeaketarako Zerbitzuak Arartekoari jakinarazi zion minusbaliotasunaren ziurtagiri gisa onartuko zuela ezintasun iraunkor osoarengatik pentsioa aintzatetsi zela egiaztatzen zuen agiria, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak luzatutakoa.

## D) Foru aldundien prezio publikoak

⇒ *Egoitzetako erabiltzaileak eta prezio publikoak: geroraturako zorraren legezko korrituen likidazioa (1299/2004)*

- Erreklamazioa

Egoitza-zerbitzuen erabiltzaileak diren pertsonen senideen elkarte ugarik azaldu zutenez, ez zeuden ados Arabako Foru Aldundiak 65/2002 Foru Dekretua argitaratu ostean izandako jokabidearekin; dekretu hori, hain zuzen, ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko korrituen likidazioaren ingurukoa da, erabiltzailearen diru-sarrerak nahikoa ez izateagatik ordainketa geroratzen den kasuetarako.

Interesatuek salatzen zuten, alde batetik, Gizarte Ongizate Sailak berandu igorri ziela zor-aintzatespenaren agiri eguneratua, 65/2002 Dekretuaren 16.3. artikuluan eta lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusten dena. Era berean, desadostasuna adierazten zuten, dekretu honek eragin ekonomiko handia zekarrelako interesatuentzat, dekretuaren berrikuntza nabariena, izan ere, geroraturako zorrari legezko diruaren korrituak gehitzea zen.

- Azterketa

Gizarte Ongizateko Foru Institutuak emandako zerbitzuen prezio publikoei buruzko arategia 2003rako onesten duen 65/2002 Dekretuaren 5.1. artikulua haxe xedatzen du:

*“Zerbitzua ordaintzera behartuta dauden pertsonak, hitzartutako prezio publikoa ordaintzeko adina ez dutela frogatzen dutenean, onura jaso ahal izango dute, aurretiaz hala eskatuz gero, salbuespen, hobekuntza edota zatikako gerorapen gisa, eman den zerbitzua kontuan hartuta, beti ere. Ordainketaren zatikako gerorapenek ekitaldi bakoitzari dagokion diruaren legezko korritua sorraraziko dute.”*

Era berean, dekretu beraren 16.3. artikulua ezartzen duenez, *“Ongizatearen Foru Institutuak, ordainketa egitera behartuta dauden pertsonen urtero igorriko die zorra badagoela egiaztatzen duen agiri eguneratu bat, egun horretarako zor diren zenbatekoen kopurua jakin ahal izateko. Agiri bakoitzak barruan izango ditu, ekitaldi horretan sortu diren zorren zenbatekoak, bai eta hurrengoetan sortutakoak ere”*.

2003. urtearen amaieratik eta 2004. urtearen hasierara bitartean, Arabako Foru Aldundiak ordainketa gauzatzera behartuta zeudenei igorri zien beraien zorrak 2003ko abenduaren 31n zuen egoera islatzen zuen agiri zehatza. Agiri horretan azaltzen zenez, 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen geroratutako zorrari (erabiltzailea egoitzan sartu eta 2002ko abenduaren 31 arte zeuden geroratutako zorren baturari) diruaren legezko korritua aplikatu zitzaion 2003. urtean zehar. 2003. urtean zehar sortu eta geroratutako zorrari dagokionez, hileroko egindako ordainketak kontuan hartu ziren urtean sortutako korrituak likidatzeko orduan.

Gure ustez, 2003. urtean zehar sortutako zorren korrituen pilaketak badu legezko babesa; izan ere, zor hori guztiz aplikagarria da 65/2002 Foru Dekretuaren arabera, Gizarte Ongizateko Foru Institutuak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko arategia 2003rako onesten duen foru dekretuaren arabera, alegia. Hala ere, ezin dugu gauza bera esan 2003ko urtarrilaren 1a aurretik sortutako (eta geroratutako) zorrei aplikatu zaizkien korrituen inguruan; honen arrazoia honakoa da:

1. Egun sinatzen diren zorra aintzatesteko agiriekin besterik gertatzen bada ere, aztergai dugun kasuan ezin dezakegu jakin ea 65/2002 Dekretua indarrean jarri aurretik erabilitako agiritan itunik egin zen ala ez geroratutako zorra zela-eta korrituak sortzeko. Adibide gisa, 1997an emandako ebazpena hitzez hitz aipatu nahi dugu; bertan, Aldundiak eskatzaile baten prezio publikoaren geroratzea onartzen du, pilatutako zorren aipamen soila eginez: *“banakako prezioa ezartzeko erabili den hobariak berekin dakar, etorkizunean, pilatutako zorra ordaintzea, zorraren aintzatespen gisa”*.
2. Ez 2002ko prezio publikoak onesten dituen 116/2001 Foru Dekretuak ez horren aurrekoek ez dute xedatzen ordainketaren zatikako gerorapenek korrituak sorrarazten dituztenik.

3. Itun edota berariazko arauketarik ezean, betebeharrak eta kontratuei buruzko arau zibiletara jo behar dugu, korritu hauen likidazioari legezko euskarria bilatzeko. Hala ere, hemen ere ez dugu aurkitzen legezko oinarri egokirik; izan ere, gure Kode Zibilaren 1.108. artikulua legezko korrituak ordaintzeko agintzen du, kontrako itunik ez dagoen kasuetan, baina zorduna berandutzen den kasuetara mugatzen du (Kode Zibilaren 1.100. artikulua); egoera hori ez da geratzen aztertzen ari garen kasuetan, itundutako gerorapenak indarrean dirauen bitartean behintzat.
4. Azkenik, 65/2002 dekretuak ere ez dio behar bezalako estaldurarik ematen 2003 aurreko zorrei dagozkien korrituen likidazioari, nahiz eta Foru Aldundiak emandako ebazpen batzuetan jaso diren arrazoietatik aurkakoa ondorioztatu. Horrela, bada, Dekretuaren azken xedapenatariko hirugarrenak hauxe dioenean: *“aplikagarria izango da, egun horretatik aurrera zerbitzuen onurak jasotzen **dituzten guztientzat**”*, kontuan hartu behar dugu ez dela zorrez ari, pertsonen baizik.
- Era berean, uste dugu, lehenengo xedapen iragankorrak honakoa ezartzean: *“Araudi hau indarrean jartzen denean, ordura arte sortutako zor guztien jakinarazpena egingo da, dekretu honen 16.6. artikuluan xedatutakoaren arabera”*, ez duela inongo aukerarik ematen 2003 aurreko zorrei dagozkien korrituak likidatu ahal izateko; izan ere, beraren helburu bakarra urtero informazioa igorri beharra, 16.3. artikuluan aurreikusten den moduan 2003ko urtarrilaren 1az geroztik sortutako zorrei dagokiena, data hori baino lehenago sortutako zorretara hedatzea da.

- Emaizta

Gizarte Gaietako foru diputatuak interesa adierazi du guk aurkeztutako arrazoiaren aurrean, hau da, beraren sailak 2003ko urtarrilaren 1a baino lehenago bere gain hartutako zorrei dagozkien korrituen likidazioaren inguruan. Ildo honetan, adierazi digunez, 2005. urtean zehar Gizarte Ongizateko Foru Institutuak interesatuei igorri dien informazioan jadanik ez dira aipatzen arestian eztabaidatutako korrituak eta, horrez gain, kobratzeko dauden zenbatekoak eguneratzeari ekingo zaio.

Txosten honen itxieran, arestian aipatutako sailaren informazio gehigarriaren zain gaude oraindik, 2003. eta 2004. urteetan gaizki kitatu diren zor geroratuaren eguneratzea gauzatzeko erabiliko den prozedurari dagokionez.

## E) Udal tasak

⇒ *Obra lizentziak ukatzea: ez da bidezkoa hirigintzako zerbitzuengatik tasa likidatzea (1360/2003)*

- Erreklamazioa

Barakaldoko herritar batek kexa aurkeztu zion Arartekoari, izan ere, herri horretako Udalak, patio bat estaltzeko lizentzia ukatu zion arren, hirigintza-zerbitzuak emateagatik

tasa igorri zion. Interesatua ez zegoen inola ere ados, bai lizentzia ukatu zitzaiolako, bai eta tasa kobratu zitzaiolako ere.

- Azterketa

Barakaldoko udalerrian hirigintzako zerbitzuengatikoko tasa 2004. urtean arautzen zuen ordenantza fiskalak 6. artikuluan xedatzen duenez, *“ez da ordaintzeko betebeharririk egongo, inola ere, jadanik emanda dagoen lizentzia bati uko egiten bazaio, iraungitzen baldin bada, ukatzen baldin bada...”*

Hala ere, kasu honi dagokionez, Auzitegi Gorenak behin eta berriz adierazi du obrak egiteko lizentzia eskaera baten ondorioz Udalak egiten dituen administrazio jarduerak ez dakartela inongo tasaren sortzapenik baldin eta espedientearen azken ebazpena ezezkoa bada; izan ere, zergapetu den egitateak emaitza jakin bat ekartzeaz gain –lizentzia lortzea– zerbitzu batzuk ematea edota udal eskumenekoak diren jardunak gauzatzera ere badakar; honela bada, pertsona jakin batzuei onura ekartzean, kostuaren zati bat banakatu eta beraiei ordainaraztea ahalbidetzen du, hirigintza-lizentziak emateko tasen bidez; izan ere, onura jasotzen duen unetik beratik, subjektu pasiboa izatera pasatzen da interesatua. Horrela, udal jardueraren bidez, eskabideari ukoa ematen bazaio, tributu horren izateko arrazoia bera desagertu egiten da.

- Eraitza

Arazo honen berri Barakaldoko Udalari eman, eta azken honek, arestian aipatutako ordenantza aldatu beharra dagoela adierazi du; horrela 2005eko urtarrilaren 1etik aurrerako jurisprudentziarekin bat etorriko da, ez bakarrik lizentziaren ukatzeari dagokionez, baizik eta gainerako hirigintza-tresnen kudeaketari dagokionez ere (plan partzialak, hirigintza-proiektuak...).

## 7. HERRIZAINGOA

### 7.1. SARRERA

2004an, Arartekoaren erakundeak herrizaingoaren arloko 104 kexa jaso ditu, hau da, epealdi honetan barrena jasotako kexa guztietatik % 9,3. Horrela, ukitutako administrazioen araberrako sailkapena eginda, kexa horiek ondokoak izan dira:

– Toki administrazioa .....	60
– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .....	44
– Foru administrazioa .....	1

Kexen edukia kontuan hartzen bada, sailkapena ondoko hauxe da:

– Trafikoa .....	70
– Eskubideak eta askatasunak .....	14
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	10
– Joko eta ikuskizunak .....	5
– Herritarren segurtasuna .....	2
– Atxiloketa zentroak .....	1
– Bestelakoak .....	1
– Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna .....	1

Gainera, ofizioz hasitako 9 espediente tramitatu dira, ondoko azpiarlo hauetan:

– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	3
– Atxiloketa zentroak .....	2
– Herritarren segurtasuna .....	2
– Eskubideak eta askatasunak .....	1
– Bestelakoak .....	1

Aurreko urteetan bezala, **trafikoaz** aurkeztu diren kexarik gehienak zehapen araubideari buruzkoak izan dira eta, bereziki, trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunaren gaineko arautegia urratzeagatik zigorrak jartzeko jarraitutako prozedurari buruzkoak.

Aztergai helarazi zaizkigun gaiak ere errepikatu egin dira. Horrela, prozedurako izapideen banakako jakinarazpenak egiteko modua, prozeduren ereduizko izapidetzea eta irmoak ez diren zehapenen betearazpena bezalako gai berrien inguruko kexak ere sortu dira aurtengoan.

Kexa horien ondorioz egin ditugun esku-hartzeen bidez jakin ahal izan dugu banakako jakinarazpenaren bigarren saiakuntza ez dela beti lehenengoaren ordu desberdinean gauzatzen, 20/1992 Legeko 59.2 artikuluan adierazten den moduan, eta, postaz egindako bigarren jakinarazpenak huts egiten duenean, ez dela beti egiaztatuta geratzen administrazio espedientean bigarren saiakuntza horren abisurik utzi izana

jakinarazpenaren xede den pertsonaren postontzian, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hori dela eta, behin eta berriz, 2002. urteko ohiko txostenean (VI. kapitulua) jasotzen den “Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak” izenburuko gomendio orokorraren edukia gogorarazi behar dugu eta, aldi berean, administrazio guztiei aipatu eskakizunak betetzean kontu handia izan dezaten eskatu.

Gai horri dagokionez, egoki iritzi diogu Auzitegi Gorenak, 2004ko urriaren 28ko Epaian, “ordu desberdina” terminoari buruz finkatu duen legezko doktrina aipatzeari; izan ere, aipatu doktrina, hemendik aurrera, jarduera-parametro saihestezina izango da eremu horretan. Auzitegiak ondoko hau dio horri buruz: *“Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.2 artikulua betetzeko xedez, ordu desberdina adierazpideak jakinarazpenaren lehenengo saiakuntza gauzatu zenetik gutxienez hirurogei minutuko diferentzia gordetzen duen jakinarazpen ororen balioa zehazten du”*.

Era berean, trafikoari buruzko zehapen prozedurak izapidetzen dituzten administrazioei eskatu behar diegu arreta berezia izan dezatela jakinarazpenak zein helbidetan egin behar dituzten zehazterakoan; izan ere, aldi honetan jaso ditugun kexa asko jakinarazpena prozedura hauek arautzen dituen arautegi zehatzak zehaztutakoa ez den beste helbide batera (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 78.2. artikulua) bidalia izan delako eta, ondorioz, erreklamazioegileek ez dutelako jakin beren aurkako prozedura bat abiarazita zegoenik, eta ez dutelako izan egozten zitzaizen erantzukizunez defendatzeko aukerarik.

Zehapen prozeduraren izapide ereduen –eta aurretiaz prestatutako ereduen– ondorioz jarri diren kexen kopuruak erakusten du arazo horri –2003ko txostenean heldu genion gai horri, “Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna: aurrez taxututako ereduen erabilera zehapen prozedurak tramitatzean. Zenbait arazo defentsarako eskubidearen inguruan” (VI. kap.)– asko falta zaiola oraindik erabat konpondua egoteko. Hori dela-eta, ezinbestekoa da berriro ere arlo horretan eskumen zehatzailea duten administrazioei horri buruz ohartaraztea, aipatu gomendioa osotasunean bete dadin neurri egokiak har ditzaten.

Atzera azpimarratu behar dugu baita ere administrazio horiek ezin dituztela derrigorrez betearazi ezarritako zehapenak, zehapen horien kontra jarritako administrazio errekurtsoen gainean berariazko ebazpenik eman ez bada (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 83. artikulua eta otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 20. artikulua); izan ere, ikusi dugunez, oraindik ere askok uste dute errekurtsoen isiltasunagatik ustezko ezespena nahikoa dela horretarako. Hori horrela, egoki iritzi diogu horri dagokionez aurren Bilboko Udalarari igorri diogun gomendioa (azaroaren 11ko 27/2004) laburbiltzeari, jarraian ageri den kexen multzoan (869/2003).

Aurten ere sortu den prozedurari buruzko arazoetako bat erakunde honen iritzi urratze bakarra izan denagatik zehapen ugari ezarri izanarekin lotua dago. Hori dela eta iritsi zaizkigun kexak, hain zuzen ere, TAO gunean aparkatuta egonik eta hasiera bateko aparkalekutik mugitu gabe hainbat salaketa eta zehapen jarraituren xede izan diren ibilgailuei buruzkoak dira, zegokien gunea ez beste gunean egoiliarren txartela erabiltzeagatik.

Gure iritziz, jarduera horrek ez ditu errespetatzen araudiak Herri Administrazioaren zigor ahalmena gauzatzeko araudiak ezarritako bermeak. Berme horien arabera, ezin da urratze beragatik zehapen bat baino gehiago ezarri, eta ezin zaizkie, ezta ere, elkarren artean nabarmenki erlazionatuta dauden urratze horiei zehapen autonomoak ezarri, eta, azken kasu horretan, zehapen prozedura berriei ekin lehenengo zehapen betearazlea izan arte.

Zehapen araubidearekin zerikusirik ez duten baina trafikoari dagozkion beste alderdiei dagokionez, 2002ko urtarrilaren 31ko Trafikoari eta Aparkamenduari buruzko Ordenantzaren Bilboko Udalak TAO gunean aparkatzeko txartela eskuratu ahal izateko ezarritako baldintzari buruz aurten helarazi zaizkigun kexak azpimarratu behar dira. Izan ere, ordenantza horren arabera, TAO gunean aparkatzeko txartela eskuratu ahal izateko ezinbestekoa da udal administrazioarekin zorrik ez izatea. Gai horri dagokionez, eta aurreko urteetan ere aztertu dela kontuan izanik, eskakizun hori jasotzen duen Ordenantzaren 19.5 artikulua baliogabetzeko gomendioa igorri diogu Udalari (abuztuaren 12ko 19/2004 gomendioa).

Udalak jakinarazi digu gomendio hori partzialki betetzeko asmoa duela, Ibilgailu Motordunen gaineko Zergaren ordainketan egunean egotea eskatzen duen baldintza mantenduz, eta gainerako zorrei buruzko eskakizunak desagerraraziz. Horrela, jakinarazi digutenaren arabera, Ordenantza aldatu egingo du, eta aldaketa hori, bere aurreikuspenak kontuan izanik, 2005eko lehenengo hilabeteetan gauzatu da.

Trafikoari eta Aparkamenduari buruzko Ordenantzari dagokionez, halaber, Bilboko Udalari gomendatu diogu ordenantza horrek 15. eta 16. artikuluetan elbarrientzako ezartzen dituen aparkamendu araubide bereziaren onurak abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan araututako aparkamendurako txartel bakarraren titularrak diren pertsona guztietara hedatzea, azkeneko xedapen horretan ezarritako erabilera baldintzatan, eta ez dezala eskatu horretarako txartel hori edo Europako Batasuneko kide diren gainerako Estatuetan baliokide den txartela ez den besterik (urriaren 29ko 24/2004 gomendioa).

Kasu honetan, baita ere, Udalak gomendio hori partzialki onartzeko asmoa jakinarazi digu. Hori horrela, araubide horren onuradun izango diren pertsonak ohiko bizilekua Bizkaian izatea eskatzen duen baldintza, aipatu Ordenantzako 15.2 artikuluan zehaztutakoa, desagerrarazi egingo da.

Ordenantza honen aplikazioari dagokionez, hirugarren gomendio bat egin diogu Bilboko Udalari. Izan ere, kasu batean, pertsona bati egoiliar-txartela ukatu egin zitzaion bere helbidea, Biztanleen Udal Erroldan agertzen zena, ez zelako ibilgailuaren agirietan agertzen zen helbidea, udal araudian eskatzen den bezala (12. eta 14. artikulua). Oraingo honetan, gure iritziz, kexa aurkeztu zuen pertsona erroldan azaltzen zen helbidean bizi zen egiaztatu behar zuen Udalak eta, hala izanez gero, egoiliar txartela eman beharko lioke, betiere gainerako legezko eskakizunak beteko balitu (urriaren 29ko 25/2004 gomendioa).

Udalak gomendio hori betetzeko asmoa helarazi zigun, baina azkenean ez zuen eskatzen genion egiaztapena egin; izan ere, adierazi zitzaigunaren arabera, egiaztapen hori egiterakoan ikusi zen interesatuaren ibilgailuak ez zuela TAO gunerako egoiliar txartela izateko eskatzen zen aurretiazko baldintza, ibilgailu motordunentzako udal zergan alta emanda egotea, betetzen. Hori dela eta, interesatuak ezin zuen egoiliar txartelaren onuradun izan.



Donostiako Udalak TAO gunerako egoiliar txartela ukatu izan du interesatua ez dela benetan Biztanleen Udal Erroldan agertzen den helbidean bizi irizteagatik, eta horrek hainbat kexa eragin ditu.

Azkeneko urteetan, abenduaren 29ko 112/1998 Gomendioa behin eta berriz emateaz gain (horren bidez Donostiako Udalarik gomendatzen zaio Erroldaren edukia kontuan har dezala edo, hala balegokio, ikerketa baten ondorioz ikusiko balu interesatua ez dela erroldako helbidean bizi, alda dezala), gai horri buruz hartzen den erabakiak prozedura formal bat jarraitu behar duela azpimarratu dugu. Prozedura horren arabera, interesatuak datu edo txosten garrantzitsu guztien berri izan beharko luke, eta kontra egiteko edo helegiteko bitarteko egokiak izan beharko lituzke.

2004. urtean hainbat kexa helarazi zaizkigu Donostian bizikletak espaloietatik eta oinezkoentzako guneetatik ibiltzen direlako.

Erakunde honen iritziz, kasu horietan trafikoari buruz indarrean dagoen legedia bete behar da. Legedi horren arabera, bizikletek –ibilgailuak diren heinean– ezin dute espaloietatik eta oinezkoentzako guneetatik ibili, horiek oinez gidatzen direnean salbu.

Aurreko urteetan arrazoi hori dela eta aurkeztu diren kexatan, Donostiako Udala ados egon zen gure balorazioarekin. Aitzitik, aurten jakinarazi zaigu bizikletak parke publikoetatik eta oinezkoentzako guneetatik zirkulatzeko aukera berriaz jasotzen duen ordenantza proiektu bat izapidetzen ari dela. Hori dela eta, trafikoari buruzko araudi orokorrean xedatutakoa bete dezala, jendeak araudi horrek aipatu espazioetan baimentzen dituen erabilerak ezagutzea sustatu dezala eta arretaz jardun dadila, oinezkoentzako guneetan erabilerak debekatuak gertatzen jarraitu ez daitezten, eskatu diogu Donostiako Udalarik.

Kexa berriak iritsi zaizkigu futbol partidak egiten diren egunetan Bilboko Udalak San Mames inguruetan aparkatzea debekatuta dagoela adierazteko erabiltzen duen moduari dagokionez. Ondorioz, berriro aztertu ditugu debeku hori adierazteko erabiltzen diren seinaleztapen irizpideak. Abuztuaren 30eko 30/2000 Gomendioan adierazi genuen bezala, gure iritziz, Udalak kasuan kasuko partidaren eguna ere adierazi beharko luke debekupeko eremu osoan dauden “debeekatuta aparkatzea partida egunetan” seinaleetan, eta ez eremu horretarako sarbideetan daudenak bakarrik. Izan ere, gure iritziz, “partida egunak” adierazpideak, eremu barruko seinaleetan debekuaren indarraldia zehazteko datu soil gisa azaltzen denak, ez du alderdi hori ezagutu ahal izateko nahikoa informazio ematen.

Bilboko Udala, hala ere, ez dago ados gure gomendioarekin.

Utzitako ibilgailuak bide publikotik kentzeak kexak sortzen jarraitzen du. Kexa horietako bat laburbildu dugu, jarraian agertzen den hautapenean (590/2004).

Aurten trafikoaren arloan planteatu diren kexak garrantzitsuenak azaletik aurkezten ari garen honetan, ezin dugu aipatu gabe utzi Sestaoko Udalak izan duen jarrera arlo horretako udal jardueren aurka aurkeztu diren bi kexa ebazteko egin genituen bi lan-kidetza-eskaeren aurrean. Bi kasuetan, Udala kexek planteatzen zituzten arazoak udal erakundeak berak ebatzi zituela adieraztera mugatu zen, aipatu ebazpenen legezkontasuna aztertu ahal izateko eskatzen genion informazioa eman gabe. Hori dela-eta, errepikatu egin behar izan ditugu hasiera batean egindako eskaerak.

Ez da horrelako zerbait gertatzen zaigun lehenengo aldia eta, horri dagokionez, Arartekoak esleitura dituen funtzioak behar bezala gauzatzea oztopatzen dutela ulertzen

dugu. Gainera, gure iritziz, jarduera-mota honek beren eskubideak defendatzeko xedez erakunde honetara jotzen duten pertsona horiekiko begirunerik eza suposatzen du.

\* \* \*

Arlo honetako beste eremu batzuei dagokienez, lehenengo eta behin, azpimarratu behar dira 2003. urtean hainbat ertzain etxetan zerbitzuak adjudikatuta dituzten enpresen bi beharginek aurkeztu dituzten kegak; izan ere, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak ez die baimenik eman enpresek kontrataturiko zereginak betetzeaz arduratu behar diren lan taldeetako kide gisa poliziaren bulegoetara sartzeko. Sail horrek ez die erantzun aurten arte kegak ebazteko gauzatu genituen lankidetz-eskaerei eta, hori dela eta, ezinezkoa izan da orain arte kexa horiek eragin zituzten administrazio jarduerak ebaluatzea. Gure balorazioa ondoren zerrendatzen diren kexa horietako baten laburpenean laburbildu dugu (1138/2003).

Aurten ere berriro planteatu da arazo hori, Autonomia Administrazioko beste Sail baten, hots, Justiziaren mende dauden bulegoetarako sarrerarekin lotua badago ere. Oraingo honetan, kexa hileta-zerbitzuak ematen dituen enpresa batetako langile batek aurkeztu du. Izan ere, enpresa horretan garatzen duen lana dela-eta, interesatuak, zenbaitetan, Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Erakundera jo behar du, eta Sail horrek, orain arte erabilitako irizpidea alde batera utziz, ez dio sartzan uzten.

Kexa aurkeztu duen pertsonak azaldu zigun, Justizia Sailak adierazi zionaren arabera, erabakia justizia-jauregietako segurtasunaren arduradunak Polizia Zerbitzuetarako Datuak Lantzeko Zentroaren mende dauden izaera pertsonaleko datuen fitxategietan berari buruz dauden datuak segurtasun publikoaren ikuspegitik aztertu ondoren hartu zela. Hala ere, sail horrek ez zion adierazi balorazioko irizpen orokor hori zein arrazoi zehatzetan oinarritzen zen, interesatuak behin eta berriz eskatu bazuen ere.

Era berean adierazi zigun Justizia Sailak jakinarazi ziola ez zituela ezagutzen justizia-jauregietako segurtasunaren arduradunak baloratu zituen datuak eta, horregatik, Herrizaingo Sailera igorri zuela, organikoki sail horren mende baitzegoen. Hala ere, interesatuaren arabera, bide horrek ere ez zion ukatze-erabakiaren arrazoiak gabezia konpondu; izan ere, Herrizaingo Sailak ez zion polizia-fitxategietan berari buruz zeuden datuetara sartzeko baimenik eman, horretarako Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 23.1 artikulura igorritz.

Hori dela-eta, eta interesatuak esandakoaren arabera, kontuan izanik interesatuak ez zuela jakin polizia-fitxategiek berari buruzko datuak gordetzen zitzutela bulego judizialeko eremu erreserbatuetara sartzeko baimenik ez zuela jakin zuen arte, interesatuak azaldu zigun oraindik ez zituela ezagutzen segurtasun-arduradunaren balorazioa arrazoitzen zuten zioak, ez eta bulego horietara sartzea eragozteko erabakiaren oinarriak. Interesatuaren iritziz, jarduteko modu horrek bere burua behar bezala defendatzeko aukera kentzen zion eta, era berean, eragina zuen ohorerako eta lanerako eskubideetan.

Erakunde honetatik lankidetz-askatu zitzairen bi Sail horiei, aipatu kasuari buruzko informazioa helarazteko. Hala ere, kexa izapidetzerakoan, erreklamazio-gileak jakinarazi zigun erreklamazioaren xede ziren jarduerak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean errekurritu zituela. Ondorioz, eta Ararteko erakundearen arautzen duen Legeko 13. artikuluari jarraiki, espedientea itxi egin behar izan genuen.

Auzi-bidera jo zuela jakinarazi zitzaigunean, erreklamaziogileak berriro eskatu zigun esku hartzea. Oraingo honetan planteatzen zena da Justizia Sailak berriro ukatu ziola Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Erakundera sartzeko baimena. Baimen hori Herrizaingo Sailak justizia-jauregiatiko segurtasunaren arduradunak ez zituela Polizia Zerbitzuetarako Datuak Lantzeko Zentroaren mende dauden polizia datuen fitxategietan berari buruz jasotako datuak erabiliko erabaki ondoren eskatu zen. Interesatuak esandakoaren arabera, eskaera hori zentzu horretan egindako lehenengo eskaera ukatzeko eman ziren arrazoi material berdinen ondorioz ukatu zitzaion.

Herrizaingo Sailak aipatu tratamendua eragotziz hartutako akordioak –horrek justifikatzen zuen interesatuak auzi-bidean errekurritutako erabakia– nabarmen urruntzen du erabaki berria administrazioarekiko auzi errekurtsoen xede izan zen erabakitik. Horregatik, kexaren espediente berri bat izapidetzeari ekin genion.

Gure iritziz, Justizia Sailak ezin du tratamendu horretan oinarritu, ez eta eskaera berriaren eta prozedura judizialean aztertzen ari zen eskaeraren arteko antzekotasunean ere, erreklamaziogileari sarrera eragotzeko. Izan ere, lehenengo eskaerari uko egiteko oinarritzat hartu ziren baldintza faktikoak jadanik ez ziren existitzen bigarren eskaera egiterakoan. Horrela helarazi genion aipatu sailari, eta txosten hau amaitzean oraindik ere ez dugu jaso kexa ebazteko xedez egin genuen informazio-eskaeraren erantzunik.

Baimenik gabeko kaleko salmentaren salgaiak konfiskatzeari buruzko kexak aurkeztu dira aurten ere, Bilboko udaltzaingoaren esku-hartze batekin lotutakoak oraingoan.

Txosten hau amaitzean, oraindik ez dugu jaso Udalarri poliziaren esku-hartzea 1998ko txostenean (VI. kap) jaso genuen izaera orokorreko “Lizentziarik gabeko salmenta ibiltariari dagokionez poliziak izandako jarduera” gomendioaren arabera izan zen egiaztatu ahal izateko eskatu genion informazio gehigarria. Baina, hala ere, gai honi buruzko lehendabiziko azalpen ofizialek pentsarazten digute udalerrri horretan konfiskazioa automatikoki erabakitzen dela, salmenta ezinbestekoa den baimenik gabe gauzatzeagatik.

Aipatu gomendia eragin zuen arazoa oraindik ebatzi gabe dagoela iruditzen zaigu, eta, horregatik, berriro adierazi behar dugu Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Lege autonomikoari jarraiki baimena ez edukitzea ez dela nahikoa arrazoi kautelazko neurri hori hartzeko. Ezinbestekoa da, gainera, kaleko salmentaren xede diren salgaiak faltsutuak, iruzurrezkoak, identifikatu gabeak izatea edo merkaturatzeko ezarritako gutxieneko baldintzak ez betetzea eta neurri hori ezinbestekoa izatea zigor-prozeduran har daitekeen erabakia eraginkorra izango dela ziurtatzeko (44. art).

Etorkinekin lan egiten duen elkarte batek ondoko kezka hau helarazi digu aurten: zenbait instantzia polizialek, delitu-ekintzei buruz ematen dituzten informazio ofizialetan, ustezko delitugileen nazionalitatea aipatzen dute, betiere horiek atzerritarak direnean, horretarako beharrik ez dagoenean.

Arartekoa ere kezkatuta dago euskal administrazio publikoen mende dauden polizietatik eskaintzen den informazioaren tratamendu desegokiak etorkinen irudi sozialean izan dezakeen eraginari buruz. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera eta hiru hiriburuetako udaletara zuzendu ginen, Ertzaintzak eta hiri horietako udaltzainek komunikabideetara igortzen duten informazioan nazionalitatearen premiazkoak ez diren aipamenak saihesteko ezarrita dituzten prozedurak ezagutzeko xedez.

Esku-hartze horien ondorioz, kexa eragin zuen arazoa ez zegoela erabat ebatzita egiaztatu ahal izan genuen. Hori dela-eta, irismen globala duen gai bat dela kontuan izanik, egoki iritzi diogu izaera orokorreko gomendio batean heltzea gai horri. VI. kapitulu jaso dugun gomendio orokor hori euskal administrazio publikoen mende dauden polizia guztiei igorri diegu.

Bestalde, bere poltsaren eta pasaportearen lapurreta salatzeke asmoz ertzain-etxe batera jo zuen nazionalitate algeriarreko pertsona batek aurkeztutako kexa azpimarratu behar dugu. Ertzain-etxean arreta eskaini zion agenteak ez zion salaketa jaso nahi izan, erreklamaziogilea irregulartasun dokumentaleko egoeran zegoelako eta ezin zuelako bere burua identifikatu. Kexa horren laburpen bat jaso dugu jarraian azaltzen den kexa-hautaketan (712/2004).

2004. urtean Ertzaintza ikastetxe baten barrutian sartzeari buruzko kexa berri bat jaso dugu. Kexa hori 2003. urteko txostenean (II. kap, 7.2.) gai horri buruz aipatu genuen kexa aurkeztu zuen Bigarren Hezkuntzako Institutu bereko zuzendariak aurkeztu zuen. Oraingo honetan, kexa eragin zuen gertaera ondoko hau zen: ikasleen jolasaldian, bi agente, polizia-ibilgailu batean, institutuko patiora sartu ziren, Zuzendaritzaren baimenik gabe, eta bertan aurkitzen ziren zenbait ikasle interpelatu zituzten.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera zuzendu ginen, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko xedez. Herrizaingo Sailari gogorarazi genion ez zela institutu horretako zuzendariak Ertzaintzako agenteak horretarako legez ezarritako eskakizunak errespetatu gabe zentroan sartzen zirelako aurkeztu zuen lehendabiziko kexa. Era berean gogorarazi genion gure iritzi Ertzaintzako agenteak ikastetxeetara Hiritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoko 21. artikuluan zehaztutako baldintzatan bakarrik sar zitezkeela. Azkenik, Ertzaintzako agenteei ikastetxeetan sartzeari buruz emandako jarraibide orokorrak zeintzuk ziren adierazteko eskatu genion, eta ea kexa berriaren xede ziren agenteak erreklamaziogileak iaz aurkeztutako kexan aipatutako agente berdinak diren.

Gure jarduera behar bezala orientatzeko helburuarekin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera ere zuzendu ginen, EAEko administrazioaren titularitatekoak diren ikastetxeen funtzionamenduaren arduradun den heinean, kexari buruz duen iritzia ezagutu ahal izateko. Era berean galdetu genion ea bazuen jarduera-protokoloren bat Herrizaingo Sailarekiko, Ertzaintzako agenteak ikastetxe horietan sartzeraoan legezko eskakizunak errespetatu zituzten.

Bere erantzunean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adierazi zigun bi sailak elkarrekin horri buruzko jarduera-protokolo bat eratzen ari zirela.

Herrizaingo Sailak, berriz, txostena amaitzean ez zuen erantzunik igorri. Hala ere, lehenengo kexari buruz igorri genion balorazioari erantzunez, Herrizaingo Sailak adierazi digu Ertzaintzako agente guztiek jaso dituztela ikastetxeetan sartzeraoan jarraitu behar dituzten jarduera-arauei buruzko jarraibide orokorrak, gure balorazioan adierazi genuenari jarraiki.

Aurten ere gauzatu ditugu San Frantzisko auzoan gertatzen diren polizia jarduerekin zerikusia duten zenbait esku-hartze.

Horri dagokionez, lehenik eta behin, gai horri buruz 1998. urteko ohiko txostenean egin genituen gomendioen (I. kap, 1.6.) jarraipena aipatu behar dugu. Jarraipen horren emaitza I kapitulu (1.1.7 atala) zehaztu dugu.

Era berean, Ertzaintzaren bi jarduera ikusi zituzten auzoko bizilagun batzuek igorritako kexa aipatu behar dugu. Bizilagun horien iritziz, Ertzaintzaren jarduerak desagokiak, bortitzak eta neurritz kanpokoak izan ziren. Kexa horietako bat itxuraz marokorrak ziren hiru etorkinei emandako tratuari buruzkoa da eta bestea, berriz, patruila bat zenbait pertsona afrikarrek biltzeko eta telebista ikusteko erabiltzen duten lokalera sartu zenekoari buruzkoa. Kexak aurkeztu zituzten bizilagunek, gainera, agenteek uneoro lehenengo jarduera ikustea eragotzi nahi izan zutela kontatu zuten.

Gure iritziz Herrizaingo Sailak gertatutakoa argitu, balizko erantzukizunak zehaztu eta, hala balegokio, neurri egokiak hartu behar zituen, eta horrela jakinarazi genion, gaiari buruzko informazioa eskatuz. Hala ere, txosten hau amaitzean ez dugu oraindik aipatu informazioa jaso.

Adierazi behar da, halaber, prentsaren bidez jakin genuela Ertzaintzak atxilotutako adin txikiko baten senitartekoeak atxiloketa gauzatu zuten agenteak adin txikikoa “*konorterik gabe utzi arte*” kolpatzeaz salatzen zituztela, eta atxiloketa “*basati*” gisa kalifikatzen zutela. Ondorioz, ofizioz jardun ginen. Hori dela-eta, egunkariko berria kontrastatzeko helburuarekin, Herrizaingo Sailera zuzendu ginen, gertaerak guztiz argitzeko ikerketa bat gauzatu behar zuela ulertzen genuela jakinaraziz.

Oraingo honetan, Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun gauzatu zuten ikerketatik ondorioztatu zezaketela agian polizia jarduera oker bat egon zela, eta jarduera horrek diziplina gaitzespena merezi zezakeela, baina diziplina espediente egokiaren burutzapena gertaera horiengatik izapidetzen ari zen zigor-prozeduraren emaitzen mende ezarri zutela.

Hala ere, txosten hau amaitzean ez dugu Herrizaingo Sailak horri buruz ondoren gauzatu dituen jardueri buruzko informaziorik jaso.

Azkenik, egoki iritzi diogu Herrizaingo Sailak 2003ko txostenean aipatu genuen kexa bati buruz egin genuen informazio-eskaerari eman dion erantzuna azpimarratzeari. Aipatu kexa Ertzaintzako jantzia zuten bi agentek etorkin bat etxe baten atarian sartu eta bertan miatu eta biluztu ondoren ezarritakoa izan zen. Herrizaingo Sailaren erantzunari dagokionez esan behar dugu erantzun hori oztopo bat dela gure kontrol-lana behar bezala gauzatu ahal izateko, eta baita erreklamaziogilearekiko begirune eza ere.

Txosten horretan adierazi genuen bezala, kexa hau konpontzeko egindako informazio eskabideari erantzunez, lehenabizikoz, Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun, interesatuak jaso zituen erasoen ondorioz agenteen aurka aurkeztu zuen salaketa zela eta, zigor jurisdikzioan diligentzia batzuk sortzen ari zirela eta edozein esku-hartze jarduera egoitza judizialean eman beharreko ebazpenen menpean zegoela. Edozein kasutan ere, guk bagenekien, alde aurretiko eginbide horiek behin-behineko izaeraz artxibatuak izan zirela, sail horren laguntza eskatu baino lehenago. Behin eta berriro zuzendu ginen Herrizaingo Sailera eta, ondorioz, ikerketa berriak gauzatu zituen. Ikerketa horietatik, ondoren jakinarazi zitzaigunaren arabera, bi agenteen ustezko inplikazioa ondorioztatu zitekeen. Hori horrela, Herrizaingo Sailak salaketaren ondorioz abiarazi ziren aurretiazko diligentziak izapidetzen ari zen auzitegira igorri zituen ondorio horiek.

Ondoren jakin genuen prozedura absoluzio-epai batekin amaitu zela. Izan ere, erreklamaziogileak atzera bota zuen bere salaketa ahozko epaiketan. Hori horrela, Herrizaingo Sailera zuzendu ginen berriz ere, ulertzen genuelako, “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” (2003ko ohiko txostena, VI. kapitulua) izaera orokorreko gomendioan oinarrituz, absoluzio-epaiak ez zuela esan nahi poliziaren jarduera ezin zitekeenik diziplinaren eta jarduera-arauen

egokitasunaren ikuspegitik aztertu. Gure iritziz, gainera, kexa eragin zuten zenbait gertaera ez ziren zigor prozesuko auziperatzearen xede izan, hala nola interesatua identifikatzeko modua, araketa, jabetzen kontrola eta miaketa, edota poliziaren esku-hartzea dokumentalki ez erregistratu izana. Hori guztia dela-eta, alderdi horiek ikertzeko garatu zituen jardueri buruzko informazioa eskatu genion Herrizaingo Sailari.

Baina aipatu Sailak oraingo honetan ere ez digu eman eskatzen genion informazioa, erreklamazio-gileak zigor prozesuko salaketa kentzerakoan kexa ere alde batera uzten zuela interpretatzen duelako. Erakunde hau ez dago ados interpretazio horrekin, eta ez du ulertzen nola kexa aurkezten duenak kexa hori atzera botako balu ere –eta hori, bestalde, ez da gertatu– Herrizaingo Sailak bere jarduera mugatzen duen. Horrela jakinarazi diogu Herrizaingo Sailari, behin eta berriro eskatuz lehen ere eskatu genion informazioa.

Beste alde batetik, Ertzaintzako agenteek gauzatutako identifikazioan eta atxiloketan indarraren erabilera desegokia salatuz jaso ditugun kexak ere azpimarratu behar ditugu. Kexa horietan, Herrizaingo Sailak jakinarazi digu gertaerak ikertu ondoren agenteen jarduera zuzena izan zela ulertzen duela. Hala ere, horri buruzko informazio osagarria eskatu dugu, bereziki agenteak indarra erabiltzera zituzten arrazoiaren eta esku-hartzeak garatzeko modu zuzenaren isla dokumentalari buruzkoa.

\* \* \*

2004. urtean ustezko tratu txar eta torturengatik kexak jaso ditugu berriro ere, Ertzaintzak terrorismoaren aurkako legeriaren pean egindako hainbat atxiloketaren kasuan. Horiek guztiak Herriaren Defendatzailearengana igorri genituen, erakunde horri baitagokio jarduera horien gainbegiratu eta kontrolatzea.

2003. urteko txostenean adierazi genuen bezala, Arartekoak kexa-mota horren aurrean dituen jarduteko aukerak oso mugatuak dira, euskal administrazio publikoen mende dauden polizia-kidegoei buruzko salaketak badira ere –eta kontuan izanik horiek direla erakunde honen kontrolpean daudenak–.

Gure lana, kasu horietan, polizia praktiken funtzio prebentiboan eta gainbegiratzearan oinarritzen da, legez kanpoko jarduerak atzematea eta zigortzea saihestuko –edo bultzatuko, kasuan kasu– duten mekanismoak ezartzeko helburuarekin. Xede horrekin, hainbat esku-hartze gauzatu ditugu aurten, eta horiek Ertzaintzaren ziegen eta udal gordetegiaren egoerari buruzko jarraipenari dagokion I. kapituluan, 1.1.11. atalean azaltzen ditugu.

## 7.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Egitatezko bidea Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak zerbitzu enpresa bateko langile bati ertzain-etxeetara bere lana egitera sartzen utzi ez ziolako (1138/2003)*

- Erreklamazioa

2003. urte amaieran, ertzain-etxeetako garbiketa-zerbitzua esleituta duen enpresa batetako langileak erakunde honetara jo zuen, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak,

interesatuak adierazitakoaren arabera, ez ziolako polizia-bulegoetara sartzen uzten, bere enpresarekin kontratatutako garbiketa-lanak gauzatzeaz arduratutako lan-taldeko kide gisa, eta, gainera, ez zizkiolako jakinarazi erabaki horren arrazoiak, behin eta berriz eskatu bazituen ere.

Kexa aurkeztu zuen pertsonak jakinarazi zigun aipatu Sailak ez zizkiola eman erabaki horren arrazoiak ezta enpresari ere.

- Azterketa

Herrizaingo Sailak kexa ebazteko igorri genion lankidetzeta-eskaerari erantzunez igorri zigun informaziotik ondorioztatu genuenaren arabera, Sail horrek ez zuen inolako administrazio-egintzarik eman erreklamaziogileari bere lana polizia-bulegoetan gauzatzeko baimena ukatuz. Ukapen hori jarduera material soila izan zen.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 93. artikulua debekatu egiten die administrazio publikoei eskubideak mugatzen dituzten jarduera materialak gauzatzea aurretiaz oinarri juridikotzat balioko duen ebazpen egokia eman gabe. Hori kontuan izanik, gure iritziz Herrizaingo Sailak ezin dio eragotzi erreklamaziogileari polizia-bulegoetan sartzea, aurretiaz ez badu jarduera hori estaliko lukeen berariazko administraziozko egintza eman. Gainera, administraziozko egintza hori aipatu legean ezarritako berme guztiekin eman beharko luke.

Sail horri berme horietako batzuk azpimarratu nahi dizkiogu bereziki: ezinbestekoa da administrazio prozedura egokia izapidetzea, prozedura horretan erabakitzen den egintza arrazoitzea, eta aipatu egintza interesatuari jakinaraztea (azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 53., 54. eta 58. artikulua). Betebehar-multzo horren funtsezko funtzioa da erabakiaren egokitasuna eta legezkontasuna bermatzea, eta baita interesatuen eskubideak errespetatzea ere. Eskubide horien artean aurkitzen dira administrazio jardueraren oinarri diren arrazoi faktiko eta juridikoak ezagutzea, horiei aurka egitea, eta azkenean hartzen den erabakiaren aurka jakinaren gainean egin ahal izatea.

Kexaren xede den kasuan ez zirela berme horiek errespetatu ulertu genuen, baina, hala ere, aztertu egin genuen erreklamaziogileari polizia-bulegoetarako sarrera ukatu izana arrazoitzeko Herrizaingo Sailak eskaini zigun justifikazioa (*“sarrera ukatzeko, interesatuari buruz 2003ko irailaren 2an Herrizaingo sailburuak emandako aginduaren arabera araututako polizia fitxategietan jasota dauden oharak hartzen dira kontuan, eta hori da kasu honetan erabiltzen den irizpide orokorra”*). Horrela, justifikazio hori ez zela sail horrek zentzu horretan eman zezakeen balizko egintza bat arrazoitzeko modukoa ondorioztatu genuen. Izan ere, gure iritziz, azalpen horren ez zuen betetzen arrazoiketaren helburu propioarekin; hau da, interesatuari gertaerak nahiz dagokion erabakiaren oinarri juridikoak jakinaraztea, ez baitzuen azaltzen zehatz-mehatz zergatik aipatu Aginduak arautzen dituen izaera oso desberdineko ia 50 polizia-fitxategietakoren batean jasotako ohar batek automatikoki eragiten zuen polizia-bulegoetan sartzeko debekua, ez eta horrelako erabaki bat zein arau juridikotan oinarritzen zen.

Bestalde, badirudi ohar horrek ez zirudiela nahikoa arrazoi erreklamaziogileari bulego horietan sartzea debekatzeko, interesatuak adierazitakoaren arabera, kexa aurkeztu ondoren, zenbait polizia-etxeetan sartzeko aukera izan baitzuen.

Erakunde honen iritziz, polizia-etxeei zerbitzu ematen dieten enpresetako langileei bulegoetara sartzea debekatuko balitzaie, erabaki horren eraginpean dagoen interesatuaren beste eskubide batzuk ere urratuko liriateke, hala nola lanerako eskubidea.

Hori horrela, kexa izapidetzen ari ginela, interesatuak jakinarazi zigun bere enpresak Herrizaingo Sailarekin kontratatuta zituen zerbitzuak garatzerik ez zuenez, enpresak kaleratu egin zuela.

Gure iritziz, erabakiaren zioak azaltzen ez dituen arrazoiketa desegoki batek, halaber, pertsona interesatuak bere enpresaren aurrean eta hirugarrenen aurrean duen erreputazioa kaltetu dezake, eta, horrekin, ohorerako eskubidea urratuko litzake, gaiari buruzko azalpen egoki bat eskaintzea eragozten baitzaio.

Hori dela-eta, balizko ukapen-erabaki baten arrazoiketak, gainera, jokoan dauden interes eta eskubide desberdinen balorazio bat eta eskubide horietako bat edo gehiago beste batzuen onurarako sakrifkatzea justifikatzen duten arrazoien azalpen bat jaso beharko litzukeela ulertzen dugu.

- Emaizta

Aipatutako gogoetak Herrizaingo Sailari igorri genizkion, eta honek ez zituen onartu.

⇒ *Ertzaintzak agiririk gabeko atzerritar batek ertzain-etxe batean ezarri nahi zuen lapurretatik salaketa formalizatzeari uko egitea (712/2004)*

- Erreklamazioa

Nazionalitate aljeriarreko pertsona batek gure erakundera jo zuen ertzain-etxe batean jaso zuen tratua kexatzeko helburuarekin. Interesatua ertzain-etxera joan zen bere poltsaren eta barruan zituen objektu pertsonalen lapurreta salatze asmotan. Objektu horien artean bere pasaporte aljeriarra aurkitzen zen, eta hori zen bere nortasun agiri bakarra.

Erreklamaziogileak adierazi zigunez, arreta egin zion agenteak ez zion salaketa jaso nahi izan. Ertzaintzak ez omen zuen eskumenik horrelako kasuetan jarduteko, dokumentazioaren aldetik egoera irregularrean aurkitzen baitzen. Horregatik, Polizia Nazionalaren mende dagoen Atzerritarrentzako Bulegora zuzendu zedin gomendatu zion.

Itxuraz, bulego horretan, interesatuaren salaketa ez jasotzeaz gain, atxilotu egin zuten, egonaldi irregularragatik kanporatze-espeditentea irekitzeko.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari kexa eragin zuen Ertzaintzaren jarduerari buruzko informazioa eskatu genion.

Gure eskaerari erantzunez, aipatu sailak jakinarazi zigun erreklamaziogileari arreta eskaini zion agenteak Ertzaintzan polizia-bulegoetarako sarbideari buruz indarrean dauden jarraibide orokorrak betetzera mugatu zela. Jarraibide orokor horien arabera, polizia-bulegoetara sartu nahi duen pertsona orok identifikatu behar du bere burua.

Era berean adierazi zitzaigun, kexaren xede den jarduera argitzeko helburuarekin garatu zen ikerketaren ondorioz egiaztatu ahal izan zela, aipatu jarraibidea alde batera utziz, irizpideen arteko desberdintasuna dagoela polizia-etxe desberdinen artean agiririk gabeko pertsona atzerritar batek salaketa bat ezarri nahi duenean jarduteko moduari buruz.

Ondoren jakin dugu aipatu sailak eman duela jadanik gai horri buruzko jarraibide berri bat, jarduera-irizpide bateratuak ezarriz. Jarraibide horren aplikazioak, gure iritziz,



erreklamaziogileak helarazi zigun kasua bezalako egoerak berriro ez gertatzeko baliokoduz.

Bestalde, Herriaren Defendatzaileari Polizia Nazionalaren jardueraren berri eman genion, erakunde horri baitagokio jarduera hori kontrolatzea. Horri buruz, kanporatze-espeditentea, azkenean, artxibatua izan zela jakin genuen.

- Emaizta

Herrizaingo Sailak eman duen jarraibide berriak ez ditu kexa eragin zuen jarduera bezalako polizia-jarduerak babesten, baina gure esku-hartzea amaitu aurretik, egoki iritzi diogu Herrizaingo Sailari jarraibide horren edukari buruzko zenbait alderdi argitzea eta guk egin dugun interpretazioa berrestea eskatzeari.

## B) Trafikoa

⇒ *Irmoak ez diren zehapenak gauzatzea (869/2003)*

- Erreklamazioa

Bilboko Udalak 100 euroko isuna ezarri zion kexa aurkeztu zuen pertsonari, trafikoko arau-hauste baten erantzule gisa.

Interesatuak berraztertzeke errekurtsua ezarri zuen, garaiz eta formaz, eta Udalaren jakinarazpen bat jaso zuen, ondoko hau adieraziz: “...Udal honetan zuk igorritako idatziaren sarrera erregistratu da. Idatziaren izaera: trafikoko araudia hausteagatik ezarritako zehapenaren aurkako berraztertzeke errekurtsua (...). Errekurtsua ebazteko epea hilabetekoa da, berau ezarri zenetik kontatzen hasita. Aipatu ebazpena adierazitako epean jakinaraziko ez balitz, administrazioaren isiltasunagatik gaitzetsizat hartuko litzake eta, kasu horretan, ustezko gaitzespen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkezteko aukera izango duzu (...), sei hilabeteko epean, ustezko egintza gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.”

Handik hiru hilabetera, eta errekurtsua ebatzi gabe, Udalak premiamendu-agindua eman zuen, isunaren zenbatekoa kobra zedin.

- Azterketa

Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legeko 83.1 artikuluan eta trafiko gaietako zehapen prozedurari buruzko Araudiko 20.1 artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, ezin dira bide administratiboan irmoak ez diren zehapenak gauzatu. Eta, aurreikuspen horietan oinarrituta, gure iritzi erreklamaziogileari ezarri zitzaion zehapena ezin zen gauzatu, berak aurkeztu zuen errekurtsua berariaz ebatzita ez zegoenez, oraindik ez zelako irmoa.

Era berean, betearazpenari dagokionez errekurtsua ebazteko epea eta, hala balegokio, administrazioaren isiltasun negatiboaren ondorioak gertatzeko ezarritako epea iragatetik eratorri zitezkeen ondorioen ikuspegitik aztertu genuen kasua.

Azterketa horretan, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikulua hartu genuen kontuan. Artikulu horrek prozedura orotan berariazko ebazpen bat ematera behartzen

ditu administrazio publikoak. Betebehar horrek ebazteko ezarritako gehieneko epea amaitu ondoren ere irauten du.

Gainera, aipatu legean ezarritako araubideari jarraiki, administrazioaren isiltasun positiboa, ondorio orotarako, prozedurari amaiera ematen dion administraziozko egintza da; administrazioaren isiltasun negatiboak, berriz, interesatuari egoki irizten duen errekurtoa ezartzeko aukera ematea besterik ez du xedetzat. Horri dagokionez, administrazioaren isiltasuna interesatuaren onurarako bakarrik ezartzen dela gogorarazi behar dugu; izan ere, isiltasun hori interesatuaren eskubideek Administrazioaren funtzionamendu egokia izan beharko lukeenaz kanpo dauden jardueren ondorioz edukia galtzea eragozten duen bermea da. Hori horrela, Administrazioak ezin du horren etekinik atera erreklamazio-gileak planteatutako gaiet buruzko berariazko erantzun bat emateko betebeharra bete ez duenean, eta ezin ditu, ezta ere partikularren eskubideetan eragina izan dezaketen jarduerak isiltasunarekin justifikatu.

Kontuan hartu genituen, halaber, gaiari buruz eman diren hainbat adierazpen –bai Auzitegi Gorenarenak eta baita justiziako auzitegi nagusienak ere–, azalduz zehapen baten aurkako administrazio errekurtoa formulatzen denean, zehapen hori ez dela irmoa eta, ondorioz, ezin dela betearazi, errekurtoaren berariazko ebazpena jakinarazi bitartean, eta administrazioaren isiltasun negatiboaren epea iragan izanak ez duela inolako garrantzirik ondorio horietarako.

Hori guztia dela-eta, gure iritziz, zehapen bat betearazteko bitarteko hertsatzailen erabilera, zehapen horren aurka ezarritako errekurtoari berariaz erantzun gabe, eta arauak ezartzen dituzten bermeak kontuan hartu gabe, arau horietan jasotzen ez den eta arau horien oinarri izan zen ikuspegi bermatzailearen aurka dagoen jarduera bat da.

- Emaizta

Gomendioa egin genion Bilboko Udalari (azaroaren 11ko 27/2004), kexa aurkeztu zuen pertsonari ezarritako zehapena derrigorrez betearazteko prozedura baliorik gabe utzi zezan eta, hala balebakoa, interesatuari kontzeptu hori dela-eta ordaindutako zenbatekoa itzuli ziezaien.

Txosten hau amaitzean, Udalak oraindik ez digu horri buruzko erantzunik igorri.

⇒ *Utzitako ibilgailu bat bide publikotik kentzea eta deuseztatzea, jarduera material horiei estaldura juridikoa emateko beharrezkoak diren aurretiazko administraziozko egintzak gauzatu gabe (590/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek gure esku-hartzea eskatu zuen. Izan ere, Santurtziko Udalak epe bat eman baitzuen bere ibilgailua bide publikotik kentzeko, utzita zegoela ulertzen zuelako, eta, interesatuak epe horren barruan ibilgailua ez zegoela utzita adieraziz aurkeztu zituen alegazioei erantzun gabe, Udalak kendu egin zuen. Bide publikotik kentzeaz gain, enpresa batetara eraman zuen, hiri hondakin solido gisa tratatua izan zedin, eta bertan deuseztatu egin zen.

- Azterketa

Gure azterketaren abiapuntua Eusko Legebiltzarrari igorri genion 1998ko ohiko txostenean (VI. kap.) jasotako “Bide publikoan utzitako ibilgailuak kentzea” gomendio orokorra izan zen.

Gomendio horretan ulertzen genuen, bide publikoan utzitako ibilgailu bat kendu aurretik, eta utzitako ibilgailuak hiri-hondakin solido gisa tratatzeari buruz ezarrita dauden legezko aurreikuspenak ezarri aurretik, ezinbestekoa zela ibilgailu hori abandonatutzat jotzea, berariazko egintza baten bidez. Azpimarratzen genuen, halaber, oso garrantzitsua dela erabaki hori hartzerakoan entzunaldi-izapidea betetzea, eta, hori dela-eta, gure iritziz ezinbestekoa da ustez abandonatuta dagoen ibilgailuaren titularrari entzutea eskuduna den organoak ibilgailua abandonatu gisa kalifikatu aurretik. Era berean, kalifikazio hori erabaki aurretik, dagokion organoak ibilgailuaren inguruko gorabehera guztiak, baita interesatuak alegatutakoak ere, baloratu beharko ditu, eta, gainera, horri buruz hartutako erabakiak oinarritua behar du izan.

Kasu honetan aipatu bermeak bete ote ziren egiaztatzeko helburuarekin, Santurtziko Udalari interesatuaren ibilgailua abandonatutzat jotzeko eta bide publikotik kentzea eta ondoren hiri-hondakin solido gisa tratatzea erabakitzeko garatu zen prozedurari dagokion administrazio espedientearen kopia bat eskatu genion.

Santurtziko Udalak gure eskaerari erantzunez igorri zigun dokumentazioak ikusi zitekeen Udaltzaingoko agente batek arrazoi hori dela-eta formulatu zuen salaketa batean hala ezarri zuelako bakarrik kalifikatu zela abandonatu gisa ibilgailua. Udaltzainaren iritziz, aipatu ibilgailuak Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 71. artikulua urratzen zuen. Aipatu dokumentazioan ikusi zitekeen, halaber, udal erakundeak ibilgailua bide publikotik kentzeko eta hiri-hondakin solido gisa tratatzeko agindua eman zuela, salaketa bera eta interesatuari ibilgailua kentzeko eman zitzaion epea iragan izana ez beste oinarririk gabe.

Agerian uzten zen baita ere ibilgailua bide publikotik kentzea eta berau hiri-hondakin solido gisa tratatzea eta deuseztatzea inolako erabaki juridikoren estaldurarik gabeko jarduera materialak zirela.

Izan ere, dokumentazio horren arabera, Udalak aurretiaz ezinbestekoa den erabakia hartu gabe kendu zuen ibilgailua bide publikotik eta, hiri-hondakin solido gisa tratatzeko xedez, kudeaketa-zentro batera bidali zuen. Erabakia ondoren hartu zuen, ibilgailua jadanik bide publikotik kendua eta aipatu zentroan utzia zegoenean, eta jarduera hori ez zitzaion jakinarazi interesatuari.

Dokumentazioak erakusten zuen, baita ere, Udalak erreklamaziogileari ibilgailua abandonatu gisa kalifikatu aurretik entzuna izateko aukera eman ez bazion ere, hark ukatu egin zuela ibilgailua abandonatuta zegoenik udal erakundeak ibilgailua bide publikotik ken zezan eman zion epean, ibilgailua ez zegoela abandonatuta eta Zirkulazioaren gaineko Udal Zerga ordainduta zuela adieraziz. Horri horrela, Udalak ez zituen kontuan hartu interesatuak une horretan egindako alegazioak, ez baitziren aipatu ere egiten denboraz kanpo, behin ibilgailua materialki erretiratuta zegoenean, ibilgailua bide publikotik kentzeko hartu zen erabakian.

Bestalde, Udalak alegazio horiei buruzko iritzia behin ibilgailua deuseztatu ondoren eman zuela egiaztatu ahal izan genuen. Udaltzaingoko agentearen salaketaren ondorioz izapidetu zen zehapen prozeduraren baitan izan zen, eta baztertu egin zituen, oinarritzat hartuz trafikoko araudiaren arau-hausteengatik derrigorrezkoak diren salaketatan jasotako egintzei buruz aipatu araudiak ezartzen duen ustezko egiazkotasuna.

Erabakia denboraz kanpo hartu bazen ere, arrazoiketa hori aztertu egin genuen, eta ikuspegi materialetik ez zela nahikoa ulertu genuen. Lehenik eta behin, ustezko egiazkotasuna automatikoki aplikatzera mugatzen zelako, ez agenteak ibilgailua abandonatu gisa kalifikatzeko kontuan hartu zituen datuak eta ezta interesatuak emandako datuak ere baloratu gabe. Gainera, horiek guztiak kontuan izanik, erabakia ez zen modu arrazoitu batean oinarritzen. Bigarrenik, gure iritziz ez zegokiolarako ustezko egiazkotasuna aplikatzea, agenteak salaketan urratutzat hartu zuen artikulua (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 71. artikulua) utzitako ibilgailuak bide publikotik kentzeko eta horiek hiri-hondakin solido gisa tratatuak izateko baimena ematera mugatzen baita, betiere artikulua horretan ezartzen diren bermeak betetzen direnean, eta ez duelako ibilgailua abandonatzea arau-hauste gisa tipifikatzen.

Hori guztia kontuan izanik, gure iritziz agentearen salaketa ezin zen trafikoko arau-hausteagatik derrigorrezko salaketa gisa ulertu, eta, ondorioz, ezin zen zehapen prozedura bat abiarazi. Aitzitik, salaketa hori agentearen iritziz ibilgailua abandonatuta zegoela erakusten zuten egintza batzuen salaketa gisa hartu behar zen. Era berean ulertu genuen, agenteak salaketan urratutzat jotzen zuen artikuluan oinarrituta, ezin zela inolako zehapen prozedurarik abiarazi interesatuaren aurka, eta, ondorioz, ezin zitzaioala isunik ezarri.

Gure iritziz, Santurtziko Udalak, Udaltzaingoko agenteak formulatutako salaketa ikusirik, zegokion administrazio prozedura izapidetu behar zuen, ibilgailua benetan utzita zegoen ala ez argitzeko. Era berean, interesatuari entzun behar zion; bere alegazioak eta gainerako gorabeherak modu arrazoituan baloratu behar zituen; eta, azkenik, zegokion administrazio egintza hartu behar zuen, gaiari buruzko erabakia emanaz. Ibilgailua abandonatutako ibilgailu gisa berariaz kalifikatu ondoren bakarrik erabaki zezakeen, gure iritziz, ibilgailua bide publikotik kentzea eta berau deuseztatzea –kasu orotan errespetatuz helburu horrekin Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 71. artikuluan ezarritako baldintzak–.

Gainera, gure iritziz, ezinbestekoa da ibilgailua abandonatu gisa kalifikatzen duen erabakia, nahiz bide publikotik kentzeko eta deuseztatzeko erabakiak interesatuari jakinaraztea, eta jakinarazpen horiek egintzak betearazi aurretik gauzatzea (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 57. artikulua eta ondorengoak).

Balorazio hori Udalarik igorri genion, adieraziz, erakunde honen iritziz, baliorik gabe utzi behar zuela interesatuari aipatu 71. artikulua urratzeagatik ezarri zitzaion zehapena. Era berean azaldu genion gure iritziz ondare erantzukizuneko prozedura bat hasteko nahikoa arrazoi zegoela, interesatuari bere ibilgailua deuseztatzeagatik kalte-ordaina ematea egokia ote den erabakitzeke helburuarekin (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 139. artikulua eta ondorengoak).

- Emaizta

Udalak gure balorazioari erantzun zion, ados zegoela eta, guk esan bezala, ondare erantzukizuneko prozedura bat izapidetzeari ekingo ziola adieraziz. Hala ere, ez zigun zehapenari buruzko informaziorik igorri. Hori horrela, horri buruz zuzendu genion eskaera berriro igorri behar izan diogu.

## 8. JUSTIZIA

### 8.1. SARRERA

Justizia arloa argi eta garbi bereizten da Arartekoak administrazio publikoak kontrolatzeko bere zereginean jorratzen dituen beste arlo batzuetatik zeren, duen ize-na duela ere, ez baitu justizia Administrazioen funtzionamendua gainbegiratu behar. Arlo horretan, eta botere judizialaren independentziaren printzipioarekin bat etorritz, jurisdikziozko zeregina gaineko kontrola ebazpena eman duenaren gainetik dauden organo judizialei baitagokie, eskusiboki. Printzipio beretik, era berean, epaitegietara eraman den auzi bat aztertzerako botere judizialek kanpoko ezein instantzia sar dadin debekua ondorioztatzen da; hori, gure erakundearen arauketan –eta gainerako arar-teko eta defendatzaileenean– kexak tramitera ez onartzeko zio modura zehazten da. 2004an, prozedura judizialik abiarazita egoteak edo ebazpen judizialik emanda izateak 50 erreklamazio ezestera behartu gaitu.

Epaitegien funtzionamendu administratiboari dagokionez, legeak dio Arartekoak gai horri buruz jasotzen dituen kexak esparru hori ikertu edo horretaz ebazteko eskumenik duen organoari jakinaraziko dizkiola. Biderapen zeregin horrez gain, eskuartean dugun arlo honetan izaera desberdineko beste esku-hartze batzuk ere biltzen dira, justiziaren aplikazioarekin zuzenean zein zeharka duten loturak bat eginda. Hara zelan sailkatu diren espediente bat tramitatzea eragin duten kexak:

– Espetxe gaietako jarduerak .....	21
– Doako laguntza juridikoa.....	5
– Abokatu eta prokuradoreen elkargoak .....	4
– Justizia administrazioaren funtzionamendua.....	4

Ikusten denez, kexarik gehien eragiten duena espetxeetako presoek egoera da. Are gehiago, azpiarlo horretan kexa gehiago ere sar zatekeen, gai horretaz Estatuko Herri Defendatzailearengana bideratzen direnak ere zenbatuko balira. Herri Defendatzailea da **presoen** eskubideen balizko urraketan aurrean esku hartu behar duena, espetxeetako administrazioa Estatuko Administrazioaren esku baitago. Horregatik, espetxe adminis-trazioaren ustezko jarduera irregularrak planteatzen dituzten gaiak, antolatzaera begira, harengana bideratzen diren ala ez kontuan hartuta sailkatzen dira.

Aurreko urteetan bezala, ugariak dira Herri Defendatzaileari jakinarazi zaizkion espetxe zigorrak betetzearekin zerikusia duten arazoak, baina oraingoan aipamen berezia merezi dute Madrilen martxoaren 11n izandako sarraski latzaren ondorioz espetxe askotan ETAko presoek aurka hartu ziren erabakiei buruz jasotako salaketek, hartutako neurriek, itxuraz, preso horientzat zigorra betetzeko baldintzak okertzea ekarri baitzuten.

Graduetan atzera bidalitakoen –martxoaren 12an erabakita– edota espetxez al-datutakoen lehenengo albisteak preso batzuen senideen bidez heldu zitzaizkigun; baita, gutxiago izan arren, Martutene eta Langraizko presondegietan lanean aritzen diren elkarteengandik ere. Ez zen, ordea, kexarik jarri. Iturri horien bidez Espetxe Erakun-deetako Zuzendaritza Nagusiak bi espetxe desberdinetan zeuden hiru presoek atzerako gradua berretsiz bidali zituen faxak ia berdindin zirela jakin ahal izan genuen.

Komunikazio horietan presoak banda terroristarengandik bereiztu zirelako frogarik ez zegoela baino ez zen aipatzen.

Horrek guztiak martxoaren 11ko gertakarien ondorioz hartutako erabakiak preso zeuden pertsonen jokabidearekin zerikusirik ez zuen egitate batean –atentatuaren ustezko egilea ETA zela– oinarritu zirela pentsarazten zuen eta, horrek, sailkapen eta espetxe aldaketa haiek Espetxeetako Lege Organiko Orokorra finkatzen duen bakoizpen zientifikoaren printzipioari erantzun ez ziotela esan nahiko luke. Garbi dago Espetxe Administrazioaren jarduera horiek Arartekoaren esku hartzeko esparrutik kanpo daudela baina, hala ere, orduan erakunde honen titular zen emakumeak preso batzuen eskubideak urratu zirelako zantzu larriak zeudela ulertu zuenez, gertakari horien aipamen berezia egin zuen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean urteko txostena aurkezteko egin zuen agerraldian –2004ko maiatzaren 6an–.

Adierazpen haiek hedabideetan izan zuten oihartzunaren ondorioz, Arartekoak bilera egin zuen Espetxe Erakundeetako zuzendari nagusi izendatu berri zuten emakumearekin, eta bilera hartan azaldutako gaiari buruz eta espetxeetako egoerarekin, batez ere EAEn daudenekin, lotutako beste batzuei buruz zuen kezka jakinarazi ahal izan zion; izan ere, espetxe administrazioak berak behin baino gehiago aitortu du, gainera, Estatu osoko azpiegiturarik okerrenak hemen daudela.

Martxoaren 11ko gertakariak espetxe jakin batzuetan izan zituzten ondorioei dagokienez, gure erakundeak, ekainaren hasieran, bilera egin zuen *Ettxeratekin*. *Ettxeratek* atzerako gradu aldaketei, espetxe aldaketei eta, ziotenez, elkarte horrek sostengatzen duen kolektiboko zenbait presok jasan zituzten hainbat erasori buruzko txostena eman zigun. Preso horiek maiatzean ere berdin, isolamenduan segitzen zutela zioten eta, beraz, neurri haiek beste preso batzuen erasoetatik babesteko behin behineko neurriak izan ez zirela agerian uzten zuten albisteak ere aurkeztu zizkiguten. *Ettxeraten* ordezkariak azpimarratzen zuten hartutako neurriak kolektibo osoarengana bideratu zirela, eta preso haiei ez zitzaizkiela egindako faltetan edo espetxean zuten jarreran okerrera jo zutelako ezarri.

Egun haietan espetxeetan zer gertatu zen ikertu behar zela iritzita, gure erakundeak gaia Herri Defendatzailearengana bideratu zuen. Urriaren hasieran, Estatuko gure kideak Espetxe Erakundeetako Zuzendari Nagusiaren txosten bat jaso zuela jakinarazi zigun, eta txostenean honako hauek zehazten zirela:

*“2004ko martxoaren 12an 53 preso espetxe tratamenduko lehenengo gradura aldatzea erabaki zen; denak ETA erakunde terroristarekin zerikusia zutelako zigortuta zeuden eta, handik egun batzuetara, graduan atzera egiteko beste sei erabaki hartu ziren, azkeneko hauek, gainera, espetxe aldaketarekin batera zihoazela.*

*Kasu guztietan, espetxeetako tratamendu batzarrak banan-banan proposatu eta gero, Espetxe Erakunde Zuzendaritza Nagusiak, eskudun izanik, bakoitza aztertu eta banan-banan hartutako erabakiak izan ziren, preso bakoitzari jakinarazi eta, espetxeetako irailaren 26ko 1/1979 lege organiko orokorraren 76.2. artikuluan dioenez, Espetxe Zaintzako Epaitegira errekurritzeko eskubidea zuela argituz. Aldi berean, presoen eskubideen babesa bermatzeko eta, izatekotan, espetxe erregimenaren arauak betetzen izan litezkeen desbiderapenak artezteko, lege bereko 76.2 j artikulua dioen*

*moduan, Espetxe Zaintzako Epaitegiari ere jakinarazi zitzaizkion. Ez dago agintaritzak judizialak, kontrolaren bidetik zein errekursoaren bidetik, horien gaineko inolako ebazpenik eman duen inolako berririk.*

*Jasotako txostenak, amaitzeko, erabaki horiek dagoen Tratamendu Batzordeek ikuskatu dituztela eta, arauz ezarrita dagoen prozedura segitu ondoren, 51 preso graduan aurrera jartzea eta 7 lehenengo graduan lagatzea erabaki dutela; bat espetxetik irten da, behin betiko askatasunean.”*

*Etixerat* elkarteak jarritako kexaz gain, beste idatzi bat ere heldu zen gure erakundera –preso baten gertuko pertsona baten bidez–, non presoak berak, bera bezala terrorismoarengatik espetxeratutako beste kide batzuekin batera, martxoaren 11ren osteko egunetan jasan zituen erasoak kontatzen zituen; Aranjuezeko espetxeko (Madrid IV) zenbait funtzionariok eraso horien aurrean nolabaiteko permisibitate jarrera, baita indukziozkoa ere izan zutela salatzen zuen. Gaia Herri Defendatzaileari bideratu genion; berak presoarengana jo zuen, presoak barik beste pertsona batek jarri zuenez, kexa tramitatzea nahi zuen berrets zezan. Presoak espedientea bertan uzteko erantzun zion, ez zitzaiolako berme erakunde hark esku har zezan interesatzen.

Alde horretatik, *Etxeratek* gure erakundearengana ekarri dituen kexekin segituz, aurten posta elektronikoko mezu ugari jaso ditugu, non gure autonomia erkidegotik urrun espetxeratuta dauden presoak ikustera zihoazen hainbat senidek jasandako trafikoa istripuak salatzen zituzten. Istripu horietako batzuetan hildakoak ere izan dira, gainera.

Gure erakundea oso ondo jabetzen da erreklamaziogile horiek salatzen duten arazoaren larritasunaz. Izan ere, Arartekoak behin baino gehiagotan salatu ditu zigorrak bizitokitik oso urrun dauden espetxeetan betearazteak dakartzan ondorio kaltegarriak, presoek ez eze beren senideei ere sufrimendua areagotzen baitzaie. Baina jasotako kexak interesatuak jarri ez zituztenez, eta erreklamazioek Administrazio publikoaren ustezko jarduera irregularrak hizpide hartu barik, espetxe politikako erabaki jakin batzuei buruzko desadostasuna adierazten zutela kontuan hartuta, ez ditugu Herri Defendatzailearengana bideratu.

Aitzitik, Estatuko erakunde horretara terrorismoarengatik espetxeratutako pertsonak ikustera joatean gertatutako arazoei buruzko beste gai batzuk bai bideratu ditugu, planteatzen zituztenak zuzenki kaltetuak zirenean. Aldez aurretik baimendu eta espetxeak baietsi ondoren, funtzionario eskudunek ahaidetasuna frogatzeko aurkeztutako dokumentazioa nahikoa ez zela iritzita, komunikazioak galarazi zituzteneko kasuak ziren, eta zenbait kasutan dokumentazio berberak lehenago bisita egiteko balio izan zuen, gainera. Halakoetan, ordea, Herri Defendatzaileak espetxe Administrazioaren jardueran irregulartasunik hautematerik ez dagoela ondorioztatu ohi du, espetxeak “*segurtasun zioak*” argudiatzen baititu, eta berme erakundeak ez dauka horiek baloratzen sartzetik.

Herri Defendatzaileari, halaber, Almeriako espetxean dauden bi presok beste preso batengandik jasandako eraso eta Brievako espetxeko preso batek ospitalera eraman zuten batean Espainiako Poliziako agente batek eman zion jipoiaren salaketa jasotzen zuten kontakizunak –*Etxeratek* helarazita– bidali dizkiogu. Antzeko ikuspegiarekin, baina preso barik polizia etxetan inkomunikatuta atxilotuta eduki dituzten pertsonei buruz, tortura eta tratu umiliagarriak jasan dituztela baiesten zuen jende askoren testigantza ugari ere bidali dizkiogu. Gai hau zabalago jorratu da I. kapituluko 1.1.11 atalean, baita Herrizaingo arloaren sarreran ere (II. kap. 7.1.).

Arestian aipatutako presoek kolektiboaren gaineko kekez gain, 2004an, Herri Defendatzaileari espetxeetatik etorritako oso erreklamazio gutxi bidali dizkiogu. Besteak beste, Brievalako espetxean preso dauden hainbat emakumek bultzatutakoa aipatuko genuke, ematen zitzaaien arretoa ginekologikoan gabezia larriak salatzen baitzituzten, baita sexu osasunaz eta antisorgailuez informaziorik eta hezkuntza egokirik ematen ez zitzaizela ere. Kexa urtearen amaieran jaso genuenez, oraindik ez dakigu zer egin ahal izan duen Estatuko gure kideak horren gainean. Nolanahi ere, azaldutako arazo horrek, gure iritziz, agerian jartzen du emakumeek espetxeetan bizi duten egoera kezagarria, sarritan gizonezkoek baino askoz ere baldintza okerragoak pairatzen baitituzte, espetxe-ko bizitzaren alderdi guztietan (egoitzak, lan ordaindua, laguntza mediko espezializatua eta abar).

Gainerako gaitan, planteatzen zitzaizkigun arazoetan ez ziren Administrazioaren ustezko jarduerak irregularrak aipatzen. “*Espetxe gaitako jarduerak*” goiburupean bildu ditugun espedienteak dira, non EAEko erakunde publikoen nolabaiteko inplikaziorik igartzen deneko arazoak zein informazio edo orientazio eskari hutsak jasotzen baitira.

Jarduteko eskatzen zaigun bigarren multzo honetan ukituek Auzitegi Gorenaren ebazpen bana jakinarazi ez zitzaizela salatzen zuten. Interesatuari jakinarazpen pertsonalik ez helaraztea espetxeetan sarri hauteman den arazoa da, eta bereziki larria izaten da errekurtsioa ofizioz izendatutako abokatu batek tramitatu duenean, abokatu horrek, sarritan, ez baitu presoaren zein kartzelatan dagoen ere jakiten. Alabaina, aipatutako bi kasu horietan, erreklamaziorik ez izan arren, informazio osagarria eskatu arren, ez zaizkigu justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexa modura tramitatu ahal izateko behar genituen datuak eman.

Gai generikoak, espetxe-ko bizimoduaren baldintzak, espetxe-ko tratamenduaren zein droga-mendetasunaren arretaren gabeziak, zehapenak jartzea edo –beste urteetan bezala– zigorrak presoaren gizarte edo familia ingurunetik oso urruti dauden espetxeetan betearaztea planteatzen ziren kasu askotan nolabait bideratzen saiatu gara. Zuzenbide zibilari edo etorkinen berriarazko arazoei buruzko kontuez ere galdetu digute, azkeneko urteetan gero eta sarriago galdetzen ari zaizkigun kontuez, alegia. Ez da lehenengo aldia transexual batek ere gugana jo dueneko, fisikoki emakume itxura izan arren gizonezkoen modulu batean sartu dutelako. Administrazioak horretan irregularki jokatu duenik ondorioztatzerik ez dagoen arren –araudiak, kasu honetan bezala, gizonezkoen organo genitalak dituzten guztiak gizonezkoen moduluetara bidaltzeko agintzen baitu–, gure erakundearen ustez, ukitutako pertsonaren eskubideak babesteko behar ziren neurriak hartzea behartuta zeuden. Alde horretatik, esan zigutenez, espetxe-ko ekipo medikoa osasun zentro batekin harremanetan zegoen, erreklamaziorik ez zuten zentro hartan bere garaian sexu aldaketarako prozesuari ekin omen ziolako.

Preso dauden zenbait pertsonak jasotzen dituzten zergapetu gabeko pentsioak direla eta, aurreko urtean, berriro ere, pentsiotik presoaren mantenuari ustez dagokion zatia kendu zaielako jarri diren bi kexa heldu zaizkigu. Laguntzako pentsio horiek ordaintzen dituzten administrazioek –gure Autonomia Erkidegoan foru aldundiak– murrizketa hori Auzitegi Gorenaren epai batean oinarritzen dute, non, preso dauden behartsuek pentsioa jasotzeko duten eskubidea aitortzen zen aldi berean, mantenuaren kostea diru sarrera modura hartzeko eta, ondorioz, pentsiotik kentzeko aukera ere ematen zen.

Berme erakunde honen ikuspegitik, argudio hori oso eztabaidagarria da. Izan ere, eskubide bat legezko oinarririk gabe mugatzea dakar. Neurria, halaber,



presoentzako bereizkeria modura ikus zitekeen eta, gainera, Konstituzioaren 25.2. artikulua ere izan zitekeen. Bestalde, praktikan ez da mantenuaren izatezko kosterik frogatzen, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak urteroko ebazpen batean beste helburu batzuekin egiten duen balorazioa onestera mugatzen baita. Horregatik guztiarengatik, ukituek banan-banan erreklamazioak jarriarazten ere, guk ofiziozko jarduera bat abiaraztea erabaki dugu, Eusko Jaurlaritzan inplikaturik dauden sailak eta hiru foru aldundiak jomuga hartuta.

Presoen osasun zaintzak kexa eta auzi desberdinak sorrarazi ditu. Langraizko espetxean, bi presok oso egoera antzekoa pairatu dute: gaixotasun kronikoengatik oso larri, baldintzapeko askatasunean irteteko baldintzak betetzen dituztela egon arren, behar duten laguntza medikoa –kasu batean psikologikoa ere– ziurta diezaieten egoitzarik aurkitzen ez dietenez, preso segitu behar dute, ziurrenik biziko dituzten azkenekoak izango diren egunetan. Bi kasuetan, gure erakundeak arazoa Osakidetzarekin aztertu du baina, arrazoi desberdinak medio, ez zaio egoki iritzi gizarteratzeko arazoak dituzten gaixoak zaintzen dituzten zentro batean ere sartzerik. Horregatik, txosten hau idazten ari garenean, presoetako batek espetxeko eritegian segitzen zuen eta bestea, berriz, Txagorritxuko Zaintza Bereziko Atalean zeukaten; bi irtenbideetako bat ere ez zen egokia, ordea.

Azaldutako kasu horietan, eta antzeko beste askotan, gizarte eta osasun artapeneko arazo gero eta larriagoa igartzen da eta arlo horretan, espetxe sistemak izan litzakeen erantzukizunak erantzukizun, euskal administrazioek ere esku hartu behar dute. Ikuspegi berarekin, 2003ko urteko txostenean beste gaixotasun batzuei zein droga-mendetasunei lotutako patologia mentalak zituzten presoak tratatzeko berariazko baliabide eta zentrorik ez zegoela agerrarazi genuen. Bere garaian, gai honetan eskudun diren erakunde desberdinetara jo genuen, gure kezka berri ematera eta, deskribatutako kasu horietan, baliabide egokiak sor zitezen eskatzera, zigorra espetxez kanpoko zentroetan betetzea zein baldintzapeko askatasuna lortzea errazteko, edo zigorra bukatzean ondo gizarteratzea ahalbidetzeko. Interpelatutako administrazioek espetxetik arazo psikiatrikoekin irteten diren pertsonak gizaratean baztertuta gera daitezkeen arintzen laguntzeko borondatea adierazi zuten arren, denek –arrazoi desberdinengatik– arazoa beren eskumen soiletik harantzagokoa zela azpimarratu zuten.

Espero zitekeen moduan, 2004an egoerak hobera egin ez duenez, arazo hori berriro agertu den kasuen berri izan dugu, baita espetxe barruko arreta psikiatrikoari buruzko beste batzuen ere. Presoen osasunaren babesaren alorrean, ordea, gure erakunde honek, Arabako HIESaren aurkako Herritarren Batzordeak eskatuta, EAEko Administrazioak espetxeetako osasun arloko eskumenak bere gain har ditzan esku hartu duela azpimarratu behar dugu.

Txosten honetan *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelako egoera* hizpide duen ezohiko txostenaren jarraipenari eskainitako atalean (I. kap., 1.1.1) gai hau luze eta zabal azaltzen da. Nolanahi ere, hemen auzian inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako hiru sailak jo genduela aipatuko dugu (Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza; Osasuna; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak) izatez EAEn bizi diren herritar horien osasun artapena EAEko osasun arretarako sisteman sartzeko arazoak, baita abantailak ere, azaltzera. Estatuko Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko 16/2003 Legean aurreikusita zegoen proposamen hori nola ikusten zuten ere galdetu genien.

Osasun Sailleik bidali ziguten lehenengo erantzun batean, gure idatzia Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzara bideratu zutela argitu ziguten, gai hura autonomiaren garapenaren politikaren ikuspegitik jorratu behar zela iritzita. Era berean, behin beharrezko zereginak Autonomia Erkidegora eskualdatzeko erabakiak hartzen direnean, espeteetako osasun zaintza kudeatzeko borondatea zutela adierazteaz gain, Sailak 2003ko ekainean gai horri buruzko Errege Dekretu egitasmoa tramitatzen zen bitartean aurkeztu zituen alegazioen berri ere eman ziguten.

Justizia eta Gizarte Gaietako arduradunek ez ziguten beren iritzien berri eman baina Lehendakariordetza Sailak bai, ordea. Erantzunean, Eusko Jaurlaritzak espetxe gaietako transferentziak ahal bezain laster eskuratzeko borondate irmoa duela azaldu ziguten, Espainiako gobernu desberdinei horri buruz zenbat erreklamazio bidali dieten kontatuz. Alabaina, ez zuten eskumen horiek partzialki, espetxeetako osasun zaintzatik hasiz, beren gain hartzea komeni zitzaizen ala ez aztertzeko prest zeuden ezertarako aipatu.

Desberdina da, presoek osasun arretarekin zerikusia ere baduen arren, ospitale-tarako bidaietan igarritako gabezien arazoa. Aurreko txostenetan ere aipatu izan dugu, orokorki, presoek lekualdaketen inguruan sortu diren arazo desberdinak; EAEn Ertzaintza arduratzen da bidaiak horietaz. Oraingoan kexa Langraitzen preso zegoen gizon baten-gandik etorri zitzaigun; HIESdun gaixoa bera, premiazko tratamendu bat hartu behar zuenez, Txagorritxuko Ospitalera (Gasteiz) eramane behar zuten, kontsulta medikora. Kontsulta astean behin baino ez zuten egiten eta, erreklamaziogilearen kasuan, ez zen agindu zitzaionetik bospasei aste geroagora arte egin, Ertzaintza, antza, azaroan hirian zeuden ospakizunak zirela-eta, zaintza lanetan aritu behar zuenez, ez zelako kartzelara bere bila joan.

Iturri desberdinetatik jakin ahal izan dugu ohikoa dela zentro mediko baterako bidaiak, premiazkoak ez badira, bertan utzi edo atzeratzea, kontsultetarako hitzorduetara berandu heltzea, osasun zerbitzuaren antolamendurako dakarren kaltearekin. Arartekoa jabetzen da Ertzaintzak giza baliabideak eskueran izateko eduki ditzakeen mugetaz, baina presoek osasun arreta garrantzi handiko interesa da, gure ustez, eta zuzenean lotzen da espeteetako legeak preso guztiei aitortzen dien eta, Konstituzioaren 25.2. artikulua araberak, botere publiko guztientzat betebeharra dakarren osasuna eta bizitza zain diezaieten eskubidearekin. Horregatik, presoek osasun kontuen ondoriozko bidaiak egin behar direla azpimarratzeko asmoz, Herrizaingo Sailera jo dugu, berriro ere. Une hauetan haien erantzunaren zain gaude.

Ezin dugu espetxe alorreko jarduerari eta, zehazki, presoek osasun eta bizitza eskubideari buruzko atal hau iazko abenduan, Langraizko kartzelan egun berean gertatu ziren bi heriotzak aipatu barik amaitu. Oraingo egunkarrietan agertu zen informazioa baino ez dugu ezagutzen, hau da, "iragaitzan" zeuden bi pertsona zirela eta batek bere buruaz beste egin zuela besterik ez. Tristeki, bere buruaz beste egin zuen gazte hura egun batzuk lehenago gure erakundearengana zuzendu zen, bere zigor eta espetxe ibilbidean bidegabekeria eta irregulartasunak irizten zienak kontatzeko. Bitez lerro hauek haren oroigarri, bihotzez. Baina ezin dugu alboratu halako historiak sarriegi gertatzen direla espeteetan, eta heriotza ez-naturalen kopuruak izugarri kezkarriak direla. Kopuru horiei espetxeratzeak berak eragin zein gaiztotu dituen gaixotasunen ondorioz hiltzen direnak gehitu behar dizkiegu. Garbi dago, alde horretatik, espeteetan gero eta preso gehiago egoteak eta kartzela batzuetan jende pilaketa izugarria izateak egoera txartu baino ez dutela egiten.

Aipatutako bi heriotza horiei buruz, presoei laguntzeko elkarte batek, duela gutxi, Arartekoari esku hartzeko eskatu dionez, Fiskaltzari informazioa eskatuko diogu eta, informazioa daukagunean, auzia Herri Defendatzailearengana bideratuko dugu.

\* \* \*

Sarreraren hasieran eman ditugun datuetan ikusten denez, oso gutxi dira **adin txikiko lege-hausleei** erakundeetatik emandako erantzunari buruzko espedienteak. Beren ezaugarriengatik, kolektibo horretako kideek ez dute gurea bezalako erakundee-tara jo ohi, batetik, zertarako diren jakiten ez dutelako eta, batez ere, Gazte Justiziako Zerbitzuaren zein zentroen arduradunenagana, baita adingabeentzako epaileengana ere, jotzea errazago eta eraginkorragoa zaielako.

Horregatik, esparru honetako jarduerak geure ekimenez egin ohi ditugu, *Adin txikiko lege-hausleak* goiburuko ezohiko txostenaren jarraipenari buruzko atalean ageri den moduan (I. kap., 1.1.6). Gai honi buruzko kexei dagokionez, joan den urte honetan Entzutegi Nazionalak erabakitako barnerapen neurriak gauzatzear beren beregi izan dugun esku-hartzea amaitutzat jo dugu. 2003ko txostenean ageri zenez, erakunde honek berriro azpimarratu du Justizia Ministerioarekin itun bat sinatu beharko litzateke-ela, Autonomia Erkidego honetan bizi diren adingabe lege-hausleei ezarritako neurriak EAEko administrazioaren mendeko zentroetan bete ahal izan daitezen.

Gure ikuspegitik, adingabe lege hausleen interesak defenditzea Eusko Jaurlaritzarentzat helburu behinena izan behar da eta, horregatik, ahalegin guztiak egin behar ditu eta, behar izanez gero, baita ekimena bere gain hartu ere, Entzutegi Nazionalak ezarritako neurriak betearazten laguntzeko formulak finkatzen laguntzeko, hasiera batean neurri guztiak bete-raztearen ardura hartzerik izango ez balu ere. Horregatik, sail eskudunak aipatutako ildotik zihoakeen itunik negoziatzea pentsaezina zela jakinarazi zigun arren, hauteskundeen ostean abagune politikoa aldatu zela ikusi genuenean, berriro ekin genion aurreko planteamenduak berrikustea komeni zela, eta Madrileko Administrazioarekin gai horri buruzko komunikazio eta lankidetzak bideak irekitzeko ahaleginekin segitu behar zela esanez.

Alde horretatik, 2004-2007 Gazte Justiziako Planaren 3. helburua iristera xedatutako jardueren artean (Gobernu Kontseiluak 2004-11-02an onetsia), hauxe dago jasota: *“Justizia Ministerioarekin behar diren gestioak egingo dira, Entzutegi Nazionaleko Adingabeen Epaitegi Nagusiak agindutako barnerapen neurriak, Euskadin bizi diren eta 7/2000 Legea aplikatuz terrorismo delituengatik epaitutako adingabeei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan bete daitezen ahalbidetzeko”*. Ontzat jo behar dugu Eusko Legebiltzarrari onesteko aurkeztu zaion testuan negoziatzearen alde agertzen den borondatea.

Iaz gai honetan garatutako beste jarduera bat barnerapen zentro batean giltzape-tutako adingabe bati ustez segurtasun zelatari batzuek emandako tratu txarren kasuaren gainean izan zen. Bi iturri desberdinetatik izan genuen gertakari haien berri, baina biek anonimatuan geratu nahi zuten, ofiziozko jarduerari ekin genion; laburpena txosten honen I. kapituluko 1.1.6. atalean daukazue ikusgai. Eskudun instruzio epaitegia gertakariak ikertzen ari omen denez, Arartekoa ez da aztertzer sartu. Alabaina, gure esku-hartzea amaitu ez bada ere, agerian jar daitezke, jada, hezkuntza eta segurtasun zereginen arteko koordinaketan akats nabariak igarri direla, gertakari haiek izan zirenean Justizia Sailaren barruan Zuzendaritza desberdinen eskuetan zeuden-eta. Esan digutenez, eskumen horiek berrantolatu dituzte eta, zentroaren kudeaketan aldaketa hori sartu

denetik, Zuzendaritza bakarrak hartu ditu biak bere gain. Instantzia eta pertsona arduradun desberdinen artean komunikazio arazoak ere hauteman dira, baita gertakariaren erregistro dokumentalean ere.

2004aren amaieran, beste kexa bat jaso genuen, adingabe lege hausleentzako beste barnerapen zentro batetik ihes egin zuen gazte bati emandako tratu txarreatatik; kasu honetan, ordea, legez kanpoko ustezko jarduera Ertzainei, atxiloketa unean, egozten zitzaien. Herrizaingo Sailak honetaz zer esango digun zain gaude.

\* \* \*

Justizia arloan kopuruz garrantzitsuak diren beste kexa batzuk **abokatuen eta prokuradoreen elkargoen funtzionamenduaren gainekoak** dira. Egia esan, esparru honetan erreklamaziorik ugariak zerbitzuak kontratatu dizkietenek letratuen jokabide profesionalarekin ados egoten ez direlako izaten dira. Auzi pribatuak direnez, Arartekoak ez dauka esku hartzerik baina horrek ez du esan nahi atsekabe horren atzean, eta korporazio horiek, profesioaren jarduna deontologikoki kontrolatzeko orduan, legokiekeen bezain zorrotz jokatzeko ez dutelako pentsamendu arras hedatuaren atzean igar daitekeen gizarte arazoa ezagutu behar ez duenik. Gure erakundearen zeregina, ordea, erakunde horiek korporazioaren administrazioaren dimentsioaren aldetik ikuskatzera mugatu behar da.

Arlo horretan, urte honetan interesatuek, hasieran izendatutako ofiziozko abokatuaren ustezko jarduera okerrak salatu ondoren, beste ofiziozko abokatu bat izenda ziezaieten eskarien inguruko erreklamazioak jaso ditugu, berriro ere. 2003ko txostenean ere esan genuenez, auzi korapilatsua da, doako laguntza juridikorako eskubideak ez baitu abokatu aukeratzetik eskaintzen eta, bestalde, indarreko legedian ez da onuradunak eskatuta ordeztzea aurreikusten. Egia da, hala ere, konfiantza funtsekoa dela bezeroaren eta letratuaren harremanean eta, horregatik, abokatuaren jokabide profesionalaren gaineko salaketa bat tartean dagoenean, gerora sortutako bateraezintasunen bat izan litekeela pentsa liteke, eta bateraezintasun horren norainokoa eta ondorioak beti aztertu beharko lirakeke.

Aurten jorratu ditugun kasuetan irtenbide desberdinak lortu dira: bitan –bata Bizkaiko Abokatuen Elkargoan eta bestea Gipuzkoakoan planteatu ziren–, letratua aldatu da, baina bi kasuetan, hasieran izendatutako letratuaren jokabide profesionalaz gain, beste arrazoi batzuk ere izan dira tartean. Hirugarren kasu batean, Gipuzkoan bera, Elkargoak abokatu ez ordeztzeko erabakia berretsi zuen, haren jokabidea aztertzen ari zen Deontologia Batzordearen espedienteak zabalik segitzen zuen arren. Irizpideak itxuraz desberdinak zirela ikusita, korporazioari argibide gehiago eskatu dizkiogu, eta txostena idazten ari garenean oraindik jasotzeko zain gaude. Nolanahi ere, berme erakunde honek azpimarratu behar du zerbitzu publiko hau ematea araupetzen duten arauak abokatu aukeratzetik aurreikusten ez duten arren, ezohiko kasuetan aldatzea ere ez dutela eragozten; eta kasu horiek banan-banan aztertu beharko lirakeke, beti, doako asistentzia juridikoaren izatezko errespetua bilatuz, eta diru baliabiderik ez izatearen ondoriozko desberdintasunik izatea saihestuz.

Korporazio profesionalen artxibo eta erregistroak ikusteko eskubidearen gaia ere berriro planteatu zaigu. Aurrekoetan, gure erakundeak esan izan du ez zuela egoki ikusten espedienteetan dauden dokumentuen kopiarik ez emateko dagoen ohitura. Oraingoan, ordea, Abokatzaren Euskal Kontseiluak interesatuari 2001ean eskatutako dokumentuak eman barik segitzen zuela ikusita, gomendio bat egitea erabaki dugu; gomendioa hurrengo atalean dagoen lehenengo laburpenean jaso da.

Nolanahi ere, abokatuen eta prokuradoreen elkargoen administrazio dimentsioari buruzko kexarik ohikoenak erabiltzaileek jarduera profesional jakin batzuegatik jartzen dituzten salaketei erantzuten ez zaielako, edo erantzunak atzerapen handiz ematen direlako izaten dira. Arazo horrek Abokatutzaren Euskal Kontseiluari ere ukitzen dio, bere aurrean jartzen diren errekurtsoen ebazpenari dagokionez. Jarraian jaso ditugun kexa laburpenetan ikusten denez, auziak tramitatzen larregi luzatzeak dakarren funtzionamendu okerraz gain, sarritan oso ondorio txarra ere eragiten da, egindako huts deontologikoak indargabetu eta, beraz, zehatzerik ez izatea, alegia.

Kexa laburpen horretan aipatutako erakunde profesionali kexak tramitatzean igarri zaien beste arazo bat ere agerian geratu da. Elkargokideen jardueraz edo, gutxienez, salaketagileei burutu diren eginbideen berri eman ez zaielako, eta kexa artxibatzeako baliatu diren zioez jarritako salaketa batzuk guztiz errefusatzen dira. Laburpenean azaldutako kasuaz gain, Arabako Prokuradoreen Elkargoari buruzko kexa bat –non hautemandako akatsak ongitu zituzten– eta lurralde bereko Abokatuen Elkargoari buruzko beste bat jaso ditugu, eta azkenekoaz duela gutxi informazioa eskatu dugu.

Antzeko zerbait planteatzen da ustezko jarduera profesional irregular baten salaketaren aurrean (jarduerak konpontzea eskatzen duen kalteak eragin dizkio, ukituaren iritzi), interpelatutako elkargoak kasua erantzukizun zibil hutseko erreklamazioa balitz modura kudeatzen duenean, jokabidea ikuspegi deontologikotik aztertu barik. Legokiokeen diziplinazko espedienterik ez abiaraztearen ondorioz, interesatuari ebazpena Abokatutzaren Euskal Kontseiluan errekurritzeko aukera ukatzen zaio.

Erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du, bere iritzi, halakoetan elkargokideen jarrerak bi ikuspegietatik, deontologikotik eta erantzukizun zibilekotik aztertu behar direla, erreklamaziorik erabaki bakoitza sostengatzen duten zioak ezagutzeko aukera emanaz. Onar liteke bi analisisen emaitza –antzekoa baina ez guztiz berdina– idatzi bakarraren bidez jakinaraztea, komunikazioaren argitasunerako kaltegarri izan litekeen arren. Baina, halakoetan ere, kexagileari diziplinazko gaiei buruzko jarduerak artxibatzeari buruz errekurtsua jartzeko aukera eskaini beharko litzaioke. Kontrakoa egiteak salaketagileari Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren diziplinazko prozeduraren Arautegiaren 17. artikuluan jasotako errekurritzeko eskubidea berez eragotzi ez eze, Arartekoaren 50/97 gomendioaren edukari jaramonik ez egitea ere ekarriko luke; 50/97 gomendioaren laburpena Eusko Jauralaritzarentzako 1998ko Txostenean irakur daiteke (II. Kap., 7.2. B).

2004an, Bizkaiko Abokatuen Elkargoak lehenago hemen desegokitzen jo dugun moduan jokatu zuelako guk esku hartu eta gero, Gobernu Batzordeak jakinarazi digu gure erakundeak defendatzen duen dotrina onartzen duela.

Amaitzeko, doako laguntza juridikoaren eskarien ukapenei buruz jaso ditugun kexak aipatzea komeni da. Normalean ezin izaten dugu halakoetan sartu, Batzordearen erabakiak inpugnatzeko lege prozedura instantzia judizial batean amaitzen baita. Horregatik, gai horretaz tramitatzeko onartzen ditugun kexa bakarrak organismo jarduleen –Orientazio Juridikoko Zerbitzua edo Doako Laguntza Juridikoko Batzordea– eta eska-tzaileen arteko komunikazioen gainekoak izaten dira.

\* \* \*

**Justizia Administrazioaren funtzionamenduaren** gaineko erreklamazioei dagokienez, deigarria da zein gutxi izan diren. Hainbat arrazoi asma ditzakegu hori

azaltzeko: batetik, Arartekoak esparru horretan esku hartzeko dituen aukerak urri samarrak dira, jasotako kexak auzia ebazteko gai den organo judizialari jakinaraztera mugatu behar baitu. Bestetik, epaitegi eta auzitegien funtzionamenduari buruzko kexa eta salaketak tramitzatzeko Arautegia onetsi zenetik, halako erreklamazioei jaramon egiteko bide zuzena ireki zen, eta izango zituen bere emaitzak, ziurrenik. EAEn herritarrei argibideak eman eta jaramon egiteko dauden bulegoek ere erabiltzaileen eta justizia Administrazioaren arteko komunikazioa erraztu dute. Bulego horietan epaitegiak non dauden eta, oro har, zelan funtzionatzen duten galde daiteke, prozedura bat nola doan jakin, kexak edo iradokizunak aurkeztu, eta horrek guztiak aipatutako zerbitzu publiko horretara iristeko oraindik dauden oztopoak arintzen laguntzen du.

Testuinguru honetan, gure erakundearen esku-hartzerik gehien eragin dituzten gaiak prozedura judizialean izandako atzerapenei buruzkoak izaten dira. Kexek jurisdikzio esparru desberdinei ukitzen dieten arren, agian ugarienak protagonisten bizitzan –arrazoi desberdinengatik– gogorki eragiten duten prozeduretan sortzen direnak dira. Hartara, esaterako, pertsona ezgaituen gaineko zaintza gauzatzeari buruzko kasuak izan dira, senar-emazteen banaketaren ondoriozko neurrien aldarazpenei buruzkoak, ezgaitasun baten berrikuspenaren gaineko bat, eta zigor prozesuetan auzipetuta zeudenenak bat baino gehiago. Erakunde honek esku hartu duen gai batean ere ez da berandutze bidegaberek hauteman, baina garbi dago herritarrek izugarri luze irizten dietela justizia Administrazioak normalizat –edo gutxienez ezinbestekotzat– dituen denborei.

Gai berari buruz, 2004an auzipetuei badaezpadako espetxeratzea ezarri zaien zigor auziak larregi luzatu direlako kexak jaso ditugu, berriro ere. Horietako bi Entzutegi Nazionalean *Jarrai*, *Haika* eta *Segi* erakundeei buruz egiten ari diren epaiketetan auzipetuta dauden gazte presoei buruzkoak ziren. Auzipetu bat baino gehiagori badaezpadako espetxeratzearen luzapena ere aplikatu zaienez, ia lau urte daramate giltzapean. Oraingoan ez ditugu espedienteak ustezko berandutze okerreko kasu modura tramitatu, aurreko urtean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira erreklamazio berdina bidali genuenean, behar ziren ikerketak egin ondoren, “*ez da berandutze aipagarririk nabaritu, eta kausak zentzuzko epeetan tramitatu dira, handiak eta konplexuak zirela kontuan hartuta*” ondorioztatu baitzuten.

Aipatutako kasu horietan inola esku hartzerik ez genuela pentsatu arren, eta botere judizialaren independentziaren errespeturik handienetik, Arartekoak ezin du egun “makro-epaiketa” horiek hain maiz baliatzeak kezkatzen duela adierazi barik geratu; prozesu konplexuak dira, ez bairik gabe, bakoitzean hamarkadaka pertsona prozesatuta baitago. Makro-epaiketa horietan terrorismoaren kontrako borrokan ezohiko zigor neurrietara gehiegitan jotzearen arrisku handiak agerian jartzen dira, gure ustez. Horrela, esaterako, oso garrantzi desberdineko egitateetarako antzeko zigorrak ezartzearen neurrigabekeria eta horrek dakartzan badaezpadako espetxeratze bidegabeki luzeko egoerez gain, erakunde jakin batzuetako kide izatean oinarritutako salaketek banakoaren zigor erantzukizunaren printzipioa ahultzea ekar lezake, eta printzipio hori zigor Zuzenbide demokratikoaren funtsezko axioma da.

Zigor jurisdikzioan hautemandako arazoekin segituz, delituaren biktimaren ikuspegitik bada ere, 2003an hasi eta 2004an burutu den gure esku-hartze bat aipatu behar dugu. Zortzi urte lehenago 12 urteko semea hil eta berari erabateko ezgaitasun iraunkorra eragin zion trafiko istripuaren errudunari ezarritako zigorra betearazteko izandako atzerapenak kontatzen zituen emakume bat zen. Emakume hark gauza desberdinak

planteatzen zituen, batzuetan ez genuen sartzerik, jurisdikziozko gaiak zirelako –besteak beste, errudunak eskatutako indultua tramitatzen zen bitartean zigorra eten zedin aurka zegoela–, baina beste batzuetan delitu baten biktima izanik bere interes legitimoei ustez jaramonik egin ez zitzaizela salatzen zuen. Horrela, esaterako, berak zioenez, behin epaia sendoa zelarik, ez zitzaion indultu eskariaren berri eman, ez eta ondoriozko zigor etenaren eskariaren ere. Ustekabean jakin zuenean, erregu errekurtsua jarri ahal izan zuen, eta horren eraginez jarduerak baliogabetu eta entzunaldia eman zioten, eskari haren gaineko alegazioak egin zitzaizkion.

Erreklamaziogileak zioenez, ezarritako zigorra bete zezan eta zigortuaren gidari jokatibideari buruzko hainbat informazio eguneratu eskatzen zituen alegazioak egin eta gero (gidariak 8 urte horietan ez baitzion inoiz ere gidatzeari utzi), artean Aretoaren inolako epairik lortu gabe segitzen zuen eta horrek sufrimendu moral nabarmena sortzen zion. Gure iritziz, agian gehiegizko atzerapenez hitz egiterik ez zegoen arren, prozeduraren moteltasuna zigorra betetzea, izatez, etenda egon zedin eragiten ari zen, eta horrek ezarritako zigorrak, bereziki gida baimena kentzeak, prebentziozko eraginkortasun guztia, berezia zein orokorra galtzea ekartzen ari zen.

Probintzi Entzutegiko presidentea, kexaren analisisan, bere garaian igarritako akatsera soilik mugatu zen; akats hura ongitu zen, haren iritziz, jarduerak baliogabetzea erabaki zenean eta, hark zioenez, ez zuen gerorako ondorio gehiagorik ekarri. Ez zen prozesu osoa oro har motel zihoanik aztertzeraz sartu, ez eta zigorraren izatezko etenaren beren beregiko ondorea, zigorraren prebentzio ondorearen izaera galtzearena, eta erreklamaziogileak delitu baten biktima izanik bere interesei egoki jaramonik egin ez zitzaielako adierazitako atsekabea eta abar ere. Arartekoa jabetzen da zigor sistemak ez daukala erreklamaziogileak jasandakoa bezalako bizitzako tragedia ikaragarriarik, moralki bada ere, konpontzeko gaitasunik, baina, horrexegatik, hain zuzen, ahalegina egin beharko litzateke espazioak eta bideak sortzeko, delitu bat pairatu duenak zer behar duen eta zer eskatzen duen adierazi ahal izan dezan, behar eta eskari horiek, ezbairik gabe, erantzun egokia merezi baitute.

Beste ikuspegi batetik, Justiziaren Euskal Behatokiko lan taldean ateratako ondorio nagusia, eta taldean gure erakundeko ordezkari bat ere izan zen, herritarrek justizia modernoagoa, herritarrekin atsegin eta abegitsuagoa eta, jakina, erabiltzaile guztientzat ulergarria nahi dutela da. *Herritarrentzako informazioa eta arreta* goiburupean idatzi zen dokumentuan jendearen eta bulego judizialen arteko komunikazioan igarritako arazo desberdinak jorratzen ziren eta bereziki azpimarratzen zen hizkuntza ulergarria eta pertsonaren ingurumari berezietara egokitua erabili behar dela, beharrezko zorrotasun teknikoari kalterik egin barik.

\* \* \*

Arartekoak Justiziaren alorrean izan duen jardueraren gain-begirada hau amaitzeko, **epaitegietan jada ebatzita edo ebazpidean zeuden auziak** zirelako tramitera onartu ezin izan ditugun kexak aipatu behar ditugu. Erabaki judizialekin ados ez egotea, edo epaitegiek auziaren mamia benetako ebazpiderik eman ez diotelako sentipena jurisdikzio guztietara hedatzen dira, baina bereziki ugariak dira familia auzietan (banaketak, seme-alaben zaintza, eta abar) eta zigor auzietan.

Xeheki aztertzeraz sartu nahi izan barik, banaketa edo dibortzioen ondoriozko neurrien gaineko auziak, hala nola, elikadura pentsioei zein bisita erregimenei buruzko

desadostasunak, gurasoei ezarritako betebeharrak betetzen ez direla... oso sarri planteatzen direla esan behar dugu. Bereziki kezkarria da horietako kexa batzuetan atzean emakumeen kontrako indarkeria egoera bat, adingabeek ere jasan lezaketena ageri dela. Horrela, esaterako, kasu batzuetan, erreklamaziogileek tratu txarrak –edo adingabeek abusu sexualak– jasan dituztela salatu arren, hala ere ustezko erasogileen bien seme-alabekin harremanetan egoteko eskubideari eutsi zaio. Bitan, aitak amaren zaintzapean utzitako seme-alabak atxiki dituela –edo atxikitzeo arriskua dagoela– kontatzen dute. Esan behar dugu, hala ere, genero indarkeriaz edo adingabeen abusu sexualerik faltsuki salatu dituztela baietsi duguten gizonetako erreklamazioak ere jaso ditugula, baita seme-alaben zaintzari buruzko erabaki judizialean gurasoen ustezko diskriminazioari buruzko kexa generikoak ere.

Zigor ebazpenekin ados ez daudenen kasuek beste alderdi batzuetatik jada aipatu diren gaietara jotzen dute, berriro ere: badaezpadako espetxeratzea gehiegi luzatzea, funtsik gabekoak irizten zaien auzipetzeak, behin behineko askatasuna lortzeko fidantza ordainezinak finkatzea, gaixotasun larri eta sendaezina pairatu arren baldintzapeko askatasuna ukatzea, askatasunik gabeko zigorra betetzeko tokia, tortura salaketak artxibatzea, edo tortura arduradunak absolbitzea, delituak indargabetu direlako, eta abar.

Beste gai interesgarri bat ere izan da, zeinetan gure erakundeak, interesatuak epaitegietara jo duenez, alderdi batzuetan baino ez duen esku hartzerik izan: Justizia sailak hileta enpresa bateko langile bati justizia epaitegietako egoitza erreserbatuetara sartzea debekatu zioneko, alegia. Debekua interesatuari jakinarazi ez zitzaizkion polizi aurrekari batzuk zeudelako ezarri zen, antza. Auzia luze eta zabal jorratu da Herrizaingo arloaren sarreran (II. kap, 7.1).

Eta, atal hau amaitzeko, Gasteizko Udalak prestatutako galdera-sorta batean argudio xenofobo eta diskriminatzaileak zabaldu omen zirela zioen kexa bat aipatuko dugu. Erreklamatu zuen taldeak egitateak Guardiako Epaitegian salatu zituen, ezin izan genuen tramitera onartu.

## 8.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak

⇒ *Norbera tartean izan den espedienteen sartutako dokumentazioa eskuratzea ukatzea (366/2001)*

- Erreklamazioa

Erreklamaziogileak gure erakundearengana jo zuen, bere garaian, Arabako Abokatuen Elkargoak diziplinazko espediente batean emandako ebazpenaren aurka Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren aurrean gora jotzeko errekurtsua jarri zuela esanez. Errekurtsua ezetsi ziotenean, berriro jo zuen Kontseilura, hartutako erabakiarekin ados ez zegoela agerrarazteko eta, aldi berean, tramitatutako espedientea ikusi nahi zuela eskatzeko. 2001eko urtarrilaren 23an eskaria ezetsiz erantzun ziotenez, Arartekoari esku hartzeko eskatu zion.



- Azterketa

Idatzian jasotako azalpenak ikusi ondoren, gure erakundeari iruditu zitzaion interesatua tartean izan zen espedientearen osatzen zuten dokumentuak eskuratzen ez uzteko erabaki hark behar beste oinarririk ez zuela.

Izan ere, administrazioko prozedura erkidea arautzen duen 30/1992 Legearen 35. artikulua, herritarren eskubideen artean, honako hauek aipatzen ditu:

*“a) Interesatu diren prozeduretan tramitazioa zelan dagoen jakiteko, edozein unetan, eta han jasotako dokumentuen kopiak eskuratzeko.*

*(...)*

*h) Herri Administrazioetako erregistro eta Artxiboak ikustera, Konstituzioan, eta Lege honetan zein beste batzuetan aurreikusten diren terminoetan.”*

Lege beraren 37. artikulua, bere aldetik, artxibo eta erregistroetarako irispide horren eskubidea garatzen du, interesatuentzako arau orokor gisa jarritz. Argi zegoen kezagilea interesatua zela zeren, Abokatuaren Elkargoan salaketagile ez eze, Kontseiluak tramitatutako espedientearen errekurtsogile ere izan baitzen.

Erreklamaziogileak epaitegietara jo zezakeela eta, behin han, espedientearen eskuratu zuela argudiatzea onartezina zen, gure ustez. Lehenik eta behin, prozedura judizialean eskatutako dokumentazio hori jasoko zuela onartzen bazuten, ez zegoen inolako motiborik eskubide horretaz baliatzea oztopatu eta atzeratzeko. Bestalde, ez zirudien zentzuzkoa zenik pertsona bat, espedientearen lekukotza lortzeko soilik eta, horrela, bere asmoak funtsik duen ala ez jakin ahal izateko, administrazioarekiko auzi-errekurtsorik abiarazteko abokatu baten zerbitzuak kontratatzea behartzea. Jokabide hori prozesuaren ekonomia-aurkakoa da eta, gainera, zentzurik ere ez dauka.

Kontseiluari ohartarazi genion, era berean, erreklamaziogilea administrazioarekiko auzi-bideko jurisdikziora bideratu zuela, profesionalki zelan jokatu zuen salatu zuen abokatuaren aurrean beste erreklamazio bide batzuetara ere jo zezakeela baztertzuz. Alde horretatik, garbi zegoen, edozein ekintza zibil zein penal abiarazteko, interesatuek letratuak egitatez zuen bertsioa osorik ezagutzeko eskubidea dutela.

Laburbilduz, erakunde honen iritziak, printzipioz legeak administrazio espedienteetan interesatu diren guztiei aitortzen dizkien eskubide batez baliatzea eragozteko argudiatzen zituen arrazoiak ez ziren nahikoak.

Bere lehenengo bi erantzunetan –atzerapen nabarmenez–, Kontseiluak ez zion planteatutako auziari heldu.

Jasotako azkeneko idatzian, erakunde horrek, gehiago garatuta bada ere, hasierako ukapenaren oinarri hartu zituen argudio berberak errepikatu ditu, horrela:

*“Bere garaian, (...) andreaki erantzun zitzaionez, Justizia Epaitegietan deontologiaren aldetik Abokatuarentzako dagoen administrazioko zehapen prozedura sistematikoki nola interpretatzen ari den kontuan izanik, Administrazioaren Ebazpenarekin bat ez datozen salaketagileek espedientearen edozein dokumentu eskuratu nahi badute, jurisdikziozko bidetik jo behar dute, behin errekurtsioa iragarri ondoren eta Justizia Epaitegiak Administrazio Profesional honi, delako demanda prestatu ahal izateko, espedientearen bidaltzeko eskatu ondoren.*

*Puntu horretan, hain zuzen, ez gatoz bat, interpretazio juridikoaren aldetik, zuen erakundea eta gure Kontseilua; bi jarrerak guztiz errespetagarriak dira, baina Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak gure jarrera berretsi du, behin eta berriro.*

*Egia da, bai, Justizia Auzitegiek ez dietela Abokatuak deontologia arazoen-gatik salatzen dituztenei inolako eskubiderik ematen, salaketa jartze hutsa kenduta; Administrazio Profesional honek, ordea, froga proposatzeko aukera onartzen du, sistematikoki, baita salaketa horiengatik abiarazitako Espedienteak bigarren Administrazioaren bidetik errekurritzeko aukera ere. Behin auzia behin betiko ebatzi denean, beste aldeari Justizia Auzitegietara jotzeko epea daukatela jakinarazten zaie, baina ohartarazten diegu auzitegi horiek asmo horiek sistematikoki ezesten ari direla, prozesuan errekurritzeko ahalmenik ez dutela iritzita.*

*Horregatik, berriro esan behar dugu ezin zaiola (...) andreari Administrazio Espedientearen inolako dokumentaziorik eman, legitimatuta ez dagoelako, gure ustez, eta dokumentazioa nahi badu, Justizia Auzitegietara jo beharko luke, auzitegietatik, eskuratu ahal izateko, espedientearen erreklama dezaten, eta, aurretiaz ezetsiko diotela jakin arren, demanda jartzeko”.*

- Emaizta

Hor jasotako azalpenek argi ikusarazi ziguten, hasieratik, Kontseiluak arazo honetan bi gai nahastu zituela, batzutan zerikusia izan lezaketan arren. Izan ere, administrazio espedientearen kopia eskuratzeko ukoa (lehenengo gaia) erreklamaziogileak dokumentazio hori bide judizialek soilik jaso lezakeelako oinarrian sostengatzen du, baina aktore modura legitimatuta ez dagoela ere esaten zaio (bigarren gaia). Gure iritziz, bi arazo desberdin dira, legeak desberdin araupetzen dituenak eta elkarren mende ez daudenak, aldi berean gerta litezkeen arren.

Bigarren arazoari dagokionez, zalantzan jar daiteke Kontseiluak salaketagileak diziplinazko prozedura batean administrazioarekiko auziaren prozesuan parte izateko legitimataterik ez duela hain irmoki baiestea.

Izan ere, salaketagileari administrazio prozedura batean edozein “interesatuk” dituen prozedurazko eskubide guztiak aitortzeko ukoa finkatutako jurisprudenziazko dotrina bada ere, egia da, halaber, dotrina hori gogor kritikatu izan dutela zenbait espezialistak, eta gaiaz epai kontraesankorrak daudela. Aipa daiteke, esaterako, Auzitegi Gorenaren 2000-01-18eko epaia, non esaten baita magistratuak salatu zituena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Diziplina Batzordearen erabaki bat errekurritzeko legitimatuta dagoela.

Nolanahi ere, legitimitatearen arazoaren izaera kasuen araberakoa dela ia aho batez baiesten duen jurisprudenziazko iritzia ere badago, kasu guztietan berdin erantzuten uzten ez duena, eta suposamendu bakoitzean legitimitate horren sostengu izan litekeen interes legitimo zehatza bilatzera behartzen duena; interes hori da, hain zuzen, beretzen duenak alegatu eta frogatu behar duena.

Ondorioztatu behar dugu, beraz, salaketagilea baldintza horregatik soilik interesatu bihurtzen ez bada ere, ezin zaiola interesatu izaterik ukatu, beste ingurumari batzuk ere biltzen badira, hala nola, Konstituzio epaitegiak definitu duen zentzu zabalean ulertutako interes legitimorik badauka.

Aurrekoaren kalterik barik, eta orokorrean hitz eginez, gure erakundeak egoki irizten dio Kontseilu horrek salaketagileei epaitegietan ekiteko zer oztopo aurki lezake ten ohartarazteari, diziplina gaietan administrazioaren bidea agortzen duen ebazpenean agerraraziz.

Baina gogoeta horiek ez dira eskuartean dugun kasuan zuzenean aplikagarriak, zeren administrazioarekiko auzi bideko jurisdikziotik ekiteko ustezko legitimitaterik ezak ez baitu administrazio bidean eskagarria den legitimitatea baldintzatzten, ez eta ukitzen ere, eta bide horretan erreklamaziogileari interesatu zela aitortua zitzaion jada.

Azpiko auzi horri helduz –hau da, administrazio espedientera erantsitako dokumentu jakin batzuk eskuratzeko eskubidea–, garbi dago, itxura guztien arabera, analisia 30/1992 Legearen 37. artikulua aplikatzeko baldintzetara mugatzen dela.

Eskurapen eskubide hori nabarmen zabalki araupetzen duen agindu horrek oinarriko printzipio hau finkatzen du: “1. Herritarrek eskubidea daukate espediente baten zati direlako administrazio artxiboetan dauden erregistroak eta dokumentuak eskuratzeko (...) betiere espediente horiek eskari datan jada burututa dauden prozedurei buruzkoak badira.”

Kasu honetan arau horrek eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen direla ukatzerik ez dagoenez, aztertu beharko litzateke legearen arabera eskurapen eskubide horretaz baliatzea ukatzeko izan litekeen motiborik dagoen ala ez. 30/1992 Legearen 37.4. artikulua honelaxe jasotzen ditu motibo horiek: “*interes publikoko arrazoiak nagusitzen direnean, babestekoagoak diren hirugarrenen eskubiderik dagoenean, edo legeren batek hala dioenean*” eta, nolana ere, erakunde eskudunak ebazpen motibatua eman behar duela argitu behar duela dio.

Gai honetan ez da ukatzeko arrazoi horietako bat ere dagoenik alegatu, ez eta printzipio orokorretan oinarritutako besterik ere, eta izatekotan, gainera, motibatu behar zatekeen. Are gehiago, abokatuen elkargoen diziplina espedienteei dagokienez, salaketagileari letratuak egindako alegazioak ezagutzea eragozten dion legerik bat ere ez dago eta, gainera, Abokaturaren Kontseilu Nagusiaren diziplina prozedurako Arautegiak egitateak salatzen dituen “interesatua” dela dio, espresuki. Horrek, lehen aipatutako 30/1992 Legearen 35. artikuluen arabera, espedientean dauden dokumentuak eskuratzeko ateak zabaltzen dizkio.

Laburbilduz, kasu honetan ez da, gure ustez, erreklamaziogileari Kontseiluak bere garaian tramitatu zuen errekurtsu arruntaren espedientera heltzea ukatzea justifika lezakeen arrazoirik dagoenik frogatu –ez eta argudiatu ere–. Are gehiago, pentsa daiteke erreklamaziogileari inplizituki espedientean sartuta dauden dokumentuak ezagutzeko aukera aitortu zaiola, baina ezagutzeko, behin jurisdikziozko organoak espedientearen testigantza erreklamatu ondoren, errekurtsogilearen eskueran jar dezan prozeduraren unera arte itxaron beharko duelarik; horrek, lehenago esan dugun zentzugabekeria lekarke, hau da, Kontseiluak, hasteko, erreklamaziogileak administrazioarekiko auzi-bideko errekurtsorik egiteko legitimitaterik ez duela dioela.

Horregatik guztiarengatik, erreklamaziogileak kexa jarri zuenetik ebazpena eman zen arte joan zen denborak eskatutako dokumentazioa eskuratzearen eraginkortasuna nabarmen murrizten zuen arren, eskubide horren errespetuarengatik, eta antzeko beste kasu batzuetarako aurrekaria jartzea komeni zelako, Kontseiluari gomendio bat egitea ondo legokeela erabaki genuen; erreklamaziogileari eskatu zuen dokumentazioa eskuratzeko erraz ziezaioten eta, halaber, administrazio prozedura batean parte izan direnei

–diziplina espediente batean salaketagile izan direnak barne– espedienteen dauden dokumentuak ezagutzera erraztera ohi zitezten gomendatu genien. Espedientea edo dokumentu zehatz bat eskuratzera ukatzeko arrazoi funsdun eta banan-banakorik balego, erreklamaziogileari jakinaraziko litzaizkioke, ebazpen motibatatu baten bidez.

⇒ *Motibaziorik ez diziplina espediente baten ebazpenean; berandutzeak Abokatzaren Euskal Kontseiluaren aurreko errekurtsoren tramitazioan: balizko falta deontologikoa indargabetzea (598/2003)*

- Erreklamazioa

Herritar batek gure erakundearengana jo zuen, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak abokatu berberaren kontrako diziplina espediente desberdinetan hartutako bi erabaki zirela-eta Kontseilura aurkeztu zituen bi errekurtsu ebazten ez zituztelako.

- Azterketa

Errekurtsu bien daten artean tarte handia zegoen arren, bi kasuetan nahikoa denbora joan zela iruditu zitzaigun eta, beraz, Kontseiluarengana jo genuen, bi prozedurei buruzko informazio eske. Azalpenak argiago emateko, jarraian bakoitzari buruzko datuak bereiztuko ditugun arren, abokatuen erakundeko erantzun idatzi desberdinetan jasotakoak bilduko ditugu:

a) Hasiera batean errekurtsua guk informazioa eskatu baino lehen ebatzi zela esan ziguten, baina interesatuaren jakinarazpenean arazoren bat izan zela. Baina, egia esan, auzia ebatzi zuen erabakia gure esku-hartzearen ostekoa izan zen. Ebazpenaren edukiarri dagokionez, komeni da argitzea Kontseiluak ez zuela erreklamaziogileak letratuak egindako faltaren kalifikazioa aldatzeko egin zuen eskaria aztertu, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak arin modura jarri zuen arren, erreklamaziogilearentzat larria baitzen.

b) Kontseiluaren lehenengo erantzunetik erreklamazioaren bigarren errekurtsuari buruz akatsen bat izan zela ondoriozta zitekeen, zeren diziplina prozedura desberdin bat hizpide zuen arren, lehenengoaren luzapen modura tramitatu baitzuten. Horregatik, gai hori argi ziezaguten eskatu genien.

Baina, gainera, Abokatuen Elkargoak espedientea artxibatzeke erabakia hartzeko baliatu zituen oinarriari buruzko arazoak ere nabari ziren. Izan ere, erreklamaziogileak hilabete batzuk lehenago salatu zuen abokatu berberaren aurkako bigarren salaketa, hasiera batean, erantzukizun zibileko erreklamazio modura ulertu zuen Gobernu Batzordeak. Interesatuak, ordea, beste idatzi baten bidez falta deontologikorik egin zuen ala ez iker zedin asmoa izan zuela argitu zuen. Eskari horri erantzunez, Abokatuen Elkargoak erabaki hau hartu zuela baino ez zion esan: *“zuk (...) Letratuaren jokabide profesionalaz argudiatu dituzun egitateak ez dira urraketa deontologikoak, inola ere.”*

Gaiaren mamira sartu barik, garbi zegoen, itxuraz behintzat, erreklamaziogileari bere salaketaren ebazpenaz bidali zitzaion jakinarazpen bakarra hura bazen, jakinarazpenak ez zituela gutxieneko motibazio betekizunak jasotzen. Horregatik,

Kontseiluak elkargoaren ebazpenaren itxurazko akats formalak ongitu ezean, erabakiaren oinarririk ezean igarritako akatsak errepikatuko zituen.

- Emaizta

Bi errekurtsioei buruzko gure esku-hartzean lortu genuen emaitza hauxe litzateke, laburbilduz:

- a) Kexaren motiboa erreklamaziogileak jarritako errekurtsioak erantzunik jaso ez zuela zenez, ebazpena eman eta interesatuari jakinarazi zitzaionean arazoa konponduta geratu zela ulertu behar zen. Baina ezin zitekeen ahaztu atzerapen handiz erantzun zutela eta, beraz, Kontseiluak etorkizunean berriro halakorik gerta ez dadin neurriak hartu beharko litzuzke.  
Bestalde, Arartekoa ez zettorren bat –eta hala jakinarazi zion– Kontseiluaren arrazonamenduekin, zeinen arabera, salaketagilea zehapen prozesuan parte denik ukatsetik abiatuta, Abokatuen Elkargoak egindako falta kalifikazioa berrazter dadin eskatzerik ondorioztatzen baita. Ez gara orain hori eztabaidatzen hasiko –aurreko kexa laburpenean nolabait heldu zaio horri–, baina garbi dago, itxuraz, interpretazio horrek edukirik gabe uzten duela indarreko araudiak salaketagileari elkargoen diziplina gaietako ebazpenetan errekurritzeko aitortzen dion eskubidea.
- b) Nahasmenaz ohartu zenean, Kontseiluak erreklamaziogilearen bigarren errekurtsioa lehenengo espedientearen barruan aurkitu zuen. Azkar ebatzi bazuen ere, garbi dago kasu honetan ere atzerapen bidegabea izan zela, kexagileari inola ere leporatzerik ez zegoena, gainera.

Gaiaren mamiari dagokionez, Kontseiluak ondorioztatu zuen Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak ez zuela, erreklamaziogilearen salaketarengatik, inolako zehapen espedienterik, ez eta informazio eginkaririk ere tramitatu eta, beraz, salaketa ez zela abokatuen erakundeak finkatutako prozedura arauak diotenez tramitatu; ondorioz, gaia aipatutako Elkargoari itzuli zion, zegokion espedienteari ekin ziezaion.

Interesatuak esan digunez, Gipuzkoako elkargoak esandakoa egin du eta, Kontseiluaren ebazpenetik bost hilabetera, hauxe erabaki du: Ez dago (...) *Letratuaren aurkako diziplina espedienterik abiarazterik, zeren salatutako balizko falta deontologikoak indargabetuta baitaude.*”

Erakunde honek azpimarratu nahi du Abokatuen Elkargoak eta Kontseiluak hurrenez hurren egindako prozedurako akatsen eta administraziozko disfuntzioen ondorioz, lau urte joan direla salaketa jarri denetik ebatzi den arte, eta horrek balizko urraketak indargabe utzi dituela, ezinbestean. Egia da ukituak abokatuaren aurka jotzeko beste bide batzuk ere bazituela, diziplina bidetik aparte, baina garbi dago kasu honetan abokatuen erakunde desberdinek, kaltetua moralki gogobetetzetik urrun, kalte handiagoa egin diotela, eta argi erakutsi diotela ez dutela letratuen jokabide profesional okerrak xahutu eta prebenitzeko inolako interesik.

Alde horretatik, Arartekoak berriro ere azpimarratu behar du elkargo horiek abokatuen jardun profesionala kontrolatu behar dutela, arau deontologikoetara doi dadin. Gogorarazi behar dugu, halaber –Eusko Legebiltzarrarentzako azkeneko txostenetan egin

dugun moduan– abiarazitako diziplinazko jarduera gehiegi artxibatzen direla prozedura iraungi delako edo balizko faltak indargabetu direlako, eta hori onartezina dela letratuen zerbitzu profesionalen erabiltzaileen eskubideen defentsaren ikuspegitik.

## 9. INGURUMENA

### 9.1. SARRERA

2004ko urteari dagokionez, arlo honetan 89 kexa jaso dira, arloetan banatutako kexa guztietatik % 7,96.

Ukitu dieten administrazioen arabera, honelaxe bil genitzake:

– Toki administrazioa .....	79
– Foru administrazioa .....	6
– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	4

Edukiaren arabera, berriz, honelaxe sailkatuko ditugu:

– Jarduera sailkatuak etxebizitzetarako lurretan .....	63
– Beste ingurumen afekzio batzuk .....	18
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	3
– Administrazioaren kontratazio, ondare eta erantzukizunari buruzko araubidea .....	2
– Hondakinak eta isurketak .....	2
– Jarduera sailkatuak industri lurretan .....	1

Aurten, berriro ere, ingurumenaren alorrean sar daitezkeen kexarik gehienek hirietako egoitza lurretan kokatzen diren eta udal baimenen araubidearen mende dauden sailkatutako jarduera deritzenen ondorioz, herritarrek pairatu behar izaten dituzten zarata, kirats eta ke arazoak dituzte hizpide.

Horren gainean, ostalaritzako establezimenduen funtzionamenduaren ondoriozko asaldak hizpide dituzten kexak izan dira arazotsuenak. Kexa horietan halako jarduerak ateratzen dituzten zaratak gogaikarriak direla salatzen da, eta hori lokalak akustikoki isolatuta ez daudelako, zein musika ekipoak neurrigabe erabiltzen direlako, eta jarrita dituzten ainguraketa sistemak edo potentzia mugatzaileak manipulatzeko direlako izaten da.

Aire girotuko aparatuek eta aireztatu eta usain eta keak ateratzeko sistema urriek, batez ere jatetxeetakoek, sortzen dituzten arazoak ere sarri aipatzen dira.

Erakunde honek askotan esan du udalek establezimendu publikoak ikuskatu eta kontrolatzeko dituzten zereginak gutxietsi ohi dituztela eta, sarritan, ez dutela zeregin horietan behar beste arreta jartzen, ez eta zereginok ondo kudeatzeko behar liratekeen baliabide material eta pertsonalik bideratzen ere.

Urte hauetan esan izan dugu ez dela erraza, hasierako unean lokalaren intsonorizazioa egokia dela egiaztatzen den establezimenduetan, alboko etxeei ukitzen dieten zarata arazoak sortzen segitzen den kontrolatzea. Kasurik gehienetan, zaratak musika ekipoekin eta aparatu horien eragingailuekin ibiltzen denarekin lotuta egoten dira. Horregatik, ezinbestekoa da, salagarria den hori gertatzen ari denean, ukitutako auzoek udal agintaritzari jakinaraz diezaioten, ikuskaritza tokian bertan egin ahal izateko.

Asko eta asko dira oraindik Udaltzaingoak deiei erantzuten ez diela eta, Ertzaintzarengana jotzen dutenean, halako ikuskapenak Udalaren eskumeneoak direla eta, beraz, beraiek ezer egiterik ez dutela erantzuten dietela salatzen duten herritarrak.

Nolanahi ere, azkeneko urtean egiaztatu ahal izan dugu zenbait udalek udaltzainak jarri dituztela gaueko ordutegietan, kontrolik ezak sortzen dituen arazoez jabetuta, eta instalazioen funtzionamenduaren beraren ondoriozko ingurumen afekzio kaltegarriez ez eze, itxiera orduz ere jabetuta. Premiazkoa da Toki Administrazioak herritarren bizitza kalitatean eragin zuzena daukaten arazo horiek konpontzeko jarrera irmoa har dezan, indarreko legediaren arabera bere eskumenpean dauden ikuskapen eta kontrol zereginok ondo betetzeko behar diren bitartekoez hornituz.

Gai honetaz ari garela, ezin ditugu justizia auzitegien azkeneko erabakiak ahaztu, etxe barrura zarata gogaikarriak helaraztea EKren 15 eta 18.1 eta 2 artikulua urratzea dela diotenak; 15. artikulua bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta 18.1ek pertsonaren eta familiaren intimitatea eta 18.2k bizilekuaren bortxazintasuna bermatzen dituzte. Alde horretatik, Administrazioak halako instalazioek jarduerak dirauen bitartean ondo funtziona dezaten esku hartu behar duela diote, halako eskubideei kalterik egin ez dakien bermatzeko.

Bestalde, esanguratsuak izan dira gauez kalean obrak egitean jendea gogaitu delako jaso ditugun salaketak.

Alde horretatik, kexak tramitatzean oharu gara zaratei buruzko udal ordenantzek lan horiek ordutegi horretan egiteko aukera dagoela dioten arren, ordenantzetan bertan finkatutako soinu parametroak betetzetik salbuesten lagatzen duen berariazko prozedura bat ere jasotzen dela, eman behar den baimen berezian zehaztu behar diren beren beregiko baldintzen eta ordutegiaren mende jarritz. Nolanahi ere, baimen horiek ezohiko kasuetan emango dira eta, betiere, udalerriko biztanleen atsedean eskubidean eraginik izan lezakeen asaldurik egingo ez dela bermatzekotan.

Bestalde, industria jardueren ondoriozko kutsadura atmosferikoak eta akustikoak gogaitzen duela dioten salaketak ere jaso ditugu.

Erreklamazio horietan egiaztatu ahal izan dugunez, egun oraindik asko dira Ingurumen Atmosferikoa Babesteko otsailaren 6ko 38/1975 Legearen eta EAEko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren aurreikuspenen arabera beharrezkoak diren baimenik gabe funtzionatzen duten industria instalazioak.

Jarduera horiek berariazko baimenen araubidearen mende jar daitezten, funtzionamenduak kalte eragin lezakeela edo eragozpen edo deserosotasunik sor lezakeelako susmoak baldintzatzen du. Horrela, jardueran normal aritu ahal izatea neurri zorrotzago batzuen mende jartzen denean interes orokorra babestu nahi izaten da, kasu honetan, kalitatezko ingurumenaz gozatzeko eta kutsagarriak izan litezkeen instalazio horietatik gertu bizi diren pertsonen osasunerako eskubideekin identifikatzen delarik.

Horregatik, kezkarria da, gure erakundearen iritziz, aztertutako kasurik gehienetan, administrazioaren aldetik ez dagoela inolako kontrolik halako instalaziorik gehien funtzionamenduaren gainean. Ez dago aurretiazko kontrolik, beharrezko baimenik ez daukatelako, eta ez dago funtzionamenduaren kontrolik ere, galdetu diegun udalek diotenez, ez daukatelako horretarako eskatzen diren egiaztapen teknikoak egiteko behar den baliabiderik.

Alde horretatik, Udal Administrazioak, instalazio bat klandestinoki ari delako berri daukanean, eta halakoen berri normalean gogaituta dauden udalerriko biztanleengandik



datozkion erreklamazio edo salaketen bidez jakiten du, EAEko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 65. artikulua dioen prozedura abiarazten du, instalazioaren jabeari legezta dezan eskatuz. Alabaina, ikusi ahal izan dugu abiarazitako prozedurak luzatuz doazela, sarri eskatutako dokumentaziorik aurkeztu ez delako eta, ondorioz, aginduzko deiak behin eta berriro egin behar izaten direlako.

Udal askok ezin izaten du abiarazitako legeztapen espediente guztiak birbideratzeko modurik izaten, eta ez dira gai izaten ingurumenarekin eta kalte-dun herritarrekin errespetu handirik ez duten jokamolde eta egintzak desagerrarazteko zehapen prozedurak gauzatzeko.

Industria horiek udalerriko ekonomiarako erabakigarriak izan badaitezke ere, atmosferarako kutsagarriak isurtzeko iturri garrantzitsua ere badira.

Horregatik, araudi aplikagarriak halako instalazioak ezarritako emisio parametroetara egokitzen diren ala ez egiaztatzeko aurretiaz eta etengabe kontrolatu behar direla dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuak kutsagarriak izan litezkeen jarduerak kontrolatu eta jarraipena egiteko sistemak gauzatzeko behar diren mekanismoak artikulatu behar ditu.

Horrela, industrien jabeak substantzia kutsagarri jakin batzuk etengabe zein aldioro zaintzeko behar diren auto-neurketako sistemak, baita agintarietako aldioro, ofizioz zein aurkezten diren salaketen ondorioz egin behar dituzten neurketak errazteko behar diren bitarteko teknikoak ere, edukitzera behartu behar dira.

Horrekin guztiarekin pertsonen osasunerako eta ingurumenerako arrisku onartezin ekarriko ez duten kalitatearen eta ingurunearen kalitate mailak bermatu nahi dira, eta kutsadura iturri horiek lurreko klima aldaketan, ozono geruzan eta euri azidoaren ondoriozko baso suntsiketan duten eragina gutxitzen lagundu nahi da.

Bestalde, hainbat kolektibok Gipuzkoako hirietako hondakin solidoak kudeatzeko planetan errausketaren teknologia eransteko hartu den erabakiak biztanleriaren osasunean izan litzakeen arriskuen gaineko salaketak egin dituzte.

Erakunde honek interes handiz segitu du biztanleen sektore jakin batzuetan erraus-tegietatik atmosferarako emisioek haien eraginpeko eremuetan dauden pertsonen osasunean izan litzaketen ondore kaltegarrien gainean gizartean piztu den eztabaida.

Hala ere, halakoetan, Arartekoak EAEko administrazio publikoen jarduerak gainbe-giratzeko eta lege antolamendura egokitzen diren egiaztatzeko eskumenak besterik ez dauka. Ezin du, ordea, jarduleei esleitu zaizkien eskumenez baliatuz akordiorik irizten dutenean, edo erabakirik hartzen dutenean, erabili dituzten egokitasun edo zuhurtzia tekniko irizpideak aztertzen muturrik sartu.

Horregatik, erakunde honen zeregin nagusia administrazioko erakundeak erabakia hartzeko bide egokia egin duen –bereziki jendaurreko informazioko tramitea bete den eta egindako alegazioei erantzun zaien-, eta ea dena delako erabakian kontuan hartu beharreko zehaztapen tekniko eta juridiko guztiak baloratu diren egiaztatzea da. Ezin dugu egokitasun arrazoirik aztertzea sartu, udal erakunde eskudunei datzekien ahal-menei baitagozkie.

Azkenik, hainbat elkarte ekologistak guregana jo dute ingurumen gaiei buruz bi-deratu diren hainbat informazio eskari erantzunik gabe geratu direla salatzen. Horrela, egindako eskarien artean, gure erkidegoko zentral termikoetatik atmosferarako emisioen gainean egindako egiaztapenetatik zer datu atera diren esateko eskaria nabarmenduko genuke, baita Pasaiaiko badiaren inguruko zenbait udalerriri eta Gipuzkoako Foru

Aldundiko sailei pentsatuta dagoen Kanpoko Portuari buruzko egitasmoaren berri emateko egin zaiena ere.

Erreklamazio horiek tramitatzean administrazio eskudunei egindako eskariak espresuki ebatz ditzaten eskatu diegu, eta gogorazi diegu ingurumen alorreko informazioa eskuratzeko eskubidea hor dagoela, Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 16. artikularen eta hurrengoaren erizana.

Azkenik, pertsonen eta animalien arteko bizikidetzara arazoez hainbat salaketa ekarri dituzte gure erakundera. Ukitutako pertsonen beren etxeetatik gertu txakurtegiak jarri dituztela salatzen dute, eta tokiko erakundeek ez dutela ezer egiten beraien jasaten dituzten eragozpen eta deserosotasunen aurrean.

Udalerriek animaliak eduki eta babesteari buruzko ordenantzak onesten dituzte, arauketa horrekin animaliek izaki bizidunak diren aldetik merezi duten errespetua bermatu eta eragin ditzaketen trabak eta arriskuak gutxitu nahi dituztelarik. Gure erakundearengana jo duten pertsonen, ordea, arau horietan jasotzen diren aurreikuspenak –eragiten dituzten eragozpenei eta animalien jabeek auzoko eta oinezkoei eragozpenik eta trabarik egin diezaieten saihesteari dagokienez– betetzen ez direla eta udal agintariak ere ez dituztela betearazten salatzen dute.

Jasotako erreklamazioen ondorioz ikertu diren kasuetan, egiaztatu dugu udal agintaritzak ez duela ia eskurik hartzen txakurtegi instalazioak funtzionatzen hasi baino lehen, ez eta gero, funtzionatzen ari direnean ere.

## 9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) **Jarduera sailkatuak industri lurretan**

⇒ *Fundizioko industria jarduerak batek eragindako kutsadura atmosferikoaren gainean (941/2002)*

- Erreklamazioa

2002 urtearen amaieran Agurainen dagoen fundizio enpresa batek sortutako kutsadura atmosferikoa salatzen zuen erreklamazioa jaso genuen.

Gai hura erakunde honetan, jada 1996an, kexa espediente batean tramitatu zen.

Orduan jakin ahal izan genuen salatutako jarduerak ez zituela funtzionatzeko behar zituen baimenak eta, horregatik, erakunde honek gomendio bat helarazi zion Udalari, enpresaren jabea jarduera legeztatzea behar zezan.

Enpresak, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudia onetsi zuen azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak xedatutakoaren arabera, beharrezko egitasmo teknikoak aurkeztu zituen, jarduera legezta diezaioten. Ondorioz, gure esku hartzea bukatutzat jo genuen.

2002an egin den salaketa berrian fundizioan isuritako ke eta kiratsek sei urte lehenago bezala segitzen zutela eta orduko eragozpenak arintzeko neurri zuzentzaileak aplikatu ez zituztela zioten.

- Azterketa

Gure informazio eskaria jaso zuenean, Aguraingo Udalak jarduera legeztatzeko zain zegoela jakinarazi zigun. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak enpresari aurkeztutako dokumentazioa gehitzeko eskatu zion, espedientea tramitatzen segitu ahal izateko, baina enpresak dokumentazio gehiagorik aurkeztu ez zuenez, ezin izan zuten jarduera kalifikatu, ez eta, ondorioz, neurri zuzentzailerik ezarri eta beharrezko jarduera baimenik eman ere.

Hori guztia ikusita, Udalarri instalazioa legeztatzeko beharrezko jarduera guztiei berrekin zezan eskatu genion, horrek funtzionamendutik ingurumenerako afekzio kaltegarriak eratorriko ez zela bermatuko baitzuen.

Aldi berean, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailera ere jo genuen, ingurumen atmosferikoa babesteko abenduaren 22ko 38/1972 Legean eta berau garatzen duen otsailaren 6ko 833/1975 Dekretuan agintzen den bezala, jarduera horrek atmosferarako isurketetarako beharrezko baimenik zeukan ala ez esan ziezagun. Era berean, izatekotan, egindako kontrol eta ikuskaritzen ondoriozko txostenak bidaltzeko ere eskatu genien.

Gure eskariari erantzunez, sailak enpresa hark agintaritzak eskudunei atmosferarako emisiorik erregularizatzeko inolako eskaririk aurkeztu ez zela jakinarazi zigun eta, ondorioz, ez zutela enpresak indarreko araudiaren arabera bete behar zituen atmosferako emisioen kontrolen emaitzarik ere.

Esan ziguten, halaber, Ingurumen Sailburuordetzako zerbitzu teknikoak instalazioak ikuskatzera joanak zirela, eta fusio prozesuan eta galdaketa prozesuan sortutako emisioak kanpora aurretiaz araztu gabe irteten zirela egiaztatu zutela; beste prozesu batzuetarako, ordea, enpresak sortutako emisioak jaso eta arazteko sistemak jarriak zituen.

Azkenik, jarduerak sortutako emisioak zerenak, zelakoak eta zenbaterainokoak ziren albiste sinesgarriak izateko, LABEIN Fundazioari gutxi gorabehera kalkulatzeko azterlana egiteko eskatu ziotela, eta emaitzak heltzen zitzaizkienean jakinaraziko zizkigutela.

Azterlana egitea denboran luzatuz joan zen, arrazoi teknikoak zirela, enpresak planteatutako atzerapenak zirela. Azkenean, Ingurumen sailburuordeak azterlana teorikoki joratu behar izan zutela argitu zigun.

Lortutako emaitza ikusita, ingurumen erakundeak enpresari zehapen espedientea irekitzeko proposamena egin zuen, EAeko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 lege orokorra urratu zuelakoan.

Bestalde, gure erakundearen eskariari erantzunez, Ingurumen Kalitateko Zuzendaritzak ofizioa helarazi zion Aguraingo Udalarri. Ofizioan esaten genien jarduera legeztatu zelako inolako agiririk ez zegoenez, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar zela; artikulua horretan alkateek jarduerak lizentziarik gabe garatzen ari direla jakiten dutenean zer egin behar duten arautzen da.

Erakunde honek gauza bera zioen idatzia ere bidali zion tokiko erakundeari, LABEINek egindako azterlanean kalkulaturako emisio balioak kontuan izanik, otsailaren 27ko gure 3/1985 Legearen 29. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, gertakariak Ministerio Fiskalari jakinarazteaz pentsatzen ari ginela, berak erabaki zezan, Zigor Kodearen 325 eta hurrengo artikuluei adituz, hura delituzko jokabidea zen ala ez.

- Emaitza

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren 2004ko maiatzaren 31ko Aginduaren bidez, enpresa horri irekitako zehapen espedientea ebatzi zen. Enpresari

12.000€ko isuna jarri zioten, EAeko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokoraren 109 b) eta 110.1 artikuluei buruz 111. artikuluan tipifikatuta zegoen urraketa arina egin zuelako.

Era berean, agintari eskudunek legeztatzeko egin zizkieten aginduzko deien ondoren, enpresak ingurumen hobekuntza garrantzitsuak sartu zituen, hala nola, hareategi berria eraikitzea, edo granaila garbitzeko sistema, eta ikatza erretzeko kubilote zaharraren ordeztuz altzairua urtzeko labe elektriko berriak jartzeko konpromisoa hartu zuen; horren ondorioz, ez zen atmosferara partikularik isuriko eta, atmosferara CO<sub>2</sub> eta sufre oxidoak bezalako ke kutsagarri gutxiago isuriko ziren.

## B) **Jarduera sailkatuak etxebizitzetarako lurretan**

⇒ *Eragozpena gazte taldeek biltzeko erabiltzen dituzten hainbat lokaletatik datozen zaratengatik (158/2004)*

### • Erreklamazioa

Pasaiako herritar batek Arartekoari esku hartzeko eskatu zion, hainbat gazte taldek bere etxetik gertu zeuden bi lokal biltzeko erabiltzen zituzten berak pairatu behar zituen kalte larriengatik.

Zehazki, interesatuak zioen establezimendu horietan hainbat jarduera egiten zirela, lokalak halako erabilpenetarako behar bezala egokituta egon ez arren eta udal baimenik eduki ez arren.

Era berean, Pasaiako Udalarengana horregatik behin baino gehiagotan kezuka joan zen arren, ez zuela oraingoz egoera konpontzeko inolako neurririk hartu.

### • Azterketa

Erreklamaziogilearen oharrak ikusita, Udalarengana informazio eske zuzentzea erabaki genuen, Udalak salaketak jaso eta gero zer egin zuen zehazteko eta, gainera, bi establezimendu horien administrazio eta hirigintza aldeko egoera zuzena zen ala ez argitzeko.

Aldi berean, kexa egoki tramitatu ahal izateko, gure erakundean aurreko ekitaldian aztertutako kexa espedienteetan ikusi genuenez, beharrezkoa iritzi genion gure eskarian beste udalerrri batzuetan azaleratzen ari den fenomeno bat aipatzeari: gazte taldeek lonjak alokatzen dituztela, Udalaren baimenik gabe. Izan ere, gure autonomia erkidegoko hainbat herritan hemen hizpide dugun egoeraren berdinak aztertzean jakin ahal izan genuen moduan, halako lokalik gehienak ez daude musika aparatuak, telebistak, sukaldeak eta abarrak funtzionatzeko behar bezala atonduta. Ondorioz, arazo larriak sortzen dizkiote inguruan bizi den jendeari.

Antzeko auzietan ikusi ahal izan dugun bezala, halako kontuetan inplikaturik dauden udalek, salatutako jardueretan Udalaren jarduera-lizentziarik gabe aritzen direla egiaztatu ondoren –EAeko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65. aplikatuz– itxiaztea erabaki ohi dute, harik eta aipatutako legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan finkatutako prozeduraren arabera legeztatzen diren arte.

Gure eskariari erantzunez, Hirigintzako teknikariak lehenengo txosten bat helarazi zigun, non esaten baitzigun jarduera horiek udal baimenik ez zutela egiaztatu zutela udal

zerbitzuek, bai, eta horregatik, lokalak ixteko agindua eman behar zutela, ahal zuten bezain laster. Alabaina, adierazi zigun Udaleko Hirigintza Sailean hainbeste lan pilotuta zeukatenez, ezinezkoa zitzaieela erabakitako neurri horiek nahi bezain azkar gauzatzea.

Txostenaren edukia ikusita, eta igarritako gabeziak zuzentzeko inolako jarduerarik egin gabe denboratxo joan ondoren, beste idatzi bat bidali behar izan genien, Pasaiaiko Udalari horren gainean dituen betebeharrak eta erantzukizunak zein diren gogorarazteko.

Horrela, halako instalazioek hiri ingurunean sortzen dituzten disfunczio nabarmenak kontuan hartuta, halako establezimenduak EAeko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legean aurreikusitako administrazio-lizentziaren araubidearen mende egon behar dutela iritzi genion. Lege horrek dio gogaikarriak izan daitezkeen zein pertsona edo ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkeen, eta ingurumenari kalterik egin liezaioketen instalazio publiko zein pribatuetakoa jarduerak arau horretan jasotako administrazio-lizentziaren araubideari lotuko zaizkiola, “halabeharrez eta funtzionatzen hasi baino lehen.”

Izan ere, egoki iritzi genion jarduera horiek ez luketela udal erakundeek zerbitzuan jartzeko baimenik eman baino lehen funtzionatzen egon behar azpimarratzeari. Horretarako, lehenbizi, bi lokalei neurri zuzentzaile proposak zehaztu eta gauzatu behar zitzaizkien eta, bigarren, udal zerbitzu teknikoek instalazio horien egokitasuna egiaztatu behar zuten.

Gehitu genien, indarreko legeak dioenez, jarduera horien funtzionamenduaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola egitea udalei nahitaez dagokien zeregina dela eta zeregin hori bete dadin, gainera, ukitutako herritarrentzat izugarri garrantzitsua dela.

Udalek zaindu eta bermatu behar dute beraiek funtzionatzeko baimena eman dieten jarduerak, beti-beti, instalazio lizentzian jarduerari ezarritako murrizketa eta neurri zuzentzaileetara doi daitezen, eta jarduera baimendutako instalazioaren parametro eta mugetara egokitzera bideratu behar dute. Gainera, herritarren atsedenaekin eta kalitatezko ingurumenarekin errespetu gutxiz jokatzeko denean zehapen neurriak hartu behar badira, indarreko lege antolamenduak horretarako bideak ere eskaintzen ditu, herritarren interes orokorra babestera begira.

Horregatik guztiarengatik, berriro iradoki genion Pasaiaiko Udalari establezimendu horien inguruan bizi den jendearen eskubideak –intimitaterako eta segurtasunerako eskubideak– izatez gauza daitezen lortzeko zer errekurtsio eta prozedura behar diren erabaki zezan, ez baitago jende horri lasaitasunik zertan eragotzi, lokalek eragindako trabengatik.

Halaber, jakinarazi genien ez genuela inola ere instalazioak zaindu eta kontrolatu behar izatea zaila dela ukatzen, baina garbi zegoela lokal horien funtzionamendua arauketa tekniko-juridiko baten mende jarri ezean, ukitutako jendeari kalte handiak eragin diezazkietela. Amaitzeko, azpimarratu genuen, berriro ere, halakoetan, Udalak ondo esku hartzea dela jarduera horien funtzionamendu okerrak eragin litzakeen asaldu eta ingurumen erasoak denboran luza daitezen eragozteko dagoen berme bakarra.

- Emaizta

Azkenik, Hirigintza Saileko buruak hartu zuten erabakia helarazi zigun: establezimendua ixtea dekretatu eta Udaltzaingoa lokalak prezintatzeko agindu zioten.

Hartara, kexa eragin zuen arazoa konpondutzat jota, gai horretako gure esku hartzea bertan amaitu zen.

⇒ *Diskoteka baten ondoriozko eragozpenak (331/2004)*

• Erreklamazioa

Erandioko emakume batek bizilekuaren beheko solairuan dagoen garagardotegi-dantzalekuaren funtzionamenduan zeuden irregulartasunak salatu zituen.

Kexagileak zioenez, goiko etxebizitzetara igortzen zen zarata oso handia zela; musika, jendearen oihu eta elkarrizketak, kolpeak eta elementuak arrastatzea, garbiketa eta abar argi eta garbi entzuten zirela, eta ezin zutela bizimodu normalik egin.

Gainera, bai bera bai gainerako auzokideak Udalarengana joan ziren, behin baino gehiagotan, neurriak har zitzaten eskatuz, baina artean, guregana etorri zirenean, inolako erantzunik jaso gabe zeuden.

• Azterketa

Interesatuak ekarri zigun dokumentazioa aztertu ondoren, informazio eskaria bideratu genuen Udalera, instalazio lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak egokiak ziren jakiteko, eta halako jardueretarako arauz finkatuta dauden gehienezko soinu parametroak zuzenak ziren argitzeko. Era berean, udal agintariek jasotako salaketen ostean zer egin zuten ezagutu nahi genuela eta informazioa bidaltzeko ere eskatu genuen.

Gai horiei guztiei erantzuteko, Erandioko Udalak txosten bat helarazi zigun, udal teknikariek egindako azkeneko ikuskapenen aktekin batera. Horrela, jakin genuen establezimenduaren intsonorizazioa jarduera lizentzian hitzartutako eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kalifikazio txostenean ezarritako baldintzetara doitzen zela eta, hartara, ez genuen alde horretatik inolako irregulartasunik hauteman.

Alabaina, erakunde honetara txostenari erantsita bidali zizkiguten dokumentuetan ikusi genuen, egindako salaketen ondorioz, Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenean lehenago xedatutakoaren ildotik, establezimenduaren jabeari zer neurri zuzentzaile ezarri zitzaizkion jakinaraztean egindako akats baten ondorioz, hainbat irregulartasun zeudela egiaztatu zela.

Horregatik, 142/2002 Dekretuaren bidez, jarduera aldi batez ixteko agindu zuten, harik eta titularrak aldaketa egokiak egin eta hautemandako hutsak ongitu arte.

Zehazki, jardueraren jabeari honako neurri hauek ezar zitzan eskatu zioten:

- “1- *Lokalaren aireztapenaren plano eguneratua aurkezteko.*
- 2- *Ezgaientzako komuneko aireztapena egokitzeko.*
- 3- *Kanporako hotsek, larrialdiko atearen aurrez aurre, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako mailak bete ditzaten zuzenketa egokiak egitea.”*

Irregulartasun horiek zuzendu zirenez, eta Udaleko zerbitzu teknikoek egin beharreko egiaztapenak egin zituztenez, Erandioko Udalak lokala berriro irekitzeko baimena eman zuen.

• Emaidza

Administrazioaren jarduera indarreko legediarekin bat etorri zela ikusita, kexa espedientea itxi eta artxibatu genuen.

⇒ *Taberna baten jardueraren ondoriozko irregulartasunak, baita auzokideak bizi diren plazan jarritako hanka bakarreko mahai batzuen ondoriozkoak ere (656/2004)*

- Erreklamazioa

Etxebarriko auzotar kidego batek ostalaritzako establezimendu baten ohiko jardueira irregularraren eta beraiek bizi ziren plazan jarrita zituzten mahai batzuen ondorioz etxeetan pairatzen zituzten zarata arazoak behin eta berriro salatu arren, Udalak ezer egiten ez zuela kezuka etorri zitzaigun.

Mahai horiei zegokienez, gure erakundean aurreko batean ere azaldu zuten, ez zeuden bat ere ados auzoan eragiten zituzten eragozpen ugariekin; zarata atera, zikinkeria pilatu, kentzeko ordutegiari jaramonik egin ez, atari eta garajeetarako bidea oztopatu eta halakoak egiten zituzten. Era berean, beraiek ziotenez, mahaiak ia urte osoan jarrita edukitzen zituzten, arauz finkatuta zeukaten epeari kasurik egin barik, eta baimendutakoa baino gainazal handiagoa hartuz, gainera.

Bestalde, tabernaren jarduerari berari zegokionez, zarata eragozpenak asko eta etengabeak zirela zioten, batez ere asteburuetan, besteak beste, kolpeak, musika altua, bezeroen oihu eta elkarrizketak, taberna barruan zein kanpoan, mahai eta aulkiak arrastan ibiltzea, pertsiana behin eta berriro igo eta jaitea, beti zabalik zeuden ateak, eta abar. Halaber, establezimenduak arauz ixteko jarrita zeuzkan ordutegiak ez zituela betetzen gaineratu zuten.

Etxebarriko Udalarengana jo genuen, interesatuek kexan azaldu zituzten gai guztien gaineko berri eske.

- Azterketa

Udal erakundeak bidali zigun dokumentazioa aztertu ondoren, ez genuen guk esku hartzea justifika zezakeen arrazoirik aurkitu, atera genuen ondorioa Etxebarriko Udalak bere esku zegoena ondo egin zuela izan baitzen. Hau da, hizpide ditugun jarduera horiek egoki kontrolatu eta ikuskatu zituela, eta egoera irregularrak artezten saiatu zela.

Eginbide horien emaitzatik, halaber, establezimendu hark jarduera lizentzian eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kalifikazio txostenean jarritako baldintzak betetzen zituela ondorioztatu genuen.

Alabaina, auzi honetako esku hartzeari amaiera eman baino lehen, pentsatu genuen, egindako salaketek ziotenarengatik, Udaleko zerbitzuek establezimenduak ikuskatu zituztenean, lokalera sartzeko ateak gehienetan zabalik egon ohi zirela, eta horrek inguruan bizi zen jendeari traba egin diezaiokeela agerrarazi behar genuela.

Horregatik, Udalarari ohartarazi genion, gure erakundearen iritziz, eta abiarazi zituzten zehapen espedienteen kalterik gabe, ondo egon litekeela Udalak establezimenduaren jabeari dituen betebeharrak erantzukizunak gogoraraziko balizkio, ateak itxita eduki ditzan, batez ere gauez, eragin litzakeen zarata arazoei irtenbidea ematearren.

- Emaitza

Interesatuei egindakoaren berri eman eta gero, besterik egiterik ez geneukala iritzita, espedienteak itxi eta artxibatu genuen.

### C) Beste ingurumen afekzio batzuk

⇒ *Gauzez herri lanak egitean arautegiz ezarrita dauden hots parametroak gainditzea (572/2004)*

- Erreklamazioa

Bermeoko San Martin, Doloriaga eta Bizkaiko Jaurerria kaleetako biztanleek San Martin ibaira sartzeko tunela eraikitzeo obran ondorioz pairatu behar zituzten zarata jasangaitzak salatu zituzten.

Zarata horiek etengabeak zirela zioten, obrak egunez eta gauzez egiten ari baitziren, etengabe, zarata handia ateratzen duten makinak erabiliz, hala nola, garabiak, tona kopuru handiko kamioiak, sorgailuak, uhal garraiatzaileak, eta abar.

- Azterketa

Bermeoko Udalak zarata eta dardarak araupetzen dituen udal ordenantza dauka, 2003koa, eta 23. artikuluan udal agintaritzak, aldi batez eta eremu jakin batzuetan, baimen berezia eman dezan ahalbidea jasotzen da; baimen berezian, besteak beste, larrialdietako instalazio eraikinak, altxatu, konpondu edo eraisteko, multzo elektrogenoak jartzeko eta halako obrak, baita kalean gauzez egiten diren lan batzuk ere egiten direnean, finkatuta dauden gehienezko soinu mugak betetzetik salbuesten dira. Hor sar litezke, era berean, larrialdi, arrisku edo interes orokorren ondoriozko arrazoiei erantzuten dieten egoera bereziak.

Alabaina, arau horren 3. atalean dio salbuespenezko baimen horiek ematean baldintzak, ordutegia eta gehienezko emisio mailak finkatu behar direla.

Hori ikusita, eta kontuan izanik etxebizitzak San Martin ibaia bitan banatzeko obrak egiten ari ziren tokitik gertu zeudela, Bermeoko Udalarri lanen sustatzaileek beharrezko baimen berezi hori zeukaten ala ez galdetu genion eta, izatekotan, ea zelari justifikatzen zen obrak gauzez egin behar izatea argitzeko eskatu genion.

Era berean, ustez eragiten ari ziren ingurumen afekzioak arintzeko eta, ukitutako etxebizitzan barruan, arautegiz finkatutako inmisio mailak ez gainditzeko neurri zuzentzaileak ezartzea baloratu ala eskatu zuten jakinarazteko ere eskatu genion.

- Emaizta

Bermeoko alkateak erantzun zigun, jasotako salaketak ikusita, Udaleko zerbitzu teknikoek hots neurketak egin zituztela eta, neurketen emaitzak eskutan, Bizkaiko Foru Aldundiari obrak gauzez egiteari uzteko eskatu ziotela, zehazki, 22.00etatik 07.00etara.

⇒ *Zumaiako portuan zegoen dragatze itsasontzi batek zarata eragozpenak eragin zituen (1393/2004/17)*

- Erreklamazioa

Gure erakundearen Zumaiako herritar baten kexa jaso genuen, non portuan, bere etxetik gertu, zegoen dragatze itsasontzi batek gauzez erabiltzen zituen argi-sorgailuek ateratzen zuten zarata gogaikarriak salatu zituen.



- Azterketa

Gure erakundeak berehala jo zuen Zumaiako Udalarengana eta Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Portuetako Lurralde Zerbitzuarengana.

Egindako gestioei esker, jakin ahal izan genuen itsasontziak gauez argi-sorgailuak behar zituela, portuan zuen tokiarengatik ez zuelako portuko hornidura elektrikoko zerbitzu orokorrera heltzeko modurik.

- Eraitza

Inguruan bizi zen jendeak pairatzen zituen eragozpenak egiaztatu ondoren, Portuen Lurralde Zerbitzuak itsasontziari porturatzeko beste toki bat bilatuko ziola agindu zuen, lehorreko argindarretik hornitu eta, horrela, sorgailu gogaikarririk erabili behar ez izateko.

## 10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

### 10.1. SARRERA

Arlo honetan aurkeztutako kezarik gehienak administrazioaren funtzionamenduari eta prozedura administratiboa betetzeko arazoei buruzkoak izan dira, bai eta tokian tokiko zerbitzu publikoen prestazioari eta ondare erantzukizunaren ondorioz sortutako gaiei buruzkoak ere. Halaber, nahiko ugariak izan dira garraio publiko eta landa bideei buruzko kezak.

Tramitatu den erreklamazio kopurua azterturik, herri lan eta zerbitzuekin zerikusia duten kezak 174 izan dira, arloetan banatutako kexetatik % 15,56.

Administrazioak banan-banan azterturik, honako kexa multzo hauek agertzen zaizkigu:

– Toki administrazioa .....	138
– Foru administrazioa .....	29
– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	16

Jarduera arloei dagokienez:

– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	54
– Tokian tokiko zerbitzu publikoak .....	31
– Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna .....	26
– Garraioak .....	14
– Landa bideak .....	11
– Bestelakoak .....	9
– Beste zerbitzu publiko batzuk .....	9
– Obren burutzapena .....	7
– Obra proiektuak .....	7
– Nahitaezko desjabetzeak .....	4
– Irisgarritasuna .....	2

### **Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa**

Aurten ere aipatu behar ditugu administrazioak herritarrek aurkeztutako eskabideei ez erantzutearen ondorioz sortutako eragin kaltegarriak. Gai honi buruzko kezak jarduera arlo honetakoak izanagatik ere, sakoneko problemaz gain, ukitutako pertsonen **administrazioaren isiltasunaren arazoa** aipatu ohi dute.

Ildo honi jarraituz, berriro ere gogorarazi nahi dugu zer den Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen duena.

Gure antolamendu juridikoaren ezarpenak argitzeko bitartekorik zuzen eta argiena arrazoien berri ematea da (9. idatz-zatia); horiek ezartzen dute lege honek

*“administrazioak herritarrekin izan beharreko harremanen kontzeptu berri ezartzen duela, administrazioaren isiltasunaren doktrina gaindituz (...) Esan liteke legeak administrazioaren isiltasun positiboa ezartzen duela, gure arau tradizionala aldatuz. Ez da zehatza. Legearen xedea ez da administrazioaren jardunik ezari izaera positiboa ematea partikularrek hara jotzen dutenean. Administrazioaren jardunik ezaren izaera positiboa berme bat da, legearen benetako xedea betetzen ez denean, hau da, herritarrek administrazioaren beren-beregiko erantzuna jasotzeko bermea da eta, batez ere, ezarritako epean jasotzeko bermea. Administrazioaren isiltasuna, positiboa edo negatiboa, ezin da ohiko institutu juridiko bat izan, baizik eta partikularren eskubideak hustea oztopatzen duen bermea, betiere administrazioak bere zereginak eraginkortasunez eta azkartasunez betetzen ez dituenean”.*

Laburbilduz, herritarrek eskubidea dute egindako eskabideei **beren beregiko erantzuna** eman diezaieten, betiere **legez ezarritako epearen barruan**; hortaz, administrazioaren isiltasunaren erabilera, positiboa nahiz negatiboa, administratioari emandako zereginak ez betetzea da. Gauzak horrela, administrazioaren isiltasuna ezin da administratioen eskubide modura artikulatu, baizik eta partikularren berme modura, administratioak bere zeregina eraginkortasunez bete ez duenean.

Gizarte zerbitzuak eskuratzeko, laguntzak jasotzeko, babesturiko etxebizitzaren sustapenetan parte hartzeko, PFEZen kenkariez gozatzeko... erroldatzea egiaztatzeko premiak dakar EAEko herritarrek euren datuez arduratzea, biztanleen udal erroldan modu egokian ager daitezen.

Horrela bada, udal zerbitzu honen kudeaketa kexa iturria izan daiteke udalen jarduna arauekin edo ukiturikoen ustekin bat ez datorrenean. Errolda horren kudeaketan, zehatzago ofiziozko baxen tramitazioan, Erroldatze Kontseiluak parte hartu behar du; izan ere, kontseilu horrek manuzko aldeko txostena eman behar du, euren adostasuna azaltzen ez duten pertsonen baja eman ahal izateko. Tramite mota hauek ebazpena atzeratzen dute, baina espedienteak ukituriko pertsonen eskubideen bermea dira.

Honen haritik, hainbat kexa jaso ditugu. Horrela bada, Vitoria-Gasteizko familia batek bigarren eskuko etxebizitza bat eskuratu zuen eta, erroldatzeko orduan, ezustean egiaztatu ahal izan zuen euren etxebizitza horretan aurreko jabeak agertzen zirela erroldatuta. Beste kexa batzuk pertsona interesatuak izan beharreko bermeei buruzkoak dira, ofizioz ematen den bajarekin bat ez datorrela adierazten duenean. Arazo hau hurrengo epigrafean agertzen den kexan (388/2004) jasotzen da.

Udal erroldako alta eta baxen kudeaketari dagokionez, 1997ko uztailaren 4ko ebazpenak udalei jarraibide teknikoak ematen dizkie udal errolda gaurkotzearen inguruan. Arau horrek xede bikoitza dauka; izan ere, alde batetik, udaletako biztanle erroldaren kudeaketa arautzen duten arauak aplikatzeko irizpideak bateratu nahi ditu, eta, beste aldetik, toki erakundeei jarraibideak ematen dizkie herritarrek erroldatzearen inguruan azaltzen dituzten gaiei modu bateratuan erantzun ahal izateko. Hala, lehendabiziko erabilera lizentzia eskuratu ez duten eraikinetan alta berriak hartzearen inguruan, hurrengo atalean laburbiltzen dugunaren antzeko erreklamazioak jasotzen jarraitzen dugu (240/2004).

Azkenik, kexa batzuen arrazoia zera da: **erregistro eta artxibo publikoetara** sartzeko mugak. Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.3. artikulua ezartzen du herritarrek toki korporazioetako erabakien eta horien

aurrekarien kopiak eta egiaztagiriak jasotzeko eskubidea dutela, baita ere artxiboak eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea dutela, betiere Konstituzioaren 105. artikuluan b) lerroaldea garatzen duen legeriak ezartzen duenarekin bat etorritz.

Ildo honi jarraituz, administrazio publiko guztiei aplikatzekoa den Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 37. artikulua arautzen du herritarrek artxibo eta erregistroetara sartzeko duten eskubidea. Hona hemen nabarmendu beharra dago artikulua horrek eskubide hori egikaritzeko modua eta mugak ezartzen dituela. Edozein interesatuk informazioa eskuratzeko duen aukerak bat egin behar du, besteak beste, pertsonen intimitateari buruzko datu esanguratsuak dituzten agiriak zaintzeko zereginarekin; izan ere, azken hori oinarritzeko eskubidea da eta horrek norbanakoei ematen die euren datuen gaineko erabilera kontrolatzeko bidea. Laburbilduz, herri administrazioek ahalbideratu behar dute herritarrek eskubide hori egikaritzea, baina, aldi berean, hirugarrenen eskubideak ere oso kontuan hartu behar dituzte, datuak lagatzeak ukitzen baditu.

Hausnarketa honen haritik, aipatzekoa da ekitaldi honetan titularitate publikoko izaera pertsonaleko datuen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren sorruntzari buruzko otsailaren 25eko 2/2005 Legea onetsi dela; lege honen xedea ondorengo hauxe da: Euskal Autonomia Erkidegoak, lurralde historikoetako foru organoek eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeek pertsona fisiko identifikatuen edo identifikagarrien gainean kudeatu edo sortutako datu fitxategi guztiak arautzea.

## Zerbitzu publikoak

Atal honetan zerbitzuen publikoen gaineko azpiarloan aurkeztutako kexei buruz jardungo dugu, toki erakundeei dagozkienak nabarmenduz, herritarrek azaldutako gaiek gehien ukitzen dituzten administrazioak direlako.

Gure antolamendu juridikoak toki erakundeei oinarritzeko hainbat zerbitzuren prestazioa ematen die, besteak beste, **etxeak edateko urez hornitzeko zerbitzua**. Zerbitzu honen inguruan aipa dezakegu bost kexa multzo nagusi izan direla: zerbitzua emateko eskubidea (369/2003), ura bideratzean izandako akatsak, kontsumituriko uraren fakturazioa, gizakion kontsumora zuzendutako uraren edangarritasuna eta zerbitzuaren etenaldia ordaindu ez dela eta.

Bestalde, **errepide eta bideen** mantentzeari buruzko gaia kexa ugari sorrarazten ditu. Udalek ekitaldi bakoitzean egingo dituzten inbertsio politikak zehazteko eta lehentasunak ezartzeko ahalmen handiak dituzte; izan ere, agerian dago aurrekontuek ez dutela ahalbideratzen horiek guztiak batera gauzatzea.

Edozein kasutan ere, udalek, bideak mantentzeko obrak zehazteko orduan, irizpide orokor eta objektiboak ezarri beharko lituzkete. Herritarrei irizpide horien berri eman beharko litzaieke, administrazioaren jardunaren gardentasuna bultzatzeko eta herritar batzuen mesfidantzak ezabatzeko; izan ere, hainbat herritarren ustez, arlo honetan egiten diren jarduerak ez daude inolako arrazionaltasunaren menpe.

Era berean, herri bideen gaian ere arazoak sortzen dira bakarreko jardunak izaten direla eta. Kasu honetan, kexa nagusia zera izaten da: legezkotasuna berrezartzeko eta gure antolamenduak ezartzen dituen diziplina zereginak egikaritzeko, bide horien titularitatea duten administrazioek erakusten duten borondaterik eza.

## **Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna**

Gai honen inguruan, aurreko ekitaldietako txostenetan zehaztutakoa berretsi behar dugu. Ondare erantzukizunaren edukia –Espainiako Konstituzioaren 106. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko Legean jasotakoa–, bai eta gertakizunak egiaztatzeko beharrezko administrazio tramiteak ere, gutxika-gutxika barneratzen ari dira EAEko herri administrazioetan, nahiz eta eskubide konstituzional honen aplikazioan hainbat disfuntzio egon.

Administrazioen ondare erantzukizuna objektiboa da; horrenbestez, administrazio organoek erreklamazio eskabideak ontzat eman behar dituzte, baldin eta zerbitzu publikoen ohiko eta ezohiko jardunbidearen eta egindako lesioen arteko kausalitatea egiaztatzen bada, betiere kaltearen eragilearen arduragabekeria edo errua frogatzeko beharrik gabe.

Espediente hauek instruitzean, frogaren eta horren balioaren jarduna arretaz zaindu behar da. Kasu batzuetan ikusten dugu ezetza emateko ebazpenak ez datozela bat tramitazioaren edukiarekin, ez baitira batera kontuan hartzen ukitutako pertsonen aurkeztutako frogak edo gaitzirizpena oinarritzen baitute frogatu dauden ustetan (3/2004 gomendioa).

Azkenik, herri administrazioarekin erantzukizun zibileko poliza bat kontratatuta daukan aseguru-etxe batek esku hartzen dueneko kasuak aipatu behar dira. Hala, 2002ko txostenean aipatu genituen administrazioak, pertsona baten erreklamazioa jasotzean, konpainiara zuzenean bidaltzen dituen kasuak; izan ere, konpainia horrekin kontratu bat sinatuta dauka. Horrela bada, txosten horretan zehaztu genuen aseguru-etxearen kontrako txostenak ez duela esan nahi administrazioak bere erantzukizunari aurre egiteki salbu dagoenik, behin beharrezko espedientea tramitatu eta gero. Aurten, Sestaoko Udalaren kontra izapideturiko kexa bat sartu dugu epigrafean (208/2004); kexa honen ondorioz, Udalak aseguru-etxeari epe zehatz bat eman zion erantzukizuna bere gain hartzeko eta, horrela egin ezean, kalte-ordaina Udalak berak ordainduko zuela erabaki zuen.

## **Garraioak eta irisgarritasuna**

Aurreko urteetan bezala, **garraio publikoa** kexen iturri oparoa izan da, bai minusbaliatuen kasuan bai familia ugarien kideen kasuan ere. Horrela, lehenengoen eskatzen dute garraio publikoek herritar guztiei zuzendutako irisgarritasun baldintzak betetzea, mugikortasun arazoak izan ala ez (787/2003); bigarrenek, ostera, euren desadostasuna azaltzen dute, euren ustetan, Familia ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeak aintzatesten dituen onurak urtzen diren modua dela eta. Kolektibo honek garraioaren arloan egiten dituen aldarrikapenatariko bat da bonuen tarifei deskontuak aplikatzea familia ugarien kideen kasuan. Hala eta guztiz ere, eskakizun hori ez da bete familia ugarietako buruzko lege berria idatzi denean.

Halaber, garraio zerbitzuak kudeatzen dituzten sozietate anonimo publikoekin izaten diren hartu-emanak ez dira izaten kolektibo honek nahi izango lukeen bezain errazak.

Ildo honi jarraituz, Bilboko Metroaren jokabidea agerian jarri behar da. Sozietate honek hasiera batean lankidetzan jarduteko borondatea azaldu zигun, erakunde honek helarazi zizkion arazoei irtenbidea bilatzeko asmoz. Edozein modutan ere, behin sozietate

horrek emandako erantzuna aztertu eta neurririk egokienak patxadaz eta lasaitasunez aztertzeko epe zabal bat eman ondoren, arazoaren irtenbidea bideratzeko moduari buruzko argibideak eskatu ziren eta handik aurrera ez zen bestelako erantzunik izan.

Horrela bada, gaur egun, metroko erabiltzaileek egunean-egunean aurre egin behar dioten arazoa jasotzen duen kexa bat dago, betiere aulkian doazen adin txikikoekin bidaiatzen dutenean. Pertsona hauek minusbalioa dutenentzat egokituriko sarrera makinatik igaro behar dute. Alabaina, sarbide hori haurren gurditxoak bultzatuz igartzeko duten denbora tarteak ez da nahikoa; horren kariaz, ez da ezohikoa izaten gurditxoak bultzatzen duen pertsona sarrera makinaren atek harrapatzea edo kolpe bat hartzea.

Arazoaren jatorria zera da: haurraren gurditxoak zelula fotoelektrikoa gainditu eta gero, atek ixteko mekanismoa martxan jartzen da. Arazo hau ikusita, beraz, itxiera prozesua amaitzeko programaturiko epea handitzea proposatu genuen, baina Bilboko Metroak erakunde honi jakinarazi zion ezin zela horrelako neurririk ezarri; izan ere, teknikoki fotozelulak ez daude egokituta atek itxi aurretiko denbora tarte zehatz bat ezartzeko, hau da, automatikoki ixten dira. Aurreratu dugun bezala, Bilboko Metroak zehaztu zuen sarrera makinak mantentzeaz arduratzen zen enpresari jakinarazi ziola zein zen arazoa, irtenbide alternatiboren bat eman zezan. Aldi berean, sozietate horrek gogorarazi zuen Bilboko Metroko langileek eskuz zabal zitzaizketela makinak, modu horretara harrapaketak saihestuz.

Gure ustetan, ageri-agerian dago, erabiltzaileen onura gogoan, Bilboko Metroak arazoa konpondu behar duela; gainera, gorabehera hau sumatu zen garraio zerbitzu hau martxan jarri zen momentutik.

Erabiltzaileen igarobidea ahalbideratzeko, une zehatz batean makina eskuz irekitzeko aukera salbuespena izan behar da. Gainera, aintzakotzat hartu beharra dago Bilboko Metroak ez duela geltokietatik zehar dabilen langilerik, txartelen salmenta automatizatuta dagoela eta langileak argibide leihatilaren atzean egon ohi direla.

Azkenik, gaueko garraio zerbitzuak esku dirutan ordaintzeko mugei gagozkielarik, berretsi behar dugu zerbitzu publiko batek kontraprestazio ekonomiko modura uneoro onartu behar duela legezko erabilerako dirua; ondorioz, bidaiak gisa honetan ordaintzen dituzten pertsonen sarbidea onartu eta euren jomugara eraman behar dituzte, betiere zerbitzua egunez edo gauez ematen den alde batera utzita. Azken kexa hau zehaztasun handiagoekin jasotzen da kexen aukeraketari buruzko atalean (1450/2001).

## 10.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Irisgarritasuna

⇒ *EuskoTreneko Donostia-Irun lineako irisgarritasun arazoak (787/2003)*

- Erreklamazioa

Minusbaliatuen pertsona talde batek ezbeharrak izateko kezka eta beldurra jakinarazi zигun, Donostia-Irun lineako tren bagoietara sartzeko eta handik irteteko orduan.

Horrela, adierazi ziguten EuskoTrenek tren honetako bagoi baten gainean gurpil aulkietan mugitzen diren pertsonen zuzendutako irisgarritasunaren bereizgarria jarri zuela.

Guztiarekin ere, ez zuen inolako irtenbide teknikorik eskaintzen bagoia nasatik bereizten duen 10 zentimetroko tartea kentzeko. Tarte hori itxuraz txikia izanagatik ere, pertsona minusbaliatuentzat oztopo gaindiezina zen, tartea estaltzeko plataformarik edo bestelako irtenbide teknikorik eskaintzen ez zenez gero; horren kariaz, azkenean kolektibo honek ezin zuen garraio publikoa autonomiaz erabili.

Ukitutako pertsonak ere jakinarazi ziguten oso erraza zela erabili ohi dituzten aukietako aurrealdeko gurpilak bagoiaren eta nasaren arteko tartean harrapatuta geratzea, gurpilak diametro txikikoak direlako. Arrisku egoera hori handitzen da, gurpil aulki elektrikoak erabiltzen direnean; izan ere, aulki mota horiek oso pisutsuak dira eta horrek elbarriari ez dio uzten aukiarekin maniobrak egiten eta bere zama atzeko gurpilen gainean kargatzen, oztopoa gainditzeko.

Gainera, elbarrien artean gero eta ohikoagoa da aulki elektrikoak erabiltzea, horrek modu autonomoan mugitzeko ematen dizkien erosotasuna eta prestazio handiak direla eta.

Era berean, paradoxa argia zegoen; izan ere, EuskoTrenek bere bagoietan eranskailuak jarriak zituen bidaiariei euren oinak bagoiaren eta nasaren arteko tartean harrapatuta gera zitezkeela ohartarazteko. Ohar hori, behin-behinean, mugikortasun arazorik gabeko pertsonentzat erabilgarria izan zitekeen arren, guztiz desegokia zen pertsona minusbaliatuen kasuan.

- Azterketa

Arazoa behin betiko konpontzeko irtenbidea oso nekeza zela kontuan harturik eta adostutako irisgarritasun neurriak arian-arian ezarri behar zirela jakinik, EuskoTreni argibideak eskatu genizkion, bagoien plataforma nasetaraino eramaten ahalbideratzeko irtenbide teknikoa instalatzeko aukeraren gainean; izan ere, bagoiaren azpian plataforma hedagarri bat jar zitekeen, RENFEk aldiriko tren batzuetan ezartzen ziharduen irtenbidea gogoan izanez.

Irisgarritasun arazorik larriena gurpil aukietako bidaiarien logotipoa agertzen zen bagoietan zegoenez gero, egokitzapen lanei bagoi horietan ekiteko proposamena egin zen.

EuskoTrenek Arartekoari jakinarazi zion EuskoTren XXI Plangintza Estrategikoan, aurreikusitako inbertsioen artean, geltokietan eta geralekuetan hainbat jarduera aurrera eramateko asmoa zegoela; jarduera horien helburua, besteak beste, geltoki guztiek irisgarritasunari buruz indarrean zegoen arautegiaren arabeko diseinu funtzional eta homogeneoa edukitzea zen. Honen haritik, aurreratu ziguten 18 milioi euroko inbertsio bat aurreikusita zegoela geltokiak gaurkotu eta egokitzeko. Horri esker, 2008-2012 epea amaitzean, geltoki guzti-guztiek beharrezko irisgarritasun baldintzak beteko zituzten eta bidariari mota guzti-guztiek garraio hau erabili ahal izango zuten. Dena dela, 2004rako ezarritako diagnostikoa bestelakoa zen: geltokien %50ek irisgarritasun beharkizunak beteko zituzten eta garraio hau irisgarritasuna behar zutenen %74k erabili ahal izango zuten.

Bien bitartean, Garraio eta Herri Lan Sailak Arartekoaren erakunde honi jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendaritzak tren geltoki, autobus geltoki, igogailu publiko, funikular, taxi eta egokituriko aparkalekuen irisgarritasunari buruzko ebaluazio bat agindurik zeukala. Jarduera horri esker diagnostiko zehatza izango zuten garraio-aren irisgarritasunari buruzko legeriaren betetze mailari zegokionez. Aldez aurretiko

datu hauek behar-beharrezkoak ziren, garraioaren irisgarritasuna bultzatzeko lau urteko lehendabiziko plangintza ezarri baino lehenago.

Edozein kasutan ere, kexa linea zehatz baten ingurukoa zenez gero, datu zehatzagoak ematea eskatu zen, Donostia-Irun lineak behar zituen egokitze beharriaz, burutzapen egutegiari eta abarri buruz.

- Emaidza

Garraio eta Herri Lan Sailak Arartekoaren erakunde honi erantzun zion aurreikusitako jarduera burutuko zela, nasetan beharrezko plataforma gehigarriak jarritz. Horrela bada, lanak 2004an zehar luzatuko ziren, salbuespenak salbuespen: Gaintxurizketa (2007) eta Añorga (2005). Izan ere, azken bi geltoki horietan jarduera zabalagoa gauzatu beharra zegoen. Zehatzago esateko, Añorgan aurreikusita zegoen geltoki berria egitea eta Gaintxurizketan nasa eta sarbide berriak egin behar ziren.

Halaber, jakinarazi ziguten, mugikortasun material berria erostean, egokituriko unitateak jasoko zituztela, betiere bagoitik nasarainoko jarraipena emateko moduko plataforma hedagarriez hornituta.

Aipatzekoa da 2004rako proiektaturiko burutzapen lan guztiak ez zirela bete alde aurretik ezarritako epearen barruan.

## B) Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa

⇒ *Norbera bizi den etxebizitzan erroldatzeko eskubidea, hirigintzako ingurua-barrak alde batera utzita (240/2004)*

- Erreklamazioa

Gernikako biztanle batek kexa bat aurkeztu zuen, bizi zen etxebizitzan erroldatzeko zailtasunak zituelako; izan ere, eraikinak ez zeukan lehenengoz okupatua izateko manuzko lizentzia.

- Azterketa

Gernikako Udalari informazioa eskatu genion, gai honen inguruan aurrera eramandako jardueren berri izateko.

Informazio eskaera horretan zehaztu genuen udalerrian ohiko egoitza duten biztanleek udal erroldan inskribatuta egon behar dutela, betiere uztailearen 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugarteari buruzko Araudia aldarazi zuen abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuarekin bat etorriz.

Era berean, udalei biztanle errolda gaurkotzeko jarraibide teknikoak ematen dizkien 1997ko uztailearen 4ko ebazpenak ezarri bezala: *“erroldak islatu behar du udalerriko biztanle bakoitza benetan bizi den helbidea. Errealitate hori agertzen den bakoitzean, erroldan adierazi beharra dago. Eta erroldaren inskripzioa etxebizitzaren titularitateari buruzko gorabehera juridiko-pribatuetatik kanpo dagoenez gero, egoitzari eragiten dizkioten zirkunstantzia fisiko, higieniko eta sanitarioetatik edo bestelakoetatik ere kanpo dago.”*



Ildo honi jarraituz, gogora ekarri beharra dago Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiak 2000ko martxoaren 21eko epaian adierazitakoa; izan ere, epai horretan ezartzen du biztanleak udal erroldan inskribatzeko betebeharra, betiere eraikinaren egoera urbanistikoa edo egoitzaren titularitatea alde batera lagata. Epai horrek ondorengoa dio: *“aintzatespen hori egiteko, etxebizitzaren bizigarritasun baldintzek edo gainerako hirigintza zirkunstantziek ez dute garrantzirik; izan ere, horiek berrezartzeko, toki erakundeek legezko beste bide batzuk dituzte, eskaturiko administrazio lotura ukatzeko beharrik gabe.”*

Udalak erantzunean adierazi zigun, eraikinak eregiteko lizentziaren beharkizunen artean, eraikina ez erabiltzeko betebeharra ezartzen zuela, harik eta urbanizazio guztia amaituta egon arte. Halaber, aipatu zuen ohikoa zela sustatzaile-eraikitzaileek etxebizitzak ez ematea, harik eta eraikinak lehenengoz okupatzeko lizentzia eskuratu arte; horrenbestez, ordura arte sekula ez zuten erroldatzeko halako arazorik izan.

Edonola eta, Udalak adierazi zuen beharrezko jarraibideak agindu zituela, handik aurrera 1997ko uztailaren 4ko ebazpenak ezarritakoarekin bat etorritz jarduteko.

- Emaiza

Ukitutako pertsonari Udalak beraren egoitzan erroldatzeko azaldutako aldeko jarreraren berri eman genion, nahiz eta artean ere etxebizitza lehenengoz okupatzeko lizentziarik eduki ez. Horrela bada, kexa espedientea artxibatu genuen, azaldutako arazoari irtenbidea eman zitzaiolako.

⇒ *Udal erroldan baja ofizioz emateko espedienteen prozedura-bermeak errespetatzea (388/2004)*

- Erreklamazioa

Familia batek Arartekoaren bulegoan kexa bat aurkeztu zuen, erroldatuta zegoen Gipuzkoako herriko udalak espediente bati ekin ziolako, familia horrek udal erroldan zuen inskripzioaren baja ofizioz eman ahal izateko.

Espedientea hasita zegoela eta, familiak adierazi zuen alegazioak aurkeztu zituztela; era berean, interesatuak zirenez gero, Udalari eskatu zioten espedientearen zeuden txosten guztien eta dokumentazioaren berri izateko. Hala eta guztiz ere, toki erakundeak aitortu zuen espedientearen alkatezaren dekretua baino ez zegoela; izan ere, agiri hori izan zen inskripzioan baja ofizioz emateko espedienteari ekiteko erabilitako dokumentu bakarra.

- Azterketa

Egia esan, Solairu eta Mugarteari buruzko Araudiaren 72. artikulua ezartzen du udalek baja ofizioz emango dietela, okerreko inskripzioa dela eta, araudi horren 54. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen ez dituzten pertsona erroldatuei: *“behin interesatuari entzunaldia emango dion beharrezko espedientearen zirkunstantzia hori egiaztatu eta gero”*.

Aipatutako 54. artikulua horrek ezartzen du pertsona guztiek normalean bizi diren udalerriko erroldan inskribatu behar dutela; era berean, ondorengo hau ere zehazten du: *“Udalerrri batzuetan bizi denak bakar-bakarrik inskribatu behar izango du urtean denborarik gehien ematen duen udalerrian”*.

Horrela, hori guztiori frogatzeko arau orokorrekin bat etorritz, alde bakoitzak bere alde ematen dituen ondorioetako arauaren kasua frogatu behar du. Horren ondorioz, espedienteari ekin dion Udalak gertakizun hori frogatu behar du, hau da, egiaztatu behar du familia horren ohiko egoitza beste udalerrri batean dagoela, baieztapen horri eusteko frogaren osagaiak espedienteari erantsiz.

Toki erakunde horrek Arartekoari adierazi zion moduan, erroldako inskripzio desegokia dela eta baja ofizioz emateko espedienteari ekin zitzaion udal teknikariak eta arduradunak seguru zeudelako familia horrek ez zuela bere titularitateko baserrian lo egiten.

Susmo horretan oinarrituz eta espedienteari inolako frogarik erantsi gabe, alkatetzaren dekretu bat eman eta jakinarazi zen; dekretu horretan baieztatzen zen familia erreklamaziogileak ohiko egoitza Gipuzkoako beste udalerrri batean zeukala.

Interesatuak beren beregi adierazi zuten ez zetozela bat udal erroldako baja horrekin, Udalak une horretan froga elementuak biltzen ziharduen (mugakideen adierazpenak, hornigaien ordainagiriak...). Jarduera hori lehenago egin behar izan zen, espedientearen hasiera oinarrituz.

Aldi berean, toki erakunde horri jakinarazi genion zein zen manuak arauaren azaleko zorroztasunari ezartzen dion aringarria; horren ondorioz, legeriak ez du exijitzen udalerrian etengabe bizitzea, baldin eta egoera hori aldi baterakoa edo aldizkakoa bada eta udalerrri horretako etxebizitzan ohiko egoitzari eusteko helburua alde batera uztea ez badakar.

Beste alde batetik, aintzakotzat hartu genituen ukitutako familiak aurkezturiko alegazioak; izan ere, toki erakundeak aitortu zuen espedientearen ez zegoela familiari jakinarazitako dekretutik haratagoko agiririk. Esan nahi baita, Udalak espedienteari froga modura erantsi zion jarduerak ez zituen interesatuak kontuan hartu; izan ere, horiek ez zekiten toki erakunde horrek ildo horri jarraitzen zion jarduera bati ekin zionik, ez eta jarduera horren edukia zein zen ere.

Arartekoak gogorarazi nahi izan zuen entzunaldiaren berme xedea hutsalduko zela, pertsona interesatuak defentsarik gabe utziz, baldin eta Udalak bilatzen ziharduen froga osagaien berri ematen ez bazitzaien; izan ere, espedientearen aldaketa esanguratsua zegoen eta interesatuak ez zeuden horren jakinaren gainean; horrenbestez, ez zeukaten horren kontrako alegaziorik aurkezteko aukerarik.

Hori guztia zela eta, erakunde honek adierazi zuen, behin Udalak frogan inguruan biltzen ziharduen elementuak espedienteari erantsi eta gero, interesaturiko familiari entzunaldia eman behar zitzaioela, horrek alegazioak aurkezteko eta bere defentsarako egokitzen zituen agiriak eta justifikazioak eman ahal izateko. Jarduera hori, dena dela, Udalak espediente osoa Erroldatze Kontseiluari eman baino lehenago bideratu behar zen; izan ere, horrela egin ezean, ukitutakoak defentsarik gabeko egoeran geratzen ziren.

Aldi berean, horietaz baliatzeko aukera izan zezan, familiari jakinarazi genion edozein momentutan interesatu gisa azaltzen zen prozeduren tramitazioaren egoeraren berri izateko eskubidea zuela, bai eta agiri horien kopia ateratzeko ere; halaber, entzunaldia izan baino lehenagoko prozeduraren edozein fasetan agiriak emateko eskubidea zuen eta organo eskudunak agiri horiek kontuan hartu behar zituen, ebazpen proposamena idazterakoan (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.A eta 35.E artikulua).

- Emaiza

Azkenik, Udalak jakinarazi zigun espedientea amaitutzat eman zuela, behin Erroldatze Kontseiluak aldeko txosten bat egiteko behar beste froga ez zuela adierazi eta gero.

### C) **Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna**

⇒ *Administrazioek kalte-ordaina ematea ondare erantzukizunaren kasuetan, aseguru-etxeak horren kontra egon arren (208/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen udal bati ondare erantzukizunaren inguruan zuzendutako erreklamazio bati erantzuten ez zitzaiolako.

- Azterketa

Adin txikiko semeak kalteak izan zituen udalerriko parke bateko instalazioetan jolasean ari zela. Erreklamaziogilearen ustetan, gertakizuna joko eremuaren egoera txarraren ondorioa izan zen; horren kariaz, bere iritziz, kalte-ordain bat jasotzeko eskubidea zuen, sortutako kalteak zirela eta.

Erreklamazioaren gaineko berririk ez, eta interesatuak beste idatzi bat aurkeztu zion Udalari, besteak beste, alderdi horren berri emanez.

Kexa izapidetzea erabaki genuen, abiapuntu gisa ikusi genuelako kasu honetan prozedura mota hauek amaitzeko aplikatu beharreko arautegian ezarritako epeak gainditu zirela; zehatzago esateko, ondare erantzukizunaren arloan herri administrazioen prozeduren araudia onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren 13.3. artikulua aipatutako sei hilabeteko epea gainditua zen.

Inguruabar horretan oinarrituz, espediente bati berehalakoan ekin eta Udalari eskatu genion gai honi buruzko informazio guztia igortzeko, gure zeregin eta eginkizunak behar bezala bideratu ahal izateko.

Era berean, aukeraz baliatu ginen Udalari jakinarazteko Arartekoaren erakundeak sarri askotan aipatu duela zeintzuk diren administrazioaren isiltasunaren jardunak dakartzan eragin kaltegarriak; halaber, Udalari gogorarazi genion herritarrek aurkeztutako idatziei beren beregiko erantzuna eman behar zaiela, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1. artikulua lehengo lerroaldean ezarritakoarekin bat etorritik; artikulua horrek ondorengo ezaugarriak ditu:

*“Administrazioak prozedura guzietan beren beregiko ebazpena emateko betebeharra dauka eta berori jakinarazi behar du hasiera edozein izan delarik ere”.*

Toki erakundeak gure eskabidea ontzat eman eta dokumentazioa igorri zigun. Emandako elementuen artean, erabaki bat zegoen, arriskuaren aseguru-etxeari gai honen berri emanez; erabakian erantzukizuna bere gain hartzeko epe zehatza ematen zitzaion; horrela egin ezean, kalte-ordaina udal erakundeak berak hartu zuen bere gain.

Jakinarazitakoaren arioan, kexa eragin zuten arrazoiak konpontzeko bidean zeuden eta arazoak pertsona ukituaren interesen arabera irtenbidea izango zuela ikusi genuen.

- Emaiza

Horrenbestez, bidezkozat jo genuen gai honen inguruko jardura etetea, irregularitasuna konponketa bidean zegoenez gero, ez baitzen beharrezkoa gomendiorik egitea.

#### D) Tokian tokiko zerbitzu publikoak

⇒ *Udal sareetarako hartuneak egiteko baimenak (369/2003)*

- Erreklamazioa

Arabako udalerrri txiki batean zegoen higiezin bateko titularrak bere nahigabea adierazi zion Arartekoari, udalerrri horretako administrazio batzak ur eta saneamendu hartune bat egiteko eskabidearen inguruan ebazten ez zuelako..

- Azterketa

Administrazio Batzari txosten bat taxutzeko eskaera egina, jakin ahal izan genuen erreklamaziogilea ezkutuan eta gordean ur sarera lotuta zegoela.

Toki erakundeak zalantzan jartzen zuen higiezin horrek etxebizitzaren izaera izatea; horren ondorioz, erakunde honek gogorarazi zion, gure legeriaren arabera, ur eta saneamendua emateko betebeharra soil-soilik lotzen zaiola ur hornidura jaso behar duen eraikinak etxebizitzaren kalifikazioa izateari.

Ukitutakoak erakunde honi helarazi zion Lantarongo Udaleko idazkari-kontuhartzaileak emandako egiaztagiria bat; horren arioan, eraikina etxebizitza bat zen; era berean, bizitza bateko etxe horren obra berriaren inguruko adierazpenaren eskrituraren kopia ere igorri zion.

Gauzak horrela, une horretan ezin eztabaida zitekeen ur eta saneamendu hornidura eskatzen zeneko eraikinak etxebizitza baten izaera zuenik. Horren ondorioz, eraikinari ur edangarri eta saneamendu hornidura emateko baimena bidezkoa zen, betiere alde batera utzita higiezinaren titularrak ur eta saneamendu hornidura sare orokorretik etxebizitzara bideratzeko eta lotzeko gastuak ordaindu behar zituela. Halaber, erreklamaziogileak legez kutxetaren eraikuntza ere ordaindu behar zuen, bai eta hartunea egiteagatik ezarritako tasak ere.

- Emaiza

Administrazio Batzak jakinarazi zigun kexaren bultzatzaileari hartunea egiteko eskubidea ematea erabaki zela. Hori guztia interesatuari berehalakoan jakinarazi genion, egoera behar bezala erregulariza zezan.

⇒ *Gune publikoak erabili eta mantentzea; auzokideei asteburuetan eragindako trabak arintzeko neurriak (1360/2003)*

- Erreklamazioa

Auzokideen erkidego batek Arartekoaren erakunde honi kexa bat aurkeztu zion, Barakaldoko Udalak asteburuetan jendez josita egon ohi zen patio bat ixteko lizentzia ukatu ziolako. Horren ondorioz, auzokideen bizimodua hausten zen, jende mordo horrek sorrarazten zituen zikinkeria, zaratotsa, elementuen hausturak eta abar. Auzokideen ustetan, Udalak, antzeko egoera eta kasuak ikusirik, itxitura mota horiek baimenduak zituen.

Aldi berean, kexatzen ziren, eskatutako lizentzia ukatzeaz gainera, zerbitzu urbanistikoengatik tasa likidatu zielako. Bigarren gai honi dagokion azterketa ogasunaren arloari buruzko atalean jorratzen da.

- Azterketa

Honen inguruko informazioa eskatuta, Udalak erantzun zigun lizentzia ukatzeko udal ebazpena oinarritzen zela eraikinek osatzen zuten eta itxitura egin nahi zen gunearen udal titularitatean. Gainera, adierazi ziguten eremu horren erabilera haurrei zuzendutako jolasgune eta berdegune baterako pasabideari lotuta zegoela.

Halaber, Udalak zehaztu zuen lizentziak arauekin bat etorritik ematen direla, hortaz, Udalak indarreko legeria bete behar duela eta ezin duela legez kontrako jardueri eusteko jokabide diskriminatzailea edota berdintasun printzipioa argudiatu.

Hasiera batean azaldutako gaiak patio baten titularitate publiko edo pribatuarekin zerikusia zeukan; edozein kasutan ere, ezin genuen bazter utzi auzokideen erkidegoak zergatik egin behar izan zuen planteamendu hori. Asteburuetan esparru horretan aurrera eramaten ziren jarduerak elkarbitzita zapuzten zuten; horren kariaz, auzokideak ahalegindu ziren lasaitasun eta atsedenerako duten eskubidea bermatzeko egokitzat jo zuten bidea jorratzen.

Horregatik, Udalarari jakinarazi genion sakoneko arazoa kontuan hartu behar zutela, ukitutako pertsonen salatutako elkarbitzita arazoari irtenbide egokia emateko neurriak hartuz; izan ere, administrazioak bere esku hainbat baliabide ditu auzokideek salatutako lasaitasun faltari eraginkortasunez aurre egin ahal izateko.

Ildo honi jarraituz, Udalarari aipatu genion arrazoizkoa izan zitekeela, besteak beste, gune publiko hori gauez ixteko aukera aztertzea; erabaki hori korporazioak hartu behar izan zuen. Aipatutako eremuaren helburu nagusia haurrentzako jolastoki bat zenez eta ordu zehatz batetik aurrera erabiliko ez zenez gero, justifika zitekeen Udalak berak ixtea, betiere egokitzat jotzen zituen baldintzak ezarritik, horien barruan ukitutako auzokideen erkidegoaren lankidetzarako aukera eta guzti.

- Emaiza

Udalak jakinarazi zigun hitzezko akordio batera iritsi zirela ukitutako eraikin guztietako administrazioarekin, eraikin horietako patioan astebururo izaten zen apaindura, higijene eta segurtasun arazo larri horri irtenbide egoki bat emateko. Laburbilduz, Barakaldoko Udalak adierazi zigun patio gaueko ordutegian ixteko lizentzia emango zuela eta patioa behar zen guztietan garbituko zuela.

Horrenbestez, jarduera eten genuen, azaldutako arazoa konponbidean zegoela iritzi genuelako.

## E) Garraioak

⇒ *Garraio publiko bat diru xehearekin ordaintzea (1450/2001)*

### • Erreklamazioa

Bi emakumek jasandako begirunerik gabeko jokabidea salatu zuten; horrela, adierazi zuten nola gertatu ziren 2001eko abuztuaren 23ko goizaldean izandako gertakizunak, betiere Bilboko Hurtado Amezaga kaleko geltokitik Soduperaino joateko bi txartel 500 pezetako txanpon batez ordaintzen ahalegindu zirenean. Zehatzago esateko, aipatu zuten gidariak ez ziela bidaia txanponaz ordaintzen utzi eta autobusetik jaistera behartu zituela, gaueko zerbitzuetan creditrans edo credibus izeneko txartelen bitartez bakarrik ordain zitekeelako.

Halaber, zehaztu zuten bidaia taxiz egin behar izan zutela eta, behin Sodupera iritsita, autobusa heldu arte itxaron zutela erreklamazio orri bat eskuratu ahal izateko. Gidariak inprimakia emateari uko egin zion, bidaiaren azken geltokiraino behartuz, erreklamazio orriaren ale bat eskuratu nahi bazuten.

### • Azterketa

Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak aitortu zuen kexan aipatzen ziren gertakizunak A3343 Bilbo-Sodupe linean izan zirela; linea horretan gauez ematen ziren zerbitzuak Bizkaibus sarearen barruan jarduten duten enprekin beren beregi adostutako akordio baten arabera eskaintzen ziren; izan ere, gaueko zerbitzu horiek zerbitzu orokorretatik haratagokoak ziren. Gauzak horrela, gaueko zerbitzu horiek Herri Lan eta Garraio Sailaren Garraio Zuzendaritzaren ekainaren 8ko 635/2001 ebazpenak arautzen zituen.

Akordio horretan, segurtasun arrazoia zirela eta, creditrans edo credibus txartelak soil-soilik erabiltzeko betebeharra ezarri zen, gaueko zerbitzuak ordaintzeko modu bakar modura.

Sistema horrek alde batera uzten zuen zerbitzu publiko batek, edozein unetan, kontraprestazio ekonomiko bezala onartu behar duela legezko erabilerako dirua eta, ondorioz, bidaiak modu horretan ordaintzen dituenari autobusean sartzen eta bere jomugara eramaten utzi behar zaiola, zerbitzua egunez edo gauez emanagatik ere.

Horregatik, sail horrek Bizkaibus-en sarean jarduten duten enprekin zerbitzuaren kalitatea handitu eta hobetzeko hartutako edozein akordiodi indarreko legeria bete behar zuen, bai eta gure antolamendu juridikoak legezko erabilerako diru xeheari ematen dion balioa ere, beste interes batzuk (horien defentsa eta babesa sekula ez da zalantzan jarri) kontuan hartzeari kalterik egin gabe.

2001eko abuztuan 500 pezetako txanponak zirkulazioan zeuden eta, hortaz, estatuak ordaintzeko edo betebeharrak konplitzeko baliabide orokor eta nahitaezko modura sortutako dirua denez gero, txanpon horrek legezko erabilerako diruari ezarritako ezaugarriak zituen; esan nahi baita, baliabide orokorra zen, edozein betebeharrak betetzeko

balio zuelako, eta nahitaezkoa, zordunak lege ezin ziolako uko egin.

Azken horren inguruan, Arartekoaren erakundeak adierazi zuen jokabide hori (legezko erabilerako dirua ez onartzea, hain zuzen ere) tipifikatuta zegoela zigor ez-zilegi modura.

Erakunde honen ustetan –eta horrelaxe jakinarazi zion sail horri–, *credibus* eta *creditrans* txartelen erabilera (ohiko tarifen gaineko hobariak eta guzti) bultzatzea eta sutatzea bidezkoa zen, betiere joan-etorrien zenbatekoa dirutan ez ordaintzeko zeharkako helburua edukita, batez ere ordutegi korapilatsuetan. Alabaina, legezko erabilerako txanponaren bitartez ordaintzeko alternatiba horiek ezin uka dezakete gure antolamenduak legezko erabilerako dirutzat hartzen duen txaponen bitartez egindako ordainketen baliozkotasuna.

Beste alde batetik, kontuan hartu beharra dago bonoak (*creditrans* edo *credibus* txartelak) erostea zerbitzuaren erabiltzaileari ordaintzeko eskaintzen zaion aukera bat besterik ez dela; izan ere, horiek erosita, bidaia bakarra egiteko beharrezkoa den dirua baino kopuru handiagoa ematen da.

Horren kariaz, foru sailari adierazi genion gaueko zerbitzuaren jarduna ez zela zuzena izan eta ukitutako pertsonen juridikoki jasan behar ez zituzten gaitz-kalteak eragin zizkiela.

Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio Sailari bi gomendio helarazi genizkion, alde batetik, ukitutakoei eragindako kalteak konpentsa ziezazkien eta, beste aldetik, beharrezko neurriak har zitzan, gaueko zerbitzu bereziak legezko erabilerako diruaz ordaindu ahal izateko.

- Emaidza

Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio Sailak adierazi zuen ezin zituela egindako gomendioak kontuan hartu; izan ere, erabilitako taxiaren diru kopurua ordaintzeak *“Bizkaibus zerbitzuari galera-ordain ekonomiko handia ekar ziezaiokeelako, baldin eta etorkizunean era honetako erreklamazio guztiei aurre egiten behar bazitzaizen; horrek ez zuen zerbitzua bideragarri egingo eta azkenean kendu behar izango zen”*. Halaber, adierazi zuen, gaueko zerbitzu publikoetan legezko erabilerako diruaz ordaintzeko aukera onartuz gero, zerbitzu berezi horiek desagertuko zirela; izan ere, horrek ekarriko zuen Bizkaibus izeneko zerbitzuan jarduten duten bost garraio enpresekin lortutako akordioak aldaraztea.

Jakina denez, ez gatoz bat alegazio hauekin eta horrelaxe jakinarazi genion Herri Lan eta Garraio Sailari; sail honek, era berean, azpimarratu nahi izan zuen mota horretako kexa ordura arte jasotako bakarra izan zela.

## 11. OSASUNA

### 11.1. SARRERA

Arlo honetan 81 kexa jaso dira; horrela, ukitutako administrazioen arabera sailkapena eginda, kexa horiek ondokoak izan dira:

– Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz) .....	79
– Toki administrazioa .....	2

Azpiataletako banaketaren arabera, honelaxe sailkatuko ditugu:

– Erabiltzaileen eskubideak .....	48
– Osasun laguntza.....	14
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	11
– Bestelakoak.....	4
– Osasun publikoa .....	2
– Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna .....	1
– Buru-osasuna.....	1

Osasun laguntzaren ezaugarriak bereziak dira, beste prestazio batzuen aldean. Horrek azaldu dezake zergatik dauden, aplikatzeko orduan, irizpide desberdin gehiago beste prestazio eskubide batzuei ukitzen dieten beste alor batzuetan baino. Izan ere, horren ondorioz, antzera tratatu beharko lirakekeen egoerei, batzuetan, erantzun desberdinak ematen zaizkie. Hartara, teknika jakinik edo teknologia berririk aplikatzerakoan, gerta daiteke sistema publikoak aurretik zehaztutako irizpiderik ez izatea; teknika jakin batzuen kasuan, beharbada orokorrean ezartzeko oztopoak daudelako, edota teknologia edo tratamendu berrietan, oraindik guztiz ezarrita ez daudelako.

Kexa hauen artean, batzuek diote endoskopia egin nahi duten pertsona guztiek ez dutela lasaigarri edo anestesiaz egin diezaieten aukerarik, edo luzamendu larregirik, alegia, ia atzera eragiten duten atzerapenik gabe egin diezaieten bederen. Badirudi, kexa hauek irizpide desberdintasunaren eremuan baino baliabideen urritasunean kokatu beharko lirakeela, are gehiago inguruan gertu ditugun beste herri batzuetan zelau dauden begiratzen badugu.

Tratamendu edo teknika berrien erabilerari dagokionez, ukatzeko irizpideak zailtzan jartzen zituzten kexak jaso ditugu. Alde horretatik, eta adibide modura, sistema publikoan alterazioak transmititzeko arrisku egoeretan anomaliak antzemateko ezarri aurreko diagnostia sartzearen, edo hesteen hanturaren gaixotasunerako leukozito-aferesiaren bidezko tratamenduaren kasuak aipa ditzakegu; kasu horiek berraztertu ziren, eta teknika horiei eutsi ahal izateko prozedura modu objektiboan planteatzen duten jardura protokoloak eginez konpondu ziren.

Laguntza bereziaren alorrean, halaber, ortodontzia tratamenduei buruzko kexak jaso dira. Tratamendu hau, jakina denez, ez dago urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan finkatzen diren osasun publikoaren sistemaren prestazioen artean. Ez da



zalantzarik sortzen prestazio hau bakanki aztertzean, baina bai sortuko lirateke ondoren sistema publikoak berak egingo duen ebakuntza batekin loturarik badago. Alabaina, Arartekoa ados ez dagoen erantzun batean, Osasun Sailak dio, bere iritziz, urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak, ortodontzia kanpoan uzten duenean, izan litezkeen kasu guztietarako baztertzen duela (514/2004).

Herritarrek kezarazten dituzten gabezien eremuan, garunetako kalteen unitateko errehabilitazio eskaerak aipa ditzakegu, praktikan sistema publikoaren prestazioen barruan sartzen ez delako. Egoera hauek kontuan hartu beharko lirateke gure gizartean, muturreko egoeretan dauden pertsonak salbatzera hainbeste bitarteko xedatzen duen arren, gero errehabilitazio neuropsikologiko intentsiboetarako hainbesteko ahaleginik egiten ez duelako.

Antzutasunaren tratamenduen ezaugarriek beste prestazio batzuetan ohikoak ez diren itxaronaldiak sorrarazten dituzte. Baina horrek ez luke tratamendu horiek jasotzeko atzerapenik eta gabeziarik izaterik justifikatu beharko. Balorazio hau zehatzago jasotzen da txosten honetan sartu dugun laburpenean (244/2004).

Hiesaren aurkako hainbat elkarte Arartekoaren erakundearengana jo du hiesa duten pertsonen egungo egoeraren berri emateko. Tratamenduak emaitzak izaten ari badira ere, kaltetuek bigarren mailako ondorioei, besteak beste, eragiten zaizkien deformazioei. aurre egin behar diete. Pertsona hauek pairatzen duten laidoa aintzat hartu beharko litzateke kirurgia estetikoaren prestazioez baliatu ahal izan daitezten.

Egoera berri horietan, hiesaren birusa daukatenez lagundutako ugaltze tratamenduak aplikatu dakizkien eskatzen dute, birusdunak gizonezkoak direnean, semena garbituta. Halaber, lagundutako ugaltze tratamenduak ere eskatzen dute elkarre hauek egoera berri honi aurre egiteko, eta Giza Inmunoeskasiaren birusaren eramaileak gizonezkoak diren kasuetan hazi-garbitzea ere aplikatzea. Datu batzuk erabiltzen dira –transmititutako ez denik erabat bermatzerik ez dagoela esate baterako–, semen garbiketaren teknika hau sistema publikoaren osasun prestazioetan ez sartzea argudiatzeko. Datua onartuta ere, badago aintzat hartu beharko litzatekeen beste ingurumari bat ere: finantzaziorik ez edukitzeagatik, gerta daiteke, eta ziurrenik hala gertatuko da, bikoteek seme-alabak ekartzea, semen garbiketaren tratamenduak bermatzen duen ez-transmisioko portzentaje altuaren babesik gabe baina.

Eskaera bi hauek, batetik kirurgia estetikoarenak eta bestetik ugalkortasun tratamenduen teknikenak, gaixoen kolektibo honek aurrean aurkitzen duen errealitate berrian bizi dituen egoeren adibideak erakusten dizkigute.

Osasun eskubidearen alor hauetan kexak jaitsi dira, beharbada Osasun administrazioa Osakidetza zerbitzuen erakundeekin elkarlanean koordinatzeko burutzen ari den jardueren, osasun prestazioen gaineko erabiltzaileen erreklamazioei emandako erantzunen eta osasun informazioari buruzko antolakunde berrien (historia klinikoari dagokionez batez ere) eraginez. Kexak eta erreklamazioak beti izango dira, jakina, eta hori ez da, berez, egiturazko funtzionamendu okerraren sintoma. Baina aurkeztu dizkiguten egoera batzuek erakusten dute erreklamazioak egiteko bideetan arazo horiek beren horretan jarraitzen dutela, eta erabiltzaileek jasotzen dituzten erantzunek ahalegin erantsia, edo bereziki saiatzea eskatzen dutela, egoki erantzun nahi bada behintzat. Atal honetan laburbildurik azalduko 199/2004 zenbakiko kexa argigarria izan daiteke kasu hauetako batean.

Banakoek kezarik jaso ez arren, alor honetan ari garela, etorkinek daukaten osasun eskubidea aipatu behar dugu. Kolektibo horretako jendearen artean izaten diren

berariazko ingurumarietaz azaltzen dute Jaurlaritzaren 2003/2005erako Immigrazio Planean pertsona horiek osasun sistema publikora gertura daitezela lortzeko, eta behar bezalako osasun arreta jaso dezaten hainbat jarraibide jasotzea. Gai hau aztertzeko erabili dugun ikuspegia txosten honetara ekarri dugun gomendio orokorrean argitu dugu.

Laguntza sozio-sanitarioa behar duten pertsonen erantzun integratua eman behar zaiela euskal osasun sistemaren indarreko plan estrategikoaren helburuetako bat da eta, beste administrazio batzuekin batera, jarduera batzuk burutzen ari dira Euskal Autonomia Erkidegoan laguntza sozio-sanitarioaren garapenerako plan estrategikoa izan daitekeena osatzeko.

Bien bitartean, laguntza honen beharra daukaten kolektibo batzuek ikusten dute laguntza ematen dieten hainbat elkartetan finantzazio arazoak daukatela eta horrek kolokan jartzen duela jarduera horiekin jarraitu ahal izatea (buru osasuneko zentroetan hartzen dituzten baztertzeko arriskuan dauden pertsonen alorrean lan egiten dutela esan genezake). Elkarte horiek emandako datuak aztertzen baditugu, pentsarazten digute Osasun arloak bideratuta egin beharko litzatekeen jarduera dela, dagokien gizarte zerbitzuekin koordinatuta, akordio sozio-sanitario baten uztarrarian, kasu honetan egoitza edo aterpe baliabideak bultzatzearekin eraginez. Ikuspegi horretatik, Arartekoaren erakundeak auzia Arreta Sozio-Sanitarioko Euskal Kontseiluarengana bideratu du.

## 11.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Osasun laguntza

⇒ *Itxaronaldiak antzutasun tratamenduetan (244/2004)*

- Erreklamazioa

Kexa hau, funtsean, antzutasunaren aurkako tratamendua jasotzeko luzaro itxaron behar izan zelako jarri zen.

- Azterketa

Hara zergatik onartu zuen gure erakundeak kexa hau tramitatzea: lehenbizi, itxuraz, itxaronaldiak aurreikusgarria zena gaitzen zuelako eta, bigarren, hala balitz, itxaronaldia pentsagarria litekeen denborara murriztea lortzen ahalegintzeko. 2001 urteari buruzko datuak hartu genituen erreferentzia modura. Hona hemen datuok:

- Lehenengo kontsultarako: 5 hilabete, 3 hilabete edo 2 egun, antzutasuna aztertzeko kontsulta, intseminazio artifizialeko kontsulta edo ICSI/in vitro ernalketako kontsultarako hurrenez hurren.
- Tekniketarako: 12 hilabete, 9 hilabete, 12 hilabete eta 12 hilabete, IAC, IAD, FIV/ICSI eta OVODON programarako, hurrenez hurren.

Printzipioz, orain hiru urteko aurreikuspenekin alderatuta, kexa horrek arrazoizko oinarriak zituen.

Lehenbiziko erantzunean, Osakidetzak ez zion itxaronaldiari luze iritzi eta, egin zuen txostenean, zerbitzuko arduradunak azaldu zuen bere ustez ez zegoela erreklamazioa egiteko motiborik. Baina Arartekoaren erakundeak ezin zuen iritzi horrekin bat etorri.

Antzutasunaren tratamenduari buruzko prestazio honen ezaugarrien ondorioz badira beste prestazioetan ohikoak ez diren itxaron beharreko denbora tarteak. Alabaina, prestazioen katalogoan sartuta dagoenez, eztabaida ezina bide da erreferentzia modura erabiltzaileentzat onargarriak diren funtzionamenduko estandar batzuk hartu behar direla, eta estandar horietako bat dagoneko iritsitako itxaronaldien iraupen mailak hobetzea dela, eta kasu honetan ez zen halakorik gertatu.

Hartara, gure balorazioa Osakidetzari jakinarazi genion, eta adierazi genion nekez uler eta onar litekeela lehen kontsultetarako itxaronaldia 5 hilabetetik 9ra luzatzeari hutsala zela eta horregatik erreklamaziorik egiterik merezi ez zuela iriztea.

Tratamendu horiek jasotzen dituenaren ikuspegitik, ondo justifikatutako arrazoi batek soilik azal lezake halako luzamendurik, jada berez osasun sistemaren beste prestazio batzuetan dauden estandarrak erruz gainditzen dituzten epeetan. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia bat etorri zen gure balorazioarekin, itxaronaldiak laburtzeko borondatea adierazi zuen, eta pertsona hauen kasua ezohikoa eta ohiko funtzionamendu modura onartezina esan zuen.

- Emaiza

Egindako jardueren berri eman genien interesdunei, eta planteatu genuen beste kontu bat aipatu genien: tratamendua jasotzeko aukera emango liekeen neurriren bat bideratzea, jakinarazi zizkieten itxaronaldiak aurreratzeko. Ez zen halakorik egiterik izan, eta gure aldetik ezin izan genuen besterik egin, ikuspegi juridiko batetik, erabiltzaileek ez baitute –laguntza programatuaren kasuan– gehienezko epe batean kasu egin diezaieten eskubide subjektiborik.

## B) Erabiltzaileen eskubideak

⇒ *Tratamendu termala izateko beharra, txosten medikuaz justifikatuta dagoenean, IMSERSOren termalismo sozialaren programan sartzeko (1167/2003)*

- Erreklamazioa

Eibarko erretiratuen elkarte batek jakinarazi zigun bere elkarteko kide askok arazoak izaten zituztela, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren menpeko Migrazio (gaur egun, Nagusien) eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) gizarte termalismo programaren barruan, bainuetxeetara joateko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko ziurtagiria betetzeko orduan.

Kexagileek ziotenez, herri horretako familiako mediku batzuek eragozpenak jartzen zizkieten eskaerarekin batera doan txosten medikoaren inprimaki ofiziala betetzeko. Horrela, txosten medikorik gabe, IMSERSOk ez zituen eskaerak onesten.

Txosten mediko horren inprimaki edo ereduak bi zati dauzka: bata, eskatzailearen osasun egoerari buruzkoa eta, bestea, tratamendu termalaren proposamena edo preskripzioa jasotzen duena. Bigarren zati hau, medikuaren preskripzioarena zen, hain zuzen, zenbait medikuk inprimakia betetzeari uko egiteko ematen zuten arrazoia.

- Azterketa

IMERSO Gizarte Segurantzak kudeatzen duen erakundea da, eta bere helburuak betetzeko ahalbide juridikoak dauzka. Gizarte Segurantzaren sistemaren prestazioen gizarte zerbitzu osagarrietako eskumenak dauzka. Horrela finkatuta dago IMERSO erakundearen antolamenduko egitura eta funtzioak onartzen dituen martxoaren 1eko 238/2002 Errege Dekretuaren 1.1 eta 2.b artikuluetan.

Gizarte termalismoa zerbitzua gizarte zerbitzu osagarria da, ur beroko etxeetan *medikuaren aginduz halakorik behar duten adineko pertsonen* laguntza jaso dezaten errazteko. Tratamendua behar izatea da zerbitzuaz *baliatu ahal izateko baldintzetako bat* eta txosten edo ziurtagiri medikoaz egiaztatuta behar da. Horixe diote gizarte termalismoa zerbitzua ezarri eta arautzen duen 1989ko martxoaren 15eko Gizarte Gaietako Ministerioaren Aginduaren (1990eko abenduaren 26ko Aginduak aldatua) 1 eta 7.d artikuluek.

Beste alde batetik, pertsona guztiek daukate medikuak bere osasun egoera adierazten duen egiaztatzea eman diezaien eskubidea, gaixoaren autonomia arautzen duen 41/2002 Legearen 22. artikuluen arabera.

- Emaiza

Arestiko azterketari jarraiki, Osakidetzak erabaki zuen medikuak, derrigorrez, adierazi behar dituela bainuetxea eskatzen duen pertsonaren osasun egoerari buruzko datuak. Alabaina, tratamendu termalaren preskripzioa medikuak baloratu behar duenez, sendagilearen esku gelditzen da.

Osakidetzak hala zioen agindua bidali zien Eibarko osasun-etxeko medikuei.

⇒ *Pazientearen eta medikuaren arteko konfiantza galtzen deneko egoeren jarraipena (199/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona bat zentro batera joan eta bertako laguntzaileari adierazi zion ez zuela hitzordurik, baina bere erreferentziako mediku espezialistarekin egon nahi zuela. Galdetu ondoren, sendagileak ez zuela artatuko jakinarazi zioten, ez orduan ez eta etorkizunean ere, gainera.

Pazientearen arreta-zerbitzura jo zuen, eta zerbitzuko arduradunak artatzera ukatu zitzaion medikuarengana jo zuen. Medikuak esan zion, pazienteari ukoaren arrazoiak artean zergatik argitu ez zizkieten ez zekien arren, konfiantza galera irizten zionarekin zerikusia zeukan arrazoi batengatik izan zela.

Pazientearen arreta-zerbitzuko arduradunak kexagileari jakinarazi zion erantzuna arrazoituta zegoela, bere ustez. Artatzea ukatu ziotela zioen idatzia eskatu zuen, baina ezetz erantzun zioten.

- Azterketa

Informazioa eskatu genuenean, batez ere pertsona honek aipatzen zituen ingurumariak ezagutu nahi genituen baita, konfiantza galtzeko arrazoirik izan zela baiestekotan, zer alternatiba eskaini zioten ere. Ahozko erreklamazioari erantzutera zergatik ukatu ziren argitzeko ere eskatu genien.

- Emaiza

Zegokion osasun eskualdeko gerentearen txosten zehatz batean kexagileak aipatutako auzi guztiak aztertu ziren. Medikuaren erabakia zela-eta, txostenak zioen medikuarentzat erreklamazioek pazienteekin zituen harremanak gidatu behar zituen elkarrenganako konfiantzaren printzipioari erasotzen ziotela, eta azaltzen zuen informazio bideek ez zutela behar bezala funtzionatu, pazienteari osasun zaintza eten ez zekion zer alternatiba zeukan argitzeko orduan.

Datu hauek izan ziren gertatutakoa aztertzeko zabaldu zen informazio espedientearen emaitza eta, ondorioz, gerentziak Arartekoaren erakundeari eta kexagileari aurrerantzean halakorik gertatzea saihesteko zer neurri hartzea pentsatu zuten jakinarazi zigun. Besteak beste, mediku batek herritar bati kasu egiteko eragozpen pertsonalik edo arazo deontologikorik duenean sortzen diren egoeren analisisa eta balorazioa objektibo bihurtzen lagun zezakeen jarduera protokoloa prestatuko zuten.

Arazoaren muina konponduta, eta gerentziak erreklamazioari erantzun zehatza eman ostean, espedientea artxibatu genuen.

⇒ *Badago aukerarik sartzen ez den tratamendu bat sistema publikoak eskaintzen duen sistema zabalago batean sartzeko?* (514/2004)

- Erreklamazioa

Goldenhar sindromea daukan eta masail-aurpegietako kirurgia aplikatu behar zioten pertsona batek erakunde honetara jo zuen. Azaldu zigun arazoak ez zeukan geroago sistema publikoan egingo zioten ebakuntza kirurgiko horrekin zerikusirik, aurretik egin beharreko ortodontzia tratamenduarekin baizik.

Aurretiko baimena eskatu zuen ortodontzia tratamendu hori zentro pribatu batean egiteko eta, ondoren, eskaera atzera bota ziotenean, gastuak itzultzeko eskaera aurkeztu zuenean, hura ere ezetsi zioten.

- Azterketa

Ortodontzia tratamendua ez dago osasun sistema publikoaren prestazioen artean, funtsean urtarilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan bilduta daudenen artean alegia.

Ez zegoen zalantzarik prestazio hau jasotzearena bakanki aztertu behar izanez gero, bai, ordea, kasu honetan gertatu bezala, horren ostean sistema publikoak berak egin behar zion masail-aurpegiko ebakuntza kirurgikoarekin loturarik izan zezakeen aldetik begiratuta. Kasu honetan, ortodontzia tratamendua masail-aurpegiko kirurgia prozesu zabalago baten barruan sar zitekeen. Integrazio hori zegoela egiaztatzeko, Osasun Sailari helarazi genion informazio eskariari interesdunek euren kexari erantsitako txostena erantsi genion. Txosten horren azken zatian esaten zen pazientea ondorengo masail-aurpegiko kirurgiarako ezinbestekoa zuen ortodontzia tratamenduan zegoela.

Kexa ikuspegi honetatik aztertuta, Osasun Sailari eskatu genion pertsona honen ingurumarietan ortodontzia tratamendua masail-aurpegiko kirurgia prozesu zabalago batean sartzerik zegoen aztertu, izatekotan, tratamendu hura baimentzeko aukera baloratzeko.

- Emaizta

Kexa azterketan jasotako ikuspegitik baloratzera sartu gabe, Osasun Sailak Arartekoaren erakundeari jakinarazi zion 63/1995 Errege Dekretuan ortodontzia ez sartzeak halako tratamenduak bakanki egiten diren kasuetakoa ez eze, masail-aurpegiko tratamendu zabalagoen barruan daudenekoak ere hartzen zituela.

### C) Bestelakoak

⇒ *Farmazia eremuak aldatzeko zirkunstantziak: balorazioa (425/2004)*

- Erreklamazioa

Kexa honek larrialdietarako farmazietara joateko beste udalerrri batera joan behar zuten pertsonen arazoak jasotzen zituen.

- Azterketa

Printzipioz, larrialdietako arreta arautzeko 188/1997 Dekretuak orokorrean ezarzen duenaren eta Osasun sailburuaren 2002ko abenduaren 5eko Aginduak onartutako eremuen sailkapenaren arabera, interesduna bizi zen udalerrriak, farmazia eremua izanik, farmazia bat eduki behar zuen larrialdietako ordutegian.

Hala ere, Dekretu horrek Osasun Sailak, farmazeutikoen elkargoak eskaria aurkeztu eta ukitutako udalerriei entzunaldia eskaini ondoren, farmazia eremuak jendeari kasu egitera begira bateratzeko baimena eman lezakeela dioela kontuan hartuta, hala zela egiaztatzeko informazioa eskatu genuen.

- Emaizta

Eremuak bateratzea baimenduta zegoen, bai, erantzunean argitu zigitenez; egoera ez zegoen arauz kanpo, beraz.

Hala ere, horrek ez zuen esan nahi gaur egungo antolaketa aldazina denik, zeren bere garaian ingurumariak bateratzearen aldekotzat jo baziren ere, gerta baitzitekeen ingurumari edo arrazoi berririk izatea egoera berregokitzeko. Osasun Sailak onesteko prozedura berak, elkargoak eskatu eta udalei entzun ondoren, hala egiteko aukera ematen zuen.

Horregatik, interesdunari farmazia eremuak biltzeko baimena indarrean zegoela jakinarazteaz gain, bere kexa bideratzeko bitartekari egokia Udala zela ere argitu genion; halakorik eskatzeko motiborik zegoela irizten bazion, Udalak Osasun Sailari, hurrengo urterako, farmazien larrialdietako arretaren oraingo antolamendua alda zezan eska ziezaiokeen-eta.

⇒ *Osasun Sailak bermatu behar du Osakidetzak erabiltzaileen osasun eskubidea izatez gauza dadin (448/2004)*

- Erreklamazioa

Osasun administrazioak paziente bati zegokionaz edo erreferentziatzeko zuenaz bestelako zentro batzuetan hainbat arreta proposamen tramitatu zizkion jarraian. Eskaera

horiek ezezko erantzuna jaso zuten, erreferentziako ospitaleak ez zirela argudiatuz, hain zuzen. Pazienteak kexan adierazi zuenez, Lurraldeko Zuzendaritzak ezer gehiago egiterik ez zuela erantzun zion.

- Azterketa

Baliteke arreta zegokion ospitaleaz bestelako batean tramitatzeak bigarren iritzi bat nahi izatearekin, edo pazienteak eta dagokion ospitaleko medikuak elkarrenganako konfiantzarik galdu izanarekin zerikusirik izatea. Bi arrazoiek balio zezaketen bestelako zentro batzuetan kasu egiteko proposamenak egitea justifikatzeko.

Alabaina, arreta proposamenek ez zuten halako ziorik inon aipatzen eta izan ere, horregatik erantzun zion lehenengo ospitaleak ezetz, ahoz, eta ondoren, bigarrenak ere, ezetz esatean, pazientearen erreferentziako ospitalea ez zela argudiatu zuen.

Gai honetaz galdezka joan eta gero, Osasun Sailak argitu zigun interesatuari jada jakinarazi ziotela zein egunetarako zeukan hitzordua arreta eskatu zuen ospitalean. Gerora, ezezkoa eskarian zergatia –medikuaren eta pazientearen arteko konfiantza galera– aipatu ez zelako eman zitzaiola jakinarazi ziguten.

- Emaiza

Azalpen horiek arreta bideratu zitzaaien ospitaleen erantzunak zuritzen zituzten, ez, ordea, pazienteak osasun Administrazioaren aldetik ospitaleen ezezkoen aurrean aurkitu zituen trabak. Horregatik, erantzunean pazientearen egoera horri heltzen ez zitzaionez –hark zioenez, Lurralde Zuzendaritzak ezer gehiago egiterik ez zuela esan zion–, gure balorazioa Osasun Sailari helarazi genion, halako egoera batean eginbideak agortutzat jotzeak funtzionamendu okerra azaleratzen zuela esanez, eta zerbitzu arduradunei beharrezko jarraibideak emateko eskatuz, pazienteei jarraitasunez kasu egiteari eragin liezaioketen halako arreta hutsuneen egoerak saihesteko egoerak saihesteko.

## 12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

### 12.1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarrek Arartekoari 8 kexa bidali dizkiote, guztira, 2004an, azter ditzan. Kexa horiek Lanaren eta Gizarte Segurantzaren arloari loturiko gaiei buruzkoak ditugu. A priori txiki samarra eman dezakeen erreklamazio kopuru hori baloratzerakoan, kontuan hartu behar da EAEko administrazio publikoen gai honetako eskumen-eremua mugatua dela. Ildo horretatik, arlo honekin zerikusia duten kexarik gehienak Gizarte Segurantzaren inguruko arazoei buruzkoak dira eta haien eskumena Estatuak du.

Horregatik, jasotzen diren eta Gizarte Segurantzaren arloko gatazkak ukitzen dituzten kexak Herriaren Defendatzaileari bidaltzen zaizkio. Izan ere, parlamentu-mandatari horri dagokio Estatuako Administrazio orokorraren organoen jarduna fiskalizatzea.

Gainerako kexak erakunde honek aztertzen ditu, lanaren arloko problematika zehatzagoari buruzkoak direlako eta beraietan azaltzen diren gatazketan EAEko administrazio publikoek esku hartzen dutelako.

Hori zehaztu beharra dago. Izan ere, askotan Arartekoaren esku-hartzea eragozten du laneko harremanen pribatutasunak edo gatazka judizio bidean sartu izanak.

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren epigrafe honen barruan askotariko arazoak aztertu dira, hala nola, finken administratzailearen titulua lortzeko lanbide-elkargoko kide izan beharra (1021/2003) edo sindikatu batek erakundeari lan baldintzei eta laneko arriskuen prebentzioari buruz bidali zion salaketa multzo handia. Multzo horretako salaketak Bilboko Nazioarteko Erakustazoka eraikitzeke obra burutzen ari ziren enpresen kontra zuzenduta zeuden.

Kexa horretan azpimarratu egiten ziren horrelako obra handietako lan arriskuak, baita eremu honetan erantzukizuna duten administrazio-agintaritzek laneko arriskuei aurrea hartzeko behar bezalako esku-hartzerik ez egitea ere.

Bagenekien ukiturikoak, besteak beste, Bizkaiko Lan Ordezkaritzari eta Osalari salaketa aurkeztu ziela. Hori jakinda ere, Osalanekin eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin harremanetan jarri ginen eta txosten-eskaera egin genion Bilbao Exhibition Center sozietateari ere.

Esparru horretan egin da, zenbait langilek hala eskatuta, langile horiek beren zerbitzuak egiten zituzten enpresen kontra Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak hasi dituen prozedura zigortzaileen jarraipena ere.

Azkenik, esparru berean egin da Gipuzkoako eraikuntzako langileen grebak enpresetan izan zuen zeharkako eraginaren azterketa ere. Enpresa horien jardura sektore horren funtzionamendu normalaren menpean zegoen. Haien artean, aldordioak instalatu eta kentzen aritzen den enpresa bat dago. Enpresa horrek, sektorea gelditu zela eta, lan kontratuak eteteko baimena eskatu zuen (1020/2004). Eskabide horri gaitz iritzi zion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak.



## 12.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Bestelakoak

⇒ *Finken administratzailearen titulua eskuratzea (1021/2003)*

- Erreklamazioa

Zuzenbidean lizentziaturiko batek azaldu zuen ez zegoela finken administratzailearen titulazioa lortzeko Bizkaiko Finken Administratzaileen Lurralde Elkargoko kide egin beharrekin ados. Beraren esanetan, baldintza hori ez zitzaien eskatzen Finken Administratzaileen Eskola Ofizialeko ikasketa planari jarraitu zioten pertsoneri.

- Azterketa

Aipatu lurralde elkargoari txostena eskatu genion, finkak administratzeko titulua zein kasutan luzatzen zen azal diezagun.

Lanbide elkargoak adierazi zuenez, finkak administratzeko eta finken administratzailearen titulua edo lizentzia luzatzeko, Finken Administratzaileen Elkargoko kide izan beharra eskatu zen, bai Finken Administratzaileen Elkargoko kide izateko ahalmena ematen zuten unibertsitate tituluetariko bat dutela eta modu zuzenean sartzen ziren pertsonentzat bai ikasketa zehatzak gainditzin zituzten pertsonentzat.

Elkargoak azaldu zuenez, Finken Administratzaileen Eskola Ofizialeko ikasketa plana Espainiako hamaika unibertsitatek ematen zuten, beraietariko bakoitzarentzat titulua sortuz. Hura hiru urtetan garatzen zen eta 180 kreditu zituen gutxienez.

Elkargoak onartu zuenez, beharkizun hori, elkargoko kide izan beharra alegia, Finken Administratzaileen Nazio Elkargo Sindikala sortu zuen apirilaren 1eko 693/1968 Dekretuko 5. artikuluan ezarri zen. Bertan adierazten denez, “*Elkargoko kide izateak dagokion Finken Administratzailearen Titulua luzatzea berekin ekarriko du, interesatuarentzat*”.

Azkenik, Bizkaiko Finken Administratzaileen Elkargoak bere erantzunean adierazi zuen Sustapen Ministerioak luzatzen ziela Finken Administratzailearen titulua onartutako beharkizun akademikoak eta elkargoko kide izateko finkatzen ziren beharkizun berariazkoak betetzen zituzten guztiei.

- Emaizta

Ukituari aditzera eman zitzaizkion Bizkaiko Finken Administratzaileen Elkargoaren jarduna justifikatzen zuten zioak.

### B) Lana

⇒ *Greba batek beste enpresa baten lanean duen eragina, enplegu-erregulazioari dagokionez (1020/2004)*

- Erreklamazioa

Enpresa batek lan kontratuak eteteko baimena eskatu zuen. Horretarako, enplegu-erregulazioko espedientea sustatu zuen.

Eskaera hori eraikuntzaren sektoreko greba batek enpresa eskatzailearen lanean izan zuen eraginean oinarriturik zegoen. Ezezkoa eman zitzaion.

- Azterketa

Enpresaren jarduera eraikuntzako makinak eta aldamioak instalatu eta kentzea zen. Enpresak, enplegua erregulatzeko bere eskaeran adierazi zuenez, ezin izan zuen bere jardueran lan egin, grebari lotutako kariengatik eta pikete beldurtzaileen etengabeko jardunagatik. Izan ere, piketeek enpresa horretako langileei beren zereginetan aritzea eragotzi zieten.

Enpresaren iritziz, inguruabar hori ezinbesteko kausa izan zen, langileen Estatutuak kontratuak eteteko kausa bezala ezarri duena.

Kexa hau tramitzatzeko onartu behar zen ala ez aztertzerakoan, kontuan hartu genuen greba, berez, ez dagoela kontratuak aldi baterako eteteko ez iraungitzeko kari bezala ezarritik, baina, aipatu grebaren ondorioz, harekin loturik ez dauden enpresei begira, ezinbesteko inguruabarrak gerta daitezkeela. Horretara, grebaren iragarpena dela-eta greba gertaera iragarria den arren, gerta daiteke haren ondorioak ukituriko bestelako enpresentzat ezin saihestuzkoak izatea. Izan ere, arduraz jardunik ere, ezin izaten da beren jarduera garatzen jarraitzea ahalbidetzen dien neurritik hartu beti.

Kasua ikuspegi horretatik aztertuta, jakin nahi zen ea, enpresa interesatuak alegatu zuen bezala, eraikuntzako grebak, enpresarekin zerikusirik ez zuenak, jarduten jarraitzea eragotzi zion ala hori ez ote zen gertatu haren ardura faltagatik. Horretara, ezinbesteko kausaren kontzeptu juridiko zehaztugabea zehaztu ondoren, ondorioztatu ahalko zen Langileen Estatutuak lan kontratuak eteteko kari bezala ezarritako kasuaren aurrean geunden ala ez.

Kexa testuinguru horretan kokaturik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari informazioa eskatu genion honako gauza hauek jakinaraz ziezazkigun: aldi baterako enplegu-etenduraren espedientean, enpresaren eskariz tramitatu zen horretan, nola hartu ziren kontuan kexan azaldutako inguruabarrak, eta, haiek hasiera batean ezinbestekoak eta saihestezinak ez zirela uste izateko egon ziren arrazoiak.

- Eraitza

Txosten hau egiten ari den unean espedientea oraindik zabalik dago, Administrazioaren behin betiko erantzuna jaso gabe.

## 13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

### 13.1. SARRERA

Hirigintzako arloan, Arartekoak udalerrien hirigintzako antolamenduan, horren kudeaketan eta udalen hirigintzako diziplina zereginetan eragina duten erreklamazioen eta administrazio publikoetan etxebizitzaren arloan izandako esku-hartze eta sustapenen ondorioz sortutako arazoetan izandako jardueren berri emango dugu.

Arlo honetan 239 kexa jaso ditugu –arlotan banatutako kexetatik % 21,38–, aurreko urteekin alderatuz gero asko hazi da, beraz. Irisgarritasunaren eta etxebizitzaren azpiarlotan aurkeztu diren erreklamazioengatik hazi da, batez ere, esku-hartze kopurua. Arlo honetan kexa kopurua hazi izanaren arrazoiaren artean egon daitezke herritarrek etxebizitza eskuratzeko arazoez sorrarazten duten kezka, oztopo arkitektonikoak kentzea eta gai honetan jarduera publikoak ugaritu izana.

Administrazioei dagokienez, kexak honela banatu dira:

– Toki administrazioa .....	161
– Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza ) .....	68
– Foru administrazioa .....	5

Azpiarloen arabera:

– Etxebizitza .....	84
– Irisgarritasuna .....	73
– Hirigintza diziplina eta aurriak .....	47
– Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa .....	16
– Hirigintzako antolamendua .....	12
– Hirigintzako kudeaketa .....	6
– Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna .....	1

### Hirigintza

Autonomia Erkidegoan hirigintzako berezko lanetan diharduten eragile parte-hartzaile guztiak **Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Lege-proiektua** Legebiltzarrean bideratu eta behin betiko onartzearen zain daude txosten hau itxi denean. Lege horrek izaera orokorrarekin arautu behar du Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hirigintza markoa. Lege proiektuak zenbait helburu lortzea planteatzen du. Hirigintza garapen jasangarrira bideratuta egon behar dela irizten dio, besteak beste. Hirigintza jardueretan ekimen publikoa egotea ere azpimarratzen du, udal ekimena batez ere, hirigintzako jarduera programen eta eraikuntza programen bidez. Bestetik, higiezinaren arloko espekulazio-praktikak galaraztea proposatzen du, hiri antolamendurako malgutasun neurriak hartuta eta herri administrazioek lurzoruaren eta higiezinaren merkatuan administrazio publikoek esku-hartze administratiboa izateko mekanismoak

sartuta, hala nola, tanteo-eskubidea eta atzera eskuratzekoa biziberritze eta birgaitze jarduerak dituzten eremuetan edo lurzoru publikoetan. Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lurzoria erreserbatzeko betebeharrak 17/1994 Legeak ezarri bezala jarraitzen du. Proiektuaren arabera, lurzoru urbanizagarrien % 70 horretarako erreserbatu behar da, nahiz eta % 60rako jaitsi daitekeen, prezio tasatuaren araberrako etxebizitzentzat % 10 gordez gero. Finkatu gabeko hiri-lurzoruetan % 30era igaro da: gutxienez % 20 babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eta bestea erregimen tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko. Era berean, hiritarren parte-hartzea bermatzea eta hirigintzako informazioa izateko eskubidea aipatzen ditu.

Erakunde honek behin eta berriro aipatu izan du lurzoruari buruzko EAEko araudia eduki beharra, lurzoruaren prezioaren gorakada, eta ondorioz etxebizitzena, txikitu ahal izateko.

Autonomia Erkidegoko **lurralde-antolamendua** Euskal Herriko lurralde antolakuntzari buruzkoa maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusitako antolamendu tresnak garatzearen bidez egiten da. Zentzu horretan aipatzekoa da behin betiko onartu zela Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneetarako Lurralde Plan Sektoriala uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoria Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala ere abenduaren 21ean 262/2004 Dekretuaren bidez. Bestetik, Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu zuen 2004ko abenduaren 28an Araba Erdialdeko eta Arabar Errioxako Eremu Funtzionaletarako Lurralde Plan Partziala.

Lurzoruaren **hirigintzako antolamenduari** dagokionez, aurkeztutako kexek aipamen egiten diete lur jabe batzuek dituzten desadostasunei, betiere bat ez datozelako antolamenduaren arauak euren lursailerako ezarritako sailkapenarekin edo erabilerarekin edo lursail mugakideetan izango duen eraginarekin. Desadostasunak sortzen dira jabearen ustez irabazizko hirigintza-aprobetxamendua urria denean edo urbanizazio zamak handiegiak direnean. Interes orokorraren ikuspegitik ez da normala planeamenduaren ondoriozko mozkinak eta kargak banatzerakoan interes partikularra erabiltzea hiri garapenerako egokiagoak diren beste irizpide batzuen orde; eta irizpide horiek dira, hain zuzen, udal eta foru administrazioek kontuan izan beharrekoak. Dena dela, aurreikusitako antolamenduarekin ados ez egote hutsa ez da nahikoa erakunde bermatzaile honek esku hartzeko, izan ere, Administrazioaren jarduera eremuak eskumen esparru zabala baitu erabaki bat hartzerakoan. Hirigintzako antolamenduan udal administrazioak duen eskumen teknikoa dela eta, ezin da eskumena duen organoak erabilitako irizpidea aldatu, non eta tasatutako kasuetan boterea desbideratu den, arbitrarotasuna erabili den edo hartutako irizpidea justifikatzerik ez dagoen. Kasu horietan erakunde honen zeregin nagusia da administrazio organoak erabakia hartzeko prozedura egokia erabili al duen ikustea –batez ere, informazio publikoaren tramiteei eta egindako alegazioen erantzunei dagokienez– eta dagokien udal erabakietan kontuan izan beharreko zehaztapen tekniko eta juridiko guztiak baloratu ote diren ikustea. Ezin da aukera-arrazoia ezbaian jartzen hasi, eskumena duten udal organoen berezko gaitasunak baitira gai horiek.

Botere publikoek garrantzia eman behar diote lurralde antolamenduarekin eta hirigintzakoarekin lotutako gaiak erabakitzerakoan pertsonak edo elkarteek parte-hartze aktiboa izateko aukerari. Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioari buruzko 6/1998 Legeak dio planeamendu eta kudeaketa prozesuetan parte-hartze publikoa bermatu behar duela hirigintzaren arloko legeriak, baita hiritar orok informazioa izateko duena ere.

Zentzu horretan, lurzoruari eta hirigintzari buruzko lege-proiektuak printzipio orokorrak bildu ditu, hala nola, hiritarren parte-hartzea eta informazio publikoa; informazio hori da, hain zuzen, administrazio publikoen lanaren berri eman behar duena. Araubide horretan herritarrek parte hartzeko mekanismo interesgarriak daude, besteak beste, herritarrek parte hartzeko programa edo Plangintzarako Aholku Batzordea.

Hiritarrek erabaki horietan parte hartzeko eta sartzeko, udalek jarri behar dituzte mekanismo positiboak –foroak, parte hartzeko nukleoak edo eztabaidarako beste metodo batzuk– hirigintzako antolamendu prozesuetan parte hartu ahal izateko eta prozesuak bizkortzeko, batez ere gizartean kezka sor dezaketzen zenbait azpiegitura edo erabilera kokatzeko.

Herritarren parte-hartzearekin lotutako beste funtsezko elementuetako bat hirigintzako informazioa eskura izatea da. Gardentasuna eta berehalakotasuna botere publikoen funtsezko helburua izan behar da hirigintzaren arloko erabakiak hartzerakoan eta herritarren mesfidantza kentzeko balio izaten du. Horretarako, administrazioek lehenasuna eman behar diete informazio gizartean ditugun teknikak eta bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabili eta aplikatzeari. Bitarteko horien artean legoke –iaz aipatu genuen bezala– Internet bidez hirigintzako plan orokorretara eta garapen planetara sartzeko aukera; funtsezko tresna da herritarrek parte hartzeko eta udalek edo foru aldundiek herritarren esku jarri behar lukete. Behar horri erantzunez, azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailaren web orria, Autonomia Erkidego osoko udal planeamenduen berri ematen baitu.

Atal honetan Arartekoari aurkeztu zitzaion erreklamazioetako batean Donostiako auzo baterako aurreikusita zegoen garapen proiektu batekin auzokideen elkarte batek zuen desadostasuna ageri zen. Kasu horretan zalantzan jarritako erabakia –udal planeamenduaren berrikuntza prozesuaren barruan zegoena– herritarren aurrean jarri aurreko aurrelaburpen fasean zegoen. Gai horri buruz behin betiko ezer ebatzi gabe zegoenez –nahi ziren alegazioak aurkez zitezkeen beraz– eta Administrazioak erabaki hori hartzeko duen jarduera mugen barruan zegoenez, argi zegoen ezin zela esan eskubideak hautsi zirenik edo jarduera irregularra zenik. Kexen laburpen atalean dago Laudioko auzokideen elkarte batek aurkeztutako antzeko kexa bat.

Beste herritar bat ez zegoen ados Arabako Barrundia udalerrian onartu ziren hirigintzako arau batzuekin, bere lursail batzuei finkatu gabeko hiri-lurzoru maila eman baitzitzaien. Beraren ustez finkatutako hiri-lurzoruak ziren eta ez zuen komunitateari hirigintza-gainbalioak lagatzeko betebeharririk.

Alegatutako hirigintza-antolamendu horien eraginetako bat mugakideari ekar diezazkiokeen ondorioak dira, lursail edo eraikin partikular bati eragin negatiboa egiten badio, batez ere argien eta ikuspegien kasuan. Kexen arloan jarri dugun kasu batean antolamendu berriaren ondorioz etxebizitza bat leihorik gabe geldituko zen.

Aurreko ekitaldietan bezala, aurtengoan ere **hirigintzako kudeaketa** da erakunde honetan eskari gehien sortzen duen azpiatala. Eskumena duten administrazioen esku-hartze falta aipatzen da kexetan, batez ere udalaren esku-hartze falta, lurzoruari emandako erabileretan edo hirigintzako baimenik gabe obrak egin izana edo emandako baimenez haratagoko obrak egin izana salatzen dute.

Aztertutako kasuen artean azpimarratzekoa da egindako obra edo lan horiek arautegi sektoriala betetzeko betebeharra zekartela.

Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuak hondakin inerteak eta

inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen ditu, eta azpimarratzekoa da horren arabera baimenik gabe egindako lur mugimenduek edo beteketek zenbat arazo sortzen dituzten. Hori gertatu zaie Alonsotegiko auzokide batzuei, salatzen zuten enpresa zahar bateko sailetan lur mugimenduak egin ziren eta kamioiek lurra eta eraikuntza materialak ekarri zituzten beteketa egiteko zegoen toki batera.

Ohikoa izaten da buruturiko obrak ez direla hirigintzako antolamenduaren arabera egokitzen planteatzea, mugakideen jabetza eskubideen aurkakoak direlako. Hirigintzako diziplinari buruzko eskumenei dagokienez, toki administrazioek esku har dezakete horiek hirigintzaren arloko legeriari egokitzen zaizkiola egokitzeko; aitzitik, ezin dute izaera pribatuko alderdiei buruzko jarduerarik bideratu.

Bestetik, erakunde honek **irisgarritasuna** sustatzeko egindako jardueri dagokienez, azpimarratzekoa da zenbat kexa izaten den merkatal lokaletan jarduera berriak ezartzen direnean edo lokalak berritzen direnean oztopo arkitektonikoak kentzeko araudia bete dezaten udalak egiten duen kontrolari buruz. Irisgarritasunaren arloko jarraipena egiteko, ezgaitasuna duten pertsonen berariazko arretarako atalera jo behar da.

## **Etxebizitza**

Etxebizitza arloko arazoek kezkatzen dituzte gehien herritarrak, batez ere etxebizitza duina eta egokia izateak.

Aurreko ekitaldietan aipatu izan dugun bezala, arazoa benetan konplexua da. Erakunde honen nahia da gazteek lehenbiziko etxebizitza egokia eta duina izateko dituzten zailtasunak aztertzea. Etxebizitza libreen salneurria etengabe igotzen ari da, eta horren ondorioz askok eta askok arazo larriak ditu etxebizitza duina eta egokia lortzeko, eta zenbaitek ezin du horrelakorik lortu ere egin. Etxebizitza asko eraikitzen diren arren eta urbanizatzeko lurzoru kopuruak ere gora egin arren, etxebizitza eskariak ere gora egiten jarraitzen du.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren *EAEko etxebizitza eskariari eta beharrei buruzko estatistikaren* arabera, 2003an lehenbiziko etxebizitza izateko beharra zutenak 90.714 ziren. Aldiz, 2004ko lehen hiruhilekoan EAEn 15.244 eskaintzen ziren, horietatik 8.690 berriak, 4.315 babestutakoak eta 4.375 etxebizitza libreak. Babes ofizialeko etxebizitzak azken urteetan nabari ugaritu diren arren, eraikitzen diren etxebizitzaren % 40 baino gehiago dira, oraindik ere babestutako etxebizitza gehiago behar da eskariari erantzuteko.

Asko eta asko dira higiezinaren merkatu librea sartu ezin direnak eta babes ofizialeko etxebizitzarik ere ezin dute lortu, araudian aipatzen diren baldintzak eta betebeharrak ez baitituzte betetzen edo egindako zozketetan ez baitaie ezer tokatu.

Etxebizitza Plan Zuzentzailea 2002-2005 delakoaren lehentasunezko beste helburuetako bat etxebizitza lortu ahal izateko alokairua sustatzea da. Zentzu horretan, Bizigune bezalako programak jarri dira –hutsik dauden etxebizitzak alokatzea sustatzeko–, baita Alokabide operadorea ere, alokairuko etxebizitza politika garatzeko. Dena dela, alokairu erregimeneko etxebizitza babestuek gora egin duten arren beste ekitaldiekin alderatuz gero, salmentan edo azalera-eskubidean dagoen etxebizitza baino askoz portzentaia txikiagoa da.

Arartekoak, nagusiki, babestutako etxebizitzaren merkatuaren inguruko gaietan hartu behar izaten du parte etxebizitzaren arloan; eskatzaileek erregistroan sartzeko dituzten

zailtasunekin edo babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko aukeratze prozesuekin lotutako gaitan, bereziki.

Lehen aipatu dugun bezala, eskaintzen den babes ofizialeko etxebizitza kopurua askoz ere txikiagoa da eskatzen dena baino. Etxebizitza horiek adjudikatzeko, administrazio publikoek zozketak ezarri dituzte. Zozketa horietan baldintza ekonomiko batzuk eta etxebizitza premiaren beharkizun batzuk betetzen dituzten eskatzaileak sartzen dira. Kexa nagusietakoak babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko irizpideei buruzkoak izaten dira.

**Babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko** prozesuari dagokionez, hainbat kexa jaso ditugu sustapen pribatuko etxebizitza adjudikatu ondoren kontratua bisatzera joan eta Etxebizitza Sailari laguntza eskatzerakoan eskaria atzera bota dietelako, ez baitute kreditatu etxebizitzen araubideak eskatzen duen gutxienerako diru-sarrerak.

Hiru alderdiri buruzko erreklamazioak egon dira. Kasu batzuetan eskaria atzera bota da Foru Ogasunean aurkeztutako aitorpenean ageri diren diru-sarrerez gain aldiakako lanen ondorioz diru-sarrerak dituztelako. Dirua aurreztuta dutelako –etxebizitza kontuak esaterako– zerga honetan errenta gisa sartzen ez diren arren, eskatzailea kaudimenduna dela bermatzen dute bai dagokion mailegua lortzeko bai etxebizitzaren balioaren zati garrantzitsu bat ordaintzeko. Amaitzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egin ez duten kasuak daude, nahiz eta egiteko betebeharrak fiskala izan. Horrek esan nahi du Sailak ez dituela kontuan hartzen ekitaldi horretako diru-sarrerak.

Esan beharra dago diru-sarrera konputagarriak zehazteko gaur egun erabiltzen den metodoak etxebizitzen arautegian ezarritako arau batzuen araberrako erreferentzia objektiboa hartzen duela. Abenduren 30eko 315/2002 Dekretuak eta azaroaren 25eko 290/2003 Dekretuak ezartzen dute gutxienez 9.000 euroko diru-sarrerak kreditatu beharra dagoela etxebizitza bat izateko jabetzan, azalera-eskubidean edo erosketa-aukera duen alokairuan lagatzen badira. Horretarako kontuan hartuko diren diru-sarrerak honakoak dira: behin-behineko kalifikazio egin aurreko urtean edo adjudikatzeko prozedura hasteko Agindua argitaratu aurreko urtean Foru Ogasunean aurkeztutako aitorpenean agertzen diren diru-sarrerak. Era berean, abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 20.4 artikulua –urtarrilaren 18ko 10/2005 Dekretuak aldatu ondoren– dio PFEZ aitorpena egiteko betebeharra izanez gero, aitorpen horretan ageri direnak bakarrik hartuko direla kreditatutako diru-sarrera gisa. Horren bidez etxebizitzen promozioetan eskatzen diren baldintzak betetzeko PFEZ aitorpenean jasotako diru-sarreraz gain beste diru-sarrera batzuk ere kreditatzea ekidin nahi da. Neurri hori iruzurrezko jardueren aurkakoa da, eskatzaileek baldintza betetzeko “borondatezko diru-sarrerak” aitortu ahal baitituzkete justifikazio egokirik gabe eta bere garaian aitortu gabe, babes publikoko etxebizitzak izateko baldintzak ezagututakoan.

Horrela, bada, lehenbiziko kontua, PFEZ aitorpenean sartu gabeko diru-sarrera osagarriak aurkeztea, ez da Administrazioaren jardura irregularra, baizik eta babes ofizialeko etxebizitza izateko aurreikusitako baldintzak zehatz ezartzea.

Bigarren kontuari dagokionez, hausnartu egin beharko litzateke gutxienerako diru-sarrerak dituela bermatzeko behar adinako mekanismoak ezartzeko zer aukera dauden. 315/2002 Dekretuaren helburua da esleipendunak etxebizitza ordaintzeko kaudimena duela kredita dezakeela ziurtatzea. Hori etxebizitzen araudian aurreikusita ez dagoen moduren batean egin daiteke: aurrezkietatik datorren ondarearen bidez edo hirugarren pertsonen bermearekin edo abalarekin. Dena dela, kontrol sistema malguagoa jarri

beharko litzateke errenta gaitasuna une edo urte jakin batean ez ezik epe luzeagoan kreditatzeko, gutxienez, adjudikatuko den unetik gertuago egongo den unean.

Erakunde honetan aurkeztutako hirugarren arazoa da errenta aitorpenik ez egin izana legez egin beharra zegoenean eta urte fiskal horretan etxebizitza eta laguntzak izateko adina irabazi denean. Horrelako kasuetan Sailak ez zituen diru-sarrera horiek kreditatutzat hartzen, zegokion aitorpena egin ez zelako.

Kexa ugarienetakoa **etxebizitza premia frogatu** beharrarekin ados ez egotearen ondoriozkoa izan da, azken bi urteetan etxebizitarik jabetzan izan ez delako edo etxebizitza izan arren 2002ko abenduaren 30 Aginduan, etxebizitzen beharraren zirkunstantzietan buruzkoan, jasotako kasuren baten barruan dagoelako.

Erakunde honetan pertsona baten kexa jaso da bizi den udalerrian babes ofizialeko etxebizitzaren erosketa kontratuaren bisatua lortu ez duelako, bere jaioterrian etxebizitza baten jabe delako. 2002ko abenduaren 30eko Aginduak, etxebizitzen beharraren zirkunstantzietan buruzkoak, salbuesten duen beste kasuetako bat etxebizitza baten jabe izatea da -jaraunspenez edo dohaintzaz- etxebizitza horretan jabetzaren % 50a edo gutxiagoko parte-hartze kuota izanda. Kasu hori ezartzearen ondorioz hainbat kexatu dira: esan digutenez, bi etxebizitza edo gehiagoren jabe ziren jaraunspenez, baina partaidetza kuota ez zen, inondik inora, arauak ezarritakoa baino handiagoa (ikus kexen laburpena). Kasu hori jaso da 2004ko abenduaren 9ko Aginduaren aldaketan.

Bestetik, Sailak arau hori zehatz interpretatzen zuen, bere ustez arauak etxebizitza beharra kasu honetan bakarrik kreditatzen baitu: transmititzen ez bada edo bi urteko epea igaro bada. Horregatik, etxebizitza eskatzeko enregistraoan ez zuen sartu etxebizitza baten laurdena jaraunsi eta parte-hartze kuota hori saldu zuen pertsona bat, parte-hartze kuotaren kasuak ez baizik eta bi urteko epeak eraentzen duelako Aginduaren salbuespena. Arartekoak idatzi bat igorri zuen Sailera araudiaren eduki literala aipatuz. 2. artikulua arabera, ezin dute parte hartu aurreko bi urteetan jabetzan, azalera-eskubidean, gozamenean edo jabetza soilean etxebizitza dutenek, jaraunspen onartuaren eta ordainduaren kasuan izan ezik eta duen partaidetza-kuota % 50ekoa edo txikiagoa denean. Kasu horretan berdindio etxebizitzaren jabea izatea edo bi urtean jabea izana, eta beraz, jaraunspena mantendu den edo transmititu den. Ez dirudi justifikatua jaraunspen bidez jasotako ondasun bateko jabeekideek tratatu desberdina izatea osatzen duen ondasun komunitatea disolbatu izanaren edo jabarikidetzan jarraitzearen arabera. Kode Zibileko 400. artikulua dio edozein jabeekidek eska dezakeela ondasun hori zatitzea, beraz, transmisioa ez da jabetzaren xede-kontua, baizik eta beste jabeekideek eragin dezakete. Azkenik, herritarrak adierazi zigun Sailak aldatu egin zuela interpretatzeko irizpidea, salbuespena jaraunsiak etxebizitza transmititu zen kasuetara hedatuta.

Arartekoaren erakundeari kexa asko ekarri dion beste gaietakoa da babestutako etxebizitzetan izaten diren eraikitze akatsak eta Administrazioak obren promotorearekin edo eraikitzailearekin epean eta eraginkortasunez ez aritzea. Eraikuntza kalitatea duten etxebizitza duinak eskaintzeko aginduek administrazio publikoan jardueraren gidatu behar dute, eurak baitira eraikinen kontrola eraman behar dutenak, batez ere babestutako etxebizitzena. Horretarako, etxebizitzak eraikuntza eta diseinu arauetara egokitzen direla egiaztatzeko kontrol eta ikuskapen mekanismoak bete behar dira, eta betetzen ez badira akatsak konpontzeko bermeak ezarri, betiere antolamenduak administrazio egintzen derrigorrezko betearazpena bermatzeko ezartzen dituen lanabes juridikoen bitartez: isun hertsatzailea edo betearazpen subsidiarioa.



## 13.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Hirigintza diziplina eta aurriak

⇒ *Hirigintza-baimena ukatzea. Berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa (558/2004)*

- Erreklamazioa

Auzokide bat kexatu egin zen Tolosako Udalari egindako hirigintza kontsultari ezetza eman ziotelako, bere jabetzako solairuartea handitu nahi baitzuen oihalak saltzeko. Honako gaiak aipatzen zituen zehatz esateko:

- Indarrean dauden plangintzako arau subsidiarioak modu murriztailean eta eragozlean interpretatu zirela, ez baitute solairuartea eraikitzea berariaz galarazten.
- Aipatutako eraikinetako beste lokalei eman ez zaien diskriminazio tratua izan du, bereak ez beste guztiek, eta bereak ere zati batean bai, solairuartea baitute eta askok duela gutxi baimena emanda egindakoa.

- Azterketa

Udalak bere erantzunean eraikin horren historiaren eta etapan berri eman zigun, baina 1938az geroztik jasota zeuden jardueren berri ere.

Laburbilduz, Udalak aitortzen zuen 1989an onartutako arau subsidiarioak indarrean daudenetik erreklamazioa jarri zen eraikinean jarduera okerrak egon zirela –obra txikienez baimena tarteko solairuko jarduera independizatzeko– baina inoiz ere ez zela eman aurretik zegoen solairuartea hazteko baimenik, hirigintza kontsulta oker baten ondorioz sortu zen akatsa izan ezik, baina hura ere gero konpondu egin zen.

Igorritako espedientea eta Tolosako udalerrian indarrean dagoen plangintza aztertu ondoren, Udalak egindako interpretazioa egokia zela iruditu zitzaigun, eta, beraz, erreklamazioa jarri zuenak solairuartea handitu eta solairu horretarako sarbide berria, beheko solairurakoarekin zerikusirik ez zuena, jartzeko egin zuen hirigintza kontsultaren aurkako ebazpena egokia zen.

Erreklamazio-egileak aipatzen zuen bigarren kontuari dagokionez, eraikin berean zeuden antzeko egoerekiko tratu desberdina eta diskriminaziozkoa izateari buruzkoa, Udalak onartzen zuen irregulartasunak egon zirela indarrean zegoen udal plangintza ezartzerakoan, baina inoiz ez zela tarteko solairu berririk egin.

Baimenak emateko ekintza, definizioz araututako udal jardueren barruan sartzen da, 1976ko Lurzoruaren Legearen berritutako testuaren 178.2 artikuluan xedatzen denarekin eta Auzitegi Goreneko jurisprudentzia ugariak aipatutakorekin bat etorrita. Horregatik, baimena aurrea hartzeko kontrol jarduera da eta ezin da aintzat hartu indarrean dagoen araudiari hertsiki lotzen zaion beste aurrekaririk.

Erreklamazio-egileak berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioa aipatzen zuen legearekin bat ez zetozen aurrekarietan oinarrituta eta aplikazio arauari buruzko interpretazio-zalantzarik gabe; Udalak adierazitako argudioen arabera uste dugu printzipio hori ezin zela aipatu, berdintasuna legezkotasunaren esparruan aldarrikatu, defendatu eta ezarri behar baita. Kasu honetan ez zegoen ezar zitekeen arauari buruzko zalantzarik,

eta hirigintza kontsulta batzuetan aukera horren aldeko txostenak egin ziren arren, ez zen inoiz tarteko solairu berririk eraiki.

- Emaizta

Beraz, erreklamazioa jarri zuenari espedientea itxi egin dela adierazi diogu, udalaren ebazpenean inolako irregulartasunik ez zela egon uste baitugu.

## B) Hirigintzako kudeaketa

⇒ *Berrito bizilekua eskuratzeko eskubidea, hirigintzako desjabetze kasuetan (281/2004)*

- Erreklamazioa

Auzokide batek gure ardurapean jarri zuen Eibarko Udaleko sozietate publiko batek egindako jardueren ondorioz sortutako egoera; etxebizitza baten jabetza kendu nahi zioten trukean besterik eskaini gabe.

- Azterketa

Udalak adierazi zigun auzokidearekin akordioa lortzeko bide guztiak amaitutzat eman zituela hainbat negoziazioen ondoren; izan ere, desjabetu behar zen etxebizitzaren balorazioaren eta eskaintzen zitzaion ordainaren inguruan desadostasunak zeudelako, balio-diferentzia ordaintzearen truke.

Bestetik, sozietate publikoaren iritziz, desjabetu behar zen etxebizitzaren balorazioari buruz zuten desadostasunak legezko bidetik ebatziko ziren, berrito bizilekua eskuratzeko eskubiderik gabe, babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan indarrean dagoen araudian kasu hauetarako aurreikusita dauden baldintzak betetzen ez zituelako interesatuak.

Ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartu zen Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu berrituan, bere laugarren xedapen gehigarrian –AKren martxoaren 20ko 61/1997 epaiaren ondoren indarrean dagoenean– dio euren ohiko bizilekua duten higiezinetakoko legezko biztanleak aterarazi behar diren hirigintza jarduerak burutzeko beste nonbait sartzeko duten eskubide bermatu beharko zaiela honako arauak kontuan izanda:

*1. Desjabetzea dagoenean, desjabetu duen Administrazioak edo desjabetzearen onuradunak eragina izan duten legezko okupatzaileei etxebizitza eman beharko die babes publikoko erregimenari lotuta eta indarrean dagoen salmenta edo alokairu baldintzan eta euren beharrei dagokien azalerarekin, lege babesleak ezarritako mugen barruan.*

Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuak, berrito bizilekua eskuratzeko eskubidea arautzen du 34 artikuluan eta hurrengoetan azaroaren 25eko 290/2003 Dekretuak egindako aldaketekin.

Artikulu horrek dio berrito bizilekua eskuratzeko, eragindako legezko okupatzaileen eskura jarriko direla babes ofizialeko etxebizitzak, salmentako nahiz alokairuko erregimenean, horien etxebizitza-premia, diru-sarrera eta familia-osaketaren arabera.

Arauk dio berriro bizilekua eskuratzeko eskubidea izango dutela eragindako etxebizitzetako legezko okupatzaileek eta beren benetako bizilekua horietan dutenek. Bertan bizi direla erroldatze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dute. Horrez gain, eragindako etxebizitza hori, okupatu aurreko akta edo, hala badagokio, finka okupatzea ahalbidetzen duen titulua jaso baino lehenagoko bi urteetan gutxienez okupatu dutela egiaztatu beharko dute.

Eragindakoa ikasketengatik denboraldi batez atzerrian bizi izan zen arren, dena dela, azken urteetan desjabetu behar zen etxebizitza ez zen beste batean erroldatuta zegoen, beraz, ezin zuen kreditatu etxebizitza horretan bizi zenik, ezta orduko zirkunstantziazko tokian bizi aurretik ere.

Interesatuari eman genion informazio hori eta adierazi genion benetako bizilekua hura izango balu ere, jabetzan edo alokairuan dagoen etxebizitza bat desjabetu ondoren onuradunek izaten dituzten eskubideak beraien egoera ekonomikoaren arabera izaten zirela.

Orokorrean Dekretuak dio diru-sarrera neurgarriak 9.000 euro baino gutxiagokoak izanez gero edo etxebizitzaren prezioaren zazpirena (desjabetze bidezko jardueretan balio justua kendu ondorengo), onuradunak alokairu erregimenean etxebizitza bat lortu ahal izango duela bere diru-sarreraren arabera urteko errentarekin, etxebizitzaren prezioaren % 2 eta % 4 artean. Aipatutako kantitatea baino handiagoko diru-sarrerak izanez gero, jabetza erregimenean izan dezake etxebizitza aurreikusitako mota desberdinen arabera, baina betiere neur daitezkeen gehiago diru-sarreraren mugen barruan.

Laburbilduz, adierazi genion berriro bizilekua eskuratzeko eskubidea (desjabetutakoaren ordez alokairuan edo jabetzan etxebizitza izatearena) ez dela desjabetze kasu guztietan betetzen den mugarik gabeko eskubidea, baizik eta beharrezkoa dela arauak adierazten dituen baldintzak betetzea, eta kasu honetan ez ziren betetzen.

- Emaidza

Planteamendu hori ikusita, espedientea itxi egin genuen eta interesatuari adierazi genion Udala edo hango sozietate instrumentalak ez zuela etxebizitza berri batean berriro bizilekua eskuratzeko eskubidea bermatzeko betebeharririk, desjabetze prozeduran desjabetuko zitzaizkion ondasunengatik bidezko kalte-ordaina jasotzeko zuen eskubidea eragotzi gabe.

⇒ *Udalak eraikitako horma baten ondorioz ezin garaje partikular batean sartu (447/2004)*

- Erreklamazioa

Arrankudiagako auzotar batzuek Arartekoarengana jo zuten euren etxebizitzaren aurrean eraiki zen horma batek eragindako trabak zirela eta. Auzotarrek salatzen zuten Udalak berak eraiki zuela horma garajeetarako sarbidea galarazten zieten tokian.

- Azterketa

Kexan aipatzen zen gaiari buruzko informazio gehiago jaso nahian Arrankudiagako Udalera jo genuen. Erantzuneko txostenean bi auzokide elkarteren arteko lursailen haurrentzako gune bat eraikitzeko egin ziren urbanizazio lanen berri eman zigun Udalak.

Lan horien artean zegoen horma ere, eta Udalak berak adierazten zuenez, erkidego bateko garajeetara sartzea zailtzen zuen hormak.

Udalak ez zuen argitu, ordea, parkearekin zerikusirik ez zuen jarduera hori zergatik egin zuen bi lurzatiren artean zegoen lursail partikular batean, ezta lan osagarri horren interes orokorra edo erabilera publikoa zein zen ere.

Horregatik, berriro ere Udalarari zuzendu gintzaizkion bi partikularren arteko gatazka pribatuan Udalak esku-hartzearen egokitasuna zalantzan jarrita, lurzati batean horma eraikita baten alde egin baitzuen. Horrela jokatzean Udalak ez zuen kontuan izan administrazio publikoen jokaerek interes publikoaren zerbitzura egon behar dutela, objektiboak izan behar direla eta legearen barruan aritu.

Era berean, Udalaren jokaera hirigintzako antolamenduaren eta horren ondoriozko administrazio baimenen aurkakoa zen, auzokide batzuek ezin baitzuten garajea aurreikusitako eta udal lizentzian baimendutako erabileretarako erabili.

- Emaizta

Ohar horiek igorri ondoren, auzokideek adierazi ziguten Arrankudiagako Udalarekin akordioa lortu zutela horma bota zezan. Udalak hartutako konpromisoa eta arazoa nola ebatzi zen ikusita, kexa itxi eta artxibatu egin genuen.

⇒ *Urbanizazio proiektu baten eraginez kalteak merkataritzako lokal batean (632/2004)*

- Erreklamazioa

Santurtziko auzokide batek adierazi zigun Udalak eskailera batzuk egin zituela eraikin baten aurrealdean eta bere lonjan eragina zutela eskailera horiek, urbanizazio berriaren aurretik egin zitzakeen adinako baoak ezin baitzitu egin orain.

- Azterketa

Lan horien zuzendariak eta Hirigintza eta Ingurumen Arloko Hirigintzako Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzuko buruak egindako txostenen berri eman zigun Santurtziko Udalak. Txosten horien arabera, eskailera horrek ez zuen erakusleihu bat jartzeko inolako trabarik edo mugarik jartzen eta lokalaren alboko hormaren ondoko tokia hobeto gelditzen zen, beraz, urbanizazio berria balizko merkataritza jarduerarako mesedegarria zen.

Teknikoek adierazi zuten ez zuela oso arrazoizkoa ematen lokal horretan jardueraren bat jarriz gero sarrera alde horretatik egitea, berez kalearen maila lokalaren gainetik baitzegoen eta, gainera, komunikazio armairu bat zegoen bidea galarazten zuena. Arrazoibide horren ondorioz, interesatuari eskaera bidali zitzaion lokalaren egokitzearen eta obren proiektua igor zezan, eragina jasan zuenak berak ikus zezan zer aukera zeuden eta zein zen lokalarentzako irtenbide egokiena.

Horrelako gaietan erakunde honek gogoan izan behar du banakoen gaineko eragin negatiboak eta balizko ondare erantzukizunei ekitean beharrezko premisa dela, kaltea Administrazioak zerbitzu publikoetan jardutearen ondorio zuzena izateaz gain, *“erreklamazioa egindako partikularrak alegatutako kaltea burututa egotea, ekonomikoki ebaluatu ahal izatea eta pertsona edo talde batengan indibidualizatua*

*izatea; hori guztia kalte-ordaina eskatzen duenak frogatu beharko du” (Zentzu horretan, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1992ko maiatzaren 20ko epaia, RJ1992/4165).*

Hau da, Udalaren ondare erantzukizuna zehaztu ahal izateko, interesatuak alegatutako kaltearen erreklamazioa aurkeztu behar zuen modu efektiboan –burutu ezindako diseinua, gal zitzakeen salmenta aukerak eta bere nahia bermatuko zuen beste edozer– erreklamatzeko kaltea egiazkoa zela frogatu behar zuen, ez hipotetikoa, eta gainera, horrek zenbateko ekonomiko jakina zuela.

- Emaizta

Interesatuari iritzi horiek igorri ondoren gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen, interesatuak urbanizazio lanek eragindako egiazko kaltea kreditatzen ez zuen artean ezin baitzen muga singularren ondorioz kalte-ordaina izateko eskubidea zehaztu, muga horien eraginak jasateko adinakoak zirelako.

### C) Hirigintzako antolamendua

⇒ *Auzotar batzuk hiri antolamendurako plan bateko aldaketa puntual baten aurka (81/2004)*

- Erreklamazioa

Auzotar batzuk Laudioko hiri antolamenduko plan orokorra Altzarrate inguruan aldatzearen aurka zeuden, planteatutako antolamenduaren eta eremu txikian aurreikusitako dentsitatearen artean ez baitzegoen koherentziarik; aldaketa nabarmena eragingo omen zen auzoaren itxuran.

Horrez gain, aldaketa baino lehen Udalak merkataritza-erakunde batekin egindako hirigintza hitzarmena ere salatzen zuten, antolamendu berria erraztu baitzuen.

- Azterketa

Interesatuak emandako dokumentuarekin administrazio jarduerak antolamendu juridikoarekin bat ote datozen aztertu dugu. Erakunde honek administrazio publikoen jarduerak gainbegiratzeko duen eskumenetik abiatu gara, hartutako erabakien egokitasun-irizpideak aztertzerik izan gabe.

Ikuspuntu formalari dagokionez, ikus dezakegu planeamendu horren dokumentuak legez aurreikusitako tramiteei jarraitu diela, mota honetako espediente konplexuen gorabeherak izan arren, eta auzokideek parte-hartze aktiboa izan zutela prozeduraren aldi desberdinetan. Parte-hartze publikoa sustatu zela ikusi dugu, legez aurreikusitakoa baino gehiago, eragindako auzokideen atarietan informazioa jarri baitzen eta antolamendu proposamenari buruzko informazio bilerak egin baitziren.

Era berean, alegazioak aurkeztu zituzten aldi bakoitzean hartutako akordioek erantzun arrazoitua jaso zuten auzokideek, beraz, espedientean interesa zutenek uneoro izan zuten planteamenduak aurkezteko aukera.

Aldatuko zen dokumentuaren eduki materialari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak behin betiko onartu zuen erabakian adierazten zen proposatutako erabilerek

eta intentsitateek espazio libreentzat Legean aurreikusitako estandarrak betetzen zituztela eta udalerriko beste toki batzuetakoen antzekoak zirela. Bestetik, adierazten zen ezin zela inolako pronuntziamendurik egin dentsitateari eta errekurtoa jarri zutenek alegatutako beste gaiet buruz, ez baitzuen udalez gaindiko interesetan eraginik, eta Udal Administrazioari zegokion egokien irizten zion lurralde eredia ezartzea proposatutako konfigurazioaren azpian zeuden interes publikoak asetzeko.

Bestetik, etxebizitzaren aurrean zuten berdegunea tokiz aldatzea ere tratatu zen, nola ingurua aldatzeko espedienteak behin betiko onartzeko erabakian bertan hala auzokideek haren aurka jarri zuten berraztertzearen errekurtsoaren haritik.

Berraztertzearen errekurtsoaren ezespina zela eta eman zen erantzunean berriro ere aipatzen da lurraldearen zati honen eta "hiriko" beste aldean arteko bidezko loturak beharrezkoak direla aipatutako magnitudea duen berrurbanizazio eragiketan, trazadura eta ezaugarriak eztabaidatu daitezkeen arren.

Ondorioztatu genuenez, egindako planteamenduak arrazoiak logikoa erabiliz egin ziren, eta Udalak proposatutako antolamendu zehatza, eta ez beste bat, garatzeko zuten borondateari erantzuten zion, Udalaren ius variandi-ak berezko zituen zuzentzerako gaitasunen egikaritzan.

Azkenik, auzokideek salatzen zuten antolamendu berriaren oinarrian hirigintzako hitzarmen bat zegoela. Hirigintzako hitzarmena egoteak ez ditu, berez, ondorengo hirigintza-jarduerak baliogabetzen. Jurisprudentzia askotan aritu da dokumentu horien izazari buruz eta partikularrek konpromiso-gai izan daitezkeen administrazioaren jardura horietan parte hartzeko aukeraz ere bai. Horri buruz adierazi du *"hitzarmenen helburua da hitzartutako ekintza tresna izatea hirigintza-jardura eraginkorra, helburu zehatzak lortzea eta denen intereseko jardura onuragarriak beteko direla ziurtatzeko"*.

- Emaizta

Iritzi horiek igorri genizkien interesatuei eta ondorio bezala adierazi genien, kasuan pilatutako egoerak eta aztertutako dokumentazio ikusita, Laudioko 24. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko onartu izana, gure ustez, behar bezain koherentea zela eta, beraz, ezin zela antolamendu juridikoren aurkakoa izateagatik antijuridikotzat hartu.

⇒ *Etxebizitzak bizigarritasuna galdu urbanizazio lanen ondorioz (981/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek bere etxebizitzan izango dituen eraginaren berri eman digu. Bilbao Ría 2000ren proiektu baten bitartez RENFEren trenbidea estali egin nahi dute BI-3739 errepedean eta Pormetxeta tunelean, Barakaldon. Zehatz esateko, bere etxebizitza beheko solairuan dago eta urbanizazioaren mailaren azpitik geldituko da, lehengo maila baino gorago jarriko baitute sestra, onartu den proiektuaren arabera. Proiektuan aurreikusten denez, lau etxebizitzatako leihoak estali egingo dira eta etxebizitza ezingo da bizitoki izan, gelak ezingo direlako berez aireztatu.

- Azterketa

Barakaldoko Urban-Galindo eremuko Galindo-Ekialdea eremuan hiri antolamenduko plan orokorra aldatzea dago jarduera horren oinarrian. Plan hori 836/2003 Foru Aginduaren bidez onartu zen irailaren 19an. Plan horretan aurreikusten zenez, RENFEren trenbidea estali egingo zen; beraz, proiektatutako esku-hartze urbanizatuak “El Carmen I” exekuzio unitatean ukituriko lurak desjabetzea planteatzen zuen, eraikinaren beheko solairuetako bizigarritasun baldintzetan eragin negatiboa zuelako. Era berean, eraikuntzari eta erabilerei buruzko ordenantzetan finkatu egin zen dagoen eraikina, proposatutako urbanizazioaren sestra-igotzeak beheko solairuetan eragina izango zuen arren.

Jarduera hori garatuz, Bilbao Ría 2000k estaltze proiektua aurkeztu du, eta gaur egun ukituriko ondasunak eta eskubideak desjabetzen ari dira. Ukiturikoen zerrendan sartu dira higiezinako argiztapena eta ikuspegia gutxitu izana.

Baina kexan adierazten denez, lanak egin ondoren etxebizitzak argia eta ikuspegiak galtzeaz gain, gutxieneko bizigarritasun baldintzarik ere ez du izango; izan ere, gelak aireztatzeko behar diren baldintzak galdu egingo direnez, etxebizitza ezingo da bizitoki izan. Horregatik, kexa-egileak Udalari planteatu dio eraikin guztia desjabetzeko, eta hirigintzako arauen arabera berriro bizilekua eskuratzeko eskubidea erreklamatu du.

Udalak udalerriko hirigintza-antolamenduan dituen eskumenei kalterik egin gabe, Arartekoak Barakaldoko Udalari eta Bilbao Ría 2000 sozietate publikoari gai honi buruzko iritzia eskatu zien; zehatz esateko, erreklamazio-egileak eraikin guztia desjabetzeko egin zuen eskariarentzako aurreikusitako erantzunaz eta lurzorua legeak ezarritakoaren arabera berriro bizilekua eskuratzeko eskubidea bermatzeko aukeraz galdetu genion.

- Eraitza

Bilbao Ría 2000k txostena igorri zigun, trenbidea estaltzeko proiektuaren arrazoiak eta jarduera horren eragina jasango zuten pertsonekin egindako kudeaketak azaltzen zituen.

Ondoren, Barakaldoko Udalak ere igorri digu erreklamazio-egileak eta Bilbao Ría 2000k lortu duten desjabetze akordioari buruzko informazioa: estaltze proiektuak ez ditu haren etxebizitzako leihoak itxiko, ezta barruko konfigurazioan inolako eraginik izango ere. Dena dela, aurreikusitako eraginak ordaintzeko akordio bat lortu dute eta babes ofizialeko etxebizitza batean berriro bizilekua emateko hitza eman dute.

Horregatik, gai honetan hasi genuen esku-hartzea hor amaitu zen, ondorengo jardueri kalterik egin gabe, beharrezkoak izanez gero.

## D) Etxebizitza

⇒ *Etxebizitza beharra (978/2004)*

- Erreklamazioa

Pertsona batek jakinarazi zigun Etxebiden babes ofizialeko eskatzaileen erregistroan alta ematea ukatu ziotela. Etxebizitza behar zuela frogatu ez zuelako bota zuten atzera, izan ere hainbat etxebizitzaren jabekidea baitzen. Baina, nahiz eta etxebizitza horien

jabekidea izan, ezin zituen erabili, etxebizitza baten jabetza soilaren laurdena besterik ez baitzuen eta beste etxebizitza baten jabetza soilaren erdi zatiezina. Arartekoarengana jo zuten bere kasuan etxebizitza beharra behar adina kreditatuta zegoela adierazteko.

- Azterketa

Eusko Jaurlaritzako araudiak berak salbuesten du etxebizitza izateko aukera jaraunspen edo dohaintza bidez etxebizitza izan eta kuota % 50ekoa edo txikiagoa denean. Baina Eusko Jaurlaritzak eskaria ez zuen onartu, arauak hipotesi hori etxebizitza bakarraren kasuan salbuesten duela ulertzen baitzuen, eta ez bi etxebizitzaren kasuan.

Idatzian planteatzen ziguna aztertu ondoren, erakunde hau Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera zuzendu zen gai honi buruzko zenbait ohar adierazteko.

Zehatz esateko, gure iritziz etxebizitza premiei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren arabera, etxebizitza premia kreditatzeko garrantzitsuena zen jabea izan arren etxebizitza eduki ezina, etxebizitzaren zati baten jabe bakarrik zelako, eta inola ere ez % 50 baino gehiagoren jabe. Horregatik, etxebizitza bat edo bi –aurreko kuotan jarritako muga barruan– izateak ez du etxebizitza arazoa konpontzen. Bestetik, Etxebizitza Sailari gogorarazi genion gai hori aztertu zela EAeko Auzitegi Nagusiaren abenduaren 5eko 901/2003 epaian, eta auzitegi horren arabera, etxebizitza kopurua alde batera utzita, garrantzia zuena etxebizitza premia zela.

- Emaiza

Gure idatziari erantzunez, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak txosten bat igorri digu eta berriro dio aztertutako kasua ezin dela salbuetsitako egoeran egokitu; arauaren hitzez hitzeko interpretazioa darabil argudio bakartzat, han etxebizitza bakarra aipatzen baita. Beraren ustez, arau orokorraren salbuespenak zehatz interpretatu behar dira. Dena dela, egokia deritzo EAeko Auzitegi Nagusiak eta erakunde honek horri buruz duten irizpidea aztertzeari.

Dena dela, Sailak beharrezkoa ikusi du –2004ko abenduaren 9ko aginduan– 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren 3. artikuluko 5. atala aldatzea, kasu honetan onartu egiten baitu jabetzako etxebizitza erabili ezina. Berrikuntza hori kontuan izanda, erreklamazio honetako kasua aipatutako aldaketan jasota gelditu dela uste dugu.



## 14. ZENBAIT GESTIO

### 14.1. SARRERA

Atal honetan, Arartekoaren erakundeak 2004. urtean egin dituen askotariko jarduerak sartzen dira.

Ukaezina da erakunde honen lanaren barruan zati txiki bat baino ez dela atal hau, atalaren izenak berak adierazten duenez. Horregatik, Arartekoaren jarduna egituratzeko erabili ohi diren arloetan nekez sartuko liratekeen kexak, gai ezberdinei dagozkielako, atal honetan sailkatzen ditugu.

Lehen ezaugarri honek, hemen sartzen diren edukien askotarikotasunari gehituta, aztertutako gaien barruko antolamendua zailtzen du, eta kasu batzuen aldean beste batzuk nabarmentzea ez da erraza.

Argitu behar da kexa hauetako gehienak tramitatzeko orduan bitartekaritzaren ikuspegi hutsa izan dugula, gai hauek gure autonomi erkidegoan daukaten oihartzuna eta pertsonengan duten eragina kontuan izanik. Kasuetako askotan, erreklamazioen egileak orientatu baino ez du egin Arartekoak, bere esku zeuden aukera guztiak eskainiz, kexan zegoen problematikaren arabera.

Ekitaldi honetan, 39 kexa sartu ditugu atal honetan.

### 14.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Komunikabide idatzietako harremanen atalean dauden zenbait argazki direlata (233/2004)*

- Erreklamazioa

Herritar talde batek bere asaldura azaldu zigun, egunkaririk gehienen harremanen ataletan gero eta publizitate iragarki gehiago dagoelako emakume biluzien argazkiekin, hori emakumeen duintasunaren aurkako izan daitekeelakoan.

- Azterketa

Erakunde honek ez dauka partikularren jarduerak kontrolatzeko aukerarik, eta erreklamatzailerak aipatutako argitalpenen jabeak –komunikazio enpresak– partikularrak dira, hain zuzen ere.

Edozein kasutan ere, aurreko balorazioa gorabehera, kexak egin zituzten pertsonen jarduteko zeuzkaten bideen berri eman genien.

Batetik, egunkarien iragarki ataletako publizitate iragarkietan datza arazoa. Bada, azaroaren 11ko 34/1988 Legeak publizitate ez-zilegiko kasuen aurrean jardutea ahalbideratzen du, Konstituzioko eskubideak eta baloreak urratzen dituzten edo duintasunari erasotzen dieten iragarkien kasuan, batez ere umeei, gazteei eta emakumeei dagokienez. Nolanahi ere, horrelako kasu baten aurrean gaudela esan ahal izateko, banakako balorazioa egin beharra dago, kasu bakoitzerako interpretazio irizpide egokiak erabiliz; balorazio hori egitea jurisdikzio arruntari dagokio.

Bestalde, publizitatearen eremuan sortzen diren auzi hauek ebazteko bestelako leku batzuetara jotzeko aukera ere eskaini genien. Kasu honetan, kode etikoen bidez nork bere buruari arauak ipintzean datza bide hori, bai iragarkiak jartzen dituztenen kasuan, bai komunikazio enpresen kasuan.

Kode horien artean, Komunikazio Komertziala Autoarautzeko Elkartea aipatu genuen. Elkarte pribatua dugu hau, eta iragarki jartzaileek, agentziek, komunikabideek eta komunikazio komertzialeko bestelako zerbitzu enpresek osatzen dute. Helburua publizitateari buruzko balizko eztabaidak prebenitzea eta ebaztea da, komunikazio komertzialarentzat benetako esparru etiko arduratsu bat eratuz. Eztabaidak ebazteko judizioz kanpoko sistema bat erabiltzen da, Publizitatearen Epaimahaiaren izenekoak. Kontsumitzaileek dohainik aurkez ditzakete erreklamazioak. Horretarako, nahikoa da pertsona edo elkarte horrek zantzu nahikoak eta arrazoituak izatea, esan ahal izateko komunikabide batek edozein bitarteko erabiliz (esaterako, prentsa, aldizkariak, telebista, kaleko hesiak, Internet, etab) emititu, argitaratu edo hedatu duen publizitate iragarki batek jokabide kodeen arau etikoak urratzen dituela, eta hori azalduz Epaimahaiaren Idazkaritzari erreklamazio idazkia bidaltzea.

- Emaiza

Erreklamatzaleei gogoeta honen berri eman genien eta, izaera pribatuko arazoa denez gero, kexa itxi eta artxibatu genuen.

## B) BERARIAZKO ARRETA TALDEEN ARAZOEI

### 1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ARAZOEI

Sei urte dira jada gure erakundearen funtzionamenduan genero ikuspegia derizona sartu eta, ondorioz, urteko txostenei berariazko atal hau eransten hasi ginela. Bertan Arartekoaren jarduketa arlo desberdinak zeharka irakurri nahi dira, “generoaren faktoreak”, gure erakundearen aurrean planteatzen dituen auzi eta arazoetan ez eze, administrazio publikoaren jardueran, baita gure zereginetan aritzean ere sortzen dituen ondorioak hautemateko.

Zoritxarrez, azkeneko txostenetan, gizarteko errealitateak indarkeria sexistaren fenomeno kezkarria aipatuz hasiera behartu gaitu: emakumeen duintasun, askatasun eta osotasunaren kontrako eraso etengabea, giza eskubideen urraketa izugarri larria, gure gizartean ohikoena eta zigorgabeena, ziurrenik.

2004an, berriro ere, lesiorik edota heriotzarik eragin duten erasoek kopuruak gorako bide ikaragarriari eutsi dio. Eta ez dugu ahaztu behar datu horiek emakumeen kontrako indarkeriaren ageriko aldea soilik erakusten dutela. Askoz ere fenomeno hedatuagoa da, oso era desberdinetan azaltzen da, eta gure kulturaren senda errotuta dauden jatorriak ditu. Alde horretatik, agerrarazi behar dugu indarkeria hori, aldi berean, ez dela, emakumeek, emakume izate hutsarengatik, gure gizartean pairatzen dituzten bereizkeria eta bidegabekeria ugarien adierazpen bat besterik.

Egia da, alabaina, auziaren aurrean dagoen jarrera nabarmen aldatzen ari dela. Duela oso gutxira arte, gizarteko arauak –baita legeek ere– emakumeen kontrako indarkeria emakumeek gizartean eta, bereziki, familian zuten mendetasunaren ondorio logiko modura ikusten zuten. Zereginak generoaren arabera desberdinki banatuta zeudenik zalantzan jartzen ez zenez, zenbait gizonen nagusitasuna gehiegikeriaz baliatzen zuten eta hor zegoen kontua zen, nahi barik baina ekidin ezinik. Zorionez, kritika feministak, emakumeek historikoki pairatu duten bereizkeria eta sistema demokratikoa batera ezinak direla agerian jartzean, gizartearen pentsamoldea aldarazi du eta, hartara, politiki baina etengabe, erakundeengan eta legetan ere eragiten ari da.

Legearen esparruan, herritarrek botere publikoei genero indarkeriaren kontrako borrokan benetan inplika daitezten eskatu dietenez, araudi berri garrantzitsuak etorri dira. Beste ezein baino lehen, *Genero Indarkeriaren aurkako osoko babes neurrien Lege Organikoa* aho batez onetsi dela aipatuko dugu; alderdi guztietan ez bada ere, 2005eko urtarrilean jarri da indarrean,.

Izen hori duen arren, legeak emakumeen kontrako indarkeriari ikuspegi batetik baino ez dio heltzen: oraingo zein iraganeko harreman afektibo batean sortzen den alderditik, alegia. Ulergarria da zeren, ohikoena izateaz gain, borrokatzen oso zaila den indarkeria modua ere bada. Izan ere, testuinguru afektibo bat izateak –eta, sarritan, elkarbizitza luzea ere– biktimarentzako ondorioak larriagotzen ditu, erasogilearekin haustea zailtzen dio eta erasoak hauteman eta prebenitzea oztopatzen du. Nolanahi ere, ez da komeni hau bezain larriak diren beste genero indarkeria mota batzuek ahaztea –ezzagunengandik pairatutako eraso sexualak, prostituziora behartzea, eta abar–, gure gizarte ingurunean halakoak ere gertatzen baitira.

Lege berria, indarkeria sexistak egiturazko izaera duela abiapuntu hartu eta sortzen duten arazoiei aurre egiten saiatzen da; horretarako, prebentzio arloko jarduketa sorta

ugaria diseinatzen du. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeen arreta ere indartzen du, mota desberdineko erantzunak finkatuz, zigor neurrietara mugatu barik, orain arte bezala.

Bestalde, EAEn, 2004an *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea* prestatzen aurrera egin da; 2005eko otsailaren 18an onetsi da lege hori. Izenak adierazten duenez, arau horrek gizartean, generoa tarteko, oraindik dirauten bereizitasun egoeren agerpen ezberdinak jorratu eta zuzentasuna sustatzen du, emakumeek pairatzen dituzten bereizkeriak ezabatu nahi ditu, esparru publikoan zein pribatuan. Eskuartean dugun gaiari dagokionez, lege honen aurretik izan diren Ekintza Positiboko Plan guztiek bezala, legeak indarkeria sexistaren kontrako borroka pertsona guztien arteko benetako eta izatezko berdintasunaren sustapen orokorraren barruan sartzen du.

Bi legeek alderdi hobegarriak aurkezten dituzten arren, mugarri ere badira indarkeria sexista desagerrarazteko bidean. Eraginkorrak izango diren ala ez, eta zenbateraino, praktikan jartzeko hartzen diren neurrien eta, bereziki, zelako aurrekontu babesema ten zaien mende egongo da, nola idatziko diren mende baino. Ikuspegiari dagokionez –*Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn*–, ordea, genero indarkeriaren arrazoiei aurre egiteko modurik eraginkorrenak pertsona guztien arteko erabateko berdintasunerantz aurrera egitea eskatzen du. Ezinbestekoa da bi ikuspegiak bateratzea –indarkeriaren kontrako eta generoak eragiten dituen bereizkeria guztiak ezabatze borroka– eta, aipatutako bi lege horiek asmo hori badute ere, mezua, herritarrentzat, EAEko legean argiago dagoela iruditzen zaigu eta, beraz, legearen onespena eta izatez martxan jartzea aurrekari egoki izan daitezen espero dugu.

Azken batean, erakundeek emakumeen kontrako indarkeriari egitura, kultura eta segurtasun eta osasun publikoko egiturazko benetako arazo larri modura heltzen hasi behar dute, orain arte botere publikoek esparru honetan izan duten esku-hartzearen plangintzarik eta osotasunezko ikuspegiarik eza gaindituz.

Gure aldetik, 2003aren amaieran, erakundeetatik indarkeria sexistarik ematen zaion erantzunari buruzko aipatutako txosten monografikoa argitaratzean, iragarri genuen konpromisoa betetzeko, gure Autonomia Erkidegoan tratu txarrik jasan duten emakumeei ematen zaien arreta aztertu eta ikuskatzen segitu dugu. Txosten honetako I. kapituluan, dagokion atalean, lortu ditugun informazioen eta informazio horiek aztertuz atera ditugun ondorioen laburpena daukazu.

Era berean, Arartekoak emakumeen kontrako indarkeriari buruz egindakoen artean, gure erakunde ordezkariek gai horren gaineko jardunaldi eta mintegi desberdinetan izan duten parte hartzea nabarmenduko genuke (esaterako, José M. Lidónen oroimenezko Zigor Arloari buruzko Topaketetan, Sabino Arana Fundazioko Mintegian, Berdintasunari buruzko Portugaleteko IV. Udal Jardunaldietan, Lasarten genero indarkeriaren inguruan egindako jardunaldietan, eta abar). Gure iritziz, halako jarduketekin, giza eskubideen kultura hedatzeko eta, zehazki, gizartea genero indarkeria eragiten duten arrazoiei buruz sentsibilizatzeko dugun zeregina betetzen dugu. Lan hori, eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeen arretarako zerbitzu publikoak kontrolatzea dira arazo horri aurre egiteko esku hartzeko dauzkagun alor nagusiak. Izan ere, kontuan izan behar dugu emakumeen eta gizonen artean oraindik dirauen desberdintasunaren ondorio larrienak –indarkeria sexista azaleratzea barne– normalean esparru pribatuan gertatu ohi direla, pertsonen arteko harremanetan, hau da, herritarren eskubideak defenditzeko erakundeen zaintzatik kanpo geratzen den eremu batean.

Giza eskubideen sustapen generikoko ildo berean eta, zeharka bada ere, eskuartean daukagun gaiarekin lotuta, aipagarria da Arartekoak Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak *Asilo eskubidea eta generoarengatiko jazarpena* gaiaz antolatutako jardunaldi batean esan zuena. Foro hartan, gure erakundeak Ginebrako Konbentzioa genero berdintasunaren ikuspegitik irakurtzea proposatu zuen. Nazioarteko itun hori biziberritzeko eta asilo prozedura babes bitarteko eraginkor bihurtzeko, gure ustez, testua emakumeek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketen ezaugarriak eta ingurumariak kontuan hartuz interpretatu behar da, eta emakumeen beharraz, gabeziei eta berariazko egoerei bereziki aditu behar zaie.

Egia esan, lehenago aurreratu dugun moduan, emakumeek eta gizonezkoek bizitzako esparru guztietan aurkitzen dituzten baldintza desberdinei bereziki aditze hori da, hain zuzen, erakunde publikoak kontrolatzeko gure zereginari erantsi nahi dioguna. Jabetzen gara –esan ere egin dugu– sexua tarteko egiten diren bereizkeriarik ugari eta larrienak Administrazioak zuzenki esku hartu barik gertatzen direla eta, horregatik, gure erakundearen jarduera esparrutik kanpo geratzen direla. Enplegura iristeko gorabeherekin eta lan harremanetan izaten diren desberdintasunekin gertatu ohi dena da; etxeko lanak eta mendeko pertsonen zaintza desoreka handiz –eta bidegabeki– banatzean, gizarte, kultura, kirol eta halako jardueretako partaidetzan..., baita ekonomia, enpresa edo politika alorretako boterezko postuetarako gorako bidean eta abar.

Alabaina, egia ere bada izatezko berdintasuna sustatzeko konstituzioaren agindua betetzeko, botere publikoek bereizkeria horien kontrako borrokan inplikatu behar dutela. Eta Arartekoak hala egin dezaten zaindu behar du, baita salatu ere, administrazioek, eginagatik zein ez-eginagatik, esparru pribatuan dauden desberdintasun egoerak onartu, ezikusiarrena egin edo indartu ere egiten dituztenean.

Administrazio publikoen barruko funtzionamenduari dagokionez, garbi dago –oraindik nahi genukeen parekotasun egoera erabat iritsi ez bada ere–, legezketasun printzipiotik eratortzen diren bermeek, generoa tarteko, tratamendu desberdina ematearen modurik nabarrienak ager daitezten eragozten dutela. Horregatik, gure zeregina, testuinguru honetan, gerta litezkeen ezkutuko zein zeharkako bereizkeria kasuak hauteman eta, ahal den neurrian, konpontzea litzateke. Halako kontuak jaso ditugu, hain zuzen, atal honetako bigarren epigrafean.

Hirugarren eta azkeneko epigrafean, berriz, bereizkeriazko tratua izatera heldu ez arren, protagonista emakumea izateak jatorrian zein intentsitatean eragina dueneko arazoak jaso dira; edo Administrazioaren hasierako jarduketak, zein gure esku-hartzearen emaitzak emakumeen gizataldearentzat ondorio desberdinak dituzten kasuak. Garbi dagoenez, analisiaren ikuspegi honetan berdin-berdin da kexak zeinek jarri dituen.

Aurretiazko azalpen hauek guztiak amaitzeko, komeni da azpimarratzea, hartutako genero ikuspegiaren ezaugarri den zeharkakotasunak, bereziki ahulak edo zaurgarriak diren gizataldeen arazoez egindako azterlanari ere ukitzen diola (adineko, adingabe, atzerritar, ezgaitu eta abarreko gizataldeak). Gizatalde horiek guztiak eta bakoitza emakume eta gizonez osatuta daudenez, beren egoera, interesak eta beharraz berariazkoak pertsonen generoaren arabera agertzen diren desberdintasunen aldetik azter daitezke. Alabaina, aurrekoetan bezala, emakumei bereziki ukitzen dieten gaiak jorratzeari atal bakarria eskaintzea hautatu dugu, azalpenetan argiago izan nahirik. Nolanahi ere, ezin da ahaztu emakume izateak, sarritan, aipatutako gizatalde horiek berez duten zaurgarritasun edo gizarte bereizkeriako faktoreak areagotzen dituela.

Alde horretatik 2004an eta erakundeetatik genero indarkeriari eman zaion erantzunari dagokionez, zenbait emakume etorkinek, adingabek eta ibiltzeko arazodunek biktimen arretarako zerbitzu jakin batzuetara jotzeko beren beregiko oztopoak aurkitu dituzte. Arazo horiek hizpide dira aipatutako txosten monografikoaren jarraipenari buruzko I. kapituluko atalean.

Hautemandako balizko bereizkeria egoerak, baita emakumeei desberdin eragiten dietenak ere, xeheki aztertzea sartu baino lehen, jarraian, joan den urtean, emakumeek gure erakundearen zenbat kexa eta nolakoak jarri dituzten aztertuko dugu.

## 1. Emakumeak erreklamaziogile

Estatistika soziologikoari buruzko atalean (III. kap.) kexak erreklamaziogilearen generoaren arabera nola banatu diren aipatzen den arren, komeni zaigu kopuru horiek berrartzea, kexa horiek zer gairen gainean ari diren azaletik aztertzeko. Garbi dago, datu kuantitatiboetatik soilik eta bestelako informaziorik gabe abiatuta, ez dela erraza jokabide horri buruzko balizko azalpenik ematea, baina merezi du saiatzeak.

Erreklamazioak arloka eta generoka banatzeari ekin baino lehen, komeni da emakumeek aurkeztutako erreklamazioen urtez urteko portzentajeak gainbegiratzea. Aurrekoetan izandako gorabeherak adierazi genituen: 1998an oso indize altua iritsi eta gero, hurrengo bi denboraldietan beherako joera nabaritu zen, 2001ean eten zena, hurrengo urtean berpizteko. 2003an, aitzitik, emakumeek jarritako kexen proportzioak guztirakoan % 40a gainditu zuen, berriro ere, baina aurrekoen % 36ra jaitsi da, denetan baxuena izan delarik, hurrengo koadroan ikus daitekeenez.

	Emakumeak	Gizonezkoak	Gizataldeak
1996	36,74	46,89	16,25
1997	39,88	48,72	11,90
1998	45,19	46,84	7,97
1999	38,97	45,99	14,65
2000	36,55	49,80	13,65
2001	41,31	43,82	11,57
2002	38,23	47,65	13,57
2003	40,45	45,54	13,36
2004	36,38	47,94	15,09

Garbi dago kexen ratioa ez dela ezerean adierazle, bi sexuen artean zenbateko berdintasuna lortu den ere ez duela adierazten, baina egia da berdintasuneko gizarte batean erreklamazioetan ere antzeko kopuruak esperoko liriatekeela. Azken batean, erakunde hauetara jotzeko jendeak norbanakoen eskubideen gutxieneko kontzientzia eta eskubide horiek defendatzeko nolabaiteko gaitasuna dauzkala esan nahi du eta,aldi berean, gizartean parte hartzeko bide modura uler daiteke, historikoki baztertuta egon diren taldeentzat baliagarria delarik.

Zenbakietara itzuliz, deigarria da gizataldeek bultzatutako kexen portzentajea, azkeneko urteotako altuena. Emakumeek sinatutako erreklamazioak ez dira, 2000n bezala,

gizonezkoen sinadura daramatenak gehitu direlako murriztu, taldeek jarri dituztenak ugaritu direlako baizik. Interesgarria litzateke aztertzea gizatalde horien artean zenbat diren emakumeen elkarte edo erakundeak baina, azterketa sakonagorik egiterik ez dugunez, gizatalde horien esku-hartzeak benetako salbuespena dirudiela esango dugu.

Arreta zuzeneko bulegoetara bisitan etorri diren emakumeei dagokienez, gutxiago izan direla ikusten da, 2000tik 2003ra izandako joera itzulikatuz (% 39; % 41,26; % 43,61 eta % 44,87). Ekitaldi honetan, portzentajea % 42,31ra arte jaitsi da, batez ere, Bilboko bulegora oso emakume gutxi etorri direlako (% 38,65). Donostiako egoitzara egindako bisitak, ordea, izugarri gehitu dira, gizonezkoen % 39,5en aldean % 47 emakumeak izan direlako. Gasteizko bulegoari buruz, berriz, iaz batez bestekotik nabarmen goragoko kopurua izan zuen arren, oraingoan % 42,17 izan dira, batez bestekoaren pare, hain zuzen. Aurreko datu horiek bakarrik etorri diren emakumeei buruzkoak dira, bikote edo taldeka datozenean zenbatu barik. Estatistika soziologikoaren atalean (III.6. kap.) ikusgai daude gure erakundearen bulegoetara etorri diren pertsonen kopuru absolutuak.

Ikus dezagun, orain, nola banatu diren –gaiari adituz– emakumeek aurkeztu dituzten 557 kexak:

### Kexen banaketa arloka eta erreklamazigilearen sexuaren arabera

ARLOA	Gizonak	Emakumeak	Taldeak	Anonimoak
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa	16	4	3	
Gizarte Ongizatea	35	31	6	
Kultura eta Elebitasuna	6	6	2	
Herri Defendatzaileak	49	33	11	
Hezkuntza	27	46	16	
Funtzio Publikoa	50	39	9	
Gestio desberdinak	18	19	1	1
Ogasuna	48	39	6	
Herrizaingoa	60	38	6	
Justizia	19	14	3	
Ingurumena	52	22	15	
Herri Lanak eta Zerbitzuak	93	73	8	
Ezetsiak	128	88	55	8
Osasuna	45	28	8	
Lana eta Gizarte Segurantza	3	3	2	
Hirigintza eta Etxebizitza	85	74	80	
	<b>734</b>	<b>557</b>	<b>231</b>	<b>9</b>

Lehenago ohartarazi denez, badirudi kopuruen azterketa hutsetik ez dagoela emakumeak arazo batzuk bai eta beste batzuk ez planteatzera bultzatzen dituzten faktoreak ondorioztatzerik. Maiz samar gertatzen da, gainera, arazoak zuzenki jotzen duen pertsona ez dela arazoa gure erakundera helarazten duena. Hortik abiatuta, oso interesgarria litzateke bereiztea emakumeek beren arazoak noiz planteatzen dituzten, noiz ari diren zaintzen dituzten pertsonen interesak defendatzen eta, azkenik, zein gaitan eskuordetzen dituzten gizonezkoak beren ordeaz ari daitezen. Gure erakundeak, egun, ezin du halako azterketarik egin, baina ziurrenik herritarrak Arartekoarengana erakartzen

dituzten interesak argituko lituzke, eta pertsonaren generoaren arabera diferentziarik ageri den ikusteko aukera izango litzateke.

Oraingoz emakumeek zuzenean planteatutako gaiiei buruzko azaleko gogoeta egitearekin konformatuko gara.

Aurreko koadro horretan islatutako panoraman, deigarriena da, emakumeek jarritako kekek gizonetzkoenak baino ugariagoak arlo bakarrean soilik direla. Hezkuntzaren arloaz ari gara. Izan ere, zenbakizko nagusitasun hori –gorabehera handi edo txikiagoe-kin– konstantea izan da azkeneko urteotan. Gerta daiteke kopuru horiek emakumeak adingabeen hezkuntzarekin zerikusirik duten roletan (ama, irakasle, eta abar) gehiago direlako izatea.

Beste batzuetan, Osasunaren eta Gizarte Ongizatearen arloetan antzeko banaketa ikusten zen, eta horrek lehen aipatutako azalpenera bideratzen gintuen, kopuruak emakumeak mendeko jendea (adingabeak, zaharrak...) zaintzen gehiago aritzen direlako izan litekeela pentsaraziz. Aurten, ordea, gauzak ez dira horrela ageri. Osasunaren eta Gizarte Ongizatearen arloan gizonetzkoen erreklamazio gehiago izan ditugu; Gizarte Ongizatean oso alde txikia izan da, baina Osasun arloan askoz ere handiagoa.

Datu kuantitatiboetan Funtzio Publikoaren alorrean antzeko aldaketa izan da; alor horretan emakumeek jarritako kekek gizonetzkoenak baino gehiago izan ohi ziren. Lehenengoz, 1999an datuak erreklamazio gileen generoaren arabera xehatzen hasi ginenetik, gure erakundera sektore publikoko enpleguari buruzko arazoengatik keka etorri diren gizonetako emakumeak baino gehiago izan dira, emakumeen presentzia esparru horretan garrantzitsua arren, lan merkatuan oro har baino bereizkeria gutxiago aurkitzen baitute horra sartzeko. Nolanahi ere, beste batzutan esan dugunez, diferentzia kualitatiboak kuantitatiboak bezain garrantzitsuak dira. Eta, alde horretatik, badira zenbait gai –adingabeak zaintzeko lan murrizketak, eszedentziak, eta abar–, emakume funtzionarioek baino planteatzen ez dituztenak.

Ikuspegia aldatuz, esan dezakegu emakumeek jarritako kexa multzorik garrantzitsuena –ezetsiak kenduta, banaketaren atal guztien buru baitaude–, Hirigintza eta Etxebizitza arloan izan da (74), atzetik Herri Lanak eta Zerbitzuak daudelarik (73). Bi alorretan gizonetzkoen erreklamazio gehiago dagoen arren, emakume gehiago dagoen azpiarloak ere aipa daitezke, esaterako, garraio publikoarena; zergatik? emakumeek garraio publikoa gizonetakoek baino gehiago erabiltzen dutelako, jakina; eta esandako arloen artean lehenengoari dagokionez, emakumeei dagozkien babes ofizialeko etxebizitzetara buruzko kexa asko eta asko daudela esango dugu –adibidez, adjudikazioa dela-eta–, bereziki, guraso bakarreko familientzat gordetako kupoetan.

Kultura eta Elebitasunaren alorrean izan ezik, horretan kopuruak lehenengoz parrekatu baitira, nagusiki gizonetzkoenak izan ohi diren arloetan ez da berri edo aldaketa handirik igarri: Nekazaritzan, Industria, Merkataritza eta Turismoan, Ogasunean, Herrizaingoa eta abar. Zergei buruzko erreklamazioei dagokionez, pentsa liteke esparru horretan nolabait “familia buruaren” kontzeptu patriarkalak indarrean dirauela, zenbait arazo –hala nola, bikotea bereizten den kasuetan ondorengoengatik dauden kenkari jakin batzuen gainean– emakumeengandik heltzen zaizkigun arren. Emakumeak dira, halaber, amatasunaren ondoriozko lan murrizketa edo eszedentzia kasuetan diru laguntzen inguruko balizko irregulartasunak salatzen dituztenak; aitek ez diete lan eta familia bizimoduak uztartzeko aukera horiei heldu ohi. Herrizaingo arloari dagokionez,



gizonezkoek jarritako administrazioko zehapenei (trafikoko isunak, eta abar) eta, batez ere, atxiloketei buruzko kexak ugariagoak dira.

Orobat, ingurumen arloan, erreklamaziogile gizonezkoak gehiago izan dira, ohi bezala, urtero-urtero errepikatzen den besteak bezalako konstantea ez den arren. Zenbakiak berdindu dira, batzutan, baita zeinuz aldatu ere. Nolanahi ere, kontuan izan behar da, esparru honetan, Hirigintzan bezala, kexa orokorrak –ingurune naturalaren babesari buruzkoak, ingurumen eta zarata kutsadurari buruzkoak, jarduera sailkatu jakin batzuei buruzkoak, hirigintza diziplinari buruzkoak eta abar– ukitutako pertsonen gizataldeen zein talde ekologisten eskutik datozela.

Beste urte batzuetan Justizia arloan igarritako patroï edo ereduari eutsi zaio aurtan, non kexak erreklamazioaren generoaren arabera orekatsu mantentzen diren. Alabaina, Herri Defendatzailearengana bideratu ditugun gaietan, gizonezko kexagileen kopuru nagusitasuna berreskuratu da. Faktore bereizgarrien artean, agian, presoengandik datozen kexak egon litezke, % 90 gizonezkoak baitira.

## 2. Sexuarengatik bereizkeria

Ohartarazi dugun moduan, gure erakundera ez dira administrazio publikoak generoa tarteko tratu desberdina eman duelako salaketa askorik heltzen. Baliteke erreklamaziogile emakumeek arduradun publikoei espresuki berezikeriazko jarrera leporatzen zaien kasu bakarra Irun eta Hondarribiko alardeei buruzko espedienteetako izatea. Udal agintariek auzi horietan duten jokabidea berdintasun printzipioaren urraketa ireki izatera iristen ez den arren, gure erakundearen ustez, aurtan ere bi alkateek ez dute berdintasuna izatez eta egitez bultzatzeko eta, bereziki, berdintasuna eragozten duten oztopoak ezabatzeke beren eginkizunik bete.

Ez dugu uste orain gure erakundeak bi herri horietako jai nagusietan emakumei parte hartzea behin eta berriro ukatzen zaielako –1996tik– bideratu dituen esku-hartze desberdinen laburpenik egin behar dugunik, aurreko urteetako txostenetan ikusgai dago eta. Nahikoa da auziak piztu duen gizarte arazoa konplexua eta bi udalerrietan desberdina izan dela gogoratzea, eta hainbat ebazpen judizial ere izan direla eta, gainera, ez direla beti berdín bideratuta egon. Oraingo egoera honelaxe deskriba genezake: jurisprudentiako dotrina argi eta irmoa dago Irungo eta Hondarribiko emakumei Alardean soldadu modura parte hartzeko eskubidea aitortzen diena eta, halaber, emakumeak herriko jai horretatik kanpo uztea –edo gauza bera dena, kantinera modura soilik esku hartzera mugatzea, alegia– tratu berdintasunerako oinarritzko eskubidearen urraketa dela adierazi du. Hala ere, kontua da azkeneko urteotan Alardearen antolaketa pertsona partikularren esku utzi denez, emakumei parte hartzea eragozten segitu dela.

Horregatik, 2003an, Arartekoak udal horietara gomendio bana bidali zuen, non –kasu bakoitzerako beren beregiko ñabardurekin– Alarde publikoak, berdintasunezkoak eta herritar guztientzat irekiak ospatzea susta zezaten eskatzen zitzaïen. Ez zituzten gomendioak onetsi eta, ondorioz, aurtan ere bi herrietako gizataldeek gure erakundearengana jo dute, udal alardeen eskarietarako sostengu eske.

Jakina denez, bi korporazioek legeak ikuskizun hori antolatzera behartzen ez dituela argudiatzen dute eta Alardea antzetzeko modu desberdinen (tradizionala eta berdintasunezkoa) defendatzaileek ekimen pribatuaren bidez egiteko gutiz libre direla mantentzen

dute; hartara, beren jarrera pasiboak ez luke berdintasun printzipiorik urratuko. Horren gainean, gure erakundeak berriro azpimarratu du azkeneko urteetako ospakizunetan emakumeei parte hartzen utzi ez zaienez –bartzetaileak izan dira, beraz–, botere publikoek ezin dutela horren aurrean axolagabe geratu. Herritar guztientzat zabalik dagoen jai baten legitimitatea eta emakumeak baztertzen dituen ospakizun baten legitimitatea ez dira berdinak eta, halatan, udalek ezin dute jarrera berdini izan bi ekitaldien aurrean. Neutraltasun huts modura aurkezten dena benetan izatezko berdintasuna sustatzeko betebeharrari muzin egitea da. Are gehiago, saihesteko jarrera horrek izatezko bazterkeriari eusten laguntzen du.

Emakumeek Irunen eta Hondarribian bizi duten desberdintasun egoera hori aitortzea gainditzeko egin behar den lehenengo urratsa da. Ez dago tratamendu baztertzailerik horri garrantzirik kentzerik, “jai bat besterik ez dela” argudiatuz. Azken finean, piztutako auziaren esanahi sinboliko izugarriaren ondoan, bereizkeriazko traturik ez pairatzeko oinarritzko eskubidea zalantzan jartzen da. Alde horretatik, lehenago aipatu dugun genero indarkeriaren fenomenoak –egun gizartearen arazo dramatikoetatik jotzen dena– duela urte gutxira arte “bikote kontuak” edo “etxeako arazoak” zirelakoan, erakundeek inola esku hartzerik ez zuten arazo modura, gutxien zirela gogoratzea komeniko litzateke. Egun, gizarteko gaitz horren egiturazko jatorria agerian jarri eta gero, botere publikoek arazoa desagerrarazteko borrokan duten erantzukizuna beren gain hartu behar izan dute.

Tira, bada, emakumeen kontrako indarkeriaren ondorioak emakumeak Alardetik kanpo utzi ditzaten ondorioekin ezertarako parekatu nahi barik, bi fenomenoek kausa komun bat daukatela aitortu behar dugu: gure kultura patriarkalak emakumeei ezartzen dien mendeko tokiaren adierazpen desberdinak dira. Onartezina iruditzen zaigu, egun, genero indarkeriaren aurrean zein esparru pribatuan gertatzen diren beste bereizkeria batzuen aurrean –esaterako, enpleguan–, erakunde publikoek jarrera pasiboa hartu edo beste alde batera begira dezaten. Urte gutxi barru, ziurrenik, inork ez du ulertuko aipatutako herri horietako udal agintariak, egoera bidegabe hori eragozteko ezer egin barik, emakumeak Alardetik kanpo laga zituzaten onarrezaketenik.

Baina berdintasunak aurrera egin dezan laguntzeko aukeraz gain, badira udal horiek Alarde publikoa eta jende guztiarentzat irekia sustatzera bideratu behar litzuketen beste motibo batzuk ere. Horrela, beste batzutan ere esan dugunez, izatez gauzatu den jaien pribatizazioak partikular multzo bati gogoko ez dituzten herritar edo gizarte taldeak jaitik kanpo lagatzeko ahalmena ematea dakar. Gaur emakumeak baztertzen dituzte, baina bihar beste pertsona batzuk utz litzateke kanpoan, jatorriarengatik, ideologiarengatik, zein beste edozergatik. Ate hori irekitzea bizikidetzaren demokratikoaren oinarritzko balioen kontrako eraso zuzena da.

Bestalde, gure iritziak, inplikaturak dauden korporazio horiek kultura ondarea eta tradizioak zaintzera behartuta daude eta horrek, kasu zehatz honetan, herriko jaiak beti egon diren tokian, esparru publikoan, alegia mantentzea esan nahi du. Bitxia da, ordea, tradizioak emakumeek soldadu modura parte har dezaten baztertzen duela irizten dioten horiek –funtsik gabe, gure aburuz–, tradizioa defendatzen ari direla ere baiesten dutela. Deigarria da, alabaina, ospakizunaren garapenean ezelako gorabeherarik ez dakarren azaleko aldarazpen baten aurka jotzeko, Alardearen izatezko sena, hau da, adierazpen publikoa, herritarra, berezkoa, partaidetzakoa, herri guztiarentzat eta, aldi berean, herria protagonista izan dadinekoko aldatzeko hautua egin dutela.

Horregatik guztiarengatik, Arartekoak, 2004an, berriro jo zuen Irun eta Hondarribiko alkateengana, bakoitzari bere herriko jaien ospakizuna ofizialki susta dezaten eskatuz. Ez zaigu jaramonik egin, berriro ere, eta emakumeak jai horietatik kanpo utzi dituzte. Baina baliteke hala gertatu den azkeneko urtea izatea, legez kontrako jarduketarik egin nahi ezean behintzat. Izan ere, onartu berri duten Emakume eta gizonezkoen berdintasunerako legean, 25.1. artikuluan –hurrengo Alardeak egiten direnean indarrean egongo da– *“debekatu egiten da emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan”*.

Pentsatzekoa da, arrazoi bat edo beste tarteko, ez dela erraza izango agindu hori interpretatu eta aplikatzea. Bestalde, ekimen hori debeku baten bidez murriztu beharrean, hobe zatekeen, agian, administrazioei beren esparruetan antolatzen diren kultur jarduketa guztietan emakume eta gizonezkoen partaidetza orekatua sustatzeko agindua zehatzago ematea –25.1. artikulua lehengo lerroalde–, jai ekitaldiak eta ekimen pribatukoak ere sartuta. Dena dela, artikulua horrek pertsonen oinarrizko eskubideak urra ditzan ikuskizun publikorik baimentzea eragozten duen 4/1995 Legearen 18.a) artikuluan esandakoa nabarmen sendotzen du.

Azken batean, Arartekoarentzat Irun eta Hondarribiko udal-kideek 2005eko Alardeen ospakizunen aurrean hartzen duten jarrera benetako frogaz izango da lege berriaren eraginkortasuna zenbaterainokoa den neurtzeko.

Gure erakundeak aipatutako auzian izan duen esku-hartzea denetan ezagunena izango da, ziurrenik, baina ez da sexuarengatik izandako ustezko bazterketa baten aurrean garatu den bakarra. Hartara, esaterako, Gorlizeko Udalak peoi postuetarako gizonezko izangaiak lehenetsiko zituela eta emakumeei, esfortzu fisiko txikiagoa eskatzen omen zutenez, garbiketara zein lorezaintza lanpostuak adjudikatuko zizkiela erabaki zuela zioten albistean ostean abiarazi genuen ofiziozko jarduketa bat ere aipatu behar dugu. Enplegu publikora sartzeko berdintasun printzipioa urratzea ekar lezakeen zantzudun jokabidea zelakoan, Alkatearengana jo genuen, eta alkateak, erantzunean, okertu zirela onartu eta aurrerantzean, aurreiritzi sexisten ondorio garbia zirenez, halakorik saihestuko zutela hitz eman zuen.

Ustezko bereizkeria salatzen zen beste kexa bat Donostiako Udaleko enplegatutak baten zen; gizona emazteari haurdunaldian egin zioten frogaz baten ondoriozko gastu medikoak ordaindu nahi ez izan ez zizkiotelako kexatzen zen. Alabaina, administrazio hartan enplegatutako langileentzat soilik ziren gizarte prestazio osagarriak zirenez, laguntza ukatzeko arrazoi objektibo bat bazegoela eta berdintasun printzipioari kalterik egiten ez ziola iritzi genion. Pentsatu beharko litzateke, agian, gizonezkoek guraso modura dituzten erantzukizunez jabe daitezkeen bultzatzeko, etorkizunean haurdunaldiko frogak bi gurasoenak diren egintza medikotzat hartzeko aukeraz.

Beste gauza batzuetara igarota, baieztatu daitezkeen espetxean dauden emakumeak, oro har, gizonezkoak baino baldintza okerragoetan daudela. Justizia atalaren sarreran esan dugun moduan (II. kap., 8.1), generoa tarteko jasaten den bereizkeria kolektibo horren adibide gisa, Briebako espetxean (Avila) dauden emakume multzo batengandik heldu zaigun kexa aipa genezake; emakume preso horiek salatzen zutenez, arreta ginekologiko eskasa, gabezia ugarikoa ematen zieten, eta ez zituzten osasun sexuarean eta antisorgailuei buruz egoki hezten.

Pentsa liteke aipatutako gabezia hori ez dela emakume izateagatik tratatu desberdina jasotzearen adibide, espetxean asistentzia mediko espezializatuak oro har

dituen gabezien adibide baizik. Alabaina, hori hala dela onartuta ere, ezin dugu ahaztu emakume presoek bereizkeria bikoitza pairatzen dutela, preso guztien zaurgarritasun edo ahulezia bereziko egoera emakumeen kasuan are larriagoa baita. Beste batzuetan, gehienetan EAEn dauden espetxeetat ari ginela, hainbat eta hainbat arazo utzi ditugu agerian –emakumeentzat okerrago beti–, batez ere azpiegiturei dagokienez (eritegirik, gimnasiaorik, erregimen irekiko modularik eta abarrik ez). Amentzako atalik ez dagoela ere azpimarratu dugu, bereziki, horrek esan nahi baitu EAEn preso dauden amek ezin dutela hiru urtetik beherako beren haurrekin bizi. Eta aipatutako gabezia horiei guztiei beste batzuk ere gehitu behar zaizkie, hala nola, ordaindutako lana zein ikasketak egin ahal izateko dituzten oztupoak, eta abar. Azken finean, ez dugu ahaztu behar bazterketa faktore desberdinen elkarrekintzak bazterketa ondoreak ugaltzea dakarrela beti. Generoa horietako faktore bat da, baina sarritan beste batzuekin batzen da: askatasunik eza, atzerritarra izatea, pobrea, ezgaitua eta abar izatea.

Atal honekin amaitzeko, emakumeen kontrako indarkeriaren aipu bat egingo dugu, behin eta berriro ohartarazi dugunez, generoarengatik dagoenik eta bereizkeriarik muturreko eta onartezinenaren adierazpena baita. Alabaina, lehenago ere esan dugun moduan, Arartekoak sarritan ezin izaten du halako giza eskubideen urraketa larrietan esku hartu, auziak epaitegietara bideratuta daudelako. Arrazoi hori tarteko tramitera onartzerik izan ez dugun kexen artean, bat baino gehiagotan emakume kaltetua epaitegietan tratu txarrei edo erasoei buruz hartutako erabakiengatik, baita gurasoei leporatutako adingabeen eraso sexualen salaketen aurrean hartutako erabakiengatik ere, atsekabetuta zegoela nabari zitekeen.

Itxurako genero indarkeriaren beste kasu batzuetan –ezin izan dugu aztertzeraz sartu epaitegien erabakien mende jarrita zeudelako–, polizien legez kanpoko ustezko jarduketak zituzten hizpide. Batean, pertsona transexual batek tratu iraingarri eta sexista jasan zuela salatu zuen, bai ertzain-etxera eraman zuten ertzainen aldetik, bai ziegetan zelatan aritu eta gorputz miaketa egin zizkietenengandik. Kontu horretaz, epaileak funtzionarioek inolako jokabide irregularrik izan ez zutela erabaki zuen, baina ez zuen ezer esan bidaian zehar ustez egin zizkieten irainen gainean. Gure erakundeak Ertzaintzak barruko ikerketa bat egin zezan eskatu zuen arren, ertzaintzako buruek balizko diziplina falta hura indargabetuta zegoela iritzi zioten.

Bigarren kasuak, larria izanik, oihartzun handia izan du hedabideetan. Guardia Zibilak inkomunikatuta atxilo izan zuen emakume gazte batek egin zuen salaketaz ari gara; neskak zioenez, guardia zibilek tratu iraingarri eta tortura latzak egin zizkieten; aipagarria, krudelagatik, pistola batez jasan zuen ustezko bortxaketa izan zen. Gaia Herri Defendatzailearengana bideratu dugun arren –bera arduratzen baita Estatuko polizia talde desberdinak ikuskatzeaz–, tartean jarduketa judizialak daudenez, esku hartzeko oztupoa dauka. Nolanahi ere, kasu zehatzetik irtenda, garbi dago zenbait gizarte esparrutan –lan harremanak, espetxe edo atxilo tokiak, eta abar– nagusi denak gehiegikeriaz jardun dezakeen botere egoerak daudela. Zoritxarrez, sarritan kultura patriarkalak gizonei emakumeen aurrean aitortzen dien nagusitasunak jarrera hori indartzen du.

Ikuspegiz aldatuz, eta lehenago aurreratu dugun bezala, oso gutxi dira administrazio publikoek indarkeria pairatu duten emakumeen arretan irregularki jokatu dutela planteatzen duten kexak. Zoritxarrez, bai gizarteak bai kaltetutako emakumeek beraiek tratu txarren egoerak, batez ere, auzi pertsonalak direla, eta laguntza behar dutela pentsatzen segitzen dute, erakundeak aurre egin eta erantzun bat ematera behartuta dauden arazo

politikoa, gizartekoa dela pentsatu ordez. Nolanahi ere, entitate publikoek, zeharka bada ere, inola esku har lezaketela hautematen den gaiak txosten honen hurrengo atalean, *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn* txostenari jarraipena egiteari buruzko atalean jaso dira (I. kap., 1.1.15.); horra jo dezakezue.

Genero indarkeriari emandako erantzunarekin zuzenean zerikusirik ez duen arren, komeni da administrazio publikoek bereizkeria sexisten kontrako borrokari nola heltzen dioten agerian uzten duen arazo bat aipatzea. Iazko txostenean Arabako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Foru Plana bukatutzat jotzeko hartu zuen erabakia aipatu genuen. Nabarmendu genuen EAEko foru erakunde hura genero politikak eta ekintzak diseinatu, artikulatu eta ebaluatzeko berariazko zerbitzua –profesional espezializatuekin (berdintasuneko aholkulariak)– sortu zituen lehenengoa izan zela, baina deitoratzen genuen, Plana desagertzearen ondorioz, egitura organikoa ere ezabatu zutela.

Aurten, Arartekoak gertakari horiei buruz esku hartu zuen, Gizarte Ongizateko Foru Erakundearentzat (GOFE) “aukera berdintasunerako aholkulari” gisa lanean ari zen emakume funtzionarioak guregana jo zuelako; emakume hura ez zegoen ados, GOFEn lanpostuen zerrenda bigarrenez aldaraziz, lanpostu hura “*gizarte mailan esku-hartzeko teknikari goren*” bihurtzen zuen foru dekretuarekin. Dekretu horrek zioenez, aldatetarekin gizarte zerbitzuen kudeaketaren eraginkortasuna hobetu nahi zen eta, horregatik, berdintasunerako aholkularitza hura “*halako politikak kudeatzean zeukatzen zeharkakotasun handiagoko planteamendu berrira*” egokitu zen; kudeaketa horren aitzindaritza eta koordinaketa, baiesten zutenez, Lehendakaritza Sailak beretu zuen. Foru Aldundiaren antolakuntzarako autonomia errespetatuz, Arartekoak berdintasun politikak kudeatzeko zer egitura eta baliabide xedatuko ziren galdetu zuen, are gehiago Lehendakaritza Sailaren birmoldaketa berrian halako politiken garapenari buruzko inolako aurreikuspenik jasotzen ez zela ikusita.

Inplikaturako bi sailek lanpostuaren izena aldatu besterik ez zela egin erantzun zuten. Baiesten zuten, orobat, funtzionario erreklamaziogileak betetzen zuen lanpostuak GOFetik berdintasunaren alorrean garatzen ari diren ekintzetan inplikaturako segituko zuela –eta bereziki genero indarkeriaren esparruan–, Lehendakaritzatik egiten den koordinazio lanaren kalterik gabe. Berdintasun politikak garatzeko antolaketari buruz hartutako erabakiak baloratzera sartzerik ez daukagunez, arazo hartako esku-hartzea bukatutzat jo genuen, Administrazioaren jarduketan inolako irregularitasunik igarri gabe. Alabaina, halako erabakiak ez dira, gure iritziz, gai horretaz European ematen diren gidalerroen ildokoak; duela gutxi onetsi den *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legean*, ordea, gidalerro horiei segitzen zaie.

Indarkeria sexistarekin nola edo hala zerikusirik duten gaien zerrenda amaitzeko, Bilboko emakumeen elkarte batek aurkeztu zigun kexa aipatuko dugu; emakume haiek ez zeuden ados emazteari tratu txarrak eman zizkion gizona bat etorkinen elkarte bateko presidente eta legezko ordezkari izatearekin, emazteak, etxea utzi eta harrera zentro batean babestu behar izan zuen bitartean. Esparru pribatuan sortutako arazoa izan arren, eta erakunde honek ez zuen horretan esku hartzerik, erreklamaziogileei jakinarazi genien, gizartean, besteak beste, emakumeen kontrako indarkeria zein beste edozein bazterkeria modu baliatzen dutenak gaizki ikustea bezalako jarrera matxistak benetan gaitzesten ez diren bitartean, ez dela emakumeen kontrako indarkeria desagertzetik lortuko, gure iritziz.

Erreklamaziogileek administrazio publikoek ustezko erasogilea buru zuen elkar-tearen ordezkari modura ez onartzeko luzatutako eskariari dagokionez, halakorik egin ahal izateko haren eskubideak mugatzen zituen zigorra behar zela, eta, hala ere, kontua ez litzatekeela erraza izango. Printzipioz, erakundeek ezin dituzte pertsonak zigor aurrekariengatik zein auzipetuta egoteagatik baztertu. Ez emakumeek, ez eta gizarte mugimenduek ere ukatzerik ez duten bermea da, botere publikoen muga baita eta, hala den heinean, norbanakoen eskubideen indartzailea ere badelako.

### 3. Emakumeengan eragin berezia duten beste gai batzuk

Azaldu dugun moduan, gure erakundearen jarduketaren analisisan genero ikuspegia aplikatzeak tratu desberdineko kasuei erreparatu ez eze, emakumeei sarriago ukitzen dieten arazoak, zein beraientzat ondorio desberdinak ekartzen dituzten administrazio publikoen esku-hartzeak argitara ateratzea ere esan nahi du. Generoaren arabera eragin desberdinak izaten dira, gizarte sisteman jada finkatuta dauden bereizkeria eta mendetasun egoerak daudelako. Eta hori garbi ikusten da familiaren bizitza eta mendeko pertsonen zaintza antolatzearen inguruan sortzen diren auzi guztietan.

Horrela, ez da kasualitatea azkeneko gai horrekin zerikusirik duten ia kexa guztiak emakumeek jarri izana. Egoitzetako arretaren, etxez etxeko laguntzaren, etxebizitzak mugitzeko arazodunentzat egokitzearen, ezgaituen zaintza baliatzearen eta ezgaituentzako diru laguntzen eta abarren inguruko kontuak dira. Zaintzaileek sarritan esaten dute lan horiek pertsonak ahitzen dituela eta erakundeek ez dutela horren aurrean apenas ezer egiten.

Emakumeak dira, halaber, erakunde eskudunek, babesgabezia egoerak hautemanenez, seme-alaba adingabeen zaintza ukatzen dietenean zein adopzioekin edo harrerekin zerikusia duten gaietaz kexaka etortzen direnak.

Emakumeek aurkeztutako kexetaz hitz egitean, aipatu dugu, aurten, Osasun arlokoetan gizonetzkoenak gehiago izan direla. Bada erreklamazioen multzo berezi bat –bikoteek jarri ohi dutena– emakumeei beren beregi ukitzen diena: antzutasun tratamenduak hizpide direnekoa, hain zuzen. Berrito ere jaso ditugu kexak ginekologiako ikuskapenen egitarauetz –zein egitaraurik ezaz–, baina merezi du halako arretarekin lotuta dagoen kasu zehatz bat aipatzeak: abortua izan zuen emakume bati legratua egin behar zioten, baina 6 egunetz itxaron behar izan zuen. Atzerapena antolaketa arrazoi hutsengatik izan zenez, Osakidetzarengana jo genuen biltzen ziren faktore emozionalak kontuan hartu behar zirela azpimarratuz eta, horregatik, etorkizunera begira, beste paziente batzuek premiaz arduratzeko arrazoi medikorik tartekatu ezean, halako egoerak lehenesteko iradoki genien, igarritako hori bezalako atzerapenak saihesteko.

Arartekoak batzutan ezin izaten du zenbait gaitan esku hartu, administrazioaren balizko irregulartasunik salatu beharrean legezko arauketa jakin batekiko desadostasuna planteatzen dutelako. Aurten ere hala gertatu da, erakundeen zaintzapean zegoen neskato bat aldi batez hartu behar zuen emakume baten kexarekin. Legeak amatasun baimenak –amatasun biologikoaz gain– adopzio edo harrera iraunkorretara mugatzen dituenez, erreklamaziogileari izatez berdina ziren egoerei tratamendu desberdina ematen zitzaizela iruditzen zitzaion. Arrazonamendurekin bat etorritik, gure erakundeak haurren zaintzaren gizarte lanak duen balioaren kontzientzia hartuz eta hedatuz joan gaitezen bultzatu besterik egiterik ez duela iruditu zitzaigun.

Antzeko gaiak aipatzen zituen zenbait urtez bikotekide izandako gizonezkoa, bi ume zituztela, bat-batean hil zitzaionean alargun pentsioa eskatzen zuen emakumeak jarri zuen kexan –eta sarritan eskatzen dira halakoak–, legeak ezkontzarik tartean izan bada soilik aitortzen baititu pentsio horiek. Arartekoak askotan defendatu du beharizanen egoera berdinei antzeko erantzunak eman diezaien lege erreforma bat egitea komeniko litzatekeela, baina oraingoz ez da halako erreformarik gauzatu.

Halako arazoen ildotik, aurten, berriro ere, jaiotza bat inskribatzean filiaziorik ageri ez bada, gerora nortasun aipuak egiteko erabiltzeko, “*gurasoen izenen orde, arruntki erabili ohi diren beste izen batzuk idatziko direla*” dioen Erregistro Zibileko Arautegiaren arauarengatik kexa bat heldu zaigu. Ez da pertsona bakarrak egindako adopzioetan zein gizonezko batekin lotu gabeko amatasunak gauzatzen direnean asmatutako izen bat agerrarazi behar izatearen kontrako erreklamazioa egiten den lehenengo aldia. Orain arte, kexa horiek emakumeek baino ez dituzte jarri izan, baina oraingoan gizonezko adopziogile batek jarri zuen.

Arauaren helburua identifikazio hutsera begira datu bat ematea da, adoptatutako pertsonaren dokumentazioa, itxuraz, gainerako jendearenaren berdina izan dadin. Alabaina, badirudi gaurko gizarte testuinguruan neurri horrek ez duela historiako beste garai batzuetan, ezkontzatik kanpo jaiotzea jendea baztertzeko arrazoi izan litekeen garaietan izan lezakeen zentzua. Gure erakundearen aburuz, asmatutako izenak sartu behar izatea ez da ondo lotzen familiaren oraingo kontzepzioarekin –familia plural eta heterogeneoa–. Bestalde, aztertutako lege edo arau horren izaera sexista ez bada ere, egia da guraso bakarreko familiak eratzeko hautua egiten duten gehienak emakumeak direla eta, beraz, aipatutako arauketa horrek emakumei gizonezkoen baino gehiago eragiten diela.

Aurrekoetan bezala, kexa Herri Defendatzailearengana bideratu genuen; berak 2000an gomendioa luzatua zion Justizia Ministerioari indarreko araudia aldarazteko eta, guraso bakarren filiazioa baino zehazten ez denean, bestearen izen asmatua jarri ala ez jarri aukeratu ahal izateko. Gomendioa onetsi zuten arren, handik urte batzuetara ere artean erreforma aukera desberdinak aztergai zituzten. Hala ere, Herri Defendatzaileak erreklamaziogileari jakinarazi dio Erregistro Zibilaren Arautegia aldarazteko Errege Dekretuaren egitasmoak proposatutako aldarazpen hori ere sartu duela.

Gure erakundearen esparru desberdinetan senar-emazteen bereizketen ondoriozko hainbat arazo planteatu zaizkigu; zehazki, seme-alaben zaintzarekin lotutakoak, oraindik orain emakumei esleitu ohi baitzaie, nabarmenki. Ekidinezina dirudi, gizonezko askok oraindik aitatasunaren betebeharrak erabat beren gain hartu barik segitzen duten gizaratean, baina azpimarratu behar da zaintza partekatua ugaritzea, edo ondorengoen zaintzaren ardura hartzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak parekatuz joatea pertsona guztien arteko berdintasun handiagoaren adierazle liratekeela.

Pentsiorik ez ordaintzearen, bisita erregimenaren eta abarren gaineko ohiko arazoez gain, adingabeekin bizi ez den gurasoak haiei buruzko eskola gaietako albisteak jasotzeko duen eskubidearen gaineko kexak ere jaso ditugu. Duela urte batzuk, EAEko ikastegientzako jarraibide orokorrak zeudela argitu zitzaigun, non ikaslearen errendimenduaren berri, guraso aginterik kendu ez bazaie behintzat, bi gurasoei eman behar zitzaie esaten baitzen. Hala ere, gaiari buruzko erreklamazioak jasotzen segitzen dugunez, arazoa konpondu barik dagoela pentsarazi digu horrek eta, beraz, gaiari buruzko ofiziozko jarduketa generikoari ekitea erabaki dugu.

Orobat, Gipuzkoako emakume batek zegokion Foru Ogasunaren kontra jarri zuen kekek ezkontza bereizketa prozesu bat du hizpide. Senar ohiaren aldean PFEZen likidazioan berari tratu desberdina ematen ziotela zioen; hara zelan azaltzen zuen berak: prozedura judiziala tramitatzen zen bitartean –prozedura luzea izan zen– bera ezkontzat jotzen zuten, ondore guztietarako eta, ondorioz, ez zioten seme-alaba adingabeekin aitorpen bateraturik egiten uzten, eta zerga ordainketaren modalitate hura askoz ere onuragarriago ateratzen zitzaion. Senar ohia, aitzitik, bereiztuzat zeukatenez, adingabe horiei pentsio modura ematen ziena kenkari modura onartzen zioten. Foru Aldundiak zioenez, tratamendu desberdinaren arrazoia arau aplikagarriak desberdin idatzita zeudela zen zeren, aitari aplikatzen zitzaion kenkariak “*erabaki judiziala*” soilik eskatzen zuen artikulua batean finkatzen zen bitartean –esaterako, Behin Behineko Neurrien autoa–, baterako aitorpena egin ahal izateko bereizketa epai batean agerrarazi behar zen eta, kasu honetan, artean ez zegoen halakorik. Arauak hitzez hitz interpretatuz gero Foru Ogasunak egindakoa bidezkoa bada ere, garbi dago emaitzak zentzurik ez daukala eta –egoera beraren aurrean tratu desberdina eragiten duen neurrian– bidegabekoa dela; horregatik, gure erakundeak araudia aldarazi behar dela uste du, bi kasuetan edozein ebazpen judizialean islatutako izatezko banaketa nahikotzat joz.

Gure erakundera lehenengoz heldu dira “zaintzapeko bisiten” zerbitzuei buruzko kekek; zerbitzu horiek zaintza ez daukan gurasoaren eta seme-alaben arteko komunikazioa seme-alabentzat arriskutsua izan litekeen kasuetan erabiltzen dira. Garbi dago halako egoerak arazotsuak direla, beti, beraz, litekeena da inplikaturako pertsonen kekek izatea. Baina, kasuak hain direnez konplexuak eta jokoan dauden interesak hain direnez garrantzitsuak –bereziki adingabeenak–, ezinbestekoa da zerbitzua daramatenek prestakuntza eta esperientzia profesional egokiak dituztela frogatu izana; hori ez da, ordea, beti behar bezala bermatzen, administrazio arduradunek –elkarrekeko itunen bidez– ia kasu guztietan zeharka kudeatzen dituztelako. Nolanahi ere, azpimarratu behar da halako zerbitzuak eta ondo funtzionatzen dutenak behar direla.

Seme-alaben zaintzari dagokionez, halaber, aurten ere Eusko Jaurlaritzak 2002an Dekretu bidez familia eta lan bizitza uztartzeko sortu zituen neurrien aplikazioari buruzko kekek jaso dira. Oraindik zalantzan jartzen da eszedentzia edo lan murrizketa eskatzen duten gizonezkoentzat gauza bera egiten duten emakumeentzat baino diru pizgarri handiagoak eskaini daitezten. Beste txosten batzuetan azaldu dugu, jada, gizonezkoak haurren zaintzak gehiago inplika daitezten eragiteko eta, azken batean, etxeko lanak oreka handiagoz bana daitezten pentsatuta dagoen ekintza positiboko neurria izan arren, laguntzen aplikazioak espero duen emaitzaz oso bestelakoa erakusten du, zeren eszedentzia eta murrizketen % 95 emakumeek eskatu baitituzte. Egiatzapen horrek neurria berrazterarazi beharko luke, agian, baita desagerrarazi ere, lortu nahi duen helbururako desagokoa dela frogatuko balitz.

Laguntzen alderdi horri berorri dagokionez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari emakume baten kexa helarazi genion; emakume hark zioenez, aitak eta amak desberdin tratatzeak bikoteetan inolako zentzurik izan balezake ere, guraso bakarreko familietan, ordea, ez zuen inongo funtsik, zeren, aukerarik ez zegoenez, ez baitzirudien ganorazkoa lan ardua murriztuko zuena gizonezkoa izan zedin sustatu nahi izateak. Erantzunean, Administrazioak etorkizunean familia egitura desberdinen berezitasunak kontuan hartuko zituzten berariazko neurri berriak eransteko konpromisoa hartu zuen.



Indarreko neurriak aplikatzeari buruzko arazo desberdinen artean, bere kabuz lan egiten zuen pertsona batek indarreko neurri horien aplikazioarengatik aurkeztu zuena aipa liteke; kexatzen zen neurria besteren kontura lan egiten zutenentzat baino ez zelako, legeak esparru horretan soilik aurreikusten baititu eszedentziak edo lan murrizketak. Egia da, halaber, autonomo modura aritzen denak, familia bizitzarekin uztartzeko, lanaldia labur lezakeela, baina halakoetan hori egiten dela frogatzeko zailtasunak nabarmenak lirateke. Nolanahi ere, Administrazioak arlo horretan erronka bat dauka, laguntzak izateko oinarri berbera duten suposamendu guztietara hedatzen saiatzea, alegia, eta hala egin dezan iradoki dio gure erakundeak.

Tratu berdina eskatuko luketen antzeko egoera horiei dagokienez, hain daude kasu desberdin ugariak non ez baitago denetara iristerik. Aipa dezagun, esaterako, bi alaba txiki zituen Gipuzkoako bikote batek jarri zuen kexa: bi bikotekideek lanaldia murriztua hartu zuten, eskola ordutegiarekin bateragarri izan zedin; produkzio jarduera % 20 eta % 15 murriztu zuten, hurrenez hurren eta, beraz, bien artean, arauak laguntzak jaso ahal izateko finkatzen zuen % 33,3a gainditzen zuten baina, printzipioz, murrizketak norbanakoentzat pentsatuta daudenez, ez zieten laguntzarik onetsi. Egia esan, familia haren diru sarrerak araudiak eskatzen duen proportzioan jaitsiak ziren eta, bestalde, bilatu zuten irtenbidea orekatuagoa zen, alabak zaintzea zein lan murrizketak karrera profesionalarentzat ekar lezakeen balizko galera bien artean banatzearen ikuspegitik. Bestela esanda, bikote erreklamaziogilearen erabakia laguntzak sortzean jo nahi zen norabide beretik zihuan eta, beraz, familia eta lan ardurak uztartzeko beste modu baten gisara sustatu beharko litzatekeela ematen du. Horregatik, Arartekoak dagokion Sailari gaia berriz aztertzeke eta etorkizunean Dekretua, bikote erreklamaziogilearen laguntza eskaria ezestera bultzatu dituen hitzez hitzeko irakurketa egin ordez, helburuen aldetik interpretatzeko prest dagoen galdetu dio.

Erakundeetako neurrien alorra utzita, baina ardurak uztartzeko alorretik irten barrik, aipatu behar dugu Funtzio Publikoaren esparruan ere zenbait gai planteatu direla. Kasuren bat zehaztekotan, egonkortasunik gabeko bi bitarteko irakasle funtzionario emakumeren erreklamazioa aipa genezake; hezkuntza Administrazioak amatasunarengatik dauden lizentziak zelan tratatzen dituen azaltzen dute, zehazki, oporraldia baremo ondoretarako zelan zenbatzen den aldetik.

Azkeneko urteetan, gure erakundeak hainbat gomendio egin ditu aipatutako gizatalde horren eta halako lizentzietz –amatasuna, adingabeak zaintzeko eszedentzia eta abar–, ordezko lanak egiteko zerrendan nola eta non dauden kaltetu barik, guztiz gozatzeko duten eskubidearen inguruan. Dagokion kexa laburpenean ikus daitekeen moduan (II. kap., 5.2.A), oraingoan ere Hezkuntza Sailari gomendio bat zuzendu behar izan diogu, baina gure proposamena egingarria ez dela iruditu zaie.

Funtzio Publikoaren atal berean, Arabako GOFeko enplegatu baten kexaren laburpena sartu da; emakumeak lanaldi murrizketa zehatz bat eskatu zuen –tartekako txandak eginez– alaba zaindu ahal izateko. Gure erakundeari erreklamaziogilearen proposamena zentzuzkoa begitandu zitzaionez, Foru Aldundiari haren eskaria ezesteko baliatu zituen argudioak berraztertzeke eskatu genion. Foru Aldundiak ez digu erantzun eta horrela, berez, langileari lan eta familia ardurak uztatzea eragozten ari zaio.

Jorratzen ari garen arazoarekin amaitzeko, azpimarratu behar dugu, berriro ere, familia eta lan ardurak uztartzeari buruzko kexa guztiak emakumeek jarri dituztela –ala, gehienera jota, bikoteek–, eta hori ez da kasualitate hutsa. Horregatik, gogoeta bat

egin behar dugu: lege neurri horiek familia ardurak emakume eta gizonezkoen artean orekaz bana daitezzen lortu nahi duten arren, azkenean ikusten dena da emakumeak direla –ia esklusiboki– halako proposamenei heltzen dietenak. Horrek esan nahi lezake, parekatzea sustatzetik urrun, genero arrazoiengatik dauden desberdintasunak areagotzen ari direla.

Azken batean, ezabatzen zailen diren bereizkeriak rola generoaren arabera desberdin banatzean oinarritzen direnak dira eta, beste batzuetan ere agerian utzi dugun moduan, berdintasunean aurrera egingo bada, aukera bikotearen baitara eramango ez duten neurriak moldatu beharko dira, bikoteen baitan gizonezkoen eta emakumeen arteko botere desoreka berriro agertu ohi baita. Ildo horretatik lihoakeen jarduketa bat, esaterako, aitatasun baimena jartzea litzateke, aitak gozatu ezean, amarenera pilatzerik ez legokeen baimena, alegia.

## 2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEN ARAZOEI

Botere publikoek adinekoen ekonomia, osasun, gizarte edo gizarte-osasun arloko beharriari erantzun behar diete.

Beraz, osasun eta gizarte zerbitzuetako sistemak adinekoen beharriari modu integratuz hiltzen saiatu behar dira.

Gizarte zerbitzuen sistemari dagokionez, 1994. eta 1995. urteetan adinekoei EAEn egoitzetan eta egoitzetatik kanpo ematen zaien laguntzari buruzko txosten bana egin zen.

Aipatutako txostenetan agertzen ziren gaietako bat honako hau zen: egoitzen eskaintza eta egoitzetatik kanpoko laguntzarena, hala nola etxeko laguntza edo eguneko zentroak, ez ziren nahikoak, zeuden beharriari guztiak estaltzeko.

Ia hamarraldi bat iragan ondoren, laguntzako baliabideak nabarmen areagotu dira, baina biztanleria pixkanaka zahartzen joan da baita ere; hori guztia kontuan izan da EAeko adinekoen arretari buruzko txostenean.

Izan ere, aipatu txostenean islatzen da adineko biztanleriaren gehikuntzak, biztanleria osoarekiko, ia bost puntu areagotu duela zahartze-maila  $-12,4\%$   $17\%$  arte. Ezgaitasuna duten adinekoen biztanleria ere areagotu egin da.

Oinarrizko demografia-datu horiek ondoko taulan ikusi daitezke.

### Oinarrizko demografia-datuak

	1991	2001	2010
Biztanleak guztira	2.104.000	2.082.600	2.048.600
Adineko biztanleak	261.400	353.600	419.100
Ezgaitasuna duten adineko biztanleak	32.691	44.396	60.234

Ezgaitasuna duten adinekoen kopuruaren hazkunde nabariak dakarren arazoari euskal gizarte zerbitzuek eman dioten erantzunaren ondorioz, banakako laguntzarako programa eta zerbitzuak oraindik gehiago hazi dira: 1991ean, 14.515 pertsonari ematen zieten laguntza eta, hamar urte geroago, programa eta zerbitzu horien babesak 27.140 pertsonarengana iristen zen, hau da, ehuneko 87ko hazkundea izan zuen.

Babes hori honela islatzen da:

### Babesaren estaldura

Banakako laguntzarako zerbitzuak	Plazak/erabiltzaileak		Estaldura		Eraginkortasun horizontala	
	1991	2001	1991	2001	1991	2001
Egoitzak	7.848	12.125	3,00	3,43	24,01	27,31
Eguneko zentroak	232	1.611	0,09	0,46	0,71	3,63
Etxeko laguntza	6.435	13.404	2,46	3,79	19,68	30,19
Guztira	14.515	27.140	5,55	7,68	44,40	61,13

Hamarkada horretan biztanleen beharretara hurbiltzeko egindako ahalegina garrantzitsua izan zela aitortu behar den arren, hasierako egoerak gabezia ugari zituen eta, hori dela eta, 2001eko egoera egokia izatetik urrun dago:

- Euskal gerontologia-plan biek, laurogeita hamarrekoak eta laurogeita hamalaukoak, benetan lortutakoa baino estaldura nabarmen handiagoa aipatzen zuten 2000. urterako; lehenengoaren ustez, babesaren estaldura adineko biztanleen ehuneko 17 baino zerbait gehiagora zabaldu behar zen eta bigarrenak, kontserbadoreagoa, proportzio hori ehuneko 11tik gora jartzen zuen.
- Laurogeita hamalaugarreneko gerontologia-planaren helburuak ezin dira handialetzat balioetsi Araban gertatutakoa kontuan hartzen badugu. Lurralde horretan, erreferentzia-ratioak lortu egin dira, eta ezin da esan Araban babesaren hipergarapenik egon denik.
- Europako gure inguruko herrialdeetako benetako estaldurek, bai egoitzetako bai etxeko laguntzari dagokionez, alde handiz gainditzen dituzte gure gerontologia-planik handizaleenak (laurogeita hamarrekoak) defendatzen zituenak.

Gizarte- eta osasun-eremuaren sorkuntzari dagokionez, txostenean azpimarratzen da zenbait urrats esanguratsu egin direla adinekoen arretari dagozkion jarduketan eremu horren eraikuntzarantz.

Aurrera egite horretan nabarmendu beharrekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Soziosanitarioa, 2001eko urrikoa, eta Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) egindako lankidetzarako Hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoan arreta soziosanitarioa garatzeko, 2003ko urtarrilaren 30ean sinatu zena.

Erakunde arteko 2003ko Hitzarmenak administrazioen konpromisoa jasotzen du eremu soziosanitarioa eratzeko, eta eremu hori garatzeko antolaketa-egitura sendoa ezarri du:

- Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseilua, autonomia-eremua hartzen duena.
- Arreta soziosanitariorako lurralde-kontseiluak (lurralde historiko bakoitzean bat).
- Arreta soziosanitariorako lau koordinatzaile: autonomia mailako koordinatzaile bat eta hiru lurralde-koordinatzaile.
- Kontseilu bakoitzaren baitan sortutako batzorde tekniko edo sektorialak.

Gaur egun arte, adinekoen arretaren eremuan, aurrerapen interesgarriena maila teknikoan eman da: EAEn aplikagarri izango den mendekotasuna baloratzeko tresnari buruzko akordioa, 2004ko maiatzekoa.

EAEko adinekoen arretari buruzko txostenean jasotzen diren 52 gomendioetatik, adinekoen beharrei erantzuteko beharrezkoa den eskaintza publikoarekin zerikusia duten hiruak nabarmendu behar ditugu:

- 2001-2010eko denboraldian, adinekoen arazo sozialen gehikuntza gutxi gorabehera 1991-2001eko etapan egondakoaren antzekoa izango dela aurreikusten da. Beharizanen portzentaje-gehikuntza horrek, denboraldi laburragoa izateak eta 2001ean txikitat jo behar den estaldura handitu beharrak hurrengo urteetan zerbitzuen urteko gehikuntza-erritmoa neurri batean azkartzea ekarri dute.

- Proposatzen den estaldura handitzea, erronka nagusia dena, eskaintzaren alde geografikoak orekatzeko helburua kontuan hartuta burutu beharko litzateke. Erabakiek baliabide horien komunitate izaera, eta horren ondorioz, hurbileko zerbitzuen izaera, errespetatu behar dituzte.
- 2010era egoera egokian heltzeko, badirudi nahitaezkoak direla adostasun politiko zabal baten sustapena eta jarduketan planifikazio loteslea

Bestalde, ezinbestean adierazi behar dugu zenbait adinekorentzat oso zaila dela gizarte zerbitzu jakin batzuetara iristea; izan ere, zenbaitetan, adinekoak bizilekuz aldatzen dira, seme-alabaren batekin bizitzeko xedez, eta zerbitzurako sarbidea dagokion lurralde historikoan nahikoa denbora-epeaz errolatuta egoteari lotzen zaio.

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak (adinekoen batzorde sektoriala) 2002ko irailean onetsi zuen eskubideen katalogoak ondoko eskubide hau aitortzen die adinekoek: adinekoek beren familiaren artapena jasotzeko eskubidea eta familiarekin nahiz erkidegoarekin harremanak izateko eskubidea.

Hala ere, eskubide horren artikulazioa ez da beti erraza; beste zenbait arrazoiren artean, bere arretarako beharrezkoak diren zerbitzuak antolatuta daudeneko moduan mende egon daitekeelako. Gainera, harremana egon ohi da zerbitzu jakin baterako sarbidearen eta zerbitzu hori behar duenaren bizilekuaren artean. Horrek, normalean, zerbitzuaren titular den administrazioak artatzen duen lurralde-eremuan aurretiaz errolatuta egoteari dagokion eskakizuna betetzen ez duen hori ez onartzea suposatzen du.

Gizarte ongizateko alorrari dagokion sarreran, autonomia erkidego honetan lurralde historiko bateko adinekoak beste lurralde historiko bateko zerbitzuez baliatzeko duten zailtasuna aipatu dugu (adibidez, adinekoak bizilekuz aldatu eta beren seme-alaben edo beste senitartekoen etxeetara joaten direnean bizitzera).

Adinekoek familiaren artapena jasotzeko eta familiarekiko harremana mantentzeko duten eskubideak eskudun diren administrazioen arteko lankidetzak bidezkoak sustatzeko balio beharko luke, gastuak konpentsatzeko mekanismoak ezarriz horietako batek zerbitzua beste administrazio baten eskuduntzapean dagoen lurralde bateko bizilagun bati eskaintzen dionean.

Administrazio bakoitzak ezarritako aurretiazko bizileku-eskakizuna betetzen badute ere, zerbitzuen eskaintzak oraindik bere behar guztiak estaltzen ez dituen kasuetan, lankidetzak mekanismo horiek artikulatzea are eta zailagoa izan daiteke. Hala ere, ezinbestekoa da azpimarratzea adineko pertsonen desio hori legezkoa dela, eta horiei erantzuten saiatzeko ezarri daitezkeen bidezkoak familiaren artapena jasotzeko eta familiarekiko harremanak mantentzeko eskubidean oinarritzen direla.

Amaitzeko adierazi behar da adineko biztanleriaren artean pertsona ezgaituak geroz eta gehiago direnez, are eta garrantzitsuagoak direla irisgarritasuna sustatzeko neurriak, oztopo mota oro desagerraraztea bultzatuko duen diseinu unibertsalaren ideiatik abiatuta.

### 3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEN ARAZOEI

Adingabeak zuzenbidezko subjektuak dira, baina, gainera, beren ezaugarriengatik, biztanleriako alor bereziki ahula dira, bermatu behar diren berariazko eskubideak dauzkaten pertsonak. Ararteko erakundeak kolektibo honen eskubideen defentsari lehentasunez aditu dio, eta artapena jarduera-ildo desberdinetatik gauzatu da:

- adingabe bereziki babesgabeen edo ahultasun handiagoko egoeretan daudenen zenbait talderen arazo zehatzak aztertu eta jarraipena egiten;
- kexak ebatzi eta berariazko gomendioak prestatzen;
- bereziki larriak diren edo gizarte-garrantzia duten egoeren aurrean ofiziozko jarduerak garatzen;
- biztanleriaren alor honetan lan egiten duten gizarte eragile, elkarte eta erakundeekin elkarlanean.
- Beren eskubideen kultura hedatzen.

Atal honetan 2004. urtean zehar adingabe horien eskubideen defentsan, aipatutako jarduera ildo bakoitzean, burutu diren jarduera nagusiak laburbildu nahi dira. Gainera, azkeneko puntuan aurreko urteetan egindako zenbait gomendio aipatzen dira, legeen zein araudien bidez garatu beharrekoak.

#### 1. Alor bereziki ahulen gaineko arazoen azterketa eta jarraipena

Adingabeen kolektiboaren barruan badira, aldi berean, beren eskubideei dagokienez arrisku bereziko egoeretan dauden talde edo alorrak. Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta jarri du aukera gutxiko edo behar bereziko egoeretan dauden haur eta nerabe horiengan. Eta batez ere lan monografiko eta txosten berezien bidez, eta horiei egindako jarraipenaren bidez. Hartara, aurten, jarraipena ondoko zazpi alor hauetara bideratu da, nagusiki:

- haur eta nerabe babesgabeak (arrisku eta babesik gabeko egoerak);
  - bakarrik dauden adingabe atzerritarrak;
  - adingabe lege urratzaileak (neurri judizialak betetzearen mende);
  - sasoikako langileen seme-alabak (eskolatu gabeko benetako egoeretan);
  - hezkuntza behar bereziko ikasleak.
  - atxilotutako adingabeak: atxiloketaren nondik norakoak;
  - buru-gaixotasuna duten haurrak eta nerabeak.
- **Famili babesik gabeko haur eta nerabeen kasuan**, Arartekoak berariazko 42 gomendio eman zituen 1997an plazaratutako ohiz kanpoko txostenean. Geroago, gomendio horiek noraino bete ziren jakitearren, 2001ean informazio zehatza eta eguneratua eskatu zitzaizen alorrean ardura duten instituzioei, hau da, diru foru aldundiei eta Vitoria-Gasteizko Udalari. Modu horretan, egindako aurrerapenen eta artean betetzeko zeuden puntuen berri izango zen.

Aurtengo segimendua, artapena jasotzen duten kolektiboetako bati egin zaio bereziki: haren egoera ezagutzeko eta berarekin erabilitako bitartekoen berri izateko, bakarrik dauden atzerriko nerabeen kasua aztertu da, bere egoeragatik artapen berezia behar baitu (ikus txosten honetako I. kapituluko 1.1.5 eta 1.3. atalak, eta hurrengo paragrafoa). Horretaz gain, babespean dauden eta portaera arazo larriak edo zerbitzuetara egokitzeko arazoak dituzten nerabeen kasua aztertu da. Kasu horietako batean, adibidez, eragindako sute baten bidez bi adingabe erail ziren.

Ikertutako gertaerak oso larriak dira berez, eta, gainera, errealitate oso konplexua utzi dute agerian. Errealitate hori geroz eta hedatuagoa dago, edo geroz eta eragin handiagoa du babes zerbitzuetan: babesean hartutako nerabeen proportzioa, zenbaitetan familiaren beraren eskariz, geroz eta handiagoa da; kasu askotan nerabe horiek portaera arazo larriak izan ohi dituzte, eta portaera arazo horiek beren famili egoerari, aurretiazko esperientziei, drogen gehiegizko kontsumoari edo buruko osasuneko arazoei lotuta egin daitezke; eta, kasu horietan, erakundeen erantzuna zailagoa egiten da. Arartekoak aipatu kasuan izan duen esku-hartzea nahiz antzeko egoeratan aplikagarri diren zenbait gomendio txosten honetan jasota daude (ikus txosten honetako I. kapituluko 1.1.5. atala).

- Goraxeago esan bezala, azken urte honetan arreta berezia jarri da **bakarrik dauden atzerriko adingabeen** egoeran. Azken urteotan bildutako datuen arabera, kolektiboa handituz joan da pixkanaka eta pisu garrantzitsua izatera iritsi da, Bizkaiko Lurralde Historikoan bereziki, non urri geratu diren aurreikuspenak eta erakundeen erantzun ahalmena. Kolektiboari artapena emateko, oro har foru aldundiek berariazko baliabideak eta zerbitzuak erabili dituzte. Erakunde honetako kideek dauden babes zentroak (Loiu, Orduña, Martutene, Urnieta eta Vitoria-Gasteiz) bisitatu dituzte eta egoera desberdinak aztertu dituzte, alderi positiboak zein hobetu beharrekoak nabarmenduz. Egoki iritzi zaionean ofiziozko jarduerak burutu ditu ardura duten instituzioen aurrean, batez ere Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Sailean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean.

Kontuan izanik alor honetan aurretik gauzatutako jarduerak eta sektoreari buruzko ezagutza, Arartekoak bakarrik dauden atzerriko adingabeen egoerari buruzko ohiz kanpoko txosten bat egin du.

Azkeneko urtean zehar beharrezkoa izan den ikerketa-lana gauzatu da: zentro guztiak bisitatu dira berriro, babesean hartutako adingabeen lagin zabal batekin banakako elkarrizketak egin dira, lurralde historiko bakoitzeko espedienteen lagin bat aztertu da, zentroetako eta bestelako zerbitzuetako langileekin elkarrizketak eta bilerak izan dira, foru aldundiei datuak eskatu zaizkie eta horien azterketa gauzatu da,...

Ohiz kanpoko txostenaren prestaketa-lanak azkeneko fasean aurkitzen dira (azkeneko datuak sartu behar dira eta behin betiko idazketa egin behar da), eta orain arte emandako urratsen laburpen bat txosten honetan bertan jasotzen da (ikus txosten honetako I. kapituluko 1.3. atala).

- **Adingabeko lege hausleei** dagokienez, 1998ko ohiz kanpoko txostenean Arartekoak 46 gomendio luzatu zizkien instituzioei. Ondorengo jarraipenari esker, gure Erkidegoan lehendik zeuden nahiz sortu berriak diren atxiloketa-tokiak bisitatu dira aldizka (Andoio, Ortuella, Aramaio, autonomi pisuak, eta Landa eta Zumarragako zentro berriak). Horretaz gain, bilerak egin dira hainbat profesional-talderekin, eta

datuak zein balorazioak eskatu zaizkie neurriak betearazteko ardura dutenei (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetarako Zuzendaritza).

Horri guztiari esker neurrien betetze maila adierazten duten datu gaurkotuak eskuratu ditugu eta neurri horien bilakaera ezagutu eta baloratu dezakegu, baita txostenaren hasierako gomendioen betetze-maila ere.

Azkeneko urte honetan berriro bisitatu dira zenbait atxiloketa-zentro, zentro horietako profesionalekin eta Justizia Sailean gazteen justiziari buruzko ardura duten pertsonekin bilerak egin ditugu, zentro batean atzemandako gertaera eta arazo batzuk ikertu dira, eta, lehendik egindako jarraipenen arabera interesgarrienak izan zitezkeen zazpi gaietarako buruzko datuak eta informazioak eskatu eta aztertu dira.

Horren guztiaren berri xehetasunez ematen da txosten honetako I. kapituluko 1.1.6. atalean. Gobernu Kontseiluan onetsitako eta Eusko Legebiltzarrean duela gutxi eztabaidatutako “*Neurriak betearazteko 2004-2007 plana*” edo 2005eko martxoan indarrean sartzea aurreikusten den adingabearen erantzukizun penalari buruzko Legea garatzen duen Araudia ere aipatzen dira txosten honetan.

Hain zuzen ere, gai horietako batzuk dira (atxiloketa-zentroen arauketarekin edo neurriak ezartzeko edo aplikatzeko erabiltzen ari diren moduekin edo epeekin zerikusia dutenak) erakunde honen ikuspegi bermatzailetik hobekuntza-behar handiena dutenak.

- Arabara patata eta mahatsaren bilketara datozen **sasoikako langileen kasuan**, azken urteotan Arartekoak behin eta berriz nabarmendu du haiekin datozen seme-alaben egoeraz arduratu beharra. Izan ere, 2002an gaiaren berariazko azterketa egin zen berriro, eta hala jaso zen Legebiltzarrean aurkeztutako ohiz kanpoko txostenaren atal batean (*Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan*). Aurtengo txostenean ere segimenduaren bitartez lortutako hainbat datu ematen dira: azkeneko kanpainako eskolatzeari buruzkoak nahiz bizimoduan eta bizilekuetan eragina duten beste batzuei buruzkoak (ikus I. kap., 1.1.2. atala). Gai honi dagokionez baita ere, azkeneko urte honetan, Gobernu Kontseiluak urte anitzeko egitasmo bat onetsi du: “*Sasoikako Lanaren Arretarako Plan integrala 2004-2007*”. Plan horren jarduketa-lerroen artean, adingabe horien arreta aurreikusten da.
- **Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei** dagokienez, erakunde honen prestatutako txosten monografikoan, Legebiltzarrean 2001ean banatu eta eztabaidatu zenean, eskola sistemak ezgaitasun fisiko, psikiko eta zentzumenetakoen ondoriozko beharrei eta gizarte edo kultura aldetik ahulen ziren egoerei lotutako beharrei emandako erantzuna aztertzen zen. Egindako azterlanaren arabera, hamar gai bereziki kezkarri zeuden, eskubideen bermearen ikuspegitik, eta 21 gomendio egiten zitzaizkion hezkuntza administrazioari, batzuk hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari eta bere lehentasunei ukitzen diotenak, eta ikasle horien banaketa –desorekatua eta berdintasun gutxikoa– eta zentro jakin batzuetan biltzea saihesten ahalegintzen direnak. Txostena aurkeztu zenetik denbora bat igarota, eta Hezkuntza Saileko arduradunekin bilera bat egin ondoren, sail horri gomendioak betetzeko egindako jardueren gaineko lehenengo erantzun bat eskatu zitzaion, eta, ondoren, aldizka, datu eguneratuak eta informazio osagarriak eskatzen jarraitu da. Txosten honetan aurten egindako jarraipenaren laburpen zabal bat egiten da (ikus txosten honetako I. kapituluko 1.1.10. atala). Horren bidez garrantzia dela-eta edo objektibazio-aukerak direla-eta hautatu diren zenbait gaietan eman den bilakaera ikusi daiteke.



- **Buru gaixotasuna duten haur eta nerabeen egoera** jada ukituta genuen gaiaren inguruan egindako txostenaren zenbait ataletan (*Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo*). Geroago, gaia berriro aztertu zen hezkuntza behar bereziei buruzko txostenean, eta sarritan erakunde honetan kexak jasotzen dira, alorrarekin zerikusia duten alderdi desberdinetatik: babesaren ardura duten instituzioak, zerbitzuetan diharduten talde edo elkarte profesionalak, hezkuntza alorreko langileak eta gurasoak berak ere. Iazko txostenean kolektibo horrentzako zentro batera (Olako hezkuntza eta terapiarako eguneko zentroa) egin genuen bisitaren berri eman zen, eta eskuratutako informazioan oinarriturik, berriro azpimarratu genuen Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban baliabide gehiagoren beharra zegoela. Azkeneko urte honetan berriro heldu zaio gai berari.
- Bestalde, ziegen gaineko ezohiko txostenaren jarraipenean eta **atxiloketa tokietarako** ondoriozko bisitetan, arreta berezia jarri zaie adingabeak atxilotuta egotean dituzten baldintzei, bai ertzain-etxeetan eta baita udaltzaingoenetan ere (ikus txosten honetako I. kapituluko 1.1.11. atala).

\* \* \*

- Aurreko txostenetan ere esan izan dugun bezala, kolektibo hauetako bakoitzaren arazoak banan aztertzeak pentsaraz lezake elkarrekin loturarik edo harremanik ez duten adingabe taldeak direla. Ez da horrela, ordea. Sarritan –agian gero eta sarriago– egun talde horietakoren batekoa den adingabea bihar beste batean sartuta ageriko zaigu, edo egin zerbitzu jakin batean topatzen dugun adingabea bihar beste batean azalduko zaigu. Esaterako, babes zerbitzuetatik datozen, artapen psikiatrikoko arazo larriak dauzkaten, edo eskolatu gabe egon diren eta barnerapenean dauden adingabe lege urratzaileen proportzioa handia da. Txosten honetan bertan bakarrik dauden atzerriko adingabeei buruzko hurrengo txosten monografikoan helduko zaion errealitate horri buruzko datu esanguratsuak ematen dira (ikus 1.1.6. atala). Errealitate kezkarri horrek agerian jartzen du gure gizartean benetako «bazterketa zirkuituak» daudela oraindik ere, gizarte eta erakundeetatik lehenasunezko artapena behar duten adingabe kopuru jakin bati ukitzen diotenak. Horrek ezinbesteko bilakatzen du sistema eta zerbitzu desberdinen arteko lankidetzeta estua.
- Aztertutako alor bakoitzak beren beregiko arazoak dauzka. Baina egia da, halaber, denetan edo askotan arazo erkideak ikusten direla edo zenbait arazok, hain zuzen ere, horien arteko harremanak ukitzen dituztela. Hartara, esaterako:
  - gizarte- eta osasun-espazio delakoaren komplexutasuna edo garapen eskasa, eta zerbitzuen artean koordinatzeko dauden zailtasunak (harrera zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, oinarrizko gizarte zerbitzuak...) eragin txarra daukate artapenaren kalitatean eta esku-hartzeen jarraipenean eta koherentzian;
  - erakundeetako artapena, sarritan, denbora tarte jakin baterako da eta, une zehatz batean, hezkuntzako ibilbidea izan litekeenarekin zerikusirik ez duen zerbaitengatik, eten egiten da, eta jarraitasunik gabe geratzen da. Horren haritik, azkeneko urteetan jasotako informazioa kontuan hartuta, bereziki kezkarriak dirudite, batetik, babes zerbitzuetatik datozen eta erreforman dauden adingabeen proportzio handiak eta, bestetik, erreforma zerbitzuen eta babes zerbitzuen artean esku-hartzeari dagokionez jarraipena izateko dauden zailtasunak.

- Erakundeen berezko esku-hartzeez gain, erakunde honi kezkarri iruditzen zaio komunikabideetan batzuetan esandako kolektibo horietako edo horiek bezain ahulak diren beste batzuetako adingabeekin zerikusia duten albisteak nola ematen diren. Batez ere informazioa poliziaren iturrietatik datorrela dirudienean, eta gizarte alarma edo estereotipoak eta bazterkeria sendotzea eragin dezakeenean. Adingabearen interes gorenak –erakundeen erabaki eta esku-hartze guztien hatsarre zuzendaria- adingabeari ukitzen dioten gaien gainean hedatzen den informazioa gidatu behar du, eta beste edozein interes mediatikoren gainean egon.
- Txosten honetan bertan, sektorerako berariazkoa ez den baina erabat aplikagarria den gomendio orokor bat egiten dugu (ikus VI. kapitulua, Gomendio orokorrak).

## 2. Kexa eta gomendio berariazkoak

Maiz adierazi denez, erakunde honetara iritsitako kexetatik gutxiak dute lotura zuzenik adingabeekin, eta are gutxiago dira adingabeek berek aurkeztutakoak. Hala gertatzen da, antza, arrazoi desberdinak direla medio: adingabeak euren eskubideen jakitun ez direlako, erakunde hau beren defentsarako tresna ere badela ez jakitegatik, instituzioetara jotzeko ohiturarik ez dutelako edo nola egin ez dakitelako, familiarekin edo beste pertsona zein instituzioekiko duten mendetasunagatik... azken batean, eurengan bezalaxe laguntzarik gabeko beste kolektibo ahuletan eragina duten arrazoiengatik.

Biztanleriaren alor horrek harremanik handiena duen Administrazioaren zerbitzua hezkuntza zerbitzua da, zalantzarik gabe. Hartara, ikuspegi zabalago batetik, hezkuntzaren ia eremu osoak, unibertsitateko maila gorenak salbu, harreman zuzena dauka gazteen tratamenduarekin gure Erkidegoan (ikus Hezkuntza Saila, txosten honetako II. kapitulua). Badira beste zerbitzu batzuk (babes, osasun zerbitzuak, zerbitzu judizialak...), adingabeentzat beren beregi. Logikoki, kexa eta esku-hartzerik gehienak alor horietaz zuten dira.

Hartara, aurtengo kexa eta jardueren artean, ondokoak bezalako kontuak aztertu dira:

- adingabekoei erasoak leku eta egoera desberdinetan;
- nazioarteko adopzioarako eskaeretan, bikoteen egokitasunaz erabakitzeke irizpideak;
- babes-zentroen irizpideak, babesean hartutako adingabeen ihesen aurrean jarduteko;
- ertzainak ikastetxeetan baimenik gabe sartzea;
- berdinen arteko biktimizazioa hezkuntza-zentroetan;
- atxiloketa-zentro batean izandako ustezko tratatu txarrak;
- 0-3 urte bitartekoentzako eskolatzeko baldintzak eta aukerak;
- eskolatzeko aukerak eta baldintzak gurasoek eskatutako hizkuntza-ereduei dago-kienez;
- ikastetxeetako eskolatzeko baldintzak eta osasun artapena, gaixotasuna dituzten edo medikazio- eta kontrol-beharrak dituzten haurren kasuan;
- adingabeen kasuan, poliziak egiten dituen atxiloketen gorabeherak;

- tutoretzaren betetzea, eta foru aldundiek atzerritik bakarka etorritako adingabeen kasuan erabil behar dituzten irizpideak;
- eskolatzeko baldintzak hezkuntza behar bereziak dituzten adingabeentzat;
- eskolatzeko baldintzak ahultasun handiko egoeran dauden adingabeentzat, bereziki:
  - sasoikako langileen seme-alabak
  - bakarrik dauden atzerriko adingabeak
- jarraipenaren eta irizpide komunen beharra gazteentzako babes zerbitzuen eta justizi zerbitzuen artean.
- Osasun-gastuak direla-eta laguntzak emateko irizpideak.

Aurreko adibideetan ikusten denez, azkeneko urteko kexa eta jarduerarik gehienak, aurreko urteetan bezala, bi eremutara bideratu dira:

- hezkuntza: eskolatzeko baldintzak eta irizpideak, bereziki gizartean aukerarik eta babesik gutxieneko kolektiboentzat, hezkuntzako behar bereziak dituztenentzat edo hiru urtetik beherakoentzat;
- adingabeen babesa: desadostasunak erakundeen esku-hartzeen gainean;

Aurreko guztiaz gain, aurten aipatzeko modukoak dira beste kexa edo esku-hartze batzuk, adingabeen kontrako eraso, ustezko tratu txar eta abusuengatik aurkeztuak, eta gehienetan erakunde honetara iristen ez direnak. Kasu larrienen edo delituzko kasuetan, lehendabizi salatu egiten direlako edo agintari judizialek ikertzen dituztelako. Hain larriak ez diren kasuetan, berriz, zentroetan bertan ebatzi ohi direlako, hezkuntza-neurriak aplikatuz.

Aurten, hala ere, bai kexa bidez eta baita ofizioz ere, Arartekoak ustezko tratu txarren hainbat kasu larritan esku hartu du. Kasu horietakoren batean heriotzara ere iritsi da. Ondorengo atalean aipatuko ditugu kasu horiek.

### **3. Ofiziozko jarduerak bereziki larriak diren gertaeren edo egoeren aurrean**

2004. urtean, Arartekoak bereziki larriak izan ziren eta hiru adingaberen heriotza ekarri zuten zenbait kasutan esku hartu zuen. Lehenengo kasua J.C. gaztearena da. Bere suizidioa, Hondarribian, berdinen arteko jazarpen edo tratu txarren ustezko kasu batekin lotu zen. Bigarren kasua, berriz, A.M.D.S eta S.F. gazteena da. Bi neska horiek beste gazte batek eragindako sutearen ondorioz hil ziren, gaua pasatzeko erabiltzen zuten txabolan, Santurtziko udal mugartean.

Ikerketa judizialaren xedea da gertaerak argitzea, baina, horrez gain, bi kasuetan erakundeak edo Administrazioaren zerbitzuak zeudenez inplikatura, erakunde honek horiengana zuzendu zituen bere jarduerak: ikastetxea eta hezkuntzako agintariak lehenengo kasuak, eta babes-zentroa, babeseko agintariak eta polizia-zerbitzuak bigarren-goan. Txosten honetako I. kapituluaren kasu bakoitzean garatutako jardueren laburpen bat eskaintzen dugu (ikus I. kapituluko, 1.1.5. atala).

Bestalde, ondorioen larritasuna alderagarria ez bada ere, Arartekoak urte osoan zehar esku hartu du zentro batean barneratuta egoteko neurri judizialera lotutako gazte baten ustezko tratu txarren kasua argitzeko (ikus I. kapituluko 1.1.6. atala).

Aipatu kasuek agerian utzi dituzte edo argitu egin dituzte erdi-ezkutuan zeuden edo oso ezagunak ez ziren errealitateak. Errealitate horien aurrean, gainera, erakunde-erantzunean mugapen larriak ematen dira:

- Berdinen arteko jazarpen- edo biktimizazio-egoerak.
- Adingabeen arteko genero-indarkeria.
- Babes-sistemak zenbait nerabe behar bezala artatzeko dituen mugapenak.
- Barneratze-zentroek zenbait portaerei bermekin aurre egiteko dituzten mugapenak...

Txosten honetan, lehen aipatutako ataletan, Arartekoak adierazitako gaiiei buruz egiten dituen zenbait balorazio eta proposamen biltzen dira. Gainera, berdinen arteko jazarpenari dagokionez, Herritarren Partaidetzako II. Foroaren laburpena jasotzen da, orain arte emandako urratsak eta Arartekoak gaiari eta ikastetxeetako elkarbizitzari datorren ezohiko txosten batean heltzeko hartu duen konpromisoa adieraziz.

#### **4. Gizarte eragileekiko elkarlana eta gizarte sentsibilizazioa**

Biztanleriaren alor honekin zerikusia daukaten kexak gutxi direla azaltzeko, balizko arrazoi gisa, erakundea nolabait ez ezagutzea, edo adingabeek beren eskubideen gaineko, edo eskubideok gurea bezalako instantzia batean defenda ditzaketelako kontzientzi gutxi edukitzea aipatu dira, besteak beste. Azkeneko urtean burututako jarduera batzuk zio horiek moztera bideratuta zeuden, edo zuzenean zein zeharka aldarazi nahi zituzten. Askok, halaber, eskubide horien berri zabaltzeko eta gizarte osoa sentsibilizatzeko asmoz egin dira.

Jarduera horien artean, esanguratsuenak direlakoan, ondokoak azpimarratuko ditugu: lankidetzako lotura edo izandako harremanak arrisku egoeran dauden edo beren beregiko beharrak dituzten adingabeen artapenean lan egiten duten elkarte edo erakunde desberdinekin. Berriztu, Gaztaroan Ekin, Salestarrak, Fraide Hirugarrendar Kaputxinoak, Moja Hirugarrendar Kaputxinoak, Enseñantes con Gitanos erakundea, AGIPASE, Gurutze Gorria, Hezilan eta horrelako elkarte eta erakundeekin, eta baita haurren eskubideak babestuz lan egiten duten erakundeekin ere, hala nola Unicef eta Haurren Babeserako Erakundeen Plataforma. Ereku zabalagoan, edo hezkuntzarekin lotuta, ikastetxeekin, ikastetxe desberdinetako gurasoen elkarteekin, Haur Eskoletako hezitzaile-taldeekin, Sarean elkartearekin, 0-3 urte bitarteko Plataforma-Koordinatzaileekin eta abarrekin ere izan dira harremanak eta trukeak (ikus txosten honetako I. kapituluko 2.1. atala).

Elkarte eta erakundeekiko lankidetzaren esparruan Arartekoa eta erakundeko langileek elkarte horiek adingabeen arazoan gainean antolatutako foro edo topaketetan parte hartu duela ere azpimarra daiteke, bai gure Erkidegoan bai hemendik kanpo.

Ildo berean, eta hezkuntza eragileen sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatzeko modu bat gehiago bezala, Arartekoaren erakundeak bultzatutako Herritarren

Partaidetzarako II. Foroa egin zen. Lehen ere adierazi den bezala, Foro hori, berdinen arteko tratu txarrei, jazarpenari edo biktimizazioari buruzkoa izan zen.

## 5. Haurren eskubideen kultura zabaltzea haurren artean

Jarduera-ildo honetan Arartekoaren hainbat ekimen biltzen dira. Ekimen horien xedea da haurren berariazko eskubideak ezagutaraztea, hezkuntza eragileen esku giza eskubideei buruzko materialak jartzea, adingabeei erakundearen berri ematea, beren eskubideetan eragina duten arazo desberdinak eztabaidatzea, eta abar.

Horrela, 2004. urtean zehar, beste askoren artean, ondoko ekimen hauek azpimarra ditzakegu:

- Ikastetxeetara, laguntza zerbitzuetara eta haurrekin lotutako elkarteetara giza eskubideei buruzko material didaktiko berriak igorri dira: “*Sortuz-Generando*” CD interaktiboa, emakumeen eskubideei buruzkoa, eta *Gure eskubideak/Nuestros derechos* argitalpena, erakunde honek gauzatutako deialdira aurkeztu ziren eskola-lanen lagin batekin (ikus txosten honetako I. kapituluko 2.3. atala).
- EAEko ikastegietan kartelak eta erabilpen pertsonaleko egutegiak banatu dira, haurren eskubideen gaineko hitzarmena eta desberdintasunari errespetua hedatzeko asmoz.
- Arartekoaren erakundeak adingabeekin lotutako gaientzat beren beregi duen web orriaren elementu berriak sartu dira.
- Erakunde hau Gasteizko ikastegietako eskola umeen taldeei aurkeztu zaie, gure egoitza ikustera etorri direnean, udalarekin dagoen lankidetzako egitarauaren barruan.
- Gure erakundeak ikasleei aurkezteko bertara joan gaituzen eskatu diguten hainbat ikastegitako esku-hartze zuzena, normalean giza eskubideen gaineko lan sistematikoaren esparruan.

Giza eskubideen gaia sistematikoki lantzeko material didaktikoei dagokienez, berariazko lau beka-deialdiren ondorioz, azkeneko ikasturteetan zentro guztietara igorri da Bigarren Hezkuntzarako materialen karpeta bat. Haurren eskubideei buruzko beste karpeta bat ere bidali da Lehen Hezkuntzako zentroetara. Horiez gain, Bigarren Hezkuntzako zentroetara eta beste hezkuntza-zerbitzuetara, karta-sorta bat, gidak eta giza eskubideak askoz ere modu ludikoagoan lantzeko beste baliabideak biltzen dituen kaxa bat bidali da. Azkenik, emakumeen eskubideei buruz duela gutxi banatu den CDA ere igorri da (ikus txosten honetako I. kapituluko 2.3. atala).

Jarduera horiek askoz ere ikuspegi zabalagoaren barruan sartu behar dira: Arartekoak adingabeen artean giza eskubideen errespetuan eta tolerantziaren eta errespetuaren balioetan oinarritutako kultura hedada dadin dituen ardura eta konpromisoan. Edozein gizarte demokratikotan beharrezkoa den eta, gurean, hainbeste urtez indarkeria eta hilketaren erabilpen sistematikoarekin bizi garen honetan are beharragoa dena. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, giza bizitzaren balio gorena defendatu nahi izan du, eta bere kudeaketan elkarrizketa, bitartekaritza eta akordioaren bilaketa baliatzen saiatu da. Bizikidetasunaren balioak hezkuntza sisteman sistematikoki jorra daitezten

proposamenak ere egin ditu. Ikasleen artean giza eskubideen gainean banatzeko eta eskoletan erabiltzeko materialak prestatu eta hedatzea langintza horretako urrats bat besterik ez da.

Horri dagokionez, Arartekoak arreta berezia eskaini nahi dio balioen gaiari eskolatuta dauden nerabeen artean.

## 6. **Betetzeko dauden aragintzarako gomendioak**

Urte hauetan zehar, erakunde honek, adingabeen egoerari buruz, araudi izaerako hainbat gomendio egin ditu. Horietako batzuk harreman zuzena dute hemen laburbildu diren arazo edo egoera gehienekin. Batez ere ondokoez ari gara:

- Gure erkidegoko haurrak eta gazteak artatuko dituen lege baten beharra, hiru lurralde historikoetarako babes sistemetan nahiz barneratze-zentroetan eragina duten irizpide berdinak eta exijitzeko oinarrizko baldintzak ezar ditzana (ikus babesik gabeko adingabeen -1997- eta adingabe lege hausleen -1998- gaineko ezohiko txostenetan egindako gomendioak eta ondorengo ohiko txostenetako 1.1.5. eta 1.1.6. atalak).
- Hezkuntza behar berezien gaineko ezohiko txostenean egindako zenbait gomendio orokor, araudizko aldarazpenak eskatzen dituztenak. (Bereziki, hezkuntza sistemaren egoera orokorra eta bere lehentasunak ukitzen dituzten lehenengo bost gomendioak) (ikus 2001eko txosten horretako 6. kap.).
- Haur hezkuntza zerotik hiru urtera bitartean araupetu beharra, 1998an erakunde honen gomendio orokor baten gai izan zena (ikus 1998ko txosteneko VI. kap., 2. atala), eta gerora hezkuntza behar berezien gaineko ezohiko txostenean berretsi genuena (ikus txosten horretako lehenengo gomendia).
- Ikastegietako ikasleen eskubide eta betebeharren araudia berrikusi beharra, hori ere gure erakundearen gomendio orokor baten gai izan zena (ikus 1997ko txosteneko VII. kap., 7.3. atala).

Iazko txostenean, atal honetan bertan, Arartekoaren erakundeak egun abian dauden zenbait ekimenei buruz egiten duen balorazioa eskaini zen, bereziki haurren eta nerabeen artapenari eta zaintzari buruzko legearen aurreproiektuari buruzkoa. Lege hori, azkenean, 2005eko otsailean onetsi zen. Oraindik gauzatzeke daude hezkuntza behar bereziei buruzko txostenean proposatutako arauzko aldaketak eta ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko araudiaren berrikuspena.

#### 4. BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREN ARAZOEI

Aurreko urteetan bezala, 2004an jaso ditugun kexetatik gutxi izan dira atzerritarren egoerari lotutakoak. Lehengo beste txosten batzuetan azaldu dugunez, gure ustez aurkeztutako kexa kopurua txikia izan da, pertsona horiek ezer gutxi dakitelako beren eskubideez eta administrazio publikoen jarduera kontrolatzeko tresnez, eta bestalde, horri instituzioetan duten mesfidantza gehitu behar zaio askotan; kontuan izan behar da, gainera, dituzten arazoetako askok lotura dutela atzerritarrentzako araubidearekin edo Estatuaren eskumenekoak diren beste alor batzuekin, eta ondorioz, maiz Herriaren Defendatzailearengana jo nahiago izaten dute kexak tramitatzeke, berari dagokiolako horrelako kasuen kontrola.

Dena dela, aurtengoan ere izan dira Estatuko Administrazioaren jarduerarekin zerikusia zuten kexak, nahiz eta, beste ekitaldietan ez bezala, Euskadiko administrazio publikoen jardueraren ondoriozkoak adina izan ia aurtengoan.

Estatu eskumeneko alorrei lotutako kexa batzuk administrazioaren funtzionamenduari buruzkoak izan dira, besteak gai hauen ingurukoak: egoitza baimena berritzeko, bisatua lortzeko eta ezkontza bidez espainiar nazionalitatea lortzeko tramiteen berandutzea.

Horrelako kexak izan dira sartzeko bisatua ez emateagatik, atzerriko gida-baimena homologatzeko eskaria atzera botatzeagatik edo egoera irregularrean zegoena kanporatzeko espedientea hasteagatik. Azkeneko kexa hori Herrizaingoaren alorretik aukeratutako kexen artean ageri da (712/2004), kapitulu honetako A) 7.2. atalean.

Kexa horiek Herriaren Defendatzaileari bidali dizkiogu tramita ditzan, bere eskumenekoak baitira.

Gure jarduera eremuari dagokionez, Portugaleteko Udalaren jarduerekin lotutako hainbat kexa jaso dugu. Honakoak dira: (a) Buena Vista zelaiko aparkaleku eremuan udaltzainak izandako esku-hartzea bat; udalerrian erroldatutako pertsona batzuk bizi ziren hor eta oinarrizko gizarte zerbitzuen laguntza jasotzen zuten; (b) udalerrian bizi diren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen laguntza jasotzen zuten pertsonen biztanleen udal erroldatik baja emateko prozedura hasi izana; eta (c) erroldatzeko eskaera bati ez erantzun izana.

Lehenbiziko jarduerari dagokionez, Udalak emandako bertsioa eta erreklamazio-egilearena nahiko desberdinak ziren. Udalaren bertsioaren arabera, eta horren aurkako beste probarik edo epaitzeko elementurik ezean, Udaltzaingoaren esku-hartzea hainbat xedapen arautzaileren arabera legezkoa zela ikusi genuen.

Dena dela, kexaren azpian zegoen kezka beste bat zela uste dugu: Portugaleteko Udalak bertan bizitzeko asmoz joaten diren atzerritarrei egiten dien harrera. Ikuspegi horretatik, horretarako duen jarduera protokoloaren berri emateko eskatu genion, baita alor horretan gizarte zerbitzuen eta Udaltzaingoaren jarduera koordinatzeko abian jarri dituen mekanismoen berri ere. Era berean, inmigrazioko toki planik bazuen galdetu genion eta horrelakorik onartuta izan ezean, horri buruzko aurreikuspenak igortzeko eskatu genion.

Baina txostena itxi dugunean Udalak oraindik ez dio eskari horri erantzun, nahiz eta hirutan eskatu lehen aipatutakoa.

Erroldan baja emateko prozedurari dagokionez, Udalari horri buruzko informazio osagarria emateko eskatu genion, eta hasieran eman zigun informazioa, gure ustez, ez

zen nahikoa jarduera legezkoa zen behar bezala aztertzeko. Bigarren eskaria egiterakoan kexa jarri zuenak adierazi bezala eragindako pertsonak udalerrian bizi al ziren galdetu genion eta oinarriko gizarte zerbitzuek artatzen al zituzten; furgonetan bizi izatea ez zen, gure iritziz, erroldatuta jarraitzeko oztopoa, 1997ko uztailaren 21eko Ebazpenaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalako presidentearenarekin eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiarenarekin baterakoa, udalei Udal Errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen dizkietena.

Eskari hori ere hirutan egin diogu Udalari, txostena amaitu dugunean artean guk eskatutako informazioa jaso ez dugun arren.

Udalak ez zigun txostena itxi aurretik hirugarren gaiari buruzko informazioak ere helarazi: biztanleen Udal Erroldan alta emateko eskariari erantzunik eman ez izana.

Bestetik, Portugaleterekin muga egiten duten Ortuellako lur batzuetan zenbait familia bizi zirela jakin genuen, eta gure informazioaren arabera bi udaletako inor ere ez zenez familia horiez arduratzen, bietara jo genuen informazio hori egiaztatu eta gure jarduera behar bezala bideratu ahal izateko. Gainera, udalerrira iristen ziren etorkinak artatzeko jarduera protokolorik eta inmigrazioko toki planik bazuen galdetu genion Ortuellako udalari, eta, bide batez, Portugaleteko Udalari ere berriro galdetu genion.

Ortuellako Udalak bidali digun informazioak ez ditu azkeneko gai horiek aipatzen. Horregatik, berriro ere eskatu egin behar izan diogu.

Portugaleteko Udalak, berriz, txosten hau itxi dugunean artean erantzun gabe jarraitzen zuen.

Aipatutako kexez gain, Bilboko San Frantzisko auzoko emakume batzuek aurkeztutakoa dago: Ertzaintzaren bi esku-hartzeren lekuko izanak ziren eta emakume horien ustez desegokiak, indarkeriaz beteak eta neurritz gaindikoak izan ziren. Kapitulu honetako A).7.1. atalean jarri dugu kexa hori, Herrizaingoaren alorreko sarreran.

Poltsa eta pasaporte harrapatu zizkiotela eta ertzain-etxe batera salaketa jarri asmoz joan zen pertsona baten kexa ere badugu. Ez zuen, ordea, salaketa jartzerik izan, dokumentu irregularrak baitzituen eta ezin baitzen identifikatu. Kexa honen laburpena (712/2004) kapitulu honen A).7.2. atalean jarri dugu, Herrizaingoaren alorrari dagokionean.

Era berean, Kubako nazionalitatea duen pertsona batek ere jo du gugana, Etxebidek ez baitzion uzten etxea eskatzen dutenen erregistroan izena ematen, bere egoera zibila izateko banandua zela kreditatu ezin zuelako; izan ere, ezin zuen dibortzio demandarik ofizialki tramitatu, hori bere jatorrizko herrialdean baino ezin zelako egin. Kexa konpontzeko zuzendu genion lankidetzeta-eskaerari erantzunez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak adierazi zigun azkenean interesatuari alta eman ziola aipatutako erregistroan.

Etorkinekin lana egiten duen elkarte batek aurkeztutako kexa dela eta, izaera orokorreko gomendio bat egin behar izan dugu euskal administrazio publikoen mendeko polizia jokabide kodeak izan ditzaten etorkinei buruz ematen duten informazioaren tratamenduari dagokionez. Gomendio hori VI. kapituluan jarri dugu, gai horri buruzko esku-hartzearen zehaztasunak hor baitaude.

Eragina izandako pertsonak edo horiek ordezkatzeko dituzten erakundeek jarri zituzten kexen ondoriozko jardueraz gain, beste esku-hartze batzuk ere egin ditugu gai honi buruz geure ekimenez; ondoren daude esku-hartze horietako alderdi azpimarragarrienak laburbilduta.



Hasteko, etorkinen osasun arloko eskariari osasun sistemak ematen dien erantzunaren inguruan egin dugun gomendio orokorra aipatu behar dugu, VI. kapituluaren jaso duguna, hain zuzen.

Aurten ere lehenagoko gomendioen segimendua eta kontrola egiten jarraitu dugu, zehazki atzerritik bakarka iritsitako adingabe arau-hausleei dagokienez, mahatsa edo patata biltzera datozen sasoikakoen kasuan, gehienak atzerritarrak izaten baitira, eta Bilboko San Frantzisko auzoan polizia egindako kontrolei dagokienez. Gai horiei buruzko informazioa txosten honen I. kapituluaren dago, egindako ez-ohiko txostenen jarraipenari dagokion epigrafean.

Atzerritik bakarka etorritako adingabeei dagokienez, laster argitaratuko dugu gure erkidegoan horiek duten egoerari buruzko txostena. Gai horri buruz orain arte egindako jardueren laburpena eta txostenaren emaitza txosten honetako I. kapituluaren daude, 1.3. atalean (*EAEn familiarik gabe dauden adingabe atzerritarren egoerari buruz laster egingo den ez-ohiko txostena*).

Aurten Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak antolatutako “Beste kulturetako herritarren osasun arloko eskariari erantzutea, bidegurutze etikoa, legala eta sanitarioa” mahai inguruan hartu du parte Arartekoak, Osasun-aseguramenduaren arloko etengabeko prestakuntzari buruzko bigarren jardunaldietan. Egindako hitzaldian hainbat gai jorratu zituen, atzerritarrek osasun sistemaz baliatzeko duten ahalbidearen ingurukoak.

Azkenik, berriz gogorarazi nahi dugu erakunde honek gai honetan aritzen diren giza taldeekin duen elkarlana. Harreman hori zehatz-mehatz aztertuta jarri dugu talde, elkarte eta gizarte eragileekin ditugun harremanei buruzko atalean, txosten honetako I. kapituluaren 2.1. atalean, hain zuzen. Hor gaiari buruzko zehazpen gehiago dago.

## 5. BERARIAZKO ARRETA EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN ARAZOEI

2004an, aurreko urteetan bezala, Arartekoaren erakundeak kexen ebazpenean eta ofiziozko jarduketan bitartez jardun du, erakundeek ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen alde nola erantzuten duten jakiteko

Bistan izan arren, adierazi behar da ezgaitasunen bat duten pertsonak gainerako herritarren eskubide berberak dituztela, baina, kasu askotan, erabiltzeko zailtasun handiak izaten dituztela. Oztopo asko agertzen zaizkie normaltasunez bizi izan eta gizarteko gainerako herritarren aukera berberak lortu ahal izateko.

Horren adibide esanguratsua eman daiteke, erakunde honi aurkeztutako banakako kexen tramitazioa zeharkako ikuspegitik aztertuz. Kexa horiek botere publikoen jardun-eremu guztiak ukitzen dituzte.

Lehenik, **funtzio publikoaren** arloari dagokionez, zenbait ekitalditan jarri izan diogu arreta berezia ezgaitasunen bat duten pertsonen enpleguari. Ildo horri jarraituz, urte honetan ofiziozko jarduketa batzuk egin ditugu EAEnko administrazio nagusiekin, horrelako pertsonen enplegu publikora sartzeko aukera ote duten modu eraginkorrean egiaztatzeko. Hori dela-eta gure ohiko jarraipen lana egin ahal izan dugu, *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* izenburupean 2003ko ekainean aurkeztutako txosten bereziari dagokionez, oraingo honetan. Txosten horren I. kapituluaren zehatz azaltzen dira jarraipen lanaren emaitzak.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen enplegu publikoari buruzko atal honetan, 2003an osasun arloan tramitatu zen eta gure azken txostenean (2003ko Txostena, II. kapituluaren 5.2.), jakinarazi genuen kexa batek ekarritako aurrekaririk abiaturik, ofiziozko jarduketa egin dugu Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren aurrean. Jarduketa horren ondorioz, ezgaitasunen bat duten pertsonak EAEnko lan merkatu arruntan sartzeko planeko –sail horren ekimenez aurkeztutako plana– arduradunak diren administrazio-agintariek konpromisoa hartu dute ulertzeko edo/eta adierazteko ezgaitasuna duten pertsonentzat eskainitako plazetara sartzeko baldintzak aldatuko dituztela. Ildo horretatik, ezagupen akademikoei buruzko proben ordez lanpostuko lanak burutzeko gaitasun-probak jartzea ahalbidetzen duten mekanismoak ezarri behar dituzte.

Beste alde batetik, hautaprobei batzuetarako deialdiaren kariak azalduz kexa dela eta, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat berariaz sarrera txanda bat ezartzeak ematen dituen sustapen-aukera guztiak agortzea komeni dela adierazi behar izan dugu (ikus 607/2004 kexaren laburpena).

Azkenik, psikiatriako espezialistak diren medikuak hautatzeko probetako plazen erreserba kudeatu den moduari buruz jasotako kexa derrigorrez azpimarratu behar da, gauza berria eta garrantzitsua baita (ikus 703/2004 kexaren laburpena).

**Hezkuntzako beharizan bereziei** buruzko atalean, berariazko lanbide heziketako ikasketak egin nahi zituzten hiru gazteek eskolatzeko zailtasunak zituztela eta, ofiziozko jarduketa egin dugu eta emaitza onak ekarri ditu. Izan ere, gure esku-hartze horretan egiaztatu ahal izan dugu azkenean konpondu egin direla hiru gazte horien arazoak, eta bide batez jakin ahal izan dugu Hezkuntza Sailak gazte ezgaituei laguntza egokia emateko asmoa duela, ikastetxetik kanpoko lantokian egiten den heziketa-faserako.

Alabaina, sentsibilitate txikiagoa ikusi dugu ezgaitasunen bat izan dezaketen ikasleak ahalik eta modu normalizatuenean integratzen saiatzerakoan. Esate baterako, hor dugu Mendikoi sozietate publikoaren ikastegian lorezaintzako heziketa zikloa egin nahi zuen gazte garun-paralisdunaren kasua.

Atal honetan nabarmentzeko modukoa deritzogu unibertsitateko ikasle baten kexari ere. Beka eman ala ez erabakitzeko orduan bere ikusmen-urritasuna kontuan har zedin eskatu zuen gazte horrek (ikus 595/2004 kexaren laburpena).

**Zergen arloan** hauxe da 2004ko berrikuntza bakarra: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ) ezgaitasunagatiko salbuespenaren aplikazioa hobetu eta zabaldu egin dela. Horrenbestez, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziko salbuespenaren parekotzat jo dezakegu.

Aldaketa horren arabera, ezgaitasunen bat duten pertsonen ibilgailuen salbuespena jada ez dago lotuta ibilgailuaren potentzia fiskalarekin eta ezgaitasuna duenak gidatu ahal izateko ibilgailuak dituen moldapenekin. Salbuespen hori ezgaituak bakarrik erabiltzeko beraren izenean matrikulaturiko edozein ibilgailuri aplikatu ahal zaio, ezgaituak berak zein beste pertsona batek gidatzea berdin delarik.

Alabaina, kontu honi buruz urtean zehar jaso ditugun kexak ikusita, esan dezakegu gure autonomia erkidegoko zenbait udalek, Gipuzkoako udal batzuek zehazki, lege aldaketa hori mesfidantza handiegiaz hartu dutela. Gure ustez, garbi dago udal horien jarduketara batzuek indarra duen legeria urratu dutela.

Erakunde honetatik saiatu gara (orain arte arrakastarik gabe baina) udal horiei ohartarazten ez dela bidezkoa euren susmoak frogatzat jotzea, alegia, onuradunei salbuespena behar bezala erabiltzen ez dutela leporatzea, eta gehiegikeria dela, inolako zalantzarik gabe, hizpide dugun salbuespenaren hedapenaz onuraturiko diren pertsona guztiek, oro har, legegileak salbuespenari eman dion xedea betetzen ez dutela a priori frogatutzat ematea.

Aipatu ditugun udal jarduketara horiek arriskuan jartzen dute, edukiz husten dutela ez esatearren, ezgaitasunagatiko TMIZko salbuespenaren egungo lege-arauketa. Hori dela eta, beharrezkotzat jo dugu gure esku-hartzea areagotzea kontu honetan. Hala bada, txosten honetan bertan, kexa jarri zaien udalei banaka bidalitako gomendioez gainera, gomendio orokor bat ere jaso dugu; bertan luze eta zabal jorratu dugu arazoa, azken finean kontu honi konponbide egokia emango zaiolakoan.

Disfuntzio fisiko edo psikikoren bat duten pertsonen kexak eragiten dituen beste arazo bat zenbait zerga salbuespeni onura atera ahal izateko ezgaitasun hori frogatu behar duten modua da. Horixe izan da, hain zuzen ere, gipuzkoar batek azaldu digun arazoa. Pertsona horrek zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia (matrikulazio zerga) ordaindu beharretik salbuetsei ahal izateko beharkizunak betetzen zituela uste zuen, baina, beraren ustez, Gipuzkoako Foru Ogasunak salbuespena lortzeko oztupoak jarri zizkion, bere ezgaitasuna erakutsi edo frogatzeko erabili nahi zuen bidea ez zelako Gizartekintzak luzatzen duen minusbaliotasun ziurtagiria bera.

Azkenik, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Saileko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak Arartekoari adierazi zion Gizarte Segurantzaren Nazio Erakundeak erabateko ezgaitasun iraunkorraren ziozko pentsioaren onarpena kreditatzeko emandako agiria onartuko zuela minusbaliotasunaren ziurtagiritzat (ikus 484/2004 kexaren azterketa zehatzagoa, ogasun arloko kexen laburpenen atalean).

2004an ere, ezgaitasunen bat duten pertsonak azaldutako kexetan behin eta berriro eskatu dute **garraibide publikoak** herritar guztiek erabili ahal izatea, mugikortasun arazoak izan nahiz ez. Horrela, Arartekoaren erakundeak jarraipena egin dien hiru jarduketa nabarmendu ditzakegu: batek Gipuzkoako EuskoTreneko lineak ukitzen ditu (ikus 787/2003 kexaren laburpena, herri lan eta zerbitzuen arloan), eta beste biak Bilboko Metroari buruzkoak dira. Azken kexa bi horietan adierazi da Bilboko Metroak lehenbailehen eman behar diela konponbidea geltokietan eta geltokietako instalazio lagungarrietan (igogailuetan) nabarmen diren bi arazori.

Bata mugikortasun urriko pertsonentzat dauden sarrera-makinetatik igarotzeko arazoei buruzkoa da. Sarrera horietatik segurtasun osoz pasatu ahal izateko neurriak jarri behar dira, izan ere, gaur egun gerta baitaiteke –eta gertatzen da– ume-kotxea edo ezgaitasuna duen pertsonaren gurgil-aulkia daraman pertsonak kolpea hartzea, ateak itxeko dispositiboak berez aktibatzen delako behin umearen kotxetxoak edo gurgil-aulkiak zelula fotoelektrikoa gainditu eta gero (arazo hau zehatzago azaltzen da herri lan eta zerbitzuei buruzko ataleko hitzaurrean.)

Bigarren kexaren jatorria Bilboko Metroko bi geltokitako igogailuak, Santutxukoa eta Abandokoa zehazki, gaueko hamaiketara zerbitzuetatik kanpo geratzea da, geltokiak zabalik irauten badute ere. Egin-eginean, garraio sozietate horrek gaueko zerbitzuak egiten ditu asteburuetan. Erakunde honen iritzitan, mugitzeko arazoak dituzten pertsonak garraibideetara mugarrik ez duten pertsonak zerbitzuak eskuratu ahal izateko dituzten baldintza berberetan sartzeko modua izan behar dute. Horrela, zerbitzuak pertsona batzuentzat eta besteentzat ordutegi berberetan hasi eta bukatu behar dira geltoki guztietan. Horretarako, zerbitzuen ordutegia amaitu arte, geltokietako instalazio lagungarriak (igogailuek, esate baterako) beti bezala funtzionatu behar dute, behar dituzten pertsona guztiek murrizketarik gabe erabili ahal izan ditzaten.

**Gizarte ongizatearen** arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bateko pertsona batek beste lurralde bateko gizarte zerbitzua erabiltzeko izandako zailtasunez kexatu dira erakunde honetan.

Adibide gisa, ezgaitasuna duen Bizkaiko pertsona batek Gipuzkoako enplegu zentro berezi batera joan nahi zuela azaldu zuen. Aipatu pertsonak egoitza zuen udalerrria eta zentroa zegoen udalerrria mugakideak ziren.

Enplegu zentro bereziak irabazteko asmorik gabe sorturiko enpresak dira eta ezgaitasunen bat duten pertsonak enplegu ordainduaren bitartez laneratzea dute helburu.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek haien finantzaketan parte hartzen dute, zenbait kasutan, kasuan kasuko lurraldeko pertsona ezgaitu batek beteriko errendimendu txikiko lanpostu bakoitzeko diru-laguntza emanez.

Azaldutako kasuan, pertsona horrek, Gipuzkoako zentro batean onartzen bazuten, ez zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzarik jasoko. Izan ere, berak laguntza jaso ahal izateko, aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorririk, zentroak Bizkaian egon behar zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza ere ez zuen jasoko, Gipuzkoako ez izateagatik.

Kasu hori sarritan gertatzen da gizarte zerbitzuen arloan. Hori dela eta, hobe da foru aldundien artean lankidetzak mekanismoak ezartzea gastuak konpentsatzeko lurralde batek beste lurralde batekoa den pertsonari zerbitzua egiten dionean, beti ere, hori justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen baldin badira.

**Hirigintza** arloaren barruan, **irisgarritasunaren** atalean, lehenik aipatu behar dugu erakunde honek Eusko Legebiltzarrean 2003ko irailaren 24an aurkeztu zuen ezohiko txostenean azaldutako gomendioen jarraipen gisa iragarri eta hasitako ofiziozko jarduketak. Txosten horren izenburua honakoa da: *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna*.

Txosten horretan aztertu ziren irisgarritasuna sustatzeko 1997ko abenduaren 4ko legea eta berau garatzen duen arautegia indarrean jarri zirenez geroztik irisgarritasunaren arloan egindako esku-hartze publikoak. Eraikinetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak zehazten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskinaz ari gara bereziki.

Aipatu azterketaren bitartez baloratu nahi zen zein neurritan hartu zuten administrazio publikoek –Eusko Jaurilaritzak, foru aldundiek eta udalek– gai horrekiko konpromisoa eta noraino bete zituzten indarrean zegoen arautegian zehazturiko betebeharrak.

Azterketarako metodologia gisa, 95 itaunez osatutako galdera-sorta zabala bidali zitzaizen EAEko udal guztiei, 250 udali zehazki. Haietatik 151k erantzun zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 77 barnean hartzen zituztenek.

Erantzun ez zuten udalerririk gehienak 5.000 biztanletik beherakoak ziren, eta, funtsean, 1.000 biztanletik beherakoak.

Edozein kasutan ere, Arartekoaren erakundeak guztiz gaitzesgarritzat jo zuen lan-kidetzarako gertutasun falta hori, batez ere 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.

Horregatik, gaitzespen hori txostenean jaso zen eta laguntza ukatu zuten udalen jarrera nabarmendu zen. Gainera, txostenaren osagarri, udalerririk horietariko bakoitzean ofiziozko jarduketak hasiko zirela iragarri zen, erabilera publikoko eraikin, instalazio eta zerbitzuetako irisgarritasunaren arloan haien egoera egiaztatzeko asmotan.

Horrela bada, 2003. urtearen bukaera aldera espedienteak hasi eta berriro ere galdera-sorta bana bidali genien Getxo, Portugalete, Arrigorriaga, Azkoitia, Galdakao, Lasarte-Oria, Audio, Mungia, Ondarroa, Pasaia, Orereta eta Zarauzko udalei.

2004an zehar galdera-sorta horien erantzunak jaso ditu erakunde honek, eta goian aipatu udalek arlo horretan etorkizunari begira egin dituzten aurreikuspenei buruzko informazio garrantzitsua lortu.

Beste alde batetik, era berean, erakunde honi emandako galdera-sortan irisgarritasunari buruzko lau urterako programarik ez zeukatela eta halakorik epe laburrean egiteko asmorik ere ez zutela adierazi zuten udalen jarraipena egitea erabaki zen.

Halaber, Eusko Jaurilaritzako sailei eta hiru foru aldundiei zuzendu gintzaizkien eta beraiek ere ez zuten lau urterako programarik. Txosten honen I. kapituluaren zehazturik daude egindako jarraipen lanaren emaitzak.

Jasotako kexen banakako tramitazioari dagokionez, egiaztatu dugu egiteko asko geratzen dela oraindik erabilera publikoko eraikinetan irisgarritasuna lortzeko.

Horren ildotik, pertsona ezgaituen elkarte batek kexa aurkeztu zuen Pasaiaiko Udalak Pasai Antxoko eta Pasai Donibaneko barrutietarako zituen hauteskunde kolegioetako irisgarritasun faltari eta Oiartzungo Udalak bere udal mugartean behar zituen hauteskunde kolegioei buruz.

Hauteskunde prozesuei buruzko arau osagarriak ezartzen dituen apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuko 1.1. artikuluan ezarritakoarekin bat, bozketa egiten den lokaletara sartzeko erraztasuna izan behar dute mugikortasun mugak dituzten pertsonak.

Pasaiako Udalak jakinarazi zigunez, hauteskundeetarako atondutako eraikinetan behin-behineko zurezko arrapalak prestatu eta instalatzea egokitzen jo zuten udal zerbitzu teknikoek, salatutako egoera berehala konpontzeko.

Pasai Donibaneko hauteskunde kolegioari dagokionez, zegoen moduan utzi beharra zutela adierazi ziguten. Edonola ere, etorkizunerako, jakinarazi ziguten Arizabalo Jauregian udaletxe berria jartzeko proiektuko obrak bukatutakoan aztertuko zela ea komeni zen, aipatutako kolegioaren ordean, egungo udaletxeko beheko solairua hauteskundeetarako erabiltzea.

Erakunde honek Pasaiako Udalarari adierazi zion teknikariek adierazitako eraikinetan zurezko arrapalak hauteskunde egunerako instalatzeko proposaturiko behin-behineko neurriari nahikoa ez zeritzola eta hobe izango zatekeela udal eraikin horietako oztopo arkitektonikoak behin betiko ezabatzeko beharrezko obrak burutzea –hori teknikoki posible izanez gero–.

Beste alde batetik, Oiartzungo Udalak jakinarazi zigun irisgarritasun arazoak Arragua auzoko hauteskunde kolegioan bakarrik zituztela, eta, aurkeztutako erreklamazioa ikusita, Osakidetza Larzabalgo anbulatorioa aipatu xederako erabiltzeko baimena eskatu ziola. Horrela, Osakidetza baimena eman die osasun etxea hauteskunde kolegio gisa erabiltzeko, harik eta auzoa horretarako egokia den azpiegituraz hornitzen duten arte.

Era berean, merkataritzako lokaletan jarduera berriak ezartzen direnean edo jarduera horiek aldatzen direnean oztopo arkitektonikoak ezabatzeko arautegia betetzen ote den begiratzeko udal ez dutela kontrolik egiten salatuzko kezak ugaritu egin direla nabarmendu nahi dugu. Legeak lehendik dauden zerbitzu edo erabilera publikoko lokalak eta eraikinak **berritzeko, handitzeko edo eraldatzeko obrei** buruz ezarritakoaren arabera, arautegian finkaturiko irisgarritasun irizpideak errespetatu behar dira. Bestelako eraikinen kasuan, eraikineko irisgarritasunari loturiko elementuek bakarrik bete behar dute baldintza hori.

Etxe partikularretan edo nekazalturismoko etxeetan ostatu emateko diren eraikinei buruz badago aurreikuspen berezi bat: arautegian jasotako irisgarritasun irizpideei unitate bat, gutxienez, egokitzeko gomendioa egiten da.

Zaharberritze obrei buruzko xedapen horiei, bazter geratzen diren kasuen eta salbuespenen gaineko arauak gehitu behar zaizkie; sistemaren funtsezko osagaiak izan arren, horiek ez dira Legean aurreikusten, irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onesten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskinean baizik. Eranskin horretan zaharberrikuntza, zabalkuntza edo eraldakuntza obrak aipatzen dira, bai hirigintzaren alorrekoak bai arkitekturaren alorrekoak.

Alde batetik, irisgarritasun baldintzak aplikatzeko orduan bi salbuespen egin litezkeela ezarri da arautetan:

- Lehenengoa ezaugarri orografikoek edo egiturazko zein formazko ezaugarriek aipatu irizpideak aplikatu ezina dakartenean gertatzen da.
- Bigarrena, berriz, eskura dagoen aurrekontu ekonomikoa ikusirik, egokitzapenak neurritz kanpoko gastua eragiten duenean gertatzen da.

Horrelako kasuetan **erabilgarritasun irizpideak** deiturikoak aplikatzeko agintzen du arauak. Irizpideok irisgarritasun baldintzetan ezarritako eskakizunak gutxitzen dituzte. Ulertu behar da eraikin, lokal edo instalazioak erabilgarriak direla baldin eta, irisgarritasun parametroak bete ez arren, mugikortasun urria duten pertsonen euren kabuz erabiltzeko eragozpenik ez badago.

Irisgarritasun baldintzetan ezarritako gainerako parametroei dagokienez, V. eranskinean ezarritako baldintza bakarra bete behar da, hau da, horiek *“ahal den neurrian aplikatzea”*. Beraz, zuhurtziarakotasun tarte zabal-zabala ematen da.

Beste alde batetik, 3.3. artikuluan benetako salbuespenak aurreikusten dira erabilgarritasun parametroak ere ezin bete diren kasuetarako. Salbuespenok emateko prozeduran, salbuespena sortzen duen inguruabarra agiri bidez frogatzeko eskatzen da. Derrigorrez, lizentzia onetsi aurretik, udal zerbitzuek alderdi horiei buruzko txostena eman behar dute. Gainera, arauak udalentsat beste kontrol-elementu bat ezartzen du: Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari salbuespen espedienteak bidali behar dizkiote, jakinaren gainean egon dadin eta, hala behar denean, salbuespena behar bezala justifikaturik dagoen zehaztu dezan.

Horregatik, merkataritzako establezimendu berrien eta, nola ez, zaharberrikuntza obrak egindakoan berriz zabaltzen diren establezimenduen irisgarritasun falta dela-eta pertsona ezgaituen elkarte askok egin dituzten erreklamazioei erantzunez, erakunde honen egitekoa jarraipen zorrotza egitea da, arautegian ezarritako kontrol neurriak hartzen diren ala ez jakiteko.

Beste alde batetik, 2004ko lehenengo hilabeteetan amaitu zen Gipuzkoako Urri-tu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak aurkeztutako kexaren tramitazioa. Donostiako **portu aldera** sartzeko debekuagatik jarri zen kexa hori; izan ere, lehenago pertsona ezgaitu batzuek bertan aparkatzen zuten ibilgailua hainbat zerbitzu eta ekipamendutara joaten zirenean.

Portu aldeko erabileren antolamenduaren aldaketak eragin zuen egoera hori: portuko inguruari eman zitzaizkion erabilera zehatzak ahalbidetzeko, trafikorako muga orokor batzuk ezarri ziren. Dena dela, uste dugu murrizketa horrek ezin zuela eragotzi irisgarritasuna sustatzeko arautegiak indarrean iraun zezan; arautegi hori nahitaez aplikatu behar zaie egoiliarak izateagatik edo portuko jarduera eta zerbitzuetan parte hartzeagatik inguru horretara sar daitezkeen pertsona guztiei, ezarritako betekizunak betez gero.

Kexa aurkeztu zuen federazioak arauaren interpretazio zabalagoa egin zitekeela adierazi zuen, pertsona ezgaituak beti ere portuan sartu ahal izan zitezkeen. Alabaina, portuko aparkalekuaren inguruetan badago erabilera publikoko beste aparkaleku bat eta antzeko funtzioa betetzen du. Hori zela eta, komenigarritzat jo genuen kexa beste xede baterantz bideratzea, Pasealeku Berritik Acuariumera eta portuko gainerako zerbitzuetara iristeko igaro behar diren eskailera-tarteen arazoa nabarmenduz.

Horretara jakin dugunez, Plan Zuzentzailean, hau da, hiriko irisgarritasun behar-rak identifikatu nahirik egindako agirian (federazioak ere hura aurkezteko ekitaldian parte hartu zuen), badago aurreikusita Pasealeku Berriko azken zatia egokitzea, eta horrenbestez arazoa konpondu egingo da.

Pertsona ezgaituen elkarte batzuek erakunde honi azaldu dioten beste gai bat, gero eta garrantzi gehiago duena, gure udalerrietan **arrapala eta eskailera mekanikoak** instalatzea da, hiri ingurunean gure orografia maldatsua onduz dauden oztupoak gainditzeko.

Pertsona ezgaituen kolektiboak zehaztu duenez, arrapala eta eskailera mekanikoak jartzeak ez du adinekoren, haur-kotxetxoak eramaten dituzten pertsonen, emakume haurdunen eta, jakina, ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonen irisgarritasun arazoa konpontzen. Pertsona horiek, hasiera batean, ezin izango dituzte aipatu instalazioak erabili.

Gainera, kolektibo horrek adierazitakoaren arabera, instalazio horiekin ez da hiri ingurune, gune publiko, eraikuntza eta informazio zein komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko III. eranskineko 5.3.5. artikuluan xedaturikoa betetzen. Izan ere, arrapala mekanikoa edo tapiz mugikorra jartzen den tokian igogailua ere instalatu behar da neurri osagarri gisa, aipatu dekretuarekin bat etorririk.

Erakunde honek arrapala eta eskailera mekanikoak instalatzeko asmoa zuten udalei informazioa eskatu zien, goian azaldutako eran. Udal horiek ezbaian jarri zuten dekretu aplikagarriaren (68/2000 Dekretua) artikuluei buruz guk egindako interpretazioa.

Era berean, kontsultaturiko udaletako bat Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari zuzendu zitzaion, zalantzako manu horiek nola ulertu behar ziren galdetzeko.

Hala bada, azterlana egin zen eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak 2004ko abenduaren 14ko bilkuran eztabaidatu zuen. Aipatutako toki erakunde horrek azterlanaren ondoriozko txostena eskuratu digu eta hemen oso-osorik jaso dugu, garrantzitsua delakoan:

**“AZTERGAIA:** *Hiri inguruneko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoei buruzko II. Eranskineko artikulua interpretatzea, hiri ingurunean eskailera mekanikoak, tapiz mugikorrek eta igogailuak instalatzeari buruzkoa, hiri inguruneetako, gune publikoetako, eraikuntzetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoei buruzko III. eranskineko 5.3.5. artikulua kontuan harturik, hiri ingurunean eskailera mekanikoak, tapiz mugikorrek eta igogailuak instalatzeari buruzkoa.*

*Hiri inguruneetako, gune publikoetako, eraikuntzetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoei buruzko II. eranskineko 3.9. artikulua, hiri ingurunean eskailera mekanikoak, tapiz mugikorrek eta igogailuak instalatzeari buruzko eranskinekoak, xedatzen duenez, “gune publiko libreetan eskailera mekanikorik, tapiz mugikorrik edo igogailurik instalatzen bada, horrelako instalazioak, irisgarritasunari eta seinaleztapenari dagokienez, eranskin honetako arauetara doituko dira; eta, beraiek eraikitzeari dagokienez, Eraikinetako Irisgarritasun Baldintza Teknikoei buruzko III. Eranskineko arauetara”.*

*Eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak arautu dituen 68/2000 Dekretuko III. eranskineko 5.3.5. artikulua xedatzen duenez, “eskailera mekaniko edo tapiz mugikorrik egonez gero, osagarri gisa jarriko da igogailua ere”.*

*Aipaturiko artikuluetariko lehenengoak eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak arautzen dituen III. Eranskinera jotzen du,*



*hiri ingurunean eskailera mekanikoak, tapiz mugikorrek eta igogailuak jartzeari dagokionez.*

Gure ustez, eranskinera jotzeko aginduaren interpretazioa hitzez hitzeko testuari lotu behar zaio. Horrexegatik jo du manuak hiri ingurunekeo irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak arautu dituen II. Eranskinera bertara, irisgarritasunari eta seinaleztapenari dagokienez.

Interpretatu behar dugunez, 68/2000 Dekretuko II. Eranskineko 3.9. artikulua "eraikuntza"ra doitzen dela esatean, eraikinetako baldintza teknikoei buruzko III. Eranskinen eskailera mekanikoen, tapiz mugikorren edo igogailuen kasuan galdagarriztat azaltzen diren "ezaugarri"ez ari gara.

Azaldutakoaren ondorioz, ez da zuzena **III. Eranskineko 5.3.5. artikuluko 2. puntuak** hiri ingurunean eskailera mekanikoak edo tapiz mugikorrek izatea igogailuarekin osatzeko eskaera ezarri nahi duela interpretatzea.

II. Eranskineko 3.9. artikuluan idatzitakoa bera zorrotasun osoz aztertzen badugu ikusiko dugunez, hark "herri gune libreetan eskailera mekanikorik, tapiz mugikorrik **edo** igogailurik instalatzen bada, ..." adierazita agerian uzten du III. Eranskineko 5.3.5. artikulua aplikatu ahal izatera, testua zorrotasun egokiz idatziko zela eta honako eduki hau izango zuela: "gune publikoetan eskailera mekanikorik, tapiz mugikorrik **eta** igogailurik instalatzen bada, ...". Izan ere, hura, eraikinei dagokienez, zorrotza da: "eskailera mekaniko edo tapiz mugikorrik egonez gero, osagarri gisa jarriko da igogailua ere".

Hau da, eraikinetan igogailuak egon beharko du eskailera mekanikorik egonez gero, eta igogailuak egon beharko du tapiz mugikorrik egonez gero. Hala ere, ezin da hori horrela ulertu gune publikoen kasuan.

Orain arte aztertutakoaren ondorioz, ulertu behar dugu hiri inguruneari aplikatu ahal zaion 68/2000 Dekretuko II. Eranskineko 3.9. artikuluko dekretu horretako III. Eranskinera aplikatzera jotzen duela horrek arautzen duenari begira, eraikinen kasuan, eskailera mekanikoak, tapiz mugikorrek eta igogailuak eraikitzeari dagokionez. "Haien eraikuntzaren inguruko alderdi" bezala ulertu behar ditugu zabalera librea, gehieneko maldak, eskubandak eta abar.

Halaber, zio berberengatik, ez dugu ulertu behar eskailera mekanikoak edo tapiz mugikorrek igogailuekin osatzeko derrigorrezkotetasunak "haien eraikuntza" adierazten duenik.

Dena den, azterketa juridiko zorrotza eginda ateratzen diren ondorioak goian azaldurikoak dira. Hori dela eta hauxe nabarmendu behar dugu:

*hautaturiko konponbideak –tapiz mugikorrek– ez du hiri ingurunea irisgarri egiten, nahi bezala. Horregatik, gure ustez, egokitutako igogailuak instalatzeari lehentasuna eman beharko litzaioke tapiz mugikorraren konponbidearen gainetik.*

*Aurrekoa azalduta, tapiz mugikorrik instalatuz gero, pentsatu beharko litzaiteke, gutxienez, tapizaren hasieran eta amaieran gelditzeko mekanismoak ezarri behar liratekeela mugikortasun urria duten pertsonak sartu eta irten ahal izateko, tapiza mugitzen ari denean ezinezkoa baitute.*

*Horra hor, bada, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eskatutako ondorio-txostena.” (sic)*

Txosten horren edukia ikusirik, Arartekoak honako oharra egin nahi ditu:

Egia esan, aipatu dekretuaren hitzez hitzeko interpretazioa eginez gero, kontuan hartu behar da III. Eranskineko 5.3.5. artikuluko 2. puntua ezin dela aplikatu hiri ingurunean arrapalak edo eskailera mekanikoak instalatzen diren kasuetan, eta horren ondorioz, ezin dela neurri osagarri gisa igogailua instalatzeko agindu.

Alabaina, interpretazio horrek ez du inola ere eragotzi behar aztergai dugun kasuan irisgarritasuna sustatzeko Legeaz (abenduaren 4ko 20/1997 Legea) egin behar dugun interpretazio teleologikoa.

Ildo horretatik, zioen azalpenean adierazten den bezala, lege horrek eredu berria ezarri nahi du honakoa bermatzeko xedez: *“pertsonen garapen osoa eta askea gizar-tean eta erkidegoan. Horretarako, inguru fisikoaren irisgarritasuna eta komunikazioarako aukera bermatu behar zaizkie gure Erkidegoko pertsona guztiei eta, bereziki, hainbat arrazoiengatik nolabaiteko mugak dituzten pertsonen.”*

Ildo horretatik, irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeko 2. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoan arau hori aplikatu ahal zaie *“nortasun fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pribatua duten subjektuek hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloan egiten dituzten jarduketa guztiei.”*

Era berean, 3.2. artikulua ezarrikoarekin bat, *“Hiri plangintzarako tresnek, xehetasunezko azterketek eta urbanizazio proiektuek eta obrak burutzeko proiektuek bereziki, behar bezala bermatuko dute beraien eremuan sarturik dauden urbanizazio elementuen eta hiri altzarien irisgarritasuna, eta ez dira onetsiko ez emango beharrezko lizentziak, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako oinarritzko irizpideak eta zehaztapenak betetzen ez badira.”*

Beste alde batetik, legeko 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk, botere publikoek pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko laguntza teknikoak erabiltzea sustatu behar dute, honakoa bermatu behar dutelarik: *“hiri ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraioaren eta komunikazio sistemen irisgarritasuna, zertarako-eta pertsona guztiek eta, bereziki, mugikortasun urria, komunikazio zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentzorial, aldi baterakoa nahiz iraunkorra, duten pertsonen inoren laguntzarik gabe erabili eta gozatu ahal izan ditzaten.”*

Azaldutakoa oinarri hartuta eta Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluaren txostenan horri buruz esandakoarekin bat etorririk, adierazi behar da arrapala edo eskailera mekanikoak edo tapiz mugikorrek instalatzeak ez duela hiri ingurunearen irisgarritasuna

bermatzen. Hori dela eta, neurri hori irisgarritasun elementutzat hartzeak ez du irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen xedea betetzen. Izan ere, ez du bermatzen pertsonak garapen osoa eta askea izatea inguru fisiko horretan.

Udal askok udalerriko toki batzuetatik besteetara joateko arazoak konpondu dituzte igogailuak edo plataforma jasotzaileak instalatuz, eta horrek pertsona guztiei bermatzen die irisgarritasuna. Adibide gisa Deba, Pasaia, Mutriku, Donostia eta abar aipatu ahal ditugu. Gure Autonomia Erkidegoko orografia malkartsu samarra denez gero, euskal administrazio publikoek ahalegin handia egin behar izango dute irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoak betetzeko.

Erakunde honi azaldutako kasuetan ez dugu behar adina informazio eskuratu, ea aipatutako hiri inguruneetan bi elementuak instalatu ote litezkeen, beharrezkoa ote litzatekeen neurrietako bat bakarrik aukeratzea, edo igogailua instalatu eta mantentzeko kostu ekonomikoa arrapala mekanikoa instalatu eta mantentzekoa baino handiagoa izango litzatekeen.

Irisgarritasunik gabekotzat jo diren elementu horietariko baten bat instalatzeko erabakia zuzenbidearekin bat datorren ala ez behar bezala baloratzeko elementu guztiak biltzearen (adibidez, luraren ezaugarri orografikoak direla-eta igogailua instalatzerik ez dagoenean, bidezkoa izan liteke arrapala instalatzea), apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskineko 3.3. artikuluan, arauak ezarritako irisgarritasun irizpideen aplikazioaren salbuespen kasuetarako prozedura zehaztu da.

Ildo horretatik, aipatu manuak ezarritakoarekin bat etorririk, agiri bidez frogatu behar dira, udal zerbitzuen txostenaren bitartez alegia, salbuespena eragiten duten zioak. Txosten hori proiektua onetsi aurretik egin behar da, eta proposaturiko neurriaren egokitasuna agertu behar du. Era berean, espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helarazi behar zaio, jakitun egon dadin.

Erakunde honetan azaldutako kasuetariko batean ere ez zaio aipatu prozedurari jarraitu eta, horren ondorioz, ez daukagu arrapala eta eskailera mekanikoak instalatzea justifika lezaketen zioei buruzko informazio nahikorik.

Bukatzeko, kontuan hartu behar dugu Konstituzioko 9.2. artikulua botere publikoei agindua eman diela gizabanakoen eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzeko eta haien osotasuna eragotzi edo zailtzen duten oztopoak ezabatzen saiatzeko.

Horregatik, Arartekoak beharrezkotzat jo du berriro ere azpimarratzea arazo honek ukitzen dituen administrazio publikoek eskatzen zaien ahalegina egin behar dutela eta behar diren neurriak hartu, gure udalerrietan hiri inguruneen irisgarritasuna bermatzeko herritar guzti-guztiei. Erakunde honen iritziz, arautegian dauden aurreikuspenak bete ahal izateko, aztergai dugun kasuan igogailu moldatuen instalazioa lehenetsi behar da eta bigarren mailako konponbidea izan behar da arrapala edo eskailera mekanikoen nahiz tapiz mugikorren instalazioa.

### III. ATALA

## **ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN**



## 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Atal honetan zehar Arartekoak burutzen duen jarduera zenbakitan bilduko dugu. Beraz, hurrengo orrialde hauetan administrazio ezberdinei eragiten dieten kexen kopurua, kexen gaikako arloak zeintzuk diren, aipatu kexak lurraldeka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan aurkitzen diren xehetasun osoz agertu eta aztertuko ditugu. Gainera, azterketa soziologikoa eginez, erreklamatzeko moduak, erabilitako hizkuntza, erreklamazioa aurkezteko erabili den bidea (faxes, Internet, ...), erreklamaziorik gabeen adina, haien jatorria, etab. ezagutuko ditugu. Ararteko erakundearen kopuruak estatistika-kapitulu honetan zehar ematen dira, baina jarraian laburpen gisa honako hiru alderdiak azpimarratuko ditugu: erakundeak eskaintzen dituen arreta eta informazioari esker, haren eta biztanleen artean sortzen den harremana; erakundearen eraginkortasun-maila; eta erreklamaziorik gabeen Arartekoaren esku-hartzeaz egiten duten balorazioa.

2004. urtean zehar 4.056 kontsulta izan ziren, erakundearengana telefonoz zuzendu diren zein gure bulegoetara bertaratu diren pertsonenak. Arartekoaren zuzeneko arretarako hiru bulegoetan bisita-kopurua 2.503 pertsonarena izan da. Jasotako bisita guztietatik 662 kexatan gauzatu dira, hau da, % 26,45. Horrek arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiatzeko lanaren –arrazoi batengatik edo besteagatik, Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak ez onartzean– garrantzia agerian uzten du. Gainera, Internet herritarrek erreklamazioak jartzeko duten bide gisa finkatu da, erakundearen web orriaren ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)) bidez aurkeztutako erreklamazioen kopurua nabarmen hazi dela. Urtean zehar, kexen % 27,04 erakundearen web orriaren bitartez heldu zaizkigu.

Kexen kopuruari dagokionez, 2004an, herritarrek guztira 1.531 erreklamazio aurkeztu dizkiote Arartekoari. Kontuan izan behar da kexetako batzuek hainbat sinaduraren babesa zutela, eta kexen % 15,09 kolektiboren batek aurkeztuak zirela.

Urtean zehar, gainera, ofiziozko 33 espedienteri eman zitzaizkien hasiera. 2004. urtean bertan tramitatu diren kexei dagokienez, 372 kasutan irregulartasunak atzeman ziren, hots, aztertu diren banakako edo taldekako kexen % 33,01en. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak konpondu ahal izan zituzten, irregulartasunen bat agertu zuten erreklamazioen % 90,83n. Gainera, kasu gehienetan (% 96,94) ez zen beharrezkoa izan gomendiorik egitea. Hortaz, erakundearen eraginkortasun-maila oso ona dela ikus daiteke.

Jarduketa baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkestak emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso edo nahiko positibotzat jotzen da (galdekizuna erantzuten dutenen % 82,98ren ustez), baita euren arazoa konpondu da ikusterik ezin izan duten edo aurkako emaitza jaso duten pertsonen artean % 71,11k balorazio positiboa egin dute. Ia % 88k baieztatzen dute beste

pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko lieketela administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

Aurreko paragrafoetan, arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia azpimarratu dugu. Horregatik, 2004ko urtariletik gure bulegoetara bertaritzen diren pertsonari eskatzen diegu erakundera egindako bisitan jaso dituzten arreta eta informazioari buruzko balorazioa eta iradokizunak helarazteko, beren borondatez eta izena agertu gabe. Betetako galdekizunen datuak laburbilduz, herritarren % 95,4k bisitan eskuratutako informazioa ona edo oso ona izan dela uste dutela konturatzen gara.

### **Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila**

	%	%
<b>Konpondutako irregulartasuna .....</b>		90,83
Gomendiorik gabe.....	96,94	
Gomendioa onartuta.....	3,06	
<b>Konpondu gabeko irregulartasuna</b>		
(gomendioa ez da onartu).....		9,17

(Ikus 2. diagrama eranskinean)

2004an aurkeztutako 1.531 erreklamazioetatik 1.118 izapidetzea onartu da, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko. Taldeek (ekologista, auzo elkarte eta abarrek) % 15,09 aurkeztu dituzte.

### **- Jasotako kexak**

Arestian esan dugunez, 2004an guztira 1.531 kexa jaso dira, eta horietako batzuek hainbat sinaduraren babesarekin etorri dira, hala nola, irakasleen egonkortasunari buruzko hitzarmen berriaren (2004-2006) gainekoa edo Gasteizko Udalaren haur eskolen zerbitzua berrantolatzeari buruzkoa.

**Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 - 2004)**

<b>Urtea</b>	<b>Kop.</b>
1989 .....	585
1990 .....	1.159 <sup>1</sup>
1991 .....	766
1992 .....	1.781
1993 .....	827
1994 .....	747
1995 .....	1.164
1996 .....	1.674
1997 .....	1.991
1998 .....	2.660 <sup>2</sup>
1999 .....	1.283 <sup>3</sup>
2000 .....	1.231
2001 .....	1.513 <sup>4</sup>
2002 .....	1.253
2003 .....	1.377
2004 .....	1.531

<sup>1</sup> 545ek kexa berdinen multzoa osatzen dute.

<sup>2</sup> 1.143k kexa berdinen bi multzo osatzen dituzte.

<sup>3</sup> 62k kexa berdinen multzoa osatzen dute.

<sup>4</sup> 264k kexa berdinen bi multzo osatzen dituzte.

(Ikus 3. diagrama eranskinean)

**- Onartu gabeko kexak**

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 21. artikulua aditzera ematen ditu herritarren kexak ez onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2004. urtean guztira zenbatutakoen artean, lehenengo eta behin, dena delakorengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka izateagatik, auzitegian planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo geratzeagatik.

Nolanahi ere, 2004. urtean erreklamazioei ahalik eta estaldura juridikorik handiena eskaintzeko politika mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako arauetara herriarrek aurkeztutako kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du herritarrei gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.



### ***Onartu gabeko kexak eta egoerak***

Eskumen eremutik kanpo .....	62
Irregularitasun eza nabaria .....	54
Epai bidean .....	50
Norbanakoen arteko auzia .....	47
Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik.....	19
Izenik gabe aurkeztu da.....	16
Formazko akatsa.....	12
Legezko epeen zain egon beharra .....	8
Estatuko Herri Defendatzailearekiko bikoiztasuna .....	5
Bidezko interesik eza .....	3
Urtebetetik gora igaro da .....	3
<b>Guztira.....</b>	<b>279</b>

(Ikus 4. diagrama eranskinean)

### **- Estatuko Herri Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak**

Badira Estatuko administrazioaren jardueraren aurkako kexak, gure Ararteko erakundeak zuzenean izapidetzen ez dituenak, ez daudelako gure kontrolpean. Erreklamazio horiek Estatuko Herri Defendatzailearengana bideratzen dira. Beste kexa batzuk beste autonomia-erkidego batzuetako parlamentuetako mandatariengana bideratzen dira, haien eskumen eremupean dauden administrazio publikoei buruzkoak dira eta.

2004an 88 erreklamazio Estatuko Herri Defendatzaileari bidali dizkiogu eta beste 5 beste defendatzaile batzuei.

Estatuko Herri Defendatzaileari bidalitako kexak .....	88
Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak.....	5

### **- Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak**

Badira erreklamazio batzuk, onartu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazio baten jarduera jakin baten aurka zehazki zuzendu ez direnak, eta horiek, estatistiken aldetik bereizita zenbatzen dira. Planteatutako arazoa konpontzeko hainbat kudeaketa egin behar izan dituguneko kexak dira, era askotako gaiak jorratzen dituztenak. 2004an 39 jaso dugu.

Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak .....	39
---	----

**- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa kopurua ondo interpretatzeko modua**

Lehenengo hurbiltze batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduketek eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa kopurua handia izatea estu lotuta dagoela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaren gainean duten iritzi txarrarekin, akatsak, gehiegikeriak, edo legea betetzen ez duten jarduketak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da aurreko lerrokadan kexa kopuruaren interpretazioari buruz azaldutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela aurretiaz administrazio jakin baten jarduketak eragindako kexa kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egin beharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

## 2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak eurei lotutako gaikako arloen arabera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu 2004an aldaketa batzuk egon direla arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez. Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan izandako kexen kopurua nabarmen hazi da, Donostiako hainbat establezimendutan egindako berritze-lanei dagokienez irisgarritasun araudia ez betetzearen ondorioz jarritako kexen eraginez.

### *Zuzenean bideratutako kexen banaketa, jarduera-eremuka*

	<b>Jasotako kexak</b>	<b>%</b>
Hirigintza eta Etxebizitza.....	239	21,38
Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	174	15,56
Herrizaingoa.....	104	9,30
Funtzio Publikoa .....	98	8,77
Ogasuna .....	93	8,32
Hezkuntza .....	89	7,96
Ingurumena .....	89	7,96
Osasuna.....	81	7,24
Gizarte Ongizatea .....	72	6,44
Justizia.....	34	3,04
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa.....	23	2,06
Kultura eta Elebitasuna .....	14	1,25
Lana eta Gizarte Segurantzza .....	8	0,72
<b>Guztira.....</b>	<b>1.118</b>	<b>100</b>

(Ikus 5. diagrama eranskinean)

### **- Kexen sailkapena azpiarloka**

2004an jasotako kexak gaika aztertuz gero, hurrengo koadroan azpiarlo bakoitzak gaikako arlo bakoitzean (Ararteko erakundeak horietan sistematizatzen du bere lana) egon diren aldaketetan duen eragina ikusten da.

### *Jasotako kexen banaketa jardueraren azpiarloen arabera*

<b>Hirigintza eta Etxebizitza.....</b>	<b>239</b>
Etxebizitza .....	84
Irisgarritasuna .....	73
Hirigintza Diziplina eta Aurria.....	47
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	16
Hirigintza antolamendua .....	12
Hirigintza kudeaketa .....	6
Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.....	1

<b>Herri Lanak eta Zerbitzuak</b> .....	<b>174</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	54
Tokiko zerbitzu publikoak.....	31
Garraioa.....	14
Landa bide eta errepideak.....	11
Beste batzuk.....	9
Beste zerbitzu publiko batzuk.....	9
Obren burutzapena.....	7
Obren proiektuak.....	7
Nahitaezko desjabetzea.....	4
Irisgarritasuna.....	2
<b>Herrizaingoa</b> .....	<b>104</b>
Trafikoa.....	70
Eskubideak eta askatasunak.....	14
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	10
Jokoak eta ikuskizunak.....	5
Herritarren segurtasuna.....	2
Atxiloketa-zentroak.....	1
Beste batzuk.....	1
Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.....	1
<b>Funtzio Publikoa</b> .....	<b>98</b>
Irakaskuntzako funtzio publikoa.....	32
Osasuneko funtzio publikoa.....	32
Funtzio publiko orokorra.....	27
Poliziaren alorreko funtzio publikoa.....	4
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	3
<b>Ogasuna</b> .....	<b>93</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	30
Udal zergak.....	22
Foru zergak, PFEZ.....	18
Udal tasak.....	10
Beste batzuk.....	5
Udal prezio publikoak.....	5
Foru aldundien prezio publikoak.....	2
Foru zergak, BEZ.....	1
<b>Hezkuntza</b> .....	<b>89</b>
Eskubideak eta betebeharrak.....	50
Unibertsitateko irakaskuntza.....	11
Ikastegiak.....	7
Haur hezkuntza.....	7
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	4
Arte irakaskuntzak.....	3

Beste batzuk .....	2	
Batxilergoa .....	1	
Helduen Hezkuntza .....	1	
Lanbide Heziketa .....	1	
Titulu akademikoak .....	1	
<b>Ingurumena .....</b>		<b>89</b>
Jarduera sailkatuak egoitzazko lurzoruan .....	63	
Ingurumenaren beste ukipen batzuk .....	18	
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	3	
Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.....	2	
Hondakinak eta isurketak.....	2	
Jarduera sailkatuak industri lurzoruan .....	1	
<b>Osasuna .....</b>		<b>81</b>
Erabiltzaileen eskubideak.....	48	
Osasun artapena .....	14	
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	11	
Beste batzuk .....	4	
Osasun publikoa.....	2	
Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.....	1	
Adimen osasuna.....	1	
<b>Gizarte Ongizatea.....</b>		<b>72</b>
Diruzko gizarte prestazioak.....	22	
Zaharrei laguntzea.....	14	
Ezgaituei laguntzea .....	8	
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	8	
Familiei laguntzea.....	7	
Haur eta nerabeei laguntzea .....	7	
Arreta berezia behar duten taldeei laguntzea .....	4	
Eskubideak eta askatasunak.....	1	
Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.....	1	
<b>Justizia.....</b>		<b>34</b>
Espetxe gaietako jarduketak .....	21	
Doako laguntza juridikoa.....	5	
Abokatu eta prokuradore bazkunak.....	4	
Justizia administrazioaren funtzionamendua .....	4	
<b>Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....</b>		<b>23</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	13	
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza.....	4	
Merkataritza.....	4	
Kontsumoa .....	1	
Beste batzuk .....	1	

<b>Kultura eta Elebitasuna .....</b>	<b>14</b>
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura .....	5
Elebitasuna .....	4
Kirola .....	2
Kultur jarduerak .....	1
Eskubideak eta askatasunak.....	1
Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.....	1
<b>Lana eta Gizarte Segurantzza .....</b>	<b>8</b>
Lana .....	6
Eskubideak eta askatasunak.....	1
Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura.....	1

### 3. ESTADISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Administrazio bakoitzari adituz, 2004. urtean kexa kopururik handiena jaso duena tokiko administrazioa izan da, guztira bideratutako kexen erdia, administrazio bakoitzari eragiten dioten kexen proportzioaren arabera. Horrek esan nahi du kexa kopurua pixka bat gehitu dela 2003. urtearen aldean, orduan % 44,51ko portzentajea zenbatu baitzen.

Gauza bera gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexekin, 2004an % 34,96 izan baitira 2003ko % 35,98ren aldean; hau da, pixka bat murriztu egin dira.

Foru administrazioak, bere aldetik, guztira aurkeztutako kexetatik % 11,21 erakarri ditu.

Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez duela irregulartasunik egin dutenik esan nahi, haren jardueraren bat kexa gai izan dela baizik.

#### **Zuzenean bideratutako kexen banaketa, ukitutako administrazioen arabera**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Toki administrazioa .....	562	50
Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza).....	393	34,96
Foru administrazioa .....	126	11,21
Herri erakundeak .....	23	2,05
Estatuko administrazioa .....	15	1,34
Justizia.....	5	0,44
Guztira.....	1.124	100

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

#### **A) Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexak**

##### **- Banaketa arloka**

Uste izatekoa denez, Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan (Funtzio Publikoa, Osasuna, Hezkuntza, Herrizaingoa, Hirigintza eta Etxebizitza) egon da kexa kopururik handiena. Ogasun Sailak, berriz, ez dauka hain pisu handirik, Eusko Jaurlaritzak gai horretan jarduera esparru txikia daukalako, udal eta aldundien aldean.

**Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren  
(Eusko Jaurlaritzan) aurka jarritako kexen banaketa arloka**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Osasuna .....	79	20,10
Hezkuntza .....	70	17,81
Hirigintza eta Etxebizitza.....	68	17,30
Funtzio Publikoa .....	56	14,25
Herrizaingoa.....	44	11,20
Gizarte Ongizatea .....	17	4,33
Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	16	4,07
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa.....	11	2,80
Justizia.....	9	2,29
Kultura eta Elebitasuna .....	8	2,03
Lana eta Gizarte Segurantzaren .....	7	1,78
Ogasuna .....	4	1,02
Ingurumena .....	4	1,02
<b>Guztira.....</b>	<b>393</b>	<b>100</b>

(Ikus 7. diagrama eranskinean)

**- Sailen arabera banaketa**

Sailen arabera, Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila dira erreklamaziorik gehien jasotzen dutenak, eta atzetik Herrizaingo eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak datoz.

**Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren  
(Eusko Jaurlaritzan) aurka jarritako kexen banaketa sailaren arabera**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Osasuna .....	103	26,21
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa ...	99	25,19
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak.....	72	18,32
Herrizaingoa.....	47	11,96
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzaren .....	27	6,87
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	12	3,05
Garraioa eta Herri Lanak.....	11	2,80
Ogasuna eta Herri Administrazioa .....	9	2,29
Kultura.....	7	1,78
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena.	5	1,27
Nekazaritza eta Arrantza.....	1	0,25
<b>Guztira.....</b>	<b>393</b>	<b>100</b>

(Ikus 8. diagrama eranskinean)



## B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak

### - Banaketa lurraldeka

2004an ere, aurreko urteetan bezala, Foru administrazioen aurka jarritako kexa gehien Gipuzkoako Aldundiak hartu ditu, guztira aurkeztutako erreklamazioetatik % 42,06 berarentzat izan baitira. Hori igoera nabarmena izan da, 2003ko ekitaldiarekin alderatzen badugu.

Hala ere, Bizkaiko eta Arabako foru administrazioen aurkako kexak gutxitu dira, Bizkaian % 37,30 izan baitira, 2003ko % 45,14aren aldean, eta Araban % 20,64, 2003ko % 30,55aren aldean.

#### *Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa lurraldearen arabera*

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	53	42,06
Bizkaiko Foru Aldundia.....	47	37,30
Arabako Foru Aldundia.....	26	20,64
Guztira.....	126	100

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

### - Banaketa arloen arabera

Gizarte Ongizatea eta Herri Lanak dira foru administrazioen aurka jasotzen diren kexa gehien eragiten duten arloak.

#### *Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, arloaren arabera*

	<b>Araba</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Gizarte Ongizatea .....	9	18	14	41	32,54
Ogasuna .....	4	7	20	31	24,60
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	4	15	10	29	23,02
Funtzio Publikoa .....	4	1	3	8	6,35
Ingurumena.....	2	1	3	6	4,76
Hirigintza eta Etxebizitza .....	2	2	1	5	3,97
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	-	3	2	5	3,97
Herrizaingoa .....	1	-	-	1	0,79
Guztira .....	26	47	53	126	100

(Ikus 9. diagrama eranskinean)

### C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak

#### - Banaketa lurraldeka

Bizkaiko lurraldeko udalen aurka jarri dira kexarik gehien, tokiko administrazioaren aurka guztira jasotakoetatik % 44,31, baina 2003ko datuekin alderatuta nabarmen gutxitu dira. Gipuzkoako udalak % 38,61 jaso dituzte (aurreko urtean % 26,03): portzentaje hori igo da pertsona ezgaituen elkarte batek erreklamazioak aurkeztu zituelako, Donostian hainbat establezimendutan egindako berritze-lanei dagokienez irisgarritasun araudia ez betetzearen ondorioz. Kexen % 13,70 Arabako udalen aurka aurkeztu ziren.

Kexa gehien jaso dituzte Donostia (120 kexa), Bilbo (89) eta Gasteizko (47) udalak. Gainera, Bizkaian Barakaldo (19), Portugalete eta Erandio bezalakoek eta Gipuzkoan Irunek ere kexa kopuru nabarmena izan dute.

#### **Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa**

	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bizkaiko udalak.....	249	44,31
Gipuzkoako udalak.....	217	38,61
Arabako udalak.....	77	13,70
Arabako administrazio batzordeak .....	9	1,60
Bizkaiko Mankomunitate, partzuergo eta parkeak .....	9	1,60
Gipuzkoako mankomunitate, partzuergo eta parkeak .....	1	0,18
Guztira.....	562	100

**Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzordeen  
aurka aurkeztutako kexak**

<b>Arabako udalak</b>	<b>Kop.</b>
Vitoria-Gasteiz.....	47
Llodio.....	5
Iruña Oka/Iruña de Oca.....	3
Labastida.....	2
Amurrio.....	2
Asparrena.....	2
Legutiano.....	2
Zigoitia.....	2
Alegria-Dulantzi.....	1
Aramaio.....	1
Arraia-Maeztu.....	1
Arrazua-Ubarrundia.....	1
Baños de Ebro/Mañueta.....	1
Barrundia.....	1
Laguardia/Biasteri.....	1
Leza.....	1
Okondo.....	1
Samaniego.....	1
Iruraiz-Gauna.....	1
Valdegovia.....	1
Guztira.....	77

<b>Arabako administrazio batzordeak</b>	<b>Kop.</b>
Arriola.....	1
Barambio.....	1
Bernedo.....	1
Hereña.....	1
Izoria.....	1
Nanclares de la Oca/ Langraiz Oka.....	1
Markina.....	1
Mendarozketa.....	1
Paul.....	1
Guztira.....	9

<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Bizkaiko udalak</b>	<b>Kop.</b>
Bilbao.....	89	Amorebieta-Etxano.....	1
Barakaldo.....	19	Arrankudiaga.....	1
Erandio.....	14	Arrigorriaga.....	1
Portugalete.....	10	Barrika.....	1
Santurtzi.....	9	Berango.....	1
Sestao.....	8	Berriatua.....	1
Getxo.....	7	Karrantza/Carranza.....	1
Sopelana.....	6	Dima.....	1
Bermeo.....	4	Ea.....	1
Durango.....	4	Elorrio.....	1
Gernika-Lumo.....	4	Galdames.....	1
Ortuella.....	4	Gatika.....	1
Atxondo.....	3	Gorliz.....	1
Berriz.....	3	Larrabetzu.....	1
Ermua.....	3	Lekeitio.....	1
Galdakao.....	3	Lemoa.....	1
Lemoiz.....	3	Lezama.....	1
Leioa.....	3	Mallabia.....	1
Abanto y Ciérvana-		Markina-Xemein.....	1
Abanto Zierbena.....	2	Mendata.....	1
Ajangiz.....	2	Mendexa.....	1
Alonsotegi.....	2	Meñaka.....	1
Bakio.....	2	Mungia.....	1
Basauri.....	2	Muskiz.....	1
Bedia.....	2	Orduña.....	1
Etxebarri.....	2	Sopuerta.....	1
Gordexola.....	2	Sondika.....	1
Zamudio.....	2	Valle de Trápaga-Trapagaran	1
Plentzia.....	2	Zaratamo.....	1
Zalla.....	2	Zeanuri.....	1
		Zeberio.....	1
		Guztira.....	249

<b>Gipuzkoako Udalak</b>	<b>Kop.</b>	<b>Gipuzkoako Udalak</b>	<b>Kop.</b>
Donostia-San Sebastián.....	120	Altzaga .....	1
Irun .....	8	Aretxabaleta.....	1
Pasaia.....	7	Astigarraga .....	1
Eibar .....	7	Bergara .....	1
Errenteria.....	7	Deba .....	1
Aia.....	5	Eskoriatza .....	1
Hondarribia.....	5	Gaintza.....	1
Elgoibar .....	4	Getaria .....	1
Lezo.....	3	Ibarra .....	1
Tolosa .....	3	Idiazabal.....	1
Urnietia.....	3	Irura .....	1
Zarautz .....	2	Itsasondo .....	1
Zumaia .....	3	Lazkao.....	1
Arrasate/Mondragón .....	2	Legazpi.....	1
Beasain.....	2	Legorreta.....	1
Lasarte-Oria .....	2	Orio .....	1
Mutriku.....	2	Ormaiztegi .....	1
Oñati.....	2	Urretxu.....	1
Villabona .....	2	Zaldibia.....	1
Oiartzun .....	2	Zestoa .....	1
Ordizia.....	2	Zumarraga .....	1
Arama .....	1		
Andoain.....	1	<b>Guztira .....</b>	<b>217</b>

### - Banaketa arloka

Ohi bezala, toki administrazioen jarduketek eragindako kexak berdin antzera banatzen dira arlo guztien artean, udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean, alegia.

2004an, Hirigintza eta Etxebizitza gaietan erreklamazioak gehitu direla ikusten (% 20,33tik % 29,17ra), lehenago azaldu dugunez irigarritasuneko araudia ez bete-tzeagatik aurkeztutako erreklamazioak direla-eta.

**Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa  
arloaren arabera**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Hirigintza eta Etxebizitza .....	15	34	112	161	29,17
Herri Lanak eta Zerbitzuak .....	32	68	38	138	25
Ingurumena.....	4	57	18	79	14,31
Herrizaingoa .....	3	42	15	60	10,87
Ogasuna .....	4	23	15	42	7,61
Funtzio Publikoa .....	6	6	11	23	4,17
Gizarte Ongizatea .....	12	8	2	22	3,98
Hezkuntza.....	5	3	2	10	1,81
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	3	3	1	7	1,27
Kultura eta Elebitasuna.....	2	2	2	6	1,09
Osasuna.....	-	2	-	2	0,36
Lana eta Gizarte Segurantza .....	-	1	-	1	0,18
Justizia .....	-	-	1	1	0,18
<b>Guztira .....</b>	<b>86</b>	<b>249</b>	<b>217</b>	<b>552</b>	<b>100</b>

(Ikus 10. diagrama eranskinean)

**Toki administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen  
aurka aurkeztutako kexak**

	Guztira
Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa .....	5
Mebisa - Bilboko Metroa .....	3
Arratiako Mankomunitatea .....	1
Ur Zerbitzuak.....	1
<b>Guztira.....</b>	<b>10</b>

**D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak**

Udal, aldundi zein Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexa horiez gain, Ararteko erakundearen ikerkuntza esparruaren barruan dauden beste administrazio batzuen aurkako zenbait erreklamazio ere jaso dira. Herri erakunde zein organismoen, bazkunen eta abarren aurkako kexak dira. Atal honetan, era berean, Estatuko administrazioaren aurkako kexak ere jasotzen dira, Arartekoak modu informalean ikertu dituenak, nahiz eta jakin badakigun Estatuko administrazioaren jardura gure erakundearen kontrol eremutik kanpo dagoela.

**Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen  
aurka aurkeztutako kexak**

	<b>Guztira</b>
Hezkuntza .....	11
Funtzio Publikoa .....	1
Guztira.....	12

**E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak**

Ararteko Erakundea arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikulua dioenez, Justizia administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Eusko Legebiltzarrean lehenago aurkeztu diren txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak Fiskaltzari, EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakariari edo, bestela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidali ohi dizkio kexak, beraiek iker ditzaten kontu horiek eta gure erakundeari egindako kudeaketan berri eman diezaioten.

2004. urtean 2 erreklamazio bideratu dira, Justizia administrazioak EAEn dituen administrazio zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez.

Justizia Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurkako kexak .....	2
--	---

#### 4. LURRALDE ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Arestiko urteetan bezala, kexa kopururik handiena, guztira 730, aurkeztu dutenak Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak izan dira, iazkoaren aldean gorabehera nabarmenik gabe. Gipuzkoan 457 aurkeztu dira (2003an 318) eta Araban 271 (aurreko urtean 322).

##### *Kexen lurralde-banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera*

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
1989 .....	288	188	97
1990 .....	828 (284) <sup>1</sup>	195	125
1991 .....	293	244	158
1992 .....	332	241	201
1993 .....	376	250	182
1994 .....	349	234	160
1995 .....	528	281	328
1996 .....	746	448	446
1997 .....	915	663	371
1998 .....	1.471 (764) <sup>2</sup>	905 (471) <sup>3</sup>	244
1999 .....	649	372 (311) <sup>4</sup>	237
2000 .....	645	295	256
2001 <sup>5</sup> .....	651	375	444
2002 .....	643	294	268
2003 .....	646	318	322
2004 .....	730	457	271

<sup>1</sup> Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>2</sup> Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>3</sup> Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>4</sup> Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>5</sup> Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 11. diagrama eranskinean)

#### - Kexen lurralde-banaketa, 10.000 biztanleko

Lurralde banaketaren arabera, kexen jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopurua lurralde horretako guztirako biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik 10.000 biztanle multzo bakoitzeko jaso diren kexei buruzko datuak jasota daude.



**Kexen lurralde-banaketa, 10.000 biztanleko**

	<b>Araba</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>
1989 .....	4,3	3,3	3
1990 .....	4,5	7,87 (2,7) <sup>1</sup>	2,9
1991 .....	5,8	3,6	2,5
1992 .....	7,4	3,5	2,8
1993 .....	6,7	3,7	3,3
1994 .....	5,9	3,5	3
1995 .....	11,59	4,54	4,11
1996 .....	15,92	6,55	6,66
1997 .....	13,24	8,03	9,77
1998 .....	8,37	12,95 (6,73) <sup>2</sup>	13,30 (6,93) <sup>3</sup>
1999 .....	8,37	5,74	5,56 (4,64) <sup>4</sup>
2000 .....	8,97	5,77	4,42
2001 <sup>5</sup> .....	15,56	5,7	5,53
2002 .....	9,37	5,73	4,37
2003 .....	11,24	5,75	4,71
2004 .....	9,46	6,50	6,77

<sup>1</sup> Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>2</sup> Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>3</sup> Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>4</sup> Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.

<sup>5</sup> Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 12. diagrama eranskinean)

**- Kexen banaketa lurraldeetariko bakoitzean**

Herritarren jokabidea ez da berdina kexen egileak non bizi diren begiratzen badugu, hau da, hiriburuan ala lurraldeko gainerako udalerrietan. Araban, erreklamazioetatik % 81,78 Gasteizen bizi diren pertsonak egin dituzte. Bizkaian % 35,03 Bilbon bizi direnek eta Gipuzkoan % 37,14 Donostian bizi direnek; zenbaki horiek eta 2003koak ia-ia berdin-berdinak dira.

**Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta**

<b>Araba</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Vitoria-Gasteiz .....	222	81,92
Beste udalerrri batzuk .....	49	18,08
Guztira.....	271	100

<b>Bizkaia</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Bilbao .....	257	35,21
Beste udalerrri batzuk .....	473	64,79
Guztira.....	730	100

<b>Gipuzkoa</b>	<b>Kop.</b>	<b>%</b>
Donostia-San Sebastián .....	171	37,42
Beste udalerrri batzuk .....	286	62,58
Guztira.....	457	100

### - Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik heldutako kexak

2004an ere Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik etorritako zenbait kexa jaso dira. Horietatik, 65 beste autonomia erkidego batzuetatik zetozen, eta 5 beste estatu batzuetatik.

<b>Beste autonomia erkidego batzuetatik jasotako kexak .</b>	<b>Kop.</b>
Kantabriako A.E. ....	16
Nafarroako F.K. ....	16
Errioxako A.E. ....	7
Gaztela-Leongo A.E. ....	5
Andaluziako A.E. ....	4
Kataluniako A.E. ....	4
Madrilgo A.E. ....	4
Valentziako A.E. ....	3
Asturiasko Printzerria .....	3
Aragoiko A.E. ....	2
Galiziako A.E.....	1
Guztira.....	65

<b>Beste estatu batzuetatik etorritakoak .....</b>	<b>Kop.</b>
Frantzia.....	5
Bolivia .....	1
El Salvador .....	1
Erresuma Batua .....	1
Guztira.....	8

## 5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA)

Jarraian aztertuko dugu zein egoeratan dagoen Arartekoari aurkeztutako erreklamazioen izapidea. 2004. urtean 1.127 espedienteren izapideak amaitu dira. Horieta-tik 555 urtean zehar aurkeztutako kexei buruzkoak izan dira, eta gainerakoak, 572, aurreko urteetan aurkeztutakoak ziren, jarri ziren urtean bertan osorik ezin izapidetu izan zirenak.

Ararteko erakundeak eman dituen ebazpenek agerian utzi dutenez, 2004an amaitutako 372 erreklamaziotan irregulartasunen bat zegoen, ukituriko administrazioaren jarduketan, hau da, kasuetatik % 33,01ean (2003an % 32,15). Ez da, ordea, inolako irregulartasunik atzeman aztertutako espedienteetatik % 42,68an.

	Guztira	Administrazioaren %	Irregulartasunik %	Beste %			
	irregulartasuna		ez	batzuk			
2004an amaitutako kexak	1.127	372	33,01	481	42,68	274	24,31

(Ikus 1. diagrama eranskinean)

### - 2004an burututako espedienteak hasierako urtearen arabera banaturik

Beheko taulan 2004an burututako espedienteak ageri dira (1.127 espediente), hasierako urtearen arabera sailkatuta.

Hasierako urtea	Kop.
1996 .....	5
1997 .....	12
1998 .....	15
1999 .....	20
2000 .....	30
2001 .....	77
2002 .....	106
2003 .....	307
2004 .....	555
2004an burututako espedienteak guztira .....	1.127

### - 2004an aurkeztutako kexak: ebatzita daudenak eta izapidetzen ari direnak

2004an zehar aurkeztutako kexei dagokienez, Ararteko erakundeak 476 ebazpen eman ditu, eta 284 kasutan ez du irregulartasunik atzeman. Bitartean, beste 541 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Izapidetzen ari diren zenbait espedientetan, kexa aztertzen hasi ondoren hainbat inguruabar agertu dira (beste ararteko batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai bideari ekin izana, eta abar). Espediente horiek *eratorritako ez-onarpena* izenpean jaso dira ondoko koadroetan.

### ***Kexa espedienteen egoera jarduera-eremuen arabera***

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza, Industria						
Merkataritza eta Turismoa .	14	8	2	4	2	1
Gizarte Ongizatea .....	37	31	5	23	3	12
Kultura eta Elebitasuna.....	10	4	1	3	-	-
Hezkuntza.....	24	50	18	32	-	6
Funtzio Publikoa.....	38	37	7	29	1	13
Ogasuna .....	37	41	11	29	1	2
Herrizaingoa .....	71	31	16	15	-	3
Justizia .....	9	-	-	-	-	1
Ingurumena .....	65	22	13	9	-	3
Herri Lanak eta Zerbitzuak	83	95	31	54	10	10
Osasuna .....	23	53	30	23	-	5
Lana eta Gizarte Segurantza	5	3	-	3	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza ...	125	101	35	60	6	8
Guztira .....	541	476	169	284	23	64

### **- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexen egoera**

2004an 194 ebazpen eman dira Eusko Jaurlaritzaren aurka urte berean jarritako kexei dagokienez, eta 175 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Burututako kasurik gehienetan, 110etan, ez da inolako irregularitasunik antzeman administrazioaren jardueran.

***Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa,  
jarduera eremuen arabera***

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Besterik	Erorritako ez-onarpena
Osasuna .....	21	53	30	23	-	5
Hezkuntza.....	19	45	18	27	-	6
Hirigintza eta Etxebizitza ...	29	37	13	20	4	2
Funtzio Publikoa.....	27	22	4	17	1	7
Herrizaingoa .....	31	11	6	5	-	2
Gizarte Ongizatea .....	10	5	-	4	1	2
Herri Lanak eta Zerbitzuak	6	10	1	8	1	-
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .	8	3	1	1	1	-
Justizia .....	9	-	-	-	-	-
Kultura eta Elebitasuna.....	6	2	-	2	-	-
Lana eta Gizarte Segurantza	5	2	-	2	-	-
Ogasuna .....	2	2	1	1	-	-
Ingurumena .....	2	2	2	-	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>175</b>	<b>194</b>	<b>76</b>	<b>110</b>	<b>8</b>	<b>24</b>

***Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera,  
Jaurlaritza osatzen duten sailei adituz***

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Besterik	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza eta Arrantza ...	1	-	-	-	-	-
Kultura .....	5	2	-	2	-	-
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa .....	36	54	19	34	1	9
Ogasuna eta Herri Administrazioa .....	5	4	-	4	-	-
Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	9	3	1	1	1	-
Herrizaingoa .....	34	12	7	5	-	1
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza .....	17	6	1	4	1	4
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena .....	2	3	2	1	-	-
Osasuna .....	33	64	32	32	-	6
Garraioa eta Herri Lanak .....	3	7	3	3	1	1
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	30	39	11	24	4	3
<b>Guztira .....</b>	<b>175</b>	<b>194</b>	<b>76</b>	<b>110</b>	<b>8</b>	<b>24</b>

**- Foru administrazioen aurkako kexen egoera**

Foru administrazioen aurka 2004an aurkeztu diren erreklamazioetako 60ren gainean jada emanda dago ebazpena, eta 14 kasutan irregulartasunen bat antzeman da. Beste 54 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

**Foru aldundien aurkako kexen egoera,  
lurralde historikoen arabera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Besterik	Erorritako ez-onarpena
Arabako Foru Aldundia .....	15	10	6	4	-	1
Bizkaiko Foru Aldundia .....	19	23	5	16	2	5
Gipuzkoako Foru Aldundia .....	20	27	3	22	2	6
Guztira .....	54	60	14	42	4	12

**Foru aldundien aurkako kexen egoera,  
jarduera-arloen arabera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregulartasuna	Irregulartasunik ez	Besterik	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .	3	2	-	1	1	-
Gizarte Ongizatea .....	21	14	2	11	1	6
Funtzio Publikoa .....	2	5	-	5	-	1
Ogasuna .....	12	17	3	13	1	2
Herrizaingoa .....	-	1	1	-	-	-
Ingurumena .....	3	3	2	1	-	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	10	16	5	10	1	3
Hirigintza eta Etxebizitza ...	3	2	1	1	-	-
Guztira .....	54	60	14	42	4	12

**- Tokiko administrazioen aurkako kexen egoera**

2004an jasotako erreklamazioetatik, Ararteko erakundeak 476 ebazpen eman ditu, eta irregulartasunen bat antzeman da 169 kasutan. Urte amaieran, 541 espediente artean izapidetzen ari ziren.

**Arabako udalen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Eratorritako ez-onarpena
Alegría-Dulantzi.....	-	-	-	-	-	1
Amurrio.....	1	1	-	1	-	-
Aramaio.....	1	-	-	-	-	-
Arria-Maeztu.....	-	1	-	1	-	-
Arrazua-Ubarrundia .....	-	-	-	-	-	1
Asparrena.....	1	1	1	-	-	-
Baños de Ebro/Mañueta ...	-	1	-	1	-	-
Barrundia .....	-	1	-	1	-	-
Iruña Oka/Iruña de Oca ....	3	-	-	-	-	-
Iruraiz-Gauna .....	1	-	-	-	-	-
Labastida .....	1	1	1	-	-	-
Laguardia .....	1	-	-	-	-	-
Legutiano .....	1	1	-	1	-	-
Leza .....	1	-	-	-	-	-
Llodio.....	1	4	1	3	-	-
Okondo .....	1	-	-	-	-	-
Samaniego.....	1	-	-	-	-	-
Valdegovia .....	-	1	-	1	-	-
Vitoria-Gasteiz.....	17	25	6	17	2	5
Zigoitia .....	1	1	1	-	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>32</b>	<b>38</b>	<b>10</b>	<b>26</b>	<b>2</b>	<b>7</b>

**Arabako administrazio batzordeen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Eratorritako ez-onarpena
Arriola.....	-	-	-	-	-	1
Baranbio.....	1	-	-	-	-	-
Bernedo .....	1	-	-	-	-	-
Hereña .....	1	-	-	-	-	-
Izoria.....	1	-	-	-	-	-
Nanclares de la Oca/ Langraiz Oka .....	-	1	-	1	-	-
Markina.....	-	1	-	1	-	-
Mendarozketa .....	-	1	-	1	-	-
Paul .....	-	1	-	1	-	-
<b>Guztira .....</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>-</b>	<b>4</b>	<b>-</b>	<b>1</b>

**Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Eratorritako ez-onarpena
Aia.....	-	5	2	3	-	-
Altzaga.....	1	-	-	-	-	-
Andoain.....	1	-	-	-	-	-
Arama.....	1	-	-	-	-	-
Aretxabaleta.....	-	1	1	-	-	-
Arrasate/Mondragón.....	1	1	-	1	-	-
Astigarraga.....	-	1	-	1	-	-
Beasain.....	2	-	-	-	-	-
Bergara.....	-	1	-	1	-	-
Deba.....	-	1	1	-	-	-
Donostia-San Sebastián....	87	28	10	18	-	5
Eibar.....	3	4	-	3	1	-
Elgoibar.....	4	-	-	-	-	-
Errenteria.....	3	2	1	-	1	2
Eskoriatza.....	-	1	1	-	-	-
Gaintza.....	1	-	-	-	-	-
Getaria.....	1	-	-	-	-	-
Hondarribia.....	4	1	-	1	-	-
Ibarra.....	-	1	-	1	-	-
Idiazabal.....	-	1	-	1	-	-
Irun.....	4	4	3	1	-	-
Irura.....	1	-	-	-	-	-
Itsasondo.....	1	-	-	-	-	-
Lasarte-Oria.....	2	-	-	-	-	-
Lazkao.....	-	1	1	-	-	-
Legazpi.....	1	-	-	-	-	-
Legorreta.....	1	-	-	-	-	-
Lezo.....	-	3	1	2	-	-
Mutriku.....	-	2	1	1	-	-
Oiartzun.....	1	1	1	-	-	-
Oñati.....	1	1	-	1	-	-
Ordizia.....	1	1	-	1	-	-
Ormaiztegi.....	-	-	-	-	-	1
Orio.....	1	-	-	-	-	-
Pasaia.....	3	4	4	-	-	-
Tolosa.....	2	1	-	1	-	-
Urnietia.....	-	3	1	2	-	-
Urretxu.....	1	-	-	-	-	-
Villabona.....	1	1	-	1	-	-
Zaldibia.....	1	-	-	-	-	-
Zarautz.....	1	2	1	1	-	-
Zestoa.....	1	-	-	-	-	-
Zumaia.....	1	2	1	1	-	-
Zumarraga.....	-	1	-	1	-	-
<b>Guztira.....</b>	<b>134</b>	<b>75</b>	<b>30</b>	<b>43</b>	<b>2</b>	<b>8</b>



**Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Eratortitako ez-onarpena
Abanto Ciérvana-						
Abanto Zierbena.....	-	2	1	1	-	-
Ajangiz .....	-	2	-	1	1	-
Alonsotegi .....	2	-	-	-	-	-
Amorebieta-Etxano .....	1	-	-	-	-	-
Arrankudiaga .....	-	1	1	-	-	-
Arrigorriaga .....	1	-	-	-	-	-
Atxondo .....	2	1	-	-	1	-
Bakio .....	-	2	-	1	1	-
Barakaldo .....	9	9	4	5	-	1
Barrika .....	-	1	-	1	-	-
Basauri .....	1	1	1	-	-	-
Bedia .....	-	2	1	1	-	-
Berango .....	-	1	-	1	-	-
Bermeo .....	3	1	1	-	-	-
Berriatua .....	1	-	-	-	-	-
Berriz .....	-	3	-	3	-	-
Bilbao.....	57	28	10	16	2	4
Karrantza/Carranza .....	-	1	-	-	1	-
Dima .....	1	-	-	-	-	-
Durango .....	2	2	1	1	-	-
Ea .....	1	-	-	-	-	-
Elorrio .....	-	1	1	-	-	-
Erandio .....	10	3	1	2	-	1
Ermua .....	1	2	1	1	-	-
Etxebarri.....	1	1	-	1	-	-
Galdakao .....	1	2	2	-	-	-
Galdames .....	1	-	-	-	-	-
Gatika .....	-	1	-	1	-	-
Gernika-Lumo.....	3	1	1	-	-	-
Getxo .....	4	3	2	1	-	-
Gordexola.....	2	-	-	-	-	-
Gorliz .....	-	1	1	-	-	-
Larrabetzu .....	-	1	-	1	-	-
Leioa.....	1	2	-	2	-	-
Lekeitio .....	1	-	-	-	-	-
Lemoa.....	1	-	-	-	-	-
Lemoiz .....	1	2	1	1	-	-
Lezama .....	1	-	-	-	-	-

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Erorritako ez-onarpena
Mallabia.....	-	1	-	-	1	-
Markina-Xemein.....	1	-	-	-	-	-
Mendata.....	-	1	-	1	-	-
Mendexa.....	-	1	-	1	-	-
Meñaka.....	1	-	-	-	-	-
Mungia.....	1	-	-	-	-	-
Muskiz.....	1	-	-	-	-	-
Orduña.....	-	1	-	1	-	-
Ortuella.....	1	3	2	1	-	-
Plentzia.....	-	2	2	-	-	-
Portugalete.....	6	1	-	1	-	3
Santurtzi.....	5	4	1	3	-	-
Sestao.....	1	7	4	3	-	-
Sondika.....	-	1	-	1	-	-
Sopelana.....	6	-	-	-	-	-
Sopuerta.....	-	1	-	1	-	-
Valle de Trápaga-Trapagaran	-	-	-	-	-	1
Zalla.....	2	-	-	-	-	-
Zamudio.....	-	1	-	1	-	1
Zaratamo.....	1	-	-	-	-	-
Zeanuri.....	1	-	-	-	-	-
Zeberio.....	1	-	-	-	-	-
<b>Guztira.....</b>	<b>137</b>	<b>101</b>	<b>39</b>	<b>55</b>	<b>7</b>	<b>11</b>

### ***Udalen aurkako kexen egoera, jarduera-arloen arabera***

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Erorritako ez-onarpena
Nekazaritza, Industria,						
Merkataritza eta Turismoa .	14	8	2	4	2	1
Gizarte Ongizatea.....	37	31	5	23	3	12
Kultura eta Elebitasuna.....	10	4	1	3	-	-
Hezkuntza.....	24	50	18	32	-	6
Funtzio Publikoa.....	38	37	7	29	1	13
Ogasuna.....	37	41	11	29	1	2
Herrizaingoa.....	71	31	16	15	-	3
Justizia.....	9	-	-	-	-	1
Ingurumena.....	65	22	13	9	-	3
Herri Lanak eta Zerbitzuak	83	95	31	54	10	10
Osasuna.....	23	53	30	23	-	5
Lana eta Gizarte Segurantzza	5	3	-	3	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza ...	125	101	35	60	6	8
<b>Guztira.....</b>	<b>541</b>	<b>476</b>	<b>169</b>	<b>284</b>	<b>23</b>	<b>64</b>

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, ukitutako erakunde publikoaren arabera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Eratortitako ez-onarpena
Bilbo-Bizkaia						
Ur Partzuergoa.....	3	2	-	2	-	-
Mebisa – Bilboko Metroa...	2	1	-	1	-	-
Arratiako Mankomunitatea	-	-	-	-	-	1
Ur Zerbitzuak .....	-	1	-	1	-	-
Guztira .....	5	4	-	4	-	1

**Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, jardura arloen arabera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Eratortitako ez-onarpena
Funtzio Publikoa.....	-	-	-	-	-	1
Ogasuna .....	1	2	-	2	-	-
Ingurumena .....	1	-	-	-	-	-
Herri Lanak eta Zerbitzuak	3	2	-	2	-	-
Guztira .....	5	4	-	4	-	1

**- Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurkako kexen egoera**

**Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen kontrako kexen egoera**

	Izapidetzen	Burututa	Administrazioaren irregularitasuna	Irregularitasunik ez	Besterik	Eratortitako ez-onarpena
Hezkuntza.....	5	4	2	2	-	2
Funtzio Publikoa.....	-	1	-	1	-	-
Guztira .....	5	5	2	3	-	2

## 6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA)

### - Kexagileen ezaugarriak

2004. urtean aurkeztutako kexen azterketa soziologikoak agerian jartzen du kexagile gehienak gizonezkoak direla, oraindik ere; izan ere, kexaren bat jarri duten pertsonen % 47,94 gizonezkoak dira.

Erreklamazioak aurkezten dituzten taldeen kopuruak handitzen jarraitzen du urtez urte. 2004. urtean hainbat taldek 231 erreklamazio aurkeztu zituzten guztira Ararteko erakundearen (2003. urtean, berriz, 184).

#### *Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera*

<b>Kexagileen ezaugarriak</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gizonezkoak.....	734	47,94
Emakumezkoak .....	557	36,38
Taldeak .....	231	15,09
Identifikatu gabeko pertsonak.....	9	0,59
Guztira.....	1.531	100

(Ikus 13. diagrama eranskinean)

### - Kexa-idazkia egiteko erabilitako hizkuntza

Gaztelania da, oraindik ere, kexak idazteko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza. Herritarretatik % 93,34k gaztelaniara jotzen du, euskaraz zein elebidun aurkezten direnak % 6,66 diren bitartean, hau da, 2003an baino % 9,44 gutxiago.

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrek aukeratutako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoak ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

#### *Kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera*

<b>Hizkuntza</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Gaztelania.....	1.429	93,34
Euskara.....	77	5,03
Biak.....	25	1,63
Guztira.....	1.531	100

(Ikus 14. diagrama eranskinean)

### - Kexak aurkezteko modua

Kexak aurkezteko moduari dagokionez, datuek erakusten digute azkeneko urteetan izandako aldaketa finkatu egin dela, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan arreta zuzeneko bulegoak jartzearen ondorioz. Kexagileetatik % 45,72 bulegoetara agertu dira kexa jartzeko. Kexa jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua nabarmen igo da. Kexetan % 27,04 erakundearen web orritik heldu dira (www.ararteko.net); 2003an, berriz, % 20,33 heldu ziren.

#### *Kexen banaketa, aurkezteko moduaren arabera*

<b>Jasotzeko era</b>	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Bulegoetara agertuta .....	700	45,72
Postaz.....	382	24,95
Internetez.....	414	27,04
Faxeaz.....	35	2,29
Guztira.....	1.531	100

(Ikus 15. diagrama eranskinean)

## 7. ARRETA ZUZENeko BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioen batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu.

Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen diren bisitez gain, telefonozko kontsulta ugari ere egiten direla, erakundeko langileek erantzuten dituztenak.

Horregatik guztiarengatik, bisitez gain telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, pertsonak administrazio desberdinekin dituzten harremanetan dauzkaten eskubideen gaineko informazio lan interesgarria direla ziur baikaude. Hartara, 2004. urtean guztira 4.056 kontsultari erantzun diogu. Horietatik 1.553 telefonozko kontsultak izan dira eta 2.503 hiru bulegoetakoren batera agertu diren pertsonen kopurua. Zehatz esateko, Bilbon 1.628 kontsultari erantzun diogu, hiru bulegoetan erantzundakoen % 40,14, hain zuzen ere. Donostian 1.237 eta Gasteizen, berriz, 1.191.

### *Telefonozko kontsulta eta bisiten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan*

Hiria	Telefonozko kontsultak	Bisitak	Guztira	%
Bilbao .....	738	890	1.628	40,14
Donostia-San Sebastián .....	518	719	1.237	30,50
Vitoria-Gasteiz .....	297	894	1.191	29,36
Guztira.....	1.553	2.503	4.056	100

(Ikus 16. diagrama eranskinean)

### **- Arreta zuzeneko bulegoetara etorri eta kexa aurkeztu dutenen kopurua**

Arreta zuzeneko hiru bulegoetan jasotako bisitetatik 662tan kexa jarri da, hau da, bisita guztien % 26,45ean. Horietatik, 281 Bizkaiko hiriburuan, 190 Donostian eta 191, berriz, Gasteizen.

### *Kexa aurkeztu deneko bisitak*

	Kopurua	%
Bilbao .....	281	42,45
Donostia-San Sebastián .....	190	28,70
Vitoria-Gasteiz .....	191	28,85
Guztira.....	662	100

(Ikus 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduketa eremutik kanpoko gaiei loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat bideratu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekarri behar zituzten, edo aurretiazko kudeaketak egin behar ziren, administrazio organo eskudunetan; eta azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak, edo kexa egiteko funtsik gabekoak ziren edo bisita kexa espediente baten izapideei lotuta egon da, edo herritarrak bere arazo zehatzetan jarraitu beharreko izapideei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

### - Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen ezaugarriak

Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonetatik, % 49,26 gizonezkoak dira eta % 42,31 emakumezkoak. Taldeak % 3,24 dira.

#### **Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien ezaugarriak**

	Bilbo	Donostia- San Sebastián	Vitoria- Gasteiz	Guztira	%
Gizonezkoak .....	487	284	462	1.233	49,26
Emakumezkoak .....	344	338	377	1.059	42,31
Bikoteak .....	49	50	31	130	5,19
Taldeak.....	10	47	24	81	3,24
Guztira .....	890	719	894	2.503	100

(Ikus 17. diagrama eranskinean)

### - Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen adina

Adin multzoen araberako datuak aztertuz, ez da aurreko urteetakoan aldean gorabehera handirik ikusten. Bisitetatik % 51,3 dira 36tik 55 urtera bitarteko bisitariak egindakoak.

#### **Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien banaketa, adin multzoka**

Adina	Bilbo	Donostia- San Sebastián	Vitoria- Gasteiz	Guztira	%
25 urte artekoak.....	28	22	26	76	3,04
26-35.....	137	69	114	320	12,78
36-45.....	206	156	209	571	22,81
46-55.....	243	196	274	713	28,49
56-65.....	137	117	136	390	15,58
66 edo gehiago .....	139	159	135	433	17,30
Guztira .....	890	719	894	2.503	100

(Ikus 18. diagrama eranskinean)

## 8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kezak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere ekimenez, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, Euskadiko herri administrazioaren batean jarduketa irregularrik egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Ofiziozko jarduerak dira, Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17.1 artikulua Arartekoari ematen dion eskumena, bere kabuz esku hartzeko aukera eskaintzen diona, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren erreklamazioen zain egon barik.

2004an ofiziozko 33 espediente bideratzeari ekin genion. Kopurua nabarmen jaitsi da, 2003. urtearekin alderatuz gero; izan ere, urte horretan Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna txostenaren jarraipena egiteko asmoz hasitako jarduerak izan ziren ofiziozko espedienteen kopuruak gora egiteko arrazoia, funtsean, (ofiziozko 116 espediente egon ziren 2003an).

### *Ofiziozko jardueren banaketa, arloen arabera*

	<b>Ofizioz egindako espedienteak</b>	<b>%</b>
Herrizaingoa.....	9	27,28
Gizarte Ongizatea .....	6	18,18
Gizarte Gaiak .....	4	12,12
Hezkuntza .....	3	9,09
Funtzio Publikoa .....	3	9,09
Justizia.....	2	6,06
Ingurumena .....	2	6,06
Ogasuna .....	1	3,03
Osasuna.....	1	3,03
Hirigintza eta Etxebizitza.....	1	3,03
Herri Lanak eta Zerbitzuak.....	1	3,03
<b>Guztira.....</b>	<b>33</b>	<b>100</b>

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

Aurreko urteetan ez bezala, Eusko Jaurlaritza izan da ofiziozko jarduerak gehien eragin dituen administrazioa, zehazki, % 46,15. Bestalde, % 38,46 tokiko administrazioen gainera eta % 15,39 foru administrazioen gainera erori dira.



**Ofiziozko jardueren banaketa,  
ukitutako administrazioen arabera**

	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Eusko Jaurlaritza.....	18	46,15
Toki administrazioa .....	15	38,46
Foru administrazioa.....	6	15,39
Guztira.....	39	100

(Ikus 21. diagrama eranskinean)

## 9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

Ararteko erakundeak duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi zuen, bitartekaritza eskatu dioten pertsonen iritzia jakiteko. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahulenak ezagutu nahi dira, eskaintzen den zerbitzua hobetzen saiatzeko.

Horretarako, kexa espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Azken urteotan, bai kexagileek bete dituzten galdera sorten kopuruak eta bai gure bitartekaritza azaldu duten iritziak ere berretsi egiten dute esperientzia honen emaitza ona. 2004. urtean galdera sorta bidali zaien pertsonetatik % 51,36k erantzun digute, eta horrek ondorio fidagarriak eta aintzat hartzeko modukoak ateratzeko aukera ematen digu.

Emaitzak baloratzeko orduan kontuan izan behar dugu ezen, urte honetan izapideak amaitu zaizkien kexa guztietatik % 33,01ean soilik iritzi zaiola arauz kontrakoa dena delako administrazioaren jokabideari.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, erreklamazioen bat aurkeztu duten eta izapidetzen amaitu zaizkien herritarretatik % 84,04k hauxe esan dute: *“Arartekoak emandako informazioa ona edo oso ona izan da”*, eta % 57,98k *“erabat edo nahiko ados gaude Arartekoak kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenerekin”*.

Arartekoaren esku-hartzea oro har, hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketak, eta abar, nola baloratuko luketen galderari, kexagileetatik % 82,98k *“oso balorazio ona edo nahikoa ona”* egiten dutela diote eta % 87,77k *“beti edo batzuetan administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko lioketela”* baiesten dute.

Azpitarratu behar da *“kexa eragin zuen arazoa ez da konpondu edo nahiko txarto konpondu da”* erantzun dutenen artean (galdera sorta erantzun dutenen % 59,57), gehienek *“erakundearen esku-hartzeaz iritzi nahiko ona edo oso ona”* dutela (% 71,11) eta *“beti edo batzuetan Arartekoarengana jotzea aholkatuko luke”* (% 84,9) erantzun dutela.

Inkesten bidez lortzen ditugun datuez gain, kexagileek beren iritzi eta iradokizunak ere helarazten dizkigute. Aurreko urteetan bezala, herritar askok Arartekoak aginte handiagoa, erabakitzeko ahalmen handiagoa izan behar duela iradokitzen dute, eta ebaizpenek lotesleak, bete beharrekoak izan beharko luketela administrazioentzat. Gainera, batzuek uste dute egon litezkeen administrazio erantzukizunak exijitu beharko litzukeela, ofizioz, eta zuzen jokatu ez duten administrazioak zigortzeko ahalmena eduki beharko lukeela. Zenbaiten iritziak, Ararteko erakundeak administrazioetatik bidaltzen dioten informazioa sakon aztertu beharko luke. Hainbat herritar bat datoz Ararteko erakundearen informazio igorle hutsa delako iritziak, eta kexa jarri zutenetik erantzuna jaso zuten arte igarotako denbora luzeegia izan zela. Berresten dute erakundearen zabalkundea eta lana publikitate ekinaldien bidez indartu beharko liratekeela.

**- Inkestaren emaitzak** (Ikus 22 eta 27 bitarteko diagramak eranskinean)

**. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?**

. Oso ona .....	37,23
. Ona .....	46,81
. Txarra .....	8,51
. Oso txarra .....	2,66
. Erantzunik ez .....	4,79

**. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?**

. Oso luzea .....	17,02
. Luzea .....	38,30
. Laburra .....	33,51
. Oso laburra.....	6,38
. Erantzunik ez .....	4,79

**. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?**

. Erabat ados.....	27,66
. Nahiko ados .....	30,32
. Ez nago ados .....	17,02
. Erabateko desadostasuna .....	16,49
. Erantzunik ez .....	8,51

**. Zure ustez, kexa eragin zuen arazoa:**

. Oso ondo konpondu da .....	17,55
. Nahiko ondo konpondu da.....	18,09
. Nahiko txarto konpondu da.....	6,91
. Ez da konpondu .....	52,66
. Erantzunik ez .....	4,79

**. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketak...)**

. Oso ona .....	44,68
. Nahiko ona.....	38,30
. Nahiko txarra.....	7,45
. Oso txarra .....	4,25
. Erantzunik ez .....	5,32

**. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

. Bai, beti .....	63,30
. Bai, batzuetan .....	24,47
. Ez, inoiz ere ez.....	8,51
. Erantzunik ez .....	3,72

Galdetutakoen erantzunak beren kexa eragin zuen arazoa konpontzearen ala ez konpontzearen arabera desberdinak izan zitezkeen. Ez da, baina, horrelakorik gertatu, kexagileek beren arazoa ez dela konpondu edo txarto konpondu dela dioten galdera sortetako datuek berresten dutenarengatik.

**- Euren arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko txarto konpondu” da erantzun duten kexagileek Ararteko erakundeak izandako esku-hartzeari buruz egin duten balorazioa** (Ikus 28. eta 29. diagramak eranskinean)

**. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako kudeaketak...)**

. Oso ona .....	28,57
. Nahiko ona.....	45,54
. Nahiko txarra.....	11,61
. Oso txarra .....	7,14
. Erantzunik ez .....	7,14

**. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

. Bai, beti .....	50,89
. Bai, batzuetan .....	29,46
. Ez, inoiz ere ez.....	14,29
. Erantzunik ez .....	5,36

Gainera, 2004ko urtarriletik aurrera, ahalik eta laguntzarik hoberena eskaintzeko asmoz, gure bulegoetara etortzen diren pertsona guztiei, nahi izanez gero eta izena ipini barik, Ararteko erakundearen egon direnean jaso duten laguntza eta informazioaren gainean egiten duen balorazioa jakinarazteko eta horri buruzko iradokizunak proposatzeko eskatzen diegu. Bisitariari eskatzen dizkiegun datuek eta erantzunek helburu bikoitza dute: erakundera etorri diren pertsonen ezaugarri orokorrak jakitea eta emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakitea.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, herritarren % 96,71k Administrazioarekin arazoak dituzten pertsonen Arartekoarengana jotzeko aholkatuko liekete “beti” edo “batzuetan” eta Arartekoarengana etortzean jaso duten informazioari buruzko balorazioari dagokionez, “oso ona” edo “ona” izan dela erantzun dute % 95,4k.



## IV. ATALA

# **ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**



## 1. SARRERA ETA OHARRAK

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontroleko lanek gutxienezko eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, 23. artikuluan, bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebeharrak hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebeharrak hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzaila erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Izan ere, kapitulu hau urteko txosten honetan sartu badugu, Legebiltzarrak eta, hedapenez, iritzi publikoak oro har Arartekoari zintzoki lagundu ez dioten, Arartekoaren esku hartzea eragotzi edo atzeratu duten eta herritarrek jarritako kekek behar den epearen barruan ebatzi ahal izatea eragin duten kargudunak edo funtzionarioak nortzuk izan diren jakin dezaten izan da.

Gertatzen da, gainera, kontroleko erakunde hauei lagundu behar horrek lege antolamenduan hain garrantzi handia hartzen duela non ez betetzeak zigor bideko tratamendua ere baduen. Izan ere, lankidetzarik edo laguntzarik ez ematea Estatuko Erakundeen eta Botere Banaketaren aurkako delitu gisa aurreikusita dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta *“Autonomia Erkidegoko Ararteko, Kontu Epaitegi edo antzeko erakundeen ikerketa oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei eskatzen zaizkien txostenak bidaltzera ukatzen direlako edo bidaltzea besterik gabe atzeratzen dutelako, edo ikerketarako beharrezkoak diren administrazioko espediente edo dokumentazioak eskuratzea eragozten dietelako”* enplegu edo ardura publikotik sei hilabetetik bi urterako etenaren zigorra ezar lekieke. Ikusten denez, mota diseinatzeko orduan lehenago aipatu ditugun bi aldagaiak hartzen dira kontuan, multzoan, lankidetzak betebeharrak hori betetzen dutenak, alegia, zorrozki betetzea eta epe jakin batean egin beharra.

Lehenago aurreratu dugun bezala, kapitulu honek herri administrazio eta erakundeek lege antolamenduak ezartzen dien lankidetzak edo laguntza betebeharraren aurrean



nola jokatu duten erakusten du. Jarraian agertuko diren datuetan Arartekoak, inplikatu-tako erakunde eta organismoek erakunde bermatzaile honi laguntzeko duten betebeharra gogoratuz eta bete dezaten eskatuz egin dituen gestioak erakusten dira, bidali zaien informazio eskariari erantzun ez dioten edo erantzuten atzeratu diren kasuetan eta, era berean, gomendioak betetzeari eta legezketasunaren gogorarazteei buruz jakindako isiltzei buruzko kasuetan ere bai.

Kexa espediente batzuetan, informazio eskariari erantzuten ekitaldi bat baino gehiagoko berandutza ere izaten da. Horregatik, egoki iritzi diogu, aurreko ekitaldietan esan izan dugun bezala, txosten honetan 2004an izapidetzen ari ziren kexa espedienteetan egindako agindeien zerrenda xehatua egiteari, izapideak aurreko urteetan hasi arren. Hori egin badugu Arartekoaren irizpenaren mende jartzen diren jardueren erantzule diren erakundeen lankidetzaren indizeen gaineko ikuspegi orokorragoa eskaintzeko izan da.

Era berean, ezinbestekoa da adieraztea, agindei horiek egitean, Arartekoa ez dela automatikoki aritzen. Laguntzeko betebeharra gogorarazteko eginkizun hori zuhurtziaz baliatzen da, administrazioaren kudeaketan eragina daukaten aldagaiak neurtuz, eta kexa jarri duten pertsonen modu eragingarri eta lasterrean erantzun ahal izateko helburu garbiaz. Hona hemen, besteak beste, zein diren, guretzat, nahitaez aditu behar zaien ingurumariak: informazioa eskatzen den arazoaren izaera materiala, eskaria egiten zaion organoaren burokrazia eta administrazio sarearen konplexutasuna, artatu beharreko prozeduren balizko pilaketa, hauteskunde garaien ondorioz kontrolaren mende jarritako erakundeen eraketan dauden denbora aldagaiak, arduradun eta funtzionarioak biratzea edota ordezkatzeta, eta abar.

Hala eta guztiz ere, zenbaitetan agerian geratzen da axolarik eza, erakunde honek kontrolaren arloan duen eginkizuna eta, ondorioz, erreklamazioak jartzen dituzten herritarren eskubideak gutxiesten dituen jarrera, alegia. Laguntzeko betebeharrari uko egite horrek, batzuetan, aipatzeko moduko inguruabarrak izan ditu; adibidez, zailtasun handirik ez zuten arazoaren tramitazioa gehiegi atzeratzea eta, horrenbestez, erakunde honek behin eta berriz egin behar izatea eskaera bera. Jarrera horren erakusgarri, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jarduketa bati buruzko espedientearekin gertatutakoa azalduko dugu. Lehenengoaz gainera hiru eskaera gehiago egin behar izan genituen. Azkenean, otsailean egindako informazio eskaerari erantzunez, azaroan jakinarazi ziguten kexa jarri zuen pertsonak auzitegira jo zuela bere arazoa aurkezteko. Gero jakin ahal izan dugunez, Hezkuntza Sailak zortzi hilabete lehenagotik zekien horren berri.

Izan dira kasu larriagoak ere, zalantzarik gabe. Arartekoaren erakundea ohartarazpena igorri beharrean aurkitu da behin baino gehiagotan, ukitutako administrazioetako titularrei gogora ekartzeko Zigor Kodearen 502.2. artikuluan sailkatzen den delitua egotzi ahal izango zitzaiela eta, ondorioz, gerta zitekeela arazoa zigor jurisdikzioaren esku geratzea.

2004. urtean zehar horrelako ohartarazpenak jaso dituzten titular arduradunak 4. zerrendan ageri dira.

Kasurik gehienetan, azkenean titular arduradunek eman dute ohartarazpenean eskatzen zitzaien informazioa. Nolanahi ere, ezin dugu salatu gabe utzi haien lankidetzarako gertutasunik eza, erakunde honen esku-hartzeak behar bezala bideratzeko oztupo izan delako.

Honako titular arduradun honek, ordea, urteko txosten hau itxi behar dugun unean, oraindik ez du erakunde honi laguntzeko inolako asmorik agertu, ohartarazpena egin bazaio ere:

Mirari Arruabarrena

Orioko alkatea

634/2002/24 esp.

\* \* \*

Arestiko iruzkinak egin ondoren, uste dugu hainbat kontu ere argitu behar ditugula, jarraian sartuko diren zerrendetan bildutako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- \* Lehenengo zerrendan, gure kontrolaren mende jarri diren eta izapideetan gutxienez informazio eskari bat eta, izatekotan, agindei bat edo gehiago egin behar izan zaien erakunde edo organismo desberdinetan izapidetutako espedienteak guztira jaso dira. Zerrenda honetan gomendioak betetzeaz eskatutako informazioak eta luzatutako agindeiak ere sartuta daude. Hona hemen zutabe bakoitzean zer informazio islatzen den:
  - (1) zenbat espedientetan egin den 2004. urtean informazio eskariren bat.
  - (2) 2004an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den agindeiren bat.
  - (3) agindeia egin zaien espedienteen portzentajea, 2004an informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.
  - (4) 2004an agindeirik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egindako informazio eskariei buruzkoak izanik.
  - (5) 2004an agindeirik egin zaien espedienteetan, agindeien kopuruaren xehatzea.
  - (6) 2004an guztira egindako agindeiak.
- \* Bigarren zerrendan xehetasunez islatzen dira, banan-banan, izapidetzeko gure irizpenaren mende jarri diren egitateak egin dituzten organo edo erakundeei agindeiak helarazi behar izan zaizkieneko espedienteak, bai ohiko informazioei dagokionez bai gomendioak betetzeari dagokionez.
- \* Erreferentziei izartxo gehitu zaieneko espedienteak aurreko urteetan izapidetzen hasitako eta 2004an, izapidetzen jarraitzen zutenez, agindeiak egin behar izan zaizkienak dira.
- \* Azkeneko zutabearen islatzen den datua, informazioa oraindik jaso gabe dagoen ala jasota dagoen dioena, muga data 2004ko abenduaren 31 zelarrik sartu da.

Azkenik, komeni da nabarmentzea behin baino gehiagotan aipatzen diren espedienteak informazio bat baino gehiago behar izan dutenak direla. Horrela agerrarazten dira planteatutako eskari bakoitzeko zenbat agindei egin behar izan diren jasotzeko.



## B) Foru aldundiak

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2004ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua				2004ko agindeiak guztira
					1	2	3	4	
<b>Arabako Foru Aldundia</b>									
Gizarte Gaiak.....	9	3	33,33	-	2	-	-	1	6
Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak .....	4	-	-	-	-	-	-	-	-
Herri Lanak eta Garraioak .....	3	1	33,33	1	1	1	-	-	3
Lehendakaritza .....	2	1	50	-	1	-	-	-	1
Hirigintza eta Ingurumena .....	4	1	25	-	1	-	-	-	1

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2004ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2004ko agindeiak guztira
					1	2	3	
<b>Bizkaiko Foru Aldundia</b>								
Gizarte Ekintza.....	8	1	12,50	-	1	-	-	1
Herri Administrazioa .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Nekazaritza.....	4	1	25	-	1	-	-	1
Lana eta Trebakuntza .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ogasuna eta Finantzak .....	11	4	36,36	-	3	-	1	6
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena.....	1	1	100	1	2	-	-	2
Herri Lanak eta Garraioak .....	15	7	46,67	-	6	1	-	8

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)		(6)
	2004ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua		2004ko agindeiak guztira
					1	2	
<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>							
Foru Administrazioaren Kalitatea .....	3	-	-	-	-	-	-
Giza Eskubideak, Enplegua eta Gizarteratzea .....	6	-	-	-	-	-	-
Landa Ingurunearen Garapena.....	6	2	33,33	2	3	1	5
Garapen Iraunkorra.....	1	-	-	-	-	-	-
Ahaldun Nagusia .....	1	-	-	-	-	-	-
Fiskalitatea eta Finantzak .....	4	-	-	-	-	-	-
Bide Azpiegiturak.....	4	1	25	-	1	-	1
Lurralde Antolaketa eta Sustapena.....	1	1	100	-	1	-	1
Gizarte Politika .....	2	1	50	1	1	1	3

## C) Udalak

## - Arabako Lurralde Historikoa

Udala	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)				(6)
	2004ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteerako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua				2004ko agindeiak guztira
					1	2	3	4	
Alegria-Dulantzi .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Amurrio .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Aramaio .....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Arraia-Maeztu .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Artziniega .....	1	1	100	1	1	1	-	-	3
Asparrena .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ayala / Aiara .....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Baños de Ebro / Mañueta .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Barrundia .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Bernedo .....	-	-	-	1	1	-	-	-	1
Iruña Oka / Iruña de Oca .....	3	1	33,33	-	-	-	-	1	4
Iruñaiz-Gauna .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Labastida .....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Laguardia .....	1	1	100	-	1	-	-	-	1
Legutiano .....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Leza .....	1	1	100	-	-	-	1	-	3
Llodio .....	4	1	25	-	-	1	-	-	2
Okondo .....	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Samaniego .....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Valdegovia .....	2	-	-	1	1	-	-	-	1
Vitoria-Gasteiz .....	38	17	44,74	6	17	5	1	-	30

Arabako administrazio batzarrak	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2004ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteerako agindeiak	Desglose del número de requerimientos			2004ko agindeiak guztira
					1	2	3	
Arriola .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Baranbio .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bernedo .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Fontecha .....	-	-	-	1	1	-	-	1
Hereña .....	1	1	100	-	-	-	3	3
Nanclares de la Oca / Langraiz Oka .....	1	-	-	-	-	-	-	-

**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Udala	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2004ko eskaera duten espedienteak	Agindea duten espedienteak	%	Aurreko urteerako agindutak	Agindeien kopurua desglosatua			2004ko agindutak guztira
					1	2	3	
Abadiño .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena .....	2	2	100	1	1	1	1	6
Ajangiz .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Alonsotegi .....	2	2	100	-	-	-	2	6
Amorebieta-Etxano .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Arrankudiaga .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Arrigorriaga .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Atxondo .....	3	2	66,67	-	-	-	2	6
Bakio .....	2	1	50	-	1	-	-	1
Balmaseda .....	1	1	100	-	-	1	-	2
Barakaldo .....	18	10	55,56	1	7	3	1	16
Barrika .....	1	1	100	-	-	1	-	2
Basauri .....	2	1	50	-	1	-	-	1
Berango .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bermeo .....	6	1	16,67	1	-	1	1	5
Berriatua .....	1	1	100	1	1	-	1	4
Berriz .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Bilbao .....	89	46	51,69	8	31	17	6	83
Carranza .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Dima .....	1	1	100	-	-	1	-	2
Durango .....	4	1	25	1	2	-	-	2
Elorrio .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Erandio .....	11	1	9,09	-	1	-	-	1
Ermua .....	3	2	66,67	-	1	-	1	4
Etxebarri, anteiglesia de San Esteban de / Etxebarriko Doneztebeko elizatea .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Etxebarria .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Galdakao .....	6	6	100	1	3	3	1	12
Galdames .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Gatika .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Gautegiz Arteaga .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Gernika-Lumo .....	4	1	25	-	1	-	-	1
Getxo .....	7	2	28,57	2	4	-	-	4
Gordexola .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Gorliz .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Larrabetzu .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Leioa .....	2	-	-	-	-	-	-	-
Lekitio .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Lemoa .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Lemoiz .....	3	1	33,33	-	1	-	-	1
Lezama .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Markina-Xemein .....	1	-	-	3	3	-	-	3
Mendata .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Mendexa .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Meñaka .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Mungia .....	2	1	50	-	-	-	1	3
Muskiz .....	1	1	100	1	1	1	-	3
Ondarroa .....	-	-	-	2	2	-	-	2
Orduña .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Ortuella .....	4	3	75	1	3	1	-	5
Plentzia .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Portugalete .....	10	7	70	3	6	2	2	16

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2004ko esiaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2004ko agindeiak guztira
					1	2	3	
<b>Udala</b>								
Santurtzi .....	10	1	10	2	3	-	-	3
Sestao .....	10	5	50	-	3	1	1	8
Sondika .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Sopelana.....	2	-	-	-	-	-	-	-
Sopuerta.....	4	3	75	2	5	-	-	5
Valle de Trápaga-Trapagaran .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Zalla .....	3	-	-	-	-	-	-	-
Zamudio .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Zaratamo .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Zeanuri .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Zeberio .....	1	1	100	-	-	-	1	3





## D) Beste erakunde publiko batzuk

	(1)	(2)	(3)	(4)	(5)			(6)
	2004ko eskaera duten espedienteak	Agindeia duten espedienteak	%	Aurreko urteetako agindeiak	Agindeien kopurua desglosatua			2004ko agindeiak guztira
					1	2	3	
Abra Industrialia .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa .....	2	-	-	1	1	-	-	1
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Arabako Arduradunen Bazkuna .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Sendagileen Elkartea .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Odonto-Estomatologoien Elkartea .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Finka Administrazioen Lurraldeko Elkargoa....	-	-	-	1	1	-	-	1
Legelarien Euskal Kontseilua .....	2	1	50	3	2	2	-	6
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa .....	4	-	-	-	-	-	-	-
Arabako Errioxako Urkidetza .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Arratiako Udalen Mankomunitatea .....	1	1	100	-	1	-	-	1
Mebisa-Bilboko Metroa .....	2	1	50	1	2	-	-	2
Estatuaren erakunde eta administrazioak .....	1	-	-	-	-	-	-	-
Euskal Herriko Unibertsitatea .....	8	4	50	1	3	-	2	9

### 3. ARARTEKOAK 2004. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA

#### A) Eusko Jaurlaritza

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Nekazaritza eta Arrantza	1365/2003/18	Prensa-oharrak gaztelania hutsean	1	2004/03/26	J
Mendikoi	1084/2004/20	Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen eskolatzea	1	2004/11/04	J
	1084/2004/20	Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen eskolatzea	1	2004/12/27	JG
Kultura	317/2003/20	Euskadiko Orkestra Sinfonikoko lanpostuetarako sarrera	1	2004/04/29	J
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	153/2002/20*	Aurreko esperientzia baloratzea irakasleen ordezkapenak egiteko	3	2004/03/31	J
	1065/2002/24*	Administrazioaren isiltasuna. Osagarri espezifikoa errekamazia	2	2004/04/02	J
	1066/2002/24*	Prezio publikoak irakaskuntzako zerbitzuentatik	2	2004/04/02	J
	1149/2002/24*	Lansariak. Osagarri espezifikoa	1	2004/01/30	J
	85/2003/20*	Irakasleak berriz hartzeko irizpideak	1	2004/01/21	J
	630/2003/25*	Erlijio askatasuna	2	2004/03/17	J
	693/2003/20*	Eskolako instalazioak	2	2004/02/18	J
	1045/2003/24*	Irakasle ordezkoen amatasunagatiko lizentzien tratamendua	2	2004/02/19	J
	1047/2003/20*	Irakasleen ordezkapenak	1	2004/01/21	J
	1068/2003/20*	EOI hutsuneak	2	2004/02/19	J
	1070/2003/25*	Ondare erantzukizuna	3	2004/04/22	J
	1087/2003/20*	Irakasleen EPE. Espediente akademikoaren balorazioa	2	2004/02/25	J
	1126/2003/20*	Irakasleen EPE. Hainbat epaimahai dituzten espezialitateak. Eraitzen haztapena	2	2004/02/19	J
	1171/2003/24*	Klaustroaren egonkortasunik eza	2	2004/02/19	J
	1175/2003/25*	Lanbide heziketako ikasketen jarraipena	1	2004/01/16	J
	1182/2003/20*	Haur hezkuntzan egindako zerbitzuen balorazioa	3	2004/03/24	J
	1194/2003/20*	Irakasleen ordezkapenak	3	2004/03/24	J
	85/2003/20	Irakasleak berriz hartzeko irizpideak	1	2004/10/08	J
	904/2003/24	Hizkuntza eskakizunak. Funtzio publikorako sarbidea	3	2004/09/08	J
	946/2003/20	Itunpeko ikastetxeko hezkuntza bereziko laguntzaileak	1	2004/03/17	J
	1022/2003/20	Irakasleen enplegu publikoaren eskaintza (EPE)-Aurreko zerbitzuen balorazioa	1	2004/03/10	J
	1029/2003/20	Irakasleen enplegu publikoaren eskaintza (EPE)-Aurreko zerbitzuen balorazioa	1	2004/03/10	J
	1040/2003/24	Eskola garraioan lagun egiteko zerbitzurik ez izatea	1	2004/07/07	J
	1047/2003/20	Irakasleen ordezkapenak	1	2004/05/05	J
	1068/2003/20	EOI hutsuneak	3	2004/09/09	J
	1076/2003/25	Eskola eraikinetako akatsak	1	2004/09/14	J
	1150/2003/24	Eskola garraioan lagun egiteko zerbitzurik ez izatea	2	2004/05/11	J
	1150/2003/24	Eskola garraioan lagun egiteko zerbitzurik ez izatea	1	2004/07/08	J
	1182/2003/20	Haur hezkuntzan egindako zerbitzuen balorazioa	1	2004/06/03	J
	1182/2003/20	Haur hezkuntzan egindako zerbitzuen balorazioa	3	2004/12/02	JG
1306/2003/24	Irakasle ordezkoari espezialitatea arauz kanpo adjudikatzea	3	2004/08/02	J	
63/2004/20	Tratu txarrak haur eskola batean	1	2004/02/16	J	
101/2004/25	Eskola garraioko zerbitzua erabili ahal izateko baldintzak	1	2004/03/17	J	
106/2004/20	Hiru hizkuntzarako Batxilergoa eta selektibitatea	1	2004/04/29	J	
117/2004/20	A ereduko hezkuntza-eskaintza Bizkaian	1	2004/07/29	J	
156/2004/20	A ereduko hezkuntza-eskaintza Bizkaian	2	2004/04/29	J	
160/2004/20	A ereduko hezkuntza-eskaintza Bizkaian	1	2004/03/24	J	

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindearen data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	223/2004/24	Lizentziatuek DBHko lehen zikloan sarrera izatea	2	2004/07/26	J
	239/2004/20	A ereduko hezkuntza-eskaintza Bizkaian	2	2004/05/05	J
	239/2004/20	A ereduko hezkuntza-eskaintza Bizkaian	1	2004/07/14	J
	239/2004/20	A ereduko hezkuntza-eskaintza Bizkaian	1	2004/09/29	J
	266/2004/20	Sexu jazarpena	1	2004/03/31	J
	266/2004/20	Sexu jazarpena	1	2004/06/03	J
	304/2004/20	Eskola garraioa	1	2004/05/12	J
	304/2004/20	Eskola garraioa	1	2004/09/22	J
	332/2004/20	HfH. Ebaluazioan izandako arazoa	1	2004/05/05	J
	333/2004/16	Hezkuntzako bekak. Ordainketa helbideratzea	1	2004/09/15	J
	336/2004/20	Hezkuntza-behar bereziak dituen ikasle bati emandako arreta	1	2004/05/12	J
	400/2004/20	2 urteko umeentzako D ereduko gelen eskaintza Bizkaian	2	2004/02/19	J
	401/2004/24	Gorputz Hezkuntzako irakasleak ordezkatzeko zerrendak 4 urtez itxita	2	2004/10/05	J
	415/2004/20	Eskola garraioa	1	2004/05/25	J
	468/2004/25	IRALE zerbitzua erabili ahal izateko irizpideak	1	2004/07/08	J
	532/2004/20	Irakasleen egonkortasunerako konpromisoa	1	2004/07/21	J
	540/2004/20	3 urte arteko umeentzako zerbitzuen eskaintza	1	2004/06/24	J
	614/2004/20	Eskola garraioa	1	2004/09/09	J
	615/2004/20	Eskola garraioa	1	2004/09/09	J
	771/2004/25	Eskola eraikinetak akatsak	1	2004/09/14	J
	775/2004/20	IRALErako liberazioa	1	2004/09/09	J
	775/2004/20	IRALErako liberazioa	1	2004/12/02	JG
	776/2004/20	IRALErako liberazioa	1	2004/09/09	J
	776/2004/20	IRALErako liberazioa	1	2004/12/02	JG
	777/2004/20	IRALErako liberazioa	1	2004/09/09	J
	777/2004/20	IRALErako liberazioa	1	2004/12/02	JG
	807/2004/20	Ereduz aldatzea, hezkuntza-behar bereziak direla eta	1	2004/09/22	J
	839/2004/20	Zerbitzu-eginkizunetarako deialdia	1	2004/09/09	J
	844/2004/19	Baimendu gabeko manifestaldi baten arduraduna izateagatik espedientatua	2	2004/10/26	J
	902/2004/20	Batxilergoa. Biologia-Geologia irakasgaiaren eskaintza	1	2004/09/09	J
1082/2004/20	Conservatoire National des Arts et Métiers zentroko ikasketak	1	2004/10/28	J	
1086/2004/20	Ezgaitasuna duten irakasleak	2	2004/12/27	J	
1130/2004/20	Irakasleen egonkortasunerako konpromisoa	2	2004/12/27	JG	
Osasun eta Hemi Administrazioa	1151/2003/24	Lan-poltsak antolatzeko irizpideen aldaketa	2	2004/07/26	J
Industria, Merkataritza eta Turismoa	598/2004/22	Kontsumoko erreklamazioa berandu ebaztea	1	2004/12/02	JG
	903/2004/23	Erregai-filtrazioak zorupean	1	2004/09/30	J
Herrizaingoa	72/2001/21*	Irregularitasunak zehapen-prozeduran	3	2004/10/01	JG
	856/2002/19*	Zezenketaren kontrako elkarretaratzean Ertzaintzak atxilotua	2	2004/03/22	J
	916/2002/24*	Trafikoko zehapena. Ertzainaren araz kanpoko jokabidea	3	2004/06/29	JG
	72/2003/21*	Ertzainen jokaera okerra	2	2004/07/30	J
	94/2003/19*	Sailaren bulegoetara sarbidea ukatzea balizko aurrekari penalengatik	1	2004/01/14	J
	318/2003/21*	Alardea arautzeko eskaera	1	2004/07/30	J
	384/2003/19*	Ertzain baten jazarpena	1	2004/01/14	J
	809/2003/19*	Ertzain baten jazarpena	1	2004/02/16	J
	846/2003/19*	Ertzaintzaren gorputz miaketa San Frantziskoko atari batean	1	2004/02/16	J
	1138/2003/19*	Zerbitzu-enpresetako langileei ertzain-etxeetan sarbidea ukatzea	3	2004/05/20	J
	1143/2003/19*	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/01/14	J

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Herrizaingoa	467/2002/19	Esp. Informatiboa eskuratzea eta laguntza juridikoa ukatzea bere karqun ziharduen funtzionarioari	1	2004/09/17	J
	1031/2002/24	Trafikoko zehapena	1	2004/03/24	J
	1129/2002/21	Irregularitasunak atxiloteta batean	1	2004/10/01	JG
	361/2003/19	Ertzain baten jarduketa	3	2004/06/29	J
	384/2003/19	Polizi atxiloteta gidarien artean	1	2004/05/20	J
	429/2003/19	Trafikoko zehapena	1	2004/06/29	J
	546/2003/19	Ertzain-etxeak kendu edo lekualdatzea	2	2004/05/20	J
	639/2003/19	Ertzain baten kontrako salaketa	1	2004/03/29	J
	846/2003/19	Ertzaintzaren gorputz miaketa San Frantziskoko atari batean	1	2004/10/26	J
	1060/2003/24	Trafikoko zehapena	1	2004/05/19	J
	1143/2003/19	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/06/29	J
	1342/2003/19	Joko makinen baja. 173/2003 Dekretuaren aplikazioa	1	2004/03/29	J
	92/2004/25	Langile publikoen diziiplina-erantzukizuna	1	2004/03/26	J
	92/2004/25	Langile publikoen diziiplina-erantzukizuna	2	2004/09/14	J
	123/2004/19	Trafikoko zehapen baten jakinarazpen akastuna	1	2004/03/29	J
	132/2004/19	Atzerapena posta zerbitzuan	1	2004/03/29	J
	258/2004/19	Ertzaintzaren atestatu batekiko desadostasuna	2	2004/06/29	J
	402/2004/19	Arretarik eza ertzain-etxe batean	1	2004/06/29	J
	499/2004/21	Ertzaintzaren araz kanpoko jarduketa	1	2004/10/01	JG
	743/2004/19	Sailaren web orria	2	2004/10/26	J
	844/2004/19	Baimendu gabeko manifestaldi baten arduraduna izateagatik espedientatua	3	2004/12/09	JG
	983/2004/29	Zezen-ikuskitzen komiko baten gaitzespena	1	2004/10/08	JG
	1117/2004/19	Ertzaintzaren tratu bidegabea trafikoko jarduketa batean	1	2004/12/03	J
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	1023/2003/20*	INEMeko langileak	1	2004/01/14	J
	1023/2003/20	INEMeko langileak	3	2004/09/22	J
	1069/2003/20	Lan-kategoriaren aintzatespena	3	2004/05/05	J
	1334/2003/25	Sektore pribatuko lan-kontratu baten aldaketa	2	2004/06/03	J
	497/2004/16	BGAEn ustezko jarduketa araz kanpoko	2	2004/12/27	JG
	620/2004/19	Lege-medikuntzako bulegoetan sarbidea ukatzea	2	2004/10/26	JG
	741/2004/16	176/2002 Dekretua, seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzkoa	2	2004/12/17	JG
	1020/2004/18	Ezinbesteko kasuak eta kontratuen etendura	1	2004/12/01	JG
Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea	1144/2003/21	Idazki bati ez erantzutea	2	2004/09/28	J
LANGAI	531/2004/20	Hizkuntz normalizazioko teknikari izateko lanpostuetarako sarbidea	1	2004/09/22	J
Osasuna	1274/2003/18*	Osasun arloko garraibideak ezgaituentzat egokitzea	1	2004/02/05	J
	448/2004/18	Osasun laguntza etengabea izateari uztea	1	2004/06/09	J
	542/2004/18	Aurre-erazpenaren teknika aplikatzea antzutasunerako	1	2004/09/14	J
SVS / Osakidetza	785/2003/01*	Sintomarik gabeko azterketa ginekologikoa	1	2004/06/24	JG
	1170/2003/20*	EPE02. Administrari laguntzaileak. Proba praktikoa	1	2004/01/13	J
	1189/2003/18*	Komunikazioetan gaztelania bakarrik erabilteza	1	2004/02/05	J
	1321/2003/18*	Buru-osasuneko zentroa eraikitzeo atzerapena	1	2004/02/05	J
	1119/2003/20	EPE02. Administrari laguntzaileak. Proba praktikoa	2	2004/10/28	J
	1120/2003/20	EPE02. Administrari laguntzaileak. Proba praktikoa	2	2004/10/28	J
	1128/2003/20	EPE. Zuhurtziarokotasun teknikoa	1	2004/03/10	J
	1170/2003/20	EPE02. Administrari laguntzaileak. Proba praktikoa	2	2004/10/28	J
	1321/2003/18	Buru-osasuneko zentroa eraikitzeo atzerapena	1	2004/05/04	J
	65/2004/20	EPE02. Destinoen esleipena	1	2004/04/20	J
	86/2004/17	Oztopo arkitektonikoak Gurutzetako Ospitaleko aparkalekuan	1	2004/05/05	J
	129/2004/18	Ebakuntza egiteko gehiegi itxaron beharra	1	2004/03/03	J
	199/2004/18	Gaixoaren eta medikuaren arteko konfiantzarik eza	2	2004/06/09	J
	244/2004/18	Ebakuntza egiteko gehiegi itxaron beharra	1	2004/05/28	J

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
SVS / Osakidetza	251/2004/18	Ebakuntza egiteko gehiegi itxaron beharra	1	2004/06/09	J
	411/2004/18	Tratamendu jakin bat lortzeko arazoak	1	2004/05/28	J
	411/2004/18	Tratamendu jakin bat lortzeko arazoak	1	2004/10/20	J
	443/2004/18	Ebakuntza egiteko gehiegi itxaron beharra	2	2004/09/20	J
	635/2004/20	Aldi baterako kontratazioa	2	2004/09/10	J
	689/2004/18	Konfiantza galdu eta medikuz aldatzea	1	2004/09/20	J
	703/2004/20	EPE02. Psikiatria. Ezgaituen txanda	1	2004/10/19	J
	706/2004/20	EPE02. Lanpostuaz jabetzea	1	2004/09/09	J
	804/2004/18	Kirurgia estetikoaren beharrezanaren balorazioa	1	2004/09/20	J
	813/2004/18	Zerbitzua etetea materialak berritzen ari direlako	1	2004/09/20	J
	838/2004/18	Kolonoskopia egiterakoan sedazioa lortzeko arazoak	1	2004/12/01	JG
	1169/2004/20	Aldi baterako kontrataziorako zerrendak	2	2004/12/27	J
	1212/2004/20	Medikuen kolektiboa	1	2004/12/27	JG
Eusko Trenbideak/ Ferrocarriles Vascos	787/2003/22*	Bagoien irisgarritasuna	1	2004/01/08	J
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	516/2003/27*	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	1	2004/01/21	JG
	566/2003/27*	Babes ofizialeko etxebizitza lortzeko eskaera	1	2004/02/04	J
	608/2003/27*	Erabilitako etxebizitza liberarako laguntzaren ezeztapena	1	2004/01/21	J
	1218/2003/29*	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzan	1	2004/02/04	J
	1225/2003/29*	Etxea zaharberritzeko laguntza ukatzea	1	2004/01/28	J
	608/2003/27	Erabilitako etxebizitza liberarako laguntzaren ezeztapena	2	2004/05/19	J
	701/2003/27	Etxebizitzarako mailegaren itzulketara aurreratua	1	2004/03/02	J
	1218/2003/29	Etxebizitza erosteko laguntza	1	2004/10/08	JG
	93/2004/29	Erabilitako etxebizitza liberarako diru-laguntza ukatzea	1	2004/09/09	J
	150/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitza erosteko kontratuaren ikus-onespena ukatzea	1	2004/09/30	J
	164/2004/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	1	2004/09/09	J
	187/2004/29	Akatsak babes ofizialeko etxebizitzetan	2	2004/09/09	J
	324/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitzaren errentamendu kontratua	1	2004/06/15	J
	338/2004/23	Urbanizazio obrak	1	2004/05/04	J
	342/2004/29	Erabilitako etxebizitza liberarako laguntzaren ezeztapena	2	2004/09/09	J
	459/2004/29	Etxebizitza zaharberritzeko laguntza	1	2004/10/08	JG
	609/2004/29	Gizarte-etxebizitza alokairuan	2	2004/09/09	J
	624/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke obrenqatiko kalteak	1	2004/09/16	J
	654/2004/29	Babes ofizialeko etxebizitzak legez kanpo okupatzea	1	2004/12/22	JG
	713/2004/29	ETXEBIDEko zerrenda	1	2004/09/13	J
	786/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitzen salmenta-prezioa	1	2004/09/16	JG
	808/2004/23	BOEetarako onartuen zerrendatik kanpo geratzea	1	2004/09/16	J
	808/2004/23	BOEetarako onartuen zerrendatik kanpo geratzea	1	2004/11/24	JG
	826/2004/29	Etxebizitza egokituaren adjudikazioa	1	2004/09/13	J
	849/2004/23	BOEetarako eskabideen erregistroaren kudeaketa	1	2004/09/13	J
	867/2004/29	Akatsak BOEetako garajeetan	1	2004/10/08	J
	919/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitza erosteko kontratuaren ikus-onespena ukatzea	1	2004/09/16	J
	942/2004/29	Ur-filtrazioak babes ofizialeko etxebizitzetan	1	2004/10/08	J
	963/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitzetarako laguntzak ukatzea	1	2004/09/16	J
	978/2004/23	Babes ofizialeko etxebizitza erosteko kontratuaren ikus-onespena ukatzea	1	2004/10/07	J
	996/2004/23	Etxebizitza zaharberritzeko laguntzak	1	2004/10/07	J
	1087/2004/23	BOEak alokatzeko baldintzak	1	2004/11/24	JG
	1136/2004/23	BOEetarako onartuen zerrendatik kanpo geratzea	1	2004/11/24	JG
	1158/2004/23	BOE erosteko kontratuaren ikus-onespena	1	2004/11/24	J

## B) Foru aldundiak

### - Arabako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gizarte Gaiak	1265/2003/01	Adinekoentzako egoitzan jasotako arreta	1	2004/05/07	J
	428/2004/20	Lanaldia murrizteko proposamena	1	2004/06/03	J
	428/2004/20	Lanaldia murrizteko proposamena	3	2004/12/02	JG
	710/2004/01	Etxez etxeko laguntza zerbitzua. Laguntzailearen aldaketa	1	2004/09/30	J
Herri Lanak eta Garraioak	714/2003/22*	Zuhaitz-mozketa	1	2004/02/09	J
	722/2003/23	Derrigorrezko desjabetzea	2	2004/06/15	J
Lehendakaritza	221/2004/20	GOFeko lanpostuen zerrenda-Lanpostuaren izena aldatzea	1	2004/04/29	J
Hirigintza eta Injgurumena	1332/2003/29	Legeztatu gabeko zundaketa egitea	1	2004/03/02	JG

### - Bizkaiko Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Gizarte Ekintza	879/2004/01	Oinarizko errenta. Betekizunak	1	2004/10/07	J
Nekazaritza	965/2004/29	Ukuilu-garajearen eraikuntza	1	2004/09/28	J
Ogasuna eta Finantzak	181/2003/23	Ondare erantzukizuna	1	2004/09/30	J
	948/2003/16	BEZa berandu itzultzea	3	2004/12/27	JG
	478/2004/16	Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia (ZGZB). Familia ugariaren ziozko txikipena	1	2004/12/27	JG
	513/2004/16	Zergei buruzko informazioa eskura izatea	1	2004/12/27	JG
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena	1219/2003/23*	Artisauen erregistroa	1	2004/01/29	J
	1219/2003/23	Artisauen erregistroa	1	2004/09/30	J
Herri Lanak eta Garraioak	181/2003/23	Ondare erantzukizuna	1	2004/09/30	J
	568/2003/23	Lurrak aldi baterako okupatzea	1	2004/06/02	J
	373/2004/29	Gehiegizko abiadura hiri barruko zeharkalean	1	2004/07/08	J
	482/2004/23	Bide baten trazaduraren proiektua	1	2004/08/10	J
	679/2004/23	Segurtasunik eza foru errepide batean	2	2004/09/16	J
	965/2004/29	Ukuilu-garajearen eraikuntza	1	2004/09/28	J
	1150/2004/25	Autobus publikoaren zerbitzuen aldaketa	1	2004/12/02	J

## - Gipuzkoako Foru Aldundia

Saila	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (keza eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Landa Ingurunearen Garapena	831/2003/25*	Ondare erantzukizuna	1	2004/01/16	J
	1207/2003/23*	Arkuzko ehizarako baimena	1	2004/01/29	J
	260/2002/19	Orkatzaren eta basurdearen ehizan aritu ahal izateko Gipuzkoako Ehiza Federazioko eta ehiztari-talde bateko kidea izan beharra	1	2004/05/25	J
	959/2002/19	Lur pribatuetan ehiza-postua jartzea jabeen baimenik gabe	1	2004/03/03	J
	959/2002/19	Lur pribatuetan ehiza-postua jartzea jabeen baimenik gabe	1	2004/05/21	J
Bide Azpiegiturak	861/2003/17	Irisgarritasun falta hiri ingurunean	1	2004/07/08	J
Lurralde Antolaketa eta Sustapena	274/2004/23	Berraztertzeko errekurtsio bati emandako erantzuna	1	2004/04/29	J
Gizarte Politika	806/2003/21	Adinagatiko bereizkeria ume bat atzerrian adoptatzerakoan	2	2004/03/24	J
	911/2004/18	Ezgaitasun espedientea tramitatzeke atzerapena	1	2004/12/01	JG

## C) Udalak

## - Arabako Lurralde Historikoa

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Aramaio	672/2004/29	Udal enpresa baten argindar-hornidura eskura izatea	1	2004/09/07	J
Artziniega	1019/2002/23*	Hirigintzaren legezketasuna	1	2004/01/29	J
	1019/2002/23	Hirigintzaren legezketasuna	2	2004/09/16	J
Ayala / Aiara	1198/2002/17	Eragozpenak, elizako kanpaiaren hotsak direla eta	1	2004/05/05	J
Bernedo	614/2003/22*	Herri bide baten erabilera pribatiboa	1	2004/02/06	J
	167/2004/29	Lorategi botanikoan legeak ez betetzea	2	2004/05/19	J
Iruña Oka / Iruña de Oca	167/2004/29	Lorategi botanikoan legeak ez betetzea	2	2004/10/08	J
	894/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/09/30	JG
La Guardia	492/2004/23	Trafikoaren eta aparkalekuen antolamendua	3	2004/11/26	JG
Leza	328/2003/28	Lurzorueta sailkatutako jarduerak	2	2004/12/22	JG
Llodio	1343/2003/22*	Ondasun Higuezinen gaineko Zerqa	1	2004/02/09	J
Valdegovia	1464/2001/19*	Trafikoko zehapena	1	2004/01/14	J
Vitoria-Gasteiz	677/2003/22*	Ondare erantzukizuna	2	2004/03/24	J
	742/2003/22*	Ondare erantzukizuna	1	2004/02/09	J
	945/2003/21*	Zaintzapeko bisiten unitatearen funtzionamendua	1	2004/02/04	J
	1048/2003/28*	Trafikoko zehapena	2	2004/06/21	J
	1129/2003/22*	Isurbide buxatuak	3	2004/06/29	J
	590/2003/18	Autobusen geltokian gaztelania bakarrik erabiltzea	1	2004/03/26	JG
	945/2003/21	Zaintzapeko bisiten unitatearen funtzionamendua	1	2004/10/28	J
	1028/2003/25	Ondare erantzukizuna	1	2004/06/24	J
	1193/2003/18	Komunikazioetan gaztelania bakarrik erabiltzea	1	2004/03/26	JG
	1211/2003/18	Komunikazioetan gaztelania bakarrik erabiltzea	1	2004/03/26	J
	1223/2003/19	Udaltaingoa ez zion dokumentaziorik eman	1	2004/02/16	J
	107/2004/24	Zehapena ez jakinaraztea	1	2004/04/20	J
	143/2004/17	Irisgarritasuna bide publikoan	2	2004/06/07	J
	161/2004/20	Hautaprobak - Udaltzainak	1	2004/04/20	J
	209/2004/25	Langile publikoen diziplina-erantzukizuna	2	2004/06/16	J
	531/2004/20	Hizkuntz normalizazioko teknikari izateko lanpostuetarako sarbidea	1	2004/09/22	J
	531/2004/20	Hizkuntz normalizazioko teknikari izateko lanpostuetarako sarbidea	1	2004/12/27	JG
	728/2004/25	Haur eskoletako ikasleen onarpena	1	2004/09/09	J
	903/2004/23	Erregai-filtrazioa zorupean	1	2004/09/30	J
	1035/2004/20	Udalaren haur eskolak	1	2004/09/22	J
	1091/2004/22	Oinezkoentzako pasabideak	1	2004/12/02	JG
	1092/2004/22	Hiri barruko autobusen geralekuak	1	2004/12/02	JG
	1144/2004/16	Egoitzetako erabiltzaileei aplikatu ahal zaizkien prezio publikoak	1	2004/11/25	J

## - Administrazio batzarrak

Batzarra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Fontecha	269/2003/22*	Edateko uraren eta saneamenduaren hartunea	1	2004/03/18	J
Hereña	720/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	3	2004/11/26	JG



**- Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Abadiño	1349/2003/22	Semaforoen sinkronizazioa Abadiñoiko zeharkalean	1	2004/11/24	JG
Abanto y Ciérvana-Abanto	1258/2003/29*	Horma eraisteko agindua	3	2004/04/22	J
	1258/2003/29	Horma eraisteko agindua	1	2004/09/07	J
	Zierbena	299/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	2	2004/06/15
Alonsotegi	482/2004/23	Saihesbidea egiteko proiektua	3	2004/11/26	JG
	603/2004/23	Hirigintzaren legezketasuna	3	2004/11/26	JG
Arrankudiaga	447/2004/23	Urbanizazio obrak	1	2004/06/15	J
Atxondo	383/2003/23	Hirigintzaren legezketasuna	3	2004/09/16	JG
	568/2004/23	Bide publiko baterako sarbidea	3	2004/11/26	JG
Bakio	177/2004/29	Aldaketak errekatzu batean	1	2004/04/22	J
Balmaseda	132/2003/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/06/07	J
	132/2003/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/01/08	J
Barakaldo	1251/2002/24*	Ekintza beraqatik trafikoko bi zehapen ezartzea	3	2004/06/03	JG
	1127/2002/28	Ibilgailua bide publikotik kentzea	1	2004/10/07	J
	1140/2003/28	Pertsona ezgaituek aparkatzeko dituzten arazoak	1	2004/10/07	J
	1285/2003/24	Ibilgailua erretiratzea	2	2004/12/09	JG
	1315/2003/23	Garajea eraikitzeko obrak	2	2004/05/04	J
	1360/2003/29	Eragozpenak direla-eta patioa ixteko baimenik ez ematea	1	2004/06/24	J
	58/2004/24	Ondare erantzukizuna garabiak ibilgailuari egindako kalteengatik	1	2004/03/24	J
	58/2004/24	Ondare erantzukizuna garabiak ibilgailuari egindako kalteengatik	1	2004/10/05	J
	566/2004/01	Gizarte larrialdietarako laquntzak. Gastuak frogatzea	1	2004/09/20	J
	786/2004/23	Extebizitzaren salmenta-prezioa	1	2004/09/16	J
	836/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/09/16	J
	981/2004/23	Bidea egiteko obrak	1	2004/12/01	J
Barrika	591/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/10/05	J
Basauri	934/2003/22	Zor ez ziren sarreren itzulketa-OHZ	1	2004/06/29	J
Bermeo	627/2003/22*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/03/24	JG
	1266/2003/23	Zubiaren egoera	3	2004/05/04	J
Berriatua	1222/2003/17*	Hondakinak pilatu eta erretzea legez kanpoko hondakindegian	1	2004/02/09	J
	605/2004/17	Hondakinak pilatu eta erretzea legez kanpoko hondakindegian	3	2004/11/08	JG
Bilbao	1183/2002/18*	Prezioen berrikuspena administrazio-kontratu batean	1	2004/01/28	J
	642/2003/22*	Jarioa ur beltzen hodian	1	2004/02/09	J
	710/2003/23*	Urbanizazio obrak	1	2004/01/29	J
	1032/2003/19*	Bide publikotik alde egiteko agintzea mimo antzezenak egiteagatik	3	2004/03/22	J
	1080/2003/21*	Polizien araz kanpoko jarduketa	2	2004/10/01	J
	1154/2003/25*	Ondare erantzukizuna	2	2004/02/25	J
	1163/2003/17*	Irisgarritasuna bide publikoan	3	2004/06/07	J
	1256/2003/19*	Trafikoko zehapena	1	2004/01/14	J
	5/2001/19	Oinezkoentzako eremuei buruzko araua betetzea	1	2004/11/17	J
	431/2001/19	TAO aldean ezgaituek aparkatzeko araubide berezia	2	2004/06/30	J
	1482/2001/16	Administrazioaren isiltasuna	3	2004/09/15	JG
	402/2002/19	TAO txartela ukatzea	3	2004/05/18	J
	420/2002/19	TAO txartela ukatzea	2	2004/06/30	J
	433/2002/19	TAO txartela ukatzea	1	2004/05/21	J
	446/2002/19	TAO txartela ukatzea	1	2004/05/21	J
	451/2002/19	TAO txartela ukatzea	1	2004/05/21	J
	833/2002/19	TAO txartela ukatzea	1	2004/05/21	J
	1143/2002/24	Trafikoko zehapena	1	2004/08/02	J
	1192/2002/19	TAO txartela ukatzea	1	2004/05/21	J
	28/2003/19	TAO txartela ukatzea	1	2004/05/21	J

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)	
Bilbao	389/2003/22	Suhiltzaileen tasak nahitaez ordainarazteko prozedura	1	2004/06/29	J	
	888/2003/24	Iregularitasunak zehapen prozeduraren tramitazioan	1	2004/09/22	J	
	1071/2003/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/05/05	J	
	1323/2003/24	Ekintza beragatik trafikoko hainbat zehapen ezartzea	1	2004/03/24	J	
	1358/2003/17	Irisgarritasuna bide publikoan	2	2004/06/07	J	
	1363/2003/23	Lokala irekitzeko lizentzia	1	2004/02/24	J	
	85/2004/22	Jakinarazpena-OHZ eta estolderia tasa	1	2004/03/24	J	
	181/2004/19	Kontu korrontea enbargatzea isunak ez ordaintzeagatik	1	2004/05/21	J	
	181/2004/19	Kontu korrontea enbargatzea isunak ez ordaintzeagatik	1	2004/09/21	J	
	192/2004/22	Saneamendu tasaren kobrantza	1	2004/05/06	J	
	277/2004/23	Aparkaleku publikoaren adjudikazioa	1	2004/04/29	J	
	301/2004/25	Ondare erantzukizuna	3	2004/09/14	JG	
	305/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	306/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	307/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	308/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	309/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	310/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	311/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	312/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	313/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	314/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/06/24	J	
	348/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/11/05	J	
	382/2004/24	Trafikoko zehapenaren arauz kanpoko jakinarazpena	1	2004/08/02	J	
	427/2004/29	Lurzatia lagatzeko prozedura	1	2004/06/24	J	
	434/2004/23	Akatsak aparkaleku publikoan	3	2004/09/16	J	
	483/2004/19	Trafikoko zehapena	1	2004/09/17	J	
	597/2004/19	TAO isunak	1	2004/09/17	J	
	625/2004/19	TAO isunak	1	2004/09/17	J	
	697/2004/23	Aparkalekua adjudikatzeke baldintzak	1	2004/09/16	J	
	780/2004/22	Hilerriak	1	2004/11/09	J	
	802/2004/24	TAOko arau-haustearen salaketa iregularra	1	2004/10/05	J	
	860/2004/24	TAO isunak	1	2004/12/09	JG	
	908/2004/22	Muskulazio ikastaroak	1	2004/11/09	J	
	1051/2004/23	Jarduera lizentzia	1	2004/11/24	JG	
	Dima	89/2004/29	Eraispen agindua ez betetzea	1	2004/03/24	J
		89/2004/29	Eraispen agindua ez betetzea	1	2004/07/08	J
	Durango	718/2003/22*	Ordenantzen onespena. Prozedura	1	2004/01/08	J
		1361/200317	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/04/06	J
	Erandio	1213/2000/19	Pertsona ezgaituentzat gordetzen diren lekuetan aparkatzeko arazoak	1	2004/06/30	J
Ermua	338/2004/23	Urbanizazio obrak	3	2004/09/16	J	
	621/2004/25	Ondare erantzukizuna	1	2004/07/27	J	
Galdakao	996/2002/25*	Ondare erantzukizuna	1	2004/01/16	J	
	996/2002/25	Ondare erantzukizuna	3	2004/09/14	JG	
	178/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	1	2004/04/22	J	
	178/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	1	2004/11/29	J	
	179/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	1	2004/04/22	J	
	179/2003/27	Balkoi bateko itxitura eraisteko agindua	1	2004/11/29	JG	
	181/2003/23	Ondare erantzukizuna	1	2004/09/30	J	
	476/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/10/05	J	
	679/2004/23	Bide-segurtasunik eza	1	2004/07/30	J	
Gernika-Lumo	240/2004/29	Erroldatzeko eskaerari ezetza ematea	1	2004/05/12	J	

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Getxo	920/2003/25*	Ondare erantzukizuna	1	2004/02/04	J
	1318/2003/23*	Animaliak hartzeko zentroa	1	2004/01/29	J
	172/2004/20	Talde politikoan zerbitzuan diharduten administrari laguntzaileak	1	2004/03/24	J
	283/2004/20	Eskola instalazioak	1	2004/12/27	JG
Lemoa	718/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/11/04	J
Lemoiz	396/2004/22	Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzea	1	2004/07/14	J
Lezama	655/2004/22	Saneamendu tasa kobratzea (putzu septikoa)	1	2004/12/02	J
Markina-Xemein	1012/2002/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/02/09	J
	1045/2002/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/02/09	J
	1046/2002/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/02/09	J
Meñaka	965/2004/29	Ukuiu-garaiearen eraikuntza	1	2004/09/28	J
Munčia	821/2003/23	Mantentze lanak urbanizazio pribatu batean	3	2004/09/16	JG
Muskiz	712/2003/23*	Hirigintzaren legezotasuna	1	2004/01/29	J
	747/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/11/08	JG
Ondarroa	874/2003/20*	Aldi baterako beharrianak Udaltzaingoa	1	2004/01/14	J
	1132/2003/17*	Irisgarritasun falta kreditu-etxe batean	1	2004/02/09	J
Ortuella	1230/2003/29*	Umeentzako parke baten egoera txarra	1	2004/01/28	J
	906/2004/23	Aparkaleku publikoa adjudikatzeko baldintzak	2	2004/11/26	J
	1139/2004/23	Hirigintzako diziplina	1	2004/11/26	J
	1231/2004/19	Etixerik gabeko pertsonak erroldatzea	1	2004/12/03	J
Portugalete	1110/2002/24*	Ondare erantzukizuna	2	2004/03/24	J
	1031/2003/22*	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/02/09	J
	1262/2003/28*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/02/09	J
	124/2003/19	Udaltzainek emandako tratu desegokia	2	2004/06/30	J
	1262/2003/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/10/07	J
	113/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/04/06	J
	113/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2	2004/11/08	JG
	545/2004/19	Atzeritarren egoera	3	2004/12/03	JG
	758/2004/22	Behin-behineko instalazioak eremu publikoan	1	2004/12/02	J
	1176/2004/19	Etixerik gabeko pertsonak erroldatzea	1	2004/12/03	JG
	1231/2004/19	Etixerik gabeko pertsonak erroldatzea	1	2004/12/03	JG
Santurtzi	988/2003/19*	Ez diote uzten udal kirolegjiko instalazioak erabiltzen	1	2004/01/13	J
	1054/2003/25*	Ondare erantzukizuna	1	2004/01/16	J
	632/2004/29	Urbanizazioaren ondorioz lonja batek izandako kalteak	1	2004/07/06	J
Sestao	1129/2002/21	Irregularitasunak Udaltzaingoa atxilotuta zentroat	1	2004/10/01	JG
	208/2004/25	Ondare erantzukizuna	1	2004/04/30	J
	386/2004/24	Ibilgailuak udal biltegira eraman eta bertan edukitzeagatik tasa	1	2004/10/07	J
	416/2004/22	Umeentzako jolaslekuen falta	2	2004/12/02	JG
646/2004/20	Administrazioaren isiltasuna	3	2004/10/19	J	
Sondika	131/2004/22	Gainbalio-zerbaren gehikuntza	1	2004/03/24	J
Sopuerta	155/2003/22*	Bide baten konponketa	1	2004/02/06	J
	163/2003/22*	Bide baten konponketa	1	2004/02/06	J
	155/2003/22	Bide baten konponketa	1	2004/06/22	J
	163/2003/22	Bide baten konponketa	1	2004/06/22	J
	370/2003/22	Herri lurren emakidaren eskaera	1	2004/06/29	JG
Zamudio	464/2004/23	Lurrak birzaitzeko proiektua	1	2004/06/15	J
Zaratamo	473/2004/22	Zerbitzurik eza	1	2004/12/02	J
Zeberio	115/2004/18	Inqurumenari buruzko informazioa eskura izatea	3	2004/09/20	J

**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Aia	235/2004/23	Bide baten mugaketa	1	2004/05/04	J
Arrasate- Mondragón	525/2003/24	Autokarabanak aparkatzeko mugak	1	2004/09/09	J
	606/2004/16	TMIZ. Ezgaitasunaqatikoko salbuespena	1	2004/12/27	JG
Asteasu	1354/2003/17	Txakurrentzako txabolak legez kanpo eraikitzea	1	2004/04/06	J
	1354/2003/17	Txakurrentzako txabolak legez kanpo eraikitzea	1	2004/11/08	J
Beasain	631/2004/22	Udalaren ekipamenduetatik datozen filtrazioak garaje batean	2	2004/12/02	JG
Donostia-San Sebastián	903/2002/24*	TAO eremuko egoiliarren ezaugarria ukatzea	2	2004/03/24	J
	682/2003/23*	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/01/29	J
	704/2003/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	3	2004/06/07	J
	820/2003/19*	Administrazioaren isiltasuna	2	2004/03/29	J
	937/2003/23*	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/01/29	J
	1095/2003/23*	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/01/29	J
	1184/2003/18*	Obretako seinaleetan gaztelania bakarrik erabiltzea	3	2004/06/23	JG
	587/2001/24	TAO eremuko egoiliarren ezaugarria ukatzea	3	2004/08/02	JG
	704/2003/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/11/05	JG
	1111/2003/16	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/12/27	JG
	1149/2003/29	Errepidearen eta etxebizitzetako sarbideen egoera txarra	1	2004/11/24	JG
	1345/2003/29	Prekarioko lizentzia Ulian	3	2004/05/19	J
	5/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	5/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	6/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	7/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	7/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	8/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	8/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	9/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	10/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	10/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	11/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	11/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	12/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	13/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	13/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	14/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	14/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	15/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	15/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	16/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	16/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
17/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
17/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
18/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
18/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
19/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
20/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
20/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
21/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
21/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
22/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
22/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
23/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
23/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
24/2004/17	Irisgarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Donostia-San Sebastián	24/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	25/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	25/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	26/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	26/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	27/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	27/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	28/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	29/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	30/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	30/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	31/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	31/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	32/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	32/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	33/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	33/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	34/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	34/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	35/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	35/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	36/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	36/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	37/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	37/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	38/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	38/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	39/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	39/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	40/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	40/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	41/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	42/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	43/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	43/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	44/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	45/2004/17	Txakurrentzako txabolak legez kanpo eraikitzea	1	2004/05/05	J
	47/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	48/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	49/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	50/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	51/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	51/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	52/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	53/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J
	53/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
54/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
54/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
55/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/03/29	J	
55/2004/17	Irugarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG	
60/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	3	2004/06/15	JG	
70/2004/29	Administrazioaren isiltasuna	3	2004/06/24	J	
83/2004/24	Oinezkoentzako eremuko egoilarraren ezaguarria ukatzea	2	2004/06/29	JG	
194/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	2	2004/05/04	J	
195/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	2	2004/05/04	J	
267/2004/24	Ondare erantzukizuna, erorikoa dela-eta	1	2004/06/03	J	

Udala	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Donostia-San Sebastián	354/2004/17	Irisingarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/06/07	J
	356/2004/17	Irisingarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	359/2004/17	Irisingarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	361/2004/17	Irisingarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/06/07	JG
	362/2004/17	Irisingarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	363/2004/17	Irisingarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	JG
	364/2004/17	Irisingarritasun falta establezimendu publiko batean	1	2004/09/30	J
	486/2004/29	Uraren tasa itzultzeko eskaera	2	2004/08/04	JG
	551/2004/16	EIOZren zerga-oinarria	1	2004/09/15	J
	559/2004/29	Garajeen emakida adjudikatzeko prezioak	1	2004/07/08	JG
	561/2004/24	TAO eremuko egoiarraren ezaugarria ukatzea	2	2004/10/07	J
	715/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/11/24	JG
	744/2004/23	Ondare erantzukizuna	1	2004/11/24	JG
	865/2004/28	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/12/22	JG
	999/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/11/05	J
	1080/2004/22	Ondare erantzukizuna	1	2004/12/02	J
1103/2004/23	Administrazio-espedituek eskura izatea	1	2004/11/24	JG	
Eibar	644/2004/23	Ondare erantzukizuna	2	2004/11/26	J
	575/2004/17	Barne berrikuntzarako plan berezi baten onespena	1	2004/07/08	J
Elgoibar	938/2004/23	Ondare erantzukizuna	2	2004/10/29	J
Errenteria	607/2004/20	Administrari laguntzaileak hautatzeko probak. Ezgaiauzako erreserba	1	2004/09/22	J
	910/2004/19	TAO isunak	1	2004/10/22	J
Hondarribia	1042/2003/17*	Higiezin batean utez egiten ari den jarduerak sortutako eragozpenak	3	2004/06/07	JG
	971/2004/21	Emakumeen diskriminazioa Alardean	1	2004/12/27	JG
Ibarra	993/2003/19	Administrazioaren isiltasuna	2	2004/05/21	J
Irun	1017/2003/23*	Hirigintzaren legezotasuna	2	2004/04/05	J
	412/2004/19	Aparkalekuak	1	2004/06/30	J
	412/2004/19	Aparkalekuak	2	2004/10/22	J
Irura	1061/2004/23	Hirigintzako diziplina	1	2004/11/26	JG
Lasarte-Oria	394/2002/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/02/09	J
	262/2004/18	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/03/30	J
Legazpi	1086/2003/20	Eginkizunak taldearen edo titulazioaren arabera egokitzea	1	2004/03/10	J
	1086/2003/20	Eginkizunak taldearen edo titulazioaren arabera egokitzea	1	2004/05/19	J
	1086/2003/20	Eginkizunak taldearen edo titulazioaren arabera egokitzea	1	2004/12/27	JG
Mutriku	343/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	3	2004/08/02	J
Oiartzun	232/2004/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/05/05	J
Orio	634/2002/24*	Ondare erantzukizuna	2	2004/03/24	JG
	843/2003/17	Hirigintzako diziplina	1	2004/02/09	J
	1335/2004/20	Udalak hezkuntza zentroei laguntza ematea	1	2004/12/27	JG
Ormaiztegi	198/2004/20	Idazkari-kontuhartzailerearen egoera	1	2004/04/29	J
Pasaia	636/2001/17*	Tailer batek sortzen dituen eragozpenak	1	2004/01/15	J
	479/2003/27	Erroldatzeko eskaerari ezezkia	3	2004/07/27	J
	1372/2003/24	Udalak langabeen zerrendatik kentzea lanak egiteko deitzen dituzten pertsonak	2	2004/07/26	J
Urnieta	502/2004/29	Antena parabolikoa kentzea	1	2004/07/08	J
Usurbil	1136/2003/23*	Mugatze administratiboa	1	2004/02/24	J
Zarautz	271/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/04/05	J
	486/2003/17	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	1	2004/11/08	J
Zizurkil	1364/2003/22	Zaborra biltzeko tasak	1	2004/03/04	J
	1364/2003/22	Zaborra biltzeko tasak	3	2004/12/02	J
Zumaia	939/2003/23*	Legeztatu gabeko itxitura lurzati batean	2	2004/04/05	J
	939/2003/23	Legeztatu gabeko itxitura lurzati batean	2	2004/11/26	JG
	1006/2004/23	Hirigintzako diziplina	2	2004/11/26	JG

## D) Beste erakunde publiko batzuk

	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Agindei kopurua urtean zehar	Azkeneko agindeiaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Bizkaiko Abokatu Elkargoa	828/2002/21*	Espedientea ikusten ez uztea	1	2004/03/24	J
Bizkaiko Finka Administratzaile en Lurraldeko Elkargoa	1021/2003/22*	Finka-administratzailearen titulua eskuratzeko bidea	1	2004/02/09	J
Legelarien Euskal Kontseilua	366/2001/21*	Espedientea ikusten ez uztea	1	2004/03/17	J
	597/2003/21*	Errekurtsoa astiroegi tramitatzea	2	2004/03/17	J
	598/2003/21*	Errekurtsoa astiroegi tramitatzea	2	2004/03/17	J
	378/2004/21	Errekurtsoa astiroegi tramitatzea	1	2004/10/01	JG
Arabako Errioxako Urkidetza	1332/2003/29	Legeztatu gabeko zundaketa egitea	1	2004/03/02	J
Arratiako Udalen Mankomu- nitatea	66/2004/20	"Arratiako Behargintza"ko teknikari koordinatzailea izateko lanpostu bat betetzea	1	2004/09/09	J
Mebisa - Bilboko Metroa	1077/2002/22*	Sarrerako makinak atek ixteko sistema	1	2004/02/05	JG
	729/2004/22	Igoqailuen funtzionamendua gaez	1	2004/12/02	JG
Euskal Herriko Unibertsitatea	1339/2003/20*	Miquel Unamuno lkasle-egoitza Nagusia	3	2004/03/24	J
	124/2004/25	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/04/30	J
	319/2004/25	Administrazioaren isiltasuna	1	2004/06/16	J
	326/2004/20	Irakaslanaren esleipena	1	2004/06/03	J
	326/2004/20	Irakaslanaren esleipena	2	2004/10/28	J
	1124/2004/25	Ezagutzak ebaluatzeke prozedura	1	2004/12/02	JG

## 4. ARARTEKOAK 2004AN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA

### A) Eusko Jaurlaritza

Saila	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	Kabinetearen Zuzendaria	Igone Martínez de Luna a.t.a.	153/2002/20*	Aurreko esperientzia baloratzea irakasleen ordezkapenak egiteko	2004/05/05	J
			85/2003/20*	Irakasleak berrabiltzeko irizpideak	2004/02/23	J
			693/2003/20*	Eskola instalazioak	2004/03/25	J
			1047/2003/20*	Irakasleen ordezkapenak	2004/02/23	J
			1070/2003/25*	Ondare erantzukizuna	2004/06/01	J
Herrizaingoa	Kabinetearen Zuzendaria	Javier Portuondo j.t.a.	824/2000/24*	Trafikoko zehapen prozedura	2004/02/18	J

### B) Foru aldundiak

#### - Gipuzkoako Foru Aldundia

Saila	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Landa Ingurunearen Garapena	Foru Diputatua	Nuria López de Gereñu a.t.a.	831/2003/25*	Ondare erantzukizuna	2004/02/27	J

### C) Udalak

#### - Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartarazpenaren data	Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Alonsotegi	Alkatea	Gabino Martínez de Arenaza	485/2003/27*	Biztanleen udal errollan alta emateko eskaera	2004/02/02	J
Barakaldo	Alkatea	Antonio J. Rodríguez	409/2003/27*	Fatxada baten aurrean gizarte etxea eraikitzea	2004/03/25	J
Basauri	Alkatea	Rafael Ibarquien	442/2003/23	Ondare erantzukizuna	2004/04/19	J
Bilbao	Alkatea	D. Iñaki Azkuna j.t.a.	710/2003/23*	Urbanizazio obrak	2004/04/19	J
Durango	Alkatea	Juan José Ziarrusta	718/2003/22*	Ordenantzen onespina. Prozedura	2004/05/03	J
Galdakao	Alkatea	Joseba Escribano	996/2002/25*	Ondare erantzukizuna	2004/03/25	J
Ondarroa	Alkatea	Aitor Maruri	874/2003/20*	Aldi baterako beharrianak Udaltzaingoa	2004/03/25	J
Portugalete	Alkatea	Miguel Ángel Cabieces	984/2002/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2004/07/02	J
Sestao	Alkatea	Alberto Lozano	675/2002/17*	Lurzoruetan sailkatutako jarduerak	2004/06/17	J



**- Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Udala	Ardura	Titularra	Erreferentzia (esp.zenb.)	Azalpena (kexa eragin duen gaia)	Ohartaraz- penaren data	Informazio jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J)
Irun	Alkatea	José Antonio Santano	1017/2003/23 <sup>a</sup>	Hiriqintzaren legezketasuna	2004/05/11	J
Mutriku	Alkatea	Estanis Osinalde	343/2004/23	Administrazioaren isiltasuna	2004/10/05	J
Orio	Alkatea	Mirari Arruabarrena	634/2002/24 <sup>a</sup>	Ondare erantzukizuna	2004/06/03	JG
Zumaia	Alkatea	Maria Eugenia Arrizabalaga	939/2003/23 <sup>a</sup>	Legeztatu gabeko itxitura lurzati batean	2004/05/11	J

V. ATALA

**ARARTEKOAREN GOMENDIOAK  
ZENBATERAINO BETE DIREN**



Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak –otsailaren 27koak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: “*Dagokien ihardutze-sailei, herrilanaiei edo hoi lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriazko egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko*” (sic). Kexak bideratzeko lana garatzean, batzuetan administrazio-jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugu, bai herritarren eskubideak urratu direlako, bai ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak bete ez direlako, bai aztertutako administrazio-jokaera hobea izan daitekeelako, ikuspegi bermatzaileago batetik, edo eraginkorragoa, zerbitzu publiko baten helburu propioak betetzean. Kasu horietan, Arartekoak gomendio bat bidaltzen du kexak eragindako administraziora, jokaera alda dezan eskatzeko.

Hala ere, komeni da zehaztea beti ez dela beharrezkoa gomendia egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezotasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregularitasunak antzeman dituzten 317 administrazio-jokaera gomendiorik egin gabe konpondu dira.

Nolanahi ere, egindako gomendioak betetzeari bakarrik lotuko gaitzaizkio: 2004. urtean egindako 29 gomendioetatik eta 2003an erabakitzeke zeuden beste 13 gomendioetatik, 11 onartu dira; 24 ez dira onartu; 4 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daude; eta 3 eten egin dira, arazoak jurisdikzioaren esku jarri baitira.

Kopuruaren ikuspegitik, 2004an egindako gomendioetatik gutxi gorabehera % 30 onartu direla aipatu behar da, bertan behera utzitakoak eta erabakitzeke daudenak kontuan izan gabe, jakina.

Emaitza horiek baloratzekoan, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendioak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola herri-administrazioetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arazoitzeko beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisisetan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzen eta gure argudioak errepikatzen, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeko dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatu ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzea eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzea dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio-jokaera bat aldatzea gomendatzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela. Administrazioaren desadostasun juridikoa gertatzekotan, erakunde honek bere gomendioari eutsiko dio, hala badagokio, eta urteko txostenean ez dela onartu agertuko du.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendia onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendia ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartutzat joko dela gomendia, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean. Erakundeen artean begirune eza erakusten duen jarrera horrek eragotzi egiten du gomendia ez onartzeko arrazoiak jakitea, eta, askotan, besterik gabe, hartutako administrazio erabakiak ez duela oinarri juridikorik azaldu beharra saihesten du.

Gure ustez, gomendia eragin duten espedienteak amaitzeko beste modu desgoki bat gomendia ez onartzea da, eragindako administrazioak kontrako jokaera hori oinarritzen duten argudioak azaldu gabe.

Uste dugu jokaera horiek –erantzun nahi ez izatea edo arrazoitu gabeko ezezko erantzuna ematea– urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokaera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde eskubidebermatzaile batera babes eske joan diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorazi behar da onartu gabeko gomendio bakoitzak, erakunde honen bermatze-lanerako oztopoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Jarraian, 2004an egin diren eta 2003eko abenduaren 31n behin betiko erantzunaren zain zeuden gomendioen egoera aipatuko dugu. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak; 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioaren behin betiko erabakiaren zain daudenak; eta 4) eten egin direnak, arazoa epaitegiaren esku jarri delako.

Hala ere, kategoria ezberdinetan banakatzearen ondorioz, onartu ez diren gomendioen multzoan sartu behar izan ditugu Bilboko Udalari espediente hauetan egin dako gomendioak: 402/2002/19, 403/2002/19, 456/2002/19, 584/2002/19, 994/2003/19 eta 293/2004/19 zenbakiko espedienteetan (19/2004 Gomendia, abuztuaren 12koa), eta 420/2002/19 zenbakikoan (24/2004 Gomendia, urriaren 29koa), nahiz eta udalak gomendio horiek neurri batean betetzeko asmoa duela adierazi digun. Izan ere, onartu dituen alderdiak kontuan izanik, gomendio horiek ezin ditugu onartutakoan kategorian sartu.

Haatik, udal berari 451/2002/19 zenbakiko espedientean egin genion gomendia (25/2004 Gomendia, urriaren 29koa), onartuen multzoan sartu dugu, nahiz eta, azkenean, udalak ez zuen egiaztatu kexagilea Biztanleen Udal Erroldako inskripzioan agertzen zen helbidean bizi zen ala ez, bada, adierazi zigunez, gomendia betetzeko prozesuan, egiaztatu zuen interesdunaren ibilgailuak –harentzat eskatu zuen TAO zonako egoiliar txartela– ez zuela betetzen aurretiaz bete beharreko beste baldintza bat, alegia, trazio

mekanikoko ibilgailuen gaineko udal zergan alta hartuta egotea, eta, horren ondorioz, interesdunak ezin zuela egoiliar txartelaren onuradun izan.

Donostiako Udalak abenduaren 19ko 36/2003 Gomendioa (490/2003/19 zenbakiko espedientea) betetzeko asmorik ez zuela adierazi zigun arren, onartuen atalean sartu dugu gomendio hori, izan ere, zeharka jakin dugu udalak bete zuela gomendioa.

Bestalde, Getxoko Udalak azkenean ebatzi du abenduaren 19ko 35/2003 Gomendioan (1339/2001 zenbakiko espedientea) aipatu genuen administrazio-errekurtoa, baina ez du bete martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ondare erantzukizunezko prozedurak bideratu eta ebazteko ezartzen dituen epeak betetzeaz gomendioan emandako agindua. Horregatik, onartu ez diren gomendioen multzoan sartu dugu.

Azkenik, ez onartutzat jotzea erabaki dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eta Gasteizko Udalari hurrenez hurren egindako bi gomendio (1/2004 Gomendioa, urtarrilaren 13koa, eta 14/2004 Gomendioa, maiatzaren 31koa), bada hasieran gomendioak betetzeko asmoa agertu bazuten ere, azkenean egiaztatu dugu ez dituztela benetan bete.

## 1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **12/2003/20 espedientea (34/2003 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko laguntzak eskatzen dituen ikaslearen familiak kontratatutako langileak dituenean –familia unitatetik kanpokoak–, ez daitezela eskaerak besterik gabe ukatu, baizik eta kasuak banan-banan azter daitezela, deialdiaren Aginduaren 18.3 artikuluan ezarritakoa betetze aldera.

#### Herrizaingo Saila

\* **824/2000/24 espedientea (10/2004 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: baliorik gabe utz zedila (...) jaunari (...) zenbakiko prozeduran jarri zion zigorra, beharrezko izapideak burutu zitezela horren ondoriozko premiamendu prozedura ere indarririk gabe uzteko, eta itzul zedila horregatik jasotako diru-kopurua.

\* **360/2002/24 espedientea (8/2004 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: beharrezko izapideak burutu zitezela (...) zenbakiko zigor-espedientearen ondorioz (...)ren kontra bideratu zen premiamendu prozedura baliorik gabe uzteko, eta itzul zedila horregatik kobratutako diru-kopurua.

\* **835/2002/24 espedientea (9/2004 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: baliorik gabe utz zitezela (...) zenbakiko prozeduretan (...) jaunari ipinitako zigorrak, beharrezko izapideak burutu zitezela horien ondoriozko premiamendu prozedurak ere balio gabetzeko, eta itzul zitezela horiengatik kobratutako diru-kopuruak.

### B) FORU ADMINISTRAZIOA

#### Arabako Foru Aldundia

\* **1481/2001/16 espedientea (3/2002 Gomendioa)**. Apirilaren 24ko 25/1989 Foru Araua –Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa– garatzeko araudi bat onar zedila gomendatu zen, espresuki kontuan hartuz oraingo zerga-sisteman zergadunari onartzen zaizkion eskubide eta bermeak.

#### Gipuzkoako Foru Aldundia

\* **564/2003/23 espedientea (2/2004 Gomendioa)**. (...) andrearen erreklamazioa ez onartzeko erabakia berriz azter zedila gomendatu zen, aldundiaren eraikina mantentzeko zerbitzu publikoak ez jardun izanak sortu baitzuen kaltea. Gero, gaia berriro ebatz zedila, eta eragindako kalteengatik kexagileak ordaina jasotzeko eskubidea duela onar zedila.

## C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

### BIZKAIKO UDALAK

#### Bilboko Udala

\* **451/2002/19 espedientea (25/2004 Gomendioa)**. Kexagilea Biztanleen Udal Erroldako inskripzioan agertzen zen helbidean bizi zela egiaztatzeko gomendatu zen, eta, hala balitz, TAO zonako egoiliar txartela eman ziezaiotela, baldin eta horretarako legez ezarrita dauden gainontzeko baldintzak betetzen bazituen.

#### Durangoko Udala

\* **717/2003/22 espedientea (32/2003 Gomendioa)**. 2000. urteari dagokion zabor biltze eta deuseztatze zerbitzuagatik eta estolderia zerbitzuagatik (...)ko jabeen elkarteei bidali zitzaizkien likidazioak baliorik gabe uzteko gomendatu zen, "atari bakoitzeko" tarifa ez baitzen agertzen 2000. urterako onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Ordenantza fiskalean.

#### Ermuko Udala

\* **621/2004/25 espedientea (28/2004 Gomendioa)**. 2003ko ekainaren 30ean (...)k udal horren kontra jarri zuen ondare erantzukizuneko erreklamazioa berariaz ebatz zedila gomendatu zen, horrelako erreklamazioei dagokien prozedura burutu ondoren.

#### Galdakaoko Udala

\* **1472/1998/23B espedientea (23/2002 Gomendioa)**. Zuatzaurre auzunerako 1998ko maiatzaren 5ean sinatu zen bitartekaritza-ituna osorik beteko dela bermatzeko, neurriak har zitezela gomendatu zen, oraindik egin barik dauden gauzak, bereziki ondoko hauek bete daitezen:

- Hegoaldean eraikitako parke berriaren azpian dagoen hegoaldeko magalaren azterketa geoteknikoa idaztea.
- Egiteko dauden urbanizazioko obra guztiak egitea, bitartekaritzako itunean aurreikusita dagoen bezala.
- Hirigintzako planeamenduaren interpretazio egokia, 9. blokean dagoen eraikuntza proiektuaren gainean sinatutako itunean aurreikusita dagoenaren arabera.

### GIPUZKOAKO UDALAK

#### Donostiako Udala

\* **490/2003/19 espedientea (36/2003 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: 306451/03 eta 303824/03 zenbakiko salaketen ondorioz kautelaz kendu ziren salgaiak itzul zitezela, baliorik gabe utz zitezela arrazoi horregatik kaleko saltzaile



kaltetuei ezarri zitzaizkien zigorrak, eta erantzun ziezaiotela elkarte kexagileak Udal-tzaingoaren Erregistroan (...)n egin zuen eskabideari.

## 2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **153/2002/20 espedientea (20/2004 Gomendioa)**. Unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko erabiltzen diren argibideak berrikus zitezela gomendatu zen, eta baremo berri bat ezar zedila baimendutako ikastetxe pribatuetan aurrez irakasle gisa izandako esperientzia baloratzeko, herri-ikastetxeetan egiaztatutako esperientzia baloratzeko ezarrita dagoenaren antzekoa.

\* **882/2003/20 espedientea (30/2003 Gomendioa)**. Interesdunak jarritako administrazio-errekurtoa onar zedila gomendatu zen, eta, hortaz, lanbide heziketako irakasle teknikoan kidegoan sartzeko berak alegatu zuen ikasketa-espedientea balora zedila.

\* **1045/2003/24 espedientea (18/2004 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko (baremoa), egindako zerbitzu gisa zenbatu zitezela ama izateagatik uko egite justifikatuaz baliatu ziren bitarteko irakasle funtzionarioei eskaini zitzaizkien ordezkapen-aldiek –irizpide orokorrak aplikatuz– eragin dituzten udaldiko egunak.

\* **1047/2003/20 espedientea (17/2004 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: beharrezko neurriak har zitezela ordezkapenetako zerrendak kudeatzean egindako huts batengatik interesdunak burutu ez zituen zerbitzuak hari aitor ziezazkioten, lanean ari zen hautagaizat jo baitzuten, oker jo ere.

\* **1083/2003/20 espedientea (1/2004 Gomendioa)**. Langraiz Okan bizi eta Gasteizko (...) BHIIn derrigorrezko bigarren hezkuntza D ereduan ikasten ari diren adingabeei eskola-garraioaren zerbitzu osagarria onar ziezaietela gomendatu zen.

#### Herrizaingo Saila

\* **393/2002/24 espedientea (11/2004 Gomendioa)**. (...) jaunari (...) zenbakiko trafikoko zigor-prozeduran jarri zitzaion isuna baliorik gabe utz zedila gomendatu zen, eta ordurako gauzatu baldin bazen, itzul zedila horregatik jasotako diru-kopurua.

#### Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

\* **1054/2002/27 espedientea (7/2003 Gomendioa)**. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Bizkaian duen Lurralde Ordezkaritzaren zerbitzu teknikoek presako txostena egin ondoren, organo eskudunak agindu bat eman zedila gomendatu zen –2.114/1968 Dekretuaren 111. artikuluan ezarritakoaren babesean–, beharrezko lanak burutu zitezen; agindu horretan epe bat jar ziezaiola enpresa sustatzaileari, eta ohartaraz ziezaiola agindua betetzen ez bazuen, betearazte subsidiarioa gauzatuko zuela edo hertsatzeko isuna jarriko ziola, ezarri beharreko legeriak eta jurisprudentziak adierazitako moduan.

Halaber, espediente horren bilakaera aztertze gomendatu zen, emandako agindua erabat bete arte.

## B) FORU ADMINISTRAZIOA

### Arabako Foru Aldundia

\* **668/2003/16 espedientea (26/2003 Gomendioa)**. Abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren –Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzekoa– 91.2 artikulua ulertzeko erabiltzen den irizpidea kentzeko gomendatu zen, legez bannanduta dauden eta beren ondorengoen zaintza ez duten pertsoneri buruz. Izan ere, ez zitzaizen uzten seme-alabekin batera aitorpena egiten, eta jokaera hori artikuluko horrexetan agindutakoaren kontrakoa da. Halaber, zegozkion behin-behineko likidazioak egin zituzala gomendatu zen, kaltetuak gerta litezkeen egoerak erregulatzeko.

### Bizkaiko Foru Aldundia

\* **1450/2001/22 espedientea (27/2003 Gomendioa)**. Bi emakumeri ordain ziezaietela gomendatu zen, Bizkaibus zerbitzu publikoan Bilbotik Sodupera joatean legezko moneta onartu ez zitzaielako benetan eragin zitzaizkien kalteengatik.

\* **1450/2001/22 espedientea (28/2003 Gomendioa)**. Beharrezko neurriak har zitezela gomendatu zen, gaueko zerbitzu bereziak ere legezko monetaz ordaindu ahal izan daitezen.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

\* **960/2002/16 espedientea (7/2004 Gomendioa)**. (...) jauna eta (...) andrea (...) izeneko nekazaritza ustiategiaren titularkidetzat onar zitezela gomendatu zen, ustiategian lanean jarduten zutelako eta, gainera, (...) jaunaren legezko oinordekoak zirelako. Azken titularkide horri, hil ostean, baja eman zitzaion.

## C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO UDALAK

#### Gasteizko Udala

\* **1246/2002/24 espedientea (4/2004 Gomendioa)**. Aldi baterako kontratazioko zerrendetan dauden hautagaiekin ere karrerako funtzionarioekin izaten zen jokabide bera izan zedila gomendatu zen, beste administrazio edo erakunde publiko batzuek iragarritako hautespen-probetara joateko baimenak ematerakoan.

Era berean, zera gomendatu zen: hala jokatzetik ez dagoen egoki arrazoitutako kasuetan, balizko kontratazio berriei uko egiteko arrazoi justifikatutzat har dadila eta halaxe trata dadila beste administrazio edo erakunde publikoetan sartzeko hautespen-probetara joatea.

Azkenik, kexagileari emandako tratua berriro azter zedila gomendatu zen, eta baliorik gabe utz zedila interesduna aldi baterako kontratazioko zerrendan hiru hila-betez baja egoeran egongo zela adierazi zuen Funtzio Publikoaren Alorreko zinegotzi delegatuaren erabakia.

\* **420/2003/23 espedientea (3/2004 Gomendioa)**. 2003ko otsailaren 6ko erabakia, (...) andreak egindako erreklamazioa ezestekoa bertan behera utz zedila gomendatu zen, udalak nahitaez aurre egin behar baitie herri barruko bideak mantentzeko zerbitzu publikoaren jarduerak sortutako kalteei, eta ez baitzuen bete herriko kaleetako edozein akats ohartarazteko betebeharra.

Halaber, zegokion administrazio-espedientea bideratu eta gero, kexagileari eragin zitzaizkion kalteetan udalak zuen ondare erantzukizuna onar zezala gomendatu zen.

\* **1084/2003/20 espedientea (14/2004 Gomendioa)**. Interesduna aldi baterako kontrataziorako zerrendetan behin betiko bajaran zegoela adierazi zuen Funtzio Publiko Saileko zinegotziaren erabakia berriz aztertu eta baliorik gabe utz zedila gomendatu zen, eta interesduna kontrol-atezaintzako zerrendetan hautagai gisa sar zezatela berriro.

### **Biasteriko Udala**

\* **472/1999/19 espedientea (6/2004 Gomendioa)**. Kexagileari itzul zie-zaiotela hark garabiko langileei beren jardueragatik ordaindu zien kopurua.

## **BIZKAIKO UDALAK**

### **Bilboko Udala**

\* **402/2002/19 espedientea (19/2004 Gomendioa)**. Aldez aurretik ezinbestekoak diren prozedurazko izapideak egin ondoren, 2002ko urtarrilaren 31an Udaltzarrak onartu zuen Trafiko eta Aparkamendurako Udal Ordenantzaren (TAO) 19.5 artikuluan ezarritako aurreikuspen hau indarrik gabe utz zezala gomendatu zen: *“Egoiliar txartela, elbarri txartela edo txartel berezia eskuratzeko eskubidea izateko, ezinbestekoa izango da txartelaren titularra eta ibilgailuaren finantza-errentamendurako (rentinga edo leasinga) kontratuaren hartzailea egunean egotea Bilboko Udalari ordaindu beharreko zergen eta bestelako obligazioen ordainketan. Era berean, txartela eskatzen duen ibilgailuarekin zerikusia duten obligazioak ere egon beharko dira ordainduta”*.

\* **420/2002/19 espedientea (24/2004 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan araututako aparkatzeko txartel bakarraren titular guztiei aitor ziezazkiela Trafiko eta Aparkamendurako Udal Ordenantzak (TAO) –2002ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran onartutakoak– 15 eta 16. artikuluetan ezinduentzat aurreikusten duen aparkatzeko araubide bereziaren onurak, dekretu horretan ezarritako baldintzetan, eta, onurak jasotzeko, txartel horixe edo Europako Batasuneko kide diren estatuetako txartel baliokidea bakarrik eska ziezaiela, ez gaitzen duen bestelako agiririk.

### **Getxoko Udala**

\* **1339/2001/19 espedientea (35/2003 Gomendioa)**. Kexagileak bere ondare erantzukizuneko erreklamazioa ezetsi zuen erabakiaren kontra jarritako errekurtoa berariaz ebatz zedila gomendatu zen.

Era berean, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ondare erantzukizunezko prozedurak bideratu eta ebazteko ezarrita dituen epeak behar bezala bete zitezela gomendatu zen.

### **Portugaleteko Udala**

\* **225/2002/19 espedientea (12/2004 Gomendioa)**. Interesdunaren ibilgailua ibilgetzeagatik hari kobratu zion tasa baliorik gabe uzteko beharrezko jarduerak burutu zitezela gomendatu zen, eta interesdunari itzul ziezaiotela horregatik ordaindu zuen kopurua.

## **GIPUZKOAKO UDALAK**

### **Errenteriako Udala**

\* **154/2004/16 espedientea (21/2004 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: baliorik gabe utz zedila Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan (...) andreak –bere ezintasunagatik– egindako salbuespen-eskaera ezetsi zuen administrazio-egintza, eta interesdunari salbuespenaz gozatzeko eskubidea aitor ziezaiotela, hark betetzen zituen-eta zerga hori arautzen duen 14/1989, Foru Arauak 2. artikulua e) hizkian horretarako aurreikusitako baldintzak.

### **Irungo Udala**

\* **445/2004/16 espedientea (26/2004 Gomendioa)** Hauxe gomendatu zen: baliorik gabe utz zedila Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergan (...) andreak –bere ezintasunagatik– egindako salbuespen-eskaera ezetsi zuen administrazio-egintza, eta interesdunari salbuespenaz gozatzeko eskubidea aitor ziezaiotela, hark betetzen baitzuten zerga hori arautzen duen 14/1989 Foru Arauak 2. artikulua e) hizkian horretarako aurreikusitako baldintza guztiak, ibilgailuaren “erabilera eskusiboa”ri buruzkoa barne.

### **Lasarte-Oriako Udala**

\* **442/2002/23 espedientea (20/2003 Gomendioa)**. Buruntza kaleko eskailerak jaistean erori eta jasandako kalteengatik (...) andreak egindako ondare erantzukizunezko erreklamazioa atzera bota zuen alkatetza-dekretua baliorik gabe uzteko gomendatu zen, izan ere, erabakia hartzerakoan, udalak ez zituen bete ezarritako prozedura-arauak: alegia, organo bideratzailea izanik, ez zituen eskatu dagozkion txosten teknikoak, eta ez zituen funtsezko probak egin, alegatutako egintzak benetakoak ziren ala ez egiaztatzeko.

Halaber, espedientea erabaki-proposamena egin aurreko aldira itzultzeko, eskatutako lekuko frogaren burutzeko eta udal zerbitzuei txosten bat eskatzeko gomendatu zen. Zerbitzu horiek –arrazoi bidez eta modu egokian– adierazi beharko lukete zehazki zein diren egintza horiek eta udalak zer egin duen horren gainean.

Azkenik, beste erabaki bat hartzeko gomendatu zen, egiaztatutako egintzak eta haien zergatiak baloratu ondoren.

## Zarauzko Udala

\* **271/2004/23 espedientea (22/2004 Gomendia)**. (...) zenbakian jasotako eraikinari dagokionez, udalak planeamenduko arauak betearazteko dituen eskumenak erabil zitzala gomendatu zen, eraikin horrek ez baitzituen betetzen indarreko arau subsidiarioetan agindutakoa. Zehazki, (...) lurzatian benetan eraiki zen azalera arau subsidiarioetan ezarritakora egokitzeko neurriak har zitezela gomendatu zen. Horrela, arau subsidiarioen antolamenduaren kontrakotzat jo behar ziren solairu-atikoa eta, beraz, teilatua, ez baitzituen betetzen teilatu-hegalera bitarteko 9 metroak, eta baita kanpoko esekitokiak ere. Azkenik, erdisotoko eta atikoko solairuen erabilera arau subsidiarioen 38 eta 40. artikuluetan adierazitakoekin bat zetorrela bermatu behar zen, eta horiek inolaz ere ez zirela etxebizitza gisa erabiltzen.

## D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

### EHU

\* **2/2003/20 espedientea (18/2003 Gomendia)**. (...) irakasleari agiri jakin batzuk ikusteko aukera ziurtatzeko gomendatu zen. Izan ere, agiri horietan agertzen ziren unibertsitate horretako Diziplina Batzordearen ekimenez lortutako isilpeko informazioak.

### 3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK

#### A) EUSKO JAURLARITZA

##### **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

\* **608/2003/27 espedientea (16/2004 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: indarrrik gabe utz zedila Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariak 2003ko maiatzaren 2an emandako ebazpena, (...) jaunari eta (...) andreari etxebizitza libre erabilia erosteko laguntza ukatu ziena, erabat deuseza delako.

Era berean, hala bazegokion, legez ezarritako prozedura erabil zedila Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko lurralde ordezkariak abenduaren 18an emandako ebazpena berrikusteko, haren bidez onartu baitzen etxebizitza libre erabilia erosteko laguntza ematea.

#### B) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

##### **ARABAKO UDALAK**

##### **Eskuernagako Udala**

\* **340/2002/23 espedientea (15/2004 Gomendioa)**. Arau subsidiarioak berraztertze prozesuan, Errementari kaleko (...) zenbakian dagoen eraikinaren oin eta arkitektura osagaien babes morfologikoa ondasunen katalogoan sar zedila gomendatu zen, herriaren historia- eta kultura-ondararako duen interesa egiaztatu delako.

Bestela, udalaren katalogoan sartzea erabakitzen ez bazen, eraikina birgaitzeko unean, fatxada oraingo arauetan ezarritako lerrokadurara aldatzeko gastuetan laguntzeko gomendatu zen, beste administrazio batzuekin bat etorritz.

##### **BIZKAIKO UDALAK**

##### **Bilboko Udala**

\* **869/2003/24 espedientea (27/2004 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: baliorik gabe utz zedila (...) zenbakiarekin (...)ren kontra bideratu den trafiko alorreko prozeduran ezarri zen zigorra nahitaez betearazteko premiamendu-bidea, eta, hala balegokio, itzul zitezela horregatik bildu ziren zenbatekoak.

##### **Dimako udala**

\* **89/2004/29 espedientea (29/2004 Gomendioa)**. Osoko bilkurak 2002ko otsailaren 6an eta 2003ko urtarrilaren 15ean hartutako erabakiak kontuan izanik, (...) jaunak lurzoru urbanizaezinean jasotako legez kontrako eraikina botatzeko hasi zen espedientearen aurrera egin zedila gomendatu zen, harik eta erabakiak betearazi arte.

#### 4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO

##### A) EUSKO JAURLARITZA

###### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

\* **1169/2002/24 espediente (5/2004 Gomendioa)**. 2002ko irailaren 9a (...)k (...) Bigarren Hezkuntzako Institutuan Gaztelania eta literatura lanpostuan emandako zerbitzu gisa onar zedila gomendatu zen.

##### B) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

###### ARABAKO UDALAK

###### Gasteizko udala

\* **1035/2004/20 espediente (23/2004 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen:

1. Doitu zekiela Gasteizko Udalaren haur eskoletako zerbitzuaren antolamendu berria zerotik hiru urtera arteko haurren eskolak araupetu dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuan aurreikusirik dauden beharkizunei eta gutxieneko baldintzei, edo inoizkotan xedapen hau ordeztuko duen arautegiko ezarpenei.
2. Berrantolamendu horren ondorioz egin beharrekotzat jotzen zen LZ onartzerakoan, beharrezko formalitate guztiak jagotea gomendatu zen: hau da, lanpostuen sailkapenari dagozkion alderdi guztiak langileen ordezkariekin negoziatuzitezela, herri administrazioen zerbitzura dauden langileen ordezkarietara eta berauen lan-baldintzen eta partaidetzaren ezarpenari buruzko 9/1987 Legearen 32 d) artikuluan xedaturik dagoenaren eredura, lanpostuen sailkapenari dagokionez. Era berean, Korporazioaren Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontu-plantillarekiko korrespondentzia edo elkarrekikotasuna izatea gomendatu zen, toki gobernua eguneratzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen araupetze berriaren arabera.
3. Azkenik, lanpostuen zerrenda (LZ) aldarazteko erabakia, 2004ko uztailaren 30eko Gobernu Batzordeak onetsi duena, arestion aipatu ditugun alderdi formalak bazter uzteagatik deuseza zenez gero, hau da, lanpostuen sailkapenari dagozkion alderdiak langileen ordezkariekin ez negoziatuzteagatik eta, manuzkoa denez, aurrekontu-plantilla aldarazteko Korporazioaren Osoko Bilkuran parte hartu ez izateagatik erabaki hori deuseza zenez gero, hauxe gomendatu zen:
  - 3.1. Ondorioz gabe utz zitezela data horretan agindu ziren lanpostu utzarazteak eta berratzkitzeak.
  - 3.2. Balora zedila horrek guztiak haur hezkuntzako teknikariak kontratatuzteko zerrenda berrian izan dezakeen eragina.



- 3.3. Balora zedila horrek guztiak 2004-2005. ikasturte honetarako langile sartu berrien izendapenetan izan dezakeen eragina.

## **BIZKAIKO UDALAK**

### **Getxoko Udala**

\* **391/2003/23 espedientea (13/2004 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: Santa Eugenia eremuko 7.1 burutzapen unitaterako xehetasun-azterketa bat etor zedila Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiertzak eta errekaertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenekin, Gobela ibaiaren ubidetik aurreikusitako eraikinetara gutxienez 10 metroko erretiroa ezar zedin.

VI. ATALA

**GOMENDIO OROKORRAK**



## 1. HAUR ESKOLAK FINANTZATZEA ETA KUOTAK GEHIAGO HOMOGENEIZATU BEHARRA

### 1. Sarrera

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planak EAeko hiru urte bitartekoentzako hau eskolen arauketa ekarri du. Beraren oinarritzko helburua ekonomia-aren, gizartearen eta lanaren aldetik oztupoak kentzea da, familiek askatasunez erabakita nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten. Plan horrek zenbait neurri ezarri ditu; esate baterako, familiei laguntzeko zerbitzuei buruzkoak. Berorien artean adingabeen hezkuntzarako arreta-zerbitzuak daude sarturik.

Haur eskolei buruz onetsiriko arautegiak (EAEn hiru urte bitarteko haurrentzako hau eskolak arautu dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak) agerian jarri duenez, adin horretatik beherako adingabeei hezkuntza-arretaren kalitatea bermatuko dien gutxieneko antolamendu orokorra egin behar da. Ildo horretatik, gehienek onartzen dute EAEn egoera hau dugula:

*“...adin hauetako haurrei baldintza ezberdinak dituzten ikastetxe askotarikotetan ematen zaie arreta: udalen haur eskoletan, haurtzaindegi pribatuetan, irabazi-asmorik gabeko erakundeen mendeko haurtzaindegietan, eta bi urteko umeak eskolatzeko geletan, ikastetxe pribatuetan nahiz ikastetxe publikoetan. Lanpostuen eskaintza publiko eta pribatua oso ezberdina da lurralde eta udalerraren arabera. Halaber, lurralde eta udalerrri bakoitzean dagoen eskaria bera ezberdina da. Gauzak horrela, hiru urte bitarteko umeentzako hezkuntza-arreta arautu egin behar da: bai adin horretako haurrentzako hezkuntza-arretaren kalitatea bai zerbitzu horrek familiei lagunduz betetzen duen funtzioa bermatu egin behar dira. Laguntza horren xedea lanbidea eta familiako bizitza uztartzeko aukera ematea da.”*

Jakinaenez, haurrentzako zerbitzu hauen plangintza diseinatu edo itxuratzeko aukera aztertzean, Hezkuntza Administrazioak, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planean haurtzaindegi eta haur eskolen eskaintza sendotzeko jasotako konpromisoaren eraginez beharbada, uko egin dio bere hezkuntza eskaintza propioa egiteari. Horren ordez, ekimen publiko hutsaren arloan udal administrazioen lankidetzat biltzen saiatzea erabaki du eta, era berean, norbanakoen ekimena errazteko eta bultzatzeko finantzaketa-sistema ezarri du.

Horretara, haur eskolei buruz onetsiriko arautegiak ekimen horiek sustatzen saiatzeko finantzabideak ezarri ditu. Alde batetik, lehendik dauden udal titulartasuneko haur eskolei eusteko lankidetzarako hitzarmenen sistema ezarri du, orokorrean aplikatu nahi den eta EAEko 72 udalari biltzen dituen Haurreskolak izeneko partzuergoa sortuta gauzatu den partzuergo-bidearen kalterik gabe. Beste alde batetik, xedatu du titulartasun pribatuko haur eskolentzat diru-laguntzak emateko aukera ere izango dela.

Nolanahi ere, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planak berak Eusko Jaurlaritzaren aldetiko finantzaketarako zenbait konpromiso dakartza berekin; hona hemen konpromiso horiek, laburbilduta:

- 2 urte arteko haurrentzat: plazen kostuaren % 60 finantzatzeko konpromisoa, haien titulartasuna kontuan hartu gabe.
- 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzat: titulartasun publikoa ez duten plazen kostuaren % 60 eta titulartasun publikoko plazen kostuaren % 100 finantzatzeko konpromisoa.

Gainerako finantzaketa gurasoek, beken arloko politikak eta beste erakunde pribatu batzuek bete beharko dute. Era berean, Planak berak bere egin duen helburua dugu honako hau: gurasoei kuoten homogeneousotasuna eskaini ahal izatea, abiapuntuko egoera ezberdina den arren: heterogeneotasun handiko egoera, hain zuzen.

Horiek dira, laburbilduta, hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza-arretari buruz erakunde-arloan egin den lanaren aurrekariak. Jarraian, ezarritako laguntza-bideen arabera finantzaketarako konpromiso horiek nola zehaztu diren zirriborrazten saiatuko gara:

## **2. Hiru urte bitarteko haurrentzako arreta-zerbitzuak finantzatzeko formulak**

### **2.1. Toki korporazioekin lankidetzak hitzarmenak egiteko deialdiak**

Formula hau berariaz ezarrita dago haur eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian. (*“Udal titulartasuneko haur eskoletako eta haurtzaindegietako egungo eskaintza sendotzeko xedez, Hezkuntza Administrazioak dekretu hau indarrean jarri aurretik haur eskolak edo/eta haurtzaindegia sortu dituzten Toki Korporazioekin Hitzarmenak ezarriko ditu...”*)

Formula honen bitartez lortu nahi den helburua finantzaketa progresiboarekin hasi eta jarraitzea da, 2005-2006 ikasturtean 2 urte arteko tartean kostuaren % 60 eta 2 eta 3 urte bitarteko tartean % 100 finantza dadin.

2003-2004 ikasturterako egindako deialdian aurreikusita zegoen 0-2 urte bitarteko tartearentzat kalkulaturiko moduluaren % 50eko eta 2-3 urte bitarteko tartearentzat kalkulaturiko moduluaren % 80ko finantzaketa. (*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2003ko azaroaren 12ko Agindua, 2003/2004 ikasturterako diru-laguntzetarako deialdia egin duena eta hiru urte bitarteko haurrentzako haur eskolen titularrak diren Toki Korporazioei Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta aipatu Toki Korporazioen arteko lankidetzak hitzarmenak egiteko deialdia egin diena – azaroaren 27ko EHAA).*

2004-2005 ikasturte honetarako iragarritako deialdian ez dago horri buruzko aldaketarik egin. (*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko azaroaren 10eko Agindua, diru-laguntzetarako deialdia egin duen eta hiru urte bitarteko haurrentzako haur eskolen titularrak diren Toki Korporazioei Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta aipatu Toki Korporazioen arteko lankidetzak hitzarmenak egiteko deialdia egin dien Agindua 2004ko ekitaldian aplikatzeko egokitu duena – azaroaren 19ko EHAA)*

## 2.2. **Partzuergo formula**

Formula hau sartuta dago, halaber, azaroaren 17ko 297/2002 Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian. (“...*, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko beste erakundeekin elkarlanean garatuko duen eskaintza publikoa zabaltzeari begira etorkizuneko jarduketak kontuan harturik, baita partzuergokoak ere*”)

72 udalerri Haurreskolak partzuergoari arian-arian atxikitzearen kariaz sinatu diren lankidetzak hitzarmenen ildotik finantzaketa-zamak honelako banatu dira:

Eusko Jaurlaritza .....	% 60
Kasuan kasuko udala .....	% 10
Familiak .....	% 30

## 2.3. **Titulartasun pribatuko haur eskolentzako laguntzetarako deialdiak**

Formula hau azaroaren 17ko 297/2002 Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa da. (“*Halaber (...), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, egungo eskaintza sendotu eta, hala behar dela uste izanez gero, zabaltzeko xedez, ikasturte bakoitzerako diru-laguntzetarako deialdia egingo du hiru urte bitarteko haurrentzako titulartasun pribatuko haur eskolentzat, dekretu honetako lehenengo xedapen gehigarrian ezarritako irizpideak kontuan harturik*”).

Beraren helburua finantzaketa progresiboarekin hasi eta jarraitzea da, plazen kostuaren % 60ko finantzaketa iritsi arte.

2003-2004 ikasturterako egindako deialdian ezarrita zegoen 0-2 urte bitarteko tartearentzat kalkulaturiko moduluaren % 40ko eta 2-3 urte bitarteko tartearentzat kalkulaturiko moduluaren % 48ko finantzaketa. Modulu horiek hitzarmen sistemaren bitartez udal titulartasuneko eskolentzako laguntzak kalkulatzeko kontuan harturikoen antzekoak ziren. (*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2003ko azaroaren 24ko Agindua, hiru urte bitarteko haurrentzako titulartasun pribatuko haur eskolentzako 2003/2004 ikasturterako laguntzetarako deialdia egin duena – azaroaren 9ko EHAA*).

2004-2005 ikasturte honetarako iragarritako deialdian finantzaketa-marjina berberak (% 40 eta % 48) daude, baina kalkulatzeko metodoa aldatuta dago, geroago esango dugun modura. (*Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko azaroaren 9ko Agindua, hiru urte bitarteko haurrentzako titulartasun pribatuko haur eskolentzako 2004/2005 ikasturterako laguntzetarako deialdia egin duena – azaroaren 12ko EHAA*).

## 2.4. **Familiantzako diru-laguntzak**

Azkenean, zuzeneko finantzaketarako bide edo sistema batez ari ez bagara ere, derrigorrez adierazi behar da Administrazioak familiei laguntzeko diru-laguntzei buruzko araubidea ere aurreikusi duela.

Administrazioak horri buruz eragozpenik gabe onartu duenez, EAeko haur eskolatan errealitate anitz daudela eta, ezin da kuota bakarreko eredurik zehaztu, ezta diruz laguntzeko eredurik ere. Horren ondorioz, azkenean, zenbatekoa aurretik zehazten zaien diru-laguntzen sistema aukeratu da, famili unitateko kideen kopuruaren eta urteko errentaren zenbatekoaren arabera kalkulaturiko tarte batzuen arabera. Horiek beste edozein laguntzarekin bateratu ahal direla adierazi da, baldin eta famili unitateak jasaten duen zuzeneko kostua gainditzen ez bada. *(Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2003ko abenduaren 23ko Agindua, hiru urtetik beherako haurrak dituzten familiantzat eta hiru urtetik beherako umeentzako arretarako ikastetxe sarea sendotzeko diru-laguntzetarako deialdia egin eta beroriek nola eman arautu duena – abenduaren 31ko EHAA).*

## 3. **Hiru urte bitarteko haurrentzako arreta-zerbitzuak finantzatzeko neurriei buruzko lehenengo balorazioak**

2003-2004 ikasturtean hartutako esperientziaren bitartez zenbait balorazio aurrera daitezke finantzatzeko edo diruz laguntzeko neurriei buruz. Izan ere, gure ustez, argi dago Administrazioek finantzatzeko egindako esfortzuek ez dutela familiek ordaindu behar dituzten kuoten homogeneotasun handiagorik ekarri. Homogeneotasun hori lortzea zen, baina, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planaren xedea.

### 3.1. **Familiantzako laguntzak edo diru-laguntzak**

Esan gabe doa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatzen duen diru-laguntzen sistemak zelanbait lagundu egiten diela baliabide urriagoak dituzten familiei. Alabaina, laguntza hauek, itxuratu diren bezala (famili unitateari buruzko datu ekonomikoen arabera aurretik zehaztu bai baina ordaindutako kuotak kontuan hartu gabe ateratako kopuruak), ezin dira tresna egokiizat hartu, familiek ordaindutako kuotetan dauden diferentziak zuzentzeko.

### 3.2. **Titulartasun pribatuko eskolak finantzatzea**

Azken hilabeteetan gero eta kritika gehiago egin dira, ikastetxe pribatuen titularrei eman zaien aldeko tratua agerian jarri dutenak, horixe baita laguntza sistemaren azken ondorioa. Izan ere, eman zaien finantzaketaren bitartez, kuotak txikiagotu eta matrikula kopurua igo ahal izan dute.

Egin-eginean ere, zenbait argitalpenek, hala nola, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtero bezala egindakoak, EAeko haur eskoletako matrikularen bilakaeraren berri eman dute. Bertan ikastetxeen titulartasunaren arabera ikasle banaketari buruz adierazten denez, 2002-2003 ikasturtean gehienak (% 53,8) ikastetxe publikoetan matrikulaturik egon arren, 2003-2004 ikasturtean,

297/2002 Dekretua argitaratu denez geroztik, % 49 ikastetxe pribatuetan egon dira eta % 50,5 ikastetxe publikoetan.

Hezkuntza Administrazioak berak erantzun egin dio egoera honi. Hezkuntza Ikuskatzailetzak 2003-2004 ikasturtean hiru urte bitarteko haurrentzako haur eskolen jarraipena egin zuela eta, egiaztatu ahal izan genuen kuotak ezberdinak zirela eta, gainera, ikastetxeen % 10,9k, gutxienez, kuotak gutxitu zituela, jasotako diru-laguntzaren arabera.

Horregatik, titulartasun pribatuko haur eskolak finantzatzeko sistemari buruz aritu garenean aurreratu dugunez, 2004-2005 ikasturterako iragarritako laguntza deialdiak aldaketa handia ekarri du. Laguntza ez da aurretik zenbatetsitako modulu baten arabera kalkulatzeko, familiek benetan ordaindutako urteko kuotaren arabera baino.

### 3.3. **Titulartasun publikoko plazak finantzatzea**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Legebiltzarrean 2004ko azaroaren 23an egindako agerraldian eman zituen datuen arabera, titulartasun publikoko plazaren eskaintza oso dibertsifikaturik dago. Izan ere, honela sailka ditzakegu eskaintza horretako 14.951 plazak:

- 3.336, hau da, % 12,60, udal titulartasunekoak dira.
- 1.943, hau da, % 7,30, Haurreskolak partzuergoaren mendekoak dira.
- Eta gainerakoak, % 36,30, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetakoak dira, 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako plazak.

Gogoan izan dezagun, plaza horiei dagokienez, finantzaketa-helburua 2 urte bitarteko tartean kostuaren % 60 eta 2 eta 3 urte bitarteko tartean % 100 iristea dela. Bistan denez, finantzaketa progresiborako konpromiso hori ezin da berehala gauzatu. Askok gaitzetsi dute titulartasun pribatuko haur eskolei eusteko egindako finantzaketa-efortzu handia, titulartasun publikoko eskolei eusteko egindakoarekin alderatuta. Hala ere, hori ez da gomendio honen helburua. Gure asmoa bestelakoa da: eremu publiko hutsean ere hartutako finantzaketa-neurriek kuotak homogeneoago bihurtzerik ekarri ez dutela edo horretarako lagungarriak izan ez direla erakustea.

#### 3.3.1. **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako gelak**

Oraintxe, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak berak eman eta guk aurretik aipatutako datuen arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako 2 eta 3 urte bitarteko gela horiek eskaintako plaza guztien % 36,30 dira.

Hezkuntza Administrazioak bere eskaintza propioa bultzatzeari uko egiteko asmoa zuen hasieran, hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza-arretarako zerbitzuen balizko plangintzari ekiterakoan. Asmo horrek ez du, itxuraz, behar zuen laguntza jaso toki erakundeengandik, horrelako zerbitzuen eskariari erantzun egokia emateko. Horregatik, Hezkuntza Administrazioak, azkenean,



Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako gelak atondu behar izan ditu.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako gelen eskaintza horrek ez du familientzat kosturik ekartzen.

Lehenengo balorazioaren arabera, esan liteke egoera hori bat datorrela seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planean konpromisopean jarritako finantzaketa-efortzuarekin. Finantzaketa hori, behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako plazen kostuaren % 100ekoa da.

Baina eskaintza hori, lurraldeetan pisu oso ezberdin izateaz gain, askoz kostu handiagoko beste eskaintza publiko batzuekin batera azaltzen da, hala nola, Haurreskolak partzuergoak edo udal titulartasuneko haur eskolek egindakoarekin batera.

### 3.3.2. **Haurreskolak partzuergoaren mendeko haur eskoletako plazak**

Partzuergo horrek bultzaturiko eskaintza lehendik dauden plazen kopuru osoaren % 7,30 da.

Partzuergo hori arautzen duten estatutuek –gurasoen ekarpen edo kuoten araubideari buruzko 30. artikulua, zehazki – tarifak, kuotak, prezioak edo ekarpenak finkatzea aurreikusten dute. Era berean, estatutu horietan berariaz ohartarazten denez, tarifa berberak ezarri beharko dira partzuergoko udalerrien eremu geografiko osoan.

Estatutuetako xedapen horiei jarraiki, Haurreskolak partzuergoak haurrak eskolan egoten diren ordu erreferentzia bakartzat hartzen dituzten prezio edo kuota finkoen sistema ezarri du. Horrela, haurrek eskolan bost ordu baino gehiago emanez gero, kuota 180 eurokoa izango da; eta ordu gutxiago emanez gero, kuota 135 eurokoa izango da.

Oraingo honetan esan daiteke, egiaz, partzuergoaren mendeko haur eskolek egiten duten eskaintzarik handiena bi urte bitarteko harteko haurrei zuzenduta dagoela eta etapa horretarako finantzaketa-konpromisoak, baita plazak publikoak direnean ere, plazen kostuaren % 60 bakarrik iristen duela.

Hala ere, eskola horiek ez dituzte bi urte arteko haurrentzako plazak bakarrik eskaintzen. Eskola horiek egiten duten eskaintzak udalerrri jakin batzuetan, hala nola, Donostian bertan, barnean hartzen du 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako plazen eskaintza ere. Hiri horretan, partzuergoaren mendeko haur eskola guztiek 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako hezkuntza-arreta eskaintzen dute, Bilbon eta Gasteizen ez bezala. Bi hiriburu horietan horrelako plazak udal titulartasuneko eskolek edo Hezkuntza Administrazioak berak eskaintzen dituzte.

Gauzak horrela, 2 eta 3 urte bitarteko haurrei dagokienez, Haurreskolak partzuergoaren mendeko eskolek egiten duten hezkuntza eskaintzak batzuetan udal titulartasuneko plazen eskaintzaren antzeko kostua ekartzen du familientzat. Hala ere, esan dugun bezala, berarekin batera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako plazen eskaintza dago, eta hori doakoa izatea proposatu da.

2 urte arteko hurrei dagokienez, partzuergoak egindako eskaintzak kostu finkoa dakar, hurrak eskolan egoten diren orduen arabera kalkulatzen dena eta EAE osoan berdina dena. Nolanahi ere den, partzuergoaren eskaintza horretan ez da aurreikusi beste inongo zerbitzu osagarrikerik eranstea.

### 3.3.3. **Udalen haur eskoletako plazak**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak kaleraturiko datuen arabera, udalen eskaintza horrek plaza kopuru osoaren % 12,60 egiten du.

Lankidetzaz hitzarmenak egiteko iragarritako deialdiek ez dute kuotak homogeneizatzeari buruzko ezarpenik jaso. Horregatik, udal bakoitzak bere kuotak onetsi eta ezartzen ditu, kuotak berdintzeko saiorik txikiena ere egin gabe. (Ikus erantsitako koadroa).

Hezkuntza Ikuskatzailetzak egindako jarraipenaren bitartez hauxe egiaztatu ahal izan da:

*“...Eskolen % 97,8k jantoki zerbitzua du. Orokorrean, jantokiari garrantzi handia ematen diote, elikagaien kalitateari eta menuen ezaugarri bereziki.*

*Zenbait udalek aseguru medikoa kontratatu dute. Bilboko kasuan, badute Eskola Osasunerako Zerbitzua, udalerriko ikastetxe publiko guztiei arreta ematen diena.*

*100eko 65,2 ikastetxek gurasoen eskola dute. Gainera, zenbait eskolatan beste zerbitzu batzuk eskaintzen dira, hala nola, aitona-amonen eskola, eskolaz kanpoko jarduerak, familientzako orientazio zerbitzua...”*

Jarraipen horren ostean egindako txostenean ez da bereziki kontuan hartu kuoten arteko diferentzia. Hasiara batean, diferentzia hori udal eskola hauek eskaintako zerbitzu osagarrikeri egotz lekieke.

Baina hori ez da beti horrela izaten. Alboko eranskina behin irakurrita egiaztat daiteke EAEko udalen haur eskolen arteko kuota-diferentziak ez direla egiten dituzten zerbitzuak modu ezberdinean itxuratzearen ondorio: batzuetan arrazoiak bestelakoak dira, hala nola, udalerrian bertan eroldaturik ez egotea.

## 4. **Ondorioak eta proposamenak**

Aurreko lerroetan, haur eskolak finantzatzearen kontu horrek interesa eta ardura pizten digula esan dugu errealitate ukazina gogora ekarriz: Administrazioak finantzatzeko egindako esfortzuek ez dutela familiek ordaindu behar dituzten kuoten homogeneotasun handiagorik ekarri. Homogeneotasun hori lortzea zen, baina, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planaren xedea.

Horregatik, gure ustez, aipatu dugun finantzaketa-esperientzia aprobeztatu eta bertatik abiatu beharra dago, ukituriko administrazioei beren jarduketa batzuk berrikusi eta zuzentzea komeni dela pentsaraziko dieten ondorioak finkatzeko, benetako aukeraberdintasuna sustatu eta bermatzen duen haurrentzako arreta-zerbitzurik sendotu nahi bada bederen.

Horrela, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planak hartutako finantzaketa-konpromisoak egituratu edo antolatzeko kontuan hartzen diren adin-tarteei erreperaturik, gure ustez, honako ondorioak atera behar dira:

### **2 eta 3 urte bitarteko tartea:**

Azpiparratu dugun bezala, etapa honetako finantzaketa-helburua titulartasun publikoko plazen kostuaren % 100 iristea da.

Toki ekimenik ez zutela eta, zenbait udalerritan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bi urtekoentzako gelak jarri behar izan ditu bere mendeko ikastetxe publikoetan. Udalerrri horietan betetzat jo daiteke seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Plana, eta familiek haurrentzako arreta-zerbitzuok doan jasotzea bermaturik dute.

Aurretik udal eskaintza izaten zen beste udalerrri batzuetan, ordea, Eusko Jaurlaritzak sustatutako finantzaketak ez du zerbitzu hauen doakotasuna bultzatzeko neurri egokirik ekarri. Finantzaketa horrek ez du udalek finkatutako kuotak homogeneousago bihurtzeko eraginik izan.

Era berean, horrelako plazen eskaintza Haurreskolak partzuergoaren bitartez egin den udalerrietan ere ez da zerbitzuon doakotasuna ahalbidetzeko neurri egokirik aurreikusit.

Baina bereziki azpiparratu behar da EAEko oso udal gutxik dutela eskaintza publiko bakarra. Aitzitik, errealitaterik zabaldiena eskaintza publiko bateratuen –udalarena, partzuergoarena edo sailarena (Hezkuntza Administrazioarena)– aniztasunarena da. Beraren ondorioz berehalakoena eta agerikoena kuoten arteko diferentzia da. Eta, era berean, ez da antzematen gutxieneko koordinazioa dagoenik, zerbitzu hauen eskuragarritasuna benetako aukera-berdintasuna lortzeko helburuarekin antolatzeko.

### **2 urte arteko haurrak:**

Etap honetan finantzaketa-helburua edo -konpromisoa % 60koa baino ez da, eta ez dago Hezkuntza Administrazioak bakarrik bere gain hartutako eskaintzarik. Hau da, kasu guztietan toki ekimenak esku hartzen du.

Zerbitzu hauek Haurreskolak partzuergoaren bitartez eskaintzen diren udalerrietan, finantzaketa-konpromisoen bitartez EAE osorako kuota berdina finkatu ahal izan dira.

Aurretik udal eskaintza zuten udalerrien kasuan, aldiz, izenpeturiko finantzaketa-hitzarmenek ez dute udalerriek xedaturiko kuotak homogeneousago bihurtzerik ekarri. Kasu batzuetan, ezberdintasun horiek udalen haur eskola batzuetako zerbitzu osagarri ezberdinak izan ahal dituzte arrazoi, hala nola, jantoki zerbitzua; baina ez da beti horrela gertatzen.

2 eta 3 urte bitarteko tartean bezala, 2 urte arteko tarte honetan ere ugari dira askotariko eskaintza publikoa duten udalerriak. Berehalako ondorioa kuoten arteko diferentzia da. Eta behar diren koordinazio mekanismoak falta dira.

Horiek dira, gure iritziz, aurreko ikasturteetako finantzaketa-esperientziaren ondorioak. Zer erantzun ahal dute ukituriko Administrazioek?

Bada, adierazi dugun bezala, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planak eta haur eskolei buruz onetsitako arautegiak ez dituzte ukituriko administrazioak

hiru urte bitarteko haurrentzako arreta-zerbitzu hauen doakotasuna ekarri ahal duen berehalako finantzaketa osorako konpromisopean jarri, eta hori ez da beste hezkuntza etapa batzuetan gertatzen. Adibide gisa, hiru eta sei urte bitarteko haurren hezkuntzako etapa aipa dezakegu, derrigorrezkoa ez den arren doan egiten dena.

Alabaina, azaldu nahi dugu Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XIX. Jardu-naldietan aho batez honakoa gomendatu dugula haurrentzako zerbitzuen etorkizuneko helburu gisa: zerbitzu horien doakotasuna bermatzen saiatzea.

Hala ere, oraingoz, administrazio eskudunek finantzaketa progresiboa bakarrik bilatu behar dute, zertarako-eta finantzatzeko edo diruz laguntzeko erritmo ezberdinak aztertu edo azaltzerakoan jarraitu behar zaien irizpideak zehaztu behar direnean askatasunez erabakitzeko marjina egon dadin. Hala, adibidez, administrazioek zehaztu behar dute, mailakako finantzaketa horrek dirauen artean, ea eskaintza jakinen bat lehenetsiko duten (bere titulartasunaren arabera), edo adin-tarte jakinen bat lehenetsiko duten, eta abar; hala eta guztiz, erakunde honen iritzian, erabaki horietariko edozein hartuta ere nekez utz litezke alde batera haur eskolei buruzko arautegian ezarritako plangintza-irizpideak (abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren lehen xedapen gehigarria). Lehenago ere hitz egin dugu gai honi buruz, 1998ko urteko txostenean sartu genuen gomendio orokor batean, "Haur hezkuntzako lehen zikloak Autonomia Erkidegoan duen hedadura" izenburupean.

Dena den, askatasunez erabakitzeko marjina horrek ez du inoiz bat-bateko erabakirik ekarri behar. Aitzitik, erabakion gainean hausnarketa arretatsua egin behar da, finantzatzeko edo diruz laguntzeko neurri positiboak nahi diren eta oinarriak dituzten irizpide objektiboen ondorio izatea berma dadin.

Bestela, bistan da bidegabekeria nabarmeneko eremuan gaudela eta bertan, gainera, zenbait lerro gorago aipatu dugun oinarritzko eta funtsezko printzipioa urratu daitekeela, gure ustez haurrentzako arreta-zerbitzu hauek planifikatu eta finantzatzeko orduan hertsiki bete behar dena. Gure adingabeen benetako aukera-berdintasuna sustatzeaz ari gara.

Esan dugun bezala, helburu hori lortzeko, finantzaketaren eta diru-laguntzaren helburuak hausnartu, arrazoitu eta planifikatu egin behar dira. Baina, era berean, zerbitzu horien doakotasuna bete gabeko helburua da. Hortaz, kontuan hartu behar dira zerbitzuok eskuratzeko benetako aukera-berdintasuna lortzea ahalbidetzen duten beste neurri batzuk ere, eta, edozein kasutan, diru gutxien duten familientzat doakotasun araubidea erraztu behar da.

Honako hau jakiteak poztu egin gaitu: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak berak Legebiltzarrean egin duen azken agerraldian, 2004ko azaroaren 23an, jendaurrean azaldu duela hiru urtetik beherako haurrentzako hezkuntza-arretako zerbitzu horien kuotak homogeneizatu beharra.

Beste alde batetik, ontzat jo behar dugu titulartasun pribatuko haur eskolentzako laguntzetarako deialdian sartutako aldaketa ere, Hezkuntza Ikuskatzaileak egindako jarraipenari esker antzemandako disfuntzioa zuzentzeko bidea emango duelakoan.

Baina, lan hori presazkoa den eremurik bada, hori, zalantzarik gabe, eskaintza publikoaren eremua da. Bestela, nekez saihestuko da aurretik aipatu ditugun egoerek azkenean disfuntzio handiak ekartzea. Hiru urte bitarteko haurrentzako arreta-zerbitzu berberak eskaintzeko hainbat ekimen publiko (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Sailarena eta toki korporazioena) finantzaketa-konpromisoerik buruzko gutxieneko koordinazio gabe biltzen diren egoerak ari gara. Gutxieneko koordinazioa behar da, familiek aurre egin behar dieten kuotei eta zerbitzuok eskuratzeko tratua objektiboa bermatzeko beste neurri batzuk ezartzeari dagokienez, bereziki.

Horregatik guztiatik, erakunde honek hiru urte bitarteko haurrentzako arretarako zerbitzu horiek arduratzen diren administrazio publikoei eta bereziki Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honakoa gomendatu behar die:

1. Lehenbailehen zehaztea nola bete nahi duten kuotak homogeenago bihurtzen saiatzeko helburua, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planean jasotakoa, hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza-arretarako zerbitzuak antolatzeko lanean batera ari diren ekimen publiko ezberdinak ikusita.
2. Haur eskolei buruzko arautegian ezarritako finantzaketa-tresna ezberdinak (lankidetzak hitzarmenak eta abar) erabiltzea, kuotak homogeenago bihurtzen ahalegintzeko zehazten diren estrategiak benetan bete daitezela.
3. Titulartasun ezberdineko eskaintzak metatzaren ondorioz kuota-diferentziak dirauten bitartean, beharrezko koordinazio neurriak (haurrak onartzeko irizpideak eta prozesuak bateratzea...) har ditzatela, hiru urte arteko haurrentzako arretaz zerbitzu hauek eskuratzeko benetako aukera-berdintasuna bermatu dadin.

**ERANSKINA**

<b>ARABA</b>			
<b>Gasteiz</b>	<b>2004-2005 ikasturteko prezioak</b>		
	<i>Eskolaratzea (ordutegiaren arabera)</i>	gutxienez 135,00 euro	gehienez 180,00 euro
	<i>Sehaskak (ordutegiaren arabera)</i>	gutxienez 241,26 euro	gehienez 402,10 euro
	<i>Jantokia</i>	171,21 euro	
<b>Dulantzi</b>	<b>Eskolaratzea - 2005eko tarifak</b>		
	Matrikulatzea	82,00 euro	
	gehienez 4 ordu	102,00 euro	
	4-6 ordu	122,00 euro	
	6-8 ordu	163,00 euro	
	8-10 ordu	259,00 euro	
<b>Agurain</b>	<b>2005eko tarifak</b>		
	<i>Eskolaratzea</i>	75,00 euro	
	<i>Sehaskak</i>	168,50 euro	
	<i>Jantokia</i>	9,00 euro	
<b>Amurrio</b>	<b>Eskolaratzea - 2005eko tarifak</b> <i>(famili unitatearen sarreren arabera kalkulatzeko diru)</i>		
	Saio osoa	gutxienez 18,21 euro	gehienez 192,23 euro
	Saio erdia	gutxienez 9,94 euro	gehienez 115,34 euro
<b>Murguía-Sarria (Zuia)</b>	<b>Eskolaratzea - 2005eko tarifak</b>		
	Matrikulatzea	40,00 euro	
	9:00-12:30	65,00 euro	
	9:00-13:30	78,00 euro	
	9:00-15:30	104,00 euro	
	9:00-17:00	117,00 euro	
	8:00- 9:00	31,00 euro	
	17:00-18:00	31,00 euro	
<b>Valdegovía</b>	<b>2005eko tarifak</b>		
	<i>Eskolaratzea</i>		
	Matrikulatzea	80,00 euro	
	2-3 ordu	49,00 euro	
	3-5 ordu	65,00 euro	
	5-8 ordu	80,00 euros	
	<i>Jantokia</i>	31,73 euros	
<b>Zigoitia</b>	<b>2005eko tarifak</b>		
	<i>Eskolaratzea</i>		
	Matrikulatzea	81,80 euro	
	2-3 ordu	88,13 euro	
	3-5 ordu	117,47 euro	
	5-8 ordu	146,82 euro	
	<i>Jantokia</i>	36,00 euro	

<b>BIZKAIA</b>	
<b>Barakaldo</b>	<b>Eskolaratzea – 2005eko prezio publikoa</b>
	Honako formula hau baliaturik kalkulatzen da: famili unitatearen sarrera garbiak, zati unitateko kideen kopurua bider % 15 eta zati 11 hileko kuota. Alabaina, ordaindu beharreko kuota eskolaratze hilekoa izango da.
	Gutxienekoa 40,75 euro Gehienez 133,65 euro
<b>Bilbo</b>	<b>Eskolaratzea – 2005eko kuota</b>
	0-5 ordu 135,00 euro 5-8 ordu 180,00 euro
<b>Gatika</b>	<b>2005eko kuota</b>
	Famili unitatearen sorreren eta kide kopuruaren arabera kalkulatzen dira.
	<i>Eskolaratzea</i>
	Matrikulatzea 46,00 euro
	Kuota Gutxienez 28,00 euro gehienez 140,00 euro
	<i>Jantokia</i> 58,00 euro
	<i>Haurtxoen askaria</i> 15,00 euro
	<i>Haurren askaria</i> 10,00 euro
<b>Santurtzi</b>	<b>2004-2005 ikasturteko kuota</b>
	Famili unitatearen sorreren arabera kalkulatzen dira.
	<i>Eskolaratzea</i>
	Sehaskak gutxienez 6,00 euro gehienez 170,00 euro
	Beste gela batzuk gutxienez 6,00 euro gehienez 157,00 euro
	<i>Jantokia</i> gutxienez 0 euro gehienez 52,50 euro
<b>GIPUZKOA</b>	
<b>Andoain</b>	<b>2004-2005 ikasturteko kuota</b>
	Famili unitatearen sorreren arabera kalkulatzen dira.
	<i>Eskolaratzea</i> Gutxienez 92,00 euro gehienez 225,00 euro
<b>Aretxabaleta</b>	<b>Eskolaratzea – 2005eko urtarril eta ekain bitarteko kuota</b>
	0-1 urte 162,26 euro 1-2 urte 156,25 euro 2-3 urte 72,11 euro
	<b>Eskolaratzea – 2005eko irail eta abendu bitarteko kuota</b>
	0-1 urte 165,26 euro 1-2 urte 159,25 euro 2-3 urte 75,11 euro
<b>Arrasate</b>	<b>Eskolaratzea – 2005eko kuota</b>
	0-1 urte 223,72 euro 1-2 urte 153,50 euro 2-3 urte 76,75 euro

<b>Astigarraga</b>	<b>2005eko kuotak</b>		
	<i>Eskolaratzea</i>		
	Matrikulatzea	244,88 euro	
	0-5 ordu	135,00 euro	
	5-8 ordu	180,00 euro	
	<i>Jantokia</i>	55,60 euro	
<b>Donostia</b>	<b>Eskolaratzea - 2005eko prezioak</b>		
	Saio osoa		
	Familia	223,48 euro	
	Urteko sarrera jakin batzuk dituen guraso bakarreko familia	102,80 euro	
	3 ordutik gorako lansaioa jantokirik gabe	113,82 euro	
<b>Elgoibar</b>	<b>Eskolaratzea - 2005eko kuotak</b>		
	185,00 euros		
<b>Hernani</b>	<b>Eskolaratzea - 2005eko kuotak</b> (famili unitatearen sarreraren arabera kalkulatu dira)		
	<i>Eskolaratzea</i>	gutxienez 52,28 euro	gehienez 325,45 euro
<b>Ordizia</b>	<b>Eskolaratzea - 2005eko kuotak</b> (famili unitatearen sarreraren arabera kalkulatu dira)		
	<i>Eskolaratzea</i>	gutxienez 144,24 euro	gehienez 210,35 euro
<b>Pasaia</b>	<b>2005eko tasak</b>		
	<i>Matrikulatzea</i>	21,00 euro	
	<i>0 eta 2 urte bitarteko tartea</i>		
	12:00ak arte bazkaririk gabe	52,00 euro (errola)	78,00 euro (errolarik gabe)
	Ordutegi etengabea eta bazkaria	155,00 euro (errola)	232,50 euro (errolarik gabe)
	<i>2 eta 3 urte bitarteko tartea</i>		
	12:00ak arte bazkaririk gabe	36,00 euro (errola)	54,00 euro (errolarik gabe)
	Ordutegi etengabea eta bazkaria	118,00 euro (errola)	177,00 euro (errolarik gabe)
<b>Tolosa</b>	<b>2005-2006 ikasturteko kuotak</b>		
	Plaza erreserba	50,00 euro	
	Saio erdia otordurik gabe	69,40 euro	
	Arratsaldea	103,50 euro	
	Goiza eta bazkaria	181,00 euro	
	Saio osoa eta otorduak	252,50 euro	
<b>Usurbil</b>	<b>2005eko kuotak</b>		
	Saio osoa	260,00 euro (errola)	299,00 euro (errolarik gabe)
	Saio erdia eta otorduak	182,00 euro (errola)	197,60 euro (errolarik gabe)
	Saio erdia otordurik gabe	104,00 euros (errola)	119,60 euros (errolarik gabe)



## **2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MENPEKO POLIZI KIDEGOEK JOKAERA-KODEAK ERABILI BEHAR DITUZTE INMIGRAZIOARI BURUZ EMATEN DUTEN INFORMAZIOAREN TRATAMENDURAKO**

Aurten, etorkinekin lan egiten duen elkarte batek gure erakundearengana jo du kezkatu-rik, polizia kidego batzuek delituei buruz ematen dituzten informazio ofizialetan, ustezko egileak atzerritarrek direnean, sarri haien nazionalitatea aipatzen delako, datu horren beharrik izan gabe. Elkartearen iritziz, delitugileen nazionalitatea aipatzean inmigra-zioaren irudi negatiboa ematen da eta etorkinen aurkako aurreiritziak edo estereotipoak zabaltzen dira; jokabide hori ez da inola ere lagungarria etorkinak gizarteratzeko.

Gainera, kezkatu-rik zeudela esan ziguten, informazioaren tratamendu horrek beste eremu zabalago batzuetan duen eraginagatik. Izan ere, elkarte horrek egiaztatu ahal izan duenez, komunikabideek poliziaren prentsa-oharren edukia bere hartan jaso ohi dute horrelako gertaeren berri ematen dutenean.

Jakinarazi zigutenez, Arartekoarengana jo aurretik elkarteak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eskaera egin zion, Ertzaintzako prentsa zerbitzuak nazionalitatearen aipamenik ez egiteko poliziaren informazioetan, baldin eta gertaeraren azalpena ulertzeko behar-beharrezkoa ez bazen; hala ere, ez zuten inolako erantzunik jaso.

Bizkaiko udal batzuek, ostera, elkartearen eskaerari baiezko erantzuna eman zioten oro har. Izan ere, elkarteak udalei ere eskaera berbera egin zien.

Egia da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek ematen duten informazioaren tratamendu ezegokiak kalte egin diezaiokeela etorkinek gizartean duten irudiari. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalei informazioa eskatzea erabaki genuen. Jakin nahi genuen ea nolako mekanismoak erabiltzen zituzten Ertzaintzak eta hiriburu-etak udaltzainek, komunikabideei eman beharreko informazioetan jendearen nazionalitatea alferrik ez aipatzeko. Horrela gure ekintza behar bezala bideratu ahal izango genuen.

Laguntza-eskaerarekin batera, administrazio horiei bidali genien Gizarte Ongizate-terako Euskal Kontseiluak 2000ko apirilaren 5ean, Etor-kinak Gizarteratzeko Foroan, onetsi zuen estilo-liburuaren kopia. Izan ere, gure iritziz, eskuliburu hori oinarri-ko erreferentea da polizi agintari-ek hizpide dugun arlo honetan nola jokatu behar luketen zehazteko.

Gainera, Eusko Legebiltzararentzako 1998ko ohiko txostenean Ertzaintzari eta Bilboko Udaltzaingoari egindako gomendioaren kopia erantsi genuen, aztergai genuen arazoari aplikatzeko modukoa zelakoan. San Frantzisko auzoan poliziak atzerritarrekin egindako jarduketei buruz esku hartu genuenean egin genuen gomendio hori. Ertzaintzari eta Bilboko Udaltzaingoari gomendatu genien arretaz erabil zituzten zabaltzen zituzten datuak, San Frantzisko auzoak eta bertan bizi ziren etorkinek gizartean zuten irudiari kalterik ez egiteko (10. gomendioa, 115. orrialdea).

Gure eskaerari erantzunez, bai Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak bai Gasteizko eta Donostiako udalek adierazi ziguten eurak ere arduraturik zeudela arazo horretaz eta ez zutela aipatzen nazionalitatea, salbu eta datu hori gertaeraren azalpen orokorra ulertzeko garrantzitsua izan zitekeela uste zutenean. Esan ziguten, halaber, Etor-kinak Gizarteratzeko Foroan onetsitako estilo-liburuari ondo irizten ziotela; hala

ere, Herrizaingo Sailak ohartarazi zigun estilo-liburuko arauak komunikabideentzat zirela eta ez Sailarentzat, komunikabideek argitaratutako testuak ez zituelako Sailak berak idazten.

Horrez gain, Gasteizko Udalak adierazi zigun bertako Udaltzaingoak ez zuela ematen atxilotuen edo ustezko errudunen izen-abizenen inisialik ere, gerta zitekeelako ingurune jakinetan haiek ezagutzea, eta guk bidalitako Foroko arauak poliziaren prentsa-oharrak egiten zituzten langileei helarazi zitzaizkiela.

Bilboko Udalak, bestalde, hauxe jakinarazi zigun: 2004ko urritik aurrera ez ziola inongo komunikabideri esaten atxilotuak zein herrialdetakoak ziren.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eman zigun informazioak besterik adierazi arren, egiaztatu ahal izan genuen Ertzaintzaren web orriko prentsa zerbitzuaren prentsa-oharretan, Sailari laguntza eskatu aurreko egunetan eta haren erantzuna jaso ondokoetan, delitugile atzerritarren nazionalitatea aipatu izan zela, nahiz eta, gure iritziz, nazionalitatea aipatu ez balitz ere gertaeren azalpena erabat ulergarria izango zen. Kontsulta hori egin genuenean, ez genuen aurkitu antzeko aipamenik Espainiako nazionalitatea zuten ustezko delitugileei buruz.

Ertzaintzaren web orritik egun horietan atera genituen prentsa-oharretako batzuk ekarri ditugu adibide modura. Honako hauek gure esku-hartzea hasi aurreko egunetan argitaratu ziren:

- 1) “Ertzainek gaur goizaldean lau adingabeko atxilotu dituzte Bilbon, 16 eta 17 urtekoak eta **nazionalitatez marokoarrak**. Kalean zihoan pertsona bati, indarrez tira eginda, urrezko katea eta zintzilika zituen dominak eta gurutzea lapurtzea leporatzen diete” (2004-07-04).
- 2) “Ertzainek gaur goizaldean, Gasteizen, 18 urteko mutila atxilotu dute (...), **nazionalitatez marokoarra**, Arabako hiriburuko alde zaharrean diruzorroak lapurtzea leporatuta” (2004-07-04).
- 3) “Ertzainek gaur goizaldean, Bizkaiko hiriburuan, **Errumaniako nazionalitatea** duen gizonetzko bat atxilotu dute, 27 urtekoa (...), genero-indarkeriazko delitua leporatuta (...). Poliziaren eginbideak amaitu eta gero, atxilotua, (...) 27 urtekoa eta **nazionalitatez errumaniarra**, epailearen esku jarri dute” (2004-07-06).

Gero, Herrizaingo Sailak nazionalitaterik ez aipatzeko prest zegoela esan zigun, informazio hori behar-beharrezkoa ez bazen gertaeraren azalpena ulertzeko. Ondoko egunetan, baina, ez genuen inolako aldaketarik sumatu. Aitzitik, web orri berean honelako berriak irakurri genituen:

- 1) “...Gauerdia aurretxoan Ertzaintzak jakin du lapurreta egin nahi izan dela larderia erabiliz (...). Gertaeren eta ustezko egilearen deskripzioaren berri jakin ondoren, ertzainek geltokiaren kanpoaldean aurkitu dute eta atxilotu egin dute. Ustezko egilea (...) da, 39 urtekoa, **nazionalitatez aljeriarra**. Gaur goizean bertan epailearen esku jarri dute” (2004-11-26).
- 2) “Ertzainek atzo (...) atxilotu dute, Bilbon bizi den 30 urteko gizonetzkoa, bikotekide izandakoari eraso egiteagatik. Atxilotua bikotekide ohiaren etxean

sartu zen beste hiru lagunekin batera, txikizioak egin zituzten eta eraso egin zieten andreari eta bertan zeuden senide batzuei. Ertzaintzak atxilotu egin du gaizkide horietako bat ere, (...) 25 urtekoa (...). Bi atxilotuak, **nazionalitatez aljeriarrak**, gaur jarri dituzte epailearen esku” (2004-11-27).

- 3) “Ertzainek atzo goizean 20 urteko mutila atxilotu zuten Bilbon, labanaz mehatxu eginda lapurreta egiteaz akusaturik (...). Biktimak Ertzaintzan salaketa jarri ondoren ertzainek ikerketa hasi zuten egileak atxilotzeko. Horietariko bat, (...), 20 urtekoa, **nazionalitatez marokoarra** eta Bilbon bizi dena, atzo goizeko hamaikak eta laurdenetan aurkitu zuten Bizkaiko hiriburuan. Atxilotu eta ertzain etxera eraman zuten” (2004-11-30).

Kontsulta egin genuen egunetan etorkinen nazionalitateari buruz horrenbeste aipamen aurkitu genituenez, pentsatzen dugu Ertzaintzak mekanikoki ematen duela datu hori, informazioan agertzen den pertsona atzerritarra den guztietan.

Ezin izan diegu antzeko jarraipenik egin udaltzainen prentsa-oharrei. Izan ere, guk dakigula, ez dira Interneten argitaratzen.

Hala eta guztiz ere, atzerritarrei buruz poliziak ematen dituen informazioak ez datoz bat, gure aburuz, honelako kasuetan bete behar diren jokaera-arauekin. Gainera, San Frantzisko auzoan poliziak atzerritarrekin egindako jarduketak zirela eta gomendio hura eman genuenetik denbora luzea igaro da, eta bistan da arazoa ez dela auzo horretakoa bakarrik, orokorragoa baino. Horregatik guztiagatik egokitzat jo dugu arazo honi heltzea gomendio orokor batean.

Beste alde batetik, Ertzaintzak argitaratutako prentsa-oharrak eta komunikabideek haietan oinarrituta emandako informazioak alderatu genituen. Egunkari batzuek hitzez hitz jasotzen zituzten berriak, poliziaren prentsa-oharretan idatzita zeuden moduan, arazo hau aurkeztu zigun elkarteak salatu zuen bezala. Beraz, ohartu ginen horrelako berriek are zabalkunde handiagoa zutela, eta ondorioz, informazioaren tratamendu ezegokiak etorkinei eragiten zizkien kalteak are larriagoak zirela.

Arartekoaren erakundeak ez du eskumenik komunikabideen esparruan jarduteko. Ziur gaude, hala ere, polizi agintariek gai honen inguruan egin dezaketen lanak eragina izango lukeela komunikabideen esparruan ere, baldin eta, dirudien bezala, poliziaren prentsa-oharrak kazetariarentzat ohiko berri-iturriak badira.

\* \* \*

Inmigrazioarekin zerikusia duten informazioen tratamendu egokiak berebiziko garrantzia du gizartean estereotipoak edo aurreiritziak sortu eta indartu daitezten eragozteko. Askotariko erakunde publikoek, lanbide-kolektibo, ikerketa-talde eta joera ezberdinetako erakunde solidario askok azpimarratu egin dute garrantzi hori.

Inmigrazioaren gaineko diskurtso egokia sortzeari inmigrazioaren arloko politikari bezain garrantzitsua iritzi zaio<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Iritzi hori azaldu zen, adibidez, Kataluniako Parlamentuak inmigrazioaren arloko politikari buruz 2001eko ekainaren 27an hartutako erabakian.

Gure lurraldean, 2003-2005 aldirako egin den Inmigrazioari buruzko Euskal Planean kezka hori jaso da, besteak beste gidalerro hau ezarri baita: *“hainbat eremutan eta inmigrazioari eta atzerritarren gizarteratzeari lotutako gaien tratamenduan hizkuntza egokiaren erabilera sustatzea”* (Sentsibilizazioa, III.3.12. atala); eta hori bete dadin, besteak beste neurri hau ezarri da: *“inmigrazio gaiak tratatzeko eta horietan esku hartzeko estilo-liburuak egin, gizarteratu eta hedatzeko laguntza ematea”*.

Arazo honi batez ere komunikabideen alderditik heldu zaio; inmigrazioarekin zerikusia duten berriei nolako tratamendua ematen dieten aztertu da. Horren haritik, adituek ohartarazi egin dute hedabideek zeregin garrantzitsua dutela balioak, ereduak eta jokabideak zehazteko orduan; are gehiago, komunikabideei buruz honako hau baieztatu dute: *“beraiek ematen dizkiote gizarte osoari errealitatea interpretatzeko ereduak, estereotipoak, munduaren ikuskera bakoitza elikatu, moldatu, berretsi edo gezurtatuko duten datuak”*<sup>2</sup>.

Zeregin hori dutelako, hain zuzen ere, komunikabideek gizarte-ardura hau omen dute: *“balio horiek, irudi horiek eta jokabide horiek lagungarriak izan daitezten bizikidetzarako, elkarren begirunerako, askatasun eta partaidetza modu demokratikoak sendotzeko”*<sup>3</sup>.

Europako Parlamentuak behin baino gehiagotan aipatu du komunikabideek arrazagatiko aurreiritzien ezabaketan, arrazakeriaren prebentzioan eta giza harreman solidarioagoen garapenean duten egitekoa, batez ere albisteen tratamendu egokiaren bidez bete behar dena. Eta Europar Batasuneko estatuei ere informazioaren arloko jokaera-kodeak ezartzeko eskatu izan die<sup>4</sup>.

Etorkinak Gizarteratzeko Euskal Foroak ere eginkizun hori azpimarratu du 2000ko apirilaren 5eko estilo-liburuan: *“hedabideek gure gizartea prestatzen eta hezten zeregin handia betetzen dutela jabetzen gara, eta, ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu bai kazetariak bai kazetaritza-enpresek etorkinei buruzko informazioak lantzerakoan normalizazio-ahalegin bat egitea. Horrela, besteak beste, (...) etorkinez duen ustea gaiztotzen duten estereotipoak eta terminoak saihestu behar dituzte.”*

Baina ardura hori ez dagokie komunikabideei bakarrik. Diskurtso-sortzaileak diren beste sektore batzuk ere arduradunak dira, jendaurrean jarrera hartzen dutenean edo adierazpenak egiten dituztenean, edo komunikabideen informazio-iturri direnean. Horixe gertatzen da, adibidez, polizi kidegoek ustezko delituei buruz aldi-aldi ematen dituzten informazioen kasuan, gure esku-hartze honetan aztergai dugun kasuan, hain zuzen ere. Poliziak ematen duen informazioa, gainera, ohiko iturria eta iturri nagusia izaten da, baita, batzuetan, komunikabideek zabalduko duten berriaren iturri bakarra ere.

Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak ikuspegi hori hartu du agintariei berriaz egin dizkien gomendioetan<sup>5</sup>. Kontseiluak, geure egiten dugun iritzi-adierazpenean,

<sup>2</sup> Vilenç Villatoro. Komunikabideak inmigrazioaren aurrean. Informatzeko ardura, elkarrekin bizitzeko ardura. *Quaderns del Consell de l'Audiovisual de Catalunya*, 12 zk., 2002ko urtarrila-apirila.

<sup>3</sup> Vilenç Villatoro. Komunikabideak inmigrazioaren aurrean. Informatzeko ardura, elkarrekin bizitzeko ardura. *Quaderns del Consell de l'Audiovisual de Catalunya*, 12 zk., 2002ko urtarrila-apirila.

<sup>4</sup> Ildo horretan egin dituen jarduketan artean azpimarratzekoak dira Evrigenis txostena (1985), Ford txostena (1989) eta De Piccoli txostena (1993).

<sup>5</sup> Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak inmigrazioari buruzko informazioen tratamenduz egindako gomendioak. *Quaderns del Consell de l'Audiovisual de Catalunya*, 12 zk., 2002ko urtarrila-apirila.

informazio-iturri direla ohartarazi die agintari guztiei oro har, eta bereziki inmigrazioaren arloan eskumena dutenei, baita inmigrazioarekin zerikusia duten profesionalen kidegotei ere, horiek guztiak inmigratioari buruzko informazioen katean lehenengo kate-mailak baitira. Horregatik gomendio hau egin die agintari eta funtzionario horiei: *“mezuaren hartzailari ez eman biderik errazkeriarako, erruduntasunaren presuntziorako edo xenofobiari eta bereizkeriari lotutako aurreiritziak azaleratzeko”*; inmigratioaren gaia ukitzen denean *“ez da derrigorrez eta ezinbestean arazotzat aurkeztu behar; beste edozein gairi bezala ekin behar zaio, une bakoitzean gai horren inguruan sor daitezkeen auziak eta tira-birak edo kontraesanak saihestu gabe. Baina ez da ahaztu behar migrazioa gertaera sozial edo historiko ia iraunkorra dela, etengabea, gaur egungo gizarte gehienetan gertatzen dena norabide batean edo bestean; berez ez dela kaltegarria eta ikuspegi askotatik begiratuta onuragarria ere badela, gizarteari osagai berriak eta aberastasuna ekartzen dizkiolako”*; eta jokabideari dagokionez, *“arreta berezia eduki behar da hizkuntza erabiltzean; lelo diskriminatzailea baztertu egin behar da eta bereizkeria jasaten duten gizabanako eta taldeen duintasuna eta haien gizarte eta kultur berezitasunak errespetatuko dituzten esapideak ezarri behar dira* (agintariei berariaz zuzendutako aholkuak, hurrenez hurren, 4.a, 5.a eta 6.a).

Horren haritik, gehien-gehienek onartzen dute informazio batzuetan agertzen diren pertsonen jatorria, azalaren kolorea, talde etnikoa, erlijioa edo kultura bezalako datuak aipatzen direnean, sarritan kontakizunari ez zaiola aintzat hartzeko informaziorik gaineratzen eta ez dela gertaeraren azalpena ulergarriago bihurtzen, baina aurreiritzi eta estereotipoak sortu edo indartu egiten direla. Berariaz egin diren ikerketa batzuek, dirudienez, baieztapen hori berretsi dute<sup>6</sup>.

Horrelako datuak, gainera, ustezko delituen egileei buruzko informazio-oharretan sartzen badira, eta bakar-bakarrik delitugilea atzerritarra denean, orduan delituaren definizioa etnifikatzeko arriskua sortuko da, informazioaren hartzailari inmigratioa eta delitua elkarri loturik aurkezten zaizkiolako.

Etorkinak Gizarteratzeko Euskal Foroaren estilo-liburuan ere antzeko gogoeta jaso da: *“albistea prestatzean, kazetaritza-informazioaren oinarritzko osagaiak (zer?, nork?, non?, noiz?, zergatik?) agerrarazteko asmoz, zenbait datu gehitzen diogu. Itxura batean, berria osatzera datoz datu gehigarri horiek; hala ere, gehigarriekin lortzen den azken emaitzaren arabera, hartzailerek era batera edo bestera ikusiko dute errealitatea hedabideen bidez. Kazetarien eguneroko jardunean, begi-bistakoa da pertsona baten etnia, larruaren kolorea, jatorrizko herria, erlijioa edo kultura ez direla albisterik sortzeko moduko datuak, baldin gizarteko giza arketipo nagusiari buruzkoak badira. Bestetik, albistea zuzenean edo zeharka gutxiengo etniko bati buruzkoa denean, alderdi horiek nabarmentzeko joera -oro har inkontzientea- izaten dugu, nahiz eta albistea osorik ulertzeko ezinbestekoak ez diren.”*

Kontua ez da, noski, ekintza gaiztoak ezkutatzeara egilea etorkina izateagatik, baizik eta inmigratioari buruzko diskurtsoetik bereizkeriaren arrasto guzti-guztiak ezabatzea,

<sup>6</sup> Xavier Giró irakasleak, adibidez, Alemanian gai honi buruz egindako ikerketak aipatu ditu eta hauxe agerriarazi dutela gogoratu du: *“ezaugarri etnikoen aipamenak ia inoiz ez du errazten gertaerak ulertzea; aitzitik, gertaerak desitxuratu egiten ditu”* (Gutxiengo etnikoei buruzko kazetarietzako estilo-liburuaren gaineko iruzkinak eta proposamen berriak. *Quaderns del Consell de l'Audiovisual de Catalunya*, 12 zk., 2002ko urtarrila-apirila).

gertaeren gaineko informazioa ematerakoan beti ere baloraziorako irizpide berberak erabiliz, informazioan agertzen diren pertsonen jatorria, etnia, erlijioa edo kultura edozein izanda ere.

Horregatik, informazioa ez dadin izan bereizkeria sortu, berritu eta indartzeko tresna, etorkinak identifikatzen dituzten aipamenak arduraz, neurriz eta irizpide kritikoen arabera erabili beharra azpimarratu izan da. Halaber, arlo horretan jarduteko kodeen beharra nabarmendu da.

Jakin badakigu inmigrazioari buruzko informazioaren tratamendu ezegokia, askotan, gizartean aspalditik sustraiturik dauden ohitura eta akatsen ondorioa dela. Horrexegatik dira hain garrantzitsuak, gure ustez, honelako jokabideak saihesteko jokaera-kodeak, gure lurraldean Inmigrazioari buruzko 2003-2005 urteetarako Euskal Planak nabarmendu dituenak, gorago esan dugunez.

Hori dela eta, uste dugu Ertzaintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoek euren jokaera-kodeak eduki behar dituztela gai honi buruz, eta beteko direla ziurtatzeko behar diren mekanismoak jarri behar direla kode horietan. Uste dugu Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluak 2000ko apirilaren 5ean onetsi zuen estilo-liburua, gomendio honi erantsi dioguna, funtsezko elementua eta ezinbesteko abiapuntua izango litzatekeela egiteko horretan.

\* \* \*

Ondorio gisa, erakunde honen iritziz, Ertzaintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoek aintzat hartu behar lukete informazio-iturri direla eta euren jokaera-kodeak prestatu behar litzukete inmigrazioaren inguruko informazioen tratamenduari buruz, Etorkinak Gizarteratzeko Euskal Foroak 2000ko apirilaren 5ean ezarri zituen gidalerroak erreferentzia hartuta.

## **ERANSKINA**

### **Kazetarietzako estilo-liburua, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluak 2000ko apirilaren 5ean onetsia, Etorkinak Gizarteratzeko Foroan.**

Laurogeiko hamarkadaz geroztik, urte batzuk lehenago apenas susmatzen genuen gertakari bat antzeman dugu: gero eta atzerritar gehiago etortzen da gurera, Euskal Herria beren bizitoki bihurtu nahian. Nahiz eta gure autonomia-erkidegoan etorkin-gu-neak oraindik oso urriak diren, estatu espainoleko beste leku batzuetan (esate baterako, Andaluzian, Katalunian eta Madrilgo Erkidegoan) daudenen aldean behintzat, unean uneko egoera horrek ezin gaitu pertsona horiek, beren eskubideak eta askatasunak ahazteraino eraman.

1997an, Arrazakeriaren aurkako Europako Urtea zelarik, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren baitan, etorkinak gizarteratzeko politika eraginkorrak sustatzeko partaidetza-organo bat eratzea erabaki zuten Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait erakundek (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek) eta gobernuz kanpoko beste zenbaitek. Helburu horri helduta, 1998ko maiatzean, Etorkinak Gizarteratzeko Foroa osatu zuten, zeinean jarduera-arloetariko baten nagusia hedabideak baitira.

Hedabideek gure gizartea prestatzen eta hezten zeregin handia betetzen dutela jabetzen gara, eta, ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu bai kazetariak bai kazetaritza-enpresek etorkinei buruzko informazioak lantzerakoan normalizazio-ahalegin bat egitea. Horrela, besteak beste, etorkinen kultura desberdinen balio positiboak hedatu beharko dituzte, eta gizarteak etorkinez duen ustea gaiztotzen duten estereotipoak eta terminoak saihestu.

Orain kazetariei aurkeztera gatozkien estilo-liburu honek erredakzioetako mahaien gainean denbora luzez ez irautea gura genuke, liburuxka aldi labur batean soilik beharrezkoa izatekotan, hala kazetariak nola kazetaritza-enpresek beren erantzukizun soziala behar bezala bete izanaren bailitzateke.

### 1. **Albistea bere osotasunean ulertzeko behar-beharrezkoa ez bada, ez ditugu honelako datuak zertan eman: etnia, larruaren kolorea, jatorrizko herria, erlijioa eta kultura.**

Irudi onuragarrien eta irudi kaltegarrien bidez gizarteak sortzen dituen arketipoetara egokitu ohi da pertsona. Hala bada, irudi onuragarrien alde egin behar genuke, eta kaltegarrien aurka. Herritar gehienek duten irudi eta arketipo-multzo horiek erabiliz lan egiten dute hedabideek, informazio-mezua erraz uler dadin.

Horrenbestez, beharrezko dirudi denok -igorle zein jasotzaile- gure inguruaren ikuspegi doa izan dezagun eta horren arabera defini dezagun

Albistea prestatzean, kazetaritza-informazioaren oinarriko osagaiak (zer?, nork?, non?, noiz?, zergatik?) agerrarazteko asmoz, zenbait datu gehitzen diogu. Itxura batean, berria osatzera datoz datu gehigarri horiek; hala ere, gehigarriokin lortzen den azken emaitzaren arabera, hartzaileek era batera edo bestera ikusiko dute errealitatea hedabideen bidez.

Kazetarion eguneroko jardunean, begi-bistakoa da pertsona baten etnia, larruaren kolorea, jatorrizko herria, erlijioa edo kultura ez direla albisterik sortzeko moduko datuak, baldin gizarteko giza arketipo nagusiari buruzkoak badira. Bestetik, albistea zuzenean edo zeharka gutxiengo etniko bati buruzkoa denean, alderdi horiek nabarmentzeko joera –oro har inkontzientea– izaten dugu, nahiz eta albistea osorik ulertzeko ezinbestekoak ez diren.

Gainera, joera hori areagotu egiten du presak, hau da, hedabideek ekoizteko dituzten epe laburren menpe lan egin beharrak. Eta joera horri aurre egin nahi badiogu, go-goeta egitea dugu, hain zuzen, halako eskemak ez berritzeko antidotorik onena.

### 2. **Ez ditzagun orokorkeriak, manikeismoak eta informazio sinpleegiak erabil. Europako Batasunean bizi diren atzeritarrak ez dira guztiak berdinak, Batasuneko bertako guztiak berdinak ez diren bezala.**

Badirudi hedabideak irudi zehatz baten bila dabiltzala, gertakizun zehatz baten bila, estereotipoa baietsi ahal izateko. Egia da, bai, azalean eta mamian sistematikoki kontzeptu orokorrez baliatzeak informazioa ulertzea errazten duela; baina, aldi berean, horrela jokatzu gero, errealitatea desitxuratu eta neurritz gain sinpletzen da. Europako Batasunean bizi diren etorkinen izaera eta egoeren aniztasuna, izan ere, hedabideek azalduakoa baino askoz ugariagoa da.

Albistean aipaturiko giza taldearen edo norbanakoen bazterka areagotu egin ohi dute topiko negatiboek. Pertsonen alderdi negatiboak baino nabarmentzen ez dituzten eta, gainera, gizartean barneratuta geratzen diren topikoak saihestu egin behar dira. Orobat, orokorkerien bidez, inkontzientean gutxiengo etnikoa eta gizarte-arazoa kontzeptuak elkarrekin lotzen ditugu, inolako funtsik gabe.

Irakurleari laguntzeko asmoz, berria errazago uler dezan, termino orokorregiak erabiliz gero, berriaren hartzailak errealitatearen ikuspegi manikeoa ematen diogu. Kazetariak gizartearen egoera etnien arabera azaltzako joera dute. Baina Europako Batasunean bizi diren etorkinak gure gizarteko beste giza taldeak bezain heterogeneoak dira.

Giza talde bakoitzari dagokion izendapen zuzena erabili beharrean, besteak beste, aurreiritziz batetako ohiko esamoldeak eta topikoak erabili ohi dira. Hori gerta ez dadin, hoberena da albistearen protagonistei galdetzea ea zelan agertu nahi duten: norbanako gisa edo giza taldea gisa.

3. **Ez dira informazio negatiboak eta sentsazionalistak bultzatu behar. Ez ditugu alferrikako liskarrak eta dramak sortu behar. Albiste positiboen bilaketa areagotu behar da.**

Sarri askotan, informazio bila gabiltzanean, bizitzari eta errealitateari buruzko gure ikusmoldea baiesten duten objektuen edo irudien bila ibiltzen gara. Gauzak horrela, gehienbat negatiboa den ingurune batean, hartzailen iritzia eta negatibo bilakatzen da.

Antza, Europako Batasunean bizi diren etorkinen inguruko berriak sentsazionalismoagatik dira erakargarriak, eta ez edukiagatik. Informazio negatiboek soilik erakartzen baldin badituzte kazetariak, gizarteak gai horretaz duen ikuspegia ez da inoiz positiboa izango. Horrek ez du esan nahi ez dagoela informazio negatiboak hedatzerik, baizik eta beste aldea, alde positiboa, era azaldu behar dela.

Hedabideei begiratu egiten badiegu, gutxiengo etnikoak eta haietako kide diren gizabanakoak ia beti honela agertzen direla ohartuko gara: gaizkin gisa, edo ezbehar guztiak nozitzen dituzten pertsonak bailiran. Betiere, gutxiengo eta gizabanako horien irudia lohitu egiten da. Aitzitik, etorkin horiek herritar arrunt gisa agertu beharko lirateke hedabideetan

Erabiltzen ditugun terminoen garrantzia ere gogoan izatekoa da. Hedabideetan ikusi ohi ditugun hainbat termino baztertu egin behar genuke: etorkinei lotuta inbasioa, gaixotasunaren agerraldia, etorkin-samalda edo jende-oldea bezalako terminoak erabiltzeak gizartean oso irudi txarra ematen die Europako Batasunean bizi diren etorkinei.

4. **Informazio-iturrien inpartzialtasuna. Erakundeen bertsioak egiaztatu egin behar dira. Gutxiengo etnikoen informazio-iturri propioak bultzatu behar dira, eta etorkinen herriei buruzko informazioak tentu bereziaz prestatu. Zuzenketak argitaratzea, hedabidearen kalitatea hobetzeko modua.**

Hedabideek, beren gizartearen isla diren aldetik, informazio-iturri batzuk ofizial bihurtzen dituzte, bestelakoek kaltetan. Erakundeek emandako berriak hartzen dira fidagarritzat beti.



Hauek dira, hain zuzen ere, etorkin-talde bati edo gutxiengo etniko bateko giza-banako bati buruz informazioaren bat egin behar denean gehien erabiltzen diren informazio-iturriak, ematen zaien garrantziaren hurrenkerari jarraituz: ministerioak, inmigrazioaren arloko adituak, gizarte-zerbitzuak, gobernuz kanpoko erakundeak, poliziak, eta udalak. Ia inoiz ez diegu galdetzen etorkinei berei..

Informazioak ekoizteko epe laburrek eta gai horretako berriemaile finkorik ezak izan ohi dute hori hala izatearen erruaren zati handi bat.

Beti erakundeen informazio-iturrietara jotzeko ohitura apurto behar dugu. Badira bestelako berriemaileak ere, eta halakorik ez denean sor daitezten bultzatu beharko dugu. Ondo legoke, beraz, Europako Batasunean bizi diren etorkinen taldeek euren egoeraz jabetutako kazetarien zerrenda bat egitea, berriren bat sortzen denean haiengana jo ahal izateko.

Kazetariok, berriz, etorkinen taldeko berriemaileen, adituen eta espezialisten zerrenda izan behar genuke; hau da, gai horietan sakontzeko gai diren eta, es-tereotipoa apurtzearen, bertsio ofizialaz besteko ikuspuntua eman dezaketenen zerrenda.

Europako Batasunean bizi diren etorkinak zuzenean nahiz zeharka aipatzen dituzten informazioen zuzenketak argitaratzea, bestalde, hedabideari on egiten dion ohiko joera gisa onartu beharko litzateke. Zuzenketa berez egin behar da, inork eskatu beharrik gabe; eta okerra argitaratzen denetik lasterrera egin ere. Okerrak zuzen-tzeko ohitura sortarazi behar dugu.

## 5. **Profesionalon erantzukizuna. Informazioaren kokapen fisikoaren garrantzia. Domino efektua. Irudien erabilera.**

Oso garrantzitsua da Europako Batasunean bizi diren etorkinak zuzenean nahiz zeharka aipatzen dituzten informazioei zein leku egiten diegun begiratzea. Kontua –kontu nagusia– ez da zenbat eman diegun, baizik eta zelan eman diegun. Hau da, gure informazioa zein testuingurutan eman dugun, alboan zein berri izango dituzten paperean edo hertz-uhinetan (ikus-entzunezkoei dagokienez).

Alderdi etnikoak, erlijiosoak edo kulturalak dituen informazio batek izaera negatiboa baldin badu (heriotzak, gaixotasunak, gerrak...), ez diezaiela eragin, hedabidearen barruan bata bestetik gertu daudelako edo hedatzen den uneagatik, hurbilagokoak ditugun eta antzeko erreferente etniko, erlijioso edo kulturalak dituzten informazioei. Izan ere, informazio negatiboak eragin egiten die inguruan dituen eta erreferente bera duten informazioei, bata bestearen gainean erortzen diren dominoko fitxekin gertatzen den bezala.

Egunkarietako editoreek eta atal, arlo edo itxierako buruek izaten dute informazio bakoitza non kokatu behar den erabakitzeko erantzukizuna. Horregatik, haiek dute hedabidearen informazio-edukiaren ikuspegi osoa izateko gaitasunik handiena.

Irudiak (argazkiak, bideoa, eta abar) dira errazen manipula daitezkeen elementuak. Hain esanguratsuak direnez, zuhertasunik handienaz jokatu behar dugu informazio baten zentzua erabat aldaraz dezakeen irudi bat aukeratzekoan.

6. **Kazetarien militantzia: kultura-aniztasunerantz, guztion onerako. Informazio positiboak bultzatzea.**

Hedabideek gizarteak errealitateaz duen ikuspegian duten eragina dela eta, kulturaren aniztasunaren alde ona erakusteko ardurarik handiena behar du izan informazioko profesionalak.

Informazio gehienak negatiboak diren testuinguru batean, albiste positiboak bilatzeko eta egiteko oso garrantzitsua da profesionalaren borondatea. Horrek ez du esan nahi errealitate *light* bat azaldu edo informazioak ezkutatu behar direnik. Informazio positibotzat honako hauek hartzen ditugu: ekintza positibo baten berri ematea; etorkin-talde bateko kide baten adierazpenak jasotzea; edo edozein informazio era positibo batean aurkeztea.

Beste jarduera-arlo bat honakoa litzateke: telebistako albistegietan, irratian, egunkarietan, aldizkarietan edo beste edozein informazio-produktutan hainbat gutxiengo etnikotako kazetariak eta aurkezleak agertzea. Horrek normalizatzeko-eragin nabarmena dakar.

7. **Sexu bietako gizabanakoak biltzen dituzten taldeak aipatzerakoan gizonezkoak baino ez izendatzeak emakumezkoak ezkututzen ditu, ez ditu islatzen emakumezkoek bizitzako arlo guztietan egindako ekarpenak; gainera, errealitatea desitxuratu ere egiten du.**

Hitz egiteko eta idazteko modua aldatu beharra dago, gure erkidegoan bizi diren gizonezko nahiz emakumezko atzerritarrek egindako ekarpenak ikustarazi, errespetatu eta onartzeko. Horregatik, pertsonak sexuaren arabera diskriminatzen ez duen hizkuntza bat erabili behar da.

### 3. EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN BABESA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGARI DAGOKIONEZ, UDAL ZERGEN INGURUAN EGIN BERRI DEN ERREFORMAREN ONDOREN

#### SARRERA

Gure antolamendu juridikoaren edozein eremutan ezgaitasunaren babesaren gaiari oratzean, horren barne zerga arloa ere sartuz, beren beregi aipatu beharra dago Konstituzioak gai honen gainean ezartzen duena.

Horrela bada, Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua ondorengo haxe ezartzen du: *“botere publikoek minusbaliatu fisiko, sentsorial eta psikikoak zaindu, tratatu eta integratzeko politika gauzatuko dute, betiere beharrezko laguntza espezializatu emanaz eta beren beregi babestuz, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideez goza dezaten”*.

Gauzak horrela, 49. artikulua mandatu hori, *“gizarte eta ekonomi politikaren printzipio artezkariak”* izenaren pean agertu arren, ez da arau programatiko hutsa, beraren eraginkortasun bakarra erretorika politikoaren eremura mugatzen duena. Konstituzioari buruzko doktrinak eta jurisprudentziak egiaztatu duten bezala, printzipio horiek arauzko balioa dute eta botere publikoei berariazko mandatu ezartzen diete benetan lor daitezten eta pertsona guztien arteko berdintasuna eskura dadin.

Konstituzioaren 9.2. artikulua, bere aldetik, ondorengo ezartzen du: *“botere publikoek beharrezko baldintzak bultzatu behar dituzte norbanakoaren eta berori integratzen den taldeen askatasun eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezten”*. Konstituzioaren manu honetan, berdintasunari buruzko ideiak orain arte onartzen zen eta gaur egun Konstituzioaren 14. artikuluan ere jasotzen den legearen aurreko berdintasunaren eremu estua gainditzen du, eremu zabalago batean islatzeko, *“bizi baldintzen berdintasunaren eremuan”*, hain zuzen ere. Printzipio honek ezartzen du abiapuntuko desberdintasun egoeran dauden hainbat gizarte sektoreri onura egin diezaioketela botere publikoek benetako berdintasuna bultzatzeko ezarritako neurri positiboek; esan nahi baita, Konstituzioaren testuak diskriminazio negatiboa galarazten du, baina ez diskriminazio positiboa.

Testuinguru honetan ulertu beharra dago, ezgaitasunen bat duten pertsonen berdintasuna lor dezaten, behar-beharrezkoa dela neurri sorta oso bat bideratzea, ez bakarrik neurri orokorrak baizik eta arlokakoak ere, xede hori eraginkortasunez eskuratzeko laguntzeko.

Zerga eremuaren barruan, pertsona minusbaliatuek onura zehatz batzuek gozatzen dute Espainiako zerga sistema osatzen duten hainbat zergari dagokionez. Pizgarri horiek ematen dira euren zerga gaitasun txikiagoan oinarrituz (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga edo Oinordetzen gaineko Zerga) edo euren lan, gizarte edo hezkuntza integrazioa bideratzeko asmoz (Sozietateen gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga eta Zerga Eskubideak).

Herri Defendatzailearen gomendioak aintzakotzat harturik, toki ogasunei buruzko legea erreformatu zuen abenduaren 27ko 51/2002 Legeak ezgaitasunagatiko

salbuespenaren aplikazio eremua hobetu eta handitu zuen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (aurrerantzean TMIZ), Zenbait Garraiobideri buruzko Zerga Bereziarekin (ZGZB) parekatuz. Erreforma horren ondorioz, ezgaitasunen bat zuten pertsonen ibilgailuen salbuespena jadanik ez zitzaion ibilgailuaren zerga potentziari lotzen, ez eta minusbaliatuak gidatzeko egokitzapen zehatzari ere; horrela bada, salbuespena minusbaliatuaren izenean matrikulaturiko edozein ibilgailuri aplikatzeari ekin zitzaion, berak edo beste pertsona batek gidatuko zuenentz alde batera lagata.

Gure Autonomia Erkidegoaren eremuan, erreforma hori urtebete geroago egin zen estatuaren gainerako lurraldeetan baino; horretarako, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan 7/2003, 12/2003 eta 4/2003 foru arauak onetsi ziren hurrenez hurren. Horrenbestez, foru arau berri horiek TMIZi buruzko lehengo foru arauen 2. artikulua aldarazi zuten.

## GAUR EGUNGO ARAUTEGIA

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, EAeko lurralde historikoetariko bakoitzean TMIZ arautzen duten foru arauak berdin-berdin erregulatzen dute zerga horretako ezgaitasunagatik salbuespena; hona hemen, bada, bigarren artikulua hori:

“2. artikulua

1. Ondoko hauek daude zergatik salbuetsita:

a) (...)

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onetsitako Ibilgailuei buruzko Araudi Orokorren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituena.

Era berean, salbuetsita egongo dira minusbaliatuen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean. **Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.**

Aurreko bi lerroaldeetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei. Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, legez 100eko 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila dutenak izango dira pertsona minusbaliatuak.”

Salbuespen hau aplikatzeko prozedurari dagokionez, 2. artikuluan 2. idatz-zatiak ondorengo hauxe ezartzen du:

“2. Artikulu honen 1. idatz-zatiko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dituzte ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak salbuespena onartu ondoren, berau eman dela egiaztatzen duen agiria luzatuko du.

Aurreko 1 idatz-zatiko e) letraren bigarren lerroaldean ezarritako salbuespenari dagokionez, interesatuak minusbaliotasunaren frogagiria aurkeztu

*beharko dio zerga ezartzen duen udalari, organo eskudunak emana beti, eta ibilgailuaren erabilera haren aurrean justifikatu; hori guztia udalak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko duen eran egingo da.”*

## SALBUESPENA APLIKATZEKO BETEKIZUNAK

Azaldu berri dugun arautegiarekin bat etorritz, TMIZen ezgaitasunagatiko salbuespenari eragiten dioten betekizunak ondorengo hauek dira:

- Eskatzaileak eskaturiko salbuespenaren ibilgailuaren titularra izatea.
- Eskatzaileak % 33ko edo handik gorako ezgaitasuna izatea eta hori organo eskudun batek egiaztatzea.
- Ibilgailua titularrak besterik ez erabiltzea.

Titulartasunari dagokion betekizunak, jakina denez, ez du aplikazio gorabeherarik ekartzen.

Gauza bera esan dezakegu ibilgailuaren titularraren ezgaitasunari dagokion betekizunaren gainean. Araua, gure iritziz behinik behin, guztiz argia eta zehatza da alderdi honi dagokionez; izan ere, bestelako baldintzarik gabe, organo eskudunak egiaztatutako % 33ko ezgaitasun maila edo handik gorakoa eskatzen du. Edozein kasuetan ere, aurrerago zehatzago ikusiko dugun bezala, ematen du udal batzuek oraindik ez dutela euren gain hartu salbuespen honek izandako legezko erreforma; izan ere, mugikortasun zailtasunak ez dituzten edo ibilgailu egokiturik behar ez duten eskatzaileei ukatzen diete salbuespena, erreforma izan aurretik salbuespen honetarako eskubiderik ez zuten pertsoneri, hain zuzen ere.

Ibilgailuaren erabilera bakarrari buruzko betekizunak interpretazio arazoak ekar ditzake. Gure ustetan, legegileak betekizun hau arautzeko erabilitako terminologia ez da egokiena; izan ere, definitu ahal izateko, hitzez hitzeko interpretazio estuak egin behar dira. Baina, arauaren idazkera egokiena ez izateaz gainera, ikusi dugu hainbat udalek ez dutela abiapuntu zehatz bat aintzakotzat hartzen eta, gure aburuz, hori funtsezkoa da betekizun hau egokiro baloratu ahal izateko; izan ere, erabilera bakarra ez da izan behar salbuetsitako zerga egitatea gertatzen denean. Honako hau **etorkizuneko zirkunstantzia da, denboran irauten duena**, eta araua horretan oinarritzeko da onura emateko xedea bete dela pentsatzeko. Horrenbestez, administrazioak ibilgailuaren erabilera bakarra bakar-bakarrik exijitu eta, ondorioz, egiaztatu ahal izango du salbuespena aintzatesten duenean; izan ere, onurari eustea horren menpe dago, baina ez onura ematea.

Premisa horretatik abiatuz eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 114. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz (izan ere, artikulua horrek ondokoa ezartzen du: *“bai kudeaketa prozeduran bai erreklamazioak ebaztekoan, eskubidea baliozko bihurtu nahi duenak berori osatzen duten egitateak frogatu behar izango ditu”*), gure ustetan, salbuespen eskabidea aurkeztearekin batera frogatu behar diren egitate bakarrak ezgaitasun maila eta ibilgailuaren titularitate besterik ez dira; bien bitartean, ibilgailuaren “erabilera bakarra” administrazioak onartu behar du eskatzaileak beren

beregi hartzen duenean ibilgailua berak bakarrik erabiltzeko konpromisoa, baldin eta salbuespena aintzatesten bazaio.

Aintzatespen horren ostean, zerga administrazioak beharrezko ahalmenak ditu salbuespenaren onuradunak daukan betebeharrak hori benetan betetzen dela egiaztatzeko, ikuskatzeko edota kontrolatzeko; horrela bada, onuradunari salbuespena kendu ahal izango dio, baldin eta ibilgailuaren helburua beste bat dela egiaztatzen badu.

Behin aurretiazko oinarri hauek finkatuta, geure buruari galde diezaiokegu noiz pentsa dezakegun administrazioak ez duela erabilera bakarraren beharkizuna bete. Gure iritziz, gai honi erantzuna emateko, hitzez hitzeko interpretazio estuak albo batera utzi behar ditugu eta xedea kontuan hartu; horrela bada, ibilgailuaren erabilera bakarra ez da urratzen lantzean-lantzean beste helburu batzuetarako erabili arren; izan ere, horrekin ez da salbuespenaren xedearen aurka egiten. Aldarrikatzen ari garen malgutasun hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak berariaz onartzen du ibilgailuak enpresaren jarduerari dagozkionean; izan ere, enpresa jarduerako erabilera hori ez da desagertzen jardueraren ordutegitik at erabiliagatik ere.

Erabilera bakarraren kontzeptuari buruzko interpretazio malgu honi jarraituz (erakunde hau interpretazio horren aldekoa da), uste dugu salbuespenaren onura kentzeko ez litzatekeela nahiko izango administrazioak egiaztapen bakarra egitea; horren ondorioz, administrazioak egiaztatu beharko luke erabilera sarritan ez dela egokia, betiere ibilgailua ez dela pertsona ezgaituaren erabilerarako frogatu ahal izateko.

## UDAL JARDUERA DESEGOKIEN ADIBIDE ZEHATZETARIKO BATZUK

Salbuespen hau indarrean egon den lehendabiziko urtean ikusi ahal izan dugun bezala, Gipuzkoako hainbat udal nekez ari dira berori praktikan jartzen.

Horrela, Arrasateko Udalak TMIZeko salbuespena ukatu dio ezgaitasuna bai baina indarreko baremoen arabera mugikortasun arazorik ez duen pertsona bati; pertsona horrek adierazi du berak ez duela ibilgailua gidatzen. Udal horrek uste izan du eskatzaileak ez duela betetzen ibilgailuaren erabilera bakarrari buruzko beharkizuna; horrenbestez, ondorio horri eusteko ondorengo argudio hauek eman ditu:

- Ibilgailuaren aseguru polizan eskatzailea ez da gidari modura azaltzen.
- Errege Akademiaren hiztegiaren arioan, “bakarra” terminoak adierazi nahi du “ez duela beste inork parte hartzen”; hortaz, eskatzaileak ezin du beharkizun hori bete, baldin eta ibilgailuan beste pertsona batek eramaten badu.
- Eskatzaileak ez du mugikortasun arazorik.

Errenteriako Udalak ondorio bera ateratu du aurrekoaren antzeko kasu batean; horretarako, bada, ondorengo arrazoi hauek eman ditu:

- Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 114. artikulua.
- Murtziako Auzitegi Nagusiaren hainbat epaitan erabilera bakarrari buruz jasotzen den kontzeptua bere egiten du; horren arabera “*erabilera bakarraren kontzeptuak ezinbestean dakar minusbaliatuak ibilgailuan egon behar izatea berori zirkulatzen ari denean, alde batera utzita beste pertsona batek gidatzen duen ala ez*”.

- Salbuespenen ondoretarako, erreklamaziogilearen ezgaitasunak garraio publikoa erabiltzeko oztoporik ez ekartzea, ez eta beste pertsona baten laguntzarik behar ez izatea ere.

Beste alde batetik, Irungo Udalak % 33tik gorako ezgaitasun maila duen pertsona baten eskaerari gaitz iritzi dio; izan ere, pertsona horrek adierazi du ibilgailuaren gidaria dela, baina ez da horrela agertzen bere ibilgailuaren aseguru polizan. Irungo Udalak zirkunstantzia hori frogatzat hartu eta interpretatu du eskatzaileak ez duela ibilgailua berak bakarrik erabiltzen.

Donostiako Udalak TMIZen salbuespen eskaerak izapidetzen ditu eskatzaileak dituen ezgaitasun ezaugarrien araberrako betekizun desberdinak exijituz. Horrela bada, ezgaitasunari egokituriko ibilgailua erabiltzen dutenei edo bidaiarien garraio publikoa erabiltzen uzten ez dieten mugikortasun arazoak dituztenei ez die inolako beharkizun berezirik eskatzen ibilgailuaren xedea egiaztatzeko. Aitzitik, gainerakoei, hau da, % 33ko ezgaitasun maila edo handik gorakoa dutenei, hainbat informazio eskatzen zaizkie; hala, horretarako ezarritako epeetan ematen ez bada, salbuespena ukatzen dute, erabilera bakarra ez egiaztatzeagatik. Zehatzago esateko, eskatu ohi den informazioa ondorengo da (hitzez hitz adieraziko dugu):

- “• *Ea zu ibilgailuaren gidaria zaren eta, ez bazara, nor da eramaten zaituen pertsona, ea familiartekoa den ala ez, eta non bizi den.*
- *Ibilgailua lanerako behar izanez gero, azaldu nora joan behar den eta aipatu zein den lan ordutegia.*
- *Ibilgailua lanerako behar ez baduzu, azal itzazu zein jarduera motatarako behar duzun eta noizero egiten dituzun.*”

Gure ustetan, eskatu duten pertsonen udalek salbuespena ukatzeko erabilitako argudioetariko bakar bat ere ez zaio zuzenbideari lotzen; arrazoiak, labur-labur, ondorengo hauek dira:

- Ibilgailuaren polizan eskatzailea gidari modura ez agertzeak ez dauka inolako garrantzirik ibilgailuaren erabilera bakarra baloratzeko ondoretarako; izan ere, lehenago aipatu dugun bezala, gaur egun salbuespena eskatzaileak berak gidatutako ibilgailuei dagokie, bai eta pertsona hauek garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuei ere.

Halaber, ezin da ibilgailuaren erabilera bakarra kolokan jarri salbuespena eskatu duen pertsona elbarriak ibilgailuaren gidaria dela adierazteagatik eta, hala ere, bere izena aseguruaren polizan ez agertzeagatik. Kontratu hauen baldintza bereziak aztertzen baditugu, egiazta dezakegu “hartzaile, jabe edo gidari” modura agertzen den pertsona halaxe azaltzen dela primak kalkulatzeko ondoretarako. Horrek adierazi nahi du aseguru-etxeak pertsona horren hainbat datu prima kalkulatzeko erreferentziatzat hartuko dituela (sexua, adina, bere gida-baimenaren lehendabiziko data...), baina ez du adierazten, Irungo Udalak egiten duen bezala, pertsona hori aseguraturiko ibilgailuaren erabiltzailea –ohikoa edo aldizkakoa– denik.

Gainera, planteamendu hori eskatzailearen aseguru polizaren eranskinean agertzen diren klausula bereziekin bat dator; izan ere, klausula horietan sartzen

da istripua polizaren baldintza berezietan ageri denaren beste gidari bat egonda gertatzeko aukera; halakoetan, aseguratzaileak adierazten du kalteei erantzun-go diela arriskuaren benetako garrantziaren berri izanda egokituko litzatekeen primaren eta ezarritako primaren arteko portazioan.

- Espainiako Errege Akademiaren Hiztegian oinarrituz “erabilera eskusibo edo bakarraz” egiten den interpretazioa ere ezin dugu onartu: horren arabera, ibilgailua ezindua bakarrik erabili ahal izango luke, ez beste inork. Irizpide hori onartuko balitz, zuzenean urratuko litzateke, TMIZ arautzen duen Foru Araua, horrek berariaz eta argiro aitortzen baitie salbuespena beren ibilgailua gidatu ez baina beraiek garraiatzeko erabiltzen duten pertsona ezinduei, eta, jakina, ibilgailuan horiek ez dira inoiz bakarrik joaten.
  - Salbuespen horren onuradunen ezgaitasunaren ezaugarri dagokienez, zehazki agintzen da ezgaitasun maila % 33koa edo handiagoa baldin bada, betetzat jo behar dela baldintza hori, eskatzailearen mugikortasunarekin edo garraio publikoak erabiltzeko aukerarekin lotutako ñabardurarik edo loturarik erantsi gabe. Udal batzuek eskatzailearen mugikortasun-mailaren eta ibilgailua beste norbaitek gidatzen duenean salbuespena aitortzearen artean ezarri duten lotura, berriz, oinarririk gabea iruditzen zaigu logikaren ikuspegitik, eta gure iritziz ez du inolako babes juridikorik.
  - Lehenago esan dugunez, salbuespen eskaera aurkeztearekin batera egiaztatu beharreko egitate bakarrik ezgaitasun maila eta ibilgailuaren titularitatea dira; bien bitartean, ibilgailuaren “erabilera bakarra” (geroagoko zirkunstantzia eta, hortaz, zalantzarikoa) bakar-bakarrik eskatu ahal izango da salbuespena aintzatesi eta gero; izan ere, horren menpe dago onurari eustea, baina ez ematea. Horrenbestez, ezin da pentsatu eskatzaileak ez duela bere eskubidea egiaztatu Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 114. artikulua eskatutakoarekin bat etorritik.
  - Murtziako Auzitegi Nagusiak epai batzuetan egin duen interpretazioa dela-eta (alegia, ezindua beti ibilgailuan joatea exijitzen du ibilgailua zirkulatzen ari denean, beste pertsona bat gidari izan ala ez), gure ustez, irizpide hori kasu askotan baliagarria izan daiteke, baina ezin da azken ondorioetara eraman, bada egitatezko kasu askotan gerta daiteke minusbaliatua autoan ez joatea baina erabilera eskusiboari buruzko baldintza ez urratzea. Adibidez, ezindua berak gidatu ezinik, beste norbaitek hura edonora eramaten badu eta geroago haren bila joaten bada; edo beste pertsona batek gidatzen badu, titularraren erosketak edo mandatuak egiteko edo beste behar batzuk asetzeko, edo, soilik, beste pertsona batek autoa tailer mekaniko batera eramaten badu, azter edo konpon dezaten...
- Bestalde, auzitegi horren irizpideekin bat ez etortzeaz gainera, epai horietan ageri diren kasuak ezin dira kasu hauekin parekatu. Kasu haietan zergaduna salbuespenaz gozatzen hasia zen, zerga alorreko administrazioak –beharrezko egiaztapena egin ondoren eta bere ikertzeko eskumenak erabiliz– zerga likidatu zionean, erabilerari buruzko baldintza ez zela betetzen ari uste zuelako, izan ere,



benetako hainbat egoera antzeman zituen (beharrezko izapideen bidez formalki dokumentatuak) non salbuesitako pertsona ezindua ez zegoen bere ibilgailuan hura zirkulatzen ari zenean. Aitzitik, aztertzen ari garen kasuetan, interesatua oraindik ez da salbuespenaren onuraz gozaten hasi, eta, beraz, oraindik goiz da udalak “erabilera bakarrari” buruzko baldintza ez dela bete aurreratzeko, hau da, udalak ezin du alde aurretik epaitu zein izango den eskatzaileak ibilgailuari emango dion erabilera, behin salbuespena aintzatesi eta gero.

- Hainbat eskatzaileari salbuespena aintzatesteko informazio osagarria eskatzeak –eskatzailea garraiatzen duen pertsonaren identifikazioa eta helbidea, lantokia, lan ordutegia, ibilgailua erabiltzen dituen jarduerak...– ez dauka inolako oinarri juridikorik eta, gainera, ez du ezertan laguntzen ibilgailuaren erabilera bakarra egiaztatzeko orduan. Informazio hori eskatzean udalak ematen duen argudioa hori izanagatik ere, eta horiek eman ezean salbuespena automatikoki ukatu arren, gure ustetan, eskatutako datuek ez dute zerikusirik eskatzaileak ibilgailua eskusiboki erabiltzearekin. Gure iritziz, eskaera horrek eta helburuak ez dute zerikusirik, bai informazioaren edukiagatik, bai udalak elementu horietariko bakoitza aztertzen ez duelako. Edozein kasutan ere, oinarririk izan ez eta erabilera egiaztatzeko ez-eraginkorra izan arren, jarduketa honek agerian jartzen du Donostiako Udalak akats larria egiten duela, udalak pentsatzen baitu ibilgailuaren erabilera bakarrari buruzko betekizuna zergaren salbuespena aintzatesi aurretik eska daitekeela.

Irizpide hauek uztartu eta kasu zehatz bakoitzaren arabera egokituz, udalei eskatu diegu euren irizpideak berrikusteko, horretarako beharrezko gomendioak emanaz. Hala eta guztiz ere, gaur egunera arte, udalek ez digute aldeko erantzun bakar bat ere eman.

## ONDORIOAK

1. TMIZen salbuespenaren helburuaren egokitzapena dela eta, hainbat udalek inplizituki edo esplizituki erakutsi duten konfiantzarik eza ezin bidera daiteke eskaintzaileari ezin eska dakizkiokeen betekizun batzuk exijituz. Honi gagozkiolarik, gure ustetan, zuzenbideari lotzen zaion eta udalek salbuespena egokiro betetzen dela egiaztatzeko duten mekanismo bakarra zera da: aipatutako onurari eusteko zirkunstantziak banan-banan betetzen direla egiaztatzea eta ikuskatzea. Horren ondorioz, egoera honetan dauden udalei gomendatzen diegu gaur egungo irizpideak zuzentzeko eta salbuespena aplikatzeko, legezko oinarririk ez duten murrizketarik gabe.
2. Foru Aldundiei eta, bereziki, Gipuzkoakoari iradoki nahi diegu Batzar Nagusietan TMIZ arautzen duten foru arauen 2. artikulua aldarazpena bultzatzeko eta malgutasunaren ideia beren beregi jasotzeko, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ibilgailuaren erabilera bakarrari buruz ezarritakoaren haritik; gauzak horrela, saihestu ahal izango da toki korporazioek kontzeptu honetan

komenigarriak ez diren hitzez hitzeko interpretazio estuegiak egitea. Era berean, artikuluan 2. idatz-zatiari egiten zaion aipamena kentzeko gomendioa egin nahi dugu. Horren arabera, udalek euren ordenantzetan arau ditzakete salbuespenaren eskatzaileek ibilgailuaren helburua justifikatzeko beharrezkoak; izan ere, horrek laguntzen du erabilera bakarra alde aurretiko betekizuntzat hartzen, eta ez da horrela, salbuespena aintzatetsi osteko betekizuna delako.

#### **4. ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN TXAKURRAK EDUKITZEA DELA-ETA UDALEK HARTUTAKO NEURRIAK. LEHENENGO HURBILKETA**

Txakurrak herri bideetan, parkeetan, urbanizazioetako gune komunetan edo erabilera publikoko beste toki batzuetan ibiltzeak errezeloak eta beldurra sorrarazten dizkie oinezkoiei. Beldur hori are handiagoa da animaliek arraza-tipologia indartsu eta berezia, gihar ahaltzuak eta masailezur handi eta sendoak dituztenean, edo, azken batean, itxura izugarria dutenean. Errealitate horren aurrean, txakur-jabe ez diren pertsonak esan ohi dute animalia horien jabeek ez dituztela haiekin behar bezalako prebentzio neurriak hartzen eta, era berean, toki erakundek ez dutela animaliak eta pertsonak hiriko guneetan elkarrekin bizitzeak sorrarazten dituen interes-gatazkak konpontzeko biderik ematen.

Hala ere arazo hau, teorikoki behintzat, konponduta dago.

Egin-eginean, txakurrek pertsonen egindako erasoek gizartea kezkatu izan dute eta kezkatzen dute oraindik. Horregatik egokitzat jo zen animalia hauen edukitza zehatz-mehatz arautzea. Beren arraza-tipologiagatik edo jokaera erasokorragatik arriskutsuak izan daitezkeen animaliez ari gara. Arauketa hori, Espainiako Konstituzioaren 149.1.29. artikulua babesean egina (segurtasun publikoaren arloko eskumen guztiak Estatuari ematen baitzizkio artikulua horrek), arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen testuan gauzatu zen (1999-12-24ko EAO, 307 zenbakia).

Lege horrek horrelako animalien jabeen eta edukitzaileen betebeharrak zein diren zehaztu du (5. artikulua eta hurrengoak), eta aipatu betebeharrak betetzen ez dituztenak zehatzeko araubidea ezarri (13. artikulua eta hurrengoak).

Araua xedea pertsonen segurtasuna eta beste animalia batzuen zaintzea da, haiek elkarrekin ezinbestez egoten diren guneetan. Hori dela eta, legeak animalion ardura duten pertsonen betebeharrak zehatzak eta gehigarriak ezarri dizkie, hala nola, hasieran udal lizentzia lortzea, eta gero, animaliak lotzeko bi metrotik beherako luzera duen uhala edo katea erabili beharra, eta txakurrei homologatu eta beraien arrazari egokituriko muturrekoa jarri beharra, eremu publikoetan ibili edo egoteko (lehenengo xedapen gehigarria).

Lege horren alderdi batzuek arazuko garapena izan dute, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatu duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuaren bitartez (2002-3-27ko EAO, 74 zenbakia).

Errege dekretu horrek zehaztu du zenbait animalia arriskutsuak izan daitezkeela, bertako I. eranskinean aipaturiko arrazetakoak izateagatik (pitt bull terriarrak, rottweilerrak eta dogo argentinarrak), edo II. eranskinean aipaturiko ezaugarriak dituztelako, edo izaera erasokorra dutelako edo pertsonen nahiz beste animalia batzuei inoiz eraso egin dietelako.

Gainera, errege dekretu horrek dio, 50/1999 Legearekin bat etorririk, animaliek behar bezala erroldaturik eta identifikaturik egon behar dutela, dagokien "mikrotxipa" ezarrita; eta jabeek udal lizentzia administratiboa lortu behar dutela animalia horiek edukitzeko. Hori guztia dekretuaren 3. artikuluan dago. Udal lizentzia horrek bost urterako balio izango du eta bera eman ahal izateko beharrezkoa da, besteak beste, animalia jabeak arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko gaitasun fisiko

eta psikologikoa izatea. Era berean, baimen hori lortzeko, horrelako animalien jabeek hirugarrenetik erantzukizun zibilerako aseguruia eduki behar dute, gutxienez 120.000 euroko estaldura ematen duena.

Gaitasun fisikoa (4. artikulua) eta psikologikoa (5. artikulua) egiaztatzeko, behar bezala baimendutako zentroetan egin behar da azterketa medikoa (6. artikulua).

Halaber, xedapen iragankor bakarrak dioenez, txakur arriskutsuen edukitzaileek, errege dekretua indarrean jarri denetik hasita, hiru hilabeteko epea izan dute udal organo eskudunari arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia eman diezaien eskatzeko. Hau da, teoriar, 2002ko uztailen jada indar osoa zuen arauak eta bete beharrekoa zen.

Gainera, errege dekretuak horrelako txakurren titularrek hartu beharreko zenbait segurtasun neurri finkatu ditu, ezbeharrak saihesteko xedez. Neurri horietariko batzuk, hain zuzen, 50/1999 Legean eta, EAEn zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurren edukitza arautzen duen apirilaren 4ko 66/2000 Dekretuan bilduta zeuden neurri berberak dira.

Prebentzio neurri horiek honakoak dira, funtsean:

- Txakurren arraza-tipologiaren arabera egokitutako muturrekoa derrigorrez erabiltzea, leku eta gune publikoetan daudenean.
- Animalia hauek gidatu eta kontrolatzeko 2 metrotik beherako katea edo uhala erabili behar da, gogorra eta ezin luza daitekeena, eta pertsona bakoitzak horrelako txakur bat eraman dezake, ez gehiago.
- Animalia hauek gune pribatuetan ere loturik eduki behar dira, salbu eta azalera, altuera eta itxitura egokiak dituen esparruren bat badago, gune pribatura sartzen dituen pertsonak edo animaliak babestea ahalbidetzen duena.

Prebentziozko neurri horiez gain, gure legeriaren arabera, animalien arduraren eta erantzukizunaren duen pertsonak, harekin ibiltzen denean, aldean eraman behar dituen administrazio-lizentzia eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan animalia erregistratu izanaren ziurtagiria.

Erakunde honek badaki animalioi edukitzeari buruzko legeak toki erakundeek abian jarri dituztenean zalantzak sortu direla eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroa sortu behar izan dela, bai eta mota honetako txakurrentzako atala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Animalien Identifikaziorako Erregistro Orokorren barruan. Alabaina, gure ustez, arautegi horrek eragin zitzakeen zalantzak argituta daude dagoeneko. Izan ere, prozedurak eta eman behar diren agiriak normalizaturik geratu dira.

Horretarako oso lagungarria izan da Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua (2004-07-09ko EHAA, 130 zenbakia) (10.etik 19.era bitarteko artikulua). Beraren helburua, dekretuko zio-azalpenean esandakoaren arabera, gai honi buruz eman diren arauen aplikatzaileari argitasun eta ziurtasun handiagoa ematea da. Horretarako, testu bakarrean bateratu da Estatuko eta autonomi erkidegoko arautegia, bi teknikari jarraiki: alde batetik, estatuko legeetako zenbait artikulua jarri eta, bestetik, EAEko dekretuan estatuko arauetako ezarpenak kontuan hartuz.

Nolanahi ere, dekretu horri esker, animalia hauek gune publikoetara eramaten dituzten pertsonak aldean eraman behar dituzten agirien formatua bateratu ahal izan da. Ildo horretatik, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko lizentziaren eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan txakurra erregistratu izanaren

egiaztagiriaren atzealdean ohar batzuk jarri dira, animalia jabeak eta animalia gidatzen duen pertsonak hartu behar dituzten neurriak gogora ekartzeko.

\* \* \*

Bistan da horrelako txakurrek ez dutela aske ibili behar eta hain zuzen ere horixe da jendea gehien kezkatzen duena. Nonbait, lortzen baldin badugu titularrek eta administrazioek benetan bermatzea animalioek gune publikoetara beren edukitzaileen kontrolaren pean eta muturrekoa jantzita sartuko direla, txakur arriskutsuen inguruan sortzen den gatazkarik handiena konpondurik egongo da.

Adostasun hori iritsi arte, toki administrazioak dira zehazki gure antolamendu juridikoak arriskutsuak izan daitezkeen txakurren arloko legeak zaindu eta betearazteko funtzioak betetzeko agindu dien erakundeak. Egin-eginean ere, beraiei dagokie zehatzeko ahalmena erabiltzea (101/2004 Dekretuko 29.2.b artikulua).

Dena den, kontuan hartu behar da udal agintariak zehapen espedienteak bidertzeko betebeharra betetzen ez badute, foru edo autonomi organo eskudunek, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, funtzio horiek beren gain hartu behar dituztela, eta bidezkoak diren zehapenak jarri (101/2004 Dekretuko 29.3. artikulua).

Hortaz:

1. Ukituriko interes ezberdinak uztartzeko xedez, gai honetan esku hartzea dagoen baina oraindik esku hartu ez duten toki erakundeek, lehenik, animalien titularrei arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeagatik dituzten betebeharrak gehigarrien berri jakinarazi behar diete.
2. Halaber, udalek titularrei esan behar diete lehenbailehen eska dezatela animalioek edukitzeko ahalmena ematen dien lizentzia administratiboa, eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan erregistra ditzatela.
3. Jarduketa horiek toki erakundeek sustatu behar dituzte. Interesatuak ohartarazi behar diete ezarritako epean agindutakoa bete ezean zehapena ezarriko zaiela eta badaezpada animaliak kendu eta txakurtegi batera eramango direla (arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko 50/1999 Legeko 13.3. artikulua, eta ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 11.4. artikulua).
4. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak lizentziarik gabe edukitzea oso arau-hauste larria da, abenduaren 23ko 50/1999 Legeko 13.1.b artikuluan xedaturikoaren arabera, eta 2.404,05 eta 15.025,30 euro bitarteko isunez zigortu behar da. Arau-hauste hori eginez gero, gainera, 50/1999 Legeko 13.3. artikuluekin bat etorritik, animaliak konfiskatu ahal dira zigor gehigarri gisa.
5. Azkenik, egia da, halaber, toki erakundeek jada ezin dutela alde batera utzi txakurren jabeak egin izan duten aldarrikapena: txakurrak olgetan ibiltzeko guneak egokitu beharra. Esan behar da eskaera hori inolako eragozpenik gabe jaso daitekeela animalien babesaren arloan ditugun legetan.

## 5. ETORKINEK OSASUNA DELA-ETA EGINDAKO ESKARIEI EMATEN ZAIEN ERANTZUNA

Atzerritarrei zuzendutako osasun laguntza giza garrantzi handikoa da eta giza eskubideen egikaritzaren muinari eragiten dio, baina gaiari ikuspuntu juridiko batetik heldu behar zaio ezinbestean. Ikuspegi horretatik abiatuta, atzerritarren osasun laguntza nazioarteko itunek eta estatu barruko legeek ezarritakoaren arabera da, gehienbat, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunak eta haien gizarteratzea arautzen dituen 4/2000 Lege Organikoaren 12. artikulua ezarritakoaren arabera. Osasunari buruzko Lege Orokorra aintzatetsitakoaren aldean, esanenezake 4/2000 Lege Organikoak atzerritarrek laguntzarako duten eskubidea handitu eta zabaltzen duela.

Pertsona hauei osasun laguntza emateko egon daitezkeen arazoei dagokienez, Europar Batasuneko herritarrek salbuespen hartu behar dira, bestelako egoera juridiko batean daudelako. Azterketa honetan, pertsona hauen kasuan beste kultura, sinesmen edo erlijioekin zerikusia duten zirkunstantzia bereziak egon arren, ez diegu helduko talde honetako gaixoek planteatzen dituzketen arazoei, batez ere laguntza emateko moduari buruz (esate baterako, sorospena beste sexu bateko profesionalak ematea edo laguntzari uko egitea sinesmen kontuak direla eta).

Gehienbat aztertuko ditugu Europar Batasuneko estatu-kideetan zehar askatasunez zirkulatzeko eskubiderik ez duten atzerritarrekin sortzen diren arazoak. Talde honetan, arazoa larriagotzen da klandestinitate egoeran dauden pertsonen kasuan. Edozein modutan ere, akatsa izango litzateke pertsona horiek osasun sistema behar duten moduan erabiltzeko oztupoak dituzten bakarrak direla pentsatzea.

Etnikoki bereizten diren taldeetako kide izateak berekin dakar osasun mailan izaten diren desberdintasun zehatzak egotea; gainera, desberdintasunok ezin zaizkio besterik gabe leporatu aldagai sozio-ekonomikoei (Townsend 1992, Nazroo 1997). Desberdintasunak, neurri batean, egoitza mailan osasun zerbitzuetara jotzeko izaten diren arazoetatik datoz (sarbidea debekatu egiten da edo legez kontra ukatzen da), bai eta zerbitzu horiek benetan erabiltzeko arazoetatik ere (desegokiak direlako edo diskriminatzaileak).

Antolamendu juridikoak zehazten du zein den etorkinek osasunerako duten eskubidearen norainokoa; horrela, osasun laguntzaren arazoari edozein ikuspegitatik oratuagatik ere, oso kontuan hartu behar izango genuke zein den erregulazio hori, batik bat horrek hainbat muga baditu hemengo herritarrekin alderatuz gero. Alabaina, beste kultura batzuetako jendearen osasun eskaerei emandako erantzuna aztertzean, ez dugu pentsatu behar arazoa arauen egokitzapen baten bitartez bakarrik konpon daitekeenik, nahiz eta baieztapen horren bidez egokitzapenaren garrantzia alde batera uzteko asmorik eduki ez.

Arauen egokitzapen hori beharrezkoa da, baina ez da gaia ixteko bestekoa. Emigrazioa gure historiaren zati da eta, horrenbestez, ez litzateke zaila izan beharko pentsatzea zeintzuk diren inmigrazioari datzekion zailtasunak: hizkuntza, kultura, elikadura, etxebizitza, inguruak... aldatu beharra eta abar.

Zirkunstantzia horiei gaur egungo beste batzuk gehitzen zaizkio eta azken horiek inmigrazioaren ohiko arazoak bigarren maila batean utz ditzaketelakoan gaude.

Buru-osasunari buruzko Norte aldizkarian Achotegui doktoreak argitaraturiko artikulua batean *[Emigrar en situación extrema: el Síndrome del inmigrante con*

*estrés crónico y múltiple (Síndrome de Ulises)*] aipatzen dira zeintzuk diren muturreko egoeretan emigratzearen ondorioz pertsona horiei sor dakizkiekeen gaixotasunak; gainera, beraren esanetan, zailtasun mordo horri beste bat gehitu behar zaio: pertsona hauei lagundu beharko liekeen osasun sistemak beti ez die behar den moduko sorospenik ematen.

Etorकिनен premien alderdi zehatz horri aipamen egin gabe, Laguntza Psikiatriko eta Buru Osasunerako 2004-2008 Planak, aplikazio eremua aztertzean, inmigrazioa aipatzen du datozen urteetarako aurreikusten diren aldaketa faktoreen artean.

Gure ingurunean bizi diren pertsona hauek bizi duten egoera ikusita eta pertsona horiei zuzendutako laguntza edozein ikuspuntutatik azertuagatik ere –ikuspegi etikoa, legezkoa edo osasun arlokoa–, gaur egungo murrizketak kendu beharko genituzke, egoera hobetu ahal izateko.

Osasunerako eskubidea, osasun prestazioetarako sarbideari lotua, oinarrizko giza eskubide unibertuala da, biztanle kategoria guztiei aplikatu beharrekoa. Baina justizia edo zuzentasunaren ageriko arrazoietatik haratago, osasun arloko datuak ditugu eta horiek ere kontuan hartu beharko lirateke, hesi juridiko horiek ezabatzen ahalegintzeko eta kolektibo hori osasun sistemetara hurreratzea lortzeko. Ikuspegi horretatik, esan genezake banakoen eskubidea gainditzen duen interes bat badagoela osasun laguntza eskuratu ahal izateko.

Tuberkulosia eta A hepatitis azaleratzen ari diren arazoak dira; izan ere, gaixotasun horiek, hainbat arrazoi direla eta (gerra esate baterako), sarri-sarri agertzen diren eremuetako pertsonak gero eta ugariagoak dira herrialde garatuetan. Harrera egiten zaien herrialdeetan pertsona horiek jasan beharreko diskriminazioak kolokako egoerak sorrarazten ditu; gainera, kinka larri hori larriagotzen da osasun zerbitzuetara heltzeko bestelako oztopoak direla eta: hizkuntza arazoak, harrera-herrialdeko usadio eta ohitura berriak... Horrek biztanle etorkinei tuberkulosiak gehiago eragitea ekar liezaieke, nahiz eta azken hori egiaztatuta ez dagoen.

Berez kolektibo batzuetako kideak ez badaude osasuna zaindu eta hobetzeko jokabideen jakinaren gainean, osasun eskubideari muga juridikoak ezartzeak nahitaez handituko du sorospena lortzeko eta prebentzio nahiz tratamendu zerbitzuetara hurre-ratzeko etorkin batzuek erakusten duten axolagabetasuna.

Beharrezko dituzten baliabide eta zerbitzuak lortzeko berdintasuna aintzatesteko arautegiak egokitzeaz gain, antolakuntzaren eremuari eragiten dioten neurriak aurreikusi behar dira, berezi edo apartekotzat jotzen diren egoera edo zirkunstantzietan erantzun egokia ematen saiatzeko, betiere kontuan hartzen badugu zerbitzu eta baliabideen berri duten etorkin batzuek edo hemengo herritarrek ez dutela horrelakorik behar.

Adibidez, pentsa dezakegu izaera orokorrarekin gaixo bati laguntza emateko ezarritako prozedurak ez direla nahiko izango, baldin eta laguntza eman behar dioten profesionalekin harremanetan jartzeko bitartekari bat behar badu (*“hizkuntzarekin zailtasunak izatea osasun arazo askoren jatorrian dagoela dirudi, bereziki buru-osasunari dagokionez”* - Lazaridis, 1985, Huismann, 1997) edo ez badauka baliabide eta zerbitzuen berri.

Aurrekoa kontuan izanda, agerian dago profesionalek etorkinen premia zehatzei aurre egiteko duten prestakuntza eta hizkuntz arazoei aurre egiten lagun dezaketen bitarteko materialak (ez bakarrik interpretariak, baizik eta euren berezitasuna dela-eta

sorospena emateko denbora tarte luzeagoa) osagaririk funtsezkoenak direla etorkinek osasun zerbitzuetan eta gaixotasunei aurrea hartzeko egitarauetan parte har dezaten.

Gauza jakina da, murrizketak eta mugak egonagatik ere, inmigrazio klandestinoak hor jarraitzen duela. Horrela, 4/2000 Legearen 12. artikulua ezartzen du pertsona hauek bi kategoriatan desberdinetan egon daitezkeela: euren egoera erregularizatu ez baina erroldatuta daudenak, eta egoera berberean daudenak baina erroldatu gabe. Ziur aski kanporatuak izateko beldur direnez gero, egoera irregularrean dauden etorkin asko ez dira erroldatzen; ondorioz, 12. artikulua lehengo idatz-zatiak osasun egoera paretzeko ahalbidetzen duen prozedura ez da beteko. Hori dela eta, bigarren idatz-zatiak aipatzen duen kasuan egongo gara, osasun eta gizarte zerbitzuetatik kanpo geratzen diren etorkinen kasuan, hain zuzen ere.

Dokumentaziorik gabeko etorkinen errealitate hori ikusirik, esan dezakegu, osasun laguntzarako eskubidea lortzeko arazo juridikoa baino gehiago (eskubide hori erroldatuz lortzen baita), beste izaera bateko arazo bati aurre egin behar diogula; izan ere, aurkituak izateko beldur dira eta horrek, zalantzarik gabe, osasun zerbitzuetatik urrutiratzen ditu.

## **EAEko Inmigratioari buruzko 2003-2005 aldirako Plana**

Gure autonomia erkidegoko botere publikoek egoera honi ematen dioten erantzunaren inguruan galdetzean, indarrean dagoen EAEko Inmigratioari buruzko Planari egin behar diogu men.

2003-2005 aldirako plan honen funtsezko helburuetariko bat da etorkinen eskubide eta betebeharrak aintzatesteko neurriak antolatzea eta eskubideok bermatzeko bitartekoak jartzea.

Aurkezpenak aurreratzen digunaren arabera, plana kokatu beharra dago pertsona hauen beharrezko erantzun egokirik ematen ez dien arau eta antolakuntza marko baten barruan. Hori kontuan harturik eta pertsona hauek egon daitezkeen egoera desberdinak gogoan izanik (4/2000 Lege Organikoaren 12. artikulua ezarritakoetarik edozeinetan), egitasmo horren xedea eta helburua pertsona hauek integartzeko neurriak antolatzea da.

Planak hainbat arlo jorratzen ditu, horiek guztiak etorkinen osasun arazoei eragiten dieten faktoreei buruzkoak: lan egoera, etxebizitza, hezkuntza eta gizarte beharrezkoak izateko laguntza. Jarduketara horiek osasun laguntzaren inguruko ekintzen osagarriak dira.

Osasun laguntzari dagokionez, neurriak ez dira bakarrik bideratzen etorkin guztiak osasun txartel indibiduala (OTI) izan dezaten, baizik eta hainbat ekintza aurreikusten dira etorkinak osasun sistemara hurrera daitezen.

Horretarako, planak aintzat hartzen du osasun zerbitzuetara hurbiltzeko zailtasunak ez direla bakar-bakarrik osasun txartelirik ez duten etorkinen kontua.

Horrela, 4/2000 Lege Organikoaren 12. artikulua erroldatuta ez dauden atzeritarrentzako osasun eskubideari dagokionez beheragoko kategoriatan ezartzen du, euren osasun laguntza ondoko kasu hauetara mugatuz: *“Espainian dauden atzeritarrek larrialdiko osasun publikoaren laguntzarako eskubidea dute, gaixotasun larririk edo istripurik izanez gero, arrazoia edozein izanda ere; horrela, laguntzak jarraituko du, harik eta sendagileak alta eman arte”*.



Edozein kasutan ere, laguntza larrialdietako kasuetara mugatu nahi ez bada (larrialdia zentzu hertsian ulertzeko arriskuarekin, osasun publikoaren sistematik kanpoko zerbitzuak erabiltzeagatiko gastuen itzulketa kasuetarako ezarritakoaren antzera), pentsa daiteke, biztanle etorkinak osasun sisteman sar daitezten, erroldaturiko pertsoneri eta erroldatuta ez daudeneri antzeko politika aplikatu behar izango litzaiekeela.

Lehenago aipatu dugu osasun zerbitzuetara hurreratzeko zailtasunak ez direla bakar-bakarrrik txartelik gabeko etorkinen kontua. Hori dela eta, ondoriozta dezakegu sistemara hurbiltzen ahalegintzeko programak biztanle etorkin guztiei zuzendu behar zaizkiela. Ikuspuntu horretatik begiratuta, osasun txartel indibiduala hurbilketa horren ondorioa baino ez da, eta ez hori gertatzeko arrazoia.

Horren haritik, uste dugu 4/2000 Legearen 12. artikulua 2. idatz-zatiak erroldaturiko etorkinen eta erroldatu gabekoen artean egiten duen bereizketak ez lukeela ondorioz ekarri beharko biztanleei sorospena emateko egiten diren egitaraueri dago-kienez.

Planaren testuak ez du zehazten ea erroldatu gabeko atzeritarren osasun laguntzaren edukia erroldatuta daudenekin dutenarekin parekatuko den ala ez edo artikulua horretako 2. idatz-zatiak ezarritako mugek jarraituko duten ala ez: *“Espainian dauden atzeritarrek larrialdiko osasun publikoaren laguntzarako eskubidea dute, gaixotasun larriarik edo istripurik izanez gero, arrazoia edozein izanda ere; horrela, laguntzak jarraituko du, harik eta sendagileak alta eman arte”*.

Etorkinak Orientatzeko Gidak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarenak, erroldatu gabeko pertsonak aipatzen dituenean, 12. artikulua 2. idatz-zatiaren eduki berbera ematen die. Komenigarria izango litzateke Inmigrazio Planaren gidalerroa betetzeko neurrien zehaztapenak osasun laguntza parekatzea OTI duten gainerakoen egoerarekin. Hori guztia, gainera, arlo honetako gainerako gidalerroei dagokie; izan ere, horietan guztietan, atzeritar kategoriak bereizi gabe, osasun sistemara hurbiltzeko bideraturiko hainbat neurri ezartzen dira, gaixotasunak tratatzeko eta prebenitzeko zerbitzuek sorospena emateko aukera eskainiz, hala nola tuberkulosi, hepatitis, sexu bidezko gaixotasun, GIB, gaixotasun psikosomatiko eta abarren kasuan.

Hala eta guztiz ere, osasun txartel indibiduala lortzeko informazioa eta jarraibideak argiak izan behar direlakoan gaude; izan ere, Inmigrazioari buruzko Euskal Planak etorkinei eta gainerako pertsoneri eman beharreko laguntza parekatzeko planteatzen duena (*“OTI tramitatzea, dokumentazio identifikagarri eta erroldarik egon ez arren. Aldi baterako dauden etorkinena ere bai”*), beharbada, ezin uztar liteke 4/2000 Legeak osasun laguntzari buruz ezartzen dituen mugekin.

Osasun eskubidea egikaritzeko gai giltzarrietariko bat informazioa da. Argi eta garbi ikusten da erabiltzaileak sistemaren antolakuntzari eta prestazioei buruz daukan ezagutzaren eta ezagutza hori erabiltzeko moduaren arteko zuzeneko lotura dagoela.

Honako hau zerbitzuari eta prestazioei buruzko informazioarako eskubidea den arren (edozein erabiltzailearen egoera juridikoari datxekiona), horren inguruan Inmigrazioari buruzko Euskal Planak egiten duen aipamenak (osasun sistemaren antolakuntzaren eta zerbitzuen berri emateko, biztanle etorkinei eman beharreko informazioari dagokionez) pentsarazten digu, aurreikuspenetan behinik behin, administrazioaren ustez saihestu behar dela zerbitzuak ez erabiltzeko arrazoia informazioari ezaren ondorioa izatea.

Ez dago azpimarratu beharrik zer-nolako garrantzia duen zabalkunde eta informazioak osasun zerbitzuetara hurreratzeko orduan; izan ere, jakin badakigu zein den

informazio sistema on batek erabiltzaile nazionalentzat duen garrantzia, zerbitzuak egokiro eskuratzeko orduan.

Atzerritartasunaren gaiaren erregulazioak osasun arloan duen eraginak behartzen gaitu azken arlo honetan planteatzen diren egoerek beste arloa kontuan hartzera eta, jakina denez, alderantziz. Gerta liteke, era berean, batzuetan batak zein besteak erantzun kontrajarrietara eramatea, nahi ez ditugun erantzunetara, hain zuzen ere. Halakoetan, ahaleginak egin behar dira, behintzat, erantzunak berdinak izan daitezen, baina hori ez da beti oso erraza izaten.

Egoera erregularizatzeko dagoen atzerritar erroldatuaren eta Espainian bizi den legezko atzerritarraren eskubideak berdindu dira, betiere osasun laguntzaren arloko hainbat eskubideri dagokionez. Egile batzuek pentsatu izan dute egoera honek, legezko egoeran dauden atzerritarren aldean nahiko pribilegiatua denak, aitortu gabeko helburutzat izan lezakeela dokumenturik gabeko atzerritarrak aurkitzea.

Helburua hori izan ala ez, hausnarketa horrek eramaten gaitu atzerritarren gaineko arloko legeriak osasun estalduran duen garrantzia aipatzera; halaber, garrantzi handikoa da akatsak edo hutsuneak saihesteko irizpide zehatza ezartzea.

Legezko egoiliarra eta ez-legezkoa berdintzeko egoeraren eta aitortu gabeko helburuaren gaineko aipamen hori egin eta gero, beste baieztapen bat egin dezakegu legeriaren aplikazioak atzerritarrei osasun eskubidea eskuratzeko dakarzkien ondorioen gainean.

Arartekoaren erakundean azaldutako kasu batek egokiro irudika dezake arloko legeria batek beste bati eragiten dizkion egoeratariko bat.

Bi atzerritar, aldi baterako eta irabazteko xederik gabeko egonaldirako baimena zutenak, administrazioaren bulego batera joan ziren osasun txartela lortzeko asmotan. Administrazioak ukatu egin zien, egonaldirako baimen mota zela eta (4/2000 Legearen 31. artikulua), osasun laguntza ordaintzeko behar adina bitarteko zituztelakoan.

Pertsona horiek hainbat aseguru pribatutara jo zuten, baina aseguru-etxeek poliza izenpetzeko eskaerari uko egin zioten, nahiko nagusiak zirelako.

Kexan azaldutako datuen arabera, dirudienez, 4/2000 Lege Organikoaren 31. artikuluan oinarrituz (artikulu horrek ezartzen du aldi baterako egoiliar baimena ematen zaiela egonaldi eta mantentze gastuei aurre egiteko behar beste bitarteko dituztela egiaztatzen duten pertsonen), administrazioak ondorioztatu zuen pertsona horiek ez zituztela OTI unibertsalerako baldintzak betetzen.

Uste hori ez zen zuzena izan, ez behintzat OTI lortzeko ikuspuntutik abiatuta. Gainera, adina zela eta, ezin aurki zezaketen eurekin polizarik sinatuko zuenik. Pertsona hauei jakinarazi genien presuntzio hori ez zela zuzena. Esan nahi baita, benetako baldintzen berri izan gabe, lege organiko horren parametroak ezin dira parekatu behar beste baliabide ez dituztenentzako osasun laguntzari buruzko otsailaren 16ko 26/1988 Dekretuan azaltzen den egoerarekin.

Pertsona hauek kasua beste zentro batean aurkeztu zuten eta bertan, eskaera beste ikuspuntu batetik, hots, osasun ikuspegi batetik, aztertu eta gero, arazoa konpondu zieten.

Egia esan, 4/2000 Legearekin izandako gorabehera horrek garbi adierazten du osasun txartelak bideratzeaz arduratzen diren zerbitzuek informazioa zabaltzeko ahaleginak egin behar dituztela, akatsak zuzendu ahal izateko.

## Egoera berria

Gure herrialdea garai batean emigrazio gune izan zen; gaur egun makina bat etorkin jasotzen ditu eta horrek berekin dakar hazkunde demografikoa; horri, gainera, pertsona hauetariko askoren inguruabar desberdinak gehitu behar dizkiogu. Hori guztia gorabehera, osasun baliabideak ez dira handitu eta horrek ez du laguntzen osasun zerbitzurik egokiena ematen.

Baliabideen urritasun horri dagokionez, profesionalentzako denbora gehiago behar duen sistema batean, etorkinek osasun zerbitzuak gehiago erabiltzen dituztelako ustea oso zabaldua dago. Guztiarekin ere, ez du ematen ideia horri eusteko datu objektiborik dagoenik.

Bai gerta liteke, kultur eta hizkuntz desberdintasunak direla medio, pertsona horiek laguntza jasotzeko denbora tarte luzeagoa behar izatea, baina hori etorkinak ez diren beste erabiltzaile batzuen kasuan ere jazo daiteke eta ez da banakoen erabilera handiagoarekin nahastu behar (esate baterako, larrialdietako zerbitzuak erabiltzeari gagozkiolarik, erabilera-tasa biztanle ez-etorkinek duten berbera bide da).

Edozein kasutan ere, premia berriak dakartzan egoera batean gaude eta horri aurre egiteko, bada, osasun baliabide gehiago behar dira. Premia horien funtsezko faktoreak, gehienbat, kultur eta hizkuntz desberdintasunak dira; gauzak horrela, osasun arloko profesionalak ezagutza, trebetasun eta prestakuntza berriak eta zehatzagoak behar dituzte, bai eta kontuan hartzea ere osasun arloko baliabideekin batera hizkuntzari dagozkion beste batzuk behar direla. Horrela, elkarren berri ez izatearen eta kulturak ez ezagutzearen eragina murriztu edo ezaba liteke, aurreiritziak eta, beharbada, horien osteko diskriminazioak sailhestuz.

Laguntza horrek zergatik behar duen epe luzeagoa azaltzen duten arrazoiekin batera, sorospenerako neurriak planifikatzeko orduan kontuan hartu beharreko beste batzuk daude.

Pentsa dezagun, adibidez, osasun sistemak gaixoarekin dituen harremanak osasun zentro batera joateko patologia zehatzaren inguruan egituratzen badira, etorkinen kasuan gerta litekeela komenigarria izatea jatorriaren osasun baldintzekin zerikusia duten aurrekariak aztertzea; hori egiteko, jakina denez, hasiera batean ezarritakoa baino denbora tarte luzeagoa behar izango da.

Berriro ere azpimarratu behar da dedikazio handiagoko ikuspuntu horren kariaz, azterketa kuantitatibo huts batetik atera litezkeenetik haratago doazen neurriak behar direla (ez dago etorkinen osasun zerbitzuen erabilera-tasa handiagoa dela egiaztatzen duen daturik), profesionalak prestatzeko plangintza eta egitasmoak abian jarritz. Ikus dezakegu dagoeneko plangintza horiek gauzatzeko erreferente batzuk daudela, hala nola Familiaren eta Erkidegoaren Medikuntza Elkartek etorkinari laguntzeko egindako gida nahiz bestelako lanak ere, esate baterako Munduko Medikuen eta EHUren artean Bizkaian egiten ari diren proiektua, biztanle etorkinak euskal osasun sisteman integratzen ahalegintzeko eta, besteak beste, osasun arloko profesionalak prestatzen laguntzeko.

## Ondorioak

Arartekoaren erakundearen iritzi, biztanle etorkinak osasun sistemara hurreratzea lortzeko kontuan hartu beharreko alderdiak aipatu ditugu; horrek, era berean, euren

osasun nahiz gizarte beharrian eta premiei laguntza emateko bidea ere jorratu behar du.

Legez aintzatesten diren eskubideak aipatu ditugula kontuan hartuta, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen dituen 4/2000 Lege Organikoak atzerritarrei osasun laguntza eskaintzeko egiten duen aurreikuspenetik abiatu gara.

Legezko erreferente hori ahaztu gabe, osasun zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak ez dira bakar-bakarrik osasun txartelik gabeko etorkinen kontua; horrela bada, botere publikoen jarduketarik garrantzizkoenak biztanle mota horiek zerbitzuotara hurreratzeko bideratu behar dira; horretarako, bada, prebentzio egitarauetan eta profesionalak prestatzeko neurrietan inbertitu beharra dago; izan ere, pertsona hauei sorospena eman ahal izateko, profesionalak ez dute behar besteko informaziorik alderdi etniko eta kulturelari dagokienez, eta horrek, seguru antzean, sendagilearen eta gaixoaren arteko harremani eragingo die.

Profesionalak prestatzeko egitarauari eta prebentzio programei dagokien eremuan, litekeena da osasun sistemak gaur egun behar besteko garapenik ez izatea biztanle etorkinei laguntza modu egokian eman ahal izateko. Profesionalen prestakuntzarekin zuzeneko zerikusia duten hutsune horiez gainera, aipatzekoa da hizkuntza edo berbetari dagokiona; izan ere, berme juridikoen arloan gertatzen denaz bestaldera, Inmigrazioari buruzko Euskal Planak, osasun arloan, ez du inolako gida-lerrik ezartzen interpretaritzaz zerbitzuak etorkinen eskura abian jartzearen inguruan. Horrela bada, etorkinei oztopo hori gainditzen laguntzen dien inor ez badago, interpretaritzaz zerbitzu hori funtsezkoa izan liteke osasun laguntza modu egokian lortuko dutela bermatzeko, planak osasun arloko 1. gidalerroan aldarrikatzen duen bezala.

Etorkinei zuzendutako laguntza hemen aipatu ditugun inguruabarren testuinguruan kokatuta, esan dezakegu gaur egungo bidegurutzea juridikoa baino gehiago osasun eta etikaren arlokoa dela.

Bidegurutzea osasun arlokoa da, laguntzari buruzko eztabaida juridikoa gainditurik, administrazioak biztanle hauen osasunari hainbat arlotan eragiten dioten helburu batzuk diseinatu dituelako, besteak beste osasun arloko gidalerro batzuk; hortaz, gidalerrook garatzeko hainbat ahalegin egin beharko dira, lan horrek Inmigrazioari buruzko Euskal Planaren amaieran ageriko eraginak izango dituelakoan. Halaber, bidegurutzea etikoa da, ordezkari politikoek konpromisoak, ez bakar-bakarrik osasun profesionalenak, funtsezko zeregina bete beharko duelako, pertsona horiei laguntzeko erronkari aurre egin diezaiozun.

## 6. HIRIGINTZA DIZIPLINAKO ARAZO LARRI BATI AURRE EGITEKO PREMIA: BALKOIETAKO ITXITURAK

### Sarrera

Gure herri eta hirietatik zehar ibili ohi den edonork ikus dezake balkoi ugari zerrahi gisaz eta inolako irizpide bateraturik gabe itxi dituztela, bai erabilitako materialei, bai koloreari bai azken emaitza estetikoari dagokienez; horren ondorioz, eraikin mordo batek kanpoko itxura kaotikoa daukate.

Azken urteotan, gainera, udalerririk gehienetan ikusten den jardun hau, murriztu beharrean, handitu egin da. Horrela, jarduna geldiezina dela dirudi, bai aspaldiko eraikinen kasuan, bai orain dela gutxi eraikitakoen kasuan ere; helburua argia da: gure etxebizitzetako espazioa aprobetxatzeko metro gehiago izatea.

Itxiturarik gehienak ezelako baimen barik egin dira eta, are larriagoa dena, jarduketa hauek ezin dira legalizatu, indarreko hirigintza plangintzen kontrakoak direlako; izan ere, plangintzetan ez dira horrelako jarduketak baimentzen, eraikinetako bolumena agortuta egonik, eraikigarritasunaren aprobetxamendua handitzen delako.

Udalek eta udaletako sail teknikoek gertakizun honen jakinaren gainean daude, hirigintzako arautegia betearazteko arduradunak direnez gero; hala eta guztiz ere, arazoa ez dago batere konponduta eta era guztietako ondorioak eragiten ditu. Horren kariaz, arazoari erantzuna emateko ahaleginak egin beharko lirateke, problema korapilatsua izanagatik ere.

Arazo honek ukitutako hainbat pertsonak gai honi lotutako gorabeheretariko batzuk helarazi eta jakinarazi dizkiote erakunde honi.

Jaso ditugun kexek gaiaren bi alde kontrajarri erakusten dizkigute. Kasu batean udalen jardunik eza planteatzen da, betiere legea betearazteko eta ez-legezko itxitura hori eraisten behartzeko betebeharrari dagokionez. Beste kasuan, kontrako jarrera azaltzen da, hau da, udal jarduera hori diskriminatzailatzat jotzen dute; izan ere, itxitura kentzera behartzen dute salaketa zehatz bat dagoela eta, baina antzeko ez-legezko itxiturak izaten dira kale berean edo eraikin berean.

Horren kariaz, arazoa azertu beharra dago herri administrazio guztien jarduketaren betebeharra den legezketasunaren inguruan; aldi berean, sustraituriko arazo honen gainean patxadaz hausnartzeko premia dago. Horretarako, bada, udalek dituzten lanabes guzti-guztiak erabili behar dira, arazo larri honi irtenbide eraginkorra eman ahal izateko.

### Arazoaren gaineko azterlana

Udalek ezagutzen duten errealitatea izanda ere, komeni da, modu eskematikoan bada ere, udalerririk gehienetan izaten diren zirkunstantziak aztertzea. Gure iritziz, arazo honen eszenatokian ondoren aipatuko ditugun osagaiak azaldu ohi dira.

Sarreraren esan dugun bezala, aintzakotzat hartu beharra dago udaletako hirigintza plangintzarik gehienetan estalitako balkoiek eta terrazek eraikigarritasunaren aprobetxamendu modura zenbatzen dutela azaleraren kopuru zehatz bat, normalean, % 50. Edozein kasutan ere, hegalkin horiek itxita egoten direnean, okupatzen duten azaleraren % 100 zenbatu behar da.

Ohiko jarduna izaten da eraikin berri bat eregitean indarreko hirigintza plangintzaren araberrako eraikigarritasuna guztiz agortzea; gauzak horrela, horren ostean ezin da aprobetxamendu hori handituko duen lanik burutu.

Hori guztiori ikusita, mota honetako jarduketa batean interesik dutenek ez dute egiten obra hau gauzatzeko hirigintza lizentziarako eskabiderik edo, eskatzen den kasu bakanetan, eskabideari gaitz irizten zaio, hirigintza plangintzaren legalitateari egokitzen ez zaiolako.

Aurrekoaren ondorioz, interesa duten jabeek obra egiten dute inolako udal baimenik gabe eta, are okerragoa dena, itxitura bizi diren eraikinetako ezaugarrietara egokitzeko inolako kontrolik gabe, betiere horrek eraikinetako egiturazko segurtasunari eta alde estetikoari ekar diezazkiekeen eraginak aintzat hartu barik.

Salbuespen errespetagarri batzuk gorabehera, udalek ez diete erantzun egokirik eman legeztaatu gabeko obra hauei, betiere hirigintza diziplinaren arloko tresnak erabiltzeari dagokionez. Horrenbestez, salaketarik egon ezean –normalki kaltea egin zaiela pentsatzen duten eraikin horretako auzokideak edo gainerakoak egindako salaketak–, udalek ez diete manuzko espedientei ekiten urraturiko hirigintza legalitatea berrezartzeko; hori dela eta, obrak legeztauten ez badira ere, horien kontra ere ez da jotzen; azken batean, toleratu edo onartu egiten dira.

Itxiturak egiteko hain zabaldua dagoen ez-legezko jardun honekiko tolerantziaren ondorioz, udalek eurek antzeko kasuen ugaritasuna argudio gisa erabili dute arlo honetan izandako jardun eza justifikatzeko asmoz; horregatik, gurpil zoro batean gaudela esan liteke: ez da horren kontra jotzen ez-legezko itxiturak oso ugariak direlako eta ez-legezko itxiturak ugaltzen dira horien kontra jotzen ez delako.

Hala, beharrezko espedientei ekiten zaion kasuetan, eskuarki ez-legezko itxitura bat dela-eta jarritako salaketa baten ondorioz, horren tramitazioak luze jotzen du, batzuetan ez dauka amaierarik. Gauzak horrela, sarri askotan tramite bakoitza salatzailearen idatzien idatziez bideratzen da, harik eta prozedurak aurre egitea lortzen duen arte.

Salatzaileak tramitazioaren jarraipen estua egiten duen kasu hauetan ere espedientei benetako amaiera emateko zeregina ikaragarri handia izaten da; gainera, beti ez da lortzen ez-legezko itxitura eraistea, ez bakarrik prozedura mota hauei darien zailtasunagatik, baizik eta ekintza mota hauei jarraipena emateko udalek azaltzen duten interes txikiagatik ere.

Puntu honetara iritsita, esan beharra dago jakin badakigula ez-legezko obra bat gauzatuta oso konplexua izaten dela hirigintza legalitatea berrezartzea, are gehiago urratzailearen etxebizitzan esku hartu behar denean. Orokorrean, eraispen agindua betearazi ahal izateko, beste izapide batzuen artean, baimen judiziala behar izango da etxebizitza horretan sartu nahi izanez gero.

## **Deskribaturiko egoeraren ondorioak**

Labur-labur deskribatu dugun egoerak ondorio negatibo asko dakarzkie arlo askori. Azaldutako egoerek, gure aburuz, sorrarazten dituzten eraginetariko batzuk aipatu nahi ditugu ondoren nahiko modu eskematikoan.

Lehenengo eta behin, zehaztutako jardunbide horrek herritarrei eragiten dien sentsazioa zera da: hirigintzako arau batzuk ez betetzeak ez daukala ezelako eraginik;

horrek udal administrazioaren menpeko hirigintza jarduera kontrolatzeko zeregina guztiz “deslegitimatzen du”.

Halaber, nahasmena sorrarazten du ulertzen ez delako administrazioak zergatik jarduten duen kasu batzuetan eta, aitzitik, zergatik jarduten ez duen arautegia betetzen ez den beste kasu batzuetan; horrek udalaren jardueran arbitrariotasuna dagoelako ideia zabaltzen du.

Beste alde batetik, diskriminaturik sentitzen diren herritarrak daude; izan ere, eraispen agindua benetan bete arteko espedientea tramitatzen den kasuetan, ezin uler dezakete nolatan behar dezaketen balkoiko itxitura lurrera botatzera, inguruan antzeko instalazio ugari ikusten dituztenean.

Konstituzioaren 14. artikuluan bermatzen den berdintasun printzipioaren aldeko aldarrikapen hau ezin har daiteke legalitatea ez betetzeko argudiotzat. Auzitegi Gorenak, 1997ko apirilaren 17ko epaian, Auzitegi Konstituzionalaren etengabeko ildo jurisprudentzial bati jarraituz, honen moduko kasuetarako ondorengo hauxe adierazi zuen:

*“Uste horiek, era berean, jabe batzuen eta besteen arteko diskriminazio edo bidegabekeria dagoelako argudioa baztertzera behartzen gaituzte; izan ere, azalpenak oinarritzen diren berdintasun printzipioa ezin da erabili ez-legezko egoerak berresteko, zeren berdintasuna legearen barruan baino ez baitago; beraz, neurri bakar batekin neurtu ahal izateko, guztiek legalitatea betearazteko ahaleginak egin behar dira, bestelako jokabidea jasan behar izan dutenei ere irtenbidea emateko.” (RJ1997/2690)*

Ildo berari jarraituz, Auzitegi Gorenaren 1997ko apirilaren 28ko epaiak ondorengo hauxe dio:

*“...era berean, ezin da berdintasun printzipioa aldarrikatu eta ez-legezko instalazio bat itzalpetu inguruan horren antzeko beste batzuk daudela eta; izan ere, ohiko doktrina zera izaten da: antolamendu juridikoaren kontrako aurrekariak ez du administrazioa lotzen osteko jarduketei dagokienez.”*

Azpinarra daitekeen beste eragin negatibo bat zera da: kasurik gehienetan salaturiko kasuetan baino esku hartzen ez denez gero, salaketa legez ezarritako beste helburu batzuetarako erabiltzea bultzatzen da. Esan nahi baita, hirigintzako ekintza publikoa den arren, lanabes honen erabileraren atzean hirigintzako legalitatea berrezartzeko interesetik haratago doazen beste arrazoi batzuk daude. Jakina denez, salatzaile guztiek ez dute jarduten gezurrezko arrazoiek bultzatuta, baina horrela jokatzek jarraera mota horiek aldeztu ditu.

Edozein kasutan ere, jokabide honek ageriko eraginak ditu jabeen komunitate askoren elkarbizitzan eta batzuen eta besteen arteko ika-mikak sortu ohi dira; horrek, jakina denez, ez die ezertan ere laguntzen auzokideen arteko adiskidantzazko hartu-emanei.

Udalaren kontrol falta honen beste eragin bat, sarreran aipatu dugun bezala, eraikinetako alde estetikoari egiten dion kaltea da; izan ere, interesatu bakoitzak itxitura egiten du egokitatzat jotzen duen moduan; horrenbestez, fatxadari ez zaio tratamendu bateratua ematen, koloreari, diseinuari edo erabilitako materialei dagokienez.

Azkenik, beste alderdi bat azpimarratu nahi dugu; honako hau kaltegarriagoa izan daiteke ukituriko pertsonentzat eta ondasunentzat: eraikinetako egiturazko segurtasuna.

Itxitura hauek maiz fabrikako obren bitartez egiten dira –adreibila, zementua eta beste-lakoak–, eta horrek eraikinetako egituren egonkortasunari ondorio larriak ekar diezazkioke, ez bakarrik erabilitako materialen gainzamatatik, baizik eta sortutako espazio berriari eman dakiokkeen erabileragatik –jakitokia, altzariak eta abar–; horren kariaz, eraikinaren segurtasuna ere kolokan jar daiteke. Horri guztiorri gehitzen badiogu ezaugarri hauetako obrak ez daudela gutxieneko lanbide kualifikazioa duten teknikarien esku, arazo honi aurre egiteko premia eta beharrezana ezin dela saihestu ondorioztatzen dugu.

### **Aplikaziorako marko juridikoa**

Hasteko eta behin, adierazi behar dugu, gogora ekartzeko besterik ez bada ere, zein den administrazio publikoen eta, kasu honetan zehatzago esateko, udalen jarduketak eraundu behar dituen marko juridikoa.

Herritarrek eta botere publikoek zuzenbideari lotzeko duten betebeharraren printzipio orokorretik abiatu gara; izan ere, printzipio hori Konstituzioaren 9.1. artikuluan ezartzen da eta, hirigintza arloari dagokionez, besteak beste, ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 134. artikuluan zehazten da; horrek ondoko hauxe ezartzen du:

*“Partikularrek, bai eta administrazioak ere, ezinbestean bete behar izango dituzte aplikatzeko diren hirigintza legeek eta plangintzek hiri antolamenduaren gainean ezarritako xedapenak...”*

Ildo honi jarraituz, hirigintza diziplinari buruzko legezko ezarpenak aipatu behar ditugu, betiere ez-legezko obrak burutu direnean; horiek, batik bat, apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuak onetsitako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 184 eta 185. artikuluetan ageri dira, bai eta Hirigintza Diziplinari buruzko Araudiaren 29. artikuluetan nahiz hurrengoetan ere.

Aipatutako artikuluek udalen betebeharra arautzen dute lizentziarik gabeko obrei aurre egiteko eta obra eraisteko lana interesatuaren kontura ezartzen dute, baldin eta hirigintza plangintzaren edo ordenantzen kontrakoa bada, behin ezarritako prozeduraren araberrako beharrezko espedientea izapidetu eta gero.

Horrenbestez, ikuspuntu honetatik udalek hirigintza diziplinari dagozkion zereginak bete behar dituzte, betiere lizentziarik gabeko obrak edo burutzapen aginduak edo lizentzietan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten obrak burutzen ari direnean edo, amaitu direnetik, Lurzoru eta Hiri Antolamenduaren Presazko Neurriei buruzko martxoaren 6ko 5/1998 Legearen 10.1. artikulua ezarritako epeak igaro ez direnean, hau da, lau urteko epea hirigintzako urratzea larria izan bada eta bi urtekoa urratzea arina izan bada.

Balkoietakoa itxitura askoren antzinatasuna kontuan hartuta, gauza jakina da kasu askotan aurreko lerroaldean zehaztutako preskripzio epea aspaldi igaro dela eta, beraz, udalak ezin izango duela eskurik hartu. Kasu horietan, ez-legezko eraikuntza horiek hirigintza plangintzatik kanpoko antzeko egoeran daudela esan daiteke.

Honaino, bada, hirigintza diziplinaren arloan indarrean dauden ezarpenak; horien gainean ez dugu gehiago sakonduko; izan ere, ezarpenek ez dakarte inolako interpretazio



edo aplikazio arazorik. Arazo bakarra zera da: urratzei aurre egiteko legezko lanabesak ez erabiltzea.

Ildo honetatik, ez-legezko itxiturak ugaritu direla eta, hirigintza diziplinaren arloan soil-soilik neurriak hartzea ez da errealitateari aurre egiteko benetako irtenbidea, are gutxiago, gorago aipatu dugun bezala, administrazioak horren kontra jarduteko duen ahalmenek preskribitu badute, horretarako ezarritako epeak gaindituak izan direlako.

Hori dela eta, uste dugu udalek esparru honetan euren esku dauzkaten tresnak eta lanabesak erabili behar dituztela. Horrela bada, Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 12.2.1. artikulua arautzen du udal plangintza orokorrekin hiri lurzoruaren kasuan ondoko ezarpenak jaso behar dituztela:

*“Lurzoru eta eraikinetako erabilera zehatza, bolumena eta osasun nahiz higiene baldintzak zehatz-mehatz arautu behar dira, bai eta antolamendu, eraikuntza eta ingurunearen ezaugarri estetikoak ere”.*

Gainera, artikulua honek ezartzen du *“ezarpen hauetan antolamendua zaindu, aldarazi eta hobetzen dutenak zehatzu behar izango direla”.*

Beste alde batetik, Hirigintza Plangintzari buruzko Araudiak –ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretua– arautzen du zein den plangintzak izan beharreko dokumentazioa. Halaber, 40.2. artikulua ezartzen du plangintzaren hirigintza arauak, hiri lurrari dagokionez, eraikuntzari eta lurzoruaren erabilerari buruzko ordenantzen izaera izango dutela eta zehaztasunez arautuko dutela zeintzuk izango diren eraikuntzaren baldintzak eta ezaugarriak.

Eraikuntzari eta lurzoruaren erabilerari buruzko ordenantza hauek, besteak beste, zehatz-mehatz arautu ohi dute zeintzuk diren eraikinetako kanpoaldeko tratamenduak, zelan margotu behar diren fatxadak, zeintzuk diren aprobetxamenduak zenbatzeko moduak, noiz eskatu behar den ezinbestean lizentzia eta zeintzuk diren tramitazioarako behar den dokumentazio teknikoa, bai eta zeintzuk diren eraikinean jarduketaren bat egitean bete beharreko beharkizun teknikoak ere.

Edozein kasutan ere, erregulazio honek etorkizuneko jarduketari ere erantzuna ematen die, baina, orokorrean, ez du alde aurretiko eraikinen egoera hobetzeko alternatibarik zehazten, nahiz eta hona hemen deskribaturikoaren moduko errealitateak azaldu; beraz, gai honen inguruan orden pixka bat jartzeko aukera alferrik galtzen da.

Esandakoaren haritik, aukera ezin hobea izan liteke hirigintza plangintza orokorraren berrikuspena edo planaren aldarazpenaren bat aprobetxatzea, gai hauek aztertzei eta konponbidea ematen hasteko erregulazio bat proposatzeko.

Datu zehatzik ez badaukagu ere, udal batzuek gai honen inguruko erregulazio zehatzak sartu dituzte euren arau urbanistikoetan; hala eta guztiz ere, egoera hori hedatu eta aplikatu beharko litzateke deskribaturiko problematika hau duten udalerririk guztiei.

Hirigintza plangintza orokorraren eraikuntza ordenantzak gai hau arautzeko lanabes egokitzat jotzen ditugun arren, beharrezko arautze lana bete lezaketen bestelako tresnak ere egon litezke, tramitazio urbanistikoaren beharrik gabe. Hautatzen den lanabesa hautatzen dela ere, kontuan hartu behar izango da zein izango den lortu nahi den arautzearen xedea; gainera, gogoan eduki beharko da ordenantza horiek ezin zaizkiela hirigintza plangintzaren arauak edota, hala denean, hirigintza plangintzako arau subsidiarioei kontrajarri.

Beste alde batetik, orain arteko jardun desegokiak eta arazo honen aspaldikotasuna aintzakotzat hartuta, mota honetako erregulazio bat tramitzeko, ukitutakoen partaidetza zabala (jabeen erkidegoak, finken administratzaileak, instalatzaileak eta hornitzaileak) sustatu behar delakoan gaude.

Laburbilduz, garrantzitsua izango litzateke, gai hau arau dezaketen arauak benetan betearazteko, jendaurreko eztabaida zabala bultzatzea ez-legezko instalazio hauek sorrarazten dituzten ondorioen inguruan eta herritarrei udalak aurrera eraman nahi dituen planen berri ematea, betiere auzokideek arautegi berriaren eta berori betetzeko betebeharraren jakinaren gainean egon daitezten.

## GOMENDIOA

Azaldutako guztia ikusita, erakunde honen ustez, udalek euren erregulazio lanabesak erabili behar dituzte egoera honi aurre egiteko; gauzak horrela, eraikuntza ordenantzen bitartez edo egokitzen hartzen dituzten bestelako arauzko lanabesen bitartez gai hau zehatz-mehatz arautu ahal izango dute, behin udalerraren gaineko azterlan zehatza egin eta gero.

Gure iritziz, azterlan hori ondorengo puntu hauen ingurukoa izan liteke:

- Balkoiak ixteko posibilitatea dagoen kasuak mugatzea. Adibidez: eraikin moten arabera, balkoien neurrien arabera, eraikinen antzintasuna kontuan hartuta eta abar.
- Balkoiak ixteko posibilitaterik ez dagoen kasuak zehaztea. Esate baterako, babesturiko eraikinak edo eregi berri diren eraikinak.
- Eraikigarritasunaren aprobeixamendua eta bestelako alternatibak aztertzea.
- Balkoien itxitura egiteko bete beharreko baldintzak. Adibidez, materialak bateratzeko betebeharra, fatxadetako tratamendu estetiko bateratua, baliabide tekniko egokiak egiaztaturiko hegalkinen segurtasuna eta egonkortasuna...
- Itxitura burutzeko jarduketa epeak.
- Jabeen erkidegoaren konpromisoak itxitura moten eta burutzapen epeen inguruan.
- Antolamendutik kanpo dauden itxitura arautzeko posibilitateak.
- Hala badagokio, sustapen neurriak.
- Instalazio berrien ez-legezko itxitura ofizioz kontrolatzeko udal ikuskaritzaren zerbitzuaren jarduketa plana.

## 7. GUTXIENEO DIRU-SARRERAK FROGATU BEHAR DIRA ALOKAIRUKO ARAUBIDEAN BABESTUTAKO ETXEBIZITZA ESKURATU AHAL IZATEKO

### **Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko baldintzak**

Hiritarrek etxebizitza duina eskuratzea politika ekonomikoaren printzipio nagusia da; baina beti ezin izaten da bete, higiezin merkatuak ezarritako aukerak kontuan hartuta. Botere publikoek erantzuna eman nahi diete behar adinako ahalmen ekonomikoa ez izateagatik etxebizitzaren merkatu librean eskatzen diren prezio altuak ezin ordaindu dituzten kolektiboei. Etxebizitzaren arloko administrazio publikoek diseinatu duten mekanismo nagusia babespeko etxebizitzaren merkatu alternatiboa ezartzea da; merkatu horretan gehieneko salmenta-prezioak edo errentak ezarrita daude. Esku-hartzeko horien eraginkortasuna bermatzeko eta sektore honetan esfortzu publikoak behar bezala kontrolatzeko xedez, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko zenbait beharkizun ezartzen zaizkie erosleei.

Ildo horretatik, administrazioek politika publiko horien xede izango diren hiritarren eremu sozio-ekonomikoa ezarri dute. Horrela, babestutako etxebizitzaren eskatzaileek alde batetik etxebizitza behar dutela eta, bestetik, bi beharkizun ekonomiko betetzen dituztela frogatu behar dute:

- Jabetzan etxebizitzarik ez izatea edo, tasaturiko zenbait kasutan, norberarena ezin erabili izatea.
- Famili unitateko kideek frogatu behar dute beren diru-sarrerak etxebizitza beren bitartekoez eskuratzeko aukera ematen dien errenta jakin batetik gorakoak ez direla. Azkenik, esanguratsua da betidanik eskatu izan zaiela gutxieneko diru-sarrerak frogatzeko, babestutako errenta edo prezioa duten etxebizitzaren sustapenetan parte hartu nahi dutenei.

Azken beharkizun ekonomiko hori zalantzan jarri dute gutxieneko sarrerarik ez izateagatik babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetatik baztertua geratu diren pertsonak. Izan ere, hasiera batean, etxebizitza duina eskuratzeko zailtasunak zituzten pertsonentzat erreserbatuak zeuden horrelako etxebizitzak. Paradoxa are handiagoa da alokairuko araubidea duten babespeko etxebizitzaren kasuan: beroriek eskuratzeko eduki behar diren diru-sarrerak askoz txikiagoak dira.

Gutxieneko diru-sarrerak eskatzeko azaldu den argudio nagusia hau da: ordaindu beharreko kopuruak ordain daitezkeen bermatu behar da. Horrela, ondorio horietarako eskatzailearen kaudimena egiaztatuz gero, botere publikoek laguntza publikoen eraginkortasuna eta gardentasuna kontrolatu ahal dituzte.

Alabaina, gure iritziz, zalantzan jar daiteke ea babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko egungo ereduaren bitartez eskuratzailen kaudimena bermatu ahal den gutxieneko diru-sarrerak izatea eskaturik. Izan ere, kontuan hartu behar dugu diru-sarrerak egiaztatzen diren unetik kontratua sinatu arte igarotzen den denbora. Beste alde batetik, gutxieneko sarrerak egiaztatzeko erabiltzen diren formulak, funtsean, eskatzaileak bere lanetik lortzen dituen errentak ditu oinarri, eta ez beste diru-sarrera batzuk, eskatzailearen funtsak edo bestelako berme-sistemak. Azkenik, arautegiak berak kolektibo jakin

batzuei beharkizun hori kentzeko aukera aurreikusten du, talde horiei babes ofizialeko etxebizitza eskuratzen laguntzeko asmoz, haien kaudimena kontuan hartu gabe.

Bereziki zaila da betebeharrak hori orokortzea, eskaintzen den etxebizitza alokairuko araubidekoa bada eta hileroko errenta ordaindu behar izaten bada. Horrelakoetan, eskatzailearen kaudimenaren bermea eta errentatzailearekin duen konpromisoa ez dira erosten diren etxebizitzaren gaineko hipoteka-bermeak bezalakoak.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek alokairuko etxebizitza eskuratzen den kasuetan kaudimena egiaztatzeko beste bide batzuk aztertu ditu.

### **Kaudimenaren berme gisa errentariari gutxieneko diru-sarrerak frogatzea eskatzearen ondorioak**

Zehaztu behar dugu euskal administrazio publikoek badutela eskumena beren etxebizitza politikak finkatu eta garatzeko, antolamendurako bitartekoetan -Etxebizitza Plan Zuzentzailea- edo bestelako arautegian ezarritako lehentasunen arabera, bai eta politika horiek gauzatzeko ere. Arartekoaren egitekoa Administrazioari gomendioak egitea da bere jardunaren eraginkortasuna eta objektibotasuna hobetzeko.

Gauzak horrela, gomendio honen helburua honako hau da: babes ofizialeko etxebizitzak eta, zehazki, alokairuko etxebizitzak eskuratzeak gutxieneko diru-sarrerak frogatzeko arauzko eskakizun horren eraginkortasuna aztertzea.

Alokairuaren araubidea duten babes ofizialeko etxebizitzaren merkatua sortzea administrazio publikoek talderik baztertuenean beharrezko aurrerapenak egiteko ezarritako funtsezko helburuetakoa da. Beste alde batetik, kontuan hartu behar da alokairuaren araubidea duten babespeko etxebizitzaren eskatzaileek kaudimena eduki behar izatea bat ote datoren eskatzailearen egokitasuna egiaztatzeko metodoarekin. Modu berean, arau orokor horretan badaude salbuespenak, edo, are gehiago, bermetzat balio izan ahal duten beste mekanismo batzuk, kontuan hartzen direnak edo ezarri behar direnak.

\* Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen lege markoan, alokairuaren araubidea duten etxebizitza babestuen eskuratzeko gutxieneko diru-sarrerak eskatzea babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitzaren eta lurzoruen arloko finantza-neurriari buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuan bilduta dago. Xedapen horretako 18.2. artikuluan ezarritakoari jarraiki, urtean 3.000 euroko diru-sarrerak dituztela frogatzen duten pertsonak sartu ahal dira, erosteko aukerarik gabe, alokairuko etxebizitza babestuen sustapenetan. Arautegiaren bitartez, mugikortasun urriaren ziozko ezgaitasuna duten pertsonak bakarrik salbuesti ahal dira beharkizun horretatik, 290/2003 Dekretuak egindako aldaketaren ostean.

Ildo horretatik, gutxieneko diru-sarrerak konputatzeko, lanaren etekintzat hartzen dira jarduera ekonomikoaren, lanbide jardueren eta arte jardueren etekinak, baita oinarrizko errentaren edo gizarte larrialdietarako laguntzen bitartez jasotzen diren gizarte errentak eta bekak ere.

\* Gobernu Kontseiluak 2002ko azaroaren 5eko bileran onetsitako 2002 eta 2005 bitarteko Etxebizitza Plan Zuzentzailean ezarritako jardun-lerroen barruan, esanguratsua da alokairua jabetzako egoitzaren alternatiba gisa sustatzen duten politikari emandako bultzada.

Alokairuko etxebizitzak sustatuz arreta eman nahi zaie etxebizitza erosteko baliabide nahikorik ez duten talde baztertuen beharriari. Planean aipatutako beste helburu bat etxebizitza babestua behar duten edo ematen zaien pertsonen txandakatzea sustatzea da. Horren oinarri den ideiarri jarraiki, etxebizitzari buruzko politikak giza duintasunerako funtsezko zerbitzua egiten lagundu behar dute, etxebizitza bat erabili eta edukitzeko zerbitzua hain zuzen. Ideiarik zabalduenaren arabera, baina, etxebizitza norberaren ondarrerako jabetzan eskuratu behar den ondasun higiezina da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak dituen datuen arabera (*“EAEko etxebizitza beharriaren eta eskariaren gaineko oinarritzko inkesta”*), 2003an alokairuko etxebizitzaren eskaria (% 3,3) edo zernahi motatako etxebizitzaren eskaria (% 16,8) oso urria zen, erosteko aukeraren aldean (% 79,9). Izan ere, gure kultur ingurunean jabetzako etxebizitza lehenesten da beste aukeren aldean. Gizarte-kultura falta dela eta, etxebizitza babestua ordaintzeko errenta nahikorik ez duten pertsonen eskaria asetzerantz bideratzen da alokairuko etxebizitza, hau da, etxebizitzari buruzko arautegiak etxebizitzaz jabetzeko edo erosteko aukera izanik errentan hartzeko eskatutako gutxieneko diru-sarrerak ez dituztenen eskaria asetzerantz. Gutxieneko diru-sarrera horiek urtean 9.000 eurokoak dira. Hala ere, talde txiki eta aldakor horren barruan badira baztertutik geratzen diren pertsonak ere. Egin-eginean, ez lituzkete iritsiko babes ofizialeko etxebizitza alokatzeko gutxieneko diru-sarrerak ere: urtean 3.000 euro, etxebizitzari buruzko arautegian finkaturikoarekin bat etorririk. Aipatu inkestako datuen arabera, 2002ko hirugarren hiruhilekoan, alokairuko etxebizitza eskuratzeko sarrera nahikorik ez zuen taldea ez zen handia (etxebizitza lehen aldiz eskuratzeko eskatu zutenentatik ehuneko 2,4k eta etxebizitzaz aldatu behar zuten eskatzaileetatik ehuneko 3,1ek ez zituzten hileko 390ko euroko diru-sarrerak), baina gizartean oso garrantzitsua zen, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituen taldea baitzen. Etxebizitza lehen aldiz eskuratzeari dagokionez, etxebizitza-eskatzaileen talde osoaren gizarte- eta egoitza-ezaugarrien artean haien gaztetasuna -24 urtetik beherakoak ehuneko 30 dira- eta kolokako lana -ehuneko 40k aldi baterako lan kontratua dute- nabarmentzen dira.

Bistan denez, urtean 3.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten eskatzaile horiek, baliabide ekonomiko nahikorik ez duten arren, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko aukera izan behar dute. Alokairuko etxebizitzak izaera estrategikoa du, hain zuzen ere, langabezian dauden edo enplegu urria eta ezegonkorra duten taldeentzat, emantzipatzeko adina duten gazteentzat eta, orokorrean, diru-sarrera txikiak dituzten familientzat. Izan ere, horiek guztiek merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasun bereziak dituzte.

- \* Nolanahi ere, diru-sarrerak frogatzeko egungo sistemaren bitartez ezin da egiaztatu oraintsuko diru-sarreraren lorpena. Izan ere, sistema horretan eskatzaileen kaudimena neurtzeko oinarritzat kontuan hartzen dira errentamendu kontratua egin aurretik lorturiko diru-sarrerak. 315/2002 Dekretuko 21. artikulua kontuan hartzen ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epea mugaeguneratuta, errentamendu-kontratua oniritzeko edo hura gauzatzeko aurkezten den dataren aurrekoa den urteko zergaldiko datuak. Hau

da, datuok, orokorrean, ez dituzte oinarritzat hartzen kontratua sinatzeko orduan lortzen diren sarrerak, baizik eta aurreko urtekoak. Horrela, gainera, deialdiaren dataren arabera, aitopen berrirako epea berriz ireki arte baliteke beste urteko bat betetzea.

Horregatik, adierazi behar dugu urteko erreferentzia-marko hori aldi baterako kontratuak dituzten eta diru-sarrera irregularrak edo noizbehinkakoak lortzen dituzten pertsonak edo gazteak ustezko kaudimengabeziagatik baztertzeo lagungarria dela, nahiz eta, beharbada, adjudikazioa egiten den edo sinadura jartzen den unean, hileko diru-sarrerak nahikoak izan alokairuko etxebizitza eskuratzeko.

- \* Are gehiago, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gizarte prestazioengatik jasotzen diren kopuruak diru-sarreratzat hartzeko aukera aintzat hartu du. Gizarte laguntzarako egungo sistema publikoak oinarritzko errentarekin eta gizarte larrialdietarako laguntzekin (GLLekin) eskaintzen duen bermea zabalik dago Gizarte Bazterketaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean eta Gizarte Eskubi-deen gaineko Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legean sarturiko beharkizunak betetzen dituzten errentarik gabeko pertsonentzat. Haiek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko gutxieneko diru-sarreratzat hartzeak alokairuko etxebizitzetarako eskakizun hori berriz egokitzeko balio izan beharko luke.

Beste iturri batzuen bidez errenta nahikorik lortzen ez duten eta arautegiko eskaerak betetzen dituzten bizikidetasun-unitate ekonomiko lokabeek oinarritzko errenta eskuratu ahaliko dute, baita, hala dagokienez, GLLak ere, “alokairu gastuen” atala barnean hartzen baitute. Azken laguntza horiei dagokienez, berorien zenbatekoa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak alokairuko gizarte etxebizitza eskuratzeko gutxieneko diru-sarrera bezala eskaturiko kopurua baino handiagoa izan daiteke, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2004ko martxoaren 10eko Aginduaren 2.1.a) artikulua arabera.

- \* Amaitzeko, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legean alokairuko etxebizitzari buruz ezarritako lege araubidea aipatu behar dugu. Arau horren bitartez bermatu ahal da errentariaren betebeharrak betetzeko sistema, diruzko fidantza edo berme osagarriak eskatuz. Azken batean, errentariak ordaindu beharrekoa ez ordaintzea eta kontratuzko harremanetik sortutako betebeharrak ez betetzea saihesteko hainbat mekanismo aurreikusi eta ezarri dira.

## Gomendioa

Aurreko iritziak ikusita, uste dugu alokairuko araubidea duten babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko gutxieneko diru-sarrerak aurretik frogatzea beharrezkoa ez dela uste izateko nahiko arrazoi badagoela, kontratuzko betebeharrak betetzea bermatzeko beste mekanismo batzuen kalterik gabe. Horregatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, ildo horretatik, babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araubideari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuko 18.2. artikuluan horri buruz ezarritakoa aldatu beharko luke. Nolanahi ere den, errentariaren kaudimena errentamendu kontratua sinatzen den unean eskatu behar litzateke.



VII. ATALA

**ONDORIOAK.**  
**ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK**





Otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikulua, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko egina bera, honako hau erabakitzen du: *“Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio”*.

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta euskal erakunde publikoek hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da, hau da, Autonomia Erkidegoko Administrazio nagusiak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki-Administrazioak erakusten duten errespetua.

2004. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan-esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Kapitulu honetan egiten den balorazioak, ordea, euskal autonomia erkidegoko administrazioen jarduerak eta jardura horretan izan litekeen eskubide-urratzea ditu hizpide.

Kapitulua konstituzioaren testuaren lehenengo goiburuan bildutako eskubideen azterketan oinarrituz egituratzen da, horien defentsa esleitzen baitzaio Ararteko erakundea araupetzen duen Legearen 1.1. artikuluan.

Kapitulu honetan egindako balorazioaz gain, txosten honetako II. Kapitulua hitzaurreetako bakoitzean administrazioaren jardueraren esparru desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura xehatuta aztertzen dira.

Lehenengo hurbilketa batean, Ararteko erakundean eta Estatuko gainerako parlamentuaren mandatarien txostenetan konstantea da Espainiako Konstituzioaren I. Goiburuaren bigarren kapituluko lehenengo atalean sartutako eskubideren baten balizko urraketan gainera kexak oso gutxi direlako aipamena, hau da, oinarritzko eskubide eta askatasun publiko deritzenenak. 2004an ere hala izan da.

Arestian esandakoaren frogaren gisa, aurkeztutako kexarik gehienak gizarte eskubide deritzanen ondorioz jarri dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua ez betetzea gerta litekeelako kasuen ondorioz ere –artikulu horretan administrazio publikoei eraginkortasunaren printzipioari adituz eta legearen eta zuzenbidearen erabat mende, interes orokorreki objektibotasunez zerbitzatuz jokatzea ezartzen zaie–.

## 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

### • Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua

*“Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako diskriminazioa ezin da nagusi izan.”*

Asko dira zuzenean zein zeharka berdintasun printzipioaren balizko urratzearekin zerikusirik izan lezaketen kexak.

Erakunde hau, bere esku hartzeetan, konstituzioaren testuan mugatutako zioetako edozeinengatik baztertzaila den herri botereen jarduerarik gerta ez dadin saiatu da.

Zehaztu behar dugu sarritan berdintasun printzipioa urratzea beste eskubideetako edozeinekin lotu behar dela eta, horregatik, kasu horiez egiten den azterketan, batzuetan, printzipio hori ere hizpide izaten da.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako eskubidea aztertzerakoan, lehenengo eta behin, txosten hau itxi aurretik onetsi diren bi arau garrantzitsu aipatu behar ditugu:

Diputatuen Kongresuan, 2004ko abenduan, aho batez onetsi zen genero-indarkeriaren aurkako babes neurri integralei buruzko Lege Organikoa. Beste alde batetik, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Legea onetsi da EAEn.

Lege horietariko lehenengoa emakumeen kontrako indarkeriaz ari da, biktimarekin maitasun harremanak dituen edo izan dituen gizonarengandik datorren indarkeriaz alegia. Oso zaila da horrelako indarkeria motari aurka egitea.

Lege organiko horretan, gainera, indarkeria sexistari aurrea hartzeko zenbait ekintza diseinatu dira.

Eusko Legebiltzarrean 2005eko otsailaren 18an onetsi den Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Legea ere itxaropen handiz hartu dugu. Bai eremu publikoan bai pribatuan, lege horrek parekotasuna sustatu nahi du eta emakumezkoek jasaten dituzten bereizkeriak ezabatu.

Bereizkeriaren agerpenik muturrekoena indarkeria sexista da; arazo horri dagokionez, legeak pertsona guztien arteko berdintasun egiazko eta eragingarriaren sustapen orokorra aldarrikatzen du.

Beste behin ere, Irungo eta Hondarribiko alardeetan emakumezkoek jasaten duten bereizkeria aipatu beharrean gaude.

Herri horietako udal agintarien jokaera bidegabekoa da, ez baitute betetzen benetako eta egiazko berdintasuna sustatu eta hura eragozten duten oztupoak kentzeko betebeharra.

Beste alor bati helduta, esan genezake, oro har, espetxean dauden emakumeek euren kide gizonzkoek baino bizimodu txarragoa dutela. Brievako (Avila) espetxean dauden emakume batzuek ematen zaien arreta ginekologikoaren akats larriak salatu dituzte; bestalde, ez omen dute behar bezalako informazio eta heziketarik jasotzen sexu osasunaren eta antisorkuntzaren alorretan.

Egia esan, espetxean dauden emakumeek bereizkeria mota bi jasaten dituzte. Preso guztiak kalteberak dira, eta are gehiago emakumezkoak. Aurreko aldietan ere, gehienetan EAeko espetxez ari ginela, agerian jarri izan ditugu desberdintasun asko –beti ere emakumeen kalterakoak–, batez ere egoitzen eta azpiegituren ingurukoak (emakumeek ez zuten erizaindegirik, gimnasia, erregimen irekiko modulurik...). Bereizkeria azpimarratu izan dugu amentzako unitaterik ez dagoela; horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden emakumeek ezin dituzte ondoan eduki hiru urtetik beherako seme-alabak. Eta hutsune horiei beste batzuk gehitu behar zaizkie; esate baterako, emakumezkoek zailtasun handiagoak izaten dituztela ordaindutako lana lortzeko edo prestakuntza jarduerak eta abarrekoak egin ahal izateko. Azken batean, ez da ahaztu behar bazterketa-faktore desberdinek bat egiten dutenean biderkatu egiten direla

bereizkeriazko ondorioak. Faktore horietariko bat generoa da, baina sarritan beste batzuk izaten ditu lagun: espetxean egotea, atzerritarra izatea, txirotasuna, ezgaitasuna...

Kexa bitxi bat jaso da: emakumezkoei ukatu egin zitzaizen peoi lanpostu bat lortzeko aukera eta garbitzaile izateko lanpostuak bakarrik gorde ziren haientzat. Horrek erakusten digu oraindik ere batzuek ikuspegi sexistak hartzen dituztela lanpostuetako zereginak banatzeko orduan.

Atzerritarren kexak ere jaso ditugu, arraza dela-eta jasandako bereizkeria salatzen dutenak.

Bereizkeria horietariko asko eremu pribatuan gertatzen dira. Izan ere, esparru horretan jende askok jarrera guztiz xenofoboak ditu.

Ildo horretan behar-beharrezkoa da biztanle atzerritarren irudi okerra ematen duten estereotipoak deuseztatzea. Askotan, estereotipo horiek atzerritarren irudia delitugintzarekin lotzen dute.

Horregatik gomendio orokor hau egin dugu: EAEko administrazioen menpeko polizi kidegoei jokaera-kodeak ezarri behar zaizkie, etorkinei buruz ematen duten informazioa egoki tratatzeko.

Txostenaren beste atal batean, atzerritarrek osasun sistemara jotzeko orduan bereizkeriarik ez jasatea guztiz garrantzitsua dela azpimarratu zen.

Bestalde, ezgaituek ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte gainerako biztanleekin izateko berdintasuna lortzeko orduan, bai lan merkatura sartzeko, bai eguneroko bizi-tzan, kasu askotan garraibiderik erabiltzerik ez dutelako, edo hirigintzako eta arkitek-turako oztopo ugari daudelako.

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

### 2.1. BIZITZEKO ETA OSOTASUN FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

#### • Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua

*“Guztiek dute bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarriarik jaso gabe. Indarrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”*

Ararteko erakundeak herri botereek herritarren bizitza eta osotasun fisikoaren eskubideak zorrotz errespetatu dituzten zaindu behar du.

ETA erakunde terroristak eskubide horiek sistematikoki urratzen dituela ere salatu behar dugu.

Zorionez, 2004. urtetik ETA erakunde terroristak ez du hildakoak eragin dituen atentaturik egin. Hala ere, oraindik asko dira bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxuaren pean dauden euskal herritarrak.

Egoera horrek bere horretan dirauen bitartean, Ararteko erakundeak bere idatzi ofizial guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren

3. artikulua testua ipintzen jarraituko du “*Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea*”, ETAriz EZ leloarekin batera.

Arestian esan dugu emakumeen kontrako indarkeriak bizitzarako eta osotasun pertsonalerako eskubidearen urratze larrietarikoa izaten segitzen duela. Erakunde bermatzaile honek derrigorrez eman behar dio erantzuna.

Agintari publikoen erantzuna egokia izan behar da tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen beharrezkoetarako. Hori funtsezkoa da, baina berriz esan behar dugu pertsona guztien arteko benetako berdintasunak bakarrik ekarriko duela genero indarkeriaren amaiera.

2004. urtean Legebiltzarrean aurkeztu dugu EAEko erakundeek emakumeen kontrako indarkeriari ematen dioten erantzunaren gaineko txostena.

2004an poliziak “lege antiterrorista” delakoaren pean egindako atxilotetetan tratu txar eta torturak izan direlako salaketa batzuk jaso ditugu.

Azpimarratu behar dugu erakunde honek gai horretan egindako jarduerak batez ere prebentziora bideratu direla beti.

Gogorarazi behar dugu, halaber, epaile batek eman duela baimena atxilotetak egiteko eta atxilotuak inkomunikatu eta giltzapetzeko. Epaile horri dagokio atxilotuen eskubideak zaintzea zigor prozedura osoan zehar. Epai-agintaritzak bakarrik du ahalmena lege-urrazterik egin ote den ikertzeko eta, hala izan bada, zigor arloko erantzukizunak zehazteko.

Arrazoi horrengatik, torturak eta tratu txarrak salatzen direnean erakunde honen eginkizuna ez da inola ere kasuak banan-banan ikertzeko; aitzitik, gure esku-hartzearen helburuak prebentzioa eta poliziaren jardunaren etengabeko gainbegiraketa dira. Horrela kontrol mekanismoak ezar daitezke legez kontrako jokaerak eragozteko eta, ekintza burututa badago, hura agerian jarri eta errudunak zigortzeko.

Tortura giza eskubideen urratze larrietarikoa da; hori dela eta, Arartekoaren erakundea beti ahalegindu da pertsona guztien osotasun fisiko eta morala bermatzen: zigorraren beldurrik gabe bidegabekeriak egiteko aukera eman dezaketenaldi eta leku ilunak argitzeko neurriak proposatu izan ditu.

Bide horretan, Arartekoak abenduaren 21ean agiri bat aurkeztu zuen: Arartekoaren erakundearen deklarazioa torturari buruz. Agiri horretan torturari aurrea hartzeko eta hura ezabatzeko hainbat neurri azaldu ziren.

Prebentzioaren bidean aurrera egiteko eskura dauden tresnen artean honakoak azpimarratu daitezke:

- Gaur egungo inkomunikazio erregimena kentzea.
- Atxiloaldian grabazioak egitea.
- Atxilotuei azterketa medikoak egitea.
- Poliziako agenteei prestakuntza eta gidalerro garbiak ematea torturaren inguruan.

Joan den urteko berrikuntza nagusietariko bat, ildo horretan, *Inkomunikaturik dauden atxilotuentzako laguntza koordinatzeko Protokoloa eta Inkomunikaturik dauden atxilotuen familiei laguntzeko Zerbitzua* abian jartzea izan da.

Erakunde honek behinola guztiz onuragarritzat jo zuen zenbait erakunde (Ertzaintza, Osakidetzak eta EAEko Auzitegi Medikuntzako Erakundea) koordinatzeko ahalegina. Beste alde batetik, beti uste izan dugu azterketa medikoak atxilotuen eskubideak bermatzeko bitartekoak direla.

Arestian aipatutako protokolo horrek dioenez, epaitegiko medikuak atxilotuari azterketa egin behar dio “*atxilotua polizi etxean sartu aurretik*”.

Atxiloaldia amaitzen denerako ere antzeko araua ezarri da protokoloan. Gainera epaitegiko medikuak, egokitzen jotzen badu, “*erreferentziako osasun etxeetan*” atxilotuari “*arreta*” eman behar zaiola adieraziko dio agintaritza judizialari, hori egiteko agindua eman dezan.

Bistan denez, neurri hori eta protokoloan ezarritako beste batzuk modu arautuan aplikatzen direnean bermeak hobetu egingo dira, baina are gehiago hobetuko lirateke atxilotua ospitalera eramango balute eta, zer esanik ez, bere konfiantzako mediku batek artatuko balu. Beste alde batetik, nabarmendu egin behar da –orain arte aztertutako kasuak ikusirik– polizi etxeetatik kanpo atxiloaldiaren hasieran eta amaieran azterketa mediko horiek egitea ez dela ohitura orokorra; sarriago egiten dira azterketak polizi etxean bertan, batez ere atxiloaldiaren amaieran. Halaber kontuan hartu behar da –espe-rirentziari eta profesionalen iritzari jaramon eginez gero– azterketa medikoek badituztela mugak eta nekez argitu dezaketela Ertzaintzari kasu hauetan egotzi zaizkien praktika batzuk benetan egin diren ala ez (esate baterako, lo egiten ez uztea, edo mehatxuak, irainak eta atxilotuei presio psikologikoa egiteko beste bide batzuk).

Bestalde, gogoratu behar dugu 1999an Ararteko erakundeak Herrizaingo Sailari, prebentziorako asmoz, ziegen eremuan korridoreetan jarritako kameraren bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol sistema ipin zezan gomendatu ziola, atxilotutako pertsonen eskubideak bermatzeko neurri gisa.

Ertzaintzaren atxilotegietara aldi-aldi egiten ditugun bisitetan ikusi dugunez, sistema instalatuta dago eta, oro har, erabili egiten da. Dagoeneko atxiloketen inguruko zenbait gorabehera eta auzitegian jarritako salaketa batzuk argitzeko balio izan du. Alabaina, azpimarratu behar da ertzain etxe batzuetan –horietan atxilotuak inkomunikatuta eduki dituzte– ziegak bi aldetan banatuta daudela, bien artean inolako loturarik ez dagoelarik, eta grabazioak egiteko sistema alde horietariko batean bakarrik dagoela instalaturik eta erabilgarri; hain zuzen ere, gutxien erabiltzen den aldean, hots, Trafiko Unitateari dagozkion ziegetan. Zalantzarik gabe, jokabide horrek prebentziorako eraginkortasuna kentzen dio proposaturiko sistemari. Beraz, ondorioztatu behar dugu oraindik ez dela bete 81/1999 Gomendioa, atxilotze zentroetan grabazio-kameraren bidezko kontrol sistema ezartzea aholkatu baikenuen gomendio horretan.

Gomendio hori zorrotz aplikatuko balitz, gure ustez, urrats erabakigarria egingo litzateke torturari aurrea hartu eta hura ezabatzeko bidean. Behin emaitzak aztertu eta gero, sistema hori beste polizi kidego batzuen atxiloketetarako ere erabil liteke. Berriz ohartarazi behar dugu, bestalde, mekanismo honek bi helburutarako erabil daitekeela, behar adinako bermekin instalatzen baldin bada: alde batetik atxilotuen eskubideak zaintzeko, eta bestetik polizi agenteen eskubideak babesteko haien kontra funtsik gabeko kezak edo salaketak jartzen badira. Dena dela, gure iritziz, atxiloaldi osoan zehar kontrol etengabea eta osoa bermatuko duen sistema behar da.

## 2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEAK. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua

“1. *Pertsona guztiak dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulua honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.*

2. *Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritzaz judizialaren eskuetan uzteko askatuko da*
3. *Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxiloketaren arazoak, eta ezin dira aitor-tzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio dilijentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.*
4. *‘Habeas corpus’ prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko.”*

Esan dugunez, polizien atxiloketetan legezkotasunaren errespetuaren kontrola batez ere zigor instrukzioaz arduratzen diren erakunde judizialen esku dago. Hala ere, legeak gure erakundeari esleitzen dion herritarren eskubideen defentsaren betekizunak atxiloketak zein baldintzatan garatzen den bereziki aditzera behartzen gaitu.

Gorputz araketaren dilijentzia egiteari dagokionez, erakunde honek gomendio orokorra emana zeukan horren gainean –2001eko txostenean–, baita gomendio zehatzak ere udaltzaingo desberdinen eta Ertzaintzaren jardueren gainean, segitzen du kexa gai izaten, halakorik egin beharra eta neurriaren egokitasun edo proportzionaltasuna frogatu ez deneko arrazoirik gabeko biluzarazteak salatzen baitira.

Horrela, poliziek Bilboko San Frantzisko auzoan atzerritarrekin nola jokatzeko duten kexa gai izan da aurreko ere.

2003ko Txostenean jaso genituen kexetariko batean, herritar batek salatu zuen bi agente ikusi zituela gizon bat atari batean sartzen, eta, etorkinek berari esandakoaren arabera, poliziek araketak eta gorputz-miaketak egin ohi zizkietela atari barruetan.

Herrizaingo Sailak adierazi zigun gertaera horiek zigor arloko epaitegietara eraman zirela eta kausa behin-behinean artxibatuta zegoela, egileak ezezagunak izateagatik.

Auzibidea berriz ireki zenean absoluzio-epaia eman zen, ahozko epaiketan erreklamatzailak akusazioa bertan behera utzi zuelako.

Badira larritasun bereziko beste gorabehera batzuk (esate baterako, identifikazioa egiteko modua, interesatuari egindako araketa, gorputz-miaketa eta haren gauzen kontrola; eta halaber, esku-hartzea agiri bidez erregistratu ez izana) auzitara eraman ez zirenak, eta horiek Herrizaingo Sailak berak ikertu behar izan zituen.

Bestalde, Erandioko Ertzain Etxera egindako bisitan ikusi dugunez, bertan ez dago adingabeak atxilotuta edukitzeko egokitutako leku berezirik, helduentzako ziegetatik aparte, legeak hala agintzen badu ere.

### 2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua**

*“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia izateko eskubidea bermatzen da.”*

Herritarrek gero eta ozenago eskatzen dute administrazioek erabiltzen dituzten datu pertsonalen babeserako eta intimitaterako eskubidea bermatu dadila. Zentzuzkoa

da datuak isilpean eduki daitezela eskatzea, asko eta asko direlako datu pertsonalak dituzten fitxategiak. Berdin da tresna informatikoekin lantzen diren datuak edo babes bereziko datuen multzoan sailkatutakoak izan nahiz ez.

Administrazio publikoek beren informazio sistemak isilekotasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri ez eze, datuen tratamenduko zerbitzuetan hirugarrenek ere esku har lezaketela ere kontuan hartu behar dute.

Zenbaitetan, datuak babesteko arategiaren ustezko aplikazioa aitzakiatzat erabili da interesatuari aditzera ez emateko zergatik hartu den administrazio-erabakiren bat edota zeintzuk izan diren erabaki horren oinarri juridikoak.

Hala, Herrizaingo Sailak, pertsona bati poliziaren egoitzan sartzeko ezarritako debekua justifikatzeko, Herrizaingo sailburuaren agindu baten bidez araututako polizi fitxategietan ageri ziren oharra aipatu zituen.

Kasu horretan argi dago administrazio-ebazpen bat arrazoitu gabe eman zela. Ez zen inoiz azaldu zergatik sailburuaren aginduak araututako 50 polizi fitxategietako batean (askotariko fitxategiak dira) ipinitako ohar batek, besterik gabe, poliziaren egoitzan sartzeko debekua ekar zezakeen.

Gorputz-miaketa egitea, lehenago esan dugunez, oraindik ere ohitura da udaltzainek eta ertzainek egiten dituzten atxiloketetan; bereziki, atxilotua atzerritarra denean eta drogarekin trafikatzeko leporatzen zaionean.

Askotan intimitaterako eskubidea eta osotasun moralerako eskubidea, biak ukitzen dira. Horrelako ondorioak bidezkoak izan daitezten, kasu bakoitzaren inguruabarrek justifikatu behar dute halako neurriaren beharrezan, lortu nahi den legezko xederako egokitasuna eta xedearren eta ukitutako pertsonaren inguru juridikoan eragindako kaltearen arteko proportzionaltasuna.

Intimitaterako eskubideari buruzko ikuspegi berria sortu da. Hala, epaileen adierazpen batzuetan, norberaren etxean kanpotiko zaratak sortzen dituen eragozpenek intimitaterako eta etxearen bortxaezintasunerako eskubidea, besteak beste, urratzen dituztela baieztatu izan da.

## 2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA

### • Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua

*“Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.”*

Erakunde honek ahaleginak egiten ditu EAEko administrazio publikoek berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak errespetatu dituzten, baita publikitatearen printzipioa ere. Konstituzioak hala aginduta, printzipio horiek eraendu behar dute lanpostu publikoetarako sarrera.

2004. urtean erakunde honen esku-hartzea eskatu da arlo horretako hainbat auzitarako, eta auzi bereziki eztabaidatsuak izan dira.

Lehendabizi aipa dezagun Gasteizko Udalaren haur eskolen inguruan sortutako gatazka. Gure esku-hartzeari amaiera emateko, gomendioa eman genuen eta bertan eskatu genuen berriz azter zitezela eskola horietako lanpostuen zerrenden egitura berriari



buruz hartutako erabakiak; izan ere, gure iritziz, ez ziren bete formazko betekizunak, aurrekontu-tratamenduari eta langileen ordezkarietako negoziazioari zegokienez. Gomendio horretan, gainera, gogoeta batzuk egin genituen hiru urte arteko umeentzako zerbitzuen antolamenduan parte hartzen duten ekimen publikoen artean dauden desberdintasunei buruz.

Beste alde batetik, derrigorrez aipatu behar dugu irakasleen egonkortasunari buruzko 2004-2006 aldirako akordio berria zela-eta egindako esku-hartzea. Horri dagokionez, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarengana jo du eta ahalegina egiteko eskatu dio bitarteko langileen ibilbide profesionala eten ez dadin. Gutxienez ere, beste irtenbide batzuk ukatu gabe, aukera guztiak agortu behar lirateke irakasle horiek behar adinako hizkuntz gaitasuna lor dezaten eta horretara, denboraren buruan, euren aldi baterako lanpostuak berreskuratu edo finkatzeko bidea izan dezaten.

Aukeraketa prozesuei dagokienez, ekitaldi honetan bereziki eztabaidatua izan da Gasteizko Udalak Udaltzaingoko lanpostuak betetzeko probetarako egin duen deialdia. Erakunde honen ikuspegitik, salatu ziren gorabeheretako bakar batek ere ez zuen aukeraketa prozesuan zehar hartutako erabakien berrikuspena justifikatzeko moduko garrantzirik, batez ere nortasun probei zegokienez. Hala eta guztiz ere, erakunde honek EAEn egiten diren aukeraketa prozesuetan ahalik eta objektibotasun, inpartzialtasun eta gardentasunik handienak lortzen saiatzeko konpromiso etengabeari eutsi nahi dio, lanpostu asko kolokan dauden garai hauetan, bereziki. Hortaz, salatu ziren gorabeherak aurrekari gisa hartu genituen aurrerantzean egingo ziren aukeraketa prozesuetarako iradokizunak eta proposamenak egiteko. Horrela bada, proposamen hauek egin genituen: 1) deialdiaren oinarrien arau-izaera indartzea komeni zela adierazi genuen; horretarako, nortasun proben egiturarekin zerikusia duten alderdi guztiak deialdiaren oinarrietan sartu behar dira, bai eta proba horiek baloratu edo zuzentzeko erabiliko diren irizpideak ere; 2) gainera, adierazi genuen komeni zela horrelako probak, hain garrantzitsu eta erabakigarritzat jotzen direnez gero, aukeraketa prozesuan lehenago egitea; izan ere, haien bitartez ziurtatu behar da hautagaiak lanpostuan behar bezala aritzeko gutxieneko lanbide-profila duela; eta 3) proba horien konfidentzialtasuna ziurtatzeko ahalik eta kontrol gehien egitea gomendatu genuen.

Jakina denez, erakunde honek arreta berezia ematen die ezgaitasuna duten pertsonen lanpostu publikoak lortzeko dituzten aukerei. Ildo horretatik jarraituz, aurreko ofiziozko jarduketa batzuk egin ditugu EAeko administrazio nagusiei zuzenduta. Hain justu ere, jarduketa horien bitartez modu eraginkorrean aztertu nahi izan dugu pertsona horien enplegu publikoaren egoera. Lan horren emaitzen berri jaso dugu txosten honen I. kapituluan.

Aldi berean ofiziozko jarduketa bat egin dugu Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari zuzenduta. Jarduketa horri esker, azkenean ere, ulermen edota adierazmen urriko pertsonentzat eskaintzen diren lanpostuak lortzeko baldintzak aldatzeko konpromiso sendoa hartu da: ezagutza akademikoei buruzko proben ordeztu, lanpostuko zereginetarako gaitasuna neurtzeko probak egiteko mekanismoak ezarriko dira.

Bukatzeko, hizkuntza normalizazioaren arloan egin diguten kontsultaren berri eman nahi dugu. Gaur egun ez dago ukatzerik euskara hizkuntza koofiziala izateagatik sortu diren hizkuntza eskakizunak ondo egokitzen direla Konstituzioan ezarritako merezimendu eta gaitasun printzipioetan. Alabaina, deialdiak egiten dituzten administrazioei ere

ezin zaie ahalmenik ukatu aukeraketa prozesua egokien deritzoten moduan antolatzen saiatzeko, zerbitzu publikoak modu eraginkorragoan antolatu eta egin ahal izan dituzten. Izangaiek betetzen dituzten hizkuntza betekizunen arabera destinoak hautatzea, gure ikuspuntutik, deialdiak egiten dituzten administrazioen esku dagoen erabaki-eremu horretan kokatu behar da hain zuzen ere, eta ez du ezertan ere ukitzen funtzio publikora berdintasun baldintzetan sartzeko eskubidea.

## 2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIPIOA

### • Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua

*“1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.”*

*“2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legegariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, nork bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere. Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean erabakitzeke arauak jarriko ditu legeak.”*

2004. urtean zehar, azken urteetan gertatu den bezala, prozedura judizialen atzerapenekin lotutako kexa gutxi jaso dira. Edozelan ere, justizia-administrazioaren funtzionamendu arruntaren denbora eta epeak luzeegiak direla ikusten da berriz ere hiritarren ikuspuntutik.

Trafiko araudia urratzearen ondoriozko zehapen prozedura baten esparruan postaz bidalitako jakinarazpenek huts egin dutenean, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan aurreikusitako betekizun formalak bete behar dira, defentsarik ezeko egoerak saihesteko.

Egiaztatu dugunez, interesatuari berari jakinarazpena egiteko bigarren ahalegina egiten denean ez da beti egiten beste ordu batean, lehenengo ahalegina egin zen ordu berean baino. Gainera, posta bidezko bigarren jakinarazpen saio horrek ere huts egin badu, ez da beti administrazio-espeditentean agerrarazten hartzailaren postontzian bigarren jakinarazpen saio horren abisua utzi denik.

Beharrezkoa da, halaber, trafikoaren arloko zehapen prozedurak tramitatzen dituzten EAEko administrazioei gogoraraztea kontuan hartu behar dutela zein helbidetan egiten diren jakinarazpenak. Izan ere, askotan egiten da jakinarazpena interesatuaren helbidean barik beste batean. Ondorioz, interesatuak ez daki beraren kontrako prozedura hasi dela eta Administrazioak babesik gabeko egoeran jartzen du.

Zergen alorrean, gogora ekarri behar dira aldian-aldian ordainagiri bidez kobratzen diren zergak ediktuen bitartez jakinarazteak sortzen dituen arazoak. Multzo horretakoak dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Horrek esan nahi du, zergetako jakinarazpenetan indarrean dagoen jakinarazpen adierazi, pertsonal eta banakoaren arau orokorraren aurrean, zerga hauetan lehenengo likidazioa soilik jakinarazi behar zaiola pertsonalki zergadunari, zeren hurrengo urteetan ordainagiriak ediktuen bidez eta kolektiboki jakinarazten baitira.

Azpmarragarriak dira toki administrazio batzuek, Bilboko Udalak eta Gasteizkoak, adibidez, egin dituzten ahaleginak. Hiri horietako biztanleei banan jakinarazten zaizkie urtean zehar ordaindu behar dituzten zergak borondatez ordaintzeko epeak. Ahalegin horri esker, ordainagiri asko premiamendu bidera igaro daitezzen saihestu da eta herri-tarrek ez dute likidazioaren aurka errekurtsioa jartzeko aukera galtzen, lehen bezala.

## 2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua

*“Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarritzko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere.”*

Ararteko erakundeak duela urte batzuetatik hona salatu ditu Euskadin kokatutako hiru presondegietako egiturazko hutsuneak, eta Konstituzioaren aginduak esaten duena betetzeko oztopoak dira hutsune horiek, hau da askatasuna kentzen duten penek lortu behar duten heziketa eta birgizarteratzearen kontrako oztopoak.

2004. urtean ere terrorismo delituengatik preso dauden pertsonen egoerari buruzko kexak aurkeztu dira. Zenbait kartzelatan presoek dituzten bizi-baldintza txarrak, familia-rengandik urrundu izana eta kondenaren hiru laurdenak betetakoan espetxean jarraitzea izan dira kexa horien arrazoiak. Horrelako kexak Herriaren Defendatzaileari igortzen zaizkio, berak daukalako tramitatzeko eskumena.

Preso-talde horren aldeko elkarteek urte honetan azaldu dituzten arazo nagusiak, goian aipatutakoez gainera, hauexek dira:

- Martxoaren 11ko atentatuaren ostean zenbait lekutan hartu ziren neurriak: graduan atzera egitea, bakartzea, urruntzea, bisitetarako oztopoak jartzea.
- Urruntze politika eta horren ondorioak: oinaze erantsia, senideen trafikoko istripuak, familiako eta gizarteko harremanei eusteko oztopoak, kostu ekonomikoa.
- Euskaraz edo EHUUn ikasketak egiteko, materialak jasotzeko edo azterketak egiteko zailtasunak edo ezintasuna.

Presoei ematen zaien osasun arretari buruzko kexak jasotzen dira oraindik ere. Egoera aldatu egiten da espetxe batetik bestera, kasuan kasuko medikuntza-espezialitatearen arabera eta beste inguruabar batzuen arabera; nolana ere den, askatasunaz

gabetutako pertsonen osasunaren zaintzak hutsune handiak ditu. Alor honetan diharduten elkarteek bereziki azpimarratu dituzte arreta psikiatrikoaren beharrezana eta mugak, eta espetxeetan jende askok bere buruaz beste egiten duela ohartarazi dute.

Hori horrela, erakunde honek Eusko Jaurlaritzarengana jo du espetxeetako osasunaren arloko eskumenak bere gain hartzeko prest ote dagoen jakiteko –horixe proposatu baita 16/2003 Legean–, baina EAEko administrazioak ez du egokitzat jotzen espetxeen arloko eskumenei lotutako eginkizunetariko batzuk bakarrik onartzea, eta ez denak.

Beste alde batetik, guztiz garrantzitsua da espetxeratuekiko gizarte-konpromisoa. Horregatik kezagarria da ikustea nola Txagorritxuko Ospitalean poliziaren zaintzapean dagoen unitatean boluntarioei egun eta ordu mugatuak ezarri zaizkien bertara bisitak egiteko. Oraintxe arratsaldez baino ezin dira joan, eta goizez bisitak egitea debekaturik dute.

Espetxeei buruzko Legeak eta askatasunaz gabetutako pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko testuek goraipatu eta sustatu egiten dituzte presoak gizarteratzen lagundu nahi duten elkarten lankidetzak. Horregatik, erakundeek haien lana errespetatu ez ezik, zalantzarik gabe erraztu beharko lukete.

Arazoak sortu dira presoak Langraizko espetxetik Bizkaiko auzitegietara Ertzaintzaren zaintzapean eramateko egiten diren joan-etorrien inguruan; izan ere, espetxe horretako presoek Bizkaiko auzitegietan egin behar dituzte agerraldiak.

Arazo hori konpondu gabe dago. Gainera, kanpoko medikuengana joan behar duten gaixoak espetxetik kontsultategira eramateko joan-etorrietan ere antzeko gora-beherak izan dira.

## 2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua

- “1. Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.
2. Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.
3. Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.
4. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.
5. Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.
6. Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.
7. Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzaturako ikastegien kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.
8. Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.

9. *Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*
10. *Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera.*”

Hezkuntzarako eskubidea prestazio jakin bat jasotzeko eskubidea da. Beraz, ego-kiagoa izango zatekeen gizarte eskubideen atalean aztertzea. Hala ere, Konstituzioaren testuan duen kokaera eta aukeratutako metodoa kontuan izanik, atal honetan jorratuko dugu gai hori.

Hiru urte arteko haurren hezkuntzari dagokionez, jarraipena egin diogu 2001eko ekainean argitaratu genuen txosten bereziari (hezkuntza-premia bereziei ematen zaien erantzunaren gaineko txostena), eta emaitzak ikusirik, esan genezake ez dela lortzen ari, itxuraz, ikasle behartsuenak lehentasunez eskolatzea, erakunde honek gomendatu zuen bezala. Eskola postuak ekimen pribatua edo udal ekimena lehendik dagoen le-kuetan sortzeko joera dago. Batzuetan leku horiek alde behartsuenetan daude, beste batzuetan ez.

Interesatu guztien eskaria asetzeko adinako eskola eskaintzarik ez dagoen artean, erakunde honek uste du Legeak ezarritako konpentsazio-irizpidea edo bereizketa posi-tiboa lehenetsi behar dela, eta hori erakundeek ekintzak eta berari lotutako plangintzak bakarrik lor dezakete.

Gure hurrei benetako aukera-berdintasuna bermatzea jomuga duen bide horretan, 2004ko ekitaldian gomendio orokorra egitea erabaki dugu. Bertan Hezkuntza Admin-istrazioari adierazi diogu haur eskolei buruzko arautegian aurreikusitako finantzabide guztiak erabili behar lituzkeela (lankidetzak-hitzarmenak eta abar) kuotak berdintzeko, hiru urte arteko haurrentzako hezkuntza zerbitzuen antolamenduan parte hartzen duten ekimen publiko guztietatik abiatuta.

2004. urte honetan irakaskuntzaren planifikazioaren inguruko kexa ugari jaso ditugu. Horietariko asko Bizkaiko lurralde historikotik etorri dira; bertan Hezkuntza Admin-istrazioak bi urteko haurrentzako plazen eskaintza handia dauka, eta plaza horietariko askotan A eredia kendu izana salatu da. Hori dela eta, erakunde honek Hezkuntza Admin-istrazioari gogora ekarri dio lehendik dagoen eskaintza sendotzeko konpromisoa hartu zuela haur eskolen arauketari ekin zionean. Gure iritziz, konpromiso hori ez betetzea ez da axolarik gabeko kontua, nahi den hizkuntza eredia hautatzeko aukera kolokan jar dezakeelako.

Aldi berean, ostera, erakunde honi beste kexa batzuk aurkeztu zaizkio bi urteko haurrentzat D ereduko behar adina gela eskaintzen ez direla salatzen.

Dena dela, plangintzaren gorabeherak eragina izan dute hezkuntzaren beste etapa batzuetan ere. Kasu hauetan, hizkuntza eredu jakinen eskaintzarik ezak beste arazo batzuk ekarri ohi ditu berekin. Batzuetan, eredia aukeratu ahal izateko norbera bizi den herritik kanpo eskolatu behar dira haurrak, eta horrelakoetan beharrezkoa da zerbitzu osagarriak bermatzea, eskola garraioa, adibidez.

Azkenik, Hondarribiko gertaera lazgarriak, adingabe baten suizidioak alegia, gure ikastetxeetan berdinen arteko indarkeria –bullying deritzona– hortxe dagoela erakutsi digu. Erakunde honek erabaki du eskolako indarkeriaren gaia jorratuko dela Ararte-koak antolatzen duen Herritarren Partaidetzarako Foroaren bigarren edizioan. Horrela ikerketan oinarritutako gogoeta sustatu nahi dugu arazo honen errealitatea ezkutuan

gordetzen laguntzen duten mitoei buruz eta berari aurka egiteko biderik eraginkorrenei buruz. Gainera, arazo honen gainean ezohiko txostena egitea erabaki dugu. Kataluniako gure kidea den Síndic de Greuges-arekin batera prestatuko dugu.

### 3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

#### 3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZPIOAK

##### • Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua

- “1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoei eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.
2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.
3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat baka-rrik ezarri ahal izango dira.”

Zergen alorreko kexa askok zerikusia izan dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin (PFEZ).

Hainbat izan dira kexu agertu zaizkigun zergadunak, zerga-administrazio batzuek behingoan jartzen dituztelako abian arau-hauste larriengatik zehapen prozedurak, herritarrak aitortu ez duen diru-sarreraren bat duela egiaztatuz gero.

Zehapen araubidearen aplikazio ia-ia automatiko horren ondorioz, sarri askotan, subjektu pasiboari ezartzen zaion zehapena gehiegizkoa izaten da egin duen arau-haustearen aldean. Muturreko kasu batzuetan, Administrazioak zehapen espedientea hasi du Administrazioak berak egindako akatsen ondorioz.

Zergaduna errudun ote den egiaztatu gabe Administrazioak zehapen espedienteari hasiera ematen dionean modu arriskutsuan hurbiltzen da erantzukizun objektibora, eta hori debekaturik dago gure antolamenduan.

2004ko urtarrilaren 1etik hasita, lurralde historikoetako TMIZi buruzko foru arauak zerga horren salbuespen zabalagoa ematen diete ezgaitasuna duten pertsonen. Izan ere, ezgaitasuna duten pertsonen gidatzen dituzten ibilgailuei ez ezik, haiek bidaiari gisa daramatzaten ibilgailuei ere aplikatu ahal zaie salbuespena, Zenbait Garraiobidaren gaineko Zerga Berezian egiten den bezala.

Arau berriek diotenez, honako baldintza hauek bete behar dira TMIZen ezgaitasunagatiko salbuespena aplikatu ahal izateko:

- Salbuespena izango duen ibilgailuaren titularra salbuespenaren eskatzailea bera izatea.
- Eskatzaileak gutxienez % 33ko ezgaitasuna izatea, organo eskudunak egiaztatuta.
- Ibilgailuaren erabiltzaile bakarra titularra izatea.

Udal batzuek, berariaz edo zehar bidez, zalantzan jarri dute zergaren salbuespenaren helburua beteko ote den kasu jakin batzuetan. Susmo horrek bultzatuta, ibilgailuaren erabilera eskusiboari buruzko baldintza beteko ez delakoan, euren kabuz beste baldintza bat ezarri dute –arauan ageri ez dena–, alegia, eskatzaileek mugitzeko zailtasunak dituztela frogatu behar izatea.

Hala ere, Udalek zuzenbidezko mekanismo bakarra dute salbuespena behar bezala erabiliko dela ziurtatzeko: eskatzaileak banan-banan harturik egiaztatu behar dute salbuespena aplikatzen jarraitzeko baldintzak betetzen dituztela, eskatzaileari alde zuzenetik baldintza horiek betetzeko eskatu beharrean.

### 3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

#### • Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua

- “1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.  
2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.  
3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera.”*

Esan behar dugu jabetza pribatuaren eskubidearen edukia eskubide horri konstituzioan esleitzen zaion funtzio sozialak mugatzen duela, eta funtzio horren adierazpenetako bat udalerrien hirigintzako antolamendua dela. Lursail baten jabeek udaleko hirigintza planeamenduaren arabera lurra erabili edo lurra eraikitzeko pairatzen duten mugaketa hirien eta herrien zentzuzko garapena dakarren interes sozial eta orokorrarengatik justifikatzen da. Arartekoarengana jotzen duten herritar askok zalantzan jartzen dute herri botereek berenak diren lurretan hirigintzako aprobeitxamendu edo erabilpenerako jartzen dieten muga.

Jabeei aitortutako hirigintzako ahalmenak legeek ezartzen dituzten mugen barruan ulertu behar dira beti eta, nolahi ere, unean-unean baimentzen diren erabilpen eta eraikuntzak antolatzen dituen udaleko hirigintza planeamenduaren barruan.

Hala ere, guztiz garrantzitsua da informazio publikoa edo herritarren parte-hartzea bezalako printzipio orokorrak administrazio publikoen lanaren oinarri izatea.

Ildo horretatik, herritarrek hirigintzaren arloko erabakietan parte hartu eta haien ardura izan dezaten lortzeko, udalek eurek ezarri behar dituzte mekanismo positiboak –foroak, parte-hartzearen bidez esku hartzeko guneak eta beste eztabaida-metodo batzuk– hirigintzaren antolamendu prozesuetan herritarrei parte hartzeko bidea emateko eta parte-hartze hori bizkortzeko; oso bereziki, gizartean nolabaiteko kezka sor dezaketen azpiegitura edo erabilera jakin batzuk kokatzeko orduan.

Ondare-erantzukizunaren figurak herritarrek zerbitzu publikoaren funtzionamenduari ondoz ondo beren ondarean jasandako kalteengatik ordaina jasotzeko duten eskubidea adierazten du.

Herri administrazioek ez dute onartu nahi eragindako kalteen ordainaren izaera objektiboak ez dakarrela herri zerbitzuen jardueran edo ez-jardueran errurik edo axolagabekeriarik izan behar izatea, zeren nahikoa baita herri zerbitzuen funtzionamendu

normal zein anormalaren eta eragindako kaltearen artean kausazko lotura dagoela frogatzea.

Herri administrazioek, oro har, erreparo handiak izaten dituzte eragindako kalteengatik duten erantzukizuna onartzeko eta, sarritan, erantzuteko duten betebeharraren izaera objektiboa gogorarazi behar izaten zaie.

## 4. GIZARTE ESKUBIDEAK (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK)

### 4.1. FAMILIAREN BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

#### • Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikulua

*“1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute.”*

*“4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babesa izango dute.”*

Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko neurriak onartu ditu, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei buruzko uztailaren 16ko 176/2002 Dekretua eta lana eta familia uztartzeko neurriak ezartzen dituen uztailaren 16ko 177/2002 Dekretua direla bide. Laguntza-neurri horien aplikazioak, ordea, zenbait kexa eragin ditu.

Umea jaio edo adoptatzen den egunetik hiru hilabeteko epea dago laguntza-eskaera aurkezteko. Hori dela eta, familia asko laguntzarik gabe geratu dira eskaera epez kanpo aurkezteagatik.

Horrelako egoerak saihestearren, dekretuaren edukia jendeari aditzera emateko zabalkunde kanpaina egin dezala aholkatu diogu Eusko Jaurlaritzari.

Lana eta familia uztartzeko neurriei dagokienez, inoren kontura ez, baizik euren kontura lan egiteagatik horrelako laguntzarik jasotzen ez duten pertsonen kexak jaso ditugu.

Nazioarteko adopzioak egiteko eskaerak direla eta, pertsona askok ezbaian jarri dute adin-muga ezartzea bidezkoa ote den. Halako arazo konplexuez ari garenean lehentasuna eman behar zaio adingabearen onurari, eta horretarako kontuan hartu behar dira eskatzaileen ezaugarriak; adin biologikoa ez litzateke irizpide ezinbestekoa eta erabakigarria izan behar.

Babesik gabeko adin txikikoen kolektiboaren barruan, ezaugarri eta behar bereziak dituzte bakarrik dauden atzerriko adin txikikoek.

Azken urtean arreta berezia eman diogu **bakarrik dauden adingabe atzerritarren** egoerari. Aurreko urteetan bildutako datuek erakutsi ziguten sektorea pixkanaka hazten ari zela eta jada garrantzi handia zuela, batez ere Bizkaiko Lurralde Historikoan; sarritan, erakundeen aurreikuspenak eta erantzuteko ahalmena ez ziren nahiko izaten haren hazkundera aurre egin ahal izateko. Foru aldundiek, oro har, berariaz sortutako baliabide edo zerbitzuak abian jarri saiatu dira kolektibo honi laguntza ematen. Urtez urte erakunde honetako langileek bisitak egin dituzte harrera-zentroetara (Loiu, Orduña,



Martutene, Urnieta eta Vitoria-Gasteiz) eta haien egoerak aztertu dituzte. Alderdi onak eta hobetu beharrekoak nabarmendu dituzte, bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ekintza sailai eta Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailari zuzenduta.

Aurrean aipatutako jarduketa horiek eta sektoreaz duen ezagutza kontuan izanik, Arartekoaren erakundeak bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko ezohiko txostena egitea erabaki zuen.

2004. urtean zehar egin dira beharrezko ikerketa lanak, hau da, bisita gehiago zentro guztietara, buruz buruko elkarrizketak zentroetan dauden adingabeetarako askorekin, espedienteen lagin bat aztertzea lurralde bakoitzean, elkarrizketak eta bilerak egitea zentroetako eta beste zerbitzu batzuetako langileekin, datuak eskatzea foru aldundiei eta datuon analisiak egitea...

Ezohiko txostena prestatzeko lanak dagoeneko azken fasera iritsi dira.

Gutziz esanguratsua da barneratuta dauden adingabe lege-hausle gehienak babes zentroetatik etortzea, batez ere, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Horrek pentsarazten digu zer bait oker dabilela babes sistemetan.

Oraindik ere benetan kezkarria da gazteentzako justizia sistemak delituzko ekintzei erantzuteko orduan agertzen duen geldotasuna; batik bat, delituzko ekintza burutzen denetik dagokion neurria hartzen den arte kasu askotan igarotzen den denbora luzea.

Komeni da gogora ekartzea izugarri garrantzitsua dela ekintza zigorgarriari ahalik eta azkarren erantzutea, batez ere ekintza hori egin duena adingabea denean eta betearazi behar den legeak hezkuntza-xedeak dituenean. Berehalakotasun horri esker, adingabeak elkarri lotuko ditu bi elementuak –bere ekintza eta gizartearen erantzuna– eta errazago hartuko du bere gain ekintzaren erantzukizuna.

Terrorismo delituetan inplikaturik dauden adingabeei, hau da, Entzutegi Nazionalak esku hartzen dueneko kasuei dagokienez, zigor neurriak beren familia inguruneetatik gertuago bete ahal izan ditzaten formulak garatu behar dira.

1997tik hona, erakunde honek behin eta berriro adierazi zuen adin txikikoentzako lege baten beharra dagoela EAEn, esparru honetan erreferentziak eta jarraibideak ezartzeko eta, zehazkiago, oinarriko arazoak arautzeko, hala nola, baimenak; erregistroa; harrera zentroen homologazio edo ikuskapena; aldean eskubideak eta betebeharrak; elkarbizitza arautzen dituen prozedurak edo zehapenen araubidea...

Azkenean lege hori Eusko Legebiltzarrean onetsi da, txosten hau itxi baino lehentxoago.

## 4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

### • Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua

*“1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.*

*2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokienez*

*3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute.”*

Herritar askok kezak aurkeztu dituzte osasun prestazio batzuk osasun sistema publikotik kanpo daudelako; esate baterako, ortodontzia edo garuneko gaitzetarako unitateetako birgaikuntza neuropsikologikoa.

Beste kasu batzuetan, zenbait tratamendu jasotzeko luzaroan itxaron behar dela salatu da. Adibidez, antzutasunerako tratamendua lortzeko itxaron behar den denbora ez da ohikoa beste prestazio batzuetan.

Azpitarratzekoa da hiesa duten pertsonen egoera. Hartzen dituzten tratamenduen ondorioz deformazioak jasaten dituzte eta, zenbaitetan, kirurgia estetiko tratamenduak eskatu beharrean aurkitzen dira.

Gainera, kolektibo horrek beste eskakizun hau aurkeztu du: laguntza bidezko ugalketarako tratamenduetan GIB-eramaileei espermaren garbiketa egin dakiela.

Garrantzi handia duen beste kontu bat etorkinen osasunerako eskubidea da. Etor-kinen inguruabarrak direla eta, Eusko Jaurlaritzaren 2003-2005 aldirako Inmigrazio Planak zenbait gidalero bildu ditu, atzerritarrak osasun sistemara hurbil daitezten eta osasun laguntzarako behar bezalako aukerak izan ditzaten helburu dituztenak. Arazo honi heltzeko orduan hartu dugun ikuspegia txosten honetan jasotako gomendio orokorrean islatu da.

Beste alde batetik, gizarte eta osasun laguntza behar duten pertsonen erantzun integratua ematea EAEko osasun sistemarako indarrean dagoen plan estrategikoaren helburuetarikoa da. Beste administrazio batzuekin batera, jarduketa batzuk egiten ari dira EAEko gizarte eta osasun laguntzaren garapenerako plan estrategikoa izan daitekeena prestatzeko.

Buru-osasunaren alorrean, kezagarria da buruko gaitzek haur eta nerabeengan duten eragina.

Buru-osasunaren alorreko laguntza komunitarioaren gaineko ezohiko txostenean zenbait beharizan antzeman dira. Horiek, gutxi asko, oraindik indarrean dira.

- Haurrentzako psikiatria ekipoak deserdiratzea.
- Giza baliabide espezializatuak (haurren psikiatrak edo psikologoak kasu) gehitzea.
- Lurralde eta eskualde guztietan tarteko egiturak sortu beharra.
- Gizarte, hezkuntza eta osasun alorretako batzordeen sustapena.
- Elikadura arazoei erantzuna emateko programen berrikuspena.

### 4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

#### • Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua

- “1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea, baita hura zaintzeko betebeharra ere.
2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.
3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute.”

Ingurumenaren arloko afekzioek, hain zuzen ere jarduera sailkatuek eragiten dituztenek, sarritan kutsadura akustiko eta atmosferikoen kasu larriak sortzen dituzte.

Ostalaritzako establezimenduek, hala nola, taberna, pub, jatetxe, txoko edo elkarte gastronomikoez zarata, kirats eta ke traba handiak eragiten dituzte. Kasurik gehienetan, lokalek hots-isolamendurik ez izateak edo musika-ekipoak neurritz gain erabiltzeak sortzen dituzte eragozpenak. Hala ere, ostalaritzako jarduerak ez dira ingurumeneko erasoak egiten dituzten bakarrak, badira-eta beste zenbait jarduera, besteak beste, diskotekak, ibilgailuen konponketarako tailerrak, akademiak, industria jarduerak edo soinketa tokiak, ingurumenari erasotzen diotenak.

Halaber, gero eta ohikoagoak dira aire egokitu gailuek eragiten dituzten arazoei buruzko salaketak.

Kasurik gehienetan administrazioak ez du instalazio horien funtzionamenduaren kontrolik egiten. Ez dago aurretiazko kontrolik, ez baitago horretarako manuzko baimenik, eta sarritan ez da egoten horien funtzionamendua kontrolatzeko aukerarik udalek ez dutelako bitarteko egokirik izaten beharrezkoak diren frogaketa teknikoak egiteko.

Herritarrek uste dute udal agintariek ez direla, arazo hauek konpontzeari dago-kionez, era nahikoan konprometitzen eta ez dituztela arazoak konpontzeko beharrezko neurriak hartzen, hala zehapenak ezartzekoak nola bortxazkoak.

Jakina denez, sailkatutako jardueren lizentziak funtzionamenduko lizentziak deritze-nen barruan sartzen direla, eta horrek baimena ematen duen administrazioak etengabe kontrolatzea exijitzen du. Funtsezkoa da administrazioak beren eskumenekoak diren ikuskaritza eta kontrolerako eginkizunak betetzeko behar dituzten bitartekoez hornitzea eta gauzatzeko borondatea izatea.

Aurten ere industri jarduerak ekoizten duten kutsadurari buruzko kezak jaso dira. Kasu jakin batzuetan industria batzuen jarduna hamarkadetako kontua da eta funtsezkoak dira kokatuta dauden udalerrietako ekonomietarako baina, aldi berean, atmosferako kutsadura eragile garrantzitsuak dira.

Ingurumenari egiten zaizkion erasoen artean ohikoenetakoa den beste bat gurpilezkoen trafikoak eragiten duen kutsadura akustikoa da.

Talde batzuk salaketak formulatu dituzte administrazio batzuek hiriko hondakin solidoak kudeatzeko euren planen barruan errausketarako teknologiak erabiltzea era-baki dutelako, bide hori arriskutsua izan daitekeelako ingurumenerako eta herritarren osasunerako.

#### 4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua**

*“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorrekina bat arautuz, espekulazioa galarazteko.*

*Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”*

Herritarren gehiengoak zailtasun ekonomiko handiak ditu merkatu askean etxebizitza erosteko. Hori horrela da azken urteetako gehikuntzen ostean etxebizitzaren prezioa altua delako.

Hartara, pertsona askok administrazioek eta promotore pribatuek prezio baxestuan eskaintzen dituzten sustapenen bitartez besterik ezin dute etxebizitza bat lortu.

Onartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan herri administrazioek etxebizitza babestua eraikitzeko konpromiso sendoa dutela baina, hori gorabehera, eskaintza horrek etxebizitza askera iritsi ezin diren etxebizitzaren eskatzaileen kopuru oso txikia asetzen du. Horregatik komeni da adjudikazio-prozesuak zehazteko irizpide objektiboak ezartzea, arestian ere adierazi dugun bezala babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileen kopurua eskaintzen diren etxebizitzaren kopurua baino askoz ere altuagoa delako.

Jasotzen diren kexa gehienek etxebizitzaren esleipenaren prozesuan sartzeko irizpideren bat zalantzan jartzen dute. Ez dugu ahaztu behar, gainera, kolektibo zehatz batzuek zailtasun erantsia daukatela etxebizitza duin bat eskuratzeko: gazteak, guraso bakarreko familiak, ahalmen urriko pertsonak, gizarte laguntzak jasotzen dituztenak –AES edo oinarritzko errenta–, edo etorkinak.

Horregatik gazteriak etxebizitza duin eta egokira iristeko dituen zailtasunei buruzko aparteko txostenari ekin zaio.

Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozesuari dagokionez sustapen pribatuko etxebizitza baten adjudikaziodunak izan diren pertsona batzuen erreklamazioak jaso dira, hau da, kontratua ikus-onesterakoan eta Etxebizitza Sailari laguntzak eskatzerakoan gaitziritzi egin zaizkien pertsonenak, uste izan delako ez dutela etxebizitzari buruzko arategiak eskatzen dituen gutxieneko sarrerak frogatzeko eskakizuna betetzen.

Derrigorrezkoa da, halaber, azpimarratzea beharrezkoa dela gutxieneko sarrera batzuk frogatzea babes ofizialeko etxebizitza batera iristeko.

Erakunde honek uste du ez dela beharrezkoa aurrez gutxieneko sarrera batzuk egiaztatzea akura-araubidean babes ofizialeko etxebizitzetara iristeko, kontratuak ezartzen dituen betebeharrak betetzea bermatzeko beste mekanismo batzuk gorabehera. Horregatik, uste du Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aldatu egin beharko lukeela ildo horretatik babes ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitza eta lurzorua arloko finantza-neurri buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 18.2. artikuluan ezarri dena. Dena dela, errentariaren kaudimena errentamendu-kontratua sinatzen den unean eskatu beharko litzateke.

Arartekoaren erakundearen kexa asko eragiten dituen beste gai bat etxebizitza babestuen eraikuntzako akatsei eta Administrazioak horrelakoetan obren sustatzaileari edo eraikitzaileari dagokionez esku hartze eragingarria edo epearen barruko esku hartzea ez izateari buruzkoak dira. Eraikinen kontrolerako ahalmenen barruan eta, berariaz, etxebizitza babestuen kontrolean, herri administrazioek jarduterakoan izan behar duten irizpide nagusiak etxebizitza duina eta eraikuntzako kalitate egokia duena eskaintzeak izan behar du. Ondore horretarako egon daude kontrol eta ikuskapenerako mekanismo guztiak bete behar dira, hain zuzen ere frogatzeko etxebizitza horiek eraikuntza eta diseinuari buruzko arauak betetzen dituztela, eta arauen bat bete ez bada, zuzenduko direla bermatu behar da horretarako antolamenduak administrazioaren ekintzen derrigorrezko betearazpena bermatzeko ezarri dituen bitarteko juridikoak erabiliz, adibidez isun hertsatzaileak edo betearazpen subsidiarioak.

Aurten, berriz ere, lurzoruari buruzko euskal arauaren beharrezana aldarrikatu dugu, egon dauden legezko xedapenak batu eta sistematizatuko dituen eta, azken finean, lurzoruaren eta, horri lotuta dagoen etxebizitzaren, prezioaren gehikuntza murrizteko bidea emango duena.

Dena dela, ezinbestekoa da herri agintearen esku hartzea, alde batetik, luraren merkaturatua eta, beste aldetik, alokairuzko etxebizitza eta etxebizitza babestua sustatzen.

#### **4.5. URRITU FISIKOEN, SENTIMENEZKOEN ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK (EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK)**

- **Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua**

*“Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaitze eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten.”*

Europako Batasuneko Kontseiluak 2004. urtea Pertsona Urrituen Europako Urtea izendatu zuen. Urte horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko erabilera publikoko eraikinen irisgarritasunaren gaineko txosten bat egin zen. Txostenean, besteak beste, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta hura garatzen duten dekretuak zein neurritan betetzen diren aztertu zen. Lege honetan, irisgarritasuna sustatzeko zenbait tresna aurreikusten dira: kuoten erreserbak, laur urteko programak, sustapen politikak.

Azpitarratu behar dugu euskal administrazioek (batez ere udalek) ez dituztela behar beste erabili legeak euren esku jartzen dituzten tresnak eta, sarritan, arauetan ezarritakoaren aurka ere jarduten dutela argi eta garbi.

Sustapeneko politikak eta kontrolako jarduketak be ez dira nahikoak, ez baita ia zehapenik ezartzen. Zerbitzu publikoak dauzkaten eraikinetako asko eta askotan irisgarritasuna ez da bermatzen. Hori bereziki kezagarria da hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetan.

Botere publikoak zenbait neurri hartzen hasi dira, irisgarritasunaren arautegia betetzeko. Halere, esfortzu berezia egin beharra dago eraikin publiko hauen irisgarritasuna bermatzeko.

Halaber, lokal komertzialetan jardura berriak ezartzean edo lokalak eraldatzean, arkitekturako oztopoak kentzeko arautegia betetzen den ala ez kontrolatzeko udalek ia jarduten ez dutela azpitarratu behar dugu.

Eztabaida ugari piztu duen beste kontu bat da gure udalerrietan aspaldion arrapalak eta eskailera mekanikoak jartzen ari direla, gure orografia aldapatsuaren ondorioz hirietan dauden oztopoak gainditzeko tresna gisa.

Pertsona urrituen kolektiboak esan du, ordea, arrapalek eta eskailera mekanikoek ez dutela irisgarritasunaren arazoa konpontzen adineko pertsonen kasuan, edo umeen kotxeak dituzten pertsonen kasuan, emakume haurdunen kasuan, ezta, jakina, urritu fisikoen kasuan ere, printzipioz ezin izango litzukeelako instalazio horiek erabili.

Udallerri askok, zona ezberdinen arteko komunikazio arazoak konpontzeko, igogailuak edo igotzeko plataformak ezarri dituzte. Horrelakoak pertsona guztiek erabil ditzakete.

Ezgaituek beraiantzako gordetako aparkalekuez baliatzeko zailtasunak aurkitzen segitzen dute, kasu askotan erreserbarako eskubiderik izan gabe toki horiek erabiltzen dituzten pertsonen jarrera ez-solidarioarengatik eta udal askok halako gertakarien aurrean erakusten duten pasibotasunarengatik.

2003ko ekainean Arartekoaren erakundeak ezohiko txostena aurkeztu zuen, EAEn pertsona urrituek lan-munduan zuten integrazioa aztertzen.

Legebiltzarreko Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordeak, 2005eko otsailaren 7an, pertsona urrituak EAEko lan merkatu arruntean sartzeko plana egin zuen, eta hori pozik egoteko modukoa da. Plan horretan, hain zuzen ere, erakunde honek aipatutako txostenean egin zituen gomendioetako asko islatu ziren.

Hala ere, txosten honen jarraipenetik gabezia garrantzitsu batzuk azpimarratu behar ditugu, zuzendu behar direlakoan:

- EAEko administrazio publikoetan lan egiten duten pertsona urrituei buruzko datu ziurrik ez dago.
- Administrazio publikoek erreserbako kupoarekin gutxiengo batzuen arabera jardun dute, batez ere plazak erreserbatzeko neurriari dagokionez.
- Erreserbako kupoa ez da ia eraginkorra izan.
- Erreserbako kupoa ez da modu orokorrean aplikatu. Horren ondorioz, zenbait kidego eta kategoriatan epeen erreserbari muzin egiten zitzaien.
- Erreserba kuotak aldi baterako edo bitarteko premiei orokorrean ez aplikatzea.

Nolanahi ere, asko geratzen da oraindik ezgaituak lan merkatuak erabat sar daitezen lortzeko. Horretarako, oso garrantzitsua da enpresa eta sindikatuengana ere hel dadin gizarte sentiberatze eta kontzientzia zabaltzea.

Bestalde, Hezkuntza administrazioak ezgaitasun motaren baten ondoriozko hezkuntza beharrezan bereziei erantzun behar die, halako umeen eskubideak bermatzeko behar diren neurriak hartuz, baita 0-3 adin tartean ere, askotan ezgaitasunak umeei txiki-txikitan eskolatzea eragotzi baitie. Horregatik, eskoletan irismena sustatzeko politikak lehentasuna eduki behar du.

## 4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

### • Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua

*“Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espeziifikoak konpontzeko.”*

Botere publikoek adinekoen premiei erantzun behar diete, premia horiek ekonomikoak, osasunekoak, gizarte izaerakoak nahiz gizarte-osasun izaerakoak izanik ere.

Zentzu horretan, gizarte zerbitzuen sistemak eta osasun sistemak erabateko erantzuna eman behar diete adineko pertsonen beharizanei.

Gizarte zerbitzuen sistemari dagokionez, erakunde honek 1994 eta 1995. urtean txosten bana egin zuen, EAEn adinekoentzako egoitza barruko eta kanpoko laguntza aztertzen.

Txosten hauetan, besteak beste, egoitzetan, etxez etxeko arretan eta eguneko zentroetan eskaintza urria zegoela adierazi zen.

Ia hamarkada baten ondoren, laguntzako baliabideak nabarmen igo dira, baina biztanleria zahartu ere egin da. Hori guztia EAeko adineko pertsonentzako arretari buruzko txostenean adierazi dira. Txostena 2004ko abenduan bukatu da eta laster Legebiltzarrari emango zaio.

Txosten horretan, izan ere, adierazten da biztanleria osoaren aldean adineko pertsonen biztanleria gehitu dela, eta horrek biztanleria orokorra zahartu duela. Gainera, urritutako pertsonen biztanleriak ere gora egin du.

Azken urteotan adineko pertsonentzat arreta zerbitzuen eskaintza nabarmen igo den arren, oraindik ez da nahikoa premia guztiak asetzeko, batez ere kontuan izanik pertsona urrituen biztanleriak gora egin duela.

Gutxienez gerontologia planen estaldura aurreikuspenak bete beharko lirateke.

Garrantzitsua da esatea aurrerapen nabarmenak egon direla adineko pertsonen arreta egiteko gizarte-osasun eremu bat sortzean.

Adineko pertsonen arreta egiteari buruzko txostenak arreta sistemaren errealitatearen ikuspegi osoa eta xehea emango digu, eta azken urteotan kolektibo horrentzako laguntza eskaintzan egon den bilakaera erakutsiko digu.

Betiere, oso errealitate dinamikoa dugu hau eta erronka berriak planteatuko dizkigu datozen bost urteetan.

Horregatik, honakoa azpimarratu behar dugu:

- 2001-2010eko denboraldian, adinekoen arazo sozialen gehikuntza gutxi gorabehera 1991-2001eko etapan egondakoaren antzekoa izango dela aurreikusten da. Beharizanen portzentaje-gehikuntza horrek, denboraldi laburragoa izateak eta 2001ean txikitat jo behar den estaldura handitu beharrak hurrengo urteetan zerbitzuen urteko gehikuntza-erritmoa neurri batean azkartzea ekarri dute.
- Proposatzen den estaldura handitzea, erronka nagusia dena, eskaintzaren alde geografikoak orekatzeko helburua kontuan hartuta burutu beharko litzateke. Erabakiek baliabide horien komunitate izaera, eta horren ondorioz, hurbileko zerbitzuen izaera, errespetatu behar dituzte.
- 2010era egoera egokian heltzeko, badirudi nahitaezkoak direla adostasun politiko zabal baten sustapena eta jarduketan planifikazio loteslea.

Espero dugu aipatutako txostena lagungarri izango zaigula adineko pertsonen eskubideei buruz izango ditugun erronka berriei ahalik eta hoberen aurre egin ahal izateko.

## 5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren beharrezko balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Konstituzioak onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da, baina ondorioen atal bat izanik, ez ditu Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak agortu nahi.

Balorazio osatuago batek beste atalen segimendu bat egitea eskatuko du, batez ere II. atalarena, sarreran esparru material bakoitzaren benetako balorazioak agertzen baitira, eta atal honetan ez dira kasu guztiak jasotzen.

Era berean, bereziki behartsuak diren eta eskubideak urratzea errazago gerta da-kiekeen zenbait kolektibori ukitzen dieten gaiak ere aztertu ahal izango dira.

Kexen laburpenek 2004an zehar sortutako kasurik garrantzitsuenak zeintzuk diren ikusten laguntzen digute.

Bestalde, I. atalak zenbait eskubide aztertzen laguntzen digu, 2004an egindako txosten monografikoen bitartez, baita lehenago aurkeztutakoen segimendua egiten ere.

Edozein modutan, atal honetan eta txosten guztian agertzen den diagnostikoa aginte publikoentzat baliagarria izatea espero besterik dugu egingo, hiritarren eskubideak babesteko neurri zehatzak hartzeko.





ERANSKINAK



## I. ERANSKINA

### **JARDUNEKO ARARTEKOAK TERRORISMOAREN BIKTIMEN EGOERA ETA BEHARRIZANAK AZTERTZEAZ ARDURATZEN DEN BATZORDEAK ESKATUTA EGINDAKO AGERRALDIA**

Egun on, jaun-andreak:

Eskerrak eman nahi dizkiot Legebiltzarreko Batzorde honi, terrorismoaren biktimen egoeraz hitz egitera gonbidatu nauelako.

Terrorismoaren biktimak direla eta, Ararteko erakundeak beti adierazi izan du laguntza nabaria eta erabatekoa ematearen alde dagoela, indarkeria jasan duten edo jasaten ari direnen pertsonengandik gertu. Horretaz mintzatzeko aukera izan dugunean, beti biktimen “ondoan” eta biktimen “alde” agertu gara.

Erakunde hau jada 2000ko ekainaren 15ean agertu zen “Gure herrian sortutako indarkeriaren biktima guztien egoera aztertzeo ponentzia” hartan.

Orduan zenbait gogoeta azaldu genituen biktimak kontuan hartu beharri buruz. Horiatariko batzuk berriro azalduko ditugu.

Hala ere, agerraldi haren aldean bi berritasun garrantzitsu daudela nabarmendu nahi dut.

Lehenengoa ETAREN indarkeria gaitzetsi eta biktimei egindako gaitz edo kaltea konpontzea bilatzen duten talde guztiak batzorde honetan egotea da.

Ideiak, iritziak, proposamenak eta abar elkarri azaltzeko aukera izanik, giza garrantzi handiko errealitate korapilatsua konpontzetik hurbilago gaude.

Hitz egin behar dugu, aurreiritzirik gabe eta asmo onez. Gure akordioen egitura sendotzen joan behar dugu eta funtsean elkarrekin berriro moldatu, elkar ulertzeko bideak ekarri eta jarrerak hurbildu. Eta, horretarako, elkarrekin eseri, elkarrekin lan egin eta akordioak lortu beharrean gaude.

Batasun demokratikoak bakarrik lagunduko digu egoera honetatik ateratzen.

Ziur egon behar dugu indarkeria terrorista gainditu behar dela lehentasunez. Uste horretan egonez gero, konponbidea arinago aurkituko dugu.

Horregatik, berez berri ona da akordioak iristeko gogoia. Izan ere, hori dela eta, batzorde hau abian jarri da eta bertan dauden taldeek parte hartuko dute.

Bigarren albiste ona biktimiek beren elkarrekin bitartez zuzenean parte hartzea da, terrorismoaren biktimiek hitz egin ahal izatea, bitartekaririk gabe.

Biktimen ahotsa ezin du inork ordeztu eta hura ezin da isilpean gorde. Biktimen hitzek gogora ekartzen digute ezin ditugula errugabeen heriotzak ahaztu.

Elkarrizketa demokratikoak konponbideak biltzea eta biktimen ahotsa abiapuntu onak dira.

Baina, Reyes Mate irakasleak gogorarazi digun bezala, biktimak eztabaida politikoan sartzen duen berritasuna beraren existentzia bera da eta berritasun politiko hori indar handiagoz agertzen da diskurtso propiorik gabeko biktima anonimoen artean. Metaforikoki, “biktimaren begirada”z hitz egiten digu aipatu irakasleak.

Gogora ekarri digunez, biktimarik izateak beste elementu bat sartzen du eta, hori dela eta, aurreko segurtasun guztiak berriro ikusi eta zalantzatan jarri behar ditugu.

Biktimak ez dira konpontzeko arazoak bakarrik, baita edozein konponbideren bila derrigorrez kontuan hartu behar direnak ere. Egin-eginean, beraien bitartez integratu ahalko da alderdi indarrezalea etorkizuneko erkidego politiko elkartuan. Hortik datorkie beren autoritate morala.

Horregatik, akordio politikoetan kontuan hartu behar dugu biktimak daudela, hau da, hildako pertsona errugabeak.

Akordio politikoetan, beroriek moralak izan daitezzen, kontuan izan behar da, biktimen hitzak ez ezik, euren begirada ere, Matek aipaturiko biktimaren begirada batez ere, hildakoen odol errugabea.

Gertatu denaren onarpen moral, sozial eta politikoa da bakearen oinarria.

## **Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei ordain materiala eta morala eman beharra**

Indarkeria terroristaren biktimek ordain materiala eta morala jasotzeko eskubidea dute.

Azken urteetan bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari bai Estatukoari onartu behar diegu terrorismoaren biktimei ordain materiala ematea lortzeko beren konpromisoa.

Ezarritako kalte-ordainak ordaintzea, ondasun materialetan izandako gaitzak konpontzea eta osasunaren, irakaskuntzaren, etxebizitzaren eta lanaren arloetako laguntzak biktimekin bat egiteko erantzunak dira erakundeen aldetik.

Asmo horrekin bat natorrela, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari eta Barne Ministerioari biktimei kalte-ordain materiala emateko lan garrantzitsu horretan iraun dezaten eskatu nahi diet.

Alabaina, biktimekiko elkartasunari buruzko Estatuko legeak berak zioen azalpenean dioenez, “ez dugu biktimek jasandako oinazea konpentsazio materialaren emaitzaz ordeztu behar; izan ere, hori egitea berez onartezina izango litzateke”.

Kalte-ordain moralaren arloan dago asko egiteko oraindik: erakundeek eta, batez ere, euskal gizarte osoak ildo horretatik gausa asko egiteko dute.

Ordain moralerako proposamenak ugariak eta askotarikoak dira. Horiek guztiak baliozkoak dira, biktimak proposamenotan aintzakotzat hartuta sentitzen badira eta bakezkoak egiteko urratsak badira.

Gure herri eta hirietariko batzuetan biktimen oroimenezko monumentuak eraiki dira eta ETAk hildako pertsonen kaleak, plazak eta kirol pabilioiak eskaini zaizkie.

Gure udaletxeetarako batzuetako balkoietan eta aldundiren batean euskaraz eta gaztelaniaz “ETA EZ” hitzak ageri dira beti.

Era berean, erakunde askok, hala nola, Arartekoarenak, lelo hori jartzen dute beren idazki eta ofizioetan.

Alabaina, oraindik ezin dira herrietako festetan ikusi terrorismoak hildako pertsonen argazkiak edo izenak “Gogoan zaitugu” edo “Ez gaude guztiak” bezalako leloen ondoan.

Joan den udan, gehiengo demokratikoa duten udaletan ere, herriko jaietan ETAk kideen argazkiak jarri izan dira eta egunetan iraun, nahiz eta biktimenzako eta berorien familientzat mezu iraingarria eta herriko bizilagun guztientzat gizatxakeriazko mezua ekarri.

Gaur egun ere, karteletan eta adierazpen politikoetan biktimak biktimarioekin nahasten dira.

Egun ere, Euskal Herriko kirol ekitaldietan ez da biktimen aldeko isilunerik eskatzen, berori ez errespetatzearen beldurrez.

Batzuetan nahikoa izango litzateke erabakimen eta irudimen handitxoagoa izatea. Esate baterako, saskibaloi talde batek minutu bat isilik egoteko eskatu ordez minutu bateko txaloaldia eskatu zuen hilketa baten aurka protestatzeko. Txaloaldi zalapartatsu hark, besteren oinazea errespetatzen ez zituen gutxiengoaren oihuak isilarazi baitzituen, biktima bat oroitaratzeko balio izan zuen.

Baina, ekitaldi sinbolikoez gain, gure maitasuna erakutsi behar diegu biktimei eta euren senide eta lagunei. Babesturik senti daitezzen lortu beharra dago. Biktimen inguruan egin den isiltasun joera hautsi behar dugu.

Biktimak agerikoak dira, hementxe daude, gure artean, eta gure maitasuna behar dute. Elkartasunezko keinu eta besarkadak behar dituzte, bihotzetiko agur beroa.

Bakezkoak egiteko bide luzean, esan beharra dago hori ezin dela lortu egia eta oroimena onarturik baizik.

Oroimen morala behar dugu, hots, iraganeko bidegabekeriaren indarraldia kontuan hartzen ez duen orainaren eraikuntza oro salatzen duena.

Egia behar dugu, bai oinaze bidegabekeriaren bai pertsona errugabeen oinazea ezagutu eta ezagutarazi behar dugularik.

Biktimaren begiradak oroimena berriz kontuan hartzea eskatzen digu, egia nabarmen azaltzea.

## Hizkuntza eta biktimak

Gabriel Celaya poetak zioenez, “poesia etorkizunez beteriko tresna da”. Horrela abesten genuen nire belaunaldikoek eta nik Paco Ibáñezekin batera.

Poesia edo hitzak etorkizunez, ulermenez eta sentimendu positiboz edo bazterketa, gorroto eta ezinikusi sentimenduz beteta egon ahal dira, zorrotzasunez batzuetan; eta sentimendu horiek apurka-apurka gureganatzen ditugu ia konturatu gabe.

Hitzak, kontzeptuak neutroak ez baitira, asmoz beteta daude, aldatu egiten dira, egokitu egiten dira eta jatorrizko esangura aldatzen zaie. Batzuetan oinazea ekartzen dute; eta askotan, eraso eta zirikatu egiten dute.

Euskadin, hainbat aldiz, hitz zaugarriak bala hiltzailearekin batera etorri dira. Berenez, poetak aipaturiko etorkizunezko tresna barik, ezinikusi arma metaforiko bihurtu dira, eta askotan hain zaugarriak izan dira non heriotza fisikoarekin batera halako heriotza zibil bat etorri den.

Txarrena guztiok, konturatu gabe askotan, hitzen okerreko erabilpen horretan parte hartu izana da. Izan ere, biktimekiko elkartasun edo ulermenik ezaren estalki lodia egiten lagundu dugu.

Victor Klemperer filologo entzutetsuak *Hirugarren Reich-eko hizkuntza* bere lanean ohartarazi digunez, “*ondorerik indartsuena* (Hitlerren propagandarena) *ez zuten hitzaldiek, ez esku-paperek, ez kartelek ez banderek, ez zuen pentsamendu edo sentimendu pentsakorraren bitartez hartzen zen ezerk iristen*”. Berak bertan erantsi zuenez, “*nazismoa jendearen larru eta odolean hitz isolatuen, adierazpen eta forma sintaktikoaren bitartez sartzen zen. Horiek guztiak ezarri zituen, hamaika aldiz errepikatuz; eta mekanikoki eta konturatu gabe sartzen ziren jendearen buruan*”.

Alemaniar autoreak zioenez, “*hitzak artseniko dosi txiki-txikiak izan daitezke: norberak konturatu gabe irensten ditu eta hasieran ondorerik ez dute ekartzen, baina denboraz ondore toxikoa ekartzen dute*”. Hitzek kutsatu egin dezakete.

Arcadi Espada kazetariak bere “Egunkariak” lanean gure iragan hurbilerako bidaian sartzen gaitu. Entomologoen zehaztasunez disezionatu ditu 1979an egunkari batean atentatu terroristei buruz agertutako albisteak.

Hizkuntza berriro ere, albistea kontatzeko gaizakeriazko hizkera, asmoz beteriko ustezko hizkuntza neutroa. Zenbat eufemismo!, zenbat lerrokada errugabetzaile!, haiek, bai, sakoneko zama itzela: “*antza, poliziaren lagun mina zen*”, “*muturreko eskuindar jende artean ibiltzen omen zen...*”!

Zenbat jenderen buruan ibiltzen zen “*zerbait egingo zuen*” esaldi iraingarria, zenbat elkarrizketatan esaten zen “*bai, baina...*” itxuratia!

“*Bai, baina...*” hori erlatibismo moralra da eta hainbat aldiz harrapatu gaitu guztiok euskal gizartean.

Eta orain, Arcadi Espadaren moduko batek berriro egin nahi izango balu gure egunkariaren edukiarri buruzko antzeko azterketarik, orain, arestian, bihar bertan, berriro hitz armatuak aurkituko lituzke, sastagaia bezain zorrotzak, erasokorrak, gizagabetasunez beteak. Gaur bertan, gertatu eta gertatzen den guztiaren ostean, arduragabekeriako hitzak ditugu, hitz zaugarriak, hainbat iritzi-buruzagirenak, hainbat erakunde-ordezkarirenak eta politikarirenak eta hainbat hiritarrenak.

Hitzak armagabetu behar dira. Ez dugu gure elkarrizketa pribatuetan eta harreman pertsonaletan, jakin gabe ere, baztertzin lagundu, oinazea areagotu behar ez baitugu.

Hitzak armagabe ditzagun, enpati ariketa egin dezagun, oinazea jasaten duenaren lekuan jar gaituzen eta gure hitzak ulermenez eta gizatasunez bete ditzagun.

Eta, batez ere, gauzei beren izenez dei diezaiegun. Eraldaketa semantikorik eta eufemismorik gabe. Izan ere, ez dugu bizi dugun errealitate izugarria mozorrotu behar. Egiak aske egingo gaitu.

## Jazarpenezko indarkeria deiturikoa eta zuzenbidezko estatua

Uneotan indarkeria terrorista Zuzenbidezko Estatu osoaren oinarriak diren taldeen kontrakoa da: demokratikoki hautetsirik ordezkarien, epaileen eta fiskalen, kazetarien, irakasleen eta intelektualen, polizien, espetxeetako funtzionarioen eta enpresarien kontrakoa. Baita ETAk beraren proiektu totalitarioaren kontrakoa irizten dien hiritar arrunten eta, batzuetan, “handik pasatzen ziren”en kontrakoa ere.

24.000 pertsonak baino gehiagok jasaten dute ETAREN zuzeneko erasoak.

Gure epaileak eta fiskalak, gure ordezkarik demokratikoak, gure irakasleak, gure kazetariak, gure poliziak eta gure enpresariak dira terrorismoaren helburu nagusi.

Beren betebeharra egunero betetzen dutelako dira, legeko aginduetan eta giza eskubideekiko errespetuan oinarritzen den Zuzenbidezko Estatuari hiritarrei aske izaten jarraitzen uztea ahalbidetzen diotelako.

Horiek guztiak, zuzenbidezko estatu honen zerbitzuan ari dira eta sentimendu eta nahiak dituzte. Gurasoak, seme-alabak edo emazteak dira eta zaletasunak eta bizitzarako egitasmoak dituzte.

Egitasmo horiek mehatxuak, estortsioak edo jazarpeneko indarkeria deiturikoak bidegabeki baldintzaturik daude. Eta hori jasaten dute familiakoek, lagunek eta adiskideek. Batzuetan, dramatikoki bizi horiek betiko akabatzen ditu hilketa terroristak.

Haiei ez zaizkie jarraitzen edo ez dituzte hiltzen guraso edo senar-emazte onak izateagatik edo ez izateagatik, erlijio sinesteak izateagatik edo horrelakorik ez izateagatik, zaletasun batzuko edo besteak izateagatik, ez atseginak edo desatseginak izan direlako.

Epailleak, zinegotziak, ertzainak edo kazetariak izateagatik erasotzen diete eta hiltzen dituzte.

Gainera, indarkeria hiltzaile hori, gizakiengan eta moralaren eremuan gaitzestekoa modukoa baita, "askatasun-hiltzailea" da.

Hainbeste hiritarri erasotzen dietenean eta hiltzen dituztenean, erasotzen diete adierazpen askatasunari, katedra askatasunari, norberaren segurtasunari eta hiritar guztien ordezkapen politiko askeari ere.

Norberto Bobbiok 1979an Brigada Gorri buruz adierazi zuenez, "*nire iritziz, ez da nahiko kontuan hartu gure herria (Italia) odolizatzen ari den terrorismoa terrorista historikoen tradizioko etsaia den aukraziaren kontra barik demokraziaren kontra zuzenduta dagoela.*

*Egitate berria da haren berritasuna eraz aldatzea. Hor datza haren doilorkeria eta gaitzakeria. Doilorkeria dago. Izan ere, erregimen demokratiko oraindik ahul eta ezegonkor eta, jakina, gurea bezalako gaitzakeriaz beteak ankerkeriarik gabeko borroka politikoaren aldeko adierazpenak baimendu edo, hobeto esanda, eskatzen ditu. Beste alde batetik, gaitzakeria dago. Egin-eginean ere, epe luzera, indarkeria sortze horren ondore bakarra ikara orokorreko erregimena bakarrik izan daiteke, guztion askatasuna amaitzea. Eztabaidatu ezin den eta garai guztietako historiak garai bakoitzean ia gehiegitan berretsi duen irakaspen bakanteko bat honakoa da: besteen askatasuna akabatzen duenak berea akabatu du".*

Urte askotan, urte gehiegitan, terrorismoaren biktimak "gauza" bihurtzen ziren, uniforme bati edo inisial batzuei bakarrik lotzen zitzaizkielako.

Biktimak gizatiartasunez gabetzen badira, terrorismoak "gauzen" kontra jarduten du, pertsonen kontra barik.

Inor gorrotatzeko eta inoren kontra indarkeria erabiltzeko biderik errazena hura nortasungabetzea da, norbanakotasunik gabeko talde baten zati bihurtzea: etsaia, "bestea", atzerriarra" uniforme bat edo toga bat jantzi duena.

Biktimak aurpegidun egin behar dira, begietara begiratu behar izan diezaieten; jakin dezaten gizakiak direla.

Besteak ere sentimenduk dituela eta sufritzen duela onartzeak gorrotoak hausten laguntzen digu.

Erruki sentimendua berreskuratu behar da, biguntzen gaituen sentimendua baita.

Hau biktimen aurpegia ezagutu nahirik ez handia!

Askotan ikusten zen haserre bizia, manipulazioak akusatzea, biktimen errealitate oinazetsua ezkututzen zuen estalkia mugitu nahi ez izateagatik.

Biktimen begiek edo begiradak ez digute beste alde batera begiratzen uzten.

Inork ezin du bere eguneroko zereginetan ebidentzia ukatzen duintasunez jarraitu.

Biktimen 1980ko hamarkadako bakartasun bihotz-erdiragarria gainditu egin da zorionez. Egun biktimak babestuago daude eta lagun gehiago dituzte.

Hala ere, biktimen begiradan maite denaren heriotzagatik sufritu edo negar egiten duten pertsonak bakarrik ikusteko arriskua dago.

Hildako lagunek oroitu eta negar egiten dutenari laguntzea, doluan bat egitea, mundu osoko gizakien ezaugarria da. Horregatik, are iraingarriagoa da doluan parte ez hartzea, oinazea atsegin duen dei laidogarria, hilobiak profanatzeta.

Baina biktimaren begirada ez da hildakoaz oroitu eta negar egiten duenaren begirada soila. Hildakoa ez da berez edo zirkulazio-istripuaren ondorioz hil. Gure biktimak norbaitek biktima errugabeen odolaren gainean bere proiektu politiko totalitarioak ezarri nahi dituelako hil dira.

Horregatik, giza elkartasunezko erantzunaz gain, erantzun demokratikoa eman behar da.

Eta honakoa da legearen aginduen pean jartzea, botereak banatzea eta giza eskubideak errespetatzea ezaugarri duen eredu Zuzenbidezko Estatu erantzun politikoa: legea aplikatzea, sistema demokratikoa sendotzea, bertako erakundeak errespetatzea eta alde guztien giza eskubideak oro aldezea.

Horregatik, biktimen begiradak egunero gogoratzen digu lasterbiderik ez dagoela eta inork ezin diola errugabeen heriotzari etekin politikorik atera.

Gure zinegotzi, kazetari, epaile, polizia eta irakasleek jakin behar dute ia beti nahikoa ez den giza elkartasunaz gain Estatuak demokratiko egiten dituzten baloreen aldeko defentsa hertsia jasoko dutela.

Jakin behar dute ideologiaren aniztasuna, adierazpen askatasuna, informazio-aniztasuna, onartu ezin diren interferentzia deslegitimizailerik gabe justizia erabiltzea, hiritar guztien segurtasuna, katedra askatasuna eta gure ikastegiak eta Unibertsitateko aniztasuna direla gure eraikuntza demokratikoaren lehentasunezko abiaburuak.

Terroristen helburua izua sortzea da, milaka pertsona hil daitezzen pertsona bat markatzea, eta beste bat gainerakoek zer gerta daitekeen jakin dezaten hiltzea. Izuak geldiarazten du, koldartzen gaitu, atzera eragiten digu “*ez zaitetz liskarretan sar*” entzunda. Hori da munduan izan diren diktadura guztien oinarri nagusia.

Biktimen begiradak ez digu izua transmititu behar, izu geldiarazlea.

Biktimen begiradak doilorkeriaren aurreko izua ekarri behar digu. Izuak ez du geldiarazten, kontzientziak astindu baino. Zer gehiagok gertatu behar du kontzientzia guztiak astin daitezzen eta eraldi honi bukaera eman dakion?

## **Baloreetako hezkuntza: bakearen oinarria**

Asko izan dira intolerantzia, ezinikusi eta gorroto urteak, eta oinaze urteak.

Indarkeria denboran errotzen da, luzatu egiten da eta transmititu egiten da.

Indarkeriazko erreferentzia euskal gizartean sartzen da, zeharkatu egiten du, ezaugarritu du eta zatitu egiten du. Familiak eta laguntaldeak zatitzen ditu eta ikasgeletan eta lan zentroetan sartzen da.

Balorerik funtsezkoenei buruzko gutxieneko adostasunak eragozten ditu. Edozein erreferentzia moral ezabatzen du.

Indarkeriaren azpikultura hori euskal gizarteko sektore askotan irmoki finkatuta dago, intolerantzi dosi handiz elikatzen delarik.

Gizarte honetan morala berreskuratu eta bakezko etorkizuna eraikitzeko, indarkeriaren kulturaren ordezkari bakearen kultura jarri behar da, bazterkeriaren kulturaren ordezkari aniztasunaren eta tolerantziaren kultura alegia.

Baloreetako hezkuntzak gure hezkuntza sistemaren helburu ausarta izan behar du, eta, bereziki, gizartearen eta familien konpromisoa.

Gurasoek seme-alabei tolerantzia eta askatasun baloreak erakutsiz gero, gizarteko elkarbizitza berriro eraiki eta konfiantzarik ezak edo mesfidantzak ezabatuz gero, beste era bateko harremanak izango ditugu.

Lana neketsua eta zaila da eta jokoan etorkizuna dugu.

Bitartean, biktimen begiradak guztioi duintasun handia, gizatasun handia eta sendotasun demokratiko handia eskatuko dizkigu lan hori burutzeko.

Eskerrik asko.



## II. ERANSKINA

### TORTURARI BURUZ ARARTEKO ERAKUNDEAK EGINDAKO ADIERAZPENA

#### I. SARRERA

Tortura, giza eskubideak oso larriki urratzea izateaz gain, demokraziasistemaren oinarriei modu arriskutsuan azpiak jatea ere bada. Horregatik, Arartekoak, herritarren eskubideak babesteko lana betez, publikoki adierazi nahi du bere jarrera, azken hilabeteotan egin den tortura eta tratu txar ankerren salaketakilara kezagarria ikusirik.

Askotan, kaltetuek berek edo, batik bat, beren familiek erakunde honetara jotzen dute, atxiloketa-aldian jaso duten tratuaz egiten dituzten kontakizunak ezagutarazteko. Beste batzuetan, berriz, salaketak hedabideei esker iristen zaizkigu, edo elkarteren batek esku hartu duelako. Kontatutako egintzen artean, batzuk beste batzuk baino larriagoak izaten dira eta salaketek beti ez dute gizartean garrantzi bera izaten, baina kasu guztietan alarma-seinaleak dira eta ezin dira aztertu gabe utzi. Bestalde, edozein tratu txarrekin pairatzaileari eta haren senideei sortzen dien sufrimenduak kezkatu behar gaitu beti. Galderak sortu behar dizkigute eskubideurratzeak eta tratu horiek gizakiaren duintasunari, bizikidetasun zibilizatuari, Zuzenbideko Estatu bati dagokion herritarren eskubideak bermatzeko sistemari egiten dieten erasoak.

Polizien tortura, tratu txar eta abusuen gaineko salaketetan oso egintza eta egoera ezberdinak aipatzen dira. Inor atzemateko orduan poliziei arrazoirik gabe indarra erabiltzetik hasi, eta atxiloketa-aldian polizia-etxean gerta daitezkeen egoeretaraino: apalkuntzak, irainak, tratu txar fisiko eta psikikoak, mehatxuak, abusu edo bebazio sexualak, oinarrizko beharrak betetzen ez uztea, behartutako jarreretan egonaztea, e.a. Torturari buruzko salaketan artean sartu behar dira, halaber, espetxe barruan emandako tratu txarrak, jipoiak edo bide hertsatzaileak neurritz gain erabiltzea, baita espetxeetako zigorra betetzeko araubide jakin batzuk ere, zigor krudeltzat jo daitezkeenak (oso isolamendu-aldi luzeak, medikuaren laguntza egokirik ez izatea, e.a.).

Kontuan izan behar da aipaturiko giza eskubideen urratzeak edonolako atxiloketan gerta daitezkeela eta, bereziki ahulak diren zenbait talde indartsuri eragin diezaiekeela kasu batzuetan (etorkinei edo gutxiengo etnikoei, esaterako). Hala ere, gure inguruan sarrien egiten diren salaketek isolatuta emandako atxiloketa-aldiekin dute zerikusia. Horregatik, hemen kasu horiei helduko diegu, batez ere.

Egiaz, salaketak behin eta berriz egiteak ez du, berez, tortura badagoenik frogatzen. Baina, era berean, ezin ukatuzkoa da gure gizartean zabaldua dagoela poliziak tratu txarrak erabiltzen dituelako susmoa, bai atxilotuak bere burua erruduntzat jotzeko metodo gisa, bai beste pertsona batzuei buruzko informazioa lortu eta, horrela, poliziaren ikerketak aurrera egin dezan. Nahiz eta –Torturaren Prebentziorako Batzordeak ohartarazten duen moduan– tortura etengabe salatzea Zuzenbideko Estatu bati zilegitasuna kentzeko ahalegin gisa erabil daitekeela onartu, zalantzarik ez dago badirela arrazoizko zenbait zantzu gure herrian torturak bizirik dirauela eta egikera horiek erabat erazteko helburua oraindik ez dela lortu adierazten dutenak.

Horregatik, berriro adierazi behar dugu gaitz horri aurre egiteko lehen urratsa, lehen baldintza, tortura izan daitekeela onartzea dela. Abiapuntu hori onartuz eta deuseztatzeko borondate irmoa izanik soilik ezarri ahal izango dira helburu hori lortzeko baliabide eraginkorrak.

Bestalde, tortura osotara gaitzestea eta terrorismoa (gure artean giza eskubideak urratzen dituen eragile nagusia) irmoki gaitzestea bateragarriak direla gogoratzea komeni da. Terrorismoa izateak, ordea, ez ditu batere gutxitzen torturaren ondorio larriak.

Hala idatzita utzi zuen Francisco Tomás Valiente irakasleak, ETAk hildakoak: “*en la macabra secuencia del secuestro, la tortura, la mordaza y el tiro en la nuca, lo peor es la tortura*”; izan ere, tortura gizarte-baloreak apurtzea da, gizakiaren duintasuna urratzea eta gizakiek elkarrengan duten konfiantza haustea.

Horrela bada, gogoeta hauek egitean ez dugu ahazten –guztiz alderantziz– gure artean oraindik badirela beren herriekideak mehatxatzeko, jazartzeko eta hiltzeko ere prest dauden pertsonak, lagun hurkoa deuseztatzea normalizat hartzen duten pertsonak, beren buruan bizitzarako eskubiderik ez duen arerio bihurtuta.

ETAren terrorismoak eragindako egoera guztiz gaitzesgarria eta onartezina da edozein gizarte zibilizatutan. Azken bolada honetan, zorionez, haren intentsitateak behera egin badu ere, bizitzaren, askatasunaren eta oinarritzko beste eskubide batzuen kontrako eraso larri eta sarriek gero eta gizarte-sektore gehiagotan dute eragina; mina, estortsioa, mehatxua, beldurra eta sufrimendua pertsona batzuek modu bereziki indartsuan jasaten badituzte ere, horien ondorioak orokortu egiten dira eta ezinezko bihurtzen dute elkarrekin aske eta bakean bizitzea. Egoera horretan, herriagintzek beharrezko neurri guztiak, eraginkorrak eta bidezkoak, jarri

behar dituzte sufrimendu hori buka dadin. Betebehar horrek, ordea, ezin du inolaz ere ahuldu tortura edo tratu txar anker edo lotsarazleak erabiltzeko debeku erabatekoa. Funtsean, jarrera etikoa da: egikera jakin batzuk erabiltzeari uko egiten dion gizarte zibilizatu baten jarrera, egikerok gizakiaren duintasuna urratzen dutelako; baina demokrazia-sistema bera babestu beharra ere bada: terrorismoaren kontrako borrokan legeak ezarritako mugak gainditzea Zuzenbideko Estatuahultzea da, eta estatu horrek terrorismoa legearen mugean barnean garaitzeko duen gaitasunaz mesfidantza sortzea.

Terrorismoak berekin dakarren bide-galtze edo aberrazio moralak gaitzesten dugun bezalaxe gaitzetsi behar dugu hari aurre egiteko tortura erabiltzea. Torturak ez du lekurik Zuzenbideko demokrazia-estatu batean.

Arestian adierazi dugunez, bateragarriak dira edozein terrorismo-ekintza gaitzestea (hori edonola burutzen eta agertzen dela) eta terrorismoari aurre egiteko lege kontrako bideen erabilera erabat gaitzestea. Bateragarritasun hori abiapuntu hartuz, gizarteak, oro har, eta herri-agintek, bereziki, torturak iraun dezakeela onartu beharra daukate. Estatu jakin batek, demokratikoa izanik ere, bere esku dituen bide hertsatzaileak neurri gain erabiltzea, jakina denez, planeta osoan gertatzen den zerbaitekin, baina arrisku hori areagotu daiteke terrorismoak modurik garrantzian erasotzen duen tokietan.

Errealitate hori agerian jarri dute, gure herrialdeari dagokionez, alor horretan lanean dabiltzan nazioarteko erakundeek (Europako Kontseiluko Torturaren Prebentzioarako Batzordeak, Nazio Batuen Torturaren kontrako Batzordeak, tortura kasuetarako NBEko Errelatoarek...), baita giza eskubideak babesten diharduten elkarteek ere. Orain dela gutxi bi testu adibidetzat hartuta, azpimarratzekoa da Amnesty International-ek (AI) zer adierazi zuen 2004-12-03an aurkeztu zuen txostenean (*España, acabar con la doble injusticia. Víctimas de torturas y malos tratos sin reparación*), 1980 eta 2004. urteen bitarteko 450 epai aztertu ondoren: *“pide a las autoridades españolas que, como primer paso, reconozcan públicamente que en España se producen, aunque no de forma sistemática, casos de torturas y malos tratos, y que las víctimas de tan graves delitos, como todas las víctimas de graves abusos contra los derechos humanos, merecen una reparación completa”*.

Era berean, Espainiara egindako azken ikustaldian Errelatore Berezia torturaren gainean prestatu zuen txostenean (*E/CN.4/2004/56/add.2*) hauxe adierazten da:

*“41. El Relator Especial recibió información fidedigna que le induce a creer que, aunque la tortura y los malos tratos no son sistemáticos en España, el sistema de detención practicado permite casos de tortura o malos tratos, en particular de personas detenidas en régimen de incomunicación por actividades terroristas. Según las informaciones recibidas, lo más probable es que la tortura o los malos tratos se produzcan durante el período inicial de custodia policial. Información de fuentes no gubernamentales indica que se recurre particularmente a la tortura o a los malos tratos para obtener una declaración del detenido. La aplicación actual y limitada de las garantías legales parece ser insuficiente. Los detenidos deben tener derecho a consultar con un abogado desde el principio de la detención, el abogado debe estar presente durante el interrogatorio y el detenido debe tener derecho a conversar con su abogado en privado.”*

Paragrafo horrek argiro aipatzen du gai honen muina: isolatutako atxilotetaaldia gune “opaku” bat dela, legeriak atxilotuei eskaintzen dizkien berme juridikoak betearaztetik bereizita edo alde batera utzita eta, hortaz, tortura ahalbidetu dezakeena eta, tortura gertatuz gero, zigorgabetasuna erraz dezakeena.

## II. TORTURARI AUREA HARTZEA ETA TORTURA DESAGERRARAZTEA

Behin torturak iraun dezakeela onartuta, eta herri-agintek hori erazteko borondatea dutela pentsatuta, egikera horiei aurea hartzeko, eragozteko eta, gertatuz gero, zigortzeko hartu behar diren neurriak aztertuko ditugu jarraian.

### II.1. Torturari aurea hartzea

Tortura desagerrarazteko biderik eraginkorrena gune eta denbora opakua kentzea da –hau da, atxilotuaren eskubideak murrizturik geratzen direnekoak– eta polizien jarduerak kontrolatzeko tresnak indartzea.

Prebentzio-bide horretan aurrera egiteko eskura dauden tresnen artean –erakunde eskubide-bermatzaile honek sarritan exijitutakoak– honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

### a) Isolatzeari buruzko egungo erregimena kentzea

2001ean egindako ikustaldiaren ondoren prestatutako txostenean (*CPT/Inf (2003) 22*), arestian aipatutako batzordeak zenbait ohartarazpen kritiko egin zizkion Espainiako gobernari, batez ere honako egoera hau baimentzen duen araudiaren gainean: atxilotutako pertsona bat bost egunez ere isolatua edukitzea, abokaturik edo bere konfiantzako medikurik ikusi ezinik. Ondorio bera atera zuen NBEko Errelatore Berezia ere 2002ko bere txostenean. Zera baieztatu zuen, ikuspuntu orokor batetik begiratuta: *“La tortura se practica con mayor frecuencia durante la incomunicación. Debería establecerse la ilegalidad de la incomunicación y ponerse en libertad sin dilación a los incomunicados”*. Eta, ildo beretik, bere azken txostenean –lehen aipatutakoan– gomendio hauek egin ditu:

*“66. Como la detención incomunicada crea condiciones que facilitan la perpetración de la tortura y puede en sí constituir una forma de trato cruel, inhumano o degradante o incluso de tortura, el régimen de incomunicación se debería suprimir.*

*67. Se debería garantizar con rapidez y eficacia a todas las personas detenidas por las fuerzas de seguridad: a) el derecho de acceso a un abogado, incluido el derecho a consultar al abogado en privado; b) el derecho a ser examinadas por un médico de su elección, en la inteligencia de que ese examen podría hacerse en presencia de un médico forense designado por el Estado; y c) el derecho a informar a sus familiares del hecho y del lugar de su detención.”*

Aurreko iradokizunetan eta giza eskubideen alorreko nazioarteko hainbat erakundek egindako antzeko iradokizunetan oinarriturik, Alk Auzipetze Kriminalaria buruzko Legea (AKL, hemendik aurrera) aldatzeko eskatu die Espainiako agintariei: *“(modificar) la Ley de Enjuiciamiento Criminal para eliminar el régimen de incomunicación, ya que propicia la tortura y obstaculiza las posibilidades de defensa y reparación de la víctima. Mientras no sea derogado este régimen, deben aplicarse las recomendaciones de esos organismos internacionales para garantizar a las personas a las que se aplica este régimen su derecho a ser asistidas de forma efectiva por un abogado y a entrevistarse con él en privado. Asimismo se les debe garantizar el derecho a ser examinados conjuntamente por un médico de su elección y por el médico forense designado por las autoridades. Del mismo modo deben grabarse en vídeo todas las sesiones de interrogatorio con las garantías pertinentes de seguridad, como forma de proteger tanto a las personas incomunicadas como a los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley que puedan ser falsamente acusados de actos de torturas o malos tratos”*.

Arartekoak bere egin du legea aldatzeko eskaera hori, atxilotuaren Eskubideen murrizketak kentzeko –gaur egungo AKLren 527. artikulua ezarriak– eta, era berean, atxiloketa-aldia luzatzeko aukera kentzeko –AKLren 520. bis artikuluan terrorismodelituak leporatzen zaizkien pertsonentzako ezarria–. Dena den, arau horiek indarrean jarraitzen duten bitartean, erakunde honek zera gogorarazi behar die legea ezartzen duten agintari eta funtzionarioei: bi irudiok –isolatzea eta atxiloketa-aldia luzatzea–, atxilotetaren erregimen orokorrean aitoritutako eskubideak murrizten dituzten salbuespenak direnez, kasu bakoitzean egiaztatutako zertzeladengatik beharbeharrezkoak direnean bakarrik daudela justifikatuta. Orain, ordea, salbuespenezko neurriok sistematikoki ezartzen dira terrorismoarekin zerikusia duten ia atxiloketa guztietan eta, larriagoa dena, kasu guztietan legeak ezartzen duen kontrol judizialahonelakoxea da –NBEko Errelatorearen hitzetan–: *“más bien formal y administrativo y no entra en el fondo de la cuestión ni en su justificación”*. Eta egoera horixe da onartezina.

Azken batean, lege-aldaketa burutzen ez den bitartean, legeria giza eskubideak babesten dituzten erakundeen gomendioetara egokitu dadin, agerian jarri behar da legea ezartzeko orduan hainbat hobekuntza egin daitezkeela berehala, soilsoilik legearen xedea betez, izan ere, legeak salbuespenezko neurritzat jotzen dute atxiloketa-aldiko eskubide-murrizteak eta, beraz, kasu zehatz bakoitzean justifikatu beharrekoak. Bestalde, Torturaren Prebentziorako Batzordeak nahiz Alk proposamen batzuk egin dituzte, indarreko legeriarekin guztiz bateragarriak eta isolatutako atxiloketa-aldietan bermeak areagotuko litzuketenak: esate baterako, atxilotetaren lehen unetik abokatuaren laguntza izatea –ez deklarazioa hartzeko unean bakarrik– (*CPT/Inf (2000)5*), edo isolatutako atxiloketa-aldia luzatu baino lehen, errudun jotakoa epailearen aurrean agertzea (*AI, EUR 41/01/99 y CPT/Inf (2003) 22*).

### b) Atxiloketa-aldia grabatzea

Giza eskubideak babesteko hainbat erakundek –besteak beste, erakunde honek– torturaren prebentziorako etengabe egin duten beste gomendio bat hauxe da: atxiloketa-aldietan grabatzeko baliabide teknikoak erabilitea. Ildo horretan NBEko Errelatoreak irmo adierazi du: *“(68) Todo interrogatorio debería comenzar con la*

*identificación de las personas presentes. Los interrogatorios deberían ser grabados, preferiblemente en cinta de vídeo, y en la grabación se debería incluir la identidad de todos los presentes. A este respecto, se debería prohibir expresamente cubrir los ojos con vendas o la cabeza con capuchas". (E/CN.4/2004/56/add.2).*

Horrela, isolatutako pertsonak nahiz tortura edo tratatu txarrak eman dituztelakoan faltsuki erruduntzat jotako polizia-funtzionarioak babesteko berriazko helburuarekin, Ararteko erakundeak gomendio bat egin zuen 1999ko urrian, ertzaintza-etxe guztietan kontrol-sistema bat jar zedin, ziegen aldeko pasilloetan kokaturiko kamarek egindako bideo-grabaketetan oinarrituta.

Begi-bistakoa denez, gomendio hau NBEko Errelatoreak egindakoak baino mugatuagoa da, ez baitu bere baitan hartzen galdeketen grabaketa. Hala ere, gomendio hori gauzatzen erraza zen, bada lehendik zuten kamera-sistema erabiltzen zen –nahiz eta erabilera aldatu, atxilotetan parte hartzen zuten polizia unitateetatik aparte egiteko– eta, aldi berean, beste alderdi batzuk zuzenean egiaztatzeko bide ematen zuen: ziegako sarrera-irteerak, atxilotuari ematen zaizkion janari edo gauzak edo poliziek atxilotuari traba egiteko edo haren erresistentzia ahultzeko erabil ditzaketen maniobrak (adibidez, loa galaraztea). Bestalde, ez lirateke berrikusi beharko oso-osorik atxiloteta guztiei buruzko grabaketak. Sistema hori azaldutako moduan abiarazte hutsarekin lortuko litzateke, gure ustez, prebentzio-helburua.

Eusko Legebiltzarrari urtero-urtero egindako txostenetan azaldu dugun moduan, ustez zailtasun teknikoak zituztela eta, hasieran erreparoeekin ibili ondoren, Herrizaingo Sailak onartu zuen Arartekoaren gomendioa. Ertzaintzaren atxiloteta-etxeetara egin ohi ditugun ikustaldietan egiaztatu dugunez, sistema hori jarrita dago eta, oro har, badabil eta atxilotetei buruzko zenbait gertakari edota salaketa judizial argitzeko balio izan du. Alabaina, azpimarratu behar da isolatutako atxiloteta-aldiak burutu diren polizia-etxe batzuetan ziegen bi alde bereizten direla, guztiz bereziak, eta grabaketa-sistema alde horietako bakar batean soilik ezarri eta erabiltzen dela: harrigarria bada ere, gutxien erabiltzen den aldean, hori Bidezango Unitateari baitagokio. Agerikoa dirudi jokoera horrek prebentzio-eraginkortasuna kentzen diola proposatutako sistemari; beraz, 81/1999 Gomendioa erabat ez dela bete ondorioztatu behar dugu.

Gomendio hori zorrozki ezartzea urrats erabakigarria izango litzateke, guk uste, torturari aurrea hartzeko eta berori eragozteko, eta, behin aztertua izan ostean, sistema hori beste polizia-kidego batzuek egindako atxilotetara hedatu liteke. Orobat, ostera adierazi behar dugu tresna horrek, behar bezalako bermeekin ezartzen bada, bi xede lortzeko balioko duela: alde batetik, atxilotuen eskubideak zaintzeko, eta, bestetik, polizi agenteen eskubideak babesteko, oinarririk gabe egin daitezkeen kexa edo salaketen kontra. Dena den, atxiloteta-aldi osoan kontrol etengabea eta osoa bermatzeko sistema bat izango litzateke egokiena, guk uste.

### c) Atxilotuen egoeraren mediku-azterketak

Isolatutako atxiloteta-aldiaz hitz egitean ohartarazi dugun bezala, Torturaren Prebentziarako Batzordeak polizia-etxeetako egonaldiaren oso garrantzitsutzat jotzen dituen hiru eskubideetako bat zera da –atxilotetaren berri eman eta abokatu baten laguntza jasotzearekin batera–: atxilotuak eskubidea du berak aukeratutako medikua ikusteko, poliziak beste edozein mediku-azterketa prestatzen duela ere (*CPT/Inf/E (99) 1 (REV. 1)*). Berme hori alor horretako indarreko araudiarekin guztiz bat datorrela ere adierazi dugu, izan ere, araudiak ez du medikuak aztertua izateko eskubidea murrizten isolatutako atxiloteta-aldietan. Egiaz, AKLk, 520.2.f) artikuluan, “auzitegiko medikua” aipatzen du, edo “Estatuaren edo beste herriadministrazio batzuen mendeko beste edozein”. Horregatik, eskubideak bermatzeko ahalegin hori berehala ezargarri bihurtzeko, komenigarria izango litzateke isolatuta dagoen atxilotua osasun zerbitzu publikoetako medikuek aztertzea, poliziaren zaintzapean ematen duen aldiaren hasieran eta bukaeran. Interesdunak berak hautaturiko medikua ez izanik ere, neurri horrek arindu egin dezake atxilotuek –NBEko Errelatoreak egiaztatu duenez– auzitegiko medikuekiko, batez ere Auzitegi Nazionalen medikuekiko erakusten duten konfiantzarik eza.

Illo horretan, azpimarratzekoa da *Isolatutako atxilotuei eman beharreko laguntza koordinatzeko Protokoloak*, Ertzaintzak 2003ko erdi aldera abiarazi zuenak, betebeharrak gisa ezarri zuela “atxilotua polizia-etxean sartu baino lehen” auzitegiko medikuak hura aztertzea, eta azterketa hori “Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Erakundearen egoitzan” burutzea. Horren antzeko xedapen bat ezarri zuen atxiloteta-aldiaren bukaerarako, nahiz eta, kasu horretan, zera argitu zuen: segurtasunagatik osasun-azterketa egoitza horretan egiterik ez badago, “horretarako osatutako Batzorde Judiziala joango da polizia-etxera”. Gainera, beste hau ere hitzartu zen: auzitegiko medikuak egokituz jotzen duenean, “erreferentziako osasunzentroetan laguntzea” beharrezkoa dela jakinaraziko diola agintaritzak judizialari, hala egin dadin.

Itxuraz behintzat, nabarmena dirudi Protokoloan ezarritako neurri hori eta beste batzuk ezartzeak bermeak sendotuko litzukeela, baina ez ordea pertsona hori ospitaleetako zerbitzuetara eramateak eta, are gutxiago, bere konfiantzako mediku batek laguntzeak sendotuko litzuketen neurri berean. Bestalde, agerian jarri beharra dago –orain arte aztertutako kasuen arabera– mediku-azterketok aipatutako bi momentu horietan polizia-etxetik kanpo egitea ez dela, egiaz, ohiko araua, ohikoagoak baitira polizia-etxean bertan burutzen diren azterketak,

batik bat atxiloketa-aldiaren amaieran. Halaber, profesionalen eskarmentuak eta iritziak erakusten dutenez, medikuen azterketek beren mugak dituzte eta nekez argi dezakete halako kasuetan Ertzaintzari egotzi zaizkion polizia-egikera jakin batzuk gauzatu diren ala ez (adibidez, atxilotuei loa galaraztea edo mehatxuak, irainak edo presio psikologikoa egiteko hainbat modu). Hori gogoan izan behar da.

#### d) **Polizi agenteei giza eskubideen alorreko prestakuntza ematea**

Torturari aurrea hartzeko lanean dabilzan nazioarteko erakundeek sarritan adierazi dute hobetu eta indartu egin behar dela polizia-funtzionarioei giza eskubideen alorrean ematen zaien prestakuntza, bereziki, torturarik eta tratu Ander edo lotsazarlerik ez jasateko eskubidearen gainean. Gomendioak begi-bistakoa dirudien arren, egia esan, hutsune eta akats garrantzitsuak egiaztatu ohi dira alor horretan. Sarritan, polizi zerbitzuaren kalitatea, atxilotuaren oinarriko eskubideak errespetatzearekin baino gehiago, eraginkortasunarekin lotzen da –askotan ustezko eraginkortasuna izaten da hori, ez neurtutakoa–.

Ararteko erakundeak behin eta berriz azpimarratu du zein garrantzitsua den polizi agenteen prestakuntza –hasierakoa nahiz etengabekoa– herritarren eskubideekin zerikusia duten hainbat arlotan, eta halaxe mintzo da orain ere. Gainera, ezinbestekoa da herri-aginteez eta, bereziki, poliziaren arduradunek tortura gaitzesteko jarrera nabaria izatea, jarraibide argi eta irmoak ezarriz, ez bakarrik gizakiaren duintasunaren kontrako delitu hori osotara debekatzeari dagokionez, baizik eta baita ere polizi funtzionarioei, horrelako portaerak gertatzean edo gertatu direnaren arrazoizko susmorik dutenean, haien berri eman dezaten exijitzeari dagokionez.

## II.2. Ikerketa

Torturaren edozein salaketa edo arrazoizko zantzu berehala eta alderdikieririk gabe ikertzea da, tortura desagerrarazteko borrokan, bigarren zutabe funtsezkoa.

Komeni da gogora ekartzea bere garaian senarrarekin batera atxilotu zuten euskal herritar batek egindako salaketa zela eta, Nazio Batuetako Torturaren kontrako Batzordeak 1998-05-14an eman zuen irizpena, hura eragin zuten egintzak geografian gertu ditugu-eta. Irizpen horrek hauxe dio 8.2 atalean:

*“El Comité observa que, con arreglo al artículo 12 de la Convención, las autoridades tienen la obligación de iniciar una investigación ex officio, siempre que haya motivos razonables para creer que actos de tortura o malos tratos han sido cometidos, sin que tenga mayor relevancia el origen de la sospecha. El artículo 12 requiere igualmente que la investigación sea pronta e imparcial. Con respecto a la prontitud, el Comité observa que la misma es esencial, tanto para evitar que la víctima pueda continuar siendo sometida a los actos mencionados como por el hecho de que, salvo que produzcan efectos permanentes y graves, en general, por los métodos empleados para su aplicación, las huellas físicas de la tortura y, con mayor razón, de los tratos crueles, inhumanos o degradantes, desaparecen en corto plazo.”*

Oraindik orain, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak, 2004-11-02ko epaian Espainiako estatua zigortu du Hitzarmenaren 3. artikulua hausteagatik, bada, haren ustez, tratu txarreatik salaketa batzuetan burututako ikerketak ez dira izan artikulua horretatik eratorritzen diren obligazioak betetzeko izan beharko luketen bezain sakonak. Auzitegi horren iritziz, baldin eta pertsona batek, poliziaren esku, artikulua horren kontrakoak diren krudelkeria larriak pairatu dituela modu defendagarrian adierazten badu, estatuak ikerketa ofizial eraginkorra egin beharra dauka. Aztertutako kasuan, agintari judizialek kezagileen froga-eskubideak oro ezetsi dituztela egiaztatu da, eta, horrela, salatutako egintzak argitzeko zituzten arrazoizko aukerak kendu dizkietela; orduan, izapide horiek nahikoak izan ez direla kontuan izanik, Hitzarmena urratu dela adierazi behar da.

Ildo berean, lehen aipatutako Alren txosten berrian, zera gomendatzen da: jendaurrean onar dadila Espainian gertatu gertatzen direla, sistematikoki ez bada ere, tortura-kasuak; horrez gain, gobernuari eskatzen dio “berma dezala justicia administrazioak nahikoa baliabide dituela tortura-delituak bizkor, zehatz, alderdikieririk gabe eta modu eraginkorrean ikertzeko”.

Horren gainean, gogoratu behar da NBEK ez ezik, nazioarteko beste erakunde batzuek ere portaera-arauek eta gidaliburuak prestatu dituztela (esaterako, *Istanbulko Protokoloa, 2001*) tortura eta beste tratu edo zigor anker, bihozgabe edo lotsazarleak ikertzeko eta dokumentatzeko. Gobernuari etengabe eskatzen zaie horiek erabil ditzatela.

Nahiz eta ikerketa judizialaren zeregina alor honetan ezinbestekoa eta funtsezkoa izan, berriro ere adierazi behar dugu segurtasun kidegoek eta indarrek berek segurtasunetz parte hartu behar dutela torturaren kontrako

borrokan eta, horretarako, polizia-jardueraren bat salatzen denean edo jarduera jakin bat debekua eremuan sar litekeela susmatzen denean, ahaleginak egin behar dituztela hura erabat argitzeko –beharrezkoa bada, ofizioz jardunez–. Horrela, Arartekoak hitzez hitz berresten du Eusko Legebiltzarrari 2003an prestatutako txostenean egin zuen gomendio orokorra: *Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako*. Gomendio hori onartzeak ofizioz ikertzeko barne-izapideak hastea dakar berekin, betiere legez kanpoko ekintzaren bat burutu dela pentsarazten duten bidezko arrazoiak badira; horretarako, herritarren kekek edo salaketak lehen zantzutat hartu behar dira eta beti ikertu behar dira, zeharo gaitzetsi barik.

Gomendio horretan eta beste zenbait aldiz, erakunde honek komenigarritzat jo du polizi zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko aukera emango duten adierazleak ezartzea, besteak beste, legez kontrako polizi jardueri buruzko kekekin eta ikerketaizapideekin zerikusia duena. Helburu berarekin, Alk segurtasun kidego eta indarrei gomendatzen die jendaurrean ezagutzera eman ditzatela tortura edo tratu txarrezko kasuei dagozkien estatistika-datuak –osagai etnikoa duten kasuak zeintzuk diren zehaztuz–, eta datu horien artean sar ditzatela barruko ikerketa irekiak, zigorespedienteak, hartutako badaezpadako neurriak eta, halakorik badago, ezarritako diziplina-zigorrek eta zigor penalak.

### II.3. Giza eskubideen urratze horiek zigortzea eta biktimei egindako kaltearengatik ordaina ematea

Torturaren eta beste tratu krudel edo lotsarazleen kontrako borrokaren zirkulua, zalantzarik gabe, erantzuleak jazarrit eta zigorrak ezarrit ixten da –zigorrak gizakiaren duintasunaren eta osotasunaren kontrako delitu horren larritasunaren arabera izango dira–. Edo, bestela esanda, giza Eskubideen urratze horiek zigorrak gabe uztea izango litzateke laidoaren azken ekintza, eta delitu horretan gaizkide bihurtuko litzateke berori baimentzen duen agintaritza.

Tamalez, torturaren kontrako borrokan aurrerapausoak egin diren arren, errudunak zigortzea konplexua da eta oso gutxitan egiten da. Mundu osoan ikusten da hori. Gure herrialdean, –lehen adierazi dugunez– ikerketak ez dira eraginkorrak eta alor horietan frogak lortzeko zailtasunak izaten dira; horiekien batera, hauxe da alderdirik kezkarriena: epaiketak izugarri atzeratzen dira eta, sarritan, kondenarik bada, hori beteazteko eragozpenak izaten dira.

Alk bere txosten berrian epaien lagin zabal bat aztertu eta gero, ondorio hau ateratu du: horrelako delituengatik bideratutako prozesu gehienak 7 urtetik gora iraun dutela (% 40, adibidez, 5 eta 10 urte bitartean luzatu dira; % 27, 10 eta 15 urte bitartean eta % 16, 15 eta 20 urte bitartean). Ikusten denez, atzerapenek mesede egiten diete ustezko erantzuleei eta bigarrenez biktimei bihurtzen dituzten tortura pairatu duten pertsonak.

Al kezkatuta dago –eta guk geure egiten dugu kezka hori– kasu asko eta askotan, torturak eta tratu txarrak epaiketetan frogatuta geratu arren, biktimek ez dutelako inolako ordainik jasotzen. Benetako zigorgabetasun hori honelako faktoreek eragiten dute: delituak preskribitzea eta egileak ez identifikatzea, polizi kidegoek laguntzarik ematen ez dutelako, neurri handi batean. Halaber, azpimarratu beharra dago Justizia administrazioak ardurarik eza erakusten duela tortura edo tratu txarrei buruzko akusazioak ikertzean, eta, gainera, egiaztatu denez, akusazio horiekien zerikusia duten agenteak berak mailaz igo edo saritu dituztela, prozedura judizialak bukatu gabe ere. Horrez gain, urteetan, anitz indultu eman zaizkie horrelako delituengatik zigortuta zeudenei.

Errudunak benetan zigorrak gabe uzteak areagotu egiten du torturaren biktimei sufrimendua eta, aldi berean, ahuldu egiten du herri-aginteei agintekeria eta sistemaren desbideratze horren kontra eskaintzen duten babesean gizarteak duen konfiantza, zalantzan jartzen baita giza eskubideen urratze onartezin horri aurre egiteko agintariak hartutako konpromisoa egiazkoa den ala ez. Baina, are gehiago, zigorgabetasunak, izatez, edukirik gabe uzten du, huts-hutsik, torturaren biktimei behar bezalako ordaina jasotzeko duen eskubidea, Hitzarmenaren 14. artikuluan berariaz aitortua.

Alren txosten monografikoan indartsu errebindikatzen da torturaren biktimei estatuaren aldetik berehala ordaina jasotzeko eskubidea dutela, honako hauek barne hartzen direla: lehengo egoerara itzultzea, kalte-ordain justu eta egokia ematea, medikuen arreta eta errehabilitazio egokiak. Ordaina eragozten duten faktoreak zehatz-mehatz aztertu ondoren (“besteak beste, prozesuen iraupena, indultuak, isolamendu erregimenari eustea, tortura eta tratu txarrei buruzko delituengatik eman beharreko ordainak baloratzeko berariazko irizpiderik ez izatea, kalteak gutxiestea eta gobernuaren laguntzarik ez izatea”), Alk zera ondorioztatu du: herrialde honetan “ez direla behar bezala babesten tortura eta tratu txarren biktimei kalte-ordain justu eta egokia jasotzeko dituzten eskubideak”. Arartekoaren iritziz, alderdi hori funtsezkoa da torturak biktimearengan, baina baita

gizarte osoarengan ere sortzen duten trauma-egoera gainditzeko, eta justizian oinarritzen den bizikidetasun baketsua berriz ezartzeko bidea da.

### III. TORTURA DESAGERRARAZTEKO BORROKAN, HERRI-AGINTE GUZTIEK HARTU BEHAR DUTE PARTE

Orain arte azaldutako gogoeten bidez, torturaren aurka eta gizakien duintasuna eta eskubideak babesteko hartu behar diren oinarritzko neurriak eta erakutsi behar den jarrera gogorarazi nahi izan ditugu. Ez da ezer berririk ez orijinalik, baina erakunde eskubide-bermatzaile honi beharrezkoa iruditu zaio gai honetaz adierazpen berariazkoa, argia eta nabaria egitea, bere konpromiso etikoa eta edonolako tratu anker, krudel edo lotsarazleen kontra borrokatzeko asmo sendoa erakuste aldera.

Abiapuntu horretatik, herritar guztien eskubideak babestu eta giza Eskubideen aldeko kultura zabaltzeko duen eginkizuna betez, Arartekoak, ildo berean, konpromisoa eskatu behar die administrazio eta erakunde publiko guztiei. Horregatik, zera eskatu behar die herri-aginteei eta, bereziki, erakunde honek kontrolatzen dituen: agiri honetan bildutako iradokizun eta proposamenak onar ditzatela eta, nork bere eskumen-eremuan, gizarteari horiek betearazteko hitza eman diezaiotela.

Gure aldetik eta hala behar duelako, Arartekoak gogotik eutsiko dio gure erkidegoan bizi diren pertsona ororen giza eskubideak babesteko ahaleginari, eta, bereziki, bere eskumen-eremuan, tortura desagerrarazten lagun dezaketen jarduera guztiak burutuko ditu. Ez dira ahaztu behar, ordea, indarreko legeriak gurea bezalako erakunde eskubide-bermatzaileei ezartzen dizkien mugak.

Horrela, esate baterako, gogora dezagun atxiloteta bera eta atxiloteta luzatzea edo isolatzea beti organo judicial batek baimentzen dituela, hari baitagokio, legeriaren arabera, zigor-prozedura osoan errudun jokatokaren eskubideak zaintzea. Beste alde batetik, ohikoa da pertsona kaltetuak ustez torturak edo tratu txarrak diren egintzak epaileari salatzea; horrek erakunde eskubide-bermatzaileei esku hartzea eragozten die, legeak galarazi egiten baitie epaileen iritzipean jarritako gaiak aztertzea.

Arartekoak esku hartzeko duen beste muga bat bere eskumenen ondoriozkoa da. Tortura erabiltzea leporatzen zaion polizia kidego bat Barne Ministerioaren mende baldin badago, erakunde honen jarduera-eremutik kanpo geratzen da ikuskatze-lana, eta, beraz, Espainiako Defensor del Pueblori jakinarazi behar dio kasua.

Salaketak Euskal Herriko Poliziari dagozkionean, erakunde honek bere esku dauden gizaldeko edo kontrolatzeko izapide guztiak egiten ditu, baina, azaldu ditugun arrazoiengatik, kasu horietan gure lana ezin dugu salatutako egintzak argitzera bideratu –epaile-jarduerak dauden bitartean behintzat–, baizik eta, batez ere, poliziaren egikera horiei aurrea hartzera eta ikuskatzera, legez kontrako jarduerak eragozteko tresnak ezartzeko, edo, gertatzen badira, jarduerok agerian jarri eta zigortzeko.

Hain zuzen, erakunde honen lana batik bat prebentziozkoa delako azpimarratu ditugu agiri honetan halako proposamenak, baita polizia kidegoen barne-kontrolari dagozkionak ere, baina horrek ez du esan nahi justizia administrazioaren zeregina, funtsezkoa eta ezinbestekoa, alde batera uzten denik, batez ere tortura edo beste tratu anker edo lotsarazleak ikertu eta zigortzeari eta biktimei ordain egokia emateari dagokienez.

Giza eskubideak babestearen ikuspegitik, ez dago axola gabe jokatzetik agintetik gizakiaren duintasunaren kontra egin daitekeen lege-urratzerik larrienaren aurrean. Torturak indar hertsagarria krudeltasunez eta bidegabeki erabiltzea dakar berekin eta, hortaz, demokrazia-sistemaren bide-okertze gorena da eta jasaten duenari sufrimendu bidegabeta eta zeharo justifikaezina eragiten dio.

Beraz, Euskal Herriko Arartekoa naizenez, beharrezkoa iruditu zait agiri honetan erakunde honek duen jarrera azaltzea, hainbat gogoeta eta gomendio egitea eta, orobat, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean ezarritakoa gauzatzen laguntzeko nik neuk eta erakundeak dugun konpromisoa agerian jartzea:

*“Ezin da **inor** torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere”.*

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 21a

Iñigo Lamarca Iturbe  
ARARTEKOA


III. ERANSKINA

**GRAFIKOAK**






### ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN IRREGULARTASUNA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2004an BURUTUTAKO KEXETAN




1. DIAGRAMA

### ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBAITERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA



2. DIAGRAMA


### ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2004)



1 545 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.  
 2 1.143 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.  
 3 62 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.  
 4 264 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.


3. DIAGRAMA

### 2004an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




4. DIAGRAMA

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




5. DIAGRAMA

### ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




6. DIAGRAMA

### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




7. DIAGRAMA

### EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




8. DIAGRAMA

### FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




9. DIAGRAMA

### UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




10. DIAGRAMA

### LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2004)



11. DIAGRAMA


### LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2004)



- 1 Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
- 2 Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
- 3 Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
- 4 Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
- 5 BI kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.


12. DIAGRAMA

### JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERREKLAMATZAILEEN EZAUGARRIEN ARABERA




13. DIAGRAMA

### JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



14. DIAGRAMA


### JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA




15. DIAGRAMA



### 2004an ARRETA ZUZENENKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)




16. DIAGRAMA




17. DIAGRAMA

### BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA




18. DIAGRAMA

**KEXA BILAKATUTAKO BISITAK****GUZTIRA 662****19. DIAGRAMA**


## OFIZIOZKO JARDUERAK (2004)

### BANAKETA ALORREZ ALOR



20. DIAGRAMA



### ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA



21. DIAGRAMA



## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?



**22. DIAGRAMA**


### 2. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?




**23. DIAGRAMA**

### ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

#### 3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kezari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?




2004




2003

24. DIAGRAMA

#### 4. Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:



2004




2003


25. DIAGRAMA

**ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)**

**5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (Hau da, erakutsitako interesa, erabilgarritasuna, egindako kudeaketak...)**




2004




2003

26. DIAGRAMA

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**



2004





2003

27. DIAGRAMA

**ARAZOA “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da”  
DIOTEN ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ  
EGIN DUTEN BALORAZIOA**



**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?**

(Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



**28. DIAGRAMA**

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**



**29. DIAGRAMA**

# **GAIEN AURKIBIDEA**





**A****Abeltzaintzako ustiategiak**

Gutxieneko distantziak, 205

**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 315**

Bidegabeko atzerapenak, 323

Diziplina espedienteak

Zioak ez azaltzea, 323

Espedientea ikusteko aukera, 319

**Adinekoak, 394, 581**

Egoitzak, 45

Etxebizitza komunitarioak, 214, 218

Egoitzaz kanpoko laguntza, 47

Etkez etxeko laguntza zerbitzua

Prezio publikoak, 215, 221

Gizarte eta osasun prestazioak, 394, 581

Gizarte zerbitzuak, 45, 47, 159, 394, 581

Errolda, 396

Herriaren defendatzaileak, 188

Irisgarritasuna, 396

Osasun prestazioak, 394, 581

Telelaguntza zerbitzua, 213

**Adingabe atxilotuak, 400****Adingabeak, 397, 401, 575**

Adingabe atxilotuak, 400

Adingabeko lege hausle atzerritarrak, 56, 408

Adingabeko lege hausleak, 56, 314, 398, 576

Barneratze zentroak, 56, 314, 402

Terrorismoa, 65, 314, 576

Tratu txarrak, 314

Aita bananduak, 232, 236

Atxilotuak, 566

Atzerritar adingabeak

Hezkuntza, 181

Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 49, 162, 398, 408, 575

Babesik gabeko adingabeak, 49, 397

Babes zentroak, 53, 402

Burutik gaixo dauden adingabeak, 400

Burutik gaixo daudenak, 577

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Eskola garraioa, 231, 237, 497

Hizkuntz ereduak, 231, 237, 497

Emakumeen kontrako indarkeria, 402

Eskolako indarkeria (bullying-a), 52, 186, 233, 402, 572

Ezgaitasunen bat duten pertsonak

Hezkuntza-premia bereziak, 96

Gizarte eskubideen aldeko hezkuntza, 404

- Gizarte taldeak, 403
- Haur eskolak, 230, 507, 567, 572
- Haur hezkuntza, 405, 572
  - Hezkuntza-premia bereziak, 232, 242
  - Hizkuntz ereduak, 231, 243
  - Tratu txarrak, 233
- Herriaren defendatzaileak, 188, 230
- Hezkuntza-premia bereziak, 399
- Lanbide heziketa
  - Hezkuntza-premia bereziak, 232
- Legegintzaren beharra, 405, 576
- Lehen hezkuntza
  - Eskola garraioa, 236, 239
  - Hezkuntza-premia bereziak, 240
  - Hizkuntz ereduak, 240
- Nazioarteko adopzioa
  - Adin-muga, 575
- Polizia
  - Ikastegiak, 299
- Sasoikako langile adingabeak, 399
- Unibertitateaz kanpoko hezkuntza
  - Batxilergoa, 233
  - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 405
  - Ikasteko laguntzak, 494
  - Irakasle ezegonkorak, 235
- Zaintza partekatua
  - Emakumeak, 390
- Adingabeko lege hausle atzerritarrek, 56, 408**
- Adingabeko lege hausleak, 56, 314, 398, 576**
  - Barneratze zentroak, 56, 314, 402
  - Terrorismoa, 65, 314, 576
  - Tratu txarrak, 314
- Administrazioaren erantzukizuna**
  - Bizkaibus, 498
  - Ebatzi beharra, 499
  - Foru zerbitzu publikoak, 494
  - Garraio publikoak
    - Ordainketa, 341, 349
  - Hiri-bideak mantentzeko lanak, 500
  - Ibilgailuak erretiratzea, 296, 305
  - Jabetza pribaturako eskubidea, 574
  - Udal zerbitzu publikoak, 346, 495, 499
  - Zerbitzu publikoak, 340
- Administrazioaren kontratazioa**
  - Hizkuntz normalizazioa, 224, 227
- Aita bananduak**
  - Hezkuntza, 232, 236
- Alardeak**
  - Sexuagatiko bereizkeria
    - Emakumeak, 384
- Aldi baterako kontratazioa**
  - Funtzio publiko orokorra, 260, 498, 499
- Alergiak**
  - Haur hezkuntza, 232, 242

**Animaliak edukitzea, 329**

Txakur arriskutsuak, 538

**Antolamendu juridikoaren printzipio nagusiak**

Berdintasun printzipioa, 561

Atzerritarrak, 298, 299, 407, 520, 563

Emakumeak, 246, 247, 262, 263, 376, 384, 386, 388, 389, 497, 562

Lan-bereizkeria, 297

Errugabetasun-ustearen printzipioa, 569

Legezkotasun printzipioa

Aparkalekuak, 295, 495, 499

Kalez kaleko salmenta, 298, 495

Udal tasak, 495

Non bis in idem

Aparkalekuak, 294

Norberaren erantzukizunaren printzipioa

Prozedura zigortzailea, 497

Segurtasun juridikoaren printzipioa

Udal tasak, 495

**Antzutasunaren tratamenduak**

Itxaron zerrendak, 353

Osasun prestazioak, 352

**Aparkalekuak**

Egoiliar txartelak

Legezkotasun printzipioa, 295, 495, 499

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 295, 499

Prozedura zigortzailea, 294

Seinaleztapena, 296

**Arkitektura-oztopoak, 365**

Eraikinak, 412

**Arrazoitu beharra**

Oinarrizko errenta, 219

**Atmosferako kutsadura**

Industriak, 327, 329

Ostalaritza establezimenduak, 326

**Atxilotuak**

Adingabeak, 566

Gizarte taldeak, 171

Gorputz miaketak, 300, 566, 567

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 566

Tortura, 301, 387, 564, 592

Tratu txarrak, 387, 564

Udalen atxilotze-lekuak, 112

Ziegak, 112

**Atzerritarrak, 406**

Adingabeako lege hausleak, 56, 408

Atzerritar adingabeak, 181

Babes ofizialeko etxebizitzak

Betekizunak, 407

Babesik gabeko adingabeak, 49, 162, 398, 408

Emakumeak

Etxeko lana, 181

Erroldatzeko eskubidea, 406

Gizarte taldeak, 171, 408

Gizarteratzea, 406

Identifikazio agiriak, 299, 303, 407  
 Jatorriagatiko bereizkeria  
     Polizia, 298, 299, 407, 520, 563  
 Kultur gutxiengoak, 181  
 Osasunerako eskubidea, 408, 541, 577  
 Polizia, 74  
 Salatzeko eskubidea, 299, 303, 407

### **Auzibideratzeak**

Bidegabeko atzerapenak, 317

## **B**

### **Babes bereziko taldeak**

Adinekoak, 394, 581  
     Egoitzak, 45, 214, 218  
     Egoitzaz kanpoko laguntza, 47  
     Errola, 396  
     Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 215, 221  
     Gizarte eta osasun prestazioak, 394, 581  
     Gizarte zerbitzuak, 45, 47, 159, 394, 581  
     Herriaren defendatzaileak, 188  
     Irisgarritasuna, 396  
     Osasun prestazioak, 394, 581  
     Telelaguntza zerbitzua, 213  
 Adingabe atxilotuak, 400  
 Adingabeak, 397, 401, 575  
     Adingabeko lege hausleak, 576  
     Aita bananduak, 232, 236  
     Atxilotuak, 566  
     Babesik gabeko adingabeak, 216  
     Burutik gaixo daudenak, 93, 577  
     Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 231, 237, 497  
     Emakumeen kontrako indarkeria, 402  
     Eskolako indarkeria (bullying-a), 52, 186, 233, 402, 572  
     Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 96  
     Gizarte eskubideen aldeko hezkuntza, 404  
     Gizarte taldeak, 171, 403  
     Haur eskolak, 230, 507, 567, 572  
     Haur hezkuntza, 231, 232, 233, 242, 243, 405, 572  
     Herriaren defendatzaileak, 188, 230  
     Hezkuntza-premia bereziak, 399, 572  
     Lanbide heziketa, 232  
     Legegintzaren beharra, 405, 576  
     Lehen hezkuntza, 236, 239, 240  
     Nazioarteko adopzioa, 575  
     Polizia, 299  
     Tratu txarrak, 300  
     Unibertitateaz kanpoko hezkuntza, 233, 235, 405, 494  
     Zaintza partekatua, 390  
 Adingabeko lege hausle atzerritarak, 56  
 Adingabeko lege hausleak, 56, 314, 398  
     Barneratze zentroak, 56, 314, 402  
     Terrorismoa, 65, 314, 576  
 Atxilotuak  
     Adingabeak, 566

- Gizarte taldeak, 171
- Gorputz miaketak, 300, 566, 567
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 566
- Tortura, 301, 387, 564, 592
- Tratu txarrak, 300, 387, 564
- Udalen atxilotze-lekuak, 112
- Ziegak, 112
- Atzerritar adingabeak
  - Hezkuntza, 181
- Atzerritarrak, 406
  - Adingabeko lege hausleak, 56, 408
  - Atzerritar adingabeak, 181
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 407
  - Babesik gabeko adingabeak, 49, 162, 398, 408
  - Emakumeak, 181
  - Erroldatzeko eskubidea, 406
  - Gizarte taldeak, 171, 408
  - Gizarteratzea, 406
  - Identifikazio agiriak, 299, 303, 407
  - Jatorriagatiko bereizkeria, 298, 299, 407, 520, 563
  - Kultur gutxiengoak, 181
  - Osasunerako eskubidea, 408, 541, 577
  - Polizia, 74
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 49, 162, 398, 408, 575
- Babesik gabeko adingabeak, 49, 397
  - Babes zentroak, 53, 402
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 400
- Burutik gaixo daudenak
  - Adingabeak, 93, 400, 577
  - Gizarte arreta, 90
  - Gizarte beharrian larrietarako laguntzak, 212
  - Gizarte taldeak, 171
- Drogaren menpekoak
  - Gaeko aterpetxeak, 77
- Emakumeak
  - Atzerritarrak, 181
  - Emakumeen kontrako indarkeria, 142, 378, 387, 402, 562, 564
  - Epaileen ebazpenak, 318
  - Espetxeratuak, 311, 386, 562
  - Kexak, 381
  - Lanbidea eta familiako bititza uztartzea, 246, 263, 497
  - Sarrera, 247, 262, 386
  - Sexuagatiko bereizkeria, 376, 384, 386, 388, 389, 390, 562
  - Zaintza partekatua, 390
- Espetxeratuak, 308
  - Bizitzeko eskubidea, 313
  - Emakumeak, 311, 386, 562
  - Espetxeak, 26
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 311
  - Gizarte eta osasun prestazioak, 312
  - Gizarte taldeak, 171
  - Osasun prestazioak, 312, 570
  - Terrorismoa, 308
  - Tratu txarrak, 310
  - Zigorra non bete, 310

- Etorkinak
  - Osasunerako eskubidea, 352
- Etixerik gabeko pertsonak, 169
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 409
  - Adingabeak, 399
  - Aparkalekuak, 295, 499
  - Enplegu-zentro bereziak, 214
  - Funtzio publiko orokorra, 124, 245, 266, 409, 568
  - Gizarte taldeak, 171
  - Gizarte zerbitzuak, 411
  - Gizareratzea, 580
  - Hezkuntza-premia bereziak, 232, 238, 240, 399, 409
  - Irisgarritasuna, 136, 340, 341, 365, 411, 412, 414, 580
  - Kotizazio gabeko pentsioak, 311
  - Lanerako eskubidea, 124, 409
  - Matrikulazio zerga, 288, 410
  - Osasun alorreko funtzio publikoa, 248, 277
  - Salbuespenak, 285
  - TMIZ, 283, 410, 500, 530, 573
- Familia, 575
  - Familia ugariak, 340
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 215
  - Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 215
- Frankismoaren biktimak
  - Gizarte taldeak, 171
- Gaixo terminalak
  - Zainketa aringarriak, 181
- Gazteak
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 166, 365
- HIESa duten gaixoak
  - Osasun prestazioak, 352, 577
- Ijitoak
  - Gizarte taldeak, 171
- Kultur gutxiengoak, 181
- Sasoikako langile adingabeak, 399
- Sasoikako langileak, 39
  - Gizarte taldeak, 171
- Terrorismoaren biktimak, 587
  - Gizarte taldeak, 171
- Txiroak
  - Gizarte beharrian larrietarako laguntzak, 211, 212
  - Oinarrizko errenta, 219
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 579**
  - Adjudikazioa, 366, 579
  - Betekizunak, 366, 374, 554, 579
  - Atzeritarrak, 407
  - Eraikuntzaren akatsak, 367, 497
- Babesik gabeko adingabe atzeritarrak, 49, 162, 398, 408, 575**
- Babesik gabeko adingabeak, 49, 397**
  - Adopzioa, 216
  - Babes zentroak, 53, 402
  - Harrera, 216
- Bakezaleak**
  - Gizarte taldeak, 171

**Balkoiak ixtea**

Hirigintzako diziplina, 548

**Banantzea eta dibortzioa**

Sexuagatiko bereizkeria  
Emakumeak, 390

**Bekak**

Giza eskubideak, 181  
Hizkuntz normalizazioa, 226  
Unibertsitate hezkuntza, 232, 238, 409

**Berdintasun printzipioa**

Atzeritarrak  
Polizia, 298, 299, 407, 520, 563  
Emakumeak  
Alardeak, 384  
Berdintasunerako politikak, 388  
Funtzio publiko orokorra, 246, 247, 262, 263, 386  
Gizarte komunikabideak, 376  
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 497, 562  
Norbaiten laguntza behar duten pertsonak zaintzea, 389  
Lan-bereizkeria, 297

**Berdintasunerako eskubidea, 561**

Atzeritarrak  
Polizia, 298, 299, 407, 520, 563  
Emakumeak, 384  
Alardeak, 384  
Berdintasunerako politikak, 388  
Funtzio publiko orokorra, 246, 247, 262, 263, 386  
Gizarte komunikabideak, 376  
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 497, 562  
Norbaiten laguntza behar duten pertsonak zaintzea, 389  
Lan-bereizkeria, 297

**Berdintasunerako politikak**

Sexuagatiko bereizkeria  
Emakumeak, 388

**Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea**

Aurretiko zerbitzuak, 249, 251  
Ezgaitasunen bat duten pertsonak  
Sarrera, 248, 266, 277, 568  
Funtzio publiko orokorra, 567  
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 249  
Egindako zerbitzuak, 503  
Ordezkapenak, 497  
Sarrera, 497  
Lantokien adjudikazioa, 248, 275  
Sexuagatiko bereizkeria, 247, 262, 386  
Titulazioak, 246, 265

**Bereizkeriazko hizkera**

Atzeritarrak  
Polizia, 298

**Berriro gizarteratzeko eskubidea**

Espetxeratuak, 26, 310, 570

**Bidegabeko atzerapenak**

Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 569

**Biltokiak**

Zaratak, 331



**Bitartekaritza, 376**

Hirigintzako kudeaketa, 495

**Bitarteko funtzionarioak**

Euskara eta hezkuntza, 568

**Bizikletak**

Trafikoa, 296

**Bizitzeko eskubidea**

Emakumeak

Emakumeen kontrako indarkeria, 142, 378, 387, 562, 564

Espetxeratuak, 313

Terrorismoaren biktimak, 563, 587

**Burutik gaixo daudenak**

Adingabeak, 93, 400, 577

Gizarte arreta, 90

Gizarte taldeak, 171

**D****Datu pertsonalak babestea, 566****Dekomisioa**

Kalez kaleko salmenta, 298, 495

**Delituen biktimak, 317****Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

Eskola garraioa, 231, 237, 497

Hizkuntz ereduak, 231, 237, 497

**Diskotekak**

Zaratak, 333

**Doako laguntza juridikoa, 316****Drogaren menpekoak**

Gaueko aterpetxeak, 77

**E****Ebatzi beharra**

Administrazioaren erantzukizuna

Udal zerbitzu publikoak, 495

Prozedura zigortzailea

Trafikoa, 502

**EBko Konstituzioa**

Oinarrizko eskubideak, 181

**Egoitzak**

Adinekoak, 45

Etxebizitza komunitarioak

Laguntzak eta diru-laguntzak, 214, 218

Foru prezio publikoak, 289

**Egoitzaz kanpoko laguntza**

Adinekoak, 47

**Ehiza**

Eremu seguruak, 205

**Emakumeak**

Alardeak

Sexuagatiko bereizkeria, 384

Banantzea eta dibortzioa

Sexuagatiko bereizkeria, 390

Berdintasunerako politikak

Sexuagatiko bereizkeria, 388

- Emakumeen kontrako indarkeria, 142, 378, 387, 402, 562, 564
- Epaileen ebazpenak, 318
- Espetxeratuak, 311, 386, 562
  - Osasun prestazioak, 311, 386, 562
- Etxeko lana, 181
- Funtzio publiko orokorra
  - Lanbidea eta familiako bitzita uztartzea, 246, 263
  - Sarrera, 247, 262, 386
- Gizarte komunikabideak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 376
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
  - Lanbidea eta familiako bitzita uztartzea, 497
- Kexak, 381
- Norbaiten laguntza behar duten pertsonak zaintzea
  - Sexuagatiko bereizkeria, 389
- Osasun prestazioak
  - Sexuagatiko bereizkeria, 386, 389, 562
- Sexuagatiko bereizkeria, 384
- Tortura
  - Emakumeen kontrako indarkeria, 387
- Zaintza partekatua
  - Adingabeak, 390
- Emakumeen kontrako indarkeria**
  - Adingabeak, 402
  - Emakumeak, 142, 378, 387, 402, 562, 564
  - Tortura, 387
- Endoskopiak**
  - Osasun prestazioak, 351
- Enplegu-zentro bereziak**
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 214
- Entzumen-urritasuna**
  - Lehen hezkuntza, 240
- Entzunaldirako eskubidea**
  - Errolda, 344
- Epaileen ebazpenak**
  - Emakumeak, 318
- Eraikinak**
  - Irisgarritasuna, 136, 412
- Eraikinen mantentze-lanak**
  - Administrazioaren erantzukizuna, 494
- Erregistro zibila**
  - Inskripzioak, 390
- Errehabilitazio neuropsikologikoa**
  - Osasun prestazioak, 352
- Errolda**
  - Entzunaldirako eskubidea, 344
  - Erroldatzeko eskubidea, 338, 343
    - Atzerritarrak, 406
  - Espedientea ikusteko aukera, 344
  - Gizarte zerbitzuak, 212, 217
    - Adinekoak, 396
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 411
    - Telelaguntza zerbitzua, 213
- Errugabetasun-ustearen printzipioa, 569**

**Eskola garraioa**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 237
- Lehen hezkuntza, 236, 239
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 231

**Eskolako indarkeria (bullying-a), 52, 186, 233, 402, 572****Eskulangintza**

- Laguntzak eta diru-laguntzak, 208

**Espedientea ikusteko aukera**

- Errolda, 344
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 501
- Zergen alorreko prozedura, 285

**Espetxeak**

- Espetxeratuak, 26

**Espetxeratuak, 26, 308**

- Berriro gizarteratzeko eskubidea, 570
- Bizitzeko eskubidea, 313
- Emakumeak
  - Osasun prestazioak, 311, 386, 562
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Kotizazio gabeko pentsioak, 311
- Gizarte eta osasun prestazioak, 312
- Gizarte taldeak, 171
- Osasun prestazioak, 312, 570
- Terrorismoa, 308
- Tratu txarrak, 310
- Zigorra non bete, 310

**Estatuko funtzio publikoa, 247****Etorkinak**

- Osasunerako eskubidea, 352

**Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 365, 578**

- Atzerritarrak
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 407
- Babes ofizialeko etxebizitzak, 579
  - Adjudikazioa, 366, 579
  - Betekizunak, 366, 374, 407, 554, 579
  - Eraikuntzaren akatsak, 367, 497
- Desjabetzeak, 373
- Etxebizitzak erostea
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 502
- Gazteak, 166, 365
- Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkoa jasotzeko eskubidea, 369
- Txiroak
  - Gizarte beharrian larrietarako laguntzak, 212

**Etxebizitza komunitarioak**

- Laguntzak eta diru-laguntzak, 214, 218

**Etxeko lana**

- Emakumeak
  - Atzerritarrak, 181

**Etxerik gabeko pertsonak, 169****Etxez etxeko laguntza zerbitzua**

- Prezio publikoak, 215, 221

**Euskal herritartasun politikoa**

- Gizarte prestazioak
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 222

**Euskara eta administrazio publikoa**

Administrazioaren kontratazioa, 224, 227  
 Bekak, 226  
 Funtzio publiko orokorra, 225, 246  
 Titulazioak, 246, 265

**Euskara eta hezkuntza**

Hezkuntza plangintza  
 D eredua, 572  
 Hizkuntz ereduak, 231, 237, 240, 243, 497  
 Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 250, 568

**Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 409**

Adingabeak, 399  
 Aparkalekuak, 295, 499  
 Enplegu-zentro bereziak, 214  
 Funtzio publiko orokorra, 124, 245, 409  
 Sarrera, 266, 568  
 Gizarte taldeak, 171  
 Gizarte zerbitzuak  
 Errolda, 411  
 Gizarteratzea, 580  
 Hezkuntza-premia bereziak, 399  
 Bekak, 232, 238, 409  
 Lehen hezkuntza, 240  
 Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 96  
 Irisgarritasuna, 580  
 Arkitektura-oztopoak, 365  
 Arrapala eta eskailera mekanikoak, 414  
 Eraikinak, 136, 412  
 Garraio publikoak, 340  
 Igogailuak, 414  
 Metroa, 411  
 Portuak, 414  
 Trenak, 341, 411  
 Kotizazio gabeko pentsioak  
 Espetxeratuak, 311  
 Lanerako eskubidea, 124, 409  
 Matrikulazio zerga  
 Salbuespenak, 288, 410  
 Osasun alorreko funtzio publikoa  
 Sarrera, 248, 277  
 PFEZ  
 Salbuespenak, 285  
 TMIZ, 283, 410, 500, 530, 573

**F****Familia, 575**

Erregistro zibila, 390  
 Familia ugariak  
 Garraio publikoak, 340  
 Laguntzak eta diru-laguntzak, 215  
 Lanbidea eta familiako bitzta uztartzea, 215, 575  
 Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 497  
 Lanaldia murriztea, 246, 263  
 PFEZ  
 Baterako aitortpena, 498

**Familia ugariak**

Garraio publikoak, 340

**Farmaziak**

Farmazi eremuak, 357

**Foru prezio publikoak**

Egoitzak, 289

**Foru zerbitzu publikoak**

Administrazioaren erantzukizuna

Bizkaibus, 498

Eraikinen mantentze-lanak

Administrazioaren erantzukizuna, 494

Garraio publikoak

Ordainketa, 341, 349

Ordaintzeko modua

Bizkaibus, 498

**Foru zergak**

Matrikulazio zerga

Salbuespenak, 288, 410

Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga

Zergadunen eskubideak eta bermeak, 494

PFEZ

Baterako aitortpena, 498

Etekin irregularrak, 287

Salbuespenak, 285

Zerga-zorra, 281, 573

**Frankismoaren biktimak**

Gizarte taldeak, 171

**Funtzio publiko orokorra**

Aldi baterako kontratazioa, 499

Lizentziak eta baimenak, 260, 498

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 567

Estatuko funtzio publikoa, 247

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 124, 245, 409

Hizkuntz normalizazioa, 225, 246

Konfiantzako langileak, 247

Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea

Lanaldia murriztea, 246, 263

Laneko jazarpen morala (mobbing-a), 247

Sarrera

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 266, 568

Sexuagatiko bereizkeria, 247, 262, 386

**G****Gaixo terminalak**

Zainketa aringarriak, 181

**Garraio publikoak**

Administrazioaren erantzukizuna, 341, 349

Familia ugariak, 340

Irisgarritasuna, 340

Adingabeekin bidaiatzea, 341

Ordainketa, 341, 349

**Gas hornidura**

Instalazioak, 206

Laguntzak eta diru-laguntzak, 205, 209

**Gastuak itzultzea**

Udal zerbitzu publikoak, 499, 500

**Gaueko aterpetxeak**

Drogaren menpekoak, 77

**Gazteak**

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 166, 365

**Giza eskubideak, 561**

Atzerritarrak

Gizarteratzea, 406

Bekak, 181

Berdintasunerako eskubidea, 561

Atzerritarrak, 298, 299, 407, 520, 563

Emakumeak, 246, 247, 262, 263, 376, 384, 386, 388, 389, 390, 497, 562

Funtzio publiko orokorra, 386

Lan-bereizkeria, 297

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea

Aurretiko zerbitzuak, 249, 251

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 248, 266, 277, 568

Funtzio publiko orokorra, 567

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 249, 497, 503

Lantokien adjudikazioa, 248, 275

Sexuagatiko bereizkeria, 247, 262, 386

Titulazioak, 246, 265

Bereizkeriarik ez jasateko eskubidea

Atzerritarrak, 298, 299, 407, 520, 563

Emakumeak, 376, 384, 386, 388, 389, 390, 562

Berriro gizarteratzeko eskubidea

Espetxeratuak, 26, 310, 570

Bizitzeko eskubidea

Emakumeak, 142, 378, 387, 562, 564

Espetxeratuak, 313

Terrorismoaren biktimak, 563, 587

EBko Konstituzioa, 181

Gizarte eskubideen aldeko hezkuntza

Adingabeak, 404

Grebarako eskubidea

Enplegu-erregulazioko espedientea, 360

Herriaren defendatzaileak, 193

Hezkuntzarako eskubidea, 571

Adingabeak, 399, 572

Atzerritar adingabeak, 181

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 96

Haur hezkuntza, 405, 572

Ikasteko laguntzak, 494

Informaziorako eskubidea

Gizarte komunikabideak, 225, 228

Intimitaterako eskubidea

Atxilotuak, 567

Kutsadura akustikoa, 567

Kultur gutxiengoak, 181

Material didaktikoa, 182

Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea

Atxilotuak, 566

Atzerritarrak, 74

- Azpikontrataturiko langileak, 297, 301
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 575
- Emakumeak, 142, 378, 387, 562, 564
- Espetxeratuak, 308
- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 566
  - Datu pertsonalak babestea, 566
- Ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea
  - Atzerritarrak, 74
- Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea
  - Adingabeak, 52, 186, 402, 572
  - Adingabeko lege hausleak, 314
  - Atxilotuak, 299, 300, 301, 387, 407, 564, 566, 567, 592
  - Atzerritarrak, 74, 299, 407
  - Delituen biktimak, 317
  - Emakumeak, 142, 378, 387, 402, 562, 564
  - Espetxeratuak, 308, 310
  - Gaixo terminalak, 181
  - Terrorismoaren biktimak, 563, 587
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 569
  - Atzerritarrak, 299, 303, 407
  - Auzibideratzeak, 317
  - Bidegabeko atzerapenak, 569
  - Doako laguntza juridikoa, 316
  - Emakumeak, 318
  - Jakinarazpenak, 293, 494, 569
  - Zergen alorreko prozedura, 569
- Gizarte beharrian larrietarako laguntzak**
  - Berandutzeak, 211
  - Burutik gaixo daudenak, 212
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 212
- Gizarte eskubideak, 561**
  - Adinekoak, 394, 581
    - Egoitzak, 45, 214, 218
    - Egoitzaz kanpoko laguntza, 47
    - Errolda, 396
    - Etkez etxeko laguntza zerbitzua, 215, 221
    - Gizarte eta osasun prestazioak, 394, 581
    - Gizarte zerbitzuak, 45, 47, 159, 394, 581
    - Herriaren defendatzaileak, 188
    - Irigarritasuna, 396
    - Osasun prestazioak, 394, 581
    - Telelaguntza zerbitzua, 213
  - Adingabeak, 575
    - Adingabeko lege hausleak, 56, 314, 398, 402, 576
    - Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 398
    - Babesik gabeko adingabeak, 49, 53, 216, 397, 402
    - Burutik gaixo daudenak, 93
    - Legegintzaren beharra, 576
    - Nazioarteko adopzioa, 575
    - Sasoikako langile adingabeak, 399
  - Atzerritarrak
    - Gizarteratzea, 406
    - Osasunerako eskubidea, 408, 541, 577

- Burutik gaixo daudenak
  - Adingabeak, 93
  - Gizarte beharrian larrietarako laguntzak, 212
- Espetxeratuak
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 311
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 365, 578
  - Atzerritarrak, 407
  - Babes ofizialeko etxebizitzak, 366, 367, 374, 497, 554, 579
  - Desjabetzeak, 373
  - Etxebizitzak erostea, 502
  - Gazteak, 166, 365
  - Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkoa jasotzeko eskubidea, 369
  - Txiroak, 212
- Euskal herritartasun politikoa
  - Gizarte prestazioak, 222
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 409
  - Enplegu-zentro bereziak, 214
  - Errolda, 411
  - Funtzio publiko orokorra, 266, 568
  - Gizarteratzea, 580
  - Irigarritasuna, 136, 295, 340, 341, 365, 411, 412, 414, 499, 580
  - Kotizazio gabeko pentsioak, 311
  - Laneratzea, 124, 409
  - Osasun alorreko funtzio publikoa, 248, 277
  - Salbuespenak, 285, 288, 410
  - TMIZ, 283, 410, 500, 530, 573
- Familia, 575
  - Familia ugariak, 340
  - Lanbidea eta familiako bititza uztartzea, 215, 246, 263, 497
  - PFEZ, 498
- Gazteak
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 166
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 577
  - Atmosferako kutsadura, 326, 327, 329, 578
  - Kutsadura akustikoa, 207, 326, 331, 333, 334, 335, 578
- Kultur ondarea
  - Arkitektura ondarea, 502
- Lanerako eskubidea, 184
  - Azpikontataturiko langileak, 297
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 124, 409
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 86
- Osasunerako eskubidea, 576
  - Adinekoak, 394, 581
  - Atzerritarrak, 408, 541, 577
  - Burutik gaixo dauden adingabeak, 400
  - Burutik gaixo daudenak, 90, 577
  - Emakumeak, 311, 386, 389, 562
  - Espetxeratuak, 311, 312, 386, 562, 570
  - Etorkinak, 352
  - HIESA duten gaixoak, 577
  - Uraren osasungarritasuna, 121
- Txiroak
  - Gizarte beharrian larrietarako laguntzak, 211, 212
  - Oinarrizko errenta, 219



**Gizarte eskubideen aldeko hezkuntza**

Adingabeak, 404

**Gizarte eta osasun prestazioak**

Adinekoak, 394, 581

Espetxeratuak, 312

Gizarte termalismoa, 354

**Gizarte komunikabideak**

Informaziorako eskubidea, 225, 228

Sexuagatiko bereizkeria

Emakumeak, 376

**Gizarte prestazioak**

Laguntzak eta diru-laguntzak, 222

**Gizarte taldeak, 171**

Adingabeak, 403

Atxilotuak, 171

Atzeritarrak, 171, 408

Burutik gaixo daudenak, 171

Espetxeratuak, 171

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 171

Frankismoaren biktimak, 171

Haur hezkuntza, 171

Hezkuntza-premia bereziak, 171

Ijitoak, 171

Sasoikako langileak, 171

Terrorismoaren biktimak, 171

**Gizarte termalismoa**

Gizarte eta osasun prestazioak, 354

**Gizarte zerbitzuak**

Adinekoak, 45, 47, 159, 394, 581

Egoitzak

Etxebizitza komunitarioak, 214, 218

Foru prezio publikoak, 289

Errolda, 212, 217

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 411

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Prezio publikoak, 215, 221

Gaueko aterpetxeak

Drogaren menpekoak, 77

Gizarte beharizan larrietarako laguntzak

Berandutzeak, 211

Burutik gaixo daudenak, 212

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 212

Gizarte prestazioak

Laguntzak eta diru-laguntzak, 222

Lurralde historikoak, 214

Oinarrizko errenta

Arrazoitu beharra, 219

Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 86

Prozedura administratiboa, 216

Telelaguntza zerbitzua

Errolda, 213

Prezio publikoak, 213

**Gizarteratzea**

Atzeritarrak, 406

**Gorputz miaketak**

Atxilotuak, 300, 566, 567

**Grebarako eskubidea**

Enplegu-erregulazioko espedienteak, 360

**H****Haur eskolak**

Haur hezkuntza, 230, 507, 567, 572

Lanpostuen zerrenda, 249, 255, 503

**Haur hezkuntza**

Gizarte taldeak, 171

Haur eskolak, 188, 230, 507, 567, 572

Hezkuntza-premia bereziak, 572

Alergiak, 232, 242

Hizkuntz ereduak, 231, 243

Irakaskuntzaren programazio orokorra

3 urte arteko haurrak, 405, 572

Tratu txarrak, 233

**Herriaren defendatzaileak**

Adinekoak, 188

Adingabeak, 188, 230

Giza eskubideak, 193

Haur hezkuntza

Haur eskolak, 188, 230

Kudeaketaren kalitatea, 188

**Herritarren eskubideak eta betebeharrak**

Entzunaldirako eskubidea

Errolda, 344

Erroldatzeko eskubidea, 338, 343

Atzerritarrak, 406

Espedienteak ikusteko aukera, 319, 338, 501

Errolda, 344

Zergen alorreko prozedura, 285

Herritarren parte-hartzea

Hiri plangintza, 363

Informaziorako eskubidea

Hiri plangintza, 364

Ingurumen arloko informaziorako eskubidea, 328

Jabetza pribaturako eskubidea, 574

Administrazioaren erantzukizuna, 574

Hiri plangintza, 574

Nekazaritza ustategiak, 498

Kontsumitzaileen eskubideak

Informaziorako eskubidea, 206

Osakidetzako erabiltzaileen eskubideak

Informaziorako eskubidea, 352

Medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, 355, 357

Ospitalea hautatzea, 357

Zergadunen eskubideak eta bermeak

Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga, 494

Zergak ordaintzerakoan berdintasun printzipioa

PFEZ, 498

Zergen arloko berdintasuna, 573

**Herritarren parte-hartzea**

Hiri plangintza, 363

**Hezkuntza**

Atzeritar adingabeak, 181

Eskolako indarkeria (bullying-a), 52, 186, 233, 402, 572

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza

Ikasteko laguntzak, 494

**Hezkuntza-premia bereziak**

Alergiak, 232, 242

Bekak, 232, 238, 409

Entzumen-urritasuna, 240

Gizarte taldeak, 171

Haur hezkuntza, 572

Lanbide heziketa, 232

**Hezkuntzarako eskubidea, 571**

Adingabeak

Hezkuntza-premia bereziak, 399, 572

Atzeritar adingabeak, 181

Haur hezkuntza

3 urte arteko haurrak, 405, 572

Ikasteko laguntzak, 494

**HIESa duten gaixoak**

Osasun prestazioak, 352, 577

**Hiri plangintza**

Herritarren parte-hartzea, 363

Informaziorako eskubidea, 364

Jabetza pribaturako eskubidea, 574

**Hiri-bideak mantentzeko lanak**

Administrazioaren erantzukizuna, 495, 499

**Hirigintza-oztopoak**

Arrapala eta eskailera mekanikoak, 414

Igogailuak, 414

Portuak, 414

**Hirigintzako antolamendua**

Desjabetzeak, 373

Hiri plangintza, 363

Ibaiak eta errekek antolatzea, 504

Plangintza, 372

**Hirigintzako diziplina, 364**

Balkoiak ixtea, 548

Hondakinak, 364

Legez kontrako eraikuntzak, 502

Obrak egiteko baimenak, 365, 368, 501

**Hirigintzako kudeaketa**

Urbanizazio proiektua, 370, 371, 495

**Hizkuntz ereduak**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 231, 237, 497

Haur hezkuntza, 231, 243

Lehen hezkuntza, 240

**Hizkuntz normalizazioa**

Euskara eta administrazio publikoa

Administrazioaren kontratazioa, 224, 227

Bekak, 226

Funtzio publiko orokorra, 225, 246

Titulazioak, 246, 265

Euskara eta hezkuntza  
 Hizkuntz ereduak, 231, 237, 240, 243, 497  
 Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 250, 568  
 Hezkuntza plangintza  
 D ereduak, 572

### **Hondakinak**

Hirigintzako diziplina, 364

## **I**

### **Ibaia eta erreka antolatzea**

Hirigintzako antolamendua, 504

### **Ibilgailuak erretiratzea**

Administrazioaren erantzukizuna, 296, 305

Gastuak itzultzea, 499

### **Ibilgailuak ibilgetzea**

Gastuak itzultzea, 500

### **Ijitoak**

Gizarte taldeak, 171

### **Ikasleen eskubideak eta betebeharrak**

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 405

### **Ikastegiak**

Polizia, 299

### **Ikasteko laguntzak**

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 494

### **Industriak**

Keak eta usainak, 327

Zaratak, 327

### **Informaziorako eskubidea**

Gizarte komunikabideak, 225, 228

Hiri plangintza, 364

Kontsumitzaileen eskubideak, 206

### **Ingurumen arloko informaziorako eskubidea, 328**

### **Ingurumen egokia izateko eskubidea, 577**

Atmosferako kutsadura

Ibilgailuen trafikoa, 578

Industriak, 327, 329

Ostalaritza establezimenduak, 326, 578

Kutsadura akustikoa

Biltokiak, 331

Diskotekak, 333

Ibilgailuen trafikoa, 578

Itsasontziak, 335

Obrak, 335

Ostalaritza establezimenduak, 326, 334, 578

Piroteknia, 207

### **Inskripzioak**

Erregistro zibila, 390

### **Intimitaterako eskubidea**

Atxilotuak

Gorputz miaketak, 567

Kutsadura akustikoa, 567

### **Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**

Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 249

Euskara eta hezkuntza, 250, 568

- Haur eskolak
  - Lanpostuen zerrenda, 249, 255, 503
- Kontratuen berriztapena, 249
- Musikene, 249
- Ordezkapenak
  - Amatasuna, 497
  - Aurretiko zerbitzuak, 497
  - Egindako zerbitzuak, 249, 253, 497
- Prozedura zigortzailea
  - Espedientea ikusteko aukera, 501
- Sarrera
  - Akatsak ongitzea, 246
  - Aurretiko zerbitzuak, 249, 251
  - Egindako zerbitzuak, 503
  - Titulazioak, 246, 265, 497

### **Irakasle ezegonkorrak**

- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 235

### **Irisgarritasuna**

- Adinekoak, 396
- Adingabeekin bidaiatzea
  - Garraio publikoak, 341
- Aparkalekuak, 295, 499
- Arkitektura-oztopoak, 365
- Arrapala eta eskailera mekanikoak, 414
- Eraikinak, 136, 412
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 580
- Garraio publikoak, 340
- Igogailuak, 414
- Oztopoak garraioan
  - Metroa, 411
  - Trenak, 341, 411
- Portuak, 414

### **Itsasontziak**

- Zaratak, 335

### **Itxaron zerrendak**

- Antzutasunaren tratamenduak, 353

## **J**

### **Jabetza pribaturako eskubidea, 574**

- Administrazioaren erantzukizuna, 574
- Hiri plangintza, 574
- Nekazaritza ustiategiak, 498

### **Jakinarazpenak**

- Prozedura zigortzailea, 494
  - Trafikoa, 293
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 494, 569
- Zergen alorreko prozedura, 284, 569

### **Jarduera sailkatuak**

- Biltokiak
  - Zaratak, 331
- Diskotekak
  - Zaratak, 333
- Industriak, 327, 329
- Itsasontziak
  - Zaratak, 335

Obrak  
 Zaratak, 335  
 Ostalaritza establezimenduak  
 Keak eta usainak, 326  
 Zaratak, 326, 334  
 Piroteknia  
 Zaratak, 207

**Jatorriगतiko bereizkeria**

Atzerritarrak  
 Polizia, 298, 299, 407, 520, 563

**Justizia administrazioa**

Zerbitzuaren kalitatea, 318

**K**

**Kalez kaleko salmenta**

Dekomisioa, 298, 495  
 Piroteknia, 207

**Keak eta usainak**

Ostalaritza establezimenduak, 326

**Kirolak**

Segurtasuna, 225  
 Xakea, 227

**Kontsumitzaileen eskubideak**

Informaziorako eskubidea, 206

**Kultur gutxiengoak**

Giza eskubideak, 181

**Kultur ondarea**

Arkitektura ondarea, 502

**Kutsadura akustikoa**

Biltokiak, 331  
 Diskotekak, 333  
 Industriak, 327  
 Intimitaterako eskubidea, 567  
 Itsasontziak, 335  
 Obrak, 335  
 Ostalaritza establezimenduak, 326, 334  
 Piroteknia, 207

**L**

**Laguntzak eta diru-laguntzak**

Eskulangintza, 208  
 Etxebizitza komunitarioak, 214, 218  
 Etxebizitzak erostea, 502  
 Familia, 215  
 Gas hornidura, 205, 209  
 Gizarte prestazioak, 222

**Lan-bereizkeria**

Polizia, 297

**Lanbide elkargoak**

Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, 360

**Lanbide heziketa**

Hezkuntza-premia bereziak, 232

**Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea**

- Familia, 215
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
  - Amatasuna, 497
- Lanaldia murriztea, 246, 263

**Laneko arriskuen prebentzioa, 359****Laneko jazarpen morala (mobbing-a)**

- Funtzio publiko orokorra, 247

**Laneko segurtasun eta osasuna, 359****Lanerako eskubidea, 184**

- Azpikontrataturiko langileak
  - Polizia, 297
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 124, 409

**Laneratzea**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 124, 409

**Legegintzaren beharra**

- Adingabeak, 405, 576
- Lurra, 362, 580

**Legez kontrako eraikuntzak**

- Hirigintzako diziplina, 502

**Legezketasun printzipioa**

- Aparkalekuak
  - Egoiliar txartelak, 295, 495, 499
- Kalez kaleko salmenta, 298, 495
- Udal tasak, 495

**Lehen hezkuntza**

- Eskola garraioa, 236, 239
- Hezkuntza-premia bereziak
  - Entzumen-urritasuna, 240
- Hizkuntz ereduak, 240

**Lurra**

- Legegintzaren beharra, 362, 580

**Lurralde historikoak**

- Gizarte zerbitzuak, 214

**Lurralde planak, 363****Lurraldearen antolamendua**

- Lurralde planak, 363

**M****Material didaktikoa**

- Giza eskubideak, 182

**Matrikulazio zerga**

- Salbuespenak
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 288, 410

**N****Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkua jasotzeko eskubidea, 369****Nazioarteko adopzioa**

- Adin-muga, 575

**Nekazaritza ustiategiak**

- Jabetza pribaturako eskubidea, 498

**Non bis in idem**

- Aparkalekuak, 294

**Norbaiten laguntza behar duten pertsonak zaintzea**

Sexuagatiko bereizkeria  
Emakumeak, 389

**Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea**

Atxilotuak, 566  
Atzerritarrak  
Polizia, 74  
Azpikontrataturiko langileak, 297, 301  
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 575  
Emakumeak  
Emakumeen kontrako indarkeria, 142, 378, 387, 562, 564  
Espetxeratuak, 308  
Terrorismoa, 308

**Norberaren erantzukizunaren printzipioa**

Prozedura zigortzailea  
Trafikoa, 497

**Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea**

Datu pertsonalak babestea, 566

**O****Obrak**

Zaratak, 335

**Obrak egiteko baimenak**

Hirigintzako diziplina, 365, 368, 501  
Udal tasak, 291

**Ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea**

Atzerritarrak  
Gizarte komunikabideak, 74

**Oinarrizko errenta**

Arrazoitu beharra, 219

**Oinarrizko eskubideak, 561**

Berdintasunerako eskubidea, 561  
Atzerritarrak, 298, 299, 407, 520, 563  
Emakumeak, 246, 247, 262, 263, 376, 384, 386, 388, 389, 497, 562  
Funtzio publiko orokorra, 386  
Lan-bereizkeria, 297  
Berdintasuneko baldintzetan sartzeko eskubidea  
Aurretiko zerbitzuak, 249, 251  
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 248, 266, 277, 568  
Funtzio publiko orokorra, 567  
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 249, 497, 503  
Lantokien adjudikazioa, 248, 275  
Sexuagatiko bereizkeria, 247, 262, 386  
Titulazioak, 246, 265  
Berrito gizarteratzeko eskubidea  
Espetxeratuak, 26, 310, 570  
Bizitzeko eskubidea  
Emakumeak, 142, 378, 387, 562, 564  
Espetxeratuak, 313  
Terrorismoaren biktimak, 563, 587  
EBko Konstituzioa, 181  
Grebarako eskubidea  
Enplegu-erregulazioko espedientea, 360



- Hezkuntzarako eskubidea, 571
  - Adingabeak, 399, 572
  - Atzerritar adingabeak, 181
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 96
  - Haur hezkuntza, 405, 572
  - Ikasteko laguntzak, 494
- Informaziorako eskubidea
  - Gizarte komunikabideak, 225, 228
- Intimitaterako eskubidea
  - Atxilotuak, 567
  - Kutsadura akustikoa, 567
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
  - Atxilotuak, 566
  - Atzerritarrak, 74
  - Azpikotraturiko langileak, 297, 301
  - Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 575
  - Emakumeak, 142, 378, 387, 562, 564
  - Espetxeratuak, 308
- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea
  - Datu pertsonalak babestea, 566
- Ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea
  - Atzerritarrak, 74
- Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea
  - Adingabeak, 52, 186, 402, 572
  - Adingabeko lege hausleak, 314
  - Atxilotuak, 300, 301, 387, 564, 566, 567, 592
  - Atzerritarrak, 74, 299, 407
  - Delituen biktimak, 317
  - Emakumeak, 142, 378, 387, 402, 562, 564
  - Espetxeratuak, 308, 310
  - Terrorismoaren biktimak, 563, 587
- Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 569
  - Atzerritarrak, 299, 303, 407
  - Auzibideratzeak, 317
  - Bidegabeko atzerapenak, 569
  - Doako laguntza juridikoa, 316
  - Emakumeak, 318
  - Jakinarazpenak, 293, 494, 569
  - Zergen alorreko prozedura, 569
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 86**
- Ortodontziak**
  - Osasun prestazioak, 351, 356
- Osakidetzako erabiltzaileen eskubideak**
  - Informaziorako eskubidea, 352
  - Medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, 355, 357
  - Ospitalea hautatzea, 357
- Osasun alorreko funtzio publikoa**
  - Lan baldintzak
    - Aparkalekuak, 248
  - Sarrera
    - Argitalpen ofiziala, 248
    - Azterketak, 248
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 248, 277
    - Lantokien adjudikazioa, 248, 275
  - Zerbitzuaren kalitatea, 248

**Osasun gastuak itzultzea, 356****Osasun prestazioak**

- Adinekoak, 394, 581
- Antzutasunaren tratamenduak, 352
  - Itxaron zerrendak, 353
- Endoskopiak, 351
- Errehabilitazio neuropsikologikoa, 352
- Espetxeratuak, 312, 570
  - Emakumeak, 311, 386, 562
- HIESa duten gaixoak, 352, 577
- Ortodontziak, 351, 356
- Osasun gastuak itzultzea, 356
- Sexuagatiko bereizkeria
  - Emakumeak, 386, 389, 562
- Tratamendu berriak, 351

**Osasun publikoa**

- Uraren osasungarritasuna
  - Zadorrako urtegiak, 121

**Osasun zerbitzuak**

- Itxaron zerrendak
  - Antzutasunaren tratamenduak, 353
- Osakidetzako erabiltzaileen eskubideak
  - Informaziorako eskubidea, 352
  - Medikuaren eta gaixoaren arteko harremana, 355, 357
  - Ospitalea hautatzea, 357

**Osasunerako eskubidea, 576**

- Adinekoak, 394, 581
- Atzerritarrak, 408, 541, 577
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 400
- Burutik gaixo daudenak, 90
- Emakumeak, 311, 386, 389, 562
- Espetxeratuak
  - Emakumeak, 311, 386, 562
  - Osasun prestazioak, 312, 570
- Etorkinak, 352
- HIESa duten gaixoak, 577
- Uraren osasungarritasuna
  - Zadorrako urtegiak, 121

**Osoatasun fisiko eta moralerako eskubidea**

- Adingabeak
  - Eskolako indarkeria (bullying-a), 52, 186, 402, 572
- Adingabeko lege hausleak
  - Tratu txarrak, 314
- Atxilotuak
  - Adingabeak, 566
  - Gorputz miaketak, 300, 566, 567
  - Tortura, 301, 387, 564, 592
  - Tratu txarrak, 300, 387, 564
- Atzerritarrak
  - Polizia, 74, 299, 407
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 575
- Delituen biktimak, 317
- Emakumeak
  - Emakumeen kontrako indarkeria, 142, 378, 387, 402, 562, 564
- Espetxeratuak
  - Terrorismoa, 308

Gaixo terminalak, 181  
 Terrorismoaren biktimak, 563, 587

### **Ostalaritza establezimenduak**

Keak eta usainak, 326  
 Zaratak, 326, 334

### **Oztopoak garraioan**

Metroa, 411  
 Trenak, 341, 411

## **P**

### **PFEZ**

Baterako aitorpena  
     Ondorengoekin bizitzea, 498  
 Etekin irregularrak  
     Erretiro sariak, 287  
 Salbuespenak  
     Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 285  
 Zerga-zorra, 281, 573

### **Piroteknia**

Kalez kaleko salmenta, 207  
 Zaratak, 207

### **Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 561**

Adinekoak, 394, 581  
     Egoitzak, 45, 214, 218  
     Egoitzaz kanpoko laguntza, 47  
     Errola, 396  
     Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 215, 221  
     Gizarte eta osasun prestazioak, 394, 581  
     Gizarte zerbitzuak, 45, 47, 159, 394, 581  
     Herriaren defendatzaileak, 188  
     Irisgarritasuna, 396  
     Osasun prestazioak, 394, 581  
     Telelaguntza zerbitzua, 213  
 Adingabeak, 575  
     Adingabeko lege hausleak, 56, 314, 398, 402, 576  
     Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 398  
     Babesik gabeko adingabeak, 49, 53, 216, 397, 402  
     Burutik gaixo daudenak, 93  
     Legegintzaren beharra, 576  
     Nazioarteko adopzioa, 575  
     Sasoikako langile adingabeak, 399  
 Atzerritarrak  
     Gizarteratzea, 406  
     Osasunerako eskubidea, 408, 541, 577  
 Burutik gaixo daudenak  
     Adingabeak, 93  
     Gizarte beharrian larrietarako laguntzak, 212  
 Espetxeratuak  
     Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 311  
 Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 365, 578  
     Atzerritarrak, 407  
     Babes ofizialeko etxebizitzak, 366, 367, 374, 497, 554, 579  
     Desjabetzeak, 373  
     Etxebizitzak erostea, 502

- Gazteak, 166, 365
- Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkoa jasotzeko eskubidea, 369
- Txiroak, 212
- Euskal herritartasun politikoa
  - Gizarte prestazioak, 222
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 295, 409, 499
  - Enplegu-zentro bereziak, 214
  - Errola, 411
  - Funtzio publiko orokorra, 266, 568
  - Gizarteratzea, 580
  - Irisgarritasuna, 136, 340, 341, 365, 411, 412, 414, 580
  - Kotizazio gabeko pentsioak, 311
  - Laneratzea, 124, 409
  - Osasun alorreko funtzio publikoa, 248, 277
  - Salbuespenak, 285, 288, 410
  - TMIZ, 283, 410, 500, 530, 573
- Familia, 575
  - Familia ugariak, 340
  - Lanbidea eta familiako bitzta uztartzea, 215, 246, 263, 497, 575
  - PFEZ, 498
- Gazteak
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 166
- Ingurumen egokia izateko eskubidea, 577
  - Atmosferako kutsadura, 326, 327, 329, 578
  - Kutsadura akustikoa, 207, 326, 331, 333, 334, 335, 578
- Kultur ondarea
  - Arkitektura ondarea, 502
- Lanerako eskubidea, 184
  - Azpikontataturiko langileak, 297
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 124, 409
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 86
- Osasunerako eskubidea, 576
  - Adinekoak, 394, 581
  - Atzerritarrak, 408, 541, 577
  - Burutik gaixo dauden adingabeak, 400
  - Burutik gaixo daudenak, 90, 577
  - Emakumeak, 311, 386, 389, 562
  - Espetxeratuak, 311, 312, 386, 562, 570
  - Etorrinak, 352
  - HIESa duten gaixoak, 577
  - Uraren osasungarritasuna, 121
- Txiroak
  - Gizarte beharrian larrietarako laguntzak, 211, 212
  - Oinarrizko errenta, 219
- Polizi etxeak**
  - Azpikontataturiko langileak, 297, 301
- Polizia**
  - Atzerritarrak, 74
    - Bereizkeriazko hizkera, 298, 407, 563
    - Identifikazio agiriak, 299, 303, 407
    - Jatorriagatiko bereizkeria, 299, 407, 520
  - Azpikontataturiko langileak
    - Polizi etxeak, 297, 301
  - Barne-ikerketak, 300

Giza eskubideak, 300  
 lkastegiak, 299  
 Lan-bereizkeria, 297  
 Tratu txarrak  
     Adingabeak, 300  
     Atxilotuak, 300, 387  
 Udalen atxilotze-lekuak, 112  
 Zerbitzuaren kalitatea, 300  
 Ziegak, 112

### **Poliziaren alorreko funtzio publikoa**

Sarrera  
     Nortasun probak, 251, 269, 568

### **Portuak**

Irisgarritasuna, 414

### **Prezio publikoak**

Etkez etxeko laguntza zerbitzua, 215, 221  
 Gizarte zerbitzuak  
     Telelaguntza zerbitzua, 213

### **Prozedura administratiboa**

Administrazioaren erantzukizuna  
     Bizkaibus, 498  
     Ebatzi beharra, 495, 499  
     Foru zerbitzu publikoak, 494  
     Garraio publikoak, 341, 349  
     Hiri-bideak mantentzeko lanak, 500  
     Ibilgailuak erretiratzea, 296, 305  
     Udal zerbitzu publikoak, 346, 495, 499  
     Zerbitzu publikoak, 340  
 Arrazoitu beharra  
     Oinarrizko errenta, 219  
 Ebatzi beharra  
     Zerbitzu publikoak, 337  
 Gastuak itzultzea  
     Udal zerbitzu publikoak, 499, 500  
 Gizarte zerbitzuak, 216  
 Herritarren eskubideak eta betebeharrak  
     Entzunaldirako eskubidea, 344  
     Espedientea ikusteko aukera, 285, 319, 338, 344  
     Ingurumen arloko informaziorako eskubidea, 328  
 Hirigintzako diziiplina, 364  
     Balkoiak ixtea, 548  
     Hondakinak, 364  
     Legez kontrako eraikuntzak, 502  
     Obrak egiteko baimenak, 365, 368, 501  
 Prozedura zigortzailea  
     Aparkalekuak, 294  
     Babes ofizialeko etxebizitzak, 497  
     Bidegabeko atzerapenak, 323  
     Dekomisioa, 298, 495  
     Ebatzi beharra, 499, 502  
     Espedientea ikusteko aukera, 501  
     Jakinarazpenak, 293, 494  
     Norberaren erantzukizunaren printzipioa, 497  
     Trafikoa, 293  
     Zehapenak betearaztea, 294, 304

- Zergen alorreko prozedura
  - Ebatzi beharra, 281
  - Jakinarazpenak, 284, 569
  - Zerga-bilketa, 495
  - Zergen alorreko prozedura zigortzailea, 281, 573

### **Prozedura zigortzailea**

- Babes ofizialeko etxebizitzak
  - Eraikuntzaren akatsak, 497
- Bidegabeko atzerapenak
  - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 323
- Dekomisioa
  - Kalez kaleko salmenta, 298, 495
- Ebatzi beharra
  - Trafikoa, 499, 502
- Espedientea ikusteko aukera, 501
- Jakinarazpenak
  - Trafikoa, 494
- Norberaren erantzukizunaren printzipioa
  - Trafikoa, 497
- Trafikoa, 293
- Zehapenak betearaztea
  - Trafikoa, 294, 304

## **S**

### **Salatzeko eskubidea**

- Atzerritarrak, 299, 303, 407

### **Saneamendu zerbitzuak, 347**

### **Sasoikako langile adingabeak, 399**

### **Sasoikako langileak, 39**

- Gizarte taldeak, 171

### **Segurtasun juridikoaren printzipioa**

- Udal tasak, 495

### **Sexuagatiko bereizkeria**

- Emakumeak, 384
  - Alardeak, 384
  - Banantzea eta dibortzioa, 390
  - Berdintasunerako politikak, 388
  - Gizarte komunikabideak, 376
  - Norbaiten laguntza behar duten pertsonak zaintzea, 389
  - Osasun prestazioak, 386, 389, 562

## **T**

### **TAO**

- Egoiliar txartelak
  - Legezketasun printzipioa, 294, 295, 495, 499
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 295, 499

### **Terrorismoaren biktimak, 563, 587**

- Gizarte taldeak, 171

### **Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak**

- Lanbide elkargoak, 360

### **Tortura**

- Atxilotuak, 301, 387, 564, 592

**Trafikoa**

- Aparkalekuak
  - Seinaleztapena, 296
- Bizikletak, 296
- Prozedura zigortzailea, 293, 499
  - Aparkalekuak, 294
  - Ebatzi beharra, 502
  - Jakinarazpenak, 293, 494
  - Norberaren erantzukizunaren printzipioa, 497
  - Zehapenak betearaztea, 294, 304

**Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga**

- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 283, 410, 500, 530, 573

**Tratu txarrak**

- Adingabeko lege hausleak, 314
- Atxilotuak, 300, 387, 564
- Espetxeratuak, 310
- Haur hezkuntza, 233

**Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 569**

- Atzeritarrak
  - Salatzeko eskubidea, 299, 303, 407
- Auzibideratzeak
  - Bidegabeko atzerapenak, 317
- Bidegabeko atzerapenak, 569
- Doako laguntza juridikoa, 316
- Emakumeak
  - Epailen ebazpenak, 318
- Jakinarazpenak, 293, 494, 569
- Zergen alorreko prozedura
  - Jakinarazpenak, 569

**Txakur arriskutsuak**

- Animaliak edukitzea, 538

**Txiroak**

- Gizarte beharizan larrietarako laguntzak
  - Berandutzeak, 211
  - Burutik gaixo daudenak, 212
  - Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 212
- Oinarrizko errenta
  - Arrazoitu beharra, 219

**U****Udal tasak**

- Legezkotasun printzipioa, 495
- Obrak egiteko baimenak, 291
- Segurtasun juridikoaren printzipioa, 495
- Zerga-bilketa, 495

**Udal zerbitzu publikoak**

- Administrazioaren erantzukizuna, 346
  - Ebatzi beharra, 495
- Eremu publikoak, 348
- Errepideak eta bideak, 339
- Hiri-bideak mantentzeko lanak
  - Administrazioaren erantzukizuna, 495, 499
- Ibilgailuak erretiratzea
  - Gastuak itzultzea, 499

Ibilgailuak ibilgetzea  
 Gastuak itzultzea, 500  
 Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 86  
 Saneamendu zerbitzuak, 339, 347  
 Ur hornidura, 339, 347

### **Udal zergak**

TMIZ  
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 283, 410, 500, 530, 573

### **Udalak**

Lankidetzarik eza, 296

### **Udalen atxilotze-lekuak**

Atxilotuak, 112

### **Unibertsitate hezkuntza**

Hezkuntza-premia bereziak  
 Bekak, 232, 238, 409  
 Titulazioak, 232

### **Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza**

Batxilergoa  
 Selektibitatea, 233  
 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
 Eskola garraioa, 231, 237, 497  
 Ezgaitasunen bat duten pertsonak  
 Hezkuntza-premia bereziak, 96  
 Hezkuntza plangintza  
 D eredia, 572  
 Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 405  
 Ikasteko laguntzak, 494  
 Irakasle ezegonkorak, 235  
 Lehen hezkuntza  
 Eskola garraioa, 236, 239  
 Selektibitatea  
 Batxilergoa, 233

**Ur hornidura, 339, 347**  
**Uraren osasungarritasuna**  
 Zadorrako urtegiak, 121

## **X**

### **Xakea**

Kirolak, 227

## **Z**

### **Zadorrako urtegiak**

Uraren osasungarritasuna, 121

### **Zainketa aringarriak**

Gaixo terminalak, 181

### **Zaratak**

Biltokiak, 331  
 Diskotekak, 333  
 Itsasontziak, 335  
 Obrak, 335  
 Ostalaritza establezimenduak, 326, 334  
 Piroteknia, 207



**Zenbait garraibideren gaineko zerga berezia, 288, 410****Zerbitzu publikoak**

- Administrazioaren erantzukizuna, 340
- Ebatzi beharra, 337
- Garraio publikoak, 340
  - Adingabeekin bidaiatzea, 341
  - Familia ugariak, 340
  - Irisgarritasuna, 340
- Gas hornidura
  - Instalazioak, 206
  - Laguntzak eta diru-laguntzak, 205, 209
- Nahi gabeko akatsak, 206

**Zergadunen eskubideak eta bermeak**

- Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga, 494

**Zergak ordaintzerakoan berdintasun printzipioa**

- PFEZ
  - Baterako aitortpena, 498

**Zergen alorreko prozedura**

- Ebatzi beharra, 281
- Espedienteak ikusteko aukera, 285
- Jakinarazpenak, 284, 569
- Zerga-bilketa
  - Udal tasak, 495
- Zergen alorreko prozedura zigortzailea
  - PFEZ, 281, 573

**Zergen alorreko prozedura zigortzailea**

- PFEZ, 281, 573

**Zergen arloko berdintasuna, 573****Ziegak**

- Atxilotuak, 112

**Zigorra non bete**

- Espetxeratuak, 310